












Haur eta gazteen aniztasuna EAEn

(Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak

José Antonio Oleaga Páramo (arg.)



CIP. Biblioteca Universitaria

Haur eta gazteen aniztasuna EAEn [Recurso electrónico] : (oker izendatutako) bigarren belaunaldiak / José Antonio Oleaga Páramo (arg.). – Datos. - Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2017. – 1 recurso en línea : PDF (875 p.)

En la port.: Ikuspegi, Inmigrazioaren Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de Inmigración y Eusko Jaurlaritza, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza = Gobierno Vasco, Departamento de Empleo y Políticas Sociales, Dirección de Política Familiar y Diversidad.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-621-8.

1. Hijos de inmigrantes – País Vasco. 2. País Vasco – Emigración e inmigración – Aspecto social. I. Oleaga Páramo, José Antonio, ed.

(0.034) 314.74-053.6(460.15)

Argitaraldi elektronikoa

Izenburu orokorra:	Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak
Argitalpenaren urtea eta lekua:	2017, Bilbo
Argitaratzailea:	Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Talde teknikoa:	José Antonio Oleaga Páramo (argitaratzailea) Maite Fouassier Zamalloa Iraide Fernández Aragón Julia Shershneva Gorka Moreno Márquez Beatriz Otero Gutiérrez Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe Maddalen Epelde Juaristi María José Martín Herrero Saioa Bilbao Urkidi Oier Ochoa de Aspuru Gulin Karmele Mendoza Pérez Mikel Mintegi Luengo
Diseinua eta maketazioa:	Taide Arteta Esnal, Ikuspegi – Inmigrazioaren Euskal Behatokia Emilia Oleaga Páramo
Dokumentazioa:	Antonio Gómez Parada, Ikuspegi – Inmigrazioaren Euskal Behatokia
Itzulpena:	Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
ISBN:	978-84-9082-621-8



AURKIBIDE OROKORRA

Aurkezpena	5
I. Atala. Euskal aniztasunaren panoramika	7
I.1 Hurbilketa teorikoa eta kontzeptuala	9
I.2 EAEko haur eta gazteen aniztasuna, zifretan	41
I.3 Adituen ikuspegia	91
II. Atala. Aniztasunaren ahotsak ikasgeletan	141
II.1 Aniztasuna ikasgeletan: hezkuntzaren alorreko ahotsak	143
II.2 Hautzaroa eta aniztasuna Euskadin (0-6 urte)	269
II.3 Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte)	331
III. Atala. Gazte anitzak, etorkizun kulturانيتza	493
III.1 Ibilbide arrakastatsuak: bizi-kontakizun anitzak	495
III.2 Afrikar jatorriko gurasoen alaba euskaldunak: oraina eta etorkizuna (16-25 urte) ..	673
III.3 Familiak eta aniztasuna Euskadin (0-25 urte)	723
III.4 Euskal gizarte berri eta anitza	797



AURKEZPENA

Migrazioak gizakiaren historiako fenomeno sozial zaharretako eta interesgarrietako bat dira. *Australopithecus afarensis* zuhaitzetatik jaistearekin batera hasi zen gizakiaren migrazio-prozesua; prozesu etengabea eta amaigabea, pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko nahian.

EAE emigratio-lurralde izatetik immigrazio-lurralde izatera igaro da berriki. XIX. mendearen amaiera aldetik, migrazio-prozesua irauli dugu, eta, gaur egun, XXI. mendea hasi berria den honetan, migrazio-prozesuen ñabardura berri bat ari gara ezagutzen, edo, behintzat, gure gizartearentzat berria dena: immigrazio atzerritarra. Euskal komunitatean lehendik ere ohitura kultural askotarikoak bazeuden, are gehiago daude orain immigrazio atzerritar hori dela-eta. Oso anitzak ginen, eta, hemendik aurrera, are eta gehiago izango gara.

Nazioarteko ingurunea aztertuz, aniztasuna kudeatzeko paradigma asimilazionistari, multikulturalistari eta interkulturalistari buruz ikasi dugu, eta horien lorpenei eta akatsei buruz. Euskal gizarteak interkulturalitate-eredua aukeratu du, aukera demokratikoena eta pertsona guztien eskubideak gehien errespetatzen dituen baita.

Gizarte gisa, herritarren eskubideetan, tratu-berdintasunean eta diskriminazio ezean oinarritutako estrategia bat dugu. Bide hori jorratzen du 2019an euskal gizartearen gehiengoak izenpetutako Migrazioarako Euskal Itun Sozialak. Bai eta hainbat erakunderen (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak) jarduera-planek ere, herritarren eskubideetan eta betebeharretan oinarritutako gizarte baten elementuak, balioak eta ikuspegiak partekatuta.

Badakigu, gainera, gizarte arrakastatsuenak eta etorkizun hobeak dutenak direla pertsonak (immigrazioa) erakartzeko eta aniztasuna behar bezala kudeatzeko

gaitasun handiena dutenak. Hortaz, oso kontu garrantzitsua da gero eta handiagoa den gure aniztasuna nola kudeatzen dugun. Eta nola lantzen dugun pertsona guztien gizarteratzea, prozesu horrek hainbat forma har baititzake. Ez dago gizarteratzeko modu bakar bat: gizarteratzea segmentatua da, asimetrikoa, sistema bat osatzen duten zenbait dimentsiotan oinarritzen da, eta hainbat forma hartzen ditu.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da immigrante atzerritarren seme-alaben errealitate soziala aztertzea: ezagutza sortu behar dugu, aniztasuna hobeki kudeatzeko ikuspegi sozialetik eta politikotik, interkulturalitatea oinarri hartuta.

Hori horrela, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak pertsona horien errealitate sozialari buruzko azterlan bat egin zuen 2015ean. Zenbait ikuspuntutatik egin dugu, fenomenoaren nondik norakoak hobeki jasotzeko. Ikuspuntu teorikoetatik landu dugu, datu estatistikoetatik, gaian adituak diren pertsonen ikuspegitik, hezitzaileen ikuspegitik, gizarteratze arrakastatsuko biografien testigantzetatik, jatorri atzerritarreko familien testigantzetatik, Otik 6ra bitarteko eta 7tik 16ra bitarteko haurren jarrerak eta jokabideak aztertuz, leinu afrikarretako emakumeen ahotsak entzunez, zenbait leinutako euskal gazteen narratibetatik, eta, oro har, euskal gizarte osotik.


Azken urteotan, leinu atzerritarreko (jatorri atzerritarreko aita eta/edo ama) euskaldunen errealitate soziala zenbait angelutatik aztertzen duten hamar txosten egin ditugu. Hemen aurkezten dugun txosten honek horiek guztiak biltzen ditu, eta espero dugu baliagarria izatea fenomeno sakonkiago ezagutzeko, eta ekintza politikoari laguntzeko, aniztasunaren kudeaketa interkultural arrakastatsua izango duen euskal gizarte bat lortzeko bidean.

Azkenik, ez dugu utzi nahi lerro hauek eskaintzen diguten abagunea ahotsak aukeratzen eta informazioa biltzen lagundu diguten pertsona, eragile, erakunde eta entitate guztiei eskerrak emateko; izan ere, laguntza hori gabe ezinezkoa izango zen gure ahalegina behar bezala gauzatzea. Bereziki, Nerea Herasen lana azpimarratu nahi dugu, gure behatokian egonaldi bat egiten ari zela *Familiak eta aniztasuna Euskadin (0-25 urte)* txostenean parte hartu baitzuen. Hainbeste izan dira gure taldearekin lan egin duten gizarte-eragileak eta norbanakoak, txosten bakoitzean guztiak aipatzen saiatu arren, baten bat ahaztu bazaigu, barkamena eskatzen dugula.

José Antonio Oleaga Páramo
Ikerketaren zuzendaria

I. Atala

Euskal aniztasunaren panoramika



1. kapitulua

Hurbilketa teorikoa eta kontzeptuala

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe



2. kapitulua

EAEko haur eta gazteen aniztasuna, zifretan

Beatriz Otero Gutiérrez eta Karmele Mendoza Pérez




3. kapitulua

Adituen ikuspegia

Gorka Moreno Márquez

Hurbilketa teorikoa eta kontzeptuala

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe





AURKIBIDEA

Sarrera	13
1. Bigarren belaunaldiaren kontzeptua	17
2. Bigarren belaunaldiei buruzko ikuspegiak eta teoriak	19
2.1. Asimilazio mailakatua	20
2.2. Bazterketaren belaunaldiak	24
2.3. Bigarren belaunaldiaren abantaila	25
2.4. Neoasimilazionismoa	25
3. Bigarren belaunaldiak eta eskola-errendimendua	27
4. Bigarren belaunaldiak eta identitatea	31
5. Bigarren belaunaldiak eta eskola-segregazioa	33
Bibliografia	35



SARRERA

1980ko hamarkadan egin zen immigrazioaren bigarren belaunaldiak deritzeneen egoerari buruzko nazioarteko lehen azterlana. Hain zuzen, “International Migration and the Cultural Sense of Belongingness of the Second Generation” izeneko proiektuak hainbat herrialdetako bigarren belaunaldien egoera aztertu zuen (Liebkind, 1989). Alabaina, 1990eko hamarkadan hasi zen gai hori garrantzi zientifikoa hartzen. Hala, urte haietan hainbat azterlan egin zituzten adituek, eta bigarren belaunaldien gizarteratze-prozesua aztertze teorian nagusiak agertzen hasi ziren.

1990eko hamarkadaren hasieran, “bigarren belaunaldien gainbehera” kontzeptua agertu zen; Estatu Batuetako gizartean immigrazioaren bigarren belaunaldiak arrakasta automatikoa izango zuela uste zutenen teoria kolokan jarri zuen kontzeptua. Gansok bere ikerketan aipatu zuen 1965. urteaz geroztik Estatu Batuetara iritsi ziren immigranteen seme-alaba askok eta askok ez zutela aukerarik izango *mainstream* ekonomiako enpleguak eskuratzeko. Egile horren arabera, batez ere immigrante hispaniarren eta arraza beltzekoen seme-alabek jasan beharko zuten egoera hori, gurasoek eskuratu ahal izan zituzten enpleguetara iritsi ezin hori, alegia.

Urtebete geroago, asimilazio mailakatuaren teoria formulatu zuten eta “beheranzko asimilazio” kontzeptua agertu zen Estatu Batuetan (Portes & Zhou, 1993). Kontzeptu horren arabera, nazionalitate jakin batzuetako bigarren belaunaldiak, batez ere jatorri hispaniarrekoak eta arraza beltzekoak, gizaritegiturako behe-beheko klaseen artean integratzeko prozesu batean leudeke, eta pobrezia- eta bazterketa-egoera etengabe.

Lan hauek immigranteak eta ondorengo belaunaldiak AEBko gizartean integratzeko prozesuari buruzko eztabaida piztu zuten; hain zuzen, gizarte haren testuinguruan asimilazioaren kontzeptua birplanteatu beharra izan zen

eztabaida horren muina. Lan horiek erakutsi zuten asimilazioa ez dela prozesu erdi-automatikoa eta lineala, belaunaldien arteko ibilbideen bitartez gertatzen dena; aitzitik, ikuspegi teoriko horiek nabarmentzen dute badirela beste zenbait faktore ere, eta horien arabera integrazio-prozesuak era batekoak edo beste-koak izaten direla. Ikuspegi horien artean, bi hauek dira nabarmentzekoak: asimilazio mailakatuaren teoria eta neosimilazionismoa.

Beraz, bigarren belaunaldiei buruzko azterlan horiek ezbaian jarri dituzte imigrazioaren gizarteratzeari buruzko teoria klasikoak. Pertsona migratzaileen seme-alaben integrazio-prozesua eta gizarte-mugikortasuna aztertzen dugun neurrian, migrazio-fenomenoak sortzen duen aniztasun sozialaren egituratzea bera aztertzen dugu. Gizarte-mugikortasuna, lan-merkatu sartzeari, hezkuntza-sistemak giza kapitala eskuratzeko eta, modu horretara, lan merkatuan lehiatu ahal izateko duen eginkizuna, seme-alaben posizioa gurasoekiko, identitate berriak edo bazterketa-egoerak berak, alderdi horiek guztiak funtsezko elementuak dira literatura zientifikoan. Horrenbestez, dimentsio anitzeko aztergaia dugu eskuartean.

Arestian adierazi dugunez, 1990eko hamarkadaz geroztik azterlan asko egin dira bigarren belaunaldiei buruz; nazioarte mailako lan konparatibo ugari. 1990eko hamarkadaren erdialdera ISCEY proiektuak “International Comparative Study on Ethnocultural Youth” (Berry et.al., 2006) hainbat herrialdetako akulturazio-prozesuak aztertu zituen. 1990eko hamarkadaren amaieran, berriz, EFFNATIS proiektuak (“Effectiveness of National Integration Strategies towards Second”) Europako zortzi herrialdetako gizarteratze-politiken eta politika horiek bigarren belaunaldien gain izandako emaitzen arteko erlazioa aztertu zuen (Aparicio, 2007). Garai berean, baina Estatu Batuetan, Portesek eta Rumabutek CILS ikerketa-proiektua gauzatu zuten (“Children of Immigrants Longitudinal Study”); hain zuzen, Hego Floridako eta Kalifornia Hegoaldeko bigarren belaunaldien luzetarako azterketa egin zuten bi egileok (Portes & Rumbaut, 2001). Berrikiago, Europan, TIES proiektuak (“Immigranteen bigarren belaunaldiaren gizarteratzea Europan”) Europako hainbat herrialdetan bigarren belaunaldien gizarteratze-prozesua nola gauzatzen ari den aztertu du (Crul, Schneider, & Leslie, 2012). Eta ez da argitaratu zaharra “The Children of Immigrants at School. A Comparative Look at Integration in the United States and Western Europe” talde-lana, Estatu Batuetako eta Europako hainbat hiritan eskola-esparruan bigarren belaunaldien egoera zein den aztertu eta alderatu duen ikerketa. Hain zuzen, lan horrek aukera eman du AEBko eta Europako testuinguruen azterketa konparatiboa egiteko (Alba & Holdaway, 2013).

Espanian gai horri buruzko literatura zientifikoa aztergai dugula, ILSEG proiektua (“Bigarren belaunaldiaren luzetarako ikerketa”) da nabarmentzekoa (Aparicio & Portes, 2014).

Milurteko berria hasi zenez geroztik, ekoizpen akademiko oparoa jaso da talde-lanean gauzatutako hainbat argitalpenetan. Hauek dira adibide azpimarragarrienetako batzuk: García eta Carrascoren “Población inmigrante y escuela: conocimientos y saberes de investigación”; Grupo Interdisciplinario de Investigadores/as Migrantes-en “Familias, niños, niñas y jóvenes migrantes. Rompiendo estereotipos”; López eta Cachónen “Juventud e inmigración. Desafíos para la participación y la integración” liburua; eta Huelvako kasuari buruzko Hijai azterlana, Gualdak koordinatua (García & Carrasco ed., 2011; Grupo Interdisciplinario de Investigadores/as Migrantes, 2010; López & Cachón coord., 2007; Gualda ed., 2010)

Euskal Herrian, orain arte ez da lan askorik egin bigarren belaunaldiei buruz. Neurri handi batean migrazio-dinamikaren beraren ondorioa da hain azterlan gutxi izatea; izan ere, dinamika hori dela-eta, Estatuko bigarren belaunaldi horrek beste lurralde batzuetan baino atzerapen handiagoz hartu du garrantzia gure gizartean. Hala ere, egindako lanen artean nabarmentzekoak dira Barquínnek immigrazioari eta hezkuntza-esparruko aniztasunari buruz eginikoak (Barquín, 2015; Barquín, 2009). Esparru berean, badira beste zenbait egile eta lan ere. Etxeberriak (Etxeberria et al., 2012), adibidez, ikasleen etorkinekiko jarrerak aztertu izan ditu; Fouassierrek eta Shershnevak (2014) ikasle atzeritarrek euskal hezkuntza sisteman duten presentzia aztertu izan dute ikuspegi kuantitatibotik; eta Fullaondo, Moreno eta Aierdik (2015) bigarren belaunaldizat har daitezkeen biztanleak neurtzeko metodologia berri bat garatu dute, 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldan jasotzen den “jatorria” aldagaian oinarrituta.

1

Bigarren belaunaldiaren kontzeptua

Bigarren belaunaldia kontzeptua modu zabalean erabili izan da eta erabiltzen da etorkinen etxeguneetan hazi diren neska-mutilak definitzeko, alde batera utzita gurasoen jatorriko herrialdean jaioak diren edota jaio ondoren iritsi diren harrerako herrialdera (Alba & Holdaway, 2013).

Alde horretatik, 1.5 belaunaldia eta 2.0 belaunaldia bereizi ohi dira. 1.5 belaunaldia gurasoen jatorriko herrialdean jaio eta gizarteratze-prozesua han hasi duten seme-alabek osatzen dute, eta 2.0 belaunaldia, berriz, harrerako herrialdean jaio eta gizarteratu direnek.

Kategoria horien bidez aukera dugu honako talde hauek bereizteko: beren proiektuarekin migratu zuten pertsonak (1.0), harrerako herrialdean jaio zirenak (2.0) eta jatorriko herrialdean jaio eta harrerako herrialdean gizarteratu zirenak (1.5).

“Bigarren belaunaldia” kontzeptua bera ere eztabaida- eta polemika-iturri da. Egiten zaion kritiketako bat da kolektiboa homogeneousatzen duela eta ez duela talde zabal horren berezko aniztasuna islatzen. Era berean, kolektiboa estigmatizatu ere egiten du, gurasoen jatorria lehenesten duelako beste edozein ezaugarriren gainetik.

Literatura zientifikoan askotan eztabaidatu da nola definitu talde hori: *bigarren belaunaldi*, *pertsona immigranteen seme-alaba*, *etorkin gazte* eta abar. Termino horien arteko aldeak ez dira semantikoak edo terminologiari loturikoak soilik; aitzitik, kontzeptuzkoak ere badira, analisirako perspektibarekin eta aztergaiaren beraren definizioarekin lotura duten diferentziak aipatzen direlako.

2

Bigarren belaunaldiei buruzko ikuspegiak eta teoriak

Adituek hainbat eredu teoriko landu dituzte bigarren belaunaldi horien gizarteratze-prozesua ulertu ahal izateko. Apariciok eta Portesek, aurrez Portes eta Rivak eginiko lanean oinarrituta, joera teoriko nagusien laburpena egin zuten, eta bi ikuspegitan banatu zituzten korronteak: kulturalista eta estrukturalista (Aparicio & Portes, 2014; Alejandro & Rivas, 2011). Korronte kulturalistak honako faktore hauek hartzen ditu ardatz bigarren belaunaldien gizarteratzea aztertzeko: kulturaren, hizkuntzaren edo identitatearen asimilazioa eta gisa-koak; korronte estrukturalistak, aldiz, beste faktore hauek hartzen ditu aztergai: hezkuntza-maila, lan-merkatua, errenta-maila, etab.

Korronte hauen barnean, bi ikuspegi dira bereziki garrantzitsuak (1. taula): bat, korronte teoriko kulturalistaren barnean, neoasimilazionismoaren teoria (Richard Alba eta Victor Nee dira teoria hori landu duten egile nabarmenenak); eta bestea, korronte estrukturalistaren barnean, *Asimilazio mailakatuaren* teoria (Alejandro Portes eta Ruben Rumbaut dira teoria hori gorpuztu duten egile nabarmenenak). Bi ikuspegi horien barnean badira beste teoria batzuk, hala nola *Erronka hispaniarra*, Samuel Huntingtonena, ikuspegi kulturalistaren barnean, eta *Bigarren belaunaldiaren abantaila* eta *Bazterketaren belaunaldien* tesia, azken biak ikuspegi estrukturalistaren barnean.

1. taula. *Integrazioari buruzko ikuspegi teorikoen panoramika*

IKUSPEGIA	AUTORE NAGUSIAK	INTEGRAZIOAREN IKUSMOLDEA (ASIMILAZIOA)	ONARRI ENPIRIKOAK
Ikuspegi kulturalistak			
Erronka hispaniarra	Samuel Huntington	Ezkorra, ez da ari gertatzen.	Teorikoa.
Neosimilazionismoa	Richard Alba eta Victor Nee	Baikorra. Iraganeko belaunaldietan bezala gertatzen da, eta, era berean, gizarte hartzailea eraldatzen ari da.	Immigranteen integrazioari buruzko ikerketa historiko eta garaikideen gaineko bigarren mailako berrikuspena.
Ikuspegi estrukturalistak			
Bigarren belaunaldiaren abantaila	Philip Kasinitz, John Mollenkopf, Mary C. Waters eta Jennifer Hoidaway	Baikorra. Bigarren belaunaldia abantailak ematen dizkion eremu sozial eta kultural batean dago.	New Yorkeko gazte helduen bigarren belaunaldiaren gaineko zeharkako azterketa.
Bazterkeriaren belaunaldiak	Edward Telles eta Vilma Ortiz	Ezkorra. Mexikar-estatubatuarrak langile-klasean geldirik daude edo arraza-azpitalde batean integratzen ari dira.	Los Angelesko eta San Antonioko mexikar-estatubatuarren hiru belaunaldiren baino gehiagoren gaineko luzetarako azterketa.
Asimilazio segmentatua	Alejandro Portes eta Ruben Rumbaut	Mistoa. Asimilazioa lagungarri edo kaltegarri izan daiteke lorpen sozial eta ekonomikoetarako, gurasoen giza kapitalaren, familia-egituraren eta txertatze-testuinguruen arabera.	San Diegoko eta Florida hegoaldeko bigarren belaunaldiko gazteen gaineko luzetarako azterketa, nerabezartik lehen helduarora.

Iturria: Aparicio & Portes (2014), Portes & Rivas (2011) oinarri hartuta

Asimilazio mailakatua

Estatu Batuetan bigarren belaunaldiek eginiko gizarteratze-ibilbideen azterketan du sorburua asimilazio mailakatuaren teoriak. Teoria honen oinarritzko ideia da talde hori gizarte-egituraren zer mailatan edo segmentutan dagoen jakitea. Hau da, ez da ezbaian jartzea ea gizarteratze-prozesua gertatzen den ala ez, baizik eta gizarterearen zer mailatan integratuko den talde jakin hori. Portes, Fernández-Kelly eta Hallerren irudiko, hiru alderdi hauek baldintzatuko dute prozesu hori: *“Aurreko literaturaren arabera, gaur egungo immigranteek hiru erronka nagusiri egin behar diete aurre hezkuntza-ibilbidean eta lan-munduan arrakasta lortu ahal izateko. Lehenik eta behin, arrazakeriak edo arrazaren ondoriozko bazterketak indarrean dirau egun ere; bigarrenik, AEBko lan-merkatuak bidegurutze bat hartu du eta gero eta desoreka handiagoak ditu; eta hirugarrenik, egoera txarrean dauden hiriko eremu batzuetan baztertutako biztanleria ari da finkatzen”* (Portes, Fernández-Kelly, & Haller, 2006, p. 9).

Egile horien arabera, arraza-bazterketa, lan-merkatuaren egitura eta etorkinak bizi diren auzoen gizarte-testuingurua dira asimilazio-prozesuan modu eraba-

kigarrian eragiten duten baldintzak eta faktoreak, eta familia etorkinek horiei egin behar diete aurre. Zehaztu beharrekoa da, ordea, faktore horiek Estatu Batuetako egoera sozial eta urbanoaren testuinguruan ulertu eta interpretatu behar direla (Portes, Fernández-Kelly, & Haller, 2006).

1. Arraza-bazterketaren faktoreari dagokionez, egileok azpimarratzen dute oinordetza fenotipikoak eta desberdintasun fenotipikoen ondoriozko harrisi baztertzailak eragotzi egiten dutela bigarren belaunaldien gizarte-mugikortasuna. AEBko kasuan, bazterketa hori batez ere beltzen komunitateak jasaten duela.
2. Lan-merkatuak hartu duen bidegurutzea edo dualtasun gero eta handiagoa da beste faktoreetako bat. Desindustrializazioa areagotzen eta zerbitzuen garrantzia handitzen joan da Estatu Batuetan, eta, horren ondorioz, lan-merkatuan aldaketak gertatu dira eta prekarizazioa sortu da. Prekarizazio horren oinarrian, zerbitzuen sektoreak bultzatutako dualtasun gero eta handiagoa legoke; izan ere, sektore hori bi enplegu motatan zatituta dago: alde batetik, lan kualifikatuak eta ondo ordainduak, eta, bestetik, lan ez-kualifikatuak eta gaizki ordainduak. Bai hezkuntzak eta bai bazterketaren harresiak segmentu prekario horretarantz bultzatzen dituzte bigarren belaunaldiak.

Aipatutako egileen iritziz, desagertzen joan diren industriako enplegu horiei esker gertatu zen Europako immigranteen eta haien bigarren belaunaldien gizarte-mugikortasuna 1940ko eta 1950eko hamarkadan. Enplegu horiei esker gizartean aurrera egin ahal izan zuten immigrante horiek, eta, hein handi batean, erdi-mailako klase zuria osatu zuten. Hain zuzen, gehiengoaren gizarte-klase horretara iristea dute jomuga immigrazioaren bigarren belaunaldiek.

Bigarren belaunaldiek ondo ordaindutako enpleguen segmentu horretara iristea dute xede, eta, horretarako, hezkuntzan bilatzen dituzte goranzko gizarte-mugikortasun hori lortzeko beharrezkoak diren baliabideak. Alabaina, alde nabarmenak daude nazionalitate batzuen eta besteen artean, eta, hala, lan-merkatuko segmentu kualifikatuan lanean hasteko aukera eman dezakeen unibertsitate-titulua lortzeko itxaropen eta benetako aukera gutxiago dute batzuek besteek baino. Hain zuzen, egoera sozio-ekonomiko ahulenean dauden immigranteek dute aukera gutxien.

3. Hirugarren eta azken faktorea etorkinak bizi diren gizarte-testuinguruarekin loturikoa da. Estatu Batuetako hirietan, biztanle etorkinen gehiengoa pobrezia- eta kriminalitate-arazoak dituzten auzoetan bizi da, eta arazo horiek eragin kaltegarria dute bigarren belaunaldiengan; besteak beste, eskola garaia baino lehen uzten dutelako, gazte-bandetan parte hartzen dutelako edota droga kontsumitzen eta trafikatzan hasten direlako. Tes-

tu inguru sozial eta urbano kaltegarri hori funtsezko faktorea da beheranzko asimilazioa gertatzeko; hau da, bigarren belaunaldiek gizartean duten posizioa gurasoena baino beheragokoa izateko.

Asimilazio mailakatuaren teorikoen iritziz, familiek eta seme-alabek erronka horiei nola aurre egiten dieten eta aurre egiteko zer baliabide dituzten, horren arabera izango da asimilazio-prozesua.

Aparicio eta Portesek asimilazio mailakatuaren ikuspegitik gizarteratze-prozesuan kontuan izan beharreko beste zenbait aldagai aipatzen dituzte, hala nola etnia bereko komunitateen izaera, nazionalitate batzuekiko eta besteekikiko indarrean diren gobernu-politikak eta harrerako gizartean arraza eta etnizitatearekiko dauden estereotipoak (Aparicio & Portes, 2014). Faktore horiek testuinguru jakin bat sortzen dute eta bigarren belaunaldiek eta horien gurasoek horri egin behar diote aurre gizarteratze-prozesuan.

Hala ere, faktore horien eragina, bere horretan, ez da nahikoa integrazio-prozesua esplikatzen: gurasoek dituzten baliabideak eta eragozpenei aurre egiteko martxan jartzen dituzten estrategiak ere kontuan hartu behar dira. Alde horretatik, Apariciok eta Portesek (2014) kontuan hartu beharreko hiru guraso-baliabide, edo *oinarrizko faktore erabakigarri* aipatzen dituzte: aiten eta amen giza kapitala, harrerako testuinguruak egiten duen ekarpena eta familia-egitura.

1. Giza kapitalari dagokionez, gurasoek zenbat eta giza kapital handiagoa izan –hau da, zenbat eta gaitasun eta prestakuntza arautu gehiago izan–, orduan eta baliabide gehiago izango dituzte familiek beren seme-alabak hezteko. Egile horien iritziz, orobat, familia-baliabide gehiago izatearen ondorioz, gurasoek itxaropen handiagoak ere izan ditzakete bigarren belaunaldiekiko.
2. Gurasoek hona iristean izan duten harrerako testuingurua faktore oso garrantzitsua da, eta hor ere hainbat faktore baldintzatzaile izaten dira: gobernu-politikak, harrerako gizartearen jarrerak eta etnia bereko komunitatearen baliabideak berak, besteak beste. Aparicioaren arabera, hiru faktore horien konbinazioak harrerako hiru testuinguru mota sor ditzake kanpotik datozenentzat: aldekoa, neutrala edo aurkakoa.
3. Familia-egiturari dagokionez, egileek bi familia-eredu bereizten dituzte: guraso bakarrekoak eta bi guraso biologikoak buru dituzten familiak. Eta gaineratzen dute bigarren familia-eredu horrek zenbait abantaila eman ditzakeela.

Apariciok eta Portesek (2014) beste faktore bat ere aipatzen dute: bigarren belaunaldien akulturazio selektiboa. Horrek esan nahi du bigarren belaunal-

diek harrerako gizartearen hizkuntza eta kultura berenganatzen dituztela eta, aldi berean, gurasoen jatorriko hizkuntzari, balioei eta ohiturei eusten dietela.

Hainbat egileren iritziz, akulturazio selektiboa abantaila bat izan daiteke bigarren belaunaldientzat, bi hizkuntzak dakizkiten neurrian harrerako gizartearen egoera hobean koka daitezkeelako, aldi berean gurasoen jatorriarekiko lokarriari utsita. Aparicio eta Portesen arabera (2014) akulturazio selektiboa gurasoen eta etnia bereko komunitatearen estrategia bat litzateke. Gainera, prozesu hori gauzatzeko bada, ezinbestekoa da gurasoen ahalegina seme-alabak harrerako gizartearen behar gehien duten segmentuekin ez parekatzeko.

Ondoko 2. taulan asimilazio mailakatuan oinarritutako belaunaldi-arteko mugikortasun-ibilbideen eredu batzuk ikus ditzakegu. Portesek eta Rumbautek zehaztutako eredu horrek (2001) orain arte azaldutako faktoreen arabera hiru ibilbide mota erakusten ditu (Portes & Rumbaut, 2001).

2. taula. Belaunaldien arteko mugikortasunaren ibilbideak: ereduak

GINARRIZKO DETERMINATZAILEAK	LEHEN BELAUNALDIA	BIGARREN BELAUNALDIA	HIRUGARREN BELAUNALDIA ETA ONDORENGOAK
Giza kapitala	1. ibilbidea. Erdiko klasearen estatusaren lorpena, giza kapital handi batean oinarritua.	→ Lanbide- eta enpresa-okupazioak eta erabateko akulturazioa.	→ Erabateko integrazioa erdi-mailako korrante sozial eta ekonomikoan.
Familia-egitura		→ Akulturazio selektiboa ^a : erdiko klasearen estatusaren lorpena, hezkuntzako lorpenen bidezkoa.	→ Erabateko akulturazioa eta erdi-mailako korrante integrazioa.
Txertatzeko moduak		→ Akulturazio disonantea ^b eta hezkuntzako lorpen apalak.	→ a. Beste batzuen mendeko eskulanetan geldirik. → b. Bizimodu desbideratueterako beheranzko asimilazioa.

a. Gurasoen hizkuntza gordetzen da, ingelesa eta ohitura estatubatuarrak barneratzearekin batera.

b. Gurasoen kultura baztertzen da eta belaunaldien arteko komunikazioa hautsi egiten da.

Iturria: Aparicio & Portes (2014), Portes & Rumbaut (2011) oinarri hartuta

2. taulan ikus daitekeenez, ereduak definitutako hiru ibilbide motetan, hauek dira oinarritzko faktore erabakigarriak: familien giza kapitala, familia-egitura eta gizarteratzeko moduak.

Lehen ibilbidean, lehen belaunaldiko immigranteak harrerako gizarteko erdi-mailako klasean txertatzen dira, batez ere beren giza kapital altuari esker. Kasu honetan, bigarren belaunaldiek goranzko gizarte-mugikortasuna izango lukete, gurasoen giza kapital altu horren gaitasunak eta eraginak bultzatuta, eta enpresa- eta lanbide-okupazioak eskuratuko lituzketela. Era berean, bi-

garren belaunaldi horrek erabateko akulturaziorako joera izango luke harrerako gizartearekiko. Hirugarren belaunaldiaren kasuan, integrazioa erabatekoa litzateke harrerako gizarteko erdi-mailako klase sozio-ekonomikoan. Ibilbide teoriko honetan, beraz, goranzko gizarte-mugikortasuna nagusitzen da, batez ere giza kapitalaren faktorean oinarrituta.

Bigarren ibilbidean, immigranteen lehen belaunaldia harrerako gizarteko langile-klasean txertatzen da, eta etnia bereko komunitate indartsuak bizi diren lekuetan bizi da. Horrek aukera ematen die komunitate horietako baliabideak eskuratzeko eta gizarte-sareak baliatzeko. Bigarren belaunaldiak akulturazio selektiboa du bereizgarri, eta hezkuntzan eskuratutako lorpenen bitartez harrerako gizarteko erdi-mailako klaserako bidea egiten du. Hirugarren belaunaldiaren kasuan, erabateko akulturazioa gertatzen da eta belaunaldi horretako kideak erdi-mailako klasean integratzen dira. Laburbilduz, ibilbide-eredu horrek ere goranzko gizarte-mugikortasuna erakusten du, etnia bereko komunitateek duten rola garrantzian eta akulturizazio-prozesuan oinarrituta.

Azkenik, hirugarren ibilbidearen abiapuntuko egoera bigarrenaren antzekoa da: immigranteen lehen belaunaldia harrerako gizarteko langile klasean txertatzen da, baina aldea da kasu honetan etnia bereko komunitate ahulak bizi diren inguruneetan bizi dela. Ibilbide honetan, bigarren belaunaldiak beste era bateko akulturizazio baten alde egiten du; hala, gurasoen kulturari uko egiten dio eta belaunaldi-arteko komunikazioa hausten du. Ibilbide horretan, gainera, bigarren belaunaldiak emaitza kaskarrak lortzen ditu hezkuntzan. Hirugarren belaunaldiaren kasuan, ereduaren arabera bi egoera sor daitezke: batean, hirugarren belaunaldi hori gizarte-mugikortasuneko prozesuan ez atzera ez aurrera geratzen da, eskuz egin beharreko edo mendeko lanetan; bestean, belaunaldi horren beheranzko asimilazioa gertatzen da. Beraz, ibilbide honen bereizgarria da ez dagoela goranzko gizarte-mugikortasunik eta, kasu batzuetan, kontrako, beheranzko mugikortasuna dagoela.

Bazterketaren belaunaldiak

Ikuspegi estrukturalistarekin jarraituz, Bazterketaren belaunaldien tesia (Belaunaldi-arteko bazterketa ere esaten zaio) ideia honetan oinarritzen da: bigarren belaunaldiak baztertuta eta gizartean gora egiteko aukerarik gabe daude ez gaitasun gutxiago dituztelako baizik eta etnia- edo arraza-talde indartsuetako kide izateak marka eta bereizgarri jakin batzuk eransten dizkielako. Hein batean, arraza-bereizkeriaren tesian oinarritzen da tesi hori; lan horietan Los Angelesko eta San Antonioko mexikar-estatubatuarren hainbat belaunaldi aztertu zituzten egile horiek (Telles & Ortiz, 2008). Hainbat belaunaldiren luzetarako azterketa baten bidez, egiaztatu zuten lehen eta bigarren belau-

naldiaren artean aurrerapauso nabarmenak sortzen zirela egoera ekonomikoari zegokionez, baina bilakaera hori eten egiten zela gero. Kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukerarik ez izatea, diskriminazioa, aurkako immigrazio-politikak eta etniaren araberrako eskulan merkean oinarritutako eskualdeko ekonomia, horiek ziren, funtsean, eten horren edo esperientzia txar horren arrazoiak.

Bigarren belaunaldiaren abantaila

IIdo estrukturalistaren barnean beste ikuspegietako bat Bigarren belaunaldiaren abantailaren tesia da. Kasinitzek New Yorken egindako ikerketa bat da tesi horren oinarri empirikoa (Kasinitz et al. , 2008). Tesi horren ideia nagusia da bigarren belaunaldiko gazteek, gizarte eta kultura arloko hainbat korronteren bidegurutzean dauden heinean, informazio-masa eta euskarri handiagoa dutela eskura, eta, horri esker, gaitasun berezia eskuratzen dutela mugikortasunerako. Gazte horiek beren komunitateetako gizarte-sareetara nahiz erakundee-tako baliabideetara jotzen dute. Teoria horretan oinarrituta (Europar oraingoz ez dago babestuko duen ebidentziarik), EAEko kasuan, gazte hauek aurreratu egingo lituzkete gurasoak gizarteratzeko lasterketan, baina ez bertako kultura-korronteetako erabateko akulturazioa lortu dutelako, bi kulturetan indarrean diren baliabideak erabiltzen dituztelako baizik.

Neosimilazionismoa

Bestalde, ikuspegi kulturalistaren barnean, hor dago Neosimilazionismoaren teoria. Alba eta Nee dira teoria hori gorpuztu duten egile nagusiak (Alba & Nee, 2003). Teoria horren muina da, lehenago edo beranduago, asimilazio kultural eta politikoa gertatu egiten dela azkenean, eta gaur egungo migrazioetan ere gertatu egiten dela prozesu hori, eta iraganeko prozesuekin alde handirik gabe, gainera.

Ikuspegi horrek adierazten du immigranteak ez direla gizartearen segmentu jakin batean integratzen, interakzio-korronte zabal batean baizik, eta korronte hori, aldi berean, beraiekin batera eraldatzen doala. Gaur egungo immigranteen seme-alabak, baita ondorengo belaunaldia ere, gizarte-gorputzean egokitzen dira, nahiz eta horretarako denbora behar den eta gizarte-mugimendua ez den beti goranzkoa. Harrerako herrialdearen kulturen murgiltzea eta kultura hori barneratzea prozesu saihestezina da.

Europar, hor dugu TIES proiektua (“Immigranteen bigarren belaunaldiaren gizarteratzea Europar”). Europako hainbat herrialdetan bigarren belaunaldien gizarteratze-prozesua aztertzen du proiektu horrek (Cruel, Schneider, & Leslie,

2012). Proiektu horrek analisirako esparru bat zehazten du Europako testuinguruan bigarren belaunaldiak aztertzeko; hori du alderik interesgarrienetako bat. Ikuspegi estrukturalistatik abiatuz, azterlanaren ondorioetako bat da, Europan, AEBn ez bezala, bigarren belaunaldiek testuinguruaren eta horko baldintzen arabera hartzen dutela lekua harrerako gizarteetan.

Crul, Schneider eta Leslieren arabera (2012), Europan, bigarren belaunaldiek gizartearen beren lekua aldarrikatzen duten aldi berean, gizarte-talde nagusiaren gehiengoa gainbeheran dator eta gero eta ahalmen gutxiago du gainerako talde etnikoak asimilaziorantz presionatzeko.

Kasu honetan, gizarteratze-testuinguruaren eta testuinguru hori baldintzatzen duten faktoreen eraginez, gizarteratze-prozesu eta gizarte-posizionamendu desberdinak sortzen dira, eta prozesu horiek era batekoak edo bestekoak izan daitezke lurralde-eskalaren arabera (aldeak daude estatuko eta tokiko eskalaren artean) eta nazionalitateen beren arabera (aldeak estatuen artean). Bestalde, Europako kasuaren bereizgarrietako bat, eta beharbada AEBko kasuekiko alderik handienetako bat, ongizate-estatuak gizarteratze-prozesuan daukan eginkizuna da. Alde horretatik, ongizate-estatuak goranzko gizarte-mugikortasuneko prozesuei ematen die bide, batez ere hezkuntza-sistemaren bitartez, hezkuntza-sistema horrek aukera ematen duelako horrelako prozesuak gertatzeko, gurasoen laguntza ekonomikoa nahitaez erabakigarria izan gabe.

Erakunde publikoek hainbat arlotan (hezkuntza, lan-merkatua, etxebizitza, erlijioa, herritarrak) bultzatutako politika publikoen arabera zehazten da gizarteratze-testuingurua. Era berean, gizarte- eta politika-testuingurua oso garrantzitsuak dira bigarren belaunaldiek gizarte eta kultura arloko jardun eta ekimenetan parte hartu ahal izateko eta harrerako gizarteko kide direla sentitzeko. Alde horretatik, aniztasuna bera Europako gizarteko gaur egungo gizarteratze-testuinguruaren beste alderdietako bat da.

3

Bigarren belaunaldiak eta eskola-errendimendua

Hezkuntza-esparrua izan da bigarren belaunaldiei buruzko lan askoren aztergai nagusia. Besteak beste, eskola-bereizketa, hezkuntza-errendimendua eta horrek gizarte-desorekekin duen zerikusia, itxaropenak eta bizikidetzak ohiko aztergaiak izan dira ikerlan akademikoetan.

Pertsona migratzaileen seme-alabek eta haien familiek hezkuntza arloan dituzten itxaropenen harira, ikerlan batzuek diote badagoela lotura itxaropen horien eta hezkuntza-errendimenduaren artean. Cebollak eta Martínez de Lizarrondok (2015) zehazten dutenez, itxaropenen eta ikasketa-errendimenduaren arteko lotura “Wisconsin Eredueak” deritzonak jaso zuen, eta horren arabera, ageriko lotura dago familiaren ezaugarrien eta hezkuntza-errendimenduaren artean (Sewell, Haller, & Portes, 1969). Hala, egile horien irudiko, familiaren ezaugarrien arabera izango lirateke seme-alaben itxaropenak, eta, aldi berean, itxaropen horien arabera haien errendimendua (Cebolla & Martínez de Lizarrondo, 2015, p. 3). Carrascok, Pàmiesek eta Bertranek (2009) berreszten dute ez dagoela kontrakoa frogatuko duen inolako azterlan ez kuantitatiborik ez kualitatiborik, eta zehazten dute familien egoera sozio-ekonomikoa eta gurasoen hezkuntza-maila loturik daudela seme-alaben eskola-errendimendurekin (Carrasco, Pàmies, & Bertran, 2009). Portesek eta Apariciok (2014) itxaropen horien eragina aztertu dute, eta ondorioztatu dute, Espainian, estatua sozio-ekonomikoa, Espainian bizitzen egindako denbora eta gaztelania jakitea hezkuntza-itxaropenak hobetzeko faktoreak direla.

Alabaina, lotura hori gorabehera, 1980ko hamarkadaz geroztik eginiko beste azterlan batzuek diote familiaren estatua eta ezaugarriak ez direla seme-alaben itxaropenetan eragina duten faktore bakarrak, eta beste alderdi eta baldintza batzuek ere izan dezaketela eragina, hala nola gizarte-inguruneak, auzoak, adiskide-sareak edota lan-merkatuak ematen dituen pizgarriek (Cebolla & Martínez de Lizarrondo, 2015). Ildo berean, Carrascok, Pàmiesek eta

Bertranek (2009) diote familien eta eskolen arteko harremana ere kontuan hartzeko faktorea dela, lagungarri eta eragingarri delako familia migratzaileen seme-alaben gizarteratze-prozesuan eta hezkuntza-errendimenduan. Horrez gain, Carrascoren iritziz (2011) kontuan hartu beharrekoa da faktore instituzionalek sortzen duten eragina ere; adibidez, ikasle atzerritarrei egokitzen zaizkien hezkuntza-ibilbideek duten eragina (Carrasco, 2011).

Alde horretatik, ILSEG proiektuak gai hori izan du aztergai eta jasotako datuek diote aita eta ama immigranteek mendeko postuak betetzen dituztela Espainiako lan-merkatuan, eta, hezkuntza-mailari dagokionez, %39k ez duela bigarren hezkuntzako graduaziorik eta %10,4k baino ez duela unibertsitate-titulua. Datu horiek gorabehera, ordea, gurasoek hezkuntza arloan itxaropen handiak dituzte seme-alabekiko; hain zuzen, %48,5ek uste du seme-alabek unibertsitate-tituluren bat edo graduondokoren bat lortuko dutela. Gainera, %87,4 gustura daude seme-alabek jasotako heziketarekin, eta %90,8k uste du bertako familietako seme-alabek adinako aukerak izango dituztela gizarte-mugikortasunerako (Aparicio & Portes, 2014).

Bestalde, Cebollak eta Martínez de Lizarrondok (2015) Nafarroako Foru Erki-degoko kasua aztertu dute, eta *immigranteen baikortasunaren paradoxa* deritzon oinarritu dute beren analisian. Horren arabera, familia immigranteen seme-alabek beren egoera sozio-ekonomikoaren arabera legokiekena baino itxaropen handiagoa dute eskola-errendimenduekiko (Kao & Tienda, 1995). Eta ikerketaren emaitzak baieztatu egiten du hipotesi hori.

Eztabaida horren muinean dagoen sakoneko arazoa da gizarte-desorekak zenbateko eragina duen immigranteen seme-alaben errendimendu akademikoan. Desoreka horren osagaietako bat sozio-ekonomikoa da, baina, horrez gain, agerikoa da jatorriaren arabera osagai etnikoa eta/edo arrazari loturikoa ere. Álvarez de Sotomayorrek (2011) gai hori bera jorratu du, eta galdetzen du ea hezkuntza-errendimenduan dauden aldeak klase-jatorriaren edo jatorri etnikoaren ondorio diren. Galdera horren oinarrian soziologiaren planteamendu bat dago, eta horren arabera bi ikuspegi zehazten dira hezkuntza-errendimendua azaltzeko: alde batetik, familiaren egoera ekonomikoan oinarritzen direnak eta, bestetik, ezaugarri kulturaletan azpimarra egiten dutenak. Alde horretatik, jatorri etnikoa aipatzen duelarik, Álvarez de Sotomayorrek (2011) immigranteen jatorriko berezko kultura-ezaugarri guztiak hartzen ditu aintzat.

“Alabaina, hausnarketa horrek ez ditu kontuan hartzen Colemanek aipatutako beste bi esplikazio. Alde batetik, gurasoen giza kapitalarekin loturikoa. Kapital hori gurasoen hezkuntza-mailaren arabera neurtzen da, eta aurreko bi mekanismoen adierazletzat edo proxy-tzat erabiltzen da; izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, gurasoen giza kapitalaren adierazle horrek argi bereizteko moduan eragin dezake seme-alaben errendimenduan. Eta bestetik, bestelako esplikazio mota bat, aurrekoak ez bezala halabeharrez gizarte-klasearekin

loturarik ez duena eta pixkanaka lekua egiten joan dena literatura espezializatuan. Gurasoek seme-alaben hezkuntzan duten inplikazioari buruzko esplikazioez ari naiz, eta horien artean kapital sozialaren kontzeptuan oinarritzen dena azpimarratzen da hemen” (Alvarez de Sotomayor, 2011, p. 27).

Ateratako ondorioen artean, egile horrek dio familien baldintza sozio-ekonomikoak direla faktore garrantzitsuena hezkuntza-esparruan sortzen diren aldeak eta desorekak azaltzeko, baina faktore hori ez dela diferentzia guztien sorburua, eta, beraz, ezinbestean beste batzuk ere hartu behar direla aintzat.

Heath, Rotheron eta Kilpik (2008) Europako hainbat herrialdetan bigarren belaunaldien, haien hezkuntza-errendimenduen eta lan-merkatuan duten posizionamenduen egoera aztertu duten hainbat lanen analisi zabala egin dute, eta analisi horren ondorioetako bat da immigranteak desabantaila-egoeran daudela, hezkuntza-errendimendu apala dutelako eta lan-merkatuaren egituran beheko mailetan daudelako.

Alde horretatik, Álvarez de Sotomayorrek (2011) Heath, Rotheron eta Kilpik-
ren lana (2008) aztertu du, eta zehaztu du, bigarren belaunaldien eskola-
errendimenduen harira, Europan hiru egoera mota bereiz daitezkeela herrial-
deen arabera. Lehenik eta behin, Belgikan, Frantzia eta Alemanian, 1960ko
eta 1970eko hamarkadetan Europa Hegoaldeko herrialdeetatik (Portugal, Ita-
lia, Espainia eta Jugoslavia ohia) emigratu zuten familia etorkinen bigarren be-
launaldiek hezkuntza arloan izan dezaketan desabantaila familien jatorri sozio-
ekonomikoarekin dago lotuta. Bigarrenik, Britainia Handian, Belgikan, Dani-
markan eta Norvegian bizi diren turkiar, magrebtar eta pakistandar jatorriko
familien bigarren belaunaldiei dagokienez, familien jatorri sozio-ekonomikoa
hezkuntza arloko zenbait desorekaren sorburua da baina ez guztiena, eta tur-
kiarrek Holandan eta Alemanian eta magrebtarrek Frantzia duten desaban-
taila ia erabat jatorri sozio-ekonomikoaren ondorioa da. Hirugarrenik, Britainia
Handian, indiarren eta txinatarren hezkuntza arloko abantaila hainbat aldagai-
ren ondorio da, ez soilik gizarte-klasean duten posizioaren ondorio.

4

Bigarren belaunaldiak eta identitatea

Familia migratzaileen seme-alaben identitatea alderdi garrantzitsua da migrazioen soziologian, eta loturik dago gizarteratze-prozesuarekin. Identitatearen dimentsioa oinarrizko dimentsioa da, eta immigratuen integrazio ekonomiko, sozial eta kulturala osatzera dator (Terrén, 2011, p. 3)

Alde horretatik, zehaztu beharrekoa da kidesun nazionalaren inguruko jarre-
rak aztertu izan direnean, jarrera horiek identitate etnikoaren garapenarekin lotzeko joera dagoela (Terrén, 2011), eta analitikoki beharrezkoa dela identitate etnikoa eta identitate nazionala bereiztea.

Ikuspegi teorikotik, bigarren belaunaldien identitate-garapena batez ere bi ikuspegiren esparruan aztertu izan da:

1. Lehena eta klasikoena gizarteratze-eredu asimilazionistarekin loturik dago. *Straight-line model* edo eredu linealaz ari gara. Horren arabera, denbora igaro ahala, akulturazio-prozesuak bigarren belaunaldien kultura-asimilazioa sortzen du, eta horrek lehen belaunaldiaren identitatea osatzen duten elementu sinbolikoak ezeztatzen ditu. Hori dela eta, hala dio Terrenek:

“Horrenbestez, onartzen bada gizabanako baten identitate etniko eta kulturalaren parte dela kidesun nazionalaren sentimendua, tesi klasiko horren arabera espero daitekeena da immigranteen ondorengoak, pixkanaka, identifikatuago sentituko direla harrerako herrialdearekin edo herrialde horretako kide sentituko direla” (Terrén, 2011, p. 103).

2. Bestalde, asimilazionismoa ezbaian jarri zen modu berean, eredu lineala ere auzitan jarri dute hainbat ikerketak eta azterlanek. Egiten zaion kritika nagusia da eredu lineal hori ez dela beti betetzen. Bigarren ikuspegi kritiko honen arabera, bigarren belaunaldietan badira kulturaz gairik

identitate mistoak edo anitzak. Hala, denboraren joanak ez du zertan lehen belaunaldiaren identitatea galtzea ekarri; aitzitik, egiaz gertatzen dena da jatorriko identitatea osatzen duten erreferente sinbolikoekiko atxikimendua eta lokarriak ahultzen joaten direla baina ez direla desagertzen: hain zuzen, erreferente horien osagaiak eta intentsitateak gorabeheratsuak dira, eta harrerako gizarteko erreferente sinboliko berriekin nahasten dira.

5

Bigarren belaunaldiak eta eskola-segregazioa

Ikasle etorkinen eskola-segregazioa da bigarren belaunaldien gaian kezka sozial eta politiko nagusietako bat. Gizartean kezka sortzen du ikasle etorkinak ikastetxe jakin batzuetan pilatzeak –normalean titulartasun publikoko zentroetan– eta pilaketa hori ikasleen eskola-errendimenduarekin lotu ohi du jendeak. Hala dio Lópezek:

“Eskola-segregazioak kezka sortzen du, harrerako gizartean integrazio-prozesua oztopatzen duelako; izan ere, atzerritar jatorriko ikasleen eta bertakoen hartumana galarazten du eta, horren ondorioz, bi taldeen arteko gizarte-sareak sortzea zailtzen du” (López D. , 2011, p. 555).

Bestalde, zehaztu beharrekoa da eskola-segregazioa estu loturik dagoela bizileku-segregazioarekin eta horien eraginez agerian geratzen direla espazioarekin eta biztanleriaren ordezkapenarekin zerikusia duten zenbait dinamika (Massey & Denton, 1988; Fullaondo, 2008). Alde horretatik, Valientek (2008) azaltzen du ikasle atzerritarren pilaketa gertatzen denean bertako hainbat ikaslek beste ikastetxe batzuetara jotzen dutela, bereziki herrian sare publikoa eta pribatua daudenean. Bestalde, nabarmentzekoa da bizileku-segregazioaren eta eskola-segregazioaren mailak ez direla parekoak: Schindlerren arabera (2007), eskola-segregazioaren indizeek bizileku-segregazioaren indizeek baino segregazio-balio handiagoak adierazten dituzte.

Zonifikazio-politikak eta ikastetxea esleitzeko politikak izaten dira ikasleen eskola-banaketan eta, beraz, segregazio-mailan eragiten duten faktore nagusietakoak. Alegre, Benito eta Gonzálezek (2008) Kataluniako kasuan aztertu dute gai hori eta ondorioztatu dute zonifikazio-ereduek eragin handia dutela. Hala, egile horiek diote eragin-eremu bakoitzerako eskola bakar bat esleitzen duten ereduek eskola-segregazioa areagotzen dutela. Beste eredu batzuek, aldiz, segregazio hori murrizten laguntzen dute, batez ere ikastetxean

sartu ahal izateko baldintza objektiboak ezartzen dituzten ereduak. Horrela gertatzen da, adibidez, eragin-eremu berean eskola publikoak nahiz pribatuak eta/edo itunduak esleitzen direnean. Ikasle etorkinak eskola jakinetan pila-tzeak hezkuntza-errendimenduan dituen ondorioei dagokienez, Garridok eta Cebollak (2010) PISA emaitzetan oinarritutako azterlan batean diote eskola-errendimenduaren kalte erantsi bat dagoela ikasle etorkinen kopurua handia den kasuetan. Alabaina, zehazten dute eragin negatibo hori apaldu egiten dela azterketa horretan zenbait aldagai kontrolatzen direnean, hala nola ikastetxeen ezaugarriak (titulartasuna), aiten eta amen hezkuntza-maila eta ikasleen beste zenbait faktore indibidual. Dena dela, Garridok eta Cebollak (2010) ondorioztatzen dute egon badagoela lotura ikasle etorkinen kontzentrazio-mailaren eta eskola-errendimenduaren artean.

Bestalde, Carrasco et al. egileek (2008), eztabaida horretan beren ekarpena egite aldera, eskola-segregazioa modu sakonagoan aztertzen dute eta eskola barneko segregazioaren ondorioetan jartzen dute arreta:

“Hori dela eta, hezkuntza arloko desoreketan eragina duten prozesu sozialen ikuspegitik, aintzat hartu behar da eskola-arteko segregazioa, nola ez, baina horrez gain, kontuan hartu behar dira hezkuntza-erakundeetan ikasleek eskura dituzten ibilbideak ere, hezkuntza-inklusioko helburuei begira eskola barneko segregazioaren prozesuak eta ondorioak ulertu ahal izateko” (Carrasco et al., 2011, p. 370).

Carrasco et al. egileen iritziz (2011), hierarkizazio- eta mailakatzeko-egituretan oinarritzen diren ikastetxe barneko hezkuntza-antolaketak (Valiente, 2008) (Schindler, 2007) (Alegre, Benito, & González, 2008) (Garrido & Cebolla, 2010) baldintzatu egiten du ikasleen ikasketa- eta gizarteratze-prozesua (Carrasco et al., 2011). Eta, alde horretatik, hainbat azterlanetan ateratako ondorioa nabarmentzen dute: hau da, ikasleen eta irakasleen beharrianak antolatzekeko helburuarekin ikasleak mailaka taldekatzeak hasierako posizioak berritu baino ez dituela egiten eta ez duela lortzen ikasketa- eta irakaskuntza-prozesuak eraginkorrak izatea.



BIBLIOGRAFIA

- Alba, R., & Holdaway, J. (2013). *“The Children of Immigrants at School. A Comparative Look at Integration in the United States and Western Europe”*. New York: New York University Press.
- Alba, R., & Nee, V. (2003). *Remaking the American main stream. Assimilation and contemporary immigration*. Cambridge: Harvard University Press.
- Alegre, M., Benito, R., & González, I. (2008). Procesos de segregación y polarización escolar: la incidencia de las políticas de zonificación escolar. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 12 (2), 1-26.
- Álvarez de Sotomayor, A. (2011). *El rendimiento académico de los alumnos inmigrantes en España: un estudio de caso. Tesis Doctoral*. Granada: Universidad de Granada.
- Aparicio, R. (2007). La integración de las “segundas generaciones” en Europa: El Estudio EFFNATIS (eficacia de las políticas de integración de los hijos de inmigrantes). In A. López, & L. Cachón, *Juventud e inmigración. Desafíos para la participación y la integración* (119-138). Kanarietako Gobernuaren Enplegu eta Gizarte-gaietako Saila, Gaztedia alorreko Zuzendaritza Nagusia.
- Aparicio, R., & Portes, A. (2014). *Crecer en España. La integración de los hijos de inmigrantes*. Barcelona: Obra Social “La Caixa”.
- Barquín, A. (2009). ¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela. *Educar* (44), 81-96.

- Barquín, A. (2015). ¿Qué debe hacer la escuela con las culturas familiares del alumnado inmigrante? *Educar*, 51/2, 443-464.
- Berry et.al., J. (2006). Immigrant Youth: Acculturation, Identity, and Adaptation. *Applied Psychology*, 55 (3), 303-332.
- Carrasco et al., S. (2011). Segregación escolar e inmigración en Cataluña: Aproximaciones etnográficas. In F. García, & S. Carrasco, *Población inmigrante y escuela: conocimientos y saberes de investigación* (369-402). Hezkuntza Ministerioa.
- Carrasco, S. (2011). Segregación escolar e inmigración: Repensando planteamiento y alternativas. In F. García, & S. Carrasco, *Población inmigrante y escuela. Conocimientos y saberes de investigación* (271-287). Hezkuntza Ministerioa.
- Carrasco, S., Pàmies, J., & Bertran, M. (2009). Familias inmigrantes y escuela: Desencuentros, estrategias y capital social. *Revista Complutense de Educación*, 20 (1), 55-78.
- Cebolla, H., & Martínez de Lizarrondo, A. (2015). Las expectativas educativas de la población inmigrante en Navarra. ¿Optimismo inmigrante o efectos de escuela?. *Revista Internacional de Sociología*, 73 (1).
- Crul, M., Schneider, J., & Leslie, F. (2012). *The European second generation compared*. Amsterdam: Amsterdam University Press.
- Etxeberria et al., F. (2012). Prejuicios, inmigración y educación. Actitudes del alumnado de secundaria. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 75 (26,3), 97-131.
- Fouassier, M., & Shershneva, J. (2014). Sistema educativo y población extranjera en el País Vasco. In G. Moreno ed., *Inmigración e impacto de la crisis. Anuario de la Inmigración en el País Vasco 2013* (115-128). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Fullaondo, A. (2008). *Inserción y lógica residencia de la inmigración de la inmigración extranjera en la ciudad. El caso de Barcelona. Doktore-tesia*. Barcelona: Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa.
- Fullaondo, A., Moreno, G., & Aierdi, X. (2015). Familias y descendientes de la inmigración en Euskadi: Una nueva propuesta de medición. *Españian izan diren Nazioarteko Migrazioei buruzko VIII. Biltzarra*. Granada.

- Gans, H. (1992). Second-generation decline: Scenarios for the economic and ethnic futures of the post-1965 American immigrants. *Ethnic and Racial Studies*, 12 (2), 173-192.
- García, F., & Carrasco ed., S. (2011). *Población inmigrante y escuela: Conocimientos y saberes de investigación*. Madril: Hezkuntza Ministerioa.
- Garrido, L., & Cebolla, H. (2010). Rendimiento educativo y concentración de inmigrantes en las escuelas españolas: PISA 2006. *Presupuesto y Gasto Público*, 61/2010, 159-176.
- Grupo Interdisciplinario de Investigadores/as Migrantes. (2010). *Familias, niños, niñas y jóvenes migrantes. Rompiendo estereotipos*. Madril: IEPALA ARGITALETXEA.
- Gualda, E. (2010). *La segunda generación de inmigrantes en Huelva: estudio HIJAI*. Xativa: Estrella Gualda.
- Heath, A., Rethon, K., & Kilpi, E. (2008). The Second Generation in Western Europe: Education, Unemployment, and Occupational Attainment. *Annual Review of Sociology*, 34, 211-235.
- Kao, G., & Tienda, M. (1995). Optimism and Achievement: the educational performance of immigrant youth. *Social Science Quarterly* (76), 1-19.
- Kasinitz et al., P. (2008). *Inheriting the city: the children of immigrants come of age*. Cambridge: Harvard University Press.
- Liebkind, K. (1989). *New Identities in Europe: Immigrant Ancestry and the Ethnic Identity of Youth*. London: European Science Foundation series: "Studies in European Migration".
- López, A., & Cachón coord., L. (2007). *Juventud e inmigración. Desafíos para la participación y la integración*. Kanarietako Gobernuaren Enplegu eta Gizarte-gaietako Saila, Gaztedia alorreko Zuzendaritza Nagusia.
- López, D. (2011). Educación e inmigración en Cataluña: un estado de la cuestión. *Documents d'Anàlisi Geogràfica*, 57 (3), 551-562.
- Massey, D., & Denton, N. (1988). The dimensions of residential segregation. *Social Forces*, 67, 281-315.
- Portes, A., & Rivas, A. (2011). The adaptation of migrant children. *The Future of Children*, 21(1), 219-246.

- Portes, A., & Rumbaut, R. (2001). *Legacies: the story of the immigrant second generation*. Berkeley: University of California Press.
- Portes, A., & Zhou, M. (1993). The New Second Generation: Segmented Assimilation and Its Variants. *Annals of the American Academy of Political and Social Sciences* (530), 74-96.
- Portes, A., Fernández-Kelly, P., & Haller, W. (2006). La asimilación segmentada sobre el terreno: La nueva segunda generación al inicio de la vida adulta. *Migraciones*, 19, 7-58.
- Schindler, B. (2007). Living and Learning Separately?: Ethnic Segregation of School Children in Copenhagen. *Urban Studies*, 44 (7), 1329-1354.
- Sewell, W., Haller, O., & Portes, A. (1969). The educational and early occupational attainment process. *American Sociological Review*, 34 (1), 82-92.
- Telles, E., & Ortiz, V. (2008). *Generations of exclusion: Mexican-Americans, assimilation, and race*. New York: Russell Sage.
- Terrén, E. (2011). Identidades desterritorializadas. El sentimiento de pertenencia nacional entre los adolescentes de familias inmigradas. *Papers*, 96 (1), 97-116.
- Valiente, O. (2008). ¿A qué juega la concertada?: La segregación escolar del alumnado inmigrante en Cataluña (2001-2006). *Profesorado: Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 12 (1).

EAEko haur eta gazteen aniztasuna, zifretan

Beatriz Otero Gutiérrez eta Karmele Mendoza Pérez





AURKIBIDEA

Sarrera	45
1. Bigarren belaunaldien ezaugarriak EAEn.....	47
1.1. Banaketa lurralde historikoen arabera	49
1.2. Sexua, adina eta jatorria	50
1.3. Nazionalitatea eta jatorria	51
2. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko biztanleen alderaketa erroldako datuetan oinarrituta	57
2.1. Gurasoen ikasketa-maila eta lan-egoera	57
2.2. Seme-alaben ikasketa-maila eta jarduera	60
2.3. Etxegunearen egitura.....	65
2.4. Bizilekuari buruzko datuak	67
3. Bigarren belaunaldien zenbait ezaugarri, EABI oinarri hartuta	71
3.1. Egoera administratiboa	72
3.2. Ikasketa-maila eta hezkuntzari lotutako alderdiak	73
3.3. Aktibitatea, okupazioa eta langabezia	74
3.4. Arazo ekonomikoak	75
4. Pobreziari eta Gizarte-desberdintasunei buruzko Inkestaren azterketa.....	77
4.1. Pobreziaren eta prekarietatearen adierazleak mantenuari dagokionez (errenta).....	78
4.2. Pobrezia- eta prekarietate-adierazleak metatze-alorrean (ondarea eta epe luzerako bizi-baldintzak)	80
4.3. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetikoak.....	81
5. Ondorioak	83
5.1. Bigarren belaunaldien ezaugarriak EAEn.....	84
5.2. Ikasketak	84

5.3. Egoera administratiboa eta lan-egoera	85
5.4. Pobreziarekin lotura duten faktoreak	85
Bibliografia	87



SARRERA

1990eko hamarkadan Ameriketako Estatu Batuetan (aurrerantzean AEB) interes eta *corpus* akademiko handia sortu zen “bigarren belaunaldien” azterketaren harira; hau da, AEBra iritsitako migratzaileen seme-alaben harira. Hamarkada horretan bertan, Portes eta Apariciok zehaztutako moduan (2013), Espainiako estatuak migratzaileak hartu egiten zituen, igorri baino gehiago, eta, alde horretatik, batez ere harrera-herrialde bihurtzeko bidean zen. Era berean, migrazio-fluxuak gero eta heterogeneoagoak bihurtzen joan ziren jatorriari, generoari eta adinari zegokionez. Haurren eta gazteen ehunekoa handitzen joan den heinean, AEBn gertatu zen moduan, kolektibo horien integrazio-prozesua bilakatu da eztabaidaren muina, eta fenomenoaz azaltzeko ezin konta ahala ikerketa eta teoria sortu dira, azterlan eta ikerketa askotarikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE), ordea, sakoneko azterlan gutxi egin dira jatorri atzerritarreko immigranteen ondorengoei buruz, eta egindako gehienak eskola barnean ikasle etorkinen egoeraren berri jakiteko helburuarekin egin dira (Arartekoa, 2011; ISEI-IVEI, 2014; Etxebarria eta Elosegui, 2010). Hala, txosten honen bidez gure asmoa da etorkinen ondorengoei buruzko lehen hurbilketa bat egitea, bigarren belaunaldien inguruko informazio estatistikoa jasotzen duten bigarren mailako iturriak aztertuta. Hainbat eta hainbat informazio-iturri aztertu ondoren, 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2014ko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI) eta 2016ko Pobreziari eta Gizarte-desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) hautatu ditugu, erabiltzen dituzten aldagaiak kontuan hartuta (batez ere aitaren eta/edo amaren jatorriarekin lotura dutenak) aukera ematen digutelako zifratan EAEko bigarren belaunaldien egoerari eta nondik norakoei buruzko erretratu zehatzagoa egiteko.

Erronka nabarmena da biztanleria horren hurbilketa estatistikoa egitea, kolektiboa homogeneizatu eta gehiegi sinplifikatu gabe. Azterlan honetako lehen

hurbilketan, ama edo aita atzerriko nazionalitatekoak edo atzerritar jatorrikoak (ama edo aita atzerrian jaioa) izanik EAEn bizi diren 0 eta 24 urte bitarteko pertsona guztiak hartu ditugu aztergai¹. Hauxe da txostenaren egitura: lehenik eta behin, EAEko hiru lurraldeetan biztanle horien egiturazko datuak zein diren adierazi dugu, erroldatik eskuratutako informazioan oinarrituta. Bigarrenik, erroldak eskaintzen dituen informazio-blokeak hartu eta alderatu egin ditugu pertsona migratzaileen seme-alaben datuak eta espainiar jatorriko pertsonen ondorengo datuak. Hirugarrenik, bigarren belaunaldietako kolektiboaren zenbait ezaugarri aztertzen dira, atzerritar jatorriko pertsonen guztizkoarekin alderatuz, Etorikin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI) oinarri hartuta. Azkenik, Pobreziari eta Gizarte-desberdintasunei buruzko Inkestan jasotako guztizko datuen eta bigarren belaunaldi gisa identifikatutako kolektiboaren datuen arteko alderaketa egin dugu.

Modu horretara, gure helburua izan da EAEko pertsona migratzaileen seme-alaben bilakaera zein den edo haiekin zer gertatzen ari den jakitea, emaitza horiek baliagarri izan daitezen etorkizuneko ikerketetarako hipotesi gisa.

Txosten honetako datuak eta ondorioak bigarren belaunaldien fenomenoari buruzko lehen hurbilketa estatistikotzat hartu eta irakurri behar dira, beharrezko zuhurtziarekin; izan ere, kontuan hartu behar da erabilitako estatistika-iturriak ez direla, berez, aztertutako biztanleria hori identifikatzeko eta horren bereizgarriak zehazteko diseinatuak izan.

¹Aurrerago egingo dugu sailkapen zehatzago bat gurasoak atzerritarrek izanik 25 urtetik behera dituzten pertsona horien taldean edo bigarren belaunaldiko kolektiboan; hau da, nor diren berezko migratzaileak eta nor dauden bi taldeen artean.

1

Bigarren belaunaldien ezaugarriak EAEn

Atal honetan 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldatik² eskuratutako datuak jaso ditugu; hasiera batean, aita edo ama etorkina izanik (atzerriko nazionalitatekoa eta/edo atzerrian jaioa) EAEn bizi diren 0 eta 24 urte bitarteko pertsona guztiak hartu ditugu aintzat.

Literatura zientifikoan hainbat sailkapen egiten badira ere, zorrotz jokatuta, honako hauek baino ez lirateke hartu behar bigarren belaunaldiko kideztat: gurasoak atzeritarrak izanik (aita eta/edo ama atzerrian jaiotakoak) EAEn jaiotakoak. Dena dela, kolektibo horretako kideztat hartzen dira atzerrian jaiotakoak oso txikiak zirela harrerako herrialdera iritsi eta bertan gizarteratu diren pertsonak ere. Zenbait azterlanetan bereizi egiten dira, alde batetik, jatorrizko herrialdean jaiotakoak eta 10-12 urterako gizarteratze-prozesua jatorrian bertan hasi duten etorkinen seme-alabak, eta, bestetik, harrerako herrialdean jaiotakoak eta gizarteratu direnak (López eta Stanton-Salazar, 2001 eta de Rumbaut, 2004, Moncusi 2007 lanean aipatuak). Hain zuzen, bereizketa horretatik sortzen da, hurrenez hurren, 1.5 eta 2.0 belaunaldiak nomenklatura.

Beraz, ulertu behar da EAEn iristen 12 urte edo gehiago zituzten pertsona migratzaileak berez direla migratzaile, lehen pertsonan. Hala ere, lan honi begira zehaztasun handiagoz jokatu nahi izan dugu, eta kolektibo horretan beste bi talde bereizi ditugu (horrela egin dute beste txosten batzuetan ere): alde batetik, gure erkidegora 12-15 urterekin iritsitakoak (1.25 belaunaldia), eta, bestetik, 16 urterekin edo gehiagorekin iritsitakoak (1.0 belaunaldia). 1. taulan laburtzen dira zehaztapen eta sailkapen horiek.

²EINEk hamar urtean behin egiten du Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, eta azterlan horrek aukera ematen digu pertsonen, familien, eraikinen eta etxebizitzaren ezaugarriak jakiteko. 2011. urtean metodo misto bat erabili zen lehen aldiz, eskura zeuden administrazioaren erregistroetan eta laginketa bidezko inkesta batean oinarritua.

1. taula. Guraso atzerritarrak dituzten 0 eta 24 urte arteko gazteak

IKUSPEGI TIPOLOGIA	KOLEKTIBOIA
Bigarren belaunaldia: 2.0B	EAEn jaiotakoak eta gehienez ere 4 urte zituztela familiarekin berriz bildutakoak
Belaunaldi mistoa: 1.5B	5-11 urte artean zituztela familiarekin bildutakoak
Migratzaileak lehen pertsonan: 1.25B	12-15 urte artean zituztela familiarekin bildutakoak
Migratzaileak lehen pertsonan: 1.0B	16-24 urte artean zituztela familiarekin bildutakoak

Iturria: norberak egina


Uste dugu sailkapen honek errespetatu egiten dituela haur eta gazteen garapen-eta-pak eta etapa horien garrantzia gazteon gizarteratzeari begira, baina, horrez gainera, kontuan hartzen dituela migrazio-prozesuari beren kabuz ekin dioten nerabeak eta gazteak eta/edo gurasoen migrazio-proiektuan eragin handiago eduki dutenak.

“Familiarekin berriz bildutako adina” aldagaia (“Espainiako estatura iritsitako urtea” eta “jaioturtea” aldagaietan oinarrituta sortua) baliagarri izan dugu sailkapen hau sortzeko: 2.0B, EAEn edo Espainiako estatuan jaiotako pertsonak eta gehienez ere 4 urte zituztela familiarekin berriz bildutakoak; 1.5B, 5-11 urte artean zituztela familiarekin bildutakoak; 1.25B, 12-15 urte artean zituztela familiarekin bildutakoak; eta 1.0B, 16-24 urte artean zituztela familiarekin bildutakoak.

Lehen grafikoa ikus dezakegunez, gurasoetako bat gutxienez atzerritar nazionalitatekoa eta/edo jatorrikoa duten 0 eta 24 urte bitarteko 76.914 pertsona (% 15,9) bizi dira EAEn. Aurrez adierazitako sailkapena aintzat hartuta talde hori zehaztasun handiagoz nola banatzen aztertuz gero (2. taula), ohartuko gara gehiengo (46.609 pertsona, % 60,6) 2.0B taldekoa dela; hau

da, Espainiako estatuan jaiotako seme-alabak edo gehienez ere 4 urte zituztela familiarekin berriz bildutako pertsonak direla. Bigarrenik, 1.5B belaunaldia dago: 13.605 (% 17,7) dira 5 eta 11 urte bitartean zituztela familiarekin berriz bildutako pertsonak. Hirugarrenik, 1.25B taldea dago, 12 eta 15 urte artean zituztela berriz familiarekin bildutako 6.697 (% 8,7) gazte osatua. Eta azkenik 1.0B belaunaldia dago: EAEn 10.004 (% 13) gazte bizi dira 16 eta 24 urte artean zituztela familiarekin berriz bildutakoak edo migrazio-prozesuari beren kabuz ekin ziotenak (lehen pertsonako migratzaileak).

1. grafikoa. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteak euskal biztanlerian (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

2. taula. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteak lau taldetako sailkapenaren arabera (2011)


	K	%
2.0B	46.609	60,6
1.5B	13.605	17,7
1.25B	6.697	8,7
1.0B	10.004	13,0
Guztira	76.914	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Banaketa lurralde historikoen arabera

Aipatutako 76.914 gazte horiek EAEko hiru lurralde historikoetan nola banatzen diren aztertuz gero, Bizkaian bizi dira ia erdiak (% 49,1); hau da, gurasoetako bat gutxienez atzerritarra duten 37.748 gazte. Gipuzkoan, 22.978 (% 29,9) bizi dira, eta, azkenik, Araban 16.188 (% 21) gazte (2. grafikoa). Aurreko atalean adierazitakorekin bat etorritz, 2.0B belaunaldikoak dira gehienak, eta, ondoren, 1. 5B eta 1. 0B taldeetakoak. Patroi hori modu uniformeetan eta antzera errepikatzen da hiru lurralde historikoetan, 3. taulan ikus daitekeenez.

2. grafikoa. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteak lurralde historikoen arabera (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

3. taula. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteen sailkapena lurralde historikoen arabera (2011)

	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B	Guztira
Araba	20,7	18,8	25,8	22,5	100,0
Bizkaia	48,6	52,9	43,9	49,8	100,0
Gipuzkoa	30,7	28,3	30,3	27,7	100,0
Guztira	46.609	13.605	6.697	10.004	76.914

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Sexua, adina eta jatorria

EAEn bizi diren atzerritar jatorriko 0 eta 24 urte bitarteko 76.914 biztanle horietatik 36.755 (% 47,8) atzerrian jaiotako dira eta 40.160 (% 52,2) Espainiako estatuan jaiotako (azken talde honetakoak dira, hain zuzen, 2.0B belaunaldia).

Jatorriaren arabera, alde handiak daude adinari dagokionez. Espainiako estatuan jaiotako 40.160 gazte horien artean, 2011. urtean, 17.750 umek (% 44,2) 0 eta 4 urte artean zituzten, eta 10.298 umek (% 25,6), 5 eta 9 urte artean. Bestalde, atzerrian jaiotako 36.755 horien artean, 21.303 gaztek (% 57,9) 16 eta 24 urte artean zituzten 2011. urte horretan.

Orobat, 3 eta 16 urte bitartean zituzten neska-mutilak aintzat hartuta (derrigorrezko hezkuntzari dagozkion adinak), gehiengoa (% 56) jada Espainiako estatuan jaiotakoa zen, eta, aldiz, 16 eta 24 urte arteko gazteen artean (derrigorrezko hezkuntzaren ondorengoa eta lan-merkatua), % 76 atzerrian jaiotakoa eta familiarekin gerora bildutakoa zen.

4. taula. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko EAeko gazteen adina eta jatorria (2011)

	Espainiako estatuan jaiotakoak	Atzerrian jaiotakoak	Guztira	Espainiako estatuan jaiotakoak %	Atzerrian jaiotakoak %	Estatuko adina %	Atzerritarren adina	Guztira %
0-4 urte	17.750	1.668	19.418	91,4	8,6	44,2	4,5	25,2
5-9 urte	10.298	5.291	15.589	66,1	33,9	25,6	14,4	20,3
10-14 urte	5.153	8.493	13.646	37,8	62,2	12,8	23,1	17,7
15-19 urte	3.902	9.422	13.324	29,3	70,7	9,7	25,6	17,3
20-24 urte	3.057	11.881	14.938	20,5	79,5	7,6	32,3	19,4
Guztira	40.160	36.755	76.915	52,2	47,8	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Sexuari dagokionez, datuek erakusten dute biztanle horien artean zertxobait gehiago direla gizonezkoak; hain zuzen, guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteen % 52,3 gizonezkoa da eta % 47,7, emakumezkoa. Gizonezkoen ehunekoa zertxobait handiagoa da adin-talde ia guztietan, honako hauetan izan ezik: atzerrian jaiotako 20-24 urteko gazteen eta 5-9 urteko haurren artean (hurrenez hurren, % 53,3 eta % 51,2 da emakumea bi talde horietan) eta Espainiako estatuan jaiotako 15-19 urte artekoetan (% 51,5 da emakumea). Beraz, talde horietan zertxobait handiagoa da emakumeen ehunekoa.

5. taula. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko EAEko gazteak sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera (2011)


	Espainiako estatuan jaiotakoak			Atzerrian jaiotakoak			Guztira		
	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira
0-4 urte	53,9	46,1	17.750	52,7	47,3	1.668	53,8	46,2	19.418
5-9 urte	54,7	45,3	10.298	48,8	51,2	5.291	52,7	47,3	15.589
10-14 urte	51,6	48,4	5.153	50,0	50,0	8.493	50,6	49,4	13.646
15-19 urte	48,5	51,5	3.902	58,6	41,4	9.422	55,6	44,4	13.324
20-24 urte	53,6	46,4	3.057	46,7	53,3	11.881	48,1	51,9	14.938
Guztira	53,3	46,7	40.160	51,1	48,9	36.755	52,2	47,8	76.915

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Nazionalitatea eta jatorria

Aurreko 3. grafikoak erakusten duenez, guraso atzerritarrak dituzten EAEko 0-24 urte bitarteko gazte gehienek Espainiako nazionalitatea dute; hain zuzen, 32.827 gaztek (% 42,7) dute nazionalitate hori. 32.827 pertsona horietatik % 93,3 Espainiako estatuan jaiotak dira edo 4 urte baino gutxiago zituztela familiarekin bildutakoak; hau da, 2.0B izendatu dugun talde horretako kideak dira. Bestalde, % 4,6, 5-10 urte artean zituela elkartu zen familiarekin eta 1.5B taldekoa da; % 1,3 1.25B taldekoa da, 10-15 urte artean zituela familiarekin bildutakoa, eta % 0,7, berriz, 16 eta 24 urtean artean zituela bildu zen berriro familiarekin edo adin horretan ekin zion bere kabuz migrazio-proiektuari.

3. grafikoa. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteak: nazionalitate nagusiak (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Espainiarren ondoren, nazionalitate hauetakoak dira bigarren belaunaldietako kide gehienak: marokoarrak (% 8,4), errumaniarrak (% 7,6), kolonbiarrak (% 5,8), boliviarrak (% 5,1) eta ekuadortarrak (% 4,1). Nazionalitatea edozein dela ere, gehiengo zabala 2.0B taldekoa da, hurrena 1.5B taldekoa eta azkenik 1.0B taldekoa (6. taula). Alabaina, paraguaiarren eta nikaraguarren kasuan, patro hori erabat aldatzen da: gurasoetako bat gutxienez atzerritarra duten 0 eta 24 urte bitarteko gazte paraguaiarren eta nikaraguarren kasuan, 1.0B taldekoa da gehiengoa: % 59,7 eta % 52,7, hurrenez hurren.


6. taula. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteak: nazionalitate nagusiak (2011)

	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B	Guztira
Espainiako estatua	93,3	4,6	1,3	0,7	32.827
Maroko	55,6	12,9	13,1	18,4	6.459
Errumania	30,1	30,6	13,3	26,0	5.819
Kolonia	12,7	39,4	22,2	25,6	4.468
Bolivia	22,9	40,5	16,2	20,4	3.911
Ekuador	24,5	30,3	20,0	25,2	3.137
Aljeria	58,7	18,3	6,8	16,2	1.386
Portugal	66,3	14,4	7,2	12,1	1.337
Brasil	21,8	40,7	17,0	20,5	1.264
Paraguai	5,2	26,8	8,3	59,7	1.212
Peru	21,0	42,3	14,9	21,8	1.142
Txile	19,1	48,1	21,8	11,1	803
Dominikar Errepublika	26,0	33,3	23,4	17,3	781
Txina	42,4	33,0	5,2	19,3	615
Nikaragua	19,6	19,1	8,7	52,6	530
Pakistan	39,0	18,6	20,3	22,2	636
Gainerakoak	48,7	22,1	11,0	18,3	10.587
Guztira	60,6	17,7	8,7	13,0	76.914

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Jaioterriari edo jaiotza-herrialdeari dagokionez, bigarren belaunaldiak, hein handi batean, aurrez adierazitako nazionalitateetakoak dira. Aurrez azaldutakoarekin bat etorritik, gehien-gehienak Espainiako estatuan jaiotakoak dira: 0 eta 24 urteko gazteen 40.160 hain zuzen (% 52,2). Jatorriari erreparatu, nabarmentzekoa da Kolonbian eta Ekuadorren jaiotakoen ehunekoa; berez, herrialde horietan jaiotakoak gehiago dira nazionalitate hori dutenak baino, eta horrek adieraz dezake kolektibo horietako askok Espainiako nazionalitatea hartu dutela. Bestalde, guraso atzerritarrak dituzten gazteen tipologiaren arabera aztertuz gero jatorriak, berriro ere nabarmentzekoa da Paraguaiako kasua; izan ere, 16 urtetik gora Espainiako estatura iritsi diren gazte paraguaiarren ehunekoa oso nabarmena da: % 64,1ekoa 1.0B azpitaldean.

4. grafikoa. Guraso atzerritarrek dituzten 0-24 urte arteko gazteak: jatorri nagusiak (jaiotza-herrialdea) (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da


7. taula. Guraso atzerritarrek dituzten 0-24 urte arteko gazteak: jatorri nagusiak (jaiotza-herrialdea) (2011)

	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B	Guztira
Espainiako estatua	98,5	1,2	0,2	0,2	40.161
Errumania	15,9	36,4	16,0	31,8	4.831
Kolonbia	8,4	42,5	24,0	25,1	4.681
Maroko	22,6	20,8	23,8	32,7	3.638
Bolivia	15,3	44,4	17,8	22,4	3.562
Ekuador	13,2	37,9	22,6	26,3	3.197
Brasil	12,2	44,4	20,6	22,8	1.201
Peru	21,3	39,4	15,8	23,5	1.226
Paraguai	4,2	24,4	7,3	64,1	1.130
Portugal	50,8	24,6	10,0	14,6	957
Aljeria	22,1	39,0	12,1	26,8	779
Dominikar Errepublika	13,6	42,2	26,3	17,9	756
Txile	18,5	48,5	23,1	9,9	758
Argentina	30,5	30,9	25,8	12,9	699
Kuba	10,8	33,7	26,7	28,8	520
Venezuela	36,9	38,1	6,1	18,9	561
Pakistan	25,1	22,8	24,9	27,2	518
Gainerakoak	27,6	33,6	12,2	26,5	7.733
Guztira	60,6	17,7	8,7	13,0	76.908

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Nazionalitateari eta jaiotako herrialdeari loturiko datuak gurutzatuz gero, ohartuko gara guraso atzerritarrak dituzten EAeko 29.704 gaztek Espainiako nazionalitatea dutela eta Espainiako estatuan jaioak direla (guraso atzerritarrak dituzten biztanleen % 38,6 eta bigarren belaunaldiko gazteen % 63,7).

5. grafikoa. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteak: nazionalitatea (espainiarra/atzerritarra) eta jatorria (Espainiako estatua/Atzerria) (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Guraso atzerritarrak izanik Espainian jaio eta Espainiako nazionalitatea duten biztanleen jatorrian sakonduz, ondorengo taulan adierazi dugu zer nazionalitatekoak diren gazte horien gurasoak. Datuek Espainiako nazionalitatea duten pertsonen ehuneko nabarmena erakusten dute, eta, beraz, adierazten dute aita eta ama askok nazionalitate hori eskuratu dutela eta/edo bertako jendearekin ezkondu direla.


8. taula. Guraso atzerritarrak izanik Espainiako estatuan jaio eta Espainiako nazionalitatea duten 0-24 urte bitarteko gazteak: gurasoen nazionalitatea (2011)

	Aita		Ama	
	K	%	K	%
Espainiako estatua	10.779	36,3	11.696	39,4
Latinoamerika	7833	26,4	10.529	35,4
EB15	5.510	18,5	3.151	10,6
Magreb	2.558	8,6	1.670	5,6
Afrikako gainerako herrialdeak	1.144	3,9	836	2,8
Bulgaria eta Errumania	611	2,1	450	1,5
Gainerako EB	405	1,4	516	1,7
Ipar Amerika	327	1,1	191	0,6
Gainerako Asia	260	0,9	292	1,0
Ozeania	105	0,4	87	0,3
EB25	100	0,3	180	0,6
Txina	73	0,2	73	0,2
Galdutakoak	0	0,0	32	0,1
Guztira	29.704	100	29704	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Bestalde, jada adierazi dugu guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte bitarteko 36.753 pertsona atzerrian jaioak direla. Horietako gehienak (% 52,4) 12 urte baino gutxiago zituztela bildu dira berriro familiarekin. Gainera, pertsona horietako gehienak zuzenean atzerritik datoz, nahiz eta gero eta handiagoa den EAE barneko migrazioen ehunekoa (% 17,3).

6. grafikoa. Guraso atzerritarrak dituzten eta atzerrian jaio diren 0-24 urte bitarteko gazteak, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

9. taula. Guraso atzerritarrak dituzten eta atzerrian jaio diren 0-24 urte bitarteko gazteak aurreko bizilekuaren arabera

	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B	Guztira
Atzerritarrak	74,1	76,6	74,8	73,0	74,8
Espainiako beste erkidego batekoak	7,1	5,5	9,2	10,7	7,9
EAEko beste udalerrri batekoak	18,8	17,9	16,0	16,4	17,3
Guztira	7.050	13.141	6.632	9.929	36.752

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

2

Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko biztanleen alderaketa erroldako datuetan oinarrituta

Atal honetan 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak jaso eta adierazi ditugu. Hain zuzen, 0 eta 24 urte bitarteko euskal biztanleria (euskal jatorrikoa edo espainiar jatorrikoa) eta atzerritar jatorrikoa³ alderatu ditugu erroldako informazio-bloke bakoitzean (ikasketa-maila, jarduera, etxeguneari buruzko datuak, etxebizitzaren baldintzak eta abar).


Gurasoen ikasketa-maila eta lan-egoera

Hezkuntza-mailari buruzko informazioarekin izan behar den zuhurtzia aintzat harturik, datu horiek erakusten dute atzerritar jatorriko gazteen aita-amen artean handiagoa dela ikasketarik gabeko pertsonen ehunekoa, eta, aldiz, euskal/espainiar jatorrikoen artean handiagoa dela hirugarren mailako ikasketak dituzten gurasoen ehunekoa.

Atzerritar jatorriko 0-24 urte bitarteko pertsonen taldean sortutako tipologiaren arabera xehakatzen baditugu datuak, ohartuko gara 12 urtetik gora familiarekin berriro elkartutako atzerritar jatorriko pertsonen artean (1.25B eta 1.0B kategoriak) dela handiena inolako ikasketarik ez duten aita eta/edo amen ehunekoa, eta, orobat, talde horretan dela txikiena goi-mailako ikasketak dituzten aita eta/edo amen ehunekoa.

³Aurrerantzean ere “EAEn bizi eta aita eta ama (biak) euskal eta/edo espainiar jatorrikoak dituzten 0-24 urte bitarteko pertsonak” hartuko ditugu euskal/espainiar jatorriko biztanletzat. Era berean, “EAEn bizi eta ama eta/edo aita (gutxienez bietako bat) atzerritar jatorrikoa duten 0-24 urte bitarteko pertsonak” hartuko ditugu, aurrerantzean ere, atzerritar jatorriko biztanletzat.

7. grafikoa. Aita-amen ikasketa-maila, euskal/espainiar jatorriaren eta atzerritar jatorriaren arabera (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

10. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko biztanleen aita eta amen ikasketa-maila, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)

Aita	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
Analfabetoak/ikasketa gabeak	0,7	6,5	5,2	5,4	16,2	19,1
Lehen mailako ikasketak	5,5	13,6	12,0	17,8	17,6	17,8
Bigarren mailako ikasketak	65,8	59,6	59,2	63,2	57,8	56,8
Hirugarren mailako ikasketak	28,0	20,3	23,6	13,5	8,4	6,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Ama	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
Analfabetoak/ikasketa gabeak	0,6	6,0	4,3	6,4	11,8	14,4
Lehen mailako ikasketak	4,9	12,4	10,1	16,4	20,5	13,5
Bigarren mailako ikasketak	58,1	58,0	56,3	60,9	61,2	63,0
Hirugarren mailako ikasketak	36,3	23,6	29,1	16,3	6,4	10,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Bi gurasoen lan-egoera aztertuta, datuen arabera euskal/espainiar jatorriko biztanleen aiten % 86,6k dio lana duela. Aldiz, atzerritar jatorriko gazteen aiten kasuan, ehuneko hori nabarmen txikiagoa da, % 65,9koa baita enplegu-tasa. Horren ondorioz, langabezia-tasa handiagoa da atzerritar jatorriko gazteen aiten artean (% 26,1) eta nabarmen txikiagoa (% 7,5) euskal/espainiar jatorriko pertsonen aiten artean.

Bestalde, langabezia-tasaren aldea txikiagoa da bi taldeetako amen artean aiten artean baino. Hala, euskal/espainiar jatorriko pertsonen ama langabeen

eta atzerritar jatorriko biztanleen ama langabeen arteko aldea 12,6 puntukoa da, eta bi taldeetako aiten artekoa, 18,6 puntukoa.

8. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko pertsonen gurasoen lan-egoera (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Oro har, atzerritar jatorriko pertsonen gurasoen artean, zenbat eta denbora gutxiago izan iritsi zirenetik, orduan eta txikiagoa da lana duten aita-amen ehunekoa eta, beraz, handiagoa langabezian daudenena.

11. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko pertsonen gurasoen lan-egoera, ikuspegi tipologiaren arabera (2011)

Aita	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
Landunak	86,6	65,9	68,2	61,2	58,0	55,1
Langabeak	7,5	26,1	24,2	29,6	32,9	34,9
Ez-aktiboak	5,9	8,0	7,6	9,1	9,1	10,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Madre	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
Landunak	69,8	50,0	47,2	55,3	54,8	58,6
Langabeak	19,0	31,6	34,6	24,4	29,5	23,4
Ez-aktiboak	11,2	18,4	18,2	20,3	15,6	18,0
Guztira	100,0	100,0	47,2	55,3	54,8	58,6

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Era berean, etxegunean dauden langabeen edo ez-aktiboaren datuak aztertuz gero, ohartuko gara zifrak asko handiagoak direla pertsona migratzaileen seme-alabak bizi diren familietan. Euskal/espainiar jatorriko pertsonen % 41,7k dio etxegunean ez dutela inor langabezian, eta, aldiz, atzerritar jatorriko pertsonen etxeguneetan zifra horrek nabarmen egiten du behera: % 21,8k baino ez du ez du inor lanik gabe etxean. Etxegunean hiru pertsona edo gehiago lanik gabe dituzten kasuak dira larrienak. Euskal/espainiar jatorriko biztanleen % 6,8 baino

ez dago egoera horretan, eta, aldiz, atzerritar jatorriko etxeguneetan balio horiek igo egiten dira eta familien % 27,6 dago premiazko egoera horretan.

9. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko pertsonen etxeguneetan langabezia edo ez-aktibo dauden pertsonen kopurua (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Etxegunean langabetuak dituzten familien ehunekoak aztertuz gero, berriro ere 1.25B eta 1.0B azpitalde edo kategorietako atzerritar jatorriko pertsonen artean dira handienak portzentajeak; hau da, gure lurraldera azken urteetan iritsitakoaren artean.

12. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko pertsonen etxeguneetan langabezia edo ez-aktibo dauden pertsonen kopurua, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)

	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
0	41,7	21,8	26,4	19,1	6,6	14,2
1	33,5	36,7	39,6	34,6	30,3	30,7
2	18,0	27,4	23,8	27,7	33,1	27,5
3 edo gehiago	6,8	27,6	10,2	18,6	30,0	27,6
Guztira	100,0	100,0	100	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da


Seme-alaben ikasketa-maila eta jarduera

EAEn prozesu hasi berria izanik, oraindik ere ez dugu datu zehatzik atzerritar jatorriko seme-alaben eskolatzeari buruz. Alabaina, datu batzuek kezka sortzen dute eta gaiari buruz hausnartzeko bidea eman beharko ligukete. Europar Batasunak eginiko azterketa baten arabera, 2010ean, eskola uztearen tasa orokorra % 31,2koa zen Espainian, baina etorkinen artean, aldiz, % 45ekoa (Moreno eta Aierdi, 2010). Eurostatek 2015ean eginiko azterlan baten arabera, berriz, Espainiako estatuan jaio ez diren 18 eta 24 urte bitarteko gazteen % 37,8k garaia baino lehen uzten ditu ikasketak; hau da, Europar Batasuneko batez bestekoarekin alderatuta (% 20,8), % 18 gehiagok. Era berean, eskola

uzten dutenek langabezia-esperientziak izateko arrisku handiagoa dutela aurreikusi izan dute egile askok eta askok. Datu hauek gure alarmak piztu dituzte, eta, horren ondorioz, zehatz eta zorrotz aztertu nahi ditugu eroldako datuak, bigarren belaunaldi hauen artean sor daitezkeen egoera sozial kalteberak aurreikusi ahal izateko.

Hezkuntza-mailari buruzko informazioarekin izan beharreko zuhurtzia aintzat hartuta, datuek adierazten dute euskal/espainiar jatorriko 16 eta 24 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok amaitu dituztela bigarren mailako ikasketak, eta %15ek, berriz, unibertsitate-ikasketak bukatu dituztela. Aldiz, adin-tarte bereko atzerritar jatorriko gazteen erdiak baino gehiagok (% 58) lehen mailako ikasketak besterik ez ditu.

10. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko biztanleen ikasketa-maila (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Ondorengo taulan ikus dezakegunez, atzerritar jatorriko pertsonen artean, Espainiako estatuan jaiotakoek edo 4 urte bete baino lehen familiarekin bildutakoek dituzte hezkuntza-maila altuenak (hau da, 2.0B taldekoek edo bigarren belaunaldikoek): zehazki, gazte horien % 44,5ek derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengo maila eskuratu du eta % 9,5ek unibertsitate-karrera bat ikasi du. Adin gehiagorekin gure lurraldera iritsitako gazteek (1.0B) goragoko hezkuntza-maila dute gainerako bi taldeetakoek baino; hau da, 1.5B eta 1.25B taldeetakoek baino.

13. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko biztanleen ikasketa-maila, ikuspegi tipologiaren arabera (2011)

	Euskal/Esp. jatorriak	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
Ikasketarik gabe/Lehen mailako ikasketak/DBH	34,0	58,0	46,0	74,9	70,2	52,6
Batzilergoa/Lanbide Heziketa	51,4	36,6	44,5	24,3	27,8	41,1
Unibertsitate ikasketak	14,6	5,4	9,5	0,8	2,0	6,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Euskal/espainiar jatorriko 16 eta 24 urte bitarteko gazte gehienak (% 60,7) ikasten ari dira, eta portzentaje hori nabarmen apalagoa da (% 45,7) atzerritar jatorriko gazteen artean. Kasu honetan, aipatzekoa da euskal/espainiar jatorriko biztanleen eta gure lurraldean errotuen dauden atzerritar jatorriko pertsonen (2.0B kategoria) ehunekoak oso antzekoak direla, eta EAera adin gehiagorekin (1.0B kategoria) iritsitako gazteen artean dela txikiena ikasten ari direnen ehunekoak.


11. grafikoa. Ikasketak egiten ari diren euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko 17-24 urte bitarteko gazteen ehunekoak, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Aztertzen badugu 17 eta 24 urte bitarteko gazte horiek zer ikasketa egiten ari diren (12. grafikoa), nabarmentzekoa da euskal/espainiar jatorriko pertsonen ia erdia unibertsitate-ikasketak egiten ari dela, eta, aldiz, atzerritar jatorrikoen artean, % 22,7 baino ez. Bestalde, nabarmentzekoa da enplegu-zerbitzuetako prestakuntza-ikastaroak eta arautu gabeko beste ikastaro batzuk egiten ari diren atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoak. Horrez gain, lanbide-heziketako ikasketak egiten ari diren atzerritarren ehunekoak ere zertxobait handiagoa da.

12. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko biztanleak egiten ari diren ikasketak (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Datuak txosten honen hasieran zehaztutako tipologiaren arabera aztertuz gero, berriro ere euskal/espainiar jatorriko biztanleen ehunekoetara gehien hurbiltzen direnak hemen jaiotako atzerritar jatorriko pertsonenak edota gehienez ere 4 urte zituztela familiarekin bildutako pertsonenak dira (2.0G). Era berean, datu horien arabera, helduentzako zentzoren batean DBHko ikasketak egiten ari direnen artean handiagoa da atzerritar jatorria duten pertsona horien ehunekoa. Bestalde, eskola uztearen eta langabeziaren arteko aipatutako lotura argi islatzen da Enplegu Zerbitzu Publikoetako prestakuntzari buruzko datuetan; izan ere, 1.0G kategoriako pertsonen artean oso handia da prestakuntza-ikastaro horietan izena emandakoen ehunekoa (% 15,6), eta, aldiz, beste kategorietan ez da % 2ra iristen.


14. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko 17 eta 24 urte bitarteko gazteak egiten ari diren ikasketak, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)

	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
DBH, Helduentzako bigarren hezkuntza	2,0	7,0	3,5	10,0	12,8	4,7
Batxilergoa	15,3	15,6	19,8	23,7	15,4	4,8
Lanbide heziketa	15,9	18,3	12,4	18,2	23,0	22,1
Hasierako lanbide-prestakuntzako programak	3,3	5,8	5,1	2,0	7,8	7,7
Unibertsitate-ikasketak	46,3	22,7	38,1	15,7	14,8	14,7
Hezkuntza arautuko beste ikastaro batzuk	6,3	6,5	5,6	4,1	6,4	9,6
Enplegu-zerbitzuetako prestakuntza-ikastaroak	1,5	5,2	1,9	0,7	1,1	15,6
Arautu gabeko beste prestakuntza-ikastaro batzuk	9,5	18,9	13,6	25,6	18,7	20,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Ikasketez gain, jarduerarekiko erlazioa ere aztertu dugu 17 eta 24 urte bitarteko gazteei dagokienez. 13. grafikoko datuek erakusten dutenez, euskal/espainiar jatorriko pertsonen artean handiagoa da bai landunen eta bai langabeen ehunekoa. Nabarmentzekoa da euskal/espainiar jatorriko pertsonen eta atzerritar jatorrikoen arteko aldea askoz handiagoa dela langabeziarekin loturiko datuetan okupazio-datuetan baino.

13. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko 17 eta 24 urte bitarteko pertsonen jarduerarekiko erlazioa (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Lanean ari diren gazteen artean (15. taula), euskal/espainiar jatorriko biztanleekiko alderik handienak Espainiara 16 urterekin edo gehiagorekin iritsi ziren atzerritar jatorriko biztanleen artean sortzen dira (1.0B kategoria). Hala, azken horien artean, lanean dauden pertsonen portzentajea % 33,9koa da, eta euskal/espainiar jatorriko gazteen artean, berriz, % 19,4koa. Datu hauen argitan, badirudi lehen taldekoek joera handiagoa dutela lan-merkatura jotzeko ikasketekin jarraitzeko baino. Arrazoiak, funtsean, hiru dira: adina bera, eskola garaia baino lehen uztea eta norberak hala erabakitzea. Era berean, gazte horien artean handiagoa da langabetuen ehunekoa (% 35,4) euskal/espainiar jatorrikoen artean baino (% 19,1), nahiz eta azken horien portzentajea ere aski kezagarria izan.

15. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko 17 eta 24 urte bitarteko pertsonen jarduerarekiko erlazioa, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)

	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
Landunak	19,4	22,1	15,5	11,4	16,2	33,9
Aurrez lanean egondako langabeak	10,0	12,0	12,1	8,0	11,9	13,6
Lehen lana bilatzen ari diren langabeak	9,1	16,9	9,8	12,6	19,6	21,8
Beste egoera batzuk	61,5	49,9	62,6	68,0	52,3	30,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Ikasketa-maila eta lan-jarduera erroldaren bidez aztertzeak muga handiak ditu, eta, horren ondorioz, uste dugu azterlan gehiago egin beharko liratekeela gai horren inguruan; izan ere, eskola garaia baino lehen uzteak egoera sozial kalteberak sortzen ditu, eta egoera horiei loturik, langabezia-tasak ere gora egiten du gazte horien artean.


Nabarmentzekoa da izan badirela zenbait azterlan eskola garaia baino lehen uzteko arrazoiak bilatzeko. Alde batetik, azterlan batzuen arabera, familia etorkinek beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzeko modua beste era batera ulertzen eta balioesten dute, eta hor egon daiteke eskola garaia baino lehen uztearen arrazoiak. Hala, Carrasco, Pàmies eta Bertranek (2009:71) diote familia batzuek beren seme-alaben eskola-ibilbideari jarraipena ematearen alde egiten dutela, eta beste familia batzuek kargatzat hartzen dutela seme-alaben derrigorrezko eskolatzea eta nahiago dutela lan-merkatuan hasteko edo ugaltze-zikloari ekiteko adina eta legezko baldintzak lehenbailehen betetzea.

Eta bestetik, Madrilgo Erkidegoan eginiko zenbait azterlanen arabera, hezkuntza arautuan joera nabarmena dago ikasle etorkinak beste hezkuntza-bide batzuetara kanporatzeko (Franzé, Moscoso, eta Sánchez, 2011; Poveda, Jociles eta Franzé, 2009).

Etxegunearen egitura

Etxegunearen egiturari erreparatuz gero, hala euskal/espainiar jatorrikoen kasuan nola atzerritar jatorrikoen kasuan, etxe gehien-gehienetan familia bakarra bizi da.

14. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko pertsonen etxeguneetan bizi den familia kopurua (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Hala ere, egia da gure lurraldera adin gehiagorekin iritsi ziren atzerritar jatorriko pertsonen artean, zertxobait arruntagoa dela beste egoera batzuk izatea. Hala, 1.25B kategoriako gazteen % 6,4 eta 1.0B kategoriako gazteen %5,1 bi familia dauden etxeguneetan bizi dira. Gainera, 1.25B eta 1.0B kategorietako % 6,3 eta % 10,5, hurrenez hurren, familiako inorekin loturarik ez duten etxeguneetan bizi dira.

16. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko pertsonen etxeguneetan bizi den familia kopurua, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)


	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
0	0,8	2,5	0,7	0,6	6,3	10,5
1	99,1	94,5	97,1	96,6	87,3	84,5
2	0,2	2,7	1,8	2,5	6,4	5,1
3	0,0	0,3	0,4	0,3	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Datuei erreparatuz, euskal/espainiar jatorriko pertsonen 4 etxegunetatik hirutan (% 77) bikotea eta seme-alabak bizi dira, eta seme-alabetako bat 25 urtetik beherakoa da. Atzerritar jatorriko pertsonen etxeguneetan ere familia-eredu hori da ohikoena, baina portzentajea nabarmen txikiagoa da (% 52).

Bestalde, familia migratzaileen artean⁴, euskal familien artean ez bezala, beste hau da etxeguneen bigarren egitura ohikoena: bikotea edo aita/ama eta 25 urtetik beherako seme-alabaren bat eta haiekin batera bizi diren beste pertsona batzuk; hain zuzen, atzerritar jatorriko etxeen laurdenetan horixe da egitura. Era berean, etxegune gero eta gehiagotan bizi dira guraso bakarra eta 25 urtetik beherako seme-alabaren bat; hain zuzen, euskal familien % 11,4tan eta familia migratzaileen % 13,8tan.

15. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko pertsonen etxeguneen egitura (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

⁴Txostenaren irakurketa arintzeko, "familia migratzaileak" eta "euskal familiak" esamoldeak erabiliko ditugu, hurrenez hurren, "atzerritar jatorriko familiak" eta "euskal/espainiar jatorriko familiak" esamoldeen baliokide.

Beste behin, euskal/espainiar jatorriko biztanleen ehunekoekiko alderik handienak familiarekin beranduen elkartutako pertsonen artean sortzen dira (1.0B taldean). Hala, euskal/espainiar jatorriko etxeguneen egitura ohikoena (% 76,8), arestian esan dugunez, bikoteak eta seme-alabek osaturikoa da (hauetakoren bat 25 urtetik beherakoa), eta egitura hori 1.0B kategoriako talde horretako etxebizitzaren % 28,4an baino ez da ematen. Bestalde, seme-alabekin eta beste pertsona batzuekin bizi den bikotearen egitura 1.0B taldeko etxeguneen % 28,8an ematen da, eta euskal/espainiar jatorriko pertsonen etxeguneen %9an baino ez.

17. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko biztanleen etxeguneen egitura, "Bigarren belaunaldiak" tipologiaren arabera (2011)

	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
Aita edo ama eta harekin bizi den 25 urtetik beherako seme-alabaren bat	11,4	13,8	13,0	18,5	15,7	9,4
Bikotea eta seme-alabak (haietako bat 25 urtetik beherakoa)	76,8	51,7	58,4	48,9	45,6	28,4
Bikotea edo aita/ama eta haiekin bizi den 25 urtetik beherako seme-alabaren bat, eta haiekin batera bizi den/diren beste pertsona bat/batzuk	8,9	24,9	23,6	25,8	26,4	28,8
Beste egitura mota batzuk	2,9	9,6	5,0	6,8	12,3	33,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da


Bizilekuari buruzko datuak

Bizilekuarekin loturiko faktoreak hemen egin duguna baino zehaztasun handiagoz esploratu behar dira; izan ere, familia migratzaile gehienak, azkenerako, auzune pobreenetan finkatzen dira. Horren ondorioz, haien garapen- eta gizarteratze-prozesuak desberdinak izaten dira erdi-mailako auzuneetan finkatzen direnen aldean, auzo horietan hezkuntza, osasun, kirol eta bestelako arloetako ekipamenduak hobeak baitira. Atal honetan, erroldak hiru faktore interesgarriri buruzko informazioa ematen du, eta, hain zuzen, hiru aldagai horiek baino ez ditugu aztertu: etxebizitza zer erregimenetan daukaten, berogailua baduten eta interneterako sarbidea baduten.

Datuek erakusten dutenez, familia migratzaile gehienek alokairuan dute etxebizitza. Bertako familien % 4,8 baino ez da alokairuko etxebizitza batean bizi, eta, aldiz, familia migratzaileen erdia baino gehiago (% 58,5) bizi da alokatutako etxebizitza batean.

Bestetik, euskal familien % 34,1ek erabat ordainduta du bere etxebizitza, eta, aldiz, familia migratzaileen % 10,2k baino ez du lortu etxea osorik ordaintzea. Euskal/espainiar jatorriko familia gehien-gehienak (% 51,8) etxebizitza ordaintzen ari dira, eta, aldiz, atzerritar jatorriko familien laurden bat (% 25) ari da etxebizitzaren hipoteka ordaintzen.

16. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko etxegunek zer erregimenetan duten etxebizitza (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Beste behin, atzerritar jatorriko familien artean nabarmenak dira aldeak. Hala, 2.0B taldeko ia erdiek beren etxebizitza daukate (guztiz ordainduta, ordaintzeko edo oinordetzan jasoa), eta, aldiz, gainerako taldeetan egoera horretan dauden pertsonen zifra askoz txikiagoa da. Horri loturik, adin handiagoarekin Espainiako estatura iritsitako pertsonen artean alokairuan bizi direnen portzentajea nabarmen handiagoa da (% 83,6koa, 1.25B taldearen kasuan, eta % 80,1koa, 1.0B taldearen kasuan) hemen jaiotakoaren artean edo lau urte bete baino lehen familiarekin elkartutakoaren artean baino (2.0B kategoria: % 58,5).

18. taula. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko etxegunek zer erregimenetan duten etxebizitza, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)


Edukitzera-erregimena	Euskal/Esp. jatorria (%)	Atzerritar jatorria (%)	2.0B (%)	1.5B (%)	1.25B (%)	1.0B (%)
Norberarena, erosita, guztiz ordainduta	34,1	10,2	14,2	4,0	3,8	4,5
Norberarena, erosita, oraindik ordaintzeko (hipotekak)	51,8	25,0	32,8	15,4	9,1	12,3
Norberarena, oinordetzan edo dohaintzan jasoa	4,2	1,6	2,1	1,2	0,9	0,6
Alokairuan	4,8	58,5	45,4	75,1	83,6	80,1

Edukizta-erregimena	Euskal/Esp. jatorria	Atzerritar jatorria	2.0B	1.5B	1.25B	1.0B
Doan edo prezio oso txikian utzita (beste etxegune batek, enpresak ordainduta...)	1,7	1,7	2,0	1,8	1,0	0,5
Beste moduren bat	3,4	3,0	3,5	2,6	1,6	2,1
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da


Berogailua eta Interneterako sarbidea, berriz, mugatuagoa dute familia migratzaileek. Bertako familien % 88,6k dauka berogailua etxean, eta, aldiz, familia migratzaileen % 69,2k baino ez dauka ekipamendu hori beren etxebizitzan. Interneterako sarbideari dagokionez, antzekoak dira ehunekoak. Bertako familien % 85ek dauka Interneterako sarbidea etxean, eta familia migratzaileen kasuan, % 68,8ra jaisten da portzentaje hori.

17. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko familiek etxebizitzan berogailua duten ala ez, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

18. grafikoa. Euskal/espainiar jatorriko eta atzerritar jatorriko familiek etxebizitzan Interneterako sarbidea duten ala ez, Ikuspegi tipologiaren arabera (2011)



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

3

Bigarren belaunaldien zenbait ezaugarri, EABI oinarri hartuta

Errolda-datuak oinarri hartuta egin dugu lehen hurbilketa Euskadin bizi diren 25 urtez azpiko eta atzerritar jatorriko familietako pertsonen kolektibora. Atal honetan eta hurrengoan, ordea, zehatzago izan nahi dugu, eta bigarren belaunaldiak izendatu dugun kolektiboaren ezaugarriak aztertu nahi ditugu, hau da, 0tik 24 urtera bitarteko atzerritar jatorriko familietako pertsonen kolektiboarenak (gurasoetako bat atzerritar jatorrikoa edo nazionalitatekoa dutenak, gutxienez), izan Espainian jaiotakoak edo izan 4 urte baino gutxiago zituztela familiarekin berriz elkartutakoak.

Atal honetan, alderatu egingo ditugu bigarren belaunaldiak izendatu dugun kolektiboaren zenbait ezaugarri EAEn bizi diren atzerritarren guztizko biztanleriaren ezaugarriekin, eta, horretarako, Etorikin Atzerritarrei buruzko Inkestak⁵ (EABI) eskaintzen dizkigun aukerak baliatuko ditugu.

EABIn egindako azterlanean, bigarren belaunaldiko etxeak direla jo dira, baldintza hauetako bat betetzen dutenak:

1. Familiako kideren bat 24 urte baino gutxiagoko atzerritar jatorriko pertsona bat izatea, 4 urte edo gutxiago zituela familiarekin berriz elkartutakoa izanik.
2. Aita eta/edo ama atzerritar jatorrikoak izanik, 24 urte baino gutxiagoko seme-alabak izatea, izan horiek espainiar jatorrikoak edo izan 4 urterekin edo gutxiagorekin familiarekin berriz elkartutakoak.

⁵Inkestaren emaitzak Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoko "2014ko Etorikin Atzerritarrei buruzko Inkestaren emaitza nagusiak (EABI)" dokumentuan kontsulta daitezke.

EABIn haztatutako lagina 259.902 pertsonakoa da. Pertsona horietatik guztietatik 195.245 (% 75,1) atzerritar jatorrikoak dira. Bestalde, 165.989 bigarren belaunaldietako kolektibokoak dira eta/edo kolektibo horretako pertsona batekin bizi dira (52.541 espainiar jatorrikoak eta 113.448 atzerritar jatorrikoak dira).

Lan honetan, inkestak jorratzen dituen dimentsioen alderaketa egingo dugu, bigarren belaunaldietako kolektiboko pertsonen edo haiekin bizi direnen (aurrerantzean, BB kolektiboa) eta atzerritar jatorriko guztizko biztanleriaren (argitaratutako datuak) arteko alderaketa, hain zuzen.

19. taula. Bizikidetz-unitateetako biztanleak. Etorrin Atzerritarrei buruzko Inkestaren lagin haztatua (2014)

BB	Jatorria	
	Espainiarra	Atzerritarra
Bai	52.541 (% 20,2)	113.448 (% 43,7)
Ez	12.115 (% 4,7)	81.798 (% 31,5)

Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

Egoera administratiboa

BB kolektiboko pertsonak denbora gehiagoz daude erroldatuta EAEn atzerritar jatorriko guztizko biztanleria baino. Horrez gain, BB kolektiboko pertsonen erdiek baino gehiagok dute espainiar nazionalitatea (% 54,1), eta ehuneko hori, espero zitekeen moduan, atzerritar jatorriko guztizko biztanleriarena baino dezente handiagoa da (% 29,9). Era berean, BB kolektiboko atzerritar nazionalitateko pertsonen % 89k du egoitza- edo lan-baimena; atzerritar jatorriko guztizko biztanleriaren artean, berriz, ehuneko hori % 59,7koa da. Bestalde, BB kolektiboan txikiagoak dira egoitza-baimena izan arren lan-baimenik ez dutenen ehuneko eta egoera irregularrean daudenen ehuneko.

20. taula. BB kolektiboaren eta atzerritar jatorriko biztanleriaren egoera administratiboa (%-tan) (2014)

	BB kolektiboa	Atzerritar jatorriko biztanleria
Erroldatzea		
Erroldatu gabea	0,2	0,8
5 urte baino gutxiagoz	15,1	23,9
5 urtez edo gehiagoz	46,2	64,8
Betidanik	38,4	10,5


	BB kolektiboa	Atzerritar jatorriko biztanleria
Espainiar nazionalitatea	54,1	29,9
Egoera administratiboa (soilik atzerritarrena)		
Egoitza iraunkorra	74,0	45,5
Aldi baterako egoitza (lan-baimenarekin)	15,0	14,2
Aldi baterako egoitza (lan-baimenik gabe)	4,9	3,5
Beste egoera batean	0,3	0,3
Egoera irregularrean	5,6	6,1
Ustekabeko egoera irregularrean	0,3	0,6

Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

Ikasketa-maila eta hezkuntzari lotutako alderdiak

Ikasketa-mailari dagokionez, ez da alde handirik BB kolektiboaren eta atzerritar jatorriko guztizko biztanleriaren artean; alabaina, BB kolektiboan apur bat handiagoa da goi-mailako ikasketak dituztenen ehunekoa (Lanbide Heziketa eta ikasketa unibertsitarioak) eta apur bat txikiagoa ikasketarik ez dutenena.

19. grafikoa. BB kolektiboaren eta atzerritar jatorriko biztanleriaren ikasketa-maila (%-tan) (2014)



Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

Bestalde, BB kolektiboan txikiagoa da eskolan integrazio-arazoren bat izan dutenen ehunekoa. Ehuneko hori % 4,4koa da, eta atzerritar jatorriko guztizko biztanleria kontuan hartzen bada, berriz, % 8,4koa.

21. taula. Ikasketa arautuak egiten ari den BB kolektiboko eta atzerritar jatorriko 16 urtetik beherako biztanleria, eskolako integrazio-arazoak kontuan hartuta (%-tan) (2014)


	BB kolektiboa	Atzerritar jatorriko biztanleria
Arazorik ez	95,6	91,6
Arazoren bat	4,4	8,4
Atzeratzea	2,7	4,5
Bazterketa	0,3	0,9
Huts egitea	0,0	0,0
Hizkuntza-arazoak	1,1	3,0
Elikadura-arazoak	0,2	0,0
Immigratzaile asko	0,1	0,4
Bestelakoak	0,1	0,1

Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

Aktibitatea, okupazioa eta langabezia

Lanerako adinean daudenen multzoa erreferentziazat hartuta, 16 urtetik 66 urtera bitartekoena, ikusten da BB kolektiboan handiagoa dela okupatutako pertsonen ehunekoa eta txikiagoa dela langabeziaren eragina atzerritar jatorriko guztizko biztanlerian baino.


20. grafikoa. 16 urtetik 66 urtera bitarteko BB kolektiboko eta atzerritar jatorriko biztanleria, aktibitatearen arabera (2014)



Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

Arreta biztanleria okupatuan jartzen bada, ikus daiteke lanpostu kualifikatuetan dihardutenen ehunekoa handiagoa dela BB kolektiboan atzerritar jatorriko biztanlerian baino. Izan ere, BB kolektiboan, langile ez-kualifikatuen ehunekoa % 23,8koa da, eta atzerritar jatorriko guztizko biztanlerian, berriz, % 34,6koa.

21. grafikoa. BB kolektiboko eta atzerritar jatorriko biztanleria, lanbide motaren arabera (2014)



Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

Arazo ekonomikoak

EABIko datuak erreferentziatzat hartzen badira, ikusten da arazo ekonomiko gutxiago izaten direla BB kolektiboko pertsonen artean atzerritar jatorriko guztizko biztanleriaren artean baino. BB kolektiboko pertsonen % 41,2k dio ez duela arazo ekonomikorik etxean; ehuneko hori % 33,8koa da atzerritar jatorriko guztizko biztanleria kontuan hartzen bada. Era berean, alde handiak daude ezusteko gastuei aurre egiteko zailtasunei dagokienez (BB kolektiboaren % 25,5ek eta atzerritar jatorriko guztizko biztanleriaren % 31,1ek ditu horrelakoak).

22. taula. Behar ekonomikoei aurre egiteko zailtasunak, BB kolektiboan eta atzerritar jatorriko biztanlerian (%-tan) (2014)


	BB kolektiboa	Atzerritar jatorriko biztanleria
Zailtasunik ez	41,2	33,8
Elikadura, jantziak-oinetakoak eta etxebizitza bermatzekoak	33,3	35,1
Ustekabeko gastuei aurre egitekoak	25,5	31,1
Oinarrizko beharrei aurre egitekoak, 6 hilabetez edo gehiagoz azken urtean	14,3	15,5

Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

Etxebizitzari buruzkoetan, azpimarratu beharra dago, joera nagusia alokairuan bizitzea den arren, etxebizitza baten jabe direnen edo izateko bidean direnen ehunekoa handiagoa dela BB kolektiboan atzerritar jatorriko guztizko biztanlerian baino. Izan ere, BB kolektiboko pertsonen % 33,2 bizi da jabetzan duen etxebizitzan (osorik edo zati bat ordainduta); atzerritar jatorriko guztizko biztanlerian, berriz, ehuneko hori % 20koa da. Bestalde, etxebizitza partekatzen

dutenen ehunekoa askoz txikiagoa da BB kolektiboan (% 4,4koa), atzeritar jatorriko guztizko biztanlerian baino (% 13,5).


22. grafikoa. Etxebizitzaren edukitza-erregimena, BB kolektiboan eta atzeritar jatorriko biztanlerian (%-tan) (2014)



Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

Pobrezia- eta prekariedade-egoerei dagokienez, azpimarratu beharra dago etxeko egoera eroso edo oparoa dela jotzen dutenen ehunekoa handiagoa dela BB kolektiboko pertsonen artean (% 20,3) atzeritar jatorriko pertsonen guztizko multzoan baino (% 15,7). Ildo horretatik, etxeko egoera ekonomikoa txarra edo nahiko txarra dela uste dutenen ehunekoa apur bat handiagoa da atzeritar jatorriko guztizko biztanlerian.

23. grafikoa. Pobrezia/ongizatearen pertzepzioa, BB kolektiboan eta atzeritar jatorriko biztanlerian (%-tan) (2014)



Iturria: EABI 2014ko datuak oinarri hartuta egin da

4

Pobreziari eta Gizarte-desberdintasunei buruzko Inkestaren azterketa

Pobreziari eta Gizarte-desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) helburu nagusiak bi hauek dira: batetik, pobreziaren fenomeno eta fenomeno horrek EAEn duen eraginaren berri jakitea, aztertzea eta ebaluatzea, eta, bestetik, prekaritateari edo gizarte-desorekari loturiko adierazleak eskuratzea ere⁶.

Estatistika-eragiketa honek eskaintzen dituen ustiatzeko aukerak kontuan hartuta⁷, honako baldintza hauek betetzen dituztenak hartu ditugu “atzerritar jatorriko etxegune” gisa:

1. Etxegunean 0-24 urte arteko atzerritarren bat bizitzea.
2. Etxegunean aita eta/edo ama atzerriko nazionalitatekoak izatea eta seme-alabak edukitzea.

PGDIren lagin haztatuan 2.142.539 pertsona hartu dira (jasotzaileak erabili dira), eta horietatik 98.209 (% 4,6) 0-24 urte bitarteko atzerritar nazionalitateko pertsonak dira, eta 152.631 personas (% 7,1), bigarren baldintzak adierazitako egoeran daude; hau da, aita-amekin bizi dira eta hauek

⁶PGDI inkesta lau urtean behin egiten du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak. Urte osoan edo urteko hila bate gehienetan familia-etxebizitza ohiko bizilekutzat erabiltzen duten familiei egiten zaie inkesta, eta galdeketatik familia osoari buruzko datuak eta familia osatzen duten gizabanakoei buruzkoak eskuratzen dira. 2012an 3.296 familiak osatu zuten lagina.

⁷PGDIk nazionalitatea aldagaiari buruzko informazioa besterik ez du ematen eta ez jaiotza-herrialdeari buruzkoa; hori dela eta, atal honetan aztertutako atzerritar jatorriko talde horretan ezin ditugu nazionalizatutako pertsonen seme-alabak sartu. Era berean, Espainiako estatura zer urtetan iritsi ziren ez dakigu, eta datu hori gabe, ezin dugu erabili talde horren barnean sortutako sailkapena (2.0B; 1.5B; 1.25B eta 1.0B).

atzerritar nazionalitatekoak dira⁸. Guztira, lagin horretako 165.257 pertsona dira atzerritar jatorrikoak, lehen edo bigarren egoeran egoteagatik; hau da, PGDIIn kontuan hartutako pertsonen % 7,7.

23. taula. Etxeguneetan bizi den biztanleria. Pobrezia eta Gizarte-desberdintasunei buruzko Inkestaren lagin haztatua (2016)

	K	%
0-24 urteko atzerritarrak (1)	98.209	4,6
Guraso atzerritarren seme-alabak (2)	152.631	7,1
Bigarren belaunaldiak*	165.257	7,7
Guztira, etxeguneetan bizi diren pertsonak, PGDI	2.142.539	100,0

*Atzerritar jatorrikoak: 1. eta/edo 2. egoeran dauden pertsonak

Iturria: PGDI 2016ko datuak oinarri hartuta egin da

Ondorengo taula eta grafikoetan, lagineko etxeguneetako biztanleen guztizko datuak eta atzerritar jatorriko pertsonen datuak adierazi eta alderatu ditugu, inkestan aztertutako arlo eta dimentsio guztietan.

Pobreziaren eta prekaritatearen adierazleak mantenuari dagokionez (errenta)

Taula honetan oinarrizko beharrianak betetzearekin lotura gehien duten PGDIko adierazleak adierazi ditugu. Nabarmena da atzerritar jatorriko biztanleek zailtasun handiagoak dituztela oinarrizko beharriaz aurre egiteko: atzerritar jatorriko etxeguneetako pertsonen % 43,5ek oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzte, eta % 16,6k ez du, gaur egun, gastu horiei aurre egiteko adina sarrera. Aldiz, lagunaren guztizko datuak aintzat hartuz gero (euskal biztanleria osoa), adierazle horien ehunekoak nabarmen txikiagoak dira: % 16,5 eta % 5,5, hurrenez hurren.

Zailtasun horien ondorioz, atzerritar jatorriko pertsonak, oro har, arazo handiagoak dituzte elikadura egokia eskuratzeko edo ohiko gastuei aurre egiteko.

⁸Era berean, erreferentziazko unitatea familia denez, ezin ditugu kontuan hartu gurasoen etxetik joan eta beren kabuz bizi diren atzerritar jatorriko (aita edo ama atzerritar nazionalitatekoa) 25 urtetik beherako gazteak.


24. taula. Gabezia-adierazleak, diru-sarrerei eta mantenuari dagokienez (%-tan) (2016)

	PGEI etxeak	Atzerritar jatorriko etxeak
Oinarrizko gastuak murriztu beharra dute	16,5	43,5
Ezin diete aurre egin oinarrizko gastuei	5,5	16,6
Elikatzeko arazoak dituzte		
Elikatzeko arazo larriak dituzte	3,6	12,9
Elikatzeko oso arazo larriak dituzte	3,1	12,0
Etxean gosea zer den ikusi dute	1,7	4,0
Ez dute elikagai proteinadunik jaten gutxienez 2 egunetik behin	3,4	16,6
Arazoak dituzte betebeharrei edo ohiko gastuei aurre egiteko		
Ez dute ordaintzen edo berandu ordaintzen dute	6,3	22,4
Hornidura eten diete	2,0	7,3
Ondasunak bahitu dizkiete	0,8	1,2
Jabetzak saldu dituzte. Etxez edo ikastetxez aldatu dira	0,9	1,7
Irauteko beste arazo batzuk dituzte		
Bigarren eskuko arropak erabili beharra izan dute	6,7	21,7
Etxean hotza sentitu dute azken neguan	8,9	25,1

Iturria: PGDI 2016ko datuak oinarri hartuta egin da

Gauzak horrela, ez da harrizkoa atzerritar jatorriko etxeetan bizi diren pertsonetatik ia erdiek esatea ez direla gai ustekabeko gastuei aurre egiteko; lagina osorik hartzen bada, berriz, egoera horretan dauden pertsonen ehunekoa % 19,0koa da. Era berean, arazo ekonomikoak direla-eta oporretara joaten ez direnen ehunekoa handiagoa da atzerritar jatorriko gurasoak dituzten biztanleen artean, eta zorpetze-arriskua handiagoa da atzerritar jatorriko gurasoak dituztenen artean (% 9,6), laginaren guztizkoan baino (% 2,4).

24. grafikoa. Ongizate-gabeziaren eta zorpetzearen adierazleak (2016)




Iturria: PGDI 2016ko datuak oinarri hartuta egin da

Horren ondorioz, kanpoko laguntza gehiago eskatzen ditu atzerritar jatorriko gurasoak dituzten pertsonen kolektiboak laginaren guztizkoan baino. Aipatu

behar da, horrez gain, atzerritar jatorriko gurasoak dituztenek, normalean, erakunde publikoei edo pribatuei laguntza eskatzen dietela zorpetzeari aurre egiteko, eta euskal biztanleriaren guztizkoak, berriz, helburu horretarako aurrezkiak baliatzen dituela, neurri handi batean.

25. grafikoa. Gabezia-arriskuei eta horiei lotutako zorpetze-arriskuari aurre egiteko moduaren adierazleak (2016)



Iturria: PGDI 2016ko datuak oinarri hartuta egin da

Pobrezia- eta prekaritate-adierazleak metatze-alorrean (ondarea eta epe luzerako bizi-baldintzak)

Hainbat pertsonak ez dute ahalmenik epe ertainera eta luzera bizi-baldintza onargarriak finkatzeko eta sor daitezkeen aparteko gastu-beharrei aurre egiteko gutxieneko erreserba-ondarea izateko; hain zuzen, gaitasun falta horri loturik daude metatutako pobrezia- eta prekaritate-egoerak. Honako hauek hartu dira kontuan: etxebizitzetako instalazio eta ekipamenduetako gabeziak, erreserba-ondarearen zenbatekoa eta ohiko beste ondasun eta zerbitzu batzuk izatea (norberaren autoa, oporrak hartzeko aukera, etab.). Atal honetako gabezia-adierazleak ere erakusten dute atzerritar jatorriko familietako kideek zailtasun handiagoak dituztela. Epe luzerako bizi-baldintzetan eta familien erreserba-ondarean sor daitezkeen arrisku-faktoreekin loturik daude adierazle horiek.


Lagin osoko pertsonak kontuan hartuta, biztanleen % 4,4 behar adinako baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi da; aldiz, atzerritar jatorriko familietako pertsonen kasuan portzentaje hori % 18,2koa da.

25. taula. Gabezia-adierazleak, metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak) (2016)

	PGEI etxeak		Atzer. jat. etxeak	
	K	%	K	%
Jabetza partzialki ordaindua, alokairua eta antzekoak	954.582	44,3	135.192	81,8
Aurrezkirik ez	463.785	21,6	91.586	55,4
Urtebeteko gastuetarako aurrezterik ez	1.020.777	47,6	129.626	78,4
Hamar urte baino gutxiagoko autorik ez	1.161.696	54,2	96.953	58,7
Bestelako ondare-ondasunik ez (etxea edo aurrezkiak ez direnak)	1.529.950	71,4	153.587	92,9
Astebete edo gehiagoko oporrik ez	820.434	38,3	95.697	57,9
Astebete edo gehiagoko oporrik ez (arrazoi ekonomikoak direla-eta)	407.679	19,0	77.585	46,9

Iturria: PGDI 2016ko datuak oinarri hartuta egin da

26. grafikoa. Etxebizitza egokia izatea (2016)




Iturria: PGDI 2016ko datuak oinarri hartuta egin da

Benetako pobrezia eta prekarietatearen adierazle sintetikoak

Pobrezia eta ongizate-gabezia egoerek duten eragina modu objektiboan neurtzeko aukera ematen duten adierazleak ere garatzen ditu inkestak. Horrenbestez, benetako pobrezia eragina % 5,7koa da inkestaren lagin osoa kontuan hartuta, eta % 23,7koa, atzerritar jatorriko pertsonak bizi diren familiak aintzat hartuta. Era berean, biztanleria osoa kontuan hartuta, familien % 40,5 erabateko ongizate-egoeran bizi da, eta, aldiz, atzerritar jatorriko biztanleen % 15,3 baino ez da iristen ongizate-maila horretara.

27. grafikoa. Benetako ongizaterik ezaren eta pobrezia-aren eskalako egoerak (2016)



Iturria: PGDI 2016ko datuak oinarri hartuta egin da

5

Ondorioak

Txosten honen aurkezpenean esan dugu lan hau atzerritar jatorriko pertsonen eta/edo familia migratzaileen egoera zein den jakiteko lehen ahalegina dela, eta, beraz, erronka handia. Era berean, hemen jasotako emaitzak etorkizuneko ikerlanen hipotesi edo abiapuntu izatea da gure helburua eta nahia, kontuan hartuta literatura zientifikoan *bigarren belaunaldi* esaten zaienek (txosten honetan 2.0 belaunaldia izendatu dugun taldea) ordezkari nabarmena izango dutela etorkizunean EAEn; izan ere, 2011. urterako jada, EAEn bizi ziren 0 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 10 zen belaunaldi horretako kidea. Zifra horri gehituz gero gurasoetako bat atzerritar jatorrikoa izanik 4 urte baino gehiagorekin gure autonomia-erkidegora iritsitako 0 eta 24 urte bitarteko pertsonen kopurua, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen portzentajea %16 ingurukoa da.

Era berean, zehaztu nahiko genuke pertsona migratzaileen seme-alaba izateak ez lukeela, berez, gazte hauek aztergai edo ikerlan bateko xede bihurtzeko arrazoi nahikoa izan behar; izan ere, hori egitean migratzaile izatearen oinordetza indartzen jardungo genuke esparru zientifikotik. Hala ere, Moscusik (2007) nabarmendutakoaren harira, etorkinen seme-alabak subjektu espezifikotzat har daitezke, bi eratako bazterketa jasaten dutelako (gizarte eta lan arlokoa, batetik, eta etnikoa, bestetik), eta, horren ondorioz, guztiz bestelako esperientzia biografikoa bizitzen dutelako beren belaunaldiko beste gazte batzuen aldean, gurasoen migrazio-ibilbideari estu loturiko esperientzia.

Gure emaitzetan ere islatu ditugu esperientzia biografiko desberdin horiek. Hala, Biztanleria eta Etxebizitza Errolda eta Pobreziari eta Gizarte-desberdintasunen Inkesta zehatz eta zorrotz aztertu ondoren, atzerritar jatorriko pertsonen (eta talde horretako kategorien) eta euskal/espainiar jatorriko biztanleen artean dauden aldeak egiaztatu ahal izan ditugu. Alderdi eta esparru askotan dira

agerikoak alde horiek: etxegunearen egituran, etxebizitzaren ezaugarrietan, pobrezia- eta prekarietate-egoerek duten eraginean eta abar.

Horrenbestez, biztanle horien profila hezurmamitzen duten zenbait faktore laburbildu ditugu, etorkizuneko politika eta jardunei begira orientagarri izan daitezkeelakoan:

Bigarren belaunaldien ezaugarriak EAEn

EAEn bizi diren 0 eta 24 urte bitarteko 76.914 pertsonak atzerritar jatorrikoa dute gurasoetako bat gutxienez. Gehienak, 46.609 pertsona (% 60,6), 2.0B kategoriakoak dira; hau da, atzerritar jatorriko pertsonen seme-alaba izanik Espainiako estatuan jaiotakoak edo gehienez ere 4 urte zituztela berriro ere familiarekin elkartutakoak. Zorrotz jokatuta, bigarren belaunaldiak dira.

Gipuzkoan bizi dira gurasoetako bat gutxienez atzerritar jatorrikoa duten 0 eta 24 urteko pertsona gehien: 37.748 (% 49,1), hain zuzen ere. Bizkaian, 22.978 pertsona bizi dira (% 29,9) eta, azkenik, Araban, 16.188 (% 21).

EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanle gehienak espainiar nazionalitatekoak dira; hain zuzen, 32.827 lagun (% 42,7) dira nazionalitate horretakoak. 32.827 gazte horietatik % 93,3 2.0B kategoriakoa da: Espainiako estatuan jaiotakoa edo 4 urte bete baino lehen familiarekin berriro elkartutakoa. Espainiarren ondoren, nazionalitate hauetakoak dira bigarren belaunaldietako kide gehienak: marokarrak (% 8,4), errumaniarrak (% 7,6), kolonbiarrak (% 5,8), boliviarrak (% 5,1) eta ekuadortarrak (% 4,1).

Pertsona horiek jaio diren herrialdea, hein handi batean bat dator aurrez aipatutako nazionalitateekin. Espainiako estatuan jaiotakoak dira gehienak, eta, ondoren, nabarmentzekoak dira beste zenbait jatorri, hala nola Kolonbia eta Ekuador.

Ikasketak

Atzerritar jatorriko gazteen aita-amen artean handiagoa da ikasketarik gabeko pertsonen ehunekoa, eta, aldiz, euskal/espainiar jatorrikoen artean handiagoa da hirugarren mailako ikasketak dituzten gurasoen ehunekoa.

Langabezia-tasa handiagoa da atzerritar jatorriko pertsonen aita-amen artean.

Migratzaileen ondorengoen eskola-ibilbidea aztergai dugula, zuhurtzia osoz jokatuta, ondoriozta dezakegu 16 eta 24 urte bitarteko gazte gehienak (% 60,7) ikasten ari direla, eta portzentaje hori % 46ra jaisten dela atzerritar jatorriko biztanleen artean.

Aztertzen badugu 17 eta 24 urte bitarteko gazte horiek zer ikasketa egiten ari diren, nabarmentzekoa da euskal/espainiar jatorriko pertsonen ia erdia unibertsitate-ikasketak ari direla egiten, eta, aldiz, atzerritar jatorrikoen artean, % 22,7 baino ez. Aldiz, enplegu-zerbitzuetako prestakuntza-ikastaroak eta arautu gabeko beste ikastaro batzuk egiten ari diren atzerritar jatorriko pertsonen portzentajea % 30ekoa da.

Egoera administratiboa eta lan-egoera

Atzerritar jatorriko guztizko biztanleriarekin alderatzen bada, BB kolektiboak egoera administratibo hobea du hark baino, hau da, irregulartasun-tasa txikiagoa du eta denbora gehiagoz dago EAEn erroldatuta.

Horrez gain, ikusten da BB kolektiboaren lan-egoera hobea dela atzerritar jatorriko guztizko biztanleriarena baino, hots, langabezia gutxiago dagoela eta okupatutako langile kualifikatu gehiago daudela kolektibo horretan.

Pobreziarekin lotura duten faktoreak

Atzerritar jatorriko pertsonen osaturiko etxeguneetan bizi diren pertsonen ia erdiak (% 44,3) murriztu egin behar izan ditu oinarrizko gastuak, eta horietatik % 16,6k ezin ditu gaur egun gastu horiek ordaindu.

Atzerritar jatorriko familiek zailtasun handiagoak dituzte aisialdia eta denbora libre baliatzeko eta horietaz gozatzeko.

Atzerritar jatorriko etxeguneetan bizi diren pertsonen erdiak ez du ahalmenik ezusteko gastuei aurre egiteko; aldiz, euskal/espainiar jatorriko biztanleen artean zifra hori % 19ra murrizten da.

Esana esan, azpimarratu behar da BB kolektiboak apur bat gaitasun handiagoa duela oinarrizko beharrei aurre egiteko atzerritar jatorriko guztizko biztanleriak baino.



BIBLIOGRAFIA

- Ararteko, I. (2011). Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak: Arartekoaren erakundeak Eusko Legebiltzarrari igorritako aparteko txostena.
- Carrasco, S., Pámies, J., & Bertran, M. (2009). Familias inmigrantes y escuela: Desencuentros, estrategias y capital social. *Revista complutense de educación*, 20(1), 55-78.
- Etxeberría, F., & Elosegui, K. (2010). Integración del alumnado inmigrante: obstáculos y propuestas. *Revista Española de Educación Comparada*, (16), 235-264.
- Franzé, A., Moscoso, M. F., & Sánchez, A. C. (2011). “Donde nunca hemos llegado”. Alumnado de origen latinoamericano: entre la escuela y el mundo laboral, in *Biculturalismo y segundas generaciones: integración social, escuela y bilingüismo* (279-308). Icaria.
- Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). 2014. *Ikasle etorkinen emaitzak EAEn*. Esteka honetan eskuragarri: <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/ED13/ED13-Informe%20alumnado%20inmigrante-final.pdf>
- López, D. E., Stanton-Salazar, R. D., Rumbaut, R. G., & Portes, A. (2001). Ethnicities: children of immigrants in America. *Ethnicities: children of immigrants in America*.
- Moncusi, F. (2007). Segundas generaciones: la inmigración como condición hereditaria. *AIBR, Revista de Antropología Iberoamericana*, 2(3), 459-487.
- Moreno, G. eta Aierdi, X (2011): Euskadiko Immigrazioaren Urtekaria, 2010. Zarautz: Ikuspegi@k, Immigrazioaren Euskal Behatokia.


Portes, A., & Aparicio, R. (2013). *ISLEG proiektua (Espainiako estatuko bigarren belaunaldiari buruzko luzekako ikerketa)*. Working Paper, Madril: Princetongo Unibertsitatea eta Ortega y Gasset Unibertsitate Institutua.

Poveda, D., Jociles, M. I., & Franz, A. (2009). La diversidad cultural en la educación secundaria en Madrid: experiencias y prácticas institucionales con alumnado inmigrante latinoamericano. *Papeles de Trabajo sobre Cultura, Educación y Desarrollo Humano*, (5), 3.

Rumbaut, R. G. (2004). Ages, Life Stages, and Generational Cohorts: Decomposing the Immigrant First and Second Generations in the United States. *International Migration Review*, 38(3), 1160-1205.

Adituen ikuspegia

Gorka Moreno Márquez





AURKIBIDEA

Sarrera	95
1. Hezkuntza-esparruan ezarritako harrera- eta aniztasun-politikak	97
2. Hezkuntza	103
2.1. Irakasleak	104
2.2. Matrikulazioa eta etorkinak eskola jakinetan pilatzea	106
2.3. Ikasle etorkinak eta euskara (hizkuntza-eredua)	112
2.4. Emaitza akademikoak eta aldeak	116
3. Familiak eta komunitatearen esparrua.	119
4. Aniztasunaren trataera: kulturartekotasuna eta gatazkak	123
5. Jardunbide egokiak.	127
6. Ondorioak eta funtsezko elementuak.	131
Eranskinak.	137
Elkarrizketatutako pertsonak	137
Elkarrizketen gidoia.	138



SARRERA

Txosten hau ikerlan zabalago batean barnebiltzen da; azken 15 urteotan gure ingurunera iritsi eta EAEn bizi diren immigrante atzerritarren seme-alaben (bigarren belaunaldiak) azterketa eta analisia da ikerlan zabal horren muina.

Abiatzeko, funtsezkoa zen gure testuinguruan fenomeno hori gaur egun zertan den jakitea, eta horretarako, galdeketa kualitatibo bat egin dugu gaien adituak diren pertsonen artean, eta batez ere hezkuntza-esparrua ondo ezagutzen duten pertsonen artean. Nolanahi ere, elkarreentako eta irakaskuntza munduko adituak ere badiren galdekatuen artean. Hain zuzen, bederatzi elkarrizketa egin ditugu guztira (ikusi Eranskina), eta horietatik atera ditugu, hitzez hitzeko aipamenen bidez, txosten hau hezurramitzen duten ideia nagusiak eta informazioa.

Elkarrizketaren teknika erabili dugu ikerlana egiteko: gai zehatz bat ardatz hartu eta horri buruz egin dizkiegu galderak adituei. Horri esker, pertsona talde txiki horren eskutik informazio ugari eta zehaztasun handikoa lortu dugu ikerlanaren gai nagusiari buruz.

Mota horretako elkarrizketetan, gidoi bat izaten da (ikusi Eranskina), elkarrizketatzaileari egoki iruditzen zaizkion galdera irekiez osatua. Hain zuzen ere, elkarrizketatzailearen xedea izan da elkarrizketatuaren motibazioari, jarrerari eta egitasmoei loturiko alderdietan sakontzea, bai eta aztergai dugun gaiari buruzko informazio zehatza lortzea ere.

Txostena hainbat ataletan egituraturik dago. Ahal izan den neurrian, gidoiaren egitura eta EAeko bigarren belaunaldiei buruzko ikerlanaren arauzko oinarriak hartu dira ardatz ildo hori zehazteko; izan ere, txostena aipatutako ikerlan horretan txertaturik dago.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasle etorkinei eskolan harrera egiteko bultzatutako politikak eta hartutako neurriak berrikusi ditugu, labur bada ere. Elkarriketatuen eskutik, izan diren planak nabarmendu ditugu eta ikasle etorkinei oso loturik egon diren bi figuren eginkizuna eta rola aztertu eta ebaluatu dugu: hizkuntza indartzeko irakaslearena eta kulturarteko dinamizatzailearena, hain zuzen.

Hurrengo atalean, hezkuntza-esparruko azterketa hartu dugu ardatz. Hasteko eta behin, irakasleek testuinguru horretan duten eginkizuna aztertu dugu azpiatal batean, eta ondoren, ikastetxeei eta ikasle etorkinei loturik dauden arazo nagusiak aztertu ditugu. Zehazki, hiru azpimarratu ditugu: kolektibo horren metaketa ikastetxe jakin batzuetan, hizkuntza-ereduaren aukeraketa eta euskarara ikastea, eta eskola-errendimenduari zerikusia duten alderdiak. Atal hori da txosten honetako zabalena eta, beharbada, elkarriketatutako pertsonen kezka nagusiak biltzen dituena.

Ondoren, familiek eta komunitateak duten eginkizuna aztertu dugu, eta, besteak beste, modu berezian jorratu ditugu gai hauek: familia etorkinek eskolan parte hartzea zeinen egokia den, eta komunitateak eta hezkuntza ez-formalak zer-nolako garrantzia duten ikasle etorkinak gizarteratzeko zereginean.

Hurrengo atalean, berriz, kulturarteko logika hezkuntza-esparruan nola txertatzen ari den aztertu dugu eta aniztasunaren trataerari eta horren harira sor daitezkeen arazoei zer erantzun ematen ari zaion.

Jarraian, gaur egun dauden jardunbide egokiak bildu eta aztertu ditugu, aurrez azaldutako egoerak hobetzeko eragingarri izan daitezkeelakoan. Eta bukatzeko, azken atalean, ondorio nagusiak jaso ditugu eta, orobat, txosten honen bidez eskuratutako emaitzei buruzko zenbait gogoeta ere bildu ditugu.

1

Hezkuntza-esparruan ezarritako harrera- eta aniztasun-politikak

Ikasle etorkinen harrerarako eta aniztasunaren trataerarako politikak nahiko berriak dira, 2000ko hamarkadaren hasieran iristen hasi ziren lehen migrazio-fluxuekin bateratsu ezarriak.

Hain zuzen, une horretan jarri ziren martxan ikasle horiei harrera egiteko lehen programa pilotuak; esate baterako, 2001. urtean Durangon ezarritakoa. Gai horrek, ordea, 2003. urtetik aurrera hartu zuen garrantzia, Hezkuntza Sailak orduan jarri baitzuen martxan Ikasle etorkinen Artapen Programa, Immigrazioko I. Euskal Planaren baitan. Programa horrek beraz, inflexio-puntu bat ezarri zuen esparru horretan.

Hain zuzen, programa horretan jasotzen da jada Hizkuntza indartzeko irakaslearen figura; Hezkuntza Sailak ikasle horien harrera egokirako eskaintzen duen baliabide nagusietako bat. Aurrerago sakonduko dugu figura horretan.

“2001ean programa pilotu bat jarri zen martxan Durangon; irakasle batzuk batera eta bestera ibiltzen ziren, egun batean eskola batean eta hurrengoan bestean, hizkuntzaren gaia indartzeko (...). 2003an Ikasle etorkinen Artapen Programa sortu zuten Immigrazioko Euskal Planaren baitan.” (E: 3).

“Nik uste 2003an Hezkuntza Saila kezkatzen hasi zela, zentzu onean, eta zenbait ekimen martxan jartzen, errealitate hori eskoletara iristen ari zela jabetzean.” (E: 4).

2007an lehen plana amaitu ondoren, Immigrazioko II. Euskal Plana jarri zuen martxan Hezkuntza Sailak eta horren bidez beste fase bat abiarazi zuen harrerako eta aniztasunaren trataerarako politiketan. Hiru helburu hauen arabera hezuramaitu ziren politika haiek: Ikastetxeetan kulturartekotasuna lantzea, ikasleen gizarteratzea eta eskola-errendimendu egokia lortzea. Oraingoan, plan horretatik sortu zen Kulturarteko dinamizatzailearen figura, eta hala, hizkuntza indartzeko irakaslearen baliabideaz gain beste bat jarri zen. Hauek dira kulturarteko dinamizatzailearen egitekoak: kulturartekotasuna sustatzea eta

bultzatzea, sor daitezkeen gatazkak bideratzen saiatzea eta, horrez gain, Gu-raso Eskolak egiten dituzten ikastetxeetan euskal kultura hedatzea. Baliabide hori ikastetxean dauden ikasle atzerritarren ehunekoaren arabera da; izan ere, lehen hezkuntzan %20koa edo hortik gorakoa izan behar du portzenta-jeak, baliabide hori izateko, eta bigarren hezkuntzan, %12koa. Gainera, baliabide horrek hiru urteko iraupena du. Hizkuntza indartzeko irakaslearen kasuan gertatu den moduan, dinamizatzailearena figura ere krisian dagoela esan daiteke, baliabide hori eskuratzeko baldintzen ondorioz eta ikasle etorkinen artean gertatu diren aldaketen ondorioz.

“Figura hori ikasle etorkinen ehuneko bati loturik zegoen. Baina, urteek aurrera egin ahala, beste baldintza bat jarri zuten: hiru ikasturteren ondoren, ikastetxeak barneratuta eta txertatuta eduki behar zuen kulturarteko lana eta ikuspegia. Eta orduan, hiru ikasturtetan edo gehiagotan baliabide hori izan zuten ikastetxeak dinamizatzailerik gabe geratzen ziren. Eta uneotan, desagertzeaz dago. Izan ere, ikasle etorkinak hartzen ari diren ikastetxeen artean oso gutxi dira hiru urtetan halako baliabiderik izan ez dutenak, oso gutxi eta oso txikiak. Beharbada ikastetxeren bat iritsiko da orain ehuneko horretara. Eta, horren guztiaren ondorioz, kulturarteko dinamizatzailearen baliabidea gainbeheran dago. Batzuek ezbaian jarri izan dute eta beste batzuek ikastetxe guztietan halakoren bat beharko litzatekeela aldarrikatu izan dute. Beharbada interesgarria zatekeen ikastetxeek zuzkidura bat izatea gai horren gainean gogoeta egiteko, bai.” (E: 9).

2008. urteaz geroztik ikastetxe guztiak behartuta daude Harrera Plan bat izatera

Era berean, 2008. urteaz geroztik ikastetxe guztiak behartuta daude Harrera Plan bat izatera; plan hori, berez, ez da soilik ikasle atzerritar iritsi berriei mugatua, baina sarri askotan haiena da planaren jardun-eremu garrantzitsuenetakoa.

Ekimen horiek guztiak Ikasle Etorkinen Arretarako Programaren bidez bideratu dira 2012. urteaz geroztik. Programa hori, aldi berean, Eskola Inklusibo eta Kulturarteko baterako Programan txertaturik zegoen. Azken hau 2015. urtean amaitu da, eta dagoeneko hasi dira berau ebaluatzeko lehen jarduerak.

Indarrean diren programa espezifikoaren artean nabarmentzekoa da Hamaika Esku deritzona, emaitzak txarrak diren ikastetxeetan laguntzeko programa. Zenbait kasutan, ikasle etorkinen ehuneko altuak dituzten ikastetxeak dira programa hori abiarazi dutenak. Hamaika Eskuk baliabide osagarriak jartzen ditu ikastetxeen zerbitzura eta irakasle-taldea hiru urterako egonkortzeko bidea eskaintzen du, denboran iraungo duen talde sendoak osatu ahal izateko. Egindako elkarrizketa batzuetan, solaskideek jardun egokitzat jo dute programa hori.

“Nik uste dut bide hori interesgarria izan daitekeela. Hamaika Esku ez dago halabeharrez ikasle etorkinen ehuneko altuak dituzten ikastetxeetara bideratua, baina batez ere horietan dago ezarrita. Itxura batean jabetu ziren ikastetxe batzuetan emaitzak ez zirela onak. Eta orduan ikastetxe horietan arreta berezia jartzea erabaki zuten goikoek. Eta hainbat neurri abiarazi zituzten. Lehena, zuzendaritza-talde

egonkorra lortzea, eta talde horri hiru edo lau urte ikastetxe horretan finko egoteko aukera ematea. Bigarren neurria izan zen langileei nolabaiteko egonkortasuna ematea, eta nik uste dut garrantzitsua dela hori. Hori guztia da Hamaika Esku. Eta izan daiteke lan-ildo egokia, hasieran esan dizudan moduan. Ikastetxe horietara joatea, zentro horiek proiekturik onena izatea, baliabiderik onenak eta ez dizut esango irakaslerik onenak, irakasleak joan-etorrian ibiltzen direlako.” (E: 9).

“Niretzat Hamaika Esku programa saiakera bat da, apala nire iritziz, apalegia, baina saiakera bat finean.” (E: 7).

“Ikastetxe konplexuago horiei, egoera zailagoan dauden zentro horiei, hiru urteko gutxieneko egonkortasuna eman zaie; berez, ez da horrenbeste ere, baina bada zerbait.” (E: 4).

Hamaika Esku ekimenaz gain, badira beste zenbait programa zehatz berariaz ikasle etorkinei bideratuta ez daudenak, baina berez haiei oso loturik ageri direnak. Horien artean azpimarratzekoak dira Bide-Laguna eta Hauspoa programak. Lehenak, ikastetxeen ordutegia zabaltzen du, eta bigarrenak, eskolako ordutegia goizera mugatzen du, arratsaldean jarduerak eta indartzeko ekimenak egiteko baldintzarekin.

“Hauspoa ez da etorkinei loturiko programa, baina aukera ematen die Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei eskolako ordutegia eta tresneria soilik goizetara bideratzeko. Baldintza da arratsaldetan ikastetxea irekita eduki behar dutela eta indartzeko eta zabaltzeko jarduerak antolatu behar dituztela. Eta horietan irakasleen %80k hartu behar du parte.” (E: 9).

Ikasle etorkinen fenomenoaren hasiera batean erabat berria eta ezezaguna zen, eta, oro har, orain arte egindakoaren balorazioa positiboa da, baita bidean emandako erantzunaren balorazioa ere. Nolanahi dela ere, antzematen da indar edo interes pixka bat galdu dela harreraren eta aniztasunaren trataeraren gaiarekiko. Hala, solaskideetako batzuek azpimarratu dute hasiera batean berotasun edo interes berezia izan zela gaiarekiko, baina urteak igaro diren heinean, indarrean diren neurriek freskotasuna galdu dutela eta, zenbait kasutan, arreta oso mekanizatua eskaintzen dela.

Ikasle etorkinen fenomenoaren hasiera batean erabat berria eta ezezaguna zen, eta, oro har, orain arte egindakoaren balorazioa positiboa da, baita bidean emandako erantzunaren balorazioa ere.

“Berritzegune guztietan mintegiak egiten ziren; ikastetxeak Berritzeguneetara joaten ziren. (...) Azkeneko hamar urteotan beti izan ditugu etorkinak gure ikasgeletan eta ohitu egin gara. Gai honek nolabaiteko inertzia hartu du eta uste dut hori ez dela ona.” (E: 3).

“Azkeneko urteotan hauspoa galdu da.” (E: 1).

“Immigrazioa jada egiturazko zerbait dela ematen du eta ez da behar beste aintzat hartzen. Eta ondorioz, alderdi horiek jada ez dira lantzen eta uste dut hori ez dela batere ona.” (E: 5).

Solaskideen iritziz, interes gutxitze hori nabarmentzekoa da Hizkuntza indartzeko irakaslearen kasuan; arestian esan dugunez, baliabide hori 2003an sor-

tu zen eta indarrean da gaur egun ere. Baliabide horren helburu nagusia da ikasle iritsi berriei laguntzea, batez ere hasierako fasetan, eskolatzeko lehen bi urteetan, bi hizkuntza ofizialak ikasteko arreta indibidualizatuagoa emanez.

Urteotan guztiotan zenbait aldaketa izan dira, batez ere baliabide hori emateko baldintzei dagokienez. 2012. urtera arte, baliabide hori eskatzen zuen ikastetxeak zenbait konpromiso hartu behar zituen; esate baterako, hizkuntza indartzeko irakasleak zer plangintzari jarraituko zion zehaztu behar zuen, ikasleekin zer programa erabiliko zuen jakinarazi behar zuen eta Berritzeguneetako prestakuntza-ikastaroetara joan behar zuen. Urte horretatik aurrera konpromiso horiek desagertu egin ziren eta hizkuntza indartzeko irakaslearen baliabidea automatikoki ematen zaie atzerriko ikasle iritsi berrien ehuneko nabarmena edo altua duten ikastetxe guztiei.

Neurri batean desitxuratu egin da hizkuntza indartzeko irakaslearen figura; izan ere, konpromisorik ez eskatzean, ikastetxeek harreraren alde eginiko apustua azken urteotan ahuldu egin delako.

Elkarrizketatuek kritikatu egin dituzte baliabide hori emateko baldintzetan eta bilakaeran izan diren aldaketak; areago, uste dute baldintza horiek neurri batean desitxuratu egin dutela baliabide hori; izan ere, figura horren balorazioa positiboa den ala ez alde batera utzita, konpromisorik ez eskatzean, ikastetxeek harreraren alde eginiko apustua azken urteotan ahuldu egin dela

adierazi dute. Gainera, baliabide horrentzat ez da gaikuntza edo prestakuntza espezifikorik eskatzen, eta, horren ondorioz, elkarrizketatuek azpimarratu dute hizkuntza indartzeko irakaslearen baliabideak ez duela beste egoera batzuetan izan zezakeen adinako ahalmenik.

“Nik baietz uste dut, onuragarria izan dela.” (E: 1).

“Uste dut tresna garrantzitsua izan dela, baina egia da, azken urteotan, eta beti ere kakotx artean, zenbait lekutan desitxuratu egin dela irakasle horren figura. Hizkuntza indartzeko irakaslearen 20 orduekin irakasle baten lanaldia osatzen dut. (...) Gainera, lan horretarako ez da inolako prestakuntzarik edo gaikuntzarik eskatzen; pedagogia terapeutikoko irakasleentzat bai, baina hizkuntza indartzeko irakasleentzat ez.” (E: 3).

“Esango nuke azken urteotan atzera egin dela gai horretan. Gure iritziz, kolektibo horri tratu hobea ematen zitzaion duela urte batzuk. Itxura batean, jada ez dute tratamendu berezirik behar; itxura batean integratuta daude, eta ez dugu aintzat hartzen gai hori. Ez da aintzat hartzen prestakuntza, ez da zaintzen irakasle horiek hautatzeko modua. (...) Programaren lehen faseetan, ikastetxeko irakasle finkoak izatea eskatzen zen, zentroaren funtzionamendua ondo ezagutzen zuten irakasleak. Baina azken aldian antzeman dugu gero eta ordezkoko gehiago daudela: irakasle berriak zentrori iristen dira eta laguntzako ordu horiek ematen dizkiete.” (E: 5).

“Eta orduan, jakina, hizkuntza indartzeko irakaslearen figura eta haren lan-eredua eztabaidagai bihurtzen dira. Agian gai horri buruz hausnartzeko garaia da. Ardura hori izan dudanean, ikuspegi eta gako garbiak eman ditugu irakasle horren figurari dagokionez; garbi izan dugu ikasgelarako eta ikastetxerako baliabide bat dela, ez haurrentzako baliabide bat. Baina gero ikusten genituen irakasle horien ordutegiak eta ikusten genuen ume bat edo birekin egiten zutela lan, bakarrik eta aparte.

Ohartzen ginen beharbada hasieran, haurra iristen zenean, nolabaiteko segurtasuna ematen ziola irakasle horrek, babestua sentiarazten zuela. Baina ondo asko dakigu eskolako hizkuntzaren lehen berniz hori berehala ikasten dela. Besterik da, gero, eskolako hizkuntzari begira, irakasle horien lana oso lausotuta egotea eta tutoreekiko elkarlana txikia izatea.” (E: 9).

Gainera, ezin da ahaztu hizkuntza indartzeko irakaslearen baliabidea bi urterako ematen dela, eta normalean ez dela denbora nahikoa izaten ikasle horiek besteen maila hartzeko eta hizkuntzaren oinarritzko ezaguera eskuratzeko.

“Ikaslea iristen denean bi urterako errefortzu bat jartzen da. Eta azterketa guztien arabera 5 eta 7 urte artean behar dira hizkuntza bat idazteko eta irakaskuntzan erabiltzeko moduan ikasteko. Eta, beraz, errefortzuak bi urte baino gehiagotarako izan beharko luke.” (E: 7).

“Bi urterako ematen da. Eta hizkuntzei eta hizkuntzak ikasteari buruz zerbait daki-gunok, badakigu hori oso denbora gutxi dela. Denek dakite gutxienez sei edo zazpi urte behar direla curriculum-hizkuntzan maila bera izateko.” (E: 5).

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea bai kulturarteko dinamizatzailearen figura bai hizkuntza indartzeko irakaslearena ikasle atzerritar berrien ehunekoari loturik daudela. Azken urteotako datuek erakusten dute ikasleak beste autonomia-erkidegotik iristen direla eta ez jatorritik bertatik, eta kasu askotan Espainiako nazionalitatea dutela; horren ondorioz, ikasle horiek ez dira kontuan hartzen bi baliabide horiek eskuratzeko beharrezkoak diren ehunekoetarako.

“Bai, egia da, asko Espainiako nazionalitatearekin datoz. Eta, beraz, haur horiek hemen jaiok dira eta nazionalitatea eman zaie. Eta hori eragozpen bat da; izan ere, eskolak hori hartzen du kontuan baliabideak emateko: etorkina zaren ala ez. Alegia, legearen ikuspegitik, atzerritarra zaren ala ez. Eta hori arazoa bihur daiteke, aurrez kulturarteko dinamizatzailearen baliabide bat bazegoelako, ikasle etorkinen ehunekoari loturik. Esaten zenuen X eskolan ikasleen %28 etorkina zela, eta Estatistikak horrela berresten zuen, matrikulatzerakoan haurra beste herrialde batean jaiotuta adierazi eta aplikazioak datu horiek ematen zituelako. Alabaina, hezkuntza-sistemak profil horrekin izan ditzakeen zalantzen harira, haur horiek jada nazionalak badira, eskola horretako etorkinen portzentajea ez da %20koa izango, %5ekoa edo 3koa izango da. Eta, beraz, ez da dinamizatzailearen baliabiderik izango eskola horretarako.” (E: 9).

Azken batean, elkarrizketatuek azpimarratu dute nolabait lasaitu egin direla indarrean diren programa eta neurri espezifikoak eta bilakaera nabarmena gertatu dela; izan ere, ikasle etorkinen fenomeno berria eta zalantzaz bete izatetik ikasle horien etorrera eta horren ondorioak *normalizat* hartzera igaro gara.

Era berean, nabarmendu dute Hezkuntza Sailak ezarritako politikak gai jakin batzuk hartu dituztela ardatz: ikasle iritsi berrien harrera, hasiera horietan izaten diren zailtasunei nola erantzun eta epez kanpo eta ikasturtean zehar gertatzen diren matrikulazioak (gai hau luze-zabal aztertuko dugu beste atal

batean). Elkarrizketatuetako batek adierazi duen moduan, gaiarekin loturiko plangintzetan erabiltzen den terminologian bertan islatzen da ikuspegi hori.

“Jakina, hemen jaiotakoak eskolatzen ari gaitezke orain. Eta esaten ari nintzaizuna, hiru plangintzetatik bakar batean ere ez da aipamen zuzenik egiten. Tituluak nahastu egin ditzaket pixka bat, baina hiru planetan terminologia beti izan da desberdina. Lehena “Ikasle etorkinen arreta” zen. Bigarrena, “Hezkuntza-sistemara iritsi berriak diren ikasleak”. Eta hirugarrenean etorkinak kontzeptua berreskuratzen da.” (E: 9).

Alde horretatik, hainbat elkarrizketatuk azpimarratu dute esku-hartzea eta go-goeta ez direla berehalako egoerara mugatu behar, eta bestelako hausnarketa batzuk planteatzeko bideak ezarri behar direla, ikasle horiek gizarteratzera begira eta ez soilik harrerara begira. Hain zuzen, elkarrizketatuetako batek hitz-joko baten bidez azpimarratu du horixe bera: harrera landu da baina arreta ez.

“Nik uste ez dugula asmatu, ez horrenbeste harreran, baizik eta arretan. (...) Ez dakigu oso ondo nola erantzun bigarren belaunaldien gai horri, eta nik bultzada eman nahiko nioke gaiari. Arazoa ez da soilik hizkuntza, bizitzari buruzko beste ikuspegi bat dute... Baina eskolatik ez zaio oraindik gai horri heldu.” (E: 3).

“Eskolak harrera lantzen jarraitzen du. Nire ustez, eskola eta oro har gizartea, ez da gizarteratze-prozesu horien alde apustu egiten ari. (...) Nik integrazioaren alde egingo nuke apustu. Hezkuntza Sailak ez du egin. Harreran inbertitu du, baina ez du ulertzen gizarteratze arloan ez inbertitzeak...”. (E: 1).

Orain arte egin dena birplanteatzearen beharra ikusten da, baita beste alderdi batzuei buruzko eztabaida piztearena ere; besteak beste, aniztasunaren trataerari eta gizarteratzeari buruzkoa.

Hori dela eta, solaskideek proposatzen dutena da orain arte egin dena birplanteatzea, baina, horrez gain, baita beste alderdi batzuei buruzko eztabaida aktibatzen hastea ere; besteak beste, aniztasunaren trataerari eta gizarteratzeari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren politika eta programetan orain arte ez baitira alderdi funtsezkoak izan.

2

Hezkuntza

Hezkuntza Sailak egiten dituen programak eta ekimenak, batez ere ikasle atzerritarren harrerara bideratuak, berrikusi ditugu aurreko lerroetan. Jarraian, berriz, oro har hezkuntza-esparruan eta zehazki eskolan programa eta ekimen horiek duten eginkizuna aztertuko dugu. Horretarako, sakonago jorratuko ditugu hainbat alderdi, hala nola irakasleen rola, edo ikasle etorkinei eta eskolari buruz ari garela behin eta berriro agertzen diren zenbait gai; esate baterako, epez kanpoko matrikulazioak eta kolektibo horren metaketa eskola jakin batzuetan, euskara ikastea eta eskola-errendimendua.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da azpimarratzea hezkuntza-esparrua, oro har, baina batez ere ikastetxeak, zehazki, jatorriz etorkinak diren biztanle gazteenak gizarteratzeko leku egokitzat hartzen direla, haien ezaugarri eta berezitasunak direla-eta.

Hezkuntza-esparrua, oro har, baina batez ere ikastetxeak, zehazki, etorkinak gizarteratzeko leku egokitzat hartzen dira.

“Eskola gaur-gaurkoz leku ezin egokiagoa da jatorri desberdineko pertsonen arteko harremanetarako. Nik uste dut ez dagoela halako besterik.” (E: 7).

“Mugak muga, eskola-ingurunean jasotzen dute traturik onena biztanle etorkinek.” (E: 6).

Alabaina, eskolak duen ahalmenaz eta interakziorako eta kolektiboa gizarteratzeko eskaintzen duen ingurune abegikorraz harago, batzuetan bigarren maila batean uzten den kontu bat ere badago, oso garrantzitsua: eskolak ezin du dena egin, ezin du dena bere gain hartu eta badira beste era bateko hainbat aldagai kolektibo horren gizarteratze-prozesuan eragina dutenak; egoera sozio-ekonomikoarekin, kulturalarekin edo harrerako gizarteko beste erakunde sozial eta politiko mota batzuek eskaintzen duten harrera-mailarekin lotura duten faktoreak.

“Eskolak bakarrik ezin du, gizarte osoarena da arazoa; eskolak ezin du mundua aldatu eta hori da errealitatea.” (E: 3).

Alde horretatik, solaskideek beharrezkotzat jo dute, ahal den neurrian, ikastetxeak hezkuntzako beste esparru batzuekin koordinatzea, itunduekin nahiz bestelakoekin, ikasle etorkinak gizarteratzeko ahalmen handiagoa eskaintzeko.

Beharrezkotzat jotzen da, ahal den neurrian, ikastetxeak hezkuntzako beste esparru batzuekin koordinatzea, itunduekin nahiz bestelakoekin.

“Ikastetxeek hezkuntzako eta gizarteko kanpoko beste aukera batzuekin koordinatu beharko lukete. Gazteleku, gaztegune, liburutegi eta abarrekin. (...) Gizarte eta hezkuntzako programekin, eskolaz kanpoko jarduerekin. Azkenean, hori guztia ere hezkuntza da.” (E: 2).

“Gizarteratze-prozesuetan zerikusi handia du hezkuntza arautuak, baina baita ez-arautuak ere. (...) Eskolan bost ordu daude egunean; institutuan sei ordu daude egunean, baina egunak 24 ordu ditu.” (E: 1).

Irakasleak

Irakasleak ikasle atzerritarrekiko hartzen ari diren jarrera eta rolari dagokionez, elkarriketatuek azpimarratu dute irakasleak ere gure gizarte berean bizi direla, eta, beraz, haien artean ere askotariko jarrerak daudela etorkinen kolektiboarekiko, batzuk positiboak eta erreaktiboak eta beste batzuk negatiboagoak eta zenbait estereotipori edo aurreiritziri loturikoak. Era berean, etorkinen gaiak erronka garrantzitsua eta berritzailea izaten jarraitzen du irakasleentzat eta, zenbaitetan, eginkizun pedagogikoa oztopa dezaketen egoerak sortzen dira.

“Irakasle asko daude beste egoera bat bizi izan dutenak eta, bat-batean, beste errealitate bat bizitzen hasten dira eta aurreko guztia iraultzen die egoera horrek.” (E: 5).

“Eta galdetu didazunean ea estereotiporik badagoen irakasleen artean, esan diezazuket gainerako biztanleen artean dauden berberak.” (E: 9).

“Irakasleak ez gara beste mundu batetik etorritako paraxutistak. Gizarte honetako pertsona normalak gara eta, beraz, denetarik dago gure artean ere. (...) Batzuek esango dute aniztasuna oso aberasgarria dela eta beste batzuek jasangaitza dela.” (E: 3).

“Batzuentzat arazo-iturri da. Esaten dizute beraien ikastetxean etorkin asko daudela. Eta norbaitek hori esaten badizu, adierazi nahi dizuna da zailtasunak hortik datozela. Eta beste batzuek erabat bestelako jarrera dute. Aldeko iritziak dituzte, esaten dute oso gogotsu etortzen direla eta normalean itxaropentsu datorrela kolektibo hori. Bi muturrak ikusten dituzu, eta gero, bien artean, bestelako hainbat iritzi eta adierazpen.” (E: 5).

“Estereotipoak? Guztiok gara gizarte honetako kide, eta gizarteak estereotipoak ditu. Horrela da.” (E: 4).

Harrera-politiken harira esandakoaren ildo berean, elkarriketatuek azpimarratu dute irakasleek ere kezka galdu ote duten, baita freskura puntu bat ere;

alegia, hasiera batean interes handiagoa ez ote zuten erakusten eta gaur egun, beharbada, ohitu egin direla ikasle etorkinak geletan izatera eta kezka gutxia-gorekin ez ote duten hartzen.

“Gaur egun ez dago lehengo hersturarik; ohitu egin gara. Horrek dituen alde on eta txarrekin.” (E: 7).

“Irakasleek ez diote ematen duela 10 urte ematen zioten garrantzirik.” (E: 1).

“Ez dut uste utzikeria denik, baina egunerokoak bide jakin batetik eramaten zaitu eta azkenean lasaitu egiten zara neurri batean, erlaxatu, eta tentsioa galtzen duzu. Hasierako tentsionamendu hura galdu da.” (E: 3).

Nolanahi ere, ikastetxeek gaiarekiko tentsio eta kezka horri eusteko baliagarri izan daitezkeen zenbait elementu garrantzitsu azpimarratu dituzte solaskideek; besteak beste, ikastetxean eta bereziki zuzendaritza-taldean lidergoa oso garrantzitsua dela eta harreraren esparruan eta aniztasunaren trataeran apustu irmoa egin behar dela.

“Lidergo-arazoa ere bada. Eskolan horren erantzukizuna hartu behar dute batzuek.” (E: 2).

“Ikastetxe batzuetan zuzendaritzak gida dezake gaia, eta hori izugarri nabaritzen da.” (E: 9).

“Batzuetan pertsonen araberakoa da. Ez soilik baliabide horren kasuan, baita ikastetxeetan dauden pertsona jakinen kasuan ere. Eta pertsona horiek zuzendaritzan badaude, atxikimendu handiagoarekin bultzatuko dituzte zenbait gauza.” (E: 7).

“Ikastetxeko zuzendaritzak egiturazko proiektu bat badu, zuzendaritza sendoa bada eta proiektua argi badauka, aniztasunari nola erantzun behar zaion etab., gauzak ondo joango dira.” (E: 3).

Ikastetxean eta bereziki zuzendaritza-taldean lidergoa oso garrantzitsua dela azpimarratzen da.

Nolanahi dela ere, pertsonen, lidergoaren edo zuzendaritzaren sendotasunaren gainetik, elkarriketatuek behin eta berriro azpimarratu dutena da irakasleek ez dutela behar besteko prestakuntzarik ez aniztasunaren trataeran ez kulturartekotasunean ez eta hizkuntzen didaktikan ere, eta horrek askoz konplikatua bihurtzen duela prozesu osoa. Alde horretatik, pertsona askok nabarmendu dute kolektiboak prestakuntza handiagoa behar duela, dela mintegi eta prestakuntza-ikastaroen bidez dela arlo horretako graduondoko ikasketa espezializatu ofizialak martxa jarrita. Alde horretatik, bigarren hizkuntzari buruzko didaktikan unibertsitate-master bat martxan jartzeko beharra planteatu dute.

“Beharbada, iradoki dezakedan arazoetako bat da irakasleek eguneratu egin behar dutela, behar den moduan prestatzeko premia dutela. Uste dut hor hutsuneak ditugula oraindik. (...) Unibertsitatean bertan ere ez dugu ikasle etorkinekin jardun-go duten irakasleak prestatzeko gai espezifikorik.” (E: 6).

“Elkarrizketa osoan aipatu dugu: irakasleen prestakuntza funtsezkoa da. Aniztasunaren trataerarako prestakuntza-programak eta praktika ebaluatzea. Eta hizkuntza behar den moduan irakasteko prestakuntza.” (E: 7).

“Prestakuntza espezifikoa behar da hizkuntzen didaktikan, baita jarrera egokia eta fenomeno ezagutzea ere.” (E: 5).

“Unibertsitatearekin lankidetzan jarduteko esparru bat beharko litzateke. Irakasleek eduki beharko luketen profilari buruz hitz egin behar dugu. Ez dago bigarren hizkuntzari buruzko masterrik.” (E: 3).

Matrikulazioa eta etorkinak eskola jakinetan pilatzea

Bi gai nagusi aipatzen dira: batetik, etorkinak eskola jakin batzuetan pilatzen direla eta, bestetik, iritsi berriak diren ikasleak epez kanpo matrikulatzen direla.

Hezkuntza-sisteman ikasle etorkinen egoera zer-nolakoa aztertzen denean, elkarrizketetan beste bi gai nagusi ere aipatzen dira: batetik, etorkinak eskola jakin batzuetan pilatzen direla eta horrek hainbat ondorio sortzen dituela, eta, bestetik, iritsi berriak diren ikasleak epez kanpo matrikulatzen direla. Bi gai desberdin badira ere, bien arteko lotura oso estua da eta kasu askotan matrikulazioaren beraren ondorio izaten da ikasleen kontzentrazio handiagoa edo txikiagoa. Ondoren, bi alderdi horietan sakonduko dugu.

“Etorkinak eskola jakinetan pilatzea. Nik uste hori dela hezkuntza-sistemaren puntu beltz nagusietako bat.” (E: 6).

Epez kanpoko matrikulazioek zaildu egiten dute kudeaketa eta plangintza, bai Hezkuntza Sailean eta bai ikastetxean bertan. Izan ere, eskoletan behin baino gehiagotan gertatzen da ikasle bat edo gehiago ikasturtea hasita dagoela iristea, eta, gainera, horietako batzuek EAeko bi hizkuntza ofizialetako bat edo biak ez jakitea.

“Iristen direnek desegokitu egiten dute ikasgela. Irakasleekin hitz eginda, batzuek sentiberago jokatzen dute eta modu positiboagoan hartzen dute; beste batzuek gutxiago, baina hori da errealitatea. Otsailean bat-batean ume bat iristen da, hizkuntza-arazoak dituena, eta ez dakizu nola bildu ikasgelako dinamikara.” (E: 3).

“180 ikasle dituen eskola batek, adibidez, 50 berri hartu izan ditu zenbait urtetan. Eta ikasturte batean, 9 sartu ziren ikasgela berean. Kontua zen, gainera, ikasgela hartako inork ez zeramala hiru urte baino gehiago.” (E: 7).

Banaketa-prozesuaz Eskolatzeko Lurralde Batzordeak arduratzen dira, horretarako zenbait irizpide aintzat hartuta: gurasoen iritzia, eskolaren eta etxebizitzaren arteko hurbiltasuna, plaza libreak izatea edo ikastetxe horretan aurrez anaia-arrebaren bat eskolatuta egotea.

Pentsa liteke azken urteotan fenomeno horrek behera edo leuntzera egin duela migrazio-fluxuek behera egin duten neurri berean. Alabaina, ez da antzematen horrelako joerarik; aitzitik, datuek nabarmentzen dute fenomenoa finkatu egin dela eta urtean 3.000 ikasle inguru direla. Alde horretatik, kontuan hartzekoa da jatorrizko herrialdetik iritsitakoez gain, beste autonomia-erkidego batetik datozenen eta EAEn bertan leku batetik bestera bizitzera doazenen mugikortasun geografikoa handiagoa dela orain, eta horietako asko matrikulatzen direla behin ikasturtea hasi eta gero.

“Urtero 3.000 inguru iristen zaizkigu. Iaz eta aurten 3.000tik gora. Prozesua ez da beherantz egiten ari; aitzitik, finkatu egin da eta urtero 3.000 ikasle berri ditugu, hori da errealitatea.” (E: 3).

“Araban, ikasturte honetan, irailetik hona, 820 neska-mutiko eskolatu ditugu. Izu-garria da.” (E: 9).

“Kontua ez da soilik zenbat iristen diren, baizik eta kanpokoek askoz sarriago uzten dutela eskola bertako familiek baino. Hori ere arazo larria da. Bizileku merkeagoa edo lan-aukera bat lortzen dute eta beste auzo batera edo beste autonomia-erkidego batera jotzen dute.” (E: 7).

Eskolatze Batzordek, nahiz eta lurraldearen arabera irizpideetan alderen bat izan daitekeen, ikasle iritsi berriak zentro publikoetan eta itunduetan banatzea dute premisetako bat, baina logikoa denez, zenbait faktore direla medio-esaterako, plaza hutsik ez egotea—helburu horren emaitzak ez dira beti nahi bezain onak izaten.

“Eskolatze Batzordeek ikastetxe itunduetara ere bidaltzen dituzte ikasleak—bidali, ez dakit hori ote den hitz egokia—; ikastetxe horietan ere eskolatzen dituzte haurrak.” (E: 4).

“Arazoa da ikastetxe batzuk bete egiten direla matrikulazio-epe arruntean eta beste batzuetan plazak geratzen direnez, iritsi berriak horietara joaten direla, eta hor sortzen dela desbideratzea. (E: 3).

Areago, solaskideek azpimarratu dute, zenbaitetan, familia etorkinek hasiera batean ikastetxe itundu batean matrikulatzen dituztela seme-alabak, baina gerora, matrikulazio-epe arruntean izena emateko aukera dutenean, ikastetxe publiko bat hautatzen dutela, batez ere arrazoi ekonomikoak direla medio, nahiz eta beste faktore batzuk ere izan daitezkeen; adibidez, ikastetxe horretan jatorri bereko beste ikasle batzuk izatea edo ikastetxearen kokapen geografikoa bera.

“Eskolatze Batzordeak, gehienetan, plazak baldin badaude, ikasle iritsi berriak ikastetxeetan banatzen saiatzen dira. Baina sarritan gertatzen da hurrengo irailean eskola publikoan egotea. Hori askotan gertatzen da. Azkenean, garraiorako eta jangelarako beka eskatu behar baduzu, eta besteek ez badute eskatzen, jokoza kanpo zaude, nolabait esatearren. Eta, gainera, nahiz eta bekak izan, ez dira gastu guztiak ordaintzeko iristen. Batek esaten dizu “nik ez dut dirurik”, besteak beste zerbait, baina kontua da azkenean hurrengo ikasturtean publikoan daudela. Eta

irizpideak oso argiak dira, ahalegina egiten da epez kanpoko matrikulazioan oreka bilatzeko.” (E: 3).

“(...) beste ikastetxe batzuetan baino gehiago ordaindu behar denez, hurrengo ikasturtean, ohiko matrikulazio-epaia zabaltzen denean, familiek berek, batzuetan besteen aholkuei jarraituz eta beste batzuetan ez, mugitu egiten dituzte ikasleak. Eta hor galdu egiten da Eskolatzeko Batzordea egiten saiatu den lana.” (E: 5).

“Badira zenbait egoera... Ahizpari berari ere gaizki iruditu zitzaion: esaten zuen loteria eta alabaren irteera kontutik kobratu zizkiotela, dirutza... Pentsa ezazu familia etorkina zarela, Eskolatzeko Batzordeak ikastetxe horretara bidali zaituela eta langabezia zaudela. Ezingo dizute kobratu, beharbada ez dagoelako dirurik kontuan, edo auskalo. Baina pentsa ezazu nola sentituko zaren eskolara zoazen bakoitzean. Eta irakaslea agurtu behar duzunean jakinik zuk ez beste guztiek ordaindu dutela. Baita ezer esaten ez badizute ere. Besterik gabe.” (E: 7).

“Eskolatzeko Batzordeak eskuak lotuta ditu. Begira, ikastolara bidaliko zaitut: itundua da eta oso ona. Baina ordaindu egin behar da eta ez daukat dirurik. Beno, eskola publiko horretara bidaliko zaitut; izan ere... Ez, nik Mugika eskola nahi dut, han baitaude nire lehengusuak eta Mustafaren lehengusinak, Mustafaren lagunak... Zuk ghettotzat duzuna, leku ezatsegina eta indarkeriaz bete iruditzen zaizuna, babeslekua da beraientzat. Beren markagailuak eraman ditzakete, inork “mairu zikina” esateko beldurrik gabe”. Identitate-leku bat da, beren beharrianak asebetetzen dituen. Zer egin dezakezu horren aurrean?” (E: 1).

“Izan ere, ni x eskolara banoa, nahiz eta uniforme erosteko laguntza eman, gero ezingo naiz atera nire lagunekin, beste ingurune batean bizi naizelako...”. (E: 8).

Dinamika horien ondorioz, egoera da ikasle etorkinen gehiengoa batez ere ikastetxe publikoetan eskolatzen dela. Kolektibo horren %70 inguru eskola publikoetan matrikulatuta dago eta %30 itunduetan. Era berean, ikastetxe itunduetan alde nabarmenak daude: hala, itundu erlijiosoetan ikasle etorkinen ehunekoa Ikastoletan baino handiagoa da; hain zuzen, azken horietan da txikiena ikasle etorkinen portzentajea. Areago, ikastetxe erlijioso itunduetan ere badira aldeak, eta hala, karitate-kutsua duten zentroetan handiagoa da ikasle etorkinen ehunekoa besteetan baino.

“Ikastetxe publikoetan eskolatzen dira ikasle etorkinak, alde handiz. Ikastetxeen %30ean ez dago ikasle etorkin bakar bat ere.” (E: 6).

“Eskola publikoak eskolatzen ditu ikasle etorkinen %75. Aldiz, eskola itunduak %25 inguru baino ez du eskolatzen.” (E: 1).

“Publikoan %70 inguru, %70etik gora; eta itunduan, aldiz, ez dira %30era iristen. Hauen barnean ere aldeak daude. Kristau Sareko ikastetxeek gehiago hartzen dituzte eta Partaideko ikastolek, gutxiago.” (E: 3).

“Publikoak hartzen ditu gehien. Eta itunduen artean, eskola kristauak gehiago hartzen ditu, ia batez bestekora iristeraino. Ikastolak dira gutxien hartzen dituztenak.” (E: 7).

“Pribatuen barnean, karitatezko ikastetxeek ere ikasleen ehuneko nabarmena hartzen dute. Eta gero beste erakunde batzuk daude, beste elkarte batzuk eta hor dira Ikastola pribatuak ere.” (E: 6).

Kasu batzuetan, auzo edo komunitate berean ikastetxe bat baino gehiago daude eta ikasle etorkinak batez ere publikoan metatzen dira eta, aldiz, itunduetan, kolektibo horren ehunekoa askoz txikiagoa da.

“Baina batzuetan, ingurune berean bi eskola daude bata bestearen ondoan, eta batek immigrazio asko du eta besteak batere ez.” (E: 7).

Ikasle etorkinen kontzentrazio horren ondorioz, bertako ikasleen matrikulak gutxitu egiten dira edo, areago, zenbaitetan, kontzentrazio altuko eskoletatik ikasle etorkinen ehunekoa txikiagoa den eskoletara joaten dira bertako ikasleak; hala, normalean joan-etorri hori sare publikotik itundura izaten da. Dinamika horren ondorioz, ikastetxe horietako ikasleen profila aldatzen ari da, eta ikasle gehienak etorkinak eta gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-maila apaleko bertako ikasleak dira; izan ere, erdi-mailako klaseetako ikasleek beste ikastetxe-mota batzuen aldeko hautua egiten dute.

“Eta etortzen zaizkizu gurasoak eta esaten dizute beren seme-alabak mairu eta he-goamerikarrekin badoaz, eskolatik aterako dituztela umeak.” (E: 1).

“Bertako familiek joatea erabakitzen dute; hori ari da gertatzen.” (E: 3).

Aurrekoaren aldean askoz gutxiago gertatzen bada ere, zenbait kasutan, erdi-mailako bertako biztanleek ikasle etorkinen kontzentrazio altuko ikastetxeetara joan nahi dute, baina eskakizunak kontuan hartuta eta batez ere errentari loturikoak, askoz aukera gutxiago dute familia behartsuagoek baino. Horrek egoera gaiztoa sortzen du eta merezi du horren gainean gogoeta egitea.

“Zenbait eskoletan gerta daiteke erdi-mailako klaseak ez lekurik izatea. Soilik errenta txikia duten pertsonak sartu ahal izatea, familia-errenta delako ikastetxe horretan sartzeko irizpide nagusietako bat.” (E: 7).

“Baina, bitxia bada ere, beste eragozpen bat da. Izan ere, matrikulatzerakoan, baremo guztietan dago aldagai ekonomikoa. Eta ikastetxeetako zuzendari batzuek esaten digute horren ondorioz erdi-mailako ahalmen ekonomikoa duten bertako biztanleak itundura joaten ari direla. Izan ere, matrikulazioan gizarteko klase apalenek dutenez lehentasuna, ikasle horiekin betetzen dira ikastetxeak eta ezin dute sartu. Ez sinestekoa da.” (E: 9).

Ikastetxe batzuetan –gehienbat sare publikokoetan– ikasle etorkinak eta egoera ekonomiko prekarioan dauden bertako ikasleak pilatzen ari dira.

Nolanahi dela ere, dinamika bat izan edo bestea izan, kontua da ikastetxe batzuetan –gehienbat sare publikokoetan– ikasle etorkinak eta egoera ekonomiko prekarioan dauden bertako ikasleak pilatzen ari direla, eta horrek hainbat ondorio sortzen dituela, besteak beste, emaitza akademikoetan.

Egoera horrek eztabaida garrantzitsuak sortzen ditu jokatzeko moduari buruz, eta proposamen eta aukera ugari aztertzen ari dira eta aztertzen ari dira, hala Euskal Autonomia Erkidegoan nola antzeko egoerak bizi dituzten beste autonomia-

erkidego batzuetan. Proposamen horietako bat ikasleak ikastetxeetan modu ahalik eta orekatuenean banatzea da, kontzentrazioerik ez sortzeko eta ikastetxe jakinetan ikasle etorkinen ehuneko alturik ez izateko. Hala ere, eta elkarrizketatuetako batek esandakoaren arabera, aldeak ez dira gutxitu azken urteotan.

“Aldeak ez dira jaisten ari; kontrakoa, areagotzen ari dira.” (E: 7).

Egoera desorekatzen duen lehen faktorea, elkarrizketatuen arabera, informazio falta da, familia iritsi berriek zenbaitetan ez dutela beharrezko informazioa ikastetxea aukeratzeko eta, areago, kasu batzuetan, administrazio publikotik jasotzen duten informazioa ez dela beti egokiena.

“Deitzen duzu Ordezkaritzara, galdetzen duzu, eta zer jatorritakoa zaren, ez duzu informazio bera jasotzen. Hori horrela da. Edo behintzat horrela izan da eta nik neuk egiaztatu dut.” (E: 7).

“Etorkinak ikastetxe jakinetan pilatzen doaz udalak ez dituelako ondo orientatu.” (E: 6).

Kataluniako zenbait udalerritan, hala nola Vic eta Banyolesen planteatu duten aukera bat izan da ikasle iritsi berriak herriko ikastetxeetan banatzea, gutxiago edo gehiago ausaz. Esperientzia hori ez zen arrakastatsua izan eta denek azpimarratu dute ikasleak beren ingurunetik eta bizilekutik ateratzea ez dela irtenbiderik onena. Hain zuzen, aipatutako udalerrietan gurasoek beraiek baztertu zuten azkenean aukera hori, seme-alabak egunero beren ingurunetik lekualdatzera behartzen zituelako.

“Izan zen esperientzia bat, Banyolas eta Vic udalerrietan, Katalunian. Haurrak autobusetara igotzen ziren eta beste eremu batzuetara joaten ziren. Harik eta jende askok esan zuen arte, nire seme-alaba eskolatik minutu bakarrera badago, zergatik eramaten dute ordu erdiko bidaiak?” (E: 1).

“Etorkinak eskoletan banatzeaz aparte, beste neurri batzuk ere har daitezke. Kontua ez da hori.” (E: 7).

“Ez zait logikoa iruditzen. Zer egin behar duzu? Errekalden bizi direnak Indautxura eraman han etorkin gutxiago daudelako? Taxi batean sartu eta beren berezko ingurunetik atera behar dituzu? Itxuraz ez da oso logikoa.” (E: 3).

Beste alternatiba batzuk planteatu eta iradoki dituzte; esate baterako, ikasgelako ratioak handitzea edo zenbait plaza gordetzea.

Alde horretatik, elkarrizketatuek beste alternatiba batzuk planteatu eta iradoki dituzte; esate baterako, ikasgelako ratioak handitzea, modu horretara ikasturtea hasita dagoela ikasleak hartzeko, edo ikasgelan zenbait plaza gordetzea, ikasturtearen erdian ratioa handitu behar ez izateko. Pentsa daitekeenez, aukera horiek ez dira samurrak eta elkarrizketatuek beraiek aipatu dituzte zer zailtasun ekar ditzakeen ratioa handitzeak edo eskari handiko ikastetxeetan plaza hutsak uzteak.

“Adibidez, ikasgelako ratioa bi ikasle gehiagorentzat zabaltzea izan daiteke aukera bat. Hala, ikasgela beterik baduzu, beste bi sar daitezke. Neurri gogorra da, bi ikasle gehiagorekin eta batez ere ikasturtea hasita dagoela iristen badira, lan-zama handitu egiten baita. Hori egin daiteke, baina ez da egiten.” (E: 7).

“Ikastetxe guztiek izango balute gordetako plazen kupo bat, iritsi berri guztiak dagokion zentroan hasi ahal izateko... Batzuek horren alde egiten dute eta beste batzuek esaten dute nola izango dituzten ikastetxeek irits berri horientzat gordetako plazak baldin eta jada iritsi direnak, jada bertan daudenak, beren auzotik atera beharrean badira, zertarako eta irits daitezkeen horiei –iritsiko diren ala ez ziur jakin ez arren– gordetako plazak uzteko. Gaia ez dago erabakita.” (E: 4).

“Zer ari zaigun gertatzen? Horretaz aritu gara hemengo berri ematen diguten gizarte-eragileekin. Eta jabetzen zara irailako argazkia zeinen beldurgarria den. Araban, Gasteizen, zenbait ikastetxe, berdin zait itunduak edo publikoak, beteta daude, erabat beteta. Eta plaza batzuk gordetzeko eskatzen duzu. Ados, plaza batzuk gordetzen dira. Nork gordetzen ditu plazak? Ea nork esaten duen, zu, gasteiztar peto-pettoa izanik, ikastetxe honetatik kanpora geratzen zarela bost plaza gorde direlako iristen direnentzat.” (E: 9).

Lan-ildo horri berari jarraituz, ikastetxeekin aurretiko hitzarmenak egiteko aukera ere planteatu izan dute batzuek, zentroek esparru horretan zer ahalegin egin dezaketen neurtzeko eta, aldi berean, ikastetxe horiei baliabideak jartzeko, egoera horiek sortzen direnean –ikasturtea hasita dagoela ikasle gehiago etortzen direnean, adibidez– behar bezala erantzun ahal izateko, beti ere bizi-lekuaren hurbiltasuna eta eguneroko ingurunea izatea lehenetsiz.

“Planteamendu berriak, ikastetxe bakoitzean zer ahalegin egin dezaketen ikustea, ikastetxeetan konpromisoak hartzea, iritsi berriek auzoko ikastetxera joateko eskubidea izan dezaten.” (E: 3).

“Eremu batean bizi dira, eremu horretan eskolatu nahi dute eta zuk 20, 15 edo 12 ikastetxe dituzu bertan, eta ordena bat finkatzen duzu, lehentasun bat, eta batera eta bestera bidaltzen zoaz. Neba-arrebak banandu gabe, hori kontuan hartuta. Hori izan daiteke neurri bat. Baina zer behar da neurri hori abiarazteko? (...) Hemen gauden gizarte-eragile guztien adostasuna behar da. Ikastetxeetako zuzendariekin eseri eta galdetu beharko litzaieke ea prest leudekeen ikasturtean zehar 12 edo 15 hartzeko. Eta Guraso Elkarteei galdetu beharko litzaieke ea prest leudekeen beren ikastetxean eta beren seme-alabaren gelan bi edo hiru sartzeko.” (E: 9).

Pilatzearen arazoari irtenbidea emateko, partida eta baliabide gehigarriak eta osagarriak jarri beharko lirarteke martxan.

Kasu guztietan, solaskideek behin eta berriro nabarmendu dute ikasle etorkinak ikastetxe jakin batuetan pilatzearen arazoari irtenbidea emateko edo arazo horri erantzuteko, partida eta baliabide gehigarriak eta osagarriak jarri beharko lirartekeela martxan, objetiboki zailak diren egoeretan –adibidez, ikasturtea hasita dagoela ikasleak iristen direnean edo maila sozio-ekonomiko baxuko ikasleak ikastetxe jakinetan pilatzen direnean– behar den moduan erantzuteko.

“Beste kontu bat da esatea ez kezkatzeko, ikasle horiek iristen diren heinean, irakasle erdi bat edo irakasle bat gehiago izango duzulako. Eta zuk erabaki behar duzu nola erabiliko duzun, nondik datozen kontuan hartuta. Bistan da baliabideen konpentsazioa beharrezkoa dela. Konpromisoa ez da soilik aurrez aipatzen nizun adostasun soziala, ez da nahikoa gizarte-eragileak hori onartzeko prest egotea; gero Administrazioak baliabideak jarri beharko ditu. Nahiz eta krisia hor egon edo dena dela.” (E: 9).

Laburbilduz, elkarrizketatu gehienek uste dute pilaketak ez direla onak, baina aldi berean nabarmendu dute birbanaketa eta ikastetxeen arteko oreka gaur-gaurkoz oso zaila dela eta konponbidea ez dela batere erraza.

“Oso konplikatua iruditzen zait; ezin dizut beste erantzunik eman. Izan ere, uste dut aldagai asko jarri behar direla jokoan. Izan ere, denek esaten dute ez duela ghetto eskolarik egon behar, baina ikasleak banatzen badituzte, kritikak jasotzen dituzte, eta banatzen ez badituzte ere kritikak jasotzen dituzte.” (E: 8).

“Birbanaketa sustatu eta horren aldeko urratsak eman beharko lirateke, baina oso konplexua da. Ezin da eskolan pentsatu hiriko espazioen egituraketan pentsatu gabe. (...) Zenbait auzotan ia ez dago bertakorik, eta geratzen direnen artean taldetxo batek seme-alabak autobusean bidaltzen ditu Ikastola itundura, edo ez dakit zer apaizen ikastetxe itundura, horretara ere autobusez. Horixe daukagu.” (E: 1).

Kontzentrazioaren arazorik handiena ez da nazionalitatearen edo jatorriaren aldagaiari loturikoa, ekonomiaren eta kulturaren aldagaiari loturikoa baizik.

“Nire iritziz, gai horri ez zaio erantzun egokirik eman; 12-15 urte daramatzagu jada eta gauzak inertziak egiten dira, baina egiazko erronka dugu aurrean. Oso harrera-plan gutxi daude eta daudenak apalategi batean dauden agiriak baino ez dira. (...) Badira zenbait irizpide, baina ez dakigu oso ondo zergatik, ez dira funtzionatzen ari. Urtea joan, urtea etorri, gauzak ondo daudela uste badugu baina ez badute funtzionatzen, zerbait egin beharko dugu...” (E: 3).

Eta testuinguru honetan, kontzentrazioaren arazorik handiena ez da nazionalitatearen edo jatorriaren aldagaiari loturikoa, ekonomiaren eta kulturaren aldagaiari loturikoa baizik. Lehen aldagaia izena emateko epetik kanpo iristen diren etorkinei loturik ageri da batez ere, eta bigarrena, aldiz, egiturazko arazoei loturik. Eta egiturazko arazo horiek ere eragina dute ikasleen pilaketan eta ez dira soilik immigrazioari loturikoak, orokorragoak baizik.

“Gizarte-klaseei eta status sozialari loturiko kontua da.” (E: 3).

“Kontu horretan gizarte-testuingurua garrantzitsuagoa da jatorriaren aldagaia baino.” (E: 8).

Ikasle etorkinak eta euskara (hizkuntza-eredua)

Hezkuntza-sistema eta ikasle etorkinak aztertzen direnean, behin eta berriro sortzen dira beste bi gai hauek ere: hizkuntza-ereduaren aukeraketa eta kolektibo horren euskararen erabilera.

Hizkuntza-ereduari dagokionez, nabarmena da ikasle etorkinak bertakoak baino gehiago matrikulatzen direla A eremuan, nahiz eta lurralde historiko bakoitzeko hizkuntza-testuingurua zein den, joera horretan ere alde nabarmenak dauden. Hala, Gipuzkoan, A eremuan matrikulatzen diren ikasleen ehunekoa hutsaren hurrengoa da, Bizkaian urria eta Araban nabarmenagoa, batez ere hiriburuan.

Gipuzkoan, A eremuan matrikulatzen diren ikasleen ehunekoa hutsaren hurrengoa da, Bizkaian urria eta Araban nabarmenagoa, batez ere hiriburuan.

“Ikasle etorkinak gehiago eskolatzen dira A eremuan eta gutxiago D eremuan, batez ere Bizkaian eta Araban; Gipuzkoan ia ezin da. Eta bertako ikasleak gehiago eskolatzen dira D eremuan, euskaraz, eta gutxiago A eremuan.” (E: 6).

“Eta zer eskatzen dute familiek? Gasteizen, adibidez, familia askok A eredia eskatzen dute eta ikastetxea gertu egotea. Nik uste dut horiek direla bi aldagaiak. Ez dakit zer ordenatan, hurbil egotea, jangela izatea... baina funtsean hurbil egotea eta A eredukoa izatea. Eta hori oztopo bat da. Egia esan, ikasle etorkinak eskolatzerakoan sortzen ari diren ohiko bi desoreka horien argazkia da Gasteizkoa, Arabakoa baino gehiago, eta beste inon baino argiagoa da, gainera. 800 ikasle horietatik gehienak publikora joan dira. Ez naiz ari matrikulazio-datu orokorrez, 800 horiez ari naiz. Denak publikora eta A eredura joan dira.” (E: 9).

Joera horretan eragina duten hainbat faktore daude; besteak beste, A eremuan plaza huts gehiago daude, eta etorkinek gaztelania lehenesten dute euskararen aurretik, dela jatorri geografikoagatik dela kolektibo horren mugikortasun handiagatik.

Hala ere, elkarrizketatuek azpimarratu dute familia iritsi berriek, sarritan, ez dutela beharrezko daturik erabaki bat hartzeko eta jasotzen duten informazioa ez dela nahikoa, eta zenbaitetan familia horiek A eredura bideratzeko informazioa izaten dela.

“Zer da lehenago, arrautza ala oiloa? Zer eskaintzen zaie? Ez dakit azaltzen zaien, ez dakit zer informazio duten hemen jaio eta bizi diren pertsonen aukeratutako ereduari buruz, eta ez dakit ba ote dakiten gizarteak zer eskatzen duen.” (E: 4).

“Familia etorkin askok A eredia aukeratzen dute. Kontua da zenbateraino dakiten iritsi diren gizarteko hezkuntza-erreferentzien berri. Bai, gaztelaniaz, baina kontua da hemengo jendeak ez dituela seme-alabak gaztelaniazko eskolara bidaltzen. Nola hautatzen dute hezkuntza-eredua, zer dakite, nork ematen die horren berri?” (E: 7).

Hizkuntza-eredua aukeratzerakoan behin eta berriro aipatzen den beste alderdi bat iritsi berrien adina da, eta horrek hizkuntza bat ikasteko eta jakiteko duen garrantzia. Alderdi hori aintzat hartzen dute eskolatzeko-batzordeek eta hasiera batean B eta D ereduak lehenesten ari dira gazteenentzat. Adinean

aurreraxeago, nerabezaroa hurbil dutela iristen diren pertsonen kasuan erabakia zailagoa da; izan ere, hizkuntza bat ondo ikasteko 5-6 urte behar direla kontuan hartuta, iristean 12 urtetik gora dituztenek oso zaila dute hizkuntza emaitza akademiko egokiak bermatzeko moduan ikastea. Gaztetxoek gehiengo zabalak eredu euskaldunen alde egiten du, baina bigarren taldekoek, adinean aurrera doazenek, zalantza handiagoak izaten dituzte, eta, kasu batzuetan, A ereduaren aukera hobea izan daitekeela esaten da, batez ere ama hizkuntza dutenen kasuan; izan ere, eredu euskaldun batean eskolatuz gero, gerta daiteke esperotako emaitzarik ez izatea eta aukera horrek eragin nabarmena izatea pertsona horien eskola-errendimenduan.

“Lehen hezkuntzan, iristen diren ikasleek D eredia har dezatela, eta elebidunak ez diren beste familia batzuek euskara ikasteko duten aukera bera izan dezatela. Beste kontu bat da bigarren hezkuntza; hor erabakia zailagoa da. Adinean aurrera doazen ikasleak iristen direnean eremu ez euskaldun batera eta zenbaitetan ikasten jarraitzeko asmorik ez dutenean... kasuz kasu ikusi behar da zer den hobea, D ereduko institutu batera bidaltzea edo A ereduko batera.” (E: 7).

“Hemen jaio direnen edo oso txikiak direla iristen direnen kasua oso desberdina da 12, 15 edo 18 urterekin iristen direnenaren aldean. Azken hauekin konplikatuagoa da.” (E: 2).

Elkarrizketatuen iritziz, D eredia da egokiena euskara sustatzeko, baita gizartean hobeto integratzeko ere.

“Lehen hezkuntzan, zenbat eta txikiagoa izan ikaslea, orduan eta errazagoa da gizarteratzea, hizkuntzari dagokionez behintzat. Bigarren hezkuntza, hausturako elementua eta heterogeneotasuna handiagoak dira.” (E: 5).

“Hizkuntza ondo ikasteko 5-6 urte behar dira; orduan, 5-6 urteko tartea ikusten duzunean, konbentzitu ditzakezu gurasoak. Baina 12-13 urterekin gauzak ez dira hain errazak, ez dago tarterik.” (E: 3).

“Bai, gehienak A eredura datoz. Eztabaida hori izan dugu lehen ere. Zer egin behar dugu LHko 5. edo 6. mailan edo DBHko 1. edo 2. mailan datozen gaztetxo horiekin?”. (E: 9).

Aurreko adierazpenei erreparatuz gero, elkarrizketatuen iritzia da D eredia dela egokiena euskara sustatzeko, baita euskal gizartean hobeto integratzeko ere. Eta horrez gain, elkarrizketatu batzuek uste dute eredu horrek aukera gehiago ematen duela aurreko atalean aipatutako ikasle etorkinen kontzentrazioak saihesteko.

“Egiaztatzen bada Gipuzkoan D ereduari esker saihesten direla eskola-ghetto gehienak, zergatik ez da neurri hori bera hartzen Bizkaian eta Araban? Beno, erantzuna beste batzuek dute.” (E: 5).

Ikasle etorkinen pilaketak bezala, baldintza sozio-ekonomikoek ere eragin nabarmena dute hizkuntza-ereduaren hautuan. Alegia, hizkuntza-eredua ere estatus sozio-ekonomikoari loturik dago eta horrek eragina du eredu bat edo bestea hautatzerakoan.

“Hizkuntza-ereduak sailkapen sozialerako faktore dira oraindik ere. Euskara gutxiagoko ereduak ISEK¹ apalagoa duten familiak matrikulatzen dira eta euskara gehiagoko ereduak ISEK altuagoa duten familiak.” (E: 7).

“Hizkuntza-ereduetan ikasleak sailkatzeko konnotazioak nabari dira.” (E: 4).

Hizkuntza-ereduaz eta horren ondorioz harago, hizkuntza bat ikasteari eta jakiteari dagokionean honako eztabaida hau beti-beti harrotzen da: ea atzerriko ikasle iritsi berriek arreta espezializatua eta berezitua jaso behar duten ahalik eta lasterren hizkuntza-gaitasun egokiak eskuratzeko, edo, aitzitik, bereizketak horrek lortu nahi denaren kontrako eragina duen. Lehen aukera duela urte batzuk jarri zuten martxan Katalunian. Hala, bi urteko epean katalana ez zekiten ikasle iritsi berriek hizkuntza ikasten laguntzeko eskolak jaso zituzten ohiko ikasgelatik kanpo, modu horretara hizkuntzan murgiltzeko prozesua indartzen saiatzeko. Elkarriketatutako pertsonak ez dute uste aukera hori denik egokiena, ekar ditzakeen abantailak baino handiagoak direlako sor ditzakeen zailtasunak, batez ere ikasgelatik ateratzen delako kolektibo hori eta, hala, estigmatizatu eta markatu egiten delako beste ikasleen aurrean.

“Ikasle horrek ez du gehiago ikasiko ikasgelatik kanpo; alderantziz, bigarren mailako errepede horretan geratuko da bizitza osoan.” (E: 7).

“Ez zaitzatela denbora asko ikasgelatik atera eta ez zaitzatela seinatu hizkuntza ez dakizulako edo hizkuntza-maila jakin bat ez duzulako.” (E: 5).

“Hizkuntza beti komunikazio-egoeretan ikasten da, besteekin batera gauzak eginez, entzunez, horrela ikasten da hizkuntza testuinguruan; gainerakoan, oso zaila da.” (E: 3).

Euskararena ez da soilik eskolaren edo hezkuntza-sistemaren arazoa.

Era berean, solaskideek nabarmendu dute euskararena ez dela soilik eskolaren edo hezkuntza-sistemaren arazoa. Hizkuntzaren soziologiak eta testuinguru geografikoak modu erabakigarrian eragiten dute ikasle etorkinek izan dezaketen ezagutza-mailan, ama-hizkuntza gaztelania izan duten ikasleekin gertatu izan den eta gertatzen den eran. Bistan denez, eredu bat edo beste aukeratzeak badu eragina, baina beste faktore batzuek ere bai, eta horiek ere garrantzi handia izan dezakete euskara jakiteko eta erabiltzeko garaian.

“Arazoa lekuen hizkuntza-geografia da. Ez dago hizkuntza-arazorik eremu euskaldunetan. Ez dago. Ondarroara lanera etorri ziren kamerundarrek nik baino hobeto hitz egiten dute euskaraz.” (E: 1).

“Egoera oso desberdina da Ondarroan, Azpeitian eta Gasteizen. Lehen bi herrietan askoz errazagoa da. Orduan, norena da meritua, eskolarena edo gizartearena? Zaila da bereizteko, baina nik uste dut gizarteak garrantzi handia duela.” (E: 3).

¹ISEK. Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala.

Hain zuzen ere, euskara gutxiengo baten hizkuntza den eremuetan, eskolan baino ez da hitz egiten eta erabiltzen. Eta alderdi hori oso positibotzat jo dute elkarrizketatuetako batzuek.

“Euskalduntze-prozesuan eta batez ere gaztelaniaz hitz egiten den inguruetan, eskola izan da eta da euskalduntzeko leku ia bakarra, eragile bakarra. Nik uste dut hor lan handia egin dela.” (E: 3).

“Eta guk badugu horren berri, badakigu zer den. Badakigu zer den eskolak neska-mutil mordo bat euskalduntzea lortu arren, gizarte-testuinguruan hizkuntza minorizatuta egotea. Eta ez diegu etorkinei esango hori ere konpon dezatela.” (E: 9).

Elkarrizketatuen ustez ikasle etorkinek ez dute hizkuntzaren garapena moteldu edo eragotziko EAEn.

Ideia horren harira, ikuspegi nahiko baikorra eta ez batere katastrofista nagusitzen da euskararen eta ikasle etorkinek hizkuntza hori ikastearen inguruan. Elkarrizketatuen ustez ikasle etorkinek ez dute hizkuntzaren garapena moteldu edo eragotziko Euskal Autonomia Erkidegoan; aitzitik, hizkuntza ikasteko prozesua nahiko naturala gertatzen ari dela azpimarratu dute, aurreko hamarkadetan Espainiatik iritsitako familia etorkinen seme-alabekin gertatu izan zen moduan.

“Ez dut uste migrazio-fenomenoak aldaketarik ekarriko duenik euskalduntze-prozesuan; immigranteen eraginez behintzat ez da aldatuko, ez hobera eta ez okerrera. Nik uste dut lorpen batzuk izan direla, haurrek zailtasun handirik gabe hitz egiten dutela euskaraz, eta ikastetxe gehienetan daudela euskaraz ondo hitz egiten duten etorkinen seme-alabak.” (E: 3).

Azterlan batzuen arabera, etorkinek euskararen balorazio nahiko eskasa egiten dute eta eskolarako eta ezer gutxi gehiagotarako balio duen hizkuntzat hartzen dute. Elkarrizketatutako pertsonak, ordea, ez dute uste diskurtso katastrofista ondorioztatu behar denik azterlan horietatik.

“Bai. Bateren batek hizkuntzekiko jarreraren inguruan ikertu zuen hemen, eta ondorioztatu zuen euskararen balorazio oso apala egiten zutela etorkinek. Ondorioztatu zuen etorkinen arabera eskolarako baino ez zuela balio. Eta DBHko hizkuntza indartzeko irakasle batzuek anekdota hori kontatzen ziguten. Neska-mutilekin lanean ari zirela eta askok galdetzen zieten zertarako zuten euskara, eskola hartarako baino ez zuela balio eta. Egiten ari garen eskola honetarako. Eta irakasleak bere artean pentsatzen omen zuen, eta hauei zer esan behar diet nik.” (E: 9).

Emitza akademikoak eta aldeak

Kontzentrazioaren arazoa eta hizkuntza-ereduaren gaia –biak zuzenean elkarri lotuak– aztertu ondoren, ikasle etorkinei buruz ari garela beste gai nagusi bat sortzen da beti: kolektibo horren emitza akademikoei loturikoa eta bertako ikasleen datuekin konparatuta antzematen diren aldeak, etorkinen emitzak, oro har, okerragoak baitira.

Nahiz eta azken urteetan hobekuntza antzeman den ikasle atzerritarren eta bertakoen eskola-errendimenduan dagoen aldean, oraindik ere diferentzia handia dago bi kolektiboen artean. Adierazle hori neurtzeko, sarritan PISA txostena erabiltzen eta hartzen da erreferentziatzat, eta kasu honetan, datuek erakusten dute Euskal Autonomia Erkidegoan diferentzia oso handia dela; areago, ELGAko kide diren herrialde eta eskualdeen artean handienetakoa dela.

“Hobera egin da 2009tik 2013ra, murriztu egin da bertako ikasleen eta atzerritarren arteko distantzia.” (E: 3).

“Argi baina argiago dago zerbait ez doala ondo. Euskadi da, PISAren arabera, bertako ikasleak eta etorkinak konparatuz gero, irakurketa-puntuazioetan alderik handiena duen erkidegoetako bat. 71 puntuko diferentzia.” (E: 6).

“Euskal Autonomia Erkidegoa da bertako ikasleen eta etorkinen arteko emaitzak konparatuta alderik handiena duen lekuetako bat ELGAko kideen artean. Horrela dio PISAk eta horrela jasotzen du Eskola Kontseiluak.” (E: 7).

“Askotariko egoerak eta kasuak daude, baina nik uste dut ikasle gutxi iristen direla unibertsitatean. Irudipen hori dut. Oso gutxi. Garestia delako, ahaleginaren kultura delako...” (E: 2).

Datu hori, askotan testuingurutik aterea, izaten da bertako ikasleak ikasle etorkinen kontzentrazio handiko ikastetxeetatik *ihes egitera* bultzatzen dituen beste faktoreetako bat; izan ere, guraso askoren kezka izaten da bigarrenen errendimendu txikiagoak eragina izango duela azkenean bertako ikasleengan ere. Ideia hori oso zabaldua dago iritzi publikoan, baina horren gainean egin diren azterlanek ez dute tesi hori berresten; aldiz, adierazten dute ikasle etorkinen ehuneko handia duten ikastetxeetan immigranteen errendimenduak behera egiten duela, baina ez bertakoenak.

“Diagnostikorako ebaluazioen arabera, ikasle etorkinen errendimendua txikiagoa da bertakoena baino. (...) Eta berresten dutena da gelan etorkinak besterik ez daudenean, emaitzak espero zitezkeenak baino txarragoak direla.” (E: 7).

“Ikastetxe batean ikasle etorkinen portzentajea %25etik gorakoa denean, ikasle etorkinak berak dira kaltetuta ateratzen direnak errendimenduari dagokionez.” (E: 3).

Horrenbestez, profeziak bere iragarpena betetzen du; alegia, ekaitz perfektua dugu aurrean. Ikastetxe jakin batera ikasle atzerritarrak iristen hasten dira, erdi-mailako klaseko bertako ikasleek ikastetxe hori utzi eta beste batean matriculatzea erabakitzen dute eta, beraz, ikasle etorkinen ehunekoak gora egiten du; hala, ikasle etorkinak eta behe-mailako klaseko bertako ikasleak geratzen dira ikastetxean eta, horren ondorioz, eskola horretako emaitzek behera egiten dute. Alegia, errealitateak berak eragiten du, itxura batean, hasierako tesia betetzea.

Gai hau aztergai izan duten ikerlan guztiek berresten duten moduan, batzuen eta besteen emaitzen aldea ulertzeko funtsezkoa eta ezinbestekoa da familien estatus sozio-ekonomikoa kontuan hartzea; izan ere, estatus horrek erabat bal-

dintzaten du seme-alaben emaitza, hezkuntzako beste faktore edo aldagai batzuek baino askoz gehiago, gainera. Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) eginiko azterlanei erreparatuz gero, ISEK adierazlea –Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala– oso garrantzitsua da eskola-errendimendua aztertzeko; izan ere, esparru horretan sortzen diren aldeak ulertzeko eta azaltzeko faktore nagusietako bat da.

“Emaitzan eragin handia du ISEK adierazleak, Indize sozio-ekonomiko eta kulturalak, jatorriak baino gehiago, eta hori nabarmen ikusten dugu ijitoen edo bertako familia pobreen kasuan. Gurasoen prestakuntzak eta maila sozio-ekonomikoak berebiziko eragina dute.” (E: 3).

Horrenbestez, gai ekonomikoa eta kulturala funtsezkoa da alde horiek sakon aztertu nahi baditugu. Alde horretatik, kontuan hartzekoa da EAEn bizi diren etorkinen gehiengoa gure gizarteko erdi-behe eta behe-mailako geruzetan dagoela eta horrek izugarri baldintzaten dituela emaitzak –emaitzak bertako familienak baino okerragoak izatea, alegia–, bertako familien artean nabarmenagoa baita erdi-mailako klaseen ehunekoa. Bertako biztanleak eta etorkinak konparatuz gero, aldeak oso handiak dira. Aldiz, behe-mailako klaseetako bertako biztanleak eta etorkinak konparatuz gero, aldeak nabarmen txikitzen dira.

“Baina ez da behar beste lantzen ideia hau: immigrazio hau beheko klaseetako biztanleria dela. Klase horretakoak direla etorkinak. Eta horrek erronka bereziak sortzen ditu hezkuntzan. Ez atzerritarak direlako, pobreak direlako baizik, gizarte-klase jakin batean daudelako.” (E: 7).

“Gizarte-klasea ezin dugu ahaztu eta badakigu gutxienez duela 40 urtetik, Bordin, Passeron eta abarren azterlanen eskutik, gizarte-klasearen arabera dela eskolan emaitza onak izatea.” (E: 6).

Laburbilduz, eskola-errendimenduaren eztabaidan oso kontuan hartu behar dira, batetik, egitura sozio-ekonomikoa eta, bestetik, biztanle etorkinek egitura horretan duten lekua. Horren guztiaren ondorioz, gogoeta egin beharko genuke zer den eskolan emaitza onak izatea etorkinen seme-alabentzat; izan ere, konparatzeko erabiltzen ari garen irizpidea – bertako familietako haurren emaitzak– ez da, beharbada, egokiena. Horren harira, elkarrizketetako batetik jasotako aipamen honek interes berezia du, ezbaian jartzen duelako eskolan arrakasta izatea nahitaez goi-mailako ikasketak egitea edo unibertsitate-titulu bat lortzea ote den.

Eskola-errendimenduaren eztabaidan oso kontuan hartu behar dira, batetik, egitura sozio-ekonomikoa eta, bestetik, biztanle etorkinek egitura horretan duten lekua.

“Zer da eskolan arrakasta izatea? Adibidez, 12 urterekin hona iritsi, DBHko titulua atera eta Lanbide Heziketako goi-mailako ziklo bat egitera doa ikasle bat. Hori arrakasta al da? Niretzat bai. Arrakasta ez da gauza bera hona lau urterekin iritsi den batentzat. Kasu honetan, arrakasta izan daiteke ikasleren bat unibertsitatera iristea edo gutxienez batxilergoa baino zer edo zer gehiago egitea.” (E: 3).

3

Familiak eta komunitatearen esparrua

Ikasle etorkinen familiez ari garela eta, batez ere gurasoez, itxaropenaren edo aurreikuspenen gaia garrantzitsua bihurtzen da. Oro har, elkarrizketatuek azpimarratu dute hezkuntzari dagokionez guraso etorkinek itxaropen handiak dituztela seme-alabekiko; areago, kasu askotan, migrazio-proiektua azaltzeko faktoreetako bat izan dela aipatzen dute etorkin horietako askok. Nolanahi ere, gaineratu dute jatorriaren arabera aldeak daudela eta batzuek itxaropen handiagoak dituztela besteek baino, eta orobat, migrazio-prozesuan ere aldaketak daudela; hau da, hasierako unean itxaropen handiak izaten direla baina, denbora pasa ahala, baretu eta gutxitu egiten direla, migrazio-prozesu orok berezkoak dituen zailtasunen berri jakin eta beren larruan bizi ahala. Horren harira, nabarmentzekoa da eskolak izan dezakeen erronkarik handienetakoa itxaropen horiei denboran zehar goian eustea dela.

“Jendeak beti gorantz egin nahi du gizarte-eskalan. (...) Baina familia guztiak dute gogoia ikasketak egiteko. Arazoa adin kritikoetan dator, 14, 15 eta 16 urterekin.” (E: 2).

“Seme-alabak hobeto egongo direla? Hain zuzen, desira horrek bultzatuta etortzen dira; horretan bat datoz. Nik uste dut familia guztiak bat datozela migrazio-bidaia honetan lokatzetan barru-barruraino sartu badira, seme-alaben egoera hobetzeko sartu direla.” (E: 9).

“Kolektibo batzuek askoz itxaropen handiagoak dituzte hezkuntza-sistemarekiko. Alegia, sinesten dute eskolan, konfiantza dute irakasleengan, errespetatzen dituzte eta fedea dute beren seme-alabek eskolan zera lortuko dutela... Batzuetan, ordea, itxaropen handiegia dute. Eta, aldiz, beste kolektibo batzuek ez dute sentimendu hori. Eta horregatik zailagoa da egokitzea. Horri buruz jardun izan dugu. Kolektibo jakinik adierazi gabe, hauek edo besteak esan gabe...” (E: 5).

“Itxaropenei dagokionez, hasieran halako euforia-fase bat antzematen da; gero, jabetzen doazenean gauzak ez direla hain errazak –areago, zailak direla–, itxaropen horiek apaltzen doaz. Hori kezkatzekoa da; lagundu egin behar diegu itxaropen

Ikasle etorkinen familiez ari garela eta, batez ere gurasoez, itxaropenaren edo aurreikuspenen gaia garrantzitsua bihurtzen da.

horiei goian eusten. Familia horiei transmititu behar diegu beren seme-alabak esku onetan daudela, profesional onak garela, gauzak ondo joango direla eta itxaropenei goian eutsi behar dietela.” (E: 3).

Itxaropenei eusteko zeregin horretan garrantzi eta indar handia du familien beraien parte-hartzeak, familiek eragin onuragarria izan baitezakete ikasle etorkinen eskola-errendimenduan eta gizarteratzean.

“Familiak eroso badaude, eta ikastetxeak ondo lan egiten badu eta familien parte-hartzea lortzen badu, oso-oso garrantzitsua iruditzen zait.” (E: 8).

“Familien lankidetzeta eta parte-hartzea gai funtsezkoa da (...).” (E: 7).

“Familiek parte hartzea oso garrantzitsua da.” (E: 4).

“Frogatuta dago gurasoek esku hartzen badute, seme-alaben eskolako emaitzak hobetu egiten direla.” (E: 3).

Familia etorkinek parte-hartze txikia dute eskolan, bertako familiek baino are txikiagoa, eta bertakoena ere berez aski apala da; hori dela eta, elkarriketatuen iritziz parte-hartze eskas hori eragozpen garrantzitsua da eta nolabait konpondu beharrekoa. Parte-hartze txiki hori azaltzeko, zenbait faktore aipatzen dira: hizkuntza, denborarik ez izatea, hezkuntza-maila apala edo jatorrizko herrialdearen eta bizi diren herrialdearen artean egon daitezkeen kultura-diferentziak.

“Atzerriko ikasleen ehunekoak gora egin duen zenbait ikastetxetan zailtasunak dituzte Guraso Elkarteak sortzeko ere. Guraso Elkarteak erakunde gisa.” (E: 9).

“Familiek ere atzera egiten dute itxaropen faltagatik, hizkuntzagatik, errespetuagatik, beldurragatik, dena delakoagatik. Familia etorkinen eta irakasleen arteko komunikazioan hainbat gabezia daude.” (E: 6).

“Gurasoek oso gutxi parte hartzen dute.” (E: 2).

“Izan ere familia etorkinek edo denbora gutxiago dute –batzuetan, beti ez baita horrela–, edo amen esku uzten dute eskolaren alderdia, eta amek, seme-alabak hazteko ardura dutenez, ezin dute bileretara joan. Batzuetan, zenbait gaitasun eta ahalmen falta dituzte, hainbat emakumek beren jatorrizko herrialdean lantzen ez dituztelako. Adibidez, jendaurrean hitz egitea, dokumentu baten irakurketa kritikoa egitea... Eta jendea jabetzen denean ezin duela ekarpenik egin... joaten da bilera batera, bitara, baina hirugarrenera jada ez da joaten, ezin duelako ekarpenik egin. Eta, jakina, hizkuntzaren gaia ere oztupo bat delako.” (E: 7).

Hori dela eta, solaskideek beharrezkotzat jotzen dute parte-hartzea handiagoa izatea, eta ikastetxeak eta Guraso Elkarteak familia horien “bila ateratzea”, kontuan izanda zer zailtasun eta berezitasun izan ditzaketan eta, hain zuzen, zailtasun eta berezitasun horiek izan daitezkeela bertako familiek adina ez parte hartzeko arrazoiak. Nabarmendu dute Guraso Eskolak esperientzia egoiak izan direla esparru horretan, eta, horien bidez, kasu batzuetan, aita eta ama etorkinak eskolara hurbildu direla eta bertan partaide sentitu direla.

“Bertakoek osatutako Guraso Elkarte batean, esaten dutena da besteak ez direla etortzen. Eta ez dira etortzen egoera ekonomiko txarrean daudelako. Horrez

gain, hizkuntza-gaitasun urriak dituzte, beldurra dute eta uste dute Guraso Elkar-tea ondo hitz egin beharreko eremu akademikoa dela. Eta ez dira etortzen. Baina haien bila zoaz? Ez. Izan ere, bila joanez gero, beraiek joan egiten dira. Eta milaka adibide jar ditzaket. Zenbait eskola bila joaten zaizkie. Eta guraso eskolak egiten dituzte.” (E: 1).

“Leku batzuetan Guraso Eskolak egiten ari dira, gurasoentzako prestakuntza ematen da. Baina prestakuntzaz gain, segurtasuna, beren buruarengan konfiantza ere ematen zaie. Beren buruarengan konfiantza hori izan dezaten lortzea oso garrantzitsua dela uste dut.” (E: 3).

“Elkar ulertze hori bideratuko duten gakoak aurkitzea. Parametro horiek zein diren jakin behar baituzu. Familia horiekin hartu-eman izatean, lokarriak lortzen eta esanahiak negoziatzen saiatu behar duzu; besteekin ere gertatzen da. Adibidez, familia bati esaten diogunean Aitor hurbilagotik zaindu beharko dugu, aske samar baitabil, despistatuta eta nahi duena egiten. Neska-mutilen artean gertatzen diren horrelako esku-hartzeak. Oso ondo neurtu behar dugu nola interpretatzen duen familia horrek egin beharrekoari buruz esaten dieguna. Kontrolatu eta kate motzean lotu behar dela. Izan ere, ez dute interpretatu behar haurri erregimen ia paramilitarra ezarri behar diotela. Adibide bat jartzearen.” (E: 4).

“Familiak batzuetan kexu dira beraiek eskolari egin diezazkioketen ekarpenak ez direlako aintzat hartzen. Gogoan dut alabaren hezkuntzan oso inplikaturik zegoen ama bat, hezkuntza-maila handikoa bera. Eta berak alabaren hezkuntzan plus gisa hartzen zuena, ikastetxean ez zen aintzat hartzen.” (E: 8).

Era berean, azpimarratu dute jarduera formal samarretan parte-hartzea txikiagoa dela jarduera ez-formaletan baino; adibidez, eskolako irteeretan, familia etorkinek bai, parte hartzen dute edo parte har dezakete modu aktiboagoan.

“Baina eskolako alderdi ez-formaletan, nik uste dut asko parte hartzen dutela. Laguntza eman dezaketen gauzetan. Haurrekin irteera bat egiteko laguntza eskatzen zaienean, adibidez. San Prudentzio egunean atera behar badute, familiei eskatzen zaie txikienei auzoan barna egiten den irteeran laguntzeko. Edo Santa Adela egunean. Edo eskolako askarrietan, familia bakoitzak zer edo zer eraman behar duenean. Alderdi horietan, nola lagundu dezaketen dakitenean, laguntzen dute. “Ez da gurasoek dimisioa ematen dutela, familia horiei ez zaiela hezkuntza interesatzen. Ez. Ikusi behar da zertan parte hartzen duten eta zergatik.” (E: 7).

Familiak eskolan parte hartzea eta jardueretan laguntzea lagungarri izan daiteke ikasleen errendimendua eta gizarteratzea hobetzeko, eta, horrez gain, familiarentzat berarentzat ere integrazioerako eta sozializazioerako eremua bihur daiteke eskola, ondorengo aipamenak adierazten duen moduan.

“Izan ere, uste dut familientzako sozializazio-eremua ere badela eskola. Hiriz edo auzoz aldatzen diren guztiak jendea ezagutzen hasten dira. Eta seme-alabak izanez gero, eskolako jolastokia sozializazioerako eremu egokia da. Onerako eta txarrerako, denetarako.” (E: 8).

Familiak eskolan parte hartzea lagungarri izan daiteke ikasleen errendimendua eta gizarteratzea hobetzeko, eta, horrez gain, familiarentzat berarentzat ere integrazioerako eta sozializazioerako eremua bihur daiteke eskola.

Familiak duen eta izan dezakeen zereginaz harago, komunitatearen esparrua, ingurune hurbilena, hori ere eremu oso garrantzitsua da gaztetxoek integratzeko eta hezkuntza-sistemarekin interakzioa izateko. Elkarriketatuen iritziz, hezkuntza-jarduera ez-formalak, hala nola aisialdikoak edo hezkuntzako eta gizarteko beste gune batzuetakoak, oso interesgarriak izan daitezke alderdi horiek lantzeko eta hezkuntza-eremu arautuenean sortu diren erlazioak eta interakzioak sendotzeko.

“Aisialdiko, kiroltako edo hezkuntza arloko esperientzia bikainak daude. Jatorri desberdineko pertsonak nahasten dira, baita gizarte-maila desberdinekoak ere. Nik uste dut gai hori interesgarria dela guretzat. Bizikidetza sustatu behar dugu, eta sareak intersozialak, klase-artekoak izan daitezela.” (E: 7).

“Kirol, kultura, aisialdi, irteera eta beste hainbat esparrutako interakzio-programak behar dira” (E: 6).

“Nik uste dut eskolan edo institutuan hasi eta sendotu diren harremanek jarraipena izan dezaketela gero. Nik uste dut elementu garrantzitsua dela, eta aisialdi arautuko denborak ere bide ematen duela horretarako.” (E: 4).

“Nire irudipena da aisialdiko taldeetan kulturartekotasunarekiko sentiberatasuna handiagoa dela; eremu egokiak iruditzen zaizkit kulturartekotasuna sustatzeko.” (E: 3).

Areago, adituek uste dute komunitatearen esparruan esku hartuz eta zenbait ekimen martxan jarritz arindu eta bideratu egin daitezkeela eskolako zenbait zailtasun, hala nola kontzentrazioa edo hizkuntzari loturiko alderdiak, arestian esan dugunez konponbide zailkoak. Adituek planteatzen dute, adibidez, eremu geografiko berean eskola desberdinetara joaten diren adingabe koentzat hainbat programa martxan jartzea, bizikidetza-eremu bera parteka dezaten eta eskolatik kanpora interakzio hori sustatzeko baliagarri izan daitezen.

“Zergatik ez ditugu hartu-emanak sortzen? Tertuliak, Guraso Eskola bateratuak, kirol-jolasak, aisialdia. Denok batera.” (E: 1).

“Eskola desberdinetara joaten diren eremu bereko neska-mutilentzako jarduerak, eskolaz kanpoko ekimen horietan elkar daitezen.” (E: 4).

4

Aniztasunaren trataera: kulturartekotasuna eta gatazkak

Atal honetan ikasgeletako kulturartekotasunarekin eta aniztasunaren trataerarekin zerikusia duten gaiak eta horiei loturik geletan sortu izan diren eta sor daitezkeen arazoak bilduko ditugu.

Elkarrizketatutako pertsonak azpimarratu dute kulturartekotasunaren gaia gutxi landu izan dela eta gutxi lantzen dela eskolan, batez ere curriculum-garapenari dagokionean, eta esparru horretako jarduera gehienak unean uneko ekintza jakinak izaten direla, normalean curriculumetik kanpokoak, hala nola jairen bat ospatzea edo gaiarekiko interesa izan dezakeen irakasleren batek bultzatutako jardueraren bat.

Kulturartekotasunaren gaia gutxi landu izan da eta gutxi lantzen da eskolan, batez ere curriculum-garapenari dagokionean.

“Erakundeetako arduradunek eta teknikariek oso diskurtso landua dute, inklusioaren eta aniztasunaren paradigmari oso uztartua. Hartzen dituzten neurrietan, ondoren eragina dutenetan, nire ikuspegitik, ez dago koherentzia hori.” (E: 7).

“Baina, adibidez, curriculumaren ikuspegitik, nik uste oso unean uneko bultzadak eta ekimenak izan direla. Ez da curriculum berrikusi curriculum-arte ikuspegitik. Gertakari historiko bat hainbat ikuspegitatik azter daitekeela jabetzeko moduan. Edo, une jakin batean, Matematikan, liburuan agertzen ez diren gauzak aipa ditzakezula, beharbada beste talde kultural batzuetatik datozen gauzak. Hor ibilbide laburra egin dugu.” (E: 9).

“Ez dudana ikusten da eskola kulturarteko gunea denik eta benetan hala izan behar duela sinisten duenik.” (E: 1).

“Nik uste dut batzuetan baietz eta beste batzuetan ezetz. Nik uste ikastetxe batzuek interesa dutela eta kulturarteko hezkuntza egiten dutela zentzurik zabalenean, nahiz eta beste herrialde batzuetan jaiotako edo beste herrialde batzuetatik iritsitako edo beste herrialde batzuetako familia duten ikasle

gutxi izan, edo batere ez. Eta beste batzuek ez dute horrenbesteko kezkarik eta interesik.” (E: 8).

Beharbada arlo horretako ekimenik nabarmenena ikastetxe publiko batzuetan ama-hizkuntzak ikasteko aukera da. Kasu honetan, Hezkuntza Sailak akordioak ditu Maroko eta Portugalekin, eta beharbada, aurki Errumaniarekin ere izango du. Akordio horien bidez ikasleek aukera dute ikastetxe publiko batzuetan arabiera ikasteko. Kasu honetan, programa Marokoko Gobernuak finantzatzen du, baina nabarmentzekoa da hedadura nahiko mugatua dela. Hala ere, programa horrek polemika sortu du zenbait ikastetxetan, eta batzuek jarrera uzkurra agertu dute ezartzeko, uste dutelako ikastaro horiek dei-efektua izan dezaketela arabiarren kolektiboan eta, aldi berean, bertako biztanleak uxa ditzaketela.

“Eta programa horren inguruan daude gure estereotipo eta beldur guztiak. Irakasleak makila batekin jotzen die, Jihadaren hazia sartzen ari zaizkie. Hori guztia jartzzen zidaten mahaiaren gainean, eta irakasleekin biltzen nintzenean aipatzen nien nola esaten zidaten ikasleek jo egiten zirela. Eta beraiek erantzuten zidaten nola joko zuten. Jakin ezazue zigorra erabat baztertuta dagoela, ez dugu horrelakorik onartuko. Eta behin eta berriro esaten zidaten beraiek ez zutela jotzen.” (E: 9).

Programa horren arabera, kulturarteko logika, batez ere, ikasle etorkinen ehuneko handia duten ikastetxeetara mugatzen da. Hala ere, hainbat elkarriketatuk eskatu dute kulturartekotasuna ikastetxe guztietan txertatzeko, baita ikasle etorkinen ehuneko txikia duten edo etorkinik ez duten ikastetxeetan ere.

“Batzuetan ez dugu ikusten kulturartekotasuna euskal eskola curriculumean dagoenik. Nik uste dut ikasle etorkin asko ez dituzten ikastetxeek ere kulturarteko ikuspegi horretatik edan beharko luketela eta horren berri jakin.” (E: 2).

“Niri oso garrantzitsua iruditzen zait ikasle atzerritarrik ez duten ikastetxeek ere aniztasuna lantzea.” (E: 8).

Arabiera ikasteko kasuan ikusi dugunez, aniztasunaren trataerak gatazkak edo bertako biztanleen errezeloak sor ditzake, eta afera horiek sarritan komunikabideetan jasotzen dira edo jolastokiko hizketagai izaten dira.

Nolanahi ere, normalean ez da bizikidetza-arazo handirik izaten eskolan eta sortutakoak une jakin bateko gorabeherak izan dira. Horrenbestez, solaskideek nabarmendu dute eskolan eta ikasgeletan bizikidetza ona dela, nahiz eta noizean behin gizartearen harrotzen diren topikoetako batzuk errepika daitezkeen ikasleen artean ere.

“Oro har, nik uste dut bizikidetza ona dela neska-mutilen artean.” (E: 7).

“Ez dago arrazismo aztarnarik, baina ez dugu ikusten kanpoan elkarrekin asko daudenik.” (E: 2).

“Ez dugu gai zehatz hori dela-eta sortutako gatazken berririk. Nik ez dut ezagutzen arrazakeria gaiengatik sortutako bullying kasu bakar bat ere. Eta esanguratsua da alde horretatik.” (E: 5).

Ez da bizikidetzaz- arazo handirik izaten eskolan.

“Hiyaba inoiz ez da arazo izan. Noizbait, batez ere nerabezaroan, litekeena da aurrez erabiltzen ez zuen neskaen bat erabiltzen hastea eta horregatik besteek adarra jotzea, baina adin horretan berdin gerta liteke gizona denarekin edo betaurrekoak dituenarekin.” (E: 3).

“Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan, bizikidetzaz hori, elkarrekin eginiko ibilbide hori, modu naturalean egiten dela uste dut. Modu naturalean, harremanei dagokienez eta eskolako zailtasunei dagokienez.” (E: 4).

“Ikasleek gizartean dauden estereotipoen topikoak islatzen ditu. Eta horrek eskatzen du landu egin behar dela hori guztia.” (E: 6).

Gatazkaren bat edo esku hartu beharra eskatzen duen egoeraren bat sortzen bada, gaur-gaurkoz ez dago protokolo edo jardunbide orokor bat nola jokatu eta nola erantzun zehaztuko duena. Ikastetxe bakoitzak egoera horien aurrean egokien iruditzen zaiona egiten du, normalean funtzionamendurako barne-araudiari jarraituz. Bistan da, ordea, araudi hori aldatu egiten dela zentro batetik bestera.

“Ez da gai horri buruzko hausnarketa sakonik egin oraindik. Itxura batean, ez da logikoa ikastetxe bateko araudiak buruan zapi ematea debekatzea eta ondoko institutuan arazorik gabe eramatea. Ikastetxe batzuetan ez dakite zer egin, umezurtz sentitzen dira, laguntzarik gabe... Kasu guztietan, ez dut arazo handirik ikusten.” (E: 3).

“Eskola bakoitzak kudeatzen ditu alderdi horiek. Eta ez dute beti antzera jokatzen. Izan ere, ikastetxe batzuek ez dute arazorik zapi daramaten neska hartzeko, baina beste batzuek ez dituzte hartzen. Eta gerta daiteke bata bestearen ondoan egoeta. Diskurtso baten beharra sumatzen da, Administrazioaren zuzentzarau batzuen premia, ez dadin izan ikastetxe bakoitza erabakitzen duena.” (E: 7).

“Hezkuntza Sailak dio ikastetxe bakoitzeko barne-araudia eta funtzionamendua dela bete beharrekoa; araudi horretan jasotakoa dela legea. Zentroak horrela funtzionatzen ari dira. Bakoitzak ahal duen moduan jokatzen du. Nik uste dut lege itxietan baino gehiago kulturarteko enpatian inbertitu behar dela.” (E: 1).

“Beloarena, tira, ikastetxe bakoitzak bere neurriak hartzen ditu. Hor bai, sortzen dira eztabaidak eta irizpide aldaketak, gertaeren bilakaeraren arabera. Ez dago adostasun orokorrik.” (E: 5).

Tentsio-egoera batzuk izan dira beloaren erabilera edo eskolako jangeletan halal janaria eskatu izana dela medio, baina aurrez esan dugunez, ez dute polemika handirik harrotu eta egoera horiek ikastetxean bertan kudeatu dira araudian zehaztutako irizpideei jarraituz.

“Beloaren gaiak ari nintzaizun hizketan. Hemen, Araban, gainerako ikastetxeetako irizpide bera erabiltzen da hasiera batean. Ikastetxeak berak dira araua ezartzen dutenak. Uneren batean aldarrikatu izan da erabilera murriztuko lukeen arauen

bat. Baina guk, prestakuntzan, beti pentsatu izan dugu beloa ez dela arazoa. Nola janzten zaren edo zer jaten duzun, hori ez da arazoa. Errespetuari buruz, esku-bideei buruz edo heriotzari buruz zer pentsatzen dugun, hori da arazoa. Eta hori azpimarratzen saiatu gara prestakuntzetan. Hor bai, badago aldarrikapen bat. Lehendabizi txerrikirik ez izatea eskatu zuten eta orain halal izatea eskatzen dute. Gertatzen dena da, nire ustez Salla iristen dela txerrikirik gabeko menuraino, baina halal ematearena ez zaiola inori bermatzen.” (E: 9).

“Noizbait arazoren bat sortu da hainbat egunetako irteerak izan direnean; batzuetan diruaren aitzakia jartzen dute baina badakizu, egiaz, kalean edateak, mozkortzeak, horrek kezkatzen dituela gurasoak.” (E: 3).

Aurreko aipamenean bezala, kasuren batean, bai, hauteman izan dugu familia-inguruneak edo jatorri bereko gurasoen taldeak zenbait muga ezartzen dituela kultura-ohiturei buruz.

“Hor dago mutilen presioa ere. Eta hori bai da garrantzitsua. Mutilek ikasgelaren barnean egiten duten presioa, neskei beloa jarri behar dutela esaten dietenean.” (E: 9).

Beraz, ikus dezakegu aniztasunaren trataeran bi joera daudela eta eskolan ageri-agerikoa da hori. Alde batetik, gizartearen gehiengoak zenbait jokabide edo jardun erlijiosoren aurrean izan dezakeen jarrera dago. Baina, bestetik, gutxiengo batzuek gehiengoaren balioekiko agertzen duten jarrera dago; jarrera hori, gainera, areagotu egiten da gutxiengo horretako kideren batek balio horiekiko hurbiltasuna agertzen badu.

Horrenbestez, gaur-gaurkoz aniztasunaren trataera eta horri loturiko alderdiak ez dira, itxura batean, arazo nagusia ez eskolan eta ez gizartean, oro har. Besterik da zer gerta daitekeen etorkizunean eta batez ere etorkinen seme-alaben gizarteratu ahala, baina txosten honen hasieran adierazi dugunez, epe ertain eta luzera begirako hausnarketa oso mugatua eta laburra izan da orain arte.

“Identitatearen gaia, hori izango da koska; jihadisten gaia. Kalean mairu zikin madarikatua esaten badizute, bi aukera dituzu. Bat, estigma horren aurrean, arbuio horren aurrean, estigmari itzuri egiteko modu errazena da estigmatizatzen zaituena bezalakoa izatea. Eta beste aukera da: ni ez naiz euskalduna, hau bai herri nazkagarria, zer jende nazkagarria, ni marokoarra naiz eta islamarekin bat egiten dut.” (E: 1).

5

Jardunbide egokiak

Etorkizunari begira eta txosten honetan aipatutako egoeretako batzuei aurre egiteko edo horiek hobetzeko martxan jar daitezkeen neurrietan pentsatuz, esparru horretan eragina izan dezaketen zenbait jardunbide edo proposamen planteatu dira; nolana ere, garrantzitsua da azpimarratzea esperientzia horiek, normalean, ez direla modu estandarizatuan edo sistematizatuan garatu; aitzitik, modu indibidualean, batzuetan ez-formalean eta batez ere elkarren artean loturarik ez duten kasu jakinen bidez gauzatu dira. Elkarrizketatuek hainbat esperientzia aipatu dituzte: ikastetxeko seinaleak hainbat hizkuntzatan jartzea, kulturartekotasuna sustatzeko programa jakinak (adibidez, Liburu Ibiltaria), etab.

Esparru honetan garatu diren jardunbide egokiak ez dira modu estandarizatuan edo sistematizatuan egin.

“Jardun solteak pila bat ezagutu ditut. Seinaleak hobetzeko borrokan jardun duen ohiko ikastetxea. Neska-mutil berri bat datorren bakoitzean harrera-plana egiteaz kezkatzen den beste ikastetxe hura.” (E: 9).

“Ikastetxe jakin batzuetan jardun egokiak izan dira zenbait arlotan, baina bultzatzen eta gauzatzen dituzten pertsonen arabekoak dira ekimen horiek.” (E: 7).

“Adibidez, Liburu Ibiltaria. Familiak liburu bat osatzen doaz, bakoitzak orrialde bat eta etxez etxe doa. Familia bakoitzaren bizipenak eta ekarpenak ikusteko eta neska-mutilen autoestimua lantzeko.” (E: 7).

Aparteko aipamena merezi du Gasteizko Alde Zaharreko Ramón Bajo Eskolak: duela 10 urte A eredu ikastetxea zen eta ikasleen ia %100 jatorriz atzerritarra edo ijitoa zen; gerozko urteotan, ordea, egoera izugarri aldatu da eta uneotan bertakoa da ikasleen %45. Kasu interesgarria da ikasleen kontzentrazioan izan den bilakaera dela-eta. Hala ere, ikusi egin beharko litzateke kasu hori beste ikastetxe edo egoera batzuetara estrapola ote daitekeen; izan ere, eskolaren zenbait berezitasun aintzat hartuta, pentsatzekoa da zaila izan daitekeela esperientzia hori modu orokorrean zabaltzea. Ikastetxe horretan, alde batetik,

zuzendaritzak kezka eta atxikimendu handia azaldu du gaiarekiko eta, bestetik, maila sozio-ekonomiko ertaineko edo ertain-altuko hainbat guraso oso kontzientziatu elkartu dira, eta horrelako baldintzak nekez emango dira antzeko ezaugarriak dituzten beste ikastetxe eta ingurune batzuetan.

*“Gasteizko Alde Zaharreko auzo-eskola. Ezagutzen dudan kasu bakarra da. Duela 10 urte A ereduakoa zen, auzoko eskola publiko bakarra. Ikasleen %100 familia etorkinekoa edo ijitoa zen. Eta uneotan %55 inguru izango da etorkina eta %45 bertakoa, familia ijitoen eta ijito ez direnen artean. Prozesu luzea, zailtasunez be-
tea izan zen, eta administrazioaren laguntzarik ez zen izan. Eskolako komunitateak buru-belarri egin du lan eta egoerari buelta ematea lortu du pixka bat.” (E: 7).*

“Bertako familiek esan dute ‘Eskola publikoaren aldeko apustua egingo dut’, eta hala, bertako eskola horretan matrikulatu dituzte seme-alabak; hori gertatu da Ramón Bajo ikastetxean. Aukera bat izan daiteke, baina orain arte salbuespena da.” (E: 3).

Jardunbide eta programa egokiak aktibatze eta bultzatzeko beharraz gain, elkarriketatuek behin eta berriro aipatu dute komenigarria litzatekeela pedagogia- eta hezkuntza-metodologia berriak aplikatzea, ikasgeletan sarritan izaten diren aniztasun- eta konplexutasun-egoera berrietara hobeto egokituko diren metodologiak. Oroz gain, azpimarratu dute lankidetzan eta taldean ikasteko dinamikak jaso beharko liratekeela, eskola inklusiboaren esparruan egun dagoen aniztasuna kontuan hartuko duten dinamikak.

Pedagogia- eta hezkuntza-metodologia berriak aplikatzearen beharra ikusten da, ikasgeletan izaten diren aniztasun- eta konplexutasun-egoeretara hobeto egokituko direnak.

“Hemen metodologiari buruz hitz egin behar da eta aniztasunean hobeto ikasteko modua bideratu eta sustatuko duten metodologiak jarri behar dira martxan. “Baina ez dakigu egiten”, bada orduan, ikasi egin beharko duzue.” (E: 7).

“Besterik da metodologia, estrategia eta bestelakoetan ere oso bide luzea dagoela egiteko eta ikasteko.” (E: 4).

“Metodologia-aldaketak egin behar dira, talde-lana sustatu behar da, lankidetzan eginiko lana, proiektuak lan egin behar da, helburu batzuk jarri eta pertsona guztiak beren ikaskuntza-prozesuaren protagonista izan daitezen. Birpentsatu egin behar dira aurreko metodologiak.” (E: 3).

*“Baina hor egin behar da gogoeta: nola lagundu diezaioket nik material grafiko-
goekin, zer esan diezaioket, hau lantzen ari garela, hau egin behar duela.” (E:9).*

Azkenik, Guraso Eskolaren ekimena aipatu behar da. Zenbait ikastetxetan jada martxan da eta txosten honetan bertan ere aipatu dugu aurrez. Guraso Eskola horiek bitarteko egokiak dira familiak eskolara erakartzeko, baina baita seme-alaben hezkuntza- eta gizarteratze-prozesuan ahalduntzeko eta baliabi-deak eskaintzeko ere.

Bistan denez, planteatutako neurri horiek guztiak bideratzeko era guztietako baliabideak behar dira, giza baliabideak, teknikoak eta ekonomikoak,

eta alderdi hori elkarrizketa gehien-gehienetan aipatu dute. Izan ere, eskola barnean nahi ez diren egoerei aurre egiteko neurriak abiaraziko badira, apustu ekonomiko garbia egin behar da programa eta ekimen jakinen alde.

“Baliabideen gaia funtsezkoa da, funtsezkoa. Aipatu izan dugu. Aniztasuna tratatzeko, lan gehiago egin behar da, ahalegin handiagoa eta ordu gehiago. (...) Ikastetxe batean ISEK baxua duten ikasleen eta ikasle etorkinen ehunekoa handia bada, giza baliabide gehiago egon beharko lirateke. Lan gehiago dagoelako egiteko. Batez ere ikasturtea hasi eta gero ikasleak hartzen dituzten ikastetxeetan.” (E: 7).

“Horrelako ezaugarriak dituen ikastetxe batek baliabide gehiago behar ditu, giza baliabide gehiago...” (E: 3).

6

Ondorioak eta funtsezko elementuak

Txosten hau amaitzeko, bertan jasotako ideia nagusiak ekarriko ditugu eta ondorio moduan mamitu. Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da hemen aurkeztutako emaitza gehienak hezkuntzari eta eskolari oso loturikoak direla. Bigarren maila batean beste gai batzuk ere aipatzen dira, hala nola komunitate-esparrua edo hezkuntza ez-arautua. Horren arrazoia da elkarrizketatu gehienek, modu batera edo bestera, hezkuntza-sistemeekin eta ikastetxeekin lotura dutela eta, ondorioz, eginiko hausnarketa gehienak ere esparru horri buruzkoak direla.

Emaitza jakinei buruz ari garela, interesgarria da ohartzea nola elkarrizketatuek bi une edo egoera nabarmentzen dituzten ikasle etorkinek hezkuntza-sisteman duten egoera aztergai dutenean; hala, badirudi betaurreko bifokalak erabiltzen dituztela.

1. Alde batetik, **matrikulazio-epe arruntetik kanpo iristen diren ikasleei loturiko arazoa** nabarmentzen dute. Kasu honetan, horrelako egoerei ahalik eta erantzun eta harrera egokiena nola eman, hori lehenetsi da elkarrizketatuen iritziz. Hizkuntzari eta jatorrizko herrialdetik edo datozen lurraldetik dakarten ikasketa-mailari loturikoak dira arazo nagusiak. Gaur egun eta orain arte hori izan da hezkuntza-sistemaren gai nagusia eta erronka handiena. Horren harira, eta balorazio modura, elkarrizketatuek adierazi dute aurrerapauso batzuk eman direla eta egoera konplexu eta zailari aurre egin zaiola, baina, aldiz, nahi gabeko zenbait errealitateri ez zaiola modu egokian aurre egin, hala nola ikasle etorkinen eskola-kontzentrazioari, hizkuntza-ereduaren hautuak sortutako arazoei edo eskola-errendimenduari.
2. Bestetik, nahiz eta oraindik erabat gorpuztu gabeko ideiak izan, **bigarren belaunaldiei eta aniztasunaren trataerari buruz gogoeta egitea eta horren gaineko eztabaida aktibatzea** beharrezkotzat jo dute. Hain zuzen,

aniztasunaren trataerari buruzko eztabaidak, berez, lotuago egon beharko luke jatorriz etorkinak diren familien seme-alabekin eta ez horrenbeste eskolako adinean iristen diren etorkinekin. Epe ertainera eta luzera begirako erronka da hori eta oraingoz urrats gutxi eman dira. Kasu guztietan, etorkizunera begira korapilo gordiar handietako bat izango dela uste dute solaskideek. Alde horretatik, elkarrizketatuen iritzia da lehen arazoa, ikasle etorkinen iritsiera, indarra galtzen joango dela eta bigarrena, aniztasunaren trataera, bihurtuko dela hezkuntza-sistemako eztabaidagai nagusia.

Bigarrenik, nabarmendu beharrekoa da aldagai sozio-ekonomikoak txosten honetan aztertutako gai eta arazo askotan duen garrantzia; izan ere, ikasle etorkinen gehiengoa gure gizarteko behe-beheko mailetan dago eta horrek modu erabakigarrian eragiten du txosten honetan aztertutako alderdi nagusietan.

Nabarmendu beharrekoa da aldagai sozio-ekonomikoak txosten honetan aztertutako gai askotan duen garrantzia.

Beste modu batera esanda, askotan erabakigarriagoa da gizarte-klasea etorkina izatea edo gurasoen jatorria baino.

Elkarrizketatuek behin eta berriro azalerratu dute eskolak arlo horretan izan dezakeen ahalmena, baina zintzo eta modu errealistan. Izan ere, batzuetan ematen du eskolak arazo guztiak konpon ditzakeela, baina finean sarean diharduten eragilean artean bat gehiago da eskola, eta sare horretan egiturazko hainbat faktorek eragiten dute ikasle etorkinen gizarteratzean, haien emaitza akademikoetan eta beste zenbait alderditan.

Eskolak ezin du gehiegi egin eta gai batzuetan denbora funtsezko elementua da, eta zaila da hezkuntza-sisteman oinarritutako azelerazioak ezartzea. Hizkuntza-esparrua eta zehazkiago euskararen garapena izan daiteke egoera horren adibide egokia; izan ere, pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago dira hizkuntza ikasten dutenak, bai oso adin txikietan iritsitakoen artean eta bai hemen jaiotakoen artean. Hizkuntzaren eremu honetan, txostenean aipatzen denez, ez da gauza bera 13-14 urterekin iritsi edo 4-5 urterekin iritsi, eta, alde horretatik, pragmatismo apur batez jokatzeko egokia izan daiteke egoera hauek kudeatzeko; izan ere, Latinoamerikatik iritsi berri den nerabe bat D erduan matrikulatzea ez da, itxura batean, hauturik egokiena, nerabe horrek nekez gainditu ahal izango baitu batxilergoa hizkuntza horretan. Kasu horietan, egokiagoa bide da emaitza akademiko leheneak euskaraz ikastea baino. Gainera, ezin dugu ahaztu egoera horiek gutxituz joango direla denborak aurrera egin ahala, eta datozen urteetan seguru asko eremu edo lurralde bakoitzeko testuinguru soziolinguistikoaren arabera izango dela ereduaren aukeraketa, matrikulazio-garaiko hautuek eta datuek jada erakusten dutenez.

Adinaren kontua faktore garrantzitsua da ez soilik hizkuntza ikasteari begira, baita eskola-errendimenduekin edo identitatearekin zerikusia duten alderdiei begira ere. Alde horretatik, euskal hezkuntza-sistemara iritsi diren nerabeei hurbiltasun gehiago adierazten dute gurasoekiko, 4-5 urterekin irisi eta

hezkuntza-sisteman bete-betean gizarteratuko diren pertsonetikiko baino. Era berean, azken hauek parekotasun gehiago dituzte hemen jaiotako hurrekiko, nerabezaroan iritsitako etorkinekiko baino.

Txostenean jasotako beste arazo nagusietako bat ikastetxe jakin batzuetan gertatzen den ikasle etorkinen pilaketa da; batez ere sare publikoko zentroetan sortzen dira kontzentrazio horiek. Gai oso konplikatu da, eta immigrazioaren eztabaidaz haragoko beste faktore batzuen arabera ere bada. Hori dela eta, interesgarria da gai honi buruz elkarrizketetan sortu diren zenbait gogoeta oinarritzat hartzea, eta hausnartzea ea zenbateraino den bideragarria ikasleak birbanatzeko aukera –denetan onena–, edota zenbateraino planteatu beharko liratekeen beste aukera batzuk; adibidez, ikastetxe jakin batzuetan etorkinen ehuneko handiak izan arren, egoera horri aurre egiteko baliabide egokiak eskaintzea.

Bestalde, erdi-mailako bertako klaseetako haurrak ez dira beheko mailako bertako haurren ikastetxe berdinetara joaten, eta, logika horri jarraituz, erdi-mailako bertako klaseetako haur horiek nekez joango dira ikasle etorkinak dauden zentroetara. Eta egiaztapen hori, Pernandoren egia iruditu arren, egin beharrekoa da, eztabaidaren testuingurua hobeto zehazteko.

Horri guztiari *matrikulazio bizi*en gaia erantsi behar zaio, gai aski konplexua eta eragin izugarrikoa ikasgelaren dinamikan; izan ere, nahiz eta harrigarria izan, matrikulazio horien kopurua ez da murriztu azken urteotan.

Gauzak horrela, eskolako egoera eta errealitatea hobetzeko eta ikasle etorkinen gizarteratzeari begira betetzen duen eginkizunerako lagungarri izan daitezkeen zenbait alderdi eta proposamen azpimarratu dituzte elkarrizketatuek. Alde horretatik, adibidez, hizkuntza indartzeko irakaslearen eta kulturarteko dinamizatzailearen figurak birplanteatu eta birdefinitzeko beharra nabarmendu dute; izan ere, bi baliabide horien logikan eta funtzionamenduan halako higitze-prozesu bat antzeman dela jakinarazi dute.

Era berean, beharrezkotzat jo dute irakasleek, oro har, lidergo sendoa eta atxikimendua erakustea, baina batez zuzendaritza taldeetakoek, ikastetxeen eguneroko martxan erabakigarriak diren ekintza zehatzak bultzatzen dituzketen heinean.

Irakasleei dagokienez, gai horretan prestakuntza handiagoa behar dutela adierazi dute, eta, zehazki, bigarren hizkuntzen didaktikan master bat ez egotea deitoratu dute, hizkuntza bat ikasteko berezkoak diren erronkei aurre egiteko funtsezkoa litzatekeelako.

Hizkuntza indartzeko irakaslearen eta kulturarteko dinamizatzailearen figurak birdefinitzeko beharra nabarmentzen da; izan ere, horien logikan eta funtzionamenduan halako higitze-prozesua antzeman delako.

Era berean, eskola eta hezkuntza arautuaz kanpo, hezkuntza ez-formalak eskaintzen dituen aukerak ere nabarmendu dituzte, bereziki aisialdiaren eta gizarte-heziketaren mundukoak. Hezkuntza ez-arautu horri dagokionez, ingurune fisiko eta komunitate berean bizi arren ikastetxe desberdinetan ikasi eta, beraz, eskola garaian elkarrekin ez dauden adingabekoen hartu-emanak eta bizikidetzak bultzatzen jarraitzen dituzte.

Amaitzeko, txosten honetan eskuratutako eta landutako informazio horretatik guztitik, hiru gai azpimarratu nahi ditugu, uste baitugu datozen urteetan hiru horiei eskaini behar diegula arreta berezia eta hiru horietara bideratu behar ditugula baliabideak:

1. Harreratik aniztasunaren trataerara. XXI. mendeko lehen urteekin alderatuta beste egoera batean gaude gaur egun. Hasierako urte haietan gure lehentasuna atzerritarrei harrera egitea zen, baina orain arretaguneak beste bat izan behar du eta jada gure hezkuntza-sisteman eta gure ikasgeletan dagoen aniztasunaren trataeran egin behar dugu indar. Horrek ez du esan nahi ikasturtea hasita dagoela iristen diren neska-mutilen harreraz ahaztu behar dugunik (horien kopurua egonkortu egin da eta jada badaude esleipeneko zenbait protokolo, aurrerago aipatuko ditugunak); esan nahi duguna da datozen urteetan erronka handiena ikasgeletako aniztasunaren trataera izango dela. Izan ere, immigrazioaren seme-alabez ari gara, eta ez soilik hezkuntza-sisteman nazionalitate eta jatorri atzerritarra duten neska eta mutilez. Alde horretatik, gurasoetako bat (ama edo aita) edo biak atzerritarrak izanik (eta/edo nazionalitate atzerritarrekoak) hemen jaio eta nazionalitate atzerritarra edo jada nazionalitate espainiarra duten euskal neska eta mutilei buruz ere ari gara. Neska-mutil horien kopurua garrantzitsua da dagoeneko baina are gehiago izango da datozen urteetan, jatorri atzerritarreko bikoteek izaten baitituzte seme-alaba gehien eta beraiek gaztetzen baitute gehien euskal gizarteak.

Testuinguru horretan, oso garrantzitsuak dira elkarriketatutako pertsonen eginiko bi aldarrikapen hauek: a) ikasgeletan gure haurrekin eta gazteekin lan egiten duten irakasleek prestakuntza etengabea behar dute kulturartekotasunarekin eta ikasgeletan egiten duten lanarekin loturiko gai guztietan. Elkarriketatutako batzuek berriaz aipatu dute arlo horretan graduondoko ikasketak eskaini beharko lirakeela. Dударik gabe, irakasle horiek ezinbestekoak izango dira datozen urteetan kolektibo hori eguneroko zereginetan indartzeko; b) Administrazioako organo gorenek, hala nola Eusko Jaurlaritzak, eta beste esparru batzuek –irakaskuntzak, hirugarren sektoreak eta beste hainbat eragilek– hausnarketarako, analisirako eta jarduteko ildoak eta bideak proposatu behar dituzte hezkuntza-sisteman sortzen diren eguneroko egoerei nola aurre egin zehazteko. Helburuak ez du izan behar egoera horien ingurunea aintzat hartuko ez duten araudi eta zirkular zurrunak ezartzea, arau eta neurri horiek talka egin baitezakete

ikastetxeetako bertako araudiekin eta erregelamenduekin. Hain zuzen, ikastetxeetako araudiek arautu behar dute zentroko eguneroko funtzionamendua, baina, nolana ere, uste dugu osagarria izan daitekeela hurbileko edo pareko ikastetxe batzuetako jardunbide egokietan oinarritutako ereduak jaso eta iradokiko dituen agiri bat lantzea, adibidez.

- 2. Atzerriko ikasleen pilaketa ikastetxe jakin batzuetan.** Hauxe da gaur egungo gai nagusia eta hala izango da datozen urteetan. Txosten honetan luzezabal jardun dugu horri buruz eta egoera konplikatu dela, horixe baino ez dugu egiaztatu orain arte, harmonizatzeko zailak diren baldintza asko batzen direlako: ikasturtea hasita dagoela iristen diren neska-mutilak esleitzeko sistema; gure gizartera iristen diren familia atzerritar gehienen egoera sozio-ekonomikoa, behe-beheko geruzetan baitaude eta egoera horren arabera hautatzen dute ikastetxea, horretarako aukera dagoenean; hizkuntza-ereduen hautua (A vs B/D, gaztelania vs euskara), bat edo bestea aukeratzeak gure gizartera iristen diren edo bertan bizi diren neska-mutilen gizarteratzea errazten edo zailtzen baitu eta, orobat, lotura zuzena du etorkinek iristerakoan duten adinarekin (non eta hemen jaiok ez diren); ikastetxearen esleipen normalizaturako irizpideak eta horien artean bereziki garrantzitsua da bizitokia (gizartearen geruzan familia bakoitzak betetzen duen lekuari erabat lotua); jatorri eta/edo nazionalitate atzerritarreko ikasle asko dituzten zentroyen eskola-errendimenduko datu kaskarrak, nahiz eta jatorriarekin baino gehiago familiaren egoera sozio-ekonomiko eta kulturalarekin (aurrez aipatutako ISEK indizean adierazten da) duen zerikusia errendimendu horrek; familiek beren seme-alabentzako ikastetxe onena bilatzeko hartutako estrategiak, kontuan izanda oraina (ikastetxearen, irakasleen eta ikaskideen egoera), baina baita etorkizuna ere, familiek gizarte-egituran duten lekuaren arabera ikastetxe horrek zer gizarte-sare eskain dezakeen aurreikusita.

Aldagai horien guztien uztarketak sortu du gaur egungo egoera: hala, gizartearen egituraketa sozialaren araberkoa da ikastetxeen egoera ere, beti izan den moduan, bestalde; hau da, klaseen araberrako zentroak daude: eliteentzako ikastetxeak; joera erlijiosoko kolektiboentzako ikastetxeak; erdi-mailako klase euskaltzaleentzako ikastetxeak; gizarteko klase xumeentzako zentroak; eta baliabide gutxiago dituzten behe-mailako eskala sozialeko jendearentzako ikastetxeak. Kontua da azken horien artean jatorri eta/edo nazionalitate atzerritarreko familia asko daudela. Familia horietako askoren seme-alabak ikastetxe jakinetan pilatzen dira, eta gizarteko klase apaletako neska-mutilak dira guztiak; izan ere, hezkuntza-sarean modu ez ausazkoan ikastetxe bat edo bestea hautatzearen egiazko arrazoia hori da.

Arazoa serioa da ikastetxe horiek estigmatizatzen direnean, iritzi publikoak atzerriko jatorriaren aldagai faltsuari erreparatzen dionean, ikastetxe horiei buruzko gezurrezko estereotipoak elikatzen direnean eta erakundeek

desoreka horiek konpentsatzeko ahaleginik egiten ez dutenean, aukeraberdintasuna desiragarria ez ezik egia ere bihur dadin.

Uste dugu funtsezkoa dela erakundeek egoera horri berehala heltzea: esparru horretan lan egin behar da, ebidentziak azaleratuz, diagnostikoak eginez, desberdinen arteko akordioak lortuz, helburuak partekatuz, soluzioak marraztuz eta arazoak konponduz.

- 3. Itxaropenak eta gizarte-mugikortasun bertikala.** Aipatutako guztiak lotura zuzena du guk guztiok nahiko genukeen etorkizuneko gizarte-ereduarekin. Gizarte inklusibo, solidario eta sozialki kohesionatua eraikitzeaz ari gara. Horretarako, neurri zuzentzaileak ezarri behar ditugu desorekak desager daitezen (helburu kimerikoa litzateke hori), edo gutxienez onargarriak izan daitezen; hau da, gure gizartean berdintasuna ez dela inoiz erabatekoa izango onartuta (gizarte-egitura horizontala), eliteen eta gizarteko geruza xumeenen arteko desorekak ahalik eta gehien leun daitezen.

Horra hor gure txostenak duen garrantzia eta interesa, arreta immigrazioaren seme-alabengan jarri nahi duen neurrian. Azken-azkenean, txostenaren helburua da bizikidetzan eta aukera indibidual eta kolektiboetan desorekak murrizteko xedea duten neurriak ezartzeko lagungarri izatea, eta pertsonen mugikortasun bertikala erraztea, hori baita inklusiorako eta gure gizarteko kide izatearen harrotasuna sentitzeko tresnarik onena.



ERANSKINAK

ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONAK

Amaia Sesma

Gasteizko Berritzegunea

Amelia Barquín

Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Concha Maiztegi

Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Félix Etxeberria

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Jesús Prieto

Gasteizko Berritzeguneko aholkularia

José Manuel Palacios

Hezkuntza-berrikuntzako arduraduna. Eusko Jaurlaritza

Joseba Ibarra

Berritzegune Nagusiko kulturartekotasun arloko arduraduna

Maite Pardo eta Iñaki Intxausti

Irungo Berritzegunea

Biltzen elkartean hezkuntzan espezializatutako teknikariak.

ELKARRIZKETEN GIDOIA

IKERKETAREN AURKEZPENA

- Helburu nagusiak.
- Fasearen helburuak.

TESTUINGURUAN JARTZEA (BAT-BATEKOA)

- Bigarren belaunaldiei buruzko ikerketa batean funtsezkoak diren aurretiko alderdiak: ohartarazpena, ikuspegiak, salbuespenak, berezitasunak...
- Interesguneak: zer da garrantzitsua eta zer bigarren mailakoa horrelako ikerketa baterako?

HEZKUNTZA

HEZKUNTZA-SISTEMA

- Zein da abiapuntua? Zer gogoeta egiten da?
- Hezkuntza-maila batzuetan eta besteetan eginiko ekimenak. Zer ari da egiten? Ez derrigorrezkoa, derrigorrezkoa, derrigorrezko ikasketen ondorengoa.
- Sare publikoa den edo itundua den, zer alde dauden ekimenen artean.
- Epez kanpoko matrikulazioak.
- Hizkuntzaren gaia. Hizkuntza indartzeko irakasleak.
- Bizikidetzaren eredu jakinen bati jarraitzen al zaio?
- Egindakoari eta egiten ari denari buruzko balorazioa.
- Diskriminazio-egoerak.
- Ikastetxe jakin batzuetako jardunbide egokiak.
- Etorrizunera begirako hobekuntzak edo jarraitu beharreko ildoak.

IRAKASLEAK

- Zer jarrera dute?
- Zer rol eta eginkizun ari dira jokatzen?
- Zer lan egiten ari da haiekin? Hezkuntza-mailaren araberako aldeak: ez derrigorrezkoa, derrigorrezkoa, derrigorrezko ikasketen ondorengoa.
- Irakasleen artean dauden estereotipoak

ESKOLA-ERRENDIMENDUA

- Datuak eta emaitzak. Ebidentziak.
- Bertako ikasleekiko aldeak.
- Ereduak eta hizkuntzak.
- Eskola-porrota. Mantentzeko bideak.

LANA

- Lan-merkatuan sartzea.
- Lan-merkatuarekiko alde aurreko itzaropenak (seme-alabenak, gurasoenak...).

FAMILIA

- Familien itxaropenak.
- Familiaren eragina.
- Erlijioaren eragina hezkuntza-gizarte arloko gizarteratze-prozesuetan.
- Hizkuntzaren eragina hezkuntza-gizarte arloko gizarteratze-prozesuetan.
- Kulturaren eta balioen eragina hezkuntza-gizarte arloko gizarteratze-prozesuetan. Generorolak, neska eta mutilen arteko aldeak...
- Familiaren interakzioa hezkuntza-sistemarekin, beste familia batzuekin.
- Familiek etxetik hezkuntza-sistemari ematen diote babesa.

KOMUNITATEA

KOMUNITATEA: PAREKOAK, INGURUNEA, GIZARTEA

- Adingabekoengan duten eragina.
- Aisialdia eta sozializazio-guneak parekoekin: interakzioa kultura-aniztasunean edo -homogeneotasunean. Berdinen arteko interakzioa:
 - kirola,
 - eskolaz kanpoko jarduerak,
 - koadrilak.
 - Erlijioaren eragina interakzioan.
- Estereotipoak eta diskriminazio-egoerak.

ADINGABEKOAK

- Itxaropenak.
- Zailtasunak: hizkuntza, hezkuntza-maila, kultura- eta erlijio-desberdintasunak, desberdintasun sozio-ekonomikoak...
- Kide sentitzea eta identitateak.
- Egokitze-prozesuak.

BIZIKIDETZA ETA GIZARTERATZE-PROZESUAK

- Gaur egungo eta aurreko urteetako egoeraren balorazioa.
- Krisiaren eragina
- Mugikortasun-aukerak.
- Ibilbide arrakastatsuak

ETORKIZUNARI BEGIRAKO AURREIKUSPENAK

- Zer funtsezko alderdi landu behar da etorkizunean? Zeri eskaini arreta eta baliabideak?
- Zure esku balego (lehendakari izango bazina), funtsezko zer hiru alderdi landuko zenituzke?

II. Atala

Aniztasunaren ahotsak ikasgeletan



1. kapitulua

Aniztasuna ikasgeletan: hezkuntzaren alorreko ahotsak


Maite Fouassier Zamalloa



2. kapitulua

Haurtzaroa eta aniztasuna Euskadin (0-6 urte)

María José Martín Herrero




3. kapitulua

Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte)

Iraide Fernández Aragón, Julia Shershneva eta Maite Fouassier Zamalloa

Aniztasuna ikasgeletan: hezkuntzaren alorreko ahotsak

Maite Fouassier Zamalloa





AURKIBIDEA

Sarrera	147
1. Ikastetxea	153
1.1. Matrikulazioak	155
1.2. Kultura-aniztasunaren kudeaketa ikastetxetik	161
1.3. Erlijioa	163
1.4. Ikasleen eta euren familien egoera sozioekonomikoa	167
1.5. Hezkuntza maila, errendimendua, porrota eta eskola uztea	171
<i>Laburpena</i>	177
2. Ikasgela eta kudeaketa	181
2.1. Irakasgaiak – programak	182
2.2. Hizkuntza	184
<i>Laburpena</i>	192
3. Irakasleak	195
3.1. Irakasleen ikuspegia	195
3.2. Irakasleen zeregina	200
3.3. Tutorearen irudia	203
3.4. Harremanak familiekin	204
3.5. Irakasleentzako prestakuntza	207
3.6. Ikasleen itxaropenak eta etorkizuna irakaslearen ikuspuntutik	208
<i>Laburpena</i>	211
4. Ikasleak	213
4.1. Hizkuntza: euskara	214
4.2. Harremanak	218
4.3. Integrazioa	222
4.4. Nortasunak	225

4.5. Ikasleen itxaropenak eta etorkizuna ikasleen euren ikuspuntutik	230
<i>Laburpena</i>	232
5. Familia	235
5.1. Kultura-alderdiak	235
5.2. Familien jarrerak	238
5.3. Familien partaidetza ikastetxean	241
5.4. Harremanak	242
5.5. Familia-giroa – familiaren babesa	243
5.6. Itzultzeko edo Euskal Autonomia Erkidegoan finkatzeko aukera	246
5.7. Itxaropenak	248
<i>Laburpena</i>	250
6. Ondorioak	253
6.1. Laburpena	254
6.2. Jarduteko diagnostikoa	260
6.3. Jardunbide egokiak	263
Eranskinak	265
Hezitzaileak elkarrizketatzeko gidoia	265
Elkarrizketatutako pertsonen zerrenda	267



SARRERA

Kultura-aniztasunean oinarritutako hezkuntza erronka izan da ikastetxeentzat. Hezitzaile, zuzendaritza-talde, familia eta administrazioek hainbat konturi egin diete aurre: ikasle berriak heldu izana, ikaslearentzat berarentzat eta bere familiarentzat ezezaguna den hezkuntza-sistema batean sartu izana –batzuetan, epez kanpo–, hizkuntza-ingurune ezagutezina, kultura-urrats desberdinak edo jatorrizko lekuarekin bat ez datozen hezkuntza mailak. Gaur egun, dagoeneko Euskadin finkatuta dauden ikasleei begiratu behar diegu, kontuan hartuta, gainera, horietako batzuk lurraldean bertan jaio direla, eskolatzeari normaltasunez erantzuten diotela, baina, hala ere, berdintasunean eta desberdintasunik ezan oinarritutako hezkuntza zailtzen eta eragozten duten oztopoak daudela.

Lerrootara dakargun testu honek euskal ikastetxeetako profesionalek ikasgeletako kultura-aniztasunaren inguruan daukaten iritzia dakar, bai hezkuntza formalekoarena, bai ez-formalekoarena. Errealitate hori oraintsukoa izanik ere, ez da hain berria; batzuek aukera gisa hartzen dute, beste batzuek kautelaz hartzen dute eta, gehienek, normaltasunez. Beraz, Euskadiko adingabe eta gazteen gainean hezkuntza-erantzukizuna duen kolektibo baten hautemate, iritzi eta ikuspegiei erantzuten diegu.

Azterlan honen helburu nagusia da derrigorrezko euskal irakaskuntzako irakasleek (Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza) eta hezkuntza ez-formaleko eremuko hezitzaileek jatorria atzerrian eta/edo atzerriko arbasoak dituzten ume eta gazteen kolektiboaren gaineko ikuspena deskribatzea. Gure interesa ez datza adituen ikuspegian, baizik eta irakaskuntza arautuko eta arautu gabeko maila desberdinetako pertsona eta hezitzaileenean, egunero hainbat jatorritako pertsonekin lan egiten dutenena eta benetan adin goiztiarrenetan euskal gizartearen aniztasunari erantzun behar dietenena.

Horretarako, uste izan dugu egokia dela gizarte-ikerketako metodologia kua-
litatearekin lan egitea; izan ere, euskal hezitzaileen iritzi, bizipen, balora-
zio eta abarretan sakondu nahi dugu. Zehatzago esateko, aukerako ikerketa
(nahien araberakoa) prestatu dugu. Guztira, 7 ikastetxe publikotako, 5 ikaste-
txe itundutako, irabazi-asmorik gabeko erakunde bateko eta Gaztegun¹ bate-
ko (guztiak EAEkoak) hezitzaileei, 2015eko maiatzean eta ekainean, gai baten
inguruan eginiko 14 elkarrizketa sakonen lagin batek osatzen du ikerketa.
Honako hezkuntza maila hauetara jo dugu ikastetxe publiko eta itunduetan: 2
Haur Hezkuntzakoak, 5 Lehen Hezkuntzakoak eta 5 Bigarren Hezkuntzakoak.

Estrategia horren bidez, pertsona-kolektibo murriztu baten eskutik, azterlana-
ren gai nagusiaren inguruko informazio ugari eta zehatza eskuratu dugu. Gai
baten inguruko elkarrizketa sakon horiek elkarrizketatuaren iritzia ezagutzeko
galdera irekien gidoi baten inguruan antolatzen dira; horrela, motibazioan,
jarreran eta alderdi proiektiboetan sakontzen da, bai eta gai horren inguruko
informazio zehatza lortzen ere (ikus eranskina).

Irakasle elkarrizketatuen laneko hizkuntza-ereduak direla eta, D eredia Haur
Hezkuntzako bi ikastetxeetan dago ezarrita; Lehen Hezkuntzako ikastetxeeta-
tik lauk dute D eredia ezarrita eta batek B eredia; eta, Bigarren Hezkuntzako
ikastetxeetan, B eredia ezarrita duten hiru ikastetxe, D ereduko bat eta A²
ereduko ikastetxe bat hautatu dira.

Nahiz eta hezkuntza araututik kanpo lan egiten duten profesionalen iritziak
jaso ditugun, oro har, gure lan-eskema eremu horretatik egituratzen da. Labur-
biltzeko, 1. grafikoa analisi hori nola antolatzen den azaltzen duen eskema
bat aurkezten da.

Ikastetxea hura osatzen duten eta forma ematen dieten pieza guztien lotura-e-
lementutzat hartu dugu. Horren barruan lau gai nagusi bereizi ditugu: irakas-
leak, ikasleak, ikasgelaren kudeaketa eta familiak. Horiek guztiek elkarrizkete-
tan aztertzen joan diren eremuek bat egiten duten espazioa sortzen dute, dela
nahita, dela elkarrizketaren bilakaeraren ondorioz.


¹Udal-kudeaketako gizarte- eta hezkuntza-espazioak, ludikoak eta topaketarako direnak, 12 eta 17
urte bitarteko gazteentzat.

²Argitzeko, hizkuntza-ereduak euskal hezkuntza-sarean hirutan banatzen dira:


D eredia: irakasgai guztiak ematen dira euskaraz eta gaztelania beste irakasgai bat gehiago da.

B eredia: irakasgai batzuk euskaraz ematen dira eta beste batzuk gaztelaniaz (normalean, matema-
tika eta irakurketaren eta idazketaren ikaskuntza).

A eredia: irakasgai guztiak ematen dira gaztelaniaz, euskara izan ezik, beste irakasgai bat gehiago
baita.



Hainbat profesionalak bultza ditzaketen hainbat eta hainbat diskurtsotan izango gara, bai eta hezkuntzan, hain beharrezkoa den eremu horretan, aniztasuna nola kudeatzen ari den jakiteko hausnarketa pertsonaletan ere. Horrek guztiak ikastetxeetan egunerokotasuna nola bizitzen ari den ikusteko aukera emango digu.



*“Hemen uste dut dena doala oso normal.
Normaltasunez doala ematen du. Berdinen arteko
harremana oso normalizatuta dagoela uste dut”.*
(Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

1

Ikastetxea

Badakigu Euskadira heldutako migrazioa XXI. mendearen hasieran hasi zela; bost kontinenteetako migrazio-fluxuak izan dira, baina, batik bat, Latinoamerikakoa. Errealitate hori agerikoa izan zen ikastetxeetan; bertan, etengabe hasi ziren ikasle atzerritarrak matrikulatzen. Irakasleek etorrera hori konplikatu eta zaila izan zela gogoratzen dute; izan ere, profil berriak ezagutzen ez zirenez, ikastetxe itunduei gehitzen zitzairen Administrazioaren laguntza txikiagoa zeukatelako sentsazioa, ikastetxe publikoen aldean. Laguntza hori ekonomikoa eta ikastetxeetarako baliabideen ingurukoa zen.

“Baina, hasiera batean, egia da nahiko zaila izan zela, batez ere uste dudalako oztopoa izan zela migrazio nahiko xurgatu zuten ikastetxe itundu gutxi izan zirela eta gu horien artean geundela”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nahiz eta Berritzeguneak³ sekula ez digun laguntza ukatu, egia da administrazioak oso laguntza zuzena eman diela ikastetxe publikoei, eta ez guri”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Gure ikastetxeak publikoa ematen zuen; izan ere, nahiko jende zetorren, baina jaso ditugun laguntzak ezin dira beharrezanekin alderatu. Beraz, hortxe mugan egon gara, bizirik ateratzeko ahalegina egiten, eta egoera berean jarraitzen dugu. Itunduak ez ditu baliabide berak jasotzen; egia da oro har ez ditugula beharrezan berak, baina gutxi batzuek badituzte beharrezan berak, besteak beste, geuk”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ikasle atzerritarrak heldu izanak modua ekarri zion hezkuntza-munduari ikasgeletan kultura-aniztasunari nola heldu berriro planteatzeko. Batzuek konplexutat eta ordura arte ezarritakoaz bestelakotzat jotzen zituzten egoerei beharrezko erantzunak emateak ekarri zuen antsietate- eta ziurgabetasun-sasioak

³Berritzegune guneko eta/edo lurraldeko laguntza-zerbitzua da, unibertsitatez kanpoko ikaskuntza mailatan hezkuntza berritzeko eta hobetzeko. Hainbat kidegotako eta hezkuntza mailatako irakasleek osatzen dute.

bizitzea. Hala ere, eta elkarrizketetan adierazten den bezala, urteek aurrera egin ahala, urte asko egunero ikasle etorkinekin eta euren familiekin lanean diharduten irakasleek ohitura hartzen dute.

“Eskola honetan oso mamurtuta dugu (aniztasuna); izan ere, familia atzerritar ugari dugu. Baina, hasieran, arauak eta parametro normalak gainditzen dituzten gauza guztiak antsietate pixka batekin bizi dira” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Nire ustez, oro har, egia da hasieran suszeptibilitateak egon direla, baina uste dut gauzak nork bere egiten dituela; beste ikasle berri bat dator eta ez da ezer gertatzen. Beti dugu zalantzan nola egingo ote dugun, beldurrak, ziurgabetasunak” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Elkarrizketatutako pertsonak diote ikastetxeak pixkanaka eraldatzen joan direla, harik eta, immigrazioa ageriagoa den lekuetan, ikasle atzerritarren ehuneko handiak izan arte. Ikasle atzerritarrak euren ikastetxeetara heldu izanak ekarri duen aldaketa nabari dute.

“Hemen, kanpotik etorritako jendea % 40 inguru izan daiteke. Biztanle mota hau 2002-2003an hasi zen heltzen. Orduan hasi ginen lehen mailan, bigarren... ikasle atzerritarrak izaten, eta, harrezkero, etengabe izan ditugu; urtero 10 eta 14 ikasle bitartean etortzen dira. Horrek lau urtean ikastetxea erabat eraldatzen du, kontuan hartuta ikasleak, guztira, 160 direla. 4 urtean 14 ikasle badatoz, bada... ikastetxea goitik behera aldatzen da”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Ikastetxeentzat, bereziki itunduentzat, ikasle atzerritarren etorrera aukera izan da ikastetxeak zabalik mantentzeko eta kontratatutako irakasleekin jarraitzeko, eta hala uzten da agerian elkarrizketetan jasotako diskurtso batzuetan. Bertoko herritarren jaiotza-tasaren indizean murrizketa baten ondorioak bizi izan dituzte, eta ikasle atzerritarren etorrera pizgarria izan da euren ikastetxeetarako.

“Onartu behar da hasieran, orain dela 10 bat urte esan nahi dut, immigrazioa arazo bat zela; hori eztabaida ezina da. Orain, guk optika aldatu dugu eta, objektiboki, aukera bat da, denborak... Besteak beste, jaiotza-tasa txikiagoa nabarmentzen ari da eta, beno, onartu behar da gehiengo ez bada ere, ikasleak etortzea guretzat aukera dela”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Etorkizunari oso modu orokorrean begiratuta eta lantoki duten ikastetxeari dagokionez, hautematen dutena da, alde batetik, euren lanak orain arte bezala jarraituko duela, nahiz eta euren eskumenetatik kanpoko eragile batzuek norabidea alda dezaketen, ikasle etorkinen matrikulazioei dagokienez.

“Geuk immigrazio handia dugu, orain arte gure erreferentziatzko bi ikastetxeak immigrazio handia zuten Lehen Hezkuntzako ikastetxeak zirelako. Aurrerantzean, gure erreferentziatzko ikastetxeak aldatu direnez, lau urtean, hazi zen bezala, erdira edo gutxiagora jaitziko da. Orain migrazio handiko erreferentziatzko ikastetxe bat dugu, baina besteak oso migrazio gutxi du”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Orduan, nola jarraituko dugu? Bada, berdin; agian, ahal duguna egiten; zenbat eta baliabide gehiago izan, hobe”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Jarraian, ikastetxearen egitura eta funtzionamenduaren zati diren zenbait gai aztertuko ditugu. Horrela, ikasle atzerritarren matrikulazioek ikastetxearen konfigurazioan eragiteko moduen gaineko hautemateak ikusiko ditugu, bai eta epez kanpoko matrikulazioek eragiten dituzten gorabeherak ere. Ondoren, ikastetxeetatik kultura-aniztasunaren kudeaketa lantzeko dauden moduen gaineko iritziak ezagutuko ditugu. Erljio-aniztasuna eta haren kudeaketa izango da aztertuko dugun hirugarren gaia. Jarraian, ikasleen eta euren familien egoera sozioekonomikoa aztertuko dugu; zehazki, nola eragiten duen euren hezkuntza-garapenean eta zer beharrian atzematen diren. Azkenik, ikasleen hezkuntza mailarekin eta errendimenduari lotura duen oro aztertuko dugu, eta eskola-porrotak eta uzteak ikasle atzerritarren jatorriarekin loturarik ote duen ikusiko dugu.

“Orduan, nola jarraituko dugu? Bada, berdin; agian, ahal duguna egiten; zenbat eta baliabide gehiago izan, hobe”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Matrikulazioak

Euskal ikastetxeetako matrikulazioak euren herri eta hirien errealitatearen isla dira. Horrela adierazten dute hezkuntza-sisteman urte gehien igaro dituzten irakasleek, euren ikastetxeak Euskadira iristen ziren migrazio-fluxuen arabera nola egin duten aurrera ikusi dutenek eta horretan parte hartu dutenek.

“Hegoamerikarren etorreraren aldia izan genuen; orain, hegoamerikar asko euren herrialdeetara itzultzen ari dira. Beste adin-tarte batean, Magreben aldia dugu (...); hezkuntza mailari dagokionez tartean Magrebekoak, gorago hegoamerikarrak (...) eta, orain, Haur Hezkuntzako ikasgeletan, Saharaz hegoaldeko asko dugu. Familia nigeriarrak, familia kongoarrak”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Gehienak Latinoamerikakoak dira, baina hemen 14 nazionalitate desberdin ditugu, portugesak... daude, baina, gehienak, Latinoamerikakoak. Marokokoak, Ekialdeko herrialdeetakoak ere nahiko daude; orain, aurren, ez, baina Txinako nahiko izan ditugu, 6-7 ikasle batera, alegia, ikasturte berean 6-7 ikasle txinatar... Dene-tarik dugu”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Elementu ekonomikoa funtsezkoa da ikastetxea aukeratzean, alegia, arrazoi ugari dago familiek euren seme-alabentzat eskola aukeratzeko –hautatzeko aukera dutenen kasuan–, dela ikastetxearen programazioa, ideiak, bizileku duten auzoarekiko hurbiltasuna, hizkuntza-ereduak, ikastetxe mota eta abar kontuan hartuta. Hala ere, biztanle etorkin ugarik aintzat hartzen du zenbaiteko gastua dakarkion euren seme-alabak ikastetxeetan matrikulatzeak. No-labait, eta jarraian aipatuko dugun bezala, ikastetxe itundu batzuek kuota garestiegiak ez ezartzeko politika dute, kasu honetan ikastetxearen beraren ideiak kontuan hartuta. Zeharkako ondorioetako bat da ikasle atzerritarren gorakada ikasgeletan.

“Ikastetxe hau aukeratzeko motibo nagusia da, esan dizudan bezala, (ikastetxe itundua) ikastetxera joatea. Zuzenean sartzen dira; Haur Hezkuntzan sartzen den umea (ikastetxea)-ra sartzen da. Eta, gainera, guretzat inguruko ikastola bakarra izatea ere garrantzitsua da; izan ere, nabari da orain jendeak lehenetasun nahiko ematen diola ikastolaren kontuari, D eredia egiteari, eta hori nabaritu egiten da”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Batzuek, beharbada, nahiago lukete pentsatu jendea hona datorrela ikastetxeak ideia zehatz batzuk dituelako, eta batzuk datoz ideia zehatz batzuk dituztelako, baina beste faktore bat erabakigarria da: ekonomikoa. Ikastetxeak planteamendu hori eduki bitartean, jende gehiago etorriko da hona, beste leku batzuetara baino. Edo onartu egiten duzu edo ez; onartzen ez baduzu, beste pertsona batzuen maila berean jartzen zara, eta muga bertan jartzen dut; izan ere, egin nahi den irakurketa egin nahi dela, datorren ikasturtean ikastetxe honetan 30 euro ordaindu beharrean 55 ordaindu behar badira, jende gutxiago etorriko da”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Hezkuntza ez-formalaren espazioetan, kontu ekonomikoa ere nabaria da programazioen bilakaeran. Antola daitezkeen jarduerak dira zailtasun ekonomikoak dituzten gazteei euren auzoetatik irteteko, beste pertsona batzuk ezagutzeko eta, adierazten duten bezala, balio batzuk eurenganatzeko aukera gisa eskaintzen zaizkien tartearak.

“Hau aisiako eta astialdiko espazioa da. Gure helburua da hemen daudenean zenbait balio eta trebetasun eurenganatzea, parte hartzea eta proaktiboagoak izatea. Edo, bestela, hori arazo ekonomikoengatik izan daiteke, auzo honetatik irten ez diren neska-mutilak daudela. Orduan, ibilaldiak eta irteerak ere eskaintzen dizkiegu: (udalerrria)-(e)ko bolatokira goaz... eta nabaritzen dugu eurentzat positiboa dela; bestela, ez lirateke irtengo, baliabide ekonomikoak direla eta, eta, gainera, auzo hau pixka bat endogamikoa delako.” (Hezkuntza ez-formala)

Baina ikastetxea ikasle atzerritarren kopuru handiagoa ala txikiagoa kontuan hartuta hautatzen denean, hautematen da familiek, batez ere bertokoeak, ikasle atzerritar gutxiago duten ikastetxeak hautatu ohi dituztela. Datuek erakusten duten bezala, eskola publikoek ikasle etorkinak zentralizatzen badituzte neurri handiagoan, bertoko ikasleen matrikulazioek motibo horregatik behera egiten dutela hautematen duten irakasleak ikusten ditugu. Aipatzen den ondorioetako bat da euskara maila baxua atzerriko ikasle ugari dagoen ikasgeletan, eta horrek, aldi berean, ikastetxearen eta bertan ematen diren hizkuntza-ereduen irudi irrealak eragiten du.

“Nire ustez, ikastetxe honetan erdia baino gehiago atzerriko lagunak dira. Orain kide bat etorri da alboko ikasgelara, D eredura, eta dio harrিতa dagoela (udalerrrian) ez zuelako imajinatzen (ikastetxea) hori zenik. Hemen ari garelako matrikula jaisten horren kontura, guk orain D ereduko ikasgela bat dugulako eta nirea, B eredukoa, eta, jakina, nire ikasgelako euskara maila da... buf! Ez da B eredukoa, ezta pentsatu ere. Neska-mutilak hona ari dira etortzen, hau gaztelaniaz dela diotelako”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Hemen jende zoragarria dago, eta gainera gurasoak... Ikusi dugu, halaber, familia batzuek alde egin dutela leku euskaldunago batera, atzerriko ikasleak ikusten

zituztelako... gainera esan egin izan digute. Baina, beno, eskola honen zuzendaritzak ez du planteatuko ikasle batzuk onartzea eta beste batzuk ez. Lekua badago, sartu egingo dira, eskubidea dutelako, eta kito. Mundu guztia berdin tratatzen da". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Ikastetxe batzuetako matrikulazioen aurreko posizionamendua argi islatzen da jarraian ekarri den aipuan; bertan argi uzten da ikastetxearen izaera; bertan ez da zalantzan jartzen ikasle berrien jatorria, ez eta euren ezagutzak ere, baina horrek ez dakar zailtasunik eta tentsiorik irakasleen artean.

"Eskola hau, zuzendaritzatik, hasieratik, ikastetxe publikoa dela defendatu du, eta ikastetxe publiko honetan mundu guztia sar daiteke, lekua badago. Ez da sekula zalantzan jartzen ez euren jatorria, ez euren euskara maila, ez beste ezer. Euskararik jakin gabe Lehen Hezkuntzako 5. mailan sartu diren umeak ere hartu ditugu eta, beno, kontu horretan ere errietak ditugu, bada, horrek estutu egiten gaituelako; ume batek hizkuntza jakin gabe, nola moldatzen ote den ikasgelan". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Bestalde, elkarrizketetan esaten da familiei ere informazioa ematen zaiela ematen diren hizkuntza-ereduei, ikastetxearen egoerari eta ikastetxe bat edo bestea aukeratzeko (normalean ikastetxe itunduen hautaketa, atzerriko familiek horietan sartzeko aukera duten kasuetan) lagungarri izan daitezkeen bestelako kontuei buruz. Baina ezin ditugu ahaztu eskolatze-batzordeak ikasle kopuru jakin bat dauden leku librean arabera bidaltzea ere erabakitzen duela kasu batzuetan, eta, halakoetan, ikastetxeak matrikulatu egin behar ditu.

"Ikastetxeak aholkua eman diezaike, eta esan: hara, hau da dagoen eredia; kontuan hartu zailtasunak izango dituela... Aholkua emango die. Eta gero familia dago, erabakiko duena. Sarritan hori da, eta beste askotan da euren herrialdeetatik datozelako eta, beraz, lekua duen ikastetxe itundura doaz. Jende hori martxoan etor dakizuke, eta ikastetxeak plazak dituen bitartean, onartu egin behar ditu". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Urte askoan, beti izan dugu inguruko jendea; gero zabaltzen hasi zen, beste auzo batzuetatik baitzetozen. Ume horiek, gehienak, edo guztiak, ia-ia, (udalerrria)-ra igaro dira, orduan, jakina, sarritan motibazio horrekin ere bazetozen. Kontua hazten joan zen, baina beti izan ditugu bertoko ikasleak". (Itundua, Haur Hezkuntza)

Nahiz eta Batzordearen banaketa beti ez den familiek hurrengo ikasturteetarako aukeratutako ikastetxea eta ikastetxea aldatu behar izaten den, itundutik publikora eta alderantziz.

"Baten bat egia da publikora joan dela, eta hura amaitzean Ordezkaritzatik zetozenez, gero publikoan amaitu dutela". (Itundua, Haur Hezkuntza)

"Hemen gauza bat gertatzen da; fenomeno bat izan dugu. Hemen parkean eskola bat dago, eta eskola horretan A eredia dago ezarrita; orduan, eskola horretan, ehu-

Ikastetxea ikasle atzeritarren kopuru handiagoa ala txikiagoa kontuan hartuta hautatzen denean, hautematen da familiek, batez ere bertokoek, ikasle atzeritar gutxiago duten ikastetxeak hautatu ohi dituztela.

neko laurogeita hamarretik gora atzerritarra da, eta % 2 inguru ijitoa. Heltzen diren familia asko bertan hasten dira eta urtebete ematen dute eta, gero, hona ekartzen dizkigute; izan ere, hura ghetto bat dela ikusten dute. Gurasoek eurek ez dute nahi bertan egon daitezen". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Eskolatzeko batzordeak azken urteotan heldu berri diren ikasle atzerritarren banaketa zuzenagoa egiten hasi dira; eskaera hori aspaldi hasi ziren ikastetxeak egiten. Irakasleek uste dute banaketa zuzenagoa positiboagoa dela, bai ikastetxearentzat berarentzat, bai ikasle atzerritarrentzat; halaber, irakasleentzako liberazioa da.

Irakasleek uste dute banaketa zuzenagoa positiboagoa dela, bai ikastetxearentzat berarentzat, bai ikasle atzerritarrentzat; halaber, irakasleentzako liberazioa da.

"Urte batzuetan, immigrazio-indizea ikastetxe publiko batekoaren antzekoa zen; alde txikia zegoen. Orain behera egin du; orduan, Bigarren Hezkuntzan, % 20 inguruko indizea genuen. Gaur egun, % 10 ingurukoa izango da. Orain gauzak nahiko berdindu dira; izan ere, esan bezala, batzordeak bermatzen du banaketa uniforme dagoela, eta horrek liberatu egiten gaitu pixka bat". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Nire ustez, positiboa da ehunekoak behera egitea. Ez da ezer gertatzen % 40 edo % 45 izatearren, baina oso altua da. Eurentzat ere bai; ez dut bertoko jendearengan pentsatzen, baizik eta atzerritarrengan eurengan; ona da banatzea. (Udalerrria)-n banaketa handiagoa egin behar da egin den plangintza berriarekin, eskola-mapa berriarekin; hori da helburua, ikasle horiek hobeto banatzea ikastetxe guztietan, publiko eta itunduetan". (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Iritzi orokorra da ez dagoela Euskadin jaio diren atzerritarren seme-alaben matrikulazioen bolumen nabarmenik. Nabarmenagoa da Haur Hezkuntzako ikasturteetan; horietan, elkarrizketatutako irakasleek eurek ez dituzte ikasle horiek atzerritar gisa identifikatzen. Aldi berean, Euskadin jaiotako ikasleen matrikulazioa familiak ikastetxea aukeratzeko askatasun handiagoarekin lotzen da; izan ere, lurraldean finkatuta daudela ulertzen dute, eta hezkuntza-sarearen funtzionamendua ezagutzen dutela.

"Hemen baten bat bigarren belaunaldikoa da, bertan jaio delako... Beno, (umearen izena), bere aitona-amonak portugesak dira, baina beste guztiak... Batzuk hemen jaiotakoak dira, hiru edo lau. Aurten bi etorri zaizkit; ikasgela hau Lehen Hezkuntzako 3. mailakoa da. 9 urte egiten ari dira; iaz 3 etorri ziren, aurrekoan... Bada, ez dakit, ez daukat erregistratuta. Ikasturte-hasieran, hasi nintzen, baina, gero, hainbeste lan izan nuen, ez nuen jarraitu... Uste dut egun batean galdetu niela zenbaterik egin zuten Haur Hezkuntza hemen eta % 50 ere ez zirela". (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

"Eta, gero, hemen jaio diren atzerritarren seme-alabak etortzen ari zaizkigu; hori Haur Hezkuntzan ikusten da. Eta horiek, gainera, ez dira atzerritar gisa kontatzen". (Publikoa, Haur Hezkuntza)

"Baina txikitatik daude; bi urtetxorekin hasi ziren. Hiru hauek hemen jaio zirela uste dut". (Itundua, Lehen Hezkuntza)

"Orain, ikasle atzerritarrek ehuneko hogeita hamarretik gora dira. Eta, batez ere, asko ari gara nabaritzen... Lehen berandu sartzen zen ikasle ugari genituen, baina, orain, gure zerrendak ikasgeletan oso barregarriak dira; izan ere, beheko

ikasturteetan aniztasun ugari dugu. Beraz, hemen finkatuta dauden familiak dira, gure ikastetxea arrazoiren batengatik aukeratzen dutenak”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Oraindik ez dira hemen jaiotakoak; zalantza daukat familia batekin; ume txikiak hiru urte ditu eta hirugarrena da, eta hura uste dut hemen jaio dela, baina, orokorrean, ez”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Eta, gero, hemen jaio diren atzerritarren seme-alabak etortzen ari zaizkigu; hori Haur Hezkuntzan ikusten da. Eta horiek, gainera, ez dira atzerritar gisa kontatzen”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Krisiak ikastetxeetan ikasle berriak heldu izana ekarri ote duen eztabaidatzean, iritziak oso desberdinak dira. Alde batetik, matrikulazio-kopurua ziklikoa dela uste dutenak daude, urtero aldatzen dela uste dutenak, Euskadira heldu diren migrazio-fluxuen antzeko eredurik ez dutenak, baina horrek ez dakar biztanle atzerritarren matrikulazio kopurua txikiagoa izatea. Beste alde batetik daude uste dutenak krisiak eragina izan ahal izan duela, alde batetik, izen-emateen beherakadan, eta, bestalde, atzerritarrak jatorrizko lekuetara itzultzean. Azkenik, matrikulazioek gora egin dutela uste da, baina diote jatorrizko nazionalitateak aldatu egin direla urte batzuetatik gaur egunera.

“Bai, jarraitzen dute heltzen eta joaten. Baina orain ez da lehen bezala, ez, ez. Lehen, duela 10 urte, hileroko zetorren berriren bat. Baina, beno, irailean 2 etorri dira”. (Publikoa, Lehen-hezkuntza)

“Zikloak bezala dira. Esaterako, aurten, nahiko izan ditugu, 12-24; iaz gutxiago egon ziren, 8-9; alegia, batzuetan jaitsi egiten da. Esaten denean asko joan egin direla edo ez datozela hainbeste, hori erlatiboa da; guk hemen ez dugu horrelakorik nabaritzen, guk izaten jarraitzen dugu, heltzen jarraitzen dute, datozela ikusten jarraitzen dugu. Egia da, halaber, joan diren familia batzuk ezagutzen ditugula, langabezia egon direlako krisia dela eta, eta batzuek bueltatu behar izan dute. Baina guk, hemen, urtero jarraitzen dugu izaten, urtero jarraitzen du ikasle kopuru bera heltzen. Guk, krisiaren kontuarekin, ez dugu horrela sentitzen”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Nabaritzen ari garena da, etorri barik, badoazela. Beharbada krisiarengatik izango da... Esan liteke ez zaiela kostatzen umea ikastetxetik ateratzea eta eramatea, martxoan badaramat, apirilean badaramat... Eta ez da ikasturtea amaitu. Aurten gertatu da; bi ikasle joan dira. Orduan diozu: dena utzi eta bazoaz... Horrela al da? (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Urtero daude ikasle atzerritar gutxiago. Azken urteotan nahiko hazi da, beharbada azken bi edo hiru urteotan gehiago. Marokokoak dira gehienak, eta, gero, Pakistan-goak, errumaniarrak, hegoamerikarrak...” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Nik bi handi ikusten ditut, oro har; nik izan ditudanak kontuan hartuta, ez dira asko beste ikastetxe batzuekin alderatuta, baina, beno, hasi gara nabaritzen gero eta gehiago iristen direla eta orain ere, etorkizunari begira eurak datozela izena ematera; dagoeneko ez ditu ordezkariak bidaltzen. Dagoeneko argiago dute kontua, nola funtzionatzen duen; euren bekak eta laguntzak eskatzen dituzte”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

Baina, epez kanpoko matrikulazioak direla eta, irakasleek diote frustrazioei egin behar dietela aurre ikasleak onartu behar dituztenean ikasturtea ia amaitzeaz dagoela, horrek dakarren *handicapa* kontuan hartuta. Ez dute uste era-

bilgarria denik alde interesdun batentzat ere. Beste alde batetik, agerian uzten dute ikasgelan gaia ematen jarraitzeko programatutako erritmoekin jarraitzeko zailtasuna. Esan digute oso zaila dela eurentzat ikasgela etengabeko aldaketara moldatu beharra.

“Maiatzean ikasle bat sartzek zailtasun asko dakartza, ia ikasturtea amaitzen ari denean. Zer azterketa-mota egin dakioke heldu berri den pertsona bati; ez du hizkuntza hitz egiten, ez da ezagutzen... Zer da, haurtzaindegi bat, bertan egoteko, egotearren? (Itundua, Bigarren Hezkuntza).

“Eta bidali zizkiguten lehen umeak, ez izena eman zutenak, baizik eta ordezkarietatik zetozelako. Eta, gainera, ikasgelako 25 genituela suposatzen zen, eta ume horiek beti ziren 26-27 zenbakia. Ume horiek gehienetan ikasturtea hasita iristen ziren, ez irailean”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Orduan, jakina, zaila da. Eta gainera ikasturte-hasieran lanean ari zara, 3rekin edo 4rekin hasten zara, aurten gertatu zaigun bezala; martxoan Brasilgo bat etorri zaigu, beste bat Ekuadorrekoa... Eta, bat-batean, 7 edo 8 dituzula konturatzen zara. Eurekin hasi behar duzu, egokitu egin behar dute... eta horrek eragina du ikasgelaren erritmoan”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Epez kanpo aspaldion sarriago gertatzen zaigu. Zuk pixka bat planifikatzen duzu eta iraila heldu eta, beharbada, 3 heltzen zaizkizu; urria dator eta beste 3; horrek zaildu egiten du pixka bat, ezta? Bada, laguntza guztiak eta klaseak eta irakaslearen itxaropenak... Arj, beste bat gehiago! Beste karga bat gehiago, zailtasun gehiago... Baina, beno...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Badakit egon direla, baina gutxi, bi uste dut aurten. Uste dut erritmoa jarraitzeko ahalegina egiten dela; ikasgelako erritmoan sartzeko ahalegina egiten da, eta jende horri esan ohi zaio jolastorduetan eguneratzerara joateko. Jakina, idealena litzateke inor ez heltzea ikasturte erdian, baina heltzen direnez...”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Eskola-egutegiak ezarritako epez kanpoko matrikulazioei aurre egiteko aukerak direla eta, Hezkuntza Sailak dituen zailtasunak ulertzen dira; hura da ikasle horiek banatzeko arduraduna, ikasturtean zehar izango duten bolumenak eta euren gain izan ditzaketen beharrezanek eta kudeaketak eragiten duten zantza kontuan hartuta.

“Nola esan beharko litzateke, Eusko Jaurlaritzaren baliabideak? Bada, pertsona bat izatea datozenentzat, baina pertsona bat izango dut, pertsona bati ordainduko diot, heldu ala heldu ez? Eta ezin duzu esan, bada, ikasgela batean 22 dituzu eta 23a heltzen da; bada, sartu egiten duzu, baina ez duzu denbora materialik modu bereziak tratatzeko ikasle hori”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Eta, gainera, ulertzen dut Hezkuntza Sailean daukaten errealitatea dutela; eurek ere ez dakite zenbat etorriko diren. Iaz, irailean, migrazio-fluxua oso handia izan zen; jakina, eurek ez dakite zenbat etorriko diren. Bat-batean, eskolatzeko batzordeak erabaki behar du nola eskolatu (lekua)-n 120 pertsona, eta hurrengo astean, bada beste 70 heltzen dira, eta, gero, beste 45. Bakoitza leku batetik dator, eta eurek bermatzen dute gutxiengo bat egotea, alegia, banaketa nahiko zuzena egotea”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Azkenik, eskolatzeko-bermearen inguruko hausnarketa nabarmendu nahi dugu; nahiz eta aitortzekoa den eskubide hori bermatu egiten dela, jarraitzen dute euren buruari galdetzen eskolatzeko horrekin gutxieneko baldintzak ziurtatzen ote diren.

“Beno, hori balore bat da, baina, jakina, hortik eta beste guztira... Uste dut migrazio-fluxuaren gaia, orain planteatuta dagoen bezala, uste dut eskolatzeko aukerak ematen zaizkiela; bermatu egiten da oso garrantzitsua dena, baina, jakina, zer baldintzatan heldu, harik eta bermatu arte gutxieneko baldintzak ematen direla, hori oso zaila da. Oso zaila planteamenduagatik, fluxuagatik, denagatik, une hauetan den errealitateagatik”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Kultura-aniztasunaren kudeaketa ikastetxetik

Kultura-aniztasuna ikasgelan lantzeko ideiarekin lotutako galderen inguruan hauteman da ez dela sartzen gai zehatz gisa; bakarrik gatazka-kasuak badaude. Ikasgelan kultura-aniztasunarekin lotutako arazoak direla eta ikastetxe lasaia dela esan, eta gai zehatz gisa ez tratatzea erabakitzen da.

“Bai, lan egiten da curriculumaren barruan... horrela zehaztuta... ez dakit esaten, baina bai, tutoretzetan lan egiten da, eta beharrik ikusten bada, zerbait arraroa, alde batera uzten da programazioa, eta horri erantzuten zaio. Oso eskola lasaia da, zentzu guztietan, orduan...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Aniztasunaren kudeaketa ikastetxeetan islatzen da hezkuntza-erkidego guztia inplikatzeko dutenean, dela inauteriak, Olentzero, Euskararen Eguna, besteak beste. Ikastetxe bakoitzak kudeatzen du nola egin aurre ikastetxean dauden ikasle atzeritarren eta euren familien aurrean egon daitezkeen desorekei.

“Inauteriak datoz, eta asko ez dira mozarrotzen, euren erlijioak ez dielako uzten; beraz, aldatu egin dugu. Hemen mozarro batzuk egingo ditugu pentsatzeko denak doazela mozarrotuta eta beste gurasoei esango diegu benetan dantza egiteko daukela horrela jantzita, eta hau eta beste; beraz, horrela, gauzak batzeko ahalegina egiten dugu”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Oraindik dago ikastetxe batzuetan dinamizatzaile soziokulturalaren irudia. Bere funtzioak kultura-aniztasunak ikasgeletan barne har dezakeen guztiarekin daude lotuta, dela materialak sortuz, dela harrera-planak eta sentsibilizazio-jarduerak ezarriz, besteak beste.

“Aurten, lanaldi erdia izan dugu kultura arteko dinamizatzaile batentzat. Beraz, harrera-programa bat egin da, irakasleak sentsibilizatzeko hitzaldi batzuk, ikastarotxo bat, paisaia apaindu da eta, horretarako, zenbait hizkuntza erabili ditugu... Eta, beno, protokolo batzuk sortu dira: esaterako, ikasle bat dator eta ea zer egin, bai Haur Hezkuntzan, bai Lehen Hezkuntzan. Beraz hori idatzi da, dagoeneko, eta badakigu, gutxi gorabehera, nola jardun, nola hartu familia, nora jo hizkuntza desberdinak zirkulatzeko... azken batean, egon daitezkeen beharritan erantzuteko. Orduan, hori irakasleei erakutsi diet, eta...”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Hala ere, dinamizatzailerik soziokulturalaren irudi hori azken urteotan bigarren maila batean utzi da, eta ikastetxe gehienetatik desagertu egin da. Irakasleen iritziz, irudi horrek oso funtzio zehatzak ditu, eta eginkizun ugari ditu; azkenean, irudi hori betetzen dutenengan nolabaiteko frustrazioa eragiten da. Tutoreei ekar diezaikekeen lan-karga ere kontuan hartuta; beti ez daude karga hori euren gain hartzeko prest.

“Ni dinamizatzailerik soziokulturala izan nintzen. Gainera oso zaila da jendea mugiaraztea. Nik ulertzen dut... irudi horrekin aukera ugari dago. Ikasgela eta ikastetxearako estrategia metodologikoak, eta, diozu: bada, ez. Gero, jarduera zehatzak antolatzea, topaketak familiekin... ez delako liberazio bat... guk 3 urtez izan genuen”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

“Zuk tutoreei galdetuz gero ezertarako balio ote zitzaien, ezetz esango dizute, lan gehiago emateko besterik ez dela. Nire ustez, oso zaila da horrelako gauzak kudeatzea. Nire ustez, zerbait egin behar da, baina ez dakit zelan”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

Ikastetxe itunduetatik, irakasleentzat laguntzarako izan daitezkeen langileen beharra aipatzen da, ikasgeletako kultura-aniztasunarekin zerikusia duten kontu guztietan; izan ere, eurek identifikatu dute gabezia hori, eta ez Administrazioak. Uste dute ez dutela neurria ematen atzerriko jatorria duten ikasleak heltzean ematen den erantzunean. Ikastetxearen hizkuntza-proiektuaren aurrean jarraian adierazten den bezala, esaterako.

“Jakina da etorriko direla, baina jakina da Administrazioak ez duela konpondu; izan ere, esan dizudan bezala, geuk izango bagenu, ez diot itunduetan, imajinatzen dut publikoek behar dituztenak baino laguntza gutxiago izango dituztela, baina, jakina, nik ziur jakingo banu ikasgela barruan irakasle bat izan ahalko dudala ikasle horiek edukitzeko, ez doana ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren kontra, ez eta irakasleei lan-karga kentzeko normalizazio-proiektuaren aurka, eta, batez ere, hala behar duten ikasleei laguntzeko... Bada, ederki, moldatuko gara. Baina, jakina, beharizan horiei erantzuten ez bazaie, bada egoera horiek jarraitzen dute epe luzera arazo motaren bat eragiten, edo guri edo eurei, hizkuntzaren gaiarekin etorkizunean”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Aipatu beharra dago, azkenik, ideia baten, aniztasunaren eta banakako arretaren aurkako ahots kritikoak daudela. Utopikoa eta eginezina dela uste dute; hitz politak; ez dute uste, baina, gauzatzea bideragarria denik.

“Aniztasuna eta banakako arreta tratatzea hitz politak dira, baina ez dira errealistak. Ezinezkoa da egitea, utopia da; izan ere, politikoki oso ongi geratzen da, diskurtsorako, baina, oinarrian, gauza batzuk ezin dira egin. Banakako izendatzen duten irakaskuntza utopikoa da, erabat; ez dago horrelakorik, eta ez da sekula egongo. Banakako osasuna bezala, hori ez da sekula egon” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)



Esate baterako, Olentzero egunean, jendea janztera animatu genuen; kendu egin genuen, baina euskaldunekin itzelezko errieta izan genuen. Orduan, zer egin dugu? Bada, jendea animatzen dugu, kutxa bat dugu zapiekin eta jantzita ez datozenak horiek hartzerantz animatzen ditugu. Gero ikasten zoaz, zeren eta jantzita etortzeko esaten baituzu, eta neskato bat printzesa jantzita dator; orduan, hurrengorako, argazki bat jarri genuen erakusteko soinekoa nolakoa den. Familia batzuen kasuan, lehen urtean ez, baina bigarreanean ume bat badator atorra jantzita”.

(Publikoa, Lehen Hezkuntza)



Erlijioa

Kultura-aniztasunaren kudeaketak ere badakar arreta ematea ikastetxean bertan dauden erlijio-sinesmenei. Tradizioan Euskadin dauden erlijio-praktikez bestelakoak diren atzerritarren etorrera nabarmena da gure herri eta hirietako kultu-espazioetan, baita ikastetxeetan ere, dela sare publikoetan, dela itundutakoetan. Azken sare hori, kasu askotan, erlijio-zentroek osatzen dute; zehazki, katolikoek.

Elkarrizketetan identifikatutako diskurtsoen artean, bi errealitate ditugu, ikastetxeetako erlijio-aniztasunaren⁴ aurrean. Alde batetik, irakasleak daude; horiek uste dute erlijio-zeinu desberdineko ikasleen arteko elkarlana positiboa dela eta gatazkarik ez duela jasotzen ikastetxean. Eta, bestalde, lanbideko lankideen eta familien aldetiko (bai bertokoak, bai atzerrikoak) errezelo- eta deskonfiantza-uneak bizi izan dituzten irakasleen ustea jasotzen dugu.

“Ez da arazorik egon; sahararrak izan ditugu...”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Bai, inoiz bai, familia batek zehazki esan zuen ez zuela nahi ezer entzuterik ere. Eta erlijio-ikasleak itundua eta ezer ez entzutea...”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nik dakidala, ez dugu arazorik izan”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Atzerriko jatorrizko zenbait kolektibo hautematen dira erlijiosoago gisa, bertoko biztanleekin alderatuta. Hala ere, ez dira horregatik gatazkatsuagoak; guztiz kontrakoak, bizi izan duten tratua erabat errespetuzkoa da.

“Normalean oso erlijiosoak dira. Beharbada, beste modu batera bizi dute; ez da agian guk dugun zentzu bera, baina askoz ere praktikoagoak dira. Eta onartu egiten dute eta kamisetarekin datoz eta margotu egiten dira eta... Bai, gauza guztietan sartzen dira. Ez dugu arazorik izan ez gurasoekin ez beste ezerekin”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

⁴Argitu nahi dugu elkarrizketatzaileak ikasgelako erlijio-alderdiari buruz eginiko galderen aurrean, erlijio-aniztasunaren kudeaketaren gaineko iruzkinak *hiyabaren*, erlijio katolikoa egotearen eta horietan parte hartzearen eta ikastetxeko ekitaldietan parte hartzearen ingurukoak direla.

“Bai jantokian, bada desberdintasunak dituzte eta jaietan bai, txorizo bat edo antzekoak badaude, ba bai, beste elikagai batzuk prestatzen zaizkie, eta gurasoek ere laguntzen dute”.

(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Batzuek aprobetxatzen dute ikasle berriak heltzea ikasgelan euren jatorrizko lekuarekin, erabilerekin eta ohiturekin eta erlijio-praktikekin lotutako guztia lantzeko aukera gisa, ikasleak bertan integratzeko abiapuntu gisa.

“Ez, ukitu ere ez da egiten; aipatu da. Neska hau eskolara etorri zenean, materiala zeukan prestatuta, beraz bere klasean komentatu genuen Marokori buruz geneukan informazioa; kasualitatez, klase horretan beste ikasle bat hemen jaioa zen, baina marokoar familia zeukan, eta horrek asko lagundu zigun herrialde horretako ezaugarriak komentatzen, eta guztiontzako mesedegarria izan zen, mapan bilatu zen, etab.”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Elkarrizketetan gehien aipatu den gaietako bat izan da ikastetxeetan ikasle batzuek *hiyaba* daramatela. *Hiyaba*, jatorriz, islamikoa da (ez dugu baloratuko sinbolo erlijiosoa den edo herrialde batzuetako erabilera eta ohiturei erantzuten dien), eta ikasleen arreta erakartzen du (batzuetan, ez dutelako ezagutzen, beste batzuetan, jakin-minagatik), bai eta bertoko familiena ere; familia batzuek, kasu batzuetan, adierazi dute arduratuta daudela ikasle atzeritarrak iristean ikasgelara euren seme-alaben hezkuntza maila baxua dela uste dutelako.

“Berak oraindik ez dakar halako gauzarik (hiyaba), baina gainerako umeek ama ikusi zuten beloarekin, eta 4. mailako umeak zirenez oraindik eta askorik ez zuten ikusi ordura arte, bada, ume batek esan zuen bere ama moja zela”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“(Lekua)-n ikasle neska baten eskabidea jaso genuen, eta hura honen laguna zen; honi esan zioten ezin zuela ikastetxean zapia jantzi... Nik ikuskaritzarekin komentatu nuen eta eman zizkidaten urratsak arrazoizkoak iruditu zitzaizkidan, baina familia batzuek honako hauek esaten zituzten: nire alaba ezin da zapiarekin etorri, eta hauek badatoz. Ahalegin bat egin zen... Azkenean, ez zen gehiengoa izan, baina, beno, nire ustez zentzurik ez zeukaten galdera batzuei erantzun behar izan zitzaien eta, gainera, planteamendu hura egin zenean, elkarrekin zerikusirik ez duten gaiak nahastu nahi izan ziren; besteak beste, taldeak tradizioz ez zuela oso ibilbide egokia izan, eta maila horretako familiek diote horrek zerikusia zuela ikasgelan ikaste etorkinak sartu izanarekin. Ez duela zerikusirik, baina, beno, beti da errazagoa... arazoa hemen dagoela esan beharrean, errazagoa da esatea kanpotik dato-rra; hori beti gertatzen da edo beti gerta daiteke”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Irakasleek ere badiote beste lankide batzuk ez daudela ados ikastetxean *hiyaba* erabiltzearekin. Nahiz eta elkarrizketatuek horren ondoriozko arazorik ez ikusi, irakasle batzuek onartzen dute nolabaiteko errezeloa dutela beloa erabiltzeko.

“Ez dago inolako arazorik. Gu eurekin hitz egiten saiatzen gara (bertoko ama eta aitekin), baina ikastetxeko eta klaustroko prozesu batean irakasleek esaten zuten ez genuela zapirik onartu behar; beloa, burua estalita...”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Kontrako ahotsen aurrean, irakasleen klaustroak berak, Hezkuntza Sailarekin elkarlanean (hari eskatu zitzaion aholku), ahalegina egin zen adostasuna bilatzeko, ikasgelan *hiyaba* erabiltzeari dagokionez. Batzuetan, komenigarri iritzi zaio hautatzeko askatasuna emateari inplikaturik dauden pertsonen eta euren familiei, hura erabiltzeko, baina komeni da kentzea, gainerako ikaskideen antzekoak izan daitezen.

“Inoiz izan dugu familiaren baten ahaleginik; neskatoen bat magrebtarra zela eta zapiarekin zetorrela; ikuskaritzarekin hitz egin genuen eta geuk, lehen esan bezala, ez dugu eragozpenik jarri”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza).

“Gai horretan guk ezin dugu ezarri ikastetxea bere araudian burua estalita eramatearen aurka dagoenik. Zabalik utzi dugu gaia; beraz, ikasleen artean, bi neskato ditugu burua estalita ekartzen dutenak eta guk eurekin lan egiten dugu, eta ikusarazten diegu komenigarria izango litzatekeela gainerakoak bezalakoak izatea, kentzea”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Are gehiago, denbora bateko komenigarritasunak eta horregatik ikastetxeetan gatazkarik ez dagoela egiaztatzeak laguntzen du eskola-elkarteko kideen arteko harremanak normalizatzen.

“Batzuek ez dute ondo ikusten, esaterako, beloa eramatea, baina, beno, gutxiengo da, eta, gainera, urtebete igarotakoan eta ikusten duzunean dena normalizaturik dagoela eta arazoa batzuetan geure buruan dagoela, bada, desagertu egiten da. Ikusten duzunean ez dela ezer gertatzen”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Baina gaur egun badute, DBHko 2. mailan daude, eta ez dago inolako arazorik, ez irakasleen aldetik, ez ikasleen aldetik. Ikasgelan daude; bi ikasle dira, nahiko onak akademikoki eta langileak, arduratsuak; beraz, ondo onartzen dituzte eta ez dago inolako arazorik”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza).

“Kanpokoari beldurra, ezezagunari, esaterako, Islama denari. Zuk ikusten duzunean Islama erlijio bat dela eta ez duela zerikusirik beste gauza batzuekin, bada beldurra galtzen zoaz”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza).

Hala ere, jaso ditugun iruzkin gehienetan, ikusten dugu ez dagoela gatazka handirik ikastetxean, eta ikastetxean bertan *hiyaba* erabiltzea naturaltasun osoz hartzen dela. Baina badakite kontrako ahotsak ere badaudela; hala ere, kasu gutxi direla uste dute, eta ez dute uste eragiten dutenik ikastetxeko bizi-tzaren bilakaeran.

“Gertatzen dena da bi familia direla eta bi ikasle, eta horiek barneratzen joan behar dutela zeinu kulturala dela; ez dute kendu nahi eta bertan amaitzen da kontua. Ez dute kentzen eta kito. Eta ikastetxeak onartu egiten die. Ez da beste gerrarik egon. Jakina, kontrako ahotsak egon daitezke; hemen guztia ez da erraza; logikoki, klaustroetan hitz egiten dugunean, batzuk kontra daude, baina gutxiengo da”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Ez, eta are gehiago, iaz neskato batek hiyaba jartzea erabaki zuen. Hemen inork ez zion ezer esan; bera iaz joan zen, batxilergoa amaitu zuelako, baina bere ahizpak hemen jarraitzen du eta ez darama, baina berak hala erabaki zuen eta inork ez zion ezer esan, ez ikastetxean, ez inon. Eta ikasgelan lagunak zituen eta arazorik ez”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Jatorri erlijiosoko ikastetxe itundu gehienak katolikoak dira. Horrek dakar ikastetxe horietan ezarritakoaz bestelako aitorten erlijiosoen atzerriko familia batzuk euren seme-alabei ematen dieten hezkuntza erlijiosoarekin ados ez daudela adierazten joatea. Ez daude ados irakasgaien eta ikasturtean egiten diren erlijio-ospakizunetan parte hartu behararekin. Hala ere, kasu batzuetan ere familiak ikastetxeko ideia erlijiosoetara egokitzen dira, eta ez dute bestelako eragozpenik jartzen. Irakasle elkarrizketatuek uste dute, nahiz eta alternatiba batzuk edo egokitzapen batzuk kontuan har daitezkeen, familia dela kontsekuente izan behar duena ikastetxearen ideia erlijiosoekin, eta bertan ezartzen diren arauak onartu behar dituela.

“Egia da orain ez dagoela, baina ez dago uste dudalako hor ere kulturaren arloko kontu ugari batzen direla, erlijio arlokoak eta abar. Hau ikastetxe erlijiosoa da, eta nahiz eta daukagun planteamendua oso errespetuzkoa den, ikasle bakarria bada, eurek badakite, eta datozenean, esan egiten zaie eta onartu egiten dute, puntu bateraino. Eroso sentitzen dira edo ez hain eroso; guk ezin diegu uko egin pertsona baten ideiei. 15 musulman baleude, bada erlijio musulmanarekin zerikusia duen zerbait antolatuko genuke, baina bat badator, ez dugu ezer antolatuko. Nola moldatzen gara hemen? Bada, bere lana banaka egiten du edo batzuetan bere erlijioarekin zerikusia duen lana egiteko ematen zaio... Beno, hori bere egoeraren eta familiaren arabera, bai eta eskatzen dituenen eta gaiaren aurrean jokatzeko duen moduaren arabera, eta...”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Momentuz, zortea dugu; izan ere, amak zera esaten zidan: guk etxean gure erlijioa dugu, baina nik jakin behar dut nire seme-alabak bertara doazela eta zuok eman beharrekoa emango duzuela. Nik etxean erakutsiko diet”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Bai, inoiz bai, familia batek zehazki esan zuen ez zuela nahi ezer entzuterik ere. Eta ikastetxe itundu bat eta ezer ez entzutea... Eta denboraldi bat egon zen klasetik kanpora; gero neskatoak klasera sartzeko eskatu zuen, bere egoera... Jakina, zuk hona ekarri duzu; gainera, familiari esan genion, eta behin eta berriz, gainera; hara, ez dugu ezer inoren kontra, baina ikastetxe hau den modukoa da, eta zeuk jakin behar duzu nolakoa den. Eta hona ekarri zuen, ikastetxe hau publikoa den beste bat baino 200 metro hurbilago dagoelako, berak esan bezala. Jakina, hurbilago dago, baina beste konnotazio batzuk ditu, eta horien kontziente izan behar da... Eta gogoratzen dut ikuskaritzara joan zela eta kalaka eman zuela. Neskatoa denboraldi bat egon zen klasetik kanpora; gero, amaieran, sartu egin zen eta, hurrengo urtean, alde egin zuten”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Bestalde, irakasleek ulertzen dute eskola-elkarteak aurrez aurre duen kultura-aniztasuna, eta euren eskola-plangintza ikasleen artean ikus dezakeen erlijio-aniztasunera egokitzen dute; horretarako, egoki irizten dieten irakasgaiak errealitate horretara egokitzen dituzte.

“

“Egia da ume batekin gertatu zitzaidala; abesten ari ginen eta abestia zen “eman eskua Jesusi; hemen da”, eta, bat-batean, negarrez hasi zen, eta zer gertatzen zitzaien galdetzean, zera erantzun zidan: bada, nik ez dut Jesusengan sinesten. Eta esan nion: lasai egon, zuk ez abestu; besteek egingo dute. Orduan berak ez zuen nahi izan gutxiago izan, gizajoa negarrez, eta lasai egoteko esan nion, berak bere pentsamendua duela eta hori dela dena. Sarritan klasean esan ohi duzu kontatzeko euren kultura, zer egiten duten”.

(Itundua, Lehen Hezkuntza)

”

“Eta, gero, zuk, irakasle zaren aldetik, ulertzen duzu konfesio erlijioso desberdinak daudela, eta ez da ezer gertatzen. Egia da goragoko mailetan hainbat erlijioz hitz egiten dela; oinarrizko kanona gainditzen da, nolabait”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Eta ez gara ari bakarrik erlijio musulmanez eta bere sinbolo erlijiosoez, baita ikastetxe itunduetan fededunak ez diren eta ematen diren erlijio katolikoko klaseetan parte hartu nahi ez duten ikasleez ere. Horri dagokionez, elkarrizketatutako pertsonen iritzia argia da: ikastetxe erlijiosoa denean, ikastetxeko hezkuntza-programa bete behar da, eta, beraz, bertan ematen diren irakasgaiak.

“Esate baterako, batzuk ez dira erlijiosoak; Marokoko neska bat etorri zitzaigun eta esan zigun bera ez dela fededuna eta, beraz, berak ez duela erlijio irakasgaira joan nahi; bai, baina zure gurasoek ikastetxe honetan matrikulatu zaituzte eta, bestela, beste batean egin beharko duzu. Badituzu erlijiosoak ez diren beste ikastetxe batzuk, publikoak zein ez publikoak. Orduan, zergatik etorri zara hona? Hona etorri bazara, dagoenera egokitu beharko duzu; ezin zaitugu zu erlijio irakasgaitik atera, bestea beste irakasgai batetik... Beraz, ulertzen dut hau B eredia bada eta euskara badago, egokitu egin behar dutela. Horretarako erraztasun bat eman dakieke, baina, azken batean, egokitzapena eurek egin behar dute”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza).

Ikasleen eta euren familien egoera sozioekonomikoa

Elkarrizketatutako ia irakasle guztiek uste dute euren ikastetxeetan dauden atzerriko jatorriko familiek egoera ekonomiko ezegonkorragoa bizi dutela, bertoko familiek baino. Baieztapen horrek, baina, ñabardurak ditu, ikastetxearen eta ikasleei klase sozialaren arabera.

“Eta, gainera, arazo potolo bat dagoela uste dut: desberdintasun ekonomikoa”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Baina datozenak... gehienak ez; gehienek gizarte-laguntzetara jo behar dute”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Ni, hasi nintzenez, nik pixka bat elitista zela uste nuen; izan ere, batez ere, mediku, abokatu, arkitekto, ingeniari... seme-alabak etortzen ziren. Orduan arraroa zen igeltsero baten semea edo alaba etortzea. Normalean horiek ziren, guraso dirudunen seme-alabak; izan ere, janzkeran nabaritzen zitzairen, zeukaten guztian; edozer eskura zezaketen. Eta 13 urtetik hona, gutxi gorabehera, parekatzen joan da kontua, eta orain ikus daiteke estilo askotako jendea dagoela, eremu guztietakoa; alegia, bekak eskatzen dituztenak. Nik lehen beken kontua ezagutu ere ez nuen egiten; nik ez dut hori gogoratzen. Horrenbestez, familia horietan ere, oro har, ez da hainbesteko alderik ikusten, lehen bezala”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Familia desegituratuak barik, baliabide ekonomiko gutxiko familiak dira. Gurasoak langabezian; ez daude desegituratuta, alegia, ez daukate familia-harreman txarrak; askok beti daramate arropa bera”. (Hezkuntza ez-formala)

*“Ez, zailtasun ekonomikoak? Ez. Hona datozen umeak posizio onean dauden fami-
lietakoak dira”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)*

*“Familia batzuk, esaterako, abarketak egiten ari dira, eta esaten dizute ez dituz-
tela etxerako lanak egin, aurreko egunean aitari laguntzen ibili zirelako. Orduan
ohartzen zara egoera batzuk oso gogorak direla”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)*

*“Jolas ugari egiten dugu, eta, horren barruan, “zer gustatuko litzaizuke izatea?”.
Eta euren balioak ezagutzen dituzu; esaterako, joan den astean, gauza batzuk, fa-
milia, lagunak, dirua eta bestelakoak ordenan jarri behar zituzten; bada, gehienek
dirua aukeratu zuten lehendabizi, familiaren aurretik, eta bederlatzi urte baino ez
dituzte, eta hori oso gogorra izan zen. Gaizki pasatzen ari direla ikusten badute,
bada...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)*

Beraz, irakasle batzuen lekukotzek ikasturtean zehar egon daitezkeen gastuei aurre egitean familia atzerritarrek dituzten zailtasun ekonomikoez hitz egiten digute, dela ikasturte berrirako materiala erosteko, dela ibilaldiak eta irteerak egiteko, besteak beste.

*“Bai, badituzte zailtasun ekonomiko handiagoak. Sarritan esaten dizute ez dakit
zer material erosi behar dela, eta hilaren bukaerara arte ari dira itxaroten, hura
erosi ahal izateko. Bada, pentsatzen hasi eta zeure buruari galdetzen diozu zer
ibiliko diren jasaten familia batzuk... Liburuak ordaindu egin behar dira; ikastetxe
itundua da. Egia da hilerokoa baxua dela, baina, beharbada, gutxi da niretzat, ez,
baina, eurentzat. Eurak, agian, itzelezko zenbakiak egiten dabilta aurrera atera
ahal izateko”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)*

*“Ni orain ibilaldirako dirua biltzen ari naiz, eta aurreko klaseak batzen ematen
duen denbora egunbete da; nik bi aste egin ditut, eta batek esan dit ezin izango
duela”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)*

*“Bada, esaterako, taldeak kanpora joango dira gaua egitera, eta neskato bat ezin
izan da joan, ezin duelako ordaindu. Aitak esan zidan ez duela ordaintzeko dirurik,
oso estu dabiltzala. Hau da Kordobara etorri den marokarra, eta beste bat Guinea
Bissautik etorri da; izan ere, azkena etorri dena, 5 urtekoa, oso gaizki dabil. Zelan
dagoen galdetu eta negarrez hasten zaizu, ezin duela lanik aurkitu”. (Publikoa,
Haur Hezkuntza)*

Egon daitezkeen estutasun ekonomikoen aurrean, familiek dirua ordaindu ezin dutenean ikastetxeek konponbideak bilatzeko duten borondate ona

“

“Klasean hitz egiten nabilela, zera galdetu nuen: zenbatek gosaltzen duzue etxean? Eta hiruk edo lauk altxatu zuten eskua. Eta ume batek harritu egin gintuen; izan ere, esan zuen bere etxean plater bi gutxiago jaten direla dirurik ez dutenean, eta bakarra jaten dutela. Ni zur eta lur geratu nintzen. Gero familian sakontzen duzu eta tarte txarrak igarotzen ari direla ikusten duzu...”

(Itundua, Bigarren Hezkuntza)

”

ikusten da. Bertoko eta atzerriko familiei berdintasunez ematen zaie laguntza. Hala ere, badago nolabaiteko konfiantzarik eza benetako beharrezana ez duten eta, beraz, ikastetxeen laguntza eskuzabalaz aprobeztatzen diren familien engainu posibleen aurrean.

“Orduan esaten diezu liburu bat erosi behar dela; sarritan amek deitzen dizute eta zera galdetzen dizute: derrigorrezkoa da erostea? Egia da ikastetxeak ikusten duenean zailtasunak daudela, materiala uzten dietela, baina ez arauz, gero asko oso azkarrek dira eta: neuk ere behar dut, neuk ere bai, neuk ere bai... Orduan, beharrezana dagoenean, ikusi egiten duzu eta diozu, beno, utz daiteke, baina ez arauz”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Ikusten ari gara arropak ez izatean, udaletxera joaten direla eskatzera. Egonez gero, eman egiten dizkiete; bestela, beharbada txapela ematen diete eta alkan-dora bat, baina, beharbada, ez dute praktarik. Eta bai, aldea nabari duzu kanpoko jendearen eta bertoko jendearen artean, baliabiderik ez izatean. Orduan uste dut ikastetxe publiko batek horiek eduki behar dituela; ez badaukate, guk lagundu diezaiekegu”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Aurretik aipatu bezala, arazo ekonomikoek eragin bera izan dezakete bertoko familietan eta atzerritarrenetan. Egoera hori sare itunduan eta publikoan atzematen da, baina azken horrek uste du, doakoa denez, bere ikastetxeetan baliabide ekonomiko gutxiagoko herritarrak matrikulatzen direla.

“Kasu batzuetan bai, ikasgelan aldea ikusten da. Baina guztiak daude gaizki. Kontuan izan hemen, (udalerría)-n, ikastolak eta ikastetxe pribatuak daudela; beraz, baliabide gehiago dituztenek ikastolara edo pribatura eraman ohi dute. Beraz, guri heltzen zaizkigunak dira gastatu ezin dutenak; horrenbestez, hor, bertokoa edo etorkina izan, nik ezin dudana esan da zenbat etorkin dituen hemengo ikastolak. Esan ohi dute etorkin guztiak eskolara doazela; bada, beharbada, egongo da nik ikusten ez dudana aldea”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Arazo ekonomikoek eragin bera izan dezakete bertoko familietan eta atzerritarrenetan.

“Beti ez da berdín; hau da, arrazoia ez da etorkina izatea; izan ere, batzuek kaudimen ekonomikoa dute eta hemengo beste batzuei ere kostatu egiten zaie. Ez dago eredu hori; hemen ikastolan ez. Batzuei kostatu egiten zaie ordaintzea, eta hemengoak dira”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Elkarrizketetan ikasleen eta euren familien zailtasun ekonomikoen inguruan gehien errepikatzen den adierazleetako bat da eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko ezintasuna. Kirolaren, kulturaren, musikaren, hizkuntzen ar-

loetako jarduerak, bai eta ikasle batzuek eskatzen dituztenak, besteak beste, laguntzarako eskolak.

“Gertatzen dena da batzuek arazo ekonomikoak dituztela, beraz, beharbada ez dago eskolaz kanpoko jarduerarik, ingeleseko, balleteko... eskola estrarik, horiek ez ordaintzearren. Laguntza eskaintzen zaie, baina... Marokoko neskatoari eskaini zitzaion leku batera joatea eskolaz kanpoko laguntzarako, etxerako lanekin pixka bat laguntzeko eta ohiturak hartzeko. Eta hori diruz laguntzen da, bai. Udalaren zerbitzua dela uste dut”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Familiek oso baliabide ekonomiko baxuak dituzte, ezin dute eskolaz kanpoko jarduera askotan parte hartu; kasu batzuetan, gainera, badakizu asteburuetan edo aste barruan gurasoei laguntzen dietela lanean”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Ez dezagun laguntzarako irakasleez hitz egin, baliabide gutxi dituzten pertsonen zuzendutakoez. Eskola publiko batean, gainera, % 70eko bekadunen ehunekoa ikusten ari garenean”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Hala ere, kontrako ikuspuntua daukagu baieztatzean atzerriko jatorria duten familiak Euskadin finkatzean euren egoera sozioekonomikoa egonkortu egiten dela eta esatean ez dela lehenaldiko desberdintasunik sortzen.

“Eta, normalean, umeak eskolaz kanpoko jardueretan apuntatzen dituzte, eta jarduera arrunt guztietan; autobus bat hartzen baduzu, baina, irtetea dirutza da, eta sasoi batean guraso-elkarteak laguntzen zien; orain, ordea, ez, eta hala ere izena ematen dute; beraz, parekatzen doazela ikusten duzu”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

Elkarrizketetan ageri da zailtasun ekonomikoek bereziki nerabeengan izan dezaketela eragina. Uste dute bizitza-etapa konplexua bizi dutela eta euren etorkizuneko garapenean izan dezakeela eragina; izan ere, kontziente dira etxeetan bizi dituzten estutasun ekonomikoez. Nolanahi ere den, euren buruei galdetzen diete nolatan ordain ditzaketen euren seme-alabentzat beharrezko ez diren gastu handi jakin batzuk.

“11 urte betetzen dituztenean: mugikorra, hau, bestea... Ez daukate ezer. Badakizu, nerabezeroan... Badakizu, txiroak bezalakoak direnak... Eta gauza horiek adin horretan oso esanguratsuak dira, eta asko markatzen dituzte”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Nire ustez, DBHko 4. mailan gauzak aldatzen doaz. Nire ustez, hor argiago ikusten dute, etxean ezin denean, ezin delako, kontzienteagoak dira. Gurasoak egiten ari diren ahaleginaren kontzienteago dira. 12 urterekin umeagoak dira”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Arropari dagokionez, beti daramate modelorik berriena, markarik berriena, mugikorrik berriena eta berrienetan berriena, eta batzuetan mugikorrarekin datoz; 1. eta 2. mailan ez diegu uzten mugikorra ekartzen, eta 3. eta 4. mailetan patioan erabil dezakete, baina euren mugikorra ikusten baduzu, nirea baino askoz ere hobea da. Nola izan liteke! Nola da posible! Edo oso gaizki daude, edo ez daude hain gaizki; edo X diru daukate kapritxoak erosteko... Horretan bai, ikusten dut, eta gero zera pentsatzen duzu: Ene! Ezin duzu liburu bat erosi?”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Azkenik, beste hausnarketa bat jaso dugu, eta planteatzen du familien zailtasun ekonomikoek nolako eragin zuzena izan dezaketen etorkizunean euren seme-alaben hezkuntza-garapenean; izan ere, egungo sistema euren hezkuntzan egiten den gastuan oinarritzen da, laneko etorkizun duina bermatzeko. Adierazle horrek markatuko ditu familien arteko desberdintasunak, eta ez atzerriko jatorriak.

“Nire ustez, askoz ere eragin handiagoa du gurasoek duten maila sozioekonomikoak, bertokoenak eta atzerriarrenak, prestakuntza jasotzen jarraitzean. Esan nahi dudana da, zuk orain gradu bat amaitzen duzu eta graduarekin da eskola-graduatua emango balizute bezala; ez zoaz inora, master bat egin behar duzu, eta masterrak diru asko balio du. Kanpora irten behar duzu, eta horrek dirua balio du. Beraz, imajinatzen dut hor desberdintasunak markatuko direla eta imajinatzen dut etorkin batzuek eta euren gurasoak... Hobeto ibili diren etorkinen seme-alaba batzuek lortu dute aurrera egitea eta euren semeari edo alabari ikasketa gehiago ordaintzea, eta bertoko beste batzuek ezin izango dute egin... Eta horrek bai, horrek desberdintasun gehiago markatzen ditu, jendearen jatorriak baino”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Hezkuntza maila, errendimendua, porrota eta eskola uztea

Elkarrizketatutako irakasleek jasotako hezkuntza maila aldatu egiten da, euren irakaskuntza-esperientzien arabera. Ezin dugu baieztatu zuzeneko harreman bat dagoenik atzerriko jatorriaren eta beheagoko maila akademikoaren artean. Baina badago harreman hori argudiatzen duenik.

“Kasuistika handia dago”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Maila akademikoan, izan ditudan herritarren artean emaitza akademikoak ez dira izan bertoko herritarren emaitzak baino baxuagoak, beraz, esan bezala, nire irakasgaietan denetarik izan dut, jende erdipurdikoa, txarra, oso ona... Ez dira nabarmenak ez oso onak izateagatik, ez oso txarrak izateagatik. Ez dut uste jatorria faktore determinatzailea denik nota hobeak ala txarragoak ateratzeko nire irakasgaietan”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza).

“Nik ikusten dudana da, esaterako, dominikar erkidegoan umeek, normalean, atzerapena izan ohi dutela; bertako eskola-sistema negargarria omen da. Alde itzela dago...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

“Akademikoki, pixka bat atzetik doaz. Kasu batzuetan ez, oso ongi doaz, baina lozten dituzten arazoak dituzte: hizkuntza, kultura, besteak beste”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

Ez dute zentroek erabakitzen zer mailatan sartu behar diren heldu berri diren ikasleak, baizik eta Ordezkaritzak. Gero, ikasleek lehen maila egin dutenean, erabakitzen da maila errepikatu behar ote duten, mailara egokitu diren ala ez.

“Mailetan daukaten adinaren arabera sartzen dira. Ordezkaritzak diotsu zer mailatan sartu behar diren. Esleitzen zaion mailan egon ezin dela uste bada, hurrengo urtean maila errepikatzen du, ezin duelako maila gainditu dauzkan ezagutzekin. Ez dakiguna da maila errepikatuz gero ere moldatuko ote den; zerbait falta duela ematen du...”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Nahiz eta uste den euren jatorrizko herrialdeetatik euskal eskola-sisteman eskatzen den maila baino baxuagoa dakartela, elkarrizketatutako irakasleen balorazioa da gaitasun nahiko dutela eskola-ikasturteari zailtasun handirik gabe aurre egiteko.

“Bai, nabaritu egiten da. Normalean, maila pixka bat baxuagoa izaten dute. Baina eurengandik nahi duzuna eta gehiago atera dezakezu. Izan ere, leku guztietan bezala, zu eskatzen zoaz, eta egia da lasaiagoak direla; ez dira estresatzen gu bezain erraz, oro har. Orduan, gutxiegi kalifikazioa eskuratzen dute eta, beno... ez dira hainbeste agobiatzen”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Baina, bestela, dauzkaten gaitasunak ikustean konturatzen zara oso baliozkoak direla. Orduan saiatzen zara eman dezaketena eskatzen. Sarritan esaten dute euren herrialdeetan hau eta beste egiten dutela, eta esaten diezu: bai, baina orain hemen zaude, eta nik badakit gehiago egin dezakezula”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Zehazki, Haur Hezkuntzako irakasleek ikasle etorkinak ikasgelara heltzean duen jarrera positiboa nabarmentzen dute, nola erantzuten dieten egiten diren jardueri eta eskuragarri dauden materialei. Ikasteko motibatuta datoz.

“Eta beste gauza bat ere ikusi dut, eta gure artean hitz egin dugu: Haur Hezkuntzan ikasteko gogo itzela dakarte! Jakina, beharbada ez dakizu zein egoeratan bizi izan diren aurretik, eta hemen estimulazio ugari edo euren arreta erakartzen duen material asko ikusten dute: jostailuak, plastilina... kanpotik etorri direnean”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Elkarrizketatu batzuentzat, eskola-ibilbideak bertoko ikasleen ibilbidearen antzekoak dira, eta ez da uste atzeritarra izatea eskola-porroterako baldintzatzaile denik, kontrakoa baizik: jarrai dezakete goi-mailako ikasketekin hala nahi badute, horretarako gaitasunak badituztelako.

“Bada, kontua da esaten ari naizela bi ikasle horiek bigarren mailara igaroko direla, orain ikusten ari garela hasieratik ari direla oso ongi lanean, eta euren bilakaera oso positiboa da. Eta orain ikusten ari gara mutikoak gero eta tresna gehiago dituela irakasgaietan hobeto moldatzeko”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Daukadan esperientzia kontuan hartuta, bere mailan (bertokoak baino gutxiago dira), baina jarraitzen dituzten ibilbideak bertokoen oso antzekoak dira; alegia, nik neskato marokoar batzuk ditut klasean, eta batxilergoa amaitu dute eta karreraren bat egingo dute. Indartzeko programan hiru ditut; Latinoamerikakoak dira, eta LH egingo dute. Beraz, ez dakit; uste dut jatorriaren arabera barik, bakoitzaren gaitasun pertsonalaren arabera dela, eta eskaintzen zaizkien aukerak berak dira; batzuei ez zaie gomendatzen LH egiteko atzeritarrak direlako eta karrera bat ezingo dutelako egin, ezta pentsatu ere. Nire ustez, integrazioa oso ona da; herri honetan behintzat oso ona da”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“

“Esaterako, bat Guinea Bissautik 5 urterekin etorri zen; hona heldu eta poz-pozik dago. Saharako beste bat ere pozarren dago, eta ikasteko alde aurretiko jarrera oso ona du; hirugarrenekoa Dominikar Errepublikakoa zen, eta, berdin, pozarren zegoen”
(Publikoa, Haur Hezkuntza)

”

Hala ere, Bigarren Hezkuntzako irakasle batzuek nolabaiteko aldeak ikusten dituzte bertoko ikasleen aldean. Alde batetik, Lehen Hezkuntzatik Bigarreneira matrikulazioetan beherakada dago; bestalde, aldeak nabarmenak dira erakusten duten eskola-errendimenduagatik barik, euren hezkuntza-etorkizunean eta prestakuntza-bidearen aukeraketan eragiten duen hezkuntza maila baxuagoagatik.

“Batxilergora heltzen direnean, etorkinei kostatzen zaie ikasketak aurrera ateratzea... bertoko ikasleei baino gehiago; zailtasun handiagoak dituztela ikusten ari gara; izan ere, oinarri gutxiago dakarte, eta, horren ondorioz, mailak ez daude parekatuta. Ikusten dugu DBHko 1. mailara etorri den jendeak maila baxuagoa duela. Denetarik dago; gero, beste batzuek ahalegin berezia egiten dute eta oso gaituak dira. Baina, beno, oro har, pixka bat baxutxoagoa da. Beraz, egiten doaz eta DBHko 4. mailara iristean, ez dute erabakitzen goi-mailako karrera bat egitea, ez doaz batxilergo egitera. Ziklo bat edo antzekoa egitea erabakitzen dute; bada, nabari da, bai”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Gehienek ez dute hemen egiten batxilergo; ikasgela bakoitzean hamabitik hiruk egiten dute”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Eskolatzeko-adina euskal sisteman elkarrizketatutako pertsona batzuentzat hezkuntza-errendimendu egokiaren adierazle da; izan ere, sartzeko goiztiarra emaitza hobeekin lotzen dute, bai eta ikastetxera egokitzearekin ere, irakasleek nahiago duten bezala.

“Ez, uste dut ezetz. Txikitatik hasi direnak hemen... Baditugu familia batzuk, ume magrebtar txikiekin hemen, eta oso umeak oso azkarrak dira. Zenbait ikasle datozkit burura; ni txundituta uzten naute gaztelania eta euskara hitz egiteko duten moduarekin, ingelesarekin nola moldatzen diren...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Normalean latinoamerikarrak datoz gehiago; hemen dugun esperientzia hori da. Egia da, halaber, izan ditugunak nagusiago direla etorri direla, 15-16 urterekin. Ez dakit adinagatik den, baina arduragabe jokatzen dute. Eta horiek ez datoz txikiago; orduan zu pixkanaka moldatzen zoaz, zeure gustura”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Halaber, harremana sortzen da familiek izan ditzaketen arazo ekonomikoen eta ikasketen inguruko zailtasunen artean. Ikastetxeak eta ikasle horien irakasle arduradunek egin beharreko ahaleginak handiagoa izan behar du; izan ere, familia-egoera konplexuak izaten dituzte, eta horiek ez diote laguntzen eskolako gaien garapenari.

“Nabaria da zailtasun ekonomikoak dituzten familiak bat etorri ohi direla esatean umeez zailtasun handiagoak dituztela ikasketetan. Horrelako zenbat eta familia gehiago izan, orduan eta handiagoa da ikastetxearen ahalegina; nik uste dut ikusten dugunean umeez eskola honetan duten arrakasta poztu egiten garela, baina, hala ere, porrota ere badago, ume batzuk oso egoera latzetan bizi direlako”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Derrigorrezko ikasketak amaitu ondoren, hezkuntza ez-formalaren eremutik esan digute kasu batzuetan ikusi dutela euren eskola-ibilbidearen amaiera modulu bat izan dela eta, oraingoz, ez dagoela eurentzat lan-irteerarik.

“Hona bisitan datozen gehienek, 18 urtetik gorakoek, hemen ezer egin gabe daudenek, zera esaten dizute: erizaintzako laguntzaile-praktikak egin nituen eta orain gurasoen etxean nago”. (Hezkuntza ez-formala)

Horren harira, atzerriko ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren dauzkaten xede baxuak ere aipatzen dira. Irakasleengan nolabaiteko frustrazioa eragiten du horrek; izan ere, euren ustez, gaitasunak dituzte euren ikasketekin jarraitzeko.

“Ez zaie eskatu behar medikuak edo ingeniariak izateko, baina bai ez daitezela horretan bakarrik geratu. Bai, izan ere, DBHra hel daitezke eta amai dezakete, baina, horrela, gutxieneko titulazioa dute; nire ustez, gehiago egin daiteke, xede gutxi dituztela ikusten dut, euren burua gutxiesten dutela”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Azkenik, irakasleek eskola-uztea nola ikusten duten aztertu dugu. Horren harira ikusten dugu Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienek ez dutela euren ikasleen artean eskola-uztea aurreikusten, horretarako gazteegiak baitira. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek euren ikasgeletan bizi duten espe-rientziak erakutsitako iritzia dute.

“Hemen ez dago ezer”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Lehen hezkuntzan ez”. (Itundua, Lehen Hezkuntza).

“Nire ustez, badago”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Normalean amaitu egiten dute (DBH barne)”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Euskal hezkuntza-sisteman eskola-uztearen ehuneko handia nabari da, ikasleen jatorri nazionala aipatu gabe. Hala ere, eskola-uztea sarriago nabari da ikasle atzerritarren artean. Uste da familia-laguntzarik eza, dela giza laguntza eguneroko ikasketetan, dela laguntza ekonomiko aurrera ateratzeko zailtasunak dituzten irakasgaiei buruzko eskolaz kanpoko jardueretarako, faktore garrantzitsua dela eta ikasketen errendimendu handiagoa ala txikiagoa baldintzatzen duela eta, beraz, horiek abandonatzeko aukera ere baldintzatzen duela.

“Nire ustez eskola-uzte ugari dago. Eta eskola-uztea are handiagoa da biztanle etorkinen artean. Arrazoa? Bada, irteten dira, porrot egin ondoren, erdi mailako modulu bat egin dutelako, ezin izan dutelako batxilergoa atera... Beno, ume horiek, bertoko ume bat etxera dator eta beharbada ez dute behar, baina matematikarekin zailtasunak dituela ikusten baduzu, irakaslea jartzen diozu laguntzeko, edo

nik neuk ikasten dut, ama naizen aldetik. Jende horrek ez du dirurik hori egin ahal izateko; nire klaseko umeak eskolaz kanpoko jardueretara doaz eguerdian; nire klasetik bi doaz eta aurreko ikasgelatik 20. Beraz, laguntza horrekin... dirua... beraz... Bada, ume horiek, gutxiegi ugari eduki ondoren..." (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Bigarren Hezkuntzako irakasleen iritzietan daude, batu dugunaren arabera, batetik uste dutenak ikasle atzeritarrek eskola-uztearen tasa handiagoa dutela (dela familia-giroa ezegonkorragoa delako, dela ikasleek eta euren familiek motibazio gutxiago dutelako, dela egoera sozioekonomiko ezegonkorra bizi dutelako), eta bestalde uste dutenak faktore horiek modu berean eragin dezaketela bertoko ikasleengan.

"Askok uste dugu familia desegituratuak direla; esaterako, amona batekin bizi direnak, edo izeba batekin, gurasoak bertan geratu direlako; askotan amonak bertoko amak baino gazteagoak dira ia, oso gazteak dira, baina, hala ere, amonak dira. Beraz, exijentzia maila ere bestelakoa da; esaten dizute bere aitak eta amak ez dakiela zer iritzi izango duten, eurek ez dutela euren burua ikusten agintaritzan nahikorekin, nahiz eta eurek hazi euren lobak". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Nik ikusten dudana da eskola uzten dutela; normalizatuagoa da euren artean; euren gurasoek egin ez dutenez, eurek ere ez, edo gurasoek esaten diete DBH egiteko eta gero gerokoak. Ez dute beharbada geuk dugun exijentzia maila". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Kasu bakoitza desberdina da. Oro har, ez du zertan, eta ez dago hemen baino eskola-uzte gehiago. Guk orain hemen eskola-uzte kasuren bat dugu, edo bertokoa den eta Lehen Hezkuntza hemen egin duen ikasleren baten absentismo handiko kasuren bat". (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

"Kasu batzuk daude, baina uste dut kasu horiek batez ere euren egoerekin dutela zerikusia, eta ez hainbeste euren jatorriarekin. Ikasle batzuek ederki amaitu dute, are gehiago, esango nuke gehienek ibilbidea ikastetxean normaltasunez amaitu dutela". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Nire ustez, atzeritarra izatea ez da arazoa; bestelako kontuak daude. Izan ere, egoera horiek arazo berak dituzten bertoko beste batzuegan ere badute eragina; besteak beste, ikasteko motibazio gutxiko jendea, normalean etxean segimendu eskasa dutenena, ez euren erruagatik, baizik eta bizitzen ari diren errealitateagatik, familia bananduak direlako eta aitak edo amak hartzen dutelako familia euren gain... Horrek ondorioak ditu". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Jakina, gertatzen dena da batzuetan ikasle batzuk kanpotik datozela, oso eskolatze baxuarekin. Beraz, horrek hemen jarraitzen du, absentismo handiarekin, baina kasu isolatuak dira. Batzuetan, eurek ere kontaktzen dizute euren jatorrizko herrialdeetan hezkuntza ordaindu behar dela, gurasoek ezin dutela nahikoa ordaindu eta, beharbada, astean bi aldiz baino ez zirela joaten eskolara; eta hori guztia kontu ekonomikoagatik zen, edo lan egin behar zutelako, edo etxean edo familian lagundu behar zutelako. Horiek horrela, jakina, kasu batzuetan bai, horrela datoz eta mailak oso baxuak dira; neska-mutil horien kasuan, logikoa da... Euren ibilbidea da lanbide-heziketa egitea, erdi mailako gradu bat egitea, eta eurentzat lorpen handia da". (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Bigarren Hezkuntzako irakasleen iritzietan daude, batetik uste dutenak ikasle atzeritarrek eskola-uztearen tasa handiagoa dutela, eta bestalde uste dutenak faktore horiek modu berean eragin dezaketela bertoko ikasleengan.

“Ez kanpotik datozelako, baizik eta oso egoera bereziak bizi dituztelako, eta, jakina, azkenean amaitu dute erdi mailako heziketa-zikloa egiten, ez unibertsitatekoa zehazki, baina jarraitu dute ikasten. Nik ez dut uste horretan loturarik dagoenik (eskola-uztea eta immigrazioa)”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Laburpena

Euskal ikastetxeetara atzerriko ikasleak heldu izana hezkuntza-prozesuan inplikaturik dauden alderdi guztiek ezagutzen duten errealitatea da. Atzera begiraturik gero, gogora ekartzen dira beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleak nabarmenagoak zireneko lehen urteak, bai kopuruari dagokionez, bai irakasleek hezteko modu berrien aurrean egin beharreko bat-bateko eta berehalako egokitzapenari dagokionez. Kultura-aniztasuna bat-batean ezarri zen ikastetxean, matrikulazioek gora zihoazen neurrian, eta horrek antsietatea eta egoenezina eragin zuen pertsona horien hezkuntzaren arduradunengan. Hala ere, urteek aurrera egin ahala, estutasun mailak behera egin du, eta baretasuna finkatu da, beharbada konformismoz mozorrotuta, nolabait. Ukaezina da matrikulatutako ikasle atzerritarren ehuneko handiagoak ala txikiagoak eragina duela ikastetxeen hezkuntza-kudeaketan eta horietako irakasleen gogoaldiran. Ikastetxe itunduek jatorriz atzerritarrak diren ikasleen kopuruaren gorakadan ikusten dute bertoko biztanleen jaiotza-indizeetan dagoen beherakadaren irtenbidea eta, beraz, errendimendu osoari eusteko aukera.

Atzerriko ikasleen matrikulazioek ikastetxe batzuk eraldatu dituzte; izan ere, horietan nabarmenago egin da euren presentzia. Ikasle horien kopurua aldatu egiten da ikastetxe motaren arabera, kokapenaren, hizkuntza- eta hezkuntza-eskaintzaren eta kostuaren arabera. Jatorriz atzerritarrak diren familien arteko zailtasun ekonomikoak nabarmenagoak dira, eta, ikastetxea aukeratzean, sarritan horretan oinarritzen dira. Derrigorrezko hezkuntzan edozein adingaberen matrikulazioan ikastetxeek duten erantzukizuna eskatzea konpromiso-zeinua da, eta ikastetxe batzuek filosofia horri eusten diote. Administrazioaren zeregin eskolatze-komisioen bidez bideratzen da; komisio horiek, duela ez urte asko, hasi ziren kudeatzen, ikastetxeetako arduradun batzuek eskatuta (beste eragile batzuen artean), iritsi berri ziren ikasleen matrikulazioak, eta egun ere hala jarraitzen dute. Hori dela eta, banaketa zuzenagoa ari da izaten, baina, eskola-ikasturtea amaituta, familiek erabaki dezakete, eta hala gertatu ohi da, ikastetxez aldatzea euren seme-alabak. Euskadin jaio diren baina jatorriz atzerritarrak diren ikasleak direla eta, horien bolumena egun arte ez da nabarmentzekoa, baina, hala ere, bizi duten kultura-aniztasunaren ondorio da. Hezitzaile batzuen ikuspuntutik, ez dira definitzen eta ez zaie begiratzen beste herrialde batean jaio diren eta Euskadira iritsi diren ikasle etorkin gisa. Krisi ekonomikoak hainbat motatako eraginak izan ditu euskal eskola-sistemaren matrikulazioetan. Euskadin ez dago joera garbirik ikasle atzerritarren kopuruari dagokionez, eta, horrela, identifikatu egiten dira jatorrizko herrialdeetara eginiko itzulerak, epez kanpoko matrikulazioen beherakada, baina ez matrikulazioen murrizketa orokorra; ikastetxe batzuetan, gainera, gorakada identifikatu da.

Ikastetxeek epez kanpoko matrikulazioei frustrazioz egiten diete aurre; izan ere, ikasturtean zehar kudeatu beharreko kopurua ez dute ezagutzen, irakasgaiak

etengabe egokitzen ibili behar dute eta ikasgelaren erritmora egokitu beharra dago. Beraz, ez da uste beharrezkoa denik hezkuntza-sisteman sartzea ikasturtea oso aurreratuta badago; izan ere, kaltegarria izan daiteke bai irakasleentzat, bai ikasleentzat eurentzat. Hala ere, ez dugu ahaztu behar eskolatzea eskubide bat dela eta Hezkuntza Saila dela hura baliatzeko bermatzailea.

Kultura-aniztasuna eta haren kudeaketa oro har ikasgeletan ikasle etorkinak dituzten irakasleentzako laguntzaren eta horretarako sortutako irudien beharrek in lotzen da, ez eskola-curriculumaren gai berezi gisa; alegatzen da gatazka handirik gabeko ikastetxeak direnez, ustez ez dela beharrezkoa gai hori lantzea. Irudietako bat animatzaile soziokulturalarena da; figura horrek kultura-aniztasunarekin lotutako zeregin guztiak betetzen ditu, eta gauzatzen dituen zeregin guztiek gaingaitu egiten dute sarritan. Irakasle guztiek ez dute begi onez ikusten horien presentzia; izan ere, sentitzen dute euren irakaskuntzailana areagotu egingo dela, eta beti ez daude horretarako prest.

Ikasle batzuek ikastetxeetan *hiyaba* erabiltzeak eztabaida eragiten du irakasle eta familien artean, bai bertokoen, bai atzerritarren artean. Nahiz eta ikastetxe batzuetan erabakitzen duten askatasuna ematea hura erabiltzeko, erlijio eta kulturen errespetuan oinarrituta, horrek errezeloa eta konfiantzarik eza eragiten du. Bestalde, nolabaiteko jarrera asimilazionista nabari da ikasleei gainerako ikaskideen parteko izateko *hiyaba* kentzeko gomendioa ematen dieten ikastetxeetan. Mahai gainean eztabaida hori egonik, ikasgeletan *hiyabaren* erabilera kudeatzeak ez du eztabaida handirik eragiten, eta ikastetxe gehienek ez dute gatazka nabarmen gisa hartzen. Bizikidetzeta eta denboraren iragatea aipatzen dituzte eskola-elkarteko kideen arteko harremanak normalizatzeko. Ikastetxe itundu katolikoek, bestalde, beste erlijio-sinesmen batzuk dituzten ikasleak onartzeko jarrera erakusten dute, baina seme-alabek erlijio katolikoaren irakasgaia ikasterik nahi ez duten familientzako alternatiba edo egokitzen batzuk gogoan hartzen badituzte ere, uste dute ikastetxeko erlijio-ideiekin kontsekuenteak izan behar dutela eta bertan ezartzen diren arauak onartu behar dituztela.

Oro har, jatorri atzerritarra duten familien ahultasun sozioekonomiko handiagoa nabari da bertokoen aldean. Desberdintasun horiek ikasturtean zehar daudden eskola-gastuei aurre egiteko zailtasunetan ikusten da, bai eta eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko ezintasunean ere. Ikastetxeak saiateren dira beste erraztasun batzuk ematen estutasun ekonomikoak bizi dituzten familiei. Esaterako, hezitzaileek diote nerabezaroa konplikatu dela, eta are konplikatuagoa familian estutasun ekonomikoak bizi badituzte. Hala ere, kasu batzuetan pertsona horiek euren etxetan dagoen egoera ekonomikoari ez dagozkion ondasun material batzuk gozatzen dituzte. Arrazoiak zenbait izan daitezke, dela gurasoek seme-alaben gainean duten erru-sentimenduagatik, gogobetetzen ez zituzten migrazio-proiektu bat dela eta, dela eurek gogobetetzen saiateragatik, besteak beste. Zailtasun ekonomikoek ikasleen etorkizunean

izan dezakete eragina, ikasle horiek bertokoak zein atzerritarrak izan; izan ere, egungo hezkuntza-sistema lan-etorkizun duina bermatzeko euren hezkuntzan egiten den inbertsio ekonomikoan oinarritzen da.

Ikasle atzerritarren hezkuntza maila ikasturte bakoitzean ezartzen diren eskakizunetatik beherago dagoela uste da; hala ere, uste dute nahikoa gaitasun dutela eskatzen zaizkien edukiei erantzuteko. Eskolatzeko-adina erabakigarria da, hezkuntza-errendimendu positiboaren adierazle gisa, bai eta eskola-porrot handiagoko edo gutxiagoko indizeetan ere. Ikasle etorkinen hezkuntza mailan dauden aldeak bertokoekin parekatuta, batez ere Bigarren Hezkuntzan nabari dira, bai eta derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren aukeratutako ibilbideetan ere; izan ere, atzerritarren xedeak apalagoak dira hor. Bestalde, nolabaiteko harremana nabari da familien zailtasun ekonomikoen eta euren seme-alaben errendimendu akademikoaren artean. Azkenik, eskola-uztea ez da bakarrik ikasle etorkinen bereizgarri, baina uste da kolektibo horretan usuago gertatu ohi dela. Hura eragiten duten faktoreak dira jarraipenik eza eta familia-laguntzarik eza; alegia, giza laguntza eta laguntza ekonomikoa, besteak beste, eskolaz kanpoko indartzea, familia-ingurune ezegonkorra, eta ikasle eta familien motibazio txikiagoa.

2

Ikasgela eta kudeaketa

Ikasgelan gauzatzen da irakaskuntza-ikaskuntza formalaren prozesua, eta espazio horretan ez dira kontuan hartzen ez kideen hezkuntza maila, ez horietako bakoitzari transmititutako ezagutzak. Hor ere nahasi egiten dira ikasleen arteko harremanak, eta ikasleen eta irakasleen artekoak, bizi izandako balioak eta partekatutakoak, besteak beste. Baina, jarraian ikusiko dugunez, ez ditugu aztertuko pertsonen inguruko eta ikasgelako interrelazioen inguruko hautemateak; batetik, ikasgelan ematen diren irakasgaiekin lotutako alderdiak eta horiek kulturalki anitza den ikasleriara nola egokitzen diren aztertuko ditugu, eta, bestalde, euskararen inguruko iritziak eta ikasgelan kudeatzeko kasuistika jasoko ditugu.

Ikastetxeetako ikasle etorkinen bolumena desberdina da, irizpide jakin batzuen arabera; besteak beste, ikastetxearen titulartasunaren, eskainitako hizkuntza-ereduen edo kokapenaren arabera. Baina desberdintasunak ikastetxe beraren barruan ere ikus daitezke. Horrek, kasu honetan hizkuntza-ereduen desberdintasunak bultzatzen duenak, oztopoak eragiten ditu ikasle etorkinen eta bertokoen artean.

“Korridoretik zoazela, aurreko taldera joan eta badirudi beste herrialde batean zaudela; ezin duzu imajinatu nolako aldea dagoen. Aurreko ikasgelan, D ereduan, guztiak dira bertokoak, beno, atzerritarren bat dago, marokoar bat, baina beste kontzientzia bat du honen guztiaren gainean. (...) Beraz, badirudi herrialdea aldatu duzula...” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Ikastetxeetako ikasle etorkinen bolumena desberdina da, irizpide jakin batzuen arabera; besteak beste, ikastetxearen titulartasunaren, eskainitako hizkuntza-ereduen edo kokapenaren arabera. Baina desberdintasunak ikastetxe beraren barruan ere ikus daitezke.

Irakasgaiak - Programak

Irakasleek euren ikasleei hezkuntza-erantzuna eman behar diete, eta, aurretik esan bezala, erantzun hori ez da homogenea izaten. Hezkuntza-sistemaren etapan arabera, irakaslearen zeregina bideratuko da metodologia eraginkorrek programatzera bere ikasleentzat, eta bere ikasleen hezkuntza-prozesuaren onerako eta heldu berri diren ikasleak hobeto integratzeko edukia programatzera. Inguruneko gizarte-, ekonomia- eta politika-errealitatearen elementuak erabiltzea irakasleek ikasgelan baliatzen dituzten tresnak dira.

“Ikastarotxo bat egin genuen, eta ikasgelan landu daitezkeen jokoak idatzi ditugu, batetik, erraz integratzeko, eta, bestalde, gainerakoek ere heldu berri denarekiko enpatia sentitzeko, heldu berri dena kanpokoan izan edo beste ikastetxe batekoa; izan ere, baliteke Iruñetik etortzea. Eta, beno, zenbait jarduera idatzi ditugu, tutoretza-orduetan egiteko eta, halaber, euren artean harremana egoteko; taldeko beste kohesio-hurbilketa bat, konfiantza lantzeko”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Eta gelan dauden errealitateetatik abiatuta, berdin dit zein diren. Berdin dit matematika edo zientziak, hauteskunde batzuk izan dituzu; bada, hauteskundeez hitz egin eta bakoitzaren lurraldean zer dagoen, monarkia ote dagoen, ez...”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Baina, hezkuntza-etapetan aurrera eginez gero, gero eta zailtasun handiagoak egoten dira ikasleen beharrezan erantzuteko. Hainbat irakasgaitako indartzeak ageri dira, eta horrek dakar kasu batzuetan ikasleak banatu behar direla. Euskararen gai berezian sartu gabe, jarraian analisi berezia eskainiko baitiogu, bereizketa hori beti ez da erraza. Ikasleek ikasteko zailtasunak dituzten ikasle-taldeetan tamaina dela eta, taldeak ez du handiegia izan behar. Nahiz eta banako arreta utopia den, taldeak nahiko murriztuak izatea behintzat, kalitatezko arreta emateko.

“Izan ere, ikastetxea, logikoa den bezala, egokitu eta antolatu egiten da, beharrian horiei guztiei hezkuntza aldetiko erantzuna emateko. Guk, esaterako, 1. eta 2. mailan, batik bat, indartze ugari eta bizkoizketa-gela ugari ditugu ikasle mota horientzat. Bizkoizketa-gelak eta HIPI errefortzuak eta hainbat irakasgaitako irakasleekin; ikastetxe honek erabaki du horrela lan egitea; izan ere, batzuetan bi irakasle ere sartzen dira ikasgela berean; batek taldean lan egiten duen bitartean, besteak talde txikian lan egiten du, beharrian gehiago dituztenekin; alegia, dauzkagun baliabide asko, orduak, 1. eta 2. mailari eskaintzen dizkiogu, jende horrekin guztiarekin lan egin ahal izateko”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Jakina, taldekatu dezakezu jendea eta, gutxi gorabehera, askotariko taldeak egin, baina puntu jakin bateraino. Izan ere... konplikatu da. Eta badaude dibertsifikazio-taldeak; bertan, etorkinak ez ezik, bertoko jendea ere sar daiteke, baina hor gehiago kopuru bat dago, 15 pertsonakoa. Ikasteko arazoak dituen jendeaz hitz egiten ari gara. Eta komeniko litzaiokeela diozu? Bada, komeniko litzaioke ni egotea eurekin eguneko ordu guztietan, banan-banan, baina hori ezinezkoa da. Eta bakoitzak bere istorioa du, baina ikasgela batean arazoak dituzten guztiak, arazo desberdinak dituztenak, sartzen ditugu. Hori da aniztasuna tratatzea? Nolabait bazarrik. Horiek guztiak batzen dituzu eta saiatzen zara eskolak beste erritmo batera

ematen, baina, hala ere, zerbait indibidualizatuagoa beharko lukete, baina hori ezinezkoa da". (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Bestalde, administrazioak ezarritako edukiak ez dira beti hezkuntza-premietara egokitzen, kultura-aniztasunari dagokionez. Beharbada, ikasgelan dauden ikasleen ezaugarrien arabera ikastetxeen aldetik egokitzeko aukera jasotzen ez duten ikasgai ez-berriztuak ditugu aurrez aurre. Eta gauza bera gertatzen da diagnostiko-probekin; horietan, ikastetxe guztientzako baterako irizpideak batzen dituzte, eta horrek batzuk kaltetu egiten ditu eta beste batzuei mesede egiten die.

"Ez du zentzurik 6. mailara arte Europa lantzen egotea eta gero mundua lantzea. Ez, mundua hemen dago, mundua hemen ordenagailuan dugu, ez du zentzurik tokikoa hainbeste enfatizatzeko, gainera zentzu honetan; alegia: nik abeltzaintza eta baserriko animaliak ezagutzen ditut, eta ez ditut ezagutzen parkean dauden landareak. Ez, parkera goaz eta hurrengo batean beste leku batera joango gara". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Ni kezkatuta nago, baina programak nola dauden kezkatzen nau. Orain, LOMCE dela eta, LOMCE irakurtzen dugu, baina gero diozu: nora heldu nahi dugu guk kontu hauek guztiak erakutsiz mundu global honetan, kontuan hartuta ume batzuentzat askoz ere hurbilagoa dela udan egiten duten bidaiak eta euren inguru-neaz hitz egitea. Bat ere ez dator ondo, ez dugu baserriarrik hemen". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Orain diagnostiko-probak egin behar dituzte; ea zer ateratzen duten, negargarria izango baita. Ni pozarren nago ikus ditzaten, Eusko Jaurlaritza da horrelakoak egin nahi dituenak. Gainera, zenbakiak ikusteko egiten dute...". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Azkenik, gero ikasgelan zer irakasgairekin lan egingo den programatzeko eta planifikatzeko dagoen denborarik eza da ikasleen arteko kultura-aniztasunaz eta eurekin eginiko lanaz hitz egitean aipatzen den arrazoietakoa bat. Ideiarik ez da falta, baina bai denbora ikastorduetan, ikasgelan kontu desberdinak egin ahal izateko.

"Esaterako, taldeko kohesioa landuko dugu pixka bat, etorri diren azken horien gainean pentsatuz, edo konfiantza... Eta, beno, egia esan jarduera batzuetan ondo pasa dezakete eta ez da horren zaila. Ideiak badituzte umeekin lan egiten duten irakasleek, baina, gero, egunerokotasunean, zuk zeure ikasgela duzu, eta zeure umeak eta zeure programa. Eta ni ordenagailuaren aurrean eseri eta lan egiteko jarduerak esaten ditut... Baina, horretarako, denbora falta da eta, jakina, aurten lanaldi erdia izan dugunez, bada... dokumentazioa prestatzen eman dut denbora... materiala... hori bertan geratzeko, irakasleei erakusteko eta, horrela, nondik jo jakiteko. Izan ere, sarritan izaten da eseri eta zer egingo dut... Horretarako denbora behar da. Horrela izaten da; ez dut egin beste irakasle batek egin ezin zezakeenik, baina horretan eman dut denbora. Idealena izango litzateke irakasle guztiek egin ahal izatea euren orduen barruan". (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Ideiarik ez da falta, baina bai denbora ikastorduetan, ikasgelan kontu desberdinak egin ahal izateko.

Hizkuntza

Euskadin, 2014-2015 ikasturtean, Haur eta Lehen Hezkuntzan, ikasleen % 71 D ereduan zegoen matrikulatuta; % 24 B ereduan; eta % 5 bakarrik A ereduan. Bigarren mailako hezkuntza dela eta, ehunekoak aldatu egiten dira pixka bat, eta gehiago dira A ereduan matrikulatutako ikasleak (% 10), antzekoa B ereduan (% 26) eta pixka bat baxuagoa D ereduan (% 63). Duela bost urteko datuak begiratu gero, ikusten dugu D eta B hizkuntza-ereduek presentzia baxuagoa zutela ikasleen artean. Horrenbestez, ikasketak euskaraz egiteko aukera gero eta handiagoa da urteek aurrera egin ahala, bai bertoko biztanleen artean, bai atzerritarren artean.

Baina euskararen irakaskuntza eta ikasgela barruan duen kudeaketa zaila da irakasle batzuentzat, atzerriko ikasleez ari garenean. Nahiz eta beheko mailetarako gehiengoaren aukera B eta D ereduan matrikulatzea den, lehen

Euskararen irakaskuntza eta ikasgela barruan duen kudeaketa zaila da irakasle batzuentzat, atzerriko ikasleez ari garenean.

mailetan zailtasun gutxirekin, Bigarren Hezkuntzaz ari garenean oztopoak handiagoak dira. Jarraian jasotako irakasle elkarrizketatuen iruzkinek erakusten diguten errealitatean, arrakasta, ikusiko dugunez, hainbat faktoreren araberakoa da.

Elkarrizketatutako ia irakasle guztiak datoz B eta/edo D ereduak dituzten ikastetxeetatik. Atzerriko familiek ez dute sarritan euskal hezkuntza-sistemak eskaintzen dituen eredu berri, eta beharbada hainbat faktore tarteko aukeratzen dute; besteak beste, euren seme-alabentzat zailtasun maila txikiagoa eragingo duena.

“Beraz, heltzen dira, ez dute lanik, bizitza aurrera atera behar dute, eta zera azaltzen diote: hara, A hau da, B beste hau eta D hau. Bada, nahiko da B ereduan sartu dutela. Beno, ez zuen beste aukerarik, A hemen desagertu egin baita”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Adina elementu erabakigarria da, jatorrizkoak ez diren hizkuntzak ulertzeko bizkortasun handiagoa ala txikiagoa izateari dagokionez. Horrela, zenbat eta handiagoa den hizkuntza ezezagun batean eskolatzeko adina, orduan eta denbora gehiago beharko da horretara egokitzeko, bai eta irakasleen arreta handiagoa ere; izan ere, Bigarren Hezkuntzako edukiak askoz ere konplexuagoak dira. Horrekin batera, hizkuntzan dituzten gabeziak direla-eta artatu beharreko ikasleen bolumena kontuan hartzen badugu, kudeaketa are konplexuagoa da.

“Haur-hezkuntzan ez, baina zenbat eta nagusiagoa izan (sic), orduan eta konplikatuagoa; izan ere, zu eskolak euskaraz ematen ari zara eta guztiok dakigu klaseak oso indibidualizatua izan behar duela, baina 25 dituzunean denbora luze ematen duzu orokorrean hitz egiten”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Jakina, neskato hori batxilergora laguntzarik gabe joango da, baina gu laguntzen aritu gara. Zalantzan dago: A eredura joango da, eta A ereduaren barruan, bada...”

hortxe-hortxe ibiliko da. Gure esperientzia da A eredura joatea eta gutxi gorabehera urteotan lortu duen mailarekin joanda moldatuko dela, baina ez da hori kasu guztietan gertatzen". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ikastetxe bakoitzak modu batean jarduten du, hizkuntza-indartzea behar duten ikasle etorkinak artatzean. Aukerak aurretik aipatutakoarekin daude lotuta, hau da, zenbat eta gazteago eskolatu ikaslea, orduan eta erraztasun handiagoa izango du ikasgelaren ohiko erritmora egokitzeko. Bestalde, laguntza behar duten ikasleen bolumenak ikasgelatik atera eta espazio berean banaka arreta eskaini behar izatea dakar batzuetan. Nahiz eta ahalegina egin euren ikasgelaren barruan laguntzeko, beti ez daude arreta hori eskaintzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak. Haur Hezkuntzaren kasu zehatzean, ikasle guztiekin lan egiten da, konplikazio handirik gabe.

"Beraz... lehen bi irakasle geunden, eta, orain, bat eta erdi. Eta egiten duguna da, ikasleen arabera, Haur Hezkuntzan ikasgelan sartzan dira, eta 1. mailan ere bai, eta ikasgelaren barruan laguntzen diegu; tutoreari laguntzera sartzan gara. Beraz, sistema bat sortu dugu; izan ere, jakina, maila bakoitzeko hiru ikasgela ditugunez, beno, ni ez naizenez heltzen eta beste pertsona ere ez, ikasketaburua sartzan da hirugarren gelan. Eta, gero, 2. eta 3. mailatik aurrera, ikasle kopuruaren arabera, ikasgela barruan laguntzen diot edo ikasgelatik ateratzen dut". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Haur Hezkuntzan euskara ez dakiten bertokoen ehuneko oso altua dugu; beraz, abestiak edo jolasak baliatzen ditugu..." (Publikoa, Haur Hezkuntza)

"Eta zer gertatzen da? Irakasleak ditugunean, saiatzen gara ikasle horiek banatzen, guztiak batera gela batean ez sartzan. Banatzen ditugunean, ikasle horiek irten egin behar dira, nik denak artatu ahal izateko, ordutegi barruan ezin baitut bestela egin". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Irizpidea alda genezake, alegia, batzuetan tentazioa izan dugu; hemen bi urte baino gehiago egin dituenari hemen ez diogu laguntza gehiagorik ematen, Administrazioetik ez baitzaio ematen". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Euskadin egon den ikasle atzeritarren pixkanakako gorakada kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailaren bidez, hizkuntza indartzeko proiektuaren irakaslearen (HIPI) figura sortu zuen, euskal hezkuntza-sisteman errazago sartzeko, euskarazko hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunetan laguntzeko, eta ikaskuntza-/irakaskuntza-prozesuaren garapenean laguntzeko, curriculumeko egokitzapen egokien bidez. Irakasleek oso positibotzat jotzen dute figura horrek betetzen duen zeregina, baina gehienak bat datoz: ez da nahikoa. HIPI baten beharra eta ikastetxera heldu berri diren ikasleen kopuruaren araberrako dedikazio-orduak, matrikulatzeko ikasturtea eta euskal sisteman⁵ izena emanda eman duen denbora kalkulatzeko diseinatutako formula mugatu gisa baloratzen da. Artatu beharreko ikasleen aniztasunari heltzen zaio, oso profil desberdinak dituztenei eta, beraz, hezkuntza-premia desberdinak dituztenei.

⁵Sartu berri diren ikasletzat jotzen dira euskal hezkuntza-sisteman bi urte edo gutxiago daramatenak.

“Hizkuntza-indartzeak direla eta, beno... Hasieran, irizpide batzuk zeuden formula bat aplikatzean... Guk urte batzuetan 20 pertsona ere izan ditugu laguntzeko, eta astean 10-11 ordu izan astean guztientzat, hainbat mailatan. Hainbat mailatan ezinezkoa da, errealitatea oso desberdina delako batetik bestera”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Hizkuntza-ereduak: B eta D daude. Zer gertatzen da, baina? Bada, neska-mutil horiek DBHko 1. mailara datoz eta, beno, hemen mundu guztiak ikasten du euskaraz, baina, jakina, bi urte dituzte, edo 3, euskaratik salbuesteko legearen arabera. Nahiz eta ebaluaziorako salbuespena izan (ez ikastekoa), denek ikasten dute dagokien mailan, eta, horretarako, irakasle bat dugu, HIPIa, eta hark ikasten du euskara euren mailan HIPI ikasgelan, bi edo hiru urtez, batzuetan luzatu egiten dugula. Legeak ezartzen duena amaitu ondoren, ikasgela arruntera igarotzen dira, eta euskara irakasgai ebaluatzen dira”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Irakasleek oso positibotzat jotzen dute HIPI figurak betetzen duen zeregina, baina gehienak bat datoz: ez da nahikoa.

“Nire ustez, nahikoa da daukaguna, nik ikusten dudanaren arabera bai, hemen behintzat bai. Ez dakit beste ikastetxe batzuetan”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Hizkuntza indartzeko laguntzak proposatzen direnean, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera proposatzen dira: 5. eta 6. mailatik aurrera. Aurrekoek, heltzen badira, ez dute eskubiderik euskararen salbuespena eskatzeko; beraz, euskararen salbuespenik ez badute, jakina, gainerakoak bezala ebaluatu behar dira, eta, bestalde, edukiaren maila askoz ere komunikatibagoa da. Hori dela eta, askoz ere aukera gehiago dituzte, ez beti, baina taldean sartzeko askoz ere aukera gehiago dituzte, eta maila jakin bat nahiko azkar eskuratzeko. Esan beharrik ere ez dago Haur Hezkuntzara badator, bada, jakina. Lehen Hezkuntzako 1. mailan berehala jartzen dira maila berean. Araoa da Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Bigarren Hezkuntzan heltzen direnean”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Hasiera batean, guri heltzen zaizkigun atzerriko ikasleak Lehen Hezkuntzatik igaror dira lehenengo; beraz, euskara mailaz ari bazara, bertokoen antzekoa dute. Kasu batzuetan nagusiago direla datoz, eta, halakoek orain arte aukera izan dute A ereduaren edo B ereduaren ikasteko. A amaitu egin zen; orain B pixka bat dago, baina amaitu egingo da; beraz, funtsean, bertara joan dira. Aurrerantzean, hizkuntza indartzeko programak egongo dira, indartze-programa baitugu”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Figura horri aplikatutako murrizketak kritikarako iturri dira elkarrizketatutako irakasle batzuentzat; izan ere, uste dute ikasle bat laguntza hori jasotzen jarraitzeko ezarritako denbora ez dela nahikoa. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek nabari dute gehienbat muga hori, edo eurek adierazten dute ahoz gehien. Hori dela eta, ikastetxe batzuek erabakitzen dute euren gain hartzea HIPIaren figuraren kostu ekonomikoa, hala behar duten ikasleei hizkuntza-gaitasunak hobeto eskuratzeko aukera eskaintzeko.

“Eta gero, beste faktore bat ere badago, oso garrantzitsua: laguntzen kontua mugatzen joan zen; izan ere, erabaki zen ikasle atzerriartzat jotzen zirela azken bi urteetan heldu zirenak, bai, baina DBHn...” (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Beraz, zer gertatzen da? Bada guk... Nahiz eta ikastetxeak hartzen duen erabaki eztabaidagarria den... 3 urte daramatzen pertsona batek, Lehen Hezkuntzako 6.

mailan edo 5. mailan iritsi denak, alde batetik du euskararen salbuespena eskatzeko aukera, eta horrek esan nahi du ez dela gainerakoak bezala ebaluatuko, baina lehen bi urteetan baino ez da kontuan hartzen. Jakina, 5. mailan iristen bada eta DBHko 1. mailara iristen bada, ez da irakasgai bat euskaraz jarraitzeko gai. Bi aukera ditugu, programan sartzen ez bazara, bertan geratzen zara, eta beste bat da programan ez egotea, baina norberak hartzea bere gain. Beno, bada guk geure gain hartzen dugu. Zer gertatzen da? Bada, 10 ordu ageri dira, eta gu 20 ematen egon gaitezke. Azken bi urteetan heldu direnei laguntza gehiago eman dakieke? Bai, jakina, guk ezin dugu beste alde batera begiratu, kontuan hartuta ikasgelan egoteko moduan ez dagoen jende ugari dugunean, aintzat hartuta lehen bi urteetan ez dagoenez, ez dela laguntzen helburu". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Daukaguna da urteetako tradizioa, denbora eman duen jendearekin, baina beharizanak izaten jarraitzen duen jendearekin... Beste ikastetxe batzuetan beharbada duela gutxi jaso dituzte, eta bi urteen barruan mantentzen dira... Beharbada erabaki dute bi urte baino gehiago egin dutenei ez laguntzea, legitimoa ere badena; azken batean, laguntzak ez badituzu, zeuk aukeratzen duzu, baina gure kasuan batzuetan karga handiegia dago". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Ikasle bat bada ez diot azalpena ikasleari ematen, harekin gaztelaniaz mintzatzeko naiz, baina bat baino gehiago bada, 3 edo 4... ezin da. Jakina, izan liteke ikasgelan bi irakasle egonez gero, baina horretarako laguntzak behar dira, eta ez dago laguntzarik. Orduan, eurek baietz esaten dizute, bai, oso ongi dago, baina ematen badidazu... beharbada zure taulan 7 ikasle agertuko dira, baina nirean 22. 7ko taulan beharbada sartuko da bat zure ikasgelan, baina nire errealitatea ez da hori, nahiz eta zuk esan hori dela errealitatea, ikuspuntu ekonomikotik. Horiek dira 2 urtean heldu diren azkenak, baina nik klaseari jarraipenik egin ezin dieten batzuei eman behar diet arreta, eta askoz ere gehiago dira. Beraz, zer egin behar dut? Ondo da, sar daitezela bi irakasle gelan, bai, eman dizkidazun 10 ordukin sartu direnak ordaindu dizkidazu, baina 14 arretarik gabe geratzen dira". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Zailtasun erantsia da jatorria atzerrian duten ikasleekin HIPI bat ordu gehiago izan ahal izateko ezarri den irizpidea: nahiz eta hizkuntza indartzeko beharri-zanak izan, Hezkuntza Sailak ez du kontuan hartzen atzerriko nazionalitatea duen pertsona gisa eta, beraz, ez da laguntza horren helburu eta ezin du laguntza-programen etekinik atera.

"Gogoratzen dut horietako bat (ikasle txinatarrak) 1. mailan zegoela eta bestea 3. mailan, eta indartze-programan zeudela, ez zirela sartzen ikuspegi batetik ere, Espainian jaiotako ikasleak zirelako, nazionalitate bikoitzarekin, eta horiek ez dira taula batean ere agertzen, baina ez zegoen modurik eurekin funtzionatzeko". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Baina, aurretik aipatu dugun bezala, ez dirudi HIPIren irudia nahikoa denik ikasle etorkinak ikasgelaren erritmora normal egokitzea bermatzen duen euskararen alfabetatzea lortzeko. Ez kasu guztietan, baina... Izan ere, hainbat aldagaik dute eragina, besteak beste, hezkuntza-etapak, ikasgelan sartuko den ikasle-kopurua, epez kanpoko matrikulazioak eta ikastetxearen ingurune soziolinguistikoa. Irakasleek egunerokotasunean zailtasunei egiten diete aurre, ikasgaiak euskaraz egin ezin dituzten ikasleekin, eta saiatzen dira irtenbideak bilatzen; besteak beste, ikasgela banatzea eta ikasgaia gaztelaniaz azaltzea,

gatzelania heldu berri diren eta bi hizkuntzetako bat ere ezagutzen ez duten ikasleekin komunikaziorako lehen hizkuntza gisa aukeratzea edo ikasgaia bi hizkuntzetan ematea. Ikasleek bi hizkuntzetako bat ere ezagutzen ez dutenean gatzelania lehenesteko aukera honela arrazoitzen da: hurbileneko ingurunean hori erabiltzen delako eta hizkuntza baten edo bestearen funtzionalitateagatik. Ikastetxeek euskararen alde egiten duten apustua ukalezina da, baina ikastetxe batzuek beste errealitate bati egiten diote aurre. Ikastetxeetako batek aipatzen duen ondorioetako bat da ikasgaia ulertzen laguntzeko klasearen zati txiki bat beharrezko azalpenak gatzelaniaz emateko erabili ondoren, aukera ematen dutela ikasle guztiak molda daitezen, eta azalpen horiei bakarrik emateko arreta eta ikasgaia euskaraz ematen denean arreta jartzeko.

Ikastetxeek euskararen alde egiten duten apustua ukalezina da, baina ikastetxe batzuek beste errealitate bati egiten diote aurre.

“Nire ustez, bi urteko laguntza hori pixka bat erlatiboa da; izan ere, jatorriaren arabera dela diozu, eskolatzearen arabera, hitz egiten duten hizkuntzaren arabera, baina gauza askoren arabera da; izan ere, ume batzuk ikusten duzu bi urtean aurrera egiten dutela, baina adinak ere badu zerikusia...” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Oso desberdina da 1. mailan edo 3. mailan sartzan badira. Esaterako, 1. mailan sartzan badira, denbora-tarte bat dago eurekin lan egin ahal izateko, baina, jakina, Bigarren Hezkuntzan, 1. eta 2. mailan ere, natura-zientzia, gizarte-zientzietan... Nahiz eta oso oinarritzko edukiak eman euskaraz, edukia hain da altua, non gatzelaniaz eman behar duzun. Horrenbestez, horretarako, ikasle horientzat talde malguak antolatzen ditugu; gainerako ikasleek euskaraz egiten duten arren, besteek gatzelaniaz egiten dute. Hori 2. mailara edo 3. mailara datozenean. 1. mailakoekin, beno, indartsuago has gaitezke euskaraz. Baina, jakina, ikasle bat, esaterako, 3. mailan badator, eta biologia eta fisika eta kimika ikasi behar baditu, nola ikasiko ditu? Bada, gatzelaniaz egin beharko du, bestela ezinezkoa da eta. Beraz, horretarako, talde malguak egiten dira. Ikasgelatik irteten dira, taldeak banatu egiten dira eta ordu berean batzuek euskaraz ikasten dute eta besteek gatzelaniaz”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Izan ere, jakina, eurek euskarari... D ereduari esaten diote, beraz, nire ustez, zorakeria da, Inguruko liburuak euskaraz daudelako; uneoro ari naiz bietara hitz egiten, ez dizkizute azalpenak ulertzen eta iaiztik hona 5 ume etorri dira, eta kopuru hori ikasgelaren % 20 da, beraz... imajinatu, hondamena da. Hizkuntzaren gaia da, euskararena...” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Nire ustez, apustuarena ondo dago; niri inklusibotasunarena integraziorako apustua iruditzen zait, baina hizkuntzaren gaia eztabaida ezina da: azkenean eragozpena da, zuk ezin baituzu dena euskaraz eman ordu horretan; banatu egin behar duzu”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Ez dago arazorik ikasgelan. Eta ez da hori bakarrik; irakaslearen eta ikaslearen arteko tratuan, ikasgelatik kanpora, pasilloan, zuk edozeini, etorkin bati euskaraz egiten badiozu, berak euskaraz erantzuten dizu eta euskara ulertzen du. Beste gauza bat da etortzea eta gatzelaniaz hitz egitea, erraztasun gehiago duelako, baina ulertu ulertzen dute, eta euskaraz erantzuten dizute arazo gabe”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Eta gero, esaterako, ikastetxean izan ditugun ikasle batzuek ez zuten hitz egiten ez euskaraz, ez gaztelaniaz. Halakoetan egin dudana da gaztelaniarekin lagundu; beharbada ikasgelatik ordu gehiago aterata. Ahalegintzen gara pixka bat bakoitzak behar duenaren arabera egiten, eta ikusten dugu ume batzuek hobetu egin dutela; orduan, ikasgelara bueltatzen dira eta beste batzuk ateratzen ditugu, beti dago malgutasun nahikoa”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Ikastetxeak esaten dizu badakizula nolako ikasleak dituzun eta zeuk kudeatzeko. Nik eskola euskaraz eman behar dut, berari gaztelaniaz azaldu behar diot eta azterketak gaztelaniaz jarri behar dizkiot; beraz, horretan, egokitu egin behar naiz, bestela ezinezkoa da; ume hori ezingo litzateke bestela ikastetxe honetan egon”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Esaterako, ikasle horiekin badaude hemen 30 ordu; 12 ikasgelatik ateratzen ditugu gaztelania irakasteko, bestela gainerako irakasgaietan galduta daudelako. Esan nahi dudana da egia dela 6 hilabete itxaron behar dela bilakaera hori ikusteko; izan ere, logikoa den bezala, hasieratik ezin duzu ezer eman”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Kontziente gara (udalerrria)-n komunikazio-bidea, bada... leku euskaldun batean bageunde... baina hemen kalera irten eta inork euskaraz hitz egiteko aukerak oso gutxi dira. Horrenbestez, bermatu behar dugu gaztelaniaz hitz egin dezakeela behintzat. Baina, jakina, lan hori ikastetxeak egiten du, eta lan hori ez dago hizkuntza indartzeko programa batean ere, printzipioz euskararako delako. Ikastetxearen antolamenduaren kontua da gaztelania gehiago irakastea, baina batzuetan ikastetxeak egiten duena da euskararen hizkuntza indartzeko duen laguntza bideratu, hizkuntza-premia guztiei erantzuten saiatzeko, eta, sarritan, baliabide ugari baliatzen dituzu hasieran programaren helburu ez zen zerbait egiteko, baina, jakina... azkenean...”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Ikasgeletan euskararen erabilerari eusten zaio; ez da aldatzen. Jakina, errumanierazko hiztegia dugu, eta erabili egiten duzu, hasieran behintzat, gustura sentitze-ko”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Egoera onartu egiten da, baina hor arazo objektibo bat dago... Euskarazko maila nahikoa ez duen ikasleak, ondo da, euskararen abstentzioa du, ez zaio baloratuko euskara, baina eman dezagun euskaraz eman behar duen klasea dela; bada, ikasle horrek liburu bat du gaztelaniaz. Irakasle hori ikasgelan dagoenean, gure herritarren artean, euskaraz hitz egiten du, irakasgaia euskaraz delako, baina hemen, (udalerrian)-n, oro har, gure ikastetxean are gehiago, auzoko ikastetxea delako, tradizioz immigrazio askokoa, ez bakarrik atzerrikoa, baita Espainiako beste eskualde batzuetakoa ere... Zer gertatzen da? Bada, jendea ikasgelatik irteten dela eta ez duela euskaraz hitz egiten. Beraz, guk hizkuntza-normalizazioaren aldeko apustua egiten dugu; gehiago hitz egitea nahi dugu, baina euskaraz ematen den klase batean gaude eta 2, 3, 4 edo 5 ikasle ditut euskaraz hitz egiten ez dutenak; ondo da, liburu bat dute gaztelaniaz, nik euskaraz azaltzen dut, esan nezake paso egiten dudala, baina ez da hala. Zer gertatzen da? Bada, euskarazko azalpenak 40 minutukoak dira, eta gaztelaniazkoak 20 minutukoak. Zer egiten dute etorkinak ez diren askok, baina etxean euskaraz hitz egiten ez duten askok eta gainera etxean baloratu ere egiten ez dutenek? Bada, deskonektatu egiten dute 40 minutuz, eta gaztelaniazko azalpena heltzen denean, ba horretan jartzen dute arreta, erosoago baitaude. Jakina, hori gure hizkuntza normalizatzeko planteamenduaren kontra doa, irakaslearen kontra, ikasgelaren dinamikaren kontra, baina hori da gertatzen dena. Eta hori errealitate bat da”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nire ikasgelako ume (nazionalitatea) baten amak, itzela ama, D ereduan sartu nahi izan du, beste bi seme-alaba dituelako, biak D ereduan, baina ez diote utzi; esan diote beste ikasgelan kopurua bete dela eta ez dakitela, eta hau eta beste; eta nik esan diot borrokatu dadila, leku bat dagoelako. Gehiago nahastea behar dugu. Beraz, Eusko Jaurlaritzak bertara heltzeko ahalegina egin beharrean eta esan beharrean hara, ume (nazionalitate) bat D ereduan sartu nahi da, 3. mailan, garaiz dago... Bada, ez, ez du ahaleginik egiten. (...) DBHra igaro eta esatea ni zurekin borrokatzen naiz B ereduan leku bat izateko... Gero eta oztopo gehiago... Ezetz eta ezetz, eta azkenean hartu ez. Nahiz eta umearen alde borrokatzen den irakasle bat egon! Ahal duelako, konpletiboak erabiltzen dituelako, B ereduko askok ez bezala, eta ezetzerako oztopoak jartzen dizkiote. Eta horrelako zenbait kasu izan ditut. (Nazionalitatea) ume bat etorri zen eta hizkuntzarekin itzela izan zen; euskara asko ikasi zuen eta esan zioten ea euskarara igaro nahi ote zuen. Ahal izango duzulako eta lagun egonkorragoak izango dituzulako; bada, ez zioten utzi.

(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen beste figura bat da itzultzaile batena, irakasleen eta familien arteko komunikazioan lagundu dezakeena, baita irakasleen eta heldu berri diren ikasleen arteko komunikazioan ere. Gaur egun, zerbitzu honetan 10 ordu daude programatuta, eta, HIPIaren figurarekin bezala, ez dute nahikotzat jotzen. Zerbitzu hau bukatuta, irtenbideak ikastetxe bakoitzak hartzen ditu, ahal duen bezala; esaterako, atzerriko hizkuntzaren bat ezagutzen duen ikastetxeko irakasleren baten bidez. Irakasleentzat, konplikatua da heldu berri diren ikasle horiekin komunikatu ahal izatea, eta euren frustrazioa eta neska-mutil horiena hain da handia, ezen ez dute ulertzen inguruan zer gertatzen ari den.

“Sarritan, ez dakite ez gaztelaniaz, ez euskaraz; beraz, batzuetan interprete baten-gana jo behar izan dugu. Esaterako, Pakistandik etorri zen ume batek urdua hitz egiten zuen; ingelesik ere ez zekien”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Halakoetan, jakina... Gogoratzen dut duela urte batzuk Haur Hezkuntzan Ukrainiako mutiko bat etorri zela; interprete errusiar bat izan genuen, eta, ez dut gogoratzen zenbat denboraz, bi hilabetez beharbada, ez zen egun osoa, baina hura izan genuen, bera erosoago sentitzeko... Fruitua ekarri behar duela azaldu nahi diozu, edo ipuin bat daramala, baina hurrengo egunean ekarri behar duela, eta umeak begiratzen dizu jakin gabe ipuinaren gainean zer esan nahi diozun...” (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Ahal dugun guztia baliatzen dugu. Esaterako, aurtan hizkuntza batzuk dakizkien irakasle bat dago; batzuek ingelesa dakite eta, beraz, bera baliatzen dugu. Lehen Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bazuen zerbitzu bat non interprete bat eska zenezakeen hil batzuek. Esaterako, herritar txinatarrekin hori nahikotan egin izan dugu, interprete bat eskatu eta astean bi aldiz etorri. Halakoetan, eurekin dago,

eurekin lan egiten du eta, gero, sarritan, eurekin landu nahi dituzun gauza asko, edo jakinarazpen edo ohar asko... Interprete horren bidez egiten genuen. Beraz, interprete-zerbitzu hori oso baliagarria zen. Bai; izan ere, batzuetan inpotenziak gainditzen zaitu, eta ezin duzu ezer komunikatu. Batzuetan egoerak oso zailak dira; duela 15 egun etorri den ume bat, Txinatik zuzenean... Eta nola hitz egingo diozu? Lehen hilabeteak oso gogorak izaten dira, eurentzat batez ere, eta guretzat ere bai, eurekin lan egin ahal izateko, komunikatzeko...” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Etorri zen lehen pertsona Marokokoa izan zen; gogoratzen dut oso pertsona gaitua izan genuela itzultzaile, 6 hilez. Ematen dizkiguten azken moduluak 10 ordukoak dira. 10 ordurekin ez duzu ezer egiten, justu familiarekin 3 aldiz hitz egiteko. Familia dator, ozta-ozta hitz egiten duzu eta astebetean zerbitzuarekin amaitu duzu, baina, jakina, interpretearen irakurketa nahikoa aldatu da, hasieran ikasle horiez arduratzen ziren pertsonak zirelako, ikastetxetik emandako laguntza gorabehera, pixkanaka gaztelaniaren gutxieneko ezagutzan jantzen zihoazen. Orain lan erabat burokratikoa da; izan ere, 10 orduan dakit zein den bere familia-egoera, zein den ikastetxeko egoera, baina ezin dute beste ezer egin”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Elkarrizketatutako pertsona batentzat, konponbidea da euskal hezkuntza-sistematik hizkuntza-ereduak kentzea, eta D ereduaz izatea aukera bakarra. Hortik aurrera, arreta eskaini beharko litzaieke egon daitezkeen zailtasun guztiei eta horretarako neurriak hartu, baina, betiere, hizkuntza-eredu bakarretik.

“Nahastu egin beharko lirateke, eredurik ez egoteko, eredu bakarra egoteko. Kata-

“

“Eta Lehen Hezkuntzan, esaterako Pakistandik etorri zen mutikoarekin, urdua baino ez zekienarekin, 5 orduz izan genuen interprete bat. Hasieran 5 ordu esan zizkidatenean, astean zirela uste nuen, baina ez, guztira ziren. Jakina, horrelako ikasle bat duzunean, zer egoeratan dago mutikoa? Ez dakizu... ezin zara komunikatu; ingelesa badaki, ingelesa erabiltzen duzu, baina bestela... Hark ingelesa zekien; beraz, ingeles-irakaslea zetorren, eta esaten zizun: ia, zuk umearekin lan egin behar duzu, berarengana heldu behar duzu, probak egin behar dizkiozu...”
(Publikoa, Haur Hezkuntza)

”

luniara heltzen zarenean bezala, D ereduaz dugu, eta horrela; 10 euskaldun bakoitzeko, 10 ez dira izango, ba ia nola egiten dugun”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Laburpena

Jatorriz kultura anitzekoak diren ikasleak dituen ikasgela kudeatzea erronka da irakasleentzat. Baina, dakigun bezala, modu esponenzialean ari dira atzerritarrak Euskadira heltzen, eta hori ikastetxeetan islatu azken hamarkadan. Hezkuntza-zereginak ikasgelan gatazka-eremua izaten jarraitu behar du hainbat motatako premiak dituzten ikasleen hezkuntza euren kargura duten irakasleentzat. Gai horri dagokionez, ikasgaien programazioan eta plangintzan eta kalitatezko hezkuntza-erantzuna emateko metodologian duten dedikazioa baldintzatuta egongo dira, arreta berezia eman beharreko ikasgelan dauden ikasle etorkinen bolumenagatik, ikasturtean zehar sartzen diren ikasle berriengatik eta mintzagai dugun hezkuntza-etapagatik. Irakasleek materialak egokitu eta ikasleentzat irakaskuntza-metodo erakargarri eta berritzaileak sartu ahal izateko duten denbora, kasu askotan, ez da nahikoa, eta fikziozkoa ere bada. Hezkuntza-premiei heltzeko, ikastetxe batzuetan erabakitzen da beste ikasgela batzuetan artatzea ikaskuntza-arazoak dituztenei; neurri hori irakasleek ez dute beti bultzatzen; izan ere, irakasle batzuek uste dute idealena izango litzatekeela banako arreta eskaini ahal izatea, ikasgelatik ateratzeko beharrik gabe. Hausnarketa hori utopikotzat eta egiteko ezinezkotzat jotzen dute. Bestalde, administrazioak curriculumean ezarritako edukiak ez dira beti ikasgelako gizarte- eta hezkuntza-errealitatera egokitzen. Eduki zaharkituak mundu globalizatuan aipatzen dituzte irakasleek euskal hezkuntza-sisteman irakaskuntza-programak berregokitzea eta berriro formulatzea justifikatzen duen arrazoietako bat bezala.

Familia etorkinen artean, joera da, duela zenbait urte, B eta D ereduak hautatzea,, baina ez dute beti jakiten zer dakarren euren seme-alabak eredu horietan matrikulatzeak. Irakasleek, batzuetan, zailtasunak izaten dituzte, ikasgela kudeatzean, irakaskuntza euskaraz denean. Zenbat eta txikiagoa izan eskolatzeko adina ama-hizkuntzaz bestelako hizkuntza batean, orduan eta gutxiago izango da hura ikasteko eta ulertzeko denbora. Hori horrela, Haur Hezkuntzaren etapan hezten dutenek ez dute bestelako arazorik ikusten euren ikasgeletan ikasle atzerritarrak sartzeko. Eta, ordea, zenbat eta handiagoa izan matrikulazio-adina euskal hezkuntza-sisteman B eta D hizkuntza-ereduetan, orduan eta egokitzapen-denbora gehiago beharko da; bertan jolasean sartzen da maila horietan ematen den ikasgaiaren konplexutasuna. Nabarmendu beharreko beste faktore bat da irakasleen arreta-premia handiena duten ikasleen kopurua; izan ere, dauzkaten giza baliabideak eta ekonomia-baliabideak ez dira beti nahikoak, artatu beharreko ikasle etorkinen kopuruak jarduteko gaitasuna gainditzeko duenean. Aurretik aipatzen genuen bezala, ikastetxe bakoitzak jarduteko modu bat du, ikasleen premiei erantzuteko, kasu honetan hizkuntzakoak. Nahiz eta ikasgela barruan laguntza ematen saiatu, ezin da beti egin, eta beste espazio batzuetan artatu behar izaten dira.

Euskadira heldu berri diren ikasle etorkinen etengabeko gorakadaren aurrean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikastetxeentzat eskuragarri jartzen du hizkuntza-errefortzurako irakasle bat izateko aukera, baina, horretarako, urte batzuetatik hona horretarako baldintzak gogortzen joan direla kontuan hartuta. Zehazki, mugarik kritikatuena da dioena heldu berri den ikasletzat hartzen dela azken bi urteotan heldu dena. Figura hau oso ondo baloratzen du hezkuntza-erkidegoak, baina ez ditu nahikotzat jotzen esleitzen zaizkion dedikazio-orduak, zerbitzuak behar dituen ikasle-bolumenaren arabera, zerbitzua eskaintzen hasten den hezkuntza-etaparen arabera eta administrazioak sartu berri diren ikasletzat jotzen dituenaren gainean zehaztutako profilararen arabera. Ikasgelan artatu beharreko kasuistiken eta profilen aniztasunak HIPIren figuraren presentzia handiagoa behar du. Gainera, kontuan hartzen badugu bigarren mailako hezkuntzan neurri handiagoan sufritzen dutela HIPIren bi urteko muga, ikastetxe batzuek erabaki dute ekonomikoki euren gain hartzea figura horri eusteko gastua.

Hizkuntza indartzeko irakaslea beharrezko baliabidea da, baina, oro har, ez da nahikoa, erabateko hizkuntza-gaitasunak lortzea bermatzen duen euskarazko alfabetatzea lortzeko, baina ez kasu guztietan; izan ere, ikusi dugun bezala, zenbait aldagaik dute eragina; besteak beste, hezkuntza-etapek, ikasgelan sartu berri diren ikasleen bolumenak, epez kanpoko matrikulazioek eta ingurune soziolinguistikoak. Ikastetxeek euskararen alde egiten duten apustua ukazina da, baina ikastetxe batzuek beste errealitate bati egiten diote aurre. Irakasleek zailtasunak identifikatzen dituzte gaiekin euskaraz jarraitzeko, eta beste konponbide batzuk bilatzen dituzte; besteak beste, ikasgela bikoiztea eta taldeetako bati gaztelaniaz ematea azalpenak, gaztelania lehenestea heldu berri diren eta bi hizkuntzetako bat ere ezagutzen ez duten ikasleekin komunikatzean, edo ikasgaiak bi hizkuntzetan ematea. Gaztelania lehenesteko arrazoia da, ikasleek gaztelania eta euskara ezagutzen ez duten kasuetan hala erabakitzen duten ikastetxeetan, hurbileneko ingurunean ematen zaion garrantzia (ezagutza maila eta hizkuntzen erabilera etxean edo auzoan, udalerrian...) eta hizkuntza batek edo besteak dakarkion funtzionaltasun handiagoa ala txikiagoa.

Itzultzailearen figura ere positiboki baloratzen da, baina, HIPIaren figuraren kasuan bezala, erabilera oso mugatua da orduer dagokienez, eta ikastetxeei ez zaie aukerarik ematen eraginkortasunez komunikatzeko heldu berri diren familia eta ikasleekin. Hutsune horrek komunikazioan eragiten duen frustrazioa inplikaturako alderdi guztiek bizi dute.

Azkenik, galdera bat dago oraindik erantzun gabe: eredu bakarra ezartzeak (D eredu) eta gainerakoak ezabatzeak, beharrezko laguntza eta indartze-lanekin, ikasgeletako kultura-aniztasuna normaliza dezake?

3

Irakasleak

Irakaslearen figura hezkuntza-prozesuko funtsezko piezatzat jotzen da. Funtsezko zeregina du euskal ume eta gazteen prestakuntza akademikoan, eta giza prestakuntzan. Familiekin batera, ardurapean dituen ikasleak hezi behar ditu, eta, horretarako, beharrezko ezagutzak eman, gizarte anitzean moldatzeko.

Atal honetan elkarrizketatutako irakasleek euren lanbidearen gainean duten ikuspegia jaso nahi dugu, nolakotzat jotzen dituzten ikastetxeetako familiekin dituzten harremanak, nola baloratzen duten hezitzaile diren aldetik duten zeregina eta egunero aurrez aurre dituzten zailtasunak, kultura-aniztasunean oinarritzen den prestakuntza euren hezkuntza-lanerako beharrezko ezagutza-eremutat hartzen ote duten eta zer espero duten bertoko eta jatorriz atzerrikoak diren ikasleen etorkizunaren inguruan.

Irakasleen ikuspegia

Irakasleek Euskadiko ume eta gazteen hezkuntza-lana betetzen dute. Egunero zereginean, eurekin izandako elkarrizketetan agertu diren pentsamendu eta hausnarketak ageri dira. Gai batzuen aurrean duten sentitzeko moduak elkarrizketatutako irakasleen alderik kritikoena eta mediatuena erakusten du.

Elkarrizketetan askotan errepikatzen den baieztapena da ezin dela orokortu gazteez hitz egiten dugunean, eta are gutxiago kultura-jatorri anitzeko ikasleez ari garenean. Ikasleen familia- eta harreman-testuinguruak eta euren nortasunak eragina dute, besteak beste, pertsona gisa duten eraikuntzan, eta horrek aukera ematen die ezaugarri eta historia bereziak dituzten gizabanakoez hitz egiteko. Eta, hala ere, hitzaldien beste tarte batzuetan, irakasleek eurek balia-

tzen dituzte estereotipoak eta sailkatzen dituzte ikasle atzerritarrak nazionalitateen arabera, jatorrizko lekuekin lotutako taldeko ezaugarri batzuk esleitzuz.

“Ezin da orokortu, ume bakoitza mundu bat delako; izan ere, euren testuinguru pertsonala dute...” (Hezkuntza ez-formala)

“Txinatar, marokoar... guztiak ez direlako berdinak, beraz, nola egin behar da?”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Oso anitza da, ezin da horrela lotu (nazionalitateen edo kultura-taldeen arabera). Ikasle batzuek, esaterako, Ekialdeko Europako batzuek, oso azkar heldu diote mailari. Ikasle hegoamerikarren artean, normalean, ez da horrela gertatzen, asko kostatzen zaie maila bera izatea... Egon dira, ordea, zenbait ikasle! Baina kasu bakanak dira; oro har, asko kostatzen zaie. Eta beste kapitulu bat da, baina salbuespenak daude, Txinatik datozen ikasleen kasua; hori ia zientzia-fikzioa da, oso konplikatu”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nire ustez, aurreiritzi ugari dugu”. Hausnartu egiten da nola irakasleek eurek dituzten aurreiritziak euren ikasgeletara heltzen diren ikasle etorkinen inguruan; irudi negatibo horiek desagertu ohi dira, kasu zehatzak ezagutzen dituztenean eta, ondorioz, aurreiritzi horiek apurtzen dituztenean. Horren adibide da jarraian prestakuntza mailaren inguruan azaltzen dena.

“Nire ustez, aurreiritzi ugari dugu; Marokotik datorrena uste dugu berez irakurtzen eta idazten ez dakien familia bat izango dela, baliabide gutxi dituen, ikasketak gabea. Ikuspuntu hori dugu. Gero ikusi dugu hori ez dela hala; batzuk, gehienak... beharbada bai, baina beste batzuek ikasketak dituzte eta, bizitzako hainbat motibo tarteko, hona heldu dira, unibertsitarioak dira eta beste kultura bat dute, baina prestakuntza jaso dute. Beraz, ikuspuntu hori kendu beharko genuke, ezta? Bada, ikasle bakoitza, pertsona bakoitza, modu batekoa da, eta ikuspuntu hori dugu, nire kasuan ere, ziurrenik: Hara! Marokokoa? Bada, horrelakoa da. Orokortu egiten dugu”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Irakasleak euren inguruneko gizarte-errealitatean daude murgilduta, eta, beraz, baita biztanle etorkinen inguruan entzuten diren eta aurreiritzietan oinarritzen diren ideien eta komentarioen inguruan ere. Euren harreman-espazioan presente badaude, estereotipo horiek eskola-testuingurura eramaten eta egokitzen dira. Azken batean, “heldu berria”-ren aldean “etxeko”-aren alde egiten duten hezitzaileen konfiantzarik eza eta errezeloa eragiten du.

“Hau ez da burbuila bat; hemen gizartean bizi dena bizi dugu. Gizartean zer bizi da?”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Nire ustez, irakasleek gai honetan gizarteak duen ikuspuntu bera dute. Nik ikusten dudana gizarteak kanpotik datorren jendea ikusten du... puf! Ea zertan datozen hauek; nik irakasle batzuek horrela ikusten nituen... Kanean entzuten den gauza bera, daturik gabe, baina zurrumurru horiek laguntzengatik etorri dira, diote bakkarik nahi dituztela laguntzak. Eta hemen, ba gauza bera, ezta? Askok laguntzen diegu, baina gero hurrengo urtean alde egingo dute eta, horrenbestez, zertarako gastatu behar dira horrenbeste baliabide eurekin? Badago horrelako arrazismo-zantzu bat, argi dago. Lehenengo hemengoei lagundu behar zaie eta gero kanpokoei;

hori ere entzuten da; ez dute lasaitasunez komentatzen, baina nabaritu egiten da”.
(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Gizartea arrazista dela baieztatzen da, eta modu batean edo bestean pertsona guztiengan duela horrek eragina. Nazionalitate batzuek beste batzuekiko duten tolerantzia maila eskolan ere presente dagoen gizarte-imaginarioaren zati da. Esaterako, esan ohi da biztanle latinoamerikarrak eta txinatarrak magrebtarrak baino hobeto ikusten direla.

“Ea... Denok gara arrazistak, eta, esaterako, arrazistagoak gara magrebtarrekin ekuadortarrekin baino. Marokoarra dela esatean... arrazistak gara, ez dakit zergatik. Ez zaigu hainbeste gustatzen, eta hori gizartean gertatzen da, baita hemen ere. Toleranteagoak gara latinoamerikarrekin, esaterako... Txinako herritarrak ere onartuagoak dira, baina magrebtarrak, marokoarrak... horiekin ez gara hain tolerantetarak”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Baina zalantzan jartzen da benetan arrazismoaz edo klasismoaz ari garen; izan ere, maila sozioekonomikoa da atzerriko herritarrekin dugun sinpatia eta tolerantzia maila handiagoa ala txikiagoa zehazten duen ezaugarria. Baliabide gutxiko pertsonak mehatxutzat hartzen dira gure ongizatearen sistemarako, eta gure ondasuntzat hartzen ditugun lehia gisa.

Zalantzan jartzen da benetan arrazismoaz edo klasismoaz ari garen.

“Ez dakit, bertokoen pentsamoldea aldatu behar da; izan ere, ez dakit arrazistak edo klasistak garen. Izan ere, Marokotik edo Txinatik edo beste herrialde batetik datorren Realeko jokalaria bazara, ez da ezer gertatzen. Hori dela uste dut; kanpotik baliabide gutxirekin datorrena areriotzat jotzen dugu, oro har, eta zera pentsatzen dugu: hau zertarako etorri da? Eta oztopoak jartzen dizkiogu: ea hau nolakoa den; belo batekin ikusi eta are gehiago izutzen gaitu, eta ez dugu nahi gure seme-alabak eurekin egoterik... Laguntzen eztabaidan, laguntzengatik datozela eta kendu egin behar zaizkiela, eta Mohamed izena baduzu udalean Jon izena izanda baino laguntza gehiago dituzula, eta abar, eta abar”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Zalantzak daude hezitzaile diren aldetik daukaten egitekoa zuzena ote den, aurrera eramatea erabakitako ekintzak egokiak diren, ikasle etorkinak ahalik eta ondoena hazteko aukeratu den bidea egokia den. Euren buruari galdetzen diote ikasle etorkinek euskara ikasgelan bertan indartzeko erabakia egokia den gizarte- eta hizkuntza-integratzearako udalerrian edo, bestela, harremanak beste hizkuntza batean izaten dituzten eta askotariko arazoak izan ditzaketen pertsonen arteko harremanei bide ematen ari diren, bai eskola barruan, bai kanpoan.

“Nire iritzia da; pertsona bat dugu, HIPIa, zeinak ikasle horiekin lan egiten baitu; ikasleak ordu batzuek bateratzen ditu, eta beste gela batera daramatza; bertan, euskara lantzen dute pixka bat. Orduan, hor ere ni ari naiz ikusten ikasle horiek euren ikasgelan integratu eta euren ikaskideekin euskara ikasi beharrean... Neure buruari galdetzen diot ongi egiten ari ote garen ikasgelatik ateratzean; izan ere, beste ikasgela batera daramatzagu eta justu kanpokoak direnen eta euskara ez dakitenen eta gaztelaniaz hitz egiten dutenen lagun egiten ditugu. Gero, kalean

ikusten ari naiz eurek sortzen dituztela koadrilak; batu egiten dira, lagun egiten direlako, gaztelania erabiltzen dutelako". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Esaterako, programa bat dago, PROA, eskola-laguntzarako programa, eta, nire ustez, oso ondo dago. Baina, nor doa hara? Bada eskola-zailtasun larriak dituzten ume guztiak. Nork ditu zailtasun larriak? Bada, profil horretako ume askok. Zer egiten dute? Elkarren lagun egiten dira, taldea osatzen dute eta ghettoa sortzen dugu. Orduan, asmo onarekin egiten diren gauza batzuk, epe luzera... Niri horrek beldurra ematen dit. Nire ustez, horrelako gauzekin arreta handiz ibili behar dugu; izan ere, diozu... Ondo da, beharbada ikasketa-emaizetan laguntzen ari gatzazkie, neurri batean, baina gizarteratzean? Guztiak batera egotea interesgarria al da guretzat, herrialde gisa? Izan ere, ni herrialdeaz hitz egiten ari naiz, zer interesatzen zaidan etorkizuneko gizarte gisa". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Ez dakiten umeak elkartzen dira, euskara ezagutzen ez dutenak; guztiak batzen dira eguerdian. Ondo dago, baina batu egiten dira. Beraz, ikusten ari naiz kalean koadrilak sortzen ari direla. Lagun egiten dira, eta elkarrekin jolasten dira. Parkera zoaz eta ikusi egiten dituzu. Eta elkarrekin, askotariko arazoak dituzten pertsonak dira, ez? Tira, ez dakit ondo jokatzeko ari garen". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Elkarrizketatutako irakasleek uste dute baliagarria eta beharrezkoa izan daitekeela ikasgeletan kultura-aniztasuna lantzeko moduari buruzko prestakuntza. Euren ustez, materialak egungo errealitate soziokulturalera egokitu beharko lirатеke, eta sarbidea izan lan-ideia eta -jarraibide berrietara

Euren ustez, materialak egungo errealitate soziokulturalera egokitu beharko lirатеke, eta sarbidea izan lan-ideia eta -jarraibide berrietara ikasgelan.

ikasgelan. Irakasleek ikusten dute ez direla behar bezala eta proportzioan lantzen kultura-alderdiak eskola-programazioaren barruan. Gai hori lantzeko naturaltasuna elkarrizketetako batean nabarmentzen da.

"Eta gero, ba kulturartekotasuna aberatsa da, aberastasuna. Hala da, ezta? Kultura desberdinak, ikasgelan egon daitezkeen aberastasun desberdinak, edozein gauzaz hitz egin ahal izateko... Hori ahalmen aberatsa da. Horregatik kudeatu behar da, eta hori

berria da. Irakasleei jarraibide batzuk eman behar zaizkie, ideia batzuk, ikasgelako materiala egokitzeko". (Publikoa, Haur Hezkuntza)

"Beraz, geuk ere (irakasleak) hemen ez dugu lantzen landu beharreko guztia; ez dugu euren kultura ezagutzen Marokokoak edo Pakistangoak badira, eta hori oinarritzkoa da. Jakin behar duzu nongoa den, ez? Bada, hori dugu hobetzeko". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Denetarik landu behar da, eta gaiak naturaltasunez tratatu behar dira; sexu bereko gurasoak daudela, beste leku batzuetako jendea dagoela... edozer". (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Hala ere, iritzi batzuek ez dute beharrezkotzat jotzen ikastetxeetan kultura-aniztasunaren kudeaketaren gainean lan egiten duen prestakuntza. Irakasleak bere kargura dituen ikasleen gainean duen hezkuntza-konpromisoa aipatzen da, bai eta aniztasunak bere aldetik dedikazio handiagoa behar duela ere. Badakite eskola-elkarteko kideen artean inplikazio eta konpromiso mailak daudela, eta beti ez diotela erantzuten euren gaitasunik espero duenari.

“Nire ustez, batez ere da... Beharbada tontakeria bat da, baina da pertsona inplikatu eta lanarekin konprometitua izatea; hau da, batzuk... Nire ustez, hezkuntza lotuago dago zentzu komunarekin, beste edozein gauzarekin baino. Balioak... zuk pertsona bat ondo tratatzen baduzu eta zaintzen baduzu, gurasoek baloratu egingo dute zuk zaindu izana eta ondo tratatu izana. Pertsona harkorra zarenean eta arazo bat egon denean, egon badaudelako, gaizki-ulertuak, aurpegi txarrak... Zuk esaten baduzu sentitzen duzula, gauzak onartzen badakizu... ez dut uste beharrezkoa denik inolako prestakuntzarik”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Nik gero eskolak eman behar baditut eta ahalegin handiagoa egin beharko dudala ikusten badut, kendu ahal badut, kendu egiten dut. Horrela funtzionatzen du. Eta, Hezkuntzatik, aparteko lana dakarrenean, honetarako edo beste horretarako... ez, ez da laguntzarik jasotzen”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Beharrezkotzat jotzen da arreta eta emozio-laguntza ematea ikastetxetik eta hezkuntzaren arduradun diren irakasleen eskutik, migrazio-prozesuan beharbada egoera konplikatuak bizi izan dituzten ikasle etorkinei, besteak beste: jatorrizko herrialdea uztea, jatorrizko herrialdean dagoen familiaren hutsa edo eteten diren harremanak.

“Nire ustez, lagundu egin behar zaie; oso garrantzitsua da kontzeptuak ikasteaz gainera, horrek bere denbora beharko du eta, emozionalki ere laguntzea, eta horri garrantzi handiagoa ematen diot; izan ere, ea, galerak izan dituzte, herrialdea, familia eta harremanak galdu dituzte. Eurek aukeratu ez duten leku batera etorri dira, gurasoek aukeratu dute tokia; zuk galdetuz gero ea etorri nahi zuen, umeak ez daki, ezin du pentsatu zer egingo duen, baina bizi egiten du”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Eskola-arrakasta bermatzea elkarriketetan aipatzen den beste lehentasunetako bat da, ikasle guztiekiko konpromisoa, dela atzerritarra, dela bertokoa.

“Eta, nire ustez, bermatu behar duguna da gutxieneko eskola-arrakasta; beraz, nik erduei muzin egiten diet; uste dut bilatu behar dudana dela pertsona batek, Lehen Hezkuntza amaitzean, gutxieneko mailak lortzea, Lehen Hezkuntza amaitzeko”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Azkenik, nabarmendu egin behar da iraganera botatako begirada batek aukera ematen duela hausnartzeko eta, aldi berean, ikasgelara ikasle atzerritarrak heltzeaz harritzeko; harridura hori euskaraz nola komunikatzen diren eta euskal gizartean nola integratzen diren ikusteko gogo bizi eta ilusio bilakatzen da.

“Nire ustez, ondo kudeatzen badugu, ilusionatu egiten nau ni; niri ilusio handia egiten dit umeak euskaraz hitz egiten entzuteak. Ni lanean hasi nintzenean, sekula ere ez nukeen pentsatuko azal beltzeko ikasleek euskaraz bikain hitz egingo zutenik 8 urterekin; beno, lehenengo eta behin, sekula ez nuke pentsatuko azal beltzeko ikaslerik izango nuenik”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Irakasleen zeregina

Geure buruari galdetzen diogu zein den irakasleen zeregina euren hezkuntza-egitekoan, eta zer aipa daitekeen kultura-aniztasunaren kudeaketan euren lanbideez. Kontu horien aurrean, euren eztabaidetatik nabarmentzen dugu inplikazioaren ideia, hau da, ikasleen hezkuntza hobea bermatzeko parte-hartze boluntarioa eta aktiboa. Kasu honetan, ikasle etorkinek elkarrizketatutako pertsonentzat dedikazio handiagoa eskatzen du, eta dedikazio hori lotzen dute bakoitzak horretarako duen aukera pertsonalarekin. Beraz, inplikazio horrek irakasleentzat ahalegin handiagoa eskatzen du, eurek egoera konplikatuei aurre egiteko gaitasuna, eta aparteko dedikazioa eta ez beti emandako orduetan ekonomikoki onartua.

“Bai, oso jende konplikatua dago. Irakasle oso konplikatuak daude”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Plus bat eskatzen du. Plus pertsonala da. Bai, oso garrantzitsua da, nire ustez, bai”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Beraz, aukera pertsonala da; ni ziur nago, eta gauzak horrela egin behar dituzulako indar eta konbentzimendu kontua da. Beraz, hainbat gauza hartu behar dira kontuan... Eta irakasleen artean denetarik dugu, leku guztietan bezala; pertsona batzuk ez daude ondo... Nire ustez bai, eskatzen du ikasgela batzuetan lan egitea”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“...baina, gainera, familia-egoera konplikatuetan dauden umeak dituzunean, zu ondo ez bazaude, umeak harrapatu egiten zaitu”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Horregatik diot horrelako ikastetxeetan oso garrantzitsua dela pertsona indartsuen taldea izatea, aurrera egiteko esateari dagokionez; tiratu egin behar da, ahalegina egin behar da...” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Aipatzen dugun aparteko dedikazioa irakasleen honako testigantza hauetan islatzen da. Horietan edozein irakasgaitan eskola-laguntza behar duten ikasleei laguntzeko joera ikusten dugu, batez ere euskararako. Edozein ikasleri ematen dioten laguntza, jatorriagatik bereizkeriarik gabe.

“Bai, azkenean delako irakaslearen, tutorearen ordu libreetatik kentzea, eta erlijioa izatean, bada erlijioa bi saiotara joan beharrean, batera joatea eta ordu horretan nirekin zator indartze-saiotara, jolastorduetan, nire denboran ba... beste gauza batzuetarako umeari eskaintzea”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Zergatik doa talde hau horrela? Jakina, bi urte igaro eta irakasleak talde zaila hartzen du, eta pasatu egiten du... Abenduan ikusten duzu eta... argalduta dagoela ikusten duzu... Baina ekainean dagoeneko badagoela ikusten dugu, taldea berriro dagoela ondo, lortu duela”.

(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Eta, gainera, uste dut ondo dabilela, jolastorduetan ere aukera dutelako; irakasle boluntario batzuek errefortzua ematen diete, baina ez bakarrik euskaraz, baita arazoak dituzten bestelako ikasgai batzuetan ere. Horrek, beraz, asko laguntzen du. Egunero da, bost egunetan. Beraz, batzuk, batez ere gazteenak, 12-23 urtekoak, euren koadernoekin doaz, edozer egiten dute, eta jolastokietan aprobetxatzen dute oro har dena indartzeko, eta euskara zehazki; gainera, beste edozein ikasgaitan ematen zaizkion azalpenak euskaraz dira”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Bera (indartze-lanetarako irakaslea) premia bereziak dituzten bi neskatoentzat dator, baina pertsona normala bada, sentikorra eta lankidetzan jardun nahi duena, dio: baina... zer da hau? Guztiekin lan egingo dugu. Ez naiz eseriko, nire lana ume bi horiekin euren premiei erantzuteko eserita egotea izanik ere; nik taldearentzat lan egiten dut; beraz, taldearentzat lan egiten dugu. Laguntza hori hoberako laguntza da, baina jarraitzen du nahikoa ez izaten. Hori dela eta, datorren urterako gehiago eskatu nahi dut”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Hala ere, halaber hautematen dute ahalegin berezia egiten dutela arreta bereziak behar dituzten ikasleengatik, epe laburrean, ikastetxean jarraitzen ez dutela ikusteko. Dedikazio hori ez dute beti euren gain hartzen irakasleek; beti hartzen dute pertsona berek euren gain.

“Hori beste gauza bat da; egoera batzuetan ahalegin bizia egin behar da, eta, sarritan, ahalegin handia egiten duzu, 4 hilabete irauteko. Dena mugitu duzu ume horrek eduki beharrekoa eduki dezan; eskatzeko eskubidea zeukan, eta zuk arrazoizko ikuspegi batetik konpondu duzunean, hiru hilabete igaro dira eta beste nonbaitera doa. Hori guztia, irakasleen ikuspuntutik, gogorra da; izan ere, sarritan, amaierako ahalegina pertsona zehatzek egin behar dute, eta, jakina, horiek dira egokitu behar dutenak... Uste dut onartu egiten dugula hori, baina kontu arazotsua da; izan ere, onartu bai, baina ez dago konponduta”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Irakasleek zailtasun handiagoak nabari dituzte hezkuntza-lanean, zenbat eta nagusiagoak izan ikasleak. Ikasle berriak ikasgelara egokitzea, materialak berrikustea, ikasleek beharbada bizi dituzten arazo pertsonalak irakaslearen hezkuntza-egitekoa zailtzen duten egoerak dira.

Irakasleek zailtasun handiagoak nabari dituzte hezkuntza-lanean, zenbat eta nagusiagoak izan ikasleak.

“Zenbat eta altuagoa izan maila, orduan eta gehiago. Material gehiago egokitu behar dituzulako, istorioekin atzetik... Izan ere, jakina, egoera emozionalaren araber, bada... Eta emozionalki ondo ez badago, ba lan egiteko ere ez da ondo egongo, baina banantze txarra izan duten guraso batzuen semea edo alaba izan daitekeenez, ez du hainbeste zerikusirik atzerritarra izateak”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Irakasleak zalantzaraz eta arduraz beterik daude; ez dakite zer egin epez kanpo matrikulatutako ikasleekin, batez ere hainbat pertsona direnean aldi berean edo epe laburrean. Profesional horiek badakite zenbat ikaslerekin hasten duten ikasturtea, baina ez dakite zenbatekin amaituko duten, ez eta bakoitzaren zehaztasunak ere. Gainera, kontuan hartzen badugu eskolak euskaraz ematen

direla, irakasleentzat are lan- eta dedikazio-karga handiagoa da, eta ez dakite oso ondo nola heldu horri eta nola antolatu.

“Bai, bat-batean, 8-9 ikasle iristen dira, eta, zer egin behar dugu eurekin?” (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nik, jakinez gero beti etorriko direla Kolonbiatik eta 2. seihilekoan etorriko direla, ba antolatu egiten naiz. Baina Ukrainiatik etor daitezke; txinatar bat, zeinak itzulzailea behar duen, eta hura 10 orduz bidaltzen dute, eta gero ez dakit txinatarrekin zer egin. Edo marokoar bat etor daiteke... zer dakit nik ba... eta urtarrilaren 10ean etor daiteke edo azaroaren 14an edo maiatzaren 25ean; jakina, hori beste gauza bat da”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Batzuk ez dira sekula eskolatuta egon, eta test bat egin behar dute, jakiteko zer ezagutza duten; batzuek kaligrafia baino ez dakite, eta Lehen Hezkuntzako 3. mailara dato, eta zer egin behar duzu?”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Eguraldia aurreikusten dutenean, beste 200 satelite dituzte eta 500 pertsona dauzkate lanean, eta baliatzen diren ereduak askoz ere hobekak dira. Baina hemen aldagai-kopurua oso handia da, eta ezin da inolaz ere konpondu. Antolatzea... ba nik neure gain hartzen dut; izan ere, irakasleak ez daude gustura, baina esaten diet, eurek ulertu egiten dute, baina gero eurak daude klasean eta neuk ere eskolak ematen ditut, eta ikusten dut zer gertatzen den. Ez dakit noiz, ez dakit non, ez dakit zer egoeratan, ez dakit ezer. Dakidan bakarra da etorriko direla, ahal dudana egingo dudala”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Zehazki, euskarak eta bere kudeaketak ikasgelaren barruan kezka eta ardura eragiten ditu; izan ere, hizkuntza indartzeko irakasle baten irtenbidea ez da nahikoa izaten, denbora luzeagoz zerbitzu hori behar duten kasuak biderkatu egiten direlako. Gainera, kontuan hartu behar da epez kanpoko matrikulazioen ondorioz zerbitzu honen inguruan egiten den eskariaren gorakada, zeina beti ezin baita zabaldu, Hezkuntza Sailak eskatzeko ezarritako epeengatik.

“Nik hizkuntza indartzeko irakasle bat dut, nik eskatzen dudanean daukadan egoeran pentsatzen; normalean ikastetxe itunduetan ikasturtea hasita izan daiteke, publikoetan lehenago baita. Batzuetan gerta liteke urtarrilean, otsailean... ikasle gehiago etortzea, eta baliabide hori geroago eskatu izana, urtarrilean ditudan irakasleak kontuan hartuta... Beraz, antolatzea ezinezkoa da”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Bada, imajinatu klase bat duzula antolatuta, eta, bat-batean, ume bat heltzen zaizula otsailean, eta euskararik ez dakiela... ederra egin dugu! Orain hasi egin behar dut, eta hogeitaka eta hau dauzkat. Eta orain hutsetik hasi behar dut. Bat-batean bat dator; urte batean gogoratzen dut 2. mailara lau inguru etorri zirela, eta irakasleek bertigoa sentitzen zuten; irakasle horiek oso inplikaturak zeuden edo ongi egin nahi zutelako euren lana, eta, bat-batean, orain zer? Beno, ba ume horiek guztiak 6. mailara heldu dira emaitza bikainekin. Zortea dugu, oso inplikaturak dauden familiak baitatozkigu”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Irakasleek indartze-programaren inguruan egiten duten balorazioa ez da oso ona; izan ere, azken batean, irakasle batek X pertsona ditu, kontziente da ez dela denbora nahikoa, eta eskolara doa, ez du maila egokia, eta hori arazo bat da; izan ere, une honetan ikasle bati, esaterako, euskararen salbuespena ukatu diote, ez

dugu euskaraz ebaluatu behar, ikasten ari da baina ebaluatu gabe, eta ukatu egin diote, ezin da sartu". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ez dugu ahaztu behar herrialde berri batean hizkuntza ezezagunarekin bizitzeak ekar ditzakeen ondorioak gehien jasan ditzaketenak ikasleak eurak direla, eta nahiz eta irakasleek bilatu ikasteko metodorik onena eta, horretarako, arreta banaka eskaini, ikasle berriak nahi duena dela ikasgelako gainerako ikaskideak bezalakoa dela sentitu.

"Zuk zeure erritmoarekin (klasekoa) jarraitzen duzu, bera geldi dezakezu, fitxa batzuk prestatzen dizkiozu, baina, jakina... eta aurten etorri zaidanari gertatzen zitzaion; begiratzen ninduen eta nik zerbait jartzen nion aparte, liburua hartu eta jarritakoa uzten zuen, eta besteena egin nahi zuen. Berak liburua hartu eta nik esaten nion ezin nuela ulertu, baina berak hori nahi zuen. Nahi dutena da gainerakoak bezala sentitu". (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Ikasle berriak nahi duena: ikasgelako gainerako ikaskideak bezalakoa dela sentitu.

Hala ere, positiboki baloratzen da euskararen ikaskuntza, bai eta irakasleen ahalegina ere euren irakaskuntza-zereginen, ikasketekin gogobetez jarraitu ahal izateko. Bigarren mailako hezkuntzara euskara maila egokiarekin sartzeak lagun diezaioke eskola-arrakastan.

"Nire ustez, garrantzitsua da hemendik irteten direnean euskara maila ona izatea, ikasketekin jarraitu ahal izateko; izan ere, bestela, Bigarren Hezkuntzan, institutuen antolamenduagatik, askoz ere zailagoa da ikasteko laguntzak antolatzea. Bigarren Hezkuntzan dena dago askoz ere partzializatuago; tutorearen irudia barreiatuago geratzen da". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Tutorearen irudia

Tutorearen irudia oso positiboki baloratu dute elkarrizketatuek. Beti irudi horren izaera eta joera kontuan hartuta, ikasleei arreta eta dedikazioa eskaintzeko duen zeregina nabarmenagoa da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan; izan ere, bertan harreman hurbilagoa izaten da familiekin, eta ikasleen jarraipen jarraia egiten da. Bere egitekoa ikasleak ikasgelan integratzeko ezinbesteko elementu da. Bigarren Hezkuntzan dagoenean, tutorearen egitekoa baliagarria da ikasleak etorkizuneko eskola-ibilbideak gidatzeko eta banakako jarraipena egiteko; horretarako, prestakuntzako beharrak ebaluatuko ditu.

"Hemen tutorearen zeregina funtsezkoa da. Ume batzuk datoz eta konturatzen zara irakasle horrekin ondo egongo direla. Batzuk harkorrek dira; jolastokira doaz eta neska-mutilak ikusten dituzu... jo! Bakarrik dago! Banoa. Edo jolastu egingo gara... tutorearen egitekoa da, funtsean". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Egia da pertsona bakoitzaren izaerak ere eragin handia duela. Baina egia da tutoreak erabakigarriak direla integrazioan". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Egia da tutoreak erabakigarriak direla integrazioan.”

“Nire ustez, Lehen Hezkuntzako funtzionamendua, zentzu horretan, familia horientzat, askoz ere hobea da; izan ere, zenbat eta denbora gehiago eman pertsona batekin, orduan eta hurbilagoko harremana sortzen duzu, nire ustez. Zu natura-zientzietako irakaslea bazara eta tutorea bazara, ikasle hori astean hiru orduz eta tutoretzako beste ordubetez ezagutzen duzu. Nahiz eta ezagutu, ez du zerikusirik ikasgelan hiru ordu ematen dituzun kasuekin. Eta, hori dela eta, nire ustez, eurek ere indartsu irten behar dute, oinarri sendoarekin”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Eurak orientatu egiten dira ikastetxetik; zerbitzu bat dago, eta tutoreok esan ohi dugu gaitasunik duten, nahi dutena egin dezaketen... Eta, beste kasu batzuetan, beharbada, esan ohi dugu ez dutela goi-mailako karrera bat edo batxilergoa egiteko gaitasunik, baina badutela tarteko modulu bat egiteko gaitasuna. Baina eurei eta beste edonori, guztioi”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Izan ere, guk txosten batzuk prestatu behar ditugu: nola hartzen dugun umea eta nola uzten dugun ekainean, zer bilakaera izan duen... Hori guztia tutoreek prestatzen dute; ikasgai bakoitzean irakasle bakoitzak zer ohar egiten duen... Guztia egiten da txostenen bidez; izan duen bilakaera ikusi eta bide onetik goazen begiratzen da, edo umeak atzera egin ote duen; izan ere, 1. mailan dituen premiak beharbada ez dira 2. mailan dituen premien parekoak”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Harremanak familiekin

Irakasleek familia etorkinekin harreman normalizatua dutela ikusten da. Esaten digute tratu bera ematen zaiela, bertoko familiak izan edo jatorriz atzerrikoak, eta sortzen diren harremanak ikasleen onerako direla euren hezkuntza-prozesuan. Era berean, harremanaz egiten duten balorazioa positiboa da; izan ere, euren dei egiten eta bilerei erantzuten diete, eta ez dute horretarako arazorik jartzen.

“Irakasleak atzerriko familiekin duen harremanean gauza bera egiten da; familiekin urtean bi aldiz hitz egiten du, gutxienez, bai eta beharrezana ikusten duenean ere. Osteguna bisita irekiaren eguna da, eta arazoren bat atzematen denean, telefonoz deitzen zaie. Hori horrela, eskola honetan ondo egiten da lan; umeek aurrera egiteko kezka dago, ez zaie erantzukizunei muzin egiten”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Oso ona; hitzordua ematen zaien bakoitzean, etorri egiten dira; ikasturtean zehar zenbait aldiz ematen zaie hitzordua, eta gero, zerbait berezia ikusten bada, saiatzen gara gurasoen laguntza izaten”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Harreman normalizatua ere begiratu behar da irakasleek familiekin erakusten duten jarrera motaren ikuspegitik, eta alderantziz. Familiekiko tratuan isla daitkeen kultura- eta ideologia-ahalmenaren inguruan hausnartzen da.

“Ikusten duzunean nola hasi funtzionatzen, nola ikusten dituzun ikasleak, harreman pertsonalak ezartzen dituzu, eta familiekin harremanak; dena normalizatzen da eta askoz ere lasaiago doa. Dena da eduki dezakegun feelingaren araberkoa eta nola

konpontzen garen familia eta ikasleekin, eta horiek eskolarekiko duten jarrera eta geuk eurekiko duguna. Izan ere, sarritan, bada, beno, irakasleak ere hezkuntza baten ondorio gara; bakoitzak ideologia oso zehatza dugu...” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Aldi berean, atzerriko familien jarrera irakasleekin... Ondo hartzen dute euren lanbidearekin duten errespetua eta eurengana jotzen dutenean erakusten duten hezkuntza baloratzen dutenek. Beraz, nahitaez agertzen dira elkarriketetan antzina bertoko familiek zuten jarreraren inguruko desira.

“Gurasoekiko (atzeritarrek) harremana bestelakoa da; guztiz desberdina. Ni sentitzen naiz... 36 urte eman ditut irakasle-lanetan, eta auzoko guraso euskaldunekin neukan harremanak ez du zerikusirik jende honekin dudanarekin. Egundokoa naiz. Pasteltxoak ekartzen dizkizute... beste kontu bat da. Lehen bezala da; lanean hasi nintzenean, irakasleari zor zitzaion errespetua; berak esaten zuena hala zen. D ereduan ez; D ereduan eztabaidatu egiten dizute; adoretzu ugari dago, eta, orduan, diozu: talde berekoak gara, gurasoak eta irakasleak alde berean gaude, biok nahi dugu eta gauza bera. Bada, horiek ederki ulertzen dute”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Ez, egia esan, nik beti diot: kanpotik datozen familia guztiak, jende guztiak, irakasleak eta ikastetxea asko baloratzen dituzte. Batzuetan, ez dut esango bertokoek baino gehiago, baina askotan ikastetxea, irakasleak zalantzan jartzen dira; eta, ordea, familia mota horrek normalean askoz ere errespetu gehiago du edo irakasleak diotenari kasu gehiago egiten dio, bai eta ikastetxeak esandakoari ere. Alde horretatik, asko baloratzen dutela esango nuke. Alegia, ez dago kexarik... Egia da kexa puntualak egon daitezkeela, arazoak, egunero ordu asko egiten ditugu bertan, beraz, logikoa denez, beti daude arazoak, gaizki-ulertuak... Baina ez dago arazo berezirik eurekin”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Ni esaten ari naiz filipinarrentzat bigarren ama zarela; nik bi umeren amabitxi izan behar izan dut, eta nik diot: baina, ez naiz katolikoa eta! Baina horrek ez du zerikusirik, irakaslea zarelako eta amabitxia izan behar duzulako. Eta, beraz, jaunartzera joan behar! Denek, eta magrehtarrek etxean eginiko pasteltxoak ekartzen dizkizate ia astero, eta filipinarrek, esan dizudan bezala, biren amabitxi izan behar izan dut, eta fideoak... bidaltzen dizkizute, esaterako... jateko opari ugari” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“

“Ni esaten ari naiz (nazionalitatea)-(r)entzat bigarren ama zarela; nik bi umeren amabitxi izan behar izan dut, eta nik diot: baina, ez naiz katolikoa eta! Baina horrek ez du zerikusirik, irakaslea zarelako eta amabitxia izan behar duzulako. Eta, beraz, jaunartzera joan behar! Denek, eta (nazionalitatea)-ek etxean eginiko pasteltxoak ekartzen dizkizate ia astero, eta (nazionalitatea)-ak, esan dizudan bezala, biren amabitxi izan behar izan dut, eta fideoak... bidaltzen dizkizute, esaterako... jateko opari ugari”

(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

”

Oro har, jatorriz atzerritarrak diren familiekiko harremanak gogobetetsuak izan arren, zailtasunak ere eragiten dituzte.

Nahiz eta, oro har, jatorriz atzerritarrak diren familiekiko harremanak gogobetetsuak izan, zailtasunak ere eragiten dituzte. Oztopo nagusiak dira familia horiek hasieran duten lotsa, hizkuntza ez ezagutzea, kultura-gako desberdinak eta ordutegi aldetiko bat ez etortzeak; horiek guztiek zalantzan jartzen dute gurasoek seme-alaben hezkuntzan duten interesa. Alderdi biek, irakasle eta familiek, elkar ulertzeko egiten duten ahaleginaren bidez, azkenean harremanak gogobetegarritzat jotzen dira.

“Hasieran erdi lotsatuta datoz, baina Haur Hezkuntzan, tutorearen eta gurasoen arteko harremana estuagoa denez, jarraian agertzen dira oso eskertuta, zuk ondo hartzen dituzula eta eurak ulertzeko ahalegina egiten duzula ikusten dutenean”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Oso ondo, oso normal, guztiekin; nik ditudan hirurekin oso ondo. Eta ikastolan ez da arazorik egoten. Arazo gehiago dago azken orduan sartzen dizkizutenekin, honekin bezala, aitarik eta amarik ez zeukanarekin eta urruneko izaba batekin bizi zenarekin, ez dakizu-eta berarengana zelan hurbildu”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Hala ere, hizkuntzaren oztopoa aipatzen dute elkarrizketatutako pertsona batzuek, familiekin harreman arina dagoenean. Ikastetxe askoren ustez, irtenbidea da borondatezko itzultzaileak izatea, dela ikastetxeko irakasleen artean, dela kanpoko langileen artean, hasierako harremanetan laguntzeko. Topaketa horietan pertsona bat itzultzen edukitzeak dakarren laguntzak ere alderdi negatiboa du; izan ere, ez du aukerarik ematen konfiantzan edo konfidentzietan oinarritutako harremanik sortzeko.

“Izan ere, batzuetan ez duzu ulertzen (...); batzuetan ingeleseko irakasleari eskatzen diozu laguntza, baina, beno, zuk azkenean ahalegina egiten duzu, eta orduan irekitzen da pixka bat, hasieran pixka bat lotsatuta baitatoz”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Zail egiten zaigu, egia esan, hizkuntza ere... Atzematen ari gara familietan aitik dakiela gaztelaniaz hitz egiten, normalean. Amek gutxiago hitz egiten dute, gutxiago irten direlako edo harreman gutxiago dituztelako. Eta datorrenak tutoreekin edo nirekin hitz egiten du; eskolarekin komunikazioa amak izaten du, eta amarekin zaila izaten da, hizkuntzagatik. Egin izan ditugu bilerak itzultzaileekin; beharbada er-kidego musulmaneko emakume erreferente bat badago, berarekin hitz egiten dugu eta bileretara arabieraz hitz egiten duen pertsona batekin dator, eta horrek erraztu egiten du, ez? Baina... gauza batzuez hitz egin behar badugu, ba beste pertsona bat aurrean egotea eurentzat ez da eroso. Beraz... ez dakigu nolakoak diren. Eta pentsatzen dugu ez gaituela ulertu; gauza bat eskatu eta ez dit ekartzen... Egia esan, zaila da”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Familia batzuekin zaila da harremanak izatea, hizkuntzagatik ere bai...” (Hezkuntza ez-formala)

Familiekin harremana izateko zailtasunen arrazoietakoa bat da ordutegiak ez datozela bat, bilerak egin ahal izateko ikastetxean, eta ez hainbeste seme-alaben hezkuntzagatiko interes faltagatik. Irakasleek uste dute akordio jakinak

lor daitezkeela, ahalik eta irtenbide onena bilatzeko, baina ezaugarri orokor bilakatu gabe.

“Egia da batzuetan arazoak ditugula harremanetan jartzeko ikasle etorkinen familiekin; izan ere, ordutegi konplikatuak izaten dituzte. Eta bilera batzuetara, esaterako, ez da inor etorri izan; esaterako, hizkuntza indartzeko dela-eta gauzak nola planteatu azaltzeko bilera bat egin genuen, eta 25 bat egongo ziren egoera horretan, baina bakarra etorri zen. Badakigu kontua ez dela ardurarik ez dutela, nahiz eta egongo den ardura ez zaionik ere, baina kontua da lanean sartzen direla batek daki zer ordutan eta irteteko ordua... eta ezin dute. Saiatzen zara moldatzen, baina, jakina, ezin dituzu bilerak 20:30ean edo 21:00etan egin. Bada, inoiz, egin dezakezu bilera ordu horretan, baina sistematikoki, ez”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Irakasleentzako prestakuntza

Elkarrizketetan hitz egiten da, eta aurretik ere beste ikuspuntu batetik aztertu da, kulturartekotasunean, ikasgelako aniztasunean, kultura-urratsen ikaskuntzan eta beste hainbat alderditan oinarritzen diren prestakuntza-saioak dauden ala ez dauden, edo beharrezkotzat jotzen ote diren. Hainbat jarrera ikusten dira: batzuek baieztatzen dute ez dutela prestakuntzari jasotzen; beste batzuek uste dute nahikoa dela ordura arte eskainitakoarekin; eta beste batzuek uste dute beharrezko izango litzatekeela migrazioen eremu horretan prestakuntza areagotzea edo jasotzea, baina ez dakite nola.

“Bada, zehatza, ez”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nire ustez, prestakuntza beharrezkoa da irakasleentzat, baina, beste alde batetik, nola antolatu behar dira prestakuntza horiek?”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Eta gero, emozionalki, nola lagundu? Uste dut alderdi horretan irakasleak pixka bat sentsibilizatu ditugula, ez? (...), hori guztia lantzen den atala duen tutoretzen programa baten barruan egon ahal izatea”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Prestakuntza? Bai, baina, zelan? Ez dakit”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Ikastetxe batzuetan, hizkuntza indartzeko irakaslearen irudia da Berritzeguneetara zuzentzen dena kulturartekotasunean oinarritutako prestakuntza berezia jasotzera. Gero, edukiak eta materialak ikastetxeko gainerako irakasleekin partekatzen ditu. Oso positiboki baloratzen dute Hezkuntza Saileko zerbitzu honek ematen duen laguntza, zeinak lagundu egiten baititu eremu horretan beharrianak dituztenean.

“Prestakuntza eskaini zuten bere garaian, HIPIen bidez”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“HIPIa mintegi batera doa Berritzegunera, eta bertan gure zalantzak argitze dira. Gero materiala asko partekatzen da, guztion artean. Ikastetxe honetan ondo konpontzen gara horrela”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Gero egia da Berritzeguneek asko lagundu digutela errealitate honetan, errealitateari aurre egiten, materialak, esperientzia, laguntza praktikoa... baliatuz”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Bertan HIPIlek hilerok bilerak dituzte Berritzegunearekin, eta bertan jarduteko urratsak, materialak, informazioa... ematen dira. Bertan badago Berritzegunearen aholkularitza, eta alde horretatik oso garrantzitsua da. Badago, bestalde, Berritzegunearen web-orrialde bat, eta, bertan, HIPIlek baliabideak eta materialak aurki ditzakete horiekin lan egiteko. Hizkuntza indartzeko irakaslea ere, normalean, harremanetan egoten da tutoreekin, eta eurekin hitz egiten du; izan ere, ikasleen ikasgelako tutoreak dira. Beraz, irudi garrantzitsua da, jarraipena egiteko”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Baina badaude, bestalde, kulturartekotasunaren eremuarekin beti lotuta ez dauden gaien gaineko prestakuntza duten ikastetxeak. Aldi berean, prestakuntza horiek ikasleei jardueren bidez eta irakasleek sortutako ekintzen bidez iristen zaizkie. Horrela, edukiak ikasleen onerako erabiltzen dira.

“Oro har ez, baina beharbada badago ezer egin duenik, baina bere kabuz”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Aurten balioetan oinarritutako prestakuntzarekin aritu gara; Eusko Jaurlaritzak eskaintzen zuen, errespetuarekin, enpatiarekin, tolerantziarekin eta beste zenbaitekin lotuta, eta, horien artean, aniztasunaren gaiarekin lotuta ere bai. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Irakasleak etengabe ari dira prestatzen, ikastetxeak kudeatuta. Hainbat motatako prestakuntza da: atzerritarrei buruzkoa, dislexiari buruzkoa... dena doa orientatzen”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Ez dugu inolako berariazko prestakuntzarik kulturartekotasunaren gainean. Egiten dute lankidetzaren proiektua. Eta gero, pastoraltzatik, egiten dituzte horri zuzendutako gauza asko, baina...”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Beraz, gero pentsatzen dugu hobe zela guk jasotzea prestakuntza eta, nolabait, gure jardueretara egokitzea; eta hori ari gara egiten. Eta hitz egiteko gai bat, bada hori, kultura desberdina da, nola kudeatu”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

Ikasleen itxaropenak eta etorkizuna irakaslearen ikuspuntutik

Betetzeko helburu batzuk ezartzen dituen edonork iritsi nahi du helburu horietara ahalik eta modu arrakastatsuenean edo, gutxienez, arrazoizko gutxieneko arrakasta erdietsita. Irakasleek ikasleengan duten itxaropenak eragina du, neurri handiagoan edo txikiagoan, ikasleen jardunaren emaitzetan.

“Aurreko egunean zuzendariarekin hitz egiten nuen, maila altuko irakasleak onartzeaz. Ez, ezin dugu hor geratu. Neskato edo mutiko honi begiratu behar diogu, ea zer lortuko dugun berarekin, zer egingo dugun berarekin. Lortuko dugu 6. mailan

bere lagunekin joatea ikastera; bestela, uste dut okerbideetik daramagula. Ikastetxe bat bilatu behar diogu, non eskolako arrakasta bermatuko baitzaion, erabateko porrotaren ordeztu. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Elkarrizketatuei eskatu genien egungo ikasleak irudikatzeko etorkizun ez urrunegi batean. Alde batetik, gehiengoak bat egiten du: Euskadin jarraituko dute bizitzen; lurralde honetan izango dute bizilekua. Hezkuntzari eta/edo lanari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek ikasketen etorkizunaz hausnartzen dute, eta ikasleek ikasten jarraituko dutela uste dute. Halere, ikasleek Lanbide Heziketara bideratutako hezkuntza-ibilbidea egingo dutelakoan daude irakasleak. Bestalde, antzeman dute atzerriko familiek bestelako modu batean baloratzen dutela hezkuntza-sistema goiztiarrena: ez diote tokiko familiek bezainbesteko garrantzirik ematen.

“Ikasten ikusten ditut. Oro har, hemen, DBH amaitzen duten guztien % 90 instituturara doaz. Beste batzuk ozta-ozta ari direla ikusten da: graduatua lortzen dute, eta esan egiten diezu: tira, hobe modulu batera bazoaz. Normalean, ahalegina egiten da ibilbide bat egin dezaten. Norabide bat ezartzeko ahalegina egiten da: ikusten duzunean bati kostatzen zaiola, ez diozu batxilergora joateko esaten; modulu bat begiratzen dugu, zer gustatzen zaizun...”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Nik esango nuke hemen biziko direla; oro har, bai. Ikasketei dagokienez, bada, azken bost urtekoek nik uste dut baietz; izan ere, ikusten duzu familia batzuek interes handia dutela... Tira, (ikastetxearen izena) ikastetxean eskakizun maila jakin bat dute jada; bestela, ez dut uste hainbesterako zerarik izango luketenik hara bidaltzeko. Halaber, handik etortzeak ez zaitu behartzen hara joatera. Nolanahi ere den, gehienak (ikastetxearen izena) ikastetxera joan dira. Hobeto edo txarrago, baina jarraitu egiten dute. Nik uste dut euren gurasoek ikas dezatela nahi dutela, baina kontua da haur diren artean ez dutela gure kontzeptua... Sarri esan behar zitzaion hau ez dela haurtzaindegia. Han ezberdin izan behar du. Eurei kostatzen zitzaien ulertzea hona ez datozela bakarrik jolastera eta plastilina egitera. Gerora, epe luzera, ikusi egiten duzu gurasoek nahi dutela seme-alabek gaitzeta, gurasoak iritsi direna baino harago iristea seme-alabak, etorkizun hobe izan dezatela, nahiz eta beharbada ikasketek ez dizuten hori bermatzen... Baina,

“

“Asko ikusten ditut euren lekuetara itzultzen. Batzuk, hala nola ... (ikasle bat) oso txarto ikusten ditut. Kinki eginda ikusten dut, munduarekin eta bizitzarekin suminduta. Beste batzuk ondo ikusten ditut. A ... (ikasle bat) dela eta... Nik neskato hori... Neskato hori maitagarria da. Neskato horrek bide zuzena hartzen badu, kontuak ondo ateratzen bazaizkio, bidean aurkitzen duena... maitagarria izango da, eta hemengo egoera guztietan integratuko da, izaera bikaina duelako. Halaber gertatuko da ... ikaslearekin: kubatar baten alaba da eta izaera ona du. Nik ikusten dut klasearen ehuneko bat oso ondo integratuko daitekeela, baina ez dakit... Beste talde handi bat ez”.

(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

”

eurek badute ideia hori... Nik baietz uste dut. Gainera, unibertsitatera sartzeak arrakasta-gako bat emango dizu". (Itundua, Haur Hezkuntza)

Bigarren Hezkuntzako irakasleak bat datoz Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen ikuspegiarekin: Lanbide Heziketa hautatzeko joera izango dute ikasketekin jarraitzeko, ez hainbeste unibertsitaterakoa. Euren argudioen oinarrian daude ikasleek jatorritik dakarten hezkuntza maila txikiagoa, ikasketen inguruko motibazio txikiarekin batera. Nolanahi ere den, ezberdintasunak ezartzen dira jatorri geografikoaren arabera eta, horrenbestez, hezkuntza-ibilbideak ezberdinak izango direlakoan daude. Laneko etorkizuna dela eta, ez da hautematen oso ezberdina izango denik ikasle etorkinen eta tokikoaren artean: denek izango dituzte zailtasunak lana bilatzean eta lan-baldintzekin.

"Nik uste dut hainbat irtenbide izango dituztela. Oso gai ikusten ditut. Asko lan-tzen ari gara motibazioa eta jarraitu beharra: hori da garrantzitsua. (...) Eurek ikusten dute: autoa edukiko dut, ez dakit zer, etxe bat edukiko dut... Eta nik galdetzen diot: zerekin ordainduko duzu? Badakizue zer-nolako ahalegina egiten duten zuen gurasoek paga emateko? Oso erraz ikusten dute guztia". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Hainbatek Lanbide Heziketara jotzen du, aipatu dugunagatik, eh? Dakarten kultur mailagatik. Latinoamerikakoek kultur maila apala dakarte. Jakina, euren itxaropenak gradu ertain batera doaz sarri, eta eurentzat lorpen garrantzitsua da. Baita goi-mailako gradu batera ere. Batxilergora ere badoaz, baina portzentajejan, gehiago doaz Lanbide Heziketara. Tira, Ekialdeko herrialde batzuetakoek, kultur maila handiagoa dutenetakoek, kultur maila handiagoa dakarte. Batxilergoa egin duten ikasle asko ditugu. Non ikusten ditudan? Tira, dauden lekuan. Guk jarraipena egiten diegu askotan; are gehiago, askotan bisitan etortzen zaizkigu batxilergoa amaitu ondoren, ikasten amaitu dutenean". (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

"Nik Lanbide Heziketako lanetan ikusten ditut. Gehienak ez ditut irudikatzen unibertsitatean ikasle. Nik ezagutzen ditudanak, eh? Ziklo ertainak egiten ikusten ditut. Euren jatorrizko herrialdeetara itzultzen... gehienak ez". (Hezkuntza ez-formala)

"Nik oso txarto ikusten ditut denak. Uste dut etorkizuna nahiko iluna izango dela oro har; ez dirudi kalitatezko lanik izango dutenik. Batek ere ez. Halere, galdetzen duzuna bada ea batzuk ugazaba ikusten ditudan, eta beste batzuk indio... Bada, ez. Denak ikusten ditut berdin. Batzuek beste batzuek baino aukera gutxiago izatea... Ez dut uste. Ez dut uste lanean etorkizun txarragoa izango dutenik etorkin edo etorkinen seme-alaba izateagatik. Uste dut bakoitzak duen prestakuntzaren araberrakoa dela kontua, ez besterik. Uste dut ordainsariak eta laneko baldintzak txarrak izango direla". (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Laburpena

Irakasleak ez dira ados agertzen irakasleriari buruz hitz eginda orokortu nahi denean; zehazki, etorkinez hitz egitean. Nolanahi ere den, saihestezina da ikasgelan identifikaturiko jokaerak eta jarrerak ikasleen jatorri kulturalen arabera sailkatzea. Hori ez da larria, aldez aurretik epaitutako jarreretarantz beste pausu bat ematen ez bada. Ikastetxea inguruko errealitate sozialaren isla da; beraz, irakaslea, gizarteko kide denez, eskolako ingurura egokitutako estereotipoen transmisore da. Hori dela eta, mesfindantza eta konfiantzarik eza sortzen da irakasleen artean, eta tokiko ikasleen aldeko jarrera har dezakete, etorkinen aldean. Dena den, azterlanak jasotzen duenez, maila sozioekonomikoak bideratzen du immigrazioarekiko tolerantzia eta begikotasuna, hala testuinguru sozial zabalean nola ikastetxeetako testuinguru mugatuagoan.

Irakasleei zalantza sortzen zaie hezitzaile gisa egiten duten lanaz. Ikasle etorkinak ikasgeletara iristeak irakaskuntza-metodoak berrikustea eragin die, zalantza egitea euskara sendotzeko eta integrazio soziolinguistikoa lortzeko modu onena ikasgela eredugarritik bereiztea ote den, edo tokikoen eta etorkinen arteko bereizketa sustatzen ari ote diren.

Batzuek beharrezkotzat jotzen dute irakasleei prestakuntza ematea kultur aniztasunarekin lotutako alderdiez, baina, bestalde, hautazkotzat jotzen duten iritziak ere badaude, eta profesional bakoitzaren hezkuntza-konpromisoari eta hezkuntza-prozesuan esku gehiago hartzeari dei egiten diete. Beste alde batetik, eta gaitasunak ikasteari eta barneratzeari dagokionez, beharrezkotzat jo da babes emozionala ematea migrazio-esperientziaren bat bizi izan duten haur eta gazteei; izan ere, egoera traumatikoak bizi ahal izan dituzte, eta ikastetxeetatik eman behar zaie erantzuna.

Irakasleek badakite beren ikasgeletara ikasle etorkinak heltzeak beren borondatezko inplikazio aktiboa dakarrela, kalitatezko hezkuntza bermatuko bada. Baloratu egiten da, horrenbestez, irakasleek egoera zailetan irauteko ahalmena. Halakoetan, aparteko denbora eman behar dio bere lanari, eta lan horrek ez du beti aitorpen ekonomikorik. Kasu gehienetan, zeregin hori pertsona bereberei dagokie. Ikasle etorkinek gabeziak izan ditzakete gai batzuetan, eta irakasle horiek eman ohi diete babesa ikasgelako ohiko erritmotik kanpo. Halere, ahaleginek ez dakarte beti espero den emaitza. Zailtasun handiagoak ageri dira hezkuntza-jardunean, ikasleak helduagoak diren heinean, hala nola ikasle berriak ikasgelara egokitu behar direnean, materialak berrikusi behar direnean edo ikasleen arazo pertsonalak lantzean. Epez kanpoko matrikulazioek kezka berezia eragiten dute irakasleen artean; zehazki, ikasturtean zehar bolumen handia jasotzen dutenen artean eta irakasgaiak euskaraz ematen dituztenen artean; izan ere, lan-karga handiagoa da, eta aparteko lana egin behar dute, programak eta klasearen erritmoa berriz egokitzeko. Hizkuntza Indartzeko irakaslea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa zerbitzu horrek eskatzen duen

benetako estaldura emateko. Irakasleek hautematen dute gutxieneko euskara maila bermatzearen arduradun direla, eskolako arrakastarantz egiten den bi-dearen zati gisa.

Tutoreak eta ikasgelan erreferentziatzeko pertsonatzat duen zeregina oso ondo baloratzen da, ikasleenganako arretagatik eta lanagatik. Batzuek kultur aniztasunaren alderdiei buruzko prestakuntza eskatzen dute, eta beste batzuek ez dute beharrezkotzat jotzen. Hizkuntza Indartzeko irakasleak Hezkuntza Sailetik jaso ohi duen prestakuntzarekin ordezkatu ohi ditu irakasleen beharrianak.

Oro har, irakasleak begikotasunean oinarritutako harremana izan ohi du familiekin, izan tokikoak, izan etorkinak. Familia etorkinek irakasleen aurrean duten errespetu-jarrerak gogorarazi egiten die lehen tokiko familiek zutena. Halere, dena ez da hain erraza: hizkuntza-hesia zailtasun da familiekin komunikatzeko, eta topaketetan interprete bat izateak alderdien arteko harremana konfiantzazkoa izatea oztopa dezake. Halere, oztopo hori gainditu ondoren, herabetasunarekin eta jatorrian ezagutzen direnak ez bezalako kultur gakoetara egokitzearekin batera, harremana asegarria da. Topaketak ez gauzatzea ez da gurasoek seme-alaben interesik ezaren ondorio, ezpada ordutegiak bateratzeko zailtasunak bezalako zailtasunen ondorio.

Irakasleek egungo ikasle etorkinengan duten itxaropenari dagokionez, Euskadiko bizilagun irudikatzen dituzte, betiere aintzat hartuta ez dakitela etorkizuneko familia-proiektuak beste lurralde batera eramango dituen. Alde batetik, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek uste dute ikasten jarraituko dutela, baina Lanbide Hezkuntzara bideratutako hezkuntza-ibilbidea egingo dutela uste dute. Beste alde batetik, Bigarren Hezkuntzako irakasleak bat datoz: Lanbide Heziketa hautatuko dute ikasten jarraitzeko, ez hainbeste unibertsitateko ikasketak. Hautematen dute ikasle etorkinek, oro har, hezkuntza maila eta ikasketen inguruko motibazio txikiagoa dutela, nahiz eta bestelako egoerak ere gerta daitezkeen jatorriko eremu geografikoen eta Euskadin bizitzen igaro duten denboraren arabera. Laneko etorkizunari dagokionez, uste da lana aurkitzeko zailtasunak eta lan-baldintza txarrak berberak izango direla hala tokikoentzat nola etorkinentzat. Iritzi horren oinarrian daude krisi ekonomikoaren ondorioak, zeinek zuzenean erasotzen baitioten enpleguari eta enpleguari atxikitako eskubideei.

4

Ikasleak

Ikaslearen irudia da zenbait egilek “triangelu didaktiko” deitzen dutenaren erpinetako bat, irakaslearen eta ezagutzaren ardatzekin batera. Hirurek jarduten dute hezkuntza-sistemaren erdigunean, eta esku-hartze didaktikoari ematen diote bidea. Ikasleak helburu du ikasgelan eta ikasgelatik kanpo irakasten dena ulertzea, ikastea eta asimilatzea, eta apurka-apurka garatzea, harik eta autonomia handiena lortzen duen arte ikasketa-prozesuan.⁶

Ikasgeletako kultur aniztasunari dagokionez, elkarrizketatutako irakasleek aztertu egin dituzte euren ikasleen artean identifikatzen dituzten berezitasunak, hala nola irakasleek ikastegietan egoteak eragiten dituzten sentimenduak, ikastegiekiko egokitzapena, euskarazko hizkuntza-gaitasunak lortzeko prozesua eta garapena ikasgelan, ikasleek euren parekoekin dituzten harremanak, ikastetxeko eta aisialdiko bizikidetzak, nortasunaren erakuntza, eta ikasleek euren etorkizunaz duten itxaropena.

“Baina, kolektibo honetan hainbat gauza batzen dira. Hizkuntzarena, familia batzearena batzuetan, guraso bakarreko familiena, ordutegiarena, kulturarena ere... Nik uste dut kolektibo garrantzitsua badago, eurentzat sustraiak dauden lekuan daudela, eta azken batean ni hona banator eta erreferentziatzko 15 pertsona badi-tut, denak ere nire herrialdekoak, bada, batu egiten naiz. Ez dakit zer egiten badute, eurekin egiten dut bat. Ez da izan arazo zera... Bizikidetzari dagokionez, ez da alderdi horri lotutako arazorik egon”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Batzuek uste dute Lehen Hezkuntzan normalizatuta dagoela eskolako egokitzapena, ikasle iritsi berriek gutxiago jakin arren ezagutzen ez dituzten gaiak eta inguru linguistikoari buruz. Horrek, batzuetan, hutsetik abiatu beharra dakar.

⁶ Sánchez, M. J. eta A. Fernández-Sánchez (2010) “El profesor y el alumno. Figuras clave en el proceso de enseñanza-aprendizaje del sistema actual y en el EEES”, in *Odisea*, 11 zk., 259-268 or.

“Nahiko ondo egokitu ohi dira, klasean behintzat. Argi dago zer kostatzen zaien: ez dakite hizkuntza, gaietan ere atzeratuta etorri ohi dira eta, gutxi gorabehera, hutsetik abiatu behar duzu”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Eskola-elkartea osatzen dutenek ezezagunari dioten beldurra elkarrizketetan bildutako hausnarketa da. Aurreko ataletako batean erlijio-aniztasunarekin lotzen bazen ere, kasu honetan hausnarketak etorkinen inguruko aurrejuzguak ditu oinarri. Pertsonen arteko interakzioa hasten denean (kasu honetan ikasleen artean, eta ikasle eta irakasleen artean), beldurrak desagertu egiten dira.

“Zer gertatzen da? Tira, hemen beldurra dago, berezko beldurra: ezagutzen ez denak eragiten duena. Zuk badakizunean zer den neska-mutiko horiekin lan egitea, galdu egiten dituzu zenituen estereotipo guztiak. Hori gertatzen da bai irakasleen artean, bai hemengo familien artean. Immigrazioerik gabeko ikastetxeek beldurra diote ezagutzen ez dutenari (Publikoa, Bigarren Hezkuntza).

“Adibide bat ematearren: 12 pertsona ikusten badituz eta magrebtarrak badira, beldur izan naiteke; alabaina, hurbildu egiten banatzaie eta nirekin hitz egiten badute eta nirekin badaude, beldur horiek galtzen ditut arian-arian. Bai, beldurrak egon dira eta egon badaude, ez dugu ezetzik esango, gizartean dagoena eskolan sartzen delako”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Hizkuntza: euskara

Elkarrizketatutako irakasleen artean zenbait ikuspuntu aurkitu ditugu, euskara ulertzeko eta ikasteko erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren inguruan. Batzuek uste dute atzerriko ikasleek erraztasuna dutela ikasteko, baina beste batzuek aurkakoa hautematen dute; hots, euskara zailtasun bihurtzen dela are ikasten amaitzeko.

Irakasleen artean zenbait ikuspuntu aurkitu daitezke euskara ulertzeko eta ikasteko erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren inguruan.

“Normalean erraztasuna dute. Dena den, beharbada latinoamerikarrei kostatzen zaie gehiago, beste hizkuntza bat duten hauei baino gehiago, euren familiek beste hizkuntza bat darabiltelako. Latinoamerikarrek, aldiz, ez dute zailtasunik eta gaztelaniaren babesa dute, eta apur bat gehiago kostatzen zaie”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Ikasle batzuk ikusi ditugu euskararekin... txarto. Euskaraz ez ikastea aholkatu diegu, ghettorik ez dagoen ikastegiak bilatu ditugu, Bigarren Hezkuntza ere izugarria delako. Baita pribatura ere: hori nire printzipioen kontra doa, baina... (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Aurretik aztertutakoarekin bat, zenbait faktorek eragiten dute beste ikastetxe batera eta ikastetxe horretan irakasten diren hizkuntzetara egokitze prozesuan, hala nola hizkuntza berri bat ezagutzen hasten diren adina, aurretik izan duten eskolaztea eta are ikasleen jatorri geografikoa. Txinatarren kasu zehatza deigarria da; izan ere, irakaskuntzako zenbait profesionalak nazionalitate hori aipatzen dute, hala euskara ikasteko ahalmen handia

eta lastertasuna goraiatzeko nola euskara eta gaztelania ulertzen lortzeko dituzten zailtasunak adierazteko.

“Esate baterako, haur bat Lehen Hezkuntzako 2. mailara iristen bada eta alde zurririk eskolatze ona izan badu, eta hori funtsezkoa da... Bada, batzuetan ikusten duzu haur horiek erraztasuna dutela hizkuntzak ikasteko, komunikatzean estrategia asko dituztelako. Ikusten duzu urtebetean ikasgelan gera daitezkeela. Baina haurtoak ditugu... 8 urteko haurrak hartu ditugu, irakurtzen eta idazten ez zekitenak... Halakoetan, eskolako ohiturarik ez badute edo eskolara joan ez badira, ezin duzu programa bera egin eurentzat. Hitz egiten dutenak... Ikasle txinatarren bat izan dugu... Bi hizkuntzen ikasketa ez da kontu bera. Neskato horrek euskaraz lau hitz esan orduko, 6 hilabete ziren igaroak. Neskatoak ikastetxea aldatu zuen; are gehiago, nik aholkatu nuen B eredura aldatzeko, ezin zuela ikusi nuelako”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Orain Txinako beste ikasle bat dugu, eta asko kostatzen zaio, asko, gaztelaniaz; euskara aparteko kontua da”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Txinatarrek itzelak dira hizkuntzarekin. Nik izan ditut txinatarrek A eremuan euskaraz hitz egiten. Euskaraz hitz egiten dute hartu egin dutelako”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Latinoamerikarrek arazoak dituzte hizkuntzarekin, baina ulertu egiten dizute. Badaoz marokorrek eta frantsesa eta ezer gutxi gehiago... Aurten ere txinatar bat dugu. Nik ahalegina egin dezaket mantsoago hitz egiteko, gaztelaniaz, baina nik txinatar ez dakit ezer. Nola egokitzen zara? Bada, tira, zortea duzu, oso azkar egokitzen direlako, baina tira, azterketak egokitu behar dituzu; euren egoeran jarri behar duzu zeure burua”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ikasle etorkin iritsi berriek hizkuntza berri bat ikasteko egiten duten ahalegina agerikoa da, eta hala hautematen da irakasleen inguruan, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan. Aitzitik, ikasle batzuen artean urte gehiagoan irauten dute zailtasunek, baita hizkuntza indartzeko orduak hartzeko aukera galdu dutenean ere. Zenbat eta handiagoa izan aurre egin beharreko hezkuntza-etapa, are handiagoak dira irakasgaiekin jarraitzeko zailtasunak.

Lehenago ikasgela kudeatzeko moduak aztertzean aipatu ditugun egokitzapenak beharrezkotzat jotzen dira, euskara ulertzeko arazoak dituzten ikasleen bolumena ikusita. Horregatik erabiltzen dira materialak gaztelaniaz, esate baterako. Haur Hezkuntzari dagokionez, ez da zailtasunik atzematen horren inguruan; beraz, ikasgelan egiten den lanean ez da zertan egokitzapen berezirik egin.

Hezkuntzari dagokionez, ez da zailtasunik atzematen horren inguruan; beraz, ikasgelan egiten den lanean ez da zertan egokitzapen berezirik egin.

“Kasu oso zehatz batzuetan, iritsi berri direnak... Nahiz eta 5-6 igaro arren arazoak dituztenak ere badauden... Kanpotik datozenentzat hizkuntza erabat arrotza da. Batzuk orain etorri dira eta hizkuntza indartzeko irakaslea dute. Halakoetan, irten egiten dira euskara-orduetan, baina jakina, irakasle hori ez da beti hor egongo, uste baita B eredura etorri diren haur horiek ikasgelara egokituko direla. Ezin duzu beti hizkuntza indartzeko irakaslea izan; izan ere, baduzu seme-alabak beste eskola batzuetara eramaterik. Aurrera egiten duten heinean irakasgai gehiago dago euskaraz, eta, jakina, ikasleak galduta daude. Beharbada batzuk euskaraz egiten

ari dira irakasgaia, baina liburua gaztelaniaz dute, eta azterketa euskaraz egiten da. Hainbat ikastetxeren funtzionamendua da hori, azkenean egokitu egin behar duzulako. Aniztasunaz hitz egiten dizutenean zuk baietz diozu, baina ezin diezula dena euskaraz eman, gaztelania ere ez dutelako ulertzen, gaztelaniaz erabiltzen dituzun esapide asko ulertu ere ez dituztelako egiten. Kosta egiten zaie gaztelania ulertzea; bada, pentsa euskaraz”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Lehen naturala zen inmertsio linguistikoa. Kosta egiten zitzaien, baina... Gainera, lehen bat edo bi ziren, baina apurka-apurka ugaritu egin dira”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Gaztelania ulertzen dutenean bai erraza! esaten dute, baina euskarara itzultzean buruz ikasten dute zerbait, baina ez dakite zeri buruz ari diren. Gurasoekin hitz eginda... Euskara euskara da, eta gehienak euskaltegietara joaten dira. Laguntza behar dute eskolatik kanpo”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Kosta egiten zaie. Hemen jaio direnak bai, oso integratuta daude, baina bat-batean datozeinei kosta egiten zaie. Jolastokian ikusten badituzu, gainerako haurrekin ari dira jolasten, eta integratu egiten dira alderdi horri dagokionez, baina gero asko kostatzen zaie hizkuntza ikastea”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Hona etorri ziren bi ikasle (euskal udalerrria)-n jaio ziren. Familia txinatarra zen eta ez zuten gaztelania ondo hitz egiten, inoiz handik irten gabeak ziren, baina ez zuten gaztelaniarik hitz egiten; izan ere, etxe horretan ez zuten inoiz gaztelaniarik erabiltzen, eta gaztelania hitz egiten zen ikastetxeetara joaten ziren arren, ingurua hain itxia zen, non azkenean ez zuten lortzen gaztelania behar beste menderatzen”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Oro har, ez dago arazorik. Lehenengo urtea ulermenera bideratzen dugu, belarria egitera. Ondoren, 4 urterekin gehiago eskatzen hasten zara. Hitz egiten hasten dira, zuk eginiko galderen ondoren ez ezik, euren artean ere. Are gehiago, euren bizipenen berri ematen hasten dira, eta askatu egiten dira, eta normalena, aintzat hartuta Bilbon gaudela, nahitaez...”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

Euskara ulertzeko zailtasunak ikasle batzuegan izan dezakeen ondorioetako bat da jarrera-arazoak sortzea. Ez dute ikasgelako errealitatearekin konektatzen, eta horrek gainerako ikasleengandik baztertuta sentitzea ekar dezake, besteek eskolen erritmoari jarraitzen diotelako. Erreakzioak hainbat motatakoak izan daitezke, hala nola interesik eza ikasketen inguruan edo arreta emateko beharizana.

“Pertsona batzuk erabat off daude ni azalpenak ematen ari naizela, eta horrek jarrera-arazoak ematen ez baditu, normala denez... Azken batean nik egunean bost ordu ematen baditut ulertzen ez dudan zerbait entzuten, inork ez badit arretarik ematen, liburua gaztelaniaz badago eta bost orduz autonomiaz lan egiteko eskatzen ari bazaizkit inork ezer azaldu gabe, tira, batzuek jasaten dute hori, baina oso ohikoa da hiru asteren buruan arreta ematen hastea, molestetzen gaituzten gauzak egiten hastea; izan ere, gazte hau... zer aurrekari du...”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Beldurren aipuak ere badaude, nahiz eta ez diren gauzatu, euskara ikasteko prozesuan atzera egitearekin loturik, ikasle immigranteen artean. Halaber, ibilbidea etetearen inguruko beldurrak daude, ikasgelara nazionalitate

bereko ikasle berriak iristen direnean; izan ere, euren jatorriko hizkuntzan komunikatzen hasten dira.

“Gertatu zaigu, zera... Esate baterako, ikasgelan ditudan bi errumaniar... Mutil berri bat etorri zen eta errumanieraz hitz egiten zioten... Tira! esaten duzu. Ea hauekin eginiko lanak atzera egingo duen orain! Baina, ez”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Beste alde batetik, errefusa hautematen da ikasle etorkin jakin batzuen artean: euskara hizkuntza zailtzat eta aspergarriztat dute, ez diote erabilgarritasunik ikusten. Familiek ere azken baieztapen horretan lagun dezakete, Euskadiraiko migrazioa eta bertako egonaldia aldi baterakoa dela uste dutenean; nolana ere den, irakasleek onartu egiten dute ahalegin handiagoa egin behar dutela, hizkuntza ikasteak duen garrantzia azaltzeko.

“Bada, batzuek bai (euskara errefusatzen dute), baina ez euskara hemengo hizkuntza delako ez antzeko arrazoiengatik, ezpada zail egiten zaielako eta aspergarririk delako, eta gaztelaniako irakasgaiak irakurgai guay asko egin berri dugulako, gozatu egin dugulako horrekin eta hemen ez dutelako berdín gozatzen. Ez dute gozatzen ez dutelako egiteko mailarik... Antzerkiak egiten ditugun arren... Liburuaz paso egiten da, nahikotxo; ahal den guztia”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Errefusa ez, ez dute halakorik. Baina, logikaz, eurek ere esaten dizute: eta hau zertarako? Are gehiago, gurasoak datoz eta esan egiten dute nahiago dutela gaztelaniaz ikastea, baina... Tira, apurka-apurka, denbora eman behar zaio, apurka-apurka barneratzen dute: hemen biziko badira, ikasi egin beharko dute arian-arian”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Esan egiten dizute: zertarako ikasiko dut euskara, ez du ezertarako balioko eta! Izan ere, askok ez dute uste geratuko direnik. Edo esan egiten dizute: nik badakit hemen hiruzpalau urte igaroko ditudala eta nire herrialdera itzuliko naizela, eta zuk animatu egiten duzu ikastera, euskara ikastera, baina esaten dizute: ez dit ezertarako balioko... Joan egingo direlakoan daude”. (Itundua, bigarren hezkuntza)

Ikasleak eskolatzeko adin berriak eragina du familiek azaltzen duten interesean, Haur Hezkuntzan ikusten dugunez.

“Baina, bai, interes handia dute; beharrezkoa dela-eta ikasi behar izan dituzten hizkuntzak ikastearen pertzepzioa dute, eta oso erraztat dute. Haurrak badoaz eta hemen euskara da; bai, bai, interesatzen zait”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“

“Oraintxe bertan, nire ikasgelako zenbaiti esaten badiogu datorren urtean Ako talde bat egongo dela, Aren alde egingo dute, batzuek itzultzeko data dutelako. (ikasle batek) badaki 2016an alde egingo duela, azaroan, bera aitak ez dakit zein prozesu amaitzen duenean. Batzuek itzultzeko data dute jada; beraz, zertarako, emaitza guztiak txarrak badira, zertan sartuko naiz ni euskara kontuetan... Aukera badut... Ez badut, zalantzarik ere ez dut egiten, irekiko dut gogoia, esaten diet”.

(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

”

Ikasle etorkinek eskolaz kanpo euskarazko harremanak izatea ez da oro har gertatzen den kontua, nahiz eta bizi duten inguru soziolinguistikoak hizkuntza horrekiko lotura erraz dezakeen.

“Gazteek ez dute harremanik euskaraz”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Hemen zortedun gara, parkera baitoaz. Nik, iristen direnean, sarri esaten diet udalekuetarako izena emateko, hainbat egin dutela, euskara entzungo dutela al-dioro, euskaraz hitz egingo dutela. Nik uste dut horretan ez dela hainbesterako arazorik egongo”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Harremanak

Ikasgela barruan ikasleen artean sortzen diren harremanak, elkarrizketatutako irakasleen arabera, normalizatuak dira, eta irakasleek ez dute, *a priori*, inolako arazorik nabarmentzen. Ikasle etorkin iritsi berriez hitz egiten badugu, harrera ere arazorik eta gatazkarik gabe egin ohi da. Aipatu ohi den gako bat da ikasgelako kide guztiak inplikatzeari ikaskide berriak iristean eta egokitzean; horretarako prestakuntza ematen zaie. Ikasgelako emaitzak positiboak izan dira beti. Ikaskideen arteko egokitzapen-tartea laburra da, eta ikasle iritsi berrien jarrera aipatu ohi da parekoen arteko harremanen arrakastaren adierazletzat.

“Harremanak onak dira: ez dago inolako arazorik”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Izan ere, orain dela urte batzuk neska bat iritsi zen ikasturte erdian, ez zekien irakurtzen, ez eta idazten ere, eta gainerakoek inbidia hutsa zioten: guk etxeko lan hauek guztiak ditugu eta honek 1. mailan egiten genuen fitxatxoa darama... Hori zortea hori! Zaila izan zen, eta, horregatik, iaz ikaskideak inplikatzen genituen, eta emaitza bikaina izan zen”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Ikasgela barruan ikasleen artean sortzen diren harremanak normalizatuak dira, eta irakasleek ez dute, *a priori*, inolako arazorik nabarmentzen.

“Bestela, ez dago alderik. Jende asko berehala... Ukrainiatik etorritako neska bat dago: taldeak berehala hartu zuen, eta oso ondo. Beste batzuei gehiago kostatzen zaie. Nik uste dut horretan zerikusirik handiagoa duela, taldeak duen jarrera baino gehiago, iristen den pertsonak duen jarrerak”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Arazorik gabe dituzte harremanak. Are gehiago, iristen direnean, eta badiotsut gainera gehienak ikasturtea hasi ondoren iritsi direla, oraingoak izan ezik, beste batzuen anaiak direlako. Lehenengo egunetik hautematen zenuen, zuk nolabait prestatzen dituzulako; bada, lehenengo egunetik jotzen zuten beti harrera egitera, laguntzera... Hizkuntzaz jabetzen ziren jarraian, eta esaten zidaten: ez du ulertzen eta! Eta oso barregarria da; izan ere, helduok egiten dugun bezala, erdi garrasika hasten dira eurak ere, mantso hitz egiten... Uste dute ulertu egingo dietela: berdin-berdin. Eta harrera egitera. Egia esan, oro har oso zera izan da... Etorri diren guztiak izan dira lagunkoiak, ez da arazorik egon”... (Itundua, Haur Hezkuntza)

Bestalde, irakasleek hautematen dute ikasle etorkinek ez dutela gehiengoari ematen zaiena ez bezalako traturik; esaterako, nahiago dute ikasgelatik ez

irten hizkuntza indartzeko eskoletara joateko. Euren lagunekin egon nahi dute, ikaskideek irakurtzen duten liburu berbera irakurri; azken batean, ez dute ezberdin sentitu nahi.

“Eta haur batek esaten didanean berak gainerakoekin egon nahi duela eta ez duela ikasten kanpora ateratzerik nahi, lagunekin egotea gustuko duelako, kontua da arrazoia duela. Azken batean, denok nahi dugu kontu bera, gure kultur ezberdintasunak ezberdintasun”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Ikasle etorkinek ez dute gehiengoari ematen zaiena ez bezalako traturik.

“Ikasgelatik ateratzen dituztenean, nik uste dut zera sentitu behar direla... Bada, nora naramate hasieran...” (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Tira, gure esperientzia da bereizi egiten ditugun bakoitzean bereizi egiten garela; hots, eurak bereizten direla”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Ikasgelan ikasleen arteko harremanetan ezberdintasunik hautematen ez den arren, atsedendia dutenean, irakasleek atzematen dute jatorri geografikoaren arabera biltzeko joera dutela. Hala egiten dute ikasle latinoamerikarrek, magrebtarrek, txinatarrek eta abarrek. Dena den, horrek ez dakar inolako arazorik eskola-jardunean. Ikastetxe batzuetan ez da biderik ematen atsedendian harreman bereizi horiek sortzeko; izan ere, ez dute onuragarritzat jotzen. Ikasleen adinak ere adierazten du nola sortzen diren parekoen arteko harremanak: gazteenen artean ez dago inolako ezberdintasunik harremanetan, baina ikusten da, adin batera iritsita, berez jotzen dutela bereiztera.

“Egia da eurek euren taldea egiten dutela, biltzeko joera dutela. Nik ulertzen dut, euren isla ikusten dutelako, egoera berebanean ikusten dituztelako euren buruak. Ikasgelan bikaina da funtzionamendua, eta patioan taldetxoak egiten da, baina ikasgelan bikain; are gehiago, gureak baino heziagoak dira. Ez dakit, hasteko eta behin, dena da “zuka”, dena “mesedez”. Irakaslea da erreferente, eta gureek kontrol hori galdu dute. Heziagoak dira”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Guk ikusten badugu patioan talde batzuk biltzen direla, nazionalitate jakin batekoak... Ez da inoiz gertatu, baina gertatuko balitz, eragotzi egingo genuke. Ez dugu uste osasungarria denik ez eurentzat, ez gainerakoentzat. Baina, ez da gertatu. Hitz egiten ez duen neska bat bakarrik dago, eta jende gehiagorekin egoteko ahalegina egiten dugu, baina oso kontu puntuala da... Kontua ez da biltzea eta nolabaiteko ghettoa sortzea. Ez, ez da gertatu”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ikasleen adinak ere adierazten du nola sortzen diren parekoen arteko harremanak.

“Ikasgelan ez da ezer gertatzen, zuk ez duzu ezer ikusten; gainera, tutorearen begirada dago. Baina, ondoren irten patiora... Nik asko begiratzen diot patioari. Hemen ordubeteko atsedendia dugu, eta bazkalorduaren osteko tarte, 13:30etik 15:00etara. Ordu eta erdi da, eta hor egiten dira lagunak. Nik ikusten dut 4. mailara arte denok gaudela batera, baina adin batetik aurrera... Badago... Ez da orokorra, ez da kontu orokorra, bat-batean ikusi egiten dut. Orain magrebtarren talde bat dugu, eta beti daude elkarrekin, bospasei dira, eta niri... Beharbada diot... Beharbada kontu sanoa da eta ondo dago, arrunta da... Baina, bestalde, eurak dira beti elkarrekin daudenak, eta horrek apur bat kezkatzen nau. Erabaki

ez dutelako izango da? Zerbaitek han geratzera eragin dielako izango da? Zer gertatzen da?”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Hautematen da, horrenbestez, ikasle batzuek joera dutela jatorri geografiko bereberkoekin ibiltzeko. Joera hori Bigarren Hezkuntzako irakasleek aipatzen dute batez ere; izan ere, ikasturte horietan da agerikoagoa taldeen arteko ezberdintzea. Nolanahi ere den, batzuek ez dute uste antzekotasun horrek dakarrenik euren artean bakarrik taldekatzea. Koadrila sortzen dute euren ikas-tetxeko edo bizilekuko beste pertsona batzuekin, eta hainbat jatorri dituzte.

“Oso ondo egokitzen dira ikasgelara (...) beste bat da ikasgelan, haurrek maite dute, bera lotsorra da, baina ikaskide ona. Txikiak direnean ezberdintasunak ez dira ikusten, ez daude”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Batzeko joera dute, dena den. Ematen du esaten dutela hau gure parekoa da, eta berehala batzen dira, ezta?”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Hemen, gazteak koadrilan irteten dira, denak batera, nahastuta daude. Batzuk badaude... Boliviako mutil bat dut buruan, 14 urtekoa... Bere amak jarraipen zehatza egiten dio eta nahiko zera dago, kezkatuta bere semearen norabidearekin, jende onarekin ez dela batuko...”. (Hezkuntza ez-formala)

“(Ikasgelatik kanpo) Tira, jakina, hurbiltasuna badago, elkar bilatzen dute, baina tira, lagunak egitean, kanpoan ere ez dago inolako arazorik. Gazteak ikusten dituzu, gero asteburuetan elkarrekin daudenak, bai hemengoak, bai kanpokoak. Txinatik datozenen egoera bestelakoa da. Itxiagoak dira, eta asteburuetan ez dakit, ematen du... ez dutela lagunik edo ez direla hainbeste irteten. Txinako biztanleria itxiagoa da”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Ezberdintasunak... Esate baterako, taldeak. Berdinok batzen gara. Zer gertatzen da? Orain neurriak daude, eta niri iruditzen zait egokiak direla jatorrian, baina batzuetan ez dakit zertara eramango gaituzten”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Ikasgelan ondo, arazorik gabe. Are gehiago, koadrilak daude: euren artean ez ezik, beste batzuekin ere lotzen dira, koadrilan irteten dira herriko jendearekin; halakoetan irteten dira, asteburuetan irteten direnean, herriko jendearekin irteten dira. Ez dituzte koadrilak bakarrik egiten, ez dute euren arteko ghettorik egiten eta nik oso integratuta ikusten ditut” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Koadrila hori oso xelebrea da; izan ere, ijitoak daude, erdi-ijitoak eta ijito ez direnak, hemengo gazteak, Extremadurako gurasoak dituztenak... eta Saharakoa, Boliviakoa... Izan ere, koadrila doa osorik, geratu egiten dira eta hori da duten koadrila”. (Hezkuntza ez-formala)

Halaber, familien arteko hurbiltasunak eta erlijio-jardun berberak partekatzeak dakarte haur eta gazteen arteko adiskidetasun-harremanak sortzea.

“Egia da, halaber, familia dela eta, familien arteko hurbiltasuna dela eta, haur batzuk meskitara elkarrekin doazela eta... Nabaritzen diren kontuak dira, eta nik ikusi egiten ditut. Niri honek, tira, kontu naturala den artean... Izan ere, egia da, euskaldunok ere batzeko joera dugu, hori joera naturala da, baina ez dadila izan baztertu dituztelakoa, ez dadila izan esan ditugunengatik, eta ez dut uste hori gertatzen denik; izan ere, nik uste dut hemen, hirugarren zikloan dauden tutoreek kontzientzia badutela, esperientzia dutela ikasle immigranteekin lanean eta ondo. Ez dakit, batzuetan apur bat kezkatzen nau...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Klasean elkarrekin jolasten dira guztiak. Nire klasean elkarrekin jolasten dira oraindik denak. Heldu egiten direnean bai, jakina baietz. Hainbat lotura izateaz gain... Izan ere, filipinarrek egiten dute... Euren boleibol-taldea dute, Getxon, hemen entrenatzen dute ostiral gutzietan, euren dantza taldea dute... Hainbat kontu dituzte batzeko, ezta? Baina tira, nik ikusten dut urtebetetze bat dagoela eta denak gonbidatzen dituztela. Urtebetetzeak eman egin ohi dituzte, edo... Dena den bai, oraindik funtzionatzen dute talde moduan”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Ikastetxean zein ikasgelan ikasleen artean sor litezkeen arazo edo gatazkak ez dira jatorri kulturalaren edo konfesio erlijiosoaren ondorio: arrazoiak oso bestelakoak dira. Ikasgeletako gatazketan azalaren koloreari lotutako irainak daudenean, esaterako, irakasleek ez dute uste heldu batek darabilen esanahi arrazista bera dagoenik: kontua da besteari min egiteko ezberdintasun fisikoa identifikatu dutela.

“Borrokak daude, baina ez jatorriari lotuak”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Nik galdetu egin nuen Lehen Hezkuntzako beste ikasturte batzuetan, eta inoiz gertatua zela... Ikasturte honetan ez, maila altuetara etorri direnak hemen daudelako eta tira, ez da egon, baina puntualagoa da; bestela, pentsa ezazu, zure aurka egin nahi badut fisikoa erabil dezaket, edo zera... Hori badaukat (atzerrikoa izatea), horren aurka egiten dut. Baina, ez dute heldu batek duen ezagutzatik egiten, ez dira eraso arrazistak”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Eurak... Ikusten dituzu eta gainerakoak bezalakoak dira; are gehiago, badute... Paradoxak gertatzen dira: aipatu dizudan mutil berak, aitari laguntzen diharduenak, esate baterako aldameneko kideak duen mugikor bera du, eta jantzi-kontuetan beste horrenbeste. Alderdi horri dagokionez ez dago ezberdintasunik”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza).

Euskadin jaio diren etorkinen seme-alabak aipatzen dira, Euskadin jaio direnei edo jaioberri zirela iritsi zirenei. Uste dute parekoen arteko harremanak zertxobait ezberdinak izan litezkeela; izan ere, gazte-gaztetarik edan dute bizileku duten inguruko kultura, eta bertan hasiko dira eta bertan izango dituzte adiskideak.

“Zenbat eta txikiago etorri, hainbat hobeto. Azkenean, kanpotik etorri den jendea da, baina hemengoak dira. Esan dezagun denak direla hemengoak, baina horiek hemen jaio dira, hemen daude, hizkuntza ikasten dute, kultura, dena. Euren kultura izango dute, halaber, baina hemen daude; beraz, haur txikiek zerbait nabaritutako dute kanpora doazenean...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Azken batean, azken helburua da Euskadiko haur eta gazteen arteko harremanak normalizatu ahal izatea, besteak beste kultur jatorria, azalaren kolorea edo erlijioa edozein direlarik.

“Asmoa da harremanak normalizatzea, haurrek aukera-berdintasuna izatea, ahal den neurrian. Ez dago besterik, eta hori asko da (...) zureekin bazaude ondo, baina zure harremanen esparrua handitu badezakezu, bada, askoz hobeto”. (Hezkuntza ez-formala)

Integrazioa

Ikasle etorkinen integrazioaz hitz egiten dugunean, pertzepzio orokorra da normaltasunez gertatzen dela eta itxuraz ez dagoela arazo handirik. Ikastetxeetan, ikasle berriak iristea eta sartzea edo hainbat lekutako kulturetako jendea matrikulatzea ona da, hainbat naturalagoa ikasleak gazteago diren heinean, nahiz eta zailtasunen bat hautematen den epez kanpo matrikulatzen direnean. Ez da bereizketa-arazorik ikusi ikasleen artean, eta bizikidetza, oro har, positiboa da.

“Oso ona, integrazioa bikaina (...) Bikain egokitu dira jende artean” (Itundua, bigarren hezkuntza)

“(Arazoak) oro har, ez. Haur Hezkuntzan inoiz ez. Lehen Hezkuntzan, egotekotan, azken mailetan egongo dira, 5. edo 6. mailan. Honi buruz galdetu nuen aurten. Hemen zera... Hainbat daude... Zenbat eta gehiago egon, zenbat eta handiagoa izan onarpena ere, ez zarelako hain ezberdin... Bai, ni errumaniarra naiz, baina zu txinatarra zara, eta bestea Alacantekoa da”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Nik dudan esperientzia, dena den, jendea nahiko ondo integratu delakoa da. Nik DBH amaitzen duen jendea... Denek izan dute erreferentziazko taldea, hemengo jendeak osatua. Ez dut ikusi hor zehar ikusten duzun jenderik... Nik ondo integratuta ikusten ditut, baina egon badago beste maila bat. Beharbada guk ez dugu kontzientziarik beren bizitza partikularreko beste maila horretaz; jakina, duen familiaren ibilbidea, bere bizitza-ibilbidea... Baina nik ikusi dudan jendea ez duzu esaten, tira! Horrela irtengo da, erabat isolatutako norbanako gisa, eta... Ez. Irten diren guztiek dute erreferentziazko talde bat, eta oso harreman ona dute. Euren agurrak egin dituzte eta, are gehiago, agurrak egin dizkiete beste nonbaiteira ikasten joan direnei”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Tira, integrazioa bada, nolabait, kakotx arteko hitza. Esan nahi dut euren bizikidetza naturala dela, ikastetxe honetan behintzat. Are gehiago, gustura datoz, pozik daude eta eurek besteen pareko ikusten dituzte euren buruak, ez dago inolako bazterkeriarik txinatarra edo dena delakoa izateagatik...”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Oso ondo integratuta daude hemengoekin. Izan ere, gainera, institutu bereko ikasle dira; beraz, betikoak dira, ikastolara elkarrekin joan dira, eta ondoren institutura ere elkarrekin, eta oso integratuta daude. Are gehiago, zurrumurruen aurkako egin genuenean bitxia izan zen, eurek ez baitute lagun boliviarrak immigrantezkat ikusten. (Pertsona) da, berarekin ibili naiz bost urte nituenetik, nirekin dator eskolara... Ez dituzte etorkintzat jotzen. Baina, moro puta hori, Alde Zaharrean lapurretan dabilena... Horiek bai, badira etorkinak (Hezkuntza ez-formala)

“Egia esan, denak daude ondo egokituta”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Ulertzen dut batzuetan oso zaila dela urtarrilean iritsi eta bat-batean denen lagun egin behar izateaz gain, funtzionamendu honetan integratu behar izatea... Nik uste dut pertsonaren arabera dela neurri handi batean. Nola kokatzen den bere errealitate berriaren aurrean eta nola bizi duen, eta... Baina, sor daitezkeen arazo handiak... ez. Puntuala izan da, beste ezer baino gehiago”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ikasle helduagoen artean ez dira falta esapide arrazistak, baina kasu isolatuztat jotzen dira gehiagotan, sakoneko bizikidetza-arazotzat baino gehiago.

“

“(Ikasle batek) disgustu itzela du. Atzo ez zen etorri gaixorik zegoelako, eta kontua da ez dakiela zer aurkituko duen han (jatorrira itzultzea). Hemen guztiz integratuta dago, gutxienez bere taldekoekin”.

(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

”

“Gero, helduagoak direnean jada, bestelako istorioak daude. Hemen “mauru puta” entzuten da oraindik, baina ez Lehen Hezkuntzan. Diskurtso hori 16 urteko gazte batek du, baten batek dio, badago eta esaten duenean gainerakoek entzuten dute.”
(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Denbora faktore gakoa da, elkarrizketa batean aipatzen denez. Ikasle etorkin iritsi berrien integrazioa ona da, baina denborari denbora eman behar zaio, inguru soziolinguistiko berria ezagutzeko eta, besteak beste, kide berrietara egokitu daitezen.

“Nik uste dut egokitzapena ona dela, baina denbora eman behar da. Esate baterako, aurtan bi ikasle etorri zaizkigu lehenengo mailara, Ekialdeko herrialdeetako bi etorri ziren urrian. Gaur egun, orain, ekainean hasten gara aldaketa ikusten, aurrerapena. Esan nahi dut denbora-tarte bat eman behar dela, hizkuntza jakin gabe etorri direlako. Ematen du, jakina, ikasle horiek ez dakitela ezer, baina kontua da ez dutela ulertzen. Lehenengo eta behin, denbora eman behar zaie sozializatzeko, konfiantza hartzeko, gutxienez hizkuntza ikasteko”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Ikasle etorkin iritsi berrien integrazioa ona da, baina denborari denbora eman behar zaio.

“Nik bai, ikusten du batzuk iritsi berriak direla eta oraindik daudela euren herrialdeaz hitz egiten... Etengabe egiten dute, eta konparazioan ibiltzen dira. Nik gelditu egiten ditut eta esaten diet orain hemen daudela eta egokitzen jakin behar dutela. Baina, gehienek sentitzen dute hemen integratu direla, hemengo ohituretara”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Haur horiek hobeto integratzeko gakotzat jotzen da, halaber, zenbat urterekin hasten diren harremanetan, elkarrekin komunikatzen. Aurretik ere esan dugunez, zenbat eta gazteagoak izan, hainbat eta modu naturalagoan egiten dira interakzioak; horrenbestez, integrazioa eta bizikidetzeta ere normalizatuago daude. Zenbat eta helduagoak izan, hainbat gehiago eragin dezakete eurekin dakartzaten istorioek euren harremanetan eta, horrenbestez, hala ikastetxeko integrazioan nola gainerako ikasleekin dituzten harremanetan.

“Askoz errazago da Haur Hezkuntzan integratzea. Ez du zerikusirik. Ez du inolako zerikusirik Lehen Hezkuntzarekin. Nahiko naturala da. Aurtan hiru urteko neskatu bat etorri da, ikasturtea hasi ondoren, eta ematen du hemengo delako. Hurrek berria balitz bezala ikusten dute, baina besterik gabe. Izan ere, esate baterako, baditugu bi urte zituztenez geroztik hemen dauden ikasle txinatarrak, eta ondo. Gero... 5. mailako ikasleren bat datorrenean, pakistandarra etorri zen bezala... Bere historia dakar, zergatik etorri den, nola etorri den, zer bidaia egin duen, zein

den bere familia, zer utzi duen, nola bizi den hemen... Badu, konturatu egiten da, baina ez haurra denean". (Publikoa, Haur Hezkuntza)

"Bat Lehen Hezkuntzako 3. edo 4. mailan badator, zailagoa da, ezta? Izan ere, motxila kargatuagoa dakar, beste arazo batzuk ditu eta zailagoa da, baina tira, badaude adin horrekin datozen haurrak, integratu egiten direnak... Hemen daude, klasean daude, lagunekin irteten dira, baina tira... Oro har, esango nuke ez dela gauza bera". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Nabarmentzen den azken faktorea da hizkuntza ikastea eta ezagutzea, elementu gako gisa, integrazioa arrakastatsu izan dadin. Kasu honetan eskola-ingurutik kanpoko integratze-prozesu gisa ikusten da. Uste dute udalerrian nagusi den hizkuntza ez ezagutzeak eragina izan dezakeela integrazioan eta, horrenbestez, bizilagunen arteko bizikidetzan.

"Integrazio linguistikoa ere beharrezkoa da integrazio osorako"

"Integrazio linguistikoa ere beharrezkoa da integrazio osorako" (Hezkuntza ez-formala)

"Hemen egon aurretik Ondarroan egon nintzen eta Sahara hegoaldeko immigrazio asko zegoen, itsasora lanera zetozelako. Bada, gazteen integrazioa ez zen erabatekoa herrian. Denek hitz egiten zuten inguruko euskara, ikasle nahiz gurasoek. Zu portura joaten zinen kafe bat hartzen eta tipo beltz bat ikusten zenuen tokiko euskara hitz egiten tabernetan zegoen jendearekin. Horrek esan nahi du inork ez duela saiakerarik egin ghettoak sortzeko. Ulertarazten saiatu dira, herrian harremanak izateko. Seme-alabak erabat integratuta daude, baina asteburuetan irtetea... Ondarroako euskara zerabilen". (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

"Azken etapa honetan, beharbada etorri diren gehienak ez dira etorri euren sorlekuetatik, ezpada Espainiatik; beraz, gaztelania dakite, baina faktore hori, gaztelania jakinda, integratiorako... Hemen dena egiten da euskaraz, eta halako giro bat sortzen ari da... Ez dira ghettoak, baina gaztelania dakitenez ez dute hainbeste euskararik behar... Euskara behar da eskoletarako eta, baina hemen inoiz ez da gertatu patiora irten eta gaztelania entzutea: orain urte batzuk etortzen ziren ikasleak banaka etortzen ziren, ikasgela batean sartzen zituzten eta urtebetean edo bi urtean euskara ikasten zuten. Orain, Espainiatik datoz... Badago hemengo jendea, gurasoak kanpotarrak dituen eta gaztelania gehiago darabilena, eta horiek guztiak batzen dira". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Integrazio ona hautematen den arren, ez da erabat arrakastatsua harik eta egiaztatzen den arte txikiener artean, kasu honetan, berdintasuneko eta erabateko normaltasuneko giroa sortzen dela. Gaur egun tokiko pertsonekin sortzen diren harremanen pareko harremanak sortu behar dira. Orain arte hori oztopatzen duten hesiak daude.

"Nik uste dut hor ere ez... Hemen jaiotako haur bat Marokoko baten etxera lotara joan arte... Hori izango da, nire ustez, azken integrazioa, hor zerbait dugulako, ez dakit zer, uzten ez diguna... Eta beste horrenbeste txinatar batenera joatea bai, baina marokoar batenera ez; ez dakit zergatik. Haur txiki horiek erraz integratzen direlakoan nago, ondo doazelakoan. Euren arazoak dituzte, baina tira, denek beza-la". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Nortasunak

Amelia Barquín-en testu baten izenburua (“Nongoak dira etorkinen seme-ala-bak?”)⁷ oso egokia iruditzen zaigu elkarrizketatutako irakasleek ikastetxeetako ikasle etorkinen identitatea eraikitzeaz dituzten pertzepzioak lantzeko. Prozesua ez da batere soila, eta dakarren konplexutasuna ondo deskribatzen da ondoren iruzkinduko ditugun hausnarketen bidez.

Irakasleekin hitz egiten dugunean atzerriko ikasleen jatorri-sentipenaz, hainbat ikuspegi daude, nahiz eta kontu batean bat datozen: bizi diren lurraldekoztat jotzen dituzte euren buruak. Beste kontu bat da zein mailatan, sentipen hori euren sorterriekin partekatzen duten edo euskal nortasuna hartzen ote duten nortasun bakartzat. Euskara ageri da diskurtso batzuetan euskal nortasuna definitzen duen elementu gisa.

“Eurek esan dizute ...(e)koak (euskal udalerrria) direla, hemen bai. Ondoren esaten dizute: eta ni errumaniarra naiz, edo ni ekuadortarra naiz”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

Bizi diren lurraldekoztat jotzen dituzte euren buruak.

“Sahararra 7 urterekin etorri zen hona. Kanpamenduez hitz egiten diozu eta esaten dizu: kontua da nik horretaz ez dakidala askorik. Nolabait esateko, “Mendebaltartuta” dago. Bere burua gehiago du ...tartzat (euskal udalerrria), saharartzat baino”. (Hezkuntza ez-formala)

“Eurek, orain galdetzen badiezu nongoa zaren, (euskal udalerrria)-(e)koak direla esango dizute. Bai, bi lekuetakoak. Esate baterako, itzelezko indio-aurpegia duenari galdetuta bestaldekoa den, baietz diotsu, Ekuadorrekoa ere badela. Baina, lehenengo hemengoa dela esaten dizu. Nire hurrek hemengotzat dute euren burua, nahiz eta euskaraz hitz egin nahi ez duten. Ez dute ikusten hemen arazo erdirik ere dutenik euskararekin; hots, ez dute identifikatzen, baina euskara hemen... Ez dute inolako arazorik inon gaztelaniaz hitz eginda”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Lau anaia marokoar ditugu. Hemen jaio dira, baina familia marokoarra dute. Dena den, euskal herritarrak dira, eh! Gainera, euskaraz hitz egiten dute, hemengo gazteekin dituzte harremanak, hemengoak dira euren koadrilak...”. (Hezkuntza ez-formala)

“Zer sentipen duten? Nik uste dut hau helduaroan, ez dakit... Hizkuntza funtsezkoa dela esaten diezunean ere... Tira, hizkuntza, ni zerarekin hasi nintzen euskara ikasten... Nik banuen kontzientzia, euskal herritartzat nuen neure burua eta ez nekien euskararik. Zera egiten zidan ez jakiteak... Hautu pertsonala izan zen, baina tira, nik beti jartzen dut adibide bera: nire ikasleok askoz ere euskara gehiago dakite nik, euskal herritar peto-petoa izanik, euren adinean nekiena baino. Beraz, tira, zer gertatzen da...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

“Nire ikasleek esango dizute donostiarrak direla, ez euskal herritarrak” (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

⁷Barquín, A. (2009) “¿De Dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela”, *Educar*, 44, 81-96. or.

Zer uste da euskal kultur nortasunaren inguruan bertoko biztanleen ikuspegitik?

Beste alde batetik, hausnartu egiten da haur eta gazte etorkin horiei euren izaeraren inguruko jarreraz hausnartzeko eta izaera hori definitzeko beharri-zana sortu ote zaien, edo kontua gehiago ote den biztanleria hartzailearen eskaera; izan ere, mesfidantza senti dezake euskal izaeratzat jotzen duenaren inguruan. Horrenbestez, zer uste da euskal kultur nortasunaren inguruan bertoko biztanleen ikuspegitik? Joera da atzerritarrei euren jatorriari lotutako nortasuna esleitzea, baina batzuk hasi dira nortasun partekatua atzerriko bizi-lagunek izan ditzaketen tokikotasunak biltzeko modutzat ikusten.

“Nik uste dut geuk baino drama gutxiagorekin bizi dutela. Beharbada oraindik ez zaie sortu era honetako galderarik.” (Hezkuntza ez-formala)

“Beharbada zuk jatorriz immigrante diren gazteak sailkatzen dituzu... eta beharbada harreraz euskal herritartzat jotzen dituzte euren buruak” (Hezkuntza ez-formala)

“Gu alderdi bat gara, eta kultur izaera denaren inguruko ikuspegia aldatu behar dugu; izan ere, kultur izaera kolonbiar-euskalduna izan daiteke”. (Hezkuntza ez-formala)

“Niri bateratzen erraza iruditzen zait. Halaber, gure geure izaerak kezkatzen nau. Hemen ere geure ideologiarekin egiten dugu topo; azken batean, euskal izaera kontu ideologikoa da orain. Ni euskal herritarra naiz, hura espainiarra, beste hura ez dakit zer. Hori hemen bertan dugu, Legebiltzarrean. Eskolan ere badago. Batzuek ikusten dute euskal izaera galtzen ari garela. Badago jendea, norberaren ideologiaren arabera... Ikusten dugu jendea... Uste dugu jendea irabazten dugula, euskaldun izateko nahia izan dezaten”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Nerabezaroari dagokionez, elkarrizketatuek hautematen dute atzerriko ikasleak euren buruak definitzen dituzten ñabardura eta ezaugarriak markatzen hasten dira. Oharretatik ondorioztatzen dugunez, gainerakoengandik ezberdin sentitzea kaltegarria izan daiteke ikaskideekiko harremanetan. Gazte iritsi badira edo Euskadin bertan jaio badira, gizarte honetako kide senti daitezke; baina, urteak bete ahala eta nerabezaroan sartzean, “ez hain hemengo” sentitzen dira, aurretik sentitzen zutenaren aurka. Euren buruak kidetzat dituzte-nek adierazitako ezberdintasunen ondorio izan daiteke hori.

“Ni ikusten ari naiz lehenengo ikasturteetan dena dagoela ondo; baina, nerabezaroa hasten dugunean, 11 urte horietan, 5. edo 6. mailan... Nik hor ikusten dut, izaera kontuak nolabait agertzen hasten direnean, ezberdintasunak ikusten hasten naiz”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

“Izaeran kultur aniztasuna duten gazteak dira. Hori lagungarri da batzuetan, baina ez beste batzuetan. Duten adinarekin dena da zailagoa, eta ezberdin izateak ere markatu egiten ditu. Horrek zailtasunak eragiten dizkie harremanetan eta autoestimuan. Hori da proiektu honen gudu guztietan ama: gazteen autoestimua sendotzea, hobeto gara dezaketelako”. (Hezkuntza ez-formala)

“Asko sentituko dira hemengoago; izan ere, txikitatik etorri badira, baina hemengoak direlako sentipena dute... Baina, gero, nerabezaroan konturatzen dira ez direla erabat hemengoak. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Pentsatzen dut helduagoak direnean, 16-17 urte dituztenean, batzuk ez direla gustura egongo hemen, eta ez dakite, esango dute “(euskal udalerrria)-(e)koa naiz”, ez naiz euskal herritarra eta marokoa naiz, edo... Ez dakit, denetarik egongo da, baina ezin dizut zehaztu. Nik uste du euren artean ere, hemengoek esango diete-la: zu ez zara hemengoa, Marokokoa zara edo zu txinatarra zara... Horrek markatu egingo ditu. Baina, tira. Txikitarik hasi direnei dagokienez, beste kolore bat dute, baina gainerakoek... Beste kultura bat dute, baina hori beste kontu bat da”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Bi muturrak daude, nolabait: ondo onartzen dutenak eta oraindik ere eragozpenak dituztenak. Nik uste dut zaila dela erdibideak egotea. Jende apur bat irekia ikusten duzu... Gezurra ematen du zer-nolako ideiak dituzten batzuek, ezta?”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Eta nongoa da? Bada, bi lekuetakoa niretzat; nik hala uste dut. Bi lekuak baloratzen badira eskolatz-ibilbide osoa aintzat hartuta, uste dut etapa honetan ez dutela hainbeste arazorik izango. Uste dut arazoa etor daitekeela nongoak garen ez baloratzetik, baina azkenean konturatzen naiz 16 urterekin zuk nahi duzuna esango duzula, baina hau hemengoa dela eta ni ez naizela hemengoa, eta nabaritu egiten zaidala, gainera”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Uste da familia dela haur eta gazte etorkinen izaeraren gizarteratzean eragin handiena duen taldea, hala jatorrizko nortasunari eusteko nola lotura berriak sortzeko.

“Helduagoak direnean... Nik uste dut etxean ikusten dutenera jotzen dutela, gehiago gustatzen zaie hemen ikusten dutena, baina azkenean... Printzipioak etxean ezartzen dira eta”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Afrikatik oso txikitatik datorrena hemen integratzen da, hau ezagutzen du eta bestea ahaztu egiten da ia. Nagusiagotan datorrena... Familiak markatzen du benetan, hemen dagoenera egokitzen saiatzen diren arren, familia da. Ohiturak... Nik gogoratzen dut esaten dutenean: “zuk gidatzen duzu? Zuk arrosak oparitzen dizkiozu zure senarrari? Baina hori mutil kontua da eta!” Dena den, tira, eskolara datoz eta ikusten dute jokamoldea beste bat dela, eta ikasi egiten dute”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

“Ez dut uste zera behar dutenik... Nire sentipena da... Nire seme-alabak hemengoak dira, ez, bada, ez, hemen daude, euskara ikasiko dute eta, baina zu hangoa zara edo bera han jaio da eta ez da ezer gertatzen”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Ondo, zu hemengoa zara, hau eta beste... Ia ez da ezer esaten hangoari buruz. Alde batetik, uste dut familiek ez dutela errotiko etenik egin euren jatorriarekin”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Gertatzen dena da familiek ere eragin handia dutela; izan ere, euren plan eta kontuekin jarraitzen badute, beharbada hori da zailtasunen iturri handiena. Dena den, nik uste dut haurrak eta haurren familiek oso zera dutela... Tira, beste bat izan da naturaltasunez onartzen dituela. Hemen egiten ditugun kontu guztietan parte hartzen dute, Athletic-en, Olentzeron, kontu guztian”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

Denboraren faktoreak eragina du, berriz ere, izaera eraikitzeke prozesuan, bes-telako ezaugarri batzuekin batera: iriste-data eta lurralde berriko integrazio maila, eta familiaren eragina, besteak beste.

“Nik (uste dut) hemengoaren gaitzespenik ez dagoela, ez dugu ikusten. Jakina... Hona orain dela urtebete iritsi berri den pertsona bati inork ez dio galdetzen, baina uste dut... Denbora-tarte bat eman behar da bertako sentitzeko. Iritsi berriak dira eta, are gehiago, askotan esaten dizute ez zutela etorri nahi, oso gustura zeudela euren herrialdean. Beraz, hasieran... Batzuk behartuta ere badatoz. Prozesu osoa oso gogorra da eurentzat, eta batzuetan horren berri ere ez digute ematen, baina batzuetan, esaten dituzten kontuak direla eta, era horretako kontuak ikusten dituzte.” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Ni euskal herritarra naiz, horrela esaten eta sentitzen dut, baina ulertzen dut urteetako lana dela”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Hausnartu egiten da eskolak eta irakasleek ikasle etorkinen jatorriari ematen dioten balioaz, eta babestu egiten da irakaskuntza taldeak jatorrizko kultura aitortzearen aldeko ideia, lurralde hartzailekoa balora dezaten. Eskolaren ardura da zeregin hori egitea. Nolanahi ere de, ulertzen da ikasleek ez dutela migratzea hautatu, eta beti nahi ez duten familia-proiektua izan dela lekualdatzea; beraz, lehentasun handiagoa eman dakioke parekoen taldean integratzeari.

“Nik uste dut egiteko dagoen zeregina dela. Niri iruditzen zait, sustraiak, jakina... Ideala litzateke, hizkuntza-proiektuaz hitz egitean... Bai, norberaren sustraiari garrantzia eman behar zaiela esaten dugu, baloratu egingo dutela gurea, baina ez diotela eurena baloratzeari utziko. Azkenean, lotuta daude kontuok. Euren kultura eta jatorria ez badute behar beste baloratzen, oso zaila da beste ezer baloratzea; baina, arreta arrunta zaila da, hori argazkirako da. Niri iruditzen zait oso garrantzitsua dela; izan ere, zuk zeure kultura baloratzea nahi duzu, nirea baloratuko dute azkenean eurena baloratzen badute, baina... Nik uste dut askotan eurek bilatu ez dituzten egoerak direla, familia-egoerak direla, eta hori onartzea zaila da. Nahikoa da azkenean jende talde batean integratzea... Dena den, hortik haraxeago joatera eta pentsatzera... Niri ideala irudituko litzaidake, are neurekoi jokotuta... Iritsi diren lekuko kultura balora dezaten... Baina... Hori da... Zera... Oso zaila”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nik uste dut txikitatik landu behar dela. Eman egin behar zaie... Uste dut... Esate baterako, Haur Hezkuntzako ikasle bat datorrenean, mapara goaz eta etorri den lekua adierazten dugu, herrialdearen izena, bandera eta abar. Lehenengo, landu egin behar da: gurasoak Cacereskoak dira, eta zureak Marokokoak. Duen naturaltasuna eman behar zaio. Gerora, hori eskolatze guztiak egiten bada, errazagoa izango da, baina nerabetasunaz esaten dela... Jakina, beti da aro garrantzitsua kontu guztietarako, baina izaerarako ere etapa gakoa da. Horrenbestez, nik uste dut asko aztertu behar dela nongoak diren, hangoak izanda ere onartuta daudelako sentipena izan dezaten”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Eta ez zait batere gustatzen editorial jakin batzuen curriculumak, hemen duguna: Euskal Herria da ardatz nagusi-nagusia, niretzat existitzen ez den euskalduntasun bat: baserriaren kultura, bukolikoaren kultura eta niretzat euskaldun gutxiengoaren kultura dena. Ni hirikoa naiz, hiritarra eta euskal herritarra, eta ikusten dudanean haurrei jartzen dizkieten testuak, errotekin eta baserriarekin... Ezin da izan. Ikusten ditut haurrak kontu horiek guztiak esaten eta ni gaixotu egingo naiz. Uste dut curriculumak askoz ere irekiagoa izan beharko lukeela”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Baina, horregatik nabarmentzen dut, halaber... Hemen aitaita-amama guztiak dira Cacereskoak eta; beraz, nik asko azpimarratzen dut zu Galiziakoa zarela, zu ez

“

“Iaz neskato ikasle bat izan nuen. Aita (herrialde)-koa zuen, eta bi urterik behin joaten dira (herrialde)-ra. Etortzen zenean esaten nion: “eta kanta berriren bat irakatsi dizute? Eta amamak, irakatsi dizu? Bada, irakatsi!” Halaber amamak irakatsitako jolasarekin. Ez dakit, balioa ematen diozu ezagutu duenari eta bere gurasoen etorkiari. Berak badaki han jaio zela, bere ama hemengoa dela, eta bere aita hangoa, eta oso pozik esaten du abenduan (herrialde)-ra joango dela berriz. Horrek balio du. Eta heldua denean nahi duen edo ahal duen lekuan biziko da”.

(Publikoa, Haur Hezkuntza)

”

dakit nongoa zarela eta Donostiakoa naizela. Nazionalitateak direla eta, nik uste dut denei eman behar zaiela aitortpena eta duten balioa. Berdintasun-tratamendua erabilia, beharbada ez dago errefusik, ez batena, ez bestearena”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Ezin esan diezazuket nondik jotzen duten, pentsatzen dut batzuk... Eta hor ere denetarik egongo da. Baina, tira. Nik uste dut gauzak ondo egingo bagenitu, eta zaila da, sentitu egingo luketela hemen ere euren sorterri apur bat dutela. Bi herrialdeak maite ditut, baina hemengoa ere banaiz, ezta?”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Esate baterako, udan batek sarri diotsu Ekuadorrera doala, familia bisitatzera. Halakoetan aukera baliatzen duzu, eta esaten duzu: orain hangoaz hitz egingo dugu, nolakoa da, nolakoa da bizimodua... Gainerakoek jakin dezaten. Baina, oso integratuta daude”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Etorkizunera begira, elkarrizketatutako irakasleek uste dute Euskadin bizikidetzan arituko diren belaunaldiak egun bizi duguna ez bestelako prozesu bat biziko dutela, nahiz eta prozesu horrek ere zailtasunak dituen; izan ere, ondorioak izango ditu euskal gizartearen etorkizunean.

“Ez dakit hori uste dudan, nahi dudan edo espero dudan... Txikitatik hazita hainbeste bizi duzu, hemen, ikastolan, hemengo kulturarena... Tira, espero dut txikitatik elkarrekin aritu diren belaunaldi hauek... Uste dut ezberdina izango dela”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Oso garrantzitsua da, baina oso zaila (...) oso garrantzitsua da gai hau lantzea, denon etorkizunean izango duelako eragina...”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ikasleen itxaropenak eta etorkizuna ikasleen euren ikuspuntutik

Guretzat, “itxaropena” da etorkizunera begiratzeko duen suposizioa, errealista izan daitekeena zein ez. Elkarrizketetan jasotako pertzepzioen artean, batzuek uste dute ikasleek itxaropenak dituztela. Aurkakoa uste dutenen artean, aldiz, batzuek bestelako iritzia dute, etorkizunerako aspirazio gutxi dituztela eta.

“Bai, badituzte itxaropenak”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“4. mailako marokoa... Hor, itxaropenez ez dakit zer esan... Hain altuak badira... Baina bai, etxetik eskatzen zaio; animatu egiten da. Nik aitarekin hitz egin dudana bakoitzean bai. Ez dator ama, aita dator, eta bai, onena nahi du bere alaba nagusiarentzat. Ez dakit non amaitzen den. Ez dakit 16 urte dituenean ikasketak utziko dituen, baina neska ikasle ona da, oso langilea.” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Ez, ez dute aspirazio handirik. Nik, esate baterako... DBHko 1. mailan inkesta bat egiten diegu, nagusitan zer izan nahi duten jakiteko, eta askok ez dakite ezer. Batzuek esaten dute irakasle izan nahi dutela, opor asko duzulako (...) Ez diezu entzuten esaten aita edo ama bezalakoak izan nahi dutela; ez dute ilusio hori. Baina, oro har, gazte guztiak... Bertokoak eta atzerritarrak... Baten bat nabarmentzen da, baina oro har... oso erlaxatuta bezala”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Elkarrizketatuei galdetzen diegunean nola hautematen dituzten ikasleek etorkizunak dituzten itxaropenak, erantzunak aldatu egiten dira irakasle diharduten hezkuntza-aroaren arabera. Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzan dabilzanen itxaropenak komunagoak, lausoagoak eta idealistagoak dira. Bigarren Hezkuntzan behera egiten du interesak, eta ikasle immigranteekin ikusten da, bereziki, itxaropenak derrigorrezko hezkuntza amaitu arte iristen direla.

“Denak futbol-jokalari, guztiak bezala. Nesken artean aniztasun handiagoa dago. Esaten da adin gazte horietan ez dela bereizten zer izan nahi duten batzuek eta zer besteek. Itxaropenak komunak dira oraindik: ez diot inori entzun nire herrialdera joango dela, han egongo dela. Ez. Gehiago dira “ni ez dakit zer izango naiz” bezalakoak.” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Eta zer izan nahi duzu heldua zarenean? Bada, batzuek gizarte-gaietara jotzen duten bezala, hauen % 50ek polizia izan nahi dutela. Halakoetan hausnarrarazi egiten diezu; esaten diet: “baina... polizia”... Beharbada niri iruditzen zait kontu baten inguruko ideia oso argia dudala, baina beharbada agintzen didate ideia horren kontra egiteko... Beharbada lanean esan behar diet ez dakit nori lantegia itxi diotela eta jo egin beharko diedala, eta esaten dizute: “bada, ez dira sartuko!”, “Bada, jo”. Beste errealitate bat bizi izan dute eurek, guztiz bestelakoa”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Eskuetatik erabat egiten die ihes horrek” (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nabaritzen dugu atzerritar gehiagok esaten dizutela DBHko 4. maila eta gero ez dute besterik ikusten... Batzuek esaten dizute ile-apaintzaile izan nahi dutela, baina ez duzu ikusten unibertsitateko ikasketarik esaten dizutenik”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ikasleen etorkizunaren eta itxaropenen inguruko hausnarketa egiten denean, aipatu egiten da ez dela orokortasunik egin behar ikasle etorkinek nahi dutenaren eta gainerako ikaskideek etorkizunaz espero dutenaren artean. Jatorria atzeritarrak izateak ez ditu nahitaez definitzen ikasleen nahiak, nahiz eta ez den ukatzen kasu batzuetan zailtasun handiagoak atzematen direla ikasle etorkinen hezkuntza- edo lan-ibilbideetan.

“Geure itxaropen berberak dituzte. Hurrek, datozenean, batxilergoa egin nahi dute, unibertsitatera joan nahi dute edo Lanbide Heziketa nahi dute, euren itxaropenen arabera. Are gehiago, gure ikasleetako askok batxilergoa egingo dute. Gertatzen dena da, esate baterako, Latinoamerikako biztanleriak oso maila baxua duela eta horrek ere nolabait baldintzatzen duela euren ikasketen jarraipena. Halere, tira, Latinoamerikako ikasle oso onak ditugu, eta batxilergoa egin dute.” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Oraindik ere pentsatzen dute Messi izan nahi dutela, baina nik uste dut oraindik ez dagoela alde handirik itxaropenei dagokienez. Familiaren arabera, zera... Dena den, nik uste dut Lehen Hezkuntzara arte itxaropenak bertsuak izango direla gutxi gorabehera”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Denetarik dago, baina tira, pertsona batzuk batxilergoa ikasten ari dira, karrerak egiten ari dira, harremana dugu gainerakoekin, noizean behin etorri egiten direlako, ikasle ohi batzuei eskatzen diegulako itzultzeko, orientazioa egitera. Esate baterako, DBHko 4. ikasturteko ikasleekin oso gustura etorri ziren... Apur bat denetarik dago. Gertatzen dena da... Egia da urte batzuetan ikasle-mota horren inguruan metatu direla arazoak.” (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Ikasle etorkinen kasu zehatzean, etorkizuna eta etorkizunean duten itxaropena familiaren migrazio-proiektuaren mende dago. Badakite ez direla lurraldean betiko geratuko, edo, gutxienez, familiak sentsazio hori ematen die, eta horrek eragina du lortu nahi dituzten helburuetan.

“Askok beharbada bai esaten dizute hemen amaituko dutela DBHko 4. maila eta gerora euren herrialdera itzuliko direla, euren amak ikasturtea amaitzea nahi duela, eta gero alde egingo dutela. Ematen du batzuk ez daudela egonkortuta. Badakite hau aldi baterako dela eta badakite gero itzuli egiten direla. Beste kontu bat da azkenean ez dutenean alde egiten. Latinoamerikako neskato bat dugu, aita Alemanian duena eta ama hemen. Berak dio ikasturtea amaitzean Alemaniara joango direla. Lehenengo Aste Santuan joango zirela esan zuen, eta azkenean ikasturtea amaitzea erabaki dute. Ez dakite zer egingo duten gerora, aitaren lanaren arabera. Eurek badakite mugituko direla beti, eta asko Bartzelonatik edo beste leku batetik etorri dira hona. Ikusten dute mugitu egingo direla, ez direla hemen geratuko.” (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Etorkizuna eta etorkizunean duten itxaropena familiaren migrazio-proiektuaren mende dago.

“Bai, denak jaio dira beste herrialde batean, ez hemen. Asko 7 edo 8 urterekin etorri dira. Badakite hemengo egongo direla eta gero alde egingo dutela. Bitxia da haur batek hemen geratuko dela esatea.” (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Laburpena

Ikasle etorkinek euskara ikasteko duten erraztasun handiagoa edo txikiagoa hainbat aldagaien arabera da, eta, horrenbestez, orokortzeak saihestu behar dira. Ikasle txinatarrak adibide dira irakasleen artean kontrajarritako hautematez ari garenean (betiere esperientzia profesionala oinarri hartuta), bai hizkuntza berri bat ikasteko lastertasunari dagokionez, bai ulermen-arazoei dagokienez. Ikastetxera eta hizkuntzetara egokitze prozesuan eragiten duten faktoreen artean, bereziki nabarmentzen dira ikasleak euskal hezkuntza-sistemara sartzeko adina. Iritsi berri diren ikasleak zenbat eta helduagoak izan, hainbat handiagoak izango dira euren hezkuntza-garapena erdiesteko zailtasunak. Euskara ulertzeko zailtasunek jarrera-arazoak eragin ditzakete, hala ikasketen inguruko jarrera axolagabearen bidez nola arreta bilatuz ikasgelako errealitatearekin konektatzen ez diren ikasleen artean, edo irakasleak ikasgelan markatzen duen erritmoari jarraitu ezinik dabilzan ikasleen artean. Ikasle etorkinen sektorean halako gaitzespen-sentimendua sortzen da: euskara hizkuntza zailtzat eta aspergarritzat jotzen dute, bai eta ez erabilgarritzat ere. Azken faktore horrekin bat datoz beste lurralde batera joateko aukeraz hausnartzen duten familiek, ez baitute praktiko ikusten euskara ikastea.

Ikasleen artean sortzen diren harreman eta adiskidetasunek ez dute inolako gatazka handirik eragiten, eta eragiten den gatazkak ez du helduen artean sortzen diren kutsu arrazista: ebidentzia agerikoegiak baliatzen dira ikas-kideen aurka egiteko. Egia da jatorriko eremu geografikoaren arabera batzeko joera dutela, bereziki nerabegarora hurbiltzen direnean, nahiz eta horrek ez dakarren koadrila mistoak ez egotea. Kultur alderdiak eta jarduera erlijiosoak partekatzen dituzten familien arteko hurbiltasuna ere lagungarri da euren seme-alabek elkarrekiko harremanak izateko.

Halaber, ikasleek ikastetxeetan duten integrazio maila egokia da. Gradualagoa eta zailtasun handiagokoa izan daiteke ezarritako epeez kanpo matrikulatutako ikasleena, baina ez da bazterkeria-arazorik sortzen, eta bizikidetzat, oro har, positiboa da. Utzi egin behar da parekoen arteko harremanek eta integrazio egokiari laguntzen dioten faktoreek behar beste denbora hartzea. Bestalde, ikasleen adinak eragina du, berriz ere, interakzioen naturaltasunean; horrenbestez, baita integrazioan eta bizikidetzat normalizatuagoan ere. Harremanak sortzen diren inguruan erreferentzia den hizkuntza ikastea da integrazio arrakastatsua beste adierazle bat. Errealitateak erakusten digu integrazioa eta berdintasuneko bizikidetzak oztopatzen duten hesiak daudela.

Irakasleek hautematen dute jatorria edo arbasoak atzerrian dituztenek aldi berean zenbait lekutakoak direlako sentipena dutela: hala euren zein familiaren jatorriarena, nola bizilekuarena. Hori esanda ez dira isilpean utzi nahi jatorrikoa edo helmugakoa baztertzen dutenak, ez eta familia-nukleoan ezarritako parametroen arabera autodefinitzeko joera dutenena ere. Kontu honetan ere

adinaren eta helmugan egindako denboraren faktoreak gehitu behar ditugu, identitatearen eraikuntzan eragiten duten aldagai gisa. Tokiko biztanleriaren zati batek mehatxutzat ikus dezake atzerriko jendea iristea, eta euskal identitatearen balorearen galera egotz diezaieke, balore horiek euskal komunitate guztiak identifikatzen eta partekatzen dituen multzo unitariorat jotuta, nahiz eta hori asko esatea den... Nolanahi ere den, batzuen ustez, atzerriko jendearentzat identitate partekatua proposatzea da zenbat izate-sentimendu kontzentratzeko modua, halakorik balego. Azkenik, irakasleek hausnartu egiten dute ikastegiak ikasle etorkinen jatorrizko kulturaren inguruan agertu behar duten estimuaz, etorkinak dagokion lurralde hartzailea baloratu ahal izateko.

Azkenik, irakasleen sentsazioak, ikasleek etorkizunerako itxaropenik duten galdetuta, bitan banatzen dira: batzuek badituztela diote, eta beste batzuek oraindik ere garatu gabe dituztela. Haur eta Lehen Hezkuntzan matrikulatutako ikasleek ari bagara, euren nahiak oso antzekoak dira, lausoak eta idealistak. Bigarren Hezkuntzan, aldiz, etorkizuneko nahiak hausnartuta ere ez daude, eta ikasle etorkinen arabera, eten egiten dira nahitaez egin beharreko hezkuntza amaitzen denean. Kasu honetan ere ezin da orokortzerik egin, eta bereizi egin behar da bertoko ikasleengandik eta etorkinengandik espero daitekeen etorkizuna, nahiz eta ez den ukatzen azken horien artean zailtasun handiagoak identifikatu direla hezkuntza- eta lan-ibilbideetan.

5

Familia

Familia betidanik jo izan da, ikuspuntu sozialetik, pertsonen garapenerako erreferentziatzko taldetzat. Hezkuntza-zentroarekin eta bestelako elementuekin batera, jokabide-irizpide eta -jarraibideak ezartzen ditu familiak, eta horri lehenengo mailako gizarteratze esaten zaio. Familian eratzen dira egiturak, familian ezartzen dira garapen argibide, ohitura eta hierarkiak, eta familian abiatzen da garapen intelektuala.

Familiek familiako kideak prestatzen dituzte gizartean bizitzeko, eta, horretarako, loturak sortu behar dituzte kanpoko gizarte-erakundeekin, hala nola hezkuntza-zentroekin. Atal honetan irakasleen pertzepzioen berri emango dugu; zehazki, honako hauen ingurukoak: familiek euren seme-alaben hezkuntzaren inguruan hartutako jarrerak, ikastetxeetako kultur aniztasunaren aurrean duten jarrera, partaidetza maila, eskola-giroan familien artean sortzen diren harremanak, seme-alaben hezkuntza-garapenean eragiten duten kultura-alderdiak, familiaren egonkortasun maila, etorkizunean egin daitekeen migrazio-ibilbidea eta seme-alabengan jartzen diren itzaropenak.

Kultura-alderdiak

Familiez eta familiek hezkuntza-zentroarekin duten harremanaz hitz egiten dugunean, irakasle elkarrizketatuen diskurtsoetan ageri diren azalpenek zuzenean edo zeharka aipatzen dituzte euren sorterriekin lotutako berezitasunak. Hasiera batean orokortzerik egin nahi ez bada ere, ikusi egingo dugu joera dela tokiko biztanleekin erkatzea, eta jokabide eta jokamolde jakin batzuk jatorriaren arabera multzokatzea.

“Orain arte bi ezberdintasun oso handi ikusten genituen: alde batetik, Latinoamerikakoak; bestalde, Ekialdeko herrialdeetakoak. Oro har, inoiz ezin zara orokortasunetan ibili”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Afrikatik datorren jendeak beti izango du ezberdina delako sentipena, nahiz eta gu hori horrela izan ez dadin saiatu”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Irakasleek ezberdintasunak antzematen dituzte, ikasleen jatorriaren arabera; hain zuzen ere, kategorizazio horrek bide ematen die ikasleen eta familien inguruko ideia bat egiteko. Errumaniarren edo Ekialdeko herritarren kasuan, nabarmendu egiten dute gehiegiko babesa eta semeek alabek baino inplikazio handiagoa dutela ikasketetan. Irakasleek uste dute txinatarrek euren hizkuntzari eusten diotela familiaren eta harremanen inguruan. Latinoamerikako herritarrek, bestalde, euskal gizarteko kide izan nahi dute, bat gehiago izan nahi dute, eta onartzen dute izaera irekiagoa dutenez eta hizkuntza-erraztasuna bestelakoa denez, kultur talka ez dela hain nabaria, beste nazionalitate batzuetako herritarren aldean. Bada, horrek bidea errazten die. Beste alde batetik, ez dute hainbesteko interesik euren seme-alaben hezkuntzan, batez ere eskolatzeko goiztiarrei bagagozkie.

“Ezberdintasun kultural batzuk nabaritu egiten dira. Esate baterako, etorri diren errumaniarrek gehiegi babesten dituzte seme-alabak. Beharbada han ez dituzte hain gazterik eskolatzen... Ordutegiena... Gehiago huts egiten dute. Gerora, hemengo sisteman sartzen dira apur bat, baina ez dakit han ere zein diren ohiturak. Esate baterako, gehiegiko babesa dute alderdi horretan, edo... Nik gogoratzen dut banuela bat, bi urteko ikasgelan hasi zena eta negar apur bat eginez gero, ez zutena jasaten. Beste batean, talde horretan bertan, hiru urterekin bertaratu zen bat, eta aitarekin ikasgelan egindako egokitzapena oso luzea izan zen”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

(Errumaniarrak) “Izan ere, aita zen, tira... haurra ere bazen; izan ere, hor lotura bat sortzen da... Gurasoek ere ez dute erantzun bera ematen semeekin eta alabekin, uste dut aitek, ez amek, inplikazio handiagoa dutela semeekin, mutilekin. Nik bi izan ditut eta dena da aita: aita etortzen zen, jakinarazpenez arduratzen zen... Andrea beti atzetik. Alderdi horretan nabaritu egiten da”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Ekialdeko herrialdeetatik datozen direnak guztiz kontrara: gurasoak oso arduratuta integratzearekin, hizkuntza-kontuekin... Elkarrizketetan, behar izanez gero, itzultzailearen batekin etortzen diren. Halaber, haurren artean ikasteko erraztasun handia ikusten zen, hau da, berehala, hizkuntzarena, ulermenarena... Ikasketagaietan gainerakoen organ zeuden haurrak, eta etxean ere arduratzen ziren horrekin, nolabait”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Guk dugun esperientzia da... Etxean txinera mantentzen duten familiak, gainera, oro har, negozio bat dutenak (...) Eta etxean bagenekien iristen zirela, dendara joaten zirela, familiarekin zeudela, nolabait laguntzen zutela... Etxean ez zuten txinera besterik hitz egiten, eta hori da errealitatea”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Esate baterako, hegoamerikarrak oso irekiak dira, eta ez dute nahi... Ez dute hitz egin nahi... Hemengoak balira bezala. Seme-alabekin beste horrenbeste gertatzen da. Tira, hizkuntza... Gaztelania jakiteak asko errazten die, eta gerora ez dgo hainbesteko kultur kalkarik, arabiarren eta txinatarren aldean... Oso erraz

integratzen dira, eta tira, izaera ere irekiagoa dute, eta hemengoak direla diote. Hemengo izenak jartzen dizkizute jada". (Publikoa, Haur Hezkuntza)

"Hauek guztiak, Perutik, Kolonbiatik, Ekuadorretik etorri direnak... Oro har haur-tzaindegi-zerbitzutzat hartzen dute apur bat, ikasketa-prozesuari ez diote garrantzia handirik ematen. Deitzen bazaie beti oso zuzen, arratsaldean ez badatoz, ez datoz, azalpen handirik eman gabe; hots, fundamentu gutxirekin, nahiz eta hizkuntzaren erraztasuna duten". (Itundua, Haur Hezkuntza)

Musulmanei buruz hitz egiten dutenean, nabarmendu egiten dute familia-giroan ematen zaien hezkuntza, gizonak eta andreak erakunde horretan duten zeregina. Generoetako bakoitzak jasotako hezkuntzan duen rola zein den galdetzen dute, seme-alabek hezkuntza horretan bizi dezaketen kultur talka eta hazten diren giroan ikasten dutena. Interesari dagokionez, lehenago latinoamerikarrez aritzean esan dugun bezala, ikastetxean ez dute gainerakoek ezberdin izan nahi, dituzten kultur berezitasunei ukorik egin ez arren. "Neskato musulmanak izan bazuen ahalmena, baina nik hor ez dakit familia horren gogoan sartzten den neska batek Bigarren Hezkuntzaz harago ikasten jarraitzea. Horren berririk ez dut." (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Musulmanak, batez ere mutilak... Ematen du egokitu egiten dira, baina familiak benetan sakon markatzen ditu. Nik hemen entzun diot mutil musulmanen bati azaltzen aitzak diru apur bat ematen ziola amari asterako, jatekoak erosteko, ez arropa erosteko. Kontrolpean. Amari deitu diogunean, esate baterako, ez zetorren, eta etortzen zenean laguntzarekin zetorren: semearekin; ahal dela, gizon batekin. Amak ez du zereginik eta horrek nolabait markatu behar ditu seme-alabak, nahiz eta beste etxe batzuetara doazen eta bestelako funtzionamenduak ikusten dituzten. Nik ez dakit benetan nola bizi duten dikotomia hori." (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Alde batetik, esate baterako arabiarrekin... Marokorak euren erara janzten dira, baina seme-alabak zera izatea nahi dute... Tira, jatorria ez nabaritzea, gainerakoek pareko izatea. Nik baietz uste dut. Batzuek tunika eta antzekoekin ekartzen dituzte, baina ez dute eskolan ezberdin sentitzerik nahi. Etxean euren hizkuntza hitz egingo dute eta euren ohiturak izango dituzten, baina eskolatik baloratu egiten baditugu ohitura horiek; izan ere, eurek euren babestu nahi dute, baina besteek ere ulertzea nahi dute". (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“

Haiek oso-oso kezkatuta zeuden integratzearekin, neskatoa gainerakoak bezalako izatearekin, ezberdintasunik atzeman ez zekion. Bestalde, tira, oso adeitsuak dira eta benetan integratu ziren jendartean. Oro har, familiak, orokorrean... Ikusten duzu euren nazionalitateko jendearekin aritzeko joera dutela, euren inguruko jendearekin, baina tira... Oro jar, jendeak bere espazioa mantentzen du". (Itundua, Haur Hezkuntza)

”

Familien jarrerak

Elkarrizketarekin hitz egiten dugunean familiek euren seme-alaben hezkuntzaren inguruan duten gogoaren inguruan, erantzunak aldatu egiten dira tokiko familien aldean nolabaiteko interesik eza azaltzen dutenen eta hezkuntzaren inguruko interesa dutenen artean. Seme-alabak artatzeko denbora eskasa, ikasketei ematen dieten garrantzia eta seme-alaben ikasketetan duten inplikazioa nabarmentzeko faktoreak dira ikasketen inguruko interes txikiagoaz aritzean.

“Izan ere, (tokiko) gurasoek ez dute berdin borrokatzen, bestelako lehentasunak dituztelako”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Denetarik dago, baina, oro har, interes txikiagoa. Azkenean esaten dizute ez dutela kontrolatzen, kanpoan lanean daudelako. Seme-alabak bakarrik daude ia egun guztia. Esaten dizu... Ez dakit ba, agendan nota hartzen duen, etxeko lanak egiten dituen, gauean etxeratzean ohean daudela jada, edo play-arekin jokoan edo telebista ikusten ari denean ez diela jaramonik egiten... Adin txarrean daudela... Hau eta bestea... Dena da aitzakia. Nik aitzakiatzat jotzen dut. Izan ere, ni oso berandu iritsi naiteke, baina esango nioke agenda erakusteko edo etxeko lanak erakusteko. Nik esaten diet beharbada ezingo dutela laguntzarik eman, baina benetan ezin direlako alboan jesarri laguntza emateko, hizkuntza ulertzen ez dutelako, ez dakitelako... Ados, baina kontrolpean izan ditzakezu. Denetarik dago, eh? Izan ere, guraso batzuek inplikazio handia dute, baina gutxiengoak dira”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Nik uste dut ondo artatuta daudela. Gurasoei deitzen diozu... Are gehiago, itzultzaileak behar dituzunean... Gutxitan egiten dute kale hitzordu batera. Gurasoek badute seme-alabenganako interes orokorra. Sarri datoz. Gure zuzendaria ere, kontuotarako, asko hitz egiten du eurekin. Asko zaintzen ditu eta harreman ona du familiekin”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Gainerako gurasoak direla eta, bi neba-arreba daude, eta gurasoei deitzen diegunean etorri egiten dira. Promesa asko egiten dituzte, baina gero hor geratzen da kontua... Esate baterako, neba-arreba batzuk iritsi ziren orain bi urte, oso inteligenteak ziren, dena gairatzen dute (eta hori ez da arruntena), baina oso txarto irakurtzen dute. Gurasoei eskatu genien egunero irakurtzeko. Oso alferrak dira, ahalik eta gutxiena ikasten dute, zerbait esateko, denborarik eman gabe arrakasta dutelako. Ikasgelan zuhur ibilita, beherengo mailetan, harrapatu egiten dute, euskararen zailtasunak zailtasun. Halakoetan inplikazio handiagoa eskatzen diegu gurasoei. Idatziz egiten dituzte etxeko lanak, baina gero ikasi, ez dute ikasten (...) Gurasoei inplikazioa eskatzen digu eta hitza ematen dute, baina gero ez...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Bai, badaude batzuk... Boliviako mutil bat dut gogoan. 14 urte ditu eta bere amak jarraipen zehatza egiten ditu, nahiko arduratuta dago semea nora joaten den, jende txarrekin batuko ote den...”. (Hezkuntza ez-formala)

“Seme-alaben inguruko kezka da haurra ondo egotea, haurra integratuta egotea, haurra pozik egotea. Esaten duzu: aizu! oso txarto dabil... Baina, ez. Ikasketak bestela hartzen dira, haurraz arduratzen dira, baina ez da... 5 bat atera du eta arduratu egin behar dut; hori ez”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Tokiko familia batzuek euren borondatez erabakitzen dute seme-alabak kultur aniztasuna dagoen hezkuntza-zentroetan matrikulatzea. Eskola bizi diren gizartearen islatzat jotzen dute, eta, horrenbestez, bizipen eta esperientzia aberasgarria da euren seme-alabentzat. Hain zuzen ere, esperientzia horrek euren giroko errealitatera hurbiltzen ditu, eta gazte-gazterik hasten dira errealitate horrekin bizitzen.

“Familia batzuek nahi dute euren seme-alabak era horretako eskoletan ibiltzea. Zergatik? Askok ikasten dutelako. Nik uste dut familia egonkorretako haurrak, motibatuak... Gazteok ikasi egiten dute eskoletan... Akademikoki dena dute ikasita, haurrek asko dakite gaur egun, baina gainerakoekin eta aniztasunean bizitzen ikasten dute. Halaber, ikasi egiten dute egun batean lagun marokoar baten etxera badoaz, Marokora doazela. Arazo ekonomikoak dituen pertsona bat ikusten badute, ikusten ari dira. Niretzat, hori haurtzarotik ikustea oso aberasgarria da, eta iruditzen zait pertsona moduan ere bestelako egiten zaituela.” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Egia esan, horrekin lotuta, zorte handia dugu hemen matrikulatuta daudenekin. Esan nahi dut... Gurasoek eskola publikoan sinesten dute. Nik uste dut asko sinesten dutela; beraz, onartu egiten dute, eta normaltzat jo euren seme-alabak halako ikasleekin ibiltzea. Ez dute arazorik ikusten. Arazoak daude ikasleak jarrera-arazoak eragiten dituenean, baina hori herritar guztiekin gertatzen da. Datozenekin eta hemen daudenekin. Beraz, bai, jakina, jakina. Baina beloen kontua... ez”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Bestalde, hainbatek mesfidantza eta errezeloa adierazi dute, familia batzuen inguruan, seme-alabak atzerriko ikaskideekin ari direla dakitenean. Atzerriko ikasleei egozten dizkieten ezaugarriak ez datoz bat errealitatearekin. Hori dio “hezkuntza maila jaisten da” baieztapen hain errepikatua. Are gehiago, errefusa aurkitzen dugu atzerriko familien artean; zehazki, estereotipo negatibo horiek beroriek darabiltzate sinpatiarik eragiten ez dieten ikasleekiko.

“Batuetan, matrikula berriak izan ditugunean, niri esan egin didate, esate baterako “Hara! Ikasleak ikusi ditugu, esate baterako, beloarekin” edo “Ekuadorko asko ikusi ditugu”. Beldur hori dago hor, ezta? Izan ere, ez dute ezagutu eta seme-alabek ez dute eurekin lan egin. Hona etorrita lanean hasten direnean, desagertu egiten dira beldur horiek. Ikusten duzunean ez dela ezer gertatzen, kontuak aurrera jarraitzen duela, seme-alabek ez dutela oztoporik ikasketetan...”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Sahararrari mutil latino batekin egokitu zitzaion lan bat egitea, eta amak ez zion utzi, mairu bat egokitu zitzaiolako eta ez zuelako gustuko. Arazoak izan zituzten, elkarrekin jarri zituztelako eta egin behar zutelako, eta buruhaustea amak ez

“

“Badituzu familia batzuk baietz, eta gero badituzu familiak... Ufff... Tira... Esate baterako, lehenengo mailako batzarra orain dela hiru urte, atzerriko familia guztien aurrean, kokoteraino zeudela-eta kanpoko hainbeste jende egonda. Atzerriko familiak... Irudikatu zuk han zeuden gurasoak. Errespetuz: ez zuten txintik ere esan”.
(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

”

ziolako uzten... Gehiago zen ama, euren aldetik ez zegoelako arazorik: ikastetxeko lagunak dira". (Hezkuntza ez-formala)

Ildo horretatik bertatik, tokiko familia batzuk zuzeneko lehian sartzen dira, hezkuntzako diru-laguntzak direla eta; esate baterako, bekak direla-eta. Immigranteen familiekin... Ezinegona familia horren baliabiderik ezak eragiten du.

"Hemen badago jendea, eta uste dut nik ere... Baina ez da politikoki zuzena esatea... Nire semea edo alaba lehenengo, eta honek laguntzak eskatzen baditu, lagun diezaiotela, baina lehenengo nire semeari edo alabari. Inork ez ditu hori esango. Uste dute atzerriko jende asko dagoenez, euren semeari edo alabari ez zaiela laguntzarik emango, eta immigranterik egongo ez balitz, laguntzak izango lituzketela." (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Euskara gai gatazkatsua da; izan ere, bertako familiek uste dute ikasle atzeritarrak egoteak eragin negatiboa duela euren seme-alabek hizkuntza hori ikasteko prozesuan. Beste alde batetik, immigranteen familiek seme-alabak euskaraz matrikulatzeko hautua hizkuntzak migrazio-proiektuan duen erabile-raren mende dago; izan ere, familien planen artean dago Euskadi ez den beste lurralde batera joatea. Dena den, seme-alabak D ereduan matrikulatzearen alde egiten dute batzuek.

"Nik ulertzen dut: etxean ez dugu inoiz euskararik erabili eta nire semea B eredu-ko ikastetxe batean dago, X ordu izan behar ditu euskaraz eta nik badakit atzerri-ko ikasleak daudenez, klaseko tarte batzuk gaztelaniaz ematen dituztela. Baina, errealitate horretatik ondorioztatzea nire semearen euskara maila txikiagoa dela, arrazoi hori dela eta... Unibertso bat dago. Niri iruditzen zait hori eutsiezina dela. Ez dut uste horrela denik. Izan ere, eskola batean 10 minutu ematetik ezin duzu ondorioztatu nire semearen euskara maila txikiagoa dela, arrazoi hori dela eta. Zure semearen edo alabaren euskara maila hainbat arrazoiren ondorioz da txikiagoa: ez duelako eskolaz kanpoko ezer, eta zuk egin zenezakeelako; zuk ez diozulako hizkuntzari baliorik ematen, eman ahal diozun arren, eta abar. Jakina, kontua da irakurketa horiek azkar egiten direla eta batzuei oso ondo datorkiela euren egoera justifikatzeko." (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Beraz, zer gertatzen da? Bada, jendeak ikusi egiten duela. Ikusten zaituena... Baina nola sartuko dut nire semea hor, B ereduan, beti dabilta-eta gaztelania hutsen." (Publikoa, Lehenengo Hezkuntza)

"Eta hori, euskararekin, nik uste dut... tira... Ez dut zuzenean hitz egin familiekin, baina pertzepzioa da... Tira, euskara zertarako, joan egingo naiz eta. Esaten dizute: zer da euskara? Izan ere, beharbada hemendik bi urtera Parisen egongo naiz. Nik ingelesa edo frantsesa hitz egitea nahi dut." (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Bestalde, nik ikusi dut gurasoek ahalegina egiten dutela euskararekin, D eredua hartzen dutela Haur Hezkuntzatik euren seme-alabentzat. Ez dago inolako arazorik D ereduan matrikulatzeko." (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Azkenik, nabarmentzekoa da atzematen den bilakabidea, familia immigrante batek Euskadin bizitzen igaro dituen urteei dagokienez: mesfidantza-jarreratik segurtasun eta lasaitasun handiagoko jarrerara igarotzen dira familiak.

“Ikusten duzu pertsona batzuekin bilakabidea dagoela, alde handia dagoela... Jarriera... 6. mailako haur bat dugu, lau anaia-arreba dira... Nolakoak ziren gurasoak lehenengo urtean eta nolakoak dira gaur egun... Ez du zerikusirik. Nik ulertzen dut, ezta? Mesfidantza dago. Azken batean, gu funtzionarioen modukoak gara. Euren egoera ez zen legezkoa hasiera batean, ez dira fidatzen zuk informazioa pasako ote duzun... Orain, igaro ondoren, oso esker oneko jendea da...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Familien partaidetza ikastetxean

Familiek seme-alaben eskolako bizimoduan duten partaidetza, Gurasoen Elkartean bidez (IGE) edo ikastetxeak antolatutako jardueretan, oso eskasa da, hala jatorria atzerrian dutenen artean nola tokikoen artean. Ikastetxeen erronka da partaidetza animatzea eta motibatzea.

Familiek seme-alaben eskolako bizimoduan duten partaidetza oso eskasa da, hala jatorria atzerrian dutenen artean nola tokikoen artean.

“Hor erronka bat dugu, partaidetzari dagokiona. Gurasoen partaidetza, oro har, txikia da ikastetxean. Eta euren artean, ba... ez dago. Tira, noizean behin bai, baina ez ikastetxeak sustatzen dituelako edo berez sortzen direlako.” (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Irakasleak bat dagoz: familia immigranteen partaidetza eskasa da, eta noizean behin egiten diren jarduera informaletan agertu ohi dira. Ikastetxeetara ez bertaratzeko eta beste familia batzuekin IGEetan parte ez hartzeko arrazoiak dira lotsa eta segurtasunik eza pertsonen arteko harremanetan, lan-ordutegi amaigabeak eta IGEan parte hartzeko ordaindu beharreko kuotak, edonork ordaindu ezin dituenak, besteak beste. Nolanahi ere den, uste dute beharrezkoa litzatekeela estrategiak bilatzearen inguruan hausnartzea, familiak ikastegiko partaidetzara hurbiltzeko.

“Ez. Aurten lehenengoz eman dute izena eskolako kontseiluan jatorria atzerrian duten hiru familiak; orain arte ez dugu izan. Baina, orain bai. Bestela, jardueren arabera... Arrakasta bete izan dugu, jarduera zertxobait informalak direnean; hau da, aste batean, sukaldaritzaz ez dakit zer egin genuenean, partaidetza oso handia izan zen. Gazteekin joko-eguna egiten dugunean parte hartzera etor daitezke... Halakoetan parte hartzen dute. IGEren alderdi formal horietan eta, ez. Baina, hemengoek ere ez. Partaidetza oso txikia da. Tira, neuk ere ulertzen dut...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Nire ustez, oso interesgarria litzateke gurasoak hona hurbiltzea, taldera, zerbait antolatzen ari diren gurasoak... Norbait sartzea. Jaiegun batzuetan laguntzen dute, baina aparteko kontua da. Interesgarria litzateke zera, gurasoen taldea jarduerak antolatzen ibiltzea... Baditugu ideiak: arratsaldeetan antolatzea, te bat edo zerbait hartzea, jostea oso gustuko baitute kanpokoek, arropak jostea egin ohi ditugun jaialdietako jardueretarako... Danborradak egiten ditugu... Baina beti dute zereginen bat, edo kanpotik datorren jende askok ez dauka egun horretarako arroparik... Ideia da arroparik ez duenari guk geuk uztea, eta datozela eta eurek sortzea...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Gutxi sartzen dira. Oro har, ez dira IGEan sartzen, baina batez ere kuota bat ordaindu behar delako...”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Gurasoen inplikazioa oso txikia da, baina bizi duten egoerarekin... Zer eskatuko diegu hona arrakasta bila etorri diren familiei, askotan gizonak zein andreak lan egiten dihardutela... Gainera, askotan seme-alaba asko dituzten familiak dira... Gero, zera... Jakina, arazoa da, eurek ez dute sentipenik... Etorri berriak dira, nahiz eta bi urte egin dituzten; beraz, nolabait, lotsatu egiten dira parte hartu behar dutenean edo ikastetxeko bizimoduan sartzean, gurasoen elkartean eta. Euren lekua jarri behar gara, ezta? Eta pentsatu behar da, jakina, zuk pausu hori ematen baduzu, zeure buruagan segurtasuna duzulako da, ez dakit, giro batean zaude... Jakina, leku batean bi urte egiten badituzu, ziurgabetasunez beterik zaude.” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Inplikazioa zentroan... ez hainbeste. Guk, hori dela eta, zorte handia izan dugu; izan ere, gure jendea, oro har, oso inplikaturik dago ikastegiarekin. Egoera sozioekonomiko ona duten familiak dira, beraz ez dugu arazorik inolako laguntzarik eskatzeko, inplikazioa eskatzeko, egiten ditugun kanpainetan... neurri handiagoan edo txikiagoan, jendeak erantzuten du. Jende hori dela eta, tira, erantzuten du, baina ez du hainbesteko inplikaziorik, ez”. (Itundua, Haur Hezkuntza)

Harremanak

Tokiko eta atzerriko familien arteko harremanak, oro har, distantziara egiten dira edo ez dira egiten.

Tokiko eta atzerriko familien arteko harremanak, oro har, distantziara egiten dira edo ez dira egiten. Hala hautematen dute elkarrizketatutako irakasleek: ez dute inolako gatazkarik ikusten, baina joera dute antzeko kultur alderdiak partekatzen dituztenekin biltzeko.

“Oro har, batzuk badaude... Esate baterako, haur asko oso integratuta daude, parkean eta, badaude... Baina, gehienak euren taldeekin ibili ohi dira”. (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“Denetarik dago. Oro har, oso ondo. Baten bat beti irteten da konturen batekin...” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Ez da oso estua”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Ez, beharbada baten bat, baina ez. Oraindik oso berde gaude”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Hori dela eta, bizilagun magrebtarrek distantzia handiagoa dute gainerako familiekiko. Integrazio linguistikoa da batzuen eta beste batzuen arteko espazioa definitzen duen faktorea; izan ere, aurkako adibidea dugu errumaniarren artean: gaztelania ulertzeak bidea ematen die harreman arrakastatsuak lortzen.

“Familia asko beste patioan batu ohi dira, han, eta ikusten duzu hizkuntza bera darabilten emakumeak direla. Badago emakume magrebtarren talde bat, haurrekin biltzen direnak... Aurten, Korrika dela eta bizpahiru familia etorri ziren. Ilusio handia egin zidan...”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Esate baterako, ama horiek ez dute harremanik hemengo beste ama batzuekin. Senideekin batera ikusten dira, eta denak doaz euren beloekin... Beste ama

“

“Baina aitak... Esate baterako, amak ez du harremanik hemengo inorekin, lehengusina edo koinata marokoarrekin bakarrik; beraz, nik amari hitz egiten ere ez diot entzuten”.
(Publikoa, Lehen Hezkuntza)

”

batzuekin oso gutxi. Hemen X plazara joateko ohitura dute, horra doaz askaltzen eta hor biltzen dira ama guztiak. Eta hauek, musulman ez direnak, ez. Ez dira hurbiltzen. Ez dute hizkuntza ezagutzen. Nolanahi ere den, errumaniarrak ere ez datoz hizkuntzarekin, baina bi hilabeteen ikasten dute. Horiek, esaterako, badute harremanik beste ama batzuekin”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Familien arteko harremanak sortzeko joera seme-alabek dute; izan ere, lagunak egitean gurasoak eramaten dituzte topalekuetara aisialdian, hala nola espazio publikoetara, jaietara eta abarretara. Familien izaerak ere eragina izango du harreman horretan.

“Hori nahiko seme-alaben lagun araberakoa da. Gazteak lagunak direnean, hor zerbait egon daiteke; bestela, nik neuk ez dut harreman askorik ikusten”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza).

“Honek lana eskatzen du. Behar dute... Haurrak badira, apurka-apurka... Haurtzaroan haurrek beste haur batzuekin jolastea eskatzen dutenez, horrek behartu egiten zaitu, nolabait, parkean egotera... Egokitu zaizun jendearen arabera, irekia-goia edo itxiagoa den, batu egiten dira. Baina, kosta egiten zaie.” (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Familia-giroa – Familiaren babesa

Elkarrizketarekin hitz egin dugu ikasle immigranteak dauden familia-inguruaz, familiek jasotako arretaz eta eskolaren lekuaz. Lekuko batzuek esan digu nolabaiteko ezegonkortasuna atzematen dutela familia-inguruan, non haur eta gazteek eskatutako babesa ez den beti artatzen, zenbait arrazoi tarteko (besteak beste, gurasoen lanaldi luzeak). Askotan bakarrik daude etxean, eta ikastetxeak ematen dizkie behar dituzten oreka eta egonkortasuna.

“Jakina, oso familia sendoa baduzu, oso indartsua eta babes handia ematen dizuna, nik uste dut ezetz. Baina, kontua da batzuetan ezegonkortasun-egoerak ikusten dituzula, lanean diharduen jendearen lana nahiko prekariora da, haurrek gurasoak ikusten dituzte... Goizeko 05:00etan altxatzen dira auzokoarenera eramateko... Bada, halako egoeretan oso garrantzitsua da hemen gustura egotea, egonkortasunari begira”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Are gehiago, batzuek ez dute oporrik nahi, hobeto daude hemen, etxean bakarrik daude. Haur batzuek etxean igaro dute astebeteko oporraldia, telebista ikusten, bakarrik. Aurreko egunean aipatu genuen neskato hura hobe legokeela barnetegi

batean, lehen zen bezala; izan ere, ama gaixoak duen lanarekin...". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Izan ere, eurentzat erreferentzia oso garrantzitsua zara, eta horregatik 16:30ean ez dute ikasgelatik irten nahi. Esate baterako, esaten dute: "Ondo! Bi opor egun". Baten bat beti pozten da ez delako goizetik jaiki behar, baina ez dute hiru asteko oporraldirik nahi, ez dutelako etxean egon nahi. Izan ere, hainbat ordu igarotzen dituzte bakarrik. Bestalde, batzuk amamarekin bizi dira, Madrilen bizi diren gurasoengandik bereizita, ikusten zutelako ez zuela jaten... Familia zailak dira". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Asko bakarrik daude. Denbora ematen dute bakarrik, inolako erreferenterik gabe edo erreferente negatiboekin. Horrela, beste aukera batzuk ematen dizkiezu". (Hezkuntza ez-formala)

"Familietan badaude kasuak non familiaren egoera zailxea den". (Hezkuntza ez-formala)

"Halaber, aintzat hartu behar da ez direla familia "normalizatuak", bikoteka datoz, ekonomiaren ikuspuntutik ez dute arazorik, seme-alabak etxean arta ditzateke, baina ehuneko handi batean guraso bakarreko familiak dira, amak egun osoa ematen du lanean, gaztea etxera dator eta ez dago inor, eta ezin diote lagundu. Jakina, esaten dizute: eskolaz kanpoko laguntza izan dezala. Laguntza hori izango dute, horretarako baliabideak badituzte eta baten bat badago kontrolatzeko... Jakina, 17:00etatik 19:00etara joan behar duzu, ni ez nago etxean baina zuk ordutegi horretan joan behar duzu. Lehenik eta behin, ez dakit baliabide ekonomikorik dudana, eta gero, beharbada ez da joango. Etxera iritsi eta ez dakit nora ikasten joateko diziplina behar du, hasiera batean inposatu egiten zaio hizkuntza ikasteko... Egia da hemen dugun hizkuntza dela eta bigarren hizkuntza dela, baina tira... Geuk oso argi ikusten dugu". (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Guraso bakarreko familiak aurkitzen dituzte, gurasoetako batekin edo neba-arreba nagusiekin bizita, haiek dituztenak arduradun. Familia moten aniztasuna handiagotu egiten da jatorria atzerrian duten familien artean. Aitzitik, tokiko familia desegituratuak ere badaude, eta aipatu egiten da, argi utzita beti ez zaiela atzerritarrei begiratu behar familietan zailtasun-egoerak aurkitzeko.

"Bai, familia batzuk desegituratuta daude, baina erabat: aita alde batean eta ama beste batean. Aitak esaten zion ikasteari uzteko eta lanean hasteko, eta amak ezetz, ikasi egin behar zuela. Berak uste zuen ez zuela ikasteko balio, baina balio du, baina berak lan egin nahi du. Hain barneratua du lan egin behar duela esan diotela, buruan ez duela besterik, eta ez du ikaste." (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

"Tira, aita eta ama duten familiak... ez dut askorik, eta gehienak daude bereizita. Oso gutxi daude aitarekin eta amarekin, eta euren aitak eta amak direnak... ez dakit baten bat dagoen. Tira, ulertzeko beste modu bat dute." (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Afrikako neskato bat, orain harrera-etxebizitza batean dago, bere neba nagusia arduratzen zelako eurak zaintzeaz. Gurasoak Afrikan bide daude. Neba nagusia arduratzen zen batzuek." (Hezkuntza ez-formala)

"Jakina, gero kasuistika dago... Ama hemen bizi zen jada. Urteak emanak zituen hemen, baina mutikoa han zegoen amamarekin, eta amak beste neskato bat izan zuen beste aita batekin... Gero, neskatoa bakarrik dator hona hegazkinek, eta tira,

jakina, mutiko hori... Kontatzen zidan ez zutela telefonorik bizi ziren etxean... Bizi zuten egoeran bizita, hona etorrira ez dute alde egin nahi". (Publikoa, Haur Hezkuntza)

"Hemengo ikasleak ere baditugu, familia desegituratuak dituztenak. Horiekin ere arazoak daude eta geuk konpontzen ditugu, ahal dugun neurriraino laguntzen dugu. Jakina, zuk jarduteko duzun tarte duzu: familiarekin hitz egiten duzu, baina ni familian... Etxean nola funtzionatzen duten eta zer-nolako eragina duen han egiten dutenak eskolako emaitzetan eta funtzionamenduan... Normalean alde oso handia dago." (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Familia barneko zailtasunak atzematen dira, halaber, seme-alabak batu dituzten familietan, batez ere nerabeek migrazioa ez prozesu lasai eta borondatezko moduan, baina familiaren erabakien ondorio moduan bizi badute. Helmugara iritsi eta familia bilduta, adingabeek eta gurasoek alde aurretik zituzten ideiek ez dute beti bat egiten errealitatearekin: gatazkak dituzte aita-amekin, sorterriko bizimodua utzarazi dietelako eta lan-kontuak tarteko etxean amaren eta/edo aitaren irudia falta delako, besteak beste. Faktore horiek guztiak koktel arriskutsua dira, eta eskolatzeari eta eskolako emaitzei eragiten die.

"Ikasle batzuek guraso bakarreko familia dute, eta ikasle batzuk orain dela gutxi batu dira. Halako hainbat izan ditugu, batez ere hainbat urtez euren herrialdean bizitzen egon diren neskatoak... Amaren egoerak bide ematen die etortzeko, badatoz eta amak nerabezaro aurrean dagoen neska aurkitzen du, azken 7 urteotan ikusi ez duena, eta, gainera, aurre-nerabeak ahal izan zuen bezala irentsi zuen banaketa. Orain iristen dira eta jakina, amak egun osoa ematen du lanean, alabak ez du ama jasaten, hona dator etorri behar duela esaten diotelako eta jakina, badugu koktel bat... Halakoetan, eskolatzea nahiko mugatua duten ikasleen kopurua mugatua da, puntuala da, baina egon badaude." (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

Aintzat hartu behar dira immigranteen familiek bizi izan dituzten istorioak. Euren migrazio-proiektua zailtasunez beterik dago, horrek guztiak dakarren karga emozionalarekin eta, besteak beste, baliabide ekonomiko eta afektiboak jarri diren herrialde batera iristeko helburua erdietsi ondoren ageri diren arazoekin. Horrenbestez, bizipen horiek eragina dute seme-alabengan, eta hori islatu egiten da ikastetxean.

"Eta familia hauek harriz beterik dute bizkar-zorroa". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

"Bai, datozen gehienak bizkar-zorroak hainbat kontuz beterik dakartzate, baliabide ekonomiko baxuagoekin... Tira, igaro beharreko dolua da, etorri direlako eta beharbada han dutelako familia... Halakoetan hemen daude, baina hara begira. Ez dakite hemen egongo diren, bi edo hiru lekutatik baitatoz... Alacanten, Errioxan... egon dira, eta bat-batean hemen daude. Nik uste dut horrek ez diela laguntzen. Hona badatoz eta proiektua hemen bada... Baina tira, hori ezinezkoa da, ezta?": (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

Itzultzeko edo Euskal Autonomia Erkidegoan finkatzeko aukera

Aurretik ere esan dugu familiaren migrazio-proiektua eta horren inguruan erabakitzen direnak direla ikasleek etorkizunerako dituzten itxaropenetan eragin handiena duten faktoreetako batzuk. Puntu honetan lantzen dugu nola haute-maten duten elkarrizketatuek familia horiek Euskadira itzultzea edo Euskadin egonkortzea.

Irakasleen ustez, immigranteen familiek Euskadin egonkortu nahi dute euren bizimodua; izan ere, ikusten dute euren egoerak hobera egin duela sorterrian bizi zutenaren aldean; halaber, integraturik sentitzen dira bizi diren giroan.

Irakasleen ustez, immigranteen familiek Euskadin egonkortu nahi dute euren bizimodua.

“Eta hona etorri nahi dute, pentsatu egiten dutelako... Kontua ez da orain Bilbon daudela eta gero ez dakit non. Ikusten da finkatzeko nahia dutela, familiak ekartzen hasten dira eta etorkizunerako aurreikuspena dute.” (Itundua, Haur Hezkuntza)

“Oro har, joera geratzekoa da, mantentzekoa; hots, eta uste dut oro har nik ezagutzen dudaren arabera... Uste dut gazteak gustura daudela. Uste dut herrian integratuta daudela, eta gurasoak halaber. Nik uste dut gurasoek geratzeko joera dutela, baina, jakina, lana galtzen baduzu, zerbait behar duzu, baina ez da aldi baterako daudelako itxura ematen dutela, bi, lau edo bost urtez geratu eta gero euren herrialdeetara itzuliko direla, dirua egin ondoren. Ez dirudi hori denik hemengo joera”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

“Nik uste dut datozen gehienak geratzeko datozela. Izan ere, datozen lekutik etorrita, nik uste dut hemen dagoena baloratzen dutela. Besterik gabe, osasun eta hezkuntza publikoa eta doakoa izatearekin han baino askoz ere hobeto daude. Hori bai: beste batzuek bai, urte gehiagoren buruan, bospasei urteren buruan, itzuli egingo direla uste dute”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Aitzitik, Euskadin geratzeko nahia izan arren, lanaren esparruak markatzen du gertakizunen erritmoa, eta, beharrezkotzat jotzen badute, beste herrialde batera joango dira, non enplegu-itxaropenak hobeak izango baitira. Zehazki, uste da magrebtarren kolektiboa dela lan-aukera gutxien duena, jatorrizkoa ez den herrialde bat hautatzen dutenen artean. Gizarte-laguntzez ere hitz egiten da, eta horietarako sarbidea izanez gero, Euskadin bizitzen jarraitzeko beste arrazoi bat izango da hori.

“Gazte batzuk daude, neba-arrebak, ikasturte honetan etorri direnak. Mutila abenduan etorri zen, eta neska apirilean etorri da, Kordobatik. Aita Marokokoa da. Tira, ez daki zer egingo duen datorren ikasturtean, euskarak dakarrenagatik, aipatu dugu... Berak hemen bizi nahi du, baina ez daki zer gertatuko den. Esaten zuen: jakina, nik orain seme-alabak ditut gogoan (bananduta dago), baina udan lanera joan behar dut, eta beharbada amarenera bidaltzen ditut, eta ni... Ez daki. Lanaren mende daude, eta lor ditzaketen laguntzen mende; izan ere, leku hau hautatzeko arrazoietakoa

bat bide da beste leku batzuetan baino laguntza gehiago dagoela. Ondoren, hemen norbait dutelako mugitzen dira.” (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Nik ikusten dudana, esan diezazuket... Marokoarrek... Kontua da hauek hain zail dutela lanarena... Izan ere, hau bigarren geltoki dute askok: Espainian ibili dira, Sevillan, Kordoban, Alacanten... Bigarrena da hau. Askok Frantziara joan nahi dute, eta lana dagoen ala ez dagoen funtzionatzen dute. Eta hara joan nahi dute, euren sorlekuetara, baina ez bizitzera. Oporretan joan nahi dute.” (Publikoa, Haur Hezkuntza)

Lanaren esparruak markatzen du gertakizunen erritmoa, eta, beharrezkotzat jotzen badute, beste herrialde batera joango dira, non enplegu-itxaropenak hobeak izango baitira.

Latinoamerikako herritarrei dagokienez, ikusten dute sorterrira itzultzea erabakitzen dutela, ekonomia- eta enplegu-egoera kaxkarra bizi badute, eta arlo horietan hobetzeko aukerarik ikusten badute. Horrenbestez, itzultzea erabakitzen dute, Latinoamerikan dituzten itxaropen hobeak aintzat hartuta.

“Oraintxe bertan esan dit Mikelek... Haur hau hemen jaio da... Bada, esan dit badoala Boliviara irailean, zera... Hego Amerikako denak... Nik dauzkat... Denek dute itzultzeko asmoa, orain han hobeto dagoelako egoera eta tira, azkenean erakartzen jarraitzen duelako. Aitzitik, 4 marokoar ditut eta horiek oso argi dute hemen jarraituko dutela bizitzen; gutxienez, hemen bizitzen jarraitzea gustatuko litzaieke”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Bai, nabaritu da. Batzuk euren herrialdera itzuli dira, bi gurasoetako batek edo lanean ziharduena aitak lana galdu duelako eta ez duelako beste lan bat aurkitzeko aukerarik ikusten. Are gehiago, datorren urtean bi familia itzuliko dira Kolonbiara, eta han geratuko dira.” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Nolanahi ere den, ikusi dute itzultzea ez dela irtenbidea: sorterrira itzuli ondoren konturatu dira euren bizimodua hobetzeko itxaropenak ez direla eurek uste izan duten bezalakoak izan, eta berriz itzuli dira Euskadira.

“Kasu batzuetan jendea itzuli da, joan egin da eta urtebetera edo sei hilabetera itzuli egin dira. Baditugu halako zenbait kasu aurten. Esatea: tira, bagoaz. Baja eman matrikulari... Hara joan dira eta lana aurkitu dutela esaten digute, negozio bat eskaini diete, itxaropen hobeekin... Joan egin dira... Ikasle baten kasua da: urriaren amaieran joan zen, eta orain, apirilean, itzuli da. Ikusi dute hangoak ez zuela funtzionatzen, ez dute arrakastarik izan eta itzuli egin dira (...) aurreikuspenak ez dira gauzatu gauza zitezkeen moduan”. (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Nolanahi ere den, hainbat kasutan familia-proiektua da migrazioa, eta adingabeek iritzia ematen dute etorkizun migratorioaz eta hala euren sorterrietara itzultzeko nola Euskadin geratzeko aukerez. Azken aukera hori partekatzen dute gehiago; izan ere, helmugan euren bizitza-egoerak hobera egin duela hautesman badute zein Euskadin jaio badira, ez dute oporretan baino itzuli nahi.

“Izan ere, sahararra ez doa kanpamentuetara; gainera, hemen dago familia guztia. Mutil boliviarrari ere ez... Hitz egiten aritu ginen eta ezetz esaten zidan, oporretan bai. Sahara hegoaldekoak beste leku batera mugitu daitezke beharbada, baina ez

ditut ikusten itzultzekotan. Beste bat ere izan genuen, nagusiagoa... Hark benetan nahi zuen Afrikara itzuli. Askoz gehiago gustatzen zitzaion hango jendea. Askoz gehiago egoten ziren kalean. Beste marokoar bat ere ez litzateke itzuliko. Bai oporretan, gustuko duelako, eguraldi ona dagoelako... Gainera, hemen geratuko litzateke. Ez litzateke beste leku batera joango.”(Hezkuntza ez-formala)

“Horrela, orokorrean hitz egitea oso zaila da. Badaude beste ikasle batzuk. Gogoratzten dut batzuk Ekuadorretik etorri zirela eta esaten zizutela... Oporretan itzultzen dira batzuetan, eta galdetu eta esaten diezu: zer moduz? Oso ondo esaten dizute, baina ez dutela hara itzuli nahi. Hemen daudenean, haurtzaroan baino hobeto bizi dira; beraz, askok esaten dizute: ez dut itzuli nahi! Asko baserrietatik etorri dira. Oinetakorik ere ez zuten lekuetatik etorri direla esaten dizute. Jende txiroa da. Jakina, esaten dizute ez dutela hara itzuli nahi. Halaber esaten dizute: kontua da ni han ez nintzela seguru sentitzen. Tira, kasu asko dago, ezberdintasun asko, egoeraren arabera.” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Itxaropenak

Guraso batzuek seme-alaben eskola-arrakasta nahi dute, eta ikastetxeetako hizkuntza-ereduen sistema ezagutzen dutenean, euskararen alde egiten dute, arrakasta lortzeko gako bat dela dakitelako. Familiak migratzera bultzatzen dituen arrazoietatik bat da familiako kide guztien bizimodua hobetzea eta, seme-alabei dagokienez, etorkizun hobea lortzea. Hori dela eta, ikasketetan inplikatzeko dira, eta itxaropenak zapuztu egin daitezke ikastetxeak esaten ditenean semea edo alaba ez dabilela ondo ikasketak egiten.

“Atzean itxaropenak dituen famili bat dagoenean asko nabaritzen da; ikasgelako onenak izatera iristen dira”.

“Atzean itxaropenak dituen famili bat dagoenean asko nabaritzen da; ikasgelako onenak izatera iristen dira”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Tira, A eredu, kontua ezagutzen ez duenarentzat... Kanpotik begiratuta ondo planteatutako eredu da. Euskararekin hasten dira apur bat, baina gaztelania ikasten dute, hori baita (euskal udalerrria)-n benetan behar dutena. Ikasten doaz... Baina

konturatu egiten direnean zer-nolako eskola den, gurasoek horren berri dutenean, ez dute nahi seme-alabak hor egotarik. Esaten dute geuk arrakasta nahi dugula seme-alabentzat, eta hemen ez dute lortuko. Eta hona datoz. Nik ikusten dut, familien aldetik... Magrebeko eta Hego Amerikako familia batzuek interes handia dute, seme-alabek eskola-arrakasta bete izan dezaten; izan ere, nolabait, arrakasta pertsonala da. Ni mugitu egin naiz eta nire herrialdetik alde egin dut; beraz, gutxienez, nire seme-alabek izan dezatela bizimodu hobea. Beti esaten duten kontua da. Eta asko arduratzen dira hezkuntzarekin eta lanekin. Oro har, jaramon nahiko egiten digute...” (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

“Nik ikasle zehatz batzuk ditut gogoan. Guraso horiek bai, nahi dute seme-alabek ikastea eta etorkizuna lantzea, eta ikusi egiten dituzu... Esate baterako, neska bat akademian apuntatu nahi zuten, haur-hezkuntzan zegoela, ingeleza ikas zezan, oso ona zelako hizkuntzekin (...) Tira, nik horri erantzun diezaioket egiten duenaren inguruan ikusten dudako inplikazioaren arabera, eta guraso batzuen inplikazioa oso

handia da: seme-alabek ikastea nahi dute, ikasketak ondo egitea; garrantzia ematen diote horri, eta halakoetan garrantzia ematen zaio”. (Publikoa, Haur Hezkuntza)

“Guraso guztiek nahi dute seme-alabak onenak izatea, eurek izan ez dituzten ikasketak izatea; arrakasta bete nahi dute seme-alabentzat. Are gehiago, nik uste dut euren frustrazio handienetako bat dela ikastegitik deitzea, esate baterako, ikasketetan txarto dabilzala esateko; izan ere, porrota da gurasoentzat, guretzat baino are gehiago. Izan ere, hona etorri dira aurrera egiteko, seme-alabek bizimodu hobea izan dezaten. Zuk deitzen badiezu esateko ikasketetan txarto dabilzala, atsekabea da gurasoentzat. Itxaropen handienak dituzte seme-alabengan, beti dituzten mugen barnean, jakina. Ikusten dutenean seme-alabak ez direla gai, edo DBH ozta-ozta amaitu dutela... Badakite Lanbide Heziketara joan beharko dutela, esate baterako, baina denek nahi dute seme-alabek ikasketak amaitzea; izan batxilergoa, izan Lanbide Heziketa.” (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

Aitzitik, irakasleek beste familia batzuk identifikatzen dituzte, non tokiko bizilagunek euren seme-alabentzat espero dutena baino gutxiago espero baita; hau da, derrigorrezko ikasketak amaitzea eta Lanbide Heziketa ikastea nahi dute, lanean hasteko; ez, ordea, unibertsitatean ikasten jarraitzea. Nabarmendu egiten du, halaber, familia batzuek euren seme-alabek derrigorrezko hezkuntza amaitzearen inguruan duten interesik eta motibaziorik eza.

“Azkenean, nik gurasoekin hitz egiten dut eta esaten didate seme-alabak DBH ateratzea nahi dutela, besterik gabe; ez dute horren inguruko kezkarik. Gainditzeak arduratzen ditu, ez gutxieneko ikasketak izatea. Gerora arituko dira lanean edozeretan. Beti nahi dute gurasoek ikasi dutena baino zertxobait gehiago ikastea, baina tira, ez dira hainbeste estresatzen”. (Itundua, Bigarren Hezkuntza)

“Bai, ikusten dut, adinaren eta kulturaren arabera... DBHn utzi egiten diete: ez baduzu joan nahi, ez joan... Lehen Hezkuntzan etortzeko eta egiteko joera handiagoa dute, baina DBHn zertxobait erlaxatzen dira.” (Itundua, Lehen Hezkuntza)

“

“Esaten zidan: nik ez dut nahi nire moduan, eskailera garbitzen ibil dadin; gutxienez, haurrak jagon ditzala. Eta, jakina, harritu egin ninduen: hori besterik ez duzu nahi? Gutxi iruditu zitzaidan. Ez garbitzea nahi zuen, eta nik esaten nion bere alabak ikasteko balio zuela, baina amaren jarrera indartsuagoa zen: alabak ikusten duena... Amaren motibazio falta. Izan ere, ama batek etxetik motibatzen ez bazaitu... Nik beti diot ikastetxeak eta gurasoek taldea osatu behar dutela. Ni kintzen saiatu arren etxean ez badute motibazio hori, ni azkenean hona nator eta hemen nabil ta-ta-ta-ta, baina etxean lasai dago, eta ez dago zer egiterik. Oro har, beste batzuek baino gutxiago eskatzen dute.”

(Itundua, Bigarren Hezkuntza)

”

Laburpena

Ikasleek bezala, irakasleek kategoria jakin batzuk esleitzen dizkie familia immigranteei, jatorriari dagokionez. Sailkapen horri esker, ezaugarri sorta bat partekatzen duten pertsonen talde bati buruzko informazioa soilduta jasotzen dute. Ekialdeko herrialdeetako bizilagunek gehiegiko babeska ematen dutela eta semeen ikasketetan inplikazio handia dutela esaten da, alaben ikasketetan baino gehiago. Txinako familiek jatorriko hizkuntza babesten dute, eta ohiturak gorde egiten dira familian eta harreman-sarean. Latinoamerikarrek euskal gizarteko kide izan nahi dute, eta irekiagoak izateak eta komunikatzeko gaztelania ezagutzeak bidea errazten die. Azkenik, musulmanek latinoamerikarrek partekatzen dute gainerakoengandik bereiz ez sentitzearen sentipena, nahiz eta euren ohiturei uko egin ez. Azken talde horrek ere komentarioak eragiten ditu irakasleen artean: irakasleek zalantza egiten dute ikasle musulmanek familia-giroan eta ikastetxean jasotzen duten hezkuntzaren inguruan.

Familiek seme-alaben hezkuntzaren inguruan duten interesak ez du nazionalitate bereizten: ezin da jatorriaren arabera banaketarik egin ikasketekin arduratzen direnen eta interesik agertzen ez dutenen artean. Irakasleek, halaber, ezberdintasunak atzematen dituzte tokiko familien artean: batzuek hala nahi dutelako hautatzen dituzte ikasle immigranteak dituzten ikastetxeak, eskola bizi diren gizartearen isla direlakoak; beste batzuek, mesfidati begiratzen diote seme-alabek immigranteekin ikasteko aukerari. Ikasle immigranteei lotutako estereotipo negatiboak komentarioen bidez ageri dira: hezkuntzaren maila jaisten dela, diru-laguntza guztiak hartzen dituztela, seme-alabek euskara gutxiago dakitela immigranteak daudelako ikasgelan.

Oro har, familiek ez dute esku hartzen seme-alaben eskolako bizimoduan; ez immigranteak direnean, ez tokikoak direnean. Immigranteen egoera zehatzean, laneko ordutegiak, harremanetan duten herabetasuna eta segurtasun pertsonalik eza aipatzen dira, bai eta ordaindu beharreko kuotak ere, IGEetako partaidetza eska azaltzeko. Hezkuntza-komunitateak aurrean duen erronka da familia guztien partaidetza bultzatzea.

Tokiko eta atzerriko familien arteko harremanak, oro har, hotzak dira, edo ez daude. Jatorriaren arabera, zehazki, atzematen da distantzia handiagoa dagoela familia magrebtarrekin sortzen diren harremanetan. Hizkuntza bera hitz egitea eta seme-alabek sortzen dituzten laguntasun-harremanek sustatu egiten dituzte familien arteko topaketak eta harremanak.

Irakasleek, euren aldetik, atzeman egiten dute ikasle immigrante batzuk familia-giro ezegonkorrean bizi direla, eta giro horrek ezaugarri duela gurasoak etxean ez egotea askotan, eta ikasleak ikastetxean aurkitzea etxean ez duen oreka. Halaber, familia moten aniztasuna atzematen da, hala tokiko biztanleen nola immigranteen artean, nahiz eta aniztasuna handiagoa den azken horien

artean. Seme-alaba nerabeak bildu dituzten familiek ere egokitze-zailtasunak izaten dituzte, eta horrek eragina du eskolako emaitzetan.

Jatorriko lekuetara itzultzearen inguruko zalantzei dagokienez (hirugarren herrialde batera migratzea edo Euskadin egonkortzea), irakasleek uste dute aurreikuspen ohikoena dela Euskadin bizitzea, nahiz eta enplegu faltak sorterrira itzultzera bultzatzen. Aukera hori maizago ageri da Latinoamerikako herriarren artean. Bestela, enplegua lortzea errazagoa den beste lurralde batera joateko aukera dago: aukera hori sarriago hautatzen dute afrikarrek. Adingabeek ere Euskadin bizitzen jarraitzearen alde egiten dute: jatorriko herrialdera edo sorterrira oporretan besterik ez dute itzuli nahi, ez han betiko geratzeko.

Azkenik, irakasleek uste dute oro har gurasoek itxaropen handiak dituztela euren seme-alaben etorkizunean. Familia bat migratzera bultzatzen duen arrazoietako bat da (arrazoi nagusia da askotan) familiako kideei etorkizun hobea bermatzea. Nolanahi ere den, beste familia batzuen kasuak ere aipatzen dira: halakoetan ez dute seme-alabek derrigorrezko ikasketak amaitzea besterik nahi, bai eta laneko mundurako prestatzea ere. Horrenbestez, azterlan guztian ikusi dugunarekin bat, familiako nukleok erabakitzen dutena erabakitzeko arrazoiek ez dute biderik ematen arrazoitze asko egiteko.

6

Ondorioak

Txosten honetan hezkuntza formalean eta ez formalean diharduten pertsona jakin batzuen pertzepzio eta ikuspegiak jaso ditugu. Guztiak daude kultur aniztasuna dagoen inguru batean. Atzerritarrak Euskadira iristea hautematen den errealitatea izan da mende berriaren hasieraz gero, eta gero eta gehiago iritsi dira urterik urte: biztanleria osoaren % 6,3 dira. Urteotan, hainbat jatorritako gizon eta emakumeak finkatu dira euskal lurraldean, eta gehienek migrazio-proiektuek helburu dute euren eta seme-alaben bizimodua hobetzea; horretarako, helburu nagusia da enplegua lortzea. Hori esanda, ez dugu ahaztu nahi sorterrira hainbat arrazoi tarteko itzultzen direnak ere badaudela, hala nola bizitza salbatzeko edo askatasuna bermatzeko ihes egiten dutenak. Uler daitekeenez, kasu batzuetan, migrazioak immigranteen familiak berriz batzea dakar, familiako kideak elkartzen direnean edo familiako kide berriak helmuga-gizartean jaiotzen direnean. Horrenbestez, hezkuntza-sisteman sartzen diren adingabeak urteotan gertatu den aldaketa soziala ezagutzen duen hezkuntza-sistemara sartzen dira. Berriki argitaratu dira Euskadin atzerriko nazionalitatea duten eta derrigorrezko hezkuntza ez unibertsitarioan dauden ikasleei buruzko datuak⁸, 2015/2015 ikasturteari dagozkionak. Bada, marka historiko gorena jo da, Eusko Jaurlaritzaren estatistikak daudenez geroztik. Zehazki, 35.808 ikasle dira, aurreko urtean baino 2.500 gehiago eta 2007an baino % 79 gehiago⁹. Errealitate horren aurrean, hezkuntza-komunitateak ikusi du immigranteak iristea aniztasuna areagotu duela euskal eskola-sisteman, eta proban jarri ditu aniztasuna kudeatzeko mekanismo guztiak.

⁸Euskadiko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren datuei buruzko 2014-2015eko txostena. Interneten: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion_dae/es_def/adjuntos/folleto_estadistica_2014_2015_c.pdf


⁹Testuan azpimarratzen den moduan, atzerriko nazionalitatea duten ikasleen datuez ari gara. Horrenbestez, estatistiketan ezin ditugu identifikatu askotariko jatorri kulturaletatik datozen baina Espainiako nazionalitatea duten haiek.

Laburpena

Lehenengo eta behin, ezin dugu isilpean gorde azterlan honetan ateratzen dugun lehenengo ondorioa, argiena ere badena: ez dago ikuspegi bakar bat hezkuntzaren esparruan dagoen errealitate migratorioaren inguruan. Aztertutako arlo bakoitzak hausnarrarazi egin digu iritzi-aniztasunaz eta, nolabait, gure iruditegietatik ezabatu ditu ikasle immigranteek ditugun irudi estereotipatuak. Ez dago hizkuntzak ikasteko erraztasun edo zailtasun handiagoak dituen jatorri kulturalik, ezta euskal hezkuntza-sisteman arrakastaz sartzeko adin jakin bat ere. Halaber, ikasgelako jarduna bikaina izan dadin, ez dago immigrante kopuru zehatz bat ematerik, eta harreman-zirkuluak ez dira jatorri kultural bera partekatzen dutenen artean bakarrik sortzen.

Aitzitik, egiaztatu dugun arren atzerriko ikasleak ezin direla definitu atributu egonkor eta mugiezinen bidez, ikusi dugu adierazle jakin batzuk baliagarri direla hainbat hezkuntza-errealitate ezaugarritzeko, ikastetxeetako kultur aniztasunari dagokionez. Hori guztia adierazle horietan eragiten duten eta loturak sortzen dituzten aktoreekin batera. Azken batean, aurkezten dugun eskemak bidea egiten du immigranteek hezkuntzaren esparruan bizi duten errealitatea aztertzeko, txostenean aztertutako alderdi guztietan eragina duten bost faktoreen arabera (sarrerako lehenengo eskeman bildu ditugu). Faktore horietako bakoitzak (ondoren garatuko ditugu) hezkuntza-komunitatearen eguneroko zerregina definitzen duten indarguneei eta/edo ahulguneei erantzuten die.

Migrazio-proiektua da astiro aztertuko dugun bost alderdietako bat, ikasleen hezkuntza-prozesuan eragina duena. Azterlanean ikusi ahal izan dugunez, familiek Euskadin geratzeko edo aldi batean geratzeko aurreikuspenak eragina dute familia-nukleoak hartzen dituen erabakietan. Horren adibide da euskara eta seme-alabak irakasgaiak hizkuntza horretan ematen diren ikastetxe-eredu



batean matrikulatzeko erabakia. Uste badute ez direla Euskadin denbora luzez biziko, azkenean epe laburreko proiektu asko egonaldi iraunkor bihurtzen badira ere, ez dute erabilgarria denik seme-alabek euskara ikastea. Dena den, hori ez da joera nagusia; izan ere, datuek esaten digute gazteenen matrikulazioak areagotzen ari direla D ereduan, eta familiek gero eta sarriago hautatzen dutela seme-alabek euskara ikastea. Hori dela eta, erakundeek ere zeregin erabakigarria izan dute, euskara ikastea integratzeko elementu gakotzat jo baitute. Kasu batzuetan, ikasle berberak, batez ere nagusienek, bat egiten dute gurasoekin euskara ezagutzeak duen erabilgarritasunari dagokionez: uste dute ez dutela euskararik beharko eta, horrenbestez, ez diela onura handirik ekarriko, ez badute Euskadin jarraituko.

Familiaren migrazio-proiektuak ere eragina du ikasleen etorkizuneko itxaropen eta proiektuetan, berriz migratzeko aukeraren eta hezkuntza-ibilbidea Euskadin ez jarraitzearen kontzientzia dutenean. Horrek eragina izan dezake ikasketak jarraitzeko itxaropenean edo eskolatzean egiten duten ahaleginean; izan ere, ziurgabetasunak ikasketen inguruko interesik eza eragin dezake. Halere, Euskadin finkatzearen ideia nagusi da, elkarrizketetan jasotako informazioaren arabera.¹⁰ Bada, horrek dakar ikasketen inguruko interes handiagoa edo txikiagoa ez eratoritzea beste leku batera joango diren jakitetik, eta ikasketen inguruko motibazioan eragiten duten beste faktore batzuez aritu behar dugu. Hori dela eta, gehitu egin nahi dugu migratzeko erabakia hartzea dakarten arrazoen artean dagoela seme-alaben ongizatea eta, horrenbestez, etorkizun hobe bermatu ahal izatea, sorterrian edo berriz migratzea pentsatu aurretik bizileku duten lurraldean geratuta baino hezkuntza hobe eta aukera gehiago eskaintzeko aukera lortuta. Beste kontu bat litzateke noraino iristen diren familia bakoitzak seme-alabentzat dituen hezkuntza-aspirazioak.

Ikasleen **hezkuntza-aroa** da beste adierazleetako bat; zehazki, nola defini ditzakeen ikaslea euskal eskola-sistemara sartzen den sasoiak hainbat egoera. Ikaslea matrikulatzen den adinak eragina du ikasgelako erritmoraren egokitze-mailan; ikasgaiak eta ikasgaia irakasteko hizkuntzak hezkuntza-etekinean, ikaskideekiko harremanetan, ikaskideen harreran etorkizuneko hezkuntza-eta/edo lan-ibilbidearen inguruko itxaropenetan. Jatorria atzerrian duten ikasleen matrikulazioak, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehenengo ikasurteetan, epe kanpo egindakoak barne, ez du kezka berezirik eragiten. Alde batetik, hizkuntza ikasteak (kasu honetan euskara) ez dakar buruhausterik irakasleen artean; izan ere, adinak eragin handia du jatorrizkoa(k) ez d(ir)en hizkuntzen ulermenean. Gaiek, bestalde, ez dute konplexutasun handirik, nahiz eta irakasleen lanak garrantzia duen: ikasgelako kultur aniztasuna aintzat hartu eta sartu behar du urteko plangintzan. Ikasleen arteko interakzioak ez du be-

¹⁰Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailaren EPIE2014 eragiketa estatistikoaren datuak eztabaidaezinak dira: 16 urteko eta hortik gorako atzerritarren % 87,8k hurrengo 5 urteetan EAEn jarraitzeko asmoa du, eta % 80,0k, berriz, EAEn luzaroago jarraitzekoa.

reizketarik egiten jatorrien artean, eta naturaltasuna da harremanen ezaugarri. Hori ezin da berdin definitu familiez ari garenean: denak ez daude ados seme-alabek harremanak sortzearekin immigranteekin edo tokikoa ez den beste jatorri geografiko bateko kideekin.

Nolanahi ere den, hezkuntza-sasoiaren aurrera egin ahala, ikastetxera Lehen Hezkuntzako azken urteetan eta Bigarren Hezkuntzan sartzen diren ikasleak aurkitzen ditugu, eta kultur aniztasuna dago euren artean. Bada, egoera horietan aldaketak atzematen ditugu, lehenengo hezkuntza-sasoiaren gertatzen denaren aldean. Euskararen ikasketa-prozesuaz aritzean ikusten dugu, eduki handiagoko gaiak ulertzeari eta ikasteari loturik. Hori dela eta, irakasleen pertzepzioa orokorra da, ikasle immigranteek bizi dituzten zailtasunak baloratzen: oro har baxuagoa da hizkuntza maila eta ez dute hizkuntza ezagutzen, baina gaitasun nahiko dute ikasturteari aurre egiteko. Beste kontu batzuk dira Administrazioak inbertitzen dituen giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, ikastegi bakoitzak hezkuntza-gabeziei aurre egiteko sortzen duen barneko politika eta irakasleek egoera horietan duten jarrera eta egiten duten lana. Horren guztiaren ondorioz, eskolaren eta ikasgaien erritmoa hartzen duten ikasleak daude, baina badaude, halaber, espero zituzten emaitzak erdiesten ez dituztenak. Bada, horrek ikasketen inguruko motibazio falta dakar, eta motibazio faltak jarrera txarra eragin dezake. Motibazioak badu eraginik, halaber, etorkizuneko aurreikuspenetan, eta ez dago beti eskola-etekinari loturik. Goi-mailako ikasketak egiteko ibilbideari jarraitzeko interesik ezak, Lanbide Heziketa hautatzeak edo zuzenean lan-munduan sartzeak derrigorrezko hezkuntza hutsa egin ondoren hainbat arrazoiren ondorioz ager daiteke: ikasleek eurek atzemandako beharrian ekonomikoa familian, familiaren aurreikuspen eskasak tokiko biztanleriaren artean identifikatutakoekin alderatuta, edo ikastetxeetan profil profesional batzuetara jotzeko ematen den orientazioa.

Inter pares harremanei dagokienez, aldaketa hauteman da: interakzio horiek ikasgelan normalizatutzat jotzen diren arren, bereizten hasten da jatorrien arabera batzen direla. Batzuetan, ikasleen arteko adiskidetasun-harremanak familiek hezkuntza-girotik kanpo egiten dituzten harremanen arabera dira; izan ere, giro horietan jardunbide erlijioso eta/edo kulturak berberak dituzte. Irakasleek horren guztiaren aurrean ematen dituzten erantzunak aldatu egiten dira: batzuek ulertu egiten dute alderdi kultural batzuen bidezko loturak daudela, eta beste batzuk bereiztea saihesten saiatzen dira eskola-ordutegian; izan ere, kaltegarritzat jotzen dute hala ikaslearentzat nola ikastetxerako. Nolanahi ere den, irakasleek eurek ikusten dituzte harreman normalizatuak ikastetxetik kanpo, non hainbat jatorritako lagunen taldeak sortzen baitira.

Hirugarren adierazleaz ari bagara (**errealitate sozioekonomikoa**), azterketan eskola-elkartean esku hartzen duten hainbat aktore hartuko ditugu erreferentzia gisa. Azterlanean aipatu egin da Euskadin dauden eta jatorria atzerrian duten familien egoera sozioekonomikoaren inguruko pertzepzioa. Iritzi oroko-

rra da egoera prekarioagoa bizi dutela, tokiko biztanleen egoerarekin alderatuta; errealitate hori ikastetxeetan hautematen da. Halere, baieztapen hori kontuz hartu behar da, jatorria atzerrian duten familia guztiak ez txertatzeko profil horretan. Halaber, aintzat hartu behar da bertoko familiek ere bizi dituztela zailtasunak. Familiek zenbait gastu egin behar dituzte ikasturtean (eskolako materiala edo ikastetxeak antolatutako ekintzak, adibidez), eta aurre egiteko aukera euren ahalmen ekonomikoen mende dago, neurri handi batean. Era berean, eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko aukera familiaren diru-sarreraren arabera da. Zehazki, familia batzuek ahalegin ekonomikoa egin behar dute, seme-alabei eskolaz kanpoko laguntza jasotzeko aukera emateko, ikastetxean atzemandako beharrianaren aurrean. Laguntza horren joera da, nolana ere den, eskolaz kanpoko izatea: ez da galdetzen zergatik ez diren beharrian horiek ikastetxeetan bertan eta irakasleen bidez asetzen. Ildo horretatik, era berean nabarmentzen dugu familia immigranteen prekaritate ekonomikoaren eta lan egiten duten lan-sektoreen, eta oro har etxebizitzan ez egotea dakarten egoeren arteko lotura; egoera horren, bada, eragina du, nolabait, seme-alabengan. Bestalde, seme-alaben hezkuntza-prozesua (eta, horrenbestez, etorkizuneko lan-egoera) familiek egungo hezkuntzan egiten duten inbertsio ekonomikoaren mende egongo dira; izan ere, egungo sistemaren joera da arian-arian prestakuntza-aukerak ematea ordain ditzaketenei.

Errealitate sozioekonomikoa Administrazioaren ikuspuntutik ere azter daiteke; zehazki, ikastetxeetako aurrekontuek azken urteotan pairatu dituzten egokitzapenak aintzat hartuta. Hizkuntza indartzeko irakaslearen, dinamizatzaileraren edo itzultzailearen presentzia txikiagoa da, eta ikastetxe batzuetan desagertu ere egin da, nahiz eta beharrianek euren horretan iraun. Egia da programa guztiek behar dutela etengabeko egokitzapena beharriaz asetzen diren heinean eta berriak agertzen diren neurrian. Hezkuntza-beharrizanei dagokienez, uler daiteke aldatu egiten direla urteotan aldatu egin diren irakasleen profilen arabera, ikasleen gabeziak ere ezberdinak izanik. Euskadira iritsitako migrazio-fluxuak aldatu egin dira: hasiera batean Latinoamerikatik zetozen gehiago, baina gaur egun behera egin du latinoamerikarren kopuruak, eta gora Magrebetik eta Europa Ekialdeko herrialdeetatik datozenenak. Euskadi ez da jada migrazioen lehenengo helmuga, eta ikusi da Estatuko beste erkidego batzuetako atzerriko ikasleak gehiago direla. Aldagai horiek guztiek, txosten honetan agertu diren beste batzuekin batera, euskal hezkuntza-sisteman dauden ikasleak ezaugarritzen dituzte. Hala ere, aldaketa bati ezin zaio erantzun Administrazioaren zerbitzuetan murrizketa eginda. Badakigu baliabide ekonomikoak euren horretan ez direla irtenbidea ikasle etorkinei lotutako beharrian guztietarako, baina badakigu, halaber, erakunde publikoek emandako zerbitzuak murrizteak oztopatu egin duela ikasleen hezkuntza-prozesua; zehazki, arreta espezifiko bat kendu dio: irakasleek zuten laguntza, euren ikasleen artean nolabaiteko eskola-arrakasta lortzeko; baliabide egonkor bat (irakasle jakin bat), ikastetxeek baliatzen zutena ikasgeletako

kultura-aniztasunaren inguruko gaietarako, eta familia eta irakasleen arteko komunikazioa hizkuntza bera partekatzen ez denean.

Ikasle etorkinak ikasgelan **kontzentratzeak** zenbait berezitasun dakartza, eta, ondoren ikusiko dugunez, horrek eragina du irakasleen hezkuntza-prozeduran. Ikasgelara azken aldian sartu diren (ikasturtean zehar epez kanpo egiten diren matrikulazio berriekin batera) ikasle etorkinak gehiago edo gutxiago izateak eragina du ikasgelaren erritmoan, irakasgaietan eta irakasleek ikasleei eman behar dieten arretan. Profil horretako ikasle gutxi dituen ikasgela batek ez dakar konplikazio handirik irakasleentzat, nahiz eta joera izan curriculumean kultura-aniztasuna lantzeaz ahaztea; izan ere, ikasgelako aniztasuna errealak hala eskatzen duenean besterik ez da lantzen.

Halaber, ezin da iritsi berri diren ikasleen kontzentrazio bat Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzan gertatzen den egoera berberarekin. Hezkuntza-aroak adierazten du eskola-elkartean esku hartzen duten alderdi guztiek egokitzeko duten ahalmena. Ikusi egiten dugu aro aurreratuagoetara iristean atzerriko ikasleak kontzentratuta dituen egoera aurkitzen duela irakasleak, baita epez kanpo sartzten diren ikasleekin ere; bada, halakoetan ikasturtean zehar berregokitu behar ditu egokiak, ikasleek aldeztu aurretik ikasitako hutsuneak artatu behar ditu, edo ahalegin handiagoa egin behar du euskara irakasteko. "Aparteko" lan hori ikasleen hezkuntzaz arduratzen diren irakasleek hartzen dute euren gain, nahiz eta batzuetan ezinezko zaien nahiko luketen arreta ematea.

Eremu berean askotariko ikasle atzerritarrak dituzten ikastetxeak batzea (hala publikoak nola itunduak badira) errealitatea da. Administrazioak ezarritako epez kanpo hezkuntza-sisteman sartzeko atzerriko ikasle kopuru bat esleitzen die ikastegiei, baina, ikasturtea amaitu ondoren, familiek beste ikastegi batera eraman ditzakete seme-alabak. Horretarako arrazoi dira bat ez etortzea ikastegian ematen den hezkuntzarekin (esate baterako, ikastegi itundu katoliko bat bada, eta gurasoek ez badute hezkuntza katolikorik euren seme-alabentzat), matrikulazio-kostuak garestiak izatea eta ezin ordaintzea, bizilekutik urrun egotea edo hainbat jatorritako ikasleen kontzentrazio handia hautematea (familia batzuek ez dute halakorik nahi). Ikastetxeen arteko banaketa orekatuaren aldarrikapena errealitate hori aurkitzen duten ikastegi askok egiten dute, baina ez da irtenbide bakarra eta eraginkorra balitz bezala erabili behar: hezkuntzan inklusioa errazten duten bestelako neurriak ere aintzat hartu behar dira.

Azkenik, nahiz eta aurreko guztia bezain garrantzitsua izan, **lurraldea** dugu. Zehazki, lurraldea da ikasle immigranteak matrikulatuta dauden ikastegiaren kokagunean; orohar, bizilekuarekin bat dator. Kasuhonetan, Euskadiko errealitate soziolinguistikoaz aritu nahi dugu: azterlanean ikusi dugunez, anitza da, eta nolabait, bi hizkuntzei dagozkien gaitasun linguistikoak erdiesteko denbora

eta lan gehiago edo gutxiago behar da. Latinoamerikarren taldean, Euskadiko bi hizkuntza ofizialetako bat ezagutzen dute, eta, horrenbestez, hizkuntza-ereduaren hautua baldintzatuta egon da: gaztelania hautatu izan da irakasgai gehienak irakasteko hizkuntza, nahiz eta gazteenen artean ikusi den matrikulazioa areagotzen ari dela gainerako bi ereduetan. Beste alde batetik, Estatuko beste erkidego batzuetatik etorritako atzerritarrak iritsi direla ikusi da azken aldian, eta horrek ere badakar gaztelania ezagutzen dutelarik etortzea, aurreko migrazioa dela eta; horren ondorioz, gaztelania hartzen dute erreferentziatzat Euskadin instalatzen direnean. Atzerriko kolektibo batzuek gaztelania euskara baino gehiago ezagutzeak eta erabiltzeak sarri bideratzen ditu ikasleak A eredura, nahiz eta ez dugun orokortzerik egin nahi, bat etorritz atzerriko ikasleen matrikulazioen datuek diotenarekin: D ereduak gero eta leku handiagoa du beherengo ikasturteetan.

Ikusi dugunez, bost alderdi handi identifikatu ditugu. Bada, bost horiek lau aktore nagusiekin batera eragiten dute eskola-elkartea osatzen duten faktore guztietan. Amaitze aldera, hau ohartarazi nahi diogu ondoriook irakurtzen dituenari: bost adierazleek ezin dute bereizita azaldu euskal hezkuntza-sistemaren atal den orori zentzua ematen dion kasuistika anitza; adierazleak elkarrekin lotuta, azterketa are osoagoa da. Atzerriko familien errealitate sozioekonomikoaz hitz egiten dugunean, Euskadira itzultzeko edo Euskadin finkatzeko aukeraz ere ari gara, ekonomia hobetzeko aurreikuspenak dauden honetan; nolana ere den, etorkizunean migratzearen inguruan har daitezkeen erabakien inguruko zalantza dago. Bestalde, ikusten badugu Euskadin migrazio-proiektua amaitzen dela, bertan finkatuta, aintzat hartu beharko da zein hezkuntza-arotan egiten den matrikula, zer-nolako egoera ekonomikoa bizi duen familiak... Hori guztia ikaslea matrikulatzeko ikastetxe mota hautatzeari eta ikasleak parte har dezakeen eskolaz kanpoko jardueri dagokienez. Berebat, ikasgelan sartu berri diren ikasle etorkinen kontzentrazioak berak ez du ahalegin eta lan bera eskatuko irakaslearentzat, hizpide dugun hezkuntza-aroa zein den eta familiak hezkuntza-gabeziei aurre egiteko eskolaz kanpoko laguntza erabiltzeko dituen baliabide ekonomikoak zein diren. Hori guztia ikastegiaren titulartasuna aintzat hartu gabe (ikasle etorkinen kopuru zehatz bat matrikulatzearen edo ez matrikulatzearen artean hauta daiteke). Ikasle etorkin iritsi berriak zein hizkuntza-arotan matrikulatzen diren, familiak matrikula egiteko hizkuntza-eredua hautatuko du, aintzat hartuz, halaber, zein lurraldetan bizi den, eta zer-nolako orientazioa ematen zaien erakunde eta ikastetxeetan.

Euskal hezkuntza-sistemaren errealitateak aztertzeaz gain, indarguneak eta ahulguneak identifikatzen saiatu gara, horietan esku hartzeko. Azken batean, bat etorritz UNESCOk hezkuntza inklusiboari dagokionez adierazten duenarekin, helburu da “ikas guztien beharrezan aniztasuna identifikatzeko eta erantzuteko prozesua, horretarako parte gehiago hartuta ikaskuntzan, kulturetan eta komunitateetan, eta hezkuntzan eskklusioa murriztuta”.

Jarduteko diagnostikoa

Agiriaren azken zati honetan beste atal bat gehitu nahi izan dugu, non eskematikoki aurkezten baitira arazotsutzat edo hobetu beharrekotzat jotzen diren esparruak; halaber, jardutera bideratutako proposamen batzuk jasotzen dira. Gehienak irakasleek eurek aipatu dituzte elkarrizketetan.

1. Atzerriko ikasleak iristea ikasturtean zehar: zalantzarik gabe, hau da gai gatazkatsuenetako bat irakaslearen lanean, eta, neurri handi batean, ikasgelako hezkuntza-prozesuaren martxa baldintzatzen du; are gehiago berandu matrikulatzen diren ikasleek hizkuntza-arazoak (euskara, gaztelania) dituztenean. Nolanahi ere den, aintzat hartu behar da, berebat, ikasgelan sartzen direnen ezagutzen artean dauden aldeak.

Berandu matrikulatzen diren ikasleak banatzeko eta esleitzeko prozesua edo modua hausnarketa-gai da, eta irakasleek argi dute ez dela orekaren arabera egiten, ez eta ahalik eta ondoena egiten ere. Ez dago “irtenbidea” aurkitzen duen proposamen zehatz bat, besteak beste ez dirudielako posible denik urterik urte jada hasitako ikasturtean sartuko den ikasleen kopurua eta profila aurreikustea; alabaina, argi eta garbi eskatzen dira baliabide materialak eta giza baliabideak, prozesu horrek ez ditzan zigortu iristen diren ikasleak, ikasleak hartzen dituztenak eta hori guztia kudeatzen duten irakasleak.

Laburbilduz, erakunde eskudunek datozen urteotan lantzeko gaia da, eta jakin badakite giza baliabide eta baliabide material gehigarriak eman beharko direla.

2. Jatorria atzerrian duten ikasleen kontzentrazioa ikastetxe jakin batzuetan: agerikoa da euskal ikasleen artean ikastetxeak esleitzeko egungo sistemak ezberdintasunak eragiten dituela, gure ikasgeletan, jatorria atzerrian duten ikasleen presentziari dagokionez. Sare publikoan eta itunduan, ikastetxe batzuetan ez dago ikasle atzerritarrik, eta beste batzuetan ehunekoak % 80ra iristen dira. Banaketa aleatorioa edo zurrunki proportzionala bilatu gabe ere (ikastetxea hautatzeko eta esleitzeko prozesuan Administrazioak ez ezik, familiak ere zeregin aktiboa du), ez dago zalantzarik: egungo sistemak ez du funtzionatu beharko lukeen moduan funtzionatzen; izan ere, ez du ikasle atzerritarren banaketa parekatua lortzen euskal hezkuntza-sarea osatzen duten ikastetxe guztien artean, izan ikastetxe publikoak, izan ikastetxe itunduak.

Oraingoan ere ez daukagu “makulu magiko”rik arazoa konpontzeko, baina Administrazioari egiten diogu dei berriz ere, hausnarketa-prozesu bat abiaraz dezan, atzerriko ikasleen kontzentrazioan dauden aldean arazoa konpon dezan. Egindako elkarrizketetan proposatu da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza

Sailak kontrolatzea ikastetxeen arteko matrikulazio-aldaketak, atzerriko ikasleak banatzea inguru hurbileko errealitatearen arabera eta abar.

Jakin badakigun arren banaketa erabat proportzionala lortzea ezinezko izango dela, neurri zuzentzaile gisa proposatzen dugu giza baliabide eta baliabide material gehiago esleitzea (harrera-irakasleak, ikasgelan sartu aurretik; laguntzeko irakasleak, eskolaz kanpoko jardueretarako edo irakaskuntza indartzeko; diru-laguntzak, eskolaz kanpoko jardueretarako; ikasgelako ikasleen kopurua murriztea; eta abar) ahalegin handiagoa egiten duten ikastetxeei; zehazki, ikasle atzerritarren bolumen handiena dutenei.

3. Hizkuntzei lotutako arazoak: ikasgelan atzerriko ikasleekin egiten den lanak arazoak ditu komunikazioan, ikasketa-prozesuan eta familiekiko harremanetan. Gehienetan, atzerriko ikasleek ez dakite ezer euskaraz, eta ez gutxitan, ezta gaztelaniaz ere. Eskolatzea haurtzaroan egiten denean, ez dago arazo handirik, baina nagusixeago direnean egitean, egoera zailen iturri dira, eta arreta eta lan-karga handiagoa eskatzen dituzte.

Bereziki garrantzitsua da euskararen erabilera eta ezagutza B eta D eruedetan jakintza barneratzeko hizkuntza gisa. Egoera horrek irakasleen konpromisoa eta lana eskatzen du, eta, gehienetan, irakasleek laguntza beharko dute; zehazki, Hizkuntza Indartzeko irakaslearen (ikasleekin lan egiteko) eta interpretearen (familiekin lan egiteko, funtsean) bidez.

Esparru honetan, elkarrizketatutako irakasleen eskaerak oso argiak dira: a) Hizkuntza Indartzeko irakaslearen presentzia areagotzea ikastetxeetan, 5 urtera arte, adiez nagusiago diren ikasleekin egiten den lanean laguntzeko behar denean; b) beste irakasle bat ematea, ikasgelan egon dadin eta hizkuntza-kontuak direla eta azalpenen erritmo ezberdinen ondorioz ager daitezkeen beharrezanean erantzuteko; c) interpretazio-zerbitzuko orduak areagotzea, harrerari begira, hala familientzat nola atzerriko ikasleentzat.

4. Ikasleen eskolako etekina atzerriko ikasleen kopuruarekin lotzen duen estereotipoa: oso hedatuta dago euskal gizartean, baina estereotiko negatiboa eta faltsua da, atzerriko ikasleen aurka egiten duena. Zehazki, ikasle atzerritarren kontzentrazio handiak ikastegi bateko hezkuntza maila beheratzen duela dio estereotipoak.

Zientifikoki frogatu da ikasle baten eskola-etekinak, funtsean, bere familiaren maila sozioekonomikoarekin eta kulturalarekin duela lotura, ez familiaren jatorri geografikoarekin. Halaber, eskolako arrakastari edo porrotari oso loturik dago hezkuntza-prozesuan erabiltzen diren hizkuntzen ezagutza. Horren ondorioz, atzerriko hizkuntza-arazoak dituzten ikasleen kontzentrazio handia duten ikastetxeek zigortu egiten dituzte ikastegi

guztien (multzotzat hartuta) eskolako emaitzak, baina ez, inola ere, ikaskideen emaitzak.

Zaila da estereotipo horren aurka egitekoa, baina ez zaigu besterik bururatzeko, ezpada oinarria eraistea: atzerriko ikasleen kontzentrazio handia duen ikastetxe baten eskolako emaitzak (lan eta ahalegin handiagoa eskatzen du) beste ikastetxe batzuetakoekin erkatzeko, lehenengoei baliabide material eta giza baliabide gehiago eman behar dizkiegu: irakasle gehiago, ikasle gutxiago, lagungarri linguistiko gehiago, eskolaz kanpoko jarduerak, eta abar).

5. Irakasleak jatorriaren arabera bereiztea, hazten diren heinean: egindako elkarrizketetan behin baino gehiagotan aipatu da irakasleak kezkatzen eta pentsarazten dituen egoera bat. Kontua da lehenengo urteetan (hautzarroan, esaterako) neska-mutikoen arteko interakzioak ez duela bereizketa geografikorik edo arrazaren zein hizkuntzaren araberrakorik egiteko; aitzitik, hazten diren heinetan eta batez ere eskolan geroago sartzen badira, ezberdintasunak are nabarmenagoak dira, eta derrigorrezko hezkuntzako azken ikasturteetan (14, 15, 16 urte) antzematen da batzuetan talde edo koadrilak egiten direla, arrazaren, hizkuntzaren, geografiaren, kulturaren, erlijioaren eta abarren arabera.

Iritzi partekatua da: etorkizunean gizarte-kohesioa eta mugikortasun bertikala handiagoak izan daitezkeen, komeni da talde edo koadrila horiek mistoak izatea, nahiz eta arazorik gabe ulertzen den, ikasleen egoera ikusita, familien edo hurreko gizarte-inguruaren bueltan sortzea, herrian edo auzoan. Nolanahi ere den, ez dakite nola sustatu eta areagotu daitezkeen gizarte-interakzioak, talde edo koadrilak heterogeneoak berez sor daitezkeen.

6. Irakasleen pertzepzioak eta bizipenak deskribatutako egoeren aurrean: galdetutako irakasleak bat datoz, euren gogoak deskribatzean, XXI. mendeko ikasgelaren erronkei aurre egitean; hots, ikasleen aniztasuna nabarmen areagotzeko egin behar zaionean aurre. Prozesu horren hasieran, nolabaiteko antsietate- eta beldur-sentipena zen nagusi, ezezagunaren aurrean; gerora, normaltasun osoz onartu da. Normaltasun horrek, baina, lan handia dakar berarekin: atzerriko ikasle eta familiekin lan egiten duten irakasleei eskatzen zaien ahalegina askoz ere handiagoa da halakoekin ez dihardutenei eskatzen zaiena baino.

Horiek horrela, batzuek laguntza eskatu dute, prestakuntza-saioen bidez, atzerriko ikasleekiko harreman interpersoneletan laguntzeko; halaber eskatzen dute orientazioa ematea ikasgeletako aniztasuna kudeatzeko, kulturartekotasuna interpretatzeko eta ezagutzeko gakoak emateko (erlijioari lotutako gaiak), estres-egoerak hobeto kudeatzeko, eta abar.

Eusko Jaurlaritzak Berritzeguneen bidez ematen du, besteak beste, gai horien inguruko prestakuntza; halere, irakasle batzuek uste dute eskaintza ez dela behar bestekoa eta irakasleak ez ezik, atzerriko irakasle eta familiak ere gehi daitezkeela lanketara.

Gure ustez, ikastegiaren autonomian eta ikastegietako zuzentzarauetan eragin gabe, Eusko Jaurlaritzak ere jarduteko argibideak eman ditzake, ikastegiak antzeko arazo eta kasuistikei aurre egiteko ematen dituzten erantzunak homogeneizatzeko.

Jardunbide egokiak

Helburua ikasgelako lan-jardunbide egokien bilduma zehatza egitea ez bada ere, ikastegi batzuetan gauzatzen diren zenbait ekintza jaso ditugu; zehazki, hiru ikastetxe publikoetan. Gure helburua ez zen ikastetxeetan betegarriak diren ekintza espezifikoak biltzea, baina halakoak agertu ziren irakasleei eginiko elkarrizketetan. Hori dela eta, interesgarri deritzogu horiek aurkezteari.

1. Ikasle berri bat ikasgelan sartzen denean, astero ikaskide batek hartzen du “tutorizazio” lana; hots, astebetaz arduratzen da behar duen laguntza emateaz. Horrela, ikasleek inplikazio aktiboa dute harreran, eta ikasgelara arrakastaz sartzea lortzen da. Adierazi behar dugu esperientzia hori epe kanpoko matrikulazioak etengabeak ez direnean eta asko ez direnean egin daitekeela.

“Iaz laugarren mailako neskato hau iritsi zitzaigun, uste dut urrian-edo izan zela, eta, jakina, ez zuen gure grafismoa ezagutzen. Horren aurrean, aste bakoitzean ikaskide bat jarri genion alboan, irakurtzen irakasteko; gurasoak pozarren zeuden euren semeak edo alabak astebetean agertutako jarrera arduratsuekin. Zehazki, jaioberrientzako jolasak ekarri zizkieten koloreak ikasteko, letra-jolasak... Egia esan, bikaina izan zen. Abendurako irakurtzen ikasia zuen, eta oso ondo idazten zuen. Jakina, hemen ikasleei esaten genien: irakurtzen irakatsi diezue. Bazekiten egia zela, eta tira, ezin poztu zeuden”. (Publikoa, Lehen Hezkuntza)

2. Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batera ikasle berriak iristen direnean, ikastetxeko bisitak programatzen dira eskola-orduetan, eurek egiazta dezaten zer-nolakoa den ikastetxearen funtzionamendu erreala eta zer-nolako aniztasuna dagoen ikasleen artean. Ikastetxearen egunerokoa ezagutzeko aukera emateak lasaitasuna eta konfiantza ematen die familiei, ikastegian egiten diren hezkuntza-lanen inguruan.

“Guk, bisitak egiten ditugunean, ez ditugu 17:00etatik 18:00etara egiten, ikastetxea itxita dagoenean; ez, orain egiten ditugu, ikasleak barruan daudenean; gurasoak eskola-orduetan etortzen dira. Are gehiago, hori da geuk egiten dugun

proposamenetako bat: ez diegu ikastegia 17:00etatik 18:00etara erakusten, dena oso ondo dagoela erakusteko, ez; ikasle guztiekin ikusiko duzue dena, nola funtzionatzen duen, zer-nolako lasaitasuna dagoen eta eskoletako normaltasuna ikus dezazuen. Horrek konfiantza ematen du; bestela, nik zerbait ikusten badut 17:00etatik 18:00etara, pentsa dezaket ez didatela egia osoa esaten. Alabaina, nik oraintxe bertan erakusten badizut, ikasle guztiak hemen barruan daudela, ezin dizut iruzurrik egin, zuk zeuk ikusten duzulako: dagoena erakusten ari natzaizu". (Publikoa, Bigarren Hezkuntza)

3. Azken esperientzia ez da oraingoz sartu ikastegian, baina ezartzeaz hausnartzen ari dira. Honetan datza: ikasle etorkinak ikasgelan sartu eta ordu batzuetan ez ateratzea indartzeko eskoletarako. Ikaskideak izango lirateke laguntza behar duten ikasle horien arduradun, eta Hizkuntza Indartzeko irakaslea arduratuko litzateke materialak prestatzeaz eta "tutore" bihurtzen direnei prestakuntza emateaz. Horrela, ikasgela ez da banatzen, ez dira fisikoki bereizten laguntza behar dutenak, eta ikasgelan kohesio-giroa sortzen da.

"Gu hausnartzen ari gara, apur bat aldatzeko. Haurra atera beharrean, ikasgelan gera daitekeela. Badaude esperientziak beste ikastegi batzuetan ere. Bestela lan egitea da: ni HIPIko ikaslea banaiz, ez naiz ikasgelatik irteten eta zu zara nire ikaskidea, eta beste bat... Egunean bi lagunek laguntzen didate, beharbada bizpahiru orduz egunean. HIPIk materiala prestatuko luke, eta eskolara eraman, eta zuri eta beste bati formulatu egingo nizueke... Esan egingo nizueke: hau egin behar duzue, astiro hitz eginda... Prestakuntza emango genizueke apur bat, eta zuek lagundu egingo zenioke. Hor akademikoki lagunduko didazue eta ni zuekin egongo nintzateke... Izan ere, ematen du aurkakoa lortzen ari garela, borondate onarekin, baina bereizi egiten dugu... eta aurkakoa behar dute". (Publikoa, Lehen Hezkuntza)



ERANSKINAK

HEZITZAILEAK ELKARRIZKETATZEKO GIDOIA

IKERKETAREN AURKEZPENA ETA LEHENENGO INPRESIOAK

- Ikerketaren aurkezpen orokorra
- Argibideak elkarrizketaren konfidentzialtasunaz
- Elkarrizketatuak ikerketaren inguruan dituen inpresioak

HEZKUNTZA-ZENTROA ETA IRAKASLEAK

- Alderdi orokorrak: ikastetxe mota, ikastetxearen ezaugarriak, ikasleen kuantifikazioa, ikasleen profila, mailen araberako banaketa eta abar.
- Harrera eta egokitzapena ikastetxean: ikastetxeak hautatzea, nola sortzen da, programa espezifikokoak, irakasleen zeregina ikastetxean.
- Epez kanpoko matrikulazioak: nola lantzen da ikastetxean, kuantifikazioa, kudeaketaren inguruko iritzia hezkuntzaren ikuspegitik.
- Alderdi linguistikoa: nola lantzen da ikastetxean, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa, hizkuntza indartzea.
- Aniztasunarekin lotutako beste programa espezifikoko batzuk: badaude? Beharrezkotzat jotzen dira? Horretarako behar diren bitartekoak ematen dira?
- Krisiaren eragina.
- Elkarrizketatuak ikastegian duen zeregina.
- Irakasleen jarrera, irakasleek ikasgelan egiten duten lanari buruzko iritzia.
- Jatorria atzerrian duten ikasleen itzaropenak.
- Ikastegiko irakasleen indargune eta ahulguneak.

IKASLEAK/IKASGELA

Elkarrizketatuek euren lana ikasgelan gauzatzen den moduari buruz duten pertzepzio pertsonalaren berri izan nahi dugu. Zer-nolako sentimenduak ageri diren egunerokoan eskolan egiten duen lanaren aurrean, eta atzerriko zein tokiko jendearen aurrean.

- Ikasgela barruko harremanak ikasleen artean: interakzioa, bertoko biztanleekiko harremanak, bizikidetzaz- arazoak ikasgelan.
- Bazterkeria ikasgelan: kasurik gertatzen den, ikasleen artean, ikasleen eta irakasleen artean, eta abar.
- Balorazioa/iritzia jatorria atzerria duten ikasleen inguruan, honako alderdi hauei dagokienez:
 - Egokitzapena: bertoko ikasleekin alderatuta, ezberdintasunak atzematen dira atzerriko jatorriaren arabera, ezberdintasunak sexuaren arabera.
 - Etekinak: bertoko ikasleekin alderatuta, ezberdintasunak atzematen dira atzerriko jatorriaren arabera, ezberdintasunak sexuaren arabera.
 - Eskola uztea: bertoko ikasleekin alderatuta, ezberdintasunak atzematen dira atzerriko jatorriaren arabera, ezberdintasunak sexuaren arabera. Uztea/jarraitzea baldintzatzen duten faktoreak.
- Eskolako ibilbidea: ibilbide nagusia, profilak jatorriaren arabera.
- Ikasleek eurek etorkizunerako dituzten itxaropenak. Zer espero dute ikasleek euren etorkizunaz?

FAMILIA

Nola hautematen du irakasleak jatorria atzerrian duten familiekiko harremana; halaber tokiko familiei dagokionez. Bestalde, familien arteko harremana, seme-alabei ematen dieten laguntza, horrek irakasleei eragiten dizkion sentipenak.

- Familiaren zeregina seme-alaben hezkuntzan: inplikazio handiagoa edo txikiagoa, familiaren eragina eskolako etekinean, sortutako itxaropenak.
- Familiaren zeregina ikastetxean: gurasoen harremana irakasleekin (handiagoa edo txikiagoa, nola gauzatzen da), inplikazioa ikastetxeko jardueretan (IGEak, batzarrak, beste jardura batzuk, etab.).

ETORKIZUNA

Nola ikusten den ikasgelen etorkizuna aniztasunari dagokionez. Aurreikuspenak ikasgeletan aniztasuna lantzeko moduen joerari dagokionez.

Etorkizunean, hemendik 10 urtera, nola ikusten duzu ikasgelaren etorkizuna. Hots, zein izango da errealitatea: ikasleen banaketa, ikasgelako lana, irakasgaiak irakasten dituzten irakasleak, eta abar.

Etorkizunean, hemendik 10 urtera, nola ikusten duzu ikasleen etorkizuna.: mugikortasun soziala, eskola uztea, jarraipena goi-mailako ikasketetan, identitatea, eta abar.

Zure ustez, zer izan beharko luke ikasgela batek etorkizunean, ontzat jotzeko (artatu beharreko ikasleen kopurua, hizkuntza, inbertitutako laguntza eta baliabideak, aintzat hartzeko ekimen positiboak...).

- Etorkizunean lantzeko alderdi gakoak.
- Zure esku balego, zein gako landuko zenuke?

ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONEN ZERRENDA


- Bizkaiko udalerrri bateko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle 1
- Arabako udalerrri bateko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle 1
- Gipuzkoako udalerrri bateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle 1
- Bizkaiko udalerrri bateko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle 1
- Gipuzkoako udalerrri bateko Haur Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle 1
- Gipuzkoako udalerrri bateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle 1
- Bizkaiko udalerrri bateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle 1
- Bizkaiko udalerrri bateko Lehen Hezkuntzako ikastetxe itundu bateko irakasle 1
- Gipuzkoako udalerrri bateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe itundu bateko irakasle 1
- Gipuzkoako udalerrri bateko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko irakasle 1
- Bizkaiko udalerrri bateko Haur Hezkuntzako ikastetxe itundu bateko irakasle 1
- Arabako udalerrri bateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe itundu bateko irakasle 1
- Gaztegune bateko hezitzaile 1
- Irabazi-asmorik gabeko erakunde bateko langileak 1

Hurtzaroa eta aniztasuna Euskadin

0-6 urte

María José Martín Herrero





*«Hemen nago».
/ Txinatar jatorriko haur baten
lehenbiziko hitzak euskaraz /*



AURKIBIDEA

Sarrera	275
1. Bizikidetzak, interakzioa eta integrazio soziala.	279
1.1. Hizkuntzak eta hizkuntzen eragina interakzioan zein integrazio sozialean	280
1.2. Identitatea/k	286
1.3. Eskola-errendimendua eta etorkizuneko erronkak.	293
1.4. Harremanetarako eremuak	298
1.5. Erlijioa	309
1.6. Parte-hartzea ikastetxean	313
2. Ondorioak	321
Eranskina	323



SARRERA

Euskadin XX. mendearen amaieraz geroztik, eta bereziki XXI. mendearen hasieratik bizitzen ari garen immigrazio-fenomenoak betiko aldatu ditu euskal gizartearen muineko fisionomia eta ezaugarriak. Mende hasierak komunitate berri bat ekarri du berekin, eta berria da gaurdaino ezezaguna genuen kultura-aniztasuna erabat nabarmena delako.

Euskadiko gizartea hasi da jabetzen atzerritar jatorriko immigrazioa egiturazko fenomeno bat dela, geratzeko etorri dela, eta, itxura guztien arabera, ez dela aldatuko, ezohiko egoerak egokituta ere (2008-2014ko krisi ekonomiko eta finantzarioa, eta pandemia bilakatutako 2020ko koronabirusa), epe labur eta ertainean. Atzerriko etorkinak hartzen jarraituko dugu, gure gizarteak behar dituelako, Euskadiko bertako herritar gehienek nahi ez dituzten lan-merkatuko nitxoetan lan egiteko.

Iristen diren pertsona horiek lan egiteko adina dute, eta, horrenbestez, ugaltzeko adina ere bai. Horrek lagunduko dio euskal gizarte zahartuari, ezbairik gabe, hondoratuta eta desitxuratuta dagoen biztanleria-piramidea orekatzen.

Izan ere, atzerritar jatorriko pertsonen jaiotza-tasa handiagoa da euskal jatorriko pertsonena baino, nahiz eta ez duten denbora luze behar jatorriko jaiotza-joerak helmugako jaiotza-joeretara egokitzeko.

Euskal gizarte anitz berri baten sorreraren lekukoak gara, eta horrek kudeaketa-premiak dakartza berekin. Euskadiko erakundeak kulturartekotasunaren ikuspegia oinarri hartuta ari dira bizikidetzara kudeatzen gure herri eta auzoetan; hau da, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza arau nagusi duen politika gauzatzen ari dira, hiritar-eskubideetan oinarrituta. Helburua pertsona guztien eta jatorri guztietako pertsonen izangaitasuna aprobetxatzea da, herritar guztien artean etorkizuneko euskal gizartea eraikitzeko.

Testuingurua halakoa izanik, oso garrantzitsua da bi fenomeno hauek aztertzea, analizatzea eta ulertzea: inklusioa (*zerbait beste gauza baten barruan edo haren mugen barruan jartzea*) euskal gizartean, eta integrazioa (*osotasun bat osatzea falta ziren parteekin, edo norbait edo zerbait osotasun baten parte egitea*) gizarte hori osatzen duten gainerako pertsonekin.

Une honetan euskal gizarte askoz anitzagoa da joan den mendean baino. Orain, jatorri askotako pertsonekin bizi gara, hots, hizkuntza, kultura eta erlijio askotakoekin, bizitzari eta munduari buruzko oso bestelako ikuspegia eta pentsamoldea eta klase askoko imajinarioa dutenekin. Immigrazio-fenomenoaren hasieran, atzerriko herritartasuna zuten pertsonak eta herritartasun espainiarra zutenak bereizten genituen. Gero, fenomeno ohikoago bilakatu eta nazionalitateak ugaritu ahala, atzerriko herritartasuna duten pertsonak eta atzeritar jatorriko pertsonak (atzerrian jaioak) bereizi behar izan ditugu. Behin Euskadin seme-alabak izan dituztenean, beste kategoria soziologiko bat gehitu dugu: atzeritar jatorriko gurasoak dituzten pertsonak (hemen jaioak, euskal jatorrikoak, baina aita eta/edo ama atzerrian jaioa). Eta horien artean beste bereizketa bat ere egiten dugu: herritartasun espainiarra dutenak (Espainiako estatutan jaiotako gehienak) eta ez dutenak (gutxi dira, batez ere afrikarrak, hemen jaioak, baina aita eta ama atzerriko herritartasuna dutenak).

Gaur egun, euskal jatorria duten eta atzeritar jatorriko gurasoak dituzten pertsona askorekin bizi gara jada¹. Eta askoz gehiagorekin biziko gara datozen urteetan. Etorkizuneko euskal gizarteak haien ekarpena behar du, arrakastaz egingo badie aurre sortuko diren erronkei. Horretarako, inor baztertuko ez duten euskal herritarrak lortu behar ditugu.

Pertsona guztiek ekarpena egiteko aukera izatea lortzeko neurri politikoak eta sozialak hartu behar ditugu, berdintasunean oinarrituta. Ezinbestean eraiki behar dugu kulturarteko bizikidetzak, oinarri izango dituen hiritar-eskubideak, tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Horretarako nahitaezkoa da kolektibo horren egoera soziala zein den jakitea, eta horregatik nahi izan du Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak ikerlan integrala egin, atzerriko immigrazioaren seme-alaba euskaldunen egoera ezagutzea xede hartuta.

Ikerlan honen helburua zera da: atzeritar jatorriko gurasoak dituzten 6 urtera arteko neska-mutikoek Euskal Autonomia Erkidegoan EAE izan duten integrazio-prozesuari buruz egindako azterlanaren emaitza nagusiak jakitera ematea, eta azaltzea, bereziki, zein diren haien egungo egoeraren ezaugarri nagusiak, eta

¹Otero, B. eta Mendoza, K. (2017). EAEko haur eta gazteen aniztasuna, zifretan. In J. A. Oleaga Páramo. (Arg.), *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Eskuragarri hemen: https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P1_CAP2_cifrasEUS.pdf

zer erronka izango dituzten euskal gizartean integratzeko eta gizarte-kohesioa lortzeko. Sei ataletan egituratuta dago: a) hizkuntzak, b) identitatea, c) eskola-errendimendua eta etorkizuneko erronkak, d) harremanetarako eremuak, e) erlijioa eta f) parte-hartzea ikastetxean.

Lehen ere esan dugunez, txosten hau beste ikerlan zabalago baten parte da, zehazki, *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak* (Ikuspegi) izenekoarena.

Abiapuntu gisa, lehen haurtzaroko etapa da –sei urtera bitartekoa– desberdintasun gutxien ikusiko ditugun hezkuntza-etapetako bat. Esan genezake «arkadia galdua» dela; hau da, adin horretako haurrek ez dituzte kontuan hartzen desberdintasunak (jatorria, klase-soziala, familiaren maila ekonomikoa, etab.) beren hartu-emanetan, eta gurasoak ere irekiago daude beren seme-alabek harremanak izateko, *a priori*, bestelako ezaugarri sozial edo ekonomikoak dituzten beste haur batzuekin. Baina etapa horretatik aurrera, «berdintasunik ezaren bidea» zabaltzen da, eta desberdintasunak hainbat modutan azaleratzen dira hurrengo hezkuntza-etapetan.

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin duen sailkapenaren barruan (EAEn edo Espainiako estatuan jaiotako pertsonak eta gutxienez ere 4 urte zituztela familiarekin berriz bildutakoak dira 2. belaunaldikoak), atzerritar jatorriko gurasoak dituzten sei urtera arteko EAeko haurrak ditugunez aztergai, haur gehienak oker izendatutako bigarren belaunaldikoak (2.0B) lirateke, baina bost eta sei urte zituztela familiarekin berriz bildutakoak ere (1.5B) hartu ditugu kontuan. Nolanahi ere, esan genezake pertsona horiek guztiak hartu zitezkeela osotasunean bigarren belaunaldikotzat.

Aipatutako helburua lortzeko, hiru arlo nagusi kontuan hartuta egin dugu azterlana: eskola, familia eta neska-mutikoak integratuta dauden ingurunea. Arlo horietako bakoitzean, adituen eta irakasleen ikuspegia jaso dugu, bai eta gurasoena ere; aita-amen ikuspegia biltzeko, zenbait elkarrizketa sakon egin ditugu, eta bildutako informazioa azalduko dugu.

Ingurunearen arloa aztertzeko, adituen, irakasleen eta familien ikuspegia jaso dugu. Horrezaz gain, haurren eta beren familien joera batzuk ere emango ditugu ezagutzera; joera horiek aisiako zenbait eremuri eta ikastetxeko sartu-irteerei zuzenean behatuta hauteman ditugu. Familiei egindako elkarrizketa sakonei dagokienez, gurasoen jatorria hartu dugu kontuan familiak hautatzeko. Zehazki, honako hauek hautatu ditugu:

- Jatorri asiarreko aita eta/edo ama (bi)
- Jatorri afrikarreko aita eta/edo ama (lau)
- Jatorri latinoamerikarreko aita eta/edo ama (lau)
- Jatorri europarreko aita eta/edo ama (bi)

Adituei eta irakasleei egindako elkarrizketa sakonei dagokionez, hiru lurralde historikoetako eta ikastetxe publiko zein itunpekotako pertsonak hartu dute parte, hiru hizkuntza-ereduetakoak (A, B eta D)² eta ikastetxe katoliko (Kristau Eskola) zein laiketakoak.

Mota horretako elkarrizketetan, gidoi bat izaten da (ikus eranskina), elkarrizketatzaileari egoki iruditzen zaizkion galdera irekiez osatua. Hain zuzen ere, elkarrizketatzailearen xedea izan da elkarrizketatuaren motibazioari, jarrerari eta egitasmoei loturiko alderdietan sakontzea, bai eta aztergai dugun gaiari buruzko informazio zehatza lortzea ere. Elkarrizketak Ikuspegiko teknikariek egin dituzte, eta euskarri digitalean grabatu zituzten, gerora berriro entzun ahal izateko eta aztertzeko.

Eta behaketa zuzenari dagokionez, hiru lurralde historikoetako herri-hirietako zenbait eremutan egin dugu, aintzat hartuta hiru hiriburuak, bai eta atzeritar jatorrikoak bizi diren udalerriak ere. Zehazki, honela eginda aisiako eremuetako behaketa:

1. taula. Behaketa egin den EAeko parke publikoak

LH	Udalerría	Atzerri. J.B. %	Auzoa	Atzerri. J.B. %	Tokia/plaza
Araba	Gasteiz	11,6	Koroatzearen k.	19,1	Santo Domingo
Araba	Laudio	5,4	Erdigunea- Plaza	6,1	Aldaikorreka
Bizkaia	Durango	8,7	Zabalgune	13,0	Ezkurdo
Bizkaia	Bilbo	10,0	Amezola	14,5	Amezola
Bizkaia	Bilbo	10,0	Basurto	9,0	Sabino Arana
Gipuzkoa	Donostia	9,5	Amaraberi	12,0	Olaeta
Gipuzkoa	Arrasate	8,2	Azoka-esparrua	10,2	Biteri

Iturria: egileek egin

Teknika hori erabiltzearen xedea gurasoei eta hezitzaileei egindako elkarrizketetatik lortutako diskurtsoak osatzea da. Behaketa zuzenari esker –neska-mutikoena beren aisiako eremuetan eta gurasoena ikastetxeko sartu-irteeretan–, batetik, elkarrizketetako diskurtsoak zein kontakizunak testuinguruan jarri ahal izan ditugu, eta, bestetik, eguneroko testuinguruari buruzko informazio zuzena lortu ahal izan dugu. Horrenbestez, zuzenean behatu ahal izan ditugu usadioak, ohiturak, jarrera-ereduak, erreakzioak, hartu-emanak, harreman-mailak, etab. Eranskinean jaso dugu, halaber, behaketaren informazioa biltzeko gidoia, Ikuspegiko teknikariek egin hura ere.

²Hizkuntza-ereduak: A eredia –irakasgai guztiak ematen dira gaztelaniaz, euskara izan ezik, beste irakasgai bat gehiago baita–; B eredia –irakasgai batzuk euskaraz ematen dira eta beste batzuk gaztelaniaz–; eta D eredia –irakasgai guztiak ematen dira euskaraz eta gaztelania beste irakasgai bat gehiago da–.

1


Bizikidetza, interakzioa eta integrazio soziala

Lehen ere esan dugunez, atzerritar jatorriko gurasoak dituzten 6 urtetik beherako EAEko neska-mutikoen interakzioen prozesua eta integrazio sozialaren prozesua hiru ikuspegi kontuan hartuta aztertu ditugu: familia, eskola eta aisialdia.

Lortutako informazioa sei ataletan antolatu dugu:

1. Hizkuntzak eta hizkuntzen eragina interakzioan zein integrazio sozialean
2. Identitatea/k
3. Eskola-errendimendua eta etorkizuneko erronkak
4. Harremanetarako eremuak
5. Erlijioa
6. Parte-hartzea ikastetxean

1. grafikoa. Edukien kontzeptu-mapa



Iturria: egileek egina

Hizkuntzak eta hizkuntzen eragina interakzioan zein integrazio sozialean

Harrerako gizartearen hizkuntza jakitea eta hitz egitea funtsezkoa da komunikaziorako, eta, azken batean, atzerritar jatorriko herritarrak euskal gizartearen integratzeko. Alde horretatik, hizkuntza-gaitasuna eskolan, funtsezko alderdia da eskolako emaitzetan. Aldi berean, erabakigarria da hezkuntza-prozesuan, eta eskola-integrazioa erraztu dezake, edo, aitzitik, zaildu. Gai hau landu duten egile gehienek adierazi dutenez: «Neska-mutikoen beharrezkoa dute hizkuntza-trebetasunak edukitzea, arrakasta izango badute eskolan eta bizitzan» (Morrison, 2004)³.

Atal honetan, hizkuntza jakin eta hitz egitearen ikuspegitik atzerritar jatorriko gurasoak dituzten neska-mutikoen integrazio-prozesua nola gauzatzen ari den izango dugu aztergai, izan gaztelania edo izan euskara hizkuntza. Ikasleei dagokienez, abiapuntutzat hartu behar da atzerritar jatorriko gurasoak dituzten haurren eta bertako haurren arteko harremana hezkuntza-etapa honetan zuzena eta bat-batekoa dela, eta komunikazio naturala, funtsean, bi elementurekin lotuta dagoela: jolasa eta ikasgela. Bietako lehena, aurrerago azalduko dugunez, jolaslekuekin dago lotuta, eta, bigarrena, ikaskuntza- eta egokitze-prozesuarekin.

Zenbait lekukotasun

Aztergai dugun adinean hizkuntzaren erabilerari dagokionez, adituek eta irakasleek adierazi dute, abiapuntu gisa, komunikatzeko premia dutela, ikastetxera iristen direnean batez ere, edozein dela hizkuntza: ama-hizkuntza, gaztelania edo euskara. Horren harira, oso adibide adierazgarriak kontatu dizkigute. Esate baterako, ukrainar jatorriko gurasoak dituzten bi urteko bi neskatoena; eskolan hasi zirenean ez zekiten, ez euskara eta ez gaztelania, eta ez zeuden ikasgela berean. Eskolan ezer ulertzen ez zuten, eta ezin zuten ez irakasleekin eta ez ikasleekin hitz egin, kosta ahala kosta saiatzen ziren elkarrekin egoten, komunikatu ahal izateko. Txinatar jatorriko gurasoak dituen mutiko baten kasua ere oso adierazgarria da; eskolan hasi zenean ez zuen inor ezagutzen, eta ez zekien ezertxo ere ez euskaraz eta ez gaztelaniaz. Nahiz eta hasieran oztopo handia izan mutikoarentzat, azkar baino lehen gainditu zuen eta ikasgelan lehenbizikoa izan zen euskara ikasten, beharrezkoa baitzuen, bai irakaslearekin komunikatzeko, bai ikaskideekin komunikatzeko. Hona hemen hezitzaileen zenbait lekukotasun:

³Morrison, G. S. (2004). *Educación infantil*. Madrid: Pearson Educación.

«(Hizkuntzaren gaia) txikiek ez diote tankera hartzen euskaraz ari diren, gaztelaniaz ari diren... beren hizkuntzan ari diren... Ume koitaduek dezenteko nahaste-borrastea izaten dute, pixkanaka-pixkanaka egoera bideratzen duten arte, baina hori oso normala da» (D eredua, publikoa)

«Ukrainako bi neskatu ditugu bi urteko gelatan, eta ez daude gela berean, ez daude elkarrekin, eta haietako bat hasten da, batez ere; kontua da bata oso independentea eta oso heldua dela, eta bestea ez hainbeste. Beraz, hain heldua ez dena saiatzen da helduagoa denarekin egoten, elkarrekin hitz egin dezaketelako; hau da, hizkuntzagatik elkartzen dira... Bietan independenteenak ez du inolako arazorik, euskaraz hitz egiten duelako (eta bi urte baino ez ditu), ikaragarria da; baina besteak ez du hitz egiten. Beraz, bestearekin egoten saiatzen da, ukraineraz harekin hitz egin ahal izango duelako, ziur asko. Hori, adibidez, orain gertatzen ari zaigu. Jakina, zuk komunikatzeko beharra daukazu, eta, beraz, komunikatzeko modua bilatzen duzu, nola edo hala. Horrela jarraitu dute (harremana), guk ez diogu esan... 'ezin duzu'» (D eredua, publikoa)

Hezitzaileek adierazi digute komunikatzeko premiak «mendiak mugiarazten» dituela:

«Etxean ama-hizkuntza ikasten dute [...] Komunikatu ahal izateko euskara ikasteko premia dute, batez ere, asiarrek, pakistandarrek, afrikarrek [...] Komunikatzeko beharra hain da handia» (D eredua, publikoa:2)

«Txinatar jatorriko gurasoak dituen mutikoa izan zen euskaraz hitz egiten ikasi zuen ikasgelako lehena» (D eredua, publikoa)

Aztergai dugun adinean nabarmentzeko moduko beste alderdi bat da zeinen azkar eta modu naturalean ikasten duten haurrek sozializatzen hizkuntza berrian, dela euskara, dela gaztelania. Pentsatzekoa denez, atzerritar jatorriko gurasoak dituzten neska-mutikoen hizkuntzak ikastea hiru eremuren baitan dago: familia, hots, gurasoek zer hizkuntza hitz egiten duten, anai-arreba zaharragoak dituzten, eta familiak zer ISEK indizea (Indize sozioekonomikoa eta kulturala) duen; hezkuntza-zentroa, eta, zehazki, aukeratutako hizkuntza-eredua (A, B, D); eta gertuko gizarte-ingurunea, hau da, zer hizkuntza den nagusi ingurunean, izan euskalduna edo izan erdalduna.

Aztergai dugun adinean nabarmentzeko moduko beste alderdi bat da zeinen azkar eta modu naturalean ikasten duten haurrek sozializatzen hizkuntza berrian, dela euskara, dela gaztelania.

Komunikatzeko gaitasunari dagokionez, elkarriketatutako adituek eta irakasleek adierazi digute ikastetxean hasten direnean haurren komunikazio-mailan alde handiak hautematen dituztela, eta alde horiek, normalean, lehenbiziko urteetan familia-ingurunean jasotzen duten estimulazio-mailagatik direla batez ere. Izan ere, ikastetxean hasten direnean, nabarmen hautematen da zer haurrek egin duten Haur Hezkuntzako mailaren bat eta zer haurrek ez, edo egin ezean, nork dituen anai-arreba zaharragoak eta nork ez; estimulazioa eta komunikazio-gaitasuna ez da berdina.

«Neskato bat bi urteko gela batetik zetorren, eta, beraz, motibatuago zetorren; eta gainerakoak, bada, batzuek ez zekiten gaztelania, eta pixkanaka-pixkanaka

hitzak ikasi dituzte, eta, orain, ia denek hitz egiten dute eta oso ondo ulertzen zaie. Gehienek Haur Hezkuntzan egon diren anai-arreba zaharragoak dituzte... eta horrek estimulatuago egoten laguntzen die» (A eredu, publikoa)

«Arazoa seme-alaba bakarrak direnean edo zaharrenak direnean izaten da, eta bai, horiek izaten dute hizkuntza-arazoa; izan ere, etxean txinera hitz egiten dute edo arabiera hitz egiten dute...» (A eredu, publikoa)

Nolanahi ere, alde horiek Haur Hezkuntzan hasten dira berdintzen, eta, Lehen Hezkuntzan hasten direnerako, ikasleek jada eskuratu dituzte komunikatu ahal izateko gaitasunak.

«Bost urterekin, Haur Hezkuntza amaitu eta Lehen Hezkuntza hasten direnean, hiru urterekin hasi eta bilakaera ona izan badute... lexiko dezenterekin (gaztelania) hasten dira; hemen errutina asko lantzen ditugu, eta, beraz, pixkanaka ikasten dute hizkuntza... eta aberasgarria da haientzat... Lehen Hezkuntzan hasi, eta nahiz eta irakasleak berriak izan eta haiek berek ere berriak izan, badute komunikazioa, elkarri ulertzen diote» (A eredu, publikoa)

Gaztelaniari dagokionez

Normalean, familia-ingurunean, gurasoekin, ama-hizkuntza hitz egiten da. Ama-hizkuntzaz gain, gaztelania da anai-arreben artean hitz egin ohi den hizkuntza, eta, zenbaitetan, gurasoekin ere bai, ondo moldatzen badira. Adituek jatorriko hizkuntzan hitz egiten jarraitzeko gomendatzen diete atzeritar jatorriko gurasoak dituzten haurren familiei, horrek hizkuntzaren egitura aberatsagoa 'eraikitzen' laguntzen baitie, edozein dela hizkuntza: ingelesa, frantsesa, errumaniera, txinera, etab.

«Hizkuntzaren kontua oso garrantzitsua da, hau da, jatorriko hizkuntzan hitz egiten jarraitzea, aberatsagoa izango baita haien seme-alabei irakasteko garaian. Haurrak egitura aberatsagoa eraikitzen du» (Berritzegune, Irun)

Arazo handiena hemen denbora luze daramaten eta komunikatzeko zailtasunak dituzten aiten eta amen artean hautematen ari gara batez ere, eta arazo horrek eragina du beren hartu-emanetan eta ingurunean gizarteratzean.

Familiei eta hizkuntza jakiteari zein hitz egiteari dagokionez, pentsatzen dugu jakitea funtsezkoa dela, bai ikastetxean integratzeko eta bai beren ingurunean integratzeko; eta ez jakitea, berriz, oztopo dela. Horren harira, adituek eta irakasleek esan digute askotan, ikastetxearen arabera, zailtasunak izaten direla komunikatzeko. Hau da, ikastetxera etortzen direnean seme-alabekin, sarrera-irteeretan, nabaritzen da nola geratzen den aldenduago aita edo ama, uzkurtuta hizkuntza ez dakielako. Arazo handiena hemen

denbora luze daramaten eta komunikatzeko zailtasunak dituzten aiten eta amen artean hautematen ari gara batez ere, eta arazo horrek eragina du beren hartu-emanetan eta ingurunean gizarteratzean.

«Hemen denbora luze daramaten ama batzuek zailtasunak dituzte komunikatzeko, eta hizkuntzak ere badu eragina haiek hobeto erlazionatzeko eta ingurunean

gizarteratzeko. Hizkuntza ez badaki beste ama batzuekin komunikatzeko, isolatuta geratzen da» (Berritzegune, Irun)

Egoera horiek hasiera-hasieratik saiatzen gara konpontzen familiekin, oso garrantzitsua baita haiek gure abegi ona sentitzea, eta hori lortzen da irakasleek begirada bat, agur bero bat edota irribarre bat eginez familiei, seme-alabak ikastetxean uzten dituztenean. Horrezaz gain, familiei informazioa helarazteko, ohar sinpleak prestatzen ditugu, eta seme-alaben bila etortzen direnean ematen dizkiegu.

Beste batzuetan, familiekin hitz egin behar denean, bi hizkuntzak dakizkien senideren baten bidez komunikatzen gara. Zenbaitetan, jatorri bereko pertsonen taldetik hizkuntza ondoen dakienak azaltzen dizkie azaldu beharrekoak gainerakoei. Ikastetxe batzuetan, gaztelania ikasteko ikastaroak eskaintzen dizkiete familiei.

«Hizkuntza ez jakiteak asko mugatzen du. Zenbaitetan, familiak berak jartzen ditu komunikaziorako bideak (lehengusu-lehengusina bat, seme-alaba bat edo senideren bat izaten da bitartekoa)» (Berritzegune, Irun)

«Eta beste gauza bat ere gertatzen da askotan: hizkuntza ondo ez dakitenez, amak ez dira niregana hurbiltzen nirekin hitz egitera. Halakoetan, beti saiatzen ni haiengana hurbiltzen, aukera emateko haiei. Haiek bigarren mailan bezala geratzen dira beti. Hau esaten diegu: "ez, barkatu, bere ama zara, etorri hona, hitz egin dezagun, semea nire esku uzten ari zara, eta hura da gehien maite duzuna, ezta?" Ez al duzu pixka bat jakin nahi? Ez al duzu pixka bat hitz egin nahi? Nik nahi nuke. Zati hori ez dut esaten, beste modu batera adierazten diet: irribarre bat eginez, gerturatuta, emanez, haiek ulertzeko eta gustura sentitzeko ahalegina eginez...» (B eredua, itunpekoa)

«Ni nago hurrekin ikasturte honetan, eta hurrengoetan nire lankideekin egongo dira; hartara, ikastetxearekiko ere konfiantza hartzen dutela iruditzen zait. Nik ere ulertzen dut, beste herrialde batetik etorri zara, ez dakizu hizkuntza, denetara ohitu behar da, hemengo funtzionatzeko modura, nik ez dakit nola funtzionatzen duen Marokon, baina pentsatzen dut ez dela berdina izango, ezta? Urrats hori ematea beti gustatzen zait, zaila baita, zaila izan behar du, haien lekuan jartzen naiz eta ikaragarria izan behar du, zaila izan behar du» (B eredua, itunpekoa)

«Gaztelania ikasteko amentzako eskola dago, eta etortzen dira, baina arabiarak, hor ere ez dira nahasten, eta nahasten ez direnez...» (A eredua, publikoa)

Euskarari dagokionez

Haur Hezkuntzan euskara ikasteari eta hitz egiteari buruz, euskara ikasteko eta hitz egiteko garaian zerikusia duten hainbat alderdi adierazi dituzte adituek. Batetik, nabarmendu dute eragin handia duela gurasoek etxean gaztelaniaz ez hitz egitea, eta anai-arreba zaharragoak Euskadin eskolatuak egon ez izana. Eta bestetik, bereziki adierazi dute oso garrantzitsua dela zer hezkuntza-eredutan matrikulatuta dauden, bai eta ingurune euskaldun batean bizi diren ala ez ere.

Gaztelania ez dakiten familiei dagokienez, hala nola asiar edo afrikar jatorriko gurasoak dituzten hurrei dagokienez, adierazi dute euskara modu naturalagoan ikasten eta hitz egiten dutela, komunikatzeko modua den heinean; izan ere, ez dute gaztelaniaren erreferentzia, jatorri latinoamerikarreko gurasoak dituzten hurrek ez bezala. Neska-mutiko hegoamerikarrek, gaztelaniadunek, badakite gaztelaniaz hitz eginda moldatzen direla, komunikatzen direla eta auzoko gehienen egoera berbera dela, eta paradoxa dirudien arren, nekezago egiten zaie ikastea, komunikatzeko gaztelaniara jotzen dutelako, eta ez euskarara.

«Hegoamerikarrek badakite gaztelaniaz hitz eginda moldatzen direla, komunikatzen direla; auzokide gehienak gaztelaniadunak dira, 70eko hamarkadako immigrazioarekin osatu baitzen auzoa, gehienbat» (D eredu, publikoa)

Gaztelaniadunak ez diren herritartasuneko hurrek, paradoxa dirudien arren, zailtasun gutxiago dituzte, euskara modu naturalagoan ikasten dute:

«Afrikarrek azkarrago ikasten dute, erraztasun handiagoa dute ama-hizkuntza gaztelania dutenek baino» (D eredu, publikoa)

«Haur afrikarrek oso ondo ikasten dute euskara» (B eredu, itunpekoa)

«Oso txikiak dira, eta egia da, bai, niri hasieran kosta egiten zaidala euskararen kontuarekin eta halakoekin hastea, baina pentsatzen dut Bilbon egongo direla euskara hainbeste hitz egiten ez duten ikastetxeak. Kontua da udalerrri euskaldun batekoa naizela, eta ohituta nagoela haur guztiak euskaraz entzutera, baina Bilbora etorri eta ez da hala, parkeetara joan eta ez da entzuten... (B eredu, itunpekoa)

Baina gaztelania dakiten familien kasuan, hala nola latinoamerikarren kasuan, euskara ikasteak eta hitz egiteak ez dio komunikatzeko beharraren logikari jarraitzen, beste faktore batzuek eragiten dute; esate baterako, positibotzat hartzen dute euskarajakitea, bertakoekin hartu-emanakizateko eta etorkizunean lana edukitzeko. Bestalde, iristen ari diren kultura-maila handiagoko familiek jarrera aktiboagoa erakusten dute seme-alabei hizkuntza berria ikasten laguntzeko garaian, eta eskuko telefonoan itzultzaile automatikoen aplikazioak jarrita laguntzen diete, bai eta liburutegian materiala bilatzen ere. Gurasoak euskara ikasten inplikatzeari dagokionez, mota askotako egoerak daude.

«Batzuek erakusten dute interesa; bada beste autonomia-erkidego batean jaio zen neskatxa bat, eta gurasoek aurreko ikasturteko abestiak eskatu zizkidaten, etxean entzun ahal izateko [...] Eta beste batzuek, bada, besterik gabe.» (D eredu, publikoa)

Antzeko beste lekukotasun bat:

«Nik zera esaten diot: —abesti bat kantatu behar duzunean, zuk buruz ikasi, eta ikusiko duzu zer ondo moldatuko zaren euskaraz— eta AAAAri, txikienari, hitz egiten ari denean atera egiten zaio, batzuetan; bi urte dituenetik hitz egiten diote eta. Hasieran esaten zidan [...], ama, pixka bat arraro hitz egiten dute, eta nik erantzuten diet: —hemengo hizkuntza da—. Alabek ondo daramate, abestu egiten dute, zenbaitetan hitz egin, eta beste batzuetan niri galdetzen didate zer esan nahi duen zerbaitek; halakoetan, esateko eskatzen diet eta nik itzultzaile automatikoan

«jartzen dut, eta zer esan nahi duen ikusten dudanean, azaldu egiten diet» (aita/ama, Venezuela)

Seme-alaba zaharragoak dituzten familiei dagokienez ere alde handia nabaritu dute; hau da, gazteenek azkarrago ikasten dute adin berean, besteek baino. Adierazi digute, halaber, zenbait seme-alaba dituzten familietan, beren artean batzuetan euskaraz hitz egiten dutela, batez ere gurasoek ulertzea nahi ez dutenean zer esaten ari diren:

«Txikiena hemen dago (Gipuzkoako ikastetxe bat). Ekainean bost urte beteko ditu, eta ondo doa. Hasieran asko kostatzen zitzaion hitz egitea, mimatu samar zegoelako, eta orain euskaraz gehiago hitz egiten du gaztelaniaz baino [...] eta bera ari zait niri laguntzen, zeren nire alaba (zaharrena) etxean ez zegoenez euskaraz norekin egin, nik ez nuen hitz egiten. Txikienak, berriz, esaten dit: –tira, esan nirekin batera—. Hala, bada, hitzak ikasten ari naiz, eta orain bai, orain ulertzen dut; orain nik ikasi behar dut zer esan nahi duten hitz batzuek, hala nola ura, ogia... Egunero erabiltzen diren hitzak gordetzen ditut errazen buruan...» (aita/ama, Ekuador)

Garrantzi handiko beste alderdi bat neska-mutikoak eskolatuta dauden ikastetxeko hizkuntza-eredua (D eredua, euskaraz) eta ingurunea (euskalduna/erdalduna) da. Esate baterako, euskaraz hitz egiten den lekuetan, familiek errazago hartzen dute euskaraz agurtzeko ohitura. Baina, oro har, irakasleek euskaraz agurtzea –*egun on, arratsalde on, kaixo, agur* [...]– oso lagungarria da familiek ere hitz edo esapide horiek bere egiteko eta errepikatzeko. Elkarrizketatu ditugun aditu eta irakasleetatik ingurune euskaldunagoetan lan egiten dutenek hautematen dute familiek, oro har, gehiago balioesten dutela euskaraz hitz egitea, Euskadin bizi direlako; haientzat hizkuntza baliagarria da euskal gizartean integratzeko, lana edukitzeko eta abar:

«Eta familien identifikazioa euskararen gaiarekiko primerakoa da; familia marokoarrak, esate baterako, haiek berek integratzen dira, gure harridurarako haiek hasten baitira esaten egun on, agur... [...] Familia etorkinei egun on, eskerrik asko askotan esaten diegunez, haiek ere berehala hasten dira esaten egun on, eskerrik asko [...] Esan dezakegu pertsona helduen egokitze-maila oso ona dela, primerakoa...» (D eredua, publikoa: 2)

Laburbilduz

Hizkuntza neska-mutikoentzako komunikatzeko tresna bat da, eta ez da arazoa haientzat, baizik eta oinarrizko premia; atzerritar jatorriko familia batzuentzat, berriz, benetako oztopoa da, komunikazioari eta interakzioari dagokionez. Hizkuntza jakitea, beste hizkuntza-ingurune batzuetatik datozen pertsonentzako, integrazio-prozesurako sarbidea da, bai eta isolamendu-arriskua eragozteko tresna boteretsuena ere. Alde horretatik, Haur Hezkuntzan, ikastetxeek eta familia horiek egunero dute hartu-emana, seme-alabak ikastetxera egunero eramaten baitituzte.

Lehen ere esan dugunez, familiak eta ikastetxeak dira erakunde erabakigarrienak egoera berrirako integrazio-prozesuan. Ez dago zalantzarik EAEn izaera elebiduna, batetik, konplexutasun-faktore bat dela, eta, bestetik, hemengo egoeraren aberastasun-faktore bat ere badela.

Egia da atzerritar jatorriko pertsona batzuentzat hori gainditu beharreko beste erronka bat dela. Nolanahi ere, atal honek agerian utzi du atzerritar jatorriko familiek izugarrizko ahalegina egiten dutela, beharrezko hizkuntza-gaitasunak eskuratzeko eta egoera hori normalizatzeko.

Baina elkarrizketetan agerian geratu da, halaber, eskolan sozializatzea ona dela interakziorako, aniztasunari dagokionez; eta horrezaz gain, Haur Hezkuntzan hizkuntza modu naturalean ikasten dutela neska-mutikoen, normala den bezala, eta hurrek komunikatzeko duten beharra eragingarria dela oso. Horrenbestez, atzerritar jatorriko gurasoak dituzten neska-mutikoen helburu nagusia komunikatzea da, nahiz eta beren gain hizkuntza-oztopo bat izan dezaketen. Gainera, malgutasun kognitibo handiko etapa denez, hizkuntza orok balio die, eta horregatik dira hain ohikoak hizkuntza-jauziak. Azken batean, bi urtetik aurrera hizkuntza ikastea eta hitz egitea ez dirudi arazo denik. Agerian geratu denez, horrek ez du esan nahi askotan ama-hizkuntzak, batez ere gaztelania bada, izugarri baldintzatzen ez duenik hezkuntza- eta hizkuntza-ereduak aukeratzean.

Identitatea/k

Ez dago zalantzarik identitate kontzeptuak, mota horretako beste zenbait kontzeptuk bezala (bere baitan alderdi psikosozialak eta sinesmenen eta harremanen sistemekin lotutako alderdi soziokulturalak hartzen dituztenak, eta horien guztien izaera konplexua eta sistemikoa ere aintzat hartuta), ezkutuan gehiago duela aditzera ematen duena baino. Identitate kontzeptua, beste antzeko kontzeptu batzuk bezalaxe, hala nola zoriontasuna, bizikaltatea eta integrazioa, kontzeptu trinkoa izateaz gain, errealitate konplexu batekin du zerikusia, eta errealitate horretan garenaz eta sentitzen dugunaz egiten dugun definizioa antzeko instantzien (norberaren kanpo dauden instantziena) izendatzaile komunetako txikiena da. Kontuan izan behar dugu, halaber, gure pentsamenduek, sinesmenek, harreman-sistemak, bizimoduek, ingurunearekiko harremanak, erakundeetan dugun parte hartzeak eta beste alderdi batzuk gure nortasuna eraikitzen laguntzen dutela. Ez da harrizkoa Velleman⁴ filosofoak, besteak beste, identitateaz honako definizio hau ematea: geure buruari buruz egiteko gai garen koherentzia gutxiko kontakizuna, gure

⁴Velleman, J.D. (2014). *Del yo al yo. Ensayos sobre el ser y la identidad*. Madrid: Editorial Machado.

bizi-ibilbidea laburbiltzen duena. Minimoen definizioa da, baina gainerako definizioek ez bezala adierazten du mota horretako kontzeptuek duten zailtasuna, hain zuzen ere, konplexuak direlako.

Aztergai dugun ikerketari eragiten dion funtsezko gaia da. Izan ere, hezkuntza-alarreko arduradunei eta sei urtetik beherako haurrak dituzten atzerritar jatorriko gurasoei elkarrizketak eginez, haiek adierazitakoaren analisisa egitea du ardatz ikerketak, gure helburuetako bat delako, zehazki, hautematea nola eraikitzen diren nortasun hasiberriaren lehenbiziko kate-mailak. Nortasun hasiberri hori sozializazioko bi eragileren artean tenkatuta dago, eta, askotan, elkarrengandik urrundu egiten dira: batetik, gurasoak, atzerritar jatorrikoak; eta bestetik, locus-a, eskolari eta sozializaziorako eragile gisa duen egitekoari dagokionez, hezkuntzako eragileek, lagunek eta beste batzuk ordezkaturak.

«Irakasleok haurrei islatzen dieguna izango da identitatea eraikitze material guztietan handiena: horregatik da garrantzitsua horren jakitun izatea, eta diseinatzea, jakitun izanik baita ere, zer islatu nahi dugun» (*La construcción de la identidad y la escuela, Barquín*).

Erabat ados gaude Amelia Barquínek⁵ esandako honekin:

«Irakasleok haurrei islatzen dieguna izango da identitatea eraikitze material guztietan handiena: horregatik da garrantzitsua horren jakitun izatea, eta diseinatzea, jakitun izanik baita ere, zer islatu nahi dugun».

Jakin badakigu, bizitzaren etapa honetan –haurtzaroan– hasten direla identitateak eraikitzen, eta modu naturalean eraikitzen direla, kontuan hartuta, batetik, gurasoak, eta bestetik, eskolan, irakasleak batez ere. Horrenbestez, egokia iruditu zaigu zenbait bizipen biltzea atal honetan. Bizipen horiek zerikusia dute, batetik, irakasleek identitatearen osaerarekin lotutako alderdietan duten eraginarekin, eta, bestetik, gurasoek gai honi buruz eta seme-alabek erroak gal ez ditzaten duten nahiari buruz adierazitakoekin.

Zenbait lekukotasun

Aniztasuna, haurren munduak duen ezaugarri naturala. Kontuan izan behar da, beste ezer baino lehen, atzerritar jatorriko gurasoak dituzten haurrak –6 urtera artekoak– Euskadin jaio direla edo jatorriko herrialdeetatik jaio eta berehala etorri zirela, eta, beraz, ikastetxean ikusten eta bizi dutena –aniztasuna– beretzat normala dela. Hala, irakasleek adierazi dutenez, nabaria da txikienek uste dutela, oro har, normalena larruzala beste kolore batekoa edukitzea

⁵Barquín, A. (2009). ¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela. *Educar*, 44, 81-96.

dela, oso bestelako aurpegierakoak izatea, etab., batez ere gehienak atzerritar jatorriko gurasoak dituzten haurrak dauden ikastetxeetan.

«Txikienak ohartzen dira larruazal desberdinetakoak daudela, baina horri ez diote garrantzia ematen, eta haientzat denak desberdinak izateak egiten du garrantzia ez edukitzea desberdina izateak, hori delako normala, haiek ez dute ikusten bat beltza dela, etab. (...), haiek uste dute denak berdinak direla (...).» (B eredu, itunpekoa)

«Txikienak ohartzen dira larruazal desberdinetakoak daudela, baina horri ez diote garrantzia ematen, eta haientzat denak desberdinak izateak egiten du garrantzia ez edukitzea desberdina izateak, hori delako normala, haiek ez dute ikusten bat beltza dela, etab. (...), haiek uste dute denak berdinak direla (...); uda iristen denean niri oreztak, pekak ateratzen zaizkit, eta egun batean, haur bat (afrikar jatorriko gurasoen seme bat) begira geratu zitzaidan eta esan zidan: –a! ni bezala pixka bat...–.» (B eredu, itunpekoa)

Askotariko jatorriak, zenbaitetan, hezkuntza-eragozpentzat hartzen dira, eta ez dira ezinbestean. Neska-mutikoak adin honetan iristen direnean beren jatorriko herrialdeetatik, irakasleek ikasleak prestatzen dituzte haiei harrera egiteko ikasgelan: protagonismoa ematen diete etorriko direnei, argazkia eta izena jartzen dute, nondik datozen azaltzen diete, etab. Beraz, ikaskideak harrera egiteko eta eskolako lehenbiziko egunetatik taldekideak direla sentiarazteko prestatzen dira.

Irakasleek kontatutako egoerek agerian utzi dute zer bizipen eratzen diren lehenbiziko egun horietan familiaren, irakasleen, ikaskideen eta etorri berriaren artean. Esate baterako, txinatar jatorriko gurasoak dituen haur baten (hiru urte) kasua kontatu digute. Berria zen ikastetxean (ikastetxe publikoa, D eredu), eta ikasgelan hitz bakar bat esan gabe eman zituen zenbait aste; gainerako ikaskideek uste zuten ez zuela hitz egiten, eta irakasleak argitzen zien ikaskide berriak beste hizkuntza bat hitz egiten zuela –txinera–, eta tarteka ipuin bat jartzen zien haren hizkuntzan, entzun zezan eta integratuago senti zedin. Egun batean, zerrenda irakurtzen ari zirela, esan zuen: «hemen nago», eta neska-mutiko guztiek pozarren ospatu zuten ikaskideak hitz egin izana; izan ere, uste zuten lehenbizikoz hitz egin zuela:

«Gero, urtarrilean, XXX etorri zen (txinatar jatorrikoa); esan zidaten haur txinatar bat etorriko zela... nolabaiteko egokitzapena egin behar duzu (...) mutikoa ez zen inoiz eskolatuta egon... nik eskola prestatu nuen, harrera, (...) izena, argazkia (...), eta, gero, lehenbiziko egunetan, gurasoekin ordu batzuk adostu nituen, eta ama nirekin egoten zen ikasgelan, ikusi genuen arte (...) zoriontsu ikusten zitzaizela, ikaskideekin oso ongi pasatzen zuela, (...) pozik zeudela. Urtarriletik gaurdaino (...), XXX oso integratuta dago, ondo ikusia dago, berekin jolasean aritu nahi dute... oro har, ondo moldatzen dira, elkarrekin egon nahi dute, lagunagoak dira nahiz eta hizkuntza oraindik (...). Atentzioa ematen zien; izan ere, hasieran ez zuen hitz egiten. Ez du hitz egiten, ez du hitz egiten-eta, esaten zuten haurrek (...). Bai, hitz egiten du, bai, baina txinera (...). Txinerazko ipuinak jartzen genituen, eta, orduan, arreta jartzen zuen, eta gainerakoei nahiz eta arraroa egiten zitzaizkien, ipuinaren hariari jarraitzen zioten, ipuina ezagutzen zutelako; horrela, pixka bat integratuago sentitzen zen. Goiz horretan zerbait ulertu zuen, eta, orain, hasi da hitz batzuk esaten; duela pare bat aste, zerrenda irakurtzen ari ginela, "hemen nago" esan zuen; ikaskideentzat

ikaragarria izan zen, nolabait ere (...). Hitz egiten du! Hitz egiten du!, eta nik esan nien lehen ere hitz egiten zuela, baina beste hizkuntza batean eta ez geniola ulertzen, baina ikasten ari zela; denon artean irakatsiko diogu, bai, bai, jada esaten du eta (...). Eta haiek ere ondo sentitzen dira, ipuin bat kontatzen diote, gauzak esaten dizkiote (D eredu, publikoa)

Integrazioa errazteko eta hizkuntza-aniztasunak eragin ditzakeen erronkei aurre egiteko antidotorik onena laguntzarako eta talde-laguntzako sistemak garatzea da. Irakasleek nabarmendu dute naturaltasunez garatzen direla jada ikasgelan dauden neska-mutikoen eta ikasgelara etorri berriaren arteko integrazio-prozesuak; adierazi dute, halaber, gertutasuna erakusten dutela, eta irakasleak taldeko kide dela sentitzeko egiten dituen keinuak antzeratzen dituztela ikasleek:

«Joan den urtean, XXX neskatxa izan nuen; apirilean etorri zen (ekialdeko herrialde batetik), eta gurasoek ez zekiten ezertxo ere; ikaragarria zen ikasgelako gainerako nesken jarrera: liburutegira joaten ziren ilustrazioak zituzten liburuen bila, eta haren ondoan jarri, eta hitzak adierazten zizkioten, hark errepikatu zitzan; normalean dena ematen dute, adin honetan laguntzeko dena ematen dute... eta lagundu behar denez, denok lagunak garenez, bada, ikasleek ikusten zaituzte, eta haiek ere lagundu nahi izaten dute». (D eredu, publikoa)

Gurasoen garrantzia. Agerian geratu da, halaber, zeinen garrantzitsua den gurasoen egitekoa, ikasle berria ikasgelara (hezkuntza-komunitatera) iristen denean eta lagun egiteko unean. Hala ere, gurasoek ez dute beti egin behar luketena egiten. Batzuetan ez dute egokitzapen-prozesu hori egiten semearekin edo alabarekin, eta horrek ondorio kaltegarrik eragiten ditu pertsona iritsi berrian.

«(...) eta lehenbiziko egunetan, gurasoekin ordu batzuk adostu nituen, eta ama nirekin egoten zen ikasgelan, ikusi genuen arte (...), baina batzuetan ezin izaten da, gurasoek han uzten dizkizute... Edo autobusean uzten dizkizute, eta ikasgelara iristen direnean ez dakite non dauden ere...». (D eredu, publikoa)

Kulturartekotasuna Haur Hezkuntzan. Ikastetxeetan kulturartekotasuneko proiektuak lantzen direnean jabetzen dira neska-mutikoak identitateez. Proiektu horiek Haur Hezkuntzara egokituta daude. Horrenbestez, ikasgelan azaltzen zaie beste kultura batzuk, beste hizkuntza batzuk eta abar daudela, eta familiak ere protagonista bilakatzen ditugu, arro senti daitezen eta normaltasun osoz bizi dezaten egoera. Neska-mutikoek ere normaltasun osoz jarduten dute. Irakasleek adierazi dute ikasleak naturaltasunez aritzen direla ikasgelan.

«Izan ere, kulturartekotasuneko proiekturen bat lantzen hasten garenean eta egoera kokatzen dugunean, hasten dira haiek ere erreparatzen eta beren arteko desberdintasunez jabetzen... baina nik ez dakit zenbateraino ikusten duten beren burua desberdina edo berdina (...) eta esaten ez badiezu, haiek ez dute beren burua desberdintzat hartzen, edo, behintzat, desberdintasunez jabetuko ez balira bezala aritzen dira (...).» (B eredu, itunpekoa)

«(...) *Harrera-plan bat egin genuen, zer urratsi jarraitu adierazita... askoz ere modu naturalagoan egiten da dena (Har Hezkuntzan), ez dago hain araututa. (...) Haur Hezkuntzan dena hartzen da kontuan, eta dena lantzen dugu... Aurten, esate baterako, txinerazko eta arabierazko letra batzuk irakatsi dizkiegu... edo mapa batean herrialdeak kokatzen lagundu diegu: begira, halako ikaslea hemengoa da, hangoa da..., edo gurasoak han jaio ziren baina hemen bizi dira (...)*» (D eredua, publikoa)

Harrera-planaren garrantzia. Izenak berak adierazten duenez, harrera-plan bat edukitze hutsak minimizatu egiten ditu hasierako tirabira-kostuak eta erraztu egiten du ikasgelarako iritsiera, kulturartekotasuneko egoeran; beraz, erabakigarria da etorrerako lehenbiziko faseetan. Harrera-planak errazago egiten du ikasleen eta irakasleen arteko interakzioa, bai eta ikasgelan ikasleen artekoa ere. Horrezaz gain, erabakigarria izaten da etnia- eta hizkuntza-ezaugarri aniztasunaren aurrean jarrera irekia zein den zehazteko.

«*Txikienei egokitutako harrera-plana, "normalean gehiago da Lehen Hezkuntzan, egokitu egiten dugu; egia da hemen jarrera naturalagoa dutela eta haiek berek egiten dutela konturatu gabe, haiei berei irteten zaie. Hala izan zen, esaterako, txinatar jatorriko haurrekin, egokitzea kostu zitzaiena; txinerazko ipuin bat jarri genuen eta bideoa ere bai, eta, bat-batean, denak hasi ziren esaten, bada, bere etxean horrela hitz egiten dute, guk ez dugu ulertzen (...)* Berak badu materiala (Lehen Hezkuntzako irakasleak) propio nazionalitate bakoitzerako, badu powerpoint bat informazioarekin, eta irakasleei ematen die; hala, ikasle enbaxadoreak izendatzen ditugu, eta ikasle enbaxadoreak integratzen du nolabait ere hura ikasgelan. Bost urteko haurrekin egin daitezke halako gauzak, gaur zu zara ikasle enbaxadorea, eta hark lagundu behar dio eta erakutsi behar dio pixka bat ikastola, eta haiek pozarren, bost urterekin jada erakusten... Beraz, planeko zenbait gauza egiten ditugu (...); duela bi urte diseinatu zen harrera-plan hori eta pixka bat moldatzen dugu txikienekin egiteko, baina hiru urteko haurrekin zailagoa da; beno, beren artean, esan egiten diezu, erakutsi egiten diezu, non dago zure txokoa? Adibidez, YYY-k XXX-ri deitzen zion esateko hemen gaude, eta ikusten zuten XXX harekin identifikatzen zela eta beregana joaten zela... Ikusten dute han zaudela eta hori ez dela zure tokia (...), etorri hona» (D eredua, publikoa)

Beste behin ere adierazi dute hezkuntza-etapa honen berezitasuna: identitateek muga lausoak dituzte eta aniztasuna modu naturalean bizi dute. Gaineratu dute desberdintasunak Lehen Hezkuntzatik aurrera egiten direla ageriko nabarmen, eta familian entzuten dutena ere garrantzitsua izaten hasten dela.

«*Beren artean (haurren artean) ez dago inolako desberdintasunik, izan hamaika edo izan hogeia (...), batere ez, Haur Hezkuntzan ez baitago halako lehiarik (...)* Zu halako hori zara... edo larruazalaren kolorea, ez (...) Bada, beltzaranagoa da, larruazala beltzarana du, bada, bai (...), larruazala beltzarana du (...), baina ez dute malezia hori, gero hazten direnean daukatena (noiz ikusten dira ñabardura horiek?). Bost urteko gelan baten batzuek jada badute, (hautematen dira) pixka bat... Gertatzen dena da, bada, begira, hemen jolasean aritzen gara ikasleekin, hemen desberdina da..., hemen arreta beste modu batekoa da, Lehen Hezkuntzan ez bezala. Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailan jada sortzen dira lehenbiziko arazoak, hemen badirudi asko lantzen dugula, lurrean eserita daude denak batera, fitxak egiteko

mahaiak dituzte, baina jolasean ikusten dituzu, nahi duten lekura joaten dira... baina ez dago... Bost urteko gelan, hirugarren hiruilekoan zerbait hauteman daiteke, zerbait ikusten hasten da..., gutxi... » (A eredu, publikoa)

«Konturatzen dira, jada, batek (txinatarrak) begiak luzexkak dituela, bestea zergatik den beltzaranagoa (...) eta aurpegiera (...). Eta, beno, etxean entzuten dutenaren baitan ere badago, eta hori beste arazo bat da, baina tira (...).» (A eredu, publikoa)

Familia-adskripzioetik eratorritako kultura-aniztasuna kudeatu behar da, ingurune komun bat eraikitzeko. Neska-mutikoek ere ikasten dituzte kultura-portaerak, bai euskal gizartearenak eta bai jatorriko familiarenak. Horren adibide da, esate baterako, guraso musulmanak dituzten neska-mutikoak; izan ere, ikasgelako gainerako ikaskideekin jangelan bazkaltzen geratzen hasten direnean, beretzat propio menu bat dutela ikusten dute. Hasieran ez dute ulertzen zergatik ezin duten jan gainerako ikaskideek jaten dutena, eta gainerakoek jaten ari direna jatea hautatzen dute. Gero, pixkanaka-pixkanaka azaltzen zaie, eta ohartzen hasten dira; baina, hasieran, ez dute ulertzen.

«(...) Beren ohiturak, jangelan beste janari-mota bat dute, beren arropa propioak jantzen dituzte... Guk neskato musulman bat dugu (...) hiru urteko gelan (...). Oso ondo jaten du —oso jatuna da—; janari musulmana jartzen zioten, oso zorrotz, eta ez zuen nahi... nik uste dut nahiko errotuta daudela (jan-kontuan). Azkenean jartzen dira, haiek ez dute nahi, baina gurasoek hori irakasten diete, hala nola janariaren kontuan. Haurrei ez zaie boteprontoan bururatzen, batez ere janariaren gaian (...), zeren jolasean, hartu-emanetan ez dago inolako arazorik haurrekin, primeran integratzen dira, bai eta hizkuntzan ere (euskara), gainerakoek baino lehenago ikasten dute, beharra dutelako, komunikatzeko premia dute, eta komunikatzeko, batez ere gurekin, euskaraz egin behar dute (...). Gurasoek lan-arloan hasi behar dutenez eta arlo sozialean parte hartu behar dutenez, etxean batak jatorriko hizkuntzan hitz egiten du, eta besteak, gaztelaniaz (...). Txikienek segituan asimilatzen dute euskara (...), eta gainerakoen pareko jartzen dira hezkuntza-ibilbidean.» (D eredu, publikoa)

Aurreko kontaketa, guraso musulmanak dituen haurrari buruzkoan, ikasgelan integratzen da ikaskideekin, bai jolasetan eta bai hartu-emanetan, eta euskaraz gainerako ikaskideak baino hobeto moldatzen da, baina, aldi berean, gurasoen jatorriko herrialdeko kulturaren kultura-portaerak ere gogoan ditu; portaera horiek, hasieran, ez ditu ulertzen eta ez ditu gustuko, baina gurasoek alabak edukitzea nahi duten identitatearen parte ere badira. Eta, halako kasuetan, irakasleek nola edo hala moldatu behar dute esleituta duen menua jan dezan neskatoak.

Atzerritar jatorriko gurasoak dituzten neska-mutikoak bizi diren tokikoak, herrikoak, auzokoak sentitzen dira. Eta desberdintasunak bertako herritarren ez bezalako ezaugarri fisikoek markatzen dituzte, familia zer jatorritakoa den adierazten baitute. Seme-alaben integrazioa (euskal gizartean) kudeatzen nola laguntzen duten kontatu digute atzerritar jatorriko familiek. Beltzak izatearen, jatorriko herrialdeko kultura edukitzearen eta jatorriko herrialdearen alde onak adierazten dizkiete, harro senti daitezen eta hemengoak ez direla esaten dietenean gaizki senti ez daitezen.

«Esaten duten lehenbiziko gauza zera da: ni (bizi den udalerraren izena) udalerrikoa naiz» (aita/ama Nikaragua)

«Ongi sentitzen dira, zeren lehen alabari esaten ziotenean... 'a! zu beltza zara'... Nik esaten nion, bada, bai, jakina, zu afrikarra zara, eta zer... Zure ama afrikarra da eta aita ere bai, eta horregatik ez da ezer gertatzen... Zure koloreaz harro egon behar duzu, ..., hemen jaio gara (...). Gaizki ez sentitzeko esaten diet hori, hemen jaio gara, zer axola du, ez da nire errua (...), eta hangoak ere bagara, handik irten garelako (...). Eta nik galdetzen diet, igaro al dute nire 'beltzek' eskolan nire banda beltza? (...). Hemen jaio gara, zer axola du» (aita/ama, Kongo)

«Nik esan diot nire nazionalitatea nigeriarra dela, eta, beraz, zu ere nigeriarra zara». (aita/ama, Nigeria)

Laburbilduz

Atal honetan bildu ditugun kontakizunek atzerritar jatorriko neska-mutikoen identitatearen egoeraren nondik-norakoak erakusten dizkigute. Agerian geratu da identitatea bi indarren arteko lasterketa dela: batetik, zer jatorritakoak diren gogoan izan dezaten familiek baliatzen duten eragina; eta bestetik, helmugako gizartearen eragin kulturalak, gure kasuan tokiko kulturarenak. Lekukotasunek agerian utzi dute, hala ere, neska-mutikoen per se dutela oso bestelako eraginak modu harmoniatsuan integratzeko joera, eta eragin handien duen faktorea (familiarra edo soziala) dela, antza, noranzko batean edo bestean irabaztearen eragilea.

Horrenbestez, oreka harmoniatsu hori lortzeko gakoetako bat zera da: aldi berean sustatzea, batetik, familiaren jatorriaz harro egoteko sentimendua eta egoera berri batean etorkizuna lantzeko egindako ahaleginaren sentimendua, horrela

Erronka nagusietako bat da lortzea dagoeneko euskal gizartearen parte direla sentitzea, bai orain eta bai hezkuntza-sistema uzten dutenean.

bakarrik sentitu ahal izango baitu neskak edo mutikoak ingurukoek maite eta balioesten dutela, eta bestetik, adorea ematea eta laguntzea ikaskideekiko integrazio-prozesuan, euskal gizartearen maitatuak senti daitezen.

Ez da harritzekoa, beraz, elkarrizketatutako adituek eta irakasleek adierazi izana erronka nagusietako bat dela lortzea dagoeneko euskal gizartearen parte direla sentitzea, bai orain eta bai hezkuntza-sistema uzten dutenean. Hain zuzen, hori ari dira lantzen ikastetxeetan. Eta gehitu dute hori egia bihurtzeko, normaltasuna eman behar zaiela gertuko inguruneei:

“(Nongoa zaren galderari buruz) berak beti galdetu izan dit, ama, zu, Afrikakoa? Eta ni? (Amaren erantzuna) Zu, Afrikakoa; (haurraren erantzuna: ez, ama, oker zaude; ez, ama, ni hemen jaio naiz, zu ez). (Ama nigeriar jatorrikoa) Ez du axola zenbat urte daramatzazun hemen bizitzen, ni Afrikan jaio naiz” (aita/ama, Nigeria)

Eskola-errendimendua eta etorkizuneko erronkak

Sei urtera arteko neska-mutikoen eskola-errendimenduz hitz egiteko, ezinbestean aipatu behar dugu Indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), PISAk ESCS (ingelesez, *Economic, Social and Cultural Status*) esaten dio. Adierazle konplexua da, eta ikaslearen egoera soziala eta familiarra laburbiltzen du; adierazle horrek, zehazki, faktore hauek hartzen ditu kontuan: gurasoen ikasketa-maila eta lanbideak, etxeko baliabide materialak eta irakurzaletasuna.

Ez da arraroa, hortaz, adituek hezkuntza-etapa honetako eskola-errendimenduz hitz egitean, beren diskurtsoan ezer baino lehen aipatzea ISEK indizean zer maila duten, neska-mutikoak ikastetxera iristean zer estimulazio-maila duten eta bilakaera zer-nolakoa den.

ISEK indizeari dagokionez, ohikoa izaten da indize baxua jatorriarekin lotzea, hain zuzen, etorkina izatearekin, aldagai hori *per se* izango balitz bezala eskola-errendimendu txikiaren sinonimo, eta, hala, ezkutuan utzita aldagai horrek duen lotura bai pobreziaarekin eta bai familien baliabidegabeziarekin. Horregatik guztiagatik iruditu zaigu egokia berritzeguneetako⁶ arduradunen iritzi batzuk hemen jasotzea. Familia etorkinen jatorriaren eta ISEK indizearen arteko loturari dagokionez, elkarrizketatutako zenbait adituk honako hau esan dute:

*«Etorkinak izatea ez da arazoaren iturburu, baizik eta haien egoera prekarioa»
(Berritzegune, Bilbo)*

Zenbait lekukotasun

Haur Hezkuntzan, atzerriko ikasleek, atzerritar jatorrikoek eta/edo atzerritar jatorriko gurasoak dituzten ikasleek egoera prekarioagoa dute bertako ikasleek, euskal jatorrikoek edo euskal jatorriko gurasoak dituzten ikasleek baino. Pentsatzen dugu atzerritar jatorriko gurasoak dituzten neska-mutikoak, oro har, 'haurtxoago' hasten direla ikastetxean, euskal jatorriko gurasoak dituzten neska-mutikoak baino. Nolanahi ere, behin ikastetxean daudela, ikasgelako gainerako neska-mutikoek bezala eta erritmo berean ikasten dute, eta beren artean desberdintasunik badago jatorria ez den beste faktore batzuek eragiten dute, hala nola familien ISEK indizeak, eta ez gurasoen jatorriko herrialdeak. Beraz, ikasgela berean elkarrekin egon daitezke ISEK indizea oso baxua duten familien neska-mutikoak, eta horiek estimulazio-arazoak dituzte eskolan

Beren artean desberdintasunik badago jatorria ez den beste faktore batzuek eragiten dute, hala nola familien ISEK indizeak, eta ez gurasoen jatorriko herrialdeak.

⁶Berritzeguneak ikastetxeei eta irakasleei aholkuak ematen dieten erakundeak dira, eta hori dute eginkizun nagusia, hezkuntza-baliabide gehiago eta hobeak izan ditzaten, eta, hala, sistema eraginkorragoa izan dadin.

hastean edo 'bizkarrean' ez daramate ezer, eta oso bestelako egoeran dauden neska-mutikoak.

«Nik ez dut ikusten oso estimulatuta daudenik (...), lan egiten duten familiak dira, arazoak dituzte (...), baina, nolana ere, hasieran bai, alde handiak ikusten ditut, baina, gero, haiekin lantzen hasten naiz, araez asko hitz egiten diet, arauak zeinen garrantzitsuak diren azaltzen diet (...), eta ikusten dut, gero, behin eskolan hasten direnean, parekatu egiten direla; bai, hala da, zeren Lehen Hezkuntzan hasten direnean ez dut hainbesteko aldea sumatzen (B eredu, itunpekoa)

Motibazio eta estimulazio handiagoa dute anai-arreba zaharragoak edo bi urteko gelan egon diren anai-arrebak dituzten neska-mutikoek

Horrezaz gain, motibazio eta estimulazio handiagoa dute anai-arreba zaharragoak edo bi urteko gelan egon diren anai-arrebak dituzten neska-mutikoek. Ikastetxean anai-arreba zaharragoak edukitzea nahiko mesedegarria izaten da gazteagoentzat, gazteenaren sozializazioa edo birsozializazioa errazten baitu. Arazoa seme-alaba bakarrak direnekin izan ohi da, sozializazio-prozesua gurasoen gain bakarrik geratzen delako, eta gurasoek, zenbait arrazoi tarteko, askoz ere zailtasun handiagoa dute hizkuntzaz aldatzeko edo helmugako gizartera egokitzeko, eta ez hori bakarrik, askotan, bizi duten egoera prekariora dela-eta, lanaldi luzeak egitea baino beste irtenbiderik ez dute, eta denbora gutxiago dute seme-alabei eskaintzeko.

«Arazoa seme-alaba bakarrak direnean edo zaharrenak direnean izaten da, eta bai, horiek izaten dute hizkuntza-arazoa; izan ere, etxean txinera hitz egiten dute edo arabiera hitz egiten dute, (...) ama 12:30ean edo 16:00etan etortzen zaio bila, eta komunikazioa ama-hizkuntzan izaten da» (A eredu, publikoa)

«Neskato bat bi urteko gela batetik zetorren, eta, beraz, motibatuago zetorren; eta gainerakoak, bada, batzuek ez zekiten gaztelania, eta pixkanaka-pixkanaka hitzak ikasi dituzte, eta, orain, ia denek hitz egiten dute eta oso ondo ulertzen zaie. Gehienek Haur Hezkuntzan egon diren anai-arreba zaharragoak dituzte (...) eta horrek estimulatuago egoten laguntzen die» (A eredu, publikoa)

«Nik izan ditudanako oso pertsona argiak dira, hona etorri dira, lan prekariora bat dute edo ez dute lanik (...), baina hitz egitean nabari zaie ulertzen dizutela, interakzioa badago... Nik gurasoekin asko hitz egiten dut» (B eredu, itunpekoa)

Aztergai dugun adinean izan ditzaketen arazoaren artean bat izaten da, zenbait kasutan, ordutegiarena eta arauak betetzearena, eta horrek zerikusi handiagoa du familien funtzionamenduarekin familien jatorriarekin baino. Izan ere, egindako elkarrizketetatik ondorioztatu dugu halako arazoak egon badirela, eta neurri handiagoan ijito-etniako familiekin.

«Atzerritarra, bertakoa edo dena delakoa izanda ere, familien funtzionamenduaren baitan dago» (D eredu, publikoa: 2)

«Ijito-etniako familiak. Absentismoa handia da (...). Baina familia-motaren araberakoa ere bada; batzuk egituratuago daude, ikasgelara ekartzen dituzte, errespetutsuagoak dira ordutegiekiko, araukiko, denekiko (...). Esate baterako,

bi urteko geletan, haurrak gutxitan etortzen dira, apenas etortzen dira urte osoan, hiru urterekin eskolatzen dituzte, eta hala eta guztiz ere, noizean behin baino ez dituzte ekartzen, batzuetan goizetan bakarrik (...). Beno, esan dudanez, denetarik dago: familia batzuek oso ondo funtzionatzen dute, eta beste batzuek (...); badira jangelako orduan bakarrik ekartzen dituztenak, eta hori guztia araututa eduki behar dugu» (D eredua, publikoa: 2)

Seme-alaben hezkuntzarekiko portaeran alde handiak daude familien artean. Familia batzuek koska ahala kosta nahi dute seme-alabek haiek izan ez zituzten aukerak izatea. Familia horiek, beraz, tokiko arau eta portaerekiko onarpen-maila handia erakusten dute. Beste familia batzuek, ordea, ez dituzte arauak hainbeste betetzen. Eta familia horien kasuan da bereziki zaila eskolako gomendioak familienekin uztartzea. Horren harira, hona hemen zenbait arduradunek adierazitakoa:

«Lehenbizikoz eskolatzen dituzte, nahiz eta baten bat haurtzaindegian egon den, baina horiek oso gutxi dira. (...) Nik izugarri nabari dut haurren estimulazioa, (...) haurren artean aldea nabarmena da, non egon diren, zer jatorritakoak diren (...). Hegoamerikarrek laguntzen diete haurrei, baina ez dituzte estimulatzen, haurrak oso 'berde' etortzen dira (...) eta nekezago ere egiten zait. Afrikarrak, ordea, azken urteotako esperientzian oinarrituta, askoz ere arduratsuagoak dira, azalpenak eman, eta ez badute ulertzen, berehala galdetzen dizute, oso erne daude beti, gauza guztiekin. (...). Gehienak Nigeriakoak dira (...)» (B eredua, itunpekoa)

Adituek Haur Hezkuntzak berezko dituen ezaugarrietako batzuk azaldu dituzte: etapa honetan, sei urtera artekoan, neska-mutikoen bilakaera-prozesuaren ezaugarri da, besteak beste, oso bestelako ikaskuntza-eritmoak edukitzea, eta garrantzi berezia ematea garapen motorrari eta psikikoari.

Zenbait adituk azpimarratu dute, halaber, hezkuntza-etapa horretan berebiziko garrantzia duela prebentzioak eta *haurren garapenari hurbileko jarraipena egiteak*. Horretarako zenbait tresna ezartzen ari direla azaldu digute, hala nola *Garapen motorra eta psikikoa baloratzeko gida*, eta helburua dela *hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak eska ditzaketen garapen-arazo posibleak garaiz hautematea*. Garaiz hautematea lortuz gero, laguntza eraginkorragoa izateaz gain, Lehen Hezkuntzan eta ondorengoetan gastua ez areagotzea lortuko da. Horrenbestez, gabeziak garaiz hautematen badira, Lehen Hezkuntzara iristerako arazoa handiagoa edo larriagoa ez izatea lortuko dugu, etapa horretan hasten baitira hurrekin lanean teknikari adituak (logopedak, psikologoak, etab.)

«Haurrak estimulatzeako funtsezko etapa da, baina derrigorrekoa ez denez, Lehen Hezkuntzara iristen ez diren arte erraz ematen dute amore. Lehen Hezkuntzan jartzen dira bitartekoak, baina aurea hartuz gero, gutxiago gastatuko litzateke baliabideetan» (Berritzegune, Bilbo)

Jarduera osagarriak oso tresna bikainak dira haurrak integratzeko, izan haurrak etorkinak, izan atzerriko jatorrikoak edo izan atzeritar jatorriko gurasoak dituzten haurrak. Ikastetxeek jarduera osagarriak bultzatzea erabakigarria

izan ohi da atzerritar jatorriko gurasoak dituzten haurren integrazio- eta inklusiorako programa eraginkorrak garatzeko, edozein dela jardueraren mota (izan hezigarriak edo izan beste esparru batzuk lantzekoak, hala nola jolasa, kirola edo dibertimendua). Ikastetxe batzuetako irakasleek estimulazioa sustatzeko zer jardueraren egiten dituzten ere azaldu digute.

«Zenbait kasutan, familiak oso gizarte-klase apalekoak dira. Hartu-eman handia dugu oinarrizko gizarte-zerbitzu-erakundeekin. Ikastetxeak eskolaz kanpoko ekintzak eskaintzen ditu: psikomotrizitate Haur Hezkuntzan, askotariko kirolak Lehen Hezkuntzan, eta saskibaloia Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arte. Helburua autoestimua sendotzea eta integratzeko modu bat eskaintzea da» (A eredu, publikoa)

Kolektibo horien integrazio-arazoak eta segregazioa azpimarratzen duten diskurtsoen aurka, familiek ikastetxeen garrantzia azpimarratu dute, seme-alaben bidez integratzeko mekanismo pribilegiatutzat hartzen baitituzte.

Familiak ikastetxeen garrantzia azpimarratu dute, seme-alaben bidez integratzeko mekanismo pribilegiatutzat hartzen baitituzte.

Eskola-errendimenduari eta seme-alabentzat nahi dutenari buruzko oso oinarrizko gaiak aipatu dituzte familiek. Oro har, oso funtsezko gaiak dira, oso garrantzitsuak eta oso oinarrizkoak, euskal jatorriko familiek aipatuko lituzketen gaien antzekoak: seme-alabak osasunez ongi egotea, eskolara pozik joatea, irakaslearekin gustura egotea, eta, jakina, ikaskideekin ondo moldatzea. Behin premia horiek ziurtatuta, eskolako kontuekin zerikusia duen oro ere balioesten dute: zer ikasten duten, euskara, etab. Eskolako gaiak gehiagotan aipatu dituzte Haur Hezkuntzan seme-alabak izateaz gain, goragoko etapetan ere dituzten familiek.

Seme-alaben etorkizunari eta asmoari buruz galdetutakoan, familia guztiek adierazi dute, oro har, haien etorkizun hobea nahi dutela, eta ondo integratzea eta pertsona onak izatea nahi luketela. Eta asmo akademikoek dagokienez, oso bestelako adierazpenak egin dituzte. Batetik, asko eskatzen ez duten familiak daude, kontentatzen direnak etorkizunean lan-merkatuan sartu ahal izateko adina ikasita seme-alabek. Eta bestetik, elkarrizketatutako familien artean badira asmo handiak dituztenak eta beren esku dagoen guztia egiten dutenak seme-alabek prestakuntza ona izan dezaten orain eta etorkizunean, ikastetxean giro ona izan dezaten, eta, jakina, ahalik eta aukera onenak izan ditzaten ikasketetan emaitza onak lortu ahal izateko, gerora unibertsitatean karrera bat egin dezaten.

«Seme-alabek ikasten badute, etorkizun hobea izango dute hemen» (aita/ama, Moldavia)

«Zoriontsuak izatea nahi dut (...), ikastea eta ekintzaileak izatea» (aita/ama, Mexiko)

«Haiengatik edozer egingo dut (...) ni iritsi ez naizeneraino iristea nahi dut, eta hori gaitzatea» (aita/ama, Kongo)

«Nire semea bere buruaren jabe izan dadin, aske izan dadin etorri naiz ni hona» (aita/ama, Venezuela)

Irakasleei kezka handia eragiten die derrigorreko hezkuntza amaitutakoan gizartean ongi integra daitezen lortzeak. Hezitzaileei eta profesionaleri egindako elkarrizketetan egiaztatu ahal izan dugu kezkatuta daudela gero eta anitzagoa den giro honetan bizikidetzaren erraztuko dien giro atseginak lortzeaz. Etorkizunari buruzko asmoen diskurtsoetan irakasleek adierazi dute familiei kezka eragiten diela, batez ere, seme-alabak tokiko bizimodura eta bizimoldera ongi egokitzeak.

«Haiek esaten dizute (gurasoek): 'ni hona etorri naiz, ahalegin handia egiten ari naiz eta nire esku dagoen guztia egingo dut nire semea hona moldatzeko eta hark hemen zerbait lortzeko'. (...) Behin esan zidan: 'nik ez dut nahi semea medikua izatea, pertsona ona izatea eta bere kabuz bizi ahal izatea baino ez dut nahi, hori bakarrik nahi dut'. (...) Hor ikusten dira balioak (...)» (B eredu, itunpekoa)

«Familia askoren kezka ere bada seme-alabek euskara ikastea, hemen ondo moldatzeko... kezkatuta daude, bai (...) eta galdetzen dute, baina, zuk beti euskaraz egiten diezu? (...). Eta, nire semeak ikasiko du?, bai, lasai egon, erantzuten diet (...). Eta hori kezka eragiten dien gauza bat da» (B eredu, itunpekoa)

Irakasleei kezka handia eragiten die derrigorreko hezkuntza amaitutakoan gizartean ongi integra daitezen lortzeak.

Familientzako prestakuntza-ikastaro osagarrien garrantzia. Elkarrizketatu ditugun familietako batzuk prestakuntza jasotzen jarraitzen dute Euskadin, bai laneratzea xede duten prestakuntza-ikastaroen bidez, bai hizkuntza (gaztelania, euskara) ikasteko eta hobetzeko ikastaroen bidez. Prestakuntza-ikastaro horiei esker, ikasteaz gain, gizarte-sareak osatzen dituzte, eta horiek berebiziko garrantzia izaten dute integrazio-prozesuan, gaur egun dituzten lagunetako batzuk ikastaro horietan ezagutu baitituzte.

«Unibertsitate-mailako ikasketak ditugu, nire senarrak eskolak ematen zituen unibertsitatean eta ni irakaslea naiz. Egun, antenak instalatzen egiten du lan, eta nik familia batean, haurrak eta adineko pertsona bat zaintzen. Orain, irakasle-tituluaren homologazioa izapidetzen ari naiz, eta master bat egiteko eta irakasle izateko asmoa dut» (aita/ama, Venezuela)

Laburbilduz

Eskola-errendimenduari buruz bildu ditugun kontakizunek egoera jakin baten nondik-norakoak erakutsi dizkigute, eta egoera horretan ezinbestean hartu behar dira kontuan aztergai dugun adin-tartekoaren berezko premiak, eta, horrenbestez, haien gurasoenak. Premia bereziak dira, zerikusia dutenak une berezi batekin, eta une horretan bata bestearen ondoko problematikek bat egiten dute. Hau da, hezkuntzaren alorrean hasteak berekin dakartzan arazoez gain, askotariko gaiengatik gurasoekin zerikusia duten beste faktore batzuek (hizkuntza-gabeziak, lan prekarioak, tokiko gizarte-sarean harremanik ez izatea...) eragindako arazoak dituzte.

Gakoetako bat zera da: neska-mutikoak Lehen Hezkuntzara ahalik eta modurik hoberenean irits daitezten lortzea, eta, horretarako, baliabide gehiago eta hobeak jartzea hezkuntza-sistemaren esku, nahiz eta derrigorreko etapa ez izan.

Aztergai dugun kolektiboan, beste gai nagusietako bat etapa honetan ezinbestean egin beharreko estimulazio-prozesua da. Lehen adierazi dugunez, haurren estimulazioa funtsezkoa da Haur Hezkuntzan, eta horrek familia-ingurunean eta ikastetxean esku-hartzea eskatzen du. Desberdintasunak, askotan, familien ISEK indizeak eragiten ditu, eta familiek izan ditzaketan gabezia guztiak lantzeko gune gisa funtzionatzen du hezkuntzak, ikasle guztien maila berdintzeko eta lortu nahi den hezkuntza-maila lortzeko. Horrenbestez, gakoetako bat zera da: neska-mutikoak Lehen Hezkuntzara ahalik eta modurik hoberenean irits daitezten lortzea, eta, horretarako, baliabide gehiago eta hobeak jartzea hezkuntza-sistemaren esku, nahiz eta derrigorreko etapa ez izan. Horrezaz gain, familien inplikazioa ere ezinbestekoa da, eskola-errendimendua hobetzeko gakoetako bat den aldetik, eta, batez ere, oinarriko sozializatorako beharrezko diren arauak tarteko badira, hala nola asistentzia, ikasgelan egoteko moduak eta beste batzuk.

Oinarriak sendotzean datza, EAEko hezkuntza-sistemak bete dezaten dagokion funtzio berdintzailea, eta gizarte- eskalan gora egin ahal izan dezaten belaunaldiz belaunaldi.

Azken batean, zertan datza Haur Hezkuntza? Bada, oinarriak ondo jartzean, Haur Hezkuntzan egiten den oro hamabost urte betetzen dituzten arte baliagarria egin dakien lortzeko, eta, hartara, adin horretatik aurrera bertako gisa integratzeko, euskal jatorria duten haurrekin berdintasunean, eta, beraz, gizarte-bazterketa zantzu orotik aldentzeko. Oinarriak sendotzean datza, EAEko hezkuntza-sistemak bete dezaten dagokion funtzio berdintzailea, eta gizarte- eskalan gora egin ahal izan dezaten belaunaldiz belaunaldi.

«Asko kezkatzen nau haur hauek getotan geratzeak, ez lortzeak benetan egokitzea, ez lortzeak nik hamabost urte nituenean nintzen bezalakoa izatea. Bada, adibidez, ni beltza naizenez eta San Frantziskon hazi naizenez, edo latinoan naizenez, banda batean geratuko naiz. Halako gauzen beldur naiz, ez lortzea benetan egokitzea, hori askotan pentsatu izan dut (...). Ardi galduak beti daude; iaz izan nuen haur bat bezala, aita Boliviatik etorri zen eta ama hemengoan da, eta horrek bai, horrek lortu du egokitzea» (B eredua, itunpekoa)

Harremanetarako eremuak

Haurren eta haien familien harremanetarako eta interakziorako eremuei buruzko atala jorratzean, haien bizitza soziala egituratzen duten ohiko bi eremu hartu ditugu kontuan: ikastetxeak, eskolako sarreretan eta irteeretan, batez ere; eta parke publikoak, garrantzi berezia dutelako aisialdiari lotuta duten funtzioagatik, parkeetan gertatzen baitira adin horretako haurren kanpoko ekintza gehienak.

Jakina denez, ikastetxeak eta parke publikoak dira haurrak sozializatzeko ekipamendu publiko garrantzitsuenak. Asko idatzi da horri buruz; izan ere, gaur egun nagusitu diren joerak direla eta, nabarmen gutxitu dira haurren artean berdinen arteko jolasak, galdu egin baitute, neurri handi batean, garai batean jolas horiek ikasteko eta sozializatzeko tresna gisa zuten garrantzia. Galera hori nabarmenagoa egin da, beharbada, teknologia digitalak hedatzearekin eta teknologia horiek bideo-jokoen eta ohiko plataforma digitalen bidez duten eragina areagotzearekin batera. Hala ere, gure iritziz, oraindik indarrean jarraitzen dute adin talde horiei buruz Cooley, Mead eta beste aditu batzuek zituzten intuizioek. Egile horien arabera, identitatearen eraikuntza interakzio-prozesu bat da, eta *besteek* funtsezko zeregina dute prozesu horretan; horrez gain, jolasa da (letra larriz) elkarreragin edo interakzio horretarako tresna edo bide pribilegiatua. *Ispilu-nortasuna*⁷ identitatea eraikitzeke mekanismo ahaltsua da, gure sinesmen pertsonalen sistema guztia eta gure jokatzeko modua *besteak* (ispilua) gutaz duen ikuspegiari buruzko kontzientzia hartu izanak baldintzatuta baitago, eta horrek munduan dugun lekuari buruzko irudi pertsonal bat eraikitzen laguntzen digu.

Espazioaren edo eremuaren ikuspegitik, hori da berdinen arteko jolasen eragin izugarria justifikatzen duen arrazoietakoa bat, espazio publikoa izanik jolas horien *locus* pribilegiatua. Jolaslekuen analisia erabakigarria da hasierako urteetan haurrek izaten dituzten harremanak eta interakzioak ezagutzeko, bai eta, harreman horien ondorioz, haur horien gurasoen artean sortzen diren harremanak ezagutzeko ere. Horrenbestez, gure ikerketan bi espazio edo eremu jakini erreparatu diegu: ikastetxeko jolastokiei eta haur-parkeei.

Atal hau garatzeko erabilitako metodologia, bestalde, behaketa zuzen ez-partehartzailea izan da, hala eskola-ingurunean (ikastetxeko jolastokiak), nola aisialdi-eremuetan (parke publikoak). Helburua irakasleekin eta gurasoekin egindako elkarrizketetan jasotako informazioa osatzea eta indartzea izan da. Protagonista nagusiak gurasoak eta haien arteko harremanak izan dira, alde batetik, eta haurrak eta haur horiek aisialdi-eremu horietan interakziorako edo elkarri eragiteko duten modua, bestetik.

Jolaslekuen analisia erabakigarria da hasierako urteetan haurrek izaten dituzten harremanak eta interakzioak ezagutzeko, bai eta, harreman horien ondorioz, haur horien gurasoen artean sortzen diren harremanak ezagutzeko ere.

⁷Cooley, C. H. (2005). El yo espejo. *CIC. Cuadernos de Información y Comunicación*, (10), 13-26.

Ikastetxeetako sarrera-irteerak

Ikastetxeetako sarrera-irteerak, hasteko, gurasoek ikastetxeetan modu informalean parte hartzeko lekuak dira (esate baterako, irakasleekin hitz egiten dutenean); horrez gain, familien eta haien seme-alaben arteko eguneroko interakzioak neurtzeko lekuak ere badira. Ikastetxeko sarrera-irteeretan, eskolara iristearekin lotutako alderdiak hartu ditugu kontuan: iristeko ordua (ordua baino lehenago, puntualtasunez edo ordua baino geroago); nola iritsi diren (oinez, garraio pribatuan, garraio publikoan...); non uzten dituzten gurasoek beren seme-alabak (ikastetxearen sarreran, ikasgelan, etab.); norekin iristen diren ikasleak (gurasoekin bakarrik, haur gehiagorekin, guraso gehiagorekin); zer harreman duten haurrek ikaskideekin; zer harreman dituzten irakasleekin, beste guraso batzuekin, etab.

Ikastetxera iristeko ordua aldatu egin daiteke eskolaren arabera, baina goizeko bederatzietan izan ohi da, oro har. Gehienak ordurako heltzen dira, eta oso gutxi dira bost edo hamar minutu geroago iristen diren pertsonak. Oro har, adin horietan haurrak haur-kotxeetan, gurasoen besoetan edo oinez iristen dira ikastetxera; oinez joaten direnean, gurasoek lagundu ohi diete. Dena dela, eskolako autobus-zerbitzua duten ikastetxeak ere badaude; horrenbestez, zenbait haur autobusez iristen dira beren irakasle edo hezitzaileekin, baina gutxienak izaten dira.

Haurren arteko elkarreraginari edo interakzioari dagokionez, goizeko lehen orduetan urri samarra izaten da, eta ikastetxera iristen ari diren bitartean gertatzen da, batez ere. Une horretan, haurrek harreman gutxiago izaten dute elkarrekin eguneko beste ordu batzuetan baino: erdi lo egoten dira, gurasoen eskutik edo besoetan iristen dira eta guztiak joaten dira sarrerara. Haien arteko interakzioa gurasoek tutorearekin uzten dituzten unean hasten da. Une horretan gehien errepikatzen den gurasoen arteko interakzioa agurra izaten da; ez da solasaldi luzerik egiten, ez eta taldetxorik eratzen ere. Gurasoen eta haurren tutoreen artean gertatzen dira harremanak sarrien. Azken xehetasunei buruz hitz egiteko aprobeztatzen dute, ikasgelan utzi aurretik: nola igaro duten gaua haurrek, ondo al dauden, etab.

Haurrak uzteko lekua aldatu egin ohi da ikastetxearen arabera. Hala, ikastetxe batzuetan, ikasgelara zuzenean sartzen uzten dute; beste batzuetan, berriz, sarreran edo inguruko korridoreetan uzten dituzte haurrak. Jasotako lekukotasunetan ikusten den bezala, gurasoak une oro daude harremanetan dagokion ikastetxeko pertsona arduradunarekin:

«Eguneroko kontuak dira, batez ere: gau txarra igaro du; ez tul egin du; gaixo badago, deitu ...» (A eredu, publikoa)

«Ikasgela barruraino sartzen dira, eta galdetu egiten diegu: batek kaka egin berri duela eta aldatu egin behar dugula; beste bati komunera lagundu behar zaiola

txiza egitera edo beste zerbait egitera [...]Gertatu zaienaren azken xehetasunak izaten dira, haurren egoera une batetik bestera aldatzen da eta [...]Jeta guztiak iritsi direnean, gora igotzen dira (hiru urtekoak), eta bi urtekoak behean geratzen dira» (D eredua, publikoa: 2)

Gurasoen arteko interakzioa, pentsa daitekeen bezala, bakoitzak duen denboraren arabera izaten da; eta, jakina, ez da oso luzea izaten, eguneko lehen orduan, batez ere. Alabaina, gurasoen eta irakasleen arteko nolabaiteko interakzioa edo elkarreragina badagoela egiaztatu da, irakasleei nahiz familiei egindako elkarrizketetan adierazi duten moduan; dena dela, harreman hori areagotu egiten da irteeretan. Beraz, seme-alabak ikastetxean utzi eta irakasleak agurtu ondoren, haurren familiakoek ikastetxetik alde egiten dute, oro har. Une horretan –semea edo alaba uzten dutenetik alde egiten duten arte– ikus daiteke nolakoa den familien arteko interakzioa: agur soilak edo solasaldi luzeagoak, bertako pertsonen artean, bertakoen eta atzerritar jatorrikoen artean, nazionalitate desberdina dutenen artean, etab. Hiru minututik hamabost minutura bitarteko tarte bat izaten da, baina guraso batzuen eta besteen arteko kontaktuak eta harremanak gertatzen dira.

«(amen taldeak) eratzen dira, bai [...].Goiza ez da une egokiena, denbora neurtuta etortzen baitzara: lanera joan behar dut, hau edo hura egitera joan behar dut... Ez da une aproposa; litekeena da bi edo hiru ama bost minutuan geratzea, baina gero joan egiten dira [...].Batzuk autobusez etortzen dira (auzokoak ez direnak); autoz etortzen diren batzuk gero lanera joan behar dutelako etortzen dira horrela, edo txikiek etortzen direlako. Beste batzuk, hurbil bizi direnak, oinez etortzen dira» (D eredua, publikoa)

Behaketaren bidez, alde egiteko modu desberdinak daudela ikusi dugu: batzuk bakarrik irteten dira; beste batzuk aita edo amaren batekin; beste batzuk solasean ateratzen dira eta agur esaten diote elkarri, bakoitzak bide bat hartu behar duelako, lanaldiarekin etxean edo beste lantokiren batean jarraitzeko, etab. Beti egoten da une labur batez, agur esan arte, hitz egiten geratzen den amen (bereziki amen) talderen bat. Sarrera-irteeren behaketa egin dugun ikastetxeetan oinarrituta, Haur Hezkuntzako familien sarrerekin lotuta jasotako zenbait eszena kontatu ditzaizkegu, adibide gisa.

«Amek seme-alabak utzi berri dituzte ikastetxean, eta joan egin behar dute. Bat-batean, haur-kotxe berriarekin lotutako elkarrizketa bat sortu da. Hortik aurrera, haur-kotxeei buruz eta haur-kotxe erosi berriak dituen alderdi praktiko batzuei buruz hitz egiten hasi dira. Atzerritar jatorriko amen eta bertako ama baten arteko talde bat sortu da; gero, ikastetxetik irteten jarraitu dute, eta agur esan diote elkarri, bakoitzak bere bideari jarraitzeko» (D eredua, publikoa: 2)

«Haur Hezkuntzara ikastetxeko jolastokitik sartuta iritsi da jendea, jolastoki hori baita ikastetxearen sarrera. Aurrean eraikina dago: eskuinean, Lehen Hezkuntzako sarrera, eta ezkerrean, Haur Hezkuntzako sarrera. Haur guztiak sartu dira gurasoekin sarrera horretatik; futbol-zelaia eta saskiak dauden jolastokia zeharkatu dute eta Haur Hezkuntzako atera hurbildu dira. Han daude irakasleak, haurrei eta gurasoei harrera egiteko zain. Une horretan gertatu da irakasleen eta gurasoen arteko kontaktua, eta

zenbait ama irakaslearekin hitz egiten ari direla ikusten da. Ikastetxera iritsi direnean, gehienak bakarrik joan dira, baina, gero, talde txikiak sortu dira. Seme-alabak utzi ondoren, taldetan geratu dira; ama magrebtarrak eta Saharaz hegoaldeko Afrikako amak, batez ere. Jolastokia gurutzatu dute, eta ikastetxeko sarrerako espaloia ondoan geratu dira, 9:15ak arte. Ama magrebtarrak binaka sartu dira; orain, talde batean elkartu dira; magrebtar jatorriko beste emakume bat ere iritsi da erosketa-orgarekin; gustura daudela ematen du. Beste alde batetik, afrikar jatorriko amek talde handiagoa osatu dute, eta abesti bat kantatzen hasi dira une jakin batean. Irteten joan dira, ikastetxeko sarreraren aurrean dagoen kaleko toki batera iritsi arte; han, agur esan diote elkarri, eta erosketa-orgarekin etorritakoa haietako batekin joan da. Asiar jatorriko guraso batzuk ere ikusi ditugu ikastetxera iristen; haurra andereñoarekin utzi, eta joan egin dira» (A eredu, publikoa)

Ikastetxeko irteerei dagokienez, familiekin lotutako alderdiak jaso ditugu: zer harreman izaten dituzten beste gurasoekin, beren seme-alabekin eta ikastetxeko beste haur batzuekin. Ikastetxetik eguneko bi unetan ateratzen dira:

Ikastetxeak aitzakia ona dirudi bertakoen eta atzerritar jatorrikoen arteko loturak indartzeko

eguerdian, gurasoek seme-alabak bazkaltzera eramaten dituztenean, eta arratsaldean, ikastetxeko jarduna amaitu dutenean. Oro har, eguerdian ez dira haur guztiak ateratzen bazkaltzera; hortaz, arratsaldeetan haur gehiago ateratzen dira ikastetxetik. Gurasoak joan ohi dira haurrak jasotzera, eta gehien-gehienek oinez joateko ohitura dute; dena dela,

badira autoz seme-alaben bila etortzen direnak edo etxera autobusez joaten direnak ere. Behatutako ikastetxe bateko arduradun batek adierazi duen moduan, ikastetxeak aitzakia ona dirudi bertakoen eta atzerritar jatorrikoen arteko loturak indartzeko:

«Lanaren alderdi horretaz [...] egiten duzun lanaren alderdi horretaz sentitzen zara harro, hor ikusten baituzu egindako ahaleginaren emaitza, eta zeure buruari esaten diozu: 'zein ona litzatekeen sarreretan eta irteeretan guztiak horrela jokatzeko duten gizarite bat lortzea, elkarrekin egoten saiatzen baitira guztiak» (D eredu, publikoa: 2)

Adierazi dugun moduan, emakumeek egiten dute sozializazio- eta interakzio-lana, gizon baino emakume gehiago joaten baitira seme-alaben bila:

«Amekin eta lehengusinekin dugun harremana [...] gainera, askotan gurasoak ezin izaten dira haien bila etorri, eta arazoak izaten dituzte; orduan, sarritan gurasoak ez diren beste pertsona batzuk etortzen dira haurren bila; amak ez diren beste pertsona batzuk esan beharko genuke, amak etortzen dira-eta, oro har, haurren bila » (D eredu, publikoa)

Hortik aurrera, ikastetxearen izaera aldatu egiten da, eta atzerritar jatorriko haurren eta bertako familietako haurren arteko interakzioa areagotu egiten da. Ikastetxetik ateratzeko unea aitzakia ona da jolas egiteko eta elkar ezagutzeko:

«Arratsaldeetan bai, haurrekin jolastokian geratzen direlako, luzaroago geratzen direlako, baina goizetan ez; eta eguerdietan, bi eta hiru urtekoak ate hartatik ateratzen direnean, bi eta hiru urtekoentzako jolastoki txiki horretan geratzen dira, baina ez luzaroan; agian bost minutu geratuko dira, bi eta hiru urtekoak ateratzen baitira, baina bost urteko haurra duenak lehenik bat jaso behar du, eta, gero, besteen

bila joan; beraz, hor egoten dira zain. Beste batzuek lehen eta bigarren mailan ere badituzte anai-arrebak; erdiko atetik ateratzen dira, eta hor elkartzen dira pixka batean. Badago harremana haien artean, nahikoa batuta daude eta: ni iritsi ez banaiz, jaso zuk» (D eredu, publikoa: 2)

Ikastetxetik ateratzeko unea aitzakia ona da jolas egiteko eta elkar ezagutzeko.

Ikastetxea nahikoa hurbil ez badago, eskolak arratsaldeetan, eskola-orduetatik irtetean, duen funtzio ludikoa ahuldu egiten da. Ikastetxeko jolastokian bertan egiten den askaltzeko eta jolas egiteko denbora-tarte hori galdu egiten da haurrak beste auzo batzuetakoak direnean, eskolatik irten orduko alde egiten baitute, oro har:

«Guri auzo guztietako haurrak etortzen zaizkigu; jakina, A eredu nahi dute, eta A eredu hiru ikastetxe soilik garenez, auzo guztietako haurrak etortzen dira. Auzo guztietakoak etortzen zaizkigu A eredu nahi dutelako, edo iragaitzaz daudelako, edo ez dituztelako gehiago nahastu nahi. Txinatarrek ere ez dute nahi, ze dendan egoteko; eta adi, txinatarrek mugikortasuna izaten hasi dira eta; ez zaie interesatzen, haiek luzaroan balioko dien zerbaite nahi dute; hori dela eta, beraz, haurrak ez dira auzokoak izaten» (A eredu, publikoa)

Berriro ere nabarmen geratzen da zein garrantzitsua den ikastetxearen kokapena auzoaren edo bizitoki-eremuaren kokapenarekin bat etortzea, familia etorkinetako haurrak gertuko ingurunean hobeto integratzeko:

«Auzokoak balira, agian errazago izango litzateke integratzea, baina leku askotatik etortzen dira; orain iritsiko dira, eta erreparatzen badiezu, ama bakoitzak bere semea edo alaba hartuko du [...], jolastokian jolasten ez... Jolastokiak udan irekitzen dira orain, eta hau da irekita geratzen den jolastokietako bat, baina gure haurrak ez dira geratzen; gurasoek hartu, eta eraman egiten dituzte... Ama batzuk geratzen dira kanpoko parkean, baina gehienak joan egiten dira; gutxi geratzen dira, gehienek alde egiten dute eta [...]. Ikastetxearen irteeran gurasoen edo haurren artean sortzen den harreman hori ez daukagu, ez daukagu...» (A eredu, publikoa)

Hori ez da oztopoa izaten familia etorkinek herrialde bereko familiekin loturak mantentzen jarraitzeko, eta horrek lagundu egiten die urrutiko inguruneetan. Bertako gurasoekin ere noizean behingo harremanak izaten dituzte, haien seme-alabek elkartzen baitituzte:

«Haurren lagun gurasoak agurtu baino ez ditugu egiten, ikastetxean sartzen garenean edo handik irteten garenean» (aita/ama, Nikaragua)

Interesgarria da nabarmentzea gurasoen arteko harremanetan (harreman horiek izateko moduan eta harremanok estuago bihurtzean) azken urteetan gertatu diren aldaketak. Irakasleek zer bilakaera izan duten azpimarratzen dute: lehen inolako harremanik ez zuten gurasoak gaur egun elkarrekin ikusten dira ikastetxeko sarreretan eta irteeretan; batzuetan, ama batek edo aita batek bere semea edo alaba eta beste batzuk ere jasotzen ditu, etab. Familien artean, txinatar jatorrikoek atentzia ematen dute, ez baitute harremanik besteekin,

noizean behingo agurrez harago. Harreman horiek urteen poderioz eraikitzen dira:

Lehen inolako harremanik ez zuten gurasoak gaur egun elkarrekin ikusten dira ikastetxeko sarreretan eta irteeretan.

«Ez dut esango familiakoak direnik, baina imajina ezazu [...], haurrak hiru urterekin hasten badira elkarrekin [...], lau, bost [...], azkenean, egunero [...] (Afrika beltza); gainera, gizonak ere parte hartzen dute emakumeekin [...]; talde mistoa da (gizonak eta emakumeak), beste talde batzuk ez [...], emakumeenak soilik; magrebtarren taldea emakumeek soilik osatzen dute, ez dira elkartzen eta [...]. Txinatarrak falta dira, eta ez dakit... ez dakit izaeragatik den edo dendak dituztelako eta presaka joan behar izaten dutelako den edo zergatik den, baina gainerakoak bai... [...]. Azken sei urte hauetan asko egin dugu aurrera alde horretatik... bai [...], beharbada, lehen bakarrik zeudelako..., orain beren herrialdeko gehiago daudela ikusten dutenean, eta hemen, Haur Hezkuntzan batez ere, irakasleak haiekin ateratzen garela... Hitz egiten dugu [...], bai; ikastetxera ipuinak kontatzera etor daitezkeela ere esaten diegu... Ez dakit [...], ba komunikazio apur bat [...]» (A eredu, publikoa)

Hezitzaileek azpimarratzen dute bilakaera bat gertatu dela harremanak izateko moduan; orain naturaltasun handiagoz egiten dute; `lotsa´ sentitzetik harreman normalizatu samarra izatera igaro direla esan genezake. Egia da pertsona bakoitzak jatorriko herrialdeko ohituren eragina duela eta ohitura horiek aldatu egiten direla sorterriaren arabera, baina egia da, halaber, herrialde eta gizarte hartzaileak bereak dituen rolak eta jokatzeko moduak ere onartu dituztela (jokabide arauak bereganatu dituzte?). Izan ere, elkarrizketetan nabarmen geratzen da nolako bilakaera izan duten familien eta irakasleen arteko harremanek eta nola aldatu diren lehen zituzten zenbait jokabide kultural, hala nola aurpegira ez begiratzea, etab. Era berean, beste familia batzuek integratzen, agurtzen... nola ikasi duten kontatu dute:

«Sei urte hauetan antzeman dut hasieran ama eta aita gehiagok ez zizutela aurpegira begiratzen; orain gurasoak sarriago etortzen dira beren seme-alabak bilatzera, gehiago egoten dira haiekin... bai» (A eredu, publikoa)

«Denborak aurrera egin ahala, besteen artean integratzen ikasi dut, agurtzen, ama gehiagorekin hitz egiten; ez gara berdinak, ez, batzuetan gure kulturak desberdinak direlako, batzuk latinoak edo Afrikakoak izanda ere, baina harrigarria da ikustea kontinente guztietako lagunak ditudala, eta haiek ere nire familia dira, edo nire familia bihurtzen dira; izan ere, horretara iristen gara ikastetxean, nire ustez, eta oso eskertuta nago...» (aita/ama, Mexiko)

«Nik haiei ekarpenen bat egin nahi nieke, haiek nire alabari ekarpenak egiten dizkieten moduan; ondo sentiarazten nau, badakidalako horrek eragina izango duela nigan, eta beste batzuek ere bai... eta ikusi dut beste ama batzuek ere horixe sentitzen dutela, eta ekarpen handiak egiten dituztela; izan ere, nik benetan esan dezaket ikasten jarraitzen dudala, eta orain oso pozik sentitzen naiz nire amari zera esaten diodanean: familia dut Bolivian, eta Kongon, eta Venezuelan; eta ikastetxean ez gaudenean, kalean egoten gara, guztiok agurtzen dugu elkar...» (Guraso Elkarte, B eredu, itunpekoa)

Aisialdi-eremuak: jolasa espazio edo eremu publikoetan

Banakoek espazioaz jabetzeko duten modua, banaka edo kolektiboki, erabakigarria izaten da gizarte-interakzioa gertatzeko moduen bilakaera aztertzen denean. Horri buruzko irakurketa bat baino gehiago egin dira, eta, gure kasuan, 2. ataleko (Metodologia) 1. taulan ikusi dugun bezala, badirudi aztertutako espazio publikoak oso ugariak ez direla, itxura batean, eta, horrenbestez, ez dutela islatzen, beharbada, euskal gizartean bere osotasunean zer gertatzen den; dena dela, ezin dugu alde batera utzi EAEn gertatzen den eta beste latitude batzuetan hain garrantzitsua ez den zerbait. Esan nahi dugu ezinezkoa gertatzen dela, nolabait esatearren, jolaserako lekuak eremuaren arabera bereiztea; izan ere, gure hiri guztietan, handietan bezala ertainetan, hiri-eremuaren urritasuna eta dentsitate- eta eraikitze-maila altua dira nagusi. Beraz, ikerketa honetan aztertutako espazioak nahiz hemen jaso ez ditugun beste batzuk izan, guztiek dituzte ezaugarri berdinak: eraikin-dentsitate handia duten eremuak dira, eta ukaezina da eremu horietan bertako biztanleen eta atzerritar jatorrikoen arteko interakzioa edo elkarreragina.

Aukeratu ditugun lekuak irizpide hauei jarraituz hautatu ditugu: hiru lurraldeetako informazioa ematea; informazioa bildu den biztanleguneetan atzerritar jatorriko familia gehiago edo gutxiago bizitzea; hiri-eremukoak edo landa-eremukoak izatea, eta euskara gehiago edo gaztelania gehiago hitz egitea eguneroko komunikazioan.

Lekukotasun batzuk

Aisialdi-eremuetako interakzioari dagokionez, haurrak sozializatzen hasteko lekuak dira parkeak, non, jolasaren bidez, beste haur batzuekin izaten dituzten harremanak, jatorriari begiratu gabe. Hau da irakasleek azpimarratzen duten gauzetako bat, eta oso garrantzitsua: beren auzoko eskolara joaten diren atzerritar jatorriko haurrak parkera joaten direnean eta harremanak izaten dituztenean, eskolako ikaskideekin egon nahi izaten dute, ondo konpontzen direnekin, haur horien gurasoen nazionalitatea edozein dela ere.

Ikastetxean bezala, haurrek gurasoak batzeko edo elkartzeko balio izaten dute. Horrenbestez, auzoko parkea ikastetxe berera joaten diren haurren arteko harremanetarako espazio edo eremu bihurtzen da. Eta haien gurasoen artean harremanak garatzen joaten dira; batzuetan elkar agurtzera mugatuko dira, beste batzuetan benetako adiskidetasunak sortuko dira:

Auzoko parkea ikastetxe berera joaten diren haurren arteko harremanetarako espazio edo eremu bihurtzen da. Eta haien gurasoen artean harremanak garatzen joaten dira; batzuetan elkar agurtzera mugatuko dira, beste batzuetan benetako adiskidetasunak sortuko dira.

«Hegoamerikarrek harreman onak dituzte jendearekin, ez dute arazorik [...], ikasgelako haur batzuk joaten diren parkera joaten ahalegintzen dira [...], gero,

bileretan horri buruz hitz egiten dute, haiekin gaudenean, eta orduan, elkar bilatzen dute, harremanak izaten dituzte eta ireki egiten dira [...].Beraz, bai, gehienak parkeetara joaten dira, bai [...], bilatu egiten dute (nazionalitate jakin batekoak?): ez; batzuek ikasgelako ikaskideak bilatzen dituzte [...], jakina, ordu asko ematen dituzte elkarrekin, eta hurrek ez dute bereizten [...].Beraz, ikusten badut hemengoa den bat (ZZZ, esaterako) dagoela eta bestea marokoarra dela, elkarrekin ondo konpontzen direnez, bata bestearen bila ibiltzen dira... [...].Harremanak sortzen dituzte elkarren artean, ikasgelako haur batzuk zer parketara joaten diren badakite, eta haietara joaten ahalegintzen dira [...].Txikienei galdetzen badiezu, orduan bai, gehienek esango dizute parkera joaten direla [...].Nik uste dut nahitaez gertatzen dela, haurrak auzo berekoak eta ikasgela berekoak direnean, batez ere; saihetsezina da parke batean edo bestean elkar ikustea ateratzen zarenean, adin hauetan batez ere, oso txikiak direla eramaten baitituzte parkeetara, eta batean ez bada, beste batean izango da, ikastolako jendea aurkitu behar duzu nahitaez, [...].Ikasgela berekoa ez bada, alboko ikasgelakoa izango da, edo ezagutzen duzun jendea...» (D eredua, publikoa)

Irakasleek aipatutako ideia hori familiek ere baieztatu dute. Azken horiek aipatzen dute parkean topatzen dutela elkar edo seme-alabekin joateko geratzen direla, lagun egin direlako. Parkean elkartzeko direnean, litekeena da harremanak agurtzera mugatzea (elkarrizketak ikastetxeari buruzkoak izaten dira horrelakoetan), baina adiskidetasun-lotura estuagoak ere sortzen dira, seme-alaben bitartez:

«Parkera joaten garenean, ba lau hitz egiten ditugu, eskolako kontuak eta abar, normala, baina gutxi [...], elkar agurtzen eta errespetatzen dugu» (aita/ama, Nikaragua)

«Jakina, seme-alabak oso gazte izan ditudanez, gazteena naiz... Beraz, gazteenarekin, gaztea den ama batekin [...].Jeta haren semea eta nirea elkarrekin ondo konpontzen direnez, ba komunikazio gehiago dago... zer moduz, zer moduz semea... zure semeaz askotan galdetzen dit, eta nireak ere bai, eta zure semeaz bakarrik hitz egiten dit [...].Jeta topo ere egin izan dugu, eta parkera joateko geratu izan gara» (aita/ama, Ekuador)

Alabaina, ez da gauza bera gertatzen txinatar edo asiarrak jatorriko familiekin. Elkarrizketetan esaten duten bezala, txinatar jatorriko haurren gurasoek beste jatorri batzuetako gurasoekin duten interakzioa oso txikia da, eta hori irakasleek ez ezik, elkarrizketatutako familia batzuek ere nabarmentzen dute. Dena dela, helduen harremanaren ahultasuna haurren harremanaren sendotasunak orekatzen du. Izan ere, elkarrizketatu ditugun irakasleek diotenez, seme-alabek eskatzen diete gurasoei parkera joateko, ikasgelako ikaskideren batekin jolasean ibiltzeko. Egindako zuzeneko behaketak iritzi hori egiaztatzen du: Bilbon eta Gasteizen ikusi denez, txinatar jatorriko hurrek ez dute inolako arazorik bertako familietako adinkideekin nahasteko. Ideia bera adierazi digute ikastetxeetako batean:

«Txinatarrek, adibidez, ixteko joera dute, harreman gutxiago dituzte... Ikastolatik kanpo, gehienek dendak dituzte; gurasoak dendetan egoten dira, eta hurrek ere dendetan egon behar izaten dute [...].Haurrak berak eskatzen du parkera edo eskolaz

kanpoko jardueraren batera joatea, (haurrak) integratu egin nahi du [...].Jakina, egunean zehar bere ikaskideekin egoten da, eta gero, dendan, sei urteko haur bat garai hauetan [...].Beraz, haurrak parkera edo eskolaz kanpoko jardueretara joatea eskatzen du, txangoetara joatea» (D eredu, publikoa)

Parkeetako espazioa betetzeari dagokionez, aldeak ez dira oinarritzen hainbeste gurasoen nazionalitatean, baizik eta seme-alaben adinean eta sexuan. Alde horretatik, haur txikienak parkeko leku lasaienean egoten dira beren gurasoekin, haien adinera egokitutako zabuetan; haur zaharrenak, berriz, futboleak, patinekin edo haien adinarekin lotutako ekintzetan aritzen dira normalean.

Txikienak beren familiekin joaten dira; gurasoekin, oro har. Atzerritar jatorriko familien artean, joera nazionalitateen arabera elkartzea izaten da; hala adierazten dute bai adituek, bai irakasleek, **Joera nazionalitateen arabera elkartzea izaten da.** bai gure taldeak egindako behaketek; ama magrebtarren, latinoamerikarren edo errumaniarren taldeak ikusten dira. Horrenbestez, iragazketaren aspaldiko teoria egiaztatzen da; hau da, jatorri bera izatea bihurtzen dela harrerako herrialdeko sozializazio-prozesuaren lehen etapetan gehien laguntzen duen alderdietako bat:

«Koadrilen antzekoak dira, hori nabarmen antzematen dut [...].Gero, eskolen ondoren, parkera joaten dira; afrikarren artean, amei amatxoak esaten diete; bat lehena iristen denean, guztiak eramaten ditu [...].Hori, berriz, ez da hainbeste gertatzen hegoamerikarrek. Ez dakit kasualitatea den, haiek oso ondo konpontzen baitira» (B eredu, itunpekoa)

«Gainerakoek, berriz, zera esaten didate: kalean ikusi dut, edo ez dakit zein ikusi dut... Nigeriakoek beren arteko gauzak kontatzen dizkidate, baina ez besteen gauzak; ez dakit beste parke batzuetara joaten diren edo beste eremu batean bizi diren...» (B eredu, itunpekoa)

Txikienak, hiru urte dituzten arte, gutxi gorabehera, gurasoekin egoten dira une oro: eserlekuetan, jolaserako eremuan, etab. Eta guraso horiek, nagusiki, beste batzuekin solasean jarduten dute, edo seme-alabekin jolas egiten, edo hurrei ezer gerta ez dakien zaintzen.

Laburbilduz

Egindako azterketan oinarrituta ondorioztatu dugu euskal gizartea bezain dentsuak eta trinkoak diren gizarteetan, ekipamenduak, zerbitzuak eta espazio edo eremu publikoa, oro har, oso eragingarri edo akuilu garrantzitsuak bihurtzen direla atzerritar jatorriko familiak integratzeko prozesuan. Egia da lurzoru-eskasiak oso zail egiten diela etxebizitza eskuratzea baliabide gutxien dituzten familiei, baina egia da, halaber, gure auzoetako dentsitate demografikoak eta sozialak interakzioa errazten eta bultzatzen duela, eta oso nekeza egiten duela

Ekipamenduak, zerbitzuak eta espazio edo eremu publikoa, oro har, oso eragingarri edo akuilu garrantzitsuak bihurtzen direla atzerritar jatorriko familiak integratzeko prozesuan

bereizitako ghettoak sortzea. Egoera hori ez da gertatzen bereizketa horizontal espaziala gurean baino errazago egin daitekeen beste hiri batzuetan.

Horrek ez du esan nahi kolektiboen arteko distantzia sozialik ez dagoenik, baizik eta askoz handiagoa dela interakzio fisikoa izateko aukera jolasteko espazioa edo eremua txikia denean. Eta hori ondo datorkigu elkarrizketen eta behaketa zuzenaren bitartez azaletik ikusi duguna testuinguruan jartzeko. Ikastetxeetako jolastokiak bezala, parkeak ere baliabide urriak eta beharrezkoak dira gizarte-integrazioan laguntzeko. Beste alde batetik, lekukotasun guztiak bat datoz

Ikastetxean sartu orduko, harremanak eratzen dira familien artean, Lehen Hezkuntzako etapara iritsi bitartean.

gauza berean: bertako haurrek eta atzerritar jatorrikoek ez dute harremanetarako eta interakziorako arazorik; zailtasunak, betiere, helduok jartzen ditugu.

Haur Hezkuntzan familien artean gertatzen den interakzioa beste hezkuntza-etapa batzuetakoa baino handiagoa da, eta Lehen Hezkuntzara iritsi arte mantentzen da.

Denboran jarraitua da harreman hori, astelehenetik ostiralera ikasturte osoan zehar, bi urte dituztenetik Lehen Hezkuntza egiten hasten diren arte. Eguneroko harremana da gurasoen artean eta tutorearekin, haurrek bi edo hiru urterekin eskolatzen hasten direnetik Lehen Hezkuntzara iritsi arte. Denbora-tarte horretan, ikastetxean sartu orduko, harremanak eratzen dira familien artean, Lehen Hezkuntzako etapara iritsi bitartean.

Seme-alabek familiak elkartzeko balio izaten dute. Haurren artean dagoen harremana guztiz espontanea da; modu naturalean eraikitzen da, eta ez dute bereizten beren gurasoen jatorrien artean.

Seme-alabek familiak elkartzeko balio izaten dute. Haurren artean dagoen harremana guztiz espontanea da; modu naturalean eraikitzen da, eta ez dute bereizten beren gurasoen jatorrien artean.

Bertako familien eta atzerritar jatorrikoen arteko kontaktuetan, bakoitzaren gurasoek emandako kultura- eta gizarte-tradizioek eragiten dute, baina seme-alabek harremanak eratzeko duten modua ere kontuan hartzen da, eta eragina du familien kontaktu horietan.

Azkenik, lehenago esan dugun bezala, azpimarratu dezagun harremanak nazionalitateen arabera gertatzen direla, batez ere. Beste jatorri batzuekiko interakzioa geroago gertatzen da, egoerak horretarako aukera ematen duen neurrian, eta, zalantzarik gabe, ikastetxea aitzakia egokia da helburu horretarako. Gainera, ikastetxean integrazio-prozesuak landu daitezke, aniztasun soziokulturala kontuan izanda, horretarako.

Erlijioa

Urte asko dira Durkheimek⁸ zera adierazi zuela: erlijioa, batetik, zentzua ematen dioten sinesmen-sistema batek osatzen duela; eta, bestetik, funtsezko eginkizuna duela gizakiak batzeko duen gaitasunarekin lotuta; hau da, oinarri eta nortasun soziokulturala ematen duten lotura kolektiboak sortzeko gaitasunarekin lotuta. Hori ezin da ahaztu beste leku batzuetatik iritsitako familien egoera ulertzeko.

Ez da harritzekoa, beraz, atzerritar jatorriko zenbait familiarentzat erlijioa oinarritzekoa izatea haien bizimoduan; izan ere, fede erlijioso bakoitzaren sinesmen erlijiosoen sistema era batekoa zein bestekoa izan, lagundu egiten du alderdi kulturalarekin zerikusia duten partekatutako erreferenteak sortzen. Hori orokorrean horrela izanik, areagotu egiten da, nabarmen, kristautasuna erreferente erlijioso historikotzat ez duten kulturekin gainjartzen denean erlijioa. Mundu musulmanetik datozen pertsonen ari gara, baina ez haietaz soilik, beste fede erlijioso batzuetan ere gertatzen baita, neurri txikiagoan izanda ere.

Ageriko desberdintasun hori erlijio-eztabaidaren esparruan mantenduko litzateke, zenbait sinesmen erlijiosorentzat oso zaila izango ez balitz praktika erlijiosoaren alderdi publikoa eta pribatua bereiztea; eta, neurri handi batean, erlijioarekin lotutako aginduek eguneroko bizimoduaren bilakaerari eragiten diote zenbait arlotan, eta tirabira batzuk sortzen dituzte gai batzuetan (janzkera, elikadura...), orain dela gutxi arte ohituta geunden ohiko praktikekin talka egiten dutelako.

Horregatik, erlijioak (adierazpen pribatuan nahiz publikoan) eragin nabarmena du interakzio-modu eta -formetan, gure gizarteko erlijio minoritarioetako pertsonen kasuan, batez ere; islama edo eliza ebanjelikoa dira erlijio minoritario horien bi adibide, ohikoenak besterik ez aipatzeagatik. Gainera, komeni da kontuan izatea eremu publikoko praktika erlijiosoak sozializatzeko eta gizarte-interakziorako faktoreak direla, eta sekulako kohesio-indarra dutela; hori dela eta, gutxiengo horiek harremanak areagotzen dituzte, ospakizun-praktikak baliatuz. Kontakizunek sinesmenei eta praktika erlijiosoei erreferentzia egiten dietenean, bi alderditatik begiratuta egiten dute: alde batetik, pertsonen alderdi intimoenarekin lotutako eta pertsonen identitatearekin zerikusia duen fenomenotzat hartzen dira; baina, bestetik, balioak transmititzeko eta seme-alaben sozializazio soziokulturala indartzeko modutzat jotzen dira.

Eremu publikoan, guraso fededun praktikatzaileen seme-alabak aita-amekin joaten dira ospakizun erlijiosoetara, asteen bi aldiz gutxi gorabehera, eta horiek izaten dira gutxiengoa dela badakien komunitate batek bere harremanak eta

⁸Durkheim, E. (1982). *Las formas elementales de la vida religiosa* (Vol. 38). Madrid: Ediciones Akal.

loturak estutzeko erabiltzen dituen uneak. Ospakizun horietan sortzen diren harremanak, oro har, ez dira agur formalez harago joaten. Hori oso agerikoa da Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako familien kasuan. Haientzat, alderdi erlijiosoak oso leku garrantzitsua du eta, eremu pribatuan nahiz publikoan, berebizikoa da erlijioaren garrantzia.

Eremu pribatuan, elkarrizketatutako zenbait familiaren ustez, erlijioa garrantzitsua da haien bizitzetan eta haien seme-alaben hezkuntzan, erlijioaren bidez funtsezko balioak transmititzen direlako: besteenganako errespetua, pertsona nagusiei, batez ere; familiako erlazioak; genero-rolak, etab. Kezka eragiten dieten gaiak dira, harrera-gizartean (euskal gizartean, alegia) balio horietako batzuek garrantzia galdu baitute, desagertu ez badira. Horrez gain, elkarrizketen bidez ikusi denez, zenbait arrazoiengatik (familiarik edo lagunik ez izatea, besteekin komunikatzeko zailtasunak, etab.) zaurgarritasun ekonomikoko egoeran edo gizarte-isolamenduan dauden familia haietan, alderdi erlijiosoak eta/edo espiritualak berebiziko garrantzia hartzen du, haien bizitzari zentzua emateko modu gisa. Arrazoi ugari direla eta, helduleku bat da haien eguneroko zereginean, itxaropena egoera zailetan eta, azken batean, etorkizunera begiratzeko euskarri bat. Esate baterako, elkarrizketetako batean, alaba bat duen eta oso egoera zaurgarrian dagoen Nigeriako ama baten diskurtsoaren kontakizunak adierazten digunez, sinesmen erlijiosoak helduleku bat dira, itxaropen apur bat haren bizitzan, eta haren alaba bere buruarekiko eta besteenganako balio positibotan hezteko modu bat ere bai.

«Nik arazo bat dudanean, jaunak (Jainkoa) laguntzen dit» (ama/aita, Nigeria)

Pertsona etorkinentzat (erlijio islamikoa dutenentzat, batez ere) alderdi erlijiosoa alderdi pribatuaz harago doa, eremu publikoan adierazten da, eta ondorioak eta eraginak ditu eguneroko bizimodua antolatzean, bizimodu horren adierazpen guztiei eragiten baitie: elikadura, jantziak, eguneroko antolaketa, genero-rolak, harremanetarako jokabideak... Hala, esaterako, ikastetxeetara mugatuz, oso txikiak dira Haur Hezkuntzako etapan atzerritar jatorriko haurren arteko desberdintasunak eta ia ez dira agerian jartzen; alabaina, beren arrastoa uzten dute elikaduraren arloan. Esaterako, ikastetxeek gurasoen eskaerak jasotzen dituzte *halal* menuak aukeran jar ditzaten. Eskaera hori gauzatzea ez da beti erraza egunerokoan; izan ere, irakasleek esaten diguten bezala, haurrek ez dakite zer jaten duten, eta *halal* menu bat jan beharko luketen askok ikaskideen menuak jaten dituzte edo berea ikaskideekin partekatzen dute, berea baino gozoagoa egiten zaielako. Irakasleak ahalegintzen dira adi egoten, haur bakoitzak bere plateretik jan dezan, baina ez dute beti lortzen:

«Menuengatik, batez ere... haur batzuek negar egiten zuten, menu begetarianoa nahi ez zutelako» (A eredu, publikoa)

«Hara, guk neskato musulman bat dugu hiru urteko gelan, uste dut marokoarra dela. Jakina, oso ondo jaten duen neskato bat da...; beraz, hari bere janari musulman

hertsia jartzen zioten, eta hark ez zuen nahi, eta mahai azpitik albokoari janaria kentzen saiatzen zen...» (A eredu, publikoa)

«Kexatu egiten dira, bai (haurrak), neskatoak ez baitu ulertzen zergatik ezin duen jan albokoak jaten duena, hark ikusten du beste zerbait jarri diotela, eta askoz nahiago du albokoak duena. Hortaz, iaz beste azpil batzuetatik kentzen eta albokoari hartzen saiatzen zen...» (D eredu, publikoa)

Ikusten denez, arau erlijiosoek ez diete berdin eragiten sinesmen erlijioso guztiei:

«...Eta, adibidez, afrikarrek ez dute inolako arazorik hona ekartzeko eta guk haurrei erlijioa emateko, ez dute inolako eragozpenik... Jantokian zailagoa da; menu-aukera ugaria dugu han: batek haragirik gabe, besteak txerririk gabe, eta kontuz ibili behar duzu, ea ez naizen nahasten eta ez diodan okerreko menua ematen» (B eredu, itunpekoa)

Elikadurarekin lotuta, halaber, baina ez eguneroko menuekin, beste une batzuetan ere nabarmentzen da aniztasunaren kudeaketa, hala nola ikastetxeetan urtean zehar egiten diren ospakizunetan. San Tomas egunaz, Santa Agata egunaz eta beste jai batzuek ari gara. Kasu horietan, familia musulmanei beste aukera batzuk ematea erabaki dute ikastetxeek: taloa eta txorizoa eman beharrean, adibidez, txorizoaren ordez *halal* saltxitxa bat ematen zaie. Beste kasu batzuetan, bakoitzari nahi duena ekartzen uzten zaio. Azken batean, ikastetxeko ohituretan parte hartzen dutela sentitzea da asmoa eta, beste alde batetik, familiek haien erlijioa errespetatzen dela sentitzea, nolabait.

«Berezitasunak otorduetan sortu dira, ospakizunetan. [...]Ikasturte-amaieran familientzat egiten dugun bazkarian, menu begetarianoa dugu» (D eredu, publikoa)

«(Jantokia) Haiek dieta berezia dute, eta gero, San Tomas egunean haiei ez diegu ezer ematen; etxetik ekarri nahi badute, arazorik gabe uzten diegu, baina hemengo ohiturei eusten saiatzen gara, eta haiek ahal duten neurrian egiten dute bat ohitura horiekin. Esate baterako, txerririk ezin badute jan, beste edozer ematen diegu; haiek etxetik ekartzen badute, ez dago arazorik» (D eredu, publikoa)

Alderdi erlijiosoa bizimoduko beste arlo batzuetara ere iristen da, hala nola janzkerara. Alde horretatik, adin horretako haurren artean ez da inolako desberdintasunik antzematen, baina gurasoengan nabaritzen da. Adituen eta irakasleen diskurtsoetatik ondorioztatzen da aldaketak gertatzen ari direla azken boladan, eta ikusi dute lehen belorik eramaten ez zuten ama batzuek orain eramaten dutela. Oporretatik itzultzen direnean ere nabaritzen dira aldaketak, janzkeran, batez ere; haurrak eta haien familiak jatorriko herrialdeetatik etortzen direnean gertatzen da.

Kasu batzuetan, aurkako noranzkoan ikusten dira aldaketak atzerritar jatorriko gurasoen jokamolde kulturaletan eta erlijiosoetan. Ikastetxeetako irakasleek praktika erlijiosoen nolabaiteko arintzea ikusten dutela aipatu dute, ez baitute sentitzen beren herrialdeetan izan ohi duten taldearen edo gizartearen presioa. Beste kasu batzuetan kontrakoa gertatzen da: sinesmen islamikoa duten

pertsonak, gurasoen taldeak gure ingurunean ezartzen duen presioagatik, janzkeraz aldatzen dira, zapi islamikoa erabiltzeari dagokionez, bereziki.

*«Lehen belorik gabe ibiltzen ziren emakumeek orain eramaten dutela ikusi dut...»
(Berritzegunea, Irun)*

Paradoxikoa da erlijio musulmana edo ebanjelikoa duten zenbait familiak itunpeko ikastetxe erlijioso bat aukeratzea. Baina haien ikuspegitik ez dago inolako kontraesanik, hautu hori ez dagoelako lotuta sinesmen erlijiosoari erantzuna ematearekin soilik; aitzitik, haurrak heztean, haiek dituzten balioekin bat datozenak ematearekin lotzen dute. Ezaugarri horiek dituen ikastetxe bat aukeratzeak segurtasun eta lasaitasun handiagoa ematen die haien seme-alabentzat; inbertsioa dela irizten diote, eta hurrei hezkuntza hobea ematen dietela iruditzen zaie. Familiek eta irakasleek normaltasun handiz bizi dute erlijioa hezkuntzako etapa horretan, haurrak ez baitira ezertaz konturatzen adin horietan. Batzuetan, beren hezkuntzan erlijioa jasotzetik salbuetsita egoten dira haur horiek, baina urtean zehar egiten diren zenbait jarduera eta jai galtzen dituztela ikusten dutenean, azkenean haurren familiek aukeratzen dute hurrek ospakizun erlijioso katolikoetan parte hartzea.

«Hain txikiak direnean ez diote garrantzi handirik ematen. Lehen Hezkuntzan hasten dira kezkatzen, badakite hemen (Haur Hezkuntzan), lantzekotan, lau balio lantzen ditugula, lau jai, oso txikiak baitira; erlijio katolikoari dagokionez, zertzelada batzuk dira; oso txikiak dira, eta haiek badakite, baten batek galdetu dit eta... ´eta zer lantzen duzue erlijioan?´ Matematikan edo emozioetan zer lantzen dugun ez zaie axola, baina egia da batzuk pixka bat gehiago kezkatu izan direla erlijioaz, eta zer egiten dugun aipatu diedanean, garrantzi handirik ez duela ikusi dute» (B eredu, itunpekoa)

«Gehienek badakite hau ikastetxe katoliko bat dela, eta onartu egiten dute, haiei segurtasuna ematen baitie pribatua eta katolikoa izateak, sarritan haien erlijioarekin bat ez datorren arren; eta, adibidez, batzuk erlijioa emateaz salbuetsita daude, marokoarrak, batez ere, ez dutelako nahi, baina konturatzen direnean bakearen jai, Gabonetako jai eta abar daudela, eta haien semea edo alaba aparte geratzen hasten dela, iritziz aldatzen dira asko; izan ere, nik azaltzen diet ´jarduera askotatik geratzen da kanpoan zure semea edo alaba´, eta asko aldatu egiten dira, ´ze nik etxean nahi dudana erakusten diot, eta hemen zer den ikusten du´, eta gehienak oso tolerantiek dira horretan» (B eredu, itunpekoa)

Laburbilduz

Erakutsi ditugun lekukotasunek adierazten dute oso tarte txikia dagoela erlijioak sinesmen-sistema gisa ulertzetik errealitate soziokultural baten adierazpen gisa ulertzera. Ikusten da ikastetxeek bi alderdiak uztartu behar dituztela, sentsibilitate erlijioso guztien iragazki sinbiotikoa izateko zeregina duten aldetik.

Normala denez, berdinen taldeak erlijioan egiten duen presioa arintzen denean eta erlijioaren benetako alderdia agertzen denean (bizitzari zentzua ematen

dion sinesmen-sistema izanik, eta ez tradizioan oinarrituta homogeneizatzen ahalegintzen den gertaera soziokulturala), aniztasun-, tolerantzia- eta elkarbizitza-maila nabarmen areagotzen da.

Parte-hartzea ikastetxean

Atzerritar jatorriko familiek ikastetxeko jardueretan parte hartzea funtsezkoa da haien seme-alabak hezkuntzan integratzeko. Atal honetan, atzerritar jatorriko familiek ikastetxean zer partaidetza duten aztertuko dugu, eta parte-hartze hori bultzatzen duten alderdiak eta zailtzen duten oztopoak adieraziko ditugu.

Abiapuntu gisa, kontuan izan behar da atzerritar jatorriko familien parte-hartzea txikiagoa izaten dela, oro har, bertako familia baina. Litekeena da egoera hori esplikatzen arrazoi nagusietako bat atzerritar jatorriko familien ezjakintasuna izatea, familia horiek ez baitute jakiten nola jokatu ohi dugun gure gizartean eta, zehazki, zer harreman izan behar duten ikastetxearekin. Horri, gainera, bakoitzaren egoeraren arabera kontuan hartu behar izaten diren zenbait muga gehigarri erantsi behar zaizkio: hizkuntza hitz egiten ez jakitea edo hitz egiteko zailtasunak izatea; lan-egoera eskasa; familien hezkuntza-maila ertaina edo baxua; seme-alaben kopurua, eta, oro har, familia-sarerik ez izatea zaintza-lanetan laguntzeko.

Aurrekoari garrantzirik kendu gabe, onartu beharra dago familiek interesa dutela seme-alaben hezkuntzan parte hartzeko, eragozpenak eragozpen. Izan ere, zailtasunak dauden arren, ikusten da badirela familiei ikastetxeko ekintzetan parte hartzen laguntzen dieten zenbait faktore, hurrengo etapetan baino gehiago bai, behinik behin. Hala, Haur Hezkuntzako etapan, talde barneko interakzioa indartzen duten zenbait konfiantza-lotura eta harremanetarako eremu ezartzen dira familien eta ikastetxearen artean. Aipa ditzagun, esate baterako, familiek egunero ikastetxeko tutorearekin duten harremana, familiak egunero espazio edo eremu berean elkartzea, bai eta beste partaidetza-mekanismo batzuk ere, hala nola bertako biztanleriaren eta atzerritar jatorrikoaren ohiturak eta tradizioak partekatzea, familiei protagonismo handia emanez.

Pertsona adituen eta hezitzaileen lekukotasunen arabera, etapa horretako familien parte-hartzea ikastetxeak egindako harrera onarekin hasten da, harrera horrek konfiantza sortzeko eta familiakoak ikastetxeko ekintza guztietan parte hartzera gonbidatzeko balio baitezake.

Kontuan izan behar da familia asko hezkuntza-sistemara hurbiltzen diren lehen aldia dela. Horregatik da funtsezkoa harrera ona egin zaiela sentitzea, seme-alabak ere hobeto sentituko direlako, horrela.

Familia asko hezkuntza-sistemara hurbiltzen diren lehen aldia da. Horregatik da funtsezkoa harrera ona egin zaiela sentitzea, seme-alabak ere hobeto sentituko direlako, horrela.

Prozesu horretan, oinarritzkoa izaten da tutorea, lotura-lanak egiten baititu haurraren, haren familiaren eta ikastetxearen artean. Hezkuntza-etapa honetan, haurraren mundua familia da, garrantzitsuena da familia, eta adituek diote berebiziko garrantzia duela haurrak ikastetxea bere bigarren etxea dela sentitzeak, nolabait esatearren:

«Funtsezkoa da familiei hasieran laguntzea, komunitateko kide direla senti dezaten; ondo sentitzen badira, hori hurrei ere iritsiko zaie (...)Haurra ez da ezer bere familiarik gabe... Eskubidea du sentitzeko bere familia dagoen onena dela, inor ezin dela bere familiarekin sartu eta bere familia errespetatu egiten dutela. Komunitateak eskubide bat dela onartu behar du, eta zuk, Haur Hezkuntzako irakaslea zaren aldetik, oso argi izan behar duzu» (Berritzegunea, Irun)

Irakasleen eta familien arteko kontaktua egunerokoa eta oso estua izaten da, eta garrantzi handia du ondo egokitzeko, lagundu egiten baitie hurrei eskolara alaiago eta lasaiago joaten:

«Nik oso tratu handia dut gurasoekin. Gurasoak ikasgelaraino etortzen dira hurrekin. Gustuko dut gurasoek haurrak ikasgela barruan uztea... eta goizero hitz egiten dut haiekin, zer moduz dauden galdetzen diet... Izan ere, hurrek ikustea gurasoak ikasgelan sartzen direla eta ezer ez dela gertatzen, haiek hemen geratuko direla, gurasoen eta nire artean komunikazioa dagoela, hori askoz hobea da haiek ondo egokitzeko eta pozik eta lasai etortzeko, eta nik, egia esan, gustuko dut gurasoekin hitz egitea» (D eredu, publikoa: 2)

Tutoreak ez ezik, pertsona adituek eta irakasleek ere ikastetxearen garrantziaz hitz egin digute, hasieratik gurasoekin konfiantza- eta konplizitate-maila handiagoo sortzeko tresna pribilegiatua baita. Familiek ikasgelan sartzeko eta han seme-alabak uzteko aukera izateak eta hurrek hori ikustea nolabaiteko sinbiosi-maila ematen dio guraso-ikastetxe erlaziori, eta horrek asko laguntzen dio haien integrazioari eta partaidetzari. Ikastetxeko baliabide guztiak eskuragarri jartzen dira harreman horri laguntzeko: korridoreak, ikasgelak... Oso ideia oinarritzkoa da: gurasoak gustura sentitzea eta hurrek gurasoen interakzioa naturaltasunez ikustea:

«Espazioan edo eremuetan pentsatzean, ez dituzu ikasleak soilik kontuan hartu behar, baita familiak ere. Korridorean sofa bat ere jar dezakezu, eser daitezen, eta kafe bat hartzeko zerbait baduzu, hobeto» (D eredu, publikoa: 2)

«Gurasoak sartu, eta haurrak uzten dituzte ikasgelan. Gurasoak ikasgela barruan dauden une bat da. Garrantzitsua da hurrek hori ikustea, lasaitasuna ematen die eta» (B eredu, itunpekoa)

«Esekitokia ikasgela barruan badago, familiek sartu egin behar dute, eta egunero sartzen badira, harremana sortzen da. Bestela, nahita jartzen dituzu leku horiek, sar daitezen» (D eredu, publikoa: 2)

Ikastetxeko sarrera-irteerak dira irakasleen, gurasoen eta haurren arteko interakzioari laguntzen dioten beste espazio edo eremu oso garrantzitsu batzuk, aurreko atal batzuetan aipatu dugun bezala. Oso une egokia da interakziorako, ohikoa izateak eta, horren ondorioz, konfiantzazko harremana sortzeak garrantzi berezia ematen baitio; izan ere, aukera ematen du pertsona berak aldi behin elkartzeko; normalean amak izaten dira, haiek arduratzen dira eta haurrak eramateaz eta jasotzeaz. Hala, ikusten da seme-alabak jasotzera joan ohi diren ama horietako batzuk lagun egiten direla, eta jarduerak egiteko antolatzen hasten dira:

«Nik uste dut garrantzitsuena, lehenik, lagunak egitea izan zela, elkarrekin hitz egitea, eta hasieran XXXko (Saharaz hegoaldeko herrialdea) AAArekin izan zen [...]. Gu hasi ginen, eta taldetxo bat hasi zen haurrekin, eta haurrak lagun egiten joan ziren; ez dira adin berekoak, baina oso ondo konpontzen gara guztiok elkarrekin [...]. Istripuagatik sortu zen; nik interesa agertu nion eta galdetzen hasi nintzen, izenaz agurtzen, kaixo... eta, gero, oporrak iritsi ziren, eta esan nion: 'Ba al dakizu ni paseatzera joaten naizela alabekin? Ibiltzea gustuko dut, parke batera baino gehiagora eramaten ditut, ogitartekoa jaten dugu [...]. Etorri nahi al duzu?' Ba, horrela hasi ginen. Ez du zerikusirik (adineki buruz). Eta haurrek asko maite dute elkar, errespetua diote elkarri. Nik haren erlijioa errespetatzen dut, errespetatu egin behar duzu eta. Hura XXXkoa da (Saharaz hegoaldeko herrialdea), eta ama izatea da amankomunean duguna... gaztelaniaz hitz egiten zuen, eta pixka bat kostatzen zitzaion, baina oso azkarra da... eta, gero, brasildar bat ere etorri zen, eta oso harrera adeitsua egin genion, baina hura joan egin zen eta guztia...» (aita/ama, Mexiko)

«Egindako lanaren alderdi horretaz sentitzen zara harro, hor ikusten baituzu egindako ahaleginaren emaitza, eta zeure buruari esaten diozu: 'zein ona litzatekeen sarreteran eta irteeretan guztiok horrela jokatzaren duten gizarte bat lortzea, elkarrekin egoten saiatzen baitira guztiak, gizon eta emakume...» (D eredua, publikoa: 2)

Gainera, badaude ikastetxean parte hartzeko mekanismo formalagoak, hala nola irakasleek gurasoekin egindako bilerak; bilera horietara familiak (amak, batez ere) seme-alaben bilakaera ezagutzeko joaten dira. Ildo beretik, partaidetza instituzionalagoa ere izan dezakete, hala nola ordezkartza-organoetako kide izatea (Eskola Kontseilua, Gurasoen Elkarteak); azken horietan, oso gutxi parte hartzen dute. Hala ere, ikastetxe batzuetako atzeritar jatorriko gurasoak antolatzen hasi dira: Gurasoen Elkarteko kide egin dira, ikastetxetik kanpo elkartzeko, urtebetetzeak ospatzeko, txangoak egiteko, museoetara joateko... Nola edo hala, talde horiek elkarren laguntzatik sortu dira, eta denbora libreko talde bat bezala ari dira funtzionatzen. Atzeritar jatorriko familia horietako gehienek ezaugarri komun hauek dituzte: gizarte- eta hezkuntza-maila altua dute eta jatorriko herrialdeetan partaidetza-esperientziak dituzte. Ama horiek, halaber, ikastetxeko beste ama batzuekin harremanetan jartzen dira, sareak osatzeko eta elkarrekin harreman estuagoa izateko:

«Astean behin kafe bat hartzera joaten gara, eta gure arazoez hitz egiten dugu, edo larunbatetan elkartzeko, batzuek lan egiten dute eta. Ardo bat hartu, eta itzuli egiten gara. Oso une atsegina izaten da. Hasieran hiru ginen, Lidlera joaten ginen,

ogi bat erosten genuen, eta guztiok ogia jaten etortzen ginen. Orduan galdetu nien: 'Eta zergatik ez gara kafe bat hartzeko geratzen?' Eta horrela hasi ginen beste ama batekin, beste batekin... eta elkartzen, elkarri deitzen, elkartzen... (...), (whatsapp taldeko) Nazioarteko Batzordea dugu izena. Kultura guztietako amak daude: Venezuela, Afrika, Bolivia... Iritsi berria den ama txinatar batek eta biok ere asko estimatzen dugu elkar, baina oraindik gaztelaniaz ondo hitz egiten ez duenez, ez da joatera ausartzen, baina beti gonbidatzen dugu; esan nion, eta baietz esan zuen, egun batean animatuko dela» (aita/ama, Mexiko)

Partaidetza sustatzeko beste modu bat ikastetxean garatzen diren planen bitartez izaten da: harrera-planak, aniztasun-planak, etab. Jarduera horien helburua familien arteko eta seme-alaben arteko harremana sustatzea da. Eskarmentuak erakusten duenez, atzerritar jatorriko familiek, hasieran, mesfidantza edo lotsa izaten dute edozein jarduera proposatzeko edo beren burua parte hartzeko eskaintzeko. Sarritan, horrela jokatzeko arrazoia ez da izaten nahi ez izatea; aitzitik, haiek bizi duten egoera ezegonkorrak eragindako baldintzek behartuta jokatzeko dute horrela: gurasoen lanaldi luzeak, mugak hizkuntzaren erabileran, gizarte- eta hezkuntza-maila baxuan oinarritutako segurtasunik eza eta, zenbaitetan, laguntzarik eza beren seme-alabak familiako baten zaintzapean uzteko. Dena dela, eskarmentuak esaten digu irakasleak hurbiltzen zaizkienean eta gauza zehatzetan eta puntualetan parte hartzeko eskatzen dietenean, familiek, gehienetan, oso jarrera ona izaten dutela. Zenbait hezitzailearen eta adituren lekukotasunek hala erakusten dute:

«Gogor ari gara lanean, zenbait proiekturen bitartez» (B eredu, itunpekoa)

«Ikastetxean, bertako familiak militanteak dira... Ez euskarari dagokionez soilik, baita aniztasun-kontuetan ere» (D eredu, publikoa: 2)

«Egia esan, ikastetxeko familia euskaldunak dira benetan militanteak, baina ez euskararen militanteak soilik, baita kulturartekotasunaren eta feminismoaren militanteak ere. 'Guk ikastetxe hau aukeratu dugu, hauxe dugulako gustuko eta hauxe nahi dugulako' esaten dute. Ama feministak ditugu, eta horiek dira gainerakoak diren modukoak errespetatzearen aldekoenak; haiekin egon behar dugu, 'ekarri egin behar ditugu', esaten dute. Feministak ahalegintzen dira gehien integratzen, haiek saiatu dira menuak sartzen, 'halal' saltxitxa...» (D eredu, publikoa: 2)

«Esate baterako, gurasoak mahaiak eta agertokia jartzeko prest egoten dira, eta, gainera, gustuko dute; haiek ez dute inoiz beren burua eskainiko, baina zu hurbiltzen bazara, sekula ez dizute ezetz esango» (D eredu, publikoa: 2)

«Adibidez, zu zuzenean joaten bazara haiei esatera, ez dute inolako eragozpenik, gehienetan. Beste batzuetan, boluntario etortzen zaizkizu, baina oso gutxi egiten dute hori... Baina zu joaten bazara eta esaten badiezu 'begira, hau landu behar dugu, beste hau egin nahi dugu, zer iruditzen zaizu?'» (D eredu, publikoa)

Ikastetxean parte hartzeko ohiko moduetako bat kulturarteko asteko ekintza puntualak dira, edo atzerritar jatorriko familien ohiturak eta tradizioak hurbiltzeko eta partekatzeke ikasturtean zehar egiten diren noizean behingo ekintzak. Ekintza horien oso balorazio positiboa egiten dute familiek eta haurrek:

«Ikastetxean, kulturarteko astea ere egiten dugu, adibidez; orduan, gurasoak etortzen dira beren hizkuntzan ipuinak kontatzera, edo beren herrietako ipuinak kontatzera; hennarekin ere etorri izan dira, eskuetan marrazkiak egiteko, edo beren herrietako janari tipikoak ekarri edo prestatu izan dituzte. Bueno, inplikatu egiten dira [...], oso gustura etortzen dira, edozein, ikastolako jarduera batean parte hartzeko esaten diozun edozein guraso. Hau da, oso gustura egoten dira, primeran bizi izaten dute, oso pozik» (D eredu, publikoa)

Atzerritar jatorriko familien partaidetza sustatzeko, garrantzitsua da konfiantza sortzea eta haien ohiturei eta tradizioei balioa ematea. Gainera, atzerritar jatorriko familiek oso ondo hartzen dute hori.

«(Nola egin duzue parte har dezaten?) Bada [...], ikastetxeari beldurra galtzeko, etortzera gonbidatu ditugu, ipuinak kontatzera [...]. Data jakin batzuk ditugu: kulturarteko astea, liburuaren eguna [...]. Eta batzuk etorri egin dira. Gero, hennatailer bat antolatzen dugu kulturarteko astean, eta haurrei eta guri eskuak hennaz margotzera etortzen dira. Haiek erakartzeko modu bat da. Ez, ez guk nahi adina, baina urratsez urrats...» (A eredu, publikoa)

Atzerritar jatorriko familien partaidetza sustatzeko, garrantzitsua da konfiantza sortzea eta haien ohiturei eta tradizioei balioa ematea. Gainera, atzerritar jatorriko familiek oso ondo hartzen dute hori.

Atzerritar jatorriko familiek ere egiten dituzte proposamenak beren ohiturak eta tradizioak erakusteko eta gainerakoekin partekatzen.

«Gurasoek orain sorpresa bat prestatu diegu. Amok baserritar jantzi behar dugu eta dantza batzuk egin behar ditugu, amok. Hori sorpresa bat izango da haientzat, eta ez diegu ezer esan. Ikastetxea pixka bat goratu nahi dugu, eta atera [...]. Jaurrera atera...» (aita/ama, Venezuela)

Familiek ikastetxean antolatzen diren jaietan ere parte hartzen dute. Urte osoan zehar jaiak eta ospakizunak partekatzen dituzte espazio edo eremu bihurtzen da ikastetxea: esate baterako, San Tomas egunean, Gabonetan (Olentzero), Santa Agata egunean, inauterietan... Haurrak jaietako arropa tipikoarekin joaten dira ikastetxera (makila bana eramaten dute Santa Agatan...); hala, familiek ere parte hartzen dute, seme-alabak arropa tipikoarekin jantziz, makila bana eramanez edo beste era batera. Eta familiek ondo hartzen dute, seme-alabak pozik ikusten dituzte eta.

«Santa Agatan, gurasoek ez dute zuzenean parte hartzen, baina seme-alabentzat makila bana ekartzeko eskatzen diegu...» (D eredu, publikoa: 2)

«...Jaiak antolatzeko orduan, batzorde misto bat dago, non familiek parte hartzen duten; edo Gabonetarako, adibidez, munduko postreak ekartzen dituzte. Deialdia besterik gabe egiten baduzu, zail egiten zaie, baina familiengana zuzenean jotzen baduzu... 'aizu, egingo al zenuke?'... Oso gustura egiten dute, eta, gero, adibidez, Gurasoen Elkarteak familiengana hurbiltzen da, erakartzeko, elkartera ekartzen saiatzen gara, parte har dezaten. Hala, aurten San Tomas egunean, 'halal' txistorrarena lehen aldiz egiteko aukera izan dute, amak zeudelako elkartean. [...]. Eztabaida bat sortu zen haien artean, eta azkenean 'halal' saltxitxak irabazi zuen; ikasturte amaierako bazkarian –famiak gonbidatzen ditugu horretara ere– menu

«Jaiak antolatzeke orduan, (...) deialdia besterik gabe egiten baduzu, zail egiten zaie, baina familiengana zuzenean jotzen baduzu... 'aizu, egingo al zenuke?'... Oso gustura egiten dute» (D eredia, publikoa: 2)

begetariano bat aukeratu zuten; bi urte daramatzagu dagoeneko» (D eredia, publikoa: 2)

Ez dago zalantzarik, seme-alabek lotzen dituzte gurasoak eta harrera-gizartea. Elkarrizketatutako familia batzuek euskal gizarteko ohiturak eta tradizioak bereganatzen ari direla aipatu dute, eta jaietan eta tradizioetan parte hartzen dutela kontatu dute, arrantzale jantziz herriko jaietan ateratzeko, edo etxean, ohitura batzuk moldatuz.

«Bai, semeak gustuko ditu eskolako jaiak. Eskolan jairen bat dutenean, nire semea pozik egoten da; jairako jantzia erosteko esaten dit, eskolan jaia dagoela; urtebetetze-eguna denean ere bai, hori ere gustuko du» (aita/ama, Nigeria)

«Hemengo ohitura batzuk hartzen dituzu. Bilboko jaietan, gona txiki bat janzten dut neskatoekin; euskal herritar bat gehiago sentitzen naiz, nire gona txikiarekin, zapata txikiekin, hemen egiten diren jatorduak egiten, lehen platera, bigarren platera. Guk Latinoamerikan guztia plater batean jaten dugu. Batzuetan hala egiten dut, eta alabak konturatu egiten dira: 'ama, gaur Venezuelan bezala atera diguzu; ama gaur Euskal Herriko erara atera diguzu'» (aita/ama, Venezuela)

«Denean parte hartu dute, eta nik ere bai, alderdi horretan lagunduz, ze hemen gaude, eta nik ez diet esango hau edo hori ez dutela jantziko... Beti gustatu izan zait nire gauzetan serio jokatzea [...]. Beraz, gonak eta zapatak erosi nizkien, eta pozik; andereñoak etorri zirenean, 'hara! bi venezuelar euskaldunez jantzita'... Alabak beti joaten dira ondo Bilboko jaietan, beti janzten dituzte beren gonak Bilboko jaiak direlako» (aita/ama, Venezuela)

Laburbilduz

Goiko lekukotasunek erakusten dute atzerritar jatorria duten familien partaidetza ez dela egintzat jo behar; aitzitik, pixkanaka-pixkanaka landu behar den zerbait da, eta horretarako aukerak sortu behar dira. Aztertutako ikastetxe guztietan ikusten da zein handia den gurasoak prozesu horretan sar daitezen egin beharreko ahalegina.

Poliki-poliki ari dira sortzen partaidetza-esperientziak ikastetxeetan.

Horregatik, hasiera batean, atzerritar jatorriko familiek parte-hartze txikia izaten dute ikastetxeetako eguneroko jardunean eta gurasoen elkarrekin, baina poliki-poliki ari dira sortzen partaidetza-esperientziak. Kasu horietan, partaidetzaren gakoak familien kultura-maila ertaina edo altua, jatorrizko herrialdeetan partaidetza-esperientziak edukitzea eta interakziorako gaitasun altua izaten dira. Euskararekin, kulturartekotasunarekin, aniztasun-planekin, feminismoarekin eta abarrekin konpromiso handia dagoen ikastetxe mistoetan (familia euskal herritarrak eta atzerritar jatorriko familiak) ere ari dira partaidetza-esperientziak gertatzen.

Atzerritar jatorriko familietan euskal gizarteko jokamolde kulturalen, ikastetxeen dinamiken eta abarren ezjakintasuna dago (normalena da horrela gertatzea, zer testuingurutatik datozen kontuan izanda). Horrek, hasiera batean, atzera eginarazten die atzerritar jatorriko familiei. Konfiantza tutorearen bitartez joaten da sortzen, hezkuntza-etapa honetan gurasoek egunero baitute harekin harremana, eta, oro har, hura izaten da komunikazio-lotura ohikoena eta azkarrena.

Adierazi dugun bezala, Haur Hezkuntzan familiekiko harremana nahiko ohikoa izaten da, eta horrek erraztu egiten die atzerritar jatorriko pertsoneri ikastetxea-familia interakzioa, edozein dela ere familiaren jatorria. Harreman hori errazteko, familiei ikastetxean zirkulazio askea uztearen aldeko apustua egin dute ikastetxe batzuek, gurasoei seme-alabekin ikasgelaraino sartzeko aukera emanez; beste batzuetan, berriz, zenbait estrategia erabili dituzte interakzioa sustatzeko: esekitokia barnean ipintzea, gurasoak sar daitezzen; korridorean sofa bat jartzea... Edozein estrategia balio du lortu nahi den helburua erdiesteko.

Ikastetxeko sarrerak eta irteerak ere espazio edo eremu pribilegiatu bihurtzen dira, ikastetxeetara joaten diren haurren familien arteko harremana areagotzeko. Espazio horietan, gurasoek elkar agurtzen dute, bertako pertsonekin hitz egiten dute batzuetan, eta antolatu egiten dira; halakoetan, jatorri etnikoa erabakigarria izaten da, oro har, parte hartzen hasteko mekanismo gisa. Harreman hori egunerokoa izaten da eta, orokorrean, lehen urteetan mantentzen da, modu naturalean gertatzen baita gurasoen arteko aldian behingo kontaktua.

Funtsezkoa da euskal gizarteko ohiturak eta tradizioak atzerritar jatorriko familiek dituztenekin partekatzea. Familien partaidetza bultzatuz jarraitu behar da, beren jatorriko herrialdeko kultura ikastetxean egindako jardueren bidez erakuts dezaten: kulturarteko astea, ikastetxeko jaiak, etab. Eta, azkenik, atzerritar jatorriko familien partaidetza sustatu behar da euskal ohitura eta tradizioetan.

Haur Hezkuntzan familiekiko harremana nahiko ohikoa izaten da, eta horrek erraztu egiten die atzerritar jatorriko pertsoneri ikastetxea-familia interakzioa, edozein dela ere familiaren jatorria.

Funtsezkoa da euskal gizarteko ohiturak eta tradizioak atzerritar jatorriko familiek dituztenekin partekatzea.

2

Ondorioak

Euskal hezkuntza-sisteman hasteko prozesuarekin lotuta azaldu diren alderdiek adierazten dute integratzea arian-arian gertatzen den mekanismo bat dela, eta, ezinbestean, zenbait etapa gainditzea dakarrela berekin; izan ere, atzerritar jatorriko familiek alderdi asko dituen integrazio-prozesu bat bizi behar izaten dute ingurune berrira moldatzeko. Alde horretatik, ez da batere erraza bizimodu normalizatua lortzea zenbait alderditan (hala nola etxebizitza, lana, hezkuntza, osasuna...), alderdi horiek hain garrantzitsuak eta desberdinak direnean, batik bat; eta denbora-tarte bat behar izaten da, luzeagoa edo laburragoa, kasuak kasu, harrera-gizarteko (hau da, euskal gizarteko) egiteko moduetara ohitzeko.

Baina gainditu behar dituzten erronka guztien artean, hezkuntzak badu zerbait berezia. Besteak beste, hezkuntzak migrazio-prozesuarekin zuzenean lotuta dauden pertsonen eragiteaz gain, haien ondorengoei ere eragiten dielako, gehien maite dituzten haiei, alegia; eta ondorengo horiek, gurasoek ez bezala, ez dute atzera-bueltarik, gure artean jaio direlako eta aurreko beste errealitatek ezagutzen ez dutelako.

Egoera hori, atal guztietan ikusi dugun bezala, ‘kanpokoek’ eta ‘barnekoek’ edo ‘bertakoek’ eta ‘atzerrikoek’ arteko harremanak normalizatzeko aukera bikaina da, nahiz eta termino horiek, zoritxarrez, oraindik gainditu ez ditugun ‘barne-mugak’ azaleratzen dituzten. Beste erakunde batzuk ez bezala, ikastetxeak, gero eta anitzagoak direnez, funtsezko elementu bihurtu dira, haietan oinarrituta integrazio-politikak garatu baitaitezke egunero-egunero sortzen eta eraikitzen ari den (eta bizitzen ari garen) gizarte berri honetan.

Datuek eta lekukotasunek erakusten dute etnia- eta arraza-ezaugarriekin lotutako desberdintasunak ez direla jaiotzatikoak, geroago sortuak baizik. Galdetutako pertsona aditu guztiek diote ikaskuntzaren lehen etapetan haurren interakzioak eta harremanak erabateko naturaltasunez eta normaltasunez

gertatzen direla, eta haien arteko aldeak, daudenean, ‘modu artifizialean’ sortutako egoeren ondorio direla, eta ez emaitza naturalak: gizarte-eraikuntzak sortutako desberdintasunak direla, alegia. Horrek ez du esan nahi ezkutatu egin behar denik aniztasunean oinarritutako proposamen bat mugez, estereotipoz eta oztopoz beteta dagoela, eta horiek, zenbait kasutan, ezinbesteko talka kultural batetik datozela. Baina borondatea dagoenean guztia gaintitu daitekeela ere ikusi dugu. Gizarte integratu bat lortzeko asmoaren emaitza ahalegin kolektiboaren arabera izango da, eta ahalegin hori bi aldeek egin beharko dute, gizarte kohesionatu batean bizi ahal izateko.

Atzerritar jatorriko 0-6 urteko haurren Haur Hezkuntzako etapa funtsezko fasea da haur horien familiakoek harreman-, interakzio- eta partaidetza-eremuak lantzeko harrerako euskal gizartean eta eskolako ikaskideen familiakoekin.

Fase horretako kontaktuen naturaltasunak eta kontaktu horietatik sortzen diren tutoreen, irakasleen eta atzerritar nahiz euskal jatorriko gurasoen arteko harreman positiboek ahalmen handia dute gizarte-inklusiorako eta –integraziorako eragile gisa.

Fase horretako kontaktuen naturaltasunak eta kontaktu horietatik sortzen diren tutoreen, irakasleen eta atzerritar nahiz euskal jatorriko gurasoen arteko harreman positiboek ahalmen handia dute gizarte-inklusiorako eta –integraziorako eragile gisa.

Ikastetxeek eta gure auzoetako eta herrietako aisialdi-espazio publikoek sekulako garrantzia dute, herritarren arteko tratuan berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko eremu pribilegiatuak baitira. Hezkuntzak bere funtzio nagusietako bat betetzeko aukera du; hau da, jatorrian pertsonen artean dauden gizarte-desberdintasun bidegabeak zuzentzeko mekanismoa izatea.

Gure ustez, botere publikoek, hezkuntza-arloak duen ahalmen izugarria kontuan izanda, giza baliabideak eta baliabide materialak eman behar dizkiote hezkuntzari, bere funtzioa behar bezala bete dezan eta talde, kolektibo eta kategoria sozial guztien gizarte-mugikortasuna ahalbidetu dezan, edozein dela ere haien nazionalitatea, jatorrizko herrialdea edo familiaren jatorria. Erronka handi horri egin behar dio aurre gaur egungo gure gizarteak, etorkizunean eraikitzen den komunitatea anitza eta inklusiboa izan dadin; hau da, herritartasun-eskubideetan, tratu-berdintasunean eta pertsonarik ez diskriminatzean oinarritutako komunitate bat.



ERANSKINA

Pertsona adituei eta irakasleei elkarrizketa sakonak egiteko gidoia

LEHEN ATALA: IKERKETAREN SARRERA ETA AURKEZPENA

- Helburu orokorrak
- Proiektuaren faseak, oro har
- Haur Hezkuntzako fasearen helburuak eta metodologia: behaketa.

TESTUINGURUAN JARTZEA (PERTSONA ADITUENTZAT SOILIK) (ESPONTANEOA)

- Aurretiazko zenbait funtsezko alderdi, hau bezalako bigarren belaunaldiko haurren hezkuntzari buruzko ikerketa baterako: oharrak, ikuspegiak, salbuespenak, berezitasunak, joerak.
- Interes-guneak. Zer den garrantzitsua eta zer osagarria hau bezalako ikerketa batean.

BIGARREN ATALA

HEZKUNTZA

1. Hezkuntza-sistema
 - Mailen araberrako aldeak
 - Sarearen araberrako aldeak ekintzetan: publikoa, pribatua
 - Epez kanpo egindako matrikulazioen eragina
 - Bertako ikasleekiko aldeak
 - Hezkuntza-arloak (gaien eta programen ordez)
 - Hezkuntzan inplementatzen diren harrera- eta aniztasun-politikak

2. Irakasleak:

- Jarrera. Zer eginkizun eta funtzio betetzen ari diren
- Nola ari diren haiekin lan egiten. Hezkuntza-mailaren araberako aldeak
- Tutorea
- Familiekiko harremanak
- Irakasleen prestakuntza
- Estereotipoak...

3. Eskola-errendimendua:

- Emaidzak, ebidentziak
- Bertako ikasleekiko aldeak
- Ereduak eta hizkuntzak
- Eskola-arrakasta eta -porrota. Adierazleak, ikasgelan ikusten diren zantzuak.

FAMILIA

1. Familiaren asmoak
2. Familiaren eragina
3. Erljioaren eragina gizarteratze- eta hezkuntza-prozesuetan
4. Hizkuntzaren eragina gizarteratze- eta hezkuntza-prozesuetan
5. Kulturaren eta balioen eragina gizarteratze-prozesuetan: genero-rolak
6. Familiek hezkuntza-sistemarekin eta beste familia batzuekin duten interakzioa
7. Eskola gurasoek beste familia batzuekin interakzioa izateko eremu gisa. Nolakoak dira interakzioak eremu horretan? Ba al dago berezitasunen bat? Ba al dago alderik bertako familien eta atzerritar jatorrikoen artean? Nolakoak dira harreman horiek?
8. Hezkuntza-sistemari etxetik emandako laguntza. Adierazleak

Behaketan oinarrituta:

- Gurasoek hezkuntza-ingurunean dituzten interakzio-moduak
- Familien eta irakasleen arteko harremana: familien eta irakasleen arteko harremanaren adierazle tipoa
- Beste guraso batzuekiko interakzioak. Bertako gurasoen eta atzerritar jatorrikoen arteko harremanaren adierazle tipoa
- Bertako familien eta atzerritar jatorriko familien arteko alderdi desberdinak

KOMUNITATEA

1. Komunitatea: berdinen taldea, ingurunea, gizartea

- Haurrengan duen eragina
- Aisialdia eta sozializazio-eremuak
 - Kirola
 - Eskolaz kanpoko jarduerak
 - Erlijioaren eragina
- Estereotipoak eta diskriminazio- eta integrazio-egoerak

2. Haurrak

- Egokitze-prozesuak
- Zailtasunak: hizkuntza, hezkuntza-maila, kultura- eta erlijio-desberdintasunak, desberdintasun sozioekonomikoak
- Zer taldetakoak (sentitzen) diren eta identitateak
- Egokitze-prozesuak

Behaketan oinarrituta:

- Adierazleak haurren egokitze-prozesuetan
- Zailtasunen adierazleak: hizkuntzan, hezkuntza-mailan, kultura- eta erlijio-desberdintasunetan, desberdintasun sozioekonomikoetan
- Zer taldetakoak (sentitzen) diren eta identitateak zehazteko adierazleak
- Interakzioaren adierazleak

ELKARBIZITZA ETA INTEGRAZIO-PROZESUAK

1. Ikasleak: harremanak, integrazio-prozesuak eta identitateak
2. Gaur egungo egoeraren eta aurreko urteetako egoeraren balorazioa
3. Krisiaren eragina

HIRUGARREN ATALA

ASMOAK ETORKIZUNARI BEGIRA

- Etorkizunean lan egiteko funtsezko alderdiak

Haur-hezkuntzako gurasoei egindako elkarrizketen gidoiak (alderdiak)

TESTUINGURUA

- Ezaugarriak: izena, adina, jatorria, Euskadin daraman denbora
- Migrazio-proiektua: hasierako asmoak eta gaur egungo egoeraren balorazioa
- Egoera sozioekonomikoa (etxebizitza, lana...) eta administratiboa
- Semearen edo alabaren egoera: ikasturtea; ikastetxea; asetasun-maila, oro har

FAMILIA-DINAMIKAK

- Haurra eta haren familia: norekin bizi den. Astegunetako dinamikak, aste-buruetakoak, aisialdikoak. Familia-dinamikak: etxeko-lanen banaketa
- Haurra eta ikastetxea: nork eramaten eta jasotzen duen; gauzen prestaketa (materialak, etab.) Nor den erreferentziazko pertsona ikastetxearentzat, arazoren bat gertatuz gero, etab.
- Familiakoen/lagunen/profesionalen laguntza

INTEGRAZIOA ETA GIZARTE-HARREMANAK

- Lagunak, ezagunak: jatorriak, harremanetarako lekuak eta maiztasuna, harreman-maila
- Seme-alabak joaten diren ikastetxeko gurasoak: harreman-maila
- Komunikazio-hizkuntza
- Euskara: garrantzia eta erabilera
- Erlijioa: zer garrantzi duen haien bizitzetan eta seme-alaben bizitzetan
- Ospakizunak eta jaiak, jatorriko kulturako ohiturak eta tradizioak, kontaktua euskal kulturarekin
- Identitatea. Euskal gizartearen zenbateraino integratu diren baloratzea. Norbaitek bere semeari edo alabari nongoa den galdetzen badio, zer erantzuten du?

HEZKUNTZA ETA ESKOLA

- Ikastetxea: hautapen-irizpidea, balorazioa; etorkizunerako asmoak (ikastetxe berean jarraitzea edo aldatzea)
- Irakaslearekiko edo tutorearekiko harremana, asetasun-maila, ikaskideen jatorria; jokabide disruptiboak
- Eskola-errendimendua: balorazioa
- Euskararen ikaskuntza
- Parte-hartzea eskolaz kanpoko jardueretan
- Parte-hartzea ikastetxean (antolakuntza, elkarteak, bilerak)
- Harremanak beste guraso batzuekin

ETORKIZUNEKO ASMOAK

- Seme-alaben asmoak: akademikoak, lanari eta bizitzari buruzkoak
- Gurasoen asmoak
- Etorkizuneko asmoak: itzultzea, berriz emigratzea, EAE, Estatuak, arrazoiak

Haur-hezkuntzako behaketa egiteko gidoia

IKASTETXEA: SARRERA

- Iristeko ordua (puntualtasuna...)
- Nola iristen dira? (autoz, autobusez, oinez...)
- Norekin iristen dira? (gurasoekin, beste haur batzuekin...)
- Ikusten al dira desberdintasunak jatorrien artean? Zein?
- Non uzten dituzte gurasoek seme-alabak? (sarrera, korridorea, ikasgela...).
- Seme-alabak uzten dituztenean, ba al dute harremanik irakaslearekin? Nolako da harreman hori?
- Seme-alabak uzten dituztenean, bakarrik ala beste guraso batzuekin alde egiten dute?
- Sortzen al dira harremanak gurasoen artean? Nolakoak dira harreman horiek?
- Sortzen al dira harremanak seme-alaben artean? Nolakoak dira harreman horiek?
- Beste ohar batzuk:

IKASTETXEA: IRTEERA

- Irteera-ordua
- Norekin iristen dira ikastetxera gurasoak? (bakarrik, beste guraso batzuekin...)
- Sartzen al dira ikastetxera?
- Ba al dute harremanik irakaslearekin gurasoek?
- Non geratzen dira gurasoak hurrekin, eskolatik irten eta gero? Irteeran, ikastetxeko jolastokian, gertuen dagoen parkean...
- Nola alde egiten dute? (autoz, autobusez, oinez...)
- Norekin alde egiten dute? Bakarrik, hurrekin, beste guraso batzuekin...
- Zer egiten dute? (jolasak, askaria, hitz egin...)
- Zer harreman dituzte gurasoek?
- Zer harreman dituzte hurrekin?
- Ikusten al dira desberdintasunak jatorrien artean? Zein?
- Beste ohar batzuk:


AISIALDI-EREMUAK

- Eremuaren edo espazioaren deskribapen laburra
- Zenbat haur dira bertakoak eta zenbat atzerritar jatorrikoak, gutxi gorabehera? (ezaugarriak)
- Eremuarekiko erlazioa: zer harreman duten ingurune fisikoarekin (eremua)
- Eremuarekiko erlazioa: zer harreman duten ingurune fisikoarekin (materialak)
- Beste pertsonetikiko harremanak (gurasoak...): zer harreman dituzten
- Beste pertsonetikiko harremanak (haurrak...): zer harreman dituzten
- Gurasoen arteko harremanak: zer harreman dituzten
- Zer egiten ari diren (jarduera planifikatuak, askeak, errutinak...)
- Nola egiten dituzten (jarduera planifikatuak, askeak, errutinak...)
- Jarrera disruptiboak. Ba al dute jarrera disruptiborik? Nolakoak dira jarrera horiek?
- Ikusten al dira desberdintasunak jatorrien artean?
- Beste ohar batzuk:

Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa

6-16 urte

Iraide Fernández Aragón, Julia Shershneva eta Maite Fouassier Zamalloa





AURKIBIDEA

Sarrera	341
1. Alderdi orokorrak	345
1.1 Lehen Hezkuntzako alderdi orokorrak	345
1.2 Bigarren Hezkuntzako alderdi orokorrak	356
2. Hezkuntza-esparrua	369
2.1 Lehen Hezkuntzako eskola-esparrua	369
2.2 Bigarren Hezkuntzako eskola-esparrua	379
3. Familia-esparrua	395
3.1 Lehen Hezkuntzako familia-esparrua	395
3.2 Bigarren Hezkuntzako familia-esparrua	401
4. Identitatea	409
4.1 Identitatea Lehen Hezkuntzan	409
4.2 Identitatea Bigarren Hezkuntzan	414
5. Gizarte-harremanak	427
5.1 Lehen Hezkuntzako gizarte-harremanak	427
5.2 Bigarren Hezkuntzako gizarte-harremanak	433
6. Ongizatea	439
6.1 Ongizatea Lehen Hezkuntzan	439
6.2 Ongizatea Bigarren Hezkuntzan	442
7. Itxaropenak	449
7.1 Itxaropenak Lehen Hezkuntzan	449
7.2 Itxaropenak Bigarren Hezkuntzan	454
Laburpena eta ondorioak	461
Eranskinak	467



GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula	Jatorri atzerritarreko 0 eta 24 urte arteko gazteen kategorizazioa.	342
2. taula	Lagin haztatuaren banaketa	343
3. taula	Atzerritar jatorriko ikasleen jaiotza-herrialdea, %	357
4. taula	Jatorrizko hizkuntza, %	366
5. taula	Borroken motiboak, %	370
6. taula	Irakasgaiak gustukoak dituzten edo ez, %	374
7. taula	Indarkeriaren motiboak, %	382
8. taula	Etxeko pertsona-kopurua jatorriaren arabera, % bertikalak	395
9. taula	Etxeko egoera ekonomikoa, atzerritar jatorria, ikastetxe-motaren arabera, % bertikalak	406
10. taula	Lagun-taldearen osaera ikastetxe-motaren arabera, atzerritar jatorria, % . . .	434
11. taula	Handitan zer izan nahi duten, %	449
12. taula	Seme-alaben etorkizun profesionalari buruzko gurasoen nahia eta errealitate posiblea, %	451
13. taula	Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen lan-etorkizunari buruzko nahia eta errealitate posiblea, %	455
14. taula	Seme-alaben etorkizun profesionalari buruzko Bigarren Hezkuntzako gurasoen nahia eta errealitate posiblea, %	457

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa	Banaketa lurralde historikoen arabera, %	345
2. grafikoa	Ikastetxe mota, %	345
3. grafikoa	Inkestatutako populazioaren sexua, %	346
5. grafikoa	Hizkuntza-ereduak, %	346
4. grafikoa	Hizkutzak, %	346
6. grafikoa	Inkestatuko pertsonen adina, %	347
7. grafikoa	Egoera zibila, %	347
8. grafikoa	Ikasketa-maila jatorriaren arabera, %	348
9. grafikoa	Inkestatutako pertsonaren erlazioa jarduerarekiko, jatorriaren arabera, %	349
10. grafikoa	Bikotekidearen erlazioa jarduerarekiko, jatorriaren arabera, %	349
11. grafikoa	Etxeko diru-sarrera nagusiak, %	350
12. grafikoa	Egungo etxeko egoera ekonomikoaren hautemate subjektiboa, %	351
13. grafikoa	Etxebizitza edukitzeko erregimena, %	351
14. grafikoa	Gurasoetako baten jatorria, %	352
15. grafikoa	Lehen Hezkuntzako haurren jaiotza-lekua, %	353
16. grafikoa	Gurasoen administrazio-egoera, %	353
17. grafikoa	Espainiara iristeko garaia, %	354
18. grafikoa	Jatorrizko hizkuntza, %	354
19. grafikoa	Banaketa LHka, %	356
20. grafikoa	Ikastetxe-motao, %	356
21. grafikoa	Inkestatutako populazioaren adina, %	356
22. grafikoa	Arintasunez hitz egiten dituzten hizkuntzak, %	357
23. grafikoa	Etxean erabilitako hizkuntzak, %	358
25. grafikoa	Egoera zibila, %	359
24. grafikoa	Hizkuntza-ereduak, %	359
26. grafikoa	Gurasoen hezkuntza-maila, %	360
27. grafikoa	Inkestatutako pertsonaren erlazioa jarduerarekiko, jatorriaren arabera, %	361
28. grafikoa	Bikotekidearen erlazioa jarduerarekiko, jatorriaren arabera, %	361
29. grafikoa	Etxeko diru-sarrera nagusiak, %	362
30. grafikoa	Egungo etxeko egoera ekonomikoaren hautemate subjektiboa, %	363
31. grafikoa	Etxebizitza edukitzeko erregimena, %	363
32. grafikoa	Gurasoetako baten jatorria, %	364
33. grafikoa	Bigarren Hezkuntzako ikasleen jaiotza-lekua, %	365
34. grafikoa	Gurasoen administrazio-egoera, %	365

35. grafikoa	Espainiara iristeko garaia, %	366
36. grafikoa	Borrokak ikasgelan, %	370
37. grafikoa	Norbera borroketan sartuta egotea, %	370
38. grafikoa	Borroken maiztasuna, %	370
39. grafikoa	Atzerritar jatorriko Lehen Hezkuntzako ikasleek bizi izandako egoerak, %	371
40. grafikoa	Ikasgelako ikaskideen arteko harremanen balorazioa, %	371
41. grafikoa	Ikastetxeak antolatutako ibilaldietako eta jardueretako parte-hartzea, % .	372
42. grafikoa	Eskolaz kanpoko jarduerak, %	373
43. grafikoa	Eskolaz kanpoko jarduera-motak, %	373
44. grafikoa	Kultura-aniztasunaren hautematea ikasgelan, %	373
45. grafikoa	Ikasgelarekiko eta ikaskideekiko asebetetze-maila, %	374
46. grafikoa	Ikasle-motaren autopertzepzioa, %	375
47. grafikoa	Ikastetxea aukeratzea. Lehen aipamena eta guztizkoak, % (Iradokitako erantzuna)	376
48. grafikoa	Ikastetxez aldatzea, %	377
49. grafikoa	Ikastetxe-aldaketen kopurua, %	377
50. grafikoa	Ikastetxearekiko harremana, %	377
51. grafikoa	Ikastetxearekiko harremanik ezaren motiboak, %	377
52. grafikoa	Kultura-aniztasunari buruzko iritzia, %	379
53. grafikoa	Ikasgelako kultura-aniztasunari buruzko iritzia, %	380
54. grafikoa	Atzerritar jatorriko ikasleen presentziari buruzko hautematea, %	380
55. grafikoa	Indarkeria ikastetxean, %	381
56. grafikoa	Indarkeria lehen pertsonan bizitzea, %	382
57. grafikoa	Ikasleek Bigarren Hezkuntzan bizi izandako egoerak, %	383
58. grafikoa	Ikasle gatazkatsuak, %	384
59. grafikoa	Gatazken maiztasuna, %	384
60. grafikoa	Ikaskideekiko harremana ikasgelan, %	384
61. grafikoa	Irakasleekiko harremanen balorazioa, %	385
62. grafikoa	Eskolaz kanpoko jardueretako parte-hartzea, %	385
63. grafikoa	Eskolaz kanpoko jarduerak, %	386
64. grafikoa	Eskolaz kanpoko jarduera-motak, %	386
65. grafikoa	Ikasgelarekiko asebetetze-maila, %	386
66. grafikoa	Eskola-errendimenduaren autopertzepzioa, batez besteko balioak	387
67. grafikoa	Balorazio baxueneko irakasgaiak, %	387
68. grafikoa	Maila noizbait errepikatu dute, %	388
69. grafikoa	Maila errepikatzeko aukera, %	388
70. grafikoa	Ikastetxeak emandako laguntza, %	389

71. grafikoa	Familiak emandako laguntza, %	389
72. grafikoa	Eskolara huts egitearen maiztasuna, %	389
73. grafikoa	Ikastetxea aukeratzea. Lehen aipamena eta guztizkoak, % (Iradokitako erantzuna)	390
74. grafikoa	Ikastetxez aldatzea, %	391
75. grafikoa	Ikastetxe-aldaketen kopurua, %	391
76. grafikoa	Ikastetxerako erreferentziazko pertsona, %	391
77. grafikoa	Ikastetxearekiko harremana, %	392
78. grafikoa	Ikastetxearekiko harremanik ezaren motiboak, %	392
79. grafikoa	Etxeko kideak, familiako jatorriaren arabera %	396
80. grafikoa	Anai-arreba kopurua, familiako jatorriaren arabera %	396
81. grafikoa	Bizi diren pertsonetikiko harremanak, familia-jatorriaren arabera, %	397
82. grafikoa	Etxeko egoera ekonomikoa, familia-jatorriaren arabera, %	397
83. grafikoa	Etxeko lanetako laguntza, atzerritar jatorria, %	398
84. grafikoa	Ikasleekin bizi diren pertsonen eskola-esparruko alderdiei buruz duten interesa, atzerritar jatorria, %	399
85. grafikoa	Etxeko pertsona-kopurua, atzerritar jatorria, %	401
86. grafikoa	Etxeko osaera, atzerritar jatorria, %	401
87. grafikoa	Anai-arrebarik baduten, jatorriaren arabera, %	402
88. grafikoa	Anai-arreben kopurua, jatorriaren arabera, %	402
89. grafikoa	Familiakoen arteko harremanak, atzerritar jatorria, %	403
90. grafikoa	Etxeko lanetan laguntzen dieten pertsonak, familia-jatorriaren arabera, %	403
91. grafikoa	Etxeko lanak egiteko laguntzaren maiztasuna, jatorriaren arabera, %	404
92. grafikoa	Ikasleekin bizi diren pertsonen eskola-esparruko alderdiei buruz duten interesa, atzerritar jatorria, %	405
93. grafikoa	Etxeko egoera ekonomikoa, jatorriaren arabera, %	405
94. grafikoa	Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %	410
95. grafikoa	Hautemandako desberdintasuna, atzerritar jatorria, %	410
96. grafikoa	Gurasoen erlijiozaletasun-maila, jatorriaren arabera, %	411
97. grafikoa	Zer erlijiotakoak diren, atzerritar jatorriko gurasoak, %	412
98. grafikoa	Jatorriko tradizioak eusteari atzerritar jatorriko gurasoek ematen dioten garrantzia, %	412
99. grafikoa	Etxean normalean erabiltzen dituzten hizkuntzak, atzerritar jatorria, %	414
100. grafikoa	Nazio-identifikazioa, atzerritar jatorria, %	415
101. grafikoa	Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %	415
102. grafikoa	Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %	416
103. grafikoa	Erlijiozaletasun-maila, jatorriaren arabera %	417

104. grafikoa	Erljio-pertenentzia, atzerritar jatorria, %	417
105. grafikoa	Familia-jatorriko tradizioei eusteko garrantziaren maila, jatorriaren arabera, %	418
106. grafikoa	Seme-alaba zer hizkuntzatan heziko zuketean, jatorriaren arabera, %	419
107. grafikoa	Seme-alaben erlijio-heziketa, jatorriaren arabera, %	419
108. grafikoa	Seme-alabak zer erlijiotan heziko zituzketen, atzerritar jatorria, %	420
109. grafikoa	Integrazio-maila euskal gizartean, jatorriaren arabera, batez besteko balioak	421
110. grafikoa	Gurasoen erlijiozaletasun-maila jatorriaren arabera, atzerritar jatorria, %	422
111. grafikoa	Erljio-pertenentzia, atzerritar jatorria, %	422
112. grafikoa	Jatorriko tradizioak eusteari atzerritar jatorriko gurasoek ematen dioten garrantzia, jatorriaren arabera, %	423
113. grafikoa	Lagun-kopurua jatorriaren arabera, batez besteko balioak	427
114. grafikoa	Lagunen familia-jatorria, lehen, bigarren eta hirugarren aipamena jatorriaren arabera, %	428
115. grafikoa	Lagun-taldearen jatorria, jatorriaren arabera, %	429
116. grafikoa	Jolaserako nahiago duten taldearen osaera, jatorriaren arabera, %	430
117. grafikoa	Gurasoen lagunak jatorria, jatorriaren arabera, %	430
118. grafikoa	Hiru lagun onenen jatorria, jatorriaren arabera, %	433
119. grafikoa	Lagun-taldearen osaera, jatorriaren arabera, %	434
120. grafikoa	Adin bereko neska-mutilekin partekatutako gustuak, sinesmenak, ohiturak eta arazoak jatorriaren arabera, %	435
121. grafikoa	Gurasoen lagunak jatorria, atzerritar jatorria, %	436
122. grafikoa	Ohiko gogo-aldarteak, atzerritar jatorria, %	439
123. grafikoa	Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, jatorriaren arabera, %	440
124. grafikoa	Pertsonarteko konfiantza, jatorriaren arabera, batez besteko balioak	442
125. grafikoa	Zoriontasuna, jatorriaren arabera, batez besteko balioak	443
126. grafikoa	Zoriontasuna, hizkuntza-ereduaren arabera, batez besteko balioak	443
127. grafikoa	Bizimoduarekiko asebetetze-maila, jatorriaren arabera, batez besteko balioak	444
128. grafikoa	Bizimoduarekiko asebetetze-maila, atzerritar jatorria, hizkuntza-ereduaren arabera, batez besteko balioak	444
129. grafikoa	Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, atzerritar jatorria, %	445
130. grafikoa	Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, atzerritar jatorria, gurasoen ikasketa-mailaren arabera, %	445
131. grafikoa	Osasunaren autoebaluazioa, jatorriaren arabera, %	446

132. grafikoa	Osasunaren autoebaluazioa ikastetxe-motaren arabera, atzerritar jatorria %	446
133. grafikoa	Lehen Hezkuntzako gurasoek institutuaren ondorengo etorkizunari buruz dituzten nahiak, %	450
134. grafikoa	Hemendik bost urtera arteko itxaropenak, %	452
135. grafikoa	Bigarren Hezkuntzako ikasleen nahia institutua amaitzen dutenerako, % .	454
136. grafikoa	Bigarren Hezkuntzako ikasleen pertzepzioa gurasoen eta irakasleen nahiari buruz, %	455
137. grafikoa	Bigarren Hezkuntzako gurasoek institutuaren ondorengo etorkizunari buruz dituzten nahiak, %	457
138. grafikoa	Hemendik bost urtera arteko itxaropenak, %	458



SARRERA

Nazioarteko migrazioak aurreko mendearen amaierako eta mende honen hasierako aldaketa demografiko eta sozial handienetako bat dira. Gure gizartera hainbat ingurune eta kulturatako pertsonak iristeak orain arte ezezaguna zen kulturataniztasuna ekarri du, eta, horrez gain, lehendik zeuden gizarte-desberdintasunak areagotu egin ditu. Ekonomia-krisiaren aurreko aldira arte, atzerritarren kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) azkar hazi bazen ere, gorakada hori geratu egin zen aldi horretan, eta egonkortu egin zen ondoren.

Hasiera batean, ahalegin instituzionalak eta akademikoak biztanleria heterogeneo berri baten diagnostikoa eta harrera egitera bideratu ziren, baina, gaur egun, jadanik finkatuta dagoen aniztasuna kudeatzea eta ulertzea ere garrantzitsua da. Euskal lurraldean, bizikidetzarekin, integrazioarekin edo identitatearekin lotutako gaiak, besteak beste, lehentasunezko gai bihurtu dira, eta migrazio-tasa berriro hazi da; %9,4an kokatu da 2018an. Horren haritik, immigranteen ondorengoan integrazioa, egungo eta etorkizuneko aniztasuna ordezkatzeko kolektiboa den aldetik, migrazio-fenomenoaren dimentsioen artean gutxien aztertutakoetako bat da EAEn.

Beraz, immigranteen integrazioa nolakoa izaten ari den aztertuko dugu lan honetan, eta, bereziki, “bigarren belaunaldia” osatzen dutenen integrazioa. Adierazpen hori, aztergai dugun kolektiboa intuitiboki definitzen duen arren, eztabaidagai da, estigmatizatzeke duen gaitasun potentzialagatik eta migrazioaren izaera “heredatu egiten dela” adierazten duelako. Hain zuzen ere, lan honetan zehazki zeri buruz ari garen zehaztea komeni da. Kontzeptu horrek gai demografiko bati –atzerriko pertsonaren seme-alabak– eta soziologiko bati –gurasoekin partekatzen dituzten ezaugarri soziodemografikoak, eta gizarteko gainerako pertsonetatik bereizten dituztenak– erantzun nahi die. Zehazki, ikerketa honetan, atzerriko gurasoak (biak edo bat) dituzten eta Estatuan jaio diren edo adin txikia izanik berriro elkartu dituzten pertsonak adierazteko erabiliko dugu termino hori. Gaiari buruzko argitalpen-serie batean zehar, kategorizazio hau hartu dugu kontuan.

1. taula Jatorri atzerritarreko 0 eta 24 urte arteko gazteen kategorizazioa

IKUSPEGI TIPOLOGIA	KOLEKTIBOA
Bigarren belaunaldia: 2.0G	EAEn jaiotako eta 4 urterekin edo gutxiagorekin berriz elkartutako pertsonak
Belaunaldi mistoa: 1.5G	5-11 urte artean berriz elkartutako pertsonak
Migrazioa lehen pertsonan: 1.25G	12-15 urte artean berriz elkartutako pertsonak
Migrazioa lehen pertsonan: 1.0G	6-24 urte artean berriz elkartutako pertsonak

Iturria: egileek egina

Beraz, garrantzi handiko gaia dugu gure aurrean, eta batik bat, etorkizuneko gai bat. Nazioarteko esperientziak erakusten digu bizikidetza- eta aniztasun-ereduek garrantzi berezia dutela bigarren belaunaldien gizarteratzean eta gizarte-mugikortasunean. Bigarren belaunaldien azterketa AEBn hasi zen 90eko hamarkadan, teorien zenbait kontzeptu garatuz; adibidez, Second-generation decline (bigarren belaunaldien gainbehera), gizarte estatubatuarrean etorkinen bigarren belaunaldiaren arrakasta automatikoaren ustea zalantzan jartzen duena (Gans, 1992)¹. Europan, horrelako azterketak beranduago agertu ziren. Ez zen gertatu 90eko hamarkadaren bukaera aldera arte, Europako zortzi herrialdetako integrazio-politiken eta bigarren belaunaldien arteko erlazioa aztertzen duen EFFNATIS “Effectiveness of National Integration Strategies towards Second” proiektua egin zuten arte (Aparicio, 2007)².

Hala, kapitulu honen helburua 6 urtetik 16 urtera arteko atzerritarra den eta/edo atzerriko jatorria duen biztanleria aztertzea da: haien diskurtsoak, identitateak, motibazioak, ardurak, asmoak, irrikak, itxaropenak, integrazio-prozesuak, arazoak, etab. Beraz, helburua EAEn bigarren belaunaldien argazki zehatz bat lortzea da, ikuspegi kuantitatibo baten bidez, lortutako datuak estatistikoki estrapolagarriak izan daitezkeen EAEn bizi diren neska-mutilen eta gazteen unibertsorako. Lehen Hezkuntzarako galde-sortak (irudiztatuak) eta Bigarren Hezkuntzarakoak dokumentuaren amaieran erantsi dira (Eranskina).

Horretarako, gure publiko objektiboaren lagin adierazgarri baten probabilitate-zundaketa bat egin da: 323 inkesta; horietatik 100 (%30) pertsona autoktonoei egin zaizkie (atzerriko arbasorik gabeak), eta 223 (%70), atzerriko jatorria duten pertsonen seme-alabei, proportzionalki esleituta gurasoen jatorriaren eta mailaren

¹ Gans, H. (1992). Second generation decline: Scenarios for the economic and ethnic futures of the post 1965 American. *Ethnic and Racial Studies*, 12(2), 173-192.

² Aparicio R. (2007). “Bigarren belaunaldien” integrazioa Europan: EFFNATIS ikerketa (etorkinen seme-alaben integrazio-politiken efikazia). In A. López eta L. Cachón, *Juventud e Inmigración. Desafíos para la participación y la integración*, (pp. 119-138). Dirección General de Juventud de la Consejería de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno de Canarias.

(Lehen Hezkuntza/Bigarren Hezkuntza³) arabera. Jatorria oinarritzat hartuta haztapan bat aplikatu ondoren, lagina honela banatzen da:

2. taula Lagin haztatuaren banaketa

	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA
Espainia	30,4	31,6
Latinoamerika	31,4	31,6
Magreb	12,1	14,5
Saharaz hegoaldeko Afrika	8,7	6,8
Ekialdeko Europa	1,9	5,1
Txina	10,7	1,3
Asiako gainerakoa	0,8	3,8
Beste batzuk	4,0	5,1
Guztira (%)	100	100
Guztira (Kop.)	206	117

Iturria: egileek egina


Laginen tamaina horrekin, erabiliko dugun lagin-errorea gehienez +/- %5,44 izango dela eta konfiantza-maila estatistikoa %95ekoa izango dela bermatzen dugu (kasurik okerreanean, $p=q=0,5$ direnean).

Azterketa hau hunkiberatasun handiko gizarte-fenomeno oso konplexu baten lehen hurbilketa gisa planteatu da, familia jatorriz atzerritarra duten euskaldunen gizarte-errealitatearen hurbilketa gisa, hain zuzen ere. Beraz, esplorazio-azterketa bat da, eta gure asmoa aurrerago azterketa honi berriz erantzutea da, azterketa honetan hautemandako arazoak eta akatsak zuzenduz, lagin handiagoa hartuta, fenomenoaren argazkia zehatzagoa izan dadin.

Jatorri atzerritarra duen biztanleriari buruzko hurbilketa horiek hiru esparru nagusitatik egiten dira: hezkuntza-esparrua, familia eta komunitate-esparrua.

³ Lehen Hezkuntza 6 urtetik 11 urtera arteko ikasleentzat da (salbuespenak salbuespen) eta 4 maila ditu. Bigarren Hezkuntza 11 urtetik 16 urtera arteko ikasleentzat da eta beste 4 maila ditu. Biak derrigorrezkoak eta doakoak dira, aukera pribatuak eta itunpekoak ere badauden arren. Unibertsitatean sartzeko, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaz gain, batxilergoa (2 maila) eta selektibitateko azterketa gainditu behar dira.

1. eskema Ikerketaren dimentsioakn



Iturria: egileek egina

Oinarrizko hiru esparruez gain, galde-sortak jatorri atzerritarreko pertsonen integrazio-prozesuak eta ongizatea ulertzeko zeharkako izaerako funtsezko dimentsio batzuk ere baditu: gurasoen eta seme-alaben identitatea, ongizate subjektiboa eta etorkizuneko itzaropenak. Ikastetxearen, familiaren eta gizarte-erlazioen argazkia bigarren belaunaldien alderdi subjektiboekin eta ezaugarriekin osatzean datza.

Azken zehaztapen bat txosten honetan aipatzen ditugun kolektiboei buruz, inkestatutako ikasle guztiak (edo ia guztiak) “euskaldunak” direlako (Euskadin edo Estatu espainiarren jaiok), edozein dela ere gurasoen jatorria. Batetik, atzerritar jatorriko ikasleak (euskaldunak) bereizi ditugu, Euskadin jaiotako etorkinen seme-alabak edo adin goiztiarra izanik iritsitakoak adierazteko (aurrez 2.0 B izendatu ditugun pertsonak); bestetik, jatorri autoktonoko ikasleak (euskaldunak) bereizten ditugu, hemen jaiotako eta guraso autoktonoak dituzten pertsonak adierazteko. Gurasoez ari garenean ere, beste bereizketa bat egiten dugu: lehenik eta behin, atzerritar jatorriko gurasoak ditugu, atzerrian jaiok diren eta atzerritar jatorriko ikasleen (euskaldunen) gurasoak direnak adierazteko, haietako bat autoktonoa izan daitekeen arren (atzerritar jatorriko familia adierazpena ere erabiltzen dugu); eta bigarrenik, guraso autoktonoak ditugu (edo jatorri autoktonokoak) ditugu, jatorri autoktonoko ikasleak (euskaldunak) adierazteko (familia autoktono edo familia euskaldun adierazpena ere erabiltzen dugu).


1

Alderdi orokorrak


Lehen hezkuntzako alderdi orokorrak

Atzerritar jatorriko ikasleen eta haien familien profila ezagutzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu zenbait datu orokor deskribatzea; esate baterako, inkestatutako neska-mutilen adina eta sexua, ikastetxearen titulartasuna, haien bizilekua den Lurralde Historikoa eta dakizkiten hizkuntzak, besteak beste. Bizilekuari dagokionez, %69 Bizkaian bizi da, %13,5 Gipuzkoan eta %17,5 Araban. Ikastetxearen titulartasunari dagokionez, ehuneko handi bat ikastetxe publikoak dira (%72,8), eta %27,2 itunpekoak.

1. grafikoa Banaketa lurralde historikoen arabera, %



2. grafikoa Ikastetxe mota, %




Iturria: egileek egina

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, %44,1 neskak dira, eta %55,9, mutilak. Adinari dagokionez, Lehen Hezkuntzako pertsonak bost urtetik hamaika urtera artekoak dira, eta inkestatutako neska-mutilen batez bestekoa 7,5 urtekoa da.


Azkenik, eta aztergai dugun multzoaren argazki orokorra egiten amaitzeko, 4. grafikoa ikus dezakegu zer hizkuntza dakizkiten atzerritar jatorriko neska-mutilek; ikus dezakegunez, hainbat dira, eta gehienek diote gaztelaniaz (%98,2) eta euskaraz (%90,5) komunikatzen direla.

3. grafikoa Inkestatutako populazioaren sexua, %



Iturria: egileek egina


4. grafikoa Hizkuntzak, %



31.G. Zer hizkuntza erabiltzen dituzu?
Iturria: egileek egina

Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden atzerritar jatorriko ikasleen hezkuntza-ereduari dagokionez, 5. grafikoa ikus daiteke %52,2k D ereduari ikasten duela, %37,4k B ereduari eta soilik %4,1ek A ereduari. Kasu honetan Ed/ee sartu dugu, %6,3koa dena, guraso batzuek ez zekitelako beren seme-alabak B edo D ereduari ari diren ikasten eta beste batzuek ez zekitelako zer ereduari dauden matrikulatuta.

5. grafikoa Hizkuntza-ereduak, %




Iturria: egileek egina

Inkesta honetan parte hartu duten atzerritar jatorriko pertsona helduen parte-hartzeari dagokionez, ia kasu guztietan, haurren aitak edo amak hartu du parte; zehazki, %98,6k. Gainerakoak aitona-amonak (%0,9) eta izebak edo osabak (%0,5) izan dira. Bestalde, galde-

sorta honi erantzun dioten gehienak emakumean izan dira (%80,6). Adin-tarteka, 6. grafikoan ikus dezakegu 36tik 45 urtera arteko tartea izan dela ugariena. Hain zuzen ere, adin-tarte horretako pertsonak %49,1 izan dira. Bigarren ugariena 20tik 35 urtera artekoa izan da (%40,9).


6. grafikoa Inkestatuko pertsonen adina, %



Iturria: egileek egina

7. grafikoan ikus dezakegun moduan, hamar pertsonatik zortzi ezkontuta daude, elkarrekin bizi dira edo izatezko bikote gisa onartuta daude. %14,5ek dio ezkongabea dela, eta %5ek, bereizita edo dibortziatuta dagoela.

7. grafikoa Egoera zibila, %




81.G. Zein da zure egoera zibila?

Iturria: egileek egina

Gurasoen ikasketei dagokienez, 89. grafikoan ikus daiteke zenbatek dituzten maila altueneko ikasketak amaituta, bikoteen kasuan. Ikus dezakegun moduan, Lehen Hezkuntzako ikasle autoktonoen gurasoek, oro har, lanbide-heziketako ikasketak (%26,1ek erdi-mailako ikasketak ditu, eta %20,3k, goi-mailakoak) eta unibertsitate-ikasketak dituzte (%37,7), eta atzeritar jatorriko biztanleriaren artean, berriz, Bigarren Hezkuntzako ikasketak (%18,6) eta derrigorrezkoaren ondoko ikasketak (%32,6) dituzte. Bestetik, atzeritar jatorriko biztanleriaren artean, batzuek ez dute ikasketarik (%4) eta beste batzuek Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzte (%9,8); hori ez da gertatzen guraso autoktonoen kasuan.

8. grafikoa Ikasketa-maila jatorriaren arabera, %




82.G. Zein da lortu duzun ikasketa-mailarik altuena?
Iturria: egileek egina


Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikus daiteke ikasketarik ez duten edo Lehen Hezkuntzako ikasketak amaitu gabe dituzten gurasoen %21,8k seme-alabak A eremuan dituztela matrikulatuta. Desberdintasun nabarmena da B (%4,2) eta D(%2,6) ereduetan matrikulatuta dituztenekin alderatuta. Jarduerari dagokionez, inkestatutako pertsona autoktonoen kasuan, hamar pertsonatik ia zortzi lanean ari dira, eta atzeritar jatorriko pertsonen kasuan, erdia.

Aldiz, kolektibo horren langabezia-tasa %24,3koa da, etxeko lanak egiten dituzten emakumeen eta gizonen antzeko datua (%21,4), agian gehiegi adierazia inkestatutako pertsonen artean; izan ere, inkesta ikastetxeetatik hurbil egin zaie, haurrak ateratzen direnean haien bila joan izan direnean, eta ordu horietan askotan ez dute bertara joateko aukerarik izaten lanean ari direnek. Bikoteei erreparatuz gero, joera antzekoa da, nahiz eta "etxeoandre" kategorian alderen bat egon, aurrez adierazi dugunagatik.

9. grafikoa Inkestatutako pertsonaren erlazioa jarduerarekiko, jatorriaren arabera, %



10. grafikoa Bikotekidearen erlazioa jarduerarekiko, jatorriaren arabera, %




83.G. Esan al diezadakezu zein den zure egoera? Eta zure bikotekidearena?
Iturria: egileek egina

Aldagaiak gurutzatzean lortzen diren desberdintasun adierazgarriak kontuan hartuta, inkesta honetan parte hartu duten etxekoandreen %37 afrikarra da, eta horrek gainerako jatorrietatik bereizten ditu. Era berean, jatorri asiarrak duten ikasleen proportzioa (%16,7) da handiena, gainerako jatorriekin alderatuz gero. Bestetik, ikasten ari direnen %12,7k ez du ikasketarik edo soilik Lehen Hezkuntzako ikasketak ditu, bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketakoak (%0,7) eta goi-mailako ikasketak (%4,3) dituztenetatik bereiziz. Bikoteen kasuan, lan egiten dutenen %6k soilik ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak ditu; %54,7k bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketakoak ditu, eta %70,4k goi-mailako ikasketak ditu.

Hurrengo grafikoan, 11. Grafikoa, ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko familien diru-iturri nagusia soldatapeko lana (%72) da eta %27,5 laguntza ekonomikoetatik dator; esate baterako, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (LGL). Horrek bereizten ditu familia autoktonoetatik, haietako %5,8k soilik jasotzen baititu laguntza horiek. Langabezia-prestazioa errenten %5,9 da. Aldagai hori atzerritar jatorriko gurasoen ikasketamailarekin gurutzatzean, alde adierazgarriak hautemango ditugu. Hain zuzen ere, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen diru-iturri nagusia laguntza ekonomikoak dira (%62,2), eta bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketako ikasketak (%30,5) eta goi-mailako ikasketak dituzten artean, soilik %11,3 bizi da haiei esker.


11. grafikoa Etxeko diru-sarrera nagusiak, %



85.G. Zein da zure etxeko diru-iturri nagusia?
Iturria: egileek egina


Lehen Hezkuntza egiten ari diren seme-alabak dituzten atzerritar jatorriko familien etxeetako hileko batez besteko diru-sarrerak 1.629,49€-koa da.

Oro har, atzerritar jatorriko familiak etxean konpontzen dira ekonomikoki, eta hala erantzuten diote galdera horri. Zehazki, 12. grafikoa ikus dezakegun moduan, %69,8 etxeko diru-sarrerekin moldatzen da. %15,5 egoera ekonomiko erosoan dago, biztanleria autoktonoarekiko aldea nabarmena izanik. Izan ere, azken kolektibo horretan, erdiek horrela definitzen dute beren burua. Bestetik, atzerritar jatorriko familien %13,4k bere egoera ekonomiko behartsua edo oso behartsua dela dio, eta soilik %0,5ek soilik ikusten du bere burua aberats gisa. Alde adierazgarriak dituzten gurutzeetako aldagaiei dagokienez, seme-alabak itunpeko ikastetxe batean dituztenek (%30,3) beren ekonomia eroso dela diote ikastetxe publikoetan dituztenek (%11,1) baino neurri handiagoan. Bestetik, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen %27,9k ere beren egoera ekonomiko eroso dela dio, eta horretan nabarmendu egiten dira bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketako ikasketak (%10,7) dituztenekiko eta ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituztenekiko (%12,7).

12. grafikoa Egungo etxeko egoera ekonomikoaren hautemate subjektiboa, %

87.G. Nola definituko zenuke etxeko egungo egoera ekonomikoa?
Iturria: egileek egina

13. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko biztanleriaren hiru laurden alokairuko etxebizitzetan bizi dira (%74,5), eta edukitzeko erregimen hori duten familia autoktonoak askoz gutxiago dira (%14,5). Hipotekatutako etxebizitza baten jabe direnen kasua, berriz, aurkakoa da. Izan ere, familia autoktono gehiago daude egoera horretan (%66,7) atzerritar jatorrikoak baino (%17,7). Modu berean, atzerritar jatorriko familien %4,7 jadanik ordainduta dagoen etxebizitza baten jabe da, eta autoktonoen %15,9 dago egoera horretan, eta soilik %2,5 bizi da utzitako etxebizitza batean. Alde adierazgarriak dituzten gurutzetako aldagaiei dagokienez, etxebizitza ordainduta duten artean, gehiago dira goi-mailako ikasketak dituzten gurasoak (%14,4) bigarren mailako ikasketak dituztenak baino (%1,3).


13. grafikoa Etxebizitza edukitzeko erregimena, %

89.G. Alokaturako etxebizitza batean edo zure jabetzako etxebizitza batean bizi zara?
Iturria: egileek egina

Atzerritar jatorriko familiei azken urtean etxebizitzaz aldatu diren galdetuta, %85ek ez du horrelakorik egin, eta gainerako %15a etxebizitzaz aldatu da 1,48 aldiz batez beste. Beraz, ez da hauteman bizileku-mugikortasun orokorrik eta etxebizitzan urtebetez baino gehiagoz jarraitzea da joera.

Lehen Hezkuntzako haurren atzerritar jatorriko gurasoetako baten jatorri geografikoa 14. grafikoan ageri da. Kontuan hartu behar da jatorri desberdinak dituzten bikoteen kasuan, galde-sortari erantzun dionari dagokiola. Bikote mistoen kasuan, atzerritar jatorrikoarena jaso dugu. Latinoamerika da jatorri ugariena; zehazki, %45,1. 15 puntu baino pixka bat gehiagoko aldearekin, Afrika dugu (%29,9). Ekialdeko Europako gurasoen presentzia %18,1ekoa da. Eta, azkenik, asiar biztanleria %6,9 da.


14. grafikoa Gurasoetako baten jatorria, %



92.G. Zer herrialdetan jaio ziren haurraren aita eta ama biologikoa?
Iturria: egileek egin

Hala ere, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko haurren jaiotza-lekuari buruzko galderan, gurasoekiko alde nabaria dutela ikusten dugu. 15. grafikoan ikus dezakegun moduan, hamarretik ia bederatzia Espainian jaiotakoak dira. Europako herrialderen batean jaiotakoak %7,5 soilik dira; %1,6, Afrikan jaiotakoak, eta %1,5, Latinoamerikan jaiotakoak. Beraz, haurren belaunaldi hau hazten eta garatzen ari den lekua beren gurasoek izan zutenaren desberdina da.


15. grafikoa Lehen Hezkuntzako haurren jaiotza-lekua, %



92.G. Zer herrialdetan jaio zen haurra?
Iturria: egileek egina

Bestetik, haien egoera administratiboak adierazten du inkestatutako Lehen Hezkuntzako gurasoen atzerritar jatorriko gurasoak egoera egonkorrean daudela paper-kontuei dagokienez. Hain zuzen ere, 16. grafikoa egiazta daitekeen moduan, gehienek espainiar nazionalitatea dute, edo bizileku-baimena eta lan egonkorra. Errealitateak argi eta garbi erakusten du irregulartasun gutxi daudela. Alde adierazgarriak dituzten aldagaiei erreparatuz gero, ohartuko gara bizileku-baimena izan eta lanik gabe daudenen artean, ikasketarik ez duten edo soilik lehen-mailako ikasketak dituzten pertsonen (%17) proportzioa handiagoa dela maila handiagoko ikasketak dituztenen proportzioa baino.


16. grafikoa Gurasoen administrazio-egoera, %



93.G. Zein da zure administrazio-egoera? Eta zure bikotekidearena?
Iturria: egileek egina

Zer garaitan iritsi ziren aztertzeke, 17. grafikoan ikus dezakegu Espainiara etorkin gehien iritsi ziren aldia 1999tik 2007ra artekoa izan zela, 1999tik 2003ra artekoa aldia nabarmenagoa izanik. 2008tik aurrera, ekonomia-krisiarekin batera, etorkinen fluxuak beherakada nabarmena izan zuen; 2013ra arte pertsonen %9,5 iritsi ziren. Dakigun moduan, nazioarteko migrazioak esponentzialki hazten dira krisia sortzen den arte, eta hori bat dator grafikoan adierazitako datuekin.


17. grafikoa Espainiara iristeko garaia, %



94.G. Zer urtetan iritsi zinen Espainiara? Eta Euskadira?
Iturria: egileek egina

Inkestatutako atzerritar jatorriko biztanleriaren artean, gehien jatorriko hizkuntza gaztelania da, %46,4k dioten moduan, eta bikotekideen kasuan ere antzekoa da (%37,6). Bigarren hizkuntza arabiera da, inkestatutako pertsonen %17,9k erabiltzen duena. Hirugarrenik errumaniera (%9) dago, eta ondoren, portugesa (%2,8). Euskara azkena dago. Inkestatutako pertsonen %0,5k dio bere jatorrizko hizkuntza dela.

18. grafikoa Jatorrizko hizkuntza, %



95.G. Zein da zure jatorrizko hizkuntza? Eta zure bikotekidearena?
Iturria: egileek egina


Laburbilduz

1. Lehen Hezkuntzako ikasleak euskara, erabat edo partzialki, nagusi den hizkuntza-ereduetan matrikulatuta daude. Modu berean, euskara eta gaztelania dira egunero erabiltzen dituzten bi hizkuntzak. Gurasoen kasuan, bien jatorrizko hizkuntza gaztelania da neurri handienez.
 2. Gurasoen egoera zibilari dagokionez, gehienak ezkondata daude edo izatezko bikote dira. Etxeko maila handieneko ikasketak bigarren mailako ikasketak eta derrigorrezkoaren ondoko ikasketak dituztenen artean banatzen dira, eta familia autoktonoetan ikasketa-maila altuagoa da.
 3. Jarduerari dagokionez, erdiak lanean ari diren arren, langabeziak ere badu eragina haien lan-profiletan, familia autoktonoetan baino neurri handiagoan. Modu berean, etxeko diru-sarrerak lanetik datoz batik bat, eta gizarte-laguntzak inkestatutako atzerritar jatorriko hamar familiatik ia hiruren bizibidea dira. Etxean dituzten diru-sarrerekin ekonomikoki moldatzen direla uste dute —hala ere, familia autoktonoek hautematen dute eroso bizi direla jasotzen dituzten diru-sarrerekin—, eta erdiak baino pixka bat gehiago alokairuan bizi dira.
 4. Gurasoen jatorri geografiko nagusiak latinoamerikarrak dira ia kasuen erdietan, eta afrikarrak dira bigarrenak. Dena den, seme-alabei buruz galdetuta, hamarretik ia bederatzi espainiar lurraldeko lekuren batean jaioa da.
-


Bigarren hezkuntzako alderdi orokorrak

Bigarren Hezkuntza ikasten ari diren atzerritar jatorriko gazteen profila nolakoa den jakiteko, zenbait datu orokor aurkeztuko ditugu jarraian. 19. grafikoa, inkestatutako pertsonen banaketa ikus dezakegu lurralde historikoen arabera. Banaketa nahiko zuzena da, Gipuzkoan presentzia handiagoa duena (%36,7) Bizkaian (%31,6) eta Araban (%31,7) baino. %47,1ek itunpeko ikastetxe batean ikasten du, eta %52,9k, ikastetxe publiko batean.

19. grafikoa Banaketa LHka, %



20. grafikoa Ikastetxe-mota, %




Iturria: egileek egina

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, mutilen proportzioa (%56) pixka bat handiagoa da nesken proportzioa (%44) baino, eta inkestatutako 12tik 17 urtera arteko neska-mutilen batez besteko adina 14 urtekoa da.

Neska-mutil horien jaiotza-herrialdeari dagokionez, 3. taulan ikus dezakegu zer alde dauden Lehen Hezkuntza ikasten dutenekin alderatuta. Izan ere, Bigarren Hezkuntzako ikasleen %43,3 Estatu Espainiarrean jaioa da, eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, %88,2. Beste jaioterri batzuk hauek dira: Magreb (%9,1), AEB (%7,5), Argentina

21. grafikoa Inkestatutako populazioaren adina, %



60.G. Sexua
Iturria: egileek egina

(%6,6), Kolonbia (%6,6) eta Bolivia (%3,3). Saharaz hegoaldeko Afrikako beste herrialde batzuetakoak eta Asiako herrialde batzuetakoak ere ageri dira.


3. taula Atzerritar jatorriko ikasleen jaiotza-herrialdea, %

Espainia	43,3
Maroko	9,1
AEB	7,5
Argentina	6,6
Kolonbia	6,6
Bolivia	3,3
Ekvador	3,3
Honduras	3,3
Dominikar Errepublika	3,3
Aljeria	3,0
Boli Kosta	2,5
Senegal	2,5
Txina	1,9
Nepal	1,9
Pakistan	1,9

62.G. Zein herrialdetan jaio zinen?
Iturria: egileek egina

Neska-mutilek komunikatzeko erabiltzen dituzten hizkuntzei dagokienez, arintasunez hitz egiten dituzten hizkuntzei ekingo diegu lehenik, 22. grafikoari erreparatuz. Ikusten den moduan, gaztelaniaren eta euskararen ezagutza familiako hizkuntzarekin nahasten dira. Atzerritar jatorriko gazte guztiek gaztelania menderatzen dute, %61,9k dio euskara ere menderatzen duela, eta %85,7k, etxeko hizkuntza edo hizkuntzak.


22. grafikoa Arintasunez hitz egiten dituzten hizkuntzak, %



63.G. Zer hizkuntza hitz egiten dituzu arintasunez?
Iturria: egileek egina

Bestetik, ingurune pribatuenean, familian, zer hizkuntza hitz egiten dituzten galdetu diegu. Kasu horretan, hiru hizkuntza desberdin hautatzeko aukera eman diegu. 23. grafikoan, hautatutako lehen aukerari eta erantzun guztiei buruzko informazioa bildu dugu. Ikus dezakegun bezala, gaztelania da etxean gehien erabiltzen den hizkuntza, eta hori da %65en lehen aukera. Guztizko zenbaketaren kasuan, inkestatutako pertsona guztiek erabiltzen dute unerren batean. Euskara erantzun guztien %18,3an agertzen da, baina inoiz ez lehen aukera gisa. Dena den, arabierarekin ia ez dago alderik. Horrek esan nahi du dakienak erabili ohi duela inguru pribatuenean, eta berdin gertatzen da ingelesarekin ere. Hizkuntza pakistandarra, senegaldarra eta bamanankana hizkuntza horiek erabiltzen dituztenen bidez komunikatzeko lehen aukera eta bakarra dira.

23. grafikoa Etxean erabiltako hizkuntzak, %



64.G. Zer hizkuntza hitz egiten da gehiena zure etxean?
Iturria: egileek egina


Kasu horretan, gurutzeetako aldagaiak aztertzean, alde adierazgarriak daude ikasketarik ez duten edo lehen malako ikasketak soilik dituzten gurasoen artean, hizkuntza pakistandarra, senegaldarra eta bamanankana hitz egiten duten bakarrak direlako.

Hala ere, Bigarren Hezkuntzako ikasleak matrikulatuta dauden hezkuntza-ereduei erreparatuz gero (24. grafikoa), ikusten da %43,7 D ereduan dagoela, eta %36,1, B ereduan. %20,2 A ereduan matrikulatuta dago. Beraz, euskara presente dago Bigarren Hezkuntzako hamar ikasletik zortzitan.

Lehen Hezkuntzako azterketan gertatutako moduan, inkesta honi erantzun dioten gurasoen datu orokor batzuk aztertuko ditugu, aldagai soziodemografiko eta administratibo batzuk, etxeko egoera ekonomikoa, jatorriak eta hizkuntzak, besteak beste, sakonago ezagutzeko aukera izateko.


25. grafikoak erakusten digun moduan, gurasoen hiru laurden ezkontuta daude. Bereizita edo dibortziatuta daudenak %16,3 dira, eta ezkongabeak, %14,1. Azkenik, %3 alarguna da.

24. grafikoa Hizkuntza-ereduak, %




Iturria: egileek egina

25. grafikoa Egoera zibila, %



81.G. Zein da zure egoera zibila?
Iturria: egileek egina

Hezkuntza-mailari dagokionez, Lehen Hezkuntzako azterketan bezala, 26. grafikoan, atzerritar jatorriko populazioaren banaketa ikus dezakegu, amaitutako ikasketak maila altuenen arabera. Beste hezkuntza-maila guztien artean, batxilergoa amaitu dutenak nabarmentzen dira; zehazki, kolektibo horren %42a. Unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonetik alde 27,2 puntukoa da. Lehen Hezkuntzako gurasoen kasuan, goi-mailako ikasketak zituztenen proportzioa handiagoa zen. Bestetik, %17,9k dio lehen mailako ikasketak amaituta dituela.




82.G. Zein da lortu duzun ikasketa-mailarik altuena?
Iturria: egileek egina


Gurutzetako aldagaiei dagokienez, Lehen Hezkuntzan gertatzen zen moduan, ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak amaitu gabeko gurasoek beren seme-alabak A eremuan (%50) matrikulatzen dituzte.

Inkestatutako guraso autoktonoen proportzio handi bat lanean ari da; zehazki, %90,3. Eta haien bikotekideak ere bai (%90,3). Atzerritar jatorriko gurasoei dagokienez, aldiz, %56,3 lanean ari dira, eta haien bikotekideen %52,8 ere bai. Langabeziak gehiago eragiten die atzerritar jatorriko pertsoneri. Hain zuzen ere, haien %24,6 langabezian dago, eta horretan aldea adierazgarria da jatorri autoktonoko populazioarekiko (%9,7). Etxekoandarearen edo etxeko gizonaren irudia inkestatutako atzerritar jatorriko pertsonen %17,3k adierazten du, eta irudi horretan, ez da autoktonorik agertzen.

27. grafikoa Inkestatutako pertsonaren erlazioa jarduerarekiko, jatorriaren arabera, %



28. grafikoa Bikotekidearen erlazioa jarduerarekiko, jatorriaren arabera, %




83.G. Esan al diezadakezu zein den zure egoera? Eta zure bikotekidearena?
Iturria: egileek egina

Inkestatutako atzerritar jatorriko pertsonen erreparaturik, nabarmendu behar da etxekoandrea edo etxeko gizon afrikarren populazioa (%38,9) handiagoa dela gainerako eremu geografikoetako baina. Bestetik, langabezian dauden %54,1ek ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak soilik ditu, bigarren mailakoak dituztenetik nabarmenduz (%23). Azkenik, etxeko lanak egiten dituztenen %41,1ek goi-mailako ikasketak ditu, eta bigarren mailakoak dituztenak baino gehiago dira (%15,1).

Bikotekideari dagokionez, populazio afrikarrak ditu langabe gehien (%27,4), eta gainerakoa eremu geografikoetatik nabarmen bereizten ditu horrek. Ikasketamailari dagokionez, ez dituztenek edo lehen mailako ikasketak soilik dituztenek lan-jardura txikiagoa dute (%16,7) maila handiagoko ikasketak dituztenek baino. Modu berean, eta berriro ere bikotekideari dagokionez, etxekoandreak edo etxeko gizonak direla dioten pertsonen ez dute ikasketarik edo lehen mailako ikasketak dituzte (%16,7). Gainerako ikasketamailak ez dira agertzen kategorian horretan.

29. grafikoa ikus daiteke etxeko diru-iturri nagusia gutxienez gurasoetako baten lanetik datorrela, hori esan baitu familia autoktonoen %100ek eta atzerritar jatorrikoen %72,7k. Atzerritar jatorriko pertsonen %18,7k prestazio ekonomikoren bat –adibidez, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL)– jasotzen dute; pertsona autoktonoak, berriz, ez dira laguntza horien onuradunak. Langabezia-prestazioa atzerritar jatorriko familien %5,5en etxeko bizibide nagusia da. Azkenik, lagunen eta senideen laguntza funtsezkoa da inkestatutako atzerritar jatorriko pertsonen %3arentzat.


29. grafikoa Etxeko diru-sarrera nagusiak, %



85.G. Zein da zure etxeko diru-iturri nagusia?
Iturria: egileek egina


Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikusten da Ekialdeko Europako biztanleak direla laguntza ekonomikoak neurri handiagoan jasotzen dituztenak (%50) gainerako eremu geografikoetakoak baino. Bestalde, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, %41,4k laguntza horiek jasotzen ditu. Bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketakoak dituzten pertsonen artean, berriz, %17,5ek jasotzen ditu. Aldea nabarmena da.

Etxeko batez besteko diru-sarrerak 1.137,39€-koak dira. Etxeko egoera ekonomikoari buruzko hautemate subjektiboari dagokionez, 30. grafikoa ikus dezakegu atzerritar jatorriko familien %28k erostzat jotzen duela. Familia autoktonoen kasuan, berriz, %71,0k du uste hori. Aldea nabarmena da, beraz. Atzerritar jatorriko familien artean, egoera ekonomiko normalena "moldatzen" da: hala adierazi dute erdiek baino gehiagok (%52,6). Egoera hori ez da hain ohikoa familia autoktonoen artean, eta soilik %25,8k adierazi du hori. Azken batean, pobrezia gehiago dago atzerritar jatorriko familien artean: %16,9k behartsutzat jotzen du bere burua, eta %2,5ek, oso behartsutzat. Gurutzeetako aldagaiengatik. Bestetik, azken aldian iritsi diren pertsonen pobrezian bizi direla baloratzen dute (%69,4) krisia lehertu baino lehenago iritsi ziren pertsonen baino neurri handiagoan. Azkenik, bere burua behartsutzat jotzen duten familien %37,6k B ereduan matrikulatzen ditu seme-alabak, D ereduan ikasten dutenetatik nabarmen bereiziz (%7,6). Hala ere, eredu horretan matrikulatutako gurasoen %79,1ek ekonomikoki moldatzen dela adierazi du.

30. grafikoa Egungo etxeko egoera ekonomikoaren hautemate subjektiboa, %

87.G. Nola definituko zenuke etxeko egungo egoera ekonomikoa?
Iturria: egileek egina

Etxebizitza edukitzeko erregimenari dagokionez, 31. grafikoa ikusten den moduan, atzerritar jatorriko familietan gehiago dira alokatutako etxebizitzetan bizi diren pertsonak (%72,3) etxebizitzaren jabeak direnak baino (%27,7), hipoteka duten etxebizitzak izan arren. Praktika aurkakoa da familia autoktonoen kasuan. %16,1 alokairuan bizi da eta aldea nabarmena da edukitzeko erregimen berean dauden atzerritar jatorriko familiekin alderatuta. Bestetik, %32,2k etxebizitza jadanik ordainduta du; eta ikusi dugun moduan, ez da horrelakorik gertatzen atzerritar jatorriko pertsonen kasuan.

31. grafikoa Etxebizitza edukitzeko erregimena, %


89.G. Alokaturako etxebizitza batean edo zure jabetzako etxebizitza batean bizi zara?
Iturria: egileek egina

Inkestatutako pertsonen %91,5ek ez du etxebizitza aldatu azken urtean, eta aldatu dutenen artean (%8,5), batez bestekoa 2,49koa da. Beraz, familiek ez dute bizilekua ohiz aldatzen, edo gutxienez urtebete betetzen dute etxebizitza berean.

Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan aztertu genuen moduan, inkestatutako Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoetako baten jatorriari buruz jardungo dugu jarraian. Bikote mistoen kasuan, atzerritar jatorriko pertsona hartuko dugu erreferentziazat.


Eta, 32. grafikoan ikus daitekeen moduan, jatorri latinoamerikarreko populazioa gehiengoa da; zehazki, %46,3. Bigarrenik, eta 15,1 puntuko aldearekin, afrikar jatorriko biztanleak daude (%31,2), eta, ondoren, Ekialdeko Europakoak (%15) eta Asiakoak (%7,5). Espainiara iristeko garaiari dagokionez, Ekialdeko Europako populazioa proportzio txikiagoan iritsi zen 2008tik 2013ra arteko azken aldian (%69,4), 2004tik 2007ra arteko aurreko aldiarekiko aldea adierazgarria izanik (%19).

32. grafikoa Gurasoetako baten jatorria, %




92.G. Zer herrialdetan jaio ziren haurren aita eta ama biologikoa?
Iturria: egileek egina

Inkestatutako Bigarren Hezkuntzako ikasleen jatorri geografikoa aztertzean, %40,0 Estatu espainiarrean jaioak direla ikusten da. Datu hori Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuko proportziotik urrun dago, hamar haurretik bederatzikoa zen-eta. Ondoren, jatorri latinoamerikarreko ikasleak (%23,1), afrikarra (%14,1) eta asiarra (%5,7) daude. Espero daitekeen moduan, gurasoetako bat atzerritar jatorrikoa duten Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean, atzerritar jatorri gehiago aurkituko ditugu Lehen Hezkuntzako ikasleen artean baino. Horien artean, atzerritar ugarietak jatorri latinoamerikarrekoak dira.

33. grafikoa Bigarren Hezkuntzako ikasleen jaiotza-lekua, %

92.G. Zer herrialdetan jaio zen haurra?
Iturria: egileek egina


Bigarren Hezkuntzako ikasleen atzerritar jatorriko gurasoen administrazio-egoerari dagokionez, 34. grafikoa ikus daiteke paper-kontuetan egoera egonkorrean daudela inkestaturako nazionalitate espainiarreko gurasoen %56 inguru eta bizileku- eta lan-baimen iraunkorra duten pertsonen %33. Bikotekideen kasuan, elkarrizketatutakoen ia laurden batek ez daki zer egoeratan dagoen.

34. grafikoa Gurasoen administrazio-egoera, %

93.G. Zein da zure administrazio-egoera? Eta zure bikotekidearena?
Iturria: egileek egina

35. grafikoa ikus daiteke Espainiara 2004az geroztik iritsi zela %50,3. Dena den, gehienak 2004tik 2007ra bitartean iritsi ziren (%39,5). Aurreko aldietako datuak antzekoak dira. 1998 baino lehen, %21,2 iritsi zen, eta %23,7 Espainiako geografiko lekuren batean kokatu zen, 1999tik 2003ra bitartean. Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoeekin alderatuta, haiek pixka bat lehenagoko iritsi ziren Bigarren Hezkuntzakoak baino. Dena den, bi multzoetan iritsiera-kopurua nabarmen txikitu zen 2008ko krisia hasi zenetik.

35. grafikoa Espainiara iristeko garaia, %



94.G. Zer urtetan iritsi zinen Espainiara?
Iturria: egileek egina

Gehienen jatorrizko hizkuntza gaztelania da, 4. taulan ikus daitekeen moduan. Zehazki, inkestatutako atzerritar jatorriko pertsona helduen %49,5ek eta haien bikotekideen %43,4k hizkuntza hori erabiltzen dute beren eguneroko bizitzan. Arabiera da gehien erabiltzen den bigarren hizkuntza; dena den, inkestatutako pertsonak erreferentziatzat hartuta, alde hori 24,7 puntukoa da. Errumaniera ere agertzen da inkestatutako pertsonen eta haien bikotekideek erabiltzen dituzten lehen bost hizkuntzen artean, Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoen kasuan bezala.

4. taula Jatorrizko hizkuntza, %

	P. Inkestatua	Bikotekidea
gaztelania	45,9	43,4
arabiera	21,2	15,2
ingelesa	7,5	0,0
errumaniera	7,5	7,5
kreolera	6,6	3,3
bambara	2,5	0,0
frantsesa	2,5	2,5
senegaldar hizkuntza	2,5	2,5
Asiako beste batzuk	1,9	1,9
Ed/ee	1,9	0,0
euskara	0,0	0,0
wolofera	0,0	2,5

95.G. Zein da zure jatorrizko hizkuntza? Eta zure bikotekidearena?
Iturria: egileek egina

Laburbilduz

1. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle gehienak euskara nagusi den hizkuntza-ereduetan daude matrikulatuta; hau da, D eta B ereduetan. B ereduko matrikulazioen proportzioa Lehen Hezkuntzako ikasleen antzekoa da. Bestalde, zenbait hizkuntza arintasunez hitz egiten dituzte, familiako hizkuntza barne. Hori kontuan hartuta, ia guztiek diote ez dutela arazorik gaztelaniaz jarduteko.
 2. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen arabera, etxean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da. Arabiera eta euskara dira, hurrenez hurren, familia-ingurunean komunikatzeko eta adierazteko bigarren eta hirugarren aukera, etxeetan presentzia txikiagoa badute ere. Zehazki, datuen analisiaren arabera, euskara erabiltzeko joera handiagoa dago familia autoktonoetan atzerritar jatorriko familietan baino.
 3. Familia gehienetan, gurasoak ezkondata daude, eta presentzia handiena duen ikasketa-maila derrigorrezkoaren ondoko heziketa da, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen gurasoen kasuan bezala. Bestetik, lanbide-heziketako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak gutxiago agertzen dira Bigarren Hezkuntzako ikasleen atzerritar jatorriko gurasoen artean.
 4. Oro har, gurasoak lanean ari dira. Hala ere, langabezia handiagoa da bikotea osatzen duten bi pertsonetako batean. Modu berean, etxeko diru-sarrerak lanetik iristen dira gehienbat, eta gizarte-laguntzak oinarrizko ekarpen bat dira hamar familietatik ia bitan. Ekonomikoki etxean moldatzen direla hautematen dute, Lehen Hezkuntzako ikasleen azterketan ere egoera ekonomikoa erostzat deskribatzen duten moduan. Horren aurkakoa hautematen dute familia autoktonoek. Bestetik, atzerritar jatorriko familia ugari alokairuan bizi dira. Familia autoktonoen artean, berriz, gehienak etxebizitzaren jabe dira.
 5. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen gurasoekin gertatzen den moduan, jatorri ugariak latinoamerikarrak dira. Seme-alaben jatorriari dagokionez, erdiak baino pixka bat gutxiago Estatu espainiarreko lekuren batean jaioak dira. Bigarren Hezkuntzako ikasle horien bigarren jatorria Latinoamerika da, %23rekin, eta Magreb da hirugarrena, %9,0rekin.
-


2

Hezkuntza-esparrua


Lehen hezkuntzako eskola-esparrua

Atal honetan, Lehen Hezkuntzako ikasleek beren artean eta irakasleekin ikastetxearen baitan dituzten erlazioekin lotutako alderdi batzuk aztertuko ditugu, bai eta ikasgelan landutako gai batzuei buruzko gustuak eta lehentasunak, gurasoek ikastetxea aukeratzean izandako interesa, eta haien eta ikastetxearen artean sortzen diren erlazioak ere. Kasu honetan, bost urtetik hamabi urtera bitarteko neska-mutilei egin diegunez inkesta, galderak argiak eta errazak izan dira, behar bezala uler ditzaten.

Horregatik, aurrez ikasleen lagunei buruzko galdera batzuk egin ondoren, gizarte-harremanen atalean aztertuko ditugunak, ikasgelan ikaskideekin gatazkarik izaten duten jakin nahi dugu, eta ea inoiz zuzenean borrokaren batean sartuta egon diren. Hurrengo bi grafikoetan, 36. eta 37. grafikoetan, ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleen %38,5ek dio ikasgelan gatazkak izaten direla, eta %31,2k, borrokaren batean sartuta egon dela.


36. grafikoa Borroka ikasgelan, %

13.G. Borrokan ibiltzen al dira zure ikasgelako haurrak?

37. grafikoa Norbera borroketan sartuta egotea, %

14.G. Zuri gertatu al zaizu inoiz? Egin al duzu borrokarik inoiz?
Iturria: egileek egina

Hala ere, noizbait borrokan ibili direla diotenen artean (%31,2), ikasgelako gatazka horiek ia ez dira existitu %37,8aren ustez, eta %52,6ren ustez, noiz edo noiz gertatu da. Ohiko borroka hala hautematen dituzten haietan parte hartu duten pertsonen %5,3k (38. grafikoa). Motiboei dagokienez, zerrenda batean (5. taula) agertzen diren arrazoi batzuk direla-eta borrokatu diren galdetu diegu, eta beharrezko arrazoiak adieraz ditzatela, zerrendan ez badaude. Inkestatutako neska-mutilek gehien adierazi duten motiboa jolastea izan da (%21,7); baina, hala ere, %12,5ek adierazi du hitz egiteko moduagatik sartu dela borroketan.

38. grafikoa Borroken maiztasuna, %

15.G. Askotan edo gutxitan gertatzen da? Zer maiztasunez?

5. taula Borroken motiboak, %


Jolasteagatik	21,7
Zure hitz egiteko moduagatik	12,5
Zure fisikoagatik	5,7
Zure gustuengatik	2,9
Desberdina izateagatik	2,8
Neska izateagatik	1,3
Zure diruagatik	0,0
Zure erlijioagatik	0,0
Beste batzuk	43,5

16.G. Motibo hauetako batengatik izan al da?

Iturria: egileek egina

Ondoren, egoera gatazkatsu batzuk aztertuko ditugu, eta inkestatutako atzerritar jatorriko haurren egunerokotasunarekin zer erlazio duten ikusiko dugu. Lehen pertsonan bizi izan dituzten galdetu diegu, eta 39. grafikoan ikus dezakegunez, gutxitan gertatu da. Hala, %17,1 iraindu egin dute ikastetxean, eta zehazki %10,6 desberdina izateagatik iraindu dute; beraz, haurren %27,7 iraindu egin dute ikastetxean. %15,4k esan du jo egin dutela, eta haurren %16,4k, ez dutela haiekin jolastu nahi. %12,5ek gezurra esan dute, ikastetxera ez joateko, eta soilik %1,4 ikasgelan ezkututzen da, patiora ez ateratzeko jolas orduan.


39. grafikoa Atzerritar jatorriko Lehen Hezkuntzako ikasleek bizi izandako egoerak, %



17.G. Gertatu al zaizu hau inoiz?
Iturria: egileek egina

Ikasgelako ikaskideekin harremanen buruz egiten duten balorazioa positiboa da (40. grafikoa). Inkestatutako neska-mutilen hiru laurdenek uste du harremanak oso onak direla, %25,6k, normalak direla, eta soilik %0,4k egiten du balorazio negatiboa.

40. grafikoa Ikasgelako ikaskideen arteko harremanen balorazioa, %




18.G. Zer moduz konpontzen zara ikaskideekin?
Iturria: egileek egina

Ikastetxean antolatzen diren ibilaldietan eta jardueretan parte hartzen galdetuta, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle askok erantzun dute guztietan parte hartzen dutela; zehazki, %76,3k antolatutako jarduera guztietan hartzen du parte.

%22,4k dio jarduera batzuetan parte hartzen duela eta beste batzuetan ez. Horretan ere aldea dago Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen kasuan; izan ere, %7,2k dio hori. Bi kolektiboetan, ia mespretxagarria da jarduera bakar batean ere parte hartzen ez duen pertsonen kopurua.


41. grafikoa Ikastetxeak antolatutako ibilaldietako eta jardueretako parte-hartzea, %



19.G. Hartzen al duzu parte ikastetxeak antolatzen dituen ibilaldietan eta jardueretan?
Iturria: egileek egina


Inkestatutako atzerritar jatorriko ikasleen %73,3k eskolaz kanpoko jardueraren batean parte hartzen du, eta horien artean kirol-jarduerak dira nagusi; zehazki, %66,9. %41,8k dio hizkuntzak dituela eskolaz kanpoko jardueratzat. Musika da hirugarrena (%26,4), eta oso gertu daude aisialdiko eta denbora libreko jardueretan (%22,5). Eskola-laguntza eskolaz kanpoko jarduera da %21,5entzat. Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikusten da A eremuan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen %79,7 eskola-laguntzako eskolaz kanpoko eskoletara joaten da; B eremuan, %21,4; eta D eremuan, %15,7.

42. grafikoa Eskolaz kanpoko jarduerak, %



20.G. Hartzen al duzu parte eskolaz kanpoko jardueraren batean?


43. grafikoa Eskolaz kanpoko jarduera-motak, %



21.G. Zeinetan? Iturria: egileek egina

Ikasgelaren barruan kultura-aniztasuna nola hautematen duten jakiteko, elkarrizketatutako neska-mutilei deskribatzeko eskatu diegu. Horretarako, hiru aukera eman dizkiegu: 1) Guztiak edo ia guztiak hemengoak; 2) Hemengoak eta beste leku batzuetakoen nahasketa; 3) Guztiak edo ia guztiak beste herrialde batzuetakoak. Ikus dezakegunez, atzerritar jatorriko ikasleen %70,2k hautematen du bere ikasgelan kultura-jatorrien aniztasuna dagoela, eta jatorri autoktonoko ikasleen artean, berriz, %46,4k hautematen du hori. Dena den, jatorri autoktonoko ikasleen ia erdiek diote ikasgelan gehienbat hemengo jendearekin daudela, eta atzerritar jatorriko ikasleen %22,6k dio kultura-aniztasun urria dagoela bere ikasgelan. Atzerritar jatorriko ikasleen %4,9k dio beren ikaskide gehienak hainbat kultura-jatorritakoak direla, eta jatorri autoktonoko ikasleek, berriz, ez dute horrelako baieztapenik egin. Gurutzetako aldagaiak aztertuz gero, ikus dezakegu itunpeko ikastetxeetan ikasten duten atzerritar jatorriko ikasleek (%40,8) jatorri autoktonoko ikasleekin partekatzen dutela ikasgela, ikastetxe publikoetan ikasten dutenek baino neurri handiagoan (%17,3).


44. grafikoa Kultura-aniztasunaren hautematea ikasgelan, %



22.G. Nolako da zure ikasgela edo zure taldea? Iturria: egileek egina

45. grafikoan agertzen diren datuak kontuan hartuta, esan dezakegu Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleak gustura daudela beren ikasgelarekin eta ikaskideekin. Inkestatutako hamar pertsonatik zortzik dio oso gustura dagoela bere ikasgelarekin eta ikaskideekin; hala ere, %16,4k normaltzat baloratzen du. Matrikulatuta dauden hezkuntza-ereduko gurutzeko aldagaian alde adierazgarriak aurki ditzakegu; hain zuzen ere, A ereduan ikasten dutenak neurri handiagoan baloratzen dute ikasgelarekiko asebetetze-maila normal gisa (%54,7), eta horretan aldea dago B ereduan (%21,5) eta D ereduan (%12,2) ikasten dutenekin alderatuz gero.

45. grafikoa Ikasgelarekiko eta ikaskideekiko asebetetze-maila, %



23.G. Gustuko al duzu zure ikasgela edo zure taldea?
Iturria: egileek egina

Oro har, ez dago Lehen Hezkuntzako ikasleentzat bereziki gustukoa ez den ikasgairik. 6. taulan, zenbait irakasgai daude adierazita. Inkestatutako neska-mutilek horietako bakoitza gustuko duten edo ez adierazi dute. Gertatu ohi den moduan, badira haurrentzat gustukoagoak diren irakasgai batzuk; esaterako, Plastika eta Gorputz-hezkuntza. Ingurunearen ezagutzarekin lotutako irakasgaia da gutxien gustatzen zaiena. Hala ere, %74,9k gustuko du irakasgai hori.


6. taula Irakasgaiak gustukoak dituzten edo ez, %

	Bai	Ez
Plastika	92,7	6,0
Gorputz-hezkuntza	92,7	5,4
Gaztelania	84,6	11,6
Atzerriko hizkuntza	81,8	15,5
Euskara	81,5	15,3
Matematika	80,1	15,8
Inguru	74,9	18,9

25.G. Zein irakasgai dituzu gustukoak eta zein ez?
Iturria: egileek egina

Azkenik, zer-nolako ikasleak diren baloratzeko eskatu diegu; hau da, ea zer uste duten, ikasle onak, normalak edo txarrak diren. 46. grafikoan ikusten den moduan, %72,4k ikasle ontzat du bere burua, eta %26,7k, normaltzat. Bestetik, Lehen Hezkuntzako ia ikasle guztiek diote normalean etxeko lanak egiten dituztela (%97,8).


46. grafikoa Ikasle-motaren autopertzepzioa, %



26.G. *Ikasle ona edo txarra zara?*
Iturria: egileek egina

Ondoren, ikastetxearekin eta beren seme-alabekin lotutako gaiei buruzko Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen gurasoen iritziak aztertu ditugu; adibidez, ikastetxearen aukeraketa, bertan zenbat denbora daramaten matrikulatuta eta familien eta ikastetxearen artean ezartzen diren harremana. Gurasoei eskatu zaie beren seme-alaben ikastetxea aukeratzeko baliatu dituzten hiru motiboak hautatzeko, garrantziaren arabera ordenatuta. 47. grafikoan, arrazoen multzo bati buruzko lehen aipamena eta guztizko aipamenak ikus daitezke. Ikastetxea familiaren etxetik hurbil egotea izan da inkestatutako pertsonen lehen arrazoa, bai lehen aipamen gisa (%55,4) bai guztizko aipamen gisa (%72,9). Guztizko aipamenetan, prezioa da bigarrena (%28,2), lehen portzentajetik urrun; eta hirugarrena, kalitatea (%23,8). Hezkuntza-eskaintza aukeratzeko motiboa izan zen atzerritar jatorriko familien %17,4rentzat, eta %12rentzat ikastetxeak erlijioa edukitzea ikastetxea hautatzeko aukera bat izan da.

47. grafikoa Ikastetxea aukeratzea. Lehen aipamena eta guztizkoak, % (Iradokitako erantzuna)




65.G. Zergatik aukeratu zenuen ikastetxe hau zure seme-alabak matrikulatzeko?
Iturria: egileek egina

Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, zenbait alde adierazgarri ikus daitezke; esate baterako, itunpeko ikastetxeetan ikasten dutenen %46,7ren ustez hezkuntza-eskaintza garrantzitsua da, eta ikastetxe publikoetan matrikulatutakoak %17,0k du iritzi hori. Ikastetxea kalitatearen arabera aukeratzeari dagokionez, gurasoetako bat soilik atzerritar jatorrikoa den kasuetan %49,7k hori adierazi du, eta biak atzerritar jatorrikoak diren kasuetan, %19,7k.

Hizkuntza-ereduari dagokionez, A ereduaren ikasten dutenen ikasleen gurasoen %33,1ek dio ez zuela berak erabaki seme-alabak egun dauden ikastetxean matrikulatzea; B ereduaren dauden %1,3ri gertatu zaio hori bera, eta D ereduko %1,7ri. Ikastetxea aukeratzeko orduan erabaki falta gehien izan dutenak ikasketarik ez duten edo soilik lehen mailako ikasketak dituzten gurasoak izan dira (%24,5), bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketakoak dituzten gurasoetatik (%2) nabarmen bereiziz.


48. grafikoa ikus daitekeen moduan, ia ez da ikastetxe-aldaketarik izan azken urtean; soilik %5,3k dio beste ikastetxe batera aldatu direla. Ikastetxez aldatu diren artean, %68,5ek behin bakarrik egin du, eta %23,4k, bi aldiz edo gehiagotan (49. grafikoa).

48. grafikoa Ikastetxez aldatzea, %



67.G. Zure seme-alaba ikastetxez aldatu al duzu azken urtean?

49. grafikoa Ikastetxe-aldaketen kopurua, %




68.G. Zenbat aldiz aldatu duzu ikastetxez zure seme-alaba?
Iturria: egileek egina

Ikastetxerako, erreferentziatzeko pertsona oro har ama izaten da. Hala dio %80k. Aita neurri txikiagoan izaten da, %27,2k dioenez.


Azkenik, familiaren eta ikastetxearen arteko harremanak ugariak direla hautematen dute familiak. Izan ere, 50. grafikoa ikus dezakegun moduan, %80,8k hori dio, harreman dezente eta ugari dutela uste dutenak erreferentziatzat hartuta. Aldiz, %18,8ren iritziz, harreman gutxi dute ikastetxearekin, eta %0,4ren ustez, batere ez. Hori horrela, harreman gutxi edo batere ez zergatik dagoen galdetu diegu. %67,4k dio ez duela beharrezkoa ikusten, eta %11,3k, komunikazio-hizkuntzarekin arazoak dituelako.

50. grafikoa Ikastetxearekiko harremana, %



70.G. Nola deskribatuko zenuke ikastetxearekiko harremana?

51. grafikoa Ikastetxearekiko harremanik ezaren motiboak, %



71.G. Eta, zure ustez, zergatik dago harreman gutxi edo batere ez?
Iturria: egileek egina

Laburbilduz


1. Lehen Hezkuntzako ikasgelako harremanak eta ikaskideekiko gogobetetzea positibotzat hartzen dute atzerritar jatorriko ikasleek. Dena den, borrokak ere izaten dira, baina ez sarritan. Bizi izan dituztenek diotenez, motiboak jolasarekin lotuta daude, eta neurri txikiagoan, hitz egiteko moduarekin lotuta. Lehen Hezkuntzako ikasleek bizi izan dituzten egoera desatseginen artean, iraina da ohikoena; eta horren atzetik, indarkeria fisikoa eta eskola-orduetan aisialdia partekatzen ez uztea.
 2. Ikastetxeak antolatutako jarduera guztietan atzerritar jatorriko ikasleen parte-hartze handia hauteman da, bai eta eskolaz kanpoko jardueretan ere. Eskolaz kanpoko jarduera gehienak kirolarekin lotuta dauden arren, badaude hizkuntzak, aisialdia eta denbora libre, musika edo eskola-laguntzako eskolak ere, besteak beste. Zehazki, eskolaz kanpoko azken jarduera hori da neurri handienez A ereduko ikasleek aukeratzen dutena.
 3. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek hautematen dute kultura-aniztasuna beren ikasgelan; hala ere, hautemate hori ez da hain nabaria itunpeko sareko ikastetxeetan ikasten dutenen artean.
 4. Beren burua ikasle ontzat dute eta irakasleek emandako lanekiko arduratsuak direla uste dute. Ez dute bereziki baztertzen irakasgai jakin bat. Hala ere, euskara, matematika eta ingurunearen ezagutza ikasleei gutxien gustatzen zaizkien irakasgaiak dira.
 5. Atzerritar jatorriko gurasoek ikastetxea etxebizitzatik hurbil egotea hartzen dute kontuan, ikastetxea aukeratzeko. Dena den, prezioa, kalitatea eta hezkuntza-eskaintza ere kontuan hartzen dituzte ikastetxe baten edo beste baten alde egiteko.
 6. Oro har, Lehen Hezkuntzako ikasleak ez dira ikastetxez aldatzen, eta halakoetan, urtean behin soilik egiten dute.
 7. Ikastetxerako, erreferentziazko pertsona oro har ama izaten da, eta familiek sarritan izaten dituzte harremanak ikastetxearekin.
-

Bigarren hezkuntzako eskola-esparrua

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen hezkuntzarekin lotutako gaiak sakon aztertuko ditugu. Kasu honetan, galde-sortak eskaintzen duen informazioa osoagoa da Lehen Hezkuntzako ikasleen artean aurkitu ahal izan duguna baino. Azken horretan, ikastetxeko giroa eta beren maila akademikoari dagozkion alderdiak aztertu ditugu.


52. grafikoan ikus daitekeen moduan, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %91,5en ustez, hainbat leku, erlijio eta/edo kulturatako pertsonak egotea ona da, gauza berriak ikasten dituztelako. %8,5ek, berriz, uste du ona dela, baina zailtasun gehigarriren bat ere hauteman dute. Azkenik, inork ez du uste kaltegarria denik euskal kulturarako.

52. grafikoa Kultura-aniztasunari buruzko iritzia, %



24.G. Zer iruditzen zaizu euskal kulturari hainbat leku, erlijio eta/edo kulturatako pertsonak egotea?
Iturria: egileek egina

Kultura-aniztasunaren errealitatea Bigarren Hezkuntzako ikasleen ikasgeletara hurbiltzea positiboa dela uste du %83,2k. %16,8 tartean kokatzen da; ez du uste denik ez positiboa eta ez negatiboa. Azkenik, inork ez du uste negatiboa denik. Aurreko galderarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu biek kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa duten arren, harremanetarako eta ikasketarako guneak partekatzeke ideia ez dute hainbeste babesten gauza berriak ikasteko aukera ematen duen kultura-aniztasunaren onurei buruzko baieztapena adina. Modu berean, jarrera anibalentea zabalagoa da zuzenean eragiten dienean.

53. grafikoa Ikasgelako kultura-aniztasunari buruzko iritzia, %

25.G. *Eta zure ikasgelari dagokionez, zer iruditzen zaizu hainbat leku, erlijio eta/edo kulturatako pertsonak ego?*
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleen hautematearekin jarraituz, beren ikastetxea nola hautematen duten galdetuta, %69,4k esan du ez diola atentzioa ematen atzerritar jatorriko ikasleen bolumenak, normala iruditzen zaiola; %25,4k uste du atzerritar jatorriko pertsona gutxi daudela. Aitzitik, inkestatutako pertsonen %5,2k atzerritar jatorriko ikasleen gehiegizko presentzia hautematen du.

54. grafikoa Atzerritar jatorriko ikasleen presentziari buruzko hautematea, %


26.G. *Zure ikastetxeari edo institutuari buruz pentsatuz gero, zer esango zenuke?*
Iturria: egileek egina

Alde adierazgarriak erakusten dituzten gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikus dezakegu A ereduko ikasleen artean kanpoko pertsona gehiegi daudela uste duten pertsona gehiago daudela: hala dio %50,0k. Bestetik, asiar jatorriko ikasleen %25ek ere hori bera uste du. Latinoamerikar jatorriko pertsonen artean, berriz, %7,1ek soilik uste du kanpoko pertsona gehiegi daudela. Ikasketak dituzten gurasoen artean ohikoagoa da kanpoko pertsona gehiegi daudela uste izatea (%16,5) ikasketarik ez duten edo soilik Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten gurasoen artean baino (%9,5).

Ikastetxeko indarkeriazko gertaera posibleei buruz hitz egitean, 55. grafikoa ikus dezakegu %60,5en ustez ez dagoela erasorik; eta erasoak izaten direla uste

dutenen artean, %23,8k uste du ikasleen artekoak izaten direla, eta %13,8k, ikasleen eta irakasleen artekoak. Alde adierazgarriak daude ikastetxe-motaren, hizkuntza-ereduaren, gurasoen jaiotza-herrialdeen, gurasoen ikasketa-mailaren, familia-motaren eta iritsi ziren garaiaren arabera. Beraz, ikastetxe publikoetan matrikulatutakoek indarkeria maila handiagoan hautematen dute (%44,9) itunpeko ikastetxeetan edo ikastetxe pribatuetan matrikulatutakoek baino. Bestetik, ikaskideen arteko indarkeria neurri handiagoan hautematen dute B ereduan matrikulatuta daudenek (%48,3) D ereduan matrikulatuta daudenek baino (%14,5). Ekialdeko Europako jatorria duten ikasleek neurri handiagoan hautematen dituzte ikasleen arteko indarkeriazko egoerak eta ikasleen eta irakasleen artekoak (hala dio %50,0k) beste jatorri batzuetako ikasleek baino. Halaber, ikasketarik ez duten edo soilik lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben artean indarkeria-maila handiagoak hautematen dira (%50,0) beste ikasketa maila batzuek dituzten gurasoen seme-alaben artean baino. Familia mistoetako ikasleen artean, ikasleen arteko indarkeria neurri handiagoan hautematen da (%79,9) atzerritar jatorriko familietako ikasleen artean baino (%16,4). Azkenik, adierazi behar da 2008tik aurrera iritsi ziren ikasleen artean indarkeria gehiago hautematen dela (%64,9), data hori baino lehenago iritsi zirenetatik nabarmen bereiziz.


55. grafikoa Indarkeria ikastetxean, %



27.G. Hauteman al duzu inolako indarkeria-motarik zure ikastetxean, ikasleen artean edo ikasleen eta irakasleen artean?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleen laurden batek baino gehiagok lehen pertsona bizi izan du indarkeria bere ikastetxean (%29,8). 56. taulan ikusten den moduan, ikasleen arteko indarkeria ez da kausa bakar baten ondorioa, eta hainbat izan daitezke erasoak eragiten dituzten gaiak (7. taula). “Desberdina izateagatik” motiboa guztizko aipamenen %45,8an agertzen da; ezaugarri fisikoak, %25ean; eta gustuak, %37,5ean. Azaldutako motibo batzuei buruzko aipamenak ere aurkitu ditugu; esate baterako, hitz egiteko modua (%20,8), nota hobeak ateratzea (%8,3) eta izaera (%8,3).

56. grafikoa Indarkeria lehen pertsonan bizi zena, %



28.G. Indarkeria-motaren bat, irainak edo borrokak jasan al dituzu ikastetxean?


7. taula Indarkeriaren motiboak, %

Desberdina izateagatik	45,8
Nire gustuengatik	37,5
Nire ezaugarri fisikoengatik	25,0
Nire hitz egiteko moduagatik	20,8
Nire adineko mutilen arteko ohiko borrokak	12,5
Nota hobeak ateratzen ditu eta klasean adi egoten da	8,3
Izaera	8,3
Neska izateagatik	0,0

29.G. Motibo hauetako batengatik izan al da?
Iturria: egileek egina

Alde adierazgarriak dituzten gurutzeetako aldagaiei dagokienez, mutilek indarkeria handiagoa jasan dute (%47,4) neskek baino (%7,5). Bestetik, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak soilik dituzten gurasoak dituzten ikasleek indarkeria gehiago jasan dute lehen pertsonan (%65,3) maila handiagoko ikasketak dituztenen seme-alabek baino. Motiboei erreparatu, Bigarren Hezkuntzako edo lanbide-heziketako ikasketak dituzten atzerritar jatorriko gurasoen seme-alaben artean soilik ezaugarri fisikoetan dituzte alde adierazgarriak (%71,2) gainerako hezkuntza-mailekin alderatuta.

Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleei bezala, ea azken urtean 57. grafikoa azaltzen diren egoeretako bat edo beste bizi izan duten galdetu diegu. Zehazki, %22,3k dio norbait iraindu duela, eta %22,7k desberdina izateagatik egin duela. Eta hori da, hain zuzen, motibo nagusia. Ikastetxera ez joateko gezurra esatea %22,3 da, eta haiekin jolastu nahi ez izatea, %16,9. Indarkeria fisikoa %10,5 da, Lehen Hezkuntzako ikasleek arteko proportzioa baino txikiagoa.


57. grafikoa Ikasleek Bigarren Hezkuntzan bizi izandako egoerak, %

30.G. Azken urtean, gertatu al zaizu gauza hauetakoren bat?
Iturria: egileek egina

Zenbait motibotan alde adierazgarriak daude; zehazki, irainekin, jolas-denbora partekatzearekin eta gezurra esatearekin lotutakoak. Mutilek irain gehiago jasaten dituztela (%36,5) diote neskek baino (%4,3), eta Ekialdeko Europatik datozenek gezur gehiago esaten dute ikastetxera ez joateko (%50) gainerako lekuetatik etorritakoek baino. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek neurri handiagoan jasaten dituzte irainak, desberdinak izateagatik, D ereduan (%44,4) B ereduan baino (%9,2).


Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %34,2k dio ikaskideak iraintzen, jotzen eta haiei gehiegikeriak egiten jarduten duten pertsonak daudela bere ikasgelan. Bestetik, gune horretan gerta daitezkeen gatazken maiztasuna oso txikia da; izan ere, %29,5ek dio ez duela gatazkarik izan ikasgelan, eta %31,1ek, ez duela ia inoiz izan. %18,3k uste du gatazken maiztasuna altua dela. B ereduko ikasleek neurri handiagoan uste dute batzuetan gatazkek egoten direla (%62,2) D ereduan matrikulatutakoek baino (%7).

58. grafikoa Ikasle gatazkatsuak, %



31.G. Zure ikasgelan ba al dago iraindu, jo, bultzatu, gauzak baimenik gabe hartu edo baztertzen duen ikaslerik?


59. grafikoa Gatazken maiztasuna, %



32.G. Ohikoak al dira gatazkak zure ikasgelan?
Iturria: egileek egina


Bigarren Hezkuntzako ikasleek %60,9k uste du ikaskideekiko harremanak onak direla, eta %12,3k uste du oso onak direla. %9,6k uste du harremanak txarrak direla, eta %17,1ek, ez direla ez onak eta ez txarrak. Gurutzeetako aldagaiei erreparatu gero, alde adierazgarriak aurkituko ditugu ikasmilaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako atzerritar jatorriko ikasleek uste dute ikasgelako harremanak onak direla (%94,8), Bigarren Hezkuntzakoek baino neurri handiagoan (%41,6). Hori bera neurri handiagoan hautematen dute B ereduiko ikasleek (%84,6) eta A ereduokoen (%50), D ereduokoen alderatuta (%33,5).

60. grafikoa Ikaskideekiko harremana ikasgelan, %




33.G. Nola deskribatuko zenuke ikasgelako ikaskideekiko harremana?
Iturria: egileek egina

Hala ere, irakasleekiko harremanaz galdetzean, 61. grafikoa ikus daiteke ez dela inoiz negatibo gisa baloratu, eta aukera neutrala hautatu duela %10,5ek. Gehienek ona dela uste dute (%68,8), eta %20,6k, oso ona dela. Bestetik, afrikar jatorriko ikasleen %43,3k oso ontzat baloratu du, asiarrak jatorriko (%50) eta latinoamerikar jatorriko (%7,1) familietatik nabarmen bereiziz.

61. grafikoa Irakasleekiko harremanen balorazioa, %

34.G. Nola deskribatuko zenuke irakasleekiko harremana?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleen ia hiru laurdenek ikastetxeek proposatutako jarduera guztietan hartzen dute parte, eta %18,3, batzuetan. Parte-hartzerik eza oso urria da (%2,5) eta ikasleen %6,3k dio ez duela parte hartzen eskolaz kanpoko jardueren eskaintza faltarengatik (62. grafikoa).


62. grafikoa Eskolaz kanpoko jardueretako parte-hartzea, %

36.G. Hartzen al duzu parte eskolaz kanpoko jardueretan (ibilaldiak, bidaiak, bisitak, festak...)?
Iturria: egileek egina

Aukeratzeari edo gutxienez eskolaz kanpoko jarduerak egiteko aukera izateari dagokionez, %72,1ek dio haietan parte hartzen duela, eta %27,9k, ez duela parte hartzen. Kirol-jarduerak dira ohikoena (%73,6), eta ondoren, tarte handiarekin, eskola-laguntzakoak (%30,2) eta hizkuntzak (%28) daude. %4tik behera, musika-jarduerak daude (%3,5) eta ez dago aisialdiko eta denbora libreko jardueretan parte hartzen duen atzeritar jatorriko ikaslerik. Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikus daiteke A ereduko ikasleek ez dutela parte hartzen eskolaz kanpoko jardueretan. B ereduan ikasten dutenak, berriz, gehiago dira nabarmen (%48,8). Bestetik, azken aldian, 2008tik 2013ra bitartean, iritsi zirenen artean, %69,4k ez du eskolaz


kanpoko jarduerarik egiten, eta kopuru hori 2008 baino lehenagoko aldietakoak baino handiagoa da. Musika-jarduerari dagokienez, ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabek gehiago parte hartzen dute haietan (%17,1).

63. grafikoa Eskolaz kanpoko jarduerak, %



37.G. Hartzen al duzu parte eskolaz kanpoko jardueraren batean?


64. grafikoa Eskolaz kanpoko jarduera-motak, %



38.G. Zeinetan? Iturria: egileek egina

Ondoren, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen maila akademikoarekin lotutako galdera batzuk ditugu. Lehenik eta behin, ikasgelako ikasleen asebetetze-mailari ekingo diogu. 65. grafikoa ikus daitekeen moduan, hamarretik bederatzik dio nahiko gustura edo oso gustura dagoela ikasgelan. Inork ez dio pixka bat deseroso sentitzen denik ikasgelan. Eta, azkenik, %10,2k dio ez dagoela batere gustura. Azken talde horren kasuan, ikasgelako asegabatasunaren motiboak jakin nahi genituen. Ez da bakarria egonezina sortzen dien arazoa, zenbait arazo dira baizik. Besteak beste ikasgelan emandako gaiak, zenbait ikaskide, eta pertsona lotsagabeekin egotea.

65. grafikoa Ikasgelarekiko asebetetze-maila, %




39.G. Gustura al zaude zure ikasgelan? Iturria: egileek egina

Bestetik, ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasleak dituzten gurasoen seme-alaben %74,8 nahiko gustura dago ikasgelan, maila handiagoko ikasketak dituztenen seme-alabak ez bezala.

Akademikoki hitz eginez, beren eskola-errendimenduari buruzko hautematea zerotik hamarrera arteko eskalan baloratzeko eskatu diegu, zero “oso gaizki” eta hamar “primeran” izanik. 66. grafikoa ikus daitekeen moduan, batez besteko puntuazioa 7,43 puntu dira, hamarren gainean. Beraz, ikastetxeko errendimenduari buruzko erlazioa positiboki baloratzen da.


66. grafikoa Eskola-errendimenduaren autopertzepzioa, batez besteko balioak



41.G. Orik 10era arteko eskalan, 0 “oso gaizki” eta 10 “primeran” izanik, nola esango zenuke zabiltzala ikasgelan?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleak euskara irakasgaiari moldatzen dira okerren: %64,7ren ustez okerrena da. Jatorri autoktonoko ikasleen kasuko kopurua (%22,6) baino askoz ere handiagoa da. Bigarrenik, atzerritar jatorriko ikasleen %41,3k dio gaizki dabilela matematikan. Horretan, jatorri autoktonoko ikasleen kopurua ere (%38,7) antzekoa da. Bestetik, atzerriko hizkuntzetan okerrago moldatzen dira jatorri autoktonoko ikasleak (%45,2) atzerritar jatorrikoak baino (%25,7).

67. grafikoa Balorazio baxueneko irakasgaiak, %




42.G. Zein irakasgaitan moldatzen zara okerren? Eta zeinetan ondoen?
Iturria: egileek egina

Alde adierazgarriak dituzten aldagaiei erreparatuz, ikusten dugu matematika irakasgaiaren kasuan, gehiago direla ondo moldatzen direla dioten B ereduko ikasleak (%94,8) gainerako ereduak baino. Bestetik, ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben %7k soilik dio gaizki

moldatzen dela irakasgai horretan. Ez da hala gertatzen bigarren mailako eta lanbide-heziketako ikasketak dituztenen (%45,4) eta goi-mailako ikasketak dituztenen (%57,6) seme-alaben kasuan.


Inkestatutako Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen artean, %19,7k dio gutxienez behin errepikatu duela mailaren bat. Eta, maila errepikatzeko aukerari dagokionez (69. grafikoa), %5,5ek uste du hala izango dela, eta gehienek (%76,4) ez dute ukatzen gerta daitekeenik. Gainera, %18k ez du batere argi erantzuna. Sexuaren arabera, aldeak nabarmenak dira hurrengo urtean maila errepikatu beharko duten ez dakiten mutilen artean (%32,2) eta nesken artean, non inork ez duen zalantzan jartzen.

68. grafikoa Maila noizbait errepikatu dute, %



43.G. Noizbait errepikatu al duzu maila?


69. grafikoa Maila errepikatzeko aukera, %



44.G. Zure ustez, errepikatu al dezakezu?
Iturria: egileek egina


Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %63,5ek uste du eskola-laguntza behar duela irakasgairen batean. Horietatik, ia erdiek diote ikastetxeak edo institutuak laguntza eskaini dietela (70. grafikoa), eta %46,8k, ez zuela horrelakorik izan. Familiak emandako laguntza pixka bat handiagoa da (71. grafikoa); izan ere, eskola-laguntza behar dutela dioten %57k dio gurasoen laguntza izaten duela. Familiak eskaintzen duen laguntza klase partikularrak jasotzea izaten da kasu batzuetan. Eskola-laguntza behar dutela dioten artean, laguntza izateko aukera gurasoek eman diete gehienei (%51,4).

70. grafikoa Ikastetxeak emandako laguntza, %



46.G. Eskaini al dizute laguntza zure ikastetxean/institutuan?


71. grafikoa Familiak emandako laguntza, %



47.G. Eskaini al dizute laguntza gurasoek/tutoreek? Iturria: egileek egina

Azkenik, eta 72. grafikoa ikusten den moduan, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek ez dute eskolara huts egiten dutenik esan; izan ere, %67,2k dio ez duela inoiz huts egiten eskolan, eta %32,8k, soilik noizean behin huts egiten duela.

72. grafikoa Eskolara huts egitearen maiztasuna, %




49.G. Zenbatean behin huts egiten duzu klasean? Iturria: egileek egina

Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleekin egin dugun moduan, beren seme-alaben ikastetxeekin lotutako gaiei buruzko gurasoen iritziak aztertuko ditugu. Esate baterako, ikastetxearen aukeraketa, zenbat denbora daramaten bertan matrikulatuta, eta zer harreman ezartzen diren familien eta ikastetxeen artean. Aztertu beharreko lehen kasuan, gure galderei erantzun dieten gurasoei beren seme-alaben ikastetxea aukeratzeko hiru motibo adierazteko eskatu diegu, garrantziaren arabera ordenan. 73. grafikoa ikus dezakegun moduan, itxita dagoen galde-sorta baten lehen aipamena eta guztizko aipamenak daude adierazita.

Hurbiltasuna da atzerritar jatorriko familiek gehien kontuan hartzen duten alderdia, ikastetxea aukeratzeko. Izan ere, lehen aipamen gisa agertzen da (%43), bai eta guztizko aipamenetan ere (%68,4). Hezkuntza-eskaintza eta kalitatea bigarren (%63) eta hirugarren (%55,6) alderdiak dira, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen kasuan ikusi ditugun kopuruaren hirukoitza eta bikoitza, hurrenez hurren. Beraz, hurbiltasunak familientzat garrantzitsua izaten jarraitzen duen arren, Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, Lehen Hezkuntzako kasuan baino pixka bat txikiagoa da. Horren ordainetan, ikastetxeen kalitatearen eta hezkuntza-eskaintzaren garrantzia handitu egin da. Prezioa, Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bigarren alderdi garrantzitsuena zena, %14,8k soilik aipatu du kasu honetan, ikastetxeko aniztasunari buruzko kopuruaren antzekoa (%19). Azkenik, ikastetxea aukeratzeko ez dutenen kopurua handiagoa da Bigarren Hezkuntzako familien artean (%8,8) Lehen Hezkuntzako familien artean baino (%3,1).

73. grafikoa Ikastetxea aukeratzeko. Lehen aipamena eta guztizkoak, % (Iradokitako erantzuna)




65.G. Zergatik aukeratu zenuen ikastetxe hau zure seme-alabak matrikulatzeko?
Iturria: egileek egina

Alde adierazgarriak erakusten dituzten gurutzeetako aldagaiei erreparatu, D ereduko ikasleen familietan ikastetxea aukeratzeko erabakian parte hartzen ez duten pertsona gehiago daude (%20,2) seme-alabak beste eredu batzuetan matrikulatuta dituzten familietan baino; eta gauza bera gertatzen da ikasketarik gabeko edo lehen mailakok ikasketak dituzten gurasoen artean (%29,3) ere, parte-hartze txikiagoa izan baitute beste hezkuntza-maila batzuekin alderatuta. Bestetik, afrikar jatorriko familiek kalitatea ez dute hainbeste kontuan hartzen ikastetxea aukeratzeko (%25,7), gainerako atzerritar jatorrikoekin bereiziz. Ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten gurasoek ere gutxiago hartzen dute kontuan kalitatea (%16,7), bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketako ikasketak dituzten gurasoekin (%64,2) eta goi-mailako ikasketak dituztenekin (%68,3) alderatuta.

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen artean, ikastetxez aldatzea gutxitan gertatzen da, oro har, 74. grafikoa ikus dezakegun moduan. %91,8k


ez ditu seme-alabak ikastetxez aldatu azken urtean, eta portzentaje hori Lehen Hezkuntzako ikasleen portzentajearen ia berdina da. Seme-alabak ikastetxez aldatu dituztenek, normalean behin aldatu dituzte (%77,2). Hala ere, %22,8k aldaketa bat baino gehiago egin du, eta kopuru hori Lehen Hezkuntzako ikasleena baino handiagoa da.

74. grafikoa Ikastetxez aldatzea, %



67.G. Zure seme-alaba ikastetxez aldatu al duzu azken urtean?


75. grafikoa Ikastetxe-aldaketaren kopurua, %



68.G. Zenbat aldiz aldatu duzu ikastetxez zure seme-alaba?
Iturria: egileek egina

Ikastetxerako erreferentziarako pertsonari dagokionez, kasu gehienetan ama izaten da. Hala ere, badaude aldeak familia autoktonoen eta atzerritar jatorriko familien artean, azken horietan aitaren presentzia txikiagoa baita. Familia autoktonoen kasuan, %90,3an erreferentziarako pertsona, %41,9an aita ere bada.

76. grafikoa Ikastetxerako erreferentziarako pertsona, %




69.G. Nor da ikastetxerako erreferentziarako pertsona?
Iturria: egileek egina

Ikastetxearekin ezartzen diren harremanei buruz ari garela, harremanen intentsitatea altua dela uste dute atzerritar jatorriko gurasoek; izan ere, 77. grafikoa ikus daitekeen moduan, %41,5ek uste du nahiko harreman dagoela, eta %25,4k, harreman handia dagoela. Aurkako poluan, %25,4k dio harreman gutxi duela ikastetxearekin. Lehen Hezkuntzako ikasleen familiekin alderatuta, badirudi


ikastetxearekiko harremana urriagoa dela. Motibo nagusia beharrezkoa ez dela uste izatea da, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko familiek adierazitako antzeko proportzioetan (78. grafikoa).

77. grafikoa Ikastetxearekiko harremana, %



70.G. Nola deskribatuko zenuke ikastetxearekiko harremana?

78. grafikoa Ikastetxearekiko harremanik ezaren motiboak, %



71.G. Eta, zure ustez, zergatik dago harreman gutxi edo batere ez? Iturria: egileek egina

Hizkuntza-ereduan, gurasoen ikasketa-mailan eta familia-motan alde adierazgarriak hauteman ditugu. B ereduan ikasten duten ikasleen artean, familien %6,9k soilik dio ikastetxearekin harreman handia duela. Kopuru hori D ereduan ikasten duten ikasleen familien kopurua (%37,4) baino nabarmen txikiagoa da. Aitzitik, ikastetxearekiko harreman gutxi izatea ohikoagoa da ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten (%62,6) gurasoen artean, goi-mailako ikasketak (%42,2) eta bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketakoak (%20,2) dituztenen artean baino. Azkenik, hamar familia mistotik zortzik diote harreman gutxi dutela ikastetxearekin (%79,9), bi gurasoak atzerritar jatorrikoak dituzten familietan (%27,4) kasuan ez bezala.

Laburbilduz

1. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek jarrera tolerantia dute kultura-aniztasunarekiko; hala ere, jarrera anibalenteagoa bihurtzen da egoerak zuzenean eragiten badie. Ez dute hautematen beren ikastetxean etorkinen presentzia gehiegizkoa denik, baina probableagoa izaten da hori gertatzea A ereduaren ikasten dutenen artean eta goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen familietan.
2. Oro har, ez dute indarkeriazko gertaerarik hautematen ikastetxean, eta hori gertatzen bada, hamarretik bik esaten dute ikasleen artean ikusi izan dutela. Bigarren Hezkuntzako ikasleen laurden batek baino gehiagok indarkeria-motaren bat bizi izan duela dio, eta gehien agertzen diren motiboak desberdina izatea, ezaugarri fisikoak eta gustuak izaten dira. Indarkeria mutilen artean gertatzen da gehiago, eta ikasketarik gabeko edo soilik lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben artean.
3. Ikastetxeetan izan daitezkeen egoera gatazkatsu edo negatibo potentzialen artean, iraina da ohikoena; ondoren, ikastetxera ez joateko esaten diren gezurrak eta haiekin jolastu nahi ez izatea daude. Mutilek irain gehiago jasaten dituztela diote neskek baino.
4. Gatazkak ez dira ohikoak ikasgelan, eta beren ikasgelan pertsona gatazkatsurik ez dagoela uste duten atzerritar jatorriko ikasleak ugariagoak dira aurkakoa uste dutenak baino. Ikaskideekiko harremanak onak dira, eta irakasleekiko harremanak, are hobekiak.
5. Bigarren Hezkuntzako ikasleen hiru laurdenek ikastetxeak proposatutako jardueretan parte hartzen dute, eta ikastetxetik kanpo bere kabuz egiten dutenen proportzioa ere antzekoa da. A ereduko ikasleek beste hizkuntza-ereduetan matrikulatutako ikasleek baino gutxiago hartzen dute parte. Kirol-jarduerak dira ohikoena; eta ondoren, eskola-laguntza eta hizkuntzak.
6. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko hamar ikasletik bederatzi oso gustura sentitzen da ikasgelan. Gustura ez daudenek zenbait arrazoi eman dituzte; besteak beste, ikaskide batzuk, lotsagabeak izatera irits daitezkeelako, eta ikasi beharreko irakasgaiak.
7. Beren eskola-errendimenduari oso ongi balorazioa jarri diote. Okerren euskara eta matematika irakasgaietan moldatzen direla uste dute. Euskal jatorriko ikasleen kasuan, atzerriko hizkuntzetan atzerritar jatorriko ikasleak baino okerrago moldatzen direla uste dute.
8. Oro har, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleak ez du maila errepikatu; baina, hala ere, etorkizunean hori gerta daitezkeenari buruzko

zalantza pixka bat handitu da. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen erdiek baino pixka bat gehiagok uste dute eskola-laguntza behar dutela irakasgairen batean, eta familian laguntza gehiago hautematen du ikastetxean baino. Azkenik, eskolara huts egitea ez dago orokortuta, ezta gutxiago ere.

9. Atzerritar jatorriko familiek ikastetxearen hurbiltasuna, kalitatea eta hezkuntza-eskaintza hartzen dituzte kontuan, ikastetxea aukeratzeko orduan. Azken bi aukera horiek askoz ere garrantzitsuagoak dira Bigarren Hezkuntzako gurasoentzat Lehen Hezkuntzako gurasoentzat baino. Ikasketarik gabeko edo soilik lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen artean ohikoagoa da ikastetxeari buruzko erabakitze-falta.
 10. Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, ez da ohikoa seme-alabak ikastetxez aldatzea, eta aldatzen duenak behin aldatzen du normalean.
 11. Ikastetxerako familiako erreferentzia den pertsona ama izaten da, baina familia autoktonoetan aitaren presentzia handiagoa da atzerritar jatorriko familietan baino. Bestetik, azken horiek diote nahiko harreman dutela ikastetxearekin. Maiztasun hori Lehen Hezkuntzako ikasleen familia baina pixka bat txikiagoa da. Ikastetxearekin harremanik izaten ez dutenek ez dute beharrik sentitzen. Portaera hori ohikoagoa da ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen artean.
-

3

Familia-esparrua

Lehen hezkuntzako familia-esparrua

Atal honetan, familiaren egoerari eta giroari buruzko datuak aztertzen ditugu, bai eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hurrei familiak ematen dien eskola-laguntza ere. Lehenik eta behin, ikaslea zer familia-baldintzetan bizi den jakiteko, etxean zenbat pertsona bizi diren galdetu diogu. 8. taulan ikus daitekeen moduan, jatorri autoktonoko ikasleen kasuan, lau pertsonako etxeen portzentajea ia bi aldiz handiagoa da atzerritar jatorriko pertsonen etxeetakoa baino (%71,0 eta %38,5, hurrenez hurren). Bost pertsonako etxeei dagokienez, egoera alderantzizkoa da; proportzioa handiagoa da atzerritar jatorriko pertsonen artean (%26,4) euskal jatorriko pertsonen artean baino (%5,8). Azkenik, bost pertsona baino gehiagoko etxeetan, familien %4,3 jatorri autoktonokoa da, eta familien %11,5, atzerritar jatorrikoa. Beraz, atzerritar jatorriko familien etxeetan pertsona gehiago bizi dira jatorri autoktonoko familien etxeetan baino.

8. taula Etxeko pertsona-kopurua jatorriaren arabera, % bertikalak

	BERTAKOA	ATZERRITARRA
2	0	4,6
3	18,8	18,1
4	71	38,5
5	5,8	26,4
5 baino gehiago	4,3	11,5


1.G. Normalean, zenbat pertsona bizi dira zure etxean?
Iturria: egileek egina

Jatorriko gunearen arabera, afrikar jatorriko familien artean lau pertsonako etxe gutxiago daude (%27,1), eta bost pertsonako etxe gehiago (%45,7).

Etxean bizi diren pertsonen dagokionez, Lehen Hezkuntzako ikasle gehienak, atzerritar jatorrikoak eta autoktonoak, bi gurasoekin bizi dira, portzentaje hori handiagoa da jatorri autoktonoko familien kasuan (%94,2; eta atzerritar jatorriko familien artean, %81,9). Bestetik, guraso bakarreko familiak ugariagoak dira atzerritar jatorriko pertsonen artean (%14,9) jatorri autoktonokoaren artean baino (%2,9). Azkenik, atzerritar jatorriko pertsonen heren bat inguruk dio aita eta ama ez diren beste pertsona batzuekin bizi direla (%33,1).


Anai-arreben kopuruari dagokionez, ikus daiteke atzerritar jatorriko familietan seme-alaben kopurua handiagoa dela, eta erantzun zutenen tasa handiagoa izan zen (%21,6) familia autoktonoko familietan baino (%4,3). Aldi berean, jatorri autoktonoko familien artean ohikoagoa da seme-alaba bat izatea (%71) atzerritar jatorriko familietan baino (%51).

79. grafikoa Etxeko kideak, familiako jatorriaren arabera %



2.G. Zure familiako norekin bizi zara?
(norekin bizi den normalean)

80. grafikoa Anai-arreba kopurua, familiako jatorriaren arabera %



3.G. Ba al duzu zurekin bizi den anai-arrebarik?
Iturria: egileek egina


Familia horien osaera jatorriko gunearen arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu guraso bakarreko familien eragina askoz ere txikiagoa dela afrikar jatorrikoen artean (%8,6) eta altuena dela latinoamerikar jatorriko familien kasuan (%18,7).

Gainera, afrikar jatorriko familiek beste jatorri batzuetako familiek baino seme-alaba gehiago dituzte, familien %51,4k hiru seme-alaba edo gehiago izaten dituztelako.

Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen familia-giroa baloratzeko asmoz, bizi diren pertsonekin zer-nolako harremana duten galdetu diegu. 81. grafikoa ikus daiteke atzerritar jatorriko ikasleen gehiengo osoak dioela familiarekin harreman onak dituela; hamarretik bederatzik. Hala ere, %7,8k dio harremana ez dela ez ona ez txarra. Familia-jatorriari dagokionez, inkestatutako jatorri autoktonoko eta atzerritar

jatorriko pertsonen artean alde nabarmenik ez dagoen arren, azken kolektibo horretan aldeak hauteman dira familia-jatorriaren arabera. Hala, latinoamerikar jatorriko eta afrikar jatorriko ikasleak dira familia arteko harremanetan asebetetze-maila handiena adierazi dutenak. Asiar jatorriko pertsonen kasuan, berriz, bizi diren pertsonekin ongi moldatzen direla dioten pertsonen tasarik baxuena erregistratu da (%66,7) eta harreman horiek txartzat jotzen dituztenen portzentajerik altuena (%16,7).


81. grafikoa Bizi diren pertsonetikiko harremanak, familia-jatorriaren arabera, %



4.G. Nola moldatzen zara bizi zaren pertsonekin?
Iturria: egileek egina

Ondoren, etxeko egoera ekonomikoa baloratzeko eskatu diegu, etxean behar duten guztia baduten edo ez galdetuz. 82. grafikoa ikus daitekeen moduan, oro har, Lehen Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleek uste dute behar duten guztia dutela etxean (%76,7). Familia-jatorriari erreparatuz, portzentaje hori familia autoktonoen kasuan pixka bat handiagoa dela (%88,9) ikusten da, eta asiar jatorriko pertsonen artean arazo ekonomikoak dituztela dioten tasa (%50) da altuena, eta bigarren altuena, afrikar jatorriko pertsonena (%24,4).

82. grafikoa Etxeko egoera ekonomikoa, familia-jatorriaren arabera, %




5.G. Behar duzuen guztia al duzue etxean?
Iturria: egileek egina

Azkenik, eskolako lanak etxean egitean izaten duten laguntza hartuko dugu kontuan, bai eta gurasoek eskola-jardueraren segimendua egiteko zer interes duten ere.

83. grafikoan ikus daitekeen moduan, kasu gehienetan gurasoak dira etxeke lanak egiten laguntzen dietenak (guztizkoaren %72,2), eta portzentaje hori pixka bat handiagoa da familia autoktonoetan (%85,5).

83. grafikoa Etxeko lanetako laguntza, atzerritar jatorria, %




6.G. Nork laguntzen dizu normalean etxeke lanak egiten?
Iturria: egileek egina

Ikasleen familia-jatorriaren eremuari erreparatuz, Asiatik edo Afrikatik etorritako familien artean ohikoagoa da senideek ematea laguntzat (%16,7 eta %11,4, hurrenez hurren), eta inork laguntzen ez diela diotenen tasak %33,3 eta %21,5 dira, hurrenez hurren. Hizkuntza-ereduari erreparatuz, A ereduan ohikoagoa da atzerritar jatorriko familietan beste senide batzuek ikasleei laguntzea (%34) B ereduan (%2,7) eta D ereduan (%7,4) baino.

Hurrengo grafikoan, atzerritar jatorriko ikasleekin bizi diren pertsonak eskola-esparruko alderdiei buruz izaten duten interesari buruzko datuak aurkezten dira. Horren haritik, kasu gehienetan, ikasleek diote haiekin bizi diren pertsonak interesa izaten dutela eskolako-bilerei eta eskolako etxeke lanei buruz, bai eta ikastetxean gertatutakoari, notei, azterketei eta ikasgelara joateari buruz ere.

84. grafikoa Ikasleekin bizi diren pertsonen eskola-esparruko alderdiei buruz duten interesa, atzerritar jatorria, %



7.G. Egin al dizute zurekin bizi diren pertsonen alderdi hauei buruzko galderarik?
Iturria: egileek egina

Hala ere, aldagai soziodemografikoen arabera, ez da alde adierazgarririk hauteman, bi kasu hauetan izan ezik: ikasgelara joatea hizkuntza-ereduaren arabera eta eskolako bilerak ikastetxe-motaren arabera. Hala, ikasleekin bizi diren pertsonen ea ikasgelara joaten diren ez dietela galdetzen erantzun dutenen tasa altuena A ereduiko ikasleei dagokie (%33,1). Ikastetxe pribatuetan, aldi berean, ikasleei eskolako bilerez galdetzen ez duten atzerritar jatorriko gurasoen portzentajea handiagoa da ikastetxe pribatueta matrikulatutakoen kasuan (%23,4) ikastetxe publikoetan matrikulatutakoen kasuan baino (%8,1).

Laburbilduz


1. Atzerritar jatorriko pertsonen etxeetan, jatorri autoktonoko pertsonen etxeetan baino pertsona gehiago bizi dira batez beste. Era berean, atzerritar jatorriko familien ezaugarriak dira guraso bakarreko etxeak gehiago izatea, bai eta seme-alaba gehiago izatea ere. Bestetik, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek diote giro ona dutela etxean; eta alderdi horretan, ez dago alde adierazgarririk jatorriaren edo beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera. Hautemandako etxeko egoera ekonomikoa hobea da jatorri autoktonoko ikasleen artean atzerritar jatorriko ikasleen artean baino.
 2. Etxeko lanak egiten laguntzen dieten pertsonen dagokionez, gurasoak dira gehien aipatutako aukera. Familia-jatorriaren arabera, afrikar eta asiar jatorriko ikasleen artean da handiena inoren laguntzarik ez duten pertsonen tasa. Oro har, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek diote haiekin bizi diren pertsonen interes handia erakusten dutela beren eskola-jarduerari dagokionez.
-

Familia-esparrua: bigarren hezkuntza

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleei Lehen Hezkuntzakoei egindako galdera berak egin dizkiegu. Lehenik eta behin, etxean bizi den pertsona-kopuruari, anai-arreba kopuruari eta etxeko osaerari buruzko datu orokorrak aurkezten ditugu.

85. grafikoan ikus daitekeen moduan, kasuen erdiak lau pertsonako etxeak dira, eta etxean ia %20 bost pertsonakoak dira, eta ez dago alde adierazgarririk jatorriaren arabera.


85. grafikoa Etxeko pertsona-kopurua, atzerritar jatorria, %



1.G. Zenbat pertsona bizi dira zure etxean?
Iturria: egileek egina

Etxeko osaerari dagokionez, 86. grafikoak erakusten du ikasle gehienak bi gurasoekin bizi diren arren, egoera hori ohikoagoa dela familia autoktonoetan (%90,3) atzerritar jatorriko familietan baino (%66,1); azken kasu horretan, guraso bakarreko familien portzentajea handiagoa da (%25,7) familia autoktonoetan baino (%6,5).


86. grafikoa Etxeko osaera, atzerritar jatorria, %



2.G. Zure familiako norekin bizi zara? (norekin bizi den normalean)
Iturria: egileek egina


Anai-arrebarik baduten galdetuta, eta hala bada, zenbat dituzten galdetuta, gehienek (%77,7) baietz erantzun dute, eta ez dago alde handirik jatorriaren arabera. Anai-arreben kopuruari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen erdiek baino pixka bat gutxiagok anai-arreba bat dute (%43,9), heren batek bi dituzte, %20,7k hiru, eta %2,4k bost.

87. grafikoa Anai-arrebarik baduten, jatorriaren arabera, %



3.G. Ba al duzu zurekin bizi den anai-arrebarik?

88. grafikoa Anai-arreben kopurua, jatorriaren arabera, %




4.G. Zenbat anai-arreba? Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren arabera, ikus daiteke atzerritar jatorriko ikasleen gurasoen artean ez dela hain ohikoa bi seme-alaba izatea (%43,9) jatorri autoktonoko gurasoen kasuan baino (%73,9). Aldiz, hiru seme-alaba edo gehiago dituztenen ehunekoa nabarmen handiagoa da atzerritar jatorriko familien artean (%23,1).

Ikastetxe-motaren arabera, ikastetxe publikoetan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleek anai-arreba gehiago dituzte (%41,4) ikastetxe pribatuetako ikasleek baino (%0).

Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, Bigarren Hezkuntzako ikasleen familia-giroaz interesatu gara. 89. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko hamar ikasletik seik diote oso harreman onak dituztela haiekin bizi diren pertsonekin (%64,6), eta beste %34,5ek familiakoen arteko harremana ona dela. Nabarmenezkoa da harremana ez dutela txartzat edo oso txartzat jo kasu bakar batean ere.


89. grafikoa Familiakoen arteko harremanak, atzerritar jatorria, %



5.G. Zer harreman duzu bizi zaren pertsonekin?
Iturria: egileek egina

Eskolako etxeko lanetako laguntzari dagokionez, atzerritar jatorriko ikasleen %39,3ri gurasoek edo tutoreek laguntzen dio; kasuen %37an, ez dute inolako laguntzarik; eta %24ri beste pertsona batzuek laguntzen diote. Jatorriaren arabera, ikus daiteke gurasoen eta anai-arreben laguntza ohikoagoa dela jatorri autoktonoko ikasleen artean (%51,6, gainerakoena %39,3 izanik; eta %16,1, gainerakoena %1,9 izanik). Aldiz, eskolako etxeko lanak egiteko inolako laguntzarik jasotzen ez duten atzerritar jatorriko ikasleak gehiago dira (%37,8).

90. grafikoa Etxeko lanetan laguntzen dieten pertsonak, familia-jatorriaren arabera, %




6.G. Nork laguntzen dizu etxeko lanak egiten?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren eremuaren arabera, gurasoek edo tutoreek gutxiago laguntzen diete afrikar jatorriko ikasleei (%9,7), eta, gainera, etxean inolako laguntzarik ez dutenen tasa altuena (%72,6) ere haiei dagokie.

Azkenik, ikasketa-mailaren arabera, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben kasuan, etxeko lanak egiteko gurasoen laguntza izaten dutenen ehunekoa altuagoa da erdi-mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabeko gurasoen kasuan baino.

91. grafikoan, etxeko lanak egitean izaten duten laguntzaren maiztasunari buruzko datuak ikus daitezke. Atzerritar jatorriko ikasle gehienei dezentetan (%67,1) edo beti (%22,7) laguntzen zaie, eta %4,9ri, gutxitan. Familia-jatorriaren arabera, jatorri autoktonoko ikasleek laguntza gutxiago izaten dute etxeko lanak egitean atzerritar jatorrikoek baino (%26,1ek gutxitan izaten du laguntza).

91. grafikoa Etxeko lanak egiteko laguntzaren maiztasuna, jatorriaren arabera, %




7.G. Zenbat laguntzen dizute etxeko lanak egiten?
Iturria: egileek egina

Ikasketa-mailaren arabera, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten gurasoen artean da altuena seme-alabei inoiz laguntzen ez dien gurasoen tasa (%26,6).

Seme-alaben eskola-bizitzako zenbait alderdiri buruz gurasoek duten interesari dagokionez, atzerritar jatorriko kasik pertsona guztiek diote ikastetxean zer gertatu den eta hurrengo egunerako etxeko lanei buruz galdetzen dietela, bai eta notei, eskolako bilereki eta klasera joateari buruz ere. Ez dago alde adierazgarririk aldagai soziodemografikoen arabera.


92. grafikoa Ikasleekin bizi diren pertsonen eskola-esparruko alderdiei buruz duten interesa, atzerritar jatorria, %



8.G.a,b,c,d,e. Ba al dute interesik zure gurasoek edo tutoreek alderdi hauei buruz?
Iturria: egileek egina

Azkenik, etxeko egoera ekonomikoa baloratzeko eskatu diegu Bigarren Hezkuntzako ikasleei. 93. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko hamar ikasletik seik diotenez, egoerak bizitzeko adina ematen die (%62,8), %23,9k dio eroso bizi direla, eta %13,3ren ustez, zailtasunak dituzte bizitzeko.

93. grafikoa Etxeko egoera ekonomikoa, jatorriaren arabera, %



9.G. Zure ustez, nolakoa da etxeko egoera ekonomikoa?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren arabera, alde adierazgarriak daude. Atzerritar jatorriko familiek zailtasun handiagoak dituzte bizitzeko (%13,3) jatorri autoktonoko familiek baino (%0). Aldi berean, eroso bizi direla diotenen tasa handiagoa da jatorri autoktonoko ikasleen artean (%64,5) atzerritar jatorriko ikasleen artean baino (%23,9).

Hurrengo taulan, ikastetxe-motaren arabera erantzunen banaketa ikus daiteke. Hala, atzerritar jatorriko ikasleen artean eroso bizi diren pertsonen tasa handiagoa da itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan (%36,8) ikastetxe publikoetan baino (%12,5). Aldi berean, zailtasun handiagoak dituzte bizitzeko seme-alaba ikastetxe publiko baten duten familiek (%25,1) itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan dutenek baino. Azken horietan, ez dago bizitzeko zailtasunak dituztela dioen pertsonarik.

Ikasketa-mailaren arabera, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabek zailtasun ekonomiko gutxiago dituzte lehen eta bigarren mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten gurasoen seme-alabek baino.

9. taula Etxeko egoera ekonomikoa, atzerritar jatorria, ikastetxe-motaren arabera, % bertikalak

	PUBLIKOA	ITUNPEKOA PRIBATUA
Eroso bizi zarete	12,5	36,8
Bizitzeko adina baduzue	62,4	63,2
Zailtasunak dituzue bizitzeko	25,1	0

*9.G. Zure ustez, nolakoa da etxeko egoera ekonomikoa?
Iturria: egileek egina*

Azkenik, familia-jatorriaren eremuaren arabera, etxean egoera ekonomiko erosoak dutela dioten pertsonen proportzioa handiagoa da latinoamerikar jatorriko ikasleen artean (%35,7); afrikar jatorriko ikasleen kasuan, datu hori baxuena da, soilik %17,7koa.

Laburbilduz

1. Lehen Hezkuntzaren kasuan bezala, etxean bizi diren pertsonen batez besteko kopurua handiagoa da atzerritar jatorriko ikasleen artean jatorri autoktonoko pertsonen artean baino. Gainera, atzerritar jatorriko familia gutxiagotan bizi dira ikasleak bi gurasoekin, eta guraso bakarreko familia gehiago daude, edo guraso bakartzat ama duten familiak. Etxeko giroari dagokionez, atzerritar jatorriko ikasle gehienek ustez ona da.
 2. Inoren laguntzarik ez dutela dioten ikasleen tasa Lehen Hezkuntzako baina handiagoa da, eta jatorri autoktonoko pertsonen tasa, berriz, txikiagoa da. Gainera, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten gurasoen familietan, ohikoagoa da seme-alabek ez izatea laguntzarik etxeko lanak egiteko. Ikaslearekin bizi diren pertsonen eskola-alderdietan duten interesa altua da, eta ez dago alderik aldagai soziodemografiko bakar batean ere.
 3. Etxeko egoera ekonomikoari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen ustez ona da. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan eroso bizi direla dioten familia gehiago daude ikastetxe publikoetan baino. Atzerritar jatorriko ikasleen artean, zailtasun ekonomikoak dituztela dioten pertsona gehiago daude; batik bat, afrikar jatorriko familietan.
-

4

Identitatea


Identitatea eta integrazioa: lehen hezkuntza

Atal honetan, ikasleen eta haien gurasoen identitatearekin lotutako alderdiak aztertzen dira. Lehen Hezkuntzaren kasuan, adin txikiagoko neska-mutilak direnez, soilik identifikazioari eta euskal gizarteko gainerako pertsonetikiko desberdin sentitzeari buruzko galderak egin zaizkie. Bigarren Hezkuntzako gurasoen eta ikasleen kasuan, berriz, kultura- eta erlijio-identifikazioari, identitateari eusteko garrantziari eta jatorriko gizarteko tradizioei buruzko galderak egin zaizkie.

Atzerritar jatorriko neska-mutilen kasuan, inkestatutako hamar pertsonatik hiru euskaldun gisa identifikatu dira, %28,5ek espainiartzat du bere burua, %19,5ek jaiotza-herrialdearekin identifikatzen du bere burua, eta inkestatutako pertsonen %16,1ek gurasoen jatorriko herrialdearekin identifikatzen du bere burua. Beraz, ondoriozta dezakegu gehienek harrera-herrialdearekin identifikatzen dutela beren burua, eta %36,6k, jatorrizko herrialdearekin edo gurasoen herrialdearekin.

Familia-jatorriaren arabera, aldeak daude, espero zitekeen moduan. Euskaldun gisa identifikatzen diren euskal jatorriko pertsonen portzentajea atzerritar jatorriko pertsonen bikoitza da (%60,9).

94. grafikoa Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %



8.G. Nongoa zaren galdetzen badizute, zer erantzungo zenuke?
Iturria: egileek egina


Familia-jatorriaren eremuaren arabera, atzerritar jatorriko ikasleen artean norbera jaio den herrialdearekin edo gurasoak jaio diren herrialdearekin identifikatzea ohikoagoa da asiar jatorriko (%33,3k bere burua gurasoen jaiotza-herrialdearekin identifikatzen du) eta Ekialdeko Europakoek (%30ek bere burua bere jaiotza-herrialdearekin identifikatzen du) kasuan.

Dena den, erantzunak desberdinak dira hizkuntza-ereduaren arabera. Hain zuzen ere, beren gurasoen jaiotza-herrialdearekin identifikatzen diren pertsonen tasa askoz handiagoa da A ereduan (%54,7).

Azkenik, 2008tik 2013ra artean iritsi ziren pertsonen artean ohikoagoa da jaiotza-herrialdearekin identifikatzea (%55); hau da, Espainiara berriki, azken aldian, iritsi ziren familien kasuan.

Lehen Hezkuntzako neska-mutilei egindako beste galdera bat gainerako ikasleekiko hauteman duten desberdintasunari buruzkoa da. 95. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasle gehienak gainerakoak bezala sentitzen dira (%65,7), %19k dio antzekoa sentitzen dela, eta, azkenik, %12,6k gainerakoekiko desberdina ikusten du bere burua.

95. grafikoa Hautemandako desberdintasuna, atzerritar jatorria, %




9.G. Gainerako neska-mutirik bezalakoa edo desberdina sentitzen zara?
Iturria: egileek egina

Aldagai soziodemografikoen arabera desberdintasunei dagokienez, atzerritar jatorriko ikasleen artean alde adierazgarriak hauteman dira familia-jatorriaren eremuaren arabera; hain zuzen ere, asiarratar jatorriko ikasleak beste jatorri batzuetakoak baino neurria handiagoan sentitzen dira gainerakoekiko desberdinak (%33,3). Azkenik, iritsiera-urtearen arabera, gainerakoekiko antzekoak sentitzen diren berriki finkatutako atzerritar jatorriko ikasleen tasa handiagoa da (%45,1) 2008 baino lehenago iritsitako familien tasa baino.

Ondoren, identitate-gaiei buruz Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoek dituzten iritziak aztertzen ditugu; adibidez, erlijio-identifikazioa edo inkestatutako pertsonen jatorriko tradizioei eusteari zer garrantzi ematen dioten.

Erljio-identifikazioari buruz, lehenik eta behin, inkestatutako pertsonari galdetu genion zenbateraino sentitzen den erlijiozalea. 96. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko gurasoen %48,2k erlijiozale gisa definitzen du bere burua, %31,5ek ez asko ez gutxi, eta %19,1ek dio ez dela erlijiozalea.


96. grafikoa Gurasoen erlijiozaleatasun-maila, jatorriaren arabera, %



77.G. Erljiozaleztat al duzu zure burua?
Iturria: egileek egin


Ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, jatorriaren arabera, jatorri autoktonoko gurasoen artean erlijiozale gutxiagoa (%17,4) dagoela hauteman dugu atzerritar jatorrikoen artean baino (%48,2). Jatorriaren eremuaren arabera, atzerritar jatorriko gurasoen artean pertsona erlijiozale gehiago daude afrikar jatorrikoen artean (%67,2), eta asiarratar jatorriko gurasoek dute portzentaje txikienetako bat (%16,7).

Ondoren, erlijiozale gisa definitu diren pertsonen zer erlijiotakoak diren galdetu diegu. 97. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko gurasoen erdiak baino pixka bat gehiago (%56,2) katoliko, protestante edo ortodoxo gisa definitzen dira, eta lautik batek dio musulmana dela; zehazki, %25,5ek.

97. grafikoa Zer erlijiotakoak diren, atzerritar jatorriko gurasoak, %

78.G. Zein da zure erlijioa?
Iturria: egileek egina

Bestetik, jatorriko herrialdeko tradizioei eustearen garrantziaz Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoek zer iritzirik duten jakin nahi genuen. Hala, ikusi dugu atzerritar jatorriko guraso guztien hamarretik lauk (%41,9) oso garrantzitsutzat jotzen dutela jatorriko tradizioei eustea, eta beste heren baten ustez, nahiko garrantzitsua dela (%29,1). Bestetik, %20,5ek garrantzi gutxi ematen dio, eta %7,5ek, batere ez.

98. grafikoa Jatorriko tradizioak eusteari atzerritar jatorriko gurasoek ematen dioten garrantzia, %

79.G. Zer garrantzi du zuretzat zure jatorriko herrialdeko tradizioei eustea?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren eremuaren arabera, Ekialdeko Europatik etorritako pertsonak dira garrantzi gutxien ematen dietenak jatorriko tradizioei eusteari (%35ek dio garrantzi gutxi duela); Afrikatik etorritako pertsonak (%52,7k garrantzi handia ematen dio) eta Asiatik etorritakoak (%50) aurkako muturrean daude.


Laburbilduz

1. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle gehienek euskaldun edo espainiar gisa definitzen dute beren burua. Dena den, beren burua euskaldun gisa identifikatzen dutenen tasa altuagoa da jatorri autoktonoko ikasleen artean. Berriki finkatutako asiar jatorriko eta Ekialdeko Europako jatorriko pertsonak neurri handiagoan identifikatzen dute beren burua beren gurasoen jatorriko herrialdearekin. Gainerako neska-mutilekiko beren burua nola ikusten duten galdetuta, atzerritar jatorriko ikasleek gehienek erantzun dute gainerakoen berdinak sentitzen direla; hala ere, asiar jatorriko ikasleak gainerakoak baino desberdinagoak sentitzen dira.
 2. Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoak maila ertain-altuko erlijiozaletasuna dute, eta haien tasa jatorri autoktonokoen bikoitza da. Jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko gurasoak dira erlijiozaletasun-maila handiena adierazi dutenak. Erlijiozaleak direla dioten atzerritar jatorriko gurasoen artean, gehienak katolikoak, protestanteak edo ortodoxoak dira.
 3. Jatorriko tradizioei eta ohiturei eustearen garrantziari dagokionez, uste hori hedatuago dago Afrikatik eta Asiatik etorritako gurasoen artean.
-

Identitatea eta integrazioa: bigarren hezkuntza

Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, beste ataletan bezala, identitateari eta integrazioari buruzko gaien gaineko informazio osoagoa lortu dugu; esate baterako, normalean zer hizkuntzatan ikusten duten telebista, zer hizkuntzatan liburuak edo aldizkariak dituzten, pertenezia-sentimendua eta nazio-identifikazioa, erlijio-gaiak, eta gurasoen jatorriko tradizioei eutsi eta transmititzearen garrantzia. Lehenik eta behin, telebista, filmak eta serieak zer hizkuntzatan ikusten dituzten eta liburuak edo aldizkariak zer hizkuntzatan irakurtzen dituzten galdetu diegu. 99. grafikoa ikus daitekeen moduan, aipatutako jardueretan atzeritar jatorriko ikasle gehienek erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da; portzentaje altuenak dira telebistari dagokionez (%93,9) eta filmei edo serieei dagokionez (%98,1), eta pixka bat baxuagoa liburuei edo aldizkariari dagokionez (%81,3). Euskararen erabilerari dagokionez, inork ez dau aipatu telebista ikusteko ohiko hizkuntza gisa. Filmak edo serieak ikusteko ere ez da erabiltzen. Azkenik, %12,7k dio euskarazko liburuak edo aldizkariak dituela etxean. Arabiera %6,1ek aipatu du telebistaren kasuan, eta %3k arabierazko liburuak edo aldizkariak ditu etxean. Amaitzeko, Pakistango hizkuntza inkestatutako pertsonen %1,9k erabiltzen du etxean serieak edo filmak ikusteko.

99. grafikoa Etxean normalean erabiltzen dituzten hizkuntzak, atzeritar jatorria, %



10.G. Zer hizkuntzatan ikusten da telebista zure etxean gehienetan?


11.G. Zer hizkuntzatan ikusten dituzu filmak edo serieak gehienetan?

12.G. Zer hizkuntzatan daude idatzita zure etxeko aldizkari eta liburu gehienak?

Iturria: egileek egina

Ondoren, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko neska-mutilei nongoak sentitzen diren galdetu diegu. Erdiak baino pixka bat gutxiagok (%45,7) beren edo beren gurasoen jatorriko herrialdearekin identifikatzen dute beren burua; %17,1 euskalduna sentitzen da, eta %15,1, espainiarra. Azkenik, %16,8k jatorriko herrialdeen eta euskaldunen edo espainiarren zenbait konbinazioarekin identifikatzen du bere burua.


100. grafikoa Nazio-identifikazioa, atzerritar jatorria, %



13.G. Nongoa sentitzen zaren galdetzen badizute, zer erantzungo zenuke?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren arabera, alde adierazgarriak daude. Jatorri autoktonoko ikasleen kasuan, hamarretik seik euskaldun gisa identifikatzen dute beren burua (%64,5), eta portzentaje hori %17,1ekoa da atzerritar jatorriko ikasleen kasuan.

101. grafikoa Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %




13.G. Nongoa sentitzen zaren galdetzen badizute, zer erantzungo zenuke?
Iturria: egileek egina

Atzerritar jatorriko ikasleen familia-jatorriaren eremuaren arabera, hurrengo grafikoan ikusten da “euskalduna” aukera afrikar jatorriko pertsonen kasuan soilik agertzen dela, non erdiak baino pixka bat gehiago euskaldunak sentitzen diren. Aldi berean,

familia-jatorriko herrialdearekin identifikatzen diren jatorri horretako pertsonen proportzioa da txikiena, %25,7. Asiar jatorriaren kasuan, proportzio hori %50 da; latinoamerikarren kasuan, %57,1; eta Ekialdeko Europako kasuan, %50. Beren burua espainiar gisa identifikatzea ohikoagoa da latinoamerikar jatorriko ikasleen artean: %28,6 espainiarra sentitzen da, eta beste %7,1, espainiarra eta euskalduna. Asiar jatorriko ikasleen artean ere, pertsona asko espainiarrak sentitzen dira; baina, hala ere, galdera horri zer erantzun jakin izan ez duten pertsonen tasa ere oso altua da.


102. grafikoa Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %



13.G. Nongoa sentitzen zaren galdetzen badizute, zer erantzungo zenuke?
Iturria: egileek egina

Inkestan, erlijiozaletasun-mailarekin eta erlijio-pertenentziarekin lotutako gaietara buruz ere galdetu diegu Bigarren Hezkuntzako ikasleei. 103. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleen %32,5ek oso erlijiozaletzat jotzen dute beren burua, %44,9k uste du ez direla ez oso erlijiozaleak ez eta erlijiozaletasun txikikoak ere, eta %19,3k dio ez dela batere erlijiozalea.


Dena den, familia-jatorriaren arabera alde adierazgarriak hauteman dira. Hala, pertsona oso erlijiozaleen tasa oso txikia da jatorri autoktonoko pertsonen artean (%3,3), eta atzerritar jatorriko pertsonen artean, berriz, portzentaje hori %32,5ekoa da. Aldiz, jatorri autoktonoko ikasleen erdiak inguru (%48,4) ez dira batere erlijiozaleak, eta beste erdiek (%48,4) diote ez direla ez oso erlijiozaleak ez eta erlijiozaletasun txikikoak ere.

103. grafikoa Erlijiozaletasun-maila, jatorriaren arabera %

14.G. Erlijiozaletzat al duzu zure burua?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko ikasleen artean hauteman da erlijiozaletasun-mailarik handiena (erantzunen %46,9 baiezkoak). Azkenik, erlijiozalea ez dela dioten ikasleen portzentajea handiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben kasuan.


Ondoren, erlijiozaleak direla esan duten pertsonen, zer erlijiotakoak diren galdetu diegu. Hala, atzerritar jatorriko pertsona gehienek diote haien erlijioa katolikoa, protestantea edo ortodoxoa dela (%59,5). Bigarren erlijio ugariena musulmana da; gutxi gorabehera, erantzunen heren bat (%31,7). Azkenik, erlijio ebanjelikoa kasuen %4,1ean aipatzen da, budista %2,3an eta hinduista kasuen beste %2,3 batean.

104. grafikoa Erlijio-pertenentzia, atzerritar jatorria, %

15.G. Zein da zure erlijioa?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleei familia-jatorriko tradizioei eusteko garrantziari buruzko galderak ere egin dizkiegu gure galde-sortan. 105. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleek garrantzi handiagoa ematen diote gai horri jatorri autoktonokoek baino; hain zuzen ere, atzerritar jatorriko ikasleen %81,8k uste du nahiko garrantzitsua edo oso garrantzitsua dela, eta jatorri autoktonoko ikasleen artean, tasa hori %64,6koa da.


105. grafikoa Familia-jatorriko tradizioei eusteko garrantziaren maila, jatorriaren arabera, %



16.G. Zer garrantzi du zuretzat zure edo zure gurasoen herrialdeko tradizioei eustea?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko ikasleek garrantzi handiagoa ematen diote (%43,4) beste jatorri batzuetakoek baino. Dena den, latinoamerikar jatorriko pertsonen artean, familia-jatorriko tradizioei eustea nahiko garrantzitsua izatea da nagusi den iritzia. Aldiz, desadostasun-maila handiena asiar jatorriko (%25ek ez dio batere garrantzirik ematen) eta Ekialdeko Europako ikasleen artean erregistratu da; azken horretan, erdiek uste dute garrantzi gutxiko gai bat dela.


Identitatearekin eta integrazioarekin lotutako gaiekin jarraituz, Bigarren Hezkuntzako ikasleei galdetu diegu ea zer hizkuntzatan nahiko zituzketen hezi beren seme-alabak etorkizunean. 106. grafikoan ikus daiteke atzerritar jatorriko hamar ikasletik seik beren ondorengoak gaztelaniaz heziko zituzketela (%69,5), %21,4k jatorriko hizkuntzan eta %15,7k euskaraz. Familia-jatorriaren arabera, ikusten da jatorri autoktonoko familietako ikasleen artean, gehien aipatutako aukera euskara dela (%58,1), eta %38,7k gaztelaniaz heziko zituzkeela.

106. grafikoa Seme-alaba zer hizkuntzatan heziko zuketean, jatorriaren arabera, %

17.G. Seme-alaba bat izango bazenu, zer hizkuntzatan heziko zenuke?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, alde adierazgarriak daude. Latinoamerikar jatorriko ikasleak dira gaztelaniaz hezteari lehentasun handiena ematen diotenak (%92,9). Hizkuntza-ereduaren arabera, D ereduari agertzen dira tasa altuenak ondorengoak euskaraz hezteari dagokionez (%31,7).


Ondoren, ondorengoak erlijioaren batean heziko zituzketen galdetu diegu, eta hala izanez gero, zer erlijiotan heziko zituzketen. 107. grafikoa ikus daitekeen moduan, inkestatutako atzerritar jatorriko pertsonen ia erdiak beren seme-alabak erlijioaren batean heztearen aldekoak dira (%54,8), eta %37,5, aurkakoak. Familia-jatorriaren arabera, ikus dezakegu ezezko erantzunen tasa altuagoa dela jatorri autoktonoko ikasleen artean (%58,1). Familia-jatorriaren eremuaren arabera, Afrika nabarmentzen da beren ondorengoak erlijioaren batean heztearen alde (%76) beste jatorriekin alderatuta.

107. grafikoa Seme-alabaren erlijio-heziketa, jatorriaren arabera, %

18.G. Seme-alabaren bat bazenu, erlijioaren batean heziko al zenuke?
Iturria: egileek egina

Aurreko galderari baiezko erantzuna eman dietenei beren ondorengoak zein erlijiotan heziko zituzketen galdetu diegu. 108. grafikoa ikus daitekeenez, atzerritar jatorriko ikasleen %46,7k erlijio musulmanean heziko zituzketen beren ondorengoak; %43,8k, erlijio katolikoan, protestantean edo ortodoxoan; beste %6k, ebanjelikoan; eta, azkenik, %23,4k, erlijio hinduistan.

108. grafikoa Seme-alabak zer erlijiotan heziko zituzketen, atzerritar jatorria, %



19.G. Zeinetan?
Iturria: egileek egina

Azkenik, EAeko Bigarren Hezkuntzako ikasleek hautematen duten onarpen-mailaz galdetu dugu. Horretarako, euskal gizartearen parte zenbateraino sentitzen diren 0tik 10era ebaluatzeko eskatu diegu, 0 “batere ez” eta 10 “erabat” izanik. Batez besteko balioa jatorri autoktonoko biztanlerian aurkitu dugu (8,47 puntu). Ondoren, Ekialdeko Europa eta Asia ageri dira, integrazio aski onarekin (7,50 puntu), atzerritar jatorriko ikasleen batez bestekotik gora (7,03 puntu). Aldiz, Latinoamerikak eta Afrikak dituzten balio txikiak; 6,86 eta 6,95 puntu, hurrenez hurren.

109. grafikoa Integrazio-maila euskal gizartean, jatorriaren arabera, batez besteko balioak




20.G. Euskal gizartearen parte sentitzen al zara?
Iturria: egileek egina

Hezkuntza-ereduaren arabera, A ereduko (8,00 puntu) eta D ereduko (7,43 puntu) ikasleak B ereduko ikasleak (6,83 puntu) baino integratuago daudela sentitzen dira. Gurasoen hezkuntza-maila integrazioaren pertzepzioan alde adierazgarriak sartzen dituen beste aldagai bat da. Hain zuzen ere, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabak (7,34 puntu) integratuago sentitzen dira lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabak baino (6,91 puntu).


Lehen Hezkuntzan bezala, identitate-gaiei buruzko galderak egin dizkiegu Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoei ere. Oro har, atzerritar jatorriko gurasoek jatorri autoktonoek baino erlijiozaletasun-maila handiagoa erakusten dutela ikusi dugu. Hala, inkestatutako atzerritar jatorriko pertsonen %57,9k oso erlijiozalea dela dio, eta jatorri autoktonoko gurasoen kasuan, tasa hori %3,2koa da. Beste %25,4k dio ez dela ez oso erlijiozalea ez eta erlijiozaletasun txikikoak ere (%61,3 autoktonoen artean), eta atzerritar jatorriko %16,6k, ez dela batere erlijiozalea. Tasa hori %35,5koa da jatorri autoktonoko gurasoen artean.

110. grafikoa Gurasoen erlijiozaletasun-maila jatorriaren arabera, atzerritar jatorria, %



77.G. Erlijiozaletzat al duzu zure burua?

111. grafikoa Erlijio-pertenentzia, atzerritar jatorria, %




78.G. Zein da zure erlijioa?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako gurasoen jatorrien araberako desberdintasunei erreparatuz gero, afrikar jatorriko ia guraso guztiak oso erlijiozaleak direla (%92) ikusiko dugu. Ondoren, Ekialdeko Europakoak (%50) eta Latinoamerikakoak (%42,9) daude. Aurkako muturrean, jatorri autoktonoko pertsonak (%3,2) daude, eta neurri txikiagoan, Asiakoak (%25).

Erlijioarekin lotutako gaiekin amaitzeko, oso erlijiozaleak direla erantzun duten pertsonen zer erlijiotakoak diren galdetu diegu. %55,1 katolikoa, protestantea edo ortodoxoa da; %28,7, musulmana; %3,3, ebanjelista; eta %1,9, hinduista.

Azkenik, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko gurasoei beren jatorriko herrialdeko tradizioei eustearen garrantzia baloratzeko eskatu diegu. 112. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko gurasoen %50,7k uste du oso garrantzitsua dela; heren batek uste du nahiko garrantzitsua dela (%27,2); eta %22,1ek, gai horrek garrantzi gutxi duela.

112. grafikoa Jatorriko tradizioak eusteari atzerritar jatorriko gurasoek ematen dioten garrantzia, jatorriaren arabera, %



79.G. Zer garrantzi du zuretzat zure jatorriko herrialdeko tradizioei eusteari?
Iturria: egileek egina

Jatorri autoktonoko edo euskalduneko gurasoek garrantzi gutxiago ematen diote jatorriko herrialdeko tradizioei eusteari atzerritik datozenek baino.

Laburbilduz

1. Telebista, filmak edo serieak ikusteko eta liburuak irakurtzeko gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, eta ez dago alde adierazgarririk jatorriaren edo beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera.
2. Nazio-identifikazioari dagokionez, euskalduna sentitzen den pertsona gehiago daude jatorri autoktonokoan artean atzerritar jatorrikoen artean baino. Azken horien kasuan, ia erdiek aitaren edo amaren jatorriko herrialdearekin identifikatzen dute beren burua. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko pertsonak (askok familia-jatorriko herrialdearekin identifikatzen du bere burua) euskaldun gisa identifikatzen dira beste jatorri batzuetakoak baino neurri handiagoan.
3. Erlijio-gaiei dagokienez, familia autoktonoetako ikasleen artean pertsona erlijiozale gutxiago dago atzerritar jatorriko ikasleen artean baino. Afrikar jatorriko pertsonak dira erlijiozaletasun-maila handiena adierazi dutenak. Aldiz, erlijiozalea ez dela dioten atzerritar jatorriko ikasleen portzentajea handiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben kasuan.
4. Erlijio-pertenentziari dagokionez, atzerritar jatorriko ikasle gehienek diote beren erlijioa katolikoa, protestantea edo ortodoxoa dela. Gehien aipatutako bigarren erlijioa musulmana da.
5. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek neurri handiagoan uste dute familia-jatorriko tradizioei eta ohiturei eustea garrantzitsua dela; batik bat, Afrikatik etorritako pertsonak. Aldiz, Asiatik eta Ekialdeko Europatik etorritako ikasleen ustez, gai hori ez da hain garrantzitsua.
6. Seme-alabak zer hizkuntzatan heziko zituzketen galdetuta, atzerritar jatorriko ikasleen artean gaztelania da gehien aipatu den aukera; latinoamerikar jatorriko gehienek seme-alabak gaztelaniaz heziko zituzketen, eta jatorri autoktonoek, euskaraz. Azkenik, D ereduan agertzen dira tasa altuenak ondorengoak euskaraz hezteari dagokionez.
7. Bigarren Hezkuntzako ikasleek beren ondorengoan erlijio-hezkuntzari buruz duten iritziari dagokionez, atzerritar jatorriko pertsonak adostasun-maila handiagoa adierazi dute jatorri autoktonoko pertsonak baino. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko pertsonak neurri handiagoan daude ondorengoak erlijioaren batean heztearen alde gainerako jatorrietakoak baino.

8. Euskal gizarteko integrazio-maila handiagoa da jatorri autoktonoko ikasleen kasuan; ondoren, Ekialdeko Europa eta Asia daude. Aldiz, Latinoamerika eta Afrika dira balio baxuenak dituzten familia-jatorriak. Bestetik, integratuenak sentitzen direnak A ereduko ikasleak eta goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabak dira.
 9. Gurasoei dagokienez, haien seme-alabak baino erlijiozaleagoak dira. Alderdi horretan ere, atzerritar jatorriko pertsonak dira erlijiozaleenak; bereziki, afrikar jatorrikoak. Erlijiozaleak direla dioten pertsonen artean, gehien aipatu den aukera katolikoa, protestantea edo ortodoxoa izan da.
 10. Azkenik, atzerritar jatorriko gurasoek askoz garrantzi handiagoa ematen diote jatorriko tradizioei eusteari autoktonoek baino
-

5


Gizarte-harremanak

Gizarte-harremanak: lehen hezkuntza

Atal honetan, Lehen Hezkuntzako ikasleen eta haien gurasoen gizarte-harremani buruzko datuak aztertu ditugu, lagun-en jatorriari arreta berezia jarrita.

Lehenik eta behin, lagun-kopuruari dagokionez, 113. grafikoan ikus daiteke atzerritar jatorriko ikasleek 2,89 lagun dituztela, batez beste; eta ez dago alde adierazgarririk familia-jatorriaren arabera.

113. grafikoa Lagun-kopurua jatorriaren arabera, batez besteko balioak




10.G. Lagun-kopurua
Iturria: egileek egina

Lehen Hezkuntzako ikasleen familia-jatorriaren arabera, gehienek diote haien lagun-en familia-jatorriak espainiarra eta euskalduna direla. Hiru lagun onenen familia-jatorriaz galdetuta, jatorri autoktonoko ikasleen lehen aukera euskal jatorriko pertsonak (kasuen %66,8) eta espainiar jatorriko pertsonak dira (kasuen %26,1); atzerritar jatorriko familietako lagun-en kopuruak ez du %7,1 gaitzen. Atzerritar jatorriko ikasleen lagun-en dagokionez, euskal jatorriko lagun-en proportzioa txikiagoa da: %52,6. Aldi berean, atzerritar jatorriko ikasleen kanpoko lagun-kopurua hiru aldiz handiagoa da jatorri autoktonoko ikasleena baino. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, asiar jatorriko ikasleak dira atzerritar jatorriko lagun gutxien dituztenak, eta Latinoamerikako eta Ekialdeko Europako jatorria duten ikasleek lagun espainiar gehiago dituzte beste jatorrietakoekin baino.

Ikasle autoktonoen artean, atzerritar jatorriko lagun-en tasa bikoitza da bigarren aipamenean (%14,9), eta gauza bera gertatzen da Ekialdeko Europako (%45) eta

Asiako (%16,7) jatorria duten ikasleekin ere. Azkenik, hirugarren aipamen gisa, datuak aurreko kasuaren antzekoak dira.

114. grafikoa Lagunen familia-jatorria, lehen, bigarren eta hirugarren aipamena jatorriaren arabera, %




10.G. Pentsatu nor diren zure hiru lagun onenak. Nongoak dira? Iturria: egileek egina

Lagunen familia-jatorriaren osaeraz galdetu diegunean, atzerritar jatorriko ikasleen %64,5ek adierazi du jatorri autoktonoko eta beste herrialde batzuetako pertsonek osatzen dutela. %26,9k dio guztiak edo ia guztiak euskal jatorrikoak direla; eta azkenik, %7,7ren lagun guztiek edo ia guztiek beste herrialde batzuetako jatorria dute.

Familia-jatorriaren arabera, alde adierazgarriak daude. Jatorri autoktonoko ikasleen lagun gehienak jatorri berekoak diren arren (%62,3), atzerritar jatorriko ikasleen artean, gehienek euskal jatorriko eta beste herrialde batzuetako jatorria duten lagunak dituzte (%64,5).

115. grafikoa Lagun-taldearen jatorria, jatorriaren arabera, %




11.G. Nolako da zure lagun-taldea?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko ikasleen artean, jatorri autoktonoko lagunak dituzten pertsona gutxiago daude (%11,4), eta gehien lagunak jatorri autoktonoko eta atzerritar jatorriko pertsonak dira (%82,9). Asiaren kasuan, heren batek atzerritar jatorriko lagunak soilik dituen arren, erdien lagunak euskal jatorriko pertsonak dira.

Azkenik, galdetu diegu haurren zer talderekin nahiago duten jolasean jardun, jatorria kontuan hartuta. 116. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleen %76,3k nahiago du talde mistotan jolastu; hau da, pertsona autoktonoek eta kanpokoek osatutako taldeetan. %13,5ek nahiago du guztiak edo ia guztiak autoktonoak diren taldeak, eta %6,6k ia pertsona guztiak atzerritar jatorrikoak diren taldea aukeratzeko luke. Familia-jatorriaren arabera, jatorri autoktonoko ikasleek euskal jatorriko neska-mutuez osatutako taldea aukeratzeko joera dute (%21,7; aurreko kasuan %15,3 zen). Hala ere, atzerritar jatorriko pertsonen talde bat aukeratu zukeen portzentajea (%10,1) handiagoa da atzerritar jatorriko ikasleen beraien kasuan baino (%6,6).

116. grafikoa Jolaserako nahiago duten taldearen osaera, jatorriaren arabera, %




12.G. Zer haur-talderekin nahiago duzu jolasean jardun?
Iturria: egileek egina

Azkenik, familia-jatorriaren eremuaren arabera, Lehen Hezkuntzako asiar jatorriko ikasleek nahiago dituzte soilik atzeritar jatorriko hurrez osatutako taldeak, eta Ekialdeko Europako jatorria dutenek nahiago dute haur autoktonoekin jardun jolasean talde mistoekin edo kanpoko pertsonaz osatutako taldeekin baino. Bestetik, gurasoei ere galdetu diegu inkestatuaren lagunez eta haren bikotekidearen lagunez ere, bikotekidea izanez gero.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da inkestatutako pertsonen erantzunen banaketa kasik bat datorrela haien bikotekideek estimatutakoarekin. Bi kasuetan, atzeritar jatorriko gurasoen aukera nagusia lagun-talde mistoa da (%67,9); bigarren aukera lagun gehienak pertsona autoktonoak izatea da (%15,4); kasuen %6,7an, lagunak atzeritar jatorriko pertsonak soilik dira.

117. grafikoa Gurasoen lagun jatorria, jatorriaren arabera, %



80.G. Nongoak dira zure lagunak edo ezagunak?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren arabera, alde adierazgarriak daude. Atzerritar jatorriko gurasoen lagunak jatorri mistoetako pertsonak dira, kanpoko lagunak eta lagun autoktonoak dituztelako. Jatorri autoktonoko pertsonen lagunak soilik autoktonoak direnen taldetan eta gehienak autoktonoak diren taldetan banatzen dira.

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, nabarmentzekoa da Afrikatik etorritako pertsonen kasua; izan ere, haiek dira lagunaren artean pertsona autoktono gutxien dituztenak. Gainera, beren lagun gehienak beste herrialde batzuetako pertsonak direla diotenen tasa handiena dute.

Erantzunak bereizten dituen beste aldagai bat seme-alabaren hezkuntza-eredua da. Ohikoagoa da ondorengoak A ereduan matrikulatuta dituzten pertsonak batik bat beste herrialde batzuetako lagunak izatea (%32,9) seme-alabak B ereduan (%4,2) edo D ereduan (%6,68) matrikulatuta dituztenekin alderatuta. Ikastetxe-motaren arabera, sare pribatuko eta itunpeko sareko ikastetxeetan lagunaren artean pertsona autoktono gehiago daude (%15,3) sare publikoan baino (%3,6).

Laburbilduz

1. Atzerritar jatorriko ikasleen gehiengo zabalak lagun mistoak ditu, eta atzerritar jatorriko lagunak tasa hirukoitza da jatorri autoktonoko ikasleen artean hautemandakoarekin alderatuta.
 2. Jatorri autoktonoko ikasleen lagun gehienak haien jatorri berekoak dira, eta atzerritar jatorriko lagunak ez dira oso ohikoak.
 3. Atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleek, jolasean jarduteko, nahiago dituzte lagunak talde mistoak; hala ere, azken horiek nahiago dituzte familia-jatorri bereko neska-mutilez soilik osatutako taldeak. Ekialdeko Europako jatorria duten ikasleek nahiago dute jatorri autoktonoko neska-mutilekin jolasean jardun talde mistoekin edo atzerritar jatorriko pertsonaz osatutako taldeekin baino.
 4. Atzerritar jatorriko gurasoen lagunei dagokienez, nahiago dituzte jatorri mistoko lagunak; eta guraso autoktonoek, berriz, nahiago dituzte haien jatorri bereko lagunak. Afrikatik etorritako pertsonak dira biztanleria autoktonoko lagun gutxien dituztenak. Ondorengoak A eremuan matrikulatuta dituzten pertsonen lagunak beste herrialde batzuetako pertsonak izaten dira gehienbat, B eta D ereduetako gurasoekin alderatuta. Azkenik, ikastetxe-motaren arabera, seme-alabak ikastetxe pribatuetan eta itunpeko ikastetxeetan matrikulatuta dituzten gurasoen artean, euskal jatorriko lagunak dituzten pertsonen portzentajea handiagoa da seme-alabak ikastetxe publikoetan matrikulatuta dituzten gurasoen kasuan baino.
-


Gizarte-harremanak: bigarren hezkuntza

Atal honetan, Bigarren Hezkuntzako ikasleen eta haien gurasoen gizarte-harremanei buruzko datuak aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, hiru lagun onenen jatorriaz galdetu diegu. Lehen aipamenari dagokionez, ikus daiteke atzerritar jatorriko ikasleen lagun erdien jatorria Euskadi dela (%50,4), eta jatorri autoktonoko ikasle gehienek lehen aipamena euskal jatorriko lagunak direla (%83,4).

Lehen aukera gisa lagun atzerritar bat dutenen tasa handiagoa da atzerritar jatorriko ikasleen artean (%33,1) atzerritar jatorriko lagunak dituzten jatorri autoktonoko pertsonekin alderatuta (%3,3).


Atzerritar jatorriko pertsonen lagunei buruzko bigarren eta hirugarren aipamena kasik ez da aldatzen.

118. grafikoa Hiru lagun onenen jatorria, jatorriaren arabera, %



*Pentsatu nor diren zure hiru lagun onenak. Zer izen dute eta nongoak dira?
Iturria: egileek egina*

Ondoren, beren lagun-taldean familia-jatorriak adierazteko eskatu diegu. 119. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleen artean ez da hain ohikoa soilik pertsona autoktonoz osatutako lagun-taldea izatea (%25,1) jatorri autoktonoko ikasleekin alderatuta (%61,3). Errazagoa da lagun-talde mistoak, erdia eta erdia, izatea atzerritar jatorriko ikasleen artean (%36,3) euskal jatorriko ikasleen artean baino (%9,7). Soilik atzerritar jatorriko ikasleek aipatu dute (%4,9) beren lagun-artean atzerritar jatorriko familietako lagunak daudela.

119. grafikoa Lagun-taldearen osaera, jatorriaren arabera, %

22.G. Nongoa da zure lagun-taldea?
Iturria: egileek egina

Bestetik, ikastetxe-motaren arabera, alde adierazgarriak agertu dira atzerritar jatorriko ikasleen erantzunen banaketan. 10. taulan ikus dezakegunez, soilik jatorri autoktonoko pertsonaz osatutako lagun-taldeak ohikoagoak dira itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen artean (%41,6) ikastetxe publikoetan baino; azken horiei buruzko datua nabarmen txikiagoa da (%10,5).

10. taula Lagun-taldearen osaera ikastetxe-motaren arabera, atzerritar jatorria, %

	PUBLIKOA	ITUNPEKOA PRIBATUA
Guztiak hemengoak	10,5	41,6
Erdiak hemengoak	51,6	13,5
Erdia eta erdia	34,4	38,5
Gehienak beste herrialde batzuetakoak	3,5	6,5

22.G. Nongoa da zure lagun-taldea?
Iturria: egileek egina

Hizkuntza-ereduen arabera, jatorri autoktonoko lagunak dituzten D ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen proportzioa (%56,7) handiagoa da B ereduan (%35,6) eta A ereduan (%0) matrikulatutako ikasleena baino.


Azkenik, Bigarren Hezkuntzako ikasleei beren gustuei eta beren adineko neska-mutilekin partekatzen dituztela uste duten sinesmenei buruzko galderak egin dizkiegu. 120. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleek gehien partekatzen dituzten gaiak dibertitzeko moduak (%92), hizkuntza (%90,1), musika entzutea (%88,7), leku beretara joatea (%88,7) eta hitz egiteko eta adierazteko moduak (%83,8) dira. Aldiz, gutxien partekatzen dituztenak erlijio bera (%25,5) eta ideia eta sinesmen berak izatea (%54,5) dira.

Dena den, alde adierazgarriak daude jatorriaren arabera. Esate baterako, musika entzutea atzerritar jatorriko %88,7k partekatzen du, baina jatorri autoktonoko ikasleen artean, %67,7k soilik. Bizitzako arazoak ere ez dira modu berean partekatzen ikasleen familia-jatorriaren arabera: atzerritar jatorriko ikasleen %63,8k uste du bere adineko beste neska-mutil batzuekin partekatzen dituela, eta jatorri autoktonoko ikasleen kasuan, kopuru hori %38,7koa da. Erlijioari dagokionez, jatorri autoktonoko ikasle gehiagok (%51,6) uste dute partekatzen dutela atzerritar jatorrikoek baino (%25,5).

Auzo berean bizitzea uste da gehiago partekatzen dela atzerritar jatorriko pertsonen artean (%62,3) jatorri autoktonoko pertsonen artean baino (%51,6). Gauza bera gertatzen da dibertitzeko moduekin ere; izan ere, atzerritar jatorriko ikasleek (%92) gehiago partekatzen dituzte ikasle autoktonoek baino (%83,9).

Gai hauek, berriz, atzerritar jatorriko pertsonen eta pertsona autoktonoek partekatzen dituzte: leku beretara joatea, hizkuntza bera, hitz egiteko ea adierazteko moduak, ideiak edo sinesmenak, eta janzteko moduak.

120. grafikoa Adin bereko neska-mutilekin partekatutako gustuak, sinesmenak, ohiturak eta arazoak jatorriaren arabera, %




23.G. Zer partekatzen duzu zure adinekoekin?
Iturria: egileek egina

Azkenik, Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoei haien lagunei buruzko galderak egin dizkiegu. 121. grafikoa ikus daiteke atzerritar jatorriko gurasoen lagun-taldeak mistoak direla batik bat (%50,7). Gainera, kasuen %25,9an lagun-taldeko gehienak euskal jatorrikoak dira, eta kasuen %20,1ean, lagun gehienak beste herrialde batzuetakoak dira.

Jatorri autoktonoko pertsonen artean, ohikoagoa da soilik hemengo pertsonaz osatutako lagun-taldeak aurkitzea (%58,1). Eta ez da batere ohikoa lagun-talde

mistoak izatea (%3,2), eta are gutxiago lagun guztiak beste herrialde batzuetakoak izatea (batere ez).

121. grafikoa Gurasoen lagunen jatorria, atzeritar jatorria, %



80.G. Nongoak dira zure lagunak edo ezagunak?
Iturria: egileek egina

Inkestatutako pertsonen bikotekideen lagunen jatorriaz ere galdetu dugu; dena den, banaketa aurreko grafikoan aurkeztutakoaren oso antzekoa da.

Laburbilduz

1. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen lagunak jatorri autoktonoko pertsonak dira, batik bat; hala ere, kanpotik etorritako lagun gehiago dituzte jatorri autoktonoko ikasleek baino. Lagun-talde mistoak ohikoagoak dira atzerritar jatorriko ikasleen artean.
 2. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan, soilik pertsona autoktonoz osatutako lagun-taldea duten atzerritar jatorriko ikasleen tasa handiagoa da sare publikoan baino. Aldi berean, jatorri autoktonoko lagunak dituzten atzerritar jatorriko ikasleen proportzioa D eremuan da handiena.
 3. Beren adineko gazteekin partekatzen dituzten gustuei, sinesmenei eta arazoei dagokienez, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek gehien aipatutako alderdiak hauek izan dira: dibertitzeko moduak, hizkuntza, musika, leku beretara joatea, eta hitz egiteko eta adierazteko moduak; gutxien aipatutakoak erlijio bera izatea eta ideia eta sinesmen berak izatea dira.
 4. Musika partekatzea neurri handiagoan uste dute atzerritar jatorriko ikasleek jatorri autoktonoko ikasleek baino. Gauza bera gertatzen da bizitzako arazoekin ere. Atzerritar jatorriko ikasleek partekatzen dituztela neurri handiagoan uste dute jatorri autoktonoko ikasleek baino.
 5. Leku beretara joatea, hizkuntza bera hitz egitea, hitz egiteko eta adierazteko moduak, ideiak edo sinesmenak, eta janzteko moduak atzerritar jatorriko ikasleek eta jatorri autoktonoko ikasleek partekatzen dituzte.
 6. Azkenik, gurasoen lagunei dagokienez, atzerritar jatorrikoen artean ohikoagoa da lagun-talde mistoa izatea, eta jatorri autoktonoko artean ohikoagoa da soilik pertsona autoktonoz osatutako lagun-taldea izatea
-


6

Ongizatea

Ongizatea: lehen hezkuntza


Atal honetan, Lehen Hezkuntzako ikasleen ongizate subjektiboarekin lotutako alderdien emaitza nagusiak bildu ditugu; esate baterako, ohiko gogo-aldarte edo norengana jotzen duten arazoren bat dutenean. Hasteko, normalean nola sentitzen diren galdetu diegu. 122. grafikoan ikus daitekeen moduan, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen gehiengo zabalak (%88,9) dio ongi sentitzen dela, eta %11,1ek, normal sentitzen dela. Ez dago alde adierazgarririk jatorriaren arabera.

122. grafikoa Ohiko gogo-aldarte, atzerritar jatorria, %



28.G. Nola sentitzen zara normalean?
Iturria: egileek egina

Azkenik, arazoren bat dutenean norekin hitz egiten duten galdetu diegu Lehen Hezkuntzako neska-mutilei. Oro har, atzerritar jatorriko ikasleak eta euskal jatorrikoak gurasoengana jotzen dute (%70,5 eta %73,9). Hala ere, heren bat inguruk irakasleak aipatu dituzte. Lagunengana Lehen Hezkuntzako hamar ikasletik batek jotzen du (%12,6 eta %10,1).

123. grafikoa Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, jatorriaren arabera, %

29.G. Arazo bat dutunean, norekin hitz egiten duzu?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren arabera, Ekialdeko Europako eta Asiako jatorria duten ikasleek gurasoengana gutxiago jotzen dutela ikusten dugu (%65,0 eta %66,7, hurrenez hurren) gainerako jatorrietakoek baino. Latinoamerikar jatorriko ikasleak dira irakasleengana gutxien jotzen dutenak (%22,9), eta arazo bat izanez gero lagunengana jotzen dutenen portzentaje handienetako bat dute (%16,7), asiar jatorriko ikasleekin batera (%16,7).

Laburbilduz


1. Lehen Hezkuntzako ikasleen gehiengo zabalak dio normalean ongi sentitzen dela. Ez dago alde adierazgarririk familia-jatorriaren arabera. Arazoren bat dutenean norengana jotzen duten galdetuta, atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleek gehien aipatu duten aukera gurasoengana jotzea izan da, eta bigarren aipatuena, irakasleengana jotzea.
 2. Ekialdeko Europako eta Asiako jatorriko ikasleek beste familia-jatorri batzuetakoek baino neurri txikiagoan jotzen dute gurasoengana. Latinoamerikar jatorriko neska-mutilak dira arazoren bat dutenean irakasleengana gutxien jotzen dutenak; haien aukera ohikoena lagunengana jotzea izaten da.
-

Ongizatea: bigarren hezkuntza

Bigarren Hezkuntzako ikasleen ongizatea baloratzeko asmoz, ongizate subjektiboaren dimentsio batzuen adierazleak diren galdera batzuk egin dizkiegu. Lehenik eta behin, jendearengan zer konfiantza duten galdetu diegu, eta 0tik 10era baloratzeko eskatu diegu. Atzerritar jatorriko ikasleek 7,80 puntuko tasa dute batez beste, eta datu hori altuagoa da jatorri autoktonoko ikasleen kasuan: 7,52 puntu.

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, batez besteko txikiena asiar jatorriko ikasleena da (6,25 puntu), eta altuena inkestatutako Ekialdeko Europako jatorria duten pertsonena da (7,50 puntu).

124. grafikoa Pertsonarteko konfiantza, jatorriaren arabera, batez besteko balioak



50.G. Zure ustez, zer neurritan fidatu daiteke jendeaz?
Iturria: egileek egina

Ikastetxe-motaren arabera, ikastetxe pribatuetako ikasleek konfiantza gehiago dute jendearengan (7,34 puntu) ikastetxe publikoetakoek baino (6,84 puntu). Hizkuntza-eredua galderari erantzutean populazioa bereizten duen beste aldagai bat da. A ereduko ikasleak dira jendearengan konfiantza gutxien duena: 6,50 puntu; B eredukoak, 6,98 puntu, eta D eredukoak, 7,01 puntu.


Ongizate subjektiboaren beste dimentsio bat zorientasun-maila da, eta 0tik 10era arteko eskalaren arabera baloratzen da. Hurrengo grafikoa, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleek zorientasun-balio handiak dituztela ikus daiteke: 8,14 eta 8,52 puntu, hurrenez hurren.

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, 125. grafikoa ikus daitekeenez, balio altuagoak aurkituko ditugu asiar jatorriko (9,00 puntu) eta afrikar jatorriko (8,48 puntu) ikasleen artean; eta balio baxuenak dituztenak Ekialdeko Europako ikasleak dira (7,00 puntu).

125. grafikoa Zoriontasuna, jatorriaren arabera, batez besteko balioak

51.G. Oro har, pertsona zoriontsua zarela uste al duzu?
Iturria: egileek egina


Hurrengo grafikoa, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen batez besteko balioak ikusi daitezke, hizkuntza-ereduaren arabera. A hizkuntza-ereduan matrikulatutako neska-mutilek zoriontsuagoak direla diote (9,5 puntu) B ereduan (8,21 puntu) eta D ereduan (7,87 puntu) matrikulatutakoek baino.

126. grafikoa Zoriontasuna, hizkuntza-ereduaren arabera, batez besteko balioak

51.G. Oro har, pertsona zoriontsua zarela uste al duzu?
Iturria: egileek egina

Bizimoduarekiko asebetetze-mailari dagokionez, oso altua da oro har (8,10 puntu). Hala ere, badaude aldeak familia-jatorriaren arabera; jatorri autoktonoko ikasleek asebetetze-maila altuagoa dute bizimoduarekiko (8,48 puntu) atzerritar jatorrikoek baino (7,93 puntu). Azken horien artean, asebetetze-maila handienekoak Asia (8,75 puntu), Afrika (8,30 puntu) eta Latinoamerikakoak dira (8,00 puntu); maila txikiena, berriz, Ekialdeko Europako jatorrikoek adierazi dute (6,50 puntu).


127. grafikoa Bizimoduarekiko asebetetze-maila, jatorriaren arabera, batez besteko balioak



52.G. Zer neurritan zaude pozik zure bizimoduarekin?
Iturria: egileek egina


Hizkuntza-ereduaren arabera, 128. grafikoa ikus daiteke A ereduari matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleek bizimoduarekiko asebetetze-maila handiagoa dutela (9,00 puntu) B ereduari (7,83 puntu) edo D ereduari (7,89 puntu) matrikulatutako ikasleek baino.

128. grafikoa Bizimoduarekiko asebetetze-maila, atzerritar jatorria, hizkuntza-ereduaren arabera, batez besteko balioak




52.G. Zer neurritan zaude pozik zure bizimoduarekin?
Iturria: egileek egina

Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, arazoren bat dutenean norekin hitz egiten duten galdetu diegu: gurasoekin, anai-arrebekin, lagunekin, beste senideren batekin edo inorekin ez. 129. grafikoa ikus daitekeen moduan, ikasle gehienek gurasoengana edo tutorengana jotzen dutela dioten arren (%74,9), Bigarren Hezkuntzan gehiago aipatzen da lagunekin hitz egiteko aukera (%46,1) Lehen Hezkuntzan baino. Aldi berean, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %17,6k anai-arrebengana jotzen du, %3,3k beste senideren batengana, eta, azkenik, %3k dio ez duela inorengana jotzen arazoren bat duenean.

129. grafikoa Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, atzerritar jatorria, %


53.G. Kezkatuta zaudenean edo arazo bat duzunean, norekin hitz egiten duzu?
Iturria: egileek egina

Gurasoen ikasketa-mailaren arabera, 130. Grafikoan ikus dezakegun moduan, atzerritar jatorriko ikasleak sarriago joaten dira gurasoengana, goi-mailako ikasketak badituzte (%83,5). Aldiz, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabeko gurasoak dituzten ikasleen kasuan, gehiago jotzen duten anai-arrebengana (%45,9), lagunengana (%62,6) edo ez dute inorengana jotzen (%15,3).

130. grafikoa Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, atzerritar jatorria, gurasoen ikasketa-mailaren arabera, %


53.G. Kezkatuta zaudenean edo arazo bat duzunean, norekin hitz egiten duzu?
Iturria: egileek egina

Azkenik, beren osasun-egoera baloratzeko eskatu diegu. 131. grafikoak erakusten du atzerritar jatorriko ikasleen ia erdiek oso osasun ona dutela (%53,1), %36,1ek osasun ona duela, eta %10,8k osasun ez ona ez txarra duela. Familia-jatorriaren arabera, jatorri autoktonoko ikasleek dute beren egoera oso ontzat baloratzen dutenen tasa altuena (%74,2; atzerritar jatorriko ikasleen %53,1 baino altuagoa, beraz).

131. grafikoa Osasunaren autoebaluazioa, jatorriaren arabera, %

54.G. Zure ustez, nolakoa da zure osasuna?
Iturria: egileek egina

Gurutzeetako beste aldagai batzuk kontuan hartuta, alde adierazgarriak daude ikastetxe-motaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan, osasunaren autoebaluazioa (%71,2) handiagoa da sare publikoko ikastetxeetan baino (%37,1).

132. grafikoa Osasunaren autoebaluazioa ikastetxe-motaren arabera, atzerritar jatorria %

54.G. Zure ustez, nolakoa da zure osasuna?
Iturria: egileek egina

Azkenik, hizkuntza-ereduaren araberako aldeei dagokienez, B ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen artean, beren osasuna oso ona dela diotenen tasa (%74) altuagoa da A ereduan (%50) edo D ereduan (%26) matrikulatutako ikasleena baino.

Laburbilduz

1. Jendearengan duten konfiantzari dagokionez (ongizate subjektiboaren dimentsioetako bat da), Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen batez bestekoa altua da; hala ere, datu hori jatorri autoktonoko ikasleen kasukoa baino baxuagoa da. Batez besteko baxuena asiar jatorriko ikasleen artean erregistratu da, eta altuena, inkestatutako Ekialdeko Europako jatorriko pertsonen artean. Ikastetxe pribatuetan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleek konfiantza handiagoa duten jendearengan ikastetxe publikoetan matrikulatutakoek baino. Gainera, A ereduko ikasleak neurri txikiagoan fidatzen dira jendeaz D edo B ereduetako ikasleak baino.
 2. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleen zorientasun-mailari dagokionez, zorientasun subjektiboaren balioak altuak dira. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, asiar jatorriko ikasleei dagozkien balio altuenak, eta Ekialdeko Europako jatorriko ikasleei dagozkien balio baxuenak. A hizkuntza-ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko neska-mutilek zorientsuagoak direla diote B ereduan eta D ereduan matrikulatutakoek baino.
 3. Atzerritar jatorriko ikasleek diote oso pozik daudela beren bizimoduarekin; hala ere, balio hori altuagoa da jatorri autoktonoko ikasleen artean. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, balio altuenak dituzten jatorriak Asia, Afrika eta Latinoamerika dira. Balio txikiak, berriz, Ekialdeko Europako jatorriari dagozkio. Berriro ere, A ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleak dira bizimoduarekiko asebetetze-balio altuagoak dituztenak B eta D ereduetan matrikulatutako pertsonekin alderatuta.
 4. Arazo bat izatean norengana jotzen duten galdetuta, atzerritar jatorriko ikasle gehienek erantzun dute gurasoengana edo tutorengana jotzen dutela, eta, neurri txikiagoan, lagunengana. Gurasoen ikasketa-mailaren arabera, atzerritar jatorriko ikasleek maizago jotzen duten gurasoengana, haiek goi-mailako ikasketak badituzte. Gurasoek lehen mailako ikasketak badituzte edo ez badute ikasketarik, gehiago jotzen dute anai-arrebengana edo lagunengana, edo ez dute inorengana jotzen.
 5. Azkenik, atzerritar jatorriko ikasle gehienek diote osasun ona edo oso ona dutela; jatorri autoktonoko ikasleak dira oso osasun onaren tasa altuena dutenak. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan, atzerritar jatorriko ikasleen osasunaren autoebaluazioa handiagoa da sare publikoan baino. Hizkuntza-ereduaren arabera, B ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen artean, beren osasuna oso ona dela diotenen tasa altuagoa da A ereduan edo D ereduan matrikulatutako ikasleena baino.
-

7

Itxaropenak

Lehen hezkuntzako itxaropenak

Lehen Hezkuntzako ikasleek beren etorkizunari buruz zer pentsatzen duten bildu dugu. Horretarako, handitan zer izan nahi duten galdetu diegu, eta haien gurasoei beren seme-alabentzat etorkizunean nahi dutenari buruzko galderak egin dizkiegu. Eta Lehen Hezkuntzako ikasleek handitan zer izan nahi duten abiapuntu hartuta, bederatzi lanbideko zerrenda bat eman diegu inkestatutako neska-mutilei, eta zerrendan zer jarri edo kenduko luketen esateko aukera ere eman diegu. 11. taulan ikus daitekeen moduan, aurrez ezarritako bederatzi lanbideez gain, beste zortzi ere sartu ditugu. Guztira, gehien hautatutako aukera futbolaria izatea izan da (%22,6). Bigarrenik, garrantzitsua iruditzen zaigu jasotzea inkestatutako Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %12,3k ez dakiela zer izan nahi duen handitan. %8k irakaslea izatea aukeratu du; %9,2k, sendagilea izatea; %8,4k, polizia; eta %4,5ek, ile-apaintzailea.

11. taula Handitan zer izan nahi duten, %

LANBIDEA	%
Futbolaria	22,6
Beste zerbaite	15,1
Ed/ee	12,3
Medikua	9,2
Polizia	8,4
Irakaslea	8
Ile-apaintzailea	4,5
Margolaria	3,9


LANBIDEA	%
Kantaria	3,2
Suhiltzailea	2,8
Sukaldaria	2,8
Pilotua	2,8
Albaitaria	2,1
Igeltseroa	1,3
Bankuko langilea	0,5
Okina	0,5

30.G. Zer izan nahi duzu handitan?
Iturria: egileek egina

Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikus daiteke alde adierazgarriak daudela sexuaren arabera. Izan ere, futbolariak izan nahi duten mutilak (%34,1) neskek baino gehiago dira (%6,2), eta irakasleak izan nahi duten neskek (%15,2) mutilak baino gehiago dira (%2,4). Hizkuntza-ereduaren arabera ere, ikus daiteke A ereduaren matrikulatutakoek neurri handiagoan izan nahi dutela ile-apaintzaileak (%22,7) B ereduaren ikasten dutenek baino (%2,9).

Ikasleek institutuan ikasten amaitu ondoren, atzerritar jatorriko gurasoek nahi dutenari dagokionez, hamar familiatik ia zortzik unibertsitatera joan daitezela nahi dute (133. grafikoa); %2,7k lanbide-heziketa ikas dezatela nahi du, eta %2,3k, lanean hastea. Beste erantzun bat aukeratzean (%2,3), seme-alabek aukeratzten dutenarekin edo haiek zoriontsu egiten dituenarekin lotuta egoten da. Ikasten jarraitu dezaten duten interesari buruzko baieztapenen arrazoiei dagokienez, enplegu on bat izatea eta beren bizitzan etorkizun hobea izatearekin lotutako alderdiak agertzen dira, eta, kasu batzuetan, beren seme-alabengan dituzten itxaropenak beteko dituztelako.

133. grafikoa Lehen Hezkuntzako gurasoek institutuaren ondorengo etorkizunari buruz dituzten nahiak, %



72.G. Zure seme-alabak institutua amaitzean zer egitea nahi zenuke?
Iturria: egileek egina

Ondoren, beren seme-alabak zertan lan egitea gustatuko zitzaien galdetu diegu, galdera ireki baten bidez; hau da, ez dugu lanbiderik iradoki zuzenean Lehen Hezkuntzako ikasleei galdera egitean. Erantzun ondoren, benetan zertan lan egin dezakeen uste duen galdetu diogu. 12. taulan ikusten den moduan, hasiera batean ez zekiten zer erantzun (%30,5) eta are gehiago harritu ziren errealistak izateko esan genienean (%38,8k ez zekien zer esan). Bestetik, gehien gustatzen zaien edo motibatu ditzakeen horretan lan egiteko nahiaren tasa %15ekoa da, baina %5,9raino jaitsi da “nahi” hori “ahal” bihurtzean. Beraz, gurasoek onartzen dute ez dela erraza izango haien seme-alabek nahi duten horretan lan egitea, ez eta ikasitakoarekin lotutako lana izango dutenik ere; hain zuzen ere, gertatu dadin nahi dutenaren (%3,7) eta benetan gerta daitekeenaren (%1) arteko aldea 3,7 puntukoa da.

12. taula Seme-alaben etorkizun profesionalari buruzko gurasoen nahia eta errealitate posiblea, %

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Ed/ee	30,5	38,8
Medikua eta sanitarioa	18,8	13,1
Gustuko duena/nahi duena	15,0	5,9
Irakaslea	4,9	5,9
Futbolaria	4,0	5,8
Ikasitakoa	3,7	1,0
Polizia	3,5	2,6
Ingeniaria	3,2	0,9
Administraria	2,7	1,3
Albaitaria	1,4	3,3
Abokatua	1,4	0,5
Mekanikaria	1,4	0,9
Arkitektoa	1,4	1,8
Ekonmialaria	1,0	1,5
Estetizista eta ile-apaingintza	0,9	1,0
Informatikaria	0,5	3,2
Ahal duenean	0,5	0,9
Artista	0,4	-

74.G. Zure seme-alabak handitan zer lan egitea nahi zenuke?

75.G. Eta errealista izanik, zertan egin dezake lan, zure ustez?


Iturria: egileek egina

Lanbide konkretuei dagokienez, batzuek nahiaren alde gehiago egin dute benetan gertatuko dela uste dutenaren alde baino (ingeniaritzak, osasun-adarra), eta beste batzuek uste dute beren etorkizuna enplegu bat lortzeko moduko lanbideei lotuta

egon daitekeela, horretan lan egiteko nahiari lotuta egon beharrean (informatika, albaitaritza).

Azkenik, inkestatutako familia gehienek hurrengo bost urteetan gutxienez Euskadin geratzeko asmoa dute (%87,2). Soilik %4,6k du bere jatorrizko herrialdera itzultzeko asmoa, eta %1,4k, bere herrialdera batera joateko asmoa. Lurraldera azken aldian (2008tik 2013ra bitartean) iritsitako atzerritar jatorriko populazioaren %9,5ek beste herrialde batera joateko asmoa du, aurreko aldietan iritsitakoetatik nabarmen bereiziz.

134. grafikoa Hemendik bost urtera arteko itxaropenak, %



76.G. Hurrengo bost urteetan, EAEn geratzeko, beste herrialde batera joateko edo zure herrialdera itzultzeko asmoa duzu?
Iturria: egileek egina


Laburbilduz

1. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek aukeratutako lanbideetan, alde adierazgarriak daude generoaren arabera; futbolariak izan nahi duten mutilak gehiago dira, eta irakasleak eta ile-apaintzaileak izan nahi duten neskak gehiago dira. Gurasoen aukeraketa aldatu egiten da beren seme-alabek izan dezatela nahi duten lanbideaz edo benetan garatuko dutenez hitz egiten dugunean. Zehazki, uste dute beren seme-alabek aukeratu dezaketen lanbidea gehiago dela nahi bat errealitatea baino.
 2. Inkestatutako atzerritar jatorriko hamar gurasotik zortzik nahi dute beren seme-alabak unibertsitatera joatea, lanbide-heziketako ikasketetan edo zuzenean lan-merkatuan sartzea bigarren planoan utzita.
 3. Hurrengo bost urteetan, gutxienez, Euskadin geratzea ideia orokor bat den arren, 2008tik 2013ra bitartean iritsitakoek itzultzeko asmo handiagoa dute lehenago iritsitakoek baino.
-

Bigarren hezkuntzako itxaropenak

Lehen Hezkuntzako ikasleekin bezala, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek beren etorkizun akademikoari eta etorkizuneko lanari buruz dituzten itxaropenak aztertuko ditugu, bai eta haien gurasoenak ere. Institutua amaitu ondoren, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %60,8k unibertsitatera joan nahi du, eta %27,7k, lanbide-heziketa ikasi. Hau da, %88,5ek ikasten jarraitzeko asmoa du. Soilik %1,7k ikusten du bere burua lan-merkatuan. Zehazki, eta gurutzeetako aldagaiak kontuan hartuta, A ereduko ikasleen %50ek lanean ikusten du bere burua, institutua amaitu ondoren. Beste ereduetako ikasleek ez dute kontuan hartu aukera hori. Beraz, aldea adierazgarria da. Bestetik, mutilek neurri handiagoan ikusten dute beren burua lanbide-heziketa ikasten (%43,5) neskek baino (%7,5).


135. grafikoa Bigarren Hezkuntzako ikasleen nahia institutua amaitzen dutenerako, %



55.G. Zer gustatuko litzaizuke egitea institutua amaitu ondoren?
Iturria: egileek egina

Ikasleen etorkizunari buruz beren gurasoek eta irakasleek zer uste duten galdetuta, X. grafikoan ikus dezakegu familiaren kasuan haiek adierazitakoarekiko pertzepzio desberdina dutela, eta irakasleen kasuan, are desberdinagoa. Gurasoen kasuan, atzerritar jatorriko ikasle gehienek uste dute unibertsitatera joan daitezela izango dela (%52,5), baina ikasleek beraiek beren etorkizunaz uste dutena baino neurri txikiagoan. Dena den, lanbide-heziketa ikasteko ideian bat datoz (%27,2) eta familiak pentsatzen duenarekiko ezjakintasuna ere pixka bat handitu da (%14,9). Irakasleen kasuan, ikasleen %49,8k ez daki zer uste duten beren etorkizunari buruz, eta %40,5ek uste du ikastetxearen ustez ikasleak unibertsitate-ikasketekin jarraituko duela. Lanbide-heziketa %6,3ra arte jaitsi da.

136. grafikoa Bigarren Hezkuntzako ikasleen pertzepzioa gurasoen eta irakasleen nahiari buruz, %



56.G. Eta, institutua amaitzean, zer egin dezazun nahi dute zure gurasoek?

57.G. Eta, institutua amaitzean, zer egin dezazun nahi dute zure irakasleek?

Iturria: egileek egina

Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, mutilen %43,5ek pentsatzen du gurasoek uste dutela lanbide-heziketa ikasten amaituko duela. Horretan alde nabarmena dago neskekiko (%7,5). Bestetik, goi-mailako ikasketak dituzten atzerritar jatorriko gurasoen seme-alabek pentsatzen dute familiak ez duela inola ere uste lanbide-heziketa ikasten amaituko dutenik. Bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketakoak (%40,9) eta lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabekoen (%15,3) familiek ez bezala.

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleei zertan lan egin nahi duten galdetuta, eta ondoren, errealista izanik, non amaituko duten uste duten, zalantzak eta ezjakintasuna izan dira nagusi. Hala ere, ikasleen %6,3k adierazi du ez dakiela zertan lan egitea gustatuko litzaiokeen, eta errealistak izateko eskatu ondoren, datua %24,8ra jaitsi da. 13. taulan azaltzen diren enpleguei dagokienez, alde txiki bat hautematen da nahi dutenaren eta benetan gertatuko dela espero dutenaren artean.

13. taula Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen lan-torkizunari buruzko nahia eta errealitate posiblea, %

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Mekanikaria	21,3	16,3
Medikua eta sanitarioa	14,0	11,5
Futbolaria	9,9	0,0
Ile-apaintzailea	8,5	6,6
Ez dakit	6,3	24,8
Abokatua	6,1	6,1
Irakaslea	5,8	5,8

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Zuzenbida	3,3	3,3
Artista	3,3	0,0
Laguntzailea	3,3	0,0
Administraria	3,3	3,3
Soldatzailea	3,0	0,0
Pilotua	3,0	6,3
Arkitektoa	2,5	2,5
Ingeniaria	2,5	0,0
Farmazialaria	1,9	1,9
Garraiolaria	1,9	1,9
Igeltseroa	0,0	3,3
Teknologia	0,0	3,0
Hezitzailea	0,0	3,3


58.G. Zertan lan egin nahi zenuke handitan?

59.G. Eta errealista izanik, zertan egin dezakezu lan, zure ustez?

Iturria: egileek egina

Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen kasuan bezala, Bigarren Hezkuntzako seme-alaben etorkizuneko lanarekin eta prestakuntzarekin lotutako gaietarako buruzko galderak egin dizkiegu gurasoei. 137. grafikoan ikus daitekeen moduan, hamarretik zortzik nahi dute seme-alabek unibertsitatean ikasten jarraitzea, %9,6k lanbide-heziketa ikas dezaten nahi du, eta %4,9k, lanean hastea. Baieztapen horien alde arrazoi hauek eman dituzte: gurasoak baino hobeto bizitzea eta lan bat lortzea. Edo besterik gabe, badakite zer etorkizun nahi duten beren seme-alabek eta haien erabakia babesten dute. Gurutzeetako aldagaiei erreparatu, ikusten da seme-alabak A ereduan dituzten gurasoen %50en ustez, lan-merkatuan sartuko dira, institutua amaitu ondoren. D ereduan ikasten (%7) dutenekiko alde adierazgarria da.

137. grafikoa Bigarren Hezkuntzako gurasoek institutuaren ondorengo etorkizunari buruz dituzten nahiak, %



27.G. Zure seme-alabak institutua amaitzean zer egitea nahi zenuke?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleei zertan lan egin nahiko luketen eta benetan zertan lan egiten ikusten duten beren burua galdetu diegun moduan, bi galdera horiek egin dizkiegu haien gurasoei ere. 14. taulan ikus daitezkeen moduan, seme-alabek nahi duten ikasteko nahia %31,1etik %5,8ra jaisten da, errealistak izateko eskatzen diegunean. Gainera, zalantzak areagotu egiten dira etorkizunean benetan zertan lan egingo duten pentsatzen dutenean (%46,6). Gainerako lanbideei dagokienez, ez dugu alde adierazgarririk hauteman nahiaren eta errealitatearen artean, kontuan hartuta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin hitz egiten ari garela, eta familiek argiago izan dezaketela zein izan daitezkeen beren lehentasunak; Lehen Hezkuntzako ikasleekin ez zen gauza bera gertatzen, orain baino askoz urrunagoko etorkizunerako gurasoek zituzten itxaropenak garbiago sumatu zitekeelako.

14. taula Seme-alaben etorkizun profesionalari buruzko Bigarren Hezkuntzako gurasoen nahia eta errealitate posiblea, %

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Gustuko duena/nahi duena	33,1	5,8
Irakaslea	6,6	6,6
Medikua	7,4	8,2
Ingeniaria	5,5	-
Informatikaria	3,0	6,1
Administraria	6,3	-
Komunikazioa	3,3	-
Lanpostu ona	3,3	-
Arkitektoa	1,9	2,5
Ahal duenean	3,0	3,3
Abokatua	6,3	6,3

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Pilotua	3,0	3,0
Ile-apaintzailea	1,9	-
Farmazialaria	1,9	-
Ez dakit	13,3	46,6
Mekanikaria	-	3,3
Enpresaburua	-	1,9
Soldatzailea	-	3,0


74.G. Zure seme-alabak handitan zer lan egitea nahi zenuke?

75.G. Eta errealista izanik, zertan egin dezake lan, zure ustez?

Iturria: egileek egina

Azkenik, bost urte barruko etorkizunari buruzko galderari dagokionez, Euskadin bizitzen jarraitzeko asmoa duten, beste herrialde edo autonomia-erkidego batera joateko asmoa duten edo beren jatorriko herrialdera itzultzeko asmoa duten galdetuta, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen familiek Euskadin geratzeko asmoa dute (%88,1), eta ez dute beste aukerarik aurreikusten, zer egin behar dutenek ez dakitenek salbu (%11,9)

138. grafikoa Hemendik bost urtera arteko itxaropenak, %



76.G. Hurrengo bost urteetan, EAEn geratzeko, beste herrialde batera joateko edo zure herrialdera itzultzeko asmoa duzu?

Iturria: egileek egina

Laburbilduz

1. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle gehienek ikasten jarraitze-ko asmoa dute, institutua amaitu ondoren. Zehazki, %60k unibertsitatera joan nahi du. Ikasleek, beren iruditerian, gurasoen nahia ere ikasten jarraitu dezatela dela hautematen dute; hala ere, unibertsitatera joateko aukera txikiagoa da. Bestetik, ikasleen erdiek ez dakite zer espero duten irakasleek beraiengandik etorkizunean. Goi-mailako ikasketak dituzten familietako ikasleek uste dute ez dutela lanbide-heziketa ikasiko, eta ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten familietakoek uste dute lanmerkatuan sartuko dituztela. Bestetik, mutilek neskek baino neurri handiagoan uste dute haren familiek lanbide-heziketa ikas dezatela nahi dutela.
 2. Gehienetan, bizibidea ateratzeko izan nahi duten lanbidea desiratuagoa da benetan hori gertatuko den galdetzea baino. Etorkizunean izan dezaketen lanbideari buruz errealistak direnean, zalantzak handitu egiten dira.
 3. Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, atzerritar jatorriko hamar familietatik zortzik beren seme-alabak unibertsitatera joatea nahi dute. Seme-alabek lanbideari buruzko nahiaren eta benetan zer izan dezaketen lanbidearen artean aukeratu beharraren aurrean, aldeak ez dira hain adierazgarriak Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen kasuan bezala; dena dela, badirudi errealistak direla benetan egin nahi duten lanean jarduteko aukerei dagokienez.
 4. Atzerritar jatorriko ikasleen familiak hemendik bost urtera bitartean aurreikusten duten aukera bakarra Euskadin geratzea da. Baina zalantza gehiago dituzte beren buruaz Lehen Hezkuntzako ikasleen familiek baino.
-



Laburpena eta ondorioak

Txosten honetan zehar, atzerritar jatorriko ikasleen eta haien gurasoen pertzepzioak eta errealitateak bildu ditugu, haien hezkuntza-, familia-, identitate- eta gizarte-errealitatea eta etorkizuneko errealitatea ezagutzeko. Halaber, atzerritar jatorriko ikasleen eta jatorri autoktonoko ikasleen emaitzak alderatuz, egiaztatu ahal izan dugu alde adierazgarriak daudela bi talde horien artean, bigarren belaunaldi esaten zaionaren egoera bereizgarriak nabarmenduz.

Emaitzek serie honetako beste txosten batzuetan jasotako gai batzuk berretsi dituzte, eta maiz agertu izan dira eremu honetako beste ikerketa batzuetan. Arrakala bat dago atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko familien artean, hezkuntza- eta ekonomia-aldagaietan oinarritua batik bat, ondorengoengan eragiten duena. Gainera, ondorengo horiek beren egoerei aurre egin behar diete; adibidez, identitate berri bat sortzeko beharrari. Eta, azken batean, euskal errealitate anitzean beren lekua aurkitu behar dute. Prozesu konplexua da etorkinen seme-alabentzat, sarritan bizi diren gizarteko herritartzat hartzen ez direnak erabat (Barquín, 2009)⁴.

Azterketa honetatik ateratako eta jarraian laburbilduta erakusten dugun informazioak azken urteetan EAEn sortu den errealitate berri hori hobeto ulertzen laguntzen digu. Ezinbesteko urratsa da gero eta handiagoa den aniztasuna behar bezala kudeatzeko eta ekintza politikotik egokiak direla iritzita hartutako neurriak inplementatzeko.

⁴ Barquín, A. (2009). Nongoak dira etorkinen seme-alabak? Identitatea eraikitzea ikastetxean. In Revista educar, 81-93.

ALDERDI OROKORRAK

Atzerritar jatorriko ikasleen Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hizkuntza-ereduari dagokionez, gehienak D eta B⁵ eredueta matrikulatuta daude. Bigarren Hezkuntzan, A eredurako joera handiagoa hautematen da, eta Lehen Hezkuntzan, D ereduak da nagusi. Beraz, badirudi belaunaldi gazteenak neurri handiagoan ari direla euskarazko ereduari matrikulatzen.

Familiek ikasleak zer ikastetxe-motatan (publikoa edo itunpekoa) matrikulatzen dituzten kontuan hartuta, atzerritar jatorriko familietan alde handiak aurkitu ditugu Lehen eta Bigarren Hezkuntzako matrikulazioen artean. Lehen Hezkuntzan, gehienek ikastetxe publikoa aukeratu dute, eta Bigarren Hezkuntzan, ikastetxe publikoaren eta itunpekoaren banaketak antzekoak dira. Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko alde horrek eta nagusi den ikastetxe-motak zerikusit handia izan dezake hizkuntza-ereduarekin: itunpeko ikastetxeek A eta B eredueta plazar eskaintzen dituzte normalean, eta beraz, aukera interesgarria izan daiteke Bigarren Hezkuntzako pertsonentzat, neurri handiagoan, eredu hori nahiago dutelako.

Gurasoen giza kapitala funtsezkoa da atzerritarren ondorengoen dinamikak ulertzeko; izan ere, hainbat egileren arabera, zenbat eta handiagoa izan gurasoen giza kapitala, hainbat eta handiagoak izango dira seme-alaben aukera eta helburuak (Aparicio eta Portes, 2014). Atal honetan, giza kapitalaren bi alderdi aztertuko ditugu: lan-egoera eta prestakuntza-maila. Lehenik eta behin, atzerritar jatorriko ikasleen gurasoen ikasketa-mailan derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzaren presentzia handiagoa da. Aldiz, familia autoktonoetan goi-mailako ikasketak presentzia handiagoa du.

Bigarrenik, lan-egoerari buruzko datuek erakusten digute atzerritar jatorriko guraso gehienak lanean ari diren arren, lanik gabeko pertsonen kopurua nabaria dela pertsona autoktonoen tasarekin alderatuz gero. Oro har, atzerritar jatorriko familien diru-sarrerak familia-errentetatik datoz neurri handian, eta soilik 10 familietatik 2 bizi dira gizarte-laguntzetatik. Familien erdiak baino pixka bat gehiago alokairuan bizi dira. Joera hori ez da agertzen familia autoktonoen kasuan, etxebizitza baten jabe izatea baita nagusitzen dena.

Jatorri nagusia latinoamerikarra da, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan. Hala ere, atzerritar jatorriko haurren jatorriari erreparatzen badiogu, argazkia errotik aldatzen da: Lehen Hezkuntzan 10 haurretik 9 Estatuan jaioak dira, eta Bigarren

⁵ Argitze aldera, hiru dira euskal hezkuntza-sareko hizkuntza-ereduak:

- D ereduak: Irakasgai guztiak euskaraz ematen dira eta gaztelania beste irakasgai bat das.
- B ereduak: Irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz (normalean, matematika eta irakurtzen eta idazten ikastea).
- A ereduak: Irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira eta euskara beste irakasgai bat das.

Hezkuntzan, 10etik 5. Bigarrenen artean, pisu handieneko jatorriak Latinoamerika eta Magreb dira.

HEZKUNTZA-ESPARRUA

Ikasgeletan atzerritar jatorriko ikasleak biltzea eztabaida publikoko gaia bihurtu da EAEn. Dena den, badirudi protagonistek (ikasleek) ez dutela gai gatazkatsutzat hartzen. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek hautematen dute kultura-aniztasuna beren ikasgelan; hala ere, hautemate hori ez da hain nabaria itunpeko sareko ikastetxeetan ikasten dutenen artean. Bigarren Hezkuntzaren kasuan, ikasleek jarrera tolerantea dute kultura-aniztasunarekiko, eta ez dute hautematen etorkinen gehiegizko presentzia ikastetxean; hala ere, probableagoa da hori gertatzea A ereduko ikasleen artean. Gainera, atzerritar jatorriko ikasleak pozik daude ikastetxearekin eta ikasgelako harremanekin, eta gatazkak izaten diren arren, ez dira maiz gertatzen.

Hezkuntza-errendimenduari dagokionez, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, atzerritar jatorriko ikasleek, oro har, ikasle ontzat dute beren burua. Hala ere, matematika eta euskara irakasgai zailagoak iruditzen zaizkie; jatorri autoktonoko ikasleentzat, berriz, atzerriko hizkuntzak dira zailenak. Euskal testuinguruan, bi hizkuntza ofizial izanda, gai hori oso garrantzitsua da; eta beraz, haietako bat ez jakiteak lan-aukerak, kultura-ekoizpena eta integrazioa galtzea eragiten du.

Atzerritar jatorriko ikasleek eskola-jardueretan eta eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeari dagokionez, Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, gehienek hartzen dute parte ikastetxean antolatutako jardueretan eta eskolaz kanpoko jardueretan. Gehienak kirolarekin lotutakoak diren arren, hizkuntzak eta eskola-laguntzako klaseak ere agertzen dira. Zehazki, eskolaz kanpoko azken jarduera hori da A ereduko ikasleek neurri handiengan aukeratu dutena. Bigarren Hezkuntzaren kasuan, ikasleen hiru laurdenean ikastetxeak proposatutako eskola-jarduera osagarrietan parte hartzen dute, eta antzeko proportzio batek jardueraren bat egiten du ikastetxetik kanpo, bere kasa. A ereduko ikasleek gutxiago hartzen dute jardueretan beste hizkuntza-eredu batzuetan matrikulatutakoek baino. Kirol-jarduerak dira ohikoenak; eta ondoren, eskola-laguntza eta hizkuntzak.

Ikastetxea aukeratzeko orduan, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, etxetik hurbil egotea da gurasoek kontuan hartzen duten lehen irizpidea; eta bigarrena, ikastetxearen kalitatea. Ikastetxearen aukeratzeko erabakian parte ez hartzea neurri handiagoan gertatzen da lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabeko gurasoen artean.

Azkenik, gurasoek ikastetxearekiko duten harremanari dagokionez, ikastetxerako familiako erreferentzia den pertsona ama izaten da, baina familia autoktonoetan aitaren presentzia handiagoa da atzerritar jatorriko familietan baino. Bestetik,

azken horiek diote nahiko harreman dutela ikastetxearekin. Atzerritar jatorriko familien eta euskal jatorrikoen egoera horrek familiako kargak neurri handienez emakumeengan uzten dituen egiturazko genero-desberdintasun bati erantzuten dio (Emakunde, 2007).

FAMILIA-ESPARRUA

Atzerritar jatorriko ikasleen familia-esparrua ezagutzea oso garrantzitsua da haien egungo egoera ulertzeko. Atzerritar jatorriko familien etxeetan pertsona gehiago bizi dira, batez beste, familia autoktonoen etxeetan baino. Familia-moten artean ere alde adierazgarriak daude; atzerritar jatorriko ikasleen artean, guraso bakarreko familiak gehiago dira eta seme-alaben kopurua handiagoa da.

Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, ikasle gehienek diote giro ona dutela etxean. Hala ere, etxean hautematen duten egoera ekonomikoa hobea da familia autoktonoen kasuan. Itunpeko ikastetxeetan egoera ekonomiko “erosoa” dutela dioten familia gehiago daude ikastetxe publikoetan baino.

Atzerritar jatorriko ikasleek etxean izaten duten eskola-laguntzari erreparatuz, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, tutoreek edo gurasoek ikasleen eskola-jarduerari buruzko interes handia erakusten dute. Etxeko lanetan laguntzeari dagokionez, aldeak daude bi zikloen artean. Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, gurasoak dira eskola-zereginetako laguntza nagusia, eta afrikar eta txinatar jatorriko ikasleak dira laguntza gutxien izaten dutenak. Inoren laguntzarik izaten ez duten ikasleak Bigarren Hezkuntzan izaten dira ugariagoak, eta gurasoen ikasketamaila txikiagoa (lehen mailako ikasketak edo ikasketarik ez) duten familietan, are ugariagoak.

IDENTITATEA ETA INTEGRAZIOA

Bigarren belaunaldi izenekoak “liminilatite” egoeran daude; hau da, pertsonak zenbait kultura-testuingururen artean oszilatzen, eta, azkenik, zenbait jatorritako kultura-ezaugarri batzuk hartuta identitate berri bat eratuz (Bennet, 2013). Nazio-identifikazioaz galdetzean, identitate hori zehazte aldera, datuak konplexutasun hori erakusten digute: Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen artean, gehienak euskaldun edo espainiar gisa identifikatzen dira; hala ere, Bigarren Hezkuntzaren kasuan, ia erdiek gurasoen jatorriko herrialdea aipatzen dute beren pertenezko zehazteko, baina, afrikar jatorriko ikasleen artean, beren burua euskalduntzat dutenen tasa handiagoa da.

Erljioari eta erlijio-praktikei dagokienez, gai horiek presenteago daude atzerritar jatorriko familietan familia autoktonoetan baino; batik bat, Afrikatik etorritako familien artean. Gurasoek erlijiozaleagoak direla diote seme-alabek baino.

Jatorriko ohiturak eta tradizioak transmititzea, oro har, gai garrantzitsua da atzerritar jatorriko familientzat, eta, bereziki, Afrikatik etorritakoentzat. Ekialdeko Europatik etorritako familientzat garrantzi txikiagoa du.

Bigarren Hezkuntzako ikasleei beren integrazioari buruz galdetuta, euskal gizartean hautemandako integrazio-maila handiagoa da Ekialdeko Europako eta asiar jatorriko ikasleen kasuan. Latinoamerikar eta afrikar jatorriko ikasleen kasuan da txikiena integrazio-maila. Ikasleen artean aldeak daude: goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabek eta A ereduan matrikulatutakoek integratuago daudela diote beste ikasketa-maila batzuetako gurasoen seme-alaben edo beste eredu batzuetan matrikulatuta daudenen kasuan baino.

GIZARTE-HARREMANAK

Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen gehiengo zabalak lagun mistoak ditu, eta atzerritar jatorriko lagunak tasa hirukoitza da jatorri autoktonoko ikasleen artean hautemandakoarekin alderatuta. Euskal jatorriko ikasleen lagun gehienak haien jatorri berekoak dira, eta atzerritar jatorriko lagunak ez dira oso ohikoak. Dena den, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen lagunak jatorri autoktonoko pertsonak dira, euskal jatorriko familietakoak. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan, soilik pertsona autoktonoz osatutako lagun-taldea duten atzerritar jatorriko ikasleen tasa handiagoa da sare publikoan baino. Aldi berean, jatorri autoktonoko lagunak dituzten atzerritar jatorriko ikasleen proportzioa D ereduan da handiena.

Beren adineko gazteekin partekatzen dituzten gustuei, sinesmenei eta arazoei dagokienez, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek gehien partekatutako alderdiak hauek izan dira: dibertitzeko moduak, hizkuntza, musika, leku beretara joatea, eta hitz egiteko eta adierazteko moduak; gutxien aipatutakoak erlijio bera izatea eta ideia eta sinesmen berak izatea dira.

Azkenik, Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako gurasoen lagunei dagokienez, atzerritar jatorrikoen artean lagun-talde mistoak dira ohikoak; guraso autoktonoen artean, berriz, soilik pertsona autoktonoz osatutako lagun-taldeak dira ohikoak. Afrikatik etorritako pertsonak dira biztanleria autoktonoko lagun gutxien dituztenak.

ONGIZATEA

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleen zoriontasun-mailari dagokionez, zoriontasun subjektiboaren balioak altuak dira.

Arazo bat izatean norengana jotzen duten galdetuta, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasle gehienek erantzun dute gurasoengana edo tutorengana jotzen dutela, eta, neurri txikiagoan, lagunengana.

Azkenik, atzerritar jatorriko ikasle gehienek diote osasun ona edo oso ona dutela; jatorri autoktonoko ikasleak dira oso osasun onaren tasa altuena dutenak. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan, atzerritar jatorriko ikasleen osasunaren autoebaluazioa handiagoa da sare publikoan baino.

ITXAROPENAK

Atzerritar jatorriko ikasleen eta haien gurasoen itxaropenak eta etorkizuneko planak ezagutzea ere garrantzitsua da. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle gehienek ikasten jarraitzeko asmoa dute, institutua amaitu ondoren. Zehazki, %60k unibertsitatera joan nahi du. Beren iruditerian, gurasoen nahia ere ikasten jarraitu dezatela dela hautematen dute; mutilek uste izaten dute haien familiak lanbide-heziketa ikastea nahi duela nesken kasuan baino neurri handiagoan.

Inkestatutako atzerritar jatorriko hamar gurasotik zortzik nahi dute beren seme-alabak unibertsitatera joatea, lanbide-heziketako ikasketetan edo zuzenean lan-merkatuan sartzea bigarren planoan utzita.

Izan nahi dituzten lanbideei dagokienez, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek aukeratutako lanbideetan, alde adierazgarriak daude generoaren arabera; futbolariak izan nahi duten mutilak gehiago dira, eta irakasleak eta ile-apaintzaileak izan nahi duten neskak gehiago dira. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen artean, gehien aukeratutako lanbideak mekanikaria, medikua, futbolaria, ile-apaintzailea eta “ez daki” izan dira.

ERANSKINAK

Galdetegia lehen hezkuntza

GALDETEGIA - LEHEN HEZKUNTZA

Galdeketa-zenbakia	
Data (eguna-hilabetea-urtea)	
Lurralde Historikoa	
Ikastetxe-mota	
Maila	
Eredua	
Ikastetxearen IDa	
Bertakoa / Jatorri atzerritarra	
Inkestagilea	

Lehenik eta behin, mila esker denbora hartzeagatik. Galdetegi hau benetan garrantzitsua da guretzat; horregatik eskatzen dizugu galdera guztiei zintzotasunez erantzuteko. Ez digu axola nor zaren edo nola deitzen zaren; izan ere, galdetegi hau IKUSPEGIko ikertzaileek baino ez dute ikusiko. Jarraian, hainbat galdera egingo dizkizugu eskolari, lagunei eta, oro har, zure bizitzari buruz, integrazioari buruzko ikerketa baterako. Ondoren, zure guraso edo tutoreei ere galdera batzuk egingo dizkiegu. Has gaitzen.

1. Normalean, zenbat pertsona bizi dira zure etxean?

1) NORMALEAN, ZENBAT PERTSONA BIZI DIRA ZURE ETXEAN?



2. Zure familiako norekin bizi zara?

Aita eta Amarekin	1
Aitarekin bakarrik	2
Amarekin bakarrik	3
Beste pertsona batzuekin, _____	4
Ed/Ede	0





2) ZURE FAMILIAKO NOREKIN BIZI ZARA?

			
AMA ETA AITAREKIN <input type="checkbox"/>	AITAREKIN BAKARRIK <input type="checkbox"/>	AMAREKIN BAKARRIK <input type="checkbox"/>	BESTE PERTSONA BATZUEKIN <input type="checkbox"/>

3. Zurekin bizi den neba-arrebarik baduzu?

Bai, 1	1
Bai, 2	2
Bai, 2 baino gehiago	3
Ez	4
Ed/Ede	0

3) ZUREKIN BIZI DEN NEBA-ARREBARIK BADUZU?

			
EZ <input type="checkbox"/>	BAI, 1 <input type="checkbox"/>	BAI, 2 <input type="checkbox"/>	BAI, 2 BAINO GEHIAGO <input type="checkbox"/>

4. Nola moldatzen zara etxean bizi diren pertsoekin?

Ongi	1
Ez ongi ez gaizki	2
Gaizki	3
Ed/Ede	0

4) NOLA MOLDATZEN ZARA ETXEAN BIZI DIREN PERTSONEKIN?

ONGI <input type="checkbox"/>	EZ ONGI, EZ GAIZKI <input type="checkbox"/>	GAIZKI <input type="checkbox"/>
		

5. Etxean behar duzue guztia duzue?

Behar duzuen guztia duzue	1
Batzuetan gauzak falta zaizkizue	2
Ed/Ede	0

5) ETXEAN BEHAR DUZUEN GUZTIA DUZUE?






BEHAR DUGUN GUZTIA DUGU


BATZUETAN GAUZAK FALTA ZAIZKIGU

6. Normalean, nork laguntzen dizu etxerako lanekin?

Gurasoek	1
Beste senide batzuek	2
Beste pertsona batzuek	3
Inork ez	4
Ed/Ede	0

6) NORMALEAN, NORK LAGUNTZEN DIZU ETXERAKO LANEKIN?





GURASOEK

BESTE SENIDE
BATZUEK


BESTE PERTSONA
BATZUEK

INORK EZ


7. Zurekin bizi diren pertsonek honi buruz galdetzen al dizute?
(Erantzun guztiak irakurri)

	Ez	Bai	Ed/Ede
Ea klasera joaten zaren	1	2	0
Azterketak eta notak	1	2	0
Eskolan zer gertatu den	1	2	0
Etterako lanak	1	2	0
Eskolako bilerak	1	2	0


7) ZUREKIN BIZI DIREN PERTSONEK HONI BURUZ GALDETZEN AL DIZUTE?




**EA KLASERA
JOATEN ZAREN**




**AZTERKETAK
ETA NOTAK**




**ESKOLAN ZER
GERTATU DEN**



ETXERAKO LANAK



ESKOLAKO BILERAK



8. Norbaitek nongoa zaren galdetuko balizu, zer erantzungo zenioke?
(Erantzun anitza)

Euskalduna	1
Espainarra	2
Jaio zinen herrialdekoa	3
Zure gurasoen herrialdekoa	4
Ed/Ede	0

8) NORBAITEK NONGOA ZAREN GALDETUKO BALIZU, ZER ERANTZUNGO ZENIOKE?



EUSKALDUNA



ESPAINARRA



**JAIO ZINEN
HERRIALDEKOA**



**ZURE GURASOEN
HERRIALDEKOA**

9. Gainerako umeen aldean desberdina zarela sentitzen duzu?

Desberdina	1
Antzekoa	2
Berdina	3
Ed/Ede	0

9) GAINERAKO UMEEN ALDEAN DESBERDINA ZARELA SENTITZEN DUZU?



DESBERDINA



ANTZEKOA




BERDINA

10. Pentsatu zure 3 lagunik onenengan. Nola izena dute? Nongoak dira? (Hitzez hitz nota hartu esandakoa; ondoren, kodifikatu: ikus orrialdea)

IZENA	NONGOAK DA	Ed/Ede
		0
		0
		0
		0
		0

10) PENTSATU ZURE 3 LAGUNIK ONENENGAN. NOLA IZENA DUTE? NONGOAK DIRA?



11. Nolakoa da zure lagun taldea?

Guztiak edo ia guztiak hemengoak	1
Hemengoak eta beste herrialde batzuetakoak, nahastuta	2
Guztiak edo ia guztiak beste herrialde batzuetakoak	3
Ed/Ede	0

11) NOLAKOA DA ZURE LAGUN TALDEA?



GUZTIAK EDO IA GUZTIAK HEMENGOAK



HEMENGOAK ETA BESTE HERRIALDE BATZUETAKOAK, NAHASTUTA



GUZTIAK EDO IA GUZTIAK BESTE HERRIALDE BATZUETAKOAK

12. Norekin jolastu nahiko zenuke?

Gehienbat hemengoak direnekin	1
Hemengoekin eta beste herrialde batzuetakoekin, nahastuta	2
Gehienbat beste herrialde batzuetakoekin	3
Ed/Ede	0

12) NOREKIN JOLASTU NAHIKO ZENUKE?



GEHIENBAT
HEMENGOAK
DIRENEKIN



HEMENGOEKIN ETA
BESTE HERRIALDE
BATZUETAKOEKIN,
NAHASTUTA



GEHIENBAT BESTE
HERRIALDE
BATZUETAKOEKIN


13. Zure ikasgelan umeek borrokan egiten dute?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

13) ZURE IKASGELAN UMEEK BORROKAN EGITEN DUTE?



EZ



BAI

14. Eta zuri? Gertatu zaizu? Inoiz borrokan egin duzu?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

→ Joan 17Gra

14) ETA ZURI, GERTATU ZAIZU? INOIZ BORROKAN EGIN DUZU?

BAI

EZ

15. Askotan ala gutxitan gertatzen da? Zelako maiztasunarekin?

Ia inoiz ez	1
Batzuetan	2
Askotan	3
Ed/Ede	0

15) ASKOTAN ALA GUTXITAN GERTATZEN DA? ZELAKO MAIZTASUNAREKIN?



IA INOIZ EZ



BATZUETAN



ASKOTAN

16. Arrazoi hauengatik izan da borroka? (Erantzun guztiak irakurri)

	Bai	Ez	Ed/Ede
Desberdina izateagatik	1	2	0
Neska izateagatik	1	2	0
Zure fisikoagatik	1	2	0
Zure gustuengatik	1	2	0
Zure diruagatik	1	2	0
Zure erlijioagatik	1	2	0
Zure hitz egiteko moduagatik	1	2	0
Beste arrazoiengatik? _____	1	2	0

16) ARRAZOI HAUENGATIK IZAN DA BORROKA?



1) DESBERDINA IZATEAGATIK



2) NESKA IZATEAGATIK



3) NIRE FISIKOAGATIK



4) NIRE GUSTUENGATIK



5) NIRE DIRUAGATIK



6) NIRE ERLIJOAGATIK



7) NIRE HITZ EGITEKO MODUAGATIK



8) BESTE ARRAZOIENGATIK


17. Gertatu al zaizu hau inoiz? (Erantzun guztiak irakurri)

	Bai	Ez	Ed/Ede
Gezurra esatea, eskolara ez joateko	1	2	0
Klasean ezkutatzea, jolastokira ez ateratzeko	1	2	0
Desberdina izateagatik iraintzen zaituzte	1	2	0
Ez dute zurekin jolastu nahi	1	2	0
Jo egiten zaituzte	1	2	0
Iraindu egiten zaituzte	1	2	0

17) GERTATU AL ZAIZU HAU INOIZ?



1) GEZURRA ESATEA, ESKOLARA EZ JOATEKO




2) KLASEAN EZKUTATzea, JOLASTOKIRA EZ ATERATZEKO



3) DESBERDINA IZATEAGATIK IRAINTZEN NAUTE



4) EZ DUTE NIREKIN JOLASTU NAHI



5) JO EGITEN NAUTE



6) IRAINDU EGITEN NAUTE

18. Nola konpontzen zara ikaskideekin?

Oso ondo	1
Normal	2
Txarto	3
Ed/Ede	0

18) NOLA KONPONTZEN ZARA IKASKIDEEKIN?



OSO ONDO



NORMAL



TXARTO

19. Eskolak antolatzen dituen irteeretan eta jardueretan parte hartzen duzu?

Bai, guztietan	1
Batzuetan bai, beste batzuetan ez	2
Ez	3
Ez, ez dagoelako	4
Ed/Ede	0

19) ESKOLAK ANTOLATZEN DITUEN IRTEERETAN ETA JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUZU?

BAI, GUZTIETAN

BATZUETAN BAI, BESTE BATZUETAN EZ

EZ

EZ, EZ DAGOELAKO



20. Eskolaz kanpoko jarduerarik egiten duzu?

Bai	1	} Joan 22Gra
Ez	2	
Ed/Ede	0	

20) ESKOLAZ KANPOKO JARDUERARIK EGITEN DUZU?

BAI

EZ

21. Zein? (Guztiak irakurri)

	Bai	Ez	Ed/Ede
Kirola	1	2	0
Hizkuntzak	1	2	0
Eskola-laguntza	1	2	0
Musika	1	2	0
Artea	1	2	0
Aisialdia/denbora librea	1	2	0
Beste batzuk. Zein? _____	1	2	0

21) ZEIN?

KIROLA



HIZKUNTZAK



ESKOLA-LAGUNTZA




MUSIKA



ARTEA



AISIALDIA/DENBORA LIBREA



22. Nolakoa da zure gela edo taldea?

Guztiak edo ia guztiak hemengoak dira	1
Hemengoak eta beste herrialde batzuetakoak, nahastuta	2
Guztiak edo ia guztiak herrialde batzuetakoak	3
Ed/Ede	0

22) NOLAKOA DA ZURE GELA EDO TALDEA?

<p>GUZTIAK EDO IA GUZTIAK HEMENGOAK DIRA</p> <input type="checkbox"/>	<p>HEMENGOAK ETA BESTE HERRIALDE BATZUETAKOAK, NAHASTUTA</p> <input type="checkbox"/>	<p>GUZTIAK EDO IA GUZTIAK BESTE HERRIALDE BATZUETAKOAK</p> <input type="checkbox"/>

23. Zure gela edo talde gustuko duzu?

Oso	1	Joan 25Gra
Normal	2	
Ez oso	3	
Ed/Ede	0	

23) ZURE GELA EDO TALDEA GUSTUKO DUZU?

OSO <input type="checkbox"/>	NORMAL <input type="checkbox"/>	EZ OSO <input type="checkbox"/>

24. Zergatik ez duzu gustoko zure gela edo taldea?

Ikaskideengatik	1
Ikasgaiengatik	2
Irakasleengatik	3
Ed/Ede	0


24) ZERGATIK EZ DUZU GUSTUKO ZURE GELA EDO TALDEA?

IKASKIDEENGATIK <input type="checkbox"/>	IKASGAIENGATIK <input type="checkbox"/>	IRAKASLEENGATIK <input type="checkbox"/>

25. Zein ikasgai dituzu gogoko? Zein Ez? (Guztiak irakurri)

	Bai	Ez	Ed/Ede
Plastika	1	2	0
Euskara	1	2	0
Gorputz Hezkuntza	1	2	0
Atzerriko Hizkuntza	1	2	0
Inguru	1	2	0
Matematika	1	2	0
Gaztelania	1	2	0


25) ZEIN IKASGAI DITUZU GOGOKO? ZEIN EZ?



PLASTIKA

**Kaixo!!
ESKERRIK ASKO
EGUNON**


EUSKARA



GORPUTZ
HEZKUNTZA

**Hello!!! ONE
TWO THREE
ORANGE
BLUE
GREEN**


ATZERRIKO
HIZKUNTZA



INGURU

$6 \times 8 = 48$
 $x + 2 = 4$
 $x = 4 - 2$
 $x = 2$

MATEMATIKA



GAZTELANIA


26. Ikasle ona ala txarra zara?

Ona	1
Normala	2
Txarra	3
Ed/Ede	0


26) IKASLE ONA ALA TXARRA ZARA?



ONA



NORMALA



TXARRA

27. Etxerako lanak egiten ohi dituzu?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

27) ETXERAKO LANAK EGITEN DITUZU?

BAI

EZ



28. Nola sentitzen zara normalean?

Ondo	1
Normal	2
Txarto	3
Ed/Ede	0

28) NOLA SENTITZEN ZARA NORMALEAN?



ONDO



NORMAL



TXARTO

29. Arazoren bat duzunean, norekin hitz egiten duzu?

Gurasoekin	1
Lagunekin	2
Irakaslearekin	3
Beste norbaitekin	4
Inorekin ez	5
Ed/Ede	0

29) ARAZOREN BAT DUZUNEAN, NOREKIN HITZ EGITEN DUZU?



GURASOEKIN



LAGUNEKIN



IRAKASLEAREKIN



BESTE NORBAITEKIN



INORREKIN EZ

30. Zer izan nahi duzu nagusia zarenean? (Bat bakarrik)

Ile apaintzailea	1
Okina	2
Irakaslea	3
Medikua	4
Futbolaria	5
Igeltseroa	6
Bankaria	7
Margolaria	8
Abeslaria	9
Bestelakorik, zer? _____	10
Ed/Ede	0

30) ZER IZAN NAHI DUZU NAGUSIA ZARENEAN?

		
ILE APAINTZAILEA <input type="checkbox"/>	OKINA <input type="checkbox"/>	IRAKASLEA <input type="checkbox"/>
		
MEDIKUA <input type="checkbox"/>	FUTBOLARIA <input type="checkbox"/>	IGELTSEROA <input type="checkbox"/>
		
BANKARIA <input type="checkbox"/>	MARGOLARIA <input type="checkbox"/>	ABESLARIA <input type="checkbox"/>

31. Zer hizkuntza dakizkizu? (Erantzun guztiak irakurri)

	Bai	Ez	Ed/Ede
Txinera	1	2	0
Errumaniera	1	2	0
Arabiera	1	2	0
Euskara	1	2	0
Gaztelania	1	2	0
Errusiera	1	2	0
Frantsesa	1	2	0
Ingelesa	1	2	0

ZURE ATALAREKIN AMAITU DUGU!
ESKERRIK ASKO!

31) ZER HIZKUNTZA DAKIZKIZU?

			
TXINERA <input type="checkbox"/>	ERRUMANIERA <input type="checkbox"/>	ARABIERA <input type="checkbox"/>	EUSKARA <input type="checkbox"/>
			
GAZTELANIA <input type="checkbox"/>	ERRUSIERA <input type="checkbox"/>	FRANTSESA <input type="checkbox"/>	INGELESA <input type="checkbox"/>

GALDETEGIA - GURASOAK / TUTOREAK

IKASTETXEA

65. Zergatik erabaki zenuen zure semea edo alaba ikastetxe honetan matrikulatzea? HIRU ARRAZOI

	1 ^a	2 ^a	3 ^a
Hurbiltasuna	1	1	1
Prezioa	2	2	2
Kalitatea	3	3	3
Hezkuntza-eskaintza	4	4	4
Ikastetxearen erlijio-joera	5	5	5
Ikastetxearen aniztasuna	6	6	6
Ez nuen nik erabaki	7	7	7
Beste bat. Zein? _____	8	8	8
Ed/Ede	0	0	0

66. Zenbat denbora darama zure semeak edo alabak ikastetxean?

Urtebete baino gutxiago	1
1 eta 3 urte bitartean	2
4 urte edo gehiago	3
Ed/Ede	0

67. Zure semea edo alaba ikastetzez aldatu da azken urtean?

Bai	1	→ Joan 69Gra
Ez	2	
Ed/Ede	0	

68. Zenbat aldiz aldatu da zure semea edo alaba ikastetzez?

2 aldiz edo gehiago	1
Behin	2
Ed/Ede	0

69. Nor da ikastetxearekin harremanetan egon ohi den pertsona?

Aita	1
Ama	2
Beste pertsona bat. Nor? _____	3
Ed/Ede	0

70. Nolako harremana duzu ikastetxearekin?

Ez dago harremanik	1	Joan 72Gra
Harreman gutxi dago	2	
Nahikoa harreman dago	3	
Harreman handia dago	4	
Ed/Ede	0	

71. Zure ustez, zergatik dago harreman gutxi edo bat ere ez? (guztiak irakurri)

Hizkuntza-oztopoak	1
Ez da beharrezkoa	2
Ikastetxeak ez du interesik	3
Harreman galazkatsua	4
Beste bat. Zein? _____	5
Ed/Ede	0

ESPEKTATIBAK

72. Zer nahiko zenuke zure semeak edo alabak egitea institutua bukatu ondoren? (guztiak irakurri)

Unibertsitatean ikasi	1
LH ziklo bat ikasi	2
Lan egin	3
Beste bat. Zein? _____	4
Ed/Ede	0

73. Zergatik?

74. Zure semeak edo alabak zertan lan egitea nahiko zenuke?

Ed/Ede	0
--------	---

75. Eta, errealista izanda, zertan lan egin dezakeela uste duzu?

Ed/Ede	0
--------	---

76. Zer asmo duzu datozen 5 urteotarako: EAEn gelditu, beste herrialde batera joan ala zure jatorrizko herrialdera itzuli?

EAEn gelditu	1
Beste autonomia-erkidego batera joan	2
Nire jatorrizko herrialdera itzuli	3
Beste herrialde batera joan	4
Ed/Ede	0

NORTASUNA

77. Pertsona erlijiosotzat duzu zeure burua? (guztiak irakurri)

Bai, oso	1	Joan 79Gra
Ez oso, ez gutxi	2	
Batere ez	3	
Ed/Ede	0	

78. Zein da zure erlijioa? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi kodea)

Ed/Ede	0
--------	---

79. Zenbateko garrantzia du, zure iritziz, zure jatorrizko herrialdeko ohiturei eusteak? (guztiak irakurri)

Handia	1
Nahikoa	2
Txikia	3
Bat ere ez	4
Ed/Ede	0

80. Nongoak dira zure eta zure bikoteak lagun eta ezagunak? (guztiak irakurri)

	Inkestaturik	Bikotea
Guztiak hemengoak	1	1
Gehienak hemengoak	2	2
Erdi eta erdi	3	3
Gehienak beste herrialde batzuetakoak	4	4
Guztiak beste herrialde batzuetakoak	5	5
Ed/Ede	0	0

ELEMENTU SOZIODEMOGRAFIKOAK

81. Zein da zure egoera zibila?

Ezkondua	1
Izatezko bikotea	2
Dibortziatua	3
Banandua	4
Alarguna	5
Ezkongabea	6
Ezkongabea, baina bikoteakidearekin bizi da	7
Ed/Ede	0

82. Zein da zure hezkuntza-maila gorena? Eta zure bikotekidearena?

	Inkestaturia	Bikotea
Ikasketarik gabe / Lehen Hezkuntza bukatu gabe	1	1
Lehen Hezkuntza (12 urte arte)	2	2
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12 eta 16 urte artean)	3	3
Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza (16-18 urte)	4	4
Erdi-mailako Lanbide Heziketa	5	5
Goi-mailako Lanbide Heziketa	6	6
Unibertsitatea / Goi-ikasketak	7	7
Ed/Ede	0	0

83. Zein da zure lan-egoera? Eta zure bikotekidearena? (guztiak irakurri)

	Inkestaturia	Bikotea
Lanean	1	1
Langabezian	2	2
Ikasten	3	3
Erretiraturata	4	4
Etxekoandrea/gizona	5	5
Ed/Ede	0	0

84. Lanean ari bazarete, zein da zuren lanbidea? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Inkestaturia		Ed/Ee	0
Bikotea		Ed/Ee	0

85. Zure etxean zein da diru-iturri nagusia? (guztiak irakurri)

Lana	1
Langabeziagatiko diru-laguntza	2
Diru-laguntzak (DSBE, GLL...)	3
Aurrezki pertsonalak	4
Lagun eta senideen laguntza	5
Ed/Ee	0

86. Gutxi gorabehera, zenbateko diru-sarrerak dituzue etxean? Adierazi etxeko pertsona guztien diru-sarrerak. (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi dagokion tartea)

Diru-sarrerarik ez	1
300 € arte	2
300 eta 499 € artean	3
500 eta 999 € artean	4
1.000 eta 1.499 € artean	5
1.500 eta 1.999 € artean	6
2.000 eta 2.999 € artean	7
3.000 eta 4.999 € artean	8
5.000 edo gehiago	9
Ed/Ede	0

87. Nola definituko zenuke etxeko egoera ekonomikoa? (guztiak irakurri)

Oso pobrea	1
Pobrea	2
Moldatzen gara	3
Erosoa	4
Aberatsa	5
Ed/Ede	0

88. Zuk edo etxeko beste norbaitek arazorik izan du polizierekin? (irakurri)

Bai, nik	1
Bai, senide batek	2
Bai, nik neuk eta senide batek	3
Ez, bat ere ez	4
Ed/Ede	0

89. Alokairuan bizi zara edo etxea zuen jabetzakoa da? (guztiak irakurri)

Alokairua	1
Jabetzakoa (ordaintzeko bidean)	2
Jabetzakoa (ordaindua)	3
Utzitako etxea	4
Ed/Ede	0

90. Azken urtean etxex aldatu zara?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

→ Joan 92Gra

91. Zenbat aldiz?

	Ed/Ee	0
--	-------	---

92. Zein herrialdeetan jaio ziren umearen ama eta aita biologikoak? Eta umea? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Aita		Ed/Ee	0
Ama		Ed/Ee	0
Umea		Ed/Ee	0

93. Zein da zure administrazio-egoera? Eta zure bikotekidearena?

	Inkestaturia	Bikotea
Espainiar nazionalitatea	1	1
Bizitzeko eta lan egiteko baimen iraunkorra	2	2
Aldi baterako bizitzeko eta lan egiteko baimena	3	3
Bizitzeko baimena, baina ez lan egitekoa	4	4
Ikasteko baimena	5	5
Asilo-eskatzaila	6	6
Egoera irregularra	7	7
Ed/Ede	0	0

94. Zein urtetan iritsi zinen Espainiara? Eta Euskadira? (jatorri atzerritarrekoek bakarrik)

	Esp.	Ed/Ee	Eus.	Ed/Ee
Inkestaturia		0		0
Bikotea		0		0
Umea		0		0

95. Zein da zure ama-hizkuntza? Eta zure bikotekidearena? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Inkestaturia		Ed/Ee	0
Bikotekidea		Ed/Ee	0

96. Zein da zure gaztelania-maila? Eta zure bikotekidearena? (guztiak irakurri)

	Inkestatua	Bikotea
Ezgai	1	1
Eskasa	2	2
Tartekoa	3	3
Ona	4	4
Ed/Ede	0	0

97. Eta euskara-maila? (irakurri)

	Inkestatua	Bikotea
Ezgai	1	1
Eskasa	2	2
Tartekoa	3	3
Ona	4	4
Ed/Ede	0	0

98. Inkestatuaren sexua:

Gizonezkoa	1
Emakumezkoa	2

99. Zein da zure adina?

100. Zein herrialdeetan jaio zinen?(datzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

--	--

101. Zein senidetasun-maila edo erlazioa duzu umearekin?

Aita/Ama	1
Amona/Aitona	2
Osaba/Izaba	3
Anaia/Arreba	4
Beste bat (idatzi): _____	5

Bukatzeko, gauzatzen ari garen ikerketari lotuta,

102. Prest egongo zinateke etxean zure familiarekin batera elkarrizketa sakonago bati erantzuteko? Horren truke dirua jasoko duzu.

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

103. Baimena emango zenioke zure semeari edo alabari, hala nahiko balu, bere adineko beste gazte batzuekin batera aipatu ditugun gaiei buruz hitz egiteko?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

Izena: _____

Telefonoa: _____

Elkarrizketa egin dela egiaztatzeko edota familien elkarrizketan edo taldeko eztabaidan parte hartzeko harremanetan jartzeko beharko genituzke datuok.

BUKATU DUGU. ESKERRIK ASKO

ELKARRIZKETATZAILEAK ADIERAZTEKO. EZ GALDETU.

- A. Inkestatuaren talde etnikoa.
- B. Bikotekidearen talde etnikoa.
- C. Umearen talde etnikoa.

	A	B	C
Kaukasikoa/zuria	1	1	1
Beltza	2	2	2
Asia hegoaldekoa (hindua, pakistandarra...)	3	3	3
Asia ekialdekoa (txinatarra, japoniarra...)	4	4	4
Arabiarrak	5	5	5
Indigena (amerikarra)	6	6	6
Ijitoa	7	7	7
Beste bat. Zein?	8	8	8
Ed/Ede	0	0	0

D. Elkarrizketatzailearen ustez, zein da ebeko egoera sozioekonomikoa?

Familia oso pobrea	1
Familia pobrea	2
Klase ertaineko familia	3
Egoera eroso duen familia	4
Familia aberatsa	5
Ed/Ede	0

Galdetegia bigarren hezkuntza

GALDETEGIA - BIGARREN HEZKUNTZA

Galdeketa-zenbakia	
Data (eguna-hilabetea-urtea)	
Lurralde Historikoa	
Ikastetxe-mota	
Maila	
Eredua	
Ikastetxearen IDa	
Bertakoa / Jatorri atzeritarra	
Inkestagilea	

Lehenik eta behin, mila esker denbora hartzeagatik. Galdetegi hau benetan garrantzitsua da guretzat: horregatik eskatzen dizugu galdera guztiei zintotasunez erantzuteko. Ez digu axola nor zaren edo nola deitzen zaren; izan ere, galdetegi hau IKUSPEGIko ikertzaileek baino ez dute ikusiko. Jarraian, hainbat galdera egingo dizkizugu eskolari, lagunei eta, oro har, zure bizitzari buruz, integrazioari buruzko ikerketa baterako. Ondoren, zure guraso edo tutoreei ere galdera batzuk egingo dizkiegu. Has gaitezen.

FAMILIA

1. Zenbat pertsona bizi dira zure etxean? (adierazi kopurua)

2. Norekin bizi zara etxean? (guztiak irakurri)

Gurasoekin	1
Amarekin baino ez	2
Aitarekin baino ez	3
Beste senide batekin	4
Ez zara zure familiako inorekin bizi	5
Ed/Ede	0

3. Baduzu zurekin bizi den neba-arrebarik?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ee	0

4. Zenbat neba-arreba? (adierazi kopurua)

5. Nola moldatzen zara etxean bizi diren pertsonekin? (guztiak irakurri)

Oso ongi	1
Ongi	2
Ez ongi ez gaizki	3
Gaizki	4
Oso gaizki	5
Ed/Ede	0

6. Nork laguntzen dizu etxeko lanekin? (anitza)

Guraso edo tutoreek	1
Neba-arrebek	2
Beste senideren batek	3
Beste pertsona batek	4
Inork ez	5
Ed/Ede	0

Joan 8Gra

7. Zenbatetan laguntzen dizute etxeko lanekin? (guztiak irakurri)

Inoiz ez	1
Gubitari	2
Askotan	3
Beti	4
Ed/Ede	0

8. Zure gurasoek/tutoreek ba al dute interesik (guztiak irakurri)

	Bai	Ez	Ed/Ede
a) eskolan gertatzen zaizkizun gauzetan	1	2	0
b) hurrengo egunerako dituzun etxerako lanetan	1	2	0
c) notetan eta azterketetan	1	2	0
d) eskolako bileretan	1	2	0
e) zu eskolara joatean	1	2	0

9. Zure iritziz, zein da etxeko egoera ekonomikoa? (guztiak irakurri)

Eroso bizi zarete	1
Bizitzeko behar beste dituzue	2
Bizitzeko zailtasunak dituzue	3
Bizitzeko zailtasun handiak dituzue	4
Ed/Ede	0

10. Oro har, zein hizkuntzatan ikusten duzue telebista etxean? (Iratzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Ed/Ede	0

11. Oro har, zein hizkuntzatan ikusten dituzu filmak edo telesailak? (Iratzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Ed/Ede	0

12. Zein hizkuntzatan daude zure etxeko aldizkari eta liburu gehienak? (Iratzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Ed/Ede	0

NORTASUNA

13. Zure burua nongoa sentitzen duzun galdetuko balizute, zer erantzungo zenuke? (ez irakurri)

Euskalduna	1
Espainiarra	2
Zure jatorriko herrialdekoa	3
Zure gurasoetako baten jatorriko herrialdekoa	4
Euskalduna eta espainiarra	5
Euskalduna eta zure jatorriko herrialdekoa	6
Espainiarra eta zure jatorriko herrialdekoa	7
Euskalduna eta zure gurasoetako baten jatorriko herrialdekoa	8
Espainiarra eta zure gurasoetako baten jatorriko herrialdekoa	9
Zure gurasoetako baten jatorriko herrialdekoa eta zure jatorriko herrialdekoa	10
Ed/Ede	0

14. Erlijiosotzat hartzen duzu zure burua? (guztiak irakurri)

Bai, oso	1
Ez asko, ez gutxi	2
Ez, batere ez	3
Ed/Ede	0

→ Joan 16Gra

15. Zein da zure erlijioa? (Iratzi erantzuna hitzez eta adierazi kodea)

--	--

16. Zenbateko garrantzia du zure edo zure familiaren jatorrizko herrialdeko ohiturei eusteak? (guztiak irakurri)

Handia	1
Nahikoa	2
Txikia	3
Bat ere ez	4
Ed/Ede	0

17. Seme-alabarik izango bazenu, zer hizkuntzatan heziko zenuke?

Gaztelania	1
Euskara	2
Jatorrizko hizkuntza	3
Beste bat	4
Ed/Ede	0

18. Seme-alabarik izango bazenu, erlijioaren batean heziko zenuke?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

→ Joan 20Gra

19. Zeinetan? (Iratzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Ed/Ede	0

20. Euskal gizartearen parte sentitzen al zara? Otiak 10erako eskalan (0 "ezer ez" eta 10 "guztiz").

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Ed/Ede
											99

HARREMAN SOZIALAK

21. Pentsatu zure hiru lagunik onenengan. Nola dute izena? Nongoak dira? (Iratzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

	Izena	Nongoa da
1. Laguna		
2. Laguna		
3. Laguna		
Ez dauka lagunik	1	
Ed/Ede	0	

22. Nongoak dira zure lagunak? (guztiak irakurri)

Denak hemengoak	1
Gehienak hemengoak	2
Erdi eta erdi	3
Gehienak beste herrialde batzuetakoak	4
Denak beste herrialde batzuetakoak	5
Ez daukazu lagunik	6
Ed/Ede	0

23. Zer partekatzen duzu zure adinekoekin? (guztiak irakurri)

	Bai	Ez	Ed/Ede
Leku beretara joaten gara	1	2	0
Musika bera entzuten dugu	1	2	0
Berdin janzten gara	1	2	0
Hizkuntza berean hitz egiten dugu	1	2	0
Hitz egiteko edo adierazteko modu bera dugu	1	2	0
Idea edo sinesmen berak ditugu	1	2	0
Zaletasun berak ditugu	1	2	0
Arazo berak ditugu bizitzan	1	2	0
Auzo berean bizi gara	1	2	0
Erlijio bera dugu	1	2	0

ESKOLAKO GIROA

24. Zure ustez, euskal gizartearen hainbat lekutako, erlijiotako eta/edo kulturatako jendea egotea...? (guztiak irakurri)

Ona da, gauza berriak ikasten ditugulako	1
Ona da, baina zaila	2
Txarra da, euskal kulturari kalte egiten diolako	3
Ed/Ede	0

25. Eta zure ikasgelan, hainbat lekutako, erlijiotako eta/edo kulturatako jendea egotea... (guztiak irakurri)

Positiboa da	1
Ez da ez positiboa ez negatiboa	2
Negatiboa da	3
Ed/Ede	0

26. Zure eskolan edo institutuan pentsatzen baduzu, zer esango zenuke? (guztiak irakurri)

Kanpoko pertsona gehiegi dago	1
Ez asko ez gubi, normala	2
Gutxi daude	3
Ed/Ede	0

27. Ikusi al duzu eskolan indarkeria kasurik ikasleen artean edo ikasleen eta irakasleen artean? (guztiak irakurri)

Bai, ikasleen artean	1
Bai, irakasleen artean	2
Bien artean	3
Ez	4
Ed/Ede	0

28. Indarkeriarik, irainik edo borrokarik jasan al duzu eskolan?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

Joan 30Gra

29. Horretarako arrazoiak hauetakoren bat da? (ez irakurri)

Desberdina izateagatik	1
Neska izateagatik	2
Zure ezaugarri fisikoengatik	3
Zure gustuengatik	4
Zure egoera ekonomikoarengatik	5
Zure erlijioarengatik	6
Zure hitz egiteko moduarengatik	7
Beste bat:	8
Ed/Ede	0

30. Azken urtean hauetakoren bat gertatu zaizu? (guztiak irakurri)

	Bai	Ez	Ed/Ee
Gezurra esatea ikastexera ez joateko	1	2	0
Gelan ezkutatzea jolastokira ez ateratzeko	1	2	0
Desberdina izateagatik irainak jasotzea	1	2	0
Besteek zurekin jolastu nahi ez izatea	1	2	0
Norbaitek zu jotzea (heldu, tira egin, gauzak bota...)	1	2	0
Irainak jasotzea	1	2	0
Besteek zu ekiditea, zurekin ez jolastea	1	2	0

31. Zure ikasgelan ikaskideren bat iraintzen, jotzen, bultzatzen edo baztertzen al dute? Edo haren gauzak baimenik gabe hartzen al dituzte?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

32. Ohikoak al dira gatazkak zure ikasgelan? (guztiak irakurri)

Sarritan	1
Noizbait	2
Ia inoiz ere ez	3
Inoiz ere ez	4
Ed/Ede	0

33. Nola deskribatuko zenuke ikaskideekin duzun harremana? (guztiak irakurri)

Oso ona	1
Ona	2
Ez ona ez txarra	3
Txarra	4
Oso txarra	5
Ed/Ede	0

34. Nolako da, zure ustez, irakasleekin duzun harremana? (guztiak irakurri)

Oso ona	1
Ona	2
Ez ona ez txarra	3
Txarra	4
Oso txarra	5
Ed/Ede	0

Joan 36Gra

35. Zergatik? (guztiak irakurri, bat baino gehiago hauta daitezke)

Zure izateko moduarengatik	1
Zure ezaugarri fisikoengatik	2
Zure egoera ekonomikoarengatik	3
Zure erlijioarengatik	4
Zure edo zure gurasoen jatorriarengatik	5
Zure hitz egiteko moduarengatik	6
Beste bat:	7
Ed/Ede	0

36. Eskolako jardueretan parte hartu ohi duzu (irteerak, bidaiak, bisitak, jaiak...)? (guztiak irakurri)

Bai, beti	1
Batzuetan bakarrik	2
Ez, inoiz ez	3
Ez, ez dagoelako	4
Ed/Ede	0

37. Eskolaz kanpoko jarduerarik egiten duzu?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

Joan 39Gra

38. Zeinetan? (bat baino gehiago hauta daitezke)

Kirola	1
Kultura	2
Hizkuntzak	3
Eskola-laguntza	4
Musika	5
Aisia	6
Ed/Ede	0

IKASKETA MAILA

39. Gustura al zaude ikasgelan? (guztiak irakurri)

Oso	1	} Joan 41Gra
Nahiko	2	
Gutxi	3	
Ezer ez	4	
Ed/Ede	0	

40. Zergatik uste duzu gustura ez zaudela? (guztiak irakurri)

Ikaskideengatik	1
Lantzen ditugun gaiengatik	2
Irakasleengatik	3
Aipatutako guztiengatik	4
Beste bat:	5
Ed/Ede	0

41. Otiik 10erako eskalan (0 "oso gaizki" eta 10 "ezin hobeto"), nola aritzen zara eskolan?

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Ed/Ede
											99

42. Zein da hoberen menderatzen duzun ikasgaia? Eta okerren?

	Hoberen	Okerren
Giza zientziak (Historia, geografia...)	1	2
Gaztelania eta literatura	1	2
Euskara	1	2
Atzerriko hizkuntzak (ingeleza, frantsesa...)	1	2
Zientziak (Biologia, geologia, fisika, kimika...)	1	2
Matematikak	1	2
Ed/Ede	0	

43. Mailarik errepikatu al duzu noizbait?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

44. Mailaren bat errepikatu dezakezula uste al duzu?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

45. Irakasgairen batean laguntza behar duzula uste al duzu?

Bai	1	→ Joan 49Gra
Ez	2	
Ed/Ede	0	

46. Laguntzarik eskaini al dizute ikastetxean/institutuan?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

47. Gurasoek/tutoreek laguntzarik eskaini al dizute?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

48. Gurasoek/tutoreek akademia batera edo irakasle partikular batengana joateko proposatu al dizute?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

49. Zenbatero huts egiten duzu eskolara? (guztiak irakurri)

Inoiz ez	1
Zenbaitetan	2
Dezentetan	3
Sarritan	4
Ed/Ede	0

ONGIZATEA

50. Zure uste zenbaterainoko konfiantza duzu jendearengan? 0 "batere erez" eta 10 "handia" izanik

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Ed/Ede
											99

51. Oro har, zoriontsua zarela uste duzu? 0 "oso zorizaiztoko" eta 10 "oso zoriontsu" izanik

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Ed/Ede
											99

52. Zein neurritan zaude pozik zure bizitzarekin? 0 "batere pozik ez" eta 10 "oso pozik" izanik

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Ed/Ede
											99

53. Kezkatuta zaudenean edo arazoren bat duzunean, norekin hitz egiten duzu? (guztiak irakurri, bat baino gehiago hauta daitezke)

Gurasoak/tutoreak	1
Neba-arrebak	2
Beste senideren bat	3
Irakaslea	4
Lagunak	5
Inor ez	6
Ed/Ede	0

54. Nola deskribatuko zenuke zure osasuna? (guztiak irakurri)

Oso ona	1
Ona	2
Ez ona ez txarra	3
Txarra	4
Oso txarra	5
Ed/Ede	0

ITXAROPENAK

55. Zer egin nahiko zenuke institutua amaitu ondoren? (guztiak irakurri)

Unibertsitatean ikasi	1
LH ziklo bat ikasi	2
Lan egin	3
Beste bat: _____	4
Ed/Ede	0

56. Eta zure gurasoak/tutoreak, zer nahi dute zuk egitea institutua amaitzen duzunean? (guztiak irakurri)

Unibertsitatean ikasi	1
LH ziklo bat ikasi	2
Lan egin	3
Beste bat: _____	4
Ed/Ede	0

57. Eta zure irakasleek zer nahi dute zuk egitea institutua bukatu ondoren? (guztiak irakurri)

Unibertsitatean ikasi	1
LH ziklo bat ikasi	2
Lan egin	3
Beste bat: _____	4
Ed/Ede	0

58. Heldua zarenean, zertan egin nahiko zenuke lan?

59. Eta errealista izanik, zertan uste duzu egin dezakezula lan?

OROKORRAK

60. Sexua (idatzi elkarrizketatuaren sexua)

Mutila	1
Neska	2

61. Zenbat urte dituzu? (idatzi elkarrizketatuaren adina)

62. Zein herraldetan jaiotzen zinen? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

63. Zein hizkuntzatan antzen zara jaiakortasunez? (guztiak irakurri, anitza)

	Bai	Ez	Ed/Ede
Gaztelania	1	2	0
Euskara	1	2	0
Jatorrizko hizkuntza	1	2	0

64. Zein hizkuntza hitz egiten da gehien zure etxean? (Hiru gehienez, idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

1. hizkuntza		
2. hizkuntza		
3. hizkuntza		

ZURE ATALAREKIN AMAITU DUGU!
ESKERRIK ASKO!

GALDETEGIA - GURASOAK / TUTOREAK

IKASTETXEA

65. Zergatik erabaki zenuen zure semea edo alaba ikastetxe honetan matrikulatzea? HIRU ARRAZOI

	1º	2º	3º
Hurbiltasuna	1	1	1
Prezioa	2	2	2
Kalitatea	3	3	3
Hezkuntza-eskaintza	4	4	4
Ikastetxearen erlijio-joera	5	5	5
Ikastetxearen aniztasuna	6	6	6
Ez nuen nik erabaki	7	7	7
Beste bat. Zein? _____	8	8	8
Ed/Ede	0	0	0

66. Zenbat denbora darama zure semeak edo alabak ikastetxean?

Urtebete baino gutxiago	1
1 eta 3 urte bitartean	2
4 urte edo gehiago	3
Ed/Ede	0

67. Zure semea edo alaba ikastetxetik aldatu da azken urtean?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

→ Joan 69Gra

68. Zenbat aldiz aldatu da zure semea edo alaba ikastetxetik?

2 aldiz edo gehiago	1
Behin	2
Ed/Ede	0

69. Nor da ikastetxearekin harremanetan egon ohi den pertsona?

Aita	1
Ama	2
Beste pertsona bat. Nor? _____	3
Ed/Ede	0

70. Nolako harremana duzu ikastetxearekin?

Ez dago harremanik	1
Harreman gutxi dago	2
Nahikoa harreman dago	3
Harreman handia dago	4
Ed/Ede	0

Joan 72Gra

71. Zure ustez, zergatik dago harreman gutxi edo bat ere ez? (guztiak irakurri)

Hizkuntza-oztopoak	1
Ez da beharrezkoa	2
Ikastetxeak ez du interesik	3
Harreman gatazkatsua	4
Beste bat. Zein? _____	5
Ed/Ede	0

ESPEKTATIBAK

72. Zer nahiko zenuke zure semeak edo alabak egitea institutua bukatu ondoren? (guztiak irakurri)

Unibertsitatean ikasi	1
LH ziklo bat ikasi	2
Lan egin	3
Beste bat. Zein? _____	4
Ed/Ede	0

73. Zergatik?

74. Zure semeak edo alabak zertan lan egitea nahiko zenuke?

Ed/Ede	0

75. Eta, errealista izanda, zertan lan egin dezakeela uste duzu?

Ed/Ede	0

76. Zer asmo duzu datozen 5 urteotarako: EAEn gelditu, beste herrialde batera joan ala zure jatorrizko herrialdera itzuli?

EAEn gelditu	1
Beste autonomia-erkidego batera joan	2
Nire jatorrizko herrialdera itzuli	3
Beste herrialde batera joan	4
Ed/Ede	0

NORTASUNA

77. Erlijiosotzat duzu zeure burua? (guztiak irakurri)

Bai, oso	1	} Joan 79Gra
Ez oso, ez gutxi	2	
Batere ez	3	
Ed/Ede	0	

78. Zein da zure erlijioa? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi kodea)

	Ed/Ede	0
--	--------	---

79. Zenbateko garrantzia du, zure iritziz, zure jatorrizko herrialdeko ohi-turei eusteak? (guztiak irakurri)

Handia	1
Nahikoa	2
Txikia	3
Bat ere ez	4
Ed/Ede	0

80. Nongoak dira zure eta zure bikotekidearen lagun eta ezagunak? (guztiak irakurri)

	Inkestatua	Bikotea
Guztiak hemengoak	1	1
Gehienak hemengoak	2	2
Erdi eta erdi	3	3
Gehienak beste herrialde batzuetakoak	4	4
Guztiak beste herrialde batzuetakoak	5	5
Ed/Ede	0	0

ELEMENTU SOZIODEMOGRAFIKOAK

81. Zein da zure egoera zibila?

Ezkondua	1
Izatezko bikotea	2
Dibortziatua	3
Banandua	4
Alarguna	5
Ezkongabea	6
Ezkongabea, baina bikotekidearekin bizi da	7
Ed/Ede	0

82. Zein da zure hezkuntza-maila gorena? Eta zure bikotekidearena?

	Inkestatua	Bikotea
Ikasketarik gabe / Lehen Hezkuntza bukatu gabe	1	1
Lehen Hezkuntza (12 urte arte)	2	2
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12 eta 16 urte artean)	3	3
Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza (16-18 urte)	4	4
Erdi-mailako Lanbide Heziketa	5	5
Goi-mailako Lanbide Heziketa	6	6
Unibertsitatea / Goi-ikasketak	7	7
Ed/Ede	0	0

83. Zein da zure lan-egoera? Eta zure bikotekidearena? (guztiak irakurri)

	Inkestatua	Bikotea
Lanean	1	1
Langabezian	2	2
Ikasten	3	3
Erretiratuta	4	4
Etxekoandrea/gizona	5	5
Ed/Ede	0	0

84. Lanean ari bazarete, zein da zuen lanbidea? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Inkestatua		Ed/Ee	0
Bikotea		Ed/Ee	0

85. Zure etxean zein da diru-iturri nagusia? (guztiak irakurri)

Lana	1
Langabeziagatiko diru-laguntza	2
Diru-laguntzak (DSBE, GLL...)	3
Aurrezki pertsonalak	4
Lagun eta senideen laguntza	5
Ed/Ee	0

86. Gutxi gorabehera, zenbateko diru-sarrerak dituzue etxean? Adierazi etxeko pertsona guztien diru-sarrerak. (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi dagokion tartea)

Diru-sarrerarik ez	1
300 € arte	2
300 eta 499 € artean	3
500 eta 999 € artean	4
1.000 eta 1.499 € artean	5
1.500 eta 1.999 € artean	6
2.000 eta 2.999 € artean	7
3.000 eta 4.999 € artean	8
5.000 edo gehiago	9
Ed/Ede	0

87. Nola definituko zenuke etxeko egoera ekonomikoa? (guztiak irakurri)

Oso pobrea	1
Pobrea	2
Moldatzen gara	3
Erosoa	4
Aberatsa	5
Ed/Ede	0

88. Zuk edo etxeko beste norbaitek arazorik izan du poliziarekin? (guztiak irakurri)

Bai, nik	1
Bai, senide batek	2
Bai, nik neuk eta senide batek	3
Ez, bat ere ez	4
Ed/Ede	0

89. Alokairuan bizi zara edo etxea zuen jabetzakoa da? (guztiak irakurri)

Alokairua	1
Jabetzakoa (ordaintzeko bidean)	2
Jabetzakoa (ordaindua)	3
Utzitako etxea	4
Ed/Ede	0

90. Azken urtean etxez aldatu zara?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

→ Joan 92Gra

91. Zenbat aldiz?

	Ed/Ee	0
--	-------	---

92. Zein herrialdetan jaio ziren umearen ama eta aita biologikoak? Eta umea? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Aita		Ed/Ee	0
Ama		Ed/Ee	0
Umea		Ed/Ee	0

93. Zein da zure administrazio-egoera? Eta zure bikotekidearena?

	Inkestaturia	Bikotekidea
Espainiar nazionalitatea	1	1
Bizitzeko eta lan egiteko baimen iraunkorra	2	2
Aldi baterako bizitzeko eta lan egiteko baimena	3	3
Bizitzeko baimena, baina ez lan egitekoa	4	4
Ikasteko baimena	5	5
Asilo-eskatzaila	6	6
Egoera irregularra	7	7
Ed/Ede	0	0

94. Zein urtetan iritsi zinen Espainiara? Eta Euskadira? (jatorri atzeritarrekoei bakarrik)

	Esp.	Ed/Ee	Eus.	Ed/Ee
Inkestaturia		0		0
Bikotekidea		0		0
Umea		0		0

95. Zein da zure ama-hizkuntza? Eta zure bikotekidearena? (Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

Inkestaturia		Ed/Ee	0
Bikotekidea		Ed/Ee	0

96. Zein da zure gaztelania-maila? Eta zure bikotekidearena? (guztiak irakurri)

	Inkestaturia	Bikotekidea
Ezgai	1	1
Eskasa	2	2
Tartekoa	3	3
Ona	4	4
Ed/Ede	0	0

97. Eta euskara-maila? (guztiak irakurri)

	Inkestaturia	Bikotekidea
Ezgai	1	1
Eskasa	2	2
Tartekoa	3	3
Ona	4	4
Ed/Ede	0	0

98. Inkestaturaren sexua:

Gizonezkoa	1
Emakumezkoa	2

99. Zein da zure adina?

--

100. Zein herrialdetan jaio zinen?(Idatzi erantzuna hitzez eta adierazi zerrendako kodea)

--

101. Zein senidetan-ama edo erlazioa duzu umearekin?

Aita/Ama	1
Amona/Aitona	2
Osaba/Izaba	3
Anaia/Arreba	4
Beste bat (idatzi): _____	5

Bukatzeko, gauzatzen ari garen ikerketari lotuta,

102. Prest egongo zinateke etxean zure familiarekin batera elkarriketa sakonago bati erantzuteko? Horren truke dirua jasoko duzu.

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

103. Baimena emango zenioke zure semeari edo alabari, hala nahiko balu, bere adineko beste gazte batzuekin batera aipatu ditugun gaietara buruz hitz egiteko?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

Izena: _____

Telefonoa: _____

Elkarrizketa egin dela egiaztatzeko edota familien elkarrizketan edo taldeko eztabaidan parte hartzeko harremanetan jartzeko beharko genituzke datuok.

BUKATU DUGU. ESKERRIK ASKO**ELKARRIZKETATZAILEAK ADIERAZTEKO. EZ GALDETU.**

A. Inkestatuaren talde etnikoa.

B. Bikotekidearen talde etnikoa.

C. Umearen talde etnikoa.

	A	B	C
Kaukasikoa/zuria	1	1	1
Beltza	2	2	2
Asia hegoaldekoa (hindua, pakistandarra...)	3	3	3
Asia ekialdekoa (txinatarra, japoniarra...)	4	4	4
Arabiarra	5	5	5
Indigena (amerikarra)	6	6	6
Ijitoa	7	7	7
Beste bat. Zein?	8	8	8
Ed/Ede	0	0	0

D. Elkarrizketatzailearen ustez, zein da etxeko egoera sozioekonomikoa?

Familia oso pobrea	1
Familia pobrea	2
Klase ertaineko familia	3
Egoera eroso duen familia	4
Familia aberatsa	5
Ed/Ede	0

III. Atala


Gazte anitzak, etorkizun kulturanitza



1. kapitulua

Ibilbide arrakastatsuak: bizi-kontakizun anitzak

Maite Fouassier Zamalloa eta Mikel Mintegi Luengo



2. kapitulua

Afrikar jatorriko gurasoen alaba euskaldunak: oraina eta etorkizuna (16-25 urte)

Saioa Bilbao Urkidi y Maite Fouassier Zamalloa



3. kapitulua

Familiak eta aniztasuna Euskadin (0-25 urte)

Julia Shershneva eta Iraide Fernández Aragón



4. kapitulua

Euskal gizarte berri eta anitza

Maddalen Epelde Juaristi eta Oier Ochoa de Aspuru Gulin

Ibilbide arrakastatsuak: bizi-kontakizun anitzak

Maite Fouassier Zamalloa eta Mikel Mintegi Luengo





AURKIBIDEA

Sarrera	499
1. Kontakizunak	503
1.1. Sole	505
1.2. Paul	519
1.3. Fátima	531
1.4. Mikel	545
1.5. Margareth	559
1.6. Ahmed	569
1.7. Daniela.....	583
1.8. Oier.....	593
1.9. Sukaina	603
1.10. Jon	615
2. Azterketa	629
1.1. Haurtzaroa eta lehen oroitzenak	631
1.2. Familia	633
1.3. Gizarte-sareak	639
1.4. Ikasketak eta lana	642
1.5. Hizkuntzak	647
1.6. Identitatea(k)	650
1.7. Jatorriarekiko loturak	653
1.8. Sinesmenak	656
1.9. Bereizkeria	658
1.10. Asmoak eta itzaropenak	661
3. Ondorioak, gakoak eta gomendioak	663
Eranskina	669



SARRERA

Ondoren datozen orrialdeetan, beren sorlekutik urrun hazi diren edo beren senideen jaioterritik urrun jaio diren pertsonen bizitzaren zati baten berri jakin behar dugu. Beren bizitza, edo zati bat behintzat, Euskadin eman dute, eta berezitasun bat dute: errespetatuak sentitzen dira, gustura beren buruarekin eta inguruan daukatenarekin.

Gure lurraldean izandako nazioarteko migrazio-mugimenduak XXI. mendearen hasieran hasi ziren aztertzen, neurri batean etorrerak modu esponentzian igo zirelako. Baina ez dugu ahaztu behar beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonak aurreko mendean ere Euskadin bizi zirela jadanik. Haien ondorengoek hartu dute parte azterketa honetan, beren gertakizunak, pertzepzioak, sentimenduak eta iritziak kontatuz, eta kontakizun bakoitzean hainbat alderdi xehatu dituzte.

Helburua, beraz, haien bizitzako ibilbidearen berri izatea da, Euskadin nola bizi izan diren jakitea, harremanei, familiari, ikasketei eta enpleguari buruzko alderdiak aztertuz eta, era berean, nolabaiteko oreka psikologiko, psikosozial eta soziala bilatuz. Informazio horretatik abiatuta, ibilbide horiek zergatik diren egokiak azaltzen duten ondorioak atera, eta estrategiak identifikatuko dira, bizitza-esperientzia positiboak izan ditzaketen antzeko ibilbideak egin ahal izateko.

Txosten honen izaera ez da akademikoa baizik eta dibulgatzailea, eta helburua ez da teoria soziologiko edo psikosozialeko hipotesiak frogatzea edo gezurtatzea, baizik eta aniztasunaren kudeaketaz arduratzen diren erakunde, organismo eta pertsonen jarraibideak eta gomendioak eskaintzea, bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa aintzat hartuz. Txosten honek nabarmentzen du mekanismo eta ekimen eraginkor eta operatiboak abian jartzeko elementuak bilatu behar

direla, jatorri immigrante eta autoktonoa duten kolektiboak elkarren artean integratzeko, gizarte-kohesioa lortzeko eta bizikidetza hobetzeko.

Horretarako, gaur egun Euskadin bizi diren hamar pertsonaren kontakizunak jaso ditugu. Pertsona horiek 18 urtetik 32 urtera bitartekoak dira, hemen jaio dira (beren gurasoen jaioterria ez den leku batean) edo jaioterritik Euskadira lau urte bete aurretik etorri ziren eta, gutxienez, gurasoetako bat atzerritarra dute. Zehazki, bost emakume eta bost gizon dira, jatorri latinoamerikar edo afrikarrekoak (Magreb eta Saharaz hegoaldeko Afrika), eta hiruk aita edo ama euskalduna dute. Bizitza-kontakizunak aipatzen ditugunean, teknika kualitatiboaz ari gara; hau da, kontalari batek bere bizitza edo bizitzaren zati bat adierazten du. Bizitza-kontakizun horiek egiteko, galdera irekien gidoi bat prestatu da, elkarrizketatuen bizitzako ibilbidearen alderdi guztiak (motibaziozkoak, jarrerazkoak eta proiektiboak) aztertzeko (ikus eranskina). Elkarrizketak 2016ko maiatzetik ekainera bitartean egin ziren, Euskadiko lurralde osoan zehar, eta bi ordutik hiru ordura bitarteko iraupena izan zuten.

Testuaren egiturari dagokionez, hasieran 80ko eta 90eko hamarkadetako migrazio-fenomenoa testuinguruan kokatzen da, garai horretan jaio edo iritsi baitziren Euskadira elkarrizketatuak. Ondoren, lehen pertsonan kontatutako hamar istorio aurkezten dira, haien bizipenak eta errealitateak hurbiletik ezagutzeko. Gero, edukia aztertzen da, pertsona horien ibilbideko alderdi esanguratsuenak nabarmentzeko.

Elkarrizketatuen pribatutasuna babesteko, aldatu egin dugu elkarrizketatua identifikatzeko aukera ematen duen informazioa. Pertsona guztiak ados daude kontakizunak orrialde hauetan azaltzen diren bezala aurkeztearekin.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu SOS Arrazakeria Gipuzkoari eta Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Sailari, azterketan parte hartzeko pertsonak aurkitzen eman diguten laguntzagatik.

EAE n 80ko eta 90eko hamarkadetan izandako migrazio-fenomenoaren testuinguru laburra

Aurkezpenean, labur-labur azaldu da nazioarteko migrazio-fenomenoa Euskadin, estatuko gainerako eskualdeetan bezala, 90eko hamarkadaren amaieran eta 2000. urtearen hasieran hasi zirela aztertzen erakundeak eta mundu akademikoa. Dena dela, urte batzuk lehenago ere egin ziren migrazioaren errealitateari buruzko azterketak; izan ere, XX. mendean zehar barne-mugimenduak izan ziren, euskal industria-sektorean eskulana behar baitzen, eta, gainera, lehen nazioarteko migrazioak gertatu ziren.

Zenbait azterketa eta estatistika¹ erreferentziatzat hartuta, hala nola euskal immigrazioari buruzko Ruiz Olabuénaga eta Blancoren² testua, gaur egungo migrazioen historiari buruzko ohar batzuk aurkeztuko dira. Hasieran, emigrazioak beste herrialde batzuetara jo zuen, Latinoamerikara batik bat. Baina, geroago, joera alderantzikoa izan zen, Euskadi etengabeko barne-immigrazioaren gune bihurtu baitzen; hasieran Bizkaia izan zen helmuga, eta gero Gipuzkoa eta Araba. Nazioarteko migrazioari dagokionez, 90eko hamarkadaren hasieran teorizazio orokorrik gabeko fenomeno bat zen artean, zaila baitzen migrazio-motak biltzen zituen teoria bakarra egitea. Analista batzuen iritziz, Joaquín Arango esaterako, migrazio horiek fenomeno anbiguo samarra ziren, zaila neurtzeko eta diziplinartekoa.

Euskadin XIX. mendearen amaieran gertatutako garapen industrialak migrazio-mugimenduak ekarri zituen Espainiako beste eskualde batzuetatik. Industriaren eraldaketak eta merkataritzaren goraldiak eraginda, atzerriko kapitaleko industriak sortu ziren. Horrekin batera, giza eta finantza-kapitaleko kuota garrantzitsuak ere sortu ziren, eta eskari hori betetzeko, hain zuzen ere, eskulana behar zen. XX. mendearen hasieran etorrerak mantsotu egin baziren ere, 50eko hamarkadaren hasieran berriro egin zuten gora. Euskadiko gizarte-egitura aldatuz joan zen, barne-migrazioa lurraldean pixkanaka kokatzen zen heinean. Atzeritar gutxi zeuden garai hartan, eta joera horrek horrela jarraitu zuen 90eko hamarkadako erdi aldera arte. 1986ko eroldako datuen arabera, Euskadik 2.136.100 biztanle zituen, eta horietatik 653.113 lurraldetik kanpo jaiok ziren, eta azken horietatik 23.360 atzerrian jaiotakoak ziren (atzerriko nazionalitatea zutenak eta itzulitakoak).

¹Estatistika Institutu Nazionala (EIN), Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT). Zenbaitetan, datu desberdinak azalduko dira, erabilitako estatistika-iturriaren arabera.

²Ruiz Olabuénaga, J.I. eta M.C. Blanco (1994) *La inmigración vasca. Análisis trigeneracional de 150 años de inmigración*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Pixkanaka, eta nabarmenago 1993tik aurrera, Euskadin bizi ziren beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako kopuruak behera egin zuen, eta atzerriko nazionalitatea zuen biztanleriak, berriz, gora egin zuen apur bat. (1. taula).

Atzerriko nazionalitatea zutenen jatorrizko eremu geografikoei dagokienez, Eustaten erroldak emandako datuetan oinarrituta, 2. taulan batez ere Europatik zetozela ikus daiteke. Biztanleriaren erdia baino zertxobait gehiago europarra zen (% 51,9), eta ondoren latinoamerikarrak (% 20,4) eta afrikarrak (% 15,8) zeuden. Ehuneko txikiagoa zuten ipamerikarrek (% 6,2) eta asiarrak (% 5,1).

Atzerriko biztanleriaren kopuru absolutua txikia zenez, ikertzaileek eta erakundeek ez zuten aztertzen. Atzerriko biztanleria EAera zergatik etortzen zen azaltzen duen dokumentazioa oso urria da, barne-migrazioaren azterketan jartzen baitzen arreta. Zenbait arrazoik azaltzen dute atzerritarren migrazioaren goraldia estatuan, hala nola Espainian gertatutako aldaketa soziopolitikoak, 90eko hamarkadaren erdialdetik izandako ekonomiaren hazkundera, migrazio-politikaren garapena (erregularizazio-prozesuak eta herrialdeen arteko fluxuak kontrolatzeko aldebiko akordioak) eta gizarte hartzaileetan izandako Latinoamerikako migrazioaren aldeko joera, beste kolektibo batzuk bigarren maila batean utziz (magrebtarrak, Saharaz hegoaldeko afrikarrak).

1. taula. EAEn bizi eta atzerriko nazionalitatea duen biztanleria. 1992-1999

	EAE
1992	10.935
1993	12.304
1994	12.262
1995	13.569
1996	13.135
1997	15.647
1998	16.995
1999	17.411

Iturria: EIN

2. taula. Atzerriko nazionalitateko biztanleria EAEn jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 1996

	%
Europa	51,9
Ipar Amerika	6,2
Latinoamerika	20,4
Asia	5,1
Afrika	15,8
Ozeania	0,5
Herrigabeak	0,01
Guztira	100,0

Iturria: Eustat. Biztanleriaren errolda 1996

1

Kontakizunak

Ondoren, gaur egun Euskadin bizi diren hamar pertsonen bizitzako istorioak aurkeztuko dira. Sarreran aipatu dugun bezala, pertsona horiek beren gurasoen sorterritik kanpo jaio edo haur zirela kokatu ziren Euskadin. Azterketa honetan parte hartu dute, geroko azterketan *ibilbide arrakastatsua* deritzogun hori nolabait adierazten dutelako.

Lehen pertsonan idatzita daude, eta orain arte zer-nolako bizitza izan duten deskribatzeaz gain, beren kezkek, ilusioak, irrikak eta etorkizuneko planak ere agerian jarri nahi dituzte. Ikusiko dugun bezala, haien kontakizunetan haurtzaroko oroitzapenak eta etorkizuneko ideiak uztartzen dira, esaterako seme-alabentzat zer heziketa nahi duten. Eskolan bizi izandakoa baloratzen dute eta lan-munduan zer etorkizun izango duten azaltzen dute.

Berehala ohartuko gara haien bizitzak adin bereko beste edozein gazterenak bezalakoak direla, antzeko arazo, bizipen eta itxaropenak baitituzte. Hala ere, zenbait berezko ezaugarri dituzte, berdinak beren taldeko gazteen artean. Dena den, berezko ezaugarriak dituen adin bereko beste edozein talderen antzekoak dira.



Sole dut izena...

...eta duela 30 urte jaio nintzen Ekuatore Ginean, Afrika osoko kolonia espainiar bakarrean. Horregatik, nire ama-hizkuntza gaztelania da eta behintzat hizkuntzarekin ez nuen arazorik izan lau urterekin Bilbora ekarri nindutenean. Ginean ohitura da alaba zaharrena amaren ahizpa zaharrenak haztea. Eta ni naizenez lau anai-arrebetan zaharrena, izebak hazi ninduen eta hark ekarri ninduen hona.

Hona etortzeko erabakia familiak hartu zuen, Afrikan ez baituzu hemengo hezkuntza bera jasotzen eta aurrera egiteko aukerak ere ez baitira berdinak. Ni izebaren kargu nengoenek, nire izebak argi zuen Europara etortzen bazen berarekin ekarri behar ninduela, ni haztea bere ardura baitzen. Eta horregatik etorri ginen izeba eta biok bakarrik.

Hegazkina hartzen nuen lehenengo aldia zen eta beldur handia pasatu nuen, negar batean eman nuen hegaldi osoa. Izebari esaten nion ura besterik ez nuela ikusten eta oso goian geundela.

Lehendabizi, egun batzuk Madrilen eman genituen erregistratzeko izapideak egiten enbaxadan. Oraindik etxean daukat nire lehenengo pasaporte, gauza horiek ez dira botatzen. Nazionalitatearen izapideak egiteko, bizileku-txartel bat ematen zizuten lehenik eta, gero, behin betiko bizileku-baimena ematen zizuten. Bilbon bizi zen beste izeba bat (harekin bizi behar genuen guk) Madrileren joan zen gure bila eta harekin etorri ginen autobusez.

Hemen dena oso arraroa iruditzen zitzaidan: kaleak, etxeak... hasieran itxitasun-sentsazioa ematen zidan hiriak, Afrikako etxeetako ateak irekita egoten direlako eta harreman gehiago dagoelako bizilagunen artean.

Bat-batean pisu batera iristen zara eta espetxe batean zaudela iruditzen zaizu, giltzapetuta. Gainera, bizilagunek agurtu ere ez zintuzten egiten, bazirudien ni nintzela xeble bakarra. Iruditzen zitzaidan begiratzen nindutenean «hara, ekarri digute beste bat» edo horrelako zerbait pentsatzen zutela.

Gogoan dut gaizki pasatu nuela hasierako egun haietan, asko botatzen nituen faltan Gineako gauza guztiak. Eta hotza ere gogoan dut, zeren eta, horrez

Oso txikitan etorri nintenez, errazagoa egin zitzaidan egokitzea. Nire izebari, heldua zenez, gehiago kostatu zitzaion.

gain, temperatura tropikaleko leku batetik nentorren eta kontrastea izugarria izan zen. Uste dut inoiz ez dela hain negu hotzik izan geroztik. Pentsa, Basurton ospitaleratuta egotera iritsi nintzen hipotermiak jota. Edonola ere, oso txikitan etorri nintenez, errazagoa egin zitzaidan egokitzea. Nire izebari, heldua zenez, pixka bat gehiago kostatu zitzaion. Egia da, bai, esaten duten hori: aldaketak zenbat eta lehenago egin, hobe. Azkenean, umeak gauza guztietara egokitzen dira.

Bilbora iritsi ondoren, bi urte egon nintzen eskolara joan gabe. Izebarekin ematen nuen eguna, eta izeba joaten zen toki guztietara joaten nintzen. Enkarguak egitera, medikuarenera edo edonora. Orduan ez genuen osasun-txartelik, nik ez nuen izan 15 urtera arte, eta gaixotzen bazinen Medicus Mundira joan behar izaten zenuen. Han immigrante guztiak artatzen zituzten edozein gauzatarako.

Egunero joaten ginen mezetara elizara. Niretzat hura ezin aspergarriagoa zen, eramanezina. Baina nire izebarentzat erlijio katolikoa garrantzitsuena zen, eta halaxe izaten jarraitzen du. Gaur egun ere egunero joaten da mezetara eta abesbatza batean abesten du gainera.

Eskolan hasi ahal izateko dokumentazio-izapide guztiak ere egin genituen.

Behin eskolan hasitakoan gauzak erraztu egin ziren, zure bizitzan errutina bat ezartzen duzulako, lagunak egiten dituzulako eta gauzak normaltasunez ikusten hasten zarelako. Hori bai, ekaitzekin izugarri beldurtzen nintzen eta irakaslearen mahaipean sartzen nintzen trumoiak entzuten nituenean. Afrikan ez baitira izaten horrelako ekaitzak eta niri iruditzen zitzaidan zeruari zerbait gertatzen zitzaiola. Irakasleak irteteko esaten zidan, ez zela ezer gertatzen; baina nik han jarraitzen nuen eskuak buruan nituela belarriak estaliz.

Ez dut inoiz ahaztuko irakasle hura. Maite zuen izena eta gainera gure tutorea ere bazen. Hark ateratzen ninduen mahaipetik eta bere magalean hartzen, ekaitzak

Lehen unetik beste ikasle bat gehiago izan nintzen berarentzat. Ez zitzaion inporta zer koloretakoa nintzen edo nondik nentorren, bera ni integratzen saiatzen zen.

eragindako izu-ikara arintzeko. Gainera, lehen unetik beste ikasle bat gehiago izan nintzen berarentzat. Ez zitzaion inporta zer koloretakoa nintzen edo nondik nentorren, bera ni integratzen saiatzen zen. Hasieran, bere ondoan ematen nituen jolas-orduak, baina berak nirekin jolasteko esaten zien beti beste umeei, aurpegia ateratzen zuen nire alde eta entzun egiten ninduen. Gainera, bazekienez ez nituela opari asko izango, nire lehen argazki-kamera oparitu zidan

lehen jaunartzea egin nuenean. Askok maite ninduen eta izugarri eskertzen diot egindako guztia. Markatu nauen pertsona bat da, zugarri arrastoa uzten duten horietako bat.

Zeren eta ikaskideen artean denetarik zegoen. Baziren irekiagoak ziren umeak eta nirekin harremana zutenak neska hau beltza zergatik ote den galdetu gabe. Batzuei bost axola zitzaien, baina beste batzuei ez. Nik uste dut horrek zerikusi handia duela etxean jasotzen dugun heziketarekin.

Gauza horiek gaizki sentiarazten ninduten, ez baituzu ulertzen norbera integratzeko ahalegina egiten ari den bitartean haiek zurekin jolastu nahi ez izatea eta zu errefusatzea.

Auzoan baziren hiru neskato, ikastolara joaten zirenak, hasieratik onartu nindutenak eta nire lagunik onenak izan direnak harrezkero. Ez zuten galderarik egiten eta nirekin jolasten ziren ongi erortzen nintzaielako. Haien etxeetara joaten nintzen... bueno, haietako birenera. Bestearen etxera bere aita ez zegoenean baino ezin bainintzen joan, hark ez zuen-eta nahi ni joatea.

Nik ez nuen ulertzen, nik ez niolako ezer txarrik egin, eta arraroa iruditzen zitzaidan ni ez agurtzea eta nire lagunari portalean itxaron behar izatea aita etxean zuenean. Baina tira, buelta gehiegi ere ez nion ematen, umetxo bat bainintzen.

Baina nabaritzen zen, bai, errefus eta diskriminazio hori beste kolore batekoa izateagatik. Eta hori kasu honetan hizkuntzarekin arazorik ez zegoela: nik ulertzen nien eta haiek arazorik gabe ulertzen zidaten. Eragin handia du, baita ere, garai hartan hemen oso immigrante gutxi egoteak eta jendearen mentalitatea askoz itxiagoa izateak.

Nire izebak, heldua zenez, nik baino gehiago nabaritzen zuen dokumentazio-eta osasun-kontuak zirela eta, eta ni, ordea, ez nintzen ohartu ere egiten gauza horietaz. Nik ez nuen planteatu ere egiten zergatik joan behar genuen Medicus Mundira gaixotzen nintzenean mediku arrunt batengana joan beharrean mundu guztia bezala. Normaltzat jotzen nituen gauza horiek guztiak.

Nik uste dut orduan afrikar gehiago balego hemen, edo immigrante gehiago oro har, eta haiekin elkartu izan banintz garrantzi handiagoa eman izango niela gai horiei guztiei eta kontzienteagoak izango ginela. Denon premia bat izango litzatekeenez, ziur nago askoz gehiago hitz egingo genukeela gaiari buruz.

Nik zortea izan dut eta ez didate inoiz kalean gelditu eta dokumentazioa eskatu. Ni beti bertakoekin ibiltzen nintzen eta horrek behar bada eragina izan zuen, baina garai hartan oso ohikoa zen kalean beltz bat ikusiz gero dokumentazioa eskatzea. Eta ez bazuen, deportatu egiten zuten.

Nirekin etorri zen izebari gertatu zitzaion. Kalean gelditu zuten, etxera etortzen utzi zioten gauzaren bat edo beste hartzera, eta abegi-etxe batera eraman zuten. Hiru astez egon zen han eta, zorionez, ez zuten deportatu. Baina gero gure herritar baten etxean bizi izan zen denboraldi batez, beldur baitzen nire beste izebaren etxea, gu bizi ginena, zelatatzen ibiliko ote ziren.

Hori zergatik gertatu zen galdetu nion izebari eta esan zidan zurien kontuak zirela. Orduan, izan ere, asko hitz egiten zen zuriez eta beltzez, eta beltzak ez gintuzten hemen nahi. Nik orduan hamar bat urte izango nituen eta ez nuen ezer ulertzen. Haiek zuriak dira eta gu beltzak gara eta kito. Zein da arazoa?

Baina orduan, ordea, arrazismo asko zegoen, izugarri.

Irakasle batzuegan ere antzematen zen. Denetarik zegoen, baina zenbaitek ezin zuten ulertu ni ikasle bat gehiago nintzela, besteak adina ahalegintzen nintzela eta besteek bezalaxe ikasten nuela. Batzuetan «¡Jolín la negra!» eta gisakoak eskapatzen zitzaizkien zerbait egitea kostatzen bazitzaidan. Baina beste ikasle bati kostatuz gero, inoiz ez zuten «¡Jolín la blanca!» esaten. Edo zerbait galdetzen nuen eta entzun izango ez balute bezala egiten zuten.

Horrek guztiak asko tristatzen ninduen eta batzuetan besteak baino gutxiago nintzela sentitzen nuen. Pentsatzen nuen agian arrazoi zutela eta agian gutxiago espero behar nuela nire buruaz, zeren eta eskolan gauzak oso ongi egiten banituen ere, beti egongo zen beste ume bat nire aurretik zuria izate hutsagatik. Nire auzoko lagunekin ematen nituen uneak kenduta, beti zegoen begiraturen bat, hitzen bat edo keinuren bat pentsarazten nindutena betiko kontuarekin geundela, *la negra*-ren kontu horrekin. Auzoko lagunekin ezberdina zen, hasieratik onartu baininduten erabat eta guztiz integratuta sentitzen nintzen haiekin.

Baina, gainera, horrez gain etxe barruan ere banuen nik arazo hori, nire izeba hemengo batekin ezkondua baitzegoen eta gizon hark maite zuen pertsona beltz bakarra bere emaztea baitzen. Esaten zuen ez zituela hainbeste beltz nahi etxean eta edozein egunetan bidali egingo gintuela. Hasieran izebak defendatu egiten gintuen, baina senarrak burua jan zion azkenerako eta senarrari arrazoia ematen amaitu zuen. Tamalgarria benetan. Neskameen pare geunden: aparte jaten genuen, haiena jaso behar izaten genuen siesta egiten zuten bitartean eta haurtzain-lanak egiten nituen haien bi alabak zaintzen, senar-emazteak lasai egon zitezen.

Egia esan, Ane izeneko auzoko lagun baten gurasoek gehiago hartzen ninduten alabatzen nire familiak baino.

Lagunak ere banituenez, indartsu egiten zara eta ez dituzu gauzak modu berean hartzen.

DBH egitera institutura igaro nintzen, sistema berria ezarri zuten lehenengo urtean, hain zuzen. Oso ongi moldatu nintzen; helduagoa zarenez, gogorragoa zara eta ez nien hainbeste garrantzi ematen gauzei, ez zidaten berdin eragiten. Zailduta nengoen, nolabait.

Lagunak ere banituenez, indartsu egiten zara eta ez dituzu gauzak modu berean hartzen. Ikaskideak baino ez nituen ikusten, ez nien erreparatzen zuriak, beltzak edo latindarrak ziren. Batzuekin hobeto moldatzen nintzen eta beste batzuekin okerrago, batzuek agurtu egiten ninduten eta beste batzuek ez. Baina, tira.

Irakasleen artean ere denetik zegoen, baina hasieratik gehiago ziren integrazioaren aldekoak. Gainera, beste ikasle beltzen bat edo beste bazegoenez, eta latindarren bat ere bai, normalago-edo ikusten zuten. Mentalitatea aldatuz ari zen pixkanaka.

Kalean gero eta immigrante gehiago ikusten ziren, baina esan behar da, baita ere, lanik txarrenak guretzat zirela beti. Ia emakume guztiek zahar-etxeetan edo

etxeak garbitzen lan egiten zuten, hemengoek nahi ez zituzten lanetan, baina gutxienez jendea hasi zen ohartzen existitzen ginela.

Hori Medicus Mundiko ilaretan ere ikusten zen, gero eta luzeagoak baitziren.

Institutuan oso nota onak ateratzen nituen beti oso aplikatua eta ikasle ona izan bainaiz. Esaten zidaten, hori bai, isiltzen ikasi behar nuela, ez bainintzen ni isildu zalea eta erantzun egiten bainuen, eta gaur egun ere halakoxea izaten jarraitzen dut. Hainbeste gaitzespen bizi izan behar dudanez eta besteek nahi zuten guztia esatea aguantatu behar izan dudanez, ni orain ez naiz isiltzen. Uste dut eskubide berbera dudala gauzak esateko eta nire iritzia emateko.

Ez zaizkit ahazten, beste gauza askoren artean, eskolako boleibol-taldean apuntatu nahi izate hutsagatik jasan behar izan nituen tratu txarrak. Zuzendariak besterik gabe ni ezin nintzela apuntatu esan zidan, ni beste bat gehiago nintzela ulertzen ez zuen haietako bat baitzen, eta, gainera, taldeko entrenatzailea zen. Eta hori ezin zen zalantzan jarri: hark ezetz zioen eta ezetz zen.

Institutuan, ordea, lortu nuen taldean sartzea, baina utzi egin behar izan nuen, ez nindutela onartzen sentitzen bainuen. Betiko begiratuak sumatzen nituen aldagelan, ez zidaten baloia pasatzen eta aulkian ematen nuen partidu osoa. Adibide bat baino ez da, baina mina ematen dizuten gauzak dira, ez baituzu ulertzen zergatik gertatu behar zaizun horrelakorik.

Eta beste alde batetik, sentitzen duzu familiak ere ez zaituela guztiz onartzen. Nik askotan entzun behar izan dut «la negra esta que se cree blanca». Eta dena, oso txikitari etorri nintzenez, nire izeba baino gehiago integratu naizelako. Nire lagunak denak zuriak zirelako eta, nahiz eta gero eta immigrante gehiago egon, ni ez nintzelako haiekin gehiegi egoten. Nik ez bainuen ghetto batean egon nahi.

Jairen bat zegoenean, lehenengo jaunartzeren bat edo horrelako zerbait, denak immigranteak izaten ziren, eta nik pentsatzen nuen nire lagunekin egoteko eguna zapuzten ari zitzaizkidala. Eta hori guztia ia ezagutzen ez nuen eta interesatzen ez zitzaizkidan gauzez hitz egiten zuen jendeaz inguratuta egoteko. Arrazismoa gora eta arrazismoa behera, edota zuri hauei zenbat gauza aguantatu behar dizkiegun esanez kexaka egun osoan. Eta, gainera, burua berotzen zidaten, nire lagun zuriak beltza naizelako edozein egunetan nirekin egoteari utziko ziotela errepikatzen baitzidaten.

Edo Gineako istorioak gogoratzen zituzten, nik entzun ere egin ez nituenak. Ni guztiz beste giro batekoa nintzen.

Nik nahi nuena zen nire auzoko lagunekin gelditu. Lehendabizi plazan geratzen ginen jolasteko eta goxokiak jateko, eta gehienetan nik nire lehengusinekin

Sentitzen duzu familiak ere ez zaituela guztiz onartzen. Askotan entzun behar izan dut «la negra esta que se cree blanca».

egon behar izaten nuen. Kontu handiz neurtu behar nituen hitzak, gero nire izebari kontatzen baitzioten dena. Zinemara ere joaten ginen haiekin.

Gero pixka bat zabaltzen hasi ginen eta Deustura edo San Ignaziora joaten ginen, nire lagunen ikastolako batzuk bizi baitziren han. Haraino joatea txango bat egitearen parekoa zen.

Boleibolean jokatzeko nuenean, partidua non genuen, hara etortzen ziren nire lagunak ere eta, han geundela aprobetxatuz, eguna bertan pasatzen genuen. Nire lagunen aitaren batek eramaten gintuen, nire izeba-osabak ez baitziren inoiz joaten ni jokatzeko ikustera. Egia esan, etxean jokatzeko genuenean ere ez ziren joaten.

Pixka bat handitu ginenean, Alde Zaharrera joaten hasi ginen eta orduan nire lehengusinak eraman behar izateari utzi nion. Nire izebak onartu zuen, gutxienez, hazten ari nintzela eta nire lagunekin bakarrik egoten utzi behar zidala, behintzat larunbatetan bakarrik.

Etxera itzultzeko, nik beti nire lagunen ordutegia betetzen nuen, zeren eta nire izebak ez zidan gehiegi kontrolatzen. Ez zidan galdetzen zer egin nuen ez non ibili nintzen. Pentsatzen dut ni bere alaba ez izateak eta ni hazi ez izanak zerikusia izango zuela interes falta horrekin. Ikasketetan nola nenbilen ere ez zitzaion inoiz inporta izan, baina bai, ordea, bere alaben ikasketak zertan ziren. Beti bezala, nire lagunen gurusoak kezkatzen ziren gehiago gauza horietaz. Eta nire beste izeba ere bai, eta hark deitzen zion bezala, *amari* kasu egiteko ere esaten zidan, ez zedin haserretu. Hark ekarri baikintuen hona eta eskerrak eman behar baikenizkion eta emakumea pozik eduki familian arazorik izan ez zedin. Amorragarria.

Diskoteketara joaten hasi ginenean, arropaz aldatu eta makillatu egiten ginen lagun baten portalean. Baina hori, nik ez ezik, nire lagunek ere egiten zuten, beren etxeetan ikus ez zitzaten zer piurarekin ateratzen ginen.

Gona motza janzen genuen, makillatu egiten ginen eta poltsa gorde egiten genuen. Leku bat baino gehiago genituen poltsa uzteko. Itzulera, makillajea kentzen genuen, arropaz aldatzen ginen eta etxera.

Mutilen kontua ere gai gatazkatsuetako bat izaten zen. Izebari mutilen bat gustatzen zitzaidala esaten banion, han hasten zitzaidan esanez ezin zitzaidala mutil zuri bat gustatu zeren eta begira nola tratatzen gaituzten zuriak. Bitxia da hori esatea hain zuzen zuri batekin ezkondu dagoen pertsona batek; baina horrela zen, ez zen zalantzan jartzen.

Beraz, hortik aurrera ezkutuan egin behar nituen gauzak. Auzokoak izanez gero, nire izebaren aurrean nola jokatu azaltzen nien. Irribarrerik ez, emakumea ohartzeko ere!

Azkenerako, beste auzo bateko norbait bilatzea iruditu zitzaidan errazena, oso zaila izango baitzen nire izebarekin topo egitea.

Behintzat, adin jakin batetik aurrera, hamazortzi bat urterekin-edo, jada ez nuen berriz entzun behar izan norbaitek ez zuela nirekin egon nahi beltza nintzelako. Aurretik gertatu zitzaidan noizbait, baina gero gertatzen zena zen, mundu guztiari gertatzen zaion bezala, zuri gustatzen zaizun pertsonarentzat zu ez zarela gustukoa. Zaila hori da, biak bat etortzea.

Gineara joan nintzen lehenengo aldian hamazazpi bat urte izango nituen jada. Nire ama biologikoa eta nire ahizpa Bilbora bizitzera etorri eta gutxira izan zen.

Oso deigarria egin zitzaidan. Banekien ni hangoa nintzela, baina ez nintzen hangoa sentitzen. Egiantan, ni hemengoa sentitzen naiz gehiago, baina denek hangoa naizela esaten didate. Nahaste-borraste galanta. Nire familiakoak ere guztiz ezezagunak ziren niretzat.

Eta haiek ere ez zaituzte familiako beste kide bat gehiago bezala ikusten. Haientzat Europara joan den eta txerto guztiak hartuta datorren hori zara, txankletak kendu ere egin gabe dabilena gaixotu ez dadin.

Ez nuen lortu gustura egotea, dena oso arraroa zitzaidalako. Otorduak, bertako bero itogarria, jendea, heziketa... dena.

Uda batean baino egon ez nintzenez, ohitzen hasi nintzenerako jada itzultzeko ordua zen. Eta hona itzuli nintzenean ere hilabete batzuk tokiz kanpo bezala eman nituen. Nire sustraletara itzultzen eta nire kulturaren integrazioa hasia nintzen, eta berriz txipa aldatu behar izan nuen.

Gogorra da, ez baitzara inon onartua sentitzen. Ziur asko zerikusia izan zuen ni urte asko igaro eta gero itzuli izanak. Lehenago itzuli banintz, agian nire familiaren parte sentituko nintzateke eta nire sustraiekin identifikatuago, ez baita aski telefonoz hitz egitea (ahal genuenean egiten genuena), irudi bat behar duzu.

Han zeuden nire bi anaia txikiak ere, ezagutu ere egiten ez nituenak. Ez genuen inongo harremanik, eta ni haientzat arrotza nintzen. Esan daiteke konpromisozko harremana zela, maitasun-falta sumatzen zenuen. Eta beste hainbeste gainerako ahaideekin.

Denborarekin, haietako askok emigratu egin dute baita ere. Espainiara edo Europako beste herrialde batzuetara.

Etortzen diren batzuen asmoa hemen urte batzuetan lana egitea da, dirua aurrezte eta gero Gineara itzultzea. Edo, gazteak badira, hemen ikastea maila jakin batera arte eta hara itzultzea ikasketak eginak dituztela.

Ez da nire kasua, inondik ere. Nik ez dut aukera hori planteatu ere egiten inolaz ere. Niretzat, Gineara itzultzea atzerapauso bat ematea izango zen, ez zen aurrerapen bat izango inondik inora. Herrialdeak hobera egin duela esan arren, hezkuntza ez da hemengoa bezalakoa eta osasun-arloa ongi dago baldin eta dirua baduzu bakarrik. Bestela, ospitale atarian hiltzen zara.

Ez du hainbeste aurrera egin izango jendeak oraindik emigratu egin behar badu, dirua bidaltzen jarraitu behar badugu eta jendeak hiltzen jarraitzen badu injekzio batekin sendatu litezkeen gaixotasunen ondorioz.

Banekien ni hangoa nintzela, baina ez nintzen hangoa sentitzen. Egiantan, ni hemengoa sentitzen naiz gehiago, baina denek hangoa naizela esaten didate. Nahaste-borraste galanta.

Nire amak eta ahizpak itzultzeko asmoa dute, baina niri iruditzen zait han jaio izana ez dela aski Gineara bizitzera joan nahi izateko.

Beste behin ere joan nintzen 21 urte nituenean. Eta konpromisoz izan zen batez ere, nire ama izugarri tematu zelako itzuli behar genuela. Egia esan nik ez nuen gogo handirik, lehenengo aldian itxaropen handiak nituelako eta gero esperientzia ez zelako ona izan. Benetan etsigarria izan zen.

Nire etxean inori ez zitzaionez axola ikasketen gaia, dena nik neuk egin behar izan dut.

Institutua amaitu nuenean, erabaki nuen Administrazioako goi-mailako gradu bat egitea akademia batean. Ekonomiarekin ongi moldatzen nintzen besteak beste, institutuan irakasle jator-jator bat izan bainuen eta gauzak

oso ongi esplikatzen baitzituen. Nire tutorea ere bazen, eta zer ikas nezakeen aholkatzen zidan. Eta Ekonomia egiteko prest ikusten ninduela esaten zidan, eta ea zer unibertsitatetara joan behar nuen galdetzen zidan.

Berarekin konfiantza nuenez, unibertsitatara joaterik ez nuela izango aitortu nion, ez nuelako nahikoa diru. Zeuden beken berri eman zidan, baina nik banekien beka eta guzti ere ezin izango nuela. Azkenean, zikloak eta akademiak begiratzen lagundu zidan non ikas nezakeen ikusteko. Nola ez, nire lagunengurako ere lagundu zidaten izapideak egiten eta non matrikulatu behar nuen erabakitzen.

Nire etxean inori ez zitzaionez axola ikasketen gaia, dena nik neuk egin behar izan dut. Nota onak ateraz gero, pertsona ona izanez gero eta iskanbiletan ez sartuz gero, haien zat nahikoa zen.

Gutxi gorabehera hamazazpi urtera arte, izebak ordaintzen zizkidan ikasketak nire beka estaltzen ez zuen zatia osatzeko. Baina adin horretatik aurrera, zenbait lan bilatzen hasi nintzen ikasketak nik neuk ordaindu ahal izateko. Bekarekin iristen ez zenez, irabazten nuen diruarekin liburuak edo dena delako materialak erosten nituen. Eta zerbait sobratzen bazen, arropa edo beste zerbait erosten nuen.

Eta dirutxo bat beti gorde behar izaten zela ere gogorarazten zidaten familiari Gineara bidaltzeko, eta horrek ez zidan grazia handirik egiten.

Nire lanak, batez ere, udan haurrak zaintzea izaten ziren, asteburuetan nahiago bainuen nire lagunekin egon. Udan oporretara joaten zirenez eta ni Bilbon

Nire aukerek uzten zidaten punturaino ikasiko nuela onartu nuen.

geratzen nintzen nire lehengusinekin, lana bilatzen nuen dirua irabazteko eta lehengusinekin egon behar ez izateko. Nik udak beti Bilbon igarotzen nituen, non eta ez zen familiakoren bat bisitan etortzen Madril edo Valentziara, orduan aprobetxatzen bainuen haiek ikustera joateko.

Lokutorio batean ere lan egin nuen denboraldi batean. Orduan lokutorio asko zeuden, baina han irabazten nuenarekin ere ez zitzaidan iristen unibertsitate ordaintzeko, nahiz eta publikoa izan. Eta izebak ere ez zidanez lagundu nahi, utzi egin behar izan nuen.

Pena izugarria eman zidan. Banekien gai nintzela eta erronka hori jarria nion neure buruari, baina baliabide faltaren ondorioz etsia hartu eta nire erroka lortzeari uko egin behar izan nion.

Nire lagunak gurasoek laguntzen ahal zidaten, umea nintzenean bezala, zapatilak eta beste hainbat gauza oparitzen baitzizkidaten, baina unibertsitatea ordaintzea erantzukizun handiegia iruditzen zitzaidan, mesede handiegia. Nire aukerak uzten zidaten punturaino ikasiko nuela onartu nuen.

Akademian, ikasten nuena izugarri gustatzen zitzaidanez, oso nota onak ateratzen nituen eta bi urtean amaitu nuen dena, lehenengoan.

Bukatutakoan, praktika batzuk egin nituen klinika batean eta gero han kontratatu ninduten sei hilabeterako. Oso gustura egon nintzen.

Kontratua amaitu zitzaidanean, Administrazio eta Finantzetako kurtso bat egin nuen eta beste praktika batzuk lortu nituen informatika-enpresa batean. Eta han ere kontratatu egin ninduten praktikak bukatutakoan, oraingoan urte baterako.

Bi lanetan primeran moldatu nintzen. Ez nuen inoiz arazorik izan ez kritikarik jaso beltza izateagatik. Ez lankideekin ez nagusiekin. Oso esperientzia ona izan zen.

Ez nuen inoiz arazorik izan ez kritikarik jaso beltza izateagatik. Ez lankideekin ez nagusiekin.

Lan horiek amaitu ondoren, ero-haizeak jo eta Bartzelonara joan nintzen. Oso gustuko nuen hiria eta lagun bat nuen han, Ginean ezagutu nuena.

Garai hartan, lokutorioan lan egiten nuen boladaka, eta horregatik joaten nintzen Bartzelonara asteburuak pasatzera. Baina azkenean Bartzelonan gelditzea erabaki nuen, probatzeko.

Nire laguna espainiar batekin ezkondu zegoen eta alaba bat zuten. Haien etxean bizi nintzen, eta alaba zaintzen nuen. Etxeko lanak egiten ere laguntzen nion lagunari. Lan bila nenbilen, baina ez zitzaidan ezer ateratzen. Propaganda banatzen baino ez aldian behin, eta oso gutxi irabazten nuen. Katalana ez nekenez, aukera handirik ere ez nuen nire arloan lana aurkitzeko.

la ezin nion batere dirurik eman nire lagunari, baina berak esaten zidan ez zela beharrezkoa ezer ematea ni bere alaba hezten ari nintzelako eta hori berarentzat munduko gauzarik garrantzitsuena zelako.

Bitxia da, baina nire laguna gehiago kezkatzen zen nitaz nire izeba inoiz kezkatu izan zena baino. Ateratzen banintzen, deitu egiten zidan ea non eta norekin nenbilen galdetzeko, eta etxera iristeko modurik onena zein zen azaltzen zidan. Azkenean jostailu-denda batean aurkitu nuen lana Eguberrietako kanpainarako. Nik gogo handiz lan egiten nuen, mozorrotu egiten nintzen eta umeekin jolasten nintzen. Pentsa, nire nagusiari iradokizunak ere egiten nizkion, ni beti oso ausarta izan bainaiz horretarako. Eta nagusia poz-pozik. Kontua da egun gutxi batzuetarako baino ez zela eta ezin zidatela kontratua luzatu.

Eskatu nion ni gomendatzeko iparraldeko zonako dendarako, baina horretarako deitu zienean, esan zioten han ez zutela neska beltz kontratatuko. Kolpe gogorra izan zen, urteak baitziren ez nituela horrelako gauzak entzuten eta Bartzelonako nagusia ere oso harrিতuta geratu zen.

Guztira urtebete inguru eman nuen Bartzelonan, baina ezeroso nengoen, iruditzen baitzitzaidan ez nintzela ari nahikoa laguntzen nire lagunari, eta horregatik Bilbora itzultzea erabaki nuen. Baina benetan ez zidan grazia handirik egin, ni oso zoriontsua bainintzen han.

Garai hartan 23 bat urte izango nituen, nire amak ordurako bere etxea zeukan Bilbon eta ni berarekin jarri nintzen. Baina ez nintzen luze egon han, itzuli eta gutxira lana aurkitu bainuen, eta independizatzeko aprobeixatu nuen.

Urte bat egon nintzen nire amaren bizilagun baten tatuaje-dendan lanean, eta lan hura amaitzean nire bikotekidearekin joan nintzen bizitzera. Senegalgoa da eta Bilbon ezagutu nuen.

Sestaora joan ginen, eta gaur egun ere han jarraitzen dugu bizitzen. Besteak beste, nire amarengandik urrun egoteko joan ginen hara. Berarentzat iristea erraza ez zen toki batera, egun osoan etxean ez edukitzeko. Izan ere, nik lasaitasuna nahi nuen.

Gero bolada bat eman nuen obretako garbiketa-lanetan, orduan obra asko baitzeuden, eta sukaldaritza-ikastaro bat ere egin nuen Gurutze Gorrian. Jatetxe batean praktikak egiten aritu naiz orain gutxi arte.

Gustuko dut sukaldaritza, baina ordutegia du txarra. Badakizu noiz sartzen zaren baina inoiz ez, ordea, noiz aterako zaren. Eta hori, nik bezala alabatxo bat edukita, arazo larria da. Nire bikotekideak laguntzen zidan, baina alabarekin asko egotea ohituta nengoenez, faltan botatzen nuen.

Orain curriculumak uzten ari naiz, ateratzen den edozer gauzatarako. Ahal dela, ordutegi finkoagoa duen zerbait, hobeto planifikatu ahal izateko.

Ni ez nago nire bikotekidearekin ezkondua eta hori da Gineako egoerarekin dagoen beste ezberdintasun bat. Han oraindik konpromiso ezkondu, dotea eman eta kontu horiek guztiak egiten dira. Nire amak oraindik galdetzen dit nire mutil-lagunak noiz eman behar didan dotea. Eta nik erantzuten diot ez gaur, ez bihar, ez inoiz. Ni ez naiz egongo norbaitekin konpromisoz. 500 €-ko dote bat eman dizu, banandu egin nahi duzu eta berarena zara dirua itzultzen diozun arte. Ni ez naiz inorena.

Ez dut ezkontzeko inongo beharrik. Soinekoarengatik bada, edozein egunetan jantz dezaket. Eta elizarena, berriz, uste dut hainbeste aldiz joan naizela nire izebarekin txikitari, kupoia bete dudala.

Jainkoa leku guztietan baldin badago, berdin-berdin entzungo nau etxean, parkean edo nonahi. Nik zalantzan jartzen ditut Eliza Katolikoak dituen planteamendu asko, esate baterako, homosexualitatearena.

Gainera, Afrikan Eliza dotearen kontu horren alde dago. Emakumeak ez badu itzultzen eta etxetik joaten bada, senarrak seme-alaben gaineko eskubide guztiak ditu. Eta ni ezin naiz horrekin ados egon, nire alaba nirea da.

Nire erlijioa da zeure buruarentzat nahi ez duzuna besteentzat nahi ez izatea eta bizitzea eta bizitzen uztea. Edonola ere, nik gauero eta goizero egiten dut otoitz osasuna izan dezagun, nire alaba ongi egon dadin eta ezer txarrik pasa ez dakigun.

Nik ez dut nahi nire alaba saltsa hauetan guztietan sartu. Ez natzaio erlijiorik erakusten ari. Izango du denbora zer erlijiotakoa izan nahi nuen erabakitzeke. Ez dut bataiatu,

eta hori dela eta, nire izebaren errietak aguantatu behar izaten ditut, bai eta nire amonarenak ere berarekin hitz egiten dudanean. Alaba bataiatzeko esaten didate, bestela deabruak eramango duela.

Nire inguru hurbilean denetarik daukat erlijio-kontuetan. Nire izeba oso fededuna da, nire ama katolikoa da baina ez oso praktikantea eta nire ahizpa atea da. Pentsa, nire izebari iseka ere egiten dio esanez ea noiz ezkondu behar duen apaizarekin. Nik esaten dion errespeta dezala eta bakean utz dezala bere gauzeekin, ez diolako inori kalte egiten.

Nire erlijioa da zeure buruarentzat nahi ez duzuna besteentzat nahi ez izatea eta bizitzea eta bizitzen uztea. Edonola ere, nik gauero eta goizero egiten dut otoitz osasuna izan dezagun, nire alaba ongi egon dadin eta ezer txarrik pasa ez dakigun.

Nire ahizpa eta ni oso bestelakoak gara jendearekin harremanak izateko orduan. Oso zaila da nire ahizpa neska zuri batekin ikustea. Kontua da nire ahizpa Ginean hazi zela eta hamabi edo hamahiru urterekin etorri zela hona. Bazekartzan zenbait aurreiritzi eta gauza buruan, eta hori dela-eta gehiago kostatu zaio integratzea eta hemengo jendearekin harremana izatea.

Nire ahizpa eta ni oso bestelakoak gara jendearekin harremanak izateko orduan. Oso zaila da nire ahizpa neska zuri batekin ikustea. Kontua da nire ahizpa Ginean hazi zela.

Nire alabak lau urte ditu eta ikastolara joaten da jada. Batzuetan nire ahizpa ere nirekin etortzen da alaba jasotzera eta han hasten zait esaten nolatan egon behar dugun berriz ere ama zuriekin eta ea zergatik ez diodan esaten alabari beste ume batzuekin jolasteko. Baina nik ez diot esango alabari nik esandako umeeekin jolasteko, eta bere lagunik onenak halabeharrez hemengoak dira. Zer egingo dut ba nik?

Eta orduan esaten dit neskatoa ni bezalakoa aterako dela, zuriekin bakarrik elkartzen naizela. Guztiz aspergarria, ikuspuntu ezberdinak ditugu eta ez dago modurik elkar ulertzeko.

Nire amarekin beste hainbeste gertatzen da. Hona iritsi zenean eta nire lagunak ikusi zituenean, berarentzat kolpea izan zen. Nire alaba beltza eta haren lagun guztiak zuriak. Hainbeste integratu da... badirudi orain jada ez duela beltza izan nahi.

Inoiz ez du nirekin hitz egin nahi izan nire bilakaera azaltzeko eta hona iritsi nintzenean izandako zailtasunak azaltzeko. Nolako izan zen prozesu hura guztia. Berarentzat inporta duen gauza bakarra da zuriak baino ere zuriagoa naizelako kontu hori, eta ez duzu hortik aterako. Eta hori nire ahizpari ere transmititzen dio. Nire ahizparen adineko Gineako neskaren bat etortzen bada, nire amak ahal duen guztia egiten du elkar ezagutu dezaten eta lagunak egin daitezten. Afrikarrekin egon behar duela esaten dio, haien munduarekin eta haien sinesmenekin bat eginez. Ni galdutzat jotzen nau eta ez dit esan ere egiten, nire lagun zuriekin egoten naizelako eta badakielako ez naizela aldatuko.

Hala ere, ulertzen dut nire ahizpak amarekin duen harremana eta nik amarekin dudana ezberdina izatea. Nik ama errespetatzen dut eta kariñoa diot nire ama delako, baina ez da hazi nauen pertsona eta ez naiz berekin bizi izan, eta hori nabaritu egiten da. Nik izeba dut amatzat, berak bete baitu rol hori. Biak batera telefonoz deitzen badidate, izebari hartzen diot.

Nire etxeok ere ez dira gai ulertzeko hona 4 urterekin iritsi nintzenetik pasatu behar izan dudan guztia.

Azken finean, gauza horiekin guztiekin baztertua eta ez ulertua sentitzen nintzen. Bazirudien, nolabait, ahalegin bikoitza egin behar nuela etxean integratzeko eta etxetik kanpo ere integratzeko.

Nire etxeok ere ez dira gai ulertzeko hona lau urterekin iritsi nintzenetik pasatu behar izan dudan guztia. Ez dute batere zerikusirik nik bizi izan nuen prozesuak eta Ginean hazi ondoren orain datozenek bizi izandakoak, horiek familiako kide pila bat edo herrikide pila bat baitituzte hemen.

Umeein erlazionatzeko moduan eta heziketan ere alde handiak daude. Afrikan normalena umeak beste ume batzuekin jolastea da. Ez dute ulertzen nik alabarekin denbora ematea jolasten edo hartu-emanen. Amak esaten dit, baina nire alaba da eta niri normalena iruditzen zait. Nik eduki ez dudana nahi dut berarentzat. Bere kontuak kontatzea nahi dut eta berari buruz dena jakin nahi dut. Berak aukeratutako umeein jolastea nahi dut, ez soilik beste afrikar batzuekin nik esan diodalako.

Baina, tira, aspertu ere egiten da bat denbora guztian azalpenak ematen saiatzeaz. Azkenean, inporta zaidan bakarra nire alaba zoriontsua izatea da. Bera poz-pozik joaten da eskolara; berarengatik balitz, egunero joango litzateke. Eta nik oso harreman ona daukat beste umeen amekin.

Alabaren klasean atzerriko beste ume batzuk ere badaude, baina hori orain askoz ere normalizatuagoa dago, ez da ni etorri nintzenean bezala. Oro har, asko egin du aurrera emigrazioarekin lotutako guztiak Espainian.

Nire alabak euskaraz ikasten du dena, hori zelako eskolan zegoena. Baina niri ongi iruditzen zait, ni Euskal Herrian bizi naizelako eta normalena euskara ikastea iruditzen zaidalako. Gainera, etorkizunean baliagarria izango zaion zerbait da besteen maila berean egoteko eta inor baino gutxiago ez sentitzeko. Nik A ereduari ikasi nuen eta euskara ikasgai gisa neukan, baina laguntzen saiatzen naiz eta nik dakidan apurra euskaraz egiten ere bai.

Hori da nire ahizpak eta amak ulertzen ez duten beste gauzetako bat. Esaten didate ea nora joan behar duen euskararekin, horrek ez duela ezertarako balio. Mentalitate eta interes ezberdinekin lotutako arazo bat da. Haiek makillaje-kontuez jarduten dute, erosten duten arropaz eta Afrikako beren kontuez, eta nik nahiago dut beste amekin gure seme-alaben heziketaz hitz egin edo beste mota batzuetako gaiez. Etsia hartu dut alde horretatik.

Euskara etorkizunean baliagarria izango zaion zerbait da besteen maila berean egoteko eta inor baino gutxiago ez sentitzeko.

Nire bikotekidea helduagoa zenean iritsi zen hona eta kamerundarra sentitzen da; lotura handia du bere herrialdearekin. Batzuetan esaten dit hark ere saiatu behar dugula neskatoa beste ume afrikar batzuekin gehiago jolastu dadin. Niri ongi iruditzen zait, mundu guztiarekin jolastea nahi baitut, baina ez dut egoera behartuko batzuekin edo besteekin egon dadin. Jolastu dadila nahi duenarekin.

Kontua da nik badakidala beste ama afrikar batzuk nola ari diren beren seme-alabak hezten eta ez dut nahi nire alabari ideia jakin batzuk buruan sartzea. Ez da neskatoa nahasi behar hauek onak direla eta beste haiek txarrak direla esanez. Berak bakarrik ohartu behar du horretaz, eta guri bera aholkatzea eta gidatzea dagokigu.

Nire alabak nik egin izan ezin nuena egiteko aukera izatea nahi dut. Ikas dezala bere gaitasunak uzten dion arte. Biharko egunean unibertsitatera joan nahi badu, joateko aukera izan dezala eta nahi duen karrera egin dezala.

Euskara ongi ikastea nahi dut erabilgarri izan dakion handitzen denean hemen bizitzen jarraitzen badu. Beste hizkuntza batzuk ikastea ere nahi dut, kanpora joatea erabakiz gero. Bere aita frankofonoa da eta beti esaten diot alabari frantsesez hitz egiteko, eta ikastolan ingelesa ikasten ere hasia da. Prestakuntza ona izatea nahi dut eta bere etorkizuna aukeratu ahal izatea.

Esan diogu zein den bere jatorria. Badaki bere aitaren familia Kamerungoa dela eta nirea Gineakoa dela. Bere aitak gure alabak Kamerun ezagutzea nahi du, eta niri egunen batean esaten badit Ginea ezagutu nahi duela, oso ongi iruditzen zait. Baina ez badit esaten, baita ere. Niri hori ez zait inporta. Bera hemen jaio da eta orain hau ezagutu behar du, hori dagokio.

Mundu guztiarekin jolastea nahi baitut, baina ez dut egoera behartuko batzuekin edo besteekin egon dadin. Jolastu dadila nahi duenarekin.

Denbora guztia dauka aurretik bere bizitza nola orientatu behar duen erabakitzeko, eta ni ez naiz beti hor egongo ibilbide horretan bera babesteko eta lagun egiteko.



Paul dut izena...

...eta Ekuadorren jaio nintzen, duela hamazortzi urte. Nire gurasoak ere ekuadortarrak dira. Lehendabizi ama etorri zen. Madrilera joan zen, haren bi ahizpa han bizi zirelako orduan. Handik urtebetera etorri zen aita, eta urtebete geroago, gainerako guztiok, hiru senideok. Ni erdikoa naiz, eta lau urte nituen etorri ginenean. Nire arrebak hogeita lau urte ditu, eta anaiak, hamasei. Garai hartan Ekuador egoera ekonomiko okerragoan zegoelako etorri ziren gurasoak, pentsatu zutelako hobe zutela seme-alabei zerbait hobea ematen saiatu, han geratu beharrean. Eta, nire ustez, asmatu zuten.

Ni bi urtez egon nintzen Madrilen, eta ikastetxeko gimnasioa da gogoan dudan gauza bakarra. Nik uste dut kirolzale porrokatua naizelako dela, baina gurasoek diotenez, haiek noiz jasoko zain han egoten nintzelako da.

Duela urte batzuk, Madrilen bizi gineneko bideo bat aurkitu zuten gurasoek, eta oso bitxia eta dibertigarria izan zen ikustea zeinen desberdinak ginen, ez bainintzen ezertaz gogoratzen.

Gerora, osaba batek esan zigun gauzak apur bat hobeto zeudela hemen, eta Hernanira etorri ginen bizitzera. Harrezkero ez gara hemendik mugitu.

Nik monjetan ikasi nuen, bertakoekin zein atzerritarrekin, mundu guztiko jendearekin, eta garai hartako oroitzapen onak ditut, oso giro ona baitzegoen.

Esan beharra dut, ordea, udalekuetan apur bat baztertuta sentitu nintzela lehen urteetan, haur guztiak bertakoak zirelako eta ni nintzelako arraro bakarra. Ez nuen udalekuetara joateko gogo handirik izaten, baina ez nuen beste erremediorik, gurasoak lanean zebiltzalako.

Monjetan ikasi nuen, bertakoekin zein atzerritarrekin, mundu guztiko jendearekin, eta garai hartako oroitzapen onak ditut.

DBHn hasi nintzenean, hamaika edo hamabi urterekin, udalekuak kirola egitekoak ziren, eta, haietan, bai, ongi ibiltzen nintzen, aipatu dudana bezala, kirolzale amorratua naizelako, futbolzale amorratua, batez ere.

Udalekuak amaitu ondoren, Madrilera joaten ginen astebete edo bi igarotzera, eta handik itzultitakoan, gurasoek oporrak zituztenean, hondartzara joaten ginen. Gaztetxo egiten ari nintzela, gero eta gutxiago joaten ginen Madrilera, eta gero eta denbora gehiago nuen lagunekin geratzeko eta Donostiara, hondartzara edo parrandara joateko.

Ikastetxean, ikaskide berberak izan nituen Lehen Hezkuntza amaitu bitartean, eta primeran joan zen guztia. Denetarik zegoen, Latinoamerikako jendea zein Europakoa.

Oraindik badut harremana lehen ikastalde hartako bi lagunekin, nork bere bidea hartu eta gure betebeharrak ditugun arren. Bat Urnietan ari da ikasten, nirekin batera, eta elkarri galdetzen dizkiogu zalantzak, WhatsApp bidez edo postaz. Bestearekin noizean behin egoten naiz, Hernanin elkar ikusten dugunean.

Lehen ikasle-urte haietatik gehien gogoratzen dudana 3. mailara arte gurekin egon zen irakaslea da. Gure haurtzaroko irakaslea izan zen, onerako eta txarrerako. Hark jarri zizkigun ikasteko oinarriak; asko akuilatzen gintuen. Izan ere, ez zait inoiz asko gustatu ikastea, eta esango nuke ez dudala oso gustuko orain ere, etorkizunean helbururen bat lortzeko baliagarri izan daitekeela uste badut ere.

Hark irakatsi zigun ikasi beharra dagoela, hori dela balio duena.

Platero eta biok da gehien gogoratzen dudana. Zenbat aldiz errepikatu beharra izan ote genuen!

Oso ona zen gurekin, eta asko irakasten zigun, baina, auskalo zergatik, niri egiten zidan errietan beti. Izkina batean zigortuta egoten nintzen ia denbora guztian.

DBH amaitu genuenean, irakasle guztiengana joan ginen agur esatera, eta LHko ikasgeletako batean zegoen bera. Sartzen ikusi ninduenean, txantxetan, galdetu zidan ea berriro izkinara nindoan, eta nik ezetz erantzun nion, ez nuela izkinara itzultzeko asmorik, eta banindoala handik.

Onartu beharra daukat txikitik nahiko bihurria nintzela; ez dut nire burua zuritu nahi. Gehienetan, txantxetan hasi, kontrola galdu, eta saltsa ederretan sartzen nintzen. Uste dut, ordea, eskoletan jolasean ibiltzen nintzelako eta kasurik egiten ez niolako zigortzen ninduela.

Guztietan handiena futbolekin jokatzeko ari ginen batean egindakoa da. Gogoan dut, asko markatu ninduelako. Batek daki zergatik, borrokan ari ginela, mutiko bati bultza egin nion, eta buruan zauri bat egin zuen paretaren kontra jota. Urte guztia egon nintzen ikastetxeko atezaindegian zigortuta; urte guztia hantxe eserita, jolasgaraian eta bazkalostean.

Batetik, uste dut zigor gogorregia izan zela, baina, bestetik, ez zen gaizki egon, barrutik ikusi nuelako nolakoak ziren irakasleak. Atezaindegiko monjen oso lagun egin nitzen, gainera. Gogoan dut urte hura, asko aldatu nintzelako.

Txikitan, gurasoek ere asko zigortzen ninduten. Hiru senideotatik nirekin haserretzen ziren gehien. Eta beti gogorarazten diet.

Aita zen zigorren kontu haren arduradun nagusia. Gure modura eta zakar esanda, berak izorratzen gintuen gehien. Amak ere egiten zigun errietan, baina ezikusiarena ere egiten zuen zenbaitetan. Aita zen gogorrena.

Dena den, esan dut bihurri samarra nintzela, eta onartu beharra dut lagungarri izan zitzaidala pertsona heldua izaten ikasteko. Denborarekin, bai haiek bai nik, guztiok egin dugu hobera, haiek guraso moduan eta nik seme moduan. Eta, orain, oso ongi moldatzen gara elkarrekin.

Denborarekin, bai haiek bai nik, guztiok egin dugu hobera, haiek guraso moduan eta nik seme moduan. Eta, orain, oso ongi moldatzen gara elkarrekin.

Aita nekazaritzan hasi lanean, Urnietan, baina zerbaiten laguntzaile ikastaro bat egin zuen, ez dakit ongi zer, eta erakunde batean hasi zen lanean, Hernanin bertan, gaixotasun mentalak dituzten gazteei laguntzen. Gauez lan egiten du, eta badira jada hamaika urte horretan diharduela.

Amak Donostian egin du lan beti, etxe bat garbitzen, eta orain, baita aseguru bulegoan ere. Garbiketari dihardu, baina baita antolakuntzan ere.

Txikitan, orain baino hobeto konpontzen nintzen arrebarekin. Sei urte zaharragoa da ni baino; anaia, berriz, bi gazteagoa. Beti borrokan ibiltzen ginen anaia eta biok, baina niri egiten zidaten errietan beti.

Hirurok joaten ginen ikastetxe berera. Ondo gogoan ditut anaiarekin jolasean ematen nituen orduak, izan Play Stationarekin edo beste jostailuren batekin jolasean emandakoak, eta, batez ere, Hernaniko kaleetan futboleko jokatzeko ematen genituenak.

Arrebak ez zuen DBH amaitu. Funtsean, ni bezalako zen, baina motz geratzen nintzen haren ondoan. Ez zuen gustuko ikastea. Garai hartan, latindar asko zeuden Espainian, eta giroak ere ez zuen asko laguntzen ikasteko gogoia izan zezan. Haren lagun askok ikasten jarraitu zuten, eta karreraren bat ere egin dute, baina beste askok ez dute ikasketarik. Arreba beti damutu izan da ikasketak utzi eta pertsona horiei jarraitu izanaz.

Garai hartan, hamasei edo hamazazpi urte zituela, etxetik ihes egin zuen mutil-lagun batekin, eta Murtzian bizi izan zen urtebete.

Gurasoen begietara errebelde hutsa zenez eta ez zuenez ezer egiten, errietan egiten zioten eta zigortu egiten zuten. Arrebak uste zuen ez ziotela laguntzen,

eta ez zutela atsegin berak egiten zuen ezer. Eta arrebak etxetik ihes egin zuenean lehertu zen guztia.

Etxetik joan zen, eta ez genuen ezer jakin hari buruz astebetean. Ez non zegoen, ez beste ezer. Gurasoak asko kezkatu ziren. Pentsa, osaba-izeba batzuk etorri ziren laguntzera, ama oso gaizki zegoelako.

Astebetera deitu zuen, eta ez zen urtebetean etxera itzuli. Ez daukat arrastorik ere garai hartan gertatutakoaz, eta ez dakit zergatik itzuli zen ere, ez baitiot galdetu ere egin.

Ezzuen ikastera itzuli nahi izan, eta amarekin lanean hasi zen. Gerora, ostalaritza-titulu bat atera zuen, sukaldeko laguntzaile titulua. Duela zazpi urte kubatar mutil bat ezagutu zuen, eta gurekin bizi dira biak azken lauzpabost urteetan. Hark bazuen titulua Kuban, baina, gero, zerbitzari titulua atera zuen hemen.

Opor-sasoi osoan egiten dute lan Mallorcan, maiatzetik irailera bitartean, nire koinatuaren amak lan finkoa duelako hotel batean, eta hark *entxufatu* zituelako. Lan asko egiten dute, eta eskakizun handikoa. Egun guztia aritzen dira topera lanean, ia atsedunik hartu gabe. Diru dezente irabazten dute, eta lasai asko etortzen badira ere, justu samar ibiltzen dira zenbaitetan.

Ez doakie gaizki, baina, noizean behin, arrebak esaten du pena ematen diola ikasketak utzi izanak.

Anaia ikasle ona zen txikitan, baina okerrera egin zuen DBHra iritsi zenean. Orain, 4. mailan dabil, eta buruhauste asko eragiten dizkie gurasoei. Egian esan behar badut, duela pare bat urte eskatu nien ez ni tartean sartzeko, hari laguntzen saiatu banintzen ere, ez zidalako jaramonik egiten. Ez die jaramonik egiten arrebari eta amari ere.

Aitak ez dio presio handirik egiten, notak baitira hark kontuan hartzen duena.

Bere garaian, nahi zuena egin zezala esan nion, jabetuko zela egindakoez bere garaia iristean, bere ekintzen gaineko ardura hartu behar zuelako, eta kito. Etxean entzuten dudanagatik, hobeto dabil azken aldian.

Niri ere egiten zidaten presioa, baina ez anaiari bezainbeste, esango nuke. Bere gainean daudela uste dut, eta haurtxo bat balitz bezala tratatzen dutela. Zer egin behar duen esaten diote, edo, azkenean, beraiek egiten dute haren ordeaz. Ez dut uste hala izan beharko lukeenik. Ni jabetu banintzen, berak ere ikusiko du, azkenean, gauzak nola egin behar diren. Ez da ni baino gutxiago.

Ikusten dudanagatik, berak ez du aurrera egin nahi. Amak eta arrebak bultza egiten diote, baina berak ez du ezer egin nahi. Noizbait ikusiko du zer gerta dakioken ezer egiten ez badu.

Etxean bertan dauzka adibide argi askoak: arrebarena, ikasi ez izanaz damutzen baita, eta nirea, ikasten jarraitzen baitut. Kasurik egiten ez badu, ez da nire errua. Hobetzen ari dela dio, baina ez dakit nahikoa izango den ikasturtea gainditzeko. Laster ikusiko dugu, hilabete eskas falta baitzaio.

Ni ere izan nintzen axolagabea bere garaian, DBH 1en nobilela. Urte hartan, batez ere lehen hiruhilekoan, eskolara iritsi eta bazterrak nahasten hasten nintzen ondokoarekin batera, mahaiak bi ikaslekoak zirelako. Ondotxo gogoan dut. Paso egiten nuen, ez ikasi ez beste ezer. Azterketetan, izena jarri eta denbora noiz amaituko zain geratzen nintzen.

Hamaika irakasgaitik 9 suspenditu nituen, ezinezkoa badirudi ere. Gimnasia eta besteren bat gaindituko nituen. Bigarren hiruhilekoan apur bat gehiago saiatu nintzen, eta bakarren bat gainditu nuen, irakasleak eta gurasoak nirekin tematu zirelako. Hirugarrenean askoz gogotsuago jardun nintzen, eta, azkenean, lau baino ez nituen utzi gainditu gabe. Aparteko deialdira joan eta bi bakarrik suspenditu nituen. Hurrengo mailara pasatu nintekeen arren, irakasleek zuzenean esan zidaten ezetz, ez nuelako kolperik jo urte osoan. Ezin nuen sinetsi, eta erabat kezkatuta negoen, gurasoek beti esan izan didatelako ikasi egin behar dela. Gurasoek, gertatutakoaren berri eman nienean, zerbaitegatik izango zela esan zidaten. Nik uste, nerabegaroko aldaketek eragindako menderakaiztasunaren ondorio izan zen. Garai hartan, gainera, Donostian ibiltzen hasi nintzen, gurasoen lagun batzuen semearekin. Donostiako jende asko ezagutzen eta asko irteten hasi nintzen, bai arratsaldez bai gauez. Eta horrek asko lagundu zidan ikasten zer egin daitekeen eta zer ez. Jende haren eragin txarragatik eta nire jarreragatik egon nintzen urte hartan ezer egin gabe.

Nik uste, nerabegaroko aldaketek eragindako menderakaiztasunaren ondorio izan zen.

Amarara joaten ginen futboleko jokatzera, batez ere latindarrek osatutako talde batekin. Oso ongi sentitzen nintzen perutarren eta argentinarren artean, integratuta sentitzen bainintzen. Futboleko jokatu ondoren, eskaileraren batzuetan esertzen ginen, txantxak egiteko eta musika entzuteko. Beti gustatu izan zaigu bozgorailuan burrunba topera jartzea. Gero, Donostia osoan batera eta bestera ibiltzen hasi ginen, latindarren dantzalekuetara joaten eta kalean zurrutean ibiltzen. Txikitan, ikastetxean, mundu guztiarekin ondo moldatzen nintzen, baina ez nuen lagun kutunik. Batzuekin badut harremana, baina ia ez dut gainerakoen berririk. Nork bere bidea hartu dugu, eta sare sozialen bidez baino ez dut haien berri. Alabaina, beti konpondu izan naiz hobeto latinoamerikarrek, bai ikastetxean bai Donostiako lagun taldean.

Alabaina, beti konpondu izan naiz hobeto latinoamerikarrek, bai ikastetxean bai Donostiako lagun taldean.

Azkenean, DBHko lehen maila errepikatu beharrak lagundu egin zidan, ikastalde berriko giroa oso ona baitzen. Ikasle finak eta oso dibertigarriak ziren nire ikaskide berriak. Oso ongi konpontzen ginen, eta elkarri laguntzen genion. Orduan jabetu nintzen ikastearen garrantziaz. Hasieran bazirudien irakasleek uste zutela ez nuela ezer egingo, ez zutela ezer espero nigandik, eta horrek

asko amorratzen ninduen. Ez zitzaidan bidezkoa iruditzen beraiek nitaz hori pentsatzea ikasturtea errepikatzen ari nintzelako.

Baina, bai giroagatik bai nigatik, aldatzen hasi nintzen, eta hori emaitzetan islatu zen. Irakasleek aldaketa hura aitortu ziguten, niri eta gurasoei, eta horrek eroasoago sentiarazi ninduen, eta nire buruaz harro. Nire ustez, dena hobetu zer une horretatik aurrera.

Anaia bi urterekin etorri zenez, bertakoa dirudi. Eta asko antzematen da, bertako jendearekin ibiltzen baita gehien, mundu guztiarekin ondo konpontzen den arren.

Aldaketa horretan zerikusia izan zuen gaztelaniaz ikasten hasteak ere, ordura arte euskaraz ikasi bainuen. Oso ongi ulertzen dut euskara, baina kostatu egiten

zait euskaraz hitz egitea eta idaztea. Oso gogorra zen niretzat, hona etorri eta euskara ikastea zaila bazen, are zailagoa zelako irakasgaiak euskaraz izatea.

Aldatzea erabaki nuen, eta irakasleei esan nien. Asko poztuko nindukeela esan nien, gaztelania delako nire ama-hizkuntza eta eroasoago sentituko nintzatekeelako euskaraz ikasten baino. Egin beharreko izapideak egin ondoren, azkenean, taldez aldatu nintzen.

Nire arrebak ez daki euskaraz hitz bakar batzuk besterik, ikasketak utzi baitzituen. Anaiak bai. Bi urterekin etorri zenez, bertakoa dirudi. Eta asko antzematen da, bertako jendearekin ibiltzen baita gehien, mundu guztiarekin ondo konpontzen den arren.

Nik arkitekto izan nahi nuen hasieran. Baina gero eta zailago ikusten nuen aukera hori DBHn aurrera egin ahala; izan ere, ezagutzen dut nire burua, badakit ikastea ez dudala gustuko, eta karrera hori egiteko, ezinbestekoa da asko ikastea eta kemen handia izatea. Banekien zerbait gaziki joan orduko utzi nahiko nukeela. Eta ez nuen nahi urtebete eta gurasoen dirua zaborrontzira bota, ez baitute sobera. Haiek beti esan izan didate nire erabakiarekin lagunduko didatela, erabaki koherentea bada behintzat.

Gainera, bitxia badirudi ere, DBHko 3. mailara arte ez nuen jakin unibertsitatara joateko ezinbestekoa dela batxilergoko bi mailak gainditzea. Hori jakin orduko kendu nuen burutik ideia hura. Ez nuen nahi ezertarako behar ez ditudan irakasgaiak ikasten bi urtez egon.

Eta horregatik erabaki nuen beste zerbait egitea, jakin-mina piztuko zidan zerbait, benetan egin nahiko nukeena.

Txikitatik asko gustatu izan zait marraztea. Horregatik, irakasleak galdetu zidanean, marrazten ona nintzela erantzun nion, eta hark bideratu ninduen diseinu grafikoko prestakuntza ziklo bat egin nezan. Zenbait ikastetxetako liburuxkak erakutsi zizkidan, eta batenak deitu zidan atentzioa, Hernanin bertan dagoelako, ikasten nuen leku berean. Egun haietan, gainera, ateak irekita zituzten hara joan nahi zuten guztientzat, eta liluratuta geratu nintzen ikusi nuenarekin. Artea bizi-bizi ikusten da han. Leku modernoa da, eta baliabide tekniko oso onak ditu.

Bi urtez ikasi dut han, eta, orain, praktikak egiten ari naiz. Hilabete falta zait amaitu eta titulua eskuratzeko.

Bi urte horiek oso onak izan dira niretzat, eta ikaskideak ere oso onak izan dira. Ikaskide gehienak bertakoak ziren eta euskara itxia egiten zuten. Guztiek estilo bera zuten, eta ni nintzen desberdin bakarra.

Harritu egin nintzen haiekin ongi konpontzen nintzelako, ia denbora guztian euskaraz hitz egiten baitzuten. Nire buruarekin eroso sentitzen nintzela esan nahi dut, eta horrek harritu ninduela. Lehen asteetan oso arraro sentitzen nintzen, baina, denborak aurrera egin ahala, elkar ezagutu eta bat egin genuenean, denak hobera egin zuen.

Pentsa, bi afari ere antolatu genituen. Afariak, ordea, sagardotegi-girokoak izan ziren, eta niri ez zait gustatzen plan hori. Ez dut sagardorik edaten, eta zarata eta ke asko izaten dela uste dut. Ez da nire giroa. Lehenengora joan nintzen, itsuskeriarik ez egitearren, baina ez nuen ongi pasatu. Bigarrenera ez nintzen joan. Nahiago dut jatetxe normal batera joan, lehen eta bigarren platera aukeran duzun horietako batera.

Gelan baziren beste bi lagun oso lehiakorrak, eta niri beti gustatu izan zait asko lehia. Gainera, lehiakortasuna handia denez sektore horretan, are gehiago saiatu nintzen emaitza onak lortzen, gauzak ongi egiten eta gainerakoak gainditzen.

Azkenerrako, gehienek aurrera egiten bazuten ere, gu hirurok ginen egurra ematen zutenak; nabarmendu egiten ginen haien guztien artean.

Izan ere, ikusi egin nuen zerk betetzen ninduen. Hori zenez nik egin nahi nuena, ilusioz bete nintzen, eta halaxe jarraitzen dut oraindik ere.

Izan ere, ikusi egin nuen zerk betetzen ninduen. Hori zenez nik egin nahi nuena, ilusioz bete nintzen, eta halaxe jarraitzen dut oraindik ere.

Ilustrazio bektoriala eta horma-irudien diseinua da gehien gustatzen zaidana. Publizitatearen munduan lan egin nahiko nuke, eta neure agentzia sortu, oso zaila dela jakin arren. Orain, ikus-entzunezkoen goi mailako zikloa egiteko izena eman dut, eta, halako banu, unibertsitatera joango nintzateke etorkizunean, Marketina eta Publizitatea ikastera.

Ni behin bakarrik egon naiz Ekuadorren. Uda batean joan ginen, aita, anaia eta hirurok. Bitxia izan zen, hemengo bizimoduarekin eta erosotasunekin ohituta bainago. Baina dibertigarria izan zen, eta primeran pasatu nuen.

Ekuadorretik, nire herrialdetik, gehien gustatu zitzaidana da ez dela hau bezain zorrotza arauak betetzearen kontu horretan. Esate baterako, behin amona eta izebak bisitatzen geundela, lehengusuak agertu ziren. Mordoa dira. Galdetu zidaten ea futboleko jokatu nahi nuen haiekin, eta kaleak moztu zituzten enborrekin eta pneumatikoekin, patxadan jokatzeko. Autoan zebiltzanek klaxona jo ziguten hasieran, baina gero beste bide bat hartzen hasi ziren. Hemen halakorik egingo bagenu, autotik jaitsiko lirateke, eta polizia deituko lioketela esango ligukete.

Behin gertatu zitzaigun halako zerbait. Musika entzuten geunden Amaran, eta gizon batek garrasi egin zigun goitik. Ez genion jaramonik egin, eta handik gutxira poliziarekin etorri zen. Badakigu musika ozen jartzea ez dagoela ongi, baina ezta belarrian burrunbaka jarri izan bagenio ere, leihotik zetorkion murmurio bat entzungo zuen, asko jota.

Izan ere, hemengoak petral samarrak dira, eta ez dute ezer jasaten. Argi dago arauak errespetatu egin behar direla, baina, batzuetan, edozer inozokeriagatik jartzen dizute isun bat.

Horixe ari da gertatzen Donostiako portuan: isuna jartzen dizute uretara salto egiteagatik, inoiz egin izan ez balitz bezala. Nik hamahiru urte nituenetik egiten dut salto. Beti egoten zen jende mordoa, eta ez ginen itsasontzia zetozen unean salto egiteko bezain inozoak.

Uste dut mutiko bat tetraplegiko geratu zela handik salto eginda, eta horregatik dagoela kontrol zorrotzagoa.

Behin, latindarren talde bat geunden Boulevardean, eta *txapelgorriak* hurbildu zitzaizkigun, bi ertzain, dokumentazioa eskatzera. Gehienok eskura genituen nortasun agiria eta bizileku-baimena, baina bazen bat ez zituena, eta beraiekin joan behar zuela esan zioten. Amari deitu zion, zenbakia esan ziezaion, eta ertzainek egiaztatu zuten erregistroan zegoela. Uste dut ez dagoela inongo premiarik gu ernegatzera etortzeko, latindar talde bat ikusteagatik bakarrik.

Esanak esan, ni ez nintzateke Ekuadorrera bizitzera joango. Ohituegia nago hemengo bizimodura eta erosotasunetara.

Oso ongi ibili nintzen han, eta mila bider joango nintzateke oporretan, jana, lagunak klima eta beste hamaika gauza bikain daudelako, baina ez dut nire burua han bizitzen ikusten.

Ekuadortarra naiz hezurretaraino, eta inork ez du lortuko hori aldatzea. Hala ere, ekuadortarra naiz hezurretaraino, eta inork ez du lortuko hori aldatzea. Hemen edo beste edozein tokitan bizi naiteke bizi osoan, baina beti izango naiz ekuadortarra. Han jaioa naiz, eta hangoa da nire odola. Hemen hazi izanak ez du esan nahi hemengoa izan behar dudarik.

Ekuadorren *españolito* esaten zidaten txantxetan, eta horrek apur bat gogaitzen ninduen. Baina berdin dit zer esaten didaten: hangoa sentitzen naiz, eta kito. Eta hemen galdetzen badidate ere, gauza bera esaten dut.

Gurasoak gustura daude Hernanin, baina beti esaten dute gauzak okertzen hasi orduko joango lirakekeela Ekuadorrera. Orain, egoera politikoa eta ekonomikoa hobetzen ari da Ekuadorren, baina egoera ez da suziariak botatzeko modukoa oraindik.

Hemen baino okerrago egongo nintzatekeelakoan nago, gurasoek ez baitute ezer Ekuadorren. Lagunen batzuek lana emango liekete, baina ezer gehiago ez.

Ez etxerik, ez aurrezkirik, ez beste ezer. Ez dut zalantzarik, han ere ongi biziko lirateke, baina hutsetik hasi beharko lukete berriro.

Horri buruz hitz egiten dugun bakoitzean esaten diet ni hemen geldituko nintzatekeela, bakarrik bada ere. Ez da nigandik irteten hara joatea, ez bainintzateke gustura sentituko.

Arreba gurasoen iritzi berekoa da, eta pozarren joango litzateke. Bizitza osoa du aurretik. Koinatuarekin dago, eta primeran moldatzen dira elkarrekin. Eta primeran konpontzen da Ekuadorreko lehengusu guztiekin ere. Berak ez luke inongo arazorik izango.

Alabaina, nire eta nire anaiaren egoera desberdina da. Nik hemen ditut lagunak, eta, hemen ikasi dudanez, askoz aukera gehiago ditut.

Ni hemen geldituko nintzateke, bakarrik bada ere. Ez da nigandik irteten hara joatea, ez bainintzateke gustura sentituko.

Ez zait politika asko interesatzen. Interesatzen zaidan bakarra, zakar esanda, kakaztuta ez egotea da. Berdin zaizkit politika eta agintari guztiak. Baina ez dut nahi gu guztiok gaizki egotea. Batzuek gobernatzen badute, ez dezagula guztiok ordaindu beharrik izan.

Batzuetan, eztabaidan aritzen naiz aitarekin kontu horiei buruz, bere pentsaera Ekuadorrekoa edo latinoamerikakoa delako nolabait. Han, politikariek lapurretan egiten dutenean edo gezurretan aritzen direnean, herria matxinatu egiten da, eta hil egiten ditu. Eta politikariek atzerrira ihes egin beharra izaten dute, hil ez ditzaten. Nire aitaren pentsaera ez da hain muturrekoa, baina uste du norabide horretan urratsen bat eman beharko genukeela hemen.

Nik uste dut tarteko zerbait beharko genukeela. Ez genuke politikaririk hil behar, baina ez genieke utzi behar nahi dutena egiten. Izan ere, legeek horretarako aukera ematen diete. Epaileen aurrera eramaten badituzte ere, ezin dira zigortu, abokatu onak dituztelako eta probarik ez dagoela diotelako. Hemengo legeek hori diote.

Nire aita astun hutsa da, eta politikari buruzko telebistako programak ikusten ari da beti. Zergatik ikusten dituen galdetzen diot, azkenerako haserretu egiten dela ikusten baitut.

Esanak esan, ordea, futbola da eztabaidagai nagusia gurean. Aita futbolaria izan zen Ekuadorren. Ez zen lehen mailara iritsi, baina futbolean jokatu zuen. Haren grina hori dut nik ere, eta biok gara Bartzelonazaleak.

Ez dugu erlijioaz eztabaidatzen, baina nire gurasoak, bi-biak, katolikoak dira. Ama gehiago aita baino. Ez da elizkoi porrokatua, baina gehiago bizi du. Otoitz egiten du, kandelaren bat jartzen du eta abar. Aitak noizean behin egiten du. Hiru anai-arrebok bataiatuta gaude, eta jaunartzea eta sendotza ere egin genituen. Nik Jainkoagan sinesten dut, baina ez itsu-itsuan. Jainkoa badela uste dut, hala ez balitz hemen egongo ez ginatkeelako. Baina nire buruari galdetzen diot, existitzen bada, zergatik ez duen laguntzen zenbait gauza gerta ez daitezen.

Badakit erlijioak dioela Jainkoak ezin duela eragin gizakiarengan eta nahi duena egin dezakeela hark, baina hori uste dut nik. Ez dut sinisten. Mundua sortzeko gai izan bazara, gai izan behar duzu hura hobetzeko ere. Ezin duzu utzi mundua hiltzen, eta, hain zuzen, horixe ari da gertatzen, hiltzen ari gara.

Sinestuna naiz neurri batean, baina, batez ere, errealista.

Seme-alabarik izango banu,
gurasoek nirekin egindakoa
egingo nuke nik haiekin.
Jarraibide batzuk jarri dizkidate,
baina nire esku jarri dute
jarraibide horiek betetzea edo ez.

Eta, gainera, hor dago zientzia ere. Ezin da sineskeriarik izan zientziak frogatutakoari buruz. Sinestun porrokatua izan arren, ezin diozu ezetz esan zientziak argitutakoari. Frogatzen ari zaizulako.

Seme-alabarik izango banu, gurasoek nirekin egindakoa egingo nuke nik haiekin. Jarraibide batzuk jarri dizkidate, baina nire esku jarri dute jarraibide horiek betetzea edo ez. Bere garaian nahi izan zuten

nik erlijioak dioenari jarraitzea, baina inoiz ez didate esan sinestun amorratua izan behar dudarik.

Ikastetxeak enpresak bilatzen ditu, Diseinu Grafikoko 2. maila amaitzean praktikak egin ditzagun. Nik, gehiengoak ez bezala, ez nuela nahi webguneak diseinatzen jardun esan nien, ez baitzait lan hori batere gustatzen. Gauza asko buruz ikasi behar dira horretan, eta nik gorroto dut hori. Esan beharra dut, gainera, ez naizela oso ona horretan.

Niretzat aurkitu zuten enpresak ez dihardu diseinuan zehatz-mehatz; grabatuak egiten ditu egurrean, metalean, beiran eta plastikoan.

Oso gustura nago han, diseinu asko egiten ez duten arren. Enpresa hazten ari da, eta bere lekua egiten. Gutxi gara, baina oso ongi konpontzen gara elkarrekin. Gainera, bada Hernanin bizi den neska bat, lanera kotxez eramaten nauena.

Astebete baino ez zait falta praktikak amaitzeko, baina nagusiak esan zigan baduela asmoa gu han gera gaitezen. Horregatik, praktikak amaitzeak pena ematen didan arren, poztu ere egiten naiz, kobratzen hasiko nintzatekeelako.

Esanak esan, ez dut itxaropen handiegirik izan nahi, hitzak haizeak eramaten baititu. Nahiko nuke han geratu, baina, badaezpada, curriculumak uzten ari naiz beste leku batzuetan ere.

Ikasten jarraitu nahiko nukeela ere esan nion nagusiari, eta alde horretatik arazorik ez nuela izango erantzun zidan. Hori horrela izanik, uste dut aukera izango dudala, ikasi eta lan egin, biak aldi berean egiteko. Ikaskide askok diote zaila dela bi gauzak batera egitea eta oso denbora gutxi uzten duela norberarentzat, baina nik uste dut kemena izan behar dela.

Lan egiten hasi nahi dut, neure dirua izan, eta, apurka-apurka, etxetik joan eta nire bizitza egiten hasi. Eta horri buruz ere hitz egin dut ikaskideekin.

Batzuk ados daude nirekin, baina beste batzuk oso eroso sentitzen dira etxean, eta ez zaie burutik pasatu ere egin. Baten gurasoek etxe handi samar bat dute, lursail eta guzti —*etxandi* esaten diogu—. Aitak dirua ematen dio belarra mozteagatik eta zuhaitzak zaintzeagatik, baina berak dio ez zaiola hori gustatzen. Nik gogorarazi egiten diot etxe ondoan egiten duela lan eta ordaindu egiten diotela. Eta kexatu egiten da? Mesedez!

Iritziak iritzi dira, eta eragina du familia bakoitzaren egoera ekonomikoak ere, baina zinez uste dut hobe dela ahalik lasterren etxetik joatea eta nork bere bizitza egitea. Hori bai, norberak nahi duenean joan daiteke etxetik. Esate baterako, lanean bada 38 urteko neska bat oraintsu arte gurasoen etxetik joan ez dena mutil-lagunarekin bizitzera.

Nik esana diet gurasoei. Oso gustura nago beraiekin, eta beti esan izan diet egindako guztia eskertzen diedala eta oso pozik nagoela beraiek gurasotzat izateaz, baina nire bizitza egiten hasi nahi dut. Edo, besterik ez bada, gurasoei apur bat laguntzen.

Izan ere, zenbait eta lehenago ekin nire bizitzari, hobe beraientzat ere, zama bat bainaiz, nolabait. Beraiek ez dute hori uste, baina, bai, zama bat naiz.

Aitak dio nik ikusi behar dudala zer egin, eta espero duela egin beharrekoa egingo dudala eta dena ongi joango zaidala. Amari pena gehixeago ematen dio; badirudi ez duela nahi ni etxetik joaterik.

Lan egiten hasi nahi dut, neure dirua izan, eta, apurka-apurka, etxetik joan eta nire bizitza egiten hasi.

Beste aukera bat da Italiara praktikak egitera joatea. Izan ere, txikitatik gustatu izan zait antzinaroaren historia, eta historiaren eta zibilizazioaren sorlekua da Italia. Gainera, uste dut nahiko erraz ikasiko nukeela italiara, espainieraren oso antzekoa baita. Eta ez ingelesa bezala; ez zait batere gustatzen.

Aurten saiatu izan naiz, baina ez dut zorterik izan, eta hemen geratu beharra izan dut. Goi mailako zikloa egitekoa naizenez, ordea, agian datorren ikasturtean berriro saiatuko naiz.

Beti ligatu izan dut dezente, baina badira bi urte neska-lagunik ez dudala, eta oso pozik nago. Uneotan ez dut bikoterik, ez eta izateko asmorik ere. Ikasten eta lan egiten nabil buru-belarri. Hori horrela izanik, aurrerago burua galtzen ez badut behintzat, ez dut inolako eragozpenik hemendik joateko.

Amesten hasita, neure burua Italian bizitzen imajina dezaket, neure publizitate agentzian lan egiten.



Fátima dut izena...

...Marokon jaio nintzen eta hogeita bat urte ditut.

Gure aita Bartzelonara etorri zen landa-lanetan aritzera, marrubiak eta beste fruitu batzuk biltzera. Aitak bizileku-baimena zuen, eta gure amarekin ezkondata zegoen, baina hark Marokon bizitzen jarraitzen zuen.

Handik denbora batera, familia berrelkartzeko prozesuari ekin zioten, eta ama etorri egin zen, hiru neba-arrebok Marokon utzita. Orduan, hiru urte nituen eta hiruretan nagusia nintzen. Nire nebak urte eta erdi zuen, eta txikienak, hiru hilabete baino ez zituen. Neba eta biok amonaren etxean gelditu ginen, eta gure ahizpa, oso txikia zenez, lehengusina batekin gelditu zen.

Garai hartako oroitzapen bakarra amonak gure ahizpa ikustera eramateko prestatu gintuenekoa da; izan ere, mendian zegoen etxe batean bizi zen gure ahizpa. Hango etxeek ez dute aterik, baina txakurrak dituzte etxeak zaintzeko. Eta gogoan dut txakur batzuek eraso egin zidatela, eta aldapan behera erori nintzela. Ez zidaten kosk egin, baina arropak zikindu nituen lur laranja batez. Eta etxera iritsi nintzenean, amonak ipurdikoa eman zidan zikindu nintzelako. Hori ez zait ahaztu.

Handik sei hilabetera, hona etorri ginen denok. Ez dakit oso ondo zergatik —uste dut gurasoak haserretu egin zirelako edo horrelako zerbaitegatik—, urte erdi Madrilen egon ginen, eta gero, Bartzelonara joan ginen, adiskidetu egin zirelako.

Bartzelonan eskolara joaten hasi nintzenean, aldi batez uko egin nion hitz egiteari. Ez nuen inorekin hitz egiten, eta dibertigarria iruditzen zitzaidan; izan ere, hitzen batek ihes egiten bazidan, nire ikaskideek «hitz egin du» esaten zuten. Eta hori oso ondo zegoen. Uste dut atentziona emateko modu bat zela, baina psikologo batekin tratamenduan ere egon nintzen.

Ziur asko, gaztelaniaz oso gutxi hitz egiten nuelako izan zitekeen, eta han katalanez hitz egiten zuten batez ere. Gaztelania ikasgai bat baino ez zen.

Euskara errespetatzen dut, bai eta galiziera ere, baina katalana da niretzat gustukoena eta kutunena, asko hitz egin baitut.

Katalanez ezin hobeki hitz egitea lortu nuen, baina denborarekin ahaztu egin zait.

Euskara errespetatzen dut, bai eta galiziera ere, baina katalana da niretzat gustukoena eta kutunena, asko hitz egin baitut. Oraindik ere nahiko ondo ulertzen dut entzuten dudanean, baina asko galdu dut.

Gure ama laugarren haurraz, gure ahizpa txikiaz, haurdun gelditu zenean, berarekin joan ohi nintzen ginekologoarengana, interprete-lanak egitera. Zazpi bat urte izango nituen, eta oso ondo moldatzen nintzen gaztelaniaz, katalanez, bai eta arabieraz ere.

Eta hori kontuan hartuta zenbait lekutan oso hizkera teknikoa erabiltzen dutela. Ez dira ohartzen aurrean duten pertsonak gaizki hitz egiten duela, eta ez duela ia ulertzen, eta ez dute hizkera xumeagoa erabiltzeko lanik hartzen. Horixe gertatzen zitzaion amari; ezin izan zuen ikasi, eta analfabetoa zen, eta nik aldi bereko itzulpena egiten saiatu behar nuen.

Gure gelan beste neska marokoar bat baino ez zegoen, eta beste mutiko zuri-zuri bat, errumaniarra uste dut. Gainerako guztiak katalanak ziren: Sergi, Arnau eta abar.

Oraindik gordeta dut garai hartako taldearen argazkia, mutiko bat gustuko bainuen. Amak beti gogoratzen du hori argazkia ikusten duenean, nik etxean kontatzen bainuen.

Bartzelonan, osaba-izebekin —amaren neba bat eta aitaren arreba bat— eta hiru lehengusurekin bizi ginen. Etxean ez geneukan telebistarik, eta asko jolasten ginen. Eta Gabonetan, auzoko batek opariren bat ekarri ohi zigun, *caga tió* edo horrelako zerbaitek bere etxean guretzat utzi zizkiola esanez. Guk ez baikenituen Gabonak ospatzen, jakina.

Eskolako eta Bartzelonako oroitzapen onak ditut, baina etxean egoera bere onetik atera zen gurasoen arteko arazoak zirela eta. Aitaren tratu txarrak zirela-eta, ama banantzeko izapideekin hasi zenean, berriz egokitu zitzaidan interprete-lanak egitea.

Orain, tontakeria bat iruditzen zait, baina gogoan dut nola behin esan zidaten ez dakit zer solairutara igo behar nuela (*planta*, gaztelaniaz), eta ni eraikinean ikusten nituen landare guztiak zenbatzen aritu nintzen. Gero azaldu zidaten zer zen, baina hasieran ez nuen ulertzen.

Azkenean, aita Bartzelonan gelditu zen, eta gu Madrilera joan ginen, nik zazpi urte nituenean.

Orduan kontziente ez nintzen arren, orain ohartzen naiz institutuan *bullyinga* pairatu nuela. Nik oso iletsuak nituen bekainak, eta sudurpean ere ile asko nuen, eta haurrak oso krudelak izan daitezke. Itsusi deitzen zidaten, eta ezizen pila bat jarri zizkidaten.

Behin, mutil talde batek inguratu egin ninduen, eta edozer gauza esan hasi ziren. Ez ninduten jo, baina denetik esan zidaten. Baina gehien mindu ninduen ez ziren irainak izan; irakasleak, etorri zenean, zer gertatu zitzaidan ez galdetu izanak mindu ninduen gehien, bai baitzekien zer gertatu zen. Nahi banuen gelatik irten nintekeela esan zidan, arraroa ni banintz bezala.

Eta horrez gain, kanpotarra izateagatik jasan behar nituen irainak ere bazeuden. «Mora de mierda» eta horrelakoak beti entzun izan ditut.

Eta horrez gain, kanpotarra izateagatik jasan behar nituen irainak ere bazeuden. «Mora de mierda» eta horrelakoak beti entzun izan ditut.

Garai hartan, fisikoari lotutako irainak mintzen ninduten gehien, baina banekien guztiak lotura zuela. Izan ere, kanpotarra nintzelako iraintzen ninduten.

Amari esaten nion behintzat begitarteko ileak kentzen uzteko, baina berak esaten zidan hori ezin zela egin, hori bekatua zela. Baina egun batean sudurpeko ileak kendu nituen lagun batekin ezkutuan. Ama ohartu egin zen, eta negarrez hasi zen; drama bat egin zuen. Nik ere negar egin nuen, eta, tuntuna ni, berriz ez nuela egingo esan nion.

Baina amak nire izebei kontatu zien gertatutakoa, eta orduan, sekulako iskanbila sortu zuten; nire kontra hasi ziren.

Nire familiak beti egin du nire kontra horrelako gauzengatik.

Beti kritikatu izan didate institutuko lagunekin ibili izana, bai eta nire janzkera ere. Minigona eta bota altuak neramatzan egun batean, izeba batek kalean ikusi ninduen, eta amari esan zion bere alaba urdanga kalean zebilela minigona jantzita eta mutil mordo batez inguratuta.

Haiek ni estalita ibiltzea nahi baitzuten. Hain zuzen ere, hamalau urterekin, gorputza biribiltzen hasi zitzaidanean, izeba batek kulunkatu egiten nintzela esaten zidan, eta bi alkandora luze itxi erosi zizkidan azokan, itsusi-itsusiak. Kamiseta bat ere ezin nuen jantzi.

Eta ohartu nintzen amaren familiak nola manipulatu nahi ginduen. Denerako ematen zuten iritzia, eta nahi zutena egiten eta desegiten zuten, erlijioa, kultura eta dena nahasiz. Ez zidaten ezer egiten uzten. Baina azalpen logikorik eman gabe, gogorik ez zutelako baino ez. Oso berandu zelako, edo jendea hitz egiten hasiko zelako, edo nora joan behar nuen ba nik ordu horietan.

Nire ustez, gure familia da izan ditugun arazo askoren erantzule, amak dena kontsultatzen baitzuen haiekin, eta haiek esandako guztiari jaramon egiten baitzion.

Gainera, gure familia eta kultura oso matxistak dira alderdi askotan. Nebarekin ikusi dut hori, ni baino urtebete gazteago denarekin. Edaten, porruak erretzen eta arazoetan sartzen hasi zen. Nik amari kontatu nion, baina ez zidan jaramonik egin, nebak esan baitzion gezurra zela. Eta izeba bati ere kontatu nion. Gazte samarra da bera, eta hamar urte daramatza hemen; hemengo mentalitatea izango zuela pentsatzen nuen, eta babestu egingo ninduela eta gure amak entzun egingo ziola. Baina nik nire burua zaintzeko esan zidan izebak, nire neba beti izango delako gizona, etxetik irtetea nahiz etxera sartzean. Eta hamalau urte baino ez zeuzkan orduan!

Ziur nago nire nebaren arazo gehienek familiagandik jaso duen heziketan eta transmititu dioten kulturaren dutela jatorria.

Berak nahi zuena egin zezakeen, baina nik ezin nuen nire lagunekin —mutilekin eta neskekin— ibili, herriko arabiarrek edo osaba-izebak —gure amak bederatziz neba-arreba ditu— gaizki-esaka eta kritikatzin hasten baitziren.

Ez dakit ondo zergatik, baina DBHn nengoela beloa jantztea bururatu zitzaidan. Irakasleei atentziora eman zien, eta batek esan zidan beloa kalean jantzen ikusi ninduela, eta ez nintzela etxetik hura jantzita irten. Egia esan, uste dut ilea erortzen hasi zitzaidalako egin nuela, eta burua estalita eramatea hobe izango zela pentsatu nuelako. Egun pare bat baino ez zen izan, baina ez nintzen neure buruarekin ongi sentitu. Lotsa sentitu nuen, eta ez nintzen onartua sentitu.

Nik uste dut nire familiak kontuan hartu behar zuela hona bizitzera ekartzen baninduten nik hemengo gauzak hartuko nituela.

Nik uste dut nire familiak kontuan hartu behar zuela hona bizitzera ekartzen baninduten nik hemengo gauzak hartuko nituela. Izan ere, batzuetan tartean sentitzen naiz, ez naiz ez hemengoa ez hangoa. Mundu bakoitzetik onena iruditu zaidana hartu dut, bi kulturetatik onena, erlijio bakoitzetik egokiena. Eta horrela garatu naiz eta ari naiz garatzen pertsona naizen aldetik.

Amari sarritan esaten nion hobe zela Marokon utzi izan banindu. Orduan ez bainintzateke kexatuko; huraxe izango litzateke ezagutuko nuen bizimodu bakarra. Ez nuen hemengoa ezagutuko, eta hura izango zen niretzat normala. Baina dagoeneko ezagutu ditut beste mundu eta kultura bat, eta ezin du saiatu ni mundu honetatik kanpo uzten.

Halaber, uste dut bi kulturek, bi alderdiek, pentsatzen dutela bestea okerra dela. Hemengo jende askori iraingarriak iruditzen zaizkio hango erlijioaren zenbait gauza edo estalita joatearen kontu hori. Baina gure amarentzat hemengo emakumeak nola jantzen diren ikustea izan daiteke iraingarria. Bakoitza balio batzuekin hazi baita, eta denak izan daitezke baliozkoak.

Gure ama biluzik sentitzen da zapirik ez badarama. Baina ez horretara behartzen dutelako, horrela hazi baitelako baizik. Eta nik hori errespetatu egiten dut, gai bainaiz bi alderdietan jartzeko.

Gaur egun, nire kulturako zenbait

gauzei eusten diet, ondo iruditzen zaizkidalako egin baititut neure. Esaterako, ez dut ez erretzen ez edaten; inoiz ez dut alkoholik edan. Eta ramadana ere errespetatzen dut, baina era malgu batean, uste baitut Koranak hala dioela.

Ez naiz praktikantea, baina sinesten dut Jainkoan eta beste gauza askotan.

Eta, hala ere, nire familiak uste du okerreza naizela. Zerbait kulturala dela pentsatzen dut...

Nire kulturako zenbait gauzei eusten diet, ondo iruditzen zaizkidalako egin baititut neure. Eta ramadana ere errespetatzen dut, baina era malgu batean, uste baitut Koranak hala dioela. Ez naiz praktikantea, baina sinesten dut Jainkoan eta beste gauza askotan.

DBH amaitzen ari nintzela, ikasturte-amaierako bidaia bat antolatu zuten Frantziara. Hor ikusi nuen nik argia. Oso pozik nengoen, lehen aldiz irtengo bainintzen etxetik kanpora, kanpoan lo egitera. Lagun baten etxera lotara joaten ere ez zidaten inoiz utzi.

Zozketa bat antolatu zuten, eta nik txartel pila bat saldu nituen. Baina, behin, txartelak saltzen ari nintzela, izebak etxe batera deitzen ikusi ninduen, eta amari deitu zion, Marokon baitzegoen hura; kalean ikusi ninduela esan zion, eta eskean nenbilela zirudiela. Beraz, amak, hasieran joateko baimena eman zidan arren, ezin nintzela joan esan zidan. Irakasleari esan nion, eta hark bere burua eskaini zuen nire izebarekin hitz egiteko, eta azkenean, konbentzitu egin zuen. Hortaz, joan nintzen eta izugarri gozatu nuen esperientzia. Niretzat mundu berri bat izan zen hura; *Bidaiatzea bizitzea da* esaldiaren esanahia ulertu nuen. Gainera, oso lasai itzuli nintzen. Sei egun baino ez ziren izan, baina mundu guztiak esaten zidan oso polita itzuli nintzela. Ez dakit zer izan zen, baina oso ondo sentitu nintzen.

Batxilergoa egiteko, bi beka eman zizkidaten, eta orduan, diru horrekin ordura arte inoiz egin izan ezin nituen gauzak egiteko aukera ikusi nuen. Gauza txikiak; adibidez, film bat ikustera joan, hanburgesa bat afaldu edo arropa erosi. Beti ukatu izan zizkidaten gauzak, baina nire lagunak egin ahal zituztenak. Ahizpa zinemara eramateko ere baliatu nuen dirua, eta hura Burger Kingera edo museo batera eramateko ere bai, ahizpak ere ez baitzuen inoiz horretarako aukerarik izan.

Amak ez zuen ulertu nik dirua horrela gastatu izana, baina, une hartan, boterea eta askatasuna eman zidan diru hura esku artean izateak. Izan ere, hori esateak materialista dirudien arren, gaur egun dirurik gabe ez daukazu ezer. Diruak dena ematen dizu.

Gainera, dirua nirea zen, ez nion inori lapurtu ez antzeko ezer.

Hamazazpi urte nituela, gaizki bukatu nuen ikasturtea, eta nire lagun minarekin haserretu nintzen. Bartzelonara joan nahi nuen, han senideak baitituz. Baina amari esan nionean, erabat haserretu zen, eta beti bezala, izebari kontatu zion; hura ni konbentzitzen saiatu zen ez nedin joan, familia suntsitzen ari omen nintzen. Kanpora irtetearen eta bidaiatzearen kontu hori ea noizkoa den esaten zidan. Aitortu behar dut nik ere ihes egiten nuela noizean behin, oso gutxitan, parrandara joateko. Amari gezurra esan behar izaten nion, bai bainekien afaltzera nindoala esaten banion ez zidala utziko. Baina haiei dena oso gaizki iruditzen zitzaien, ni hutsaren hurrengo banintz bezala eta hori guztia.

Behin osabak amari hitz hauek esan zizkion arte, eta zehatz-mehatz gogoratzen ditut hitzak: «hemendik eramaten ez badituzu, azkenean, akabatu egingo ditut». Bada, hori ekainean izan zen, eta uztailean, Bilbora etorri ginen. Amak ez zigun gure iritzia galdetu, eta ez zigun azalpenik eman. Etxea alokairuan hartuta eta dena eginda zegoenean esan zigun.

Eta, gainera, osaba-izebek dirua utzi zioten gu hona etortzeko, eta ama diru hori itzultzen ari zaie oraindik.

Izan ere, Madrilen amak etxeak garbitzen egiten zuen lan, baina, hemen, hasieran, ez zuen lanik aurkitu.

Gainera, Madrilen herri batean bizi ginen, eta hona iritsi zenean, ama zaborra ateratzera irteteko ere ez zen gai, hainbeste eraikinekin beldurtu egiten baitzen.

Iritsi ginenean, paper guztiak egiten lagundu behar izan nion amari. Amak gaztelaniaz hitz egin gabe jarraitzen zuen, Madrilen ez baitzuen ia inorekin hitz egiten gaztelaniaz.

Eta hori Bilbo txikia dela. Hasieran, alde guztietara joan behar genuen berarekin, ez zuen bakarrik ibili nahi, edozer gertatuko balitzaio ere.

Behin esan zidan kontuan hartu behar nuela lau seme-alaba nituela, nebarreben arduraz gain bere ardura ere hartu behar bainuen. Gerora, joan da ikasten, baina asko kostatu zaio.

Iritsi ginenean, paper guztiak egiten lagundu behar izan nion: familia ugariarenak, medikuarenak, erroldarenak eta horiek guztiak. Amak gaztelaniaz hitz egin gabe jarraitzen zuen, Madrilen ez baitzuen ia inorekin hitz egiten gaztelaniaz.

Hona etortzeak ikuspegia aldatu dio, familia eta bere ingurunea atzean utzi baititu. Zailtasunak zailtasun, bere bizi-maila ere hobetu egin da, eta orain, gauza gehiago egiten ausartzen da.

DSBEa jasotzen duenez, betebeharrak batzuk ere baditu. Helduen Hezkuntzako ikasgelara joaten da, bai eta Cáritasek emakumeentzat antolatutako tailerretara ere, hala nola jostuntzako, lisaketako eta sukaldaritzako tailerretara. Eta, Lanbideren bitartez, hotel bat eta jatetxe bat garbitzen ere aritu izan da. Eta bi lekuetan arazoak izan zituen, ordaindutakoak baino ordu gehiago egin behar izaten baitzuen lan.

Izan ere, nahi dutena egiten dute, gure ama eta hura bezalakoak ez baitira defendatzeko gai, ez eta helegitea jartzeko gai ere, ez dakite nola egin. Ni

laguntzen saiatu nintzen, eta lortu genuen zerbait, baina, nolana ere, zegokiona baino gutxiago.

Dudarik gabe, gure amak nahiago du lan egin, laguntza jaso baino. Laguntza bat jasotzen badu, behar duelako da, hizkuntzaren eta adinaren ondorioz mugak dituelako. Baina bera da eskaintza bat jasotzen duenean baietz esaten duen lehena, kotizatu egin nahi baitu.

Gainera, horixe da inori azalpenik eman beharrik ez izateko modu bakarra. Laguntza bat jasotzen baduzu, azalpen asko eman behar baitituzu, eta zure mugimendu guztiak justifikatu behar baitituzu. Badirudi beti aprobetxatu nahian zabiltzala pentsatzen dutela.

Nik ez dakit nola egiten duten Udalari edo Lanbideri iruzur egiten diotenek, xehetasun txikiena ere kontrolatzen baitute. Faktura, gastuak eta denetik aurkeztu behar duzu. Kanpora joan behar baduzu ere jakinarazi behar diezu. Ama Marokon izan zen duela gutxi, eta aurrez jakinarazi behar izan zien; hamabost egun baino ezin izan zituen egin han, gainera. Baina eskatutako guztia betetzen du berak, dirua behar baitu.

Niri ez zait batere gustatzen laguntzen inguruan dauden iruzurren eta gehiegikerien kontuan orokortzeak. Eta are gutxiago alkate ohi batek egiten badu, pentsatzekoa baita prestakuntza, heziketa eta kultura dituela.

Ezin da horrela hitz egin, gurekiko halako mespretxuarekin. Baina badaki ez duela botorik galduko, eta horregatik egin zuen, gehienok bizileku-baimenarekin gaudelako, eta botoak irabaz ditzakeelako; batez ere, jende nagusiaren artean. Neu naiz gehiegikerien aurka dagoen lehena, eta oso ondo iruditzen zait haiek ikertzea. Baina sutan jartzen nau guztiok berdinean egiten dugula aditzera emateak. Gure amari, behintzat, ez zioten ezer sobera ematen, eta sarritan ez zitzaion gastu guztiak ordaintzeko ere iristen. Eta Cáritasera joan behar izaten zuen laguntza bila edo jatekoa lortu behar izaten zuen ahal zuen lekuan.

Dirua behar genuenez, ni neu ere lanean hasi nintzen Bilbora etorri ginenean. Madril jarraitu izan bagenu, ikasi baino ez nuke egingo, baina, hemen, lanean hasi nintzen iritsi eta handik hilabete gutxira.

Lehendabizi, ACNURen ibili nintzen hiru bat hilabetez, bazkideak erakartzen. Gero, fruta-denda batean eta taberna batean ere jardun nuen lanean. Eta alde guztietan izan ditut arazoak, gehiegikeria asko egiten baitira kontratuekin. Azkenean, dagokizuna baino gehiago lan egin eta gutxiago kobratzen duzu beti. Baina ez dut uste hori kanpotarra naizelako gertatzen denik, orain lanean hasten den orori gertatzen zaiola iruditzen zait. Baldintzak onartu behar dituzu, dirua behar baituzu.

**Dirua behar genuenez,
ni neu ere lanean hasi nintzen
Bilbora etorri ginenean.**

Horrez gain, bi urte daramatzat etxetik kanpo bizitzen, arazo handi bat izan bainuen amarekin. Marokon izan zen, ezkontza batera joan ginen aldi batean. Niri asko gustatzen zait argazkilaritza, eta argazki batzuk egin nituen barruko arropatan. Ez dakit nire familiak nola jakin zuen, baina sekulako iskanbila sortu zuten. Eta nire nebarekin ere izan zen istilua, alkohola edan baitzuen, eta porruak erretzen jarraitzen baitzuen. Kontua da ama ez zela gai izan gu defendatzeko eta ez zuen zer gertatu zen jakiteko ardurarik hartu. Senideek manipulatu egin zuten berriro ere.

Nik uste dut amorrazioa eragiten diela ni hain burujabe izateak eta neure burua inoren laguntzarik gabe mantentzeak. Haiei aurre egiteak. Ez bainaiz ezdeusa, haiek dioten bezala, eta ez nago kalean. Gai bainaiz lan egiteko, ikasteko eta neure burua mantentzeko.

Amaren lehengusina batek, 26 urte baino ez dituen batek, behin esan zidan ezkondu egin behar nuela, eta horrela, denak isilduko zirela eta bakean utziko nindutela. Baina, nire ustez, hori ez da konponbide bat, hori okerrago da. Arazo horiek guztiak atzean uzteko norbaiten esku gelditzea...

Bilbora itzuli nintzenean, pisu bat hartu nuen alokairuan, eta bakarrik bizitzera joan nintzen. Egia da batzuetan etxean familiarekin egotearen falta sumatzen dudala, baina ezin nuen gehiago jasan. Presazkoa izan zen dena, eta 19 urte baino ez nituen. Horretarako gogoia nuen, mundu guztiak baitu aske izateko gogoia, baina etxetik alde egiteko oso modu desatsegina izan zen.

Ikasten jarraitzen saiatu naiz, baina une batzuetan ezinezkoa gertatu zait, lanean ordu asko eman behar izan baititut.

Gainera, orain ezinbestean egin behar dut lan, alokairu bat ordaindu behar baitut eta gastu finko batzuk baititut. Ez naiz beste edozein ikaskide edo lankide bezala; batzuek aldi batez lan egin dezakete, gero bidaia bat egiteko edo beste kapritxoren bat lortzeko.

Nik helduen bizimodua dut, eta ezin dut parrandarik egin, arroparik erosi edo horrelako beste gasturik egin. Eta asko kostatzen zait ikasketekin bateragarri egitea, ez bainaiz denera iristen.

Ikasten jarraitzen saiatu naiz, baina une batzuetan ezinezkoa gertatu zait, lanean ordu asko eman behar izan baititut.

Madriilen, Kazetaritza ikasteko asmoa nuen, baina ez nuen behar besteko nota, eta gainera, garai hartan Bilbora etorri ginen. Hemen, gradu batean matrikulatu nintzen, baina hasi bezain laster eman nuen baja, fruta-dendan ordu piloa egiten bainuen lan, eta ezin nuen. Baina ez nion jabeari ezer esan, are gehiago esplotatuko baininduen orduan. Eta beste batzuei ere ez nien ezer esan, frustratu egiten baininduen ez ikasteak.

Aurtengo ikasturtean, Gizarte Integrazioko ziklo batean matrikulatu naiz. Gustuko dut; izan ere, ni beti egon naiz beste aldean, eta gainera, neure larruan

bizi izan dudanez, pentsatzen nuen enpatikoagoa izango nintzela eta gaitasun handiagoa izango nuela besteen azalean jartzeko.

Teorian, tabernako lanak goizak libre uzten zizkidan ikasteko, baina ixteko orduak oso txarrak ziren, eta oso-oso berandu iristen nintzen etxera. Leher eginda bukatzen nuen. Gainera, ikasketa motagatik bitxia badirudi ere, erabat baztertua sentitu nintzen. Agian, berandu matrikulatu nintzelako eta taldeak dagoeneko eginda zeudelako izango zen, ez dakit, baina oso jende berekoia aurkitu nuen han; arlo horretan lana aurkituko zutela besterik ez zuten buruan. Hortaz, kontu bategatik edo besteagatik, sarritan ez nintzen eskoletara joaten, eta azkenean, utzi egin nuen.

Orain, Selektibitateko deialdira aurkeztu naiz, eta nota ona atera dut, 6,8koa, nahiz eta ikasteko denbora gutxi izan dudana.

Zertan matrikulatu naitekeen jakiteko zain nago orain. Ingeles Ikasketak izan ziren nire lehen aukera, ingelesez ongi hitz egitea asko gustatuko bailitzaidake, erronka da niretzat. Lan Harremanak eta Giza Baliabideak ere asko gustatzen zaizkit. Eta Gizarte Integrazioa ere gustuko dut oraindik, nahiz eta lehen esperientzia txarra izan.

Gauza askok ematen didate atentzioa. Baina kultur kontuengatik. Asko gustatuko litzaidake zenbait gradu egitea, laburragoak izango balira.

Une honetan, ez naiz errealizatuta sentitzen, ez emakume naizen aldetik, ez eta pertsona naizen aldetik ere, ez baitaukat ikasketarik. Izan ere, niretzat, Batxilergoa eta Selektibitatea eginda izatea ez da ezer.

Uste dut funtsezkoa dela ikasketak izatea. Ez baita paper baten jabe izatea bakarrik, pertsona gisa aberasten zaituen zerbait da. Uste dut ikasteak ikuspegia zabaltzen duela eta munduaren aurrean irekiago egiten gaituela.

Nik etorkizunean gauza xumeak egin nahi ditut, hala nola seme-alabei etxeko lanekin lagundu. Nik izan ez ditudan gauzak eskaini ahal izan, eta haien eredu izan.

Amaren etxera itzultzea ere pentsatu dut, gure arteko harremana hobea baita orain, ikasketekin aurrera jarraitu ahal izateko. Edo asteburuetan baino ez lan egitea. Izan ere, lan guztietan erabiltzen zaituzte, eta denek egiten dituzte gehiegikeriak, eta hori ez zait bidezkoa iruditzen.

Amari ez diot esan ikasketak alde batera utzi ditudala, harentzat porrota baita hori. Berak ez duenez ikasi, frustrazioa eragiten dio nik oraindik ikasketak bukatu ez izanak eta oraindik lanpostu on bat ez izateak. Uste dut, orduan, ama nirekin harro egongo litzatekeela benetan, poz-pezik egongo litzateke.

Niretzat, bizimodua aldatzea 2.000 edo 3.000 €ko soldata jaso, eta ordutegi on bat izatea izango litzateke, eta ez egun osoa kontuak egiten ematea, hilaren amaierara iritsiko ote naizen kezkatuta. Bizitzeko eta familia bat mantentzeko emango duen lanpostu on bat.

Uste dut funtsezkoa dela ikasketak izatea. Ikasteak ikuspegia zabaltzen du eta munduaren aurrean irekiago egiten gaitu.

Bilbora iritsi ginenean, kanpotarrez betetako institutu batean sartu zuten nire ahizpa bat. Espainian hezkuntza eta osasun publikoa oso onak diren arren, eta are gehiago Euskadin, eskola hartan desberdintasun kultural, erlijioso eta ideologiko asko zeuden. Liskarrak zeuden eskola-irteeran, eta irakasleek asko apaldu behar izaten zuten maila. Eta horrela, hezkuntza ez da berdina. Gainera, desberdintasun handia dago euskaraz badakitenen eta ez dakitenen artean.

Batxilergoa amaitu zuenean, Irakasle Ikasketak egiten hasi zen Burgosen, ez baitzekien euskaraz eta Selektibitateko nota ere ez baitzen nahikoa izan. Baina hara joatea oso garestia zenez, utzi egin behar izan zuen, eta orain, Selektibitateko nota hobetzea lortu du, eta hemen hasiko ditu Irakasle Ikasketak; izan ere, lehen bi urteak gaztelaniaz egin daitezke.

Ahizpa txikia, berriz, itunpeko ikastetxe batera bidali zuten Lehen Hezkuntza amaitzera, euskaraz ez zekielako eta lehendik zeukan maila onari eusteko. Baina hango maila oso apala zela esaten zigun, eta ez zuela ezer ikasten.

Gero maila hobeagoko beste itunpeko ikastetxe batean hasi zen, eta han oso nota onak ateratzen ari da, baita Euskaran ere. Irakasleak esan zidan ikasteko gogo handia duela, eta interes handia duela hizkuntzarekiko. Izan ere, neska euskaldunez osatutako kuadrilla dauka, eta oso ondo integratu da. Errazagoa baita integratzea txikiagoa zarenean.

Bere garaian, nik ere gustura hartuko nuke aholku emango zidan norbait.

Orain Batxilergoa egiten ari da, eta Medikuntza ikasi nahi duela dio, baina astia du oraindik pentsatzeko. Gustuko duen zerbait egin behar duela esaten diot nik, motibatu egiten duen zerbait. Aholkua ematen eta orientatzen saiatzen naiz ni.

Bere garaian, nik ere gustura hartuko nuke aholku emango zidan norbait. Baina modu onean, ez nire amak edo izebek egiten zuten bezala, min handia egin baitidate. Denari ezetz esaten baitzioten. Dena zen debekua edo bekatua.

Nolabait, nik bidea zabaldu diet ahizpei, eta orain haientzat errazagoa da zenbait gauza egitea, hala nola pixka bat apaintzea edo lagunekin irtetea.

Baina, gure amaren jarrera ere aldatu da zertxobait, hemen egoteari esker. Harentzat bedeinkazioa izan da. Egiten dituen ikastaroetan beste neska arabiar eta marokoar batzuekin ibiltzen da, eta batzuetan, festak antolatzen dituzte. Haietako batera joan behar duenean, errimela ematen laguntzeko eskatzen dit; hala esaten dio berak makillatzeari. Eta hori bekatua zen lehen!

Baina ez da hori bakarrik, gauza asko dira. Duela gutxi, adibidez, hiriaren erdian genbiltzala, nire ahizpak mutil batekin eta haren neska-lagunarekin egin zuen topo. Eta bi musu eman zizkion masailean amaren aurrean, eta amak ez zion ezer esan. Lehen, ordea, Madrilen bizi ginenean, lagunak ikusten banituen, inguruan marokoar pila bat zeudela esaten nien, eta eskua emateko, bi musu eman beharrean. Bestela, liskarra izaten nuen etxean.

Baina ahizpekin zera gertatzen zait: haien alde hainbeste gauza egiten ditudanez, eskertu beharrean, badirudi betebeharra dela. Eta zerbaiti ezetz esaten badiot, neurekoia naizela eta neuregan baino ez dudala pentsatzen esaten didate.

Orain mutil-laguna dut, eta badirudi jeloskor daudela, beraientzat denborarik ez dudala esaten baitidate.

Duela ia bi urte ezagutu nuen, lanean nenbilen fruta-dendara etorri zenean. Zerbait hartzeko gelditu ginen, eta halaxe hasi ginen.

Aljeriarra da bera, eta Bilbon bizi da hamalau urte zituenez geroztik. Bitxia da gero; ni arabiarrengandik ihesi nenbilen, eta azkenean, hango batekin hasi naiz. Gainera, beti izan da arazo ugari marokoarren eta aljeriarren artean. Eta, esan daiteke, gure ama, oso itxia baita, arrazista dela haiekin. Ez dakit non entzun dudan, batzuetan, kanpotarrak arrazistagoak direla beren ingurukoekin espainiarrak baino.

Gure amak dioenez, gizon aljeriarrak ez dira onak; haur pila bat izaten dituzte, eta gero, alde batera uzten dituzte emazteak. Baina nik erantzuten diot pertsona bakoitza mundu bat dela. Nik, jakina, ez dut zoritxarreko egingo nauen norbaitekin ezkondu nahi, agresiboa den batekin eta gaizki tratatuko nauen norbaitekin. Nik ez baitiot denak horrelakoak direnik, baina, onartu beharra dago, gehiengo bai. % 60 edo gehiago, agian. Ezin dugu errealitate hori alde batera utzi.

Baina amak berdin-berdin esaten zidan mutil espainiarren batekin ibiliz gero ahazteko bera, nire ahizpak eta familia osoa. Eta hori badudala lehengusina bat Bartzelonan, mosso d'esquadra batekin ezkondua. Eta zoriontsua dela ikusten dut. Alaba bat du, lana, etxea, kirolaria da, afaltzera irteten da eta hori guztia. Eta nik arabiarrek ez ditut hori egiten ikusten.

Nire neba ere Bartzelonara joan da, eta orain han dabil lanean. Arazoak alde batera utziko dituela eta pixka bat egonkortuko dela espero dut.

Nolanahi ere, amak ez du nire mutil-laguna ezagutzen. Ondo moldatuko lirakeela pentsatzen dut, baina nire kulturaren ez dago ohitura hori. Ez diezu mutil-laguna gurasoei aurkezten, ez bada haiei ezkontzeko baimena eskatzeko. Ahizpei bai, haiei aurkeztu diet, baina ez dira oso ondo moldatzen, jeloskor daudelako eta denbora kentzen didala esaten dutelako. Eta hori haiekin pazientzia handia duela kontuan hartuta.

Nire mutil-lagunak espainiar herritartasuna du, baina nik bizileku-baimenarekin jarraitzen dut.

Izapideekin hasi nahiko nuke, baina orain bi azterketa egin behar dira, bat kulturari buruzkoa, eta bestea, hizkuntzari buruzkoa. Gaindituko nituzkeela pentsatzen dut, baina beste izapide mordo bat ere egin behar da, tasak ordaindu, eta gero, hitzordua eskatu. Oso konplikatua da, eta garestia; 1.000 € inguruko kostua izan dezake.

Gainera, guri hamar urtez hemen bizitzen egotea eskatzen digute, eta latinoei, bi baino ez. Hori ez zait bidezkoa iruditzen. Nik uste dut, hamar urtez hemen biziz gero, zuzenean eman beharko liguketela, bai baitirudi gogaitarazteko egiten dutela, mundu guztiak ez dezan herritartasuna lortu.

Nik duela gutxi atera dut gidabaimena, eta, eskatzen badidate, nahiago dut gidabaimena erakutsi bizileku-baimena baino. Lotsa ematen dit, bizileku-baimena erakusten duzunean jendeak beste begi batzuekin begiratzen baitizu. Herritartasuna lortzeak kezka eragiten dit, eta asko gustatuko litzaidake eskuratzea. Baina ez espainiar sentitzeagatik, baizik eta hemen nik baino denbora gutxiago daramatenek dituzten eskubideak eskuratzeagatik. Izan ere, asko hitz egiten da gure betebeharrei buruz, baina badirudi ez dugula eskubiderik. Esaten dute okerrenak garela, baina ez digute gizarteratzen laguntzen, oztopoak baino ez dizkigute jartzen.

Lanpostu askotan, adibidez, ez zaituzte hartzen herritartasuna ez baduzu. Eta hori ez da logikoa, hori gutxiestea da.

Eta politikariek ez dute ezer egiten horren inguruan. Hemen kanpotar ugari dago, baina haiek ez dute ezer esaten. Horregatik, politikak bost axola dit niri, ezin baitut parte hartu. Zergak ordaintzen ditut eta nire betebeharrak betetzen ditut, baina ez dut ez hitzik eta ez botorik. Lehen banuen interes pixka bat, baina orain ez. Uste baitut, azkenean, nahi dutena egingo dutela.

Ni marokoarra naiz, baina dagoeneko hemengoa sentitzen naiz gehiago. Izan ere, hemen eman dut ia bizitza osoa, bizi-maila hobea da, eta iruditzen zait etorkizuna hobea dela, nire herrialdekoarekin alderatuta. Gaur egun, ez nuke han bizitzen jakingo.

Ni marokoarra naiz, baina dagoeneko hemengoa sentitzen naiz gehiago.

Denok bilatzen dugu egonkortasuna, eta ohartu naiz hemen oso ondo nagoela. Sakrifizio handia egin behar izan dut, baina oso gustura nago. Eta, gainera, iruditzen zait hobeto moldatzen naizela hemengo harremanetan.

Marokora bidaiatzen dudanean, oso ondo pasatzen dut, paradisuan egotea bezala baita, baina badakit aldi baterako baino ez dela, ez dela han bizitzen gelditzeko.

Nolanahi ere, ez litzaidake axolako beste herrialde batera joatea. Baina, betiere, nire etxea han ezartzeko. Ez daukat gogorik batera eta bestera noraezean ibiltzeko. Horrela, azkenean, ez baitzara inongoa sentitzen, eta horrek asko nekatzen du. Antzeko zerbait bizi izan dut, eta oso nekagarria da aldiro hutsetik abiatzea, lagunekin, etxearekin eta guztiarekin.

Txiki-txikitatik antolatu dut nire bizitza, eta nahiko argi izan dut zer nahi dudan eta nora noan. Baina Bilbora etorri behar izanarekin, zapuztu egin zitzaizkidan asmoak, eta aldatu egin behar izan nituen planak. Besteak beste, geroko utzi behar izan ditut ikasketak. Asko gogaitzen nau horrek, baina badakit pixkanaka-pixkanaka egingo dudala.

Eta argi daukat nire etxea nolakoa izatea nahi dudana eta hiru seme-alaba izan nahi ditudala. Haien izenak ere aukeratuta ditut dagoeneko, bai eta zer haur-kotxe erosiko didan ere.

Niri falta izan zaidan hori guztia eman nahi diet nire seme-alabei. Bidaiatu dezatela, gauzak ezagutu eta hizkuntzak ikasi. Euskadin jarraitzen badut, ikas dezatela euskaraz txikitatik, oso ondo etorriko baitzaie. Edo jakin dezatela zenbait gauza simple egiten, hala nola igeri egiten eta bizikletan ibiltzen; izan ere, hemengo jendeak badaki horiek egiten, baina nik ez.

Eta erlijioan heziko ditut, baina modu ireki batean. Uste baitut erlijioari esker zenbait muga ditugula, eta hori positiboa iruditzen zait. Niri horretarako balio izan dit.

Nik meskitara eramango nituzke, hizkuntza eta kultura ikas ditzaten, horrek aberastu egingo baititu. Gero, har dezatela nahi duten erabakia. Islamak gauza polit asko ditu; adibidez, gezurrik ez esaten, lapurretan ez egiten eta besteei min ez egiten erakusten dizu, bai eta higienari lotutako zenbait gauza ere.

Niretzako nahikoa da haiek pertsona onak izatea eta inori kalte egin gabe bizi daitezela. Izan daitezela hezibide onekoak eta arduratsuak, eta ikasketa-oinarri ona izan dezatela, prestakuntza funtsezkoa baita. Prestakuntza eta hezkuntza, horixe da bizitzan gelditzen dena.

Nik bizi egin nahi dut, esperimendu eta gauzak ezagutu. Izan ere, azkenean, gauza materialak ez dira gelditzen. Bizi izandakoa baino ez daramazu, zeure sententzioak.

Izan daitezela hezibide onekoak eta arduratsuak, eta ikasketa-oinarri ona izan dezatela, prestakuntza funtsezkoa baita. Prestakuntza eta hezkuntza, horixe da bizitzan gelditzen dena.



Mikel dut izena...

...eta hogeita bost urte ditut. Nire ama Gereñukoa da, eta aita Nikaraguakoa. Han ezagutu zuten elkar, 1987an, ama brigadista joan zenean Nikaraguara. Iraultza Sandinista 1979an gertatu zen, eta, garai hartan, euskal brigadista asko joan ziren Nikaraguara, iraultzaileekin elkarlanean aritzera.

Ama herrialdeko iparraldera bidali zuten, oihan-eremu batera, batik bat haurrez eta eskolez arduratzeko. Aita Managua ingurukoa da, eta, garai hartan, zerbitzu militarra egiten ari zen zonalde horretan, hain justu. Brigadistak babesteaz arduratzen zen. Izan ere, artean arazoak zeuden kontrairaultzarekin. Eta horrela ezagutu zuten elkar.

Ama denboraldi batez egon zen han, eta, gero, hona itzuli zen. 1989an, aitik hilabete batzuk igaro zituen hemen, eta, gero, elkarrekin joan ziren Nikaraguara. Hurrengo urtean ezkondu ziren, eta ni 1991n jaio nintzen. Ama hona etorri zen erditzera, hemen osasun-zerbitzuak hobeak direlako eta bere familiarekin egoteko. Aita nire jaiotzarako etorri zen, eta berehala itzuli zen Nikaraguara. Gero, ama eta biok joan ginen hara, nik lau hilabete nituenean.

Bi urte baino gutxixeago bizi izan ginen Nikaraguan. Lehenbizi, aitona-amonen etxean, eta, gero, gurasoek erositako etxe batean; etxeak lursail txiki bat zuen. Gero, etxea familiako bati utzi zioten, ezkondu egin behar baitzuen justu gurasoak hona etorri zirenean.

Oposizioak hauteskundeak irabazi zituenean, aita lanik gabe gelditu zen. Denbora batez, gurasoak etxean gauzak saltzen saiatu ziren, han asko egiten baita hori, baina egoera oso txarra zen, eta aitona-amonek hona etortzera animatu zituzten gurasoak.

Nahiz eta, kontatu didatenaren arabera, hasieran aitona-amonak oso pozik ez egon ama Nikaraguara joan zenean eta tirabirak egon gurasoak Gereñura

bizitzera joan zirenean, aitona-amonek beti lagundu digute. Berez, gurasoak zenbait urtez bizi izan ziren aitona-amonen etxean.

Aitak lana aurkitu zuenean garraio-enpresa batean, etxe bat alokatu genuen Agurainen, eta, gero, orain lanean ari den fabrika lanpostu finkoa eman ziotenean, etxe bat erosi genuen Agurainen.

Ama betidanik izan da oso pertsona aktiboa eta oso mendizalea, baina Nikaragutatik itzuli ginenean, gaixotasun kroniko bat atzeman zioten, eta gaixotasunak asko ahuldu zuen. Horregatik, ezin zituen lan asko egin. Dena den, nik hamar bat urte nituenean, herriko eskola-jangelan hasi zen lanean, eta, gaur egun ere, hantxe jarraitzen du.

Nik Aguraineko eskola publikoan ikasi nuen DBH arte. Gero, institutuan egin nuen Batxilergoa, eta, gero, EHUan ikasi nuen. Inoiz ez dugu dirua sobera izan. Baina, edonola ere, nire familian publikotasuna defendatzen dugu.

D ereduan ikasi nuen. Izan ere, amak, hemen euskara gutxi hitz egiten den arren, euskara ikasi zuen, eta irakaslea izan zen euskaltegi batean. Beti hitz egiten zidan euskaraz, eta gaur egun ere euskaraz hitz egiten dit. Horregatik, ikastolan hasi aurretik ere banekien euskara. Aitak euskara ulertzen du, baina ez du hitz egiten. Hitz batzuk baino ez ditu esaten. Euskara ikasi nahi izan du, baina lan egiten duen fabrika, txandaka egiten dute lan, eta, hori dela eta, ezin izan du euskara ikasi.

Oso oroitzapen onak ditut ikastolaz, eta, berez, ikastolako ikaskideak izandakoak gaur egun nire kuadrillakoak dira.

Oso oroitzapen onak ditut ikastolaz, eta, berez, ikastolako ikaskideak izandakoak gaur egun nire kuadrillakoak dira. Hori oso normala da herri txikietan.

Ez nuen asko ikasten, baina erraza egiten zitzaidan, eta irakasgaiak aise gaintitzen nituen. Oraindik ere, batzuetan irakasle batzuekin topo egiten dut kalean. Elkar agurtzen dugu, eta beti galdetzen didate zer moduz nagoen eta ea lanik badudan.

Gutxi gorabehera 15 urte arte, ohikoena Aguraineko jendearekin ibiltzea da, baina, gero, kirolak egiten hasten zara, eta, gainera, beste herri batera joan behar duzu ikastera. Hortaz, zonaldeko beste herri batzuetako mutilekin harremanak egiten hasten zara; alegia, zure betiko kuadrillakoa ez den jendearekin eta zure ikaskideak izan ez diren pertsonekin. Gurasoei autoz eramateko eskatzen hasten zara, bai eta apur bat sufriarazten ere, berandu arte ateratzen zarelako. Nik beti izan dut konfiantza gurasoekin, eta haiek taburik gabe hitz egin didate gauza guztiei buruz: drogei buruz, alkoholari buruz, sexuari buruz eta horrelako gauzei buruz. Mahuka zabal samarra izan dut, baina nik ere behar bezala erantzun diet gurasoei.

Gainera, inoiz ez dut arazorik izan jendearekin erlazionatzeko; beti izan naiz oso lagunartekoa. Eta, halaber, gurasoek ez dute arazorik izan herrian. Carlos nikaraguarrak galdetzen baduzu, denek dakite nor den. Ez dute immigrantetzat hartzen. Izan ere, hona etorri zenean, duela hogeitahi baino gehiago, hemen gizon

argentinarr bat eta emakume dominikarr bat bakarrik zeuden. Immigrante gutxi zeuden, eta ez zeuden gaizki ikusiak.

Hori guztia gero gertatu da, jende gehiago etorri zenean, Kolonbiatik, Ekuadorretik eta batik bat Magrebetik. Orduan hasi zen jendea esaten lana kentzera datozela. Orduan hasi ziren laguntzen inguruko tirabirak eta ez buru ez hanka ez duen alarma sozial moduko hori.

Aitak, horrelako komentario iraingarriren bat entzuten duenean, nahiz eta komentarioa berari buruzkoa ez izan, berehala esaten die horrelakorik ez esateko. Horrelako gauzak esaten dituztenak ezjakinenak izan ohi dira, eta, gero, isilik gelditzen dira, ez diote aitari ezer esaten. Aitak orobat esan dit maiz tabernan jendeak horrelako tentelkeriak esaten dituela, bera hor dagoela pentsatu gabe. Niri ere gertatu izan zait noizbait ni zirikatze horrelako komentarioak egiten ari zen norbaiti aurre egin behar izatea. Zure gurasoak nongoak diren edo horrelako zerbait esan diezazukete, baina gerta daiteke haien gurasoak ere Euskal Herritik kanpotik etorriak izatea. Min emateko modu erraz bat da, baina berez tontakeria bat da.

Eta niri, berez, hemen hezi naizenez, ez zait azentua nabaritzen, nahiz eta nire aitaren antz apur bat izan. Jendearekin hitz egiten dudanean, nik esan ohi dut nire aita Nikaraguakoa dela eta han familia dudala.

Orduan, bai, batzuek esaten didate apur bat igartzen zaidala; baina, bestela, ez dira konturatzen. Udan egun pare batez hondartzara joaten naizenean, beltzaran-beltzaran jartzen naiz, eta, batzuetan, kuadrillakoek *beltza* esaten didate, baina iraintzeko ez. Ezizen bat da, norbaiti *txinatar* edo horrelako zerbait deitzearen pareko. Kuadrilla askotan gertatzen da hori.

Eta niri, hemen hezi naizenez, ez zait azentua nabaritzen, nahiz eta nire aitaren antz apur bat izan.

Amaren aldetik, aitona-amonak ditut. Egoitza batean daude, jada oso zaharrak direlako. Bisitatzera joaten garenean, jada ez gaituzte ezagutzen. Amak neba bat ere badu, dibortziatua eta alaba bat duena. Alaba Bartzelonan bizi da, amarekin. Amaren neba Gereñun bizi da orain, zonalde horretan lan egiten duelako, baina maiz elkartzen gara harekin, eta oso harreman ona dugu. Ezkondu zenean, Nikaraguara joan zen emaztearekin, herrialdea ezagutzeko. Baditut, halaber, osaba-izeba zahar batzuk, Gasteizen bizi direnak, alde zaharrean. Berrogei urteko seme bat dute, eta, ni baino zaharragoa izan arren, harekin eta haren kuadrillarekin gelditzen naiz, Gasteizen poteoan ibiltzeko edo Alaves ikustera joateko. Oso ondo moldatzen gara.

Aitaren aldetik, Nikaraguan daudenez gain, anaia nagusiago bat Miamira joan zen, eta hiru seme-alaba dituen arreba bat Bartzelonan bizi da duela hamahiru urtez geroztik. Lehen, Bartzelonara joaten ginen Urtezahar-gaua haiekin pasatzera, baina hazi ahala, hemen atera nahi nuen egun horretan, eta harremana galdu dugu apur bat. Dena den, telefonoz hitz egin ohi dugu, eta haiekin egoten naiz Bartzelonara joaten naizenean.

DBHn nengoenean, aitak batzuetan esaten zidan medikuntza ikasteko, gero Nikaraguara eta halako herrialdeetara laguntzera joan ahal izateko, baina, egia esan, ez naiz oso trebea zientzietan, eta oso zaila iruditzen zitzaidan. Hori dela eta, Batxilergo humanistikoa egin nuen institutuan, eta irakasle-ikasketak egitea pentsatzen aritu nintzen. Baina azkenean EHUen ikus-entzunezko komunikazioa ikastea erabaki nuen, gustatzen zitzaidalako eta erraza zela esan zidatelako. Izan ere, nik argi nuen gustatzen zitzaidan zerbait ikasi behar nuela unibertsitatean. Lagun batzuei beren gurasoek esaten zieten zer ikasi behar zuten, baina niri gurasoek beti esan didate nik nahi nuena egiteko. Gainera, ikasketak 21 edo 22 urterekin amaitzen dituzunez, beti bila dezakezu lantxoren bat, eta zuk zeuk beste ikasketa batzuk ordaindu.

Egia esan, ikasketak oso erraz egin nituen, eta, amaitzean, EHUk eta EITBk antolatutako multimedia-komunikazioko master batean izena eman nuen. Eskolak amaitu ondoren, udan praktikak egin nituen ETBn, kronikak eta elkarrizketak egiten. Oso giro ona zegoen, eta, gainera, ordaindu egiten zidaten Munduko Kopako partida bat edo tourreko etapa bat ikusteko —gauza horiek, berez, etxean egin ohi ditut—.

Ni beti nengoen prest elkarrizketak egiteko edo edozertarako. Izan ere, azken finean, ausartzea da kontua. Esperientzia ona izan zen ETBko kazetariekin, txikitatik ikusi nituen kazetari horiekin, lan egin ahal izatea. Arlo hori lehendik gustatzen zitzaidan arren, gauza guztiek praktikan nola funtzionatzen duten ikusi ahal izan nuen. Gogotsu joaten nintzen lanera, eta konturatu nintzen horretan lan egin nahiko nukeela.

Gainera, niri betidanik asko gustatu izan zait kirola egitea. Txikitan, sei urtetik hamabi urtera bitartean, palan aritzen nintzen. Bitxia izan behar zuen haur nikaraguar bat palan jolasten ikusteak. Gero, futboleant aritu nintzen urtebetez. Trebea nintzen, eta gustatzen zitzaidan. Jendea ezagutzen zenuen, eta lagunekin egoten zinen, eta hori da politena txikia zarenean. Baina hurrengo urtean utzi nuen, dena serioagoa-edo bilakatzen hasi zenean.

Ama asko poztu zen, ez zaio-eta batere gustatzen futbola. Partidetara ere ez zen joaten, ni ikusteko. Batzuetan, nire futbol-karrera babestu ez izana leporatzen diot, txantxetan. Izan ere, erretiroa eman ahalko niekeen.

Aita, bai, joaten zen partidetara, nahiz eta bera ere ez den inoiz oso futbolzalea izan. Handitan noizbait Mendizorrotzara eramanez, eta aitortu dit pena ematen ziola eta damutu egiten zela txikitan hori maizago egin ez izanaz, besterik gabe batera joateko eta giroaz familiartean gozatzeko. Niri, berez, alderdi hori gustatzen zait; alegia, partida aurretik jendearekin egotea eta taldeek egingo dutenari buruz hitz egitea, garagardo batzuk edaten dituzun bitartean. Eta hori bera egitea amaieran, partida hizpide hartuta. Nire ustez, futbola ekitaldi moduko bat da, non jendearekin elkartzeko baitzara.

Baina Nikaraguan beisbolaren eta boxeoren zaleagoak dira. Txikitan, batzuetan beisboleant aritzen nintzen lagunekin, erraketa batekin eta pilota batekin, eta

aitak arauak irakasten zizkigun, eta gurekin jolasten zen. Halaber, batzuetan, ETBn ematen zituzten boxeo-borrokaldiak ikusten nituen aitarekin.

Gaur egun, ia ez dut kirolrik egiten, bizikleta apur bat eta beste ezer gutxi, baina oraindik ere izugarri gustatzen zait futbola, pilota eta txirrindularitza ikustea.

Nikaraguara itzuli nintzen lehen aldian, bost urte nituen. Gogoan dut lagunei esaten niela elefanteak eta tigreak ikusiko nituela. Ziur asko, dokumentalen bat ikusiko nuen TVE 2 katean edo horrelako zerbaitean. Elefanterik eta tigrerik ez, baina eltxo asko zeuden, eta bero handia egiten zuen.

Orobat oroitzen naiz Managuako aireportuan militar asko zeudela eta beldurtu egin nintzela. Baina aitak lasaitu egin ninduen, lagunak zirela eta haietako batzuk ezagutzen zituela esanez. Eta aitaren familia ere gure zain zegoen.

Bi urte geroago, Mitch urakana gertatu zen. Urakanak Nikaragua suntsitu zuen. Askok hitz egin genuen familiarekin telefonoz, baina aita oso kezkatuta zegoen eta hara joan behar zuela erabaki zuen. Urakanari buruzko berriak egunero agertzen zirenez, jende askok galdetzen zigun ea nire familiaren berririk bagenuen. Eta gurasoak hemen dirua biltzen aritu ziren, hara eramateko. Jendeak asko lagundu zuen. Baina uste dut arazo batzuk egon zirela GKE batekin eta banku baten kontuarekin. Hortaz, azkenean, aita hara joan zen, eta dirua premia handien zuten zonaldeetan banatzeaz arduratu zen.

Normalean, bi urtetik behin edo joan gara Nikaraguara. Ni oso gustura joan naiz beti, hemen ez dudan familia baitaukat han. Osaba-izeba eta lehengusu pila bat ditut. Nire familiak badu denda bat, eta, denda horretan, denetik saltzen dute. Jende asko pasatzen zen bertatik. Ni nire adineko mutikoekin eta lehengusuekin jolasten nintzen.

Orain, haietako batzuk ezkondu daude, eta seme-alabak dituzte. Horregatik, ez gara lehen bezain beste ateratzen elkarrekin. Igandeetan elkartu ohi dira, beisbolearen aritzeko, garagardo batzuk edateko eta, gero, elkarrekin jateko etxeetako patioetan, modu informalean.

Amona ere han dago. Jada zahar samarra da, eta ez dakizu ikusiko duzun azkeneko aldia izango den. Hori gertatu zitzaidan aitonarekin: gaixo egon zen zenbait urtez, eta, joan ginen azkeneko aldian, bagenekien ez genuela berriro ikusiko. Eta hori oso latza da.

Bitxia da gertatzen dena: hemen, ni naiz beltza, eta, han, berriz, zuria. Gainera, apur bat luzeagoa naizenez eta azenturik ez dudanez, oso deigarria egiten zaie.

Hori gertatzen zitzaidan lehengusuekin diskoteketara joaten nintzenean. Han, diskoteketan, jendeak jan eta edan egiten du mahai batzuetan, eta, gero, dantzarako pista bat dago erdian. Eta dantza eginez ligatzen dute neskekin. Niri lotsa handia ematen zidan neskei nirekin dantza

Bitxia da gertatzen dena: hemen, ni naiz beltza, eta, han, berriz, zuria.

egiteko eskatzea, baina *latin lover* bat den lehengusu batekin joaten nintzen, eta hura arduratzen zen horretaz. Eta dantza pare bat egin ondoren, neskak nire azentuarekin harritzen nituen. Oso ondo pasatzen nuen.

Lehengusuetako batzuk jada lanean badaude ere, ez dute diru askorik, eta, ostatuagatik ezer ordaintzen ez diegunez, hara joaten garenean, guk ordaintzen dugu denen janaria. Han egoera nahiko txarra da, eta oinarrizko elikagaien prezioa asko igotzen ari da.

Dena den, dezente lotsatzen dira, eta ez dira aprobetxatzen, guk ordainduko dugula pentsatuta. Izan ere, beti utzi diegu argi hemen gauzak ez daudela direnak eta ez direnak gastatzeko moduan. Esaten diegu hemen ere bizitza ez dela batere erraza eta dirua ez dela zerutik erortzen.

Izan ere, emigrante batzuek familiakoei bidaltzen dizkieten argazkietan, kristoren autoak eta etxeak ikusten dira, baina agian lan egiten ari diren lekuaren argazkiak dira. Eta Nikaraguara joaten direnean, gauzak primeran atera zaizkielako itxura egitea atsegin dute, nahiz eta berez hori horrela ez izan. Duela urte batzuk, han geundenean, Estatu Batuetan bizi zen bat agertu zen, aspaldian Nikaraguara joan ez zena. Traje zuri bat zeraman soinean, Julio Iglesias bezala, eta izugarritzko furgoneta bat gidatzen zuen, auzoko buruzagia izango balitz bezala. Mutikoei hitzeman zien beisboleko ekipamendu oso bat bidaliko ziela, bateak eta guzti, baina inork ez zuen berriro haren berririk jakin. Eta baditugu Estatu Batuetan bizi diren auzoko batzuk, itzultzen diren bakoitzean mariachi batzuk eramaten dituztenak, lur orotako ibilgailutzar bat alokatzen dutenak eta mundu guztia gonbidatzen dutenak. Guk hori egiten ez dugunez, jende askok esaten du dirurik ez dugula. Guk nahiago dugu gauzak diren bezala esan eta arrandiaz ez jokatu. Izan ere, hemen, esaterako, 1.500 € irabaz ditzakezu hilean, baina denak eskuetatik ihes egiten dizu, gastu finko pila bat daudelako: ura, argia, berokuntza, zergak, aseguruak eta abar. Nikaraguan ez duzu etxea ordaintzen. Izan ere, gehienek familiaren lursailean eraikitzen dute etxea, eta jendea edozein modutara konektatzen da, legez kanpo konektatu ere, argindar-lineara. Erokeria hutsa da.

Baina, tira, beti bidali dugu diru apur bat botiketarako eta familiarentzat. Eta urtebetetzeetan, diru apur bat bidaltzen diegu, kapritxoren bat eros dezaten.

Oso liluratuta itzultzen naiz, aina gero ahaztu egiten zait. Konturatzen naiz nire bizitza hemen dagoela. Hemen hazi naiz, hemen ikasi dut eta nire kuadrilla hemen dago.

Nikaragutatik itzultzen naizenean, beti pentsatzen dut izugarri gustatuko litzaidakeela han bizitzea. Izan ere, herrialdea asko gustatzen zait, eta oso liluratuta itzultzen naiz. Egun osoa pasatzen dut hango rancherak entzuten eta Interneten beisbol-partidak ikusten. Nikaraguarren antzera. Gogoan dut txikitan dendetara joaten ginela eta coca-cola erosten genuela (han, ura baino merkeagoa

da). Poltsa batean botatzen zuten coca-cola, eta, gero, lastotxo batekin edaten genuen, edo plastikoa kosk eginez. Eta itzultzen nintzenean, coca-cola lata bat erosten nuen litxarkeria-dendan, poltsa batera botatzen nuen eta halaxe edaten nuen. Lagunak zur eta lur gelditzen ziren horrekin.

Baina gero ahaztu egiten zait, poliki-poliki. Konturatzen naiz nire bizitza hemen dagoela. Hemen hazi naiz, hemen ikasi dut eta nire kuadrilla hemen dago.

Aitak askotan esan dit orain erabakitzen utziko lidaketela, baina ni txikia nintzenean, hemen gauzak ondo atera izan ez balira edo lanik gabe gelditu izan balitz, pisua salduko genukeela eta Nikaraguara joango ginatkeela bizitzera, hutsetik hasteko.

B plan moduko bat izango zen. Etxetxo bat eraikitzea aitona-amonen lursailean eta negozio bat abiatzea pisuaren salmentarekin lortutako diruarekin. Jende guztiak ez du aukera hori; guk, ordea, bai. Alderantzizko immigrazio moduko bat izango zen.

Baina nik ez dut inoiz hartu oso aukera errealtzat.

Gurasoek ez dute ezer erabaki, baina noizbait esan dute erretiroa hartzean agian Nikaraguara joango direla. Gutxienez urtean hiruzpalau hilabete pasatzera. Neguan hara joan, eta, gero, udan hemen egon. Izan ere, oso ondo aterako litzaieke hemengo erretiroarekin Nikaraguan bizitzea.

Aita oso ohituta dago hemen bizitzera, ia bizitza erdia hemen daramalako, baina batzuetan herrimina sentitzen du, batez ere Nikaraguara bidaiatzeko unea gerturatu ahala.

Eta orain egunero irakurtzen du Internet bidez *Nuevo Diario* egunkaria, hango albiste guztien berri izateko, eta, Facebooki eta WhatsAppi esker, maizago gaude kontaktuan hango familiarekin.

Gurasoak beti egon dira oso harro nik Nikaragua oso kontuan hartu dudalako. Duela urte batzuk, adinez nagusia egitean, Nikaraguako herritartasuna eskuratu nuen, Nikaraguako herritarra ere izatearen ideia gustatzen zitzaidalako. Orain, han botoa eman dezaket.

Ni, lehenik eta behin, euskaldun sentitzen naiz, eta, gero, nikaraguarra. Baina inoiz ez dut ahaztuko nire parte hori. Izan ere, han, gauza asko ikasi eta bizi izan ditut, eta familia eta lagunak ditut. Oso harro nago horretaz guztiaz, eta hemen denek dakite erdi nikaraguarra naizela eta aita hangoa dela.

Eta Nikaraguan nagoenean, halaber, harro egoten naiz euskalduna izateaz.

Ni, lehenik eta behin, euskaldun sentitzen naiz, eta, gero, nikaraguarra. Baina inoiz ez dut ahaztuko nire parte hori.

Edonola ere, askotan galdetu izan diot neure buruari nire bizitza nolakoa izango zen nire familia Nikaraguan gelditu izan balitz. Ziur asko, hiru seme-alaba izango nituzke, agian bi emakumerekin; izan ere, han zur eta lur gelditzen zara gauza horiekin. Telenobeletan bezala da, baina bizitza errealean. Katramila pila bat izaten dituzte familian.

Berez, oso katolikoak dira. Elizara joaten dira igandero, baina monogamiari eustea zail egiten zaie. Oro har, han oso erlijiozaleak dira.

Orain dagoen gobernuak ere (gobernu sandinista da, hots, iraultzarena) lelo hau du: *Nikaragua kristaua, sozialista eta solidarioa*. Hain zuzen ere, iraultza sandinistarekin hasi zen aurrera egiten askapenaren teologiaren kontua, herriarengandik gertuago zegoen eliza mota batekin. Alegia, Carlos Mejía Godoyren nekazarien meza eta gauza horiek.

Amonak eta izebak egun osoa pasatzen dute elizan. Kristoren fundamentalistak dira. Lehengusuek apur bat gehiago paso egiten dute; dena den, lehen elizako talde batean jotzen zuten.

Aitak, ordea, beti egin dio uko katolizismoari, eta ama ere ez da inoiz horretaz arduratu. Ni ez nago ezta bataiatua ere. Gurasoek esaten zidaten handitan katolikoa izan nahi banuen egiteko nahi nuena, baina haiek ez nindutela sartuko sinesten ez duten erlijio batean.

Nikaraguan nagoenean, oraindik ere galdetzen didate ea zergatik ez noan elizara. Han, pare bat aldiz joan naiz mezarara, eta hango mezak kristoren festatzarrak dira; ez dute zerikusirik hemengo mezekin.

ETBko praktikak amaitu nituenean, master amaierako lana prestatu nuen, eta, gero, neguan Nikaraguara joateko aprobe txatu nuen. Izan ere, gurasoak abuztuan joan ziren hara, eta nik ezin izan nuen haiekin joan, lanagatik. Lehenbiziko aldia izan zen hara bakarrik joan nintzena.

Bidaiaitik itzultzean, amak behin eta berriz esan zidan Lanbiden izena emateko, eta, azkenean, halaxe egin nuen, nahiz eta estatistikek adierazi jende gutxiri aurkitzen diotela lana.

Horretaz gainera, curriculumak banatzen hasi nintzen, eta, handik bi hilabetera gutxi gorabehera, jakin nuen norbait behar zutela inguruko nekazari-kooperatiba bateko komunikazio-sailean, han lan egiten zuen ezagun baten bidez. Hartu egin ninduten, eta urtebete baino apur bat gehiago daramat han lanean.

Pozik nago lanarekin. Izan ere, komunikazio korporatiboaren gaia gustukoa dut; kazetaritzaren beste adar bat da, eta adar horren berri jakitea interesatzen zait. Gainera, enpresa ez da oso formala. Nire nagusiak nekazariak dira, egun osoa baserrian lan egiten aritu ostean tartetxo batez elkartzen direnak.

Nik urte hauetan guztietan eskuratutako ezagutzak aplikatzen ditut. Niri, betidanik, dezente gustatu izan zait diseinu grafikoarekin eta webguneekin zerikusia duen guztia. Nekiena aplikatu dut, eta, denbora librean, nire kabuz ikasten jarraitu dut.

Obra-amaierako kontratu bat da, baina gustura nago, eta hor lanean jarraitu nahiko nuke. Dena den, zalantzarik gabe, nahiago nuke kirol-kazetaritzarekin lotutako zerbait aurkitu.

Edonola ere, nik prestatzen jarraitzen dut. Masterra amaitzean, ingelesa ikasten hasi nintzen Hizkuntza Eskola Ofizialean. Izan ere, oso ahaztua nuen,

eta garrantzitsua iruditzen zait komunikaziorako, ez bereziki tituluagatik. Eta horretan jarraitzen dut, nahiz eta, lana dela eta, batzuetan zail egiten zaidan.

Horretaz gainera, diseinu grafikoko ikastaroren bat egin nahiko nuke, nire kabuz ikasi dudana osatzeko. Gustatzen zaizkidan gauzetan ikasten jarraitu nahi dut. Nik hemen jarraitu nahiko nuke lanean, baina ez litzaidake axolako kanpora joatea. Esaterako, Madrilera; izan ere, asko gustatzen zait, eta, gainera, Gasteiz baino merkeagoa iruditzen zait.

Unibertsitateko ikaskide batzuk hara joan ziren master bat egitera, eta askotan joan naiz bisita egitera.

Arabian gelditu nahiko nuke, edo gutxienez Euskal Herrian, baina Madrilera, Bartzelonara edo beste herrialde batera joan behar badut, joango naiz. Horretarako ari gara prestatzen.

Kuadrillako lagun batzuk kanpora joan dira ikastera, baina bakar bat ere ez da joan kanpora lanagatik.

Ziur asko, Gasteizen lan egingo banu, pisu bat alokatuko nuke han. Duela gutxi, hiru lagun Agurainen pisu bat alokatzeari buruz hitz egiten aritu ginen. Baina azkenean ez genuen hori egin. Izan ere, aitak arazoak ditu fabrian, eta erabaki nuen pauso hori ez ematea; hartara, etxean apur bat lagundu dezaket. Gainera, gurasoekin oso harreman ona dut, eta, hortaz, ez dut presarik.

Nolanahi ere, kuadrillan ni izango nintzateke etxetik joaten lehena. Tira, kuadrillako bat orain neska-lagunarekin bizitzera joan da, baina bere gurasoen pisu batera, eta hori ez da gauza bera. Horrela, ni ere joango nintzatekeen.

Gurasoen etxetik joango banintz, batik bat apur bat kanpoaldean bizi naizelako izango litzateke, eta batzuetan apur bat nekagarria delako mugitzea, nahiz eta kilometro pare bat izan. Duela hilabete batzuk, autoa erosi nuen, eta orain autoz joaten naiz leku guztietara. Lehen, ohituta nengoen oinez ibiltzera, baina orain gogorra egiten zait.

Onartzen dut nire pisua izatearen eta han denbora gehiago egotearen ideia gustatzen zitzaidala, baina oraingoz alde batera utzi dugu kontua. Izango dugu joateko aukera.

Dena den, Batxilergoaz gerostik badugu lokal bat. Duela gutxi, lekuz aldatu gara. Bi kuadrilla elkartu gara; izan ere, denborarekin, kuadrilla horietako kide batzuk joan egin ziren. Eta orain, lagun baten aitaren lantegia izandako lokal handi-handi batean gaude.

Orain, hogeita bost lagun gaude han. Ni ez naiz oso lokal zalea. Gustatzen zait tartetxo bat egotea, baina nahiago dut kalean ibili eta tabernetara joan, edo udan terrazetara.

Halaber, izugarri gustatzen zait bidaiatzea, baina ezin izan dut asko bidaiatu familiarekin. Izan ere, Nikaraguara joaten ginen urteetan, dirua aurreztu behar izaten genuen. Tren-billeteak bakarrik 1.000 € inguru dira. Anaia bat izango banu, ez dakit zenbatean behin joan ahalko ginatkeen hara.

Noizean behin, kanpinera joaten ginen asteburu pasa, hemendik gertu. Nagusiagoa egitean, gehixeago bidaiatu dut, lagunekin. Portugalen egon ginen, eta Interrail moduko ibilbide bat egin genuen Erdialdeko Europako lau herrialdetan barrena. Diru apur bat eskuratzen nuen festetan txosna batean lan eginez, eta aitona-amonek ematen zidaten dirutik aurrezten nuen. Halaber, gitarra bat saldu nuen, eta, gainera, ez dut erretzen, eta hori dezente nabaritzen da aurrezten duzunean.

Nikaraguara egindako bidaietan, bai, apur bat mugitu naiz, eta herrialdean barrena ibili naiz, baina batez ere familiarekin egoten gara, amona bizirik dagoen bitartean behintzat.

Kuadrillako lagun batzuk Nikaraguara joan ziren duela urte batzuk, zonaldeko elkarte batek antolatutako elkartasunezko bidaiara batean. Nik ere izena eman nuen, baina azkenean ezin izan nintzen joan. Gainera, ezingo nukeen familiarengandik ehun kilometrora egon eta haiekin ez egon. Itsasoa zeharkatzen badut, haiekin egoteko da. Latinoamerikako beste leku batzuetara joan nahiko nuke, jakina, baina, oraingoz, nire bidaien helburua ez da hori.

Nolanahi ere, aurtun Karibera joango naiz lehenbiziko aldiz. Jada dena ondo lotuta daukat, eta Karibeko uharte batera joango naiz, eta hiru gau pasatuko ditut han. Amari esan diot dagoeneko, eta berak ere etorri nahi du.

Baina aitak argi utzi digu bera etxean geldituko dela bere familiarekin.

Nikaragua ez dago batere esplotatuta turistikoki. Orain, Costa Ricara joaten diren pertsona batzuk Nikaraguara igotzen hasi dira, ez baitu zerikusirik. Askoz gutxiago dago esplotatuta, eta askoz merkeagoa da. Oso plan ona da lagunekin joateko.

Ama asko mugitu da beti euskararen edo gai politiko eta kulturalen aldeko elkarteetako jendearekin. Ama eta aita kultura-elkarte bateko kideak dira. Festetan, txosnan egun bat antolatzen dute Nikaraguako gauzekin. Eta beti izan dute harreman handia hemen dagoen Nikaraguako eta El Salvadorreko jendearekin. Amak oraindik harremana du lehenbiziko aldiz Nikaraguara joan zenean brigada burua izan zenarekin; Gasteizen bizi da, Nikaraguako neska batekin.

Aitak ez du inoiz bere burua kanpotartzat hartu. Beti egon da oso integratuta, eta inork ez du gutxietsi.

Jasangaitza egiten zait gurasoekin Gasteizera etortzea, jende guztia ezagutzen dute eta.

Txikitan, nik ere salvadortarren eta nikaraguarren seme-alaba dezente ezagutzen nituen, baina denborarekin harremana galdu dut haiekin. Azkenean, zure lagunekin irteten zara.

Baina duela denbora bat, Aguraineko festetan, itxura latinoak zuen neska batekin egin nuen topo; neska ezaguna egiten zitzaidan. Harekin hitz egin, eta jakin nuen gurasoen lagun batzuen alaba zela eta txikitan askotan egon nintzela haren etxean. Luze aritu ginen hizketan, gauza komun asko ditugulako. Haren ama hemengoa da, eta aita hangoa, eta bera hemen bizi izan da ia beti. Ni bezalakoa da, eta horrek sentiarazten dizu gauza berezi baten parte zarela.

Izan ere, aita hona etorri zenean, kanpoko jende gutxi zegoen, eta, gainera, hemengo norbaitekin egotearen abantaila izan zuen, eta horrek gauzak gehiago errazten ditu integratzeko orduan. Ni oso eroso bizi izan naiz egoera honetan. Aitak ez du inoiz bere burua kanpotartzat hartu. Beti egon da oso integratuta, eta inork ez du gutxietsi. Tira, agian garrantzi handirik gabeko kasu bakanen batean, baina, bestela, ez.

Orain, marokoar, senegaldar, kolonbiar eta beste jatorri batzuetako herritar gehiago ikusiko ditugu. Hona lanera etorri den jendea da, seme-alabak hemen izan dituen, immigrazioaren boomaren ondoren. Beraiek hemengoak sentitzen dira, eta hemengoak dira. Hori da herrialde honen errealitate berria.

Futbolearen ere ikusten da. Esaterako, Athleticen ez dago kanpotarrik, baina badago beltz bat, Iñaki Williams, Bilbon jaioa. Duela urte batzuk, halaber, Jonás Ramalho egon zen, eta polemika batzuk sortu ziren horren inguruan, baina orain badirudi ondo onartu dela. Baina, jakina, oso futbolari ona da, eta horrek ere eragina du.

Alemaniko selekzioan ere hori bera gertatzen da. Gero eta turkiar eta tunisiar gehiago daude, eta betiko ariar ilehori gutxiago.

Eta hori gero eta ohikoagoa bilakatuko da. Nire aitonak ez zukeen hori inoiz imajinatuko, baina egoera den bezalakoa da, eta, nire ustez, errealitate honek gizartea aberasten du.

Orain, kuadrilla askotan daude latinoamerikarrak eta marokoarrak. Eta gero eta gehiago egongo dira. Dena den, egia da aldea dagoela txikitzen etorri zirenen eta 19 urterekin edo gehiagorekin etorri direnen artean. Txikitzen etorri zirenetako batzuek neska-laguna ere aurkitu dute hemen; nagusitan etorri direnak, ordea, beraien artean ibiltzen dira maiz.

Niri tristeza iruditzen zait hona etorri direnak beren ghettoetan gelditzea, nahiz eta, azkenean, errua bi aldeena izan. Hemengo jendearena, batzuetan oso itxia delako eta aurreiritziak dituelako, baina baita haiena ere, azkenean erosotasunagatik-edo haien artean bakarrik elkartzen direlako. Niri legitimoa eta logikoa iruditzen zait hori, baina horrela gauza asko galtzen dituzu.

Ni norabait bizitzera joango banintz, leku horretako errealitatearekin eta jendearekin inplikatu nahiko nuke. Beste kontu bat da hango jendea irekiagoa edo itxiagoa izatea eta hobeto edo okerrago onartzea. Baina bizi zaren lekuan inplikatzen ez bazara, ezin duzu esan hor bizi zarela.

Ni Nikaraguako gauzen berri jakiten saiatzen naiz. Ez dut nahi oporretara joateko leku bat soilik izatea. Nire bigarren herrialdea da, eta asko interesatzen zait han gertatzen den guztia.

Ni Nikaraguako gauzen berri jakiten saiatzen naiz. Nire bigarren herrialdea da, eta asko interesatzen zait han gertatzen den guztia.

Gogoan dut hamalau urte inguru nituenean amak zenbait irakasgaitako testu-liburuak enkargatzen zituela Nikaraguan. Nik interes handiz irakurtzen nituen, hango gauzen berri izateko.

Eta orain, Nikaraguarekin lotutako gauzak jartzen ditut Facebooken, lagunek herrialdeaz zerbait jakin dezaten. Independentziaren egunean, irailaren 15ean, gordeta daukagun Nikaraguako banderaren irudi bat jartzen dut. Eta musikari buruzko informazioa biltzen du, bai eta hango berrieekin eta historiarekin lotutako gauzei buruzko estekak ere.

Eta hona etortzen den jendeak hau zer den eta nora etorri den jakiteko interesa izatea nahiko nuke. Izan ere, hori iruditzen zait integratzeko modurik onenetako bat. Baina ez dut nahi esan gai batzuk ematea, ikas ditzazun eta azterketa bat egin dezazun. Hori ez da integratzeko modua. Besterik gabe, egun batean tragoxka batzuk hartzera edo frontoira joaten bazara, dezente ikasiko duzu jendeak hemen duen bizimoduari buruz. Eta hori garrantzitsua da.

Nik ildo horretatik jarraitzera animatuko nituzke integrazioaren arloan lan egiten dutenak, nahiz eta badakidan ez dela hain erraza eta formula aurkituko bagenu izugarria izango litzatekeela.

Etxean, ez dugu Nikaraguako festak-eta ospatzeko ohiturarik, baina amak hango platerak egiten ikasi du, eta maiz jaten ditugu. Gainera, orain errazagoa da produktu horiek eskuratzea; izan ere, Latinoamerikako produktuak saltzen dituzten denda asko daude, batik bat Gasteizen.

Hasieran, aitari dezente kostatu zitzaion hemengo janarira ohitzea. Dena den, orain ohitu egin da, eta esaten du gehiago gustatzen zaiola askotarikoagoa delako. Han, beti gauza berberak jaten dituzu.

Edonola ere, aita ez da, ez, nikaraguar prototipoa. Oso urduria eta puntuala da. Hainbestearino, non Nikaraguara doanean gogaitu egiten baita jendearen jokabidearekin. Amak esaten du nikaraguar kakalarriena aukeratu duela eta ni aita baino nikaraguarragoa naizela lasaiagoa naizelako. Hango gizartea eta ni primeran gatoz bat.

Izan ere, haiek beste erritmo batean bizi dira, eta nik, han nagoenean, hori balioesten dut gehien. Arazoak dituzte, jakina, baina zoriontsuak dirudite, nahiz eta kasu jakin batzuetan ia jatekorik ez izan. Nire ustez, klimak ere laguntzen du horrelakoa izaten eta gauzak horrela hartzen.

Ama beti egon da oso inplikaturik politikan, eta Nikaraguara joan izana oso lotuta dago haren ideia politikoekin. Eta aitak iraultza sandinistan parte hartu zuen. Hortaz, nik txikitatik bizi izan dut hori. Txikitatik ikusi dut teleberri albistegia eta eramanez manifestazioetara.

Politikan hezi naute, eta dezente eztabaidatzen dut haiekin gauza hauetaz. Izan ere, nahiz eta funtsean antzeko ideologia dugun, badaude bereizten gaituzten gauza batzuk.

Eta ez dut ulertzen politikaz paso egiten duela dioen jendea, hala nola nire lagun batzuk. Niri gustatu eta interesatu egiten zait. Izan ere, dena da politika: zure inguruko pertsoneri eragiten dien edozer gauza. Batzuetan, politikaz dugun kontzeptuak politikan aritzen direnei eta politikarekin etekinak lortzen dituztenei soilik egiten die erreferentzia. Baina zure ekintza guztiak eta hartzen dituzun erabakiak zure ideologiaren eraginpean daude. Nik oso argi dut hori, eta beti inplikatu nahi izan dut. Etorkizun hobea nahi dut niretzat eta nire jendearentzat. Gainera, hemen, Euskadin, oso giro politiko tirabiratsua bizi izan dugu, eta horrek jarreraren bat hartzera eta horretaz hitz egitera bultzatzen zaitu. Orain, agian kontua lasaitu egin da apur bat. Dena den, beti daude auzi sozial batzuk, inplikatzeko eta jarreraren bat hartzea eskatzen dutenak. Esaterako, 15 urte nituenean, herriko festetako batzordean egon nintzen, eta Gazte Asanbladan ere parte hartzen nuen.

Amaitzeko, nire bizitzari eman diodan errebasoaren ondoren, zerbait nabarmentzekotan, orain arte esan dezaket pribilegiatua sentitzen naizela. Bi herrialde, bi kultura eta bi errealitate ezagutzen ditut, eta leku bateko eta beste jendearekin batera bizi ahal izan naiz. Horrek beste era batera ikusarazten dizu mundua, eta gizartea hobeto ezagutzeko aukera ematen dizu: ohitura desberdinak, janari desberdinak, hitz egiteko modu desberdinak...

Dena beste era batera eta ikuspegi zabalago batekin ikusten duzu, eta nik uste horrek izugarrizko aberastasun handia eman didala.



Margareth dut izena...

...eta Ekuadorren jaio nintzen arren, badira hamabost urte Lazkaon bizi naizela. Gurasoak ere ekuadortarrak ditut. Tira, ama Kolonbian jaioa da, baina umetan Guayaquilera eraman zuten, eta hantxe bizi izan zen, aita bezala, harik eta biek hona emigratu zuten arte. Gurasoek ekarri ninduten Euskal Herrira.

Hiru ahizpa gara: nagusia, 28 urtekoa, eta ni Guayaquilen jaio ginen; txikiena, aldiz, hemen jaioa da, eta bederatzi urte ditu.

Gure aitak 1999an alde egin zuen Ekuadorretik. Bertako egoera ekonomikoa gaiztotu zenean, hemen bizi ziren senitarteko batzuek esan zioten hemengo bizimodua Ekuadorrekoa baino hobea zela, eta hona etorri zen: hasieran, Bartzelonan jarri zen bizitzen; gero, Donostiara etorri zen, eta azkenik, Beasainen hasi zen lanean okin modura. Hantxe geratzea erabaki zuen, eta etxea alokatu zuen Lazkaon.

Ama hurrengo urtean etorri zen, eta Donostiako jatetxe batean hasi zen lanean; eta bi urte geroago, 2002an, ahizpa nagusia eta biok ekarri gintuzten. Harrezkero Lazkaon bizi gara.

Gu Ekuadorren utzita ama Euskal Herrira etorri zenean, nik lau urte baino ez nituen, eta ez nintzen kasik ezertaz jabetzen. Ama joana zela-eta negar batean gogoratzen ditut ahizpa eta familiako guztiak, baina nik hegazkinez bidaia bat egitera joan zela esaten nien, eta laster itzuliko zela. Aitaren amarekin geratu ginen, eta berehala ohartu nintzen zer-nolako alde zegoen amonarekin bizi edo amarekin bizi.

Neguan iritsi ginen, eta, hain zuzen ere, eguraldia izan zen atentzioa eman zidan lehen gauza. Ekuadorren beroa egiten du urte guztian zehar, eta neguan ere ez dago zertan beroki astunik jantzi; hemen, ordea, neguan sekulako hotza egin ohi du. Sasoi hartan, gainera, gure etxeak ez zeukan gaur egungoak bezalako berogailurik, butanozko berogailu horietako bat baizik, eta hotzak egoten ginen.

Herriak berak ere atentzioa eman zidan: hango lasaitasunak eta hain txikia izateak. Ekuadorren hiriguneko auzo batean bizi ginen, eta kalean sekulako burrunba entzuten zen beti.

Beste desberdintasun handia hizkuntza zen, hemen jendeak euskaraz hitz egiten baitu.

Gurasoek ikastolara eraman ninduten, baina ez interes handia zutelako nik euskaraz hitz egiten ikas nezan, eskura besterik aurkitu ez zutelako baizik; berentzat erosoena eta gertuen geratzen zitzaiena horixe zelako, alegia. Ikastolan hasi nintzenean, dena egiten zitzaidan oso arraroa. Irakasle eta ikaskideek euskaraz hitz egiten zidaten, eta nik gaztelaniaz erantzuten nien. Haiekin komunikatzen saiatu arren, ez zidaten tutik ere ulertzen. Izan ere, Ekuadorreko gaztelania oso desberdina da hemengoaren aldean: kotxeari, adibidez, *carro* esaten diogu guk, eta nik *carro* esaten nuen bakoitzean, jendeak pentsatzen zuen erosketak egiteko orgatxoaz ari nintzela. Oso konplikatu zen dena. Ez nekien arazoa nirea zen, txineraz mintzo nintzela uste zutelako, edo beraiek ziren oso xeble hitz egiten zutenak.

Gainera, gurasoak oso goiz joaten zirenez lanera eta ahizparen ordutegia ere ez zetorrenez nirearekin bat, eskolak hasi baino ordu bete lehenago joan behar izaten nuen ikastolara. Tarte hori maistrarekin ematen nuen, negarrez, hitz egin nahi ez nuela eta ikastolara joan nahi ez nuela esanez.

Maistrak izugarri lagundu zidan hemengo martxara ohitzen. Denbora guztia elkarrekin pasatzen genuen. Oso maitagarria zen. Jendeak zer esan, hura itzultzen zidan, eta hizkuntza ikasi ahala, gauzak nabarmen hobetu ziren. Beti konpondu izan naiz oso ondo ikaskideekin, oso gustura egon izan gara elkarrekin. Gorabeherak ere izan ditugu, noski; baina ezer larririk ez: umeen artean arruntak diren kontuak besterik ez.

Gaur egungo nire lagun-taldea txikitatik ikastolan ibili garen lagunok osatzen dugu.

Lehen ikasturtean, gure gelan kanpoko ikaskide bat zegoen, beltza hura ere, baina ez dakit nongoa zen; gainera, ni ikastolara iritsi eta gutxira alde egin zuen.

Gaur egungo nire lagun-taldea txikitatik ikastolan ibili garen lagunok osatzen dugu. Lazkaon, lehenbizi ikastolara joaten gara Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza egitera, eta, gero, institutuan DBH eta Batxilergoa egiten ditugu: lagun guztiok egin dugu bide bera, eta horregatik jarraitzen dugu elkarrekin.

Lehen Hezkuntzako 4. mailara arte, pertsona bat jarri zidaten ikastolako lanekin lagundu nindezan. Eskolatik atera, eta berarekin egiten nituen etxeko lanak; batez ere adierazmena lantzen eta zalantzak argitzen laguntzen zidan, etxeko inor ez baitzen niri euskararekin laguntzeko gai. Ahizpak bazekien zerbait, baina ez zen oso ondo egokitu, eta Andoainera bidali zuten Batxilergoa gaztelaniaz egitera; bestela, izan ere, eta hizkuntzaren gorabehera hori dela medio, DBH errepikatu beharko zuen. Amak urtebete-edo eman zuen euskaraz ez zekiten

gurasoentzat antolatzen zituzten eskoletara joaten, baina, azkenean, joateari utzi behar izan zion, eskola-orduak lanarekin kointziditzen baitzuten. Beraz, zer edo zer ulertzen du, eta hitz batzuk ere ikasi zituen, baina ez niri laguntzeko lain. Lehen Hezkuntzako 5. mailan laguntza kendu zidaten, ondo omen zihoakidan-eta. Hurrengo urtean, ordea, gurasoak dibortziatu egin ziren, eta ikasketak piska bat okertu egin zitzaizkidan. Bost axola niri denak: esaten zidatena egiten banuen, ondo; kontrakoa eginez gero ere, gaizki ez. Tutorea gure bizilaguna zen, oso gertuko pertsona, eta esnatu egin behar nuela esaten zidan. Azkenean, ikasturtea gainditu nuen, baina larri-larri, hala ere.

Garai errebeldea izan nuen, oso: behar ez ziren erantzunak ematen nituen, eta horrela. Gaizki pasatzen ari nintzela ikusirik, tutorea zer egin aholkatzen hasi zitzaidan, lagundu egin nahi baitzidan. Hasieran ez nuen haren gomendiorik onartu nahi izan, ez bainuen uste burutik eginda nengoenik, baina onartzen dut asko lagundu zidala: barrena husten, batik bat.

Uste dut orduko nire portaerak zerikusi handia izan zuela gurasoak banandu izanarekin. Etxean liskar eta tirabira handiak bizi genituen, eta ni ere estu eta urduri nengoen, noski.

Gurasoak dibortziatu eta aitak etxetik alde egin zuenean, gauzek lasaitzera egin zuten; dena zen atseginagoa, eramaten errazagoa. Eta ikasketetan ere hobetzen hasi nintzen, irakasleen laguntzari esker. Izan ere, institutuan denek lagundu eta maitasun handia agertu zidaten.

Gainera, ahizpa txikia ere orduantxe jaio zen, eta horrek heltzen lagundu zidan: amak ez zeukanez etxean ahizpa txikia zaintzen gelditzerik, neu bihurtu nintzen haren zaintzaile eta, aldez edo moldez, baita ama ere; eta horrek, nahi eta nahi ez, burua zentzatzten dizu.

Kontua da, gainera, amak haurra izan zuen garai hartan bertan nire ahizpa nagusia haurdun geratu zela hemeretzi urterekin. Batxilergoa hasia zuen Andoainen, baina mutiletan hasi zen, eta ez zituen ikasketak bukatu, burua pixka bat galdu egin zuen-eta. Erizaintza gradua ere hasi zuen, baina hori ere ez zuen amaitu, artean Ekuadorrera joan baikin, eta han, gaur egun senarra duenaz maitemindu baitzen. Hona itzultzean jakin zuen, hain zuzen, haurdun zegoela.

Amak nahiko ondo hartu zuen berria, baina ahizpari dezente kostatu zitzaion aitari haurdun zegoela kontatzea, gure aita erretxin samarra baita. Azkenean, Ekuadorretik deitu zion, berria telefonoz emateko. Hasieran pentsatu zuen alaba adarra jotzen ari zitzaiola, baina ohartu zenean benetan ari zela, guk uste baino erreakzio hobea izan zuen.

Niretzat ere ez zen erraza izan, zeren eta ahizpa nagusia nire bigarren ama izan baita beti; eta, jakina, oso arraroa egin zitzaidan haur bat izango zuela jakitea. Amak Euskal Herrira ekarri, eta ahizparen mutil-lagunari kontratua egin zioten herriko okindegian, eta hurrengo urtean ezkondu ziren. Gaur egun, mutilak okin

lan egiten jarraitzen du, eta ahizpak, berriz, jatetxe batean sukaldari. Bizimodua ondo doakie. Hasieran, etxea alokatu zuten Lazkaon, baina iaz pisu bat erosi zuten lurren, eta orain han bizi dira.

Hona etorri eta bi urtera joan ginen bueltan Ekuadorrera lehen aldiz, nik zortzi urte nituela. Familiarenera joan ginen, amonarenera. Garai hartan, gurasoak bi etxe eraikitzen ari ziren Ekuadorren, eta batez ere lanak ikustera joan ginen. Niretzat opor moduko batzuk izan ziren haiek, bai bainekien handik Lazkaora itzuliko ginela. Nolanahi ere, ondo gogoan daukat zeinen ederki ibili ginen: lehengusu-lehengusinekin jolasten, adibidez.

Gerora ere beste bi bider joan gara Ekuadorrera, baina hamabi urte nituenetik ez naiz berriz joan, gurasoek orduantxe ekin baitzioten elkarrengandik banantzeari. Beraz, badira zortzi urte sorterrira joaten ez naizela. Eta ez pentsa, gustura itzuliko nintzateke, nire jaioterria batere ezagutzen ez dudala konturatu bainaz. Batez ere amona bizi den ingurua bisitatu nahiko nuke, gure etxea dagoen eskualdea. Izan ere, gu Guayaquilekoak garen arren, hiria ia ezagutu ere ez dut egiten. Eta familiakoak ere ikusi nahiko nituzke berriro, jakina; batez ere bi amonak, zahartzen hasita baitaude; izugarri sumatzen dut haien falta. Beti dabilta galdezka, ea bisitan noiz joango garen. Gustura joango nintzateke, bai, baina oporretan bakarrik, dagoeneko guztiz eginda bainago hemengo bizimodura.

Nire aitaren asmoa, hasiera-hasieratik, Ekuadorrera itzultzea izan da, nik ikasketak amaitu bezain pronto hara joatea; horregatik eraikiarazi zituen hango gure bi etxeak.

Nire aitaren asmoa, hasiera-hasieratik, Ekuadorrera itzultzea izan da, nik ikasketak amaitu bezain pronto hara joatea; horregatik eraikiarazi zituen hango gure bi etxeak. Gero, ordea, amagandik banandu, eta gauzak erabat aldatu dira. Eta orain bi etxeak errentan jarri ditu. Gaur egun, gure aita joan-etorri etengabe bizi da: sei hilabete ematen ditu Ekuadorren eta beste hiru hemen. Baina ahizpa txikia eta ni hemen gaudelako ibiltzen da horrela, noski. Oraingo horrelaxe jarraituko omen du, baina, ziur asko, urte batzuk barru Ekuadorren geratuko da bizitzen. Gainera, hango neska batekin ateratzen hasi da; antza denez, familiaren aurrean ere aurkeztu du neska. Beraz, orain are motibo gehiago ditu bere bikotekidearekin eta amarekin Ekuadorren geratzeko.

Gure ama, ni bezala, ohitu egin da hemengo martxara; hementxe dauka egina bere bizimodua. Gu alokatutako etxe batean bizi izan gara Lazkaon, ez dugu inoiz etxerik erosi nahi izan. Orain, ordea, amari ideia hori dabilkio buruan: etxea erostea, alegia. Horrek esan nahi du oraingo ez duela hemendik alde egiteko asmorik. Dena dela, edozein arrazoirengatik joan behar bagenu, hemengo etxea errentan jarriko genuke, horrela Ekuadorren dugun etxean lasai bizitzeko. Ama oso gustura bizi da Lazkaon, eta etxea bertan erostekotan dabil. Niri ere, egia esan behar bada, inguruko herriak baino gehiago gustatzen zait Lazkao.

Beasain handiagoa da, eta trena ere pasatzen da bertatik, baina ni ohitu naiz gure herrian bizitzera, eta ez nuke ezergatik aldatuko.

Nire ilobak urte bat baino gutxiago zuela, ahizpa nagusiak denbora bat eman zuen Ekuadorren bizitzen, baina gero hona itzuli zen: lehenbizi, alabarekin etorri zen; gero, senarra batu zitzaien. Izan ere, ahizpari ere asko gustatzen zaio Lazkao. Orain, goraxeago esan dudan bezala, pisua erosi du hemen, eta ez dauka alde egiteko inolako asmorik. Ahizpa ere ari da Ekuadorren etxea egiten, baina oporretan joaten direnean bertan lasasi-lasai egoteko dela esango nuke, hau da, gure etxera edo senarraren familiarenera joan beharrik ez izateko. Gainera, etxea errentan jar dezake, dirua hona ekartzeko. Koinatuak eta nik sarritan hitz egin dugu kontu horretaz: berak ere badaki, noski, seme-alabak denborarekin bertakotu egingo zaizkiola, eta argi dauka 50 urterekin-edo Ekuadorrera itzultzen bada (eta horixe da bere asmoa, bai eta ahizparena ere), seme-alabak hemen geratuko direla, eta ongi iruditzen zaio.

Nik uste dut azkenean alde egingo dutela, baina ez orain, zahartzean baizik. Nire iloba ahizpa txikiaren adinekoa da, eta ziur nago hazi eta lagunekin ateratzen-eta hasten direnean, nahiago izango dutela hemen geratzea Ekuadorrera joatea baino. Neuri ere horixe gertatu zait, eta haiek, gainera, hemen jaioak dira, ni ez bezala.

Nongoa naizen galdetzen badidate, nik Ekuadorrekoa naizela esaten dut. Izan ere, igarri egiten zait kanpokoa naizela. Baina, egia esan, nik euskalduntzat daukat neure burua, hemen hazi izanak pisu handia baitu nigan. Txikitatik bizi izan naiz hemen, hemen egin dut nire bizitza osoa. Bi lekutakoa naiz, Euskal Herrikoa eta Ekuadorrekoa, baina euskaldunagoa sentitzen naiz.

Bi lekutakoa naiz, baina euskaldunagoa sentitzen naiz.

Jende askok galdetu izan dit, eta ez nau mintzen inondik ere, berdin-berdin zait. Badut lagun bat txokolatezkoa naizela eta halakoak esaten jarduten zaidana, baina txantxetan, noski; ez ditut inola ere gaizki hartzen haren esanak, nik ere oso gogoko baitut barre egitea. Gero, ordea, amari kontu horiekin joaten natzaio, eta hari ez omen lioke batere graziarik egingo. Txantxak besterik ez direla eta neuk ere halaxe hartzen ditudala esplikatatu behar izaten diot beti.

Beste kontu bat da familiarekin sartzea; hori ez zait batere gustatzen. Izan ere, ahizpa txikia gu baino txuriagoa da. Hiru ahizpen artetik, neu naiz beltzaranena. Gure amak azal argia, ile horia eta begi urdinak ditu, ahizpa nagusiak bezala. Antza dugu, baina kolorearen kontrastea handia da.

Hori dela eta, batzuetan jendea esamesaka hasten da, ez direnak iradokiz, ahizparekin batere antzik ez dudala-eta. Nik ez ditut oso gaizki hartzen, baina azkenean nekatu egiten naiz. Desberdinak gara, eta kito.

Institutuko lagunekin ateratzen hasi nintzenean, Lazkaon ibiltzen ginen. Ona egiten bazuen, mendira joaten ginen; eta txarra eginez gero, Gaztelekuan

geratzen ginen, edota Eroskin patatak erosi, eta aterpeetara joaten ginen kartetan edo beste edozertan jolastera.

Patinekin ere dezente ibiltzen ginen eta, futbolearen ere aritzen ginenez, Beasaingo batzuekin geratzen ginen. Batzuetan gu joaten ginen hara, baina eskuarki beasaindarrak etortzen ziren Lazkaora. Eta, bestela, banku batean eseri eta pipak jaten ematen genuen denbora.

Nire taldeko lagun guztiak Lazkaokoak dira, ez dago inor kanpoan jaioa denik. Gaur egun kanpoko jende dezente dabil inguru hauetan, baina ez pentsa garai hartan asko ginenik atzerritik hona bizitzera etorriak.

Eskolara iritsi berritan, mundu guztia begira geratu eta galdezka hasi zitzaidan, nongoa nintzen jakin nahian, baina, egia esan, nik inori ez nion begiratu arrarorik igarri. Jakina, gurasoak ni baino lehen etorriak ziren (ezagunak, beraz), eta agian horregatik izango zen.

Lanak uzten zionean, ama gure bila joaten zen eskolara, eta harreman polit askoa ehundu zuen nire ikaskideen amekin. Asteburuetan ere, ni lagunekin geratzen nintzenean, ama taberna batera joaten zen gainerako amekin. Amek ez zuten, noski, lagun-talderik osatzen, normalean bikotekidearen lagunekin ateratzen baitziren; baina, edonola ere, oso ondo konpontzen ziren elkarrekin, eta berdin dio zergatik elkarrekin egon beharra sortzen bazitzairen, zerbait hartzeko aprobeztatzen zuten.

Lagunak elkartzen ginenean, hurrengo egunean amek elkarrekin hitz egiten zuten, zer ordutan etxeratu ginen jakiteko; alegia, gutako bakoitzak esandakoa besteek esandakoarekin bat zetorren ikusteko. Uste dut hasieran 12ak arte-edo uzten zigutela; gero, pixkanaka-pixkanaka, etxeratzeko ordua luzatuz joan zen. Batxilergoan, lagunetako askori ez ziguten ordurik jartzen, eta 4:30ak aldera erretiratzen ginen. Eta, jakina, Urtezahar-gauean nahi bezala ibiltzen uzten ziguten, egun hori oso berezia baita guretzat, Beasainera joaten gara-eta; horrelakoetan, gosalduta etxeratu ohi gara.

Aitarekin, gauzak oso bestelakoak ziren. Aitak lanean ematen zuen eguna, eta asteburuetan Beasainera joaten zen beste latindar batzuekin boleibolearen jolastera. Baina gure amak ez zituen halako planak atsegin, ez baitzaizkio kirolak gustatzen. Aitarekin joaten zenean ere, bazter batean geratzen zen begira; esango nuke dezente aspertzeko zela.

Ordiziara ere joaten gara, batez ere ahizpa nagusia eta biok, aitaren arreba han bizi baita familiarekin. Gehientsuenetan oso gustura joaten naiz, lehengusuak ero samarrak baitira, eta hantxe ibiltzen gara, algaraka. Gure urtebetetze-eguna ere elkarrekin ospatzen dugu.

Amaren aldeko familia Donostian bizi da, eta askotan elkartzen gara; batzuetan, geu joaten gara Donostiara, eta beste batzuetan, haiek etortzen dira hona.

Amaren lagun ekuadortarrekin ere elkartzen gara sarri samarretan. Ni ere joaten naiz, baina pentsatzen badut hitzordua gehiegitxo luzatuko dela edo beste zerbait egin behar badut, ez naiz joaten. Gainera, gurasoen lagunaren seme-alabak ni baino txikiagoak dira, eta ez daukagu zerikusirik handirik. Baina, tira,

ederki pasatzen dugu elkarrekin: batzuetan zirikatut egiten ditut, eta jolasean aritzen gara.

Asteburuetan ahizparekin eta koinatuarekin elkartzen garenean elkarrekin afaltzeko, janari ekuadortarra jaten dugu; eta astegunetan ere, amak gogoa baldin badauka behintzat, hango jakiren bat prestatzen du. Urtezahar-gauean, paperezko, kartoizko eta ehunezko panpina bat egiten dugu, gaueko 12etan erretzen duguna, ustez urtean zehar gertatutako gauza gaizto guztiak uxatzeko eta gauza onak erakartzeko. Eta, bitxia badirudi ere, azkenaldian amaren eguna hiru aldiz ospatzen dugu: maiatzeko lehen igandean, Ekuadorren orduantxe ospatzen baita; hemen ospatu ohi den egunean; eta Kuban ospatzen duten egunean, gure lehengusina bat kubatar batekin ezkondu baitago.

Beste ohitura bat ere badugu, erlijioarekin eta teknologia berriekin lotua. Ekuadorreko gure familiakoekin WhatsApp-eko talde bat dugunez, hango baten bati zerbait gertatzen bazaio, haren alde errezatzeko eskatzen digute; hala, haiek mezatan elkartzen dira errezatzeko, eta gu, berriz, etxean.

Izan ere, amaren senitartekoak oso katolikoak dira; amona, batez ere. Igandero joaten da mezatarara, eta astegunetan ere oso sarri. Asko errezatzen du.

Amaren anaia nagusia Austrian bizi da, eta erlijioa eskolak ematen ditu. Orain dela urte batzuk bisitan joan gintzaizkion. Amaren ahizpa Guayaquilen bizi da, eta hura ere oso elizkoia da.

Donostian bizi den anaia eta gure ama ere katolikoak dira, baina ez hainbeste. Eta gu ere berdin: denok gara katolikoak, horrelaxe hezi gaituzte, mezatarara ere joaten gara noizean behin, eta Jainkoarengan sinesten dugu, baina ez gara oso praktikanteak.

Gure lagun-taldeko gehienek ez dute ezertan sinesten, eta askotan galdetzen didate ea ni sinestuna naizen. Nire ustez, Jainkoa badela irakatsi badizute, errazena horretan sinestea da. Nire lagunentzat hori harrigarria da, baina niretzat ez. Nik errespetatu egiten dut ezertan sinesten ez duena, baina niretzat ere errespetua eskatzen dut, nik Jainkoarengan sinesten baitut.

Inoiz seme-alabak baldin badauzkat, ahizpa nagusiak egin duena egingo dut nik ere, hura ere, ni bezala, sinestuna baita, baina ez oso praktikantea. Alaba katekesira eramane du, eta Lehen Jaunartzea egin du. Eta noizean behin mezatarara joaten dira. Nire ahizpa txikia ere joan da katekesira, eta orain gauero errezatzeko ohitura hartu du. Nik ere halaxe egiten nuen, baina denborarekin ohitura hori galdu egiten da. Otorduen aurretik errezatzeko ohitura ere galdu egin dugu. Ekuadorretik hona etortzean, beti egiten genuen, baina orain ez. Katolikoak eta sinestunak gara, baina ez gara praktikanteak. Erlijioaren kontu

Inoiz seme-alabak baldin badauzkat, ahizpa nagusiak egin duena egingo dut nik ere, hura ere, ni bezala, sinestuna baita, baina ez oso praktikantea.

hori dela eta, gure aita zer den zehatz esaten ez nuke asmatuko. Jainkoarengan sinetsi sinesten du, baina Ama Birjinari ez dio kasu handirik egiten.

Aitari beti gustatu izan zaio politika: egunean-egunean gertatzen denaz informatuta egotea, alegia. Amak, ordea, politikariak begitan hartuak ditu; kontua da amak osaba politikari bat zuela, amonaren anaia, hil egin zutena, eta hortik, ziur asko, bere mesfidantza. Amaren etxean gehiago hitz egiten zen erlijioaz politikaz baino. Eta, egia esan, gure amak ez daki gauza handirik politikaz.

Onartzen dut politika inportantea dela, jakin beharreko zerbait, baina niri ez zait inoiz sobera interesatu. Baliteke etxean amak interesik agertu ez izanak eragina izatea nire jarreran. Lagun bat daukat Zuzenbidea ikasten ari dena eta politika-kontuetan oso sartuta dabilena: hauteskunde-garaian, elkarrekin egoten gara, eta azalpenak ematen dizkigu botoa nori eman jakiteko. Baina, egia esan, ez dut politikaz tutik ulertzen, eta amorrua ematen dit.

Lagunen artean bai hitz egiten da politikaz noizean behin; baina betikoak aritzen dira horretan batez ere, besteok berrikerari ekiten baitiogu: paso egiten dugula, alegia.

Nik argi neukan DBH bukatzean Batxilergoa egingo nuela. Ahizpak ikasketak bukatu ez izanak neure buruari helburu hori jartzeko balio izan zidan. Bera maitemindu egin zen, eta hain zuzen horregatik neure buruari hitz eman nion Batxilergoa amaitu arte ez nintzela mutiletan hasiko. Eta emandako hitza bete nuen.

Baina beti izan naizenez ikastearen aldekoa, eta lagunak ere unibertsitatera joatekoak zirenez, orain karrera amaitzea hartu dut helburutzat.

Hamazortzi urterekin Batxilergoko titulua eskuratzean, institutuko lagunekin Saloura joan ginen. Bikain pasatu genuen, eta bidaia mutiletan hasteko aprobetxatu nuen.

Baina beti izan naizenez ikastearen aldekoa, eta lagunak ere unibertsitatera joatekoak zirenez, orain karrera amaitzea hartu dut helburutzat. Letretako Batxilergoa egin

ondoren, hiru ziren gehien erakartzen ninduten karrerak: Zuzenbidea, Irakasle Ikasketak eta Enpresa Ikasketak. Azkenean, Zuzenbidea egitea erabaki nuen.

Ongi hasi nintzen, baina lehen lauhilekoaren erdialdean ohartu nintzen ez zegoela nire arreta erakartzen zuen ikasgairik. Amari kontatu nion, eta ez kezkatzeko esan zidan, hobe zela horretaz lehen ikasturtean konturatzea karreraren amaieran baino.

Garai hartan, aita Ekuadorren zegoen. Hasieran, Zuzenbidea ikastekotan nobilela esan nionean, oso pozik jarri zen, alaba abokatua izango zuela pentsatuz. Errespetu handia izan diot beti aitari, ikastearen garrantzia irakatsi baitit. Horregatik, karrera uztera nindoala esan nionean, ez nekien nola erreakzionatuko zuen. Hasieran harritu egin zen, baina, gero, aurrera egiteko esan zidan, benetan hori nahi banuen, berak ez zidala zer egin esango, kontua ni gustura egotea baitzen. Gainera, esan nionean Irakasle Ikasketak egingo nituela, oso ongi iruditu zitzaion, bera gorputz-heziketako irakaslea izana

baitzen Ekuadorren. Oso karrera ona iruditu zitzaion, eta animoak eman zizkidan aurrera jarrai nezan.

Beraz, aurtan Irakasle Ikasketei ekin diet EHU. Oso pozik nago, baita ikasgaiekin ere. Hurrengo urtean praktikak hasiko ditut, eta ezin gusturago nago.

Gainera, orain eskola partikularrak ematen dizkiet zenbait neska-mutili. Eskarmentua hartzeko balio dit, eta baita sos batzuk irabazteko ere. Eta hori oso ondo dago, horrela ez baitut amari dirua eskatzen ibili beharrik.

Haur Hezkuntzatik hasi eta DBHra bitarterainoko neska-mutilei ematen dizkiet eskolak. Denak dira kanpokoak: batzuk amaren lagunen seme-alabak, eta beste batzuk ikastolak bidaliak.

Bitxia da ni orain laguntza-premian dauden neska-mutilei eskolak ematen aritzea, batez ere euskarakoak eta mintzamenekoak; hau da, garai batean okerren neramatzan alorretakoak. Ez da neure buruari loreak botatzeagatik, baina mundu guztiak esaten dit euskaraz oso ongi moldatzen naizela. Lagunekin euskara hutsean hitz egiten dut, eta beti esan izan didate eskolak emateko bezain maila ona nuela.

Ingelesarekin, ordea, ez naiz hain ongi moldatzen. Nik uste dut begitan hartu nuela, hona etortzean euskara bihurtu baitzen nire hizkuntza, eta ingelesa, berriz, ez zen ikasgai bat besterik. Eta, gainera, beti niri galdetzen zidaten, eta nik ez nekien zer erantzun.

Ahizpa nagusiari askotan aholkatu izan diot alaba ingeleseko eskoletara apuntatzeko. Izan ere, zer adin duen kontuan hartuta, askoz errazago ikasiko du. Nik ere hasi beharko nuke, baina asko kostatuko zait ikastea.

Gurasoen dibortzio-prozesua oso gogorra izan zen, batez ere hasieran, oso gaizki eraman bainuen. Tratu txarregatik banandu zen ama, eta tartean aitaren kontrako urruntze-agindu bat ere bazegoen. Hasieran, bi asteburuz behin egon behar izaten nuen aitarekin, baina nekatu egin nintzen. Ahizpa txikia eramatera joan behar izaten nuen. Kontua da gurasoek ez zutela elkar ikusi ere egin nahi, ez zirela elkarrekin hitz egiteko gai, eta, jakina, nik ibili behar izaten nuen batek esandakoa besteari esaten: esan hau amari, esan beste hori aitari, eta horrela. Nik beren kontuetan sartzeko batere asmorik ez nuela esan nien azkenean. Gainera, esandakoa aitaren edo amaren gustukoa ez bazen, epelak entzun behar izaten nituen.

Ni oso alaia naizen arren, izaeraz aitaren antzekoa naiz: gauzak argi esaten ditut, eta zerbati gustatzen ez bazait, bota egiten dut, aurrean daukadanari gustatuko zaion pentsatu gabe. Ahizpa, adibidez, duda-mudatan ibiltzen da pentsatzen duena esan ala ez, aitzak zer erreakzio izango duen beldurrez. Horretan amaren antzekoagoa da, badaezpada pentsatzen duen hori ez esatearen aldekoa, kalte egingo duelakoan edo giro txarra sortu duelakoan.

Amak ez du atsegin nire izaeraren parte hori, baina nik beti esaten diot horrelakoxea naizela, eta, beraz, ez dela nire arazoa.

Amari aitaz hitz egiteak ere beldurra ematen zidan hasieran, ez bainekien ondo ala gaizki hartuko zuen, edo zer arraio esango zidan.

Orain aita nire ahizparen Lehen Jaunartzera etorri da, eta badirudi gurasoen arteko harremana hobeto doala; elkar agurtzen dute behintzat, eta ez da gutxi, batez ere nire ahizpa txikiagatik, berak ez baitaki amak, ahizpa nagusiak eta nik zer bizimodu izan dugun. Eta merezi du gurasoek ahalik eta harremanik atseginena izatea.

Gure aita ahizparenean jarri da bizitzen, baina lana aurkitzen badu, logela bat alokatuko du Beasainen, hona etortzen denero egin ohi duenez. Eta, oraingoz, badirudi orain arte bezala jarraitzea erabaki duela; alegia, Ekuadorretik hona eta hemendik Ekuadorrera.

Aurrerantzean ere ikasten jarraitu nahi dut, eta Erasmus moduko batekin Latinoamerikara joan. Ni Mexikora joango nintzateke gustura, baina ama beldurti samarra da, eta ondo pentsatzeko esan dit, Mexiko herrialde arriskutsua dela. Gainera, ondoko herriko bat hara joan eta istripu batean hil zen, eta ama ikaratuta dago nire ideiarekin. Oso urruti egongo naizela esaten dit, bera ez dela han egongo niri laguntzeko, eta antzeko kontuak. Ez dirudi, beraz, nire ideia asko gustatzen zaionik.

Nolanahi ere, Ameriketara joan nahiko nuke, hango hezkuntza-metodologiak bertatik bertara ezagutzeko, Europakoan aldean oso desberdinak direlako. Baina, tira, Europako herrialde batera ere joango nintzateke. Gainera, horrela nire ingelesa hobetuko nuke. Eta ama ez litzateke hainbeste beldurtuko, nahiz eta badakidan ni etxetik kanpo egote hutsak gaixotu egingo duela. Kontuak kontu, oraindik ere badut astia nora joan pentsatzeko, bi ikasturte barrura arte ez baitago ezer erabakitzerik.

Karrera amaitzean hemen lanik aurkitzen ez badut, kanpora joango naiz, baita jatetxe batean edo beste edozertan lan egin behar badut ere. Amak ere badaki

Karrera amaitzean hemen lanik aurkitzen ez badut, kanpora joango naiz. Amak ere badaki hori. Hemendik alde egin eta mundua ezagutu nahi dut.

hori. Hemendik alde egin eta mundua ezagutu nahi dut. Horrek ama beldurtu egiten du, ahizpa txikiarekin bakarrik geratuko bailitzateke. Lana aurkitu bezain pronto, ordea, ama nirekin eramango nuke, eta hori ere badaki. Ni beti izan naiz oso amarena, eta izugarri kostatuko litzaidake beragandik banantzea.

Argi dut irakasle lan egin nahi dudala. Ez dakit non, baina maistra izan nahiko nuke. Eta azkenean Lazkaon osatzen badut familia, hainbat hobeto. Txikitatik bizi izan naiz hemen, eta hementxe bizi nahi nuke. Izan ere, ahizpa txikiak ere hementxe egingo du bizimodua, eta ia egunero ikusten ditudan lagunek ere bai.



Ahmed dut izena...

...eta 31 urte ditut. Nire gurasoak marokoarrak dira, baina ni Bilbon jaioa naiz. Nire lau anaia-arrebak ni baino zaharragoak dira, eta haiek guztiak ere hemen jaioak dira.

Gurasoak duela 45 urte iritsi ziren Euskadira, eta hona etorritako marokoarren lehen belaunaldikoak dira. Marokoko landa-eremu batekoak dira izatez, eta landa-exodoan parte hartu zuten lehenik. Tetuanera joan ziren aurrena, baina han ere egoera zaila zenez, hona etortzeko eskabidea izapidetzen hasi ziren.

Aita izan zen handik irteten lehena; Tarragonara joan zen lagun batekin, han lana zegoelako. Igeltsero-lanak egin zituen han, baita topatzen zituen beste batzuk ere. Urtebeteren buruan, amak ere paperak lortu zituen, eta aita Marokora itzuli zen haren bila, elkarrekin hona etortzeko. Kontakturen bati esker Eibarren jarri ziren bizitzen, tokiko geografiari buruz ezer jakin gabe, lan-arrazoia tarteko, egonkortasun bila. Ez zen izan leku polita delako, inola ere.

Garai hartan, Kantauriko autopista eraikitzen ari ziren, eta portugaldar eta marokoar jatorriko jende asko kontratatu zuten, gaztelarrez eta extremadurarez gain. Haietako bat izan zen nire aita.

Autopista amaitu zutenean, enpresak Segoviara joatea proposatu zion aitari, eta hara joan zen amarekin. Egia esan, ez zuten aukera handirik, zaila baitzen lana lortzea kualifikaziorik gabe eta hizkuntza ongi jakin gabe.

Amari ez zitzaion gustatu leku hura, eta ez hotzagatik eta elurragatik bakarrik. Kontatu didanagatik, hango jendea hemengoa baino itxiagoa zen, eta ez zeuden hain ohituta kanpotarrekin tratatzen. Begiratu nahiko desatseginak botatzen zizkieten, antza denez.

Gauzak horrela, amak ultimatuma bota zion aitari: han jarraitzekotan, Marokora itzuliko zela esan zion. Hala, Eibarrera itzuli ziren, han bazirelako marokoar jatorriko familia gehiago, bederen.

Nikuste, inguruan familiarik ez duzunean zure *herrikideek*, nolabait esatearren, hartzen dutela haien lekua. Azkenerako, zure herrialdeko jendearekin elkartzen

Inguruan familiarik ez duzunean zure *herrikideek*, nolabait esatearren, hartzen dutela haien lekua.

zara, zure hizkuntza hitz egiten dutenekin. Izan ere, gurasoek arabiera baino ez zekiten hona iritsi zirenean. Marokon geratuz gero, behar bada ez zenukeen pertsona horiekin harremanik izango eta ez zenukeen haiekin ezer partekatuko, baina hemen bai.

Dena den, alde batetik laguntza ematen duten arren, kalte ere egin dezakete batzuetan, elkar kritikatzeko eta ika-mikak izateko joera handia baita komunitate horretan.

Hala, Eibarren jaio ziren nire bi anaia-arreba zaharrenak, 40 urtekoa bata eta 38 urtekoa bestea. Familia Bakion bizi izan zen gero, denbora tarte labur batez, eta, azkenean, Bermeon finkatu zen. Han egin dugu bizitza osoa. Nahiz eta anaia gazteena, 32 urtekoa, eta biok Bilbon jaioak garen, Bermeon egin dut bizitza osoa.

Bermeon ikasi dugu lau anaia-arrebok, irakaskuntza publikoan. Urte askoko aldea dago anaia-arrebon artean, eta, horregatik, bi belaunalditakoak bagina bezalakoak gara.

Zaharrenek gaztelaniaz ikasi zuten, garai hartan bazelako horretarako aukera eta gurasoek, ezjakintasunagatik edo, eredu horretan sartu zituztelako.

Alabaina, Bermeo herri txikia eta euskalduna denez, euskaraz jakin behar duzu harremanak izateko. Hori gutxi balitz bezala, gainera, urte haietan handia zen borrokarako grina eta handia zen euskara ikasteko joera. Gauzak horrela, anaia zaharrak euskara ikasi zuen, euskaltegian eta lagun artean, bere lagun guztiak euskaldunak baitziren.

Arreba, berriz, ostalaritzan lanean hasi zen laster, eta tabernara joaten zen jendearekin ikasi zuen euskara. Kaleko euskara egiten du, baina primeran ulertzen du guztia.

Ni ikasten hasi nintzenean, aitzitik, D eredu bano ez zegoen, euskarazkoa. Gainera, anaia-arreba zaharrek gurasoei esan zieten hobe zela euskaraz ikastea haiei gertatu zitzaiena guri ez gertatzeko.

Euskaraz hitz egiten zuten mutikoekin ikasi nuen, eta euskarazko abesti ezagunak abesten genituen elkarrekin, ongi-ongi ulertzen ez nituen arren. Nahaspila ederra nuen buruan, gurasoekin arabieraz, anaia-arrebekin gaztelaniaz eta kalean euskaraz hitz egiten bainuen. Ongi gogoan dut garai hartako nahaspila hura.

Dena den, marokoar edo pakistandar jatorriko familiek —mordoa dira orain— horri buruz galdetzen didatenean, euskaraz ikas dezaten animatzen ditut, errazago egingo baitute bidea horrela alderantziz baino.

Konturatu gabe ikasiko dute gaztelania: eguneroko bizitzan, telebistan entzunda edo komunikabideen bitartez. Hobe da euskara txikitik ikastea. Izan ere, gerora zailago egingo zaie, eta, gainera, askotan eskatuko diete lanerako. Lagungarri izango zaie beste hizkuntza batzuk ikasteko ere, hala nola ingelera edo frantsesa ikasteko, horretan lagunduko dieten tresna gehiago izango baitituzte.

Hori guztia aipatzen diedanean, jaramon egiten didate eta lasaiago geratzen dira, ikusten baitute beraiek bizi duten egoera bera bizi izan duen norbait ari zaiela hizketan.

Kidekoekin izandako harremanari buruzko oroitzapenek gehiago dute gazitik gozotik baino. Burura datozkit batzuetan, oraindik ere, eta garai nahiko tristetzat dut gogoan. Arraro sentitzen nintzen, desberdin. Izan ere, mukizu haiek tentel hutsak ziren, eta *puto moro* esatea zen gu iraintzeko modu errazena.

Nire izena haiena ez bezalakoa zen arren, hemen jaioa naiz, eta zer pentsatu ez nekiela geratzen nintzen gutxien espero nuenean hala iraintzen nindutenean. Umeen artean bezala herrian ere, desberdinak ginen, marokoarrak.

Nire izena haiena ez bezalakoa zen arren, hemen jaioa naiz, eta zer pentsatu ez nekiela geratzen nintzen gutxien espero nuenean hala iraintzen nindutenean.

Esames haiek guztiek min egiten zidaten, nire gurasoak langile porrokatuak zirelako eta ikusten nuelako ez ginela beste familia batzuen maila berean bizi. Gainerakoena baino askoz etxe kaskarragoan bizi ginen, eta pobrezia atarian geunden. Horrek ez du esan nahi, ordea, inor baino gutxiago garenik, ez eta lapurrak garenik ere. Gurasoek gogor egiten ziguten lapurreten kontu horrekin. Balioak oso argi geneuzkan eta bagenekien hori galarazita zegoela. Ez zen aukera bat inola ere eta hobe zen edozertan lan egin lapurtu baino.

Hori horrela izanik, min handia egiten zidaten zenbaiten konfiantza faltak eta begiradek.

Ez dut esan nahi mundu guztia halakoa zenik, noski. Zorionez, oso irakasle onak izan nituen, eta haien oroitzapen onak ditut. Baziren gu euskaraz entzuteaz pozarren zeuden gurasoak ere.

Ikaskideekiko harremanean baziren gorabeherak, baina nire adinekoekin, oro har, ongi konpontzen nintzen. Zaharragoek iraintzen ninduten, goiko mailakoek. Gainera, garai hartan oso jende gutxi matrikulatzen zen eskola publikoan. Jendeak nahiago zuen ikastolara joan. Eta hori gurean ere D eredu baina ez zegoela.

Batekoek eta bestekoek ezin genuen elkar ikusi eta haiek ez zuten gurekin ibili nahi. Eskola publikoan ere baziren euskaldunak, eta haiek arazo gutxiago izan zituzten. Guk, ordea, dena genuen aurka. Izan ere, garai hartan ez zen atzerritarrik ikastolan, eta herrian ginen gutxiok eskola publikora joaten ginen. Magisteritza ikasi dut, eta betidanik kezkatu nau eskola publikoaren eta ikastolaren arteko bereizketa horrek, aurkakotasun horrek, txiki-txikitatik politika buruan sartze horrek, eta eskola publikokoak baliabide gutxien duten koitaduak eta erdaldunak direla buruan sartze horrek. Izan ere, hori ez da horrela, inondik inora.

Onartu beharra dut gatazka-sentsazio horrek asko eragin zidala garai hartan.

Horregatik guztiagatik, zailtasun handiak izan nituen lagun taldea egiteko. Izan ere, hain gutxi ginenez gelan eta ikastolakoekin jai genuenez, ezinezkoa zen. Saiatu arren, alferrik.

Futbolean edo arraunean hasitakoan soilik izan zenezakeen tratua haiekin, horretarako mundu guztia elkartzen zelako. Hala eta guztiz ere, bereizketa handia zegoen, eta oso zaila zen koadrila batean sartzea.

Eskolan, pare bat lagunekin ibiltzen nintzen, anaia bere adinekoekin ibiltzen zelako eta neskak neskekin ibiltzen zirelako. Gogorra zen, jaietan koadrila handiak ikusten nituelako, eta ni han nengoelako, bi katurekin.

Min egiten zidan, asko gustatzen baitzait jendearekin ibiltzea, eta lagunik ez zuen gizarajoa nintzela zirudielako. Behin eta berriz galdetzen nion nire buruari zergatik gertatzen ote zitzaidan hori.

DBH egiten hasitakoan lehen belaunaldikoak ginen gu, eta Gernikako Institutura joan nintzen horretarako. Aldaketa hori primerakoa izan zen niretzat. Zenbait herritako jendea elkartu ginen han, eta askoz gehiago ginen, 70 bat nire mailan. Jendea koadrila eginda joan zen hara ere, baina, gutxienez, beste herriren batera joan nintekeen, noizean behin, lagunak bisitatzerara. Azkenean, ordea, beti antzematen zen zer lagun-estatus nuen, eta apur bat noraezean geratzen nintzen. Egia da lagun taldea handitu egin zela, baina, hala ere, inorena ez den lurrean jarraitzen nuen.

Batxilergoan hasi nintzen ikastolako jendearekin harreman gehixeago izaten, haietako batzuk ere Institutura joan zirelako horretarako, baina koadrila-kontuak apartekoak ziren, eta alde batera geratzen ginen, beti.

Gainera, garai hartan ez nuen modurik kontu horri aurre egin eta zer demontre gertatzen zen galdetzeko. Gaur egun, egingo nuke, bai, uste baitut inozokeria hutsa dela umetako edo gaztetako kontuek pertsona baten bizitza osoa markatzea.

Lauzpabost urterekin joan nintzen lehen aldiz Marokora. Aitak hogeit hamar egun baino ez zituen, eta arrapalada batean ibili ginen. Bidaia hura tortura hutsa zen. Autobusez joaten ginen Algecirasera, eta itsasontziz handik Ceutara. Azken hori zen bidaiaren zatirik dibertigarriena. Muga pasatzea oso gogorra zen, eguzkiak gogor jotzen baitzuen eta, gainera, auto mordoak baitzegoen. Eta hori gutxi balitz bezala, beti eramaten genuen maleta mordoak, han uzteko arropaz eta beste zenbait gauzaz beteta. Ceutan aitaren senitarteko batek jasotzen gintuen, eta hark eramaten gintuen herriraino.

Hau ez bezalako lekua zela dut gogoan, leku *basati* samarra zela. Asfaltatu gabeko herrien eskualde batean zegoen. Ez zegoen argindarrik eta kalera irten behar zen ur bila. Egongelan egiten genuen lo guztiok, *tetrisean* bezala, sardinalata batean bezala. Oroitzapen bitxiak dira. Hirugarren mundua zela iruditzen zitzaidan.

Sei urterekin joan nintzen hurrena, Eguberrietan. Zirkunzisia egitearren joan ginelakoan nago, hemen ez zutelako halakorik egiten. Oso traumatikoa izan zen, bahitu izan banindute bezala. Gozoki bat eman behar zigutela esan, eta, zas, ohatilan etzan eta kirolan eraman gintuzten. Han esnatu ginen, minez... Gogorra izan zen.

Eta gainera, Eguberriak zirenez eta oparirik jaso ez genuenez, are gehiago haserretu ginen. Azkenean, gu kontsolatze aldera, opari kaxkar erosi ziguten bidean. Tamalgarria benetan.

Helduago egin ahala, gero eta gehiago hasi ginen gauzez jabetzen. Handik gentozela onartzen hastea bezala izan zen.

Helduago egin ahala, gero eta gehiago hasi ginen gauzez jabetzen. Ikusi genuen han zegoela gure familia, aitona-amonak hil zirela, eta osaba-izebak eta lehengusuak genituela. Handik gentozela onartzen hastea bezala izan zen.

Nire gurasoen sorterriko jendea oso etxe kaskarretan bizi da, eta kalamua hazten dute. Ez dute diru askorik egiten horrekin, mafiek eramaten baitute gehien, beste askotan bezala.

Udan, lurra idor-idor geratzen da, eguzkiak gogor jotzen duelako. Kontuz ibiltzeko esaten ziguten, eta arrazoiarekin, gogoan baitut txikituta uzten gintuela. Eguna luze joaten zen eta dezente aspertzen ginen.

Lehengusuekin ongi konpontzen ginen, eta haiekin jolasten ginen, baina beste mukizu batzuek adarra jo eta iraintzen gintuzten. Gutaz barre egiten zuten, azkenean euskaraz jardun eta geuk egiten genien barre. Ez dakit zergatik izango zen, akaso beraiek txankletak erabiltzen zituztelako eta guk beste itxura bat zuten kirol-oinetakoak, beste munduko ezer ez baziren ere. Markesen parekoak ginen haien zati.

Horixe zen Marokora joaten ginenean izaten genuen beste eztabaidagaitako bat. Izan ere, haiei ahal genuen guztia eramaten saiatzen ginen arren, arropa eta arropa ez dena, beti iruditzen zitzaizkien gutxi. *Europarrak* ginelako oso ongi bizi ginela uste zuten, nonbait.

Aitak esaten zien galdetzeko bere anaiari ea zer uste zuen hark, hona etorri eta aldi batez lanean jardun eta gero hara itzuli baitzen, hau oso gogorra iruditu zitzaizkion. Baina, noski, ez dira gauza bera entzutea eta bizitzea.

DBH eta Batxilergoa egiten ari nintzela, urteak eman nituen hara udan joan gabe, ingelesa ikasteko bekak eman zizkidatelako. Hiru urtez egon nintzen kanpoan. Oso bizipen ona izan zen, eta oso ongi etorri zitzaizkidan, arnasa hartzeko. Euskal Herri osoko eta penintsulako hainbat lekutako jendea ezagutu nuen, eta, garai hartan, ez nuen lagun askorik hemen.

Gerora zenbait aldiz joan naiz Marokora, gogoan bainuen hara bakarrik joan eta herrialdea nire kabuz ezagutzeko. Alabaina, aitak familiari esaten zion ni hara

joatekoa nintzela, eta, horregatik, haiekin konplitu beharra izaten nuen, horrek dezente aspertzen baninduen ere. Behin bakarrik lortu dut hara lagun batekin geure kasa joatea. Marrakexera joan ginen, eta, han familiarik ez dudanez, parranda egiteko, zokoetara joateko eta denetik jateko abagunea aprobetxatu genuen. Itzela izan zen, benetako oporraldia.

Eta, gainera, bakarrik joaten hasi nintzenean hegazkinez joaten nintzenez, ez nuen hainbeste denbora galtzen. Harrezkero ez naiz autobusez joan.

Gurasoek Marokora itzultzeko asmoa zuten, edo, gutxienez, han egonaldi luzeak egitekoa. Alabaina, biek dituzte osasun-arazoak, eta ezingo dute halakorik egin. Aitak erretiroa hartu zuen, eta mediku-azterketak egin behar ditu aldian behin. Medikuen mende dago, erabat. Ama ere ez dabil oso ondo biriketarik, eta sarritan joaten da medikutara. Osakidetzarekin ohituta daude, eta han badute haien berri. Gainera, osasungintza pribatua da Marokon, eta diruz ordaindu behar da.

Anaiarekin autoz joaten dira hara noizean behin, mediku-azterketen eta -tratamenduen artean abaguneren bat egokitzen zaienean. Baina egun batzuk baino ez dituzte igarotzen han; uko egin beharra izan diote Marokora itzultzeko ideia hari.

Niri ez zaitu burutik pasatu ere egiten hara bizitzera joatea. Duela urte batzuk pentsatu nuen han zerbait antola nezakeela, baina ustelkeria handia eta bestelako kontu asko dago han. Oso bizkorak dira. Oso ongi ezagutzen duzun jendearekin egon behar duzu, erabateko konfiantza ematen dizun jendearekin, baina familiak ez du balio kontu horietarako. Ezagutzen dut halakorik egin duen jendea, eta nahiko erreta amaitu dute. Lagun batek dio nagusiaren begiak gizentzen dituela idiak, eta hala uste dut nik ere.

Gainera, beti duzu sentrazio bera, inorena ez den lurrekoa izatearena, nolabait. Izan ere, hemen jaioa naizen arren, euskaraz hitz egiten dudan arren eta euskaldun peto-petoa senti naitekeen arren, beti egongo da halakotzat hartzen ez nauen norbait, ez ditudalako zortzi abizen euskaldun edota ez naizelako behar bezain musugorria.

Azkenerako ez dakizu ongi non zauden, norekin sentitu behar duzun identifikatuta edota nork laguntzen dizun hemen. Zuk zeuk eraiki behar duzu zure nortasuna bi horien artean, eta «hemen nago» esan.

Eta gauza bera gertatzen zitzaidan Marokora joaten nintzenean ere. Atzerritarra nintzen haientzat, kanpotarra, nahiz eta arabieraz hitz egiten dudan eta hangoa dudan familia.

Azkenerako ez dakizu oso ongi non zauden, norekin sentitu behar duzun identifikatuta edota nork laguntzen dizun hemen. Zuk zeuk eraiki behar duzu zure nortasuna bi horien artean, eta «hemen nago» esan.

Badut naizen hau nahiko ongi deskribatzen duen definizio bat. Ez diot erretolika hori esaten, ordea, nola dudan izena edo nongoa naizen galdetzen didaten guztiei. Batzuek interesa dutela ikusten duzu, baina badira atentatuei, zapiei

eta auskalo zeri buruz hizketan hasten zaizkizunak ere. Zer egoeratan zauden, argumentu bat edo bestea aukeratu behar duzu.

Haurra nintzenean, arazoaren muina arraza zen, mairua izatearen kontua eta horrek berarekin dakarren guztia. Gau egun, ordea, atentatu anker horiek guztiak direla-eta, sinesmenean jarri da fokua. Nik ez dut ezer esango norbaitek atea dela badio, bataioa eta jaun-hartzea egin baditu ere eta elizaz ezkondu bada ere, eta, horregatik, min ematen dit jendeak aurreiritziak izatea musulmana naizela esaten dudanean, hainbat ohitura nire egiten ez ditudan arren.

Hainbat diziplinatan ekarpen handiak egin dituen zibilizazioa dela esateari utzi diogu, eta lapurrak, gerra santua eta auskalo zer beste kontu darabilzkigu ahotan. Errealitatearen irakurketa kaskarra eta sinplista dela uste dut.

Eta, bereziki mingarria, euskaldun batek egina bada, euskaldunek ere halakoak jasan beharra izan baitute Espainiako hainbat lekutan, euskaldun izate hutsagatik. Ea pistolarik bazeramaten galdetzen zietenean, esaterako. Atzoko kontuak dira, eta badirudi jada ahaztuak dituztela.

Gurasoek betidanik egin izan dute otoitz, eta beren erlijioari eutsi diote. Amak zapia soinean eramaten jarraitu nahi zuen hona etorri zenean, baina aitik halakorik ez egiteko esan zion, jendearen begirasunak zirela eta. Duela hogeit bat urte berriro zapia janzea erabaki zuen, eta zenbaitek kentzeko esan zioten, askoz ederrago zegoela hura gabe. Amak ongi ikusten zuen bere burua ordea, eta bereari eutsi dio gaurdaino.

Gaur egun, aita txilaba jantzita joaten da meskitara. Jende asko ezagutzen du lanetik, eta guztiek dakite nor den: marokoarra edo zurgina. Agurtzen ditu eta galdetu egiten die ea zer moduz bizi diren haiek eta haien familiak. Islam tradizionala da gurasoena, mundu guztiarekin tratua izatekoa.

Anai-arrebok musulman sentitzen gara, baina ez daramagu erlijioa gurasoek bezala. Eta ez da harritzekoa, beste testuinguru batean jaiok baikara. Ez gara Marokon jaiok; gure hezkuntza eta ingurua desberdinak izan dira.

Anai-arrebok musulman sentitzen gara, baina ez daramagu erlijioa gurasoek bezala. Eta ez da harritzekoa, beste testuinguru batean jaiok baikara.

Hamabi urte nituenean lanean hasi nintzen aitarekin, lehenik, asteburuetan, eta, gero, baita udan ere. Aitak arotz-lanak egiten zituen, eta anaiok hari laguntzera joaten ginen. Ez ziguten gaizki ordaintzen, helduei ordaintzen zietenaren erdia edo, eta dirua guretzat zen. Baina oso lan gogorra zen mukizu batentzat.

Eta, gainera, aitaren nagusiak arrazista hutsak ziren. Iraindu egiten zuten eta hutsaren pare tratatzen zuten. Trakets hutsa zela esaten zioten, baina ez zen egia, aita baitzen gehien lan egiten zuena eta lanik zikinenak egiten zituena. Eta, halaxe amaitu du, ezinduta utzi duen tronbosi batek jota. Koranaren, Mahomaren eta guztiaren kontra jarduten zuten.

Amorru itzela ematen zidan horrek, baina ezin nuen ezer esan, lanik gabe geratzeko arriskua baitzuen. Eta hori, nagusiak Palentziakoak izanda,

gurasoek bezala emigratu beharra izandakoak; bazuten ulerkorrago izan beste emigratzaile batekin.

Amak ere lan asko egin izan du, ostalaritzan eta etxeak garbitzen. Gehienetan kotizatu gabe egin izan du lana ordean, eta, hortaz, ez du erretiroa kobratzerik izango.

Gurasoek ez ziguten gogor egiten ikasketekin, baina ikusarazi nahi izan ziguten zein gogorra den lana. Begiak ireki genitzan nahi zuten, eta jabetu gintezen ikasi beharra genuela halako lanik egin beharra izan ez genezan. Zalantzarik gabe, asmatu zuten, eta argi ulertu nuen beste zerbait egin beharra nuela.

Irakasleek pena hartu zuten Lanbide Heziketari heldu niolako.

Batxilergoa amaitutakoan goi mailako elektrizitate- eta elektronika-modulua egin nuen. Oso nota onak atera nituenez, irakasleek karreraren bat egitera animatzen ninduten, baina etxeko egoera dezente zaildu zen aita gaixotu zenean. Bizimodua geure kabuz atera beharko genuela esan zigun, berak ezingo baitzuen lanean jarraitu. Irakasleek pena hartu zuten Lanbide Heziketari heldu niolako, baina ez nitzen ausartu esaten zergatik egin nuen aukera hori. Lotsa apur bat ematen zidala uste dut, egoera hark heldutasun handirik gabe harrapatu ninduelako.

Anaia zaharrenak Zuzenbidea ikasi zuen, eta lana eta ikasketak, biak batera, egiten zituenez, asko kostatu zitzaion amaitzea. Gauza bera gertatuko zitzaidala uste zuen amak.

Eta halaxe amaitu nuen, gustuko ez nuen zerbait ikasi eta sei urtez baino gehiagoz industrian lanean. Enpresa haietako batean, gainera, batera eta bestera ibili nintzen etengabe, orain Madrileran, orain Bartzelonara, baita atzerrira ere. Polita dirudi, baina ez da hala. Industrialde batera joan eta lan egin besterik ez da egiten; ezin duzu herrialdea ezagutu. Hoteletik enpresara eta enpresatik hotelera besterik ez ginen ibiltzen.

Lan hark ez ninduen betetzen, eta erabat erreta amaitu nuen. Eta hori gutxi balitz bezala, garai hartako lagunek ere ez zidaten askorik lagundu. Lana eta etxea, ez nuen besterik bizitzan; ez nuen nire kontuak zeini kontatu.

Galduta eta depresioak jota amaitu nuen azkenerako; nuenetik ezer ez nuen atsegin.

Azkenean, lana uztea erabaki nuen, baina hori ere asko kostatu zitzaidan. Izan ere, hasieran, gurasoek ez zuten ulertzen nire urduritasuna eta nahigabea. Baina ikusten zuten lanean sufritzen ari nintzela eta atsedean hartzeko astirik gabe bizi nintzela, eta, azkenean, onartu zuten gustuko nuen zerbait egin beharra nuela. Batez ere, amak, hark lagundu dit beti gehien gauza guztietan. Laguntza eskaintzen zidan beti, laguntzeko modurik ez bazuen ere.

Aitarekin, aitzitik, askotan pentsatu izan dut ez zuela ulertzen egiten ari nintzena. Bazirudien askoz gehiago gustatzen zitzaiola kanpoko edonork egindako edozer nik egindako ezer baino.

Uste dut nolabait familiari egozten niola errua egin beharra izan nuen guztiagatik eta karrera bat egiteko aukerarik ez izateagatik. Pentsatzen nuen nirea ez zen zama nuela bizkarrean, eta inor ez zidala esaten nola eraman behar nuen edo nola aska nintekeen zama hartatik. Eta, gainera, pentsatzen nuen familiakoek ez zidatela aitortzen egindako guztia.

Pentsatzen nuen nirea ez zen zama nuela bizkarrean, eta inor ez zidala esaten nola aska nintekeen zama hartatik.

Baina, tira, horrelakoa da bizitza, eta lana utzi nuen. Urtebete langabezian egon nintzen, eta ikastaro batzuk egiteko aprobetxatu nuen abagune hura. Jendea ezagutu nuen, eta horrek on egin zidan. Inoiz ez bezalako lagunen artean nengoen ustekabeen.

Gerora, adin txikikoen etxebizitzetan lan egiteko zenbait eskaintza jaso nituen. Garai hartan jende askok lan egiten zuen halakoetan titulaziorik gabe. Arabieraz hitz egiten zuen jendea behar zen batez ere, gaztetxo asko zegoelako.

Alabaina, zorte txarra izan nuen, ni aurkeztu nintzen unean hasi baitziren titulua eskatzen halakoetan lan egiteko. EGA banuenez, titulua ateratzera animatu ninduten, baina zalantza egin nuen. Ez nekien gustatuko zitzaidan, eta nahiago nuen lehendabizi probatu. Eta, gainera, neuk ere arazoak nituela ikusita, ez nekien gai izango nintzen besteenak konpontzeko.

Azkenean, aurrera egitea erabaki nuen. Bi ikasturte ziren.

Han hasi nintzen pentsatzen ohitu egin beharko nuela pertsonekin lan egiten, eta ez makinekin. Han hasi nintzen, nolabait, naizen modukoa izaten, neuk erabakitako gauzak egiten. Izan ere, ordura arte artaldeari jarraitu nion, bai etxean eta bai herrian.

Une hartan onartu nuen naizen modukoa naizela: beste pertsona batzuekin ibiltzea atsegin dut, diren lekukoak direla ere, ez badiote aterik ixten edozerri buruz hitz egiteari edo edozer egiteari.

Elektrizitatea eta elektronika ikasi nuenean, ez nuen aukerarik izan praktika egitera Norvegiara joateko, eta horregatik, Gizarteratzea ikasi nuenean, ez nuen galdu praktikak Munichen egiteko aukera. Hiru hilabetez egon nintzen han, baina oso gaizki pasatu nuen, urte hartan ez baitzen hemengo beste inor joan. Bakar-bakarrik egon nintzen.

Eta hori gutxi balitz bezala, nire etxea hirigunetik oso urrun zegoen, eta ikamikak izan nituen tutorearekin. Nik gizarteratze-enpresetan lan egin nahi nuen, eta berak adin txikikoekin jarri nahi ninduen. Azkenerako, hango koordinatzailearekin hitz egin beharra izan nuen kontu hura konpontzeko.

Kezka sortzen zidan etxeko egoerak ere, gurasoenak, alegia, inoiz ez nintzelako kanpoan egon hainbeste denboraz. Ez zidaten ezer esaten ni ez arduratzeko; itzuli nintzenean jakin nuen aita eta ama, bi-biak, ospitaleratuta egon zirela zenbait aldiz ni kanpoan nengoen bitartean.

Hiri handiak nahiago ditut, haietan ez baituzu inoren begiradapean izatearen sentsazioa.

Dena ez zen txarra izan ordea, jende asko ezagutu bainuen, eta asmatu nuen aurrera egiten. Gainera, beti gustatu izan zaidanez bidaiatzea eta leku berriak ezagutzea, Istanbulera eta Berlinera joateko aprobetxatu nuen aukera hura. Askok gustatu zitzaizkidan leku horiek biak.

Normalean, hiri handiak nahiago ditut, haietan ez baituzu inoren begiradapean izatearen sentsazioa, ez Bermeon bezala, itzuli orduko begira geratzen zaizkizulako guztiak.

Praktikak egin ondoren lantxoak egin nituen adingabekoen zentro batean eta udaleku batzuetan. Etxebizitza batetik ere dei egin zidaten, ordezkapenak egiteko. Halakoetan ordea, gauez ere egon beharra dago, horixe dio legeak, eta han egon behar izaten da, bakar-bakarrik, hamahiru urtetik hamazazpi urtera bitarteko zortzi mukizuren zaindari-lanak egiten.

Zazpi gau jarraian lan egin beharra izaten da, eta, gero, beste zazpi ematen dizkizute jai, baina aurreko asteari buelta eman nahian ematen nituen egun horiek. Ongi ordaindutako lana zen, baina hura ez zen bizimodua.

Ikusi nuen ez nuela hura egin nahi, ez nuen ikasi jagole izateko. Nazkatu egin nintzen, nire ametsa birrintzea besterik ez bainuen lortuko.

Zortea izan nuen, gutxira lana eskaini zidatelako hemengo ikastetxe batean. Endekapenezko gaixotasun bat dela-eta beharrian bereziak dituen haur baten ikasketa-laguntzailea izan nintzen. Informatika-modulu bat ikasten ari zen, eta haren ondoan egon beharra nuen uneoro. Erabateko aldaketa izan zen, eta oso ongi etorri zitzaidan aukera hura, ikastetxea barrutik ezagutzeko.

Askok ikasi nuen irakaskuntzari buruz, baita programazioari buruz ere, beti gustatu izan baitzait. Titulua niri eman beharko lidatekeela esaten zidaten, ni nintzelako eskoletan galdera gehien egiten zuena.

Harreman hona izan nuen gazte haiekin, ez nindutelako ikusten ez irakasle moduan ez ikasle moduan. Beraiek bezala hitz egiten nuen. Errespetatu egiten ninduten eta aholku eskatzen zidaten.

Mutiko hura gurpildun aulkian ibiltzen zen, eta, hasieran, ez zuen gogorik izaten jolastokira irteteko, lotsatu egiten baitzen. Animatu egiten nuen, eta, azkenean, besteengana hurbiltzen ginen. Ni orgaren gainean jartzen nintzen, eta guztiek begiratzen ziguten.

Oso gustura egon nintzen. Gelako giroa nolakoa zen eta irakasleek eskolak nola ematen zituzten ikusten nuen. Halaxe piztu zitzaidan Magisteritza ikasteko asmoa, aurretik ere aukera horretan pentsatu izan banuen ere. Hala, mutiko harekin lanean egin nuen bigarren urtean, matrikulatu egin nintzen.

Gogorra izan da, baina lortu dut karrera amaitzea mutikoarekin lanean jardun bitartean. Amaitu dut gazte harekin egin beharreko lana, eta, orain GKE batean lan egiten hasi naiz. Gizarteratze-lanetan ari naiz, Bilbon. Hasi berriak direnez, ordu mordoa lan egin dut, iritsi orduko, denetik apur bat egiten.

Bizitzak erakutsi dit ez dela ona lana guztiaren gainetik jartzea eta gauzak gerorako uztea, gaurko ogia eta biharko gosea dakarrelako horrek. Magisteritza ikasi nahi nuen, eta horretan aritu nintzen buru-belarri, lehentasuna emanda.

Gainera, Bolonia prozesua dela-eta garrantzia handia ematen zaionez presentziari, ahal nuen guztia egin nuen eskoletara joateko, ikus zezaten han nenbilela, tutoretzetara joaten nintzela...

Magisteritza ikasteko beka bat lortu nuen, eta horixe izan zen nire helburu nagusia. Bide batez, esan beharra dut ikasketa-bekak izan direla familian jaso dugun laguntza bakarra, nahiz zeta gaur egun askok dioten jendea laguntza bila etortzen dela hona. Inoiz ez dugu jaso gizarte-zerbitzuen laguntzarik.

Bizitzak erakutsi dit ez dela ona lana guztiaren gainetik jartzea eta gauzak gerorako uztea, gaurko ogia eta biharko gosea dakarrelako horrek.

Badira urte batzuk ez naizela gurasoekin bizi. Etxetik irteteko premia nuen, eta, lanean nolabaiteko egonkortasuna lortutakoan, ez nuen aukera galdu. Familiarekiko harremana hobetu egin da harrezkero, lehendik txarra ez bazen ere. Bakion bizi naiz, hangoa delako nire bikotea eta han geratu nahi duelako. Nik nahiago nuke Bilbon biziko bagina, orain han baitago nire lagun taldea, baina pisuak garestiagoak dira Bilbon, Bakiokoak ere atzean geratzen ez diren arren. Gauza bat nuen argi: ez nuen Bermeon geratu nahi.

Egia esan behar bada, gustura nago Bakion, kaleko bizitza asko egiten ez badut ere. Bilbon ematen dut egun osoa, lotara joateaz gain ez dut gauza handirik egiten herrian.

Anaia-arreba zaharrak ere irten dira gurasoen etxetik, baina Bermeon gelditu dira bi-biak. Biek dute bikotea. Arrebaren bikotea hemengoa da, eta anaiaren neska-lagun berria, berriz, Melillakoa. Izan ditu hemengo neska-lagunak ere. Hirurotako inor ez da ezkondu.

Hasieran, gurasoek bazuten gu ezkontzea beharrezkoa zelako ustea, eta, gainera, musulman, marokoar edo dena delako kideko batekin ezkontzea beharrezkoa zelakoa. Anaia-arrebek hemengo bikoteak izan dituzte ordea, eta hori astindu handia izan da gurasoentzat.

Umetan neuk ere banuen ezkontzeko premiaren kontu hori buruan. Musulmanen artean, gainera, kanpokorik ezagutzen ez denean bada joera familiako norbaitekin ezkontzeko, onartuta baitago lehengusuak elkarrekin ezkontzea.

Baina ideia hori ez zitzaidan batere gustatzen, ezta neska haietako bat ere. Egia esan behar bada, hain denbora gutxiz egoten ginenez han, ez nuen denborarik izaten inor ezagutzeko.

Anaia-arrebek hemengo bikoteak izan dituzte, eta hori astindu handia izan da gurasoentzat.

Eta gainera, atzerritarra nintzenez, beren ametsetako Europakoa, ez nekien zenbateraino egon zitezkeen nirekin maitasunagatik eta zenbateraino hona etortzeko interesagatik.

Hemen bizi diren marokoar jatorriko neskaren batekin ezkontzea zen beste aukera, baina ez da halakorik izan neska horietako inorekin ere. Ez dakit zergatik den, baina beti izan da harreman txarra familia horien artean. Harrigarria da, batetik elkarren alde egiten dugulako, baina, bestetik, elkar izorratzen eta kritikatzeko dugulako. Bazen bekaizkeria arraroren bat, eta nik paso egiten nuen. Eta, gainera, haietako inor ez zitzaidan bereziki gustatzen.

Ezin dut ukatu, hasieran zalantza egiten nuen ea nola konponduko nintzen nire bikotearen familiarekin, baina ez dut arazo bat ere izan haiekin. Ongi hartu gaituzte bi familiek, bai berak eta bai nireak.

Oraingo ez dut seme-alabarik izateko asmorik, baina inoiz izaten baditut, ez dut argi nola heziko ditudan. Ez nuke nahi haiek *patxiak* izaterik, baina ezta *hangoak* izaterik ere. Egiazki, ni bezalakoak izatea nahiko nuke, hori zer den argi ez badut ere.

Edonola ere, seme-alaben kontu horrekin ez dut buruhausterik nahi. Alde batera uzten dut.

Beti pentsatu izan dut ez dudala nahi sakrifikatu gurasoak gugatik sakrifikatu diren bezala, ikasketak egin ditzagun eta aurrera atera gaitezen. Izan ere, ahalegin hori dela eta ez ditugu etxean asko ikusi, eta bakarrik ikusi dut nire

Argi dut gurasoek gurekin izan ez zituzten abantailak izango ditudala nik, inoiz seme-alabarik izaten badut.

burua zenbaitetan. Arraroa dirudi, baina gehiago gozatu dut aitaren konpainiaz gaixo dagoela osasun betean zegoenean baino. Bestalde, ordea, gogorra izan da hura hala ikustea eta ikustea ezin duzula gauzarik sinpleena ere egin haiekin, hala nola oportetara joatea.

Edonola ere, argi dut gurasoek gurekin izan ez zituzten abantailak izango ditudala nik, inoiz seme-alabarik izaten badut. Hemen jaioa naiz; hemen ditut erroak; hemen ikasi dut, eta badakit euskaraz. Eta hori guztia lagungarria izango zait une hori iristen denean.

Izan ere, hemen ez dago bigarren belaunaldirik, Frantzia edo Belgika bezala, edo ez behintzat hainbeste eta herrialde horietan bezalako desberdintasun izugarriekin.

Nik uste beharrezkoa dela eskoletan nolabaiteko orientatzaile bat jartzea, immigranteak bideratzeko, gurasoak zein seme-alabak. Eta, ahal dela, egoera hori bere azalean bizi izan duen norbait izan behar luke, ibilbide hori bera egin duen norbait. Horrek asko lagunduko lieke familiei non dauden eta hemen gauzak nolakoak diren jakiten.

Familia askok uste dezakete eskolara joateak eta bide horri jarraitzeak beren kultura galtzea ekar diezaiekeela, eta hori geratu ez dadin, beharrezkoa da bitartekari bat egotea haurren, gurasoen eta irakasleen artean. Hark azalduko lieke bide hori hartzeak ez duela esan nahi bestea alde batera uztea, bateragarriak direla, alegia.

Eskola gizartearen eskala txikiko adierazpena da, eta benetan hala izan dadin, beharrezkoa da ikastalde ahalik eta heterogeneoenak egitea, halakoxea baita egungo gizartea. Aurkakoa egiteak bazterketa ekarriko luke berarekin, ghettoak sortzea, eta hori gutxi balitz bezala, errealitate faltsu baten fantasia sortuko luke, hemengo haurrentzako lekua duena soilik.

Ikastaldean guztiok izan behar dugu lekua gizarteratzea benetakoa izango bada, horixe aurkituko baitute gero gizartean.

Argi dudana hau da: gizarteak aldatu egin behar du edonork izan dezan aukera mailarik altueneko lanpostuetara iristeko, edozein jatorritakoa edo erlijiotakoa izanda ere.

Eta emakumeek ez ditzaten beren helburuak mugatuta ikusi zapia erabiltze hutsagatik. Nire ustez, zapia ez da erlijio-ikur bat, norberak bere arrazoiengatik egindako aukera bat baizik. Ez dut uste inori kalterik egiten dionik, ezta ezer asaldagarria denik ere.

Nire asmoa orain argi ditudan ideia horiek guztiak irakasle-lanetan praktikan jartzea da, edo gutxienez, horretan saiatzea. Ea lortzen dudan.



Daniela dut izena...

...eta hogeita hiru urte ditut. Nire gurasoak Kolonbiakoak dira, Medellínekoak, hain zuzen. Ama enpresaria zen han, baina mehatxu egin zioten lanarekin lotutako arrazoiak zirela-eta, eta, horren ondorioz, Kolonbiatik irten beharra izan zuen. Lehendabizi, Alemaniara joan zen aitarekin, eta han jaio ginen ahizpa, ni baino bi urte zaharragoa, eta biok.

Gero, nik hiru hilabete nituenean, Madrilera joan zen, eta hiru urte nituenean, berriz, Donostiara.

Zarautzen bizi izan gara betidanik, eta ikastolan hasi ginen ikasten, gurasoek hasiera-hasieratik bertakotu gintezen nahi zuten-eta. Gerora, uste dut ikastola itxi zutela eta horretatik hasi ginela ikastetxe erlijioso batean ikasten. Han egin genituen Batxilergoaren amaierara arteko ikasketak.

Aita atea da, baina ez zion inporta gu monjen ikastetxera joatea, maila oneko ikastetxea eta itunpekoa zelako. Erlijio kontuetan nahasketa bitxia dugu familian. Aita atea da, baina haren ama eta gurea katoliko praktikatzaileak dira, eta nire arreba, berriz, agnostikoa.

Amak nahi zuen gu erlijio katolikoari jarraituz heztea; aitak, berriz, helduak ginenean erabakiko genuela zertan sinetsi nahi genuen esaten zuen.

Ni sinestuna naiz, baina zenbait erlijioaren nahasketa moduko bat egin dut eta ez dut sinesten eliza bakar batean ere. Izan ere, uste dut dena txarra dela muturrera eramaten denean.

Arima berraragitu daitekeela sinesten dut, esate baterako, eta halako kontuen aldekoa naiz. Jesu Kristo existitu zela frogatuta dago, eta oso pertsona ona izan zela ere bai, baina hortik Jainkoa badela, Ama Birjinaren kontu hori eta abar sinestera bada alde. Azken finean, ordea, sinestuna izan ala ez, pertsona ona izatea eta ongia egitea da balio duena. Edo hori da nik uste dudana.

**Eskolako oroitzapen onak ditut,
eta ez nuen inoiz arazorik izan
arrazakeriako kontuengatik.**

Eskolako oroitzapen onak ditut, eta ez nuen inoiz arazorik izan arrazakeria edota horrelako kontuak direla eta. Neska koadrila bat nuen, ikastetxe mistoa zen arren oso mutil gutxi zeudelako garai hartan.

Irakasleek asko eskatzen ziguten, baina dena ematen zuten gure alde, eta, arazoren bat bazenuen, berehala hitz egiten zuten zurekin edo zure gurasoei deitzen zieten. Lehen Hezkuntzan batez ere, gehiago ezagutzen zaituztelako eta maitasuna hartzen dizutelako.

Bigarren Hezkuntzan gauzak apur bat aldatu ziren, irakasgai bakoitzeko irakasle bat genuelako. Eta, gainera, orduantxe datozkigulako gaztetako txoro-haizeak. Ni oso burugogorra eta izaera gogorrekoa naiz, eta, batzuetan, zerbait ez nuela egin nahi sartzan bazitzaidan buruan, ez nuen egiten. Gero, abisu bat baino gehiago eman ondoren, gurasoei dei egiten zieten, eta orduan, sekulako errieta egin, eta kalera ez irtetera zigortzen ninduten.

Piper egin nuelako edo, ikastetxetik aitari dei egiten ziotenean, hark babestu egiten ninduen. Etxean geratu nintzela esaten zien, ni gaizki ez uzteko, baina gero izugarritzko sesioa izaten genuen.

Aita ama baino zorrotzagoa izan da beti; amak, berriz, nahiago izan du nirekin hitz egin. Izan ere, Latinoamerikan nahiko matxistak dira, eta amaren egitekotzat dituzte etxea zaintzea, seme-alabekin hitz egitea eta haiek mimatzea.

Gure amak betidanik egin du lana, baina ez du guztiz gainetik kendu rol hori. Egia esan, hemen ikusi duen guztia ikusita, jabetu da aitak dituen eskubide berberak dituela, eta pentsatzeko modua aldatzen joan da.

Nik arazo asko izan ditut aitarekin horrelako kontuak direla-eta; izan ere, ni hemen hazi eta hezi naiz, eta hemengo kontuak ikasi ditut. Berak kultura bat du, eta nik, berriz, beste bat. Nik uste dut guztiok berdinak garela, eta gizonak ezin dutela luze etzanda egon emakumeek etxeko lanak egiten dituzten bitartean.

Baina han, aita izatea Jainkoaren parekoa izatea da. Nahi dutena esan diezazukete, eta zuk isil-isilik geratu behar duzu, eta hori gutxi balitz bezala, barkamena eskatu behar diezu. Nik ez dut hori uste. Errespetua irabazi egin behar dela uste dut, ez exijitu. Eta hori lotsagabekeria hutsa dela uste du aitak. Inoiz amarekin jarrera matxistaren bat zuela ikusten banuen, tartean sartzan nintzen. Zergatik uzten zion zanpatzen galdetzen nion amari. Niretzat hori zapalketa zelako, haren kulturaren normaltzat jotzen bada ere.

Guzti horrek gogaitu egiten zuen aita.

Ahizpa ni baino lasaiagoa da. Isil-isilik gera daiteke aitarekin arazoren bat duenean, baina nahi duena egiten du bizkarra eman orduko. Amaren antza du horretan. Nik izaera gogorragoa dut eta petralagoa naiz; aitaren aldera irten naiz horretan. Eta horrexegatik, hain zuzen, bata bestearen aurka jartzen gara.

Inoiz ez dut arazorik izan ikasketekin; nola-halako notak ateratzen nituen. Ez ahizpak bezalakoak. Hura beti izan da punta-puntako neskatoa, eta nota harrigarriak ateratzen zituen.

Baina niri inoiz ez zait gustatu ikastea. Beti izan naiz azken egunean, mugamugan, azterketa aurreko azken gauean, ikasten duen horietakoa. Baina ez zait gaizki joan.

Matematika eta euskara ziren irakasgai zailenak niretzat. Eta hori ikastolan euskaraz asko egiten genuela eta asko atsegin dudana hizkuntza dela. Oso hizkuntza polita dela uste dut, eta Euskal Herriaren nortasunari eusten diola, baina kostatu egin zait, beti.

Garai hartan, gainera, gure ikastetxean ez zuten gogor egiten euskararekin. Gogoan dut unibertsitaterako hautaprobaren guztiok oso nota onak ateratu genituela irakasgai guztietan, euskararen izan ezik. Uste dut orain garrantzia handiagoa ematen diotela.

Ikastetxean, saskibaloi-taldean negoen, eta gurasoak gu ikustera joaten ziren. Han, beste nesken gurasoekin egoten ziren. Ikasturtearen hasierako eta amaierako bileretara ere joaten ziren, eta ez dute inoiz arazorik izan. Primeran moldatu dira.

Niri ez zait antzematen kolonbiarra naizela, ez hizkeran ez itxuran, eta jendea asko harritzen da gurasoak kolonbiarrak direla esaten diedanean. Ikastetxean zenbait etxeko adierazpide zuzentzen zizkidatela dut gogoan, eta hala, azkenerako, hango doinua galdu egiten da. Ahizpak ere ez du, eta gurasoek ere galdu dute apur bat. Nerabea nintzenean, gurasoek lotsatzen nintzen, beste asko bezala. Baina ni besteak baino gehiago lotsatzen nintzen, haiek kolonbiarrak zirelako. Agian baztertu egingo nindutela pentsatzen nuela uste dut. Izan ere, garai hartan, kolonbiarrek ospe txarra zuten hemen, lapur- edo hiltzaile-ospea. Nire aita asko amorratzen zen kontu haiekin, eta zenbat eta gehiago saiatu ni hura alde batera uzten, orduan eta gehiago hurbiltzen zen. Nire lagunengana etorri eta bere burua aurkezten zuen. Nire lagunek jator-jatorra zela zioten, baina nik hilko nuke zenbaitetan. Oso gaizki pasatzen nuen.

Orain, harro sentitzen naiz kolonbiarra izateaz, eta neu nabil hori jendeari esaten. Behin, kolonbiarra nintzela esan nion bati, eta ez zela posible erantzun zidan, begi argiak nituelako. A ze grazia egin zidan. Guztiok txikiak, beltzaranak eta begi eta ile beltzekoak garela pentsatzen zuen, nonbait.

Izan ere, nahasketa bitxia dugu familian. Aita azal zurikoa da, baina amaren birraitona ikatza baino beltzagoa zen, eta amona, berriz, mulatoa. Ama beltzarana da, eta ahizpa ere ni baino beltzaranagoa da. Ahizpak, gainera, begi marroiak ditu, ez berdeak gainerakook bezala.

Hark bai, badu apur bat hangoen itxura. Arazoak izan zituen ikastetxeko batekin, *puta negra* esaten ziolako, baina, azkenean, kexatu egin zen, eta espedientea ireki zioten mukizu hari.

Niri ez zait antzematen kolonbiarra naizela, ez hizkeran ez itxuran; jendea asko harritzen da gurasoak kolonbiarrak direla esaten diedanean.

Oro har, ez dugu arazorik izan. Txiki-txikitatik hemen haziak garenez, beti hartu gaituzte hemengoak izango bagina bezala. Erabat bertakotuta nagoela sentitzen dut.

Amak ausart jokatu zuen Kolonbiatik irten zenean, eta ahal zuenean lan egin zuen, lehenik, kolonbiar kontaktu batzuekin Alemanian eta, gero, Madrilén. Han lana galdu zuen, baina, zorionez, hemengo jendea ezagutu zuen, erakundeetako batez ere, eta Donostian hasi zen lanean. Ez zuen asko kobratzen, eta bizitzeko adina geneukan, ozta-ozta. Gerora, komunikazio-enpresa bat jarri zuen, eta horretan dihardu gaurdaino.

Aitak gu zaintzeko ardura hartu zuen txikiak ginenean, eta, gerora, lana bilatu izan du joan garen leku guztietan. Alemanian, espainiera irakasten aritu zen, eta, hona etorri ginenean, enpresa batean hasi zen lanean. Gaur egun, banketxe batean lan egiten du.

Nire amak lanagatik berriro migratu behar izan balu, min handia emango zidakeen hemendik joan beharrak, lagunak eta guztia hemen nituelako.

Izan ere, amak beti nahi izan du Kolonbiara itzuli. Oso patriota da. Handik joan beharra izan zuenean ere, berak nahiago zuen geratu. Prest zegoen bere printzipioengatik eta herriagatik hiltzeko, eta miresgarria iruditzen zait hori.

**Ez dut ez hangoa naizen
sentimendu hori, ez
aberriarekiko maitasun hori.
Batzuetan pena apur bat
ematen dit, baina ez dut
halakorik.**

Nik ez dut ez hangoa naizen sentimendu hori, ez aberriarekiko maitasun hori. Batzuetan pena apur bat ematen dit, baina ez dut halakorik. Ikusten dut hemengo jendeari ere barruraino iristen zaiola Euskal Herrikoa den guztia, baina nik ez nuke asmatuko esaten kolonbiar, espainiar edo euskal herritar sentitzen naizen.

Aukeratu beharra izango banu, hemengoa naizela esango nuke beharbada, hemen dudalako guztia. Alabaina, hemen

loturarik izango ez banu eta etorkizunean lana dela-eta kanpora joan beharra izango banu, Australiara izanda ere, lasai asko joango nintzateke.

Aitak nire antza du horretan, munduko herritarra da apur bat. Hemen ongi banago, hemen geratuko naiz, baina bihar beste norabait joan beharra badut, joan eta kito.

Gurasoak beti bizi izan dira alokairuan, eta ez dute inoiz etxe bat erosteko aukera baliatu, hara itzultzeko asmoari eusten ziotelako. Eta bitxia da, 15 urtean bizi izan garen etxea erostea nahiko luketen unea iritsi denean, ez diete saldu izan nahi, familiako ondarea delako. Nahikoa da nahi izatea ezin ahal izateko.

Ni behin baino ez naiz izan Kolonbian. Urtebete nuen orduan, eta, noski, ez naiz ezertaz oroitzen. Aitarekin joan nintzen, han familia baitu. Behin edo behin joan da harrezkero, amona hil zenean eta diru- edo familia-konturen bat izan duenean.

Aitarentzat ez da arriskutsua hara joatea, baina amarentzat bai. Amorratu egiten da, joan nahi duelako, baina halakorik ez egiteko esaten diogu guk.

Gainera, amak hemen du familia osoa, Euskal Herrian. Hemen bizi dira amona, bost osaba-izeba eta lehengusu batzuk. Ama hemen gustura zegoenez, apurka-apurka etortzen joan ziren.

Eguberrietan, urtebetetzeetan eta horrelako ospakizunetan elkartzen gara. Eta, batzuetan, elkarrekin jateko gelditzen gara izebetako bat eta biok.

Atsegin dut haiekin egotea, otorduak asko luzatzen badira ere eta nik nire kontuetarako denbora nahi izaten badut ere.

Kolonbiar jakiak prestatzen ditugu, baina lan asko ematen duenez, denbora asko behar izaten dugu. Ama euskal sukaldaritzara pasatu da horregatik; errazagoa eta osasungarriagoa dela dio. Hangoan, oro har, frijitu asko eta arrain gutxi izaten da, gurasoen sorterriaren inguruan, Medellín inguruan, batez ere.

Lehengusuetako batzuk arazoak izan dituzte bertakotzeko. Ez dakit zergatik izan den, nagusiagoak zirela etorri zirelako edo beren familiak desegituratuta daudelako. Gurasoak elkarrekin egoteak eragin positiboa duela uste dut nik.

Gainera, hemen garrantzia handia ematen zaio hezkuntzari. Ahizpa eta biok gara karrera bat ikasi dugun familiako kide bakarrak, ez hemengo ez Kolonbiako familiako beste inork ez du karrerarik egin. Horretan zerikusi handia izan dute bai gurasoek eta bat ikastetxeak.

Nire gurasoen koadrilako lagunak hemengoak dira, baina oraindik ere badute harremana Kolonbiako lagun batzuekin, eta bisitan etortzen zaizkigu zenbaitetan. Amaren lagun batzuk laster etortzekoak dira, hain zuzen. Eta hamak etxea hankaz gora jarri du, dena behar bezala dagoela ikus dezaten. Agian familia ere aldatuko duen irudipena daukat.

Izan ere, arrakasta izan duela ikus dezaten nahi du, etxe eder askoan bizi dela eta bi alabek ikasketak dituztela.

Ni hamahiru urterekin hasi nintzen ikastetxeko lagunekin irteten, eta buruhauste ederrak izan nituen hori dela-eta. Dena den, onartu beharra dut ahizpak ate asko ireki zizkidala, hark asko borrokatu beharra izan baitzuen.

Baina, noski, izugarritzko notak ateratzen zituenez, eta ez duenez ez erretzen ez edaten, erraztasun gehiago izan zuen. Nik nota txarragoak ateratzen nituen eta erantzunzaleagoa naiz, eta, horrek, noski, gauzak zailago egiten ditu.

Donostiako Parte Zaharrera joaten hasi nintzen, mundu guztia bezala, eta aitari ondoezak eman zion. Adin horrekin norberare burua kontrolatzen jakiten ez denez, izugarritzko mozkorraldiak harrapatu nituen eta erretzen hasi nintzen. Eta aitari ez zion batere graziaz egin.

Gerora, hamasei urterekin, gaez irteten hasi nintzen. Gurasoek hilean behin irten ninteekeela esaten zidaten, eta lehen autobusean itzuli behar nuela, goizeko 6etan. Eta hobe nuen hura hartzea, gorriak ikusi nahi ez banituen.

Mundu guztiak bezala, lagunei beranduagora arte egoten uzten zietela esaten nien, baina aitak beti erantzuten zidan berdin ziola zer ordutan itzultzen ziren gainerakoak, beraiek jarritako orduan itzuli behar nuela etxera.

Bakar-bakarrik itzultzea arriskutsuagoa zela ere esaten nien, hobe zela lagunekin itzultzea. Eta horrekin apur bat konbentzitzen nituen. Nik uste dut hobe dela goizeko 8etan itzultzea, ordurako egunak argitu duelako eta mundu guztia martxan dagoelako.

Esanak esan, duela urte gutxira arte, aita nire bila etortzen zen, goizeko 6ak edo 7ak izan arren. Iritsi orduko deitzen nion, eta bera nire bila irteten zen.

Oraindik ere deitzeko eskatzen dit, gaueko 11etan etxera itzultzen naizenean, eta hitz egiten dugu. Alde guztietara begiratzeko eta kontuz ibiltzeko esaten dit behin eta berriz.

Kulturak eragin handia du horretan. Oraindik ez du aldatu Kolonbiako txipa emakumeak bakarrik ibiltzearen kontu horrekin. Han emakumeek ezin dute bakarrik irten ilunabarrean, lapurtuko dieten, bortxatuko dituzten edo hilko dituzten beldur. Horretan ere bada aldea aitaren eta amaren artean. Amak ere nahi izaten du nik telefonoz deitzea eta guzti hori, baina ez da hainbeste estutzen. Izan ere, ama gizarte-maila ertain edo altukoa da, eta kriminalitate txikiko auzo on batean bizi zen Kolonbian.

Aita, aitzitik, familia xume batekoa da. Zortzi anaia-arreba ziren eta, auzo gatazkatsuago batean bizi zirenez, denetik ikusten zuten. Zenbait lagun galbidean jarri ziren, narkotrafikoan jardunda dirua erraz irabaz zezaketela ikusten zutelako. Edo sartzen hasi eta gaizki amaitzen zuten, kartzelan edo hilda. Gauza asko ikusi izan ditu, eta buruan geratu zaizkio. Gertatu arte ez dela ezer gertatzen esaten du.

Behin susto ederra hartua naiz neu ere. Goizaldea zen etxerako bidea hartu nuenerako. Kotxea etxe ondoan aparkatu nuenean, atzera begiratzeko otu zitzaidan, eta gizon bat ikusi nuen nire atzetik. Korrika hasi nintzen, eta gizon hark ere pausoa azkartu zuen. Etxeko atarira iritsi nintzenean, elkarri begiratu genion, eta buelta hartu eta etorritako bidetik joan zen.

Zortea izan nuen eta ez zen ezer gertatu, baina, azkar ibiltzen ez banaiz, agian zerbait gertatuko zait noizbait, eta, orduan, arrazoia eman beharko diot aitari.

Gurasoek esan zidaten ikasten jarraitu nahi banuen beraiek baliabide guztiak jarriko zizkidatela, baina, hala ez bazen, lanean hasi beharko nuela.

Batxilergoa amaitu nuenean, gurasoek esan zidaten ikasten jarraitu nahi banuen beraiek baliabide guztiak jarriko zizkidatela, baina, hala ez bazen, lanean hasi beharko nuela. Argi utzi zidaten ezingo nuela musutruk bizi etxean.

Haiek esanak esan, gainera, banekien gaur egun ikasketarik egiten ez baduzu, lan asko egin behar dela gutxi kobratzeko. Eta ikastea dela dirua egin eta ongi bizitzeko modu bakarra.

Txikitatik nuen argi Zuzenbidea ikasi nahi nuela. Bidegabekeria gehiegi ikusten nituen, eta horiek aldatzen laguntzeko modu bakarra izan zitekeela uste nuen. Aitari ongi iruditu zitzaion, nik ikastea nahi zuelako batez ere, baina baita berak ere Zuzenbidea ikasi zuelako. Ahizpak ere Zuzenbidea ikasi du. Eta, beti bezala, sekulako notak atera ditu. Batez besteko nota 7,5etik gorakoa izatea eskatzen

zion beka bati eustea lortu du, alajaina. Eta, orain, Donostiako bulego batean ari da lanean.

Deuston onartu ninduten, baina garai hartan diruz hara joateko moduan ez geundenez, Donostian geratu nintzen. Izan ere, komunikazioaren munduan ere hasi zen antzematen krisialdia. Ahizpak asko lagundu dit karrera egiten; edozein zalantza argitzen laguntzeko eska niezaiokeen. Eta nahiko ongi joan zait, nola-halako notak atera ditut han ere.

Dena den, jabetzen hasi nintzen karrera ez nuela nik uste bezain gustuko, ez nuela abokatu izan nahi. Izan ere, akusazio partikularretan, esate baterako, ahal duzun guztia egin behar duzu zure bezeroak irabaz dezan, nahiz eta gezurra izan eta errugabe bat zigortu. Eta hori nire printzipioen eta balioen aurka egitea dela uste dut. Ezin dut hori egin. Gainera, uste dut lege askok ez dutela ezertarako balio. Gauzek hala funtzionatuko balute ongi legoke, baina utopia hutsa da.

Gero, ikusi nuen Zuzenbidea egin ondoren Kriminologia ikasten hasiz gero karreraren % 60 baliozkotzen dizutela, irakasgai berberak ematen direlako bietan. Gustatzen zait, eta pentsatu dut horri buruz.

Karrera nirekin batera amaitu duten ikaskideak abokatu izateko masterra egiten ari dira, orain derrigorrezkoa baita Boloniaren kontu hori guztia dela-eta. Diru gehiago ateratzeko egin dute.

Ni ez naiz hasi masterra egiten, eta ez dut uste hasiko naizenik. Eta, gainera, orain bezalaxe egin dezaket urtebete barru ere, Kriminologia bezala.

Azkenean, polizia zientifikoarekin eta judizialarekin zerikusia duen zerbaitetan oposizioak egingo ditudalakoan nago. Gainera, esan didatenez, Ertzaintzan sartuz gero, erakundeak berak ordaintzen die karrera Kriminologia ikasi nahi dutenei. UNEDen, uste dut.

Gaur egun asko dira erretiroa hartzekotan diren lehen promozioetako Ertzainak, eta plaza asko aterako dira, baino asko dira horietarako izena eman dutenak ere.

Estatu mailako oposizioak egitea da beste aukeretako bat, baina agian Algecirasera bidal zaitzaketenez, ez

dut horretarako gogo handirik. Nik hemen geratu nahi dut, hemen oso ongi hartu gaituztelako bai ni eta bai familia. Oso gustura nago hemen.

Eta, gainera, hemengo bizimodua ona da. Krisialdia antzeman da, baina ez Espainiako zenbait lekutan bezainbeste.

Orain, oposizioak prestatzeko eskoletan hastekoa naiz, akademia batean. Eta euskara titulurik ez dudanez, euskategian ere izena eman dut. Baita gimnasioan ere. Ez dakit zenbat denbora beharko dudana, baina argi dut hori dela egin nahi dudana, eta behar bezainbeste aldiz saiatuko naiz.

Nik hemen geratu nahi dut, hemen oso ongi hartu gaituztelako bai ni eta bai familia. Oso gustura nago hemen.

Leku askotan lan egin dut ikasten ari nintzen bitartean, ez bainuen nahi beti gurasoei diru-eskean jardun. Gainera, zortzi urte nituenetik ibiltzen naiz zaldiz, eta gerora, hamazazpi urte inguru nituenean, aurrera egitea nahi izan dut, asko gustatzen zaidalako zaldi-heziera klasikoa, baina denbora eta diru asko behar da horretarako. Amak esan zidan ezin zuela ordaintzen jarraitu, eta, hortaz, udan berarekin lan egiten hasi nintzen, enpresaren kontabilitatean, diru apur bat irabazi eta eskolak ordaintzeko.

Gerora neskatoen begirale izateko kontratatu ninduten zalditokian. Karrerako bigarren mailan, Donostiako taberna batean hasi nintzen lanean, han lan egiten zuen lagun baten bitartez. Hiru urte daramatzat han. Astean hirutan lan egiten dut, eta kontu bereziren baterako deitzen nautenean.

Ostalaritza gogorra da, eta horregatik lan egiten dut egunezko taberna batean. Onartu beharra dut ez dela nire ametsetako lana, baina egia da asko ikasten dela. Positiboa izan da, lan-mundua nolakoa den ikusi dudalako eta ikasi dudalako batzuetan hobe dela isilik geratzea eta penak irenstea. Batzuetan, egun txarra izan duzulako edo, ez duzu gogorik izaten bezeroei irribarre egiteko, horien artean ere denetik baitago, baina egin beharra dago eta atsegina izan behar duzu guztiekin. Ardura hartzen ikasteko balio izan dit.

Aitak beti esan izan dit ez duela nahi nik gau-giroko taberna batean lan egitea, edozer gertatzeko arriskua baitago hainbeste mozkorren artean. Gurasoak harro daude nitaz, lanarekin arduratsua naizela ikusten dutelako.

Baina uste dut apur bat gaizki ohituta dauzkadala. Ikasten ari nintzen bitartean beti lan egin nuenez, orain uste dute nahitaez egin beharko nukeela, aitak batez ere. Egin beharra dela dirudi.

Horretan ere desberdinak dira. Aita hamaika urterekin hasi zen lanean, ikasten ari zela, eta horregatik, normala dela uste du. Ama, berriz, ikasten aritu zen buru-belarri eta ez zen lanean hasi ikasketak amaitu zituen arte. Dirua izan ala ez izan, hor dago koska.

Dena den, orain, nahita ere ezingo nuke lana utzi, behor bat erosi baitut. Hura mantentzeko lan egin beharra dut. Txakur bat ere badut, kaletik jasoa, eta nirea da haren gaineko ardura ere.

Nahiko nuke hipikako profesionala izan, baina, zoritxarrez, ez dut ez dirurik ez behar den mailarik horretarako. Oso kirol garestia da; oso ona izan behar duzu, eta, gainera, babesleak izan behar dituzu.

Duela hamar bat hilabetetik, bertako mutil batekin nabil. Edu du izena. Hark bai, aberria barru barruan darama. Abertzalea eta Athletic zalea da, eta zortzi abizenak euskaldunak izateko bakarra falta zaio. Medikuntza ikasten ari da.

Nire gurasoek ezagutzen dute jada. Amak oso gustuko du, baina aita apur bat berezia da kontu horietarako. Ez zaio gustatu nirekin irten diren mutiletatik bat bera ere (bertakoak ziren guztiak). Izan ere, ni naiz haren neskato txikia.

Aitak ez du konfiantza handirik oraindik Edurekin, baina bai nire ahizparen mutil-lagunarekin. Hura ere oso abertzalea da, eta eztabaidan aritzen dira. Gainera, aitari ez zaio Athletic gustatzen, ez baitu ulertzen nola joka daitekeen

bertako jokalariekin bakarrik. Arrazakeriagatik dela uste du. Eta, horrez gain, oso talde txarra iruditzen zaio, eta berak futbol ona ikustea gustatzen zaiola esaten du. Horrekin ere izaten dituzte ika-mikak.

Ni saiatzen naiz Edu apur bat zirikatzen, ea aldatzen den. Izan ere, Madrilera joan gaitezen eskatzen diodanean, euskaldun peto bat ez litzatekeela inoiz Madrilera joango erantzuten dit, eta Kantabriara joango al garen galdetzen diodanean, berriz, ea Espainiara joan nahi dudan. Batzuetan grazia egiten dit, baina beste zenbaitetan gogaikarri hutsa iruditzen zait.

Gainera, noizean behin botatzen ditu *sudaca*, *chibolera* eta halakoak beste batzuei buruz diharduenean, eta halakorik ez egiteko esan behar izaten diot, iraingarria dela uste dudalako. Lagunen batek adar-joka halakoren bat esaten badit, ez dut gaizki hartzen; ez diot garrantzi handirik ematen, badakidalako ez duela asmo txarrez esan.

Baina, beste norbait gutxiesteko esaten badute, ez dut ongi hartzen. Asko gogaitzen nau bertakoen ahotik halakoak entzuteak, eta askotan izaten dut halakoak entzun beharra.

Eta ikusten badut eska dezakedala halakorik ez esateko, eskatu egiten dut. Hasieran isilik geratzen dira, eta, gero, ez zirela ari zuri buruz esaten dizute. Amorru handia ematen dit hala ere.

Izan ere, jendeak ez nau hartzen hangotzat. Ikastetxeko koadrilako lagun guztiak bertakoak ziren, baina unibertsitatekoak ere, ekuadortar bat izan ezik. Erabat bertakotuta nagoela uste dut, gainerakoak bezalakoa naizela. Baina ustekabean halakoak entzuten ditudanean, ezin dut geratu ezer egin gabe.

Izan ere, jendeak ez nau hartzen hangotzat. Ikastetxeko koadrilako lagun guztiak bertakoak ziren, baina unibertsitatekoak ere.

Nire iritziz, oro har, immigratzaileak ez daude bertakotuta oraindik. Latindar emakumeek, kolonbiarrek eta venezuelarrek batez ere, senar-lapur ospea dute. Eta horretan, nik uste, zerikusi handia du hemengo matriarkatuak, emakume euskaldunak oso irmoak direlako. Hangoak, berriz, gizonak lausengatzen saiatzen dira, eta haien gustukoak izaten, beren burua asko zainduta eta haien modu atseginean tratatuta. Hor dago koska. Ikusi izan ditut gizonak beren emazteak utzi eta latindarrekin joaten. Baina horrek leku txarrean uzten gaitu gainerakoak... Etxeko langileak edo senar-lapurak garen ospea dugu. Estereotipoak sortzen dira.

Jendeak hona etortzen direnak baino ez ditu ikusten ordea. Dirua dutenak eta han ongi daudenak zertarako etorriko dira bada?

Amak alde egin beste aukerarik izan ez zuelako etorri ginen gu; gauzak beste modu batera izan balira, Kolonbian geratuko ginen, eta, batek daki, agian hemen baino hobeto biziko ginatke.

Egia da kriminalitate-indizea oso altua dela han, baina ondo bizi direnak oso ondo bizi dira. Etorkizun edo bizi-baldintza hobeen bila datozenak baino ez dira ezagutzen hemen, eta horiek pobreenak eta analfabetoenak izaten dira, hirien kanpoaldean bizi direnak.

Egia da hona datozenek bertako laguntzak aprobetxatzen dituztela, baina ardiaren kulpak bildotsek pagatu beharra izaten dugu beti. Bakar batek lapurretan egiten badu, horixe jakiten da, nahiz eta gero beste hamar egon egun guztia lanean familiek zer jana izan dezaten. Horiei buruz ez da ezer esaten, eta lapurtzat jotzen dira horiek ere.

Ikusi nire ama, esaterako. Lanpostu mordera sortzen ari da bere komunikazio-enpresarekin, eta diru mordera uzten du diru-kutxa publikoetan. Ni ere lanean ari naiz, eta hilero-hilero kotizatzen. Baina alde txarra baino ez da ikusten.

Politikak dezente amorratzen nau. Orain badira alderdi politiko gehiago, baina, hala ere, sistema oraindik ere bipartidista dela iruditzen zait, eta hori gainditu beharko genukeela, gauzak hobetuko badira. Ez genuke inork bozkatu behar, eta konstituzioa zein sistema bera aldatzeko eskatu beharko genuke. Ezin diegu jaten eman hainbeste politikari usteli, ez eta txofer eta biziarteko pentsiodun hainbeste diputatu eta senatariri ere. Botereak usteldu egiten du jendea. Politikariek dirua egiteko aukera ikusten dute gora iristen direnean, eta horixe egiten dute askok. Guztiek eskaintzen digute etorkizun ederra hauteskundeetako gobernu-programen bidez: zergak murriztuko dituztela diote, langabezia gutxituko dutela, laguntzak ugarituko dituztela... Baina, boterea eskuratzen dutenean, etxegabetzeak eta langabezia baino ez dituzte ekartzen. Sudur puntan jartzen zaiena egiten dute. Horixe gertatu zen PPrekin. Nire ustez, ez ezker ez eskuin, zentroko politikak egin beharko lirateke, neurritsuagoak. Esanak esan, niri ez zait gustatzen politikaz hitz egitea, eta lagun artean saiatzen gara hori ez egiten. Badakit zer pentsatzen dudana, baina badakit gauzak ez direla aldatuko nik hori pentsatu arren.

Batzuetan Euskal Herriaren independentziaz hitz egiten dut Edurekin. Esaten diot erreferenduma egingo balitz gehienok ez dugula independentzia nahi esango genukeela, nahiz eta erreferenduma kontsultarakoa eta ez-loteslea izan. Eta bera sutu egiten da. Nik uste dut guztia galduko litzatekeela Euskal Herriak independentzia lortuko balu, kontzertu ekonomikoaren eta Espainiaren mende gaudelako eta ezingo genukeelako irauan.

Sekulako iskanbilak izaten ditugu halakoetan, baina nik barre egiten dut azkenerako. Hura zirikatzeke asmoz egiten dut apur bat.

Etorkizunera begira, polizian lan egiten eta hemen bizitzen ikusten dut nire burua. Ez nuke begi txarrez ikusiko beste norabait joatea, baina gauza asko ditut hemen, eta gustuko dut hau. Hemen daude familia, lagunak, mutil-laguna, behorra, txakurra... Hemen dago nire bizitza osoa.

Familia ere izan nahiko nuke, baina epe luzera. Nahikoa ikasi dudala uste dudanean, nahikoa gauza ezagutu ditudala, nahikoa bidaiatu dudala... Azken finean, bizi izan naizela uste dudanean.

Eta gauzak ongi badoaz Edurekin, hemen izan beharko du, zalantzarik gabe. Euskara hutsean eta Athletic ikusiz.



Oier dut izena...

...eta Gasteizen jaio nintzen duela hogeitun urte. Nire ama kubatarra da, eta nire aita, berriz, hemengoa. Aitak asko bidaiatzen zuen gaztetan, eta nire ama Kuban ezagutu zuen, duela hogeitun bost urte. Maitemindu egin ziren eta nire aita joan-etorrian ibili zen denboraldi batean, eta azkenean, nire ama Gasteizera etorri zen eta ezkondu egin ziren.

Hiru anai-arreba gara. Ni naiz zaharrena, eta hamazortzi urteko anaia bat eta hamazazpi urteko arreba bat ditut.

Hona etortzea oso aldaketa handia izan zen nire amarentzat, ez baitzuen inor ezagutzen. Baina kontatu didanaren arabera, aitaren familiak oso ondo hartu zuen eta asko babestu zuten. Gustura egon zen hasiera-hasieratik, eta gustura dago orain ere. Nik uste, horretan badu zerikusirik nahita etorri izanak, eta ez behartuta.

Etorri zenean, nire aitaren arreba batek bere lagunak aurkeztu zizkion eta leku guztietara joan zen berarekin, inguru hauek ezagut zitzan. Eta nire aitaren lagunekin ere oso ondo integratu zen.

Esan dit hasieran soilik izan zuela arazotxoren bat, nire aitaren familiaren herrian bizi zen osaba zahar batekin. Gizona jada hilda dago, eta zerbait desatsegina esan omen zion noizbait amari.

Baina denborak aurrera egin ahala, konturatu zen nire ama oso langilea dela eta kariño handia hartu zion. Azkenean, asko maite gintuela nabaritzen zen, beti guri gustu ematen saiatzen baitzen.

Gasteizen bizi izan gara beti, eta gure etxearen aurrean dagoen itunpeko ikastetxe batean hasi nituen ikasketak. B ereduan egon naiz beti, eta ikasgelan bost baino ez ginen, ikasle gehienek gaztelaniaz ikasten zutelako.

Konfiantza handia hartu genuen tutorearekin eta, oraindik ere, elkartu egiten gara noizean behin. Oso pozik joaten nintzen eskolara, ondo pasatzen nuen.

Horren gutxi izanda, oso ondo konpontzen ginen gure artean, bai eta tutorearekin ere. Izan ere, DBHko lau ikasturteetan egon zen gure taldearekin tutorea. Konfiantza handia hartu genuen berarekin eta, oraindik ere, elkartu egiten gara noizean behin. Ni oso pozik joaten nintzen eskolara, ondo pasatzen nuen.

Besteekin eskola batzuk ematen genituen, baina gutxi batzuk baino ez. Jolas-orduan bai, gehiago elkartzen ginen. Nik saskibaloian jokatzeko nuen lagun batekin, ete beste batzuk futboleko aritzen ziren.

Ikastetxea nire etxearen ondoan zegoenez, bakarrik joaten ginen; horrenbestez, nire gurasoek ez zuten aukera handirik izan beste haurren gurasoekin harremana izateko.

Ikastetxe honetan, orain, A eredu hautatzen duten etorkin asko eta asko daude, eta horregatik, askoz jende gehiago dago eskola horietan, eta oso gutxi B eredu euskara ikasten. Nire anai-arrebei niri gertatutako gauza bera gertatu zitzaien.

Gogoan dut, DBHn batik bat, arratsalde guztiak eskolaz kanpoko jarduerekin beteta izaten dituzten haur horietako bat nintzela. Denbora libre gutxi nuen, eta lehertuta bukatzen nuen eguna. Karatea, marrazketa, igeriketa eta ez dakit zenbat gauza gehiago egin nituen. Hasieran, apur bat estutzen nintzen, baina gogoko nituenak aukeratzen nituen, azkenean pozik joaten nintzen. Bestalde, jarduera horietara joan gabe geratuz gero, etxean egongo nintzen, telebista ikusten edo antzeko zerbait egiten, adin horretan ez baituzu ezer askorik egiteko. Aitortzen dut nik ere nire seme-alabak horrelako jardueretan sartuko nituela.

Batxilergoa egiteko, ikastetxez aldatu behar izan nuen, bestean DBH-4ra arte soilik egin zitekeelako. Beste ikastetxe batera joan nintzen, eta hura ere etxetik gertu nuen. Gainera, nik horretara joan nahi nuen, han ikasten zuen jendea ezagutzen nuelako eta ikasle gehiagoko ikasgela batean egon nahi nuelako.

Beste ikastetxeko nire ikaskideetatik ez zen bat bera ere joan hara Batxilergoa egitera. Etxetik gertu bizi den neska batekin soilik jarraitzen dut harremanetan. Batzuk kanpora joan ziren bizitzera eta beste batzuei, berriz, arrastoa galdu nien. Ikasgela bakoitzean 30 ikasle inguru zeuden, eta maila altuagoa zen. Lehen hiruhilekoan, agian, zertxobait gehiago kostatu zitzaidan, baina gero ohitu nintzen eta ondo moldatu nintzen. Irakasleek esan bezala, azkenean zuk zeuk jartzen diozu maila zeure buruari. Gainera, ni ondo prestatuta atera nahi nuen, unibertsitateko ikasketei begira.

Nire gurasoek ez dute gehiegi arduratu behar izan niregatik eta nire ikasketengatik, ezta nire anai-arreben ikasketengatik ere, hiruok lan-ohitura onak izan ditugulako eta ondo antolatzen jakin dugulako. Ni nire ikasketez arduratzen naiz, egin nahi dudana zerbait delako eta nire probetxurako delako.

Noizbait irakasgairan bat gainditu ez badugu, eta hori gutxitan gertatu da, ez dira larritu, azkenean gaindituko genituela zekitelako. Jarraipena egiten digute, hori bai, nola goazen jakiteko, eta noizbait akademiaren batera joateko beharra izan badugu, hori ordaindu dute, eta kito. Orain bezala, ni unibertsitatean nabil eta akademia batera joaten ari naiz.

Ni nire ikasketez arduratzen naiz, egin nahi dudan zerbait delako eta nire probetxurako delako.

Ingeniaritzako 2. maila egiten ari naiz. Zalantzak nituen Arkitekturaren eta Ingeniaritzaren artean, antzeko ikasketak baitira. Kontua da Arkitektura egiteko Donostiara joan behar nuela, eta azkenean, Ingeniaritza egitea erabaki nuen, Bilbon egin nezakeelako, zertxobait gertuago.

Oso pozik nago unibertsitatean. Gauzak oso ondo doazkit eta oso gustura nago ikaskideekin. Ni bezala pentsatzen duen jendea aurkitu dut, Batxilergokoak baino helduagoak.

Nire aita oso gaztetatik dabil lanean, hemeretzi urterekin edo hasi zen. Orain, oso txanda arraroak izaten ditu, arratsaldez eta gauez.

Nire amak joskintza-laneko denda bat ireki zuen gure auzoan duela urte batzuk. Baina gauzak ez ziren ondo atera eta, azkenean, itxi egin behar izan zuen. Orain, konponketak egiten jarraitzen du, etxean, eta horrekin moldatzen da.

Oso sartuta dago kultura- eta boluntarioritza-jardueretan. Lagun-talde bat du bere ahizparekin —hura ere hemen bizi da—, eta parte hartzen dute zenbait elkartetan eta antzeko gauzetan.

Nik uste, berak kontatzen duena kontuan hartuta, bere jatorriarekiko lotura ez galtzeko egiten du hori. Laguntzeko eskatu ohi digu, eta pozik egiten dugu, baina guk den-denean parte hartzea nahi izaten du, eta apur bat gogaitzen gaitu. Askotan ezin baitugu berak nahi adina denboran eman horrelakoetan. Bestalde, nire izeba ere tartean dago, eta hari ez dago ezetz esaterik.

Gasteizko jaietan, herri-bazkariak eta beste jarduera batzuk antolatzen dituzte. Eta nahi duten guztian laguntzen diegu, denbora izanez gero.

Noizean behin, ezkondu ziren garaian nire aitak hemen zituen lagunekin elkartzen dira.

Txikiagoak ginenean, nire amaren lagun kubatarren seme-alabekin elkartzen ginen, parkera joateko edo jolasteko. Baina haiekiko harremana eten nuen, handitzean egun osoan gauza arraro eta ilunetan sartuta egoten baitziren. Batzuk saltsa nahiko handitan sartuta daude.

Kalean aurkitzen badituz, agurtu egiten dituz, arazorik gabe. Baina ez dut elkartu eta elkarrekin ibiltzeko gogorik. Bakoitzak bere bidea hartu du eta kito.

Denbora horretan guztian, hiruzpalau aldiz joan gara Kubara. Udan joaten ginen eta hilabete baino zertxobait gehiago egoten ginen han.

Orain, lau urte daramagu joan gabe, eta nire ama urrian joango da, bakarrik. Gu ezin gara joan, eskola dugulako, eta nire aita ere ez da joango. Tira, nire aita ez zen joan aurreko bidaietan ere. Jada asko bidaiatu duela dio, dena ikusi duela, eta ez duela mugitzeko gogorik.

Nik han oso ondo pasatu dut beti. Nire amaren ahizpa baten etxean geratzen gara, eta kanpoko seniderik ia inoiz hartzen ez dituztenez, oso ondo tratatzen gaituzte. Familia bisitatzeko aprobetxatzen dugu, nahiko ugaria baita, eta hondartzaz hondartza ibiltzeko.

Nire amonak denboraldiak ematen ditu hemen gurekin, eta gero, Kubara itzultzen da. Eta nire amaren ahizpa ere hemen bizi da. Kubatik irten, eta mundua ezagutu nahi zuen, eta nire ama hemen zela aprobetxatu zuen hona etortzeko.

Beti esan digu zahartzean Kubara itzultzeko asmoa duela, zahartzaroa han bizitzera.

Han, nire ama bere saltsan egoten da, oso gustura. Izan ere, beti esan digu zahartzean Kubara itzultzeko asmoa duela, zahartzaroa han bizitzera. Nire aitak ez du horri buruz hitz

egiten, eta nire amak dio bera ere hara joan daitekeela, nahi izanez gero. Ez dakit biak joango diren gu bide oneko arrastoan sartuta uzten gaituztenean, edo nola amaituko diren gauzak.

Baina nire amak oso argi dauka Kubara itzultzearena, eta ez duela hemen hil nahi esaten du sarritan.

Pentsatzen dut gustuen nagoen lekuan geratuko naizela, lanpostu on bat, soldata on bat eta etxe bat lortzen ditudanean.

Nolanahi ere, nik nahiko janda daukat ikasketak amaitzean emigratu egin beharko dudala, hemen lanik aurkituko ez dudalako. Eta gainera, aitortu behar dut gustatuko litzaidakela; nolabait, hori egiteko gogoia dut.

Hemen oso lan gutxi dago nire espezialitateko ingeniariarentzat, eta horrez gain, hasieran oso gutxi kobratzen da. Horregatik joan nahi dut kanpora, mundua ezagutzeko eta askoz diru gehiago irabaziko dudala dakidalako.

Nire ikaskideetatik, nik uste, ikasketak serio hartu dituztenek ere argi daukate kanpoan lan egiten amaituko dutela.

Ez dakit, ordea, urte batzuk barru, dirua aurreztu eta gero, hona itzuliko naizen. Pentsatzen dut gustuen nagoen lekuan geratuko naizela, lanpostu on bat, soldata on bat eta etxe bat lortzen ditudanean.

lazko udan Londresera joan nintzen, hilabete baino zertxobait gehiago, lan egitera, bizimodua ateratzen saiatzera. Eta gustatu zitzaidan. Esperientzia apur bat izateko egin nuen, etorkizunean beste leku batean hasi behar badut. Huts-hutsetik hastea izan ez dadin.

Londresen bizi den nire amaren lagun batek etxebizitza bilatzen lagundu zidan, baina lana nik neuk lortu nuen. Han oso erraz aurkitzen da lana. Izan ere, oso hiri handia denez, sobera dago lana.

Baina noski, lortzen duzun lana zure ingelesaren mailaren arabera da. Zenbat eta maila altuagoa izan, orduan eta lan hobea lortuko duzu. Maila kaskarra baduzu, inork nahi ez dituen lanak hartu behar dituzu.

Nik First-eko mailaren zertxobait behera nabil, eta McDonald's jatetxe batean lortu nuen lana. Gestioak Internet bidez egin nituen, eta izapideak, berriz, han bertan, hemendik egin ezin dituzun gauza asko daudelako. Han, alde ona da izapideak oso azkar egiten direla. Horrenbeste jende hartzera ohituta daudenez, dena nahiko erraza izaten da.

Lana oso gogorra zen, asko exijitzen zutelako eta ahal zuten gutxiena ordaintzen zizutelako. Eta ordubete eman behar nuen egunero autobusean, eta hori oso garestia zen. Baina, gorabeherak gorabehera, oso pozik geratu nintzen.

Nire amaren lagunak etxebizitza aurkitzen lagundu zidan. Gela partekatu batean egon nintzen, saguak eta guzti zeuden. Kontua da han etxebizitzak penagarriak direla, eta, gainera, oso garestiak. Baina gauzak hala hartu behar. Bestela, ez zaizu bizitzerako iristen.

Oso ondo etorri zitzaidan nire ingeles-maila hobetzeko, herrialde askotako lankideak nituelako, gaztelaniaz hitz egiten ez zekitenak. Eta, halaber, nire amaren lagunarekin zenbait leku ezagutzeko aukera izan nuen.

Berak zenbait urte darama jada Londresen, eta esan zidan han kobratzen den diruarekin hemen baino askoz diru gehiago aurrezteak lortzen dela, lan on bat lortzeko aukera izanez gero, bizitza oso garestia izan arren.

Karrera amaitzean, ez dut inolako arazorik izango Londresera itzultzeko, ezta edozein lan hartu behar badut ere, ingeles-maila oraindik behar adinakoa ez delako edo dirua behar dudalako. Argi daukat ez dudala nik ikasitakoarekin lotutako lana lortuko leku batera iritsi eta berehala. Badakit ez dela hain erraza. Ingeniari-lanak egiten amaituko dudala uste dut, horretarako ikasten ari bainaiz, baina ez daukat presarik.

Nolanahi ere, Londreseko udaleko webgunean begiratzen egon nintzen, eta han ingeniari zibil asko behar dituztela ikusi nuen. Aurri-egoeran dagoen hiria da, eta konponketa ugari egin behar dira. Eta ingeniari zibilok egiten ditugu konponketa horiek.

Nire amak eta nire aitak oso iritzi desberdinak dituzte kanpora lana egitera joateari buruz. Nire amak asko animatzen gaitu hori egitera, pentsatzen dut berak egin zuelako izango dela hori. Guk joan ahal izateko ordaindu behar den guztia pozik ordainduko duela esaten digu.

Nire anaiak ez dauzka gauzak hain garbi, baina nire arrebak etorkizunean kanpoan lana egitera joateko asmoa du.

Nire aitak babestu egiten gaitu horretan, ez digu hori ukatuko, baina esaten du guk horrela pentsatzeak desengainua eragiten diola, eta hemen geratuko garela espero duela. Horregatik ez dut asko hitz egiten berarekin horri buruz, zertxobait gaizki sentiarazten didalako.

Baina nire etorkizuna da, eta ezin dut hori beste pertsonak esaten dutenaren menpe utzi, pertsona horietako bat nire aita bada ere.

Datorren urtean ez naiz Londresera berriz joango, 3. maila Polonian egiteko asmoa dudalako, Erasmus programaren baitan. Hori egiten badut, denbora gehiegi izango litzateke etxetik kanpo, eta, gainera, udaz gozatzeko gogoia dut. Orain, hango unibertsitateak onartzeko zain nago.

Esperientzia pilatzeaz eta ingelesa praktikatzear gain, uste dut interesgarria dela enpresei begira ere, etorkizunean lana lortzeko. Zure bizitzan zenbait lekutan egon zarela esan ahal izateak zure alde egiten du, norbaitek zu hautatzeko orduan.

Nire ikasgelatik, jende asko joango da datorren urtean beste lekuren batera, Erasmus programaren barruan. Kontua da gure ikasketetan 3. maila dela zailena, eta badirudi beste herrialde batzuetako unibertsitate batzuetako maila zertxobait baxuagoa dela.

Ikasketak lau urteko gradua eta bi urteko masterra dira. Eta masterra ere kanpoan egin nahiko nuke, ingeniartzek ez baitute ezertarako balio masterrik gabe, espezializatu egin behar dugu. Nire ikasketen ardatza obra handiak egitea da, hala nola zubiak, tunelak eta errepideak, eta oraindik erabaki ez dudan arren, Arkitekturako masterra egingo nuke agian, eraikinak eta antzekoak diseinatzeko.

Lana aurkitzen badut, bigarren mailako ardura izan dadila nahi du. Esaten dit ikasketei eman behar dietela lehentasuna, eta ikasketekin lotutako oro beraiek ordainduko digutela.

Batzuetan, lana bilatzen jardun dut, eta nire aitak esaten dit ondo iruditzen zaiola, baina ez dudala ahaztu behar une honetan nire helburu nagusia ikasketak direla. Nik ezagutzen ditut Gabonetan lan egin ibili ondoren gero irakasgai bat bera ere gaintitu ez duten ikasleak. Eta horixe da nire aitak niri gertatzea nahi ez duena. Lana aurkitzen badut, bigarren mailako ardura izan dadila nahi du. Esaten

dit ikasketei eman behar dietela lehentasuna, eta ikasketekin lotutako oro beraiek ordainduko digutela.

Orain, Erasmus programako bekaren bidez ematen dizuten dirua justu samarra da, baina nire gurasoek zertxobait gehiago jarritz gero, uste dut oso ondo moldatuko naizela.

Nire anaiak Batxilergoko 2. maila bukatu du oraintxe, eta selektibitatea prestatzen ari da. Ingeniaritza bat ikasiko du berak ere, ni ikasten ari naizen lekuaren ondoan. Ez du sartzeko eskatzen duten gutxieneko notarekin arazorik izango, ez baita altua. Baina beti nota onak atera dituenek, uste du karrera ere oso erraz gaintituko duela. Nik esaten diot ez daukala zerikusirik, baina ez dit

kasu handirik egiten, eta uste dut ezustekoren bat hartuko duela. Nire aitak dio pubertaroan dagoela, eta harro samar dabilela, baina espabilatu egin beharko duela nahitaez.

Kirol asko egiten du eta oso osasuntsu dago, baina alferra da. Bestalde, oso ordutegi arrarotan ikasten du. Gauzez ikasten du, eta arratsaldeak lotan ematen ditu. Eta logela berean lo egiten dugunez, niri egiten dit kalte. Izan ere, arratsaldean ikastera joaten banaiz, lotan dago, edo esnatu egiten nau ordu txikitan, oheratzera etortzen denean.

Ikusiko dugu ea nola moldatzen den unibertsitatean. Jende askok lehen urtea zailena dela esaten badu ere, nik uste dut hori errazena dela. Nire ustez, 1. mailan karrera benetan egiten nahi dituztenak eta egin nahi ez dituztenak bereizten dira. Jende asko karrera jakin bat egiten hasten da beste bat egiteko behar den nota lortu ez duelako. Eta horrelakoetan, interes handirik jartzen ez denez, azkenean utzi egiten dute. Baina benetako interesa baduzu, lehen ikasturtea arazorik gabe gainditzen duzu.

Ez dut berarekin hitz egin, baina ez dakit prest egongo litzatekeen nik egindakoa egiteko, Londresera joateko alegia, edo kanpora lana egitera joatea burutik pasa zaion. Iruditzen zait beste leku batera joateko eta hutsetik hasteko nagia izango lukeela. Oso alfertuta ikusten dut.

Nire arrebak, ordea, antza handiagoa du nirekin, mundua ezagutzeari eta bere bizimodua ateratzeari dagokionez. Esaten du gauzak nik egin ditudan moduan egin nahiko lituzkela, eta horretarako eredu izan naizela berarentzat. Eta nik animatu egiten dut hori egitera, eta ahal dudan neurrian lagunduko diodala esaten diot. Ondo dago, beti, zenbait gauza egin dituen hurbileko norbait izatea, gidatu ahal izateko.

Batxilergoko 1. maila egiten ari da, euskaraz. Eta nahiko gogorra da, maila altua dauka. Bera oso egoskorra da, nortasun handikoa. Lan asko egiten du, baina batzuetan ez dio balio izaten. Eta ez du entzun nahi izaten, gauzak ondo egiteko modua azaltzen diozunean, izugarri egoskortzen da. Bere ideiak ditu eta ez dago handik aterako duenik.

Oraindik ez du erabaki zer ikasiko duen unibertsitatean, oraingoz ondo moldatzen baita Zientzietan zein Letretan. Ni ez, ordea, desastre hutsa izan nahiz beti Letretan.

Hiru anai-arrebok nahiko desberdinak gara, baina gure gurasoek askatasuna eman digute eta gu geu garatzen utzi gaituzte.

Nik, batzuetan, bost urte dituztela dirudiela esaten diet lagun batzuei, gurasoei baimena eskatzen ibili behar dutelako nonbaiten lotan geratzeko edo festara irteteko. Eta azkenean, horiexek izaten dira gutxien ikasten dutenak. Eta uste dut agian horregatik dela.

Nolanahi ere, ama arduratzen da, aita baino gehiago, guri behar denean errieta egiteaz edo mugak jartzeaz. Agian, bera askoz gehiago kontrolatzen zutelako

izango da hori, eta beharrezkoagoa dela uste duelako. Nire aita bizitza osoan hemen bizi izan da, eta nik uste dut lehenago askoz libreago ibiltzen zirela, eta berak pentsatzen du guretzat berdin izan behar duela. Aita axolagabeagoa da irtetearekin eta antzeko gauzekin lotutako kontuetarako. Lehen, eztabaidak izaten zituzten horregatik, baina orain nire amak janda dauka eta badaki bera arduratu beharko duela horretaz.

Batxilergoan nengoenean, eskolako lagunak Gasteizen irteten ginen festara, denak bezala. Unibertsitatera joatean, fakultateko ikaskideekin hasi nintzen irteten, eskolakoekin baino gehiago. Eta eskolako besteek ere berdin egin zutenez, azkenean zertxobait sakabanatu ginen.

Batzuetan, egun oso liburutegian ematen dugu, eta ikasteaz aspertzen garenean, zerbait hartzera joaten gara. Batzuetan, behar baino gehiago luzatzen gara eta berandu etxeratzen gara. Eta denbora gehiago dugunean, azterketarik ez dugulako, festara irteten gara Bilbon, diskotekaren batera edo. Orain Poza kalearen inguruan eta Mazarredon ibiltzen da jende gehien. Nire anaiari eta niri askatasun handia ematen digute gurasoek, ez digute ezer esaten irteteagatik. Argi dutelako ikasketetan arreta jartzen dugula eta ez ditugula ardurak alde batera uzten. Nire arrebarekin desberdina da; neska denez, amak beldurra du. Oso kezkatuta dago eta erabat histeriko jartzen da bortxaketen gaiarekin. Hamabiak edo ordu bata arte uzten dio irteten, eta haren bila joaten da noranahi. Nire ama saiatzen da nire aita gauza horien gaineko ardura harrarazten, baina aita oso fidakorra da, batzuetan gehiegi ere bai. Pentsatzen du pertsona guztiak onak direla, eta hori ez da horrela.

Betidanik gustatu zaidan arren, unibertsitateko eta akademiako eskolekin, oso denbora gutxi geratzen zait kirola egiteko. Lehenago, gimnasio batera joaten nintzen, baina orain, noizean behin, igerilekura joaten naiz, korrika egitera irteten naiz, edo etxean zerbait egiten dut. Halaber, mendira joatea gustatzen zait, eta aitarekin edo lehengusuekin egiten dut hori, herrian gaudenean. Eta argazkiak ateratzeko aprobetxatzen dut, hori nire beste zaletasunetako bat baita. Beti izan dugu harreman handia nire osaba-izebekin eta bi lehengusuekin. Gure etxearen aurrean bizi dira, eta txikitan, egunero joaten ginen beren etxera edo etortzen ziren gurera. Oso ondo konpontzen ginen. Haiekin pasatzen genituen Gabonak, urtebetetze guztiak eta beste familia-bazkari batzuk. Herriko etxea bi anaiek partekatzen dute, eta han ere denok elkarrekin egoten gara. Oso gustura egoten gara, eta sarritan elkartzten gara han.

laz arte, ez nintzen politikarekin lotutako ezertaz enteratzen. Ez da interesatzen ez zaidanik, baina ez nuen ezer askorik ulertzen. Baina alde horretatik ere kultura apur bat izatea garrantzitsua dela uste dut, ezin baitzara egon zure inguruan zer gertatzen den jakin gabe. Are gutxiago, nire adinarekin.

Beraz, nire lehengusuekin hitz egin nuen, haiei dezente gustatzen zaielako, bai eta nire gurasoekin ere, eguneratzeko. Oinarrizko lau gauza azaldu zizkidaten, galduta ez ibiltzeko eta gaur egungo egoera zertxobait hobeto ulertu ahal izateko behar adina.

Nik ez dut inoiz arazorik izan nire ama kubatarra izateagatik. Bestalde, fisikoki nabaritzen ez zaidanez, ez naute latinotzat hartzen.

Baina, nolana ere, inork noizbait zerbait esanda ere, niri guztiz berdin zait. Belarri batetik sartu, eta bestetik irteten zait. Nolakoa naizen eta zer egiten dudan, ni oso pozik nago horrekin. Nire buruaz oso seguru nago, eta ez dit eragiten besteek zer esan dezaketean.

Nire ama kubatarra da, baina ni ez naiz hangoa sentitzen. Bider gutxi batzuetan soilik egon naiz Kuban, bisitan, eta hango senideak ere ez ditut asko ezagutzen. Azkenean kanpoan bizitzen jartzen banaiz eta nongoa naizen galdetzen badidate, nik Gasteizkoa naizela esango nuke.

Nire ama kubatarra da, baina ni ez naiz hangoa sentitzen. Bider gutxi batzuetan soilik egon naiz Kuban, bisitan, eta hango senideak ere ez ditut asko ezagutzen.

DBHn, gutxi ginenez, nire ikaskideek bazekiten nire ama kubatarra dela. Batxilergoan galdetu egin zidaten, eta esan nuen. Orain, unibertsitatean, ez dit inork ezer galdetu. Solasaldi batean gaia ateratzen bada, arazorik gabe esango dut, besterik gabe.

Nire inguruan ez dut entzuten kanpoko jendearen aurkako mespretxuzko esamesarik, baina noizbait norbait horrelakorik esaten entzungo banu, pentsatzen dut galdetu egingo niola zergatik esaten duen hori. Bai latinoekin sartuz gero, bai beste leku batzuetakoekin sartuz gero. Nik ez dut jendearen artean bereizketarik egiten jatorriaren arabera. Latinoekin sartzea bezain gaizki iruditzen zait txinatarrekin edo marokoarrekin sartzea.

Amari bai, askotan gertatzen zaio. Eta oso pena handia hartzen dut kontatzen digunean. Ama asko haserretzen da, baina berehalakoan ez du ezer esaten. Normala da, ezin baitzara han eta hemen eztabaidan jardun. Gero guri kontatzen digu, oso haserre, barrenak askatzeko. Nolanahi ere, niri gertatuko balitz, ez dut uste ezer egin gabe geratzeko gai izango nintzatekeenik. Modu onean zerbait esaten saiatuko nintzen, ikusarazteko jokabide hori zuzena ez dela.

Nire aitari ere amorrua eragiten diote gauza horiek, baina ez die garrantzi handirik ematen. Berak pertsona guztiak onak direla pentsatzen duenez, agian uste du nire amak esajeratzen duela, ez dakit.

Unibertsitateko nire ikasgelan ez dago atzerritar asko.

Karrera amaitzean, lana hemen aurkitzen badut, ez dut presa handirik izango etxetik joateko. Izan ere, ahalik denbora gehien geratu nahiko nuke, dirua aurreztu ahal izateko.

Nire gurasoei ere, ez litzaieke gehiegi inportatuko. Jada esan digute ez dutela horrekin inolako azarorik, gure bizitzarekin probetxuzko zerbait egiten dugun bitartean. Beste kontu bat izango litzateke ezer egin gabe egotea.

Bestalde, ez dugu asko kointziditzen etxean. Nire aitak arratsaldeko eta gaueko txandetan jarduten du, eta nire ama gure etxebizitzaren ondoan dugun beste pisu batean egoten da lanean. Eta nire anaiak eta nik denbora asko ematen dugu liburutegian; beraz, ez gara askotan elkar ikusten.

Oraingoz bikotekiderik ez dudanez, alde horretatik ez daukat presa berezirik independizatzeko. Eta ez nuke nahi horrek eraginik izatea nire etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko orduan.

Espero dut gauzak pentsatuta ditudan moduan egin ahal izatea eta gusturago nagoen lekuan lana lortzea.



Sukaina dut izena...

...eta Eibarren jaio nintzen duela hogeita bi urte. Nire bost anai-arrebak ere hemen jaio ziren, baina nire gurasoak marokoarrak dira.

Nire aita 1980an edo etorri zen, Bartzelonara joateko asmotan, arreba bat zuen-eta han. Abenturara etorri zen, ez baitzuen lanik eta ez baitzekien hemengo hizkuntza. Baina esan zioten Eibarren agian lana topa zezakeela eta horregatik etorri zen hona.

Hasiera batean, bere asmoa denbora batez lan egin, zerbait aurreztu eta Marokora itzultzea zen. Baina ama ezagutu zuen Marokon, eta han ezkondu eta biak etorri ziren 1990ean. Izan ere, han orduan ere ez zegoen lanik, eta ikusi zuten hemen etorkizun-aukera handiagoa zutela, errazago egingo zutela aurrera eta bizi-kalitate hobea izango zutela.

Gainera, Eibarren lau familia arabiar ezagutzen zituzten eta elkarri laguntzen zieten guztiek ere.

Bost anai-arreba zaharrenek oso alde txikia dugu: 24, 23, 22, 21 eta 19 urte ditugu. Eta, gero, ahizpa txikia dator, 13 urtekoa. Bitxia da, baina nire ahizpa zaharrena baino urtebete gazteagoa nahiz, zehatz-mehatz. Biak otsailaren 1ekoak gara, eta ordu berean jaio ginen. Bikiak dirudigu.

Bi mutilek, 24 eta 21 urtekoek, ez dute ikasi. Zaharrenak ez du DBHrik ere, oso gazte hasi zen lanean eta utzi egin zituen ikasketak. Orain damututa dagoela esaten du, ezin delako inora ere joan eskola-graduaturik gabe. Eta ikasteko esaten dio beste anaiari; baina horrek esaten du ez duela ikasteko balio eta ahalegin handia egin behar duela kontzentratzeko. Eta, beraz, utzi egin du oraingoz.

Gurasoei ere ez zaie gustatzen ikasketak uztea eta esan diote, baina ez dago asmoak aldarazteko modurik.

Neskak, bederen, ikasten ari gara. Ahizpa zaharrenak irakasle-ikasketak amaitu ditu eta oposaketarako zerrenden zain dago.

Gertatzen dena da oso ezkorra dela. Pentsatzen du ez dutela hartuko buruan zapia daramalako eta ez dakit beste zer gauzarengatik. Haur Hezkuntza egin du eta esaten du zertarako joan behar duen haur-eskola batera, ez badute hartuko. Nik saiatzeko esaten diot, egon daitekeelako kontratatu nahi izango ez duen jendea, baina ezin da orokortu. Gainera, oposaketa ateratzen badu, hala bai inork ezin izango diola ezer esan.

Gizarte-lanak ikasten ari naiz Gasteizen, eta urtebete falta zait amaitzeko. Hurrengoak oraintxe amaitu du Batxilergoa eta frantses-filologia egiteko asmoa du. Karrera egiteagatik egingo du, berak benetan nahi duena polizia izateko oposaketak egitea baita, ertzain izatekoak, hain zuzen. Baina esaten du karrera batekin hobeto kokatuta zaudela eta, frantsesa gustatzen zaionez, gustatzen zaion zerbait egingo duela. Bitxia da, txiki-txikitatik esaten baitzuen polizia izan nahi zuela. Frantsesa ez dakienez, udan Marokon akademia batera joateko asmoa du, maila onarekin itzultzeko. Eta txikia DBH egiten ari da orain eta ez daki zer ikasiko duen gero.

Guk eskola publikoan ikasi dugu betidanik hemen, Eibarren. Haur-eskolatik institutura. Eta beti euskaraz, hemen eskola publikoa D ereduan baita. Gaztelera ikasi nahi bazenuen itunpeko ikastetxe batera joan behar zenuen. Ongi iruditzen zait euskaraz izatea, heldua zarenean, funtzionario izateko edo beste zerbaitetan lan egiteko, elebiduna izatea eskatzen baitizute. Eta ez bazara, oztopo asko izango dituzu. Pena bat da, eta askoz zailagoa, hizkuntza bat 20 urterekin ikasten hastea, txikitatik ikasteko aukera izanda.

Gainera, gaztelera ikasteko aukera izateak ghettoak sortzea eragiten du.

Lagunekin ere gehiago egiten dut gaztelera euskaraz baino. Horregatik egiten ari nahiz orain euskaraz, hizkuntzarekin kontaktuan egoteko eta ez ahazteko.

Nire etxean inork ez du euskaraz egiten eta nire gurasoek ezin izan didate lagundu etxeko lanekin. Arabiarrez egiten dut haiekin, ohituraz eta ez galtzeko, eta nire anai-arrebekin, berriz, gaztelera. Eta lagunekin ere gehiago egiten dut gaztelera euskaraz baino. Horregatik egiten ari nahiz orain euskaraz, hizkuntzarekin kontaktuan egoteko eta ez ahazteko. Baina eskolan ez nuen inoiz beharrik izan

eskola partikularretara edo errefortzu-eskoletara joateko, ikasi dudana eskolan ikasi dut. Jatorri atzerritarra duten nire lagunak ere egoera berean daude, eta aurrera egin eta ikasketak ongi eramaten jakin izan dugu.

Ez dut inoiz arazorik izan eskolan, harreman ona izan dut beti ikaskideekin eta irakasleekin. Eta izan ere, oraingo lagun batzuk txiki-txikitakoak dira. Beste batzuk eskolaz aldatzean ezagutu ditut, beti sartzen baitzen norbait berria.

Nire lagun gehienak ni bezalakoak dira, Eibarkoak eta guraso atzerritarrak dituztenak, baina beste batzuk hemengoak dira. Batzuk Bilbokoak dira, baina gehienak Eibarkoak.

Eta ez dut inoiz arazorik izan buruan zapia eramateagatik. Baina badaude gelan zapia jantzita egon ezin dutenak ere, ez dietelako uzten. Uste dut orain ikastetxe bakoitzak erabakitzen duela erabil daitekeen ala ez.

Ezagutzen dut neska bat modulu bat ikasi nahi zuena eta ezin izan zuena zapia erabiltzen zuelako. Auzitara eraman zuen, baina galdu egin zuen. Ez dakit ondo nola izan zen, baina badirudi egin behar dena Hezkuntzan erreklamazioa jartzea dela, eta ez auzitegietara jo.

Duela gutxi Gasteizen kasu bat gertatu zen, hamar urteko neskatok bati ez zioten utzi gelan zapia jantzita egotea. Eta uste dut urte osoan zuzendaritzan eman zizkiotela eskolak. Jolastokian eta gimnasioan soilik eraman zezakeen zapia, baina ez gelan barruan.

Halako gauzek sutu egiten naute. Ustez herrialde aske batean bizi gara, baina nahi dudana bezala jantzeko aske ez banaiz... zapia ez daraman pertsona bat ez da ni baino liberalago, justu kontrakoa agian.

Batzuetan horri buruzko eztabaida izaten dugu unibertsitatean, eta ulertzen ez duen jende askorekin egiten dut topo. Askok pentsatzen dute behartuta jantzen dugula zapia, eta horregatik mendean gaituztela. Esaten diet informazioa bildu dezatela, bederen, hitz egin aurretik.itz Ni ere jendea zapia jartzera behartzearen aurka nago eta. Inork ez luke inor behartu behar zerbait egitera edo zerbait jartzea.

Baina gogoak eman didalako jarri badut, zein da inor kentzeko esateko edo zapaldua nagoela esateko?

Ezjakintasun asko eta aurreiritzi asko dago honi buruz eta, horregatik, iruditzen zait alferrik dela azalpenak ematen jardutea. Jendea errazenarekin geratzen da eta ez da ezer jakiten ahalegintzen. Egia da batzuek badutela jakiteko interesa eta zapia zergatik daramazun galdetzen dizutela modu onean, baina gutxiengoa dira. Oso neketsua da, eta azkenean paso egiten duzu.

Nik Eibarren ez dut arazo handirik izan, baina badira kritikatu eta zure bizkarrean jarduten dutenak. Oraindik gogoratzen dut txikitan amarekin medikuarengana joan nintzen egun batean bikote bat kritikatzeko hasi zitzaigula ulertuko ez genuela pentsatuz. Hasi ziren esaten osasungintzagatik etortzen ginela eta horrelako kontuak. Eta nik esan nien «Barkatu, zer esaten duzue?», eta orduan esan zuen ez zirela nitaz ari.

Oso gaizki pasatzen nuen lehen halako gauzekin. Haserretu eta negar egiten nuen ezintasunez eta amorruez. Eta pentsatzen nuen: pertsona normal bat

banaiz, zergatik egon behar dut neure burua defendatzen etengabe? Orain barre egiten dut eta nahiago dut paso egin.

Eta honekin du zerikusia: ni hemen jaiotakoa naizen arren, argi daukat jendearentzat ez naizela hemengoa. Hasteko, eta lehen ikusian, zapiagatik, eta itxuragatik. Jendeak ez daki kultura eta erlijioa bereizten, eta dena nahasten du.

Eta horregatik bakarrik, atzerritartzat naukate.

Lehen beti esaten nuen ni euskalduna naizela, baina jende askok esaten didanez ez naizela, identitate-nahaste handia dut.

Nik lehen beti esaten nuen ni euskalduna naizela, baina jende askok esaten didanez ez naizela, identitate-nahaste handia dut. Niri gertatzen zait eta baita ni bezalako askori ere, atzerritarren bigarren eta hirugarren belaunaldikoei.

Hemen esaten dizute atzerritarra zarela, baina zure familiaren herrialdera joaten bazara, nire kasuan Marokora,

gauza bera esaten dizute. Atzerritarra sentitzen zara leku guztietan.

Egia esan, orain galdetzen badidate, ez dakit zer erantzun. Esan beharko dut munduko biztanlea naizela edo halako zerbait. Azkenean, erantzunik gabeko galdera da. Izan ere, hainbat eta hainbat aldiz esan arren euskalduna naizela ohartzen nahiz gizarteak, oro har, ez nauela hala onartzen. Eta jakina marokorra ere ez naiz sentitzen. Egia da kultura horretako gauza batzuk baditudala, baina ez dut kultura horretakoa naizela sentitzen.

Eta uste dut hori oso arazo handia dela, identitatea funtsezko gauza bat delako. Oinarri baten inguruan eraikitzen dugu geure burua, identitatean oinarrituz, hain zuzen ere. Eta identitatea ez badago ongi zehaztuta... denaz zalantza egiten duzu.

Badut lagun bat musulman bihurtu dena. Hemengoa da eta gurasoak eta aitona-amonak ere hemengoak ditu. Eta hura ere atzerritartzat jotzen dute, harekin sartzen direnak baino euskaldunago den arren seguruenik. Eta buruan zapia daramalako soilik, nahiz eta izen eta abizen euskaldunak dituen.

Norbaitek esaten dionean bere herrialdera joateko, hark esaten dio zer herrialdetara joan behar duen hau baita bere herrialdea. Ez du inolako zentzurik.

la uda guztietan joaten gara Marokora. Tangerrera, hangoa baita gure familia.

Txikiak ginenean, ekainean joaten ginen eskolak bukatu bezain laster, eta irailaren erdialdera itzultzen ginen. Beti eskolak hasi ondoren itzultzen ginen, eskolako lehen astea galtzen nuen.

Gogoan dut asko aspertzen nintzela, oso txikia nintzen eta ez nuen lagunik han. Antzeko adineko lehengusina pare bat besterik ez. Haiekin jarduten nuen jolasean.

Eta, gainera, oso segurua ez zenez, ezin nintzen bakarrik atera. Beti atera behar nuen norbaitekin, eta pertsona hark ahal zuenean soilik atera nintekeen. Ia egun osoa nire anai-arrebekin igarotzen nuen.

Nire gurasoak urtero joaten dira oraindik ere, baina nire anai-arrebak eta ni uda batzuetan soilik joaten gara, ez guztietan. Egia esan niri inoiz ez zait asko

gustatu. Pare bat aste eta kito. Beharrezkoa bakarrik, aspertu egiten naiz-eta bestela. Hiri batzuetan zeharreko ibilbidea egiten baduzu, ongi. Baina hara joan eta Tangerangren geratzeko, ez.

Pentsatzeko modua ere oso desberdina da, eta atentzioa ematen dit. Beti esaten dute ez janzteko horrela edo ez joateko itxura horrekin. Han emakumearen rola oso desberdina da, eta horren aurkakoa naiz ni. Nahi dudan bezala joatekoa naiz ni, eta ez zait gustatzen inork esatea nola jantzi behar dudan. Nire lehengusinarekin joaten banaiz, denbora guztian ari zait esaten kontuz zer esaten duzun edo zer egiten duzun. Haientzat ni zoroa naiz.

Esaten dizute ez joateko terraza horretara, gizonak bakarrik daudelako. Eta niri zer gizonak bakarrik badaude? Ni hemen edozein tabernatako terrazara joan eta lasai asko esertzen naiz, gizonak zein emakumeak egon. Berdin zait.

Baina han oso bestelako kultura dute, eta horregatik ez ditut ulertzen hartaz ohartarazten didatenean. Han kalera atera eta mutilak kunplimentutan hasten zaizkizu. Zoazen bezala zoazela ere. Eta, jakina, terraza batera joaten bazara, ez zaituzte bakean utziko.

Batzuei gustatzen zaie hori, baina ni oso deseroso sentitzen naiz. Lasai joan nahi dut, inor atzean ibili gabe. Gaez, gure etxea kanpoaldean dagoenez, beldur ematen dit bakarrik ateratzea edo bakarrik itzultzea, ez dakidalako zerekin egingo dudan topo. Burutik ere ez zait pasatzen.

Izan ere, egunez berdin bazaie gurasoekin edo anai-arrebekin joatea... gauean ez naiz inortaz fio. Ezta taxistaz ere. Gaez ateratzen banaiz, norbaitek eraman behar nau etxera.

Gurasoek ohartarazten digute, baina hangoentzat normala da. Oso kontraste handia da. Hemen, Eibarren edo Gasteizen, lasai-lasai ateratzen naiz edozein ordutan. Badakit zerbait gerta dakidakeela, baina beste edozeini bezala; eta kontua ez da buruan sartuta edukitzea zerbait gertatzeko arrisku handi-handia duzula.

Niri behintzat ez zait burutik pasatzen ere Marokora bizitzera joatea. Ezta nire anai-arrebei ere. Baina nire aitari izugarri gustatzen zaio, eta, orain erretiroa hartu duela, hara bizitzera joan nahi duela esaten du.

Niri behintzat ez zait burutik pasatzen ere Marokora bizitzera joatea. Ezta nire anai-arrebei ere.

Baina amak ezin ditu nire alabak bakarrik utzi berarekin joateko, eta ez dut nire aita han bakarrik bizitzen ikusten.

Orain ez du lanik egiten, baina nire amak osasun-zentro bat garbitzen eta etxeetan garbitzen ere egin du lan. Eta ahal balu ere, uste dut ez litzatekeela joango. Bizitza egina du hemen eta ohituta dago, urte asko daramatza eta. Erosoago sentitzen dela uste dut, eta nire iritzi berekoa dela: hara oportetara joan eta kito.

Gurasoak gustura daude ikasten jarraitzea erabaki dudalako, baina ez dira inoiz oso zorrotzak izan notekin, eta ez didate askotan esan ikasteko.

Nahi izan banu, aspaldi utziko nion ikasteari. Eta ikasten jarraitu badut nik nahi nuelako izan da, beraiek esan didatenagatik baino gehiago.

Egia da aitak esaten zidala ikasi egin behar nuela; baina esan banio ez nuela nahi, ez zen ezer gertatuko.

Batxilergoa bukatu eta karrera aukeratzean zuzenbidea eta gizarte-lanen artean zalantzatan ibili nintzen. Aitak zuzenbidea egiteko gomendatzen zidan, bere ustez irteera hobeak dituelako, baina, azkenean, gehien gustatzen zitzaidana egitea erabaki nuen, lanean jardun behar duena ni naizelako, azkenean.

Gainera, hamasei urte nituenetik daramat lanean. Banekielako ikasteko lan egin behar nuela. Eta baita nire gauzetarako diru pixka bat edukitzeko ere, inoiz ez baitut asteko pagarik eduki. Nire dirua eduki nahi nuen, egun osoan gurasoei dirua eskatzen ibili beharrik gabe.

Hamasei urte nituenetik daramat lanean. Banekielako ikasteko lan egin behar nuela.

Gainera, anai-arreba asko garenez, gurasoek ere ezin zizkidaten ikasketak ordaindu. Nik beti esan dut zerrendatik kendu banaiteke, kendu egingo naizela. Alderdi horretan oso independentea naiz, eta beti gustatu izan zait babak eltzetik nik neuk bakarrik ateratzea.

Nire anaiak ere ikasten ari zirela hasi ziren lanean. Baina dirua zegoela ikusita, ikasketak utzi zituzten, biak bateratu beharrean, nik egiten dudana bezala.

Nire lehen lana Eibarren aldezkaritza bat banatzea izan zen. Han lan egiten zuen lehengusina baten bidez topatu nuen lan hori. Hark esan zidan, arduradunarekin hitz egin zuen eta hasi egin nintzen.

Eskola partikularrak ere eman ditut. DBHko irakasle batek ikasle baten ama bati nire telefonoa eman ziolako hasi nintzen, hark beste bati eman zion, eta horrela jarraitu dut. Eta azkenean, iragarki bat ere jarri nuen banatzen nuen aldezkaritza. Zenbait urte eman nituen eskolak ematen eta lau ume batera ere izan nituen. Umeen etxeetara joaten nintzen, eta hemendik hara ibiltzen nintzen egun osoan. Umeak, den-denak, Eibarkoak ziren eta ez nuen arazorik izan inoiz. Gainera, ez nintzen ni bere burua eskolak emateko eskaintzen zena; beste ama batek deitzen zidan niri. Ahoz belarrikoak funtzionatzen zuen.

Azken bi urteetan, bi GKErentzat boluntarioak lortzen egin izan dut lan aldizka.

Niri zuzenean halakorik gertatu ez zaidan arren, askotan nabaritzen da nolabaiteko gaitzespena badagoela lan bila joaten zarenean. Pentsarazten dizu zer unetaraino baldintzatuko zaituen zapia eramateak, eta hori izan daitekeela, agian, lanerako ez hartzearen arrazoia.

Espero dut gizarte-lanari dagokionez ez gertatzea hori, baina batzuetan badut sentzazioa karrera amaitzean ez dudala arlo horretan lana topatuko, eta horretan egin nahi dut lan. Orain, Europan zapia debekatzeko ateratzen ari diren legeekin, ez dut imajinatu ere egin nahi zer gerta daitekeen.

Behin batean bai izan nuen istilu bat GKE batentzat lan egiten ari nintzenean. Kanean nongoen beste neska batekin, eta hura emakume batengana joan zen bazkide egitearena azaltzeko. Niri begira geratu zen, eta esan zidan beltz hark alde egin behar zuela, bestela ezin izango nuela berarekin hitz egin.

Eta burugogor samarra naizenez, hurbildu egin nintzaion, eta, orduan, nire herrialdera joateko esan zidan. Nik erantzun nion ea zer herrialdetara joan behar nuen, ea zein zen euskaldunagoa.

Esan zidan bi karrera zituela, eta ni euskaraz hitz egiten hasi nintzaion. Berak ez zekienez euskaraz, bultzaka hasi zitzaidan. Eta une horretan bertan mutil marokoar bat pasa zen handik eta hura ere iskanbilan sartu zen.

Azkenean, hura ere iraintzen hasi zen eta *putos moros* esaten eta hemen sobera gaudela esaten hasi zen. Eta nik ezjakin bat zela esaten nion bakoitzean gehiago haserretzen zen. Baina egia da, bi karrera eduki zitzakeen bai, bizitzaz ezjakina zen.

Bitxia dena da inguruan talde bat bildu zela eta jendeak pentsatzen zuela antzerki txiki bat zela, jendea arrazismoaz sentsibilizatzeko.

Azkenean, bikote bat hurbildu zitzaidan, oso jatorra, eta esan zidan denak ez direla halakoak. Nik erantzun nion banekiela ezetz. Baina ez zait bidezkoa iruditzen halakoak gertatzea; ez dut ulertzen. Halako gauzek nigan eraginik ez izatea nahi dudan arren, azkenean eragiten didate. Handik alde egin nuenean, negarrari eman nion, amorruz.

Baina beno, hor konpon. Egin dezatela nahi dutena, ezjakinak eta eskolagabeak denean daude. Halako gauzek gertatzen jarraituko dute, gizarte honetan dagoen zerbait delako eta ezin delako egun batetik bestera aldatu.

Pena bat da, baina onartu behar da hala pentsatzen duen jendea badela oraindik. Eta horietako asko gainera, ez dira euskaldunak. Euskaldun-euskadunekin ez dut inoiz izan halako arazorik.

Eibarko koadrilan hemengo jendea zein atzerriko jendea dago. Eta ez dugu inoiz arazorik izan. Asko oso txikitatik gara lagunak, Lehen Hezkuntzatik. Eta Gasteizen ere jende asko ezagutzen dut, unibertitatekoak eta lan egin dudan GKEetakoak.

Txikitari Eibarren geratzen ginen. Plazan ibiltzen ginen, eta beste ezer gutxi. Hamasei-hamazazpi urterekin gehixeago mugitzen hasi ginen. Bilbora, erosketak egitera joaten ginen batzuetan. Eta Durangora, bolatoki batera. Elgoibarrera ere joaten ginen, edo Donostiara eguna pasatzera.

Dena den, niri Eibar ez zait gustatzen, herri moduan. Orain gehiago ibiltzen naiz Bilbotik Eibartik baino, eta baditut lagunak han. Eta Gasteizen, ikasten dudan hirian, ere ibiltzen naiz, eta Donostian.

Eibarren ez dago egiteko askorik, bi kale dira, azken finean. Hiri handiagoak ditut atsegin, euskal hiriburuak kasu, bizitza gehiago dute eta.

Espazio handiagoa behar dut, aire gehiago arnastu. Jende guztiak ezagutzen zaituen herri bat ez zait gustatzen, mugatu egiten zaituela uste dut. Mugatu egiten zaitu eta ez dituzu egiten beste leku batean egingo zenituzkeen gauzak,

Espero dut gizarte-lanari dagokionez ez gertatzea hori, baina batzuetan badut sentsazioa karrera amaitzean ez dudala arlo horretan lana topatuko, eta horretan egin nahi dut lan.

edo beste modu batean egingo zenituzkeen. Uste dut hainbeste jendek ezagutzen bazaitu ez zarela hain askea, zutaz jarduten baitute, esamesetan. Eta hiri handiagoetan, jendeak ezagutzen ez zaituenetan, ez da halakorik gertatzen. Igual nire paranoia bat da, baina ez dut etorkizunean Eibarren bizitzen geratzeko asmorik.

Azken finean, iritziak besterik ez dira. Izan ere, nire ahizpa zaharra, gurasoen etxetik irten dena, Eibarren bizi da. Eta esaten du jende guztiak ezagutzen duelako egin duela, erosoago eginarazten duela horrek. Eta anaia zaharrak ere Eibarren jarraitzen du bizitzen.

Agian, iritziz aldatu eta hemen geratzeko naiz, baina orain, bederen, nahiago dut kanpora bizitzera joan.

Dena den, atzerrira bizitzera joateak ere ez nau erakartzen. Uste dut erosotasun-kontua dela. Hemen gustura nago, eta kanpora joango banintz hizkuntza ikasi beharko nuke. Zerotik hastea bezala litzateke.

Hemen gustura nago, eta kanpora joango banintz hizkuntza ikasi beharko nuke. Zerotik hastea bezala litzateke.

Gainera, zerbaiterako ikasi dut euskara, zerbaiterako balio beharko dit. Argi baitago hemen euskara jakinda aukera gehiago dituzula.

Niretzat, Bilbora joatearekin nahikoa litzateke.

Niri betidanik gustatu izan zait erlijioaz eta politikaz eztabaidatzea. Asko gustatzen zait gertatzen denaren berri izatea eta horretaz eztabaidatzea koadrilan; izan ere, bakoitzak bere iritzia eta ikuspegia du.

Lagunekin, eta, bereziki, musulmanak direnekin, asko hitz egiten dugu erlijioaz. Batzuk muturrekoagoak dira, eta beste batzuk lasaigoak, eta azkenean beti izaten da iskanbila, baina ongi.

Ni familia musulman batean jaio naiz, eta hala hezi ninduten. Baina ezaguerara heldu nintzenean, gauzak ikertzen hasi nintzen nire kontura, erlijioan sinestuna izango nintzen jakiteko. Benetako sinestunaz ari naiz, ez gurasoek esan didatelako. Gustatzen ez zaizkidan hainbat gauza zeuden etxean, eta pentsatzen nuen hori erlijioa bazen ni ez nintzela halakoa izango.

Horregatik, hamalau urte inguru nituela, emakume musulmanek hemen Eibarren ematen zituzten hitzaldietara joaten hasi nintzen. Eta hala ohartu nintzen, adibidez, nire aita pixka bat matxista dela. Berak esaten zidan erlijioak esaten duena dela, baina ez du zerikusirik. Askotan eztabaidatu izan dut horretaz berarekin, eta hasieran esaten zidan: zer jakingo duzu horretaz. Baina nik azaltzen nion hau horrela eta hala dela. Biak ere burugogor samarrak garenez, eztabaida biziak izaten genituen gai horretaz.

Baina horrek guztiak nire erlijioa nirea den gauzatzat hartzea ekarri zuen, eta hala jokatzea. Zapia eramatearena adibidez. Eta ez zitzaidan arraroa egin bere garaian, ama zapia zeramaten beste familia batzuekin egoten baitzen askotan, eta bakarrak ez ginela ikusten nuen.

Aitaz esan dudana gain, aitortu behar dut ikasteko esan izan digula beti eta ez, berriz, ezkontzeko. Jada ezkondu dauden lagunak ditut, eta hark esaten zigun ez egiteko beste hark bezala, ikasteko eta etorkizuna bermatzeko, gerora ere egongo baita ezkontzeko denbora.

Eta hori bazirela nirekin ezkondu nahi zutenak. Eta ez naiz ari nire bikoteez, baizik eta ezertaz ezagutzen ez ditudanez. Nire aitarengana joan eta alabarekin ezkondu nahi zutela esaten zioten. Bai baitaude horrelakoak oraindik. Baina aitak beti esaten zien ezetz.

Bitxia da gaur egun ere halakoak gertatzen jarraitzea. Uste dut ezkondu nahi baduzu, zuk zeuk bilatu behar duzula emakume bat eta ez zain egon zure aita beste ez dakit zeinen aitarengana joatea ezkontza eskatzeko. Herri batzuetan agian bai, baina uste dut, oro har, ez dela jada Marokon ere egiten.

Nire gurasoei asko axolako lieke nire bikotea musulmana ez izatea. Ez lukete batere ondo hartuko hala ez balitz.

Baina nik neuk ez dut pentsatu ere egin musulmana ez den bikote bat edukitzea, eta inoiz ez dut izan. Lagun asko ditugu, baina inoiz ez didate atentzioa eman bikote moduan. Gertatzen dena da badakizunez musulmana izan behar duela eta ez dela, pentsatu ere ez duzu egiten lagun hori bikote moduan ikustea.

Nik neuk ez dut pentsatu ere egin musulmana ez den bikote bat edukitzea, eta inoiz ez dut izan.

Beste gauza askoren artean, arazo handia izango litzateke haurrak izan eta zer erlijiotan hezi nahi dituzun erabakitzea.

Txikiak ginenean, Gabonak zertxobait ospatzen genituen etxean. Beti egin izan dugu hamabi mahatsena eta ospatu izan dugu Urteberria. Hori bai, gurasoek ez ziguten jartzen oparirik Errege-egunean. Urte batean, erregez mozorrotuta etorri ziren batzuk (ez dakit Gurutze Gorrikoak edo ziren) opari batzuk ematera. Eta gogoan dut oso ilusio handia egin zigula opari horiek jasotzea.

Guk opariak ramadanaren amaierako festan egiten ditugu. Gertatzen dena da hemen egun horiek ez direla jaiegunak.

Niri oso gaizki iruditzen zait Espainia ustez herrialde laiko bat izanik lan-egutegian jai-egun moduan sartzea Gabonak edo Aste Santua. Guztiz laikoa izan beharko luke edo ez izan. Edo dena ospatu behar da edo ezer ez.

Lana badugu, ramadanaren ondorengo festa gure aisialdian ospatu behar dugu, lanegun normal batean delako. Ez Gabonetan bezala, jende guztiak jai duen egun batean.

Duela gutxi irakurri dut alkate batek ez dakit zenbat diru gorde duela ramadanaren ondorengo festarako eta urte berri txinatarrerako. Eta hori oso ondo iruditzen zait.

Dena den, egutegiak baino gehiago integratzeko modua aldatu beharko litzateke. Izan ere, hemen kulturarteko festa bat ospatzen da eta kultura guztiak

daude euskal kultura izan ezik. Kulturartekoa bada, zergatik ez dago euskal kultura? Zer kulturartekotasunez ari gara?

Urtean festa bat eginez ez dugu ezer lortuko. Mentalitatea aldatu beharko litzateke eta goitik egin. Frantziako adibideari jarraitzen badiogu ez zaigu ongi joango. Frantzian diskriminatu egiten zaituzte hirugarren edo laugarren belaunaldikoa izanda ere.

Eta orain, terrorismoarekin, are gehiago. Badirudi denak terroristak garela, eta jendeak galdetu ere egiten dizu haiek bezalakoa zaren. Eta zer esango diezu?

Argi daukat terrorismoaren lehenengo biktimak musulmanok garela, islamofobia izugarria sortzen ari delako.

Nik argi daukat terrorismoaren lehenengo biktimak musulmanok garela, islamofobia izugarria sortzen ari delako. Lehen diskriminatuta bageunden, orain askoz gehiago.

Azkenean, terrorista gehienak musulman bihurtuak edo hirugarren belaunaldikoak dira. Asko eta asko hirugarren belaunaldiko mutiko frantsesak dira, beren burua diskriminatuta ikusten dutenak. Nolabait, ez nau harritzen terroristek eskaintzen diotenari heltzea. Izan ere, itxuraz ez dakit zenbat diru ematen diete eta bizi den gizarteak ematen ez dien balio eta estimu bat.

Espainiak Frantziak egiten duen gauza bera egiten badu, taktikaz aldatzen ez badu, hemen ere gauza berbera gerta daiteke.

Laneko diskriminazioan ikus dezakegu. Zenbat pertsona musulman ikusten dituzu lanean dendetako kutxetan edo saltzaile moduan? Bat bera ere ez. Gure ama edo ahizpa zaharrek izan zitzaizkete lanak lantegietan edo garbitzen ziren. Jendaurrekoak ez diren lanetan.

Eta horrek horrela izaten jarraitzen du. Nik badut lagun bat kutxazain izateko aurkeztu zena eta ezetz esan ziotena. Eta kutxazain lanetan ziharduen bati esan zioten zapia kentzeko edo kaleratu egingo zutela. Eta bota egin zuten.

Eta hemen, Euskadin, gu lehenengo belaunaldia gara unibertsitateko ikasketak egiten ari dena eta ikasketengatik lanpostu bat lortzeko aukera ematen diguna. Gure gurasoek ez dute halakorik eta nire lagunen ahizpa zaharrek ere ez. Ez zituzten kontratatzen, teoriarik, titulaziorik ez zutelako. Eta ikusiko dugu zer gertatzen den gurekin titulu horiek lortzen joaten garen heinean.

Lehen Eibarren familia atzerritar gutxi geunden eta ongi asko genekien non bizi ziren atzerritar guztiak. Baina azken urteetan jende asko etorri da. Hamabost edo hamasei urte nituenetik etorri diren jende berriari laguntzen ibili naiz. Itzultzaile-lanetan medikuarenean edo izapideren bat egin behar dutenean laguntzen.

Amaren bidez jartzen nintzen kontaktuan haiekin, edo hemen, Eibarren, oso ezaguna den emakume baten bidez. Deitu egiten zidan eta esaten zidan ea halako hura egin nezakeen. Niri beti gustatu izan baitzait jendeari laguntzea.

Hiru urtez egon naiz bitartekari lanetan, bitartekotza-programa batean. Eta errefuxiatuak iritsi zirenean laguntzaile ere jardun nuen, baita denbora gutxi azterketak nituelako eta ikasi egin behar nuelako.

Pentsatzen dut horregatik guztiagatik erabaki nuela gizarte-lana ikastea. Beti gustatu izan zait, baina aitortu behar dut lehenengo hiru urteetan teoria hutsa izan dela, *txapa* samarra. Iruditzen zait teorikoa baino praktikoagoa izan beharko luketela ikasketek. Baina, beno, dena gaindituta daukat eta datorren urteko praktikak soilik falta zaizkit.

Ikasturte honetan Gasteizen bizi izan naiz, aurreko urtean eromena izan baitzen Eibarren bizitzen egotea. Gasteizera joan behar nuen ikastera, eta gero Bilbora, lanera. Lotara soilik joaten nintzen etxera, eta denbora gutxi, gainera.

Pena da Gasteizen lana topatu ez izana eta Bilbora joaten jarraitu behar izatea etxebizitzaren alokairua ordaintzeko.

Datorren ikasturtean Gasteizen jarraituko dut, eta nire asmoa da gero etxera ez itzultzea, eta etxetik kanpo bilatzea bizimodua. Ea aukerarik badudan.

Praktikak amaitzen ditudanean masterra egin behar dut. Oraindik ez dut asko begiratu, baina ikusi dudanetik ohartu nahiz EHUn ez dagoela ezer erakargarri-erakargarririk. Nik beka EHUn daukat; bestela, dirutza balio dute. Dena den, badut denbora, oraindik ere, erabakitzeko.

Eta, ahal badut, doktoretza egitea ere gustatuko litzaidake. Baina horretarako ere beka beharko dut. Ahal banu, emigrazioari eta belaunaldi berrien gaiari buruzko ikerketa bat egingo nuke. Hori da egingo nukeena. Hemen plazaratu ditudan arazoak konpontzen laguntzeko.



Jon dut izena...

...eta Brasilen jaio nintzen, duela hogeita hiru urte; halere, sei hilabete nituela, Bilbora ekarri ninduten gurasoek. Ama brasildarra dut, eta aita, Getxokoa, frantziarrez eta euskaldunez osatutako familia batekoa.

Txikia nintzela, gure etxea *patera-etxe* baten antzekoa zen. Alde batetik, familia-nukleoa geunden: gurasoak, nire arreba —ni baino hiru urte nagusiagoa— eta ni neu. Eta bestetik, gurasoen lagunak zeuden, aldi batean gure etxean bizitzen geratzen zirenak; batez ere, brasildarrak izan ohi ziren, amaren lagunak.

Gure ama GKEren batean, dantza latinoko eskoletan eta Aste Nagusirako ekitaldiak antolatzen ibili izan da; horregatik egon da beti latinoamerikarrez inguratuta.

Gure aita irakaslea zen, baina horrez gain, asko bidaiatzen zuen, eta gidari-lanetan aritzen zen. Afrikako eta beste hainbat lekutako jendearekin ere harremanak zituen.

Hori guztia dela eta, txikitatik oso gertutik bizi izan dut kulturartekotasuna. Garai hartan, gurasoen bitartez, harreman gehiago nuen pertsona helduekin, nire adineko gazte atzerritarrekin baino. Bitxia bada ere, egun gehiago ibiltzen naiz atzerritik etorritako jendearekin, bertakoekin baino.

Txikia nintzela gure etxean izaten zen giroaren oso oroitzapen politikak ditut: dantzak, jatorduak, barre-algarak... Baina aitortu behar dut kultura-talka handia zegoela gure amaren eta aitaren artean, eta zenbaitetan, sua pizten zen.

Gure ama oso beroa eta kartsua da gauza guztietan; jenio bizia du. Aita, berriz, oso atsegina eta irekia zen, baina oso euskalduna; hau da: lasaia eta ordenatua zen, eta ez zuen ero-puntu handirik. Aita aire leuna bezalakoa zen; ama, berriz, ekaitzaren parekoa. Niri dagokionez, amaren aldera ateratzen naiz.

Izaeran zituzten desberdintasunak zirela eta, haserre handiak izaten ziren gure etxean; telenobela bat zirudien. Ni harritu egiten nintzen nire lagunengandik gurasoekin alderatuta zein desberdinak ziren ikusita; izan ere, lagunengandik gurasoek, itxuraz

Txikia nintzela gure etxean izaten zen giroaren oso oroitzapen politikak ditut: dantzak, jatorduak, barre-algarak...

bada ere, bizitza egonkorragoak zituzten eta elkarrekin bizitzen jarraitzen zuten. Uste dut, garai hartan, egonkortasun eta *normaltasun* hura faltan botu nuela; izan ere, dibortziazeko erabakia hartu aurretik, gurasoak behin eta berriz banandu eta elkartu ziren.

Lau urte nituela, bananduta egon ziren aldi batean, Brasilerara joan nintzen aitarekin, eta ia urtebetez egon ginen han. Garai hartako oroitzapen ikaragarri onak ditut. Leku hura, herrialdearen ipar-ekialdean, paradisuak zen; duna piloa zeuden, eta ur garden-gardena. Bizitza lasaia eta xumea generaman; bizimodu *rastafaria*, nolabait esateko.

Arrantzatik bizi ginen, eta danborrak jotzen genituen; horrelakoa zen gure bizimodua, gutxi gorabehera. Arrisku bakarrak inguruan ibilitezkeen pumak eta marrazoak ziren. Ez zuen zerikusirik São Paulorekin. Hangoa da nire familia, eta han, kontu handiz ibili behar da, edozein bazterretan baitago pistolaz lapurreta egiteko arriskua.

Harrigarria da zeinen ongi eta argi gogoratzen dudan garai hura. Herriko familia batekin bizi ginen, eta, nolabait esateko, gu ere familia hartako kide ginen. Osaba Antoniorekin joaten ginen arrantza egitera; marrazo kume bat harrapatzen genuen, eta gero, prestatu ondoren, denon artean jaten genuen, manioka-irinarekin. Denok etxe berean, eskuekin jaten eta herriko telebista bakarrean telenobela bat ikusten, hori baita han gauzarik onena. Azken batean, festa bat izaten zen hura.

Brasiletik itzuli ginenean, nahiko metodologia irekia eta alternatiboa zeraman ikastetxe batean hasi nintzen ikasten. Txokoetan egiten genuen lan; hau da, geure mahaitxoetan eserita eta irakasleak zer esaten zuen entzunez egon beharrean, txokoetan banatzen ginen, eta jolasen bitartez ikasten genuen.

Gure aitaren ideia izan zen ni ikastetxe hartan matrikulatzea, aita, irakasle izateaz gain, hippy samarra baitzen. Aitaren lagun batek ikastetxe hartan egiten zuen lan eta han zeukan semea matrikulatuta; horregatik ongi zekien zer funtzionamendu zuen ikastetxeak. Dena euskaraz ikasten genuen, eta hori ere primeran iruditu zitzaion gure aitari, oso abertzalea baitzen.

Gogoan dut irrati-estudio bat zegoela, eta han gure programak egiten genituela, txiki-txikitatik. Egun batean eskola guztietatik libratzen ginen, eta irratan aritzen ginen. Egunkariko albisteak bildu eta esatari-lanak egiten genituen; bien bitartean, besteak kanpoan egoten ziren, irrati-seinalea auzo osora zabalduz. Denetarik irakasten ziguten; dena ez zen ikastea, ikastea eta ikastea.

Baina, DBHra iristean, dena galtzen zen; hori zen txarrena. Izan ere, eskola alternatiboen metodologia hura Lehen Hezkuntzan soilik aplikatzen zen; huraxe zen arazo nagusia. Beraz, Bigarren Hezkuntzara iristean, betiko metodologian ikasten hasi behar izaten genuen, eta zenbaki huts bihurtzen ginen, bat gehiago.

Oro har, ez nuen arazorik jendearekin, baina gogoan dut diskriminazio-kasuren bat edo beste; esaterako, honelako gauzak esaten zizkidaten: «Jonek ezin du jolastu, beltza delako». Eta hori, ni ez naizela hain beltza! Gerora, kolore ilunagoko atzerritarrak iristen hasi ziren, eta orduan ez zuen zentzu handirik Jon beltza zela esateak.

Baina ni oso gaizki sentiarazten ninduten horrelako gauzek; beti izan naiz oso sentibera, eta txikitzen, are gehiago. Ez nuen ulertzen zergatik esaten zidaten hori, nik ez bainuen desberdintasunik ikusten; beste mutiko bat baino ez nintzen.

Nolanahi ere, ikastetxean igarotako urteetako oroitzapen onak gehiago dira oroitzapen txarrak baino; zenbaitetan, gainera, nostalgia ere sentitzen dut. Gauzarik onena da bizitzan baliagarri izan zaizkidan zenbait balio irakatsi zizkidatela bertan, eta horrez gain, jende ona ezagutu nuen, egun oraindik harremanetan jarraitzen dudana jendea.

Oro har, ez nuen arazorik jendearekin, baina gogoan dut diskriminazio-kasuren bat edo beste.

Zazpi urte nituela, berriro Brasilera joan ginen, eta denboraldi bat pasatu genuen han, bost bat hilabete. Aldi hartan, nire jaioterrian egon ginen, eta eskola-urte bat galdu nuen; izan ere, eskolara joan arren, ez nuen ezer egiten, eta ez dut gogoan gauza handirik ikasi nuenik. Pasadan nengoen han. Halere, gogoan dut bertako haurrekin txantxetan ibiltzen nintzela eta eguna futboleko jokatu izango duten gurela.

Hasieran, adarra jotzen zidaten pixka bat, nire hitz egiteko doinua zela eta (*sutaki* esaten diote), baina ez nuen integratzeko arazorik izan. Oro har, pertsona atsegina naizela uste dut, eta jendeak ondo hartzen nauela, normalean ez baitut arazorik izaten besteekin harremanak izateko.

Nire itxura dela-eta hemengo mutiko bat izan naitekeen arren, agian diskriminazio gehiago jasan dut Bilbon han baino. Ez dakit nire ileko rastek eraginik izango duten, baina zenbaitetan, autobusean gauza itsusiak ikusten ditut. Ez zait axola, nire erara hartzen baititut, baina ez zaizkit zentzuzkoak iruditzen. Gertatu izan zait jendea nire ondoan esertzera doala, bat-batean begiratu eta alde egitea. Harritu egiten naiz, ez baitut uste gaizto-aurpegia daukadanik. Jende gaztearekin ere gertatu izan zait; hori da gehien harritzen nauena. Izan ere, adineko pertsona batek hori egiteak, agian, ez zaitu hainbeste harritzen, baina gazte batek... Harrigarria da gazte batek hainbeste aurreiritzi izatea.

Baliteke nire inguruak eragina izatea, oro har oso pentsamolde irekia duen jendearekin ibiltzen bainaiz, eta, agian, horregatik iruditzen zaizkit hain arraroak beste jokabide horiek.

Rastak eduki aurretik, poliziak askotan gelditzen ninduen, eta atxikita izaten ninduten, marokoar bat nintzelakoan. Gero, nortasun-agiria erakusten nienean,

Gertatu izan zait jendea nire ondoan esertzera doala, bat-batean begiratu eta alde egitea. Harritu egiten naiz, ez baitut uste gaizto-aurpegia daukadanik.

joaten uzten zidaten. Orain, poliziak gelditzen nauenean, euskaraz hitz egiten diet, argi uzteko hemengoa naizela.

Horrelako egoerek frustrazio handia sortzen didate, eta marokoar jatorriko jendearekiko enpatia. Egoera horiek neure buruari zenbait galdera egitera naramate: mairua izateagatik gelditu egin behar al naute? Izorratu egin behar al naute? Beraiek nire gainetik daudela eta haien mendekoa naizela pentsatu behar al dute?... Oso gaizki iruditzen zait gaur egun, oraindik, horrelako aurreiritziak izatea.

Ez dut ukatuko jatorri horretako zenbait gaztek bazterrak nahasten dituztela, nik neuk bat edo beste ezagutzen dut, baina hemengo jendeak ere hanka sartzen du, eta ez dira aurrez epaitzen, haiekin egiten den moduan.

Bikotekide latinoamerikarren bat izan dut, eta gertutik bizi izan dut poliziak, zenbaitetan, haiekin izaten duen arrazakeriazko jarrera. Behin, poliziari deitu zioten, norbait beraiek zirikatzen hasi zelako, baina azkenean, nola tratatu zituzten ikusita, gaizkileak beraiek zirela zirudien.

Brasilen ere arrazismo handia dago, eta hori ikaragarria da, kontuan harturik herrialde mestizoa dela. Mestizoa edo zuri samarra bazara, ez dago arazorik; baina beltza edo indigena izanez gero, zaila daukazu, zapaldurik bizi beharko baituzu.

Gure familian beltzen eta indigenen nahaste bat dago, eta denboran oso atzera egin gabe, egoera latzak aurki ditzakegu. Gure birraitona esklabo zen, eta haren aita, Afrikatik lapurtutako nigeriar bat. Gure birramona, berriz, paperik gabeko indigena bat zen; izan ere, duela 150 urte arte, beltzak eta indigenak basatizat hartzen zituzten, eta ez zuten dokumenturik.

DBHn hasi nintzenean, lehengo ikastetxeko ikaskide asko eta ni institutu berera joan ginen. Beste ikastetxeetako neska-mutilak ere etorri ziren, eta azkenean, koadrila handituz joan zen; 30 bat lagun izatera iritsi ginen. Hala ere, Lehen Hezkuntzako nire lagunik onenak koadrilan jarraitzen du, eta hori sekulakoa da. Txantxaren bat edo beste egiten zidaten, baina, oro har, jende ezagunak egiten zidan, adarra jotzeko; ez ninduten zirikatzen, ezta pentsatu ere. Halere, gogoan dut mutiko batek, ikusten ninduen bakoitzean, «jau» eta horrelako gauzak esaten zizkidala, eta egun batean, hori entzuteaz nekaturik, kolpe bat eman nion sabelean; altueraz pare-parean nuen, gainera, oso handia baitzen. Ni ez naiz oso liskartia, baina... Orain, egia esan, oso ongi moldatzen naiz berarekin. Lehen esan bezala, uste dut nahiko mutil atsegina naizela.

Ikasketei dagokienez, beti izan naiz txar samarra; ez zitzaizkidan asko gustatzen, eta ez nuen ikasten.

Batxilergoan ohartu nintzen ez nekiela ikasten; ez nuen inoiz horretarako dinamika egokirik izan. Eta hori, nire aita irakaslea izanik. Ama, berriz, akuiluarekin aritzen zitzaidan, onena izan behar nuela esanez; baina uste dut akuilatze hark kontrako eragina izan zuela nigan.

Ez nintzen ikasten jartzen, eta ez nintzen oso saiatua, buruan beste istorio batzuk bainituen. Egia esan, beti izan naiz oso mutiko arretagabea eta despistatua.

Banekien zenbait ikasgai gainditu behar nituela; eskolara joaten nintzen, ikaskideekin nahiko ondo pasatzen nuen, barre eta barre, eta, ustez, zerbait ikasten nuen. Baina gero, etxera bueltatu ondoren, lagunekin gelditzen nintzen berriro, eta noski, ez nuen ikasten. Egia esan, amak uzten zidanean irteten nintzen, askotan debekatu egiten baitzidan ateratzea.

Oso zorrotza zen, eta zigor gogorak jartzen zizkidan, baina onartu behar dut ni ez nintzela behar bezala ibiltzen. Ez nion esaten kalera nindoala, besterik gabe desagertzen nintzen, eta noski, garai hartan sakelako telefonorik ez zegoenez, kezkatzen hasten ziren; azkenean, beraz, errieta entzun behar izaten nuen.

Horrez gain, etxera itzultzeko orduarekin betikoa gertatzen zitzaidan. Berandu iritsiko nintzela ohartzen nintzenean, autobusean, etxerako bidaian, negar egiten nuen, zer zetorkidan buruan bueltaka. Uste dut horrela lasaitzen nintzela, gero indarririk ez galtzeko; finean, nire burua defendatzeko modu bat zen.

Apur bat erretzen hasi nintzenean ere, zigor gogorak jaso nituen; izan ere, gure amak trauma bat zuen haxixarekin, poliziak bere senitarteko bat erail baitzuen, bere aurrean, marihuana eramateagatik. Esaten zidan nahiago zuela behartsua izatea, polizia baino; eta gure aitak ere ez zituen asko maite.

Gaur egun, uste dut polizia onak ere egon daitezkeela, baina hori esaten entzuten didatenean, tentel hutsa naizela esaten didate nire bikotekideak eta amak.

Ni oso goiztiarra izan naiz gauza askotan, eta zenbaitetan, horrek ondorioak ekarri dizkit, jende helduagoarekin elkartzeagatik.

Izan ere, gu bizi ginen auzoan, Errekalden, jendaila asko zegoen, eta garai hartan, auzoak zaletasun asko kutsatu zizkidan. Oso gustuko nituen auto tuneatuak eta zalaparta.

Balkoira irten, eta ijitoak ikusten nituen auto tuneatuekin lasterketak egiten; harrapatze ugari izan ohi ziren, lasterketa haiek zirela eta. Bestalde, Guardia Zibila sarri pasatzen zen auzotik, eta haiekin loturiko istorio ugari ere ikusten nituen; batzuetan, bertako jendearekin liskarrean aritzen ziren, eta zenbaitetan, sarekadak egiten zituzten inguruko tabernetan, zakur eta guzti.

Horrek guztiak eragina izan zuen nigan; hori ikusiz eta bizituz hazi nintzen. Lehen zartakoz zartako ibiltzen nintzen, eta orain, bat edo beste hartzen dut, baina tarteka; orain buru gehiagorekin ibiltzen naiz, ez burukadaka.

Auzoa hobeto dago orain, baina gauza latza gertatu da: ijitoak kanporatu dituzte, eta beste leku batera eraman.

Benetako garbiketa etnikoa egin dute.

Orain, Zornotzan bizi naiz, eta bertan nabaria da immigrazioa. Zenbait etorkini laguntzak emango dizkiote, bai, baina jende askok egiten du protesta horregatik; gure laguntzez baliazera etortzen direla esanez hasten dira.

Ez duk ukatuko horrelako kasuak egon badaudenik, baina hori esaten duten asko dira, hain justu, gehien aprobeztatzen direnak. Ez dute lanik egiten, eta

Lehen zartakoz zartako ibiltzen nintzen, eta orain, bat edo beste hartzen dut, baina tarteka; orain buru gehiagorekin ibiltzen naiz, ez burukadaka.

egun osoa plazan erretzen eta garagardoa edaten pasatzen dute, beren seme-alaben aurrean.

Ez dakit zergatik lotu ohi dugun gauza txar oro edo denbora luzean gertatu ez den edozer gauza kanpotik etortzen direnekin, hemen ere jende gaizto ugari baitago. Errumaniarrei buruzko aipamen itsusi ugari entzuten ditugu, eta zenbaitetan, ustez horrelako aipurik egingo ez zuen jendearen aldetik. Pena da. Nire ustez, jende guztiak du laguntzak jasotzeko eskubidea; ezin diogu laguntza ukatu hilaren bukaerara iritsi ezinik dabilen inori. Eta behar beste laguntza ez badago, gaia aztertu beharko da, eta lehentasunak jarri benetan gaizki pasatzen ari den jendearen artean. Badakit zaila dela, baina beharrezkoa dela iruditzen zait; errealitate bat da, eta ezin diogu bizkar eman.

Hamasei urte nituenean, gure aita bidaiatzen ari zela, hil egin zen, islamisten atentatu terrorista batean. Halere, niri ez zait bururatzen gertaera harengatik musulmanez gaizki hitz egitea; gauzak bereizi egiten ditut, batak eta besteak ez baitute zerikusirik. Gaur egun, gainera, musulmanekin ibiltzen naiz, batez ere. Asko maite ditut, eta estimu handia diot haien kulturari; nire aitak ere asko maite zuen herri hura.

Zintzo jokatu behar dugu, eta burua erabili. Nik argi dut: ez dut inoiz inor epaituko bere erlijio-sinesmenengatik, ez eta bere etniagatik ere; besteak beste, neuk ere egoera bera jasan nezakeelako.

Oro har, ez dut uste Espainian musulmanekiko higuina edo islamofobiarik dagoenik; baina egia da sentimendu hori geroz eta handiagoa dela, egoera okertzen ari dela. Geroz eta aurreiritzi gehiago daude jatorri horietako pertsonetikiko, eta jendeak bere paranoiak egiten ditu; geroz eta beldur gehiago du jendeak. Dena den, aitortu behar da mundua apur bat erotuta dagoela, eta egoera gainbehera doala, nabarmen.

Ni lehen atea nintzen, eta ez nuen gauza horietan pentsatzen, baina gure aitaren heriotzaren ondotik, gai espiritualekiko jakin-nahia sortu zitzaidan. Egia esan, lotsa apur bat ematen dit gauza horiei buruz hitz egiteak, baina bizipen arraro samar batzuen ondoren, rastafarien munduari, meditazioari eta panafrikanismoari buruz ikertzen hasi nintzen; horrek guztiak lotura du nire jatorriarekin.

Bi kulturen artean bizi izan naizenez, inoiz ez dut jakin ongi nor naizen.

Egia esan, gure etxean beti egon edo bizi izan ziren gai horiek, baina nik ez nien jaramon handirik egin, ordura arte. Gure ama oso mistika izan da beti, eta aitak unbanda erlijioa praktikatzen zuen; erlijio horretan, gauza asko biltzen dira: santu kristauak, karmari buruzko ekialdeko ideiak eta indigenen jai xamanikoak. Oso *zen zen* gure aita, eta asko bidaiatzen zuenez, musulmanez jantzita eta Korana esanez itzul zitekeen, edota, Indiatik bueltatzean, hindua zela esanez.

Urteak pasatu ahala, espiritualtasuna landuz joan naiz, nire jatorriarekin lotuz, eta neure burua aurkitu nahian ibili naiz. Bi kulturen artean bizi izan naizenez, inoiz ez dut jakin ongi nor naizen; nolabait esateko, ez naiz ez leku batekoa ez bestekoa, leku guztietakoa naizela dirudi.

Gure aitak esaten zuen munduko hiritar izan behar genuela: bidaiatu egin behar genuela, lekuak, kulturak eta jendea ezagutzeko, eta gero, zer genuen gustuko eta zer ez erabaki behar genuela, gure bertsio propioa sortzeko. Haren esanetan, ibilbide hori guztia egin ondoren lortuko genuke gu geu izatea; ibilbide hori izango litzateke geure izaeraren eta identitatearen oinarri.

Ni ados nago ideia horrekin, baina uste dut sustraiak ere oso garrantzitsuak direla; beti esan ohi dudan moduan, sustrairik gabeko zuhaitza haizeak eramaten du. Nik nire sustraietara itzuli behar dut, uste baitut sustrai horietan dagoela nire egonezin guztien jatorria.

Nire identitatea definitu behar izanez gero, *braskoa* naizela esango nuke; izan ere, brasildarra izateaz gain, asko maite dut Euskal Herria, mitologia eta ingurune ederreko lurraldea iruditzen zait. Kanpora irteten naizenean, euskaldun peto-petoa bihurtzen naiz, eta ez zait gustatzen inor euskaldunei kritika egiten entzutea.

Hori bai, bero handiagoa egingo balu, paregabea litzateke.

Oso topikoa badirudi ere, galdera existentzial ugari ditut: nor naizen, nondik natorren, nora noan... Asko eragiten diot buruari, eta badakit urte askoan horrela jarraituko dudala; bidean nago, eta barruan neuzkan gauza asko atera ditut, baina lan handia dut aurretik.

Hasiera batean, nire noraez espiritual hau xok handia izan zen nire lagunentzat. Eta ulertzen dut, parranda egitearekin soilik pentsatzen duten eta erlijioagatiko inongo interesik ez duten gazte batzuentzat ulergaitza baita aldaketa hori. Nitaz kezkatu ziren, nire gauzetan murgilduta egoten bainintzen; ez nuen ez alkoholik edaten ez parrandarik egiten.

Azkenean, *xaman* esaten hasi zitzaizkidan, eta horrekin geratu naiz; etiketa jarri didate, eta horrela lasai daude.

Nolanahi ere, badakit gai horiek ulertzea ez dela erraza, eta ezin dela horiei buruz jende guztiarekin hitz egin; are gutxiago gaurko gizartean, erlijioak ez baitu pisu handirik. Ekialdeko espiritualtasuna, agian, modan jartzen ari da; nik horrela ikusten dut, behintzat, zerbait iragankorra, eta ez dut uste jendeak benetan sinesten duenik.

Orain, Antropologia ikasten ari naiz, eta jabetu naiz erlijioak leku berera iristeko bide desberdinak direla; hau da, bide bat ala bestea aukeratu daiteke, betiere sentimendu garbia izanez gero.

Eta hor nabil. Egia esan, oso gustuko dut mistizismoa; azken urteetan aurkitu dudana eta gehien eskertzen dudana gauzetako bat da. Gainera, uste dut aitaren heriotzari eta nire jatorriari zor diedala, neurri handi batean.

Gurasoak behin betiko dibortziatu zirenean, ni amarekin bizitzen gelditu nintzen, eta nire arreba aitarekin bizitzera joan zen. Arreba, aitaren alaba biologikoa ez izan arren, betidanik egon zen hari oso lotuta, eta oso ongi moldatzen ziren; horregatik, aita hil zenean, asko sumatu zuen haren hutsunea.

Gero, bere bikotekidearekin bizitzera joan zen, eta nik amarekin jarraitu nuen denboraldi batean, baina hura nahiko berezia denez, gure arteko harremana ez zen oso erraza izan; zenbait arazo izan genituen.

Azkenean, hamazazpi urte nituela, arrebaren etxera joan nintzen bizitzera. *Loft* moduko zerbait zen, eta han, nire txoko propioa jarri nuen, intimitate apur bat izateko. Urtebete pasatxo egon nintzen bertan: lehenbizi, bakarrik, eta gero, neska latinoamerikar batekin, garai hartako nire bikotekidearekin.

Berak irakatsi zidan nire kultura latindarra aintzat hartzen, oso harro baitzegoen bere arraza tainoaz; tainoa Karibeko bertako arraza da. Nik nire jatorri afrikarrean bilduta nuen gogoa, baina neska haren bitartez, mundu latindarrarekin loturiko guztia aintzat hartzen eta maitatzen ikasi nuen. Horren ildotik, zenbait alditan aritu naiz pub latindarretan lanean; ikaragarri gustatzen zait haien hitz egiteko eta adierazteko modua.

Nire bikotekidea erlijio-sinesmen handiko ingurune tradizional batean bizi zen bere herrialdean, baina hona iristean, pentsamoldea ireki zitzaion; oso babestuta sentitu zen, eta guztiz bat egin zuen euskal kulturarekin eta Euskal Herriaren borrokarekin. Zuzenbidea ikasten ere hasi zen, bidegabekerien aurka borrokatzeko. Gogor ekiten zuen; oso *heavy* zen.

Eta oso izaera berezia zuen; agian, horregatik ez diogu egun elkarri hitzik egiten.

Batxilergoa amaitzean, selektibitatea egin nuen, baina ez ninduten unibertsitatean hartu. Horrez gain, apur bat nekatuta nengoen egunero gauza bera egiteaz: beti taberna berera joateaz, eta koadrila handi batekin ados jartzeaz, plan kaskar bat egiteko. Ni oso ipurterrea naiz; mugitu egin behar dut, leku berriak ezagutu.

Beraz, giroz aldatzea erabaki nuen. Nire amak Brasilgo lagun bat zuen Mallorcan bizitzen, eta beti esaten zigun bere etxera joateko. Ingalaterrara joatea ere pentsatu nuen, baina nire bikotekideak, zeukan baimen-mota zela eta, Espainiatik irten ezin zuenez, azkenean Mallorcara joan ginen.

Ez ginen unerik hoberenean joan; izan ere, amaren laguna eta haren bikotekidea banantzen ari ziren, eta etxeko giroa ez zen atsegina. Bestalde, gauzak zeuden bezala, lana lortzea ere ez zen erraza.

Nire neska-lagunak ez zuen ezer aurkitzen, eta ni banatzaile aritu nintzen pizzeria batean. Baina kilometro asko egin behar izaten nituen, eta oso diru gutxi irabazi. Halere, soldata hari eta aitaren heriotzagatik kobratzen nuen pentsioari esker, aurrera egin gunean.

Nire lana zela eta, oso ongi ezagutu nituen uharteak, eta asteburuetan, irteerak egiten genituen banaketa-lanetan aurkitutako txokoetara; horixe zen onena.

Oso gustura nengoen han, baina aldi berean, giltzapean sentitzen nintzen; nik mugitu egin behar dut, eta hiru orduan inguratzen den uharte bat ez da lekurik aproposena horretarako.

Musika-ekoizpena eta -masterizazioa izeneko gradu bat ikasi nuen, eta INEMeko ikastaro bat ere egin nuen, Help Desk, interesa sortu zidan enpresa batean sar nintekeen ikusteko. Baina azkenean, ez zitzaidan ondo atera.

Esperientzia hark indartu egin ninduen, eta zer egiteko gai nintzen erakutsi zidan; hori izan zen gauzarik onena. Izan ere, ordura arte, oso mutil utzia eta geldoa nintzen, eta han, ikasi eta lan egin, biak batera, egin nituen. Hori bai, oso gaizki egon behar nuen, bestela ez bainintzen horretarako gai izango.

Antza, brasildarren oso ezaugarri tipikoa da hori, bahiarrena, batez ere; bahiarrak lasai-lasai bizi diren brasildarrak dira. Diotenez, brasildarrek ez dute erreakzionatzen harik eta egoera estuan aurkitzen diren arte. Nik neuk horrela ikusi nuen neure burua, eta irautea lortu nuen, ia urtebetez; hori bai, oso ahituta bukatu nuen, 50 kilo eskasekin itzuli bainintzen. Baina beste pentsamolde batekin.

Egonaldi hartan, pertsona espiritual oso bitxiak ere ezagutu nituen; nolabait, nire ikuspegi espirituala handitzen lagundu zidaten, eta gaur egun ikasten ari naizen gaira bideratu ninduten: Antropologiara.

Bestalde, han ezagututako jende bati esker, ongi jabetu nintzen zer egin nahi ez nuen. Mutil gazteak ziren, inongo helburu edo asmorik gabeak; eguna porroak erretzen eta garagardoa edaten pasatzen zuten, eta tartean-tartean, zerbait egiten zuten, aurrera egin ahal izateko. Ez zuten ez ikasketarik ez ikasteko asmorik; bizi osoan horrela jarraitzea pentsatzen zuten, inongo helbururik gabe. Nik hemeretzi urte nituen, eta ez nuen haiek bezala amaitu nahi; beraz, nire bizitzarekin zerbait egiteko unea zela pentsatu nuen.

Azkenean, Bilbora itzuli ginen, eta nire selektibitate-notarekin zer ikas nezakeen begiratzen hasi nintzen, ez baitzen oso nota ona. Psikologia eta Antropologia ikasketen artean zalantzan egon nintzen, baina azkenean, bigarrena aukeratu nuen: Antropologia. Niretzat aproposagoa zela iruditu zitzaidan, kultura-aniztasuna eta antzekoak aztertzen zirelako. Gainera, nire etxea, aitaren bidaiak zirela eta, hainbat kultura-mota biltzen ziren museo batean antzekoa zen. Amaren aldetik ere kultura-aniztasuna ezagutu nuen, bi kulturen artean bizitzaren ondorioz. Horregatik pentsatu nuen Antropologiako ikasketak niretzat egokiak zirela.

Ez nuen inoiz esango unibertsitetean amaituko nuenik, aitortzen dut, baina uste dut ongi aukeratu dudala. Nahiago dut gustuko ditudan ikasketak egin, irteera gutxi izan arren, gustuko ez dudan beste zerbait ikasi baino. Gainera, neure burua ezagututa, badakit horrela ez nukeela ezer egingo, ez nituela ikasketak amaituko. Antropologia, gainera, oso gai zabala da, eta askotariko eremuetan aplikatu daiteke. Finean, burua izatea

Nahiago dut gustuko ditudan ikasketak egin, irteera gutxi izan arren, gustuko ez dudan beste zerbait ikasi baino.

da, bai eta etorri ona izatea ere, arlo guztietan jakin behar baita nork bere burua saltzen.

Gure ama harro dago ni unibertsitatean egoteaz. Izan ere, hemen unibertsitatera joatea gauza arrunta izan arren, bere familia handian nire bi lehengusu baino ez dira joan unibertsitatera; biak oso bizkorak dira, eta batek, gainera, hiru karrera egin zituen batera.

Herrialde hauetan, asko nabaritzen da jendeak unibertsitatera joateko aukera izan duela; askoz ere pentsamolde irekiagoa izateko balio die, eta iritzi ezberdineko beste pertsona batzuk ezagutzeko. Unibertsitatera joan ez direnak askoz ere tradizionalagoak dira, eta erlijio-sinesmen handiagoak. Entzundakoarekin geratzen dira, eta ez dute aurrera egiten: orain dela 50 urte bezala jarraitzen dute.

Lehen urtean, desengainu handi samarra hartu nuen, eta zalantzak izan nituen zenbait unetan, baina orain pozik nago. Oztopo asko aurki diezazkioket, baina karrera gustuko dut; bete egiten nau.

Ikasketak egiteko antolatu egiten naiz, aldi batzuetan egiten baitut lan; une honetan, esaterako, langabezian nago. Baina bilatzen jarraitzen dut, eta bestalde, ez dut denbora asko ere, boluntariotzako gauza askotan sartuta bainago, baita musikarekin lotutako zenbait proiektutan ere. Nire iritzi, joko handia eman dezaketen gauzak dira, eta ea zerbait aurkitzen dudana.

Beti izan dut musikarekiko interes handia. Gurasoek zortzi urte nituela sartu ninduten musika-eskolan, eta solfeo eta musika-tresnarako orientazioa ikasi nituen; hau da, urtebetean, hainbat musika-tresna probatzeko aukera genuen, eta gero, gehien gustatzen zitzaiguna aukeratu genezakeen. Azkenean, gitarra aukeratu nuen, eta urte batzuk egon nintzen ikasten. Baina, egia esan, eskolara bezala, behartuta joaten nintzen musika ikastera ere. Gurasoek eman zuten nire izena, eta ni gogorik gabe joaten nintzen.

Gitarra ikasten hasi eta hiru urtera, ohartu nintzen ongi entzuten zela, eta horrek motibatu egin ninduen; hala, geroz eta interes handiagoa jartzen hasi nintzen, ikasten jarraitzeko. Orkestra batean sartu ninduten, eta hainbat urte egin nituen han; baina dena oso klasikoa zen, eta nik, garai hartan, heavy metala eta punka nituen gustuko.

Azkenean, beraz, gitarra elektriko bat erosi, musika-eskola utzi eta nire kasa ikasten hasi nintzen, Interneten laguntzarekin; abestiak ere baliatzen nituen, belarria lantzeko. Bide horretatik egin nuen aurrera, eta duela urte batzuk, rap-estiloan idazten hasi nintzen; halere, ez naiz sekula abeslaria izan, eta ez dut ahots ona. Reggae-musika instrumentalak ere idatzi nituen. Hain justu, garai hartan hasi nintzen nire jakin-nahi espiritualetan murgiltzen, eta beraz, orain, letra haiek irakurtzen ditudanean, zur eta lur geratzen naiz zer gauza idatzi nituen ikusita.

Gero, saharar batekin eta euskaldun batekin elkartu nintzen, eta gure estilo ezberdinak batzen hasi ginen; batez ere, reggaea eta hip hopa nahasi genituen. Ohartu nintzen nire abestiak jendearengana iristen zirela, eta beraz, idazten eta apur bat gehiago abesten jarraitu nuen.

Mundu honetan jende asko ezagutzeko aukera izan dut, eta orain, gainera, talde bat dut. Soinu-teknikari moduan ere lan egin dut, Mallorcan egindako ikastaroa baliatuz.

Musikarekin gozatzen dut gehien, eta gainera, musika-sormen handia dut. Oso erraz ateratzen diot soinu edozein musika-tresnari; ez naiz sekula perkusio-eskoletara joan, baina danbor batzuk emanaz gero, edonori jarrai diezaioket, inongo arazorik gabe.

Nire iritziz, hor ere kulturak badu zerikusia. Hau da, nire familiaren jatorria dagoen lekuan sortu ziren Brasilgo musikari asko; bertan, oso musika-kultura aberatsa dago. Brasilen, zoazen lekura zoazela, beti aurkituko dituzu musikariak jotzen, inongo baimenik gabe eta bestelako oztoporik gabe. Musika bizirik dago, kalean aurkitzen duzu, eta kaleko istorioak kontatzen dizkizu.

Nolanahi ere, badakit ezin dela musikatik soilik bizi; hori lortu ahal izateko apartekoa izan behar da. Gainera, ez dakit benetan gustuko izango nukeen; hau da, nik musikaz gozatu nahi dut, eta gauzak transmititu. Hori lortuz gero, gustura geldituko nintzateke.

Mallorcatik itzultzean, amarekin bizitzera joan nintzen, baina hilabete bat baino ez nuen iraun, eta azkenean, Getxora joan nintzen bikotekidearekin. Neska-bikote batekin egon ginen bizitzen, etxe batean; haiek ere oso hippyak ziren, nire girokoak. Neska bat nikaraguarra zen, eta orain, hara joan dira bizitzera. Idatzi egiten didate, eta hara gonbidatzen naute; ziur omen daude hura ikaragarri gustatuko litzaidakeela. Hara joatea erabakiz gero, zer lekutara eramango ninduketen ere zehaztuta dute; ibilbide bat prest daukate.

Nire egungo bikotea Zornotzakoa da, eta bertan bizi gara orain; bi urte daramatzagu elkarrekin. Oso argia da, eta kontzientzia handiko pertsona; hainbat aldiz bidaiatu izan du Saharara, bertakoei laguntzera.

hamar urte dira Brasilerara joan ez naizela, eta desiratzen nago hara joan, eta nire familiarekin eta herrialdearekin elkartzeko; batez ere, lehen aipatu bezala, nire sustraiekiko jakin-mina piztu eta gero. Badakit asko gozatuko nukeela, nire familiaren jatorriarekin loturiko interesak eta jakin-nahiak baitituz; herrimin handia dut.

Nire bikotekideak babesten eta ulertzen nau, eta ahal duen neurrian laguntzen dit; etxean ere, egunero, Brasileko irratia jartzen dit, bai baitaki hara joateko beharra dudala. Pena ematen diot. Dirua aurrezten

Hamar urte dira Brasilerara joan ez naizela, eta desiratzen nago hara joan, eta nire familiarekin eta herrialdearekin elkartzeko.

saiatuko garela esaten dit, nik, gutxienez, joateko aukera izan dezadan; nik bera ere animatzen dut, nirekin etor dadin.

Askotan hitz egin dugu gaiari buruz, eta berak esaten dit bere seme-alabek Zornotzan jaio behar dutela. Nik ez dut inongo arazorik gai horrekin; interesgarria litzateke, haur bat izanez gero, eskolatze-aldia hasi aurretik, denboraldi batez han –Brasilen edo Nikaraguan– egotea.

Baina, joan aurretik, gauzak ongi antolatu beharko genituzke, aurrez ongi jakinda han zertan lan egin ahal izango dugun biok; izan ere, egoera, oro har, nahiko zail dago, batez ere nire arloan. Nire neska-lagunak, agian, errazago izango luke hezkuntza-arloan lana bilatzea, horrelako lan-moten eskaera handi samarra baitago.

Ni, oro har, ez naiz ibiltzen, egun osoan, hemen zer gertatzen den jakin-nahian, baina gustatzen zait egunerokoaren berri izatea. Politikak beldur piska bat eman arren, gai horiek interesatzen zaizkit; gustatu ala ez, politikariek hartzen dituzten erabakiek eragin egiten digute, eta beraz, hobe da informatuta egotea.

Nire neska oso abertzalea da, eta nik baino gehiago jarraitzen ditu gai horiek; haren iritziz, politikariek hitz egiten dutenean, munduak gelditu egin behar du. Hemen, independentzia da gai politiko nagusia; ni, moralki, independentziaren aldekoa naiz, baina ez dakit oso praktikoa izango ote litzatekeen. Baina herriaren erabakia errespetatu egin behar da; batez ere, jakinik herri hau oso desberdina dela, kultura-jatorri ezezagun eta oso desberdineko herria, hain zuzen.

Gero ikusiko genuke emaitza ona litzatekeen ala ez, baina, esan bezala, uste dut herri honek, moralki, independentzia merezi duela.

Orain ez hainbeste, baina saharar musikariarekin ibili nintzenean, gerra handia ematen genuen letrekin; asko aipatzen genuen politika. Finean, musika adierazpen-modu bat da, eta askotariko gai politikoak eta sozialak islatu ditzake; batez ere, zenbait estilotan, reggaean, esaterako. Reggaeak jatorri afrokaribearra du, eta estilo horretan abesten duten taldeak kultura askotako kideez osatuta egon ohi dira.

Arrazismoaren gaia ere dezente lantzen da. Argi dago, arrazismoa txarra da, horretan ez dago zalantzarik, baina oso leku desberdinetako jendearekin harremana izan dudanez, ohartu naiz aurpegi askoko arazoa dela. Bitxia da, baina entzun ditudan aipu arrazistenak ez dira sekula izan beltzek beste beltzei egindakoak.

Behin, nire taldeko musikari bat mutil zuri bat zirikatzen hasi zen, rastak zituelako. Rastak zergatik zeramatzan galdetu zion, eta esan zion beltza izan behar dela rastak eramateko, rastak dituzten pertsona zuriak hau eta bestea direla, eta abar. Azkenean, lasaitzeko esan behar izan nion.

Gogoan dut, txikitan, dendaren batean korrika hasten nintzenean amak korrikarik ez egiteko esaten zidala, beltz bat korrika ikusiz gero lapurtzat hartzen zela eta. Eta igandeetan goiz oheratzeko esan ohi zidan, «bihar zurien eguna

baita, eta haiek agintzen baitute». Alegia, astegunak zurien egunak zirela, eta beltzei lan egitea zegokiela.

Bestalde, beti esan izan dit, ahal dela, ile lisodun neska zuri bat hartzeko bikotekidetzat; ez zuen oso gustuko aurrez izan nuen beste neska harekin ibiltzea, oso beltza baitzen. Nik uste dut amona izateko beldur zela, eta batez ere, haurraren etorkizunean pentsatuz esaten zuela hori.

Bitxia da ileari zer garrantzi ematen zaion. Gure ile-mota oso kizkurra da, afro estilokoa. DBHn nengoela, jende guztia ile luzearekin ibiltzen hasi zen, eta nik ere, noski, horrela ibili nahi nuen; beraz, lisatu egin nuen, eta oso itsusi geratu zitzaidan, Mowgli nirudien. Ilea jaisteko modu bakarra rastak egitea da; bestela, ilea luzatzen utziz gero, mikrofono bat dirudit.

Gure amak beltzekin lotzen du ile-mota hori, eta gogaikarria zaio; horregatik esaten dit beti ile lisoa duen norbaitekin elkartzeko.

Amonari, berriz, ez zitzaion gure aita gustatzen, zuria zelako. Esaten zuen ezin zuela esan zuria ala beltza zen, gardena zelako eta ezin ziolako aurpegia ikusi. Han hilabete batzuk pasatu ondoren, kolore pixka bat hartu zuen aitak, eta orduan ohartu zen amona itxura oneko mutila zela; baina hasieran, ez zion batere graziaz egin zuria izateak.

Gure familian, eta oro har Brasilen, garrantzi handia ematen diote arrazari; izen ugari daude zurien, beltzen, indigenen eta beste arrazen artean sor daitezkeen nahasteak definitzeko. Familiako gehienak *cafuzoak* edo zanboak dira; horrela esaten zaie indigenak eta beltzak elkartzuz sortzen direnei.

Niri atentzioa ematen dit gai hori une oro hain gogoan izatea; alegia, antropologiaren ikuspegitik interesgarria iruditu dakidake gaia, baina ez, behintzat, pertsonen arteko desberdintasunak ezartzeko.

Etorkizunera begira, gustatuko litzaidake leku batetik bestera bidaiatuz ibiltzea, bai jarrera itxieneko herrialdeetan bai herrialde aurrerakoienetan. Gure aitaren eredia izan dut, bidaiatzeaz gain, antropologia- eta landa-lan ugari egin baitzuen.

Beti esaten zuen bidaiatzea bisitatutako lekuak ezagutzea baino askoz ere gehiago dela; jendea ezagutu behar dela, askotariko herriak, kultura desberdinak. Hau da, denetatik jaso eta ikasi behar dugula, egunerokoan baliagarri izango baitzaizkigu. Haren hitzetan, horrek guztiak hazi bat ereiten du gure barnean, eta aldi berean, guk ere beste pertsona batengan ereingo dugu hazia; horrela, nor bere bidaia propioa eginez joango da.

Gustatuko litzaidake bidaia-gidari gisa lan egitea, nahiz eta jakin oso erantzukizun handiko lana dela. Halere, familia bat izan, gustuko dudan zerbaitetan lan egin eta hortik zehar bidaiatuz gero, gustura nengoke. Eta horrez gain, ederra litzateke, noan lekura noala, musika nirekin izatea. Ez da gutxi ez!

Beti esaten zuen bidaiatzea bisitatutako lekuak ezagutzea baino askoz ere gehiago dela; jendea ezagutu behar dela, askotariko herriak, kultura desberdinak.

2

Azterketa

Behin hamar pertsona horien historien nondik norakoen berri izanda, haien bizitzetako funtsezko alderdi batzuk aletuko ditugu. Ikusi dugunez, aurrean ditugun norbanakoak beren edo beren gurasoen sorterritik kanpo hazi eta garatu diren pertsonak dira, beren kontakizunen bidez jakin dugunez, hainbat arrazoi direla-eta uneotan Euskadin bizi direnak. Historia bakoitzak berezitasun propioak ditu, noski, baina hala ere, ezaugarri komun batzuk identifikatu ditugu, eta, ezaugarri komun horiei esker, zenbait gako: batetik, bizitzaren aurrean duten asebetetze-sentsazio subjektiboari lotutako gakoak, eta, bestetik, beren inguru psikosozialarekin, familiarekin, lanarekin edo prestakuntzarekin duten harremana azaltzen duten elementu objektiboari lotutako gakoak. Azterketaren xedea gida-lanak egitea da, jakin dezagun zer alderditan jarri behar dugun arreta immigratzaileen oraingo eta etorkizuneko belaunaldiak erabat bertakotu daitezen, edozein lekutatik edota kulturatatik datozela ere.

Hasteko, beren lehen oroitzapenak landuko ditugu, eta zer sentsazio eragin zizkieten bizipen horiek beren bizitzetako lehen urteetan. Gero, familia aztertuko dugu, senidetasuna dela-eta lotutako pertsonen gizarte-unitatea den aldetik, eta zer lotura sortzen diren haren baitan. Era berean, eskolaz hitz egingo dugu, hainbat gairi buruzko ezagutzak jasotzeko lekua ez ezik, giza harremanak egiteko lekua delako, hots, ikaskideekin zein irakasleekin harremanak izateko lekua delako. Nola ez, zer-nolako gizarte-sareak eraikitzen dituzten aztertuko dugu —nola sortu dituzten eta zer motatako harremanak egiten diren horietan—, baita bikote-harremanak ere. Enpleguari eta lan-jardunari lotutakoak ere aztertuko ditugu —ea lanean ari diren edo ikasketak eta lana, bi-biak, egiten dituzten, eta zer jarrera duten izan daitezkeen erronka berrien aurrean—. Nongoak direla sentitzen duten galdetu ostean zenbat erantzun eta azalpen eman diren ikusirik —itxuraz erantzun errazeko galdera bada ere—, auzi horri arreta jarri diogu, baita pertsona horien kultura-jatorriari eta harekiko duten hurbiltasunari edo hurbiltasunik ezari ere. Ezaugarri kultural horiek erlijioarekin lotutakoak dira zenbaitetan; zer garrantzi ematen dieten ikusiko dugu, eta zer presentzia duten eguneroko bizitzan. Ez dugu ahaztuko bereizkeriak eragindako egoerei jarri beharreko arreta, izan egoera horiek norberaren azalean bizi izandakoak edo izan beste pertsona batzuek jasandakoak, egoera horien aurrean zer iritzi eta jarrera dituzten argitzen baitute. Amaitzeko, pertsona horiek etorkizunera begira dituzten asmoak eta itxaropenak jasoko ditugu.

Haurtzaroa eta lehen oroitzapenak

Ez dakigu pertsona oro den gai edo ez bere lehen oroitzapena azaltzeko, baina Paulek argi eta garbi du bera ez dela «ezertaz gogoratzen». Badira ordea guztiz kontrakoa diotenak eta haurtzaindegiko kontuak gogoan dituztenak ere. Ahmedek, adibidez, «eskolaurreko kontuak» gogoan dituela diosku. Dena den, askok dituzte gogoan migrazioarekin lotutako sententzioak, hala nola beldurra eta, Euskadikoa baino klima epelagoetatik zetozenez, hona iritsitakoan sumatu zuten hotza. Margarethek, esate baterako, «klima izan zen hasieran gehien antzeman nuena (...) Gainera, neguan iritsi ginenez, sekulako hotza egiten zuen» aipatu digu, eta Solek, berriz, «hotza da gogoan dudana lehen gauza». Solek, horrez gain, «bitxia zen hegazkinez hainbeste ibili beharra. Beldur handia pasatu nuen, eta negar batean eman nuen hegaldi osoa» esan digu, zer-nolakoa izango zen ez zekien bizimodu berri bati ekiteko bidaiaren aurreko beldurra aipatzeko. Ikus daitekeenez, oroitzapenak ez daude ezinbestean migrazioarekin lotuta, migratzaileetako batzuek beren bizitzetako une horiek argi eta garbi gogoratzen dituzten arren beste batzuek ez dutelako ezer gogoan. Esan beharra dago, ordea, lau urte inguru zituztenean migratu zutenek argiago gogoratzen dituztela gertaera haietako batzuk.

Bizitzako lehen une horietako oroitzapenak hutsak edo lausoak badira ere, elkarrizketatutakoek ongi gogoan dute haurtzaroko nahasmendua. Jonek, esaterako, hiru hizkuntzatan bizi zela dio: «Txikitan, hasieran, apur bat nahastuta ibili nintzen hizkuntzekin, ez nuelako argi zer hizkuntzatan ari nintzen, gaztelaniaz, ingelesez edo portugesez». Fátimak aldi batez ez hitzegitea erabaki zuela dio, «Bartzelonara iritsitakoan, hizkuntza ere desberdina zelako eta guzti hartaz anai-arrebak baino gehiago jabetzen nintzelako». Ahmedek, berriz, gogoan du ulertzen ez zuen hizkuntza batean abesten zuela eskolan, baina horrek ez ziola kezka handirik eragiten: «Euskarazko abesti ezagunak abesten genituen elkarrekin, hala nola *Pintto Pintto* eta *Olentzero*, ongi-ongi ulertzen ez nituen arren».

Une horretan hasi ziren kidekoekiko harremanetan beren burua desberdintzat sumatzen. Elkarrizketatutako pertsonetako batzuk baztertuak izan ziren beren itxura fisikoa zela-eta, edo, gutxienez, disimulurik gabeko begirasunak sumatzen zituzten. Paulek argi uzten du alderdi hori «txikitan pila bat antzematen da» esaten duenean, eta, batez ere, udako oportretan udalak aisialdirako antolatutako jarduerak gogora ekartzen dituenean: «Udalekuetan oso bestelakoak ziren kontuak, haur guztiak bertakoak zirelako eta ni nintzelako arraro bakarra». Jonek gogoan du zer esaten zioten eta zeinen gaizki sentitzen zen halakoak entzunda. «Batzuetan, 'Jonek ezin du jolastu, beltza delako' esaten zidaten, eta, hori, alajaina, ni ez naizela hain beltza!» azaldu digu. «Ez nuen

«Udalekuetan oso bestelakoak ziren kontuak, haur guztiak bertakoak zirelako eta ni nintzelako arraro bakarra».

ulertzen zergatik esaten zidaten hori, nik ez bainuen desberdintasunik ikusten. Beste mutiko bat baino ez nintzen» aipatu digu. Solek ere sentitzen zuen bere ikaskideek eta auzokoek seinatu egiten zutela: «Zuri begira zeudela eta zutaz hizketan ari zirela sentitzen zenuen, auzokoak zuri begira eta zurrumurruka ari zirela». Jonek bezala, Solek ere ez zuen ulertzen zergatik gertatzen zitzaion hori, zergatik sentitu behar zuen besteak ez bezalako kolore desberdineko azala izate hutsagatik, ez baitzen horretaz jabetu begirasunak sentitu zituen arte, «eta horrek oso gaizki, erabat baztertuta, sentiarazten zaitu, ez duzulako ulertzen, jendearekin ibili nahi duen haurra zarelako».

Alabaina, ez dira txarrak haurtzaroari buruzko kontakizun guztiak, eta hori azaltzen digu Jonek: «Garai hartako gauzarik onenak irakatsi zizkidaten balioak eta inguruan izan nuen jendea dira».

Familia

Gurasoen sorterrian jaiok ez direnek zein oso adin txikia zutenean migratu zutenek, guztiek, aipatu dituzte familiari lotutako arrazoiak sorterritik irteteko erabakiaren atzean. Elkarrizketatuek aipatu dituzten arrazoiak taldearen bizikalitatea hobetzeko itxaropenarekin lotuta daude. Batzuek sorterriko gizarte-eta ekonomia-egoera kaskarretatik ihes egin zuten, lanerako eta aurrera egiteko aukera hobekak izango zituztelakoan, eta beste batzuek, harreman sentimentalak tarteko, bikotekidearen sorterrira bizitzera joatea erabaki zuten, kasu honetan, Euskadira.

Hasieran, ohikoa da pentsatzea migrazioa aldi baterakoa izango dela eta, behin lana lortu eta dirua aurreztutakoan, sorterrira itzultzeko modua izango dela. Alabaina, asmo horiek lausotu egiten dira denborarekin. Migratzaileak beren herrialde berrian behin betirako finkatzen dira, eta bikotekidea eta seme-alabak ekartzen hasten dira. Horixe gertatu zitzaion Sukainaren aitari: «Han ez zegoen lanik, eta ikusi zuen hemen etorkizun hobea izango zuela, errazago egingo zuela aurrera». Sukainak bere aitaz dioenez, «bere asmoa denbora batez lan egin eta Marokora itzultzea zen, baina hemen geratu zen, eta, gerora, ama etorri zen». Oierren gurasoek Kuban ezagutu zuten elkar, amaren sorterrian, eta harremanak aurrera egiten zuela ikusirik, amak Gasteizera etortzea erabaki zuen: «Ama Kuban ezagutu zuen, eta joan-etorrian ibili zen denboraldi batean. Azkenean, ama Gasteizera etorri zen. Hemen, ezkondu egin ziren eta gu hirurok izan gintuzten».

Paulek argi du: «Garai hartan Ekuador egoera ekonomiko okerragoan zegoelako etorri ziren gurasoak, pentsatu zutelako hobe zutela seme-alabei zerbait hobea ematen saiatu, han kezkatuta egon beharrean. Eta, nire ustez, asmatu zuten». Paulek babestu egiten du gurasoen erabakia, ikusiak baititu Ekuadorren eta Euskadiren arteko aldeak. Eta ez hori bakarrik, gogoeta egiten du bere gurasoengandik jasotako hezibideari buruz, eta umetan zigorrak ohikoak ziren arren, egokitzen jotzen du. Gaur egun, uste du lagungarri izan zaiola pertsona heldua izateko: «Txikitan, gurasoek ere asko zigortzen ninduten. (...) eta onartu beharra dut lagungarri izan zaidala pertsona heldua izaten ikasteko». Soleren izebak ilobari etorkizun hobea eskaintzeko erabaki zuen migratzea, «Afrikan ez baituzu hemengo hezkuntza bera jasotzen eta aurrera egiteko aukerak ere ez baitira berdinak». Beren ondorengoentzako nahi duten etorkizuna bilatze horrek, ordea, sakrifizio ugari dakartza berarekin, eta ondorengoek horiek balioesten badituzte ere, hutsune handiak eragin ditu haien haurtzaroan eta nerabezeroan. Ahmedek azaltzen du hori argien: «Beti pentsatu izan dut ez dudala nahi sakrifikatu ikasketak egin ditzagun eta aurrera atera gaitezen gurasoak gugatik

Beren ondorengoentzako nahi duten etorkizuna bilatze horrek, ordea, sakrifizio ugari dakartza berarekin, eta ondorengoek horiek balioesten badituzte ere, hutsune handiak eragin ditu haien haurtzaroan eta nerabezeroan.

sakrifikatu diren bezala. Izan ere, ahalegin hori dela-eta ez ditugu etxean asko ikusi, eta bakarrik ikusi dut nire burua zenbaitetan».

Familia euskarri garrantzitsua da elkarrizketatutako pertsonetatik askorentzat, eta ez zerbaiten premian daudenean edo babes behar dutenean laguntzen dielako soilik. Familian sortzen den konfiantza-giroa aipatu digute, edo seme-alabak eguneroko bizitzan nola moldatzen diren edo zer arduraren duten ikusteak familiari eragiten dion harrotasuna. Ikasketei lotuta, esaterako, «gurasoek ez dute gehiegi arduratu behar izan (...), hiruok ikaskuntza-ohitura onak izan ditugulako» esan digu Oierrek, eta Danielak, berriz, lana eta ikasketak uztartzen dituela ikusten dutenez, «gurasoak harro daude nitaz, lanarekin arduratsua naizela ikusten dutelako».

Ikasketena da kezka eragiten duten arloetako bat, eta gurasoek arreta berezia jartzen diote.

Ikasketena da kezka eragiten duten arloetako bat, eta gurasoek arreta berezia jartzen diote. Elkarrizketatutako pertsonak badakite zer-nolako interesa duten gurasoek seme-alaben prestakuntza-ibilbidean, uste baitute horri esker lortuko dutela beraiek izandakoa baino bizimodu hobea. Izan ere, lehendik aipatu dugunez, seme-alabei etorkizunean aukera hobek eskaini ahal izatea da migrazioari ekiteko arrazoietako bat, eta, aukera horien artean, hezkuntza da garrantzitsuenetako bat. Gogo hori argi ikusten du Fátimak amarengan: «Berak ez duenez ikasi, nahi zuen arren, frustrazioa eragiten dio nik oraindik ikasketak bukatu ez izanak eta oraindik lanpostu on bat ez izateak. Horixe nahi du. Uste dut une horretan egongo dela egiazki nitaz harro». Jonek, berriz, «ama harro dago ni unibertsitatera joan izanaz» dio.

«Ama harro dago ni unibertsitatera joan izanaz».

Ahmeden aitak urte luzez lanean egindako ahaleginaren bidez erakutsi die seme-alabei zenbateraino garrantzitsua den ikastea: «Gurasoek esaten ziguten ikasi beharra genuela hala-holako lana egin nahi ez bagenuen. Horregatik, aitak berarekin eramaten gintuen lanera asteburuetan». Danielaren gurasoek lana edo ikasketak egin beharra zuela sartu zioten buruan alabari, aholkuak emanaz eta hitz eginez: «Ikasi edo lana egin. Horixe zen betiko leloa. Neuk ikusiko nuela zer nahi nuen egin, abokatua izan eta diru mordoa irabazi ala ezkaratzak garbitu. Eta, noski, nahiago izan nuen ikasi».

Hezkuntza-ibilbidea dela-eta lanera atzerrira joateko aukera suertatzen denean ere izaten da familiaren babes hori. Horixe gertatu zaio Oierri. Amak berak animatzen du, bere azalean bizi izan duelako zer den migrazioa: «Nire amak asko animatzen gaitu kanpora joan gaitezen, berak ere horixe egin zuelako seguru asko. Babes handia ematen digu». Aitak, ostera, aurkako jarrera du.

Alabaina, familiak ez ditu beti harremanak errazten. Horren adibidea da Soleren kasua eta hark familiarengandik jasotako tratua. «Ez duzu ulertzen zergatik baztertzen zaituzten modu horretan» esan digu. Alabaz mintzatzen denean,

ordea, argi du berak familiaren partetik izan ez duen babes guztia emango diola. Solek bere adiskideen gurasoen babesarekin ase zituen, nolabait, haren hutsune afektiboak eta zaintzakoak. «Alabatzat tratatzen ninduten. Zerbait falta zitzaidala jakiten bazuten, nire urtebetetzean opari ematen zidaten» dio. Ahmedek bere aitaren onarpen-falta aipatzen du, esanez «askotan pentsatu izan dut ez zuela ulertzen egiten ari nintzena (...) Bazirudien askoz gehiago estimatzen zuela kanpoko edonork egindako edozer nik egindako ezer baino. Inoiz ez zekien zertan ari nintzen». Amarekin aurkakoa gertatzen zitzaion, baldintzarik jarri gabe babesten baitzuen bizitzan hartzen zituen erabakietan: «Hark lagundu dit beti gehien gauza guztietan. Laguntza eskaintzen zidan beti, laguntzeko modurik ez bazuen ere».

Ez da harritzekoa familiako kideen arteko harremanak desberdinak izatea. Danielak, esaterako, ama aita baino ulerkorragoa dela dio, beti hitz egin izan duela gehiago harekin. Mikelek gurasoekin «oso harreman ona» duela dio: «Nik beti izan dut konfiantza gurasoekin, eta haiek taburik gabe hitz egin didate gauza guztiei buruz». Badira distantziak hobetzen dituen harremanak ere, seme-alabek gurasoen etxea utzitakoan hobetzen direnak, lehendik txarrak ez baziren ere. Jonek argi utzi digu «elkarrekin hobeto konpontzen gara urrun gaudela hurbil egonda baino» esan digunean, eta horretan bat dator Ahmedekin, hark ere, gurasoen etxea utzi zuenetik, «famiarekiko harremana hobetu egin da harrezkero, lehendik txarra ez bazen ere» esan baitigu. Margarethek, berriz, etorkizunean lana aurkitu orduko bere bizitza egingo duela pentsatzen duen arren, «ama nirekin eramango nuke» dio, beti izan delako «oso amazuloa».

Elkarrizketetan jasotakoaren arabera, eutsi egiten zaie bere garaian migratu zuten gainerako familiartekoekiko harremanei ere, eta horrenbestez, jaioterriarekiko loturari. Margarethek dio asteburuetan elkartzen direla eta elkarrekin ospatzen dituztela urtebetetzeak. Komunitateen topagunez ere hitz egiten digu, kasu honetan, latindar komunitateenaz, eta nola horiek familiako kideen topagune bihurtzen diren. Alabaina, topagune horiek ez dira beti gustuko bilera horietan lekuz kanpo sentitzen direnentzat, hots, jatorri geografikoa beste loturarik ez duten pertsonekin harremana izateko interesik ez dutenentzat eta konplizteagatik joaten direnentzat. Horixe gertatzen zitzaion Soleri nerabezaroan, behartuta sentitzen baizen bilera haietara joatera. «Ez nuen inolako interesik ia ezagutzen ez nuen jendearekin eserita egoteko eta haien bizitzez eta interesatzen ez zitzaizkidan gauzez hitz egiteko». Solek bere jatorri geografiko bereko pertsonetikiko sentitzen duen distantzia kulturala handia da. Ez dituzte hark dituen kezkek, eta ez dituzte modu berean izaten harremanak. «Gineari buruzko kontuez hitz egiten dute, eta zuk, hain txikia zinela etorri zinez, oroitzapen gehiago dituzu hemengoak hangoak baino (...). Planteatu ere egiten ez dituzun kontuez dihardute, dokumentazioaz, esaterako. Eta zu beste mundu batean zaude» dio Solek.

Eutsi egiten zaie bere garaian migratu zuten gainerako familiartekoekiko harremanei ere, eta horrenbestez, jaioterriarekiko loturari.

Gauzak horrela, Soleren kontakizunak hausnarketa egitera bultzatzen gaitu, eguneroko bizitzan ageriko egiten diren gurasoekiko kultura-aldeei buruzko hausnarketa egitera, hain zuzen. Elkarrizketatutako pertsonekin egindako bileretan ikusi dugu, oro har, gurasoen eta seme-alaben belaunaldien arteko distantziaz gain, gizarte-errealitatea irakurtzeko modu desberdinaz hitz egin digutela. Horren adibidetzat, Danielak aitarekin dituen arazoak aipatu dizkigu: «Ni hemen hazi eta hezi naiz, eta hemengo kontuak ikasi ditut. Berak kultura bat du, eta nik, berriz, beste bat». Kontakizun askotan azpimarratu digute matxismoa, emakumezkoenetan, hain zuzen. Danielak, esaterako, «Latinoamerikan nahiko matxistak dira, eta amaren egitekotzat dituzte etxea zaintzea...» esan digu. Euskadin bizitzeagatik amak izandako aldaketa ere aipatu digu, eta sorterriko kultura matxistatik aldenduta «pentsatzeko modua aldatzen» joan dela apurka. Antzeko hausnarketa egiten du Fátimak ere amari buruz, ikusi baitu marokoar familiartekoengandik urruntzeak pentsaera irekitzen lagundu diola: «Hona etortzeak ikuspegia aldatu dio, familia eta bere ingurunea atzean utzi baititu».

Kulturen arteko distantzia argi ikusten da nolabait erlijioarekin lotutako ohituren arteko gatazkak sortzen direnean.

Kulturen arteko distantzia argi ikusten da nolabait erlijioarekin lotutako ohituren arteko gatazkak sortzen direnean. Alde horiez jabetuta dago Sukaina, aita apur bat matxista zela ikusi zuelako, besteak beste: «Berak esaten zidan erlijioak esaten duena dela, baina ez du zerikusirik». Ildo horretatik doaz Fátimaren hausnarketak ere. Hark aipatzen duenez, zenbaitek erlijioa sartu nahi dute berez harekin zerikusirik izan beharko ez luketen kontuetan: «Ez naiz ari erlijioez, ohiturez baizik, nire familiak uste duenez. Izan ere, egiazki, erlijioari heltzen diotenean hipokrita hutsak dira, nahi dutena jartzen eta kentzen baitute. Islamaren atzean ezkututzen dira, baina, agian ez dira musulmanak ere». Elkarrizketetan ezer galdetu gabe aipatzen den kontuetako bat ezkontza da. Ahmedek, esaterako, hau dio: «Ezkondu beharra dago, eta, ikasketak izan edo ez, gazterik gainera, musulman, marokoar edo dena delako kideko batekin. Anaia-arrebek hemengo bikoteak izan dituzte ordea, eta hori astindu handia izan da gurasoentzat». Fátimak, berriz, uste du bere familiari ez diola graziaz egiten hark bizimodu independentea izateak eta «beraiek egiten ari direna ez egiteak, hala nola ezkontzeak...». Alabaina, gurasoek ez dute beti jarrera hori. Sukainak bere aitaren jarrera aipatzen du: «Aitortu behar dut ikasteko esan izan digula beti eta ez, berriz, ezkontzeko. Jada ezkondu dauden lagunak ditut, eta hark esaten zigun ez egiteko haiek bezala».

Batzuetan, familietan bada norbait kulturen arteko zubi-lanak egiten dituen, eta gurasoei zenbait gauza ulertzen laguntzen diena, familia gehiago bertakotu dadin. Ahmeden familian, esaterako, arrebak egin du lan hori. Aipatu dizkigun adibideetako bat Eguberriekin eta opariekin lotuta dago: «Nire arrebak egiten zituen lan horiek. Adibidez, ikusten genuen guk izan ezik mundu guztiak jasotzen

zituela Olentzeroren edo Errege Magoen opariak, eta gurasoek ez zekiten ezer kontu horiei buruz, arrebak azaldu zizkien arte».

Nahiz eta, ikusi dugun bezala, zenbait pertsona pentsaera aldatzen joan diren, ez da erraza erabateko aldaketa bat izatea; izan ere, Ahmeden hitzetan, «beti daude iraganera begira. Emigratzaileek berezkoa dutela uste dut». Solek kultura berekoak ez direnen arteko gorabeherez hausnartzen du, eta gogorarazten digu beti egongo dela «elkar ulertuko ez dugun une bat». «Ez dira hemen hazi. Bizimodua eta gainerako guztia desberdinak dira. Ni kezkatzen nauena hutsala da haientzat, eta haien kezkak txorakeriak dira niretzat. Eta familiak ez du hori ulertzen; ez zaio buruan sartzen zergatik ez dudan harremanik helduak izanik hona etorri diren afrikarrekin». Ildo horretan, argigarria da Fátimak bere bizimodua eta bere familiaren kultura-gakoak alderatuta ateratzen duen ondorioa, argi definitzen baitu zer gertatzen zaion pertsona bati kultura baten baino gehiagoren eragina jasotzen duenean: «Nik uste dut nire familiak kontuan hartu behar zuela hona bizitzera ekartzen baninduten nik hemengo gauzak hartuko nituela».

Bestalde, zer gertatzen da bi gurasoak kultura berekoak ez direnean? Elkarrizketatutako pertsonetatik hiruk gurasoetako bat atzerrikoa eta bestea bertakoa dituzte, eta guztiek hitz egin dute bikote-bizitzari buruz, haien arteko aldeak azpimarratzeko edo egiazki alderik ez dagoela baieztatzeko. Jonek argi azaldu du «aitaren eta amaren kulturen arteko talkaren eragina» handia izan dela, eta argi ikusten dela «izaeren aldea kulturari lotuta» dagoela. Mikelek, aitzitik, ez du inoiz ikusi bere gurasoek halako bizikidetzazailtasunik izan dutenik, edo, gutxienez, ez du oroitzen halakorik. Dena den, esan beharra dago Mikelek bere aitari egozten dizkion ezaugarriak guztiz aurkakoak direla latinoamerikarrei egozten zaizkien estereotipoekiko, eta horregatik uste duela gurasoen arteko distantzia kulturala hutsala dela: «Aita ez da, ez, nikaraguar prototipoa. Oso urduria eta puntuala da».

Bestalde, atzerritarrak hartu dituzten familiek askotariko jarrerak izan dituzte familiako kide berri horiekiko. Oierrek eta Mikelek argi dute gurasoen eta familia politikoaren arteko harremana ona dela, hasieran une zailen bat izan bazen ere. Oierrek gurasoen bitartez daki amak harrera ona eta babes osoa izan zituela sentitu zuela hasiera-hasieratik: «Hona etortzea oso aldaketa handia izan zen nire amarentzat, ez baitzuen inor ezagutzen. Baina aitaren lagunek eta familiak oso ondo hartu zuen eta asko babestu zuten. Gustura egon zen hasiera-hasieratik, eta gustura dago orain ere. Uste dut nahita etorri zelako dela hala, ez zelako behartuta etorri». Antzeko zerbait dio Mikelek bere aitari buruz: «Aitak ez du inoiz bere burua kanpotartzat hartu. Beti egon da oso integratuta, eta ez du inork gutxietsi». Aitzitik, aurkakoa da Jonen kasua. Hauxe dio: «Hasieran, hona etorri ginenean, kostatu egin zitzaion gu onartzea, eta oraindik ere ikus daitezke aldeak guri ez bezala lehengusuei bai onartzen dizkieten gauzetan (...) aitaren familiak inoiz ez du ama onartu». Era berean, esan digu bere amaren amak ez

zuela begi onez ikusten alaba gizon zuri batekin ibiltzea. «Amonari, berriz, ez zitzaion gure aita gustatzen, zuria zelako. Esaten zuen ezin zuela esan ederra zen edo ez, gardena zelako eta ezin ziolako aurpegia ikusi» aipatzen du.

«Hemengo norbaitekin egotearen abantaila izan zuen nire aitak, eta horrek gauzak errazten ditu. Gauzak bestelakoak izango ziren biak hangoak izan balira».

Jonek uste du ama izan zela leku eta kultura berri batera moldatu beharra izan zuena: «Bi munduren artean bizi izan garela esan dezakegu behin eta berriz, baina kolpea amak hartu zuen, eta aita, bitartean, eroso zegoen». Bestalde, Mikelek argi du bere aitaren hemengo bizimodua

oso bestelakoa izango litzatekeela ama ere atzerritarra izan balitz: «Hemengo norbaitekin egotearen abantaila izan zuen, eta horrek gauzak errazten ditu. Gauzak bestelakoak izango ziren biak hangoak izan balira».

Gizarte-sareak

Gizarte-sareak aipatzen ditugunean pertsonen arteko harreman-sareak adierazi nahi ditugu, norberaren izaera sortzeko, nortasuna adierazteko eta gizarte-elkarrekintzetan esku hartzeko oinarritzat hartzen ditugunak. Aurreko atalean familia eta han ezartzen diren harremanak aztertu ditugunez, orain elkarrizketatuek lagunekin eta bikoteekin dituzten harremanak soilik aztertuko ditugu. Haientzat zer diren eta nola eusten dieten aztertuko dugu, hain zuzen.

Badira lagun taldea umetan egin zutenak eta urte luzez lagun talde horri eutsi diotenak. Jonek, esaterako, bere kuadrilla aipatu digu. Handia dela dio, eta gehienek «txikitatik» ezagutzen dutela elkar. Sukainak oraingo lagunetako batzuk «txiki-txikitakoak» direla esan digu. Margarethek betiko lagun taldearekin duen harremanari eusten diola azaldu digu, «bikotekideak eta abar» tartean egonda ere. Solek bere auzoko txikitako hiru lagun minekin zuen harremanari eusten dio, eta esan digu, beste ikastetxe batekoak ziren arren, haiexek izan zirela hasieratik «onartu» zuten bakarrak. Oroitzapen gazi-gozoa da Solerena, talde bateko kide zen arren gainerako haurrek baztertzen zutela sentitzen baitu.

Alabaina, laguntasun-harremanak ez dira beti haurtzaroan egiten, edo, egiten izan badira ere, litekeena da harreman horiek iraun ez izana, eta egun beste lagun talde bat izatea, ezaugarri edo zaletasun komunek lotutakoa. Horixe gertatu zaio Pauli, lagun talde bat egin baitu bere inguru hurbiletik at, hots, eskolatik eta herritik at. Bere lagunetako asko oporretara joan zirela-eta uda batean nolabaiteko bakardadea sumatzen bere burua lagun talde berri batek inguratuta ikustera pasatu zen latinoamerikar jatorriko beste mutiko bati esker: «Harekin joan nintzen eta jendea aurkeztu zidan, latindarrak batez ere. Latindar mordo zeuden, futboleak jokatzeko eta elkarri txantxak egiten, eta ongi konpontzen ziren». Ahmedek ez zuen izan erraztasun handirik lagunak egiteko eta nolabaiteko babesa emango zion harremanik egiteko, herri txiki batean bizi zelako, seguru asko, edo kuadrillak nahiko itxiak izaten direlako. «Zailtasun handiak izan nituen lagun taldea egiteko. Izan ere, hain gutxi ginenez gelan eta ikastolakoekin jai genuenez, ezinezkoa zen. Saiatu arren, alferrik» esan digu. Horrez gain, komunitateak laguntza ez ezik min handia ere egin dezakeela aipatu digu.

Laguntasun-harremanak ez dira beti haurtzaroan egiten, edo, egiten izan badira ere, litekeena da harreman horiek iraun ez izana, eta egun beste lagun talde bat izatea, ezaugarri edo zaletasun komunek lotutakoa.

Margareth eta Daniel bakoitza bere lagun taldeko atzerritar bakarra dira. Danielak «Ikastetxeko kuadrillako lagun guztiak bertakoak ziren, baita unibertsitatekoak ere, ekuadortar bat izan ezik. Erabat bertakotuta nagoela uste dut, gainerakoak bezalakoa naizela» dio gaztetan ez ezik gaur egun unibertsitatean ere harekin harremana izan dutenei buruz. Ez da lagunei buruz diharduela bere integrazio-maila aipatu duen bakarra. Solek dio bere lagun onenak hiru neskato euskaldun

izateak asko lagundu diola integratzen. Familiaren eragina ere aipatzen du Solek. Kultura bereko jendearekin ibil dadin bultzatzen dute, bera ados egon ez harren, eta desadostasun horrek gatazkak eragin dizkio. «Haiekin hartu-eman gutxi ditut. Baditut lagunak, eta, nirekin ibili nahi baduzu, berdin dit nongoa zaren, baina ez nazazu behartu beltzekin ibiltzera beltza naizelako bakarrik» esan digu. Orain, alaba bat du, eta bere senarrak alaba afrikarrekin ibil dadin nahi duela dio, baina berak uste duela mundu guztiarekin ibili beharko lukeela, bereizketarik egin gabe. «Batuetan esaten dit hark ere (senarrak) saiatu behar dugula neskatoa beste ume afrikar batzuekin gehiago jolastu dadin. Niri ongi iruditzen zait, mundu guztiarekin jolastea nahi baitut, baina ikastetxean bertakoekin ibiltzen da, alajaina».

Paulek, aitzitik, aipatu digu pozik sentitu zela bere burua integratuta ikusi zuenean, hein handi batean, Latinoamerikako hainbat tokitako lagunei esker: «Oso ongi sentitzen nintzen perutarren eta argentinarren artean, integratuta sentitzen bainintzen». Hori horrela izanik, bera ere harritu egiten da ikasketa berriei ekin zienean eroso moldatu zelako euskaldunekin: «Askok harritu nintzen gehienek euskaraz zihardutela ikusi nuenean, eta are gehiago harritu nintzen haiekin ongi konpontzen nintzela ikusi nuenean». Hala ere, gaur egun erosoago sentitzen da atzerritarren artean, haien gustu eta afizio berberak dituelako. Aurkako prozesua bizi izan du Jonek. Gaur egun, gehiago ibiltzen da atzerritarrekin, txikitako lagunak hemengoak ziren arren. «Bitxia bada ere, egun gehiago ibiltzen naiz atzerritik etorritako jendearekin, bertakoekin baino» esan digu. Ildo horretatik, Ahmedek pentsatzen du hizkuntza edo kultura-gako berberak izateak harremanak sortzera bultzatzen duela jendea, eta gurasoen sorterrian bizi izango balira, agian ez zuketela harremanik izango pertsona horiekin: «Azkenerako, zure herrialdeko jendearekin elkartzen zara, zure hizkuntza hitz egiten dutenekin. Marokon geratuz gero, beharbada, ez zenukeen pertsona horiekin harremanik izango, baina hemen bai».

Oro har, txantxat hartzen dituzte lagunak beren jatorria dela-eta esaten dizkietenak, eta ez diete nahigaberik eragiten. Mikelek dio bere lagunak «txokolatzkoa» dela esaten diotela eta bere azalaren kolorea dela-eta ohiko txantxak egiten dizkiotela, baina ez min emateko asmoarekin. Ongi hartzen dituela dio, txantxak baino ez direlako eta bera barre egin zale delako. Halakoak kuadrilla guztietan gertatzen omen dira, lagun minen artean. Danielak ere ez du gaizki hartzen konnotazio negatiboak dituen zerbait esaten badiote. «Unibertsitateko edo eskolako betiko lagunak batek “chewbacca” edota “chigualera” esaten badit, ez dut gaizki hartzen. Ez dit inporta» esan digu. Horrelako adierazpenak onartu egiten dituzte lagunengandik datozenean.

Aitzitik, min ematen diete edo jarrera erabat aldatzen dute ezezagunengandik entzuten dituztenean edota min egiteko asmoarekin esandakoak direla sumatzen dutenean, baita beste pertsona batzuei buruz esandakoak badira ere. Danielak «beste norbait gutxiesteko esaten badute, ez dut ongi hartzen»

esan digu, nolabait berari buruz ere ari direla iruditzen zaiolako. Margarethek bere familia tartean sartzen duten unean jartzen du muga. «Beste kontu bat da familiarekin sartzea; hori ez zait batere gustatzen» aipatu digu, eta galderak egiten tematzen direnekin gogaitu egiten dela.

Oro har, txantxatzen hartzen dituzte lagunak beren jatorria dela-eta esaten dizkietenak, eta ez diete nahigaberik eragiten.

Elkarrizketatutako pertsonetako batzuek bikotekide euskalduna dute. Jonek aipatu digu bereak esaten diola ez ziola aurrez inoiz erreparatu latindar bati. Danielak, berriz, aipatu digu deseroso sentitzen dela bere mutil-lagunak atzerritarrek mespretxatzen dituenen: «Autoan doala norbaitekin haserretzen bada, “Puto chibolero!” esaten du, eta nik halakorik ez esateko, min ematen didalako». Bestalde, elkarrizketatutako batzuek atzerriko bikotekideak dituzte, eta azpimarratu egin dute zer-nolako atxikimendua duten haiek sorterriarekiko edota zer sentimendu identitario duten. Honela azaldu digu Solek bere bikotekidearen kasua: «Kamerundarra da. Ni baino helduagoa zela etorri zen, eta badu, bai, sorterriarekiko atxikimendu hori. Kamerundar peto-pettoa sentitzen da». Jonek, berriz, esan digu bere aurreko bikotekideak erakutsi ziola latindar erroak balioesten: «Aurreko bikotekideak erakutsi zidan harro egoten latindar izateaz. Hura ere latindarra zen, eta harro sentitzen zen. (...) Hark irakatsi zidan nire latindar kultura balioesten». Bestelakoa da Fátimaren kasua, jatorriz antzeko kulturako bikotekidea duen arren, sarritan entzun behar izaten baitu haren ahotik ea «espainiarra» dela uste duen «esaten edo egiten dituen gauzengatik».

Familiak iritzia ematen du halakoetan. Musulmanek uste dute garrantzitsua dela beren seme-alaben bikotekideak ere musulmanak izatea. Sukainak dio bereei asko axolako litzaikeela berak bikotekide euskalduna izatea; izan ere,

«Ez nekien nola konponduko nintzen bere familiarekin, baina ez dut izan inolako arazorik.».

«musulmana izatea nahi dute». Hori horrela izanik, «badakizunez musulmana izan behar duela nahitaez, inoiz ez duzu pentsatu ere egiten musulmana ez den lagun bat bikotekidetzat hartzea» esan digu. Ahmedek bikotekide euskalduna du, eta badaki gurasoek nahiago zutela semearen bikotekidea haien sinesmenarekin eta ohiturekin afinitate handiagoa duen norbait izatea. Dena den, aipatu digunez, «pertsona ona bada eta lana egiten badu, gurasook jabetzen gara horretaz, berak zu zainduko zaituela, eta zuk bera» esaten diote, eta hori dela, azkenean, inporta duena eta haiek balioetsi beharko luketeena. Zalantzak izaten dira beste noranzkoan ere, ez baita jakiten zer nolakoa izango den harremana bikotekidearen familiarekin, baina horiek ere argitzen eta normalizatzen dira. «Ezin dut ukatu nik ere zalantza egin dudala, ez nekielako nola konponduko nintzen bere familiarekin, baina ez dut izan inolako arazorik. Harrera ona izan dugu nire familian eta bikotekidearenean» diosku. Soleren familiak, berriz, ez zuen ongi ikusten hari mutil “zuriak” gustatzea, eta ezkutuan ibili beharra izan zuen nerabezeroan: «Beti ezkutuan ibili beharra izaten nuen. Mutil-laguna izanez gero, azaldu beharra izaten nion agurtu besterik ez egiteko familiarekin ikusten ninduenean, hobe zuela ez irribarrerik egin, familia jabetu ez zedin».

Ikasketak eta lana

Margarethen gurasoek hurbiltasuna zela-eta erabaki zuten zer ikastetxetara bidaliko zuten alaba; gertuen zegoena aukeratu zuten. «Esango nuke huraxe zela zegoen bakarra. Herri batean bizi ginen eta hura zen hurbilen zegoena. Horregatik bidali gintuzten hara. 'Ikastola dugu herrian, bada, haraxe bidaliko ditugu' pentsatuko zuten». Antzeko zerbait dio Oierrek ere, etxetik gertu zegoen ikastetxe batean ikasi baitzuen hark ere. «Ikastetxea etxe aurrean genuen. B ereduan ikasi izan dut beti, eta oso gutxi ginen gelan». Beraz, hizkuntza-eredua aukeratzeko orduan, sarritan, inguruan zer eskaintza dagoen hartzen da kontuan, eta ez horrenbeste seme-alabek euskaraz edo gaztelaniaz ikasteko interesa. «Ikasten hasi nintzenean, D eredua baino ez zegoen» esan digu Sukainak, eta «Gaztelaniaz ikasi nahi bazenuen, itundutako ikastetxeren batera joan behar zenuen, ikastetxe publiko guztietan euskaraz egiten baitzen».

Ikastetxea aukeratzean, gurasoek kontuan hartzen dute sare publikokoa den edo ez, izan sare horren aldeko apustua egiten dutelako edo izan seme-alaben ikasketen kostua txikiagoa delako sare horretan. Mikelek, esaterako, bere etxean «sistema publikoaren aldekoak» direla dio. Ildo horretatik, Ahmeden ustez sare publikoan ikasteak zer esan nahi duen jaso nahi dugu. Izan ere, hark uste du sare publikoa gure inguruko errealitatearen isla dela eta horretan hezi behar direla neskato eta mutiko guztiak. «Ikastetxe publikoetan egin ditut ikasketa guztiak. Uste dut horietan ikusten dela benetan nolakoa den errealitatea. Denetik ikusten da: immigratzaileak, desgaituak, ilehoriak, beltzaranak... Gizartea ikusten da, alegia».

Elkarrizketatutako pertsonetako batzuek leku askotako ikaskideak zituzten, hala nola Paulek. «Leku askotako ikasleak geunden: Latinoamerikakoak eta Europakoak. Dibertsitate handia zegoen». Alabaina, beste batzuek talde homogeneoagoetan ikasi izana gogoratzen dute. Fátimak, adibidez, «ikasgelan bazen besta neska marokoar bat, baina ez zegoen beste atzerritarrik. Ia guztiak katalanak ziren». Ahmedek uste du sustatu egin beharko litzatekeela «hemengo jendea» sare publikoko ikastetxeetan matrikulatzea: «Nire ustez, guri behintzat asko lagundu zigun beste batzuekin ibiltzeak, elkarrengandik ikasten dugulako. Nor izango da, bestela, hemengoen eredua? Irakaslea?».

Hezkuntza-prozesuan kidekoen artean izaten diren harremanetan arreta jartzen badugu, bi motatako esperientziak bereiz daitezke, argi eta garbi. Batzuek oroitzapen onak dituzte ikasgelako bizikidetzari buruz, eta beste batzuek, aldiz, ikaskideen bazterketa eta irainak jasan beharra izan zuten. Margarethek «mundu guztiarekin eta ikasturte guztietan primeran» moldatu zela dio; Oierrek «batxilergoan, jende mordoan ezagutu nuen eta oso ongi moldatu nintzen» esan digu, eta «baita unibertsitatean ere. Hantxe moldatu nintzen ongien»; Paulek, berriz, «urte oso onak izan ziren, eta oso ikaskide onak izan nituen» gogoratu

du, eta «Gainera, ikastetxe hartan, gehienak bertakoak ziren (...) eta harritu egin nintzen zeinen ongi moldatu nintzen haiekin, hemengoak baziren ere» erantsi digu. Horiek hirurak dira ikastetxeko bizikidetzari buruzko esperientzia positiboena. Paulek harridura ere adierazi du, oso desberdintzat zituenekin harreman ona zuela ikustean sentitu zuena. Aitzitik, kidekoekiko harremanen oroitzapen txarrak dituztenen artean, Ahmed, Fátima eta Sole aipatu behar ditugu. Oroitzapen horiek «gehiago dute gazitik gozotik baino» Ahmeden kasuan; «garai nahiko tristetzat dut gogoan. Arraro sentitzen nintzen,

Hezkuntza-prozesuan kidekoen artean izaten diren harremanetan arreta jartzen badugu, bi motatako esperientziak bereiz daitezke, argi eta garbi. Batzuek oroitzapen onak dituzte ikasgelako bizikidetzari buruz, eta beste batzuek, aldiz, ikaskideen bazterketa eta irainak jasan beharra izan zuten.

desberdin. Izan ere, mukizu haiek tentel hutsak ziren» esan digu. Fátimak ere gogoratu du beste neska-mutiko batzuen ankerkeriak jasan izana. «Beti entzun izan ditut 'mora de mierda' eta horrelakoak. Baina, fisikoari lotutako irainek mintzen ninduten gehien. Barre egiten zidaten, eta 'hemen dator itsusia' esaten zuten». Sole gaizki sentitzen zen. «Zuk ere ikusten duzu ez direla kolore berekoak, eta integratu behar duena zu zarela sentitzen duzu, baina ez duzu ulertzen zergatik baztertzen zaituzten zu integratzen saiatzen ari zarela ikusi arren» esan digu. Ikus daitekeenez, askotariko bizipenak izan dituzte, modu batera edo bestera markatu dituztenak. Bi alderdik izan dute eragina oroitzapen txarrak dituztenen eskolako ibilbidean: haien kultura ahotan hartuta egindako irainek eta desberdintasun fisikoa dela-eta sentitu duten bazterketak.

Irakasleak ere aipatu dituzte, eta ez ezagutzak edo gaitasunak lortzeko berme diren aldetik bakarrik. Batzuek behar izan dutenean laguntza eman dietela oroitzen dute, eta beste batzuek, berriz, nahigabea eta bazterketa sentiarazi zizkietela. Margaretheek irakasle baten oroitzapen gozoa du, haren laguntzari esker «primeran» integratu zelako. Era berean, Danielak ere positibotzat oroitzen du irakasleengandik jasotako arreta: «Arazoren bat zenuenean edo arraro zeundela ikusten zutenean, hitz egitera hurbiltzen zitzaizkizun edo gurasoei deitzen zieten. Dena ematen zuten». Solek bi irakasle oroitzen ditu bereziki, «hasieratik jabetu zirelako bazela ikasle berri bat taldean eta berdin zielako zer koloretakoa edo nongoa zen». Irakasle haiek «ahalegindu egiten ziren integratu nedin eta nirekin jolastu behar zirela esaten zieten gainerako ikaskideei» esan digu Solek. Ahmedek eskolan zein institutuan «oso irakasle onak» izan zituela uste du, eta «oso oroitzapen onak» dituela dio.

Alabaina, aurrez aipatu dugun bezala, irakasleak integrazioarako oztopo izan dira elkarrizketatutako pertsonetako batzuentzat. Solek gogoan du irakasleetako batzuek estigmatizatu egiten zutela bere azalaren kolorea zela-eta. Guztiak ez ziren halakoak, baina «eskola hartatik joan nintzen unera arte entzun behar izan nuen 'beltza' nintzelako kontu hori» diosku. Fátimak, berriz, irakasle batek ez zuela aintzat hartzen gogoratzen du, ez zuela ezer egiten ikaskideek iraintzen

zutenean. «Behin, ikastetxean, haur talde batek inguratu ninduen, eta denetik esan zidaten, baina ez ziren irainak izan gehien mindu nindutenak, irakaslearen jarrera baizik. Zer gertatu zen eta zer egin zidaten galdetu zidan, baina ongitxo zekien».

Nahiz eta badiren irakasleekin izandako esperientzia txarrak, gehiago dira oroitzen atseginak dituztenak.

Nahiz eta badiren irakasleekin izandako esperientzia txarrak, gehiago dira oroitzen atseginak dituztenak. Irakasleak izan ziren, hain zuzen, Pauli ikasketekiko zuen jarrera aldatzeko behar zuen bultzada eman ziotenak, eta, gaur egun, eskertu egiten die lagundu izana: «Irakasleak nahigabetuta eta etsita ikusten ninduen. Ikusten zuen ez nuela arretarik jartzen, eta nirekin hitz egitera etorri zen, ea aurrera egiten nuen. Hari esker iritsi naiz gaur egun nagoen lekura».

Elkarrizketatutako pertsonetako batzuek jarrera-aldaketa bat izan zuten eskola-ibilbidean, batzuek beste pertsona batzuen laguntzari esker, hala nola Paulek, eta besteek, berriz, beren kabuz hartutako erabaki baten ondorioz, Jonek, adibidez. Bere bizitzarekin probetxuzko zerbait egin behar zuela pentsatu zuen. «Gaztea naiz eta urte mordoak dut aurretik. Ez dut hauek bezala amaitu nahi» pentsatu zuen, eta «nire notarekin zer karrera egin nezakeen ikusten hasi nintzen». Badira hobetzeko grinagatik aurrera egiten dutenak ere. Margartethek, adibidez, «egin beharra nuelako egin nuen, nik egiten ez banuen inork ez zuelako nigratik egingo» gogoratzen du, eta Sukainak, berriz, «ikasi badut nire gogoagatik izan da, haiek esandakoagatik baino gehiago» diosku, gurasoez. Oierrek ere erakusten du arduratsua dela ikasketekin: «Ikasketez arduratzen naiz, eta ez diet ezer esaten, nire egitekoa dela uste dudalako». Fátimak aipatu digu ez duela bere burua beteta ikusten ezin izan dituelako ikasketak amaitu; izan ere, Fátimaren ustez, «prestakuntza eta hezkuntza, horixe da bizitzan gelditzen dena». Prestatzeko eta ikasketetan arreta jartzeko gogoia izan arren, ordea, Solek zalantza egin zuen horretarako gai izango zen ala ez, ikasgelan gutxiesten zutela sentitzen baitzuen, bere azalaren kolorea zela-eta. «Zeure buruari galdezka hasten zara (...) helburu apalagoak jarri behar ote dizkiozun zure buruari, edota eskolan dena ongi egin arren beste batzuen atzetik egongo ote zaren, haiek zuriak direlako».

Elkarrizketa guztietan ikusten da prestakuntzarekin eta ikasketekin aurrera egiteko gogoia.

Elkarrizketa guztietan ikusten da prestakuntzarekin eta ikasketekin aurrera egiteko gogoia. Ikastetxean emandako orientabidea lagungarri izan zaie batzuei, eta familiaren babesak lagundu die besteei, baina norberaren jarrera izan da helburuak modu batean edo bestean lortzen lagundu dien arrazoi nagusia. Ikastetxean aurkitu zuen Solek ikasketak egiten non jarraitu erabakitzeko behar zuen laguntza. «Zure espediente akademikoari erreparatzen zion, eta, hura ikusita, zer ikas zenezakeen iradokitzen zizun, eta zuk, berriz, zer zenuen gustukoaren esaten zenien (...) Bekak aipatu zizkidan, baina haiekin ere ezingo nintzenez iritsi, zer ziklo eta akademia zeuden begiratzen

eta lagunekin hitz egiten hasi zen». Ahmedek ikasle ona zela erakusten zuen, eta, horrenbestez, unibertsitatera joan zedin iradoki zioten irakasleek. Arrazoi pertsonalak zirela-eta, ordea, lanbide-heziketara jo zuen. «Irakasleek pena hartu zuten Lanbide Heziketari heldu niolako. Ni hain ikasle ona izanik nola egin nezakeen hori...».

Oro har, elkarrizketatutako pertsonak beren kabuz erabaki dute zer ikasi. Batzuek hasiera-hasieratik zuten argi zer bide hartuko zuten. Oierrek, esaterako, «ikastetxe horretan ikasi nahi nuen» diosku, eta «gainera, handik ongi prestatuta irteten zinela esaten zuten, eta horixe nahi nuen nik, etorkizunean unibertsitatera joateari begira». Era berean, Danielak txiki-txikitatik argi zuen Zuzenbidea ikasi nahi zuela, «bidegabekeria gehiegi» ikusten zituelako. Beste batzuek, oster, zalantza egin zuten. Mikelek, esaterako, ez zuen argi. «Astebete aurretik erabaki nuen» diosku, eta erabakia berea izan zela azpimarratzen du. «Nik gustuko nuen zerbait ikastera joan nahi nuen unibertsitatera, eta ez beste lagun batzuek bezala, gurasoek esandakoa ikasi». Beste batzuek hainbat lanbide eta ikasketak egin beharra izan zuten zerk motibatzen zituen jakin zuten arte. Horixe gertatu zitzaion Joni eta Ahmedi. Ildo horretatik, Ahmedek «lana utzi eta ikasten hasi nintzen unean hasi nintzen benetan nik erabakitako gauzak egiten. Hau da, ni neu izaten hasi nintzen, nolabait» gogoratzen du. Behin erabaki hori hartutakoan, gogobeteta sentitzen dira, eta bigarren mailan gelditzen dira etorkizunean izan daitezkeen irteerei buruzko kezkek. Horixe dio Jonek: «Irteerak irteera, nahiago dut hori ikasi, gustura egingo ez dudana zerbaitetan jardun baino».

Norberaren inguruak ere badu eragina hartu beharreko ibilbideari buruzko erabakietan, hirugarren mailako ikasketak egin edo lan-merkatuan sartzeari begira eraginkorragoa den zerbaiti heldu erabakitzean, hain zuzen. Margarethek dio

«lagunak unibertsitatera zihoazen, eta eragina du, baina ni beti izan naiz ikastearen aldekoa, eta horregatik erabaki nuen unibertsitatera joatea». Danielak uste du hemen garrantzi handia ematen zaiela ikasketei.

Norberaren inguruak ere badu eragina hartu beharreko ibilbideari buruzko erabakietan, hirugarren mailako ikasketak egin edo lan-merkatuan sartzeari begira eraginkorragoa den zerbaiti heldu erabakitzean, hain zuzen.

«Ikastetxean ez zinen inor karrera bat edo goi-mailako ziklo bat egiten ez bazenuen. Arraro begiratzen zizuten. Ongi gogoan dut, ahizpa eta biok baikara lehengusu guztietatik ikasi dugun bakarrak» gogoratzen du. Kontrakoa gertatu zitzaion Ahmedi; izan ere, Lanbide Heziketan matrikulatu beharra izan zuen, lan-merkatura begira irteera gehiago bermatuko zizkiolakoan. «Gustuko ez nuen zerbait ikasi nuen (...) Izan ere, aitak esan zigun berak ezingo zuela gehiago lanik egin, eta geure bizimodua egin beharko genuela» kontatu digu. Dena den, bere kontakizunean ikusi dugunez, gai izan zen bere bizimodua aldatu eta nahi zuen hura ikasteko, makinekin lan egin beharrean pertsonekin lan egiteko. Solek hartutako erabakian ere eragin zuten arrazoi ekonomikoek. «Unibertsitatera

joan ez banintzen ez zen gogorik ez nuelako, dirurik ez genuelako baizik. Familiak esaten zidan lanean irabazten nuenarekin nahikoa ez banuen beste zerbait pentsatu beharko nuela». Sole nahigabetuta dago, ikasteko gaitasuna duela ikusten duelako eta, baliabide ekonomikorik eta familiaren babesik ez zuenez, Lanbide Heziketara jo beharra izan zuelako.

Adin eta prestakuntza-ibilbide desberdineko pertsonekin hitz egin dugu. Batzuk lanean ari dira dagoeneko, eta beste batzuk ikasten dihardute, baina gehienek aldi berean egin dituzte bi zeregin horiek. Guztiek nahi zuten gurasoengandik independizatu, beren gastuetarako diru apur bat izan, eta horixe azaltzen digu Danielak, «ez nuen beti eskean ibili nahi» esaten duenean. Bide horretatik asko ikasi du, gainera, bere buruari erakutsi baitio zer egiteko gai den, zaildu eta arduratsuago egin delako. Margaretheke ere ikusten du zer-nolako aldaketa eragin duen bere dirua irabazteak eta administratzeak. «Asko antzematen da, ez baita gauza bera beti amari eskean ibili beharra eta norberaren dirua izatea».

Esanak esan, batzuek ikasketak ordaintzeko egin dute lana, hala nola Solek eta Sukainak. Solek aipatu digu «irabazitako dirua ikasketak ordaintzeko zen. Bekarekin ezin ziren liburu guztiak ordaindu, eta falta zena neuk ordaindu beharra nuen», eta Sukainak, berriz, «nik ikasi egin nahi nuen. Eta banekien lana egin beharra nuela ikasteko eta nire gastuetarako diru apur bat izateko, ez baitut inoiz astesaririk izan. Nire dirua izan nahi nuen, egun guztia gurasoei eskean jardun beharrean». Egoera horri, gainera, gurasoen etxetik kanpo bizitzeko lana egin beharra gehitu behar zaio. Ahmedek uste du merezi duela ahalegin handia egin behar bada ere, eta «lana egiten ari nintzela egin nituen ikasketak. Gogorra izan da, baina ongi egon da» diosku; Fátimak, bere aldetik, «nahitaez lan egin beharra dut bizitzeko. Ez nago ikaskideen edo lagunen egoera berean. Haiek beren gastuetarako edo bidaiak ordaintzeko lan egiten dute. Nik ezinbestean egin behar dut lana, alokairua ordaindu beharra eta beste gastu asko ditudalako».

Zenbaitek esan digute atzerritarrak izateagatik zailtasunak izan dituztela lana aurkitzeko. Sukainak, esaterako, «lana bilatzean, bai, antzematen da bazterketa (...) Ez dizute zuzenean esaten, baina antzeman izan dut» gogoratzen du. Alabaina, Solek ez du arazorik izan. «Inoiz ez dut kritikarik entzun teknikariei aginduak eman dizkiedanean» kontatu digu. Gainera, uste du zorte ona izan duela, emakumezko beltzak ikustea ohikoa ez den lanpostuetan lan egiteko aukera izan duelako: «Etxeak garbitzeko edo egoitzetan jarduteko ez bada, non kontratatzen dituzte emakumezko beltzak? Administrazioan? Sekulako zorteak dut inondik ere». Horrek ez du esan nahi, ordea, inoiz bere burua azalaren koloreagatik baztertuta ikusi ez duenik, «denda honetan ez dugu neska beltz bat kontratatuko» entzun beharra izan baitu.

Hizkuntzak

Asko dira elkarrizketatutako pertsonen ama-hizkuntzak. Zenbaitek Euskadiko bi hizkuntza ofizialak ikasi dituzte etxean, hala nola Mikelek eta Jonek. Mikelek dio amak euskaraz hitz egiten ziola berak ezaguera dutenetik: «Amak euskaraz hitz egiten zidan jaio nintzenetik, eta, horregatik, banekien euskara eskolara joaten hasi baino lehen». Era berean, Jonek gogoan du «aitarengandik euskara asko entzun izana». Kasu horietan, beraz, etxean ikasi dute euskara, gurasoengandik. Beste batzuetan, berriz, gurasoek hala erabaki zutelako ikasi dute euskara, hizkuntza hori ikasi eta erabiltzera bideratu zutelako seme-alaben hezkuntza, beraiek euskara jakin ez arren, badakitelako zer-nolako garrantzia duen seme-alabak hizkuntza horretan hazteak. Ahmeden familian haren anaia-arrebak izan ziren eguneroko bizitzako errealitate hori irakurtzen jakin zutenak, eta haiek ireki zizkieten begiak gurasoei: «Anaia eta arreba zaharrek esan zieten gurasoei komeni zela guk euskaraz ikastea». Danielaren gurasoak ere jabetu ziren hemen integratzeko ezinbestekoa zela alabak euskaraz ikastea, eta hori etxeko komunikazio-hizkuntza gaztelania izanda: «Gurasoek ni hasiera-hasieratik integratzea nahi zuten, eta, horregatik, asko jarduten nuen euskara ikasten». Alabaina, denak ez dira hemengo errealitate soziolinguistikoaren jakitun, eta ongitxo daki hori Ahmedek. Horregatik, gaur egun, seme-alaben heziketari buruz familiaren bati aholkuren bat eman beharra izaten duenean, euskara ikastearen garrantzia ikusarazten die: «Marokoar familiei esaten diet hobe dutela euskara ikastea, bestela ere ikasiko baitute gaztelania eguneroko bizitzan, telebistan, futbolean, komunikabideetan eta kaleko hizkera dela-eta, batzuetan ematen baitu modernoagoa dela gaztelaniaz jardutea. Ikasiko dute, bai ala bai. Aitzitik, ez badituzte euskararen gakoak txikitari barneratzen... Zaila da gerora ikastea». Izan ere, berak etxean ikusi du anaia-arrebek euskaraz ikasi ez badute ezjakintasun horregatik dela, eta ez aukerarik ez zegoelako.

«Anaia eta arreba zaharrek esan zieten gurasoei komeni zela guk euskaraz ikastea».

Euskara ikasteko beste arrazoietako bat da bizi diren lekuan eguneroko bizitzako erreferentziazko hizkuntza euskara izatea. Horixe helarazi digute Margarethek, «nahiko ongi hitz egiten dut euskaraz. Goierrin bizi gara» aipatuz, eta Ahmedek, «euskaraz bizi den herri txiki bat da. Hitz egin beharko, jendearekin harremana izan nahi baduzu» esanez bere herria deskribatzen duenean.

Adina kontuan hartu beharreko alderdia da elkarrizketatutako pertsonak gaztelaniaz eta/edo euskaraz hazi diren ulertzeko. Jatorriko lurraldean jaio ez direnek edota oso adin txikiarekin iritsi zirenek erraztasun handia erakutsi dute hizkuntzak ikasteko. Horixe baieztatzen du Fátimak: «Azkar-azkar ikasi nuen gaztelania, haurrak ginelako... Katalanez eta gaztelaniaz hitz egiten nuen. Primeran moldatzen nintzen bi hizkuntzetan, baina katalanez eta arabieraz hobeki. Aldi bereko itzulpenak egiteko gai nintzen» esanez. Amarentzat

itzultzaile-lanak egin izana era aipatzen du: «Nire laugarren ahizpa izateko zegoela, berarekin joaten nintzen ginekologoarengana, interprete-lanak egitera».

Esanak esan, euskara ikastea ez da gozoa izan guztientzat. Pauli, esaterako, ikasketei begira ongi etorri zitzaion hizkuntza-ereduz aldatzea. Honela azaldu digu: «Euskaraz egin nuen Lehen Hezkuntza, baita DBHko lehen maila ere, baina maila hori errepikatu beharra izan nuenean, gaztelaniazko eredura aldatzea erabaki nuen. Eta antzeman zen, bai, aldea. Nik erabaki nuen aldaketa hori egitea. Aldaketak asko poztuko ninduela esan nien, ama-hizkuntza nuenez euskaraz baino erosoago ikasiko nuelako». Danielak ere onartzen du zailtasunak izan zituela hizkuntzarekin: «Egia esan, sekula ez naiz ongi moldatu euskaraz. Oso hizkuntza polita dela uste dut, eta Euskal Herriaren nortasunari eusten diola, baina kostatu egin zait, beti». Badira, ordea, ama-hizkuntzan ikasi ez arren zailtasun handirik izan ez duten pertsonak ere. Sukainak, esaterako: «Etxean inork ez du euskaraz egiten eta ez naiz inoiz eskola partikularretara joan. Beti ikasi izan dut euskaraz, eta gurasoek ezin izan didate inoiz lagundu, ez zutelako hizkuntza ulertzen, baina aurrera irten gara».

Gurasoen hizkuntzari eusteko ahalegina eguneroko bizitzako kontua da elkarrizketatutako pertsonentzat. Batzuek, Sukainaren familiak kasu, jatorrizko

Gurasoen hizkuntzari eusteko ahalegina eguneroko bizitzako kontua da elkarrizketatutako pertsonentzat. Batzuek, jatorrizko hizkuntzari eutsi nahi diote, eta, horrenbestez, horixe erabiltzen dute familian.

hizkuntzari eutsi nahi diote, eta, horrenbestez, horixe erabiltzen dute familian. «Txikitan, hitz egiten ez bagenuen hizkuntza galduko genuela esaten ziguten, eta, horregatik, beraiekin arabieraz hitz egin beharra genuen». Solek dio ez dela ari alaba hizkuntza bakarrean hezten. Aitaren hizkuntza ere erabiltzen dute, «frantses-hiztuna denez, frantsesez hitz egin diezaiola eskatzen diot, beti». Ildo horretatik, Solek dio bere alabak ahalik hizkuntza gehien ikastea nahi duela, baita euskara ere, «garrantzitsua» dela

uste duelako. «Ez dakigu gerora baliagarri izango zaion edo ez. Inork ez daki zer gertatuko den etorkizunean. Euskal Herrian bizi garenez, euskara ikasiko ote dugu, baldinbaitere». Etorkizunean baliagarri izango delako ikuspegi hori bera dute beste batzuek ere. Sukainak, adibidez, hau diosku: «Zerbaitetarako ikasi dut euskara, balioko didalako, hemen aukera gehiago dituzulako euskaraz badakizu».

Gurekin hitz egin dutenetako batzuek familiako zenbait kiderekin euskaraz hitz egiten dute. Mikelek «amarekin euskaraz hitz egiten jarraitzen dut» dio, eta Margarethek «ama lanean dagoenean, ahizpak eta biok gaztelaniaz edo euskaraz, bietara, hitz egiten dugu» esan digu. Amarekin gaztelaniaz hitz egiten duela dio, baina «badira ahizpari eta bioi euskaraz irteten zaizkigun gauzak, gaztelaniaz nola esaten diren ez dakigulako, eta, halakoetan, elkarri laguntzen diogu» azaldu digu. Sukainak gaztelaniaz eta arabieraz hitz egiten du familiarekin, «gaztelaniaz gure artean, eta arabieraz gurasoekin», hain zuzen. Elkarrizketatutako pertsonetako batzuek euskaraz egitea harrigarria eta

sinesgaitza iruditzen zaio zenbaiti, eta horixe adierazi digu Jonen: «Batzuei ez zaie buruan sartzen nola izan naitekeen gai euskaraz hitz egiteko. ‘Nola dakizu euskaraz hitz egiten?’ galdetzen didate. Ez dute ulertzen». Ahmedek gogoan du bere herriko jendea «pozarren» zegoela euskaraz zekielako. Alabaina, beraiekin gaztelaniaz hitz egiteko joera zutela dio, eta horri buruz hausnartzen du, ez zuelako ulertzen zergatik egiten zuten hori: «Bazekiten bagenekiela euskaraz. Ez al zuten nahi, bada, guk haien hizkuntza hitz egitea? Ez geniela ulertzen pentsatuko zuten, akaso... Baina bazekiten euskara ulertzen nuela eta euskaraz hitz egiten nuela. Ez nuen tutik ere ulertzen».

Identitatea(k)

Elkarrizketatutako pertsonekin izandako solasaldietan, nongoak diren sentitzen duten izan dugu hizpide. Guztiek eusten diote beren edo gurasoen jatorriko kulturari nolabait. Batzuek gurasoek hala erabaki dutelako jaso dute, seme-alabek nondik zetozen jakin dezaten nahi izan dutelako, hala nola Danielak. «Kolonbiako gauza asko erakutsi dizkidate» diosku. Beste batzuetan, ez da izan nahita hartutako erabaki baten ondorio, eta transmisioa berez eman da familiako bizikidetzaren eta heziketaren bidez, jatorriaren zuzeneko ezagutza oso mugatua izan arren. Horixe da Oierren kasua: «Hiru edo lau aldiz baino ez naiz egon han, eta oso gutxi ezagutzen dut hango familia». Danielak eta Oierrek badakite atzerritar jatorrikoak direla, baina ez dira jatorri horrekin identifikatuta sentitzen, eta horixe jakinarazten digute. Danielak «hemengoa» dela dio, eta Oierrek, era berean, «ia ez naiz sentitzen hangoa». Antzeko zerbait dio Sukainak: «Egia da baditudala marokoar kulturako ezaugarri batzuk, baina ez naiz sentitzen kultura horren parte».

Guztiek eratu dituzte beren nortasuna eta identitatea familiaren sorterrria ez den leku batean, eta, horregatik beharbada, batzuek diote zenbait lekutakoak direla sentitzen dutela, batzuetan balantza alde batera bestera baino gehiago makurtzen bada ere. Horri lotuta, hau diosku Margarethek: «Nongoa naizen galdetzen didatenean, Ekuadorrekoa naizela esaten dut, kanpoko naizela, baina hemengoa ere banaiz. Bi lekuetakoa naiz. Eta bietatik zeinetakoa sentitzen naizen gehiago galdetzen badidate, hemengoa gehiago sentitzen naizela esaten dut. Hemen bizi izan naizelako txikitatik, eta hemen egin dudalako egin dudan guztia». Fátimak, era berean, «marokoarra naizen arren, gehiago sentitzen naiz hemengoa» dio. Alabaina, badira jatorri kulturaletik urrun bizi izan diren arren harekiko lotura identitario sendoa dutenak, Paul esaterako. «Ekuadortarra naiz hezurretarraino, eta inork ez du lortuko hori aldatzea. Hemen edo Europako edo Latinoamerikako beste edozein tokitan bizi naiteke bizi osoan, baina beti izango naiz ekuadortarra. Han jaioa naiz, eta hangoa da nire odola» azaltzen digu.

Lagunekin edo ezagunekin kontu horiei buruz hitz egin dutenean, solaskidearekin zenbateko konfiantza duten, zer giro sortzen den eta beren hitzek zer erantzun duten ikusirik, askotariko erreakzioak dituzte. Ahmedek, esaterako, «nork eta nola galdetzen dizun, modu batean edo bestean erantzuten duzu, zaren bezalakoa zarelako, badakizulako hitzak eta hitzak ez direnak irakurtzen» azaltzen digu. Are gehiago, «nork galdetzen didan, haserretu ere egin naiteke» eransten digu.

Dena den, zalantzak nagusi dira uneoro beren identitatea definitzera behartuak sentitu direnen artean. «Non nago? Non egon beharko nuke? Norekin bat egiten dut? Nork babesten nau hemen?» galdetzen dio bere buruari Ahmedek. Jonek ere ez du argi nongoa den: «Bi kulturen artean bizi izan naizenez nolabait,

ez dakit zer naizen ere. Zer demontre ote naiz? Esan dudanez, ez naizelako ez batekoa ez bestekoa». Gauza bera baieztatzen du Fátimak: «Ez naiz sentitzen ez hemengoa eta ez hangoa». Eta hori gutxi balitz bezala, inoiz gertatu izan zaie euskal jatorriko pertsonak uko egin izana, beren burua euskalduntzat definitu dutenean. Izan ere, ez diote erreparatzen pertsonak berak esaten dienari, haren itxurari edo gurasoen jatorriko kulturari baizik. «Parrandan nabilela nola dudan izena galdetzen didatenean eta Ahmed izena dudala erantzuten diedanean, txantxetan ari naizela pentsatzen dute» aipatu digu Ahmedek. Sukainak ere bizi izan ditu halakoak, eta berak dioenez, «azkenerako, zuk nahi edo ez, eta hemen jaioa bazara ere, ez zara hemengoa. Jendeak ez zaitu hemengotzat hartzen». Uko horiek beraiekin dakarten ondorioa da pertsona horiek beren burua euskalduntzat ez definitzea, gizarteak ukatu egin baitie, nahi gabe bada ere, aukeratu duten identitate hori. «Euskalduna nintzela esaten nuen beti, baina jendeak ezetz esaten zidanez, sekulako nahasmendua daukat identitateari dagokionez (...) eta, azkenean, mundukoa zarela erantzun behar duzu». Eta esan dugunez, itxura dago guzti horren jatorrian. Horixe aipatzen du Sukainak: «Hasteko, lehen begi kolpean, zapiagatik da, itxuragatik. Jendeak atzerritarra banintz bezala tratatzen nau, eta esan ere egiten didate».

«Non nago? Non egon beharko nuke? Norekin bat egiten dut? Nork babesten nau hemen?».

Orain arte aipatutako guztiak ikusita, ulergarria da pertsona horietako batzuek oraindik ere zalantzak izatea eta argi ez jakitea beren identitatea zehazten. Ahmedek «nik ere ez dut definizio argi bat», Danielak «ez dakit zer esan» eta Sukainak «orain ez dakit zer erantzun galdetzen didatenean» esan digute. Zerekin identifikatu argi ez jakite horrek, gainera, nahigabea era eragiten du. Horixe uste du Danielak: «Ikusten dut hemengoek barru-barruan daramatela sentimendu hori, eta beste hainbeste gure amak ere. Nik ez dut halakorik sentitzen ez batekiko ez bestearekiko, eta batzuetan pena apur bat ematen dit. Nahiko nuke leku batekoa naizela sentitu, aberriarekiko maitasuna izan eta abar, baina ez dut halakorik». Oso bestelakoa da Mikelen kasua. Mikelek beti izan du barruan Nikaragua, eta «gurasoak harro sentitu dira horregatik», hain barruan izan ere, duela urte batzuk hango nazionalitatea eskatu baitzuen. Orain, bi nazionalitate ditu. «Duela sei urte, adin nagusiko egin ostean hara joan ginenean, Nikaraguako nortasun-agiria izan nahi nuela esan nion aitari, nikaraguar nazionalitatea izan nahi nuela».

«Euskalduna nintzela esaten nuen beti, baina jendeak ezetz esaten zidanez, sekulako nahasmendua daukat identitateari dagokionez (...) eta, azkenean, mundukoa zarela erantzun behar duzu».

Horrez gain, jatorriarekiko loturak aztertzean ikusiko dugunez, esan beharra dago zaila dela norberaren identitatea definitzea ez denean sentitzen inon erabat onartzen zaituztenik. Argi ikusten da hori Sukainaren hitzetan: «Azkenerako ez dakizu nongoa zaren ere. Nik beti esan izan dut hemengoa naizela, baina behin eta berriz gauza bera esan arren, hemen ez naute onartzen. Ni ez naiz euskalduna gainerakoen begietara. Eta beste hainbeste gertatzen zait Marokora joaten naizenean. Atzerritarra naiz haientzat ere. Erantzunik gabeko galdera

bihurtu da». Eta antzeko sentsazioa izan du Ahmedek ere: «Hemengoa ez zinela sentitzen zenuen nolabait, baina gauza bera sentitzen zenuen Marokon ere. Atzerritarra zinen haientzat, atzerrian bizi zena. Ikusten zuten arabieraz bazenekiela, baina ez gurasoek bezain ongi».

Jatorriarekiko loturak

Aurreko atalean ikusi dugunez, elkarrizketatutako pertsona guztiek eusten diete, gutxi-asko, jatorriarekiko loturei. Familia bisitatzeko eta jatorria ezagutzeko bidaiak, oporretan egindakoak gehienetan, ohikoak dira, edo, gutxienez, ohikoak izan ziren garai batean. Mikelek dio gaur egun «bi urtetik behin» joaten dela. Oierrek eta Ahmedek diote sarriagotan joaten zirela lehen. Oierrek, esaterako, «hiru edo lau aldiz, udan, eta hilabete edo hilabete eta erdi egoten ginen. Baina denbora asko daramagu hara joan gabe» diosku, eta Ahmedek, berriz, «garai batean sarri-sarri joaten ginen, baina gerora gero eta gutxiagotan joaten hasi ginen».

Udako oporraldian joaten ziren, eta txikitan egindako bidaiak haietako oroitzapenei eusten diete, Euskadirekiko aldeak hautematen zituztelako batez ere. Mikelek gogoan du hegazkina Sondikan hartzen zutela, eta, hara iritsitakoan, «familia osoa haien zain» izaten zela. Jonek dio bere oroitzapenak «bizi-bizikiak» direla, eta «nire etxea balitz bezala sentitzen nuen, bizi guztia han egon izan banintz bezala». Ahmedek ere atzera begiratzen du, eta «lehen aldiz joan ginenean, lauzpabost urte izango nituen, eta zer edo zer gogoratzen dut, hau ez bezalako lekua zela». Sukainak ez zuen oso gustuko Marokora joatea.

«Pare bat aste egon eta kito» esaten digu. Fátimak, aldiz, paradisua balitz bezala ikusten du, baina «oporrez gozatzeko» bakarrik. «Gustura sentitzen zara. Ongi egoten zara, baina aldi baterako» dio. «Oporretan egoten ginen han, baina bagenekien hona itzuliko ginela» oroitzen du Margarethek. Gerora, umeak izateari utzi ahala, batzuek ez dute jarraitu nahi familia bisitatzera joaten, eta nahiago dute denbora hori beren planak egiteko erabili. Ahmedek, esaterako, «uda iristen da, eta nahiago duzu beste plan batzuk egin. Mundua ezagutu nahi dut» diosku.

Umeak izateari utzi ahala, batzuek ez dute jarraitu nahi familia bisitatzera joaten, eta nahiago dute denbora hori beren planak egiteko erabili.

Elkarrizketatuek askotariko sententzioak bizi izan dituzte familiaren sorterrian, baina guztien testigantzetan antzematen da nolabaiteko harridura. Paulek sententzio hori aipatzen du «bitxia zen, hemen bizitzen ohituta geundelako» esanez, eta «bitxia, bai, baina oso-oso dibertigarria» eransten du. Solek «oso bitxia iruditzen zaizu guztia» dio, eta «janaria, klima eta bero itogarria» aipatzen ditu. Bisitek dirauten artean sortzen eta izaten diren harremanei buruz hitz egitean, elkarrizketatuek aipatzen dute baztertuta eta atzerritartzat hartuak sentitu izan direla, ez direla komunitatean erabat onartuak sentitu. Egoera horren aurrean, guztiek ez dute jarrera bera izan. Paul, esaterako, haserre sentitzen zen: «Oporretan hara joaten nintzenean, iseka egiten zidaten, 'españolito' eta horrelakoak esanez, eta horrek haserre arazi egiten ninduen». Jonek «izugarria» dela uste du: «Hara joaten naizenean 'gringoa' naiz, eta hasieran adarra jo izan didate doinua dela-eta». Mikelek ere gai horri buruz gogoeta egiten du,

desberdintzat hartua izan baita bi lekuetan: «Hemen beltza naiz, eta han zuria, alajaina». Hitz gutxitan, «han ere ez zara bat gehiago» diosku Solek.

Horrez gain, zenbaitetan gertatu izan zaie integratuta sentitzen hasi direnerako alde egin beharra izan dutela. Horixe aipatzen digu Solek: «Ohitzen hasten zarenerako, etorri beharra izaten duzu. Integratzen hasten zarenerako, itzuli beharra izaten duzu». Euskadira itzultzen direnean, gainera, ondorioak izaten dira, berriro hona moldatu beharra izaten baitute: «Itzulitakoan ere apur bat galduta sentitzen zara aldi batez. Arraro sentitzen zara. Erroetara itzuli eta zure kulturara moldatzen jardun izan bazina bezala, eta berriro ere txipa aldatu beharra izaten duzu». Mikel «obsesionatuta» itzultzen da Euskadira Nikaraguan aldi batez egon ondoren, eta ikusten du aitak, batez ere, «herrimin handia» izaten duela. «Beti gertatzen zaigu gauza bera» dio.

Solek uste du bere alabari aukera eman beharko liokeela gurasoak nondik datozen jakin nahi duen edo ez erabaki dezan, eta ez lukeela horretara behartu behar. «Ez dit inporta alabak Ginea ezagutzen ez badu ere. Bera hemen jaioa da eta hau da ezagutu behar duena. Etorkizunean Ginea ezagutu nahi duela esaten badit, ongi irudituko zai, eta ezagutu nahi ez badu, baita ere». Soleren bikotekideak, aitzitik, nahi du alabak Kamerun ezagutzea, heldua zela iritsi zelako, seguru asko. «Aitak, bai, nahi du alabak Kamerun ezagutzea».

«Itzela da, baina ez dut ikusten
nire burua han bizitzen.
Hemengora ohituegia nago».

Elkarrizketatutako pertsonetatik gehienek ez dute beren edo gurasoen sorterrira betiko bizitzera joateko asmorik. Ez eta Paulek ere, hangoa dela sentitzen badu ere eta aukera duen bakoitzean hara joatea gustatzen bazaio ere. «Itzela da, baina ez dut ikusten nire burua han bizitzen. Hemengora ohituegia nago» diosku. Mikelek ere biziki sentitzen du jatorriarekiko lotura, baina «adinean aurrera» doala eta lana duela dio. «Hemen bota ditut erroak» esaten digu. Badaki bere bizitza Euskadin dagoela. «Hara itzultzen zarenean pentsatzen duzu, bai, asko gustatzen zaizula hango bizimodua, gogorra bada ere, baina gero jabetzen zara zure bizitza hemen dagoela. Ni hemen hazi naiz. Hemen ikasi dut eta hemen lan egiten dut. Hemen dut kuadrilla, eta hemen dut, azken finean, bizitza osoa». Aitzitik, Solek ez du horrelako asmorik. Inoiz ez du sentitu Ginearekiko lotura handirik. «Gineara itzuli nahi dudan galdetzen badidazu oraintxe bertan, ez dut pentsatu ere egin behar. Gineara itzultzea atzera egitea da niretzat». Fátimak ere ez du Marokon bizitzera joateko asmorik: «Beti egin izan dut amets beste leku edo herrialde batean bizitzearekin, baina gero jabetu naiz ez naizela inon egongo hemen nagoen bezala. Gustura nago hemen». Ikus daitekeenez, gehienek hemen dute bizitza, izan hemen hazi direlako edo gizarte honen parte direla sentitzen dutelako, eta noizean behin kanpoan bizitzeko asmoa aipatzen badute ere, guztiek aipatzen dituzte hemen geratzeko arrazoiak. Baita Jonek ere, denbora batez Brasilera itzultzeko asmo argia badu ere. Hark ere argi adierazten du bitarako joera hori: «Arrazoi asko dauden hemendik ospa egiteko, baina baita hemen geratzeko ere».

Gurasoez dihardutenean bat datoz: guztiak jabetzen dira haietako askok nahiko luketela sorterrira itzuli. Itzultzeko asmo hori, gainera, bistakoago egin zen krisialdia hasi zenean. Horixe diosku Paulek: «Beti esaten digute Ekuadorrera itzuliko direla hemen gauzak okertzen badira». Dena den, bereari eutsiko lioke, eta horixe esaten die gurasoei ere. «Beti esaten diet ni hemen geratuko naizela, bakarrik geratu behar badut ere» azaltzen digu. Margarethen aitak Euskadin bizi izan den denboraren parte handi batean izan du buruan sorterrira itzultzeko asmoa: «Aitak beti izan du Ekuadorrera bizitzera itzultzeko asmoa». Han jabetzak erosten joan da gainera. «Egia da aitak beti izan duela pentsamendu hori buruan, duela lau bat urtera arte... Gurasoek eraikitako bi etxe ditugu Ekuadorren, eta alokairuan emanak dituzte». Alabaina, Paulek bezala, Margarethek ere ez du aitari itzulera horretan jarraitzeko asmorik. «Nik ikasketak amaitutakoan Ekuadorrera itzultzea nahi zuen, baina nik ezetz esan nion, nik hemen dudalako nire bizitza osoa».

Zenbaiten gurasoek erretiroa hartzen dutenerako planak egin dituzte, hala nola Oierrenek. «Ama pozarren egoten da han, eta zaharragoa denean hara bizitzera joan nahi duela dio, zahartzaroa han igaro nahi duela» diosku. Sukainak badaki aitari asko gustatzen zaiola Maroko, eta «Erretiroa hartu nahi duenez, han bizitzen geratu nahi duela» dio. Amari, ordea, ez zaio ideia hori gehiegi gustatzen, eta oporlekutzat ikusten du. «Amak hemen egina du bere bizitza. Oporretara joaten da hara, eta kito». Zenbaiten kasuan, bestalde, hasieran zituzten ideiak aldatu ere egin dira urteen poderioz, hala nola Ahmeden gurasoei. «Duela urte batzuk bazuten hara joateko asmoa, edo, gutxienez, han egonaldi luzeak egitekoa. Orain ez. Aita ez dago ongi osasunez».

«Ama pozarren egoten da han, eta zaharragoa denean hara bizitzera joan nahi duela dio, zahartzaroa han igaro nahi duela».

Sinesmenak

Erlijioa elkarrizketatutako pertsonen bizitzen parte da, bai gurasoengandik sinesmen jakinen arabera hezkuntza jaso dutenena eta bai gurasoek hala erabakita erlijio-orientabiderik jaso ez dutenena. Danielaren gurasoek ez ziren iritzi berekoak kontu horretan: «Amak gu erlijio katolikoaren arabera heztea nahi zuen; aitak, berriz, nagusiagoak ginenean geuk erabakiko genuela zertan sinetsi nahi genuen zioen». Soleren familian garrantzi handia ematen diote gehienek erlijioari. «Txikitan egunero joaten ginen mezatarra, erlijioa garrantzitsua baino garrantzitsuagoa baita izebarentzat». Paulek, bere aldetik, «gurasoek nahi izan zuten nik erlijioari eustea, baina inoiz ez didate esan biziki sinestu behar dudarik» esan digu. Mikelen gurasoek, bestalde, erlijioa alde batera utzita hezi zuten semea. «Erabakitzeko txikia nintzela zioten, eta beren ideiak zirela-eta ez nindutela beraiek jarraitzen ez duten erlijio bati heltzera bultzatuko. Nagusiagoa nintzenean katolikoa izatea erabakitzen banuen, neuk ikusiko nuela zer egin esaten zidaten, baina une hartan ez nindutela behartuko agian egin nahi ez nuen zerbait egitera».

Elkarrizketatutakoek erlijioaz ere hitz egin digute. Oro har, beren bizitzen parte da gaur egun, nahiz eta beren sinesmenak nolabait moldatu dituzten. Margarethek uste du bere ingurukoak erlijiozaleak direla, eta haien artean hazi denez, berak ere «halako pentsaera» duela: «Askok galdetzen didate nolatan izan naitekeen erlijiozalea, baina niri ez zait bitxia iruditzen inolaz ere. Zuk ez duzu sinesten, eta nik bai». Danielak ere sinestuntzat du bere burua, baina ez da elizkoia: «Ez dut sinesten Eliza Katolikoan, ezta beste eliza bakar batean ere. Izan ere, uste dut dena txarra dela muturrera eramaten denean». Solek, bere aldetik, argi du zertan sinesten duen: «Jainkoa nonahi omen dago. Nik egunero egiten diot otoitz, eta nire alabak osasun ona izan dezan eskatzen diot. Nire erlijioa sinplea da. Ez diot inori opa niretzat nahi ez dudana. Bizi eta utzi bizitzen». Ahmedek uste du lehen gehiago jarraitzen ziola erlijioari: «Gurasoek betidanik egin dute otoitz. Nik orain ez hainbeste... Baina, tira, musulman sentitzen naiz. Horixe da nire sinesbidea». Sukainak zalantza egin izan du bere hezibideko erlijioari buruz: «Ezaguera heldu nintzenean, nire kasa ikertzen hasi nintzen, sinestuna izango nintzen edo ez jakiteko». Fátimak gauza asko moldatu ditu, eta ez du uste «praktikatzailerik» denik. «Jainkoarengan eta beste gauza askotan» sinesten du, baina esaten dioten gauzetako askori bai esaten badie, «eztabaidan ez hasteagatik da».

«Jendeak ez daki bereizten kultura eta erlijioa. Dena nahasten du».

Erlijioa hizpide izan dugunean, behin eta berriz hitz egin digute zapia erabiltzeari buruz. Sukainaren hitzetan, «jendeak ez daki bereizten kultura eta erlijioa. Dena nahasten du». Ahmedek dio bere amak, gaztetan, Euskadira iritsi zenean, zapia erabiltzea nahi zuela, baina aitak halakorik ez egiteko esan ziola, jendearen begirasunak zirela-eta. «Amak esan zion zapi eta

guzti iritsi zela bere herrialdetik, eta zapia erabiltzen jarraitu nahi zuela (...) Eta, azkenean, janztea erabaki zuen» gogoratzen digu Ahmedek, «Jantzi zuenean, kentzeko esan zioten batzuek, politago zegoela zapirik gabe. Baina berak esaten zuen ongi ikusten zuela bere burua hala. Eta bereari eutsi dio». Fátimaren amak ere erabiltzen du zapia, duela urte asko bananduta badago ere, baina «nahiago du bizia eman zapia kendu baino».

Ahmedek uste du zapia janztea erabaki pertsonala dela, «sinesbidea edo beste edozein arrazoi dela-eta» hartzen dena. Askotan izaten dira eztabaidak zapia erabiltzeagatik, hura erabiltzea derrigorrezkoa den edo ez argitu nahian. Sukainak behin baino gehiagotan ikusi du bere burua halako eztabaidaren batean sartuta. «Jende askok uste du derrigortuta janzten dugula, eta men egiten dugula» diosku. «Jendea zapia jantz dezan behartzearen aurka nago ni ere, inork ez bailuke inor behartu behar nahi ez duen ezer egitera edo jantzi nahi ez duen ezer janztera» dio Sukainak, eta arrazoi berarengatik, «Nor zara zu zapia ken dezadan eskatzeko edo azpiratuta nagoela esateko?». Zentzu horretan, Ahmedek dio ikuspuntua aldatu behar dela, ez baita beharrezkoa guztiok berdinak izatea, eta bere buruari galderak egiten dizkio: «Nor gara pertsona bat azpiratuta dagoen edo ez esateko, zapia jantzita duelako soilik? Ba al dakigu, bada, jantzi nahi duen edo ez?». Alabaina, inposaketa «beste kontu bat» dela dio, eta iritzi kritikoa du bere ustez Islamak berezkoak ez dituen kontu batzuei buruz, burkaren edo niqabaren erabilerari buruz, esaterako.

Elkarrizketatutakoek ez dute seme-alabarik, batek izan ezik. Solek alaba bat du, eta haren hezibidean ez dio erlijio bati ere jarraitzen. Gainerakoei galdetu diegu ea inoiz seme-alabarik izaten badute erlijioaren bati jarraituz heziko dituzten edo ez. Paul ados dago gurasoengandik erlijio katolikoan oinarrituta jaso duen hezibidearekin, eta «nik ere gauza bera egingo nuke» dio. Fátimak argi du etorkizunean seme-alabak izan nahi dituela, eta uste du «funtsezkoa dela haiek arabieraz idazten eta irakurtzen ez ezik, arabiar kultura ikastea». «Ikas dezatela guztia, aberasgarria baita. Erabakiko dute gerora zer egin nahi duten» diosku. Uste du erlijioa lagungarri izan zaiola, bere buruari mugak jartzen lagundu diolako. «Seme-alabak meskitara eramango nituzke. Hasteko, hizkuntza ikas dezaten, oso garrantzitsua baita» dio. Erlijio musulmanari jarraituz heziak izanagatik seme-alabak baztertuak izan daitezkeen edo ez hizpide hartuta, Ahmedek dio horrek ez duela kezkatzen. «Hemen errota nago, eta hori abantaila handia izango da» esan digu, eta «Aita hemen jaiotakoa izango dute, beste jatorri bat duena, baina euskaraz dakiena eta bertakoa».

«Funtsezkoa dela haiek arabieraz idazten eta irakurtzen ez ezik, arabiar kultura ikastea». «Ikas dezatela guztia, aberasgarria baita. Erabakiko dute gerora zer egin nahi duten ».

Bereizkeria

Azterketa honetan dagoeneko identifikatu dira elkarrizketatutako pertsonetako batzuek bereizkeria jasandako egoeretako batzuk. Txikitan ez ezik orain ere jasaten dituzte lekuz kanpoko esamesak, mesfidantza, bazterketa, begiluzeen begirasunak... Ahmedek gogoan du txikitan ez zituela ulertzen berarenganako hitz eta jarrera batzuk. «Egia da nire izena, Ahmed, apur bat desberdina dela, baina hemen jaioa naiz, eta, horregatik, ez nuen ulertzen zergatik iraintzen ninduten aukera zuten bakoitzean» kontatzen digu. Danielak, bestalde, uste du adin handiagoarekin iritsi diren beste batzuek baino bereizkeria txikiagoa jasan beharra izan duela berak, Euskadin hazi delako: «Txiki-txikitatik hemen haziak garenez, beti hartu izan gaituzte bertakoak izan bagina bezala». Ez du gogoan arrazakeria jasan izana bere itxura dela-eta, gehiengoaren antzeko itxura duelako, baina bestelako egoerak bizi izan zituen bere ahizpak, hark «hangoen itxura baitu».

Poliziak identifikatu dadin eskatu izan dio Pauli, latinadarren kuadrilla batean egoteagatik soilik. «Zer premia dute gu ernegatzera etortzeko, latindarrok elkarrekin gabiltzalako soilik?». Jonek ere sumatu du bereizkeria. Behin marokoartzat hartu zuten, eta horrek «atsekabea eta marokoarrekiko enpatia» sentiarazi zizkion. «Zer dela-eta geldiarazi eta gutxiagotzat hartu behar ote nau inork, mairua izateagatik bakarrik?» galdetu zion bere buruari. Sukainak uste du bereizkeria benetakoa dela lan-merkatuan. «Zenbat musulman ikusten dituzu dendetan saltzaile- edo kutxazain-lanetan? Bat ere ez» ohartarazten digu. Fátimak, berriz, gidabaimena erabiltzen duela diosku, lotsa ematen diolako egoitza-baimena erabiltzeak, «jendeak beste modu batera begiratzen dizulako».

Alabaina, atzerritar jatorriko pertsonengandik ere sumatu izan dituzte mesfidantza eta jarrera txarrak. Jonek dio «beltzen ahotik» entzun dituela inoiz entzundako adierazpen arrazistenak. Sole bere familiakoek arbuia izan dute, ez dutelako ulertzen hura «zuriekin» ibiltzea. «Zuriek elkartu naizenez, zuritzat hartzen naute» diosku. Solek uste du berak nahi duenarekin ibiltzeko eskubidea duela, eta ez duela zertan ibili behar jatorri geografiko bereko jendearekin.

«Askoz gehiago eragiten dizu txikia zarenean, lehenengo aldia delako, baina, gerora, denborak aurrera egin eta lagunak egin ahala, gogorrago egiten zara eta bost axola dizu».

Pertsonak askotariko sentipenak izaten dituzte gutxiesten eta bereizkeriaz hartzen dituztela sentitzen dutenean, eta, ikusiko dugunez, horretan badu eragina mezu horiek entzundakoan pertsonak duten adinak. Solek, esaterako, «askoz gehiago eragiten dizu txikia zarenean, lehenengo aldia delako, baina, gerora, denborak aurrera egin eta

lagunak egin ahala, gogorrago egiten zara eta bost axola dizu» diosku. Halako egoera ulertezinek nahasmendua sortzen dute hasieran, baina errutina bihurtzen dira gerora, eta, horrenbestez, onartu egiten dira nolabait. Danielak

«ezintasuna eta amorrua» sentitu izan ditu adierazpen arrazistak entzun izan dituenean, eta halako adierazpenak egiten dituztenek beste zereginik ez ote duten pentsatzen du. Ahmedek dio azken urteetan aldatu egin dela euskaldunen marokoarrekiko jarrera. «Umetan mairuak ginelako kontu hura zegoen, baina gerora gauzak aldatu egin dira, atentatuak eta zalaparta hori guztia dela-eta». Sukainak ere sumatu du denak «terroristatzat» hartzen ditugula, eta uste du beraiek direla kaltetuenak «lehendik era bereizkeria bazegoen, orain askoz handiagoa baita».

Gurasoenganako bereizkeriaren lekuko ere izan dira elkarrizketatutako pertsonak. Oierrek dio bere amak egoera deserosoak jasan dituela kalean. «Pena handia ematen dit haren ahotik halakoak entzuten ditudanean» dio. Ahmedek ere ikusi izan du bereizkeriaz tratatu izan dutela bere aita. «Hutsaren pare izango balitz bezala tratatzen zuten, eta horrek amorru handia ematen zidan, baina ezin nuen ezer esan, lana galduko zuen beldur ginelako. 'Puto moro' eta halakoak esaten zizkieten, eta horrek ernegatu egiten ninduen».

Herri txiki batean bizitzea ez da egoera hobea izateko nahikoa berme, bizikidetzari mesede edo kalte egin baitiezaioke. Mikelen kasuan positiboa izan da bere aita herritarren ezaguna izatea. «Haren izena esan orduko badakite nortaz ari zaren, aita etorri zenean argentinar bat eta dominikar bat baino ez baitzeuden herrian, eta, gainera, ez dute inoiz immigratzailetzat hartu» diosku. Margarethek ere ez du uste herrian bestelakotzat zituztenik. «Herrian ez da egongo ezagutzen ez gaituenik» azaldu digu. Bestelakoa da Ahmeden kasua, desberdintzat hartzen zituzten eta «marokoarrak» esaten zieten. Gauzak horrela, komunitateak ezagutzeak mesede egin dezake, onarpena handiagoa eta besteekiko aldea txikiagoa izan daitezen, baina kalte ere egin dezake, gehiengoarekiko desberdina izate hori azpimarra baitezake.

Ikus daitekeenez, eguneroko bizitzako jarreretan eta harremanetan berebiziko eragina dute azalaren koloreak eta jatorri kultural jakin batekoen itxura izateak, benetan jatorri hori izan ez arren. Jonek aipatzen digu halako egoera asko jasaten dituela autobusean, eta, eragiten ez dioten arren, ez dituela gustuko. «Bada nire ondoan esertzera doan jendea, eta, bat-batean, ikusten nautenean, ospa egiten dutenak. Harrigarria da, ez baitakit zer dudan nik haiek hala alde egiteko, eta, batez ere, gazteak direlako gehienetan». Aurkakoa gertatzen zaio Danielari. Hark aipatzen digunez, «jendea asko harritzen da gurasoak kolonbiarrak direla esandakoan», eta «begi argiak» izateagatik bakarren bat sinestu ezinik geratu izan dela du gogoan. Mikelek badaki aurpegiera berezia duela, nongoa den argi ikusten ez bada ere, baina, Euskadin hazia denez, «azentu nabarmena» du, eta, horregatik, «aurpegiera berezia izan arren, hizketan dihardugunean, neuk esan behar izaten diet aita nikaraguarra dela. Orduantxe esaten didate zerbait antzematen zidatela». Fátima behin baino

«Jendea asko harritzen da gurasoak kolonbiarrak direla esandakoan, begi argiak izateagatik bakarren bat sinestu ezinik geratu izan da».

gehiagotan hartu izan dute beste lekuren batekoa izango balitz bezala, eta marokoarra dela esan izan duenean, «oso ozen ez esateko» eskatu izan diote, nahiz eta berak jatorriaz arro dagoelako eman erantzun hori, ez hura ezkutatu nahi izan duelako. Solek beti sentitu izan du bere azalaren koloreagatik seinalatua izan dela. «Ikasle-garaietan, nire gorputza desberdina izango balitz bezala erreparatzen zidaten aldageletan» diosku, eta kalean zebilela jendea begira geratzen zitzaiola eta «begira, beltz bat!» esaten zuela. Eta, noski, bera ohartu egiten zen. Izan ere, Sole duela 32 urte iritsi zen Euskadira, eta garai hartan ez zen hain ohikoa atzerritarrak bizilagun izatea.

Solek uste du oraindik ere iraun egiten dutela estereotipo negatiboek, eta, hori horrela izanik, zenbait hurrek ez dutela bere alabarekin jolastu nahi. «Lau urteko mutiko batek esaten badu ez duela neskato beltz batekin jolastu nahi... ez da mutikoaren kontua. Nonbait horrelakoak entzun izan dituelako esaten du». Badaki oso noizean behin gertatzen direla halakoak, baina, gertatu, gertatzen dira, eta alabak «zergatik diote marroia naizela?» galdetzen dio halakoetan. Horrelako egoerek nahigabea eragiten diote Soleri, berak umetan eta gaztetan jasandako bazterketa alabarengan ikusten ez badu ere, gizartetik erabat desagertu ez dela ikusten baitu.

Ahmedek uste du bera iraintzeko modu errazena dela «mairua!» esatea, eta horrek min ematen diola dio, «badakizulako nondik zatozen eta ikusten duzulako gurasoek gogor lan egin dutela». Fátimak esan duen bezala, errespetua baino ez dute nahi: «Marokoarra naizela esan dezakezu edo izenez deitu. Arabiarra, afrikarra edo nahi duzuna naizela esan dezakezu. Zergatik esan behar didazu, bada, mairua naizela? Iraingarria delako».

Asmoak eta itxaropenak

Hemendik urte batzuetara beren burua nola ikusten galdetu diegunean, erantzunak antzekoak izan dira, baita haien kezka eta ziurgabetasuna ere. Elkarrizketatuek ez dute argi zer ekarriko dien etorkizunak, eta, batez ere, oraindik ikasketak amaitu ez dituztenek. Eta, horri lotuta, esan beharra dago pertsona horietako askok irmotasun handia erakusten dutela beren prestakuntza-prozesuari eta lan-arloko helburuei lotuta. Margarethek helburu argi bat jarri dio bere buruari: «Karrera amaitu eta atera beharreko tituluak aterako ditut. Gero lanean hasiko naiz, eta kanpora joan beharra badut, joan eta kito». Danielak ere helburu argi bat dauka. «Oposizioak egiteko prestatzen hastea dut buruan, eta, aurten ez bada, datorren urtean saiatuko naiz. Horixe da nahi dudana» diosku. Sukainak ikuspegi ezkorragoa du lan-merkatuan izan ditzakeen aukerei buruz, bere erlijioak mugak jar diezakiokeela uste baitu. «Karrera amaitutakoan nik nahi dudan horretan lanik aurkituko ez dudan sentsazioa dut, eta zapia janzteak zenbateraino muga nazakeen pentsatzen jartzen naiz».

Ez dute argi zer ekarriko dien etorkizunak, eta, batez ere, oraindik ikasketak amaitu ez dituztenek.

Epe luzera begira, gehienek dute Euskadin bizitzeko asmoa, baina uste dute beste norabait joan beharko dutela lan-merkatuan sartzeko, lehen urteetan behintzat. Kanpora irten behar horrek, ordea, ez die kezka handirik eragiten. Danielak, esaterako, «hemen geratu nahiko duke, hemen dudalako gutzia. Baina ezerk lotuko ez banindu eta biharko egunean lanera kanpora joan beharra izango banu, Australiara bada ere, joan egingo nintzateke» azaltzen digu. Antzeko zerbait pentsatzen du Mikelek: «Nik nahiago dut hemen bizi, beste batzuk joango lirakeela badiote ere. Nire A plana hemen bizitzea da, eta ikusiko dugu zertan geratzen diren B eta C planak. Kanpora joan beharra badut, joan eta kito, horretarako ari gara prestatzen». Margarethek Euskadin geratu nahi du bizitzen, baina atzerrian aldi baterako bizitzea ere nahi du, bizi-erperientzia moduan. «Beti bizi izan naiz hemen, eta hemen amaitu nahi dut, baina aurrez irten eta mundua ikusi nahi dut. Itzuliko naiz gero, familia bat osatutakoan. Izan ere, badakit hemen edo inguruan biziko direla nire eguneroko lagunak ere». Ahmedek ez du argi zer ekarriko dion etorkizunak: «Ez dut guztiz argi bizitza hemen egingo dudan edo ez, eta nora joan sinatu beharko banu, ez nuke jakingo zer esan». Oierrek argi du atsegin handiena ematen dion lekuan jarriko duela bere bizilekua: «Zoriontsuen egiten nauen lekuan biziko naiz. Azkenean, bizimodu egonkorragoa dudanean, lana aurkitu, dirua irabazi eta etxe bat erosteko moduan naizenean, zoriontsuen naizen lekuan geratuko naiz». Fátima hiri batean baino gehiagotan bizi izan da, eta badaki zer den bere bizitza eta familiarena berregin beharra, eta kanpora joan beharko balu ere nonbait bizileku bat ezarri nahiko luke. «Beti izan dut hara eta hona ibiltzeko ilusioa, baina ez iparra galduta. Ez dut nahi noraezean ibili. Izan ere, hala zabiltzanean,

ez zaudela inon eta ez zarela inongoa sentitzen duzu. Nekagarria da lagunekin eta gainerakoarekin hutsetik hasi beharra».

Askok aipatu digute familia izateko asmoa beren jardunean: «etorkizunean umeak badituzu? Nola heziko dituzu? Zeren arabera?»

Askok aipatu digute familia izateko asmoa beren jardunean. Danielak, esaterako, «nahiko nuke noizbait familia izan, baina nahikoa bizi izan naizela uste dudanean, hau da, nahikoa bidaiatu, ezagutu eta ikasi dudala sentitzen dudanean». Ahmedek zenbait galdera egin dizkio bere buruari: «Eta etorkizunean umeak badituzu? Nola heziko dituzu? Zeren arabera?». Zer hezkuntza mota eta zer baliotan oinarritutakoa eman pentsarazten duten galderak dira, eta horretan, zeresana izango du jatorriak, zer-nolakoa jakin ez arren. Solek badu alaba bat. Alabak ikasi eta aurrera egin dezan nahi du, eta horretarako aukera emateko dirua aurrezten ari da. «Inoiz unibertsitatera joan nahi badu, ez dezala esan ezin izan duela halakorik egin nik ordaindu ezin dudalako. Ikas dezan ahalegintzen naiz, badaezpada, etorkizunean atzerrira joan nahiko balu ere, Ingalaterrara, Norvegiara edo beste lekuren batera joan nahiko balu ere». Jonek argi du «familia izan, lan egin eta hortik zehar bidaiatu» nahi duela, eta uste du bizipen aberasgarria izango litzatekeela bere jatorrizko herrialdean edo beste lekuren batean aldi batez bizitzea, berarentzat eta bere familiarentzat. Fátimak uste du «ikasteak ikuspegia zabaltzen duela eta munduaren aurrean irekiago egiten gaituela», eta, horregatik, «izan ez dudan guztia eman nahiko nieke» diosku.

Laburbilduz, beren adineko beste edonorok dituen irriken eta desiren antzekoak dira gure elkarrizketatuenak. Familia izatea -noiz eta zer egoeretan ez dakiten arren-, atzerrian lan egitea -prestatueneke ere lan egiteko mugitu beharra ezinbestekoa dela ulertzen dutelako- eta beren seme-alabei zer hezibide eman eta zer balio transmititu behar dizkieten pentsatzea, errealitate unibertsalak dira, hau da, ez dute zerikusirik kultura-jatorriarekin, beren belaunaldiaren bizipen propioekin baizik.

3

Ondorioak, gakoak eta gomendioak

Elkarrizketatuen kontakizunak aztertu ondoren, nabarmendu nahi ditugun zenbait gako daude, baina guztien gainetik gauza bat oso deigarri gertatu zaigu eta uste dugu besteen aurretik aipatu behar dela: pertsona horiek beren belaunaldiarekin lotzen dituzten elementuak gehiago dira, atzerrian jaiotakoak eta/edo atzeritarren ondorengoak izateagatik bereizten dituztenak baino; hau da, Euskadiko era skotako gazteen artean beste gazte batzuk dira. Pertsona horien eta Euskadiko gainerako gazteen kezkak, bizipenak, itxaropenak, erronkak, beldurra, ilusioak eta abar berdinak dira.

Egia da berezko ezaugarriak dituztela, berdinak beren taldeko gazteen artean, eta beste gazte-talde batzuenak ez bezalakoak. Baina gauza bera gertatzen da Euskadiko gazteen segmentu batzuen eta beste azpitalde batzuen artean, bereizgarriei dagokienez. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatuen bizitzako funtsezko elementuak eta Euskadiko gainerako gazteenak berdinak dira. Eta hamar pertsona horiek nabarmendu ditugu, aztertzaileok *ibilbide arrakastatsua* deritzoguna adierazten dutelako. Izan ere, antzeko ibilbide eta egoera positibo dituen edozein gazteren oinarriak eta elkarrizketatuenak berdinak dira.

Gure iritziz, elkarrizketatuak eta Euskadiko beste gazte-talde batzuk bereizten dituen elementu bat haurtzaroa da. Oro har, elkarrizketatuek nahasmenduz aipatzen dute bizi izan duten haurtzaroa: aitaren edo amaren jatorrizko herrialdean, bien herrialdeetan edo elkarrizketatuenean, edo amaren edo aitaren senide batzuen herrialdean. Elkarrizketatuak haurtzaroan ohartu zirenez beren adiskide eta lagunek beste ezaugarri batzuk zituztela (batzuetan, etxeko hizkuntza, bestetan, ezaugarri fisikoak, janaria, oporrak beste herrialde batzuetan, etab.), garai hori nahasiago eta aldaketa gehiagorekin gogoratzen dute, antzeko adineko beste talde batzuetan ohikoa izaten dena baino.

Sentimendu horrekin batera, askotan sortzen da, eta zenbaitetan indar handiz, diskriminazioaren eta gutxiespenaren oroitzapena, beren lagun gehienak ez bezalakoak zirelako jasan zutena. Elkarrizketatu batzuek samintasunez kontatzen dituzte beren haurtzaroko zenbait gertaera, eta horrek ohartarazten digu lan handia dugula etorkizuneko gizartea bidezkoagoa, solidarioagoa eta berdintasunezkoagoa izan dadin.

Baina haurtzaroan diskriminazioa edo gutxiespena bizi izana ez da adierazle hona elkarrizketatuen bizitza-ibilbidearen arrakasta handiagoa edo txikiagoa ondorioztatzeko; izan ere, elkarrizketatu guztiak ondo bideratuta daudela ematen du, nork bere etorkizunari begira, baina guztiak ilusioz beterik.

Kontatutako istorioen arabera, ibilbide guztiek lau oinarri dituzte, elementu komunak dituztenak: familia, pertsona, kidekoen taldea eta eskola.

- Bizitza-kontakizun guztietan, familiak funtsezko eginkizuna du, gehienetan laguntza gisa eta balio garrantzitsuak eta funtsezkoak erakusteko, hala nola erantzukizuna, sakrifizioa, ahalegina, familiako kideenganako kezka, familiako kide izatearen harrotasuna, konfiantza, oztopoak gainditzea, hobetzeko nahia, etab. Beste zenbaitetan, erronka, pizgarri edo eragingarri gisa. Baina beti dago hor, eta beti etorkizunari begira.
- Elkarrizketatuen beste bereizgarri komun bat haien izaera da. Pertsona horien izaerek antzeko ezaugarriak dituzte, haien diskurtso eta kontakizunetan honako hauek adierazten baitituzte: indarra, bizi-balioak, espirtu menderakaitza, baikortasuna, irmotasuna, adorea, oztopoak gainditzeko nahia, lana, hobetzeko gogoia, ausardia, erresilientzia, etab.
- Gainera, guztiak gai izan dira, zenbait egoeratan, kidekoen talde indartsu eta garrantzitsu batean parte hartzeko beren bizitzetan. Zenbaitetan, kidekoen talde hori, lagun-talde hori, Euskadin jaiotako euskal gazteek osatzen dute, batzuetan haien gurasoak (ama eta/edo aita) kanpoan jaiotakoak dira, beste batzuetan gazte atzerritarrak dira, edo jatorriz atzerritarrak, edo euskal jatorriko senideak edo atzerrikoak dituzte... baina kasu guztietan, elkarrizketatuek integratzea eta komunitate edo gazte-talde baten partaide sentitzea lortu dute, eta haiekin beren nahiak, ametsak, irrikak, nahigabeak, kezkak, pozak, itxaropenak eta abar partekatzen dituzte.
- Eskola, espero zen bezala, elkarrizketatuen kontakizunetako ardatza da. Familiatik kanpo, hezkuntzaren alorra funtsezkoa da haien biografietan, pertsonen indibidualtasuna eratzean, pertsonen arteko lehenengo sareak familia-ingurunetik kanpo sortzean eta bizi-proiektuaren itxaropenak bideratzean. Kontakizun guztietan azaltzen den elementu bat da hezkuntzaren eremuan aurkitu dutela erreferente eta laguntza bat beren bizitzetarako. Zenbaitetan, erreferente eta laguntza hori ikaskideek eman

dietenez, eskola-ingurunerako integrazioa naturala izan da, traumarik gabekoa; beste zenbaitetan, irakasle batek lagundu die zailtasunak gainditzen, esaterako ikaskideen gutxiespena edo diskriminazioa; eta beste batzuetan, bi horien arteko nahaste bat izan da, lagun-talde integratzaile bat eta ikasleen artean diskriminaziorik ez izateko ardura zuten irakasle batzuk.

Horien guztien ondorioz, elkarrizketatuen kontakizunetan *ibilbide arrakastatsuak* azaltzen dira —horrela izendatu ditugu—, euskaldun bete-beteak izateko zenbait modu eskaintzen dizkigutelako, eta, gainera, etorkizunerako ikuspegi eta itxaropen pozgarriak dituztelako, bai berentzat, baita beren familia, adiskide eta hezitzaileentzat ere. Hitz batez, euskal gizarte guztiarentzat.

Pertsona horien kontakizunetan deigarri gertatu zaizkigun bi ohar gehiago: prestakuntzari ematen dioten funtsezko balioa eta Euskadin duten errotze-sentimendua eta euskal komunitateko kide diren sentimendua.

Prestakuntzak leku asko hartzen du elkarrizketatuen kontakizunetan. Txikitatik oso garrantzitsua izan da, eta behin eta berriro ageri da kontakizunetako leku nabarmen batean. Elkarrizketatuek ahaleginak egin dituzte ikasketa-maila altua izateko, etorkizunean alor horretan arrakasta izateko, nahiz eta horren bermerik ez izan. Prestakuntza interesatzen zaie, ikasketa-maila altuak lortu nahi dituzte (nahi zutena lortu ez dutenean, elkarrizketetan tristuraz adierazten dute), beren burua hobetu nahi dute, eta prestakuntza etorkizunerako atea dela ulertzen dute, beren itxaropenak eta helburuak betetzeko bidea. Eta testuinguru horretan, euskararen ikaskuntzak ere leku garrantzitsua du. Beste ikerketa batzuetan entzun ditugun diskurtsoetan euskararen balioa zalantzan jartzen da zenbait pertsonaren oraingo eta etorkizuneko egoeretan, baina azterketa honetako elkarrizketatuek lehentasuna ematen diote beren bizitzetan, bi balio nagusi nabarmenduz: batetik, komunikazio-hizkuntza delako, eta bestetik, lan-munduan txertatzen eta integrazio pertsonala eta bizi-proiektuaren helburuak lortzen laguntzen duelako.

Euskal komunitateko kide izatearen, euskaldun izatearen, sentimenduari dagokionez, kontakizun hauetan argi eta garbi ikusten da ez dagoela euskaldun sentitzeko modu bakarra, asko baizik. Alde horretatik, elkarrizketatuek integratuta dauden eta euskaldunak diren ideia transmititzen digute, eta hainbat modutan adierazten dute hori, gainerako euskaldunek egiten dugun bezala. Elkarrizketatuek, hemengoak diren sentimendu bakarra izan, filiazio bikoitza izan edo hirukoitza izan, bereizgarri komun hauek dituzte: Euskadi beren iraganarekin, orainarekin eta etorkizunarekin lotzen dute.

Hortik abiatuta, zenbait gomendio ditugu administrazio eta erakunde publikoentzat, gure iritziz integrazio-prozesuak erraztu ditzaketenak eta

atzerritarren ondorengoak diren euskaldunei ibilbide egokiak lortzen lagundu diezaieketenak.

- Prestakuntzaren balioa sendotu behar da, etorkizuna eraikitzeko funtsezko elementua den aldetik. Gaur egun maila orokorrean egiten ari gara, baina ondo legoke atzerrian jaiotakoak eta/edo atzerritarren ondorengoak diren euskaldunen taldeetan azpimarratzea zer garrantzitsua den prestakuntza-maila eta euskara-maila altua eskuratzea, berebiziko eginkizuna izan baitezakete gizartean integratzeko eta mugitzeko prozesu bertikaletan. Garrantzitsua da ikastetxeek eta orientatzaileek ahaleginak egitea atzerrian jaiotakoak eta/edo atzerritarren ondorengoak diren pertsonak ohar daitezen prestakuntzak funtsezko eginkizuna izango duela haien bizitzetan eta haien ondorengoenetan, gizartean integratzeko eta mugitzeko prozesuetan funtsezko faktorea baita.
- Euskararen eginkizuna sendotu behar da, Euskadin komunikazio-elementua eta etorkizuneko lan-aukerak handitzeko elementua den aldetik. Garrantzi berezia du gure hizkuntza ikastea, pertsonen arteko harremanak errazteko eta atzerrian jaiotakoak eta/edo atzerritarren ondorengoak lan-munduan txertatzeko. Esan beharrik ez dago gaztelania jakitea ere ezinbestekoa dela arrazoi berberengatik. Beraz, ahalik eta erabaki gehien hartu behar dira atzerrian jaiotakoek eta/edo atzerritarren ondorengoek bertako hizkuntzak ikas eta erabil ditzaten.
- Hemengoa izatearen sentimendua garatzen utzi behar da: euskalduna izatearen definizioa, banakoaren ikuspegitik eratuta, taldearen ikuspegitik eratu beharrean. Kontakizun batzuetan, zenbait sektorek eta pertsonak ez dute onartzen pertsona horiek euskaldun sentitzea gure gizarteko beste talde batzuen maila berean, beste herrialde batean jaio direlako, atzerrian jaiotako eta/edo atzerritarren ondorengo gurasoak dituztelako, euskaraz (eta/edo gaztelaniaz) ondo hitz egiten ez dutelako, gure inguruko erlijio nagusia ez dutelako, bereizgarri desberdinak dituztelako, etab. Euskaldunak sentitzen utzi behar diegu, eta ez diegu galarazi (ukatu) behar sentimendu horren garapena. Zehazki, gizartea sentsibilizatzeko kanpaina bat proposatzen dugu, *euskaldun izaera* inklusibo batera irekia, eta pertsonatik abiatuta definitua.
- Hezkuntzaren alorreko profesionalek jabetu behar dute (agian jabetuta daude) eginkizun erabakigarria dutela ikasleak berdintasunean gara daitezen eta diskriminaziorik gabeko testuinguru batean haz daitezen. Atzerrian jaio eta/edo atzerritarren ondorengo diren euskal gazteak diskriminatzen eta gutxien dituztenean, funtsezkoa da hezitzaileak beren eginkizunaz kontziente izatea, ikasle guztien aukera-berdintasuna eta etorkizun inklusiboa bermatu behar baitituzte.

- Euskal gizartea sentsibilizatu behar da gure aniztasunari buruz, eta aniztasun horretan berdintasuna lantzeari buruz: desberdintasunak errespetatzea eta diskriminazioaren aurka borrokatzea. Adibidez, hedabideei zuzendutako ekintzak antolatu litezke, gazte hauen ibilbideen eta beren egunerokotasunaren zenbait atalen (ikasketak, komunikazio-hizkuntzak, lana, etab.) naturaltasuna azpimarratzeko xedearekin, bestelako gazteetatik desberdintzen dituzten ezaugarri propioak kontutan izanda. Agerikoa da euskal gizarteak bere aniztasunaren berri izan behar duela eta aniztasun hori onartu behar duela. Ez gara era berekoak, ez gara gizarte monolitiko bat, ez gara gizarte estatiko bat kulturaren aldetik. Ez gara inoiz halakoak izan, eta are gutxiago orain. Mugitzen, bilakatzen, hazten ari den gizarte dinamiko bat gara, eta horko kideak garela ohartu behar dugu, orain eta etorkizunean, etorkizun horretan eratuko baita gure iragana, eta iragan horretaz harro egon nahiko dugu, orain arte bezala. Etorkizun hori euskaldun guztion artean eraiki behar dugu, hemen bizi, maitatzen, eraikitzen, lan egiten eta horrela sentitzen garen guztion artean. Gure gizartearen etorkizunerako ezinbestekoa da arrakasta lortzea integrazioko eta gizarte-kohesioko prozesuetan, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko bizikidetzaz izateko.



ERANSKINA

HAURTZAROA

- Familia:
 - Noiz eta non jaio zinen.
 - Gurasoen deskribapena, anai-arreben deskribapena: lana, ikasketak.
 - Jaiotzaren zirkunstantziak: familiakoak eta kanpokoak.
 - Familiaren tradizioak, familiaren ohiturak, espazio fisikoa, jolasak, bihurrikeriak.
 - Garai horretako oroitzapen onak eta txarrak.
- Eskola:
 - Noiz hasi zinen eskolan.
 - Eskola-mota (pribatua, publikoa, erlijiosoa, etab.), zer adinarekin hasi zinen eskolan.
 - Zenbat eskola zeuden inguru hartan.
 - Zenbat ikaskide zenituen. Bazegoen desberdintasunik ikaskideen artean?
 - Gogoan al dituzu asko eragin zizuten irakasleak?
 - Desberdintasun kulturalak zure eskolan, ikaskide eta irakasleekiko harremanetan.
 - Jolasak eta zigorrak.
 - Eskolako pertsona garrantzitsuak.
 - Leku garrantzitsuak eskolan.
 - Garai horretako oroitzapen onak eta txarrak.
 - Irakasleen eta familiaren itxaropenak ikasketei buruz.

HAURTZAROA – NERABEZAROA

*Aro honetan, eskolaz/institutuaz hitz egiten jarraitzen da, lehenago adierazitako galderen bidez. Trantsizio-aroko galderak erantsiko dira:

- Aro batetik bestera igarotzean izandako aldaketak: aldaketa fisikoak, aldaketa afektiboak, elkarrizketatuko pertsonatik kanpoko aldaketak (etxez, hiriz, ikastetxez... aldatzea).
- Jolasak, gustuak, adiskideak, amodioak.
- Zenbat urterekin hasi zen bakarrik irteten.
- Helduekiko harremanak: gurasoak – familia, irakasleak, monitorea, etab.
- Gatazka pertsonalak.
- Zer egiten zuen asteburuetan.
- Gertaera bitxiak.
- Aro horretako une onak eta txarrak.

HELDUAROAREN HASIERA ETA GARAPENA

- Ikasketak: egindako ikasketak aukeratzeko motibazioa edo zaletasuna, harremanak ikasketetan, emaitzak.
- Lana: lan-harremanak, lehen lanpostuaren lekua, lanik garrantzitsuena, lanik hutsalena, arazoak eta arrakastak.
- Noiz hasi zen dirua irabazten.
- Eragina duten desberdintasun kulturalak.
- Harreman pertsonalak: bikotekidearekin (ezkontideak), seme-alabekin, familiarekin. Ohiturak.
- Gizartea: aldaketa politikoak, gizarte-aldaketak, aldaketak norberaren ingurunean.

BIZITZA ORO HAR

- Bizitza pertsonaleko gertaera garrantzitsuenak.
- Erljio-bizitza. Gaur egun eta iraganean.
- Politika interesatzen zaio, politikan parte hartzen du.
- Bere bizitzan izandako lorpen handiak eta txikiak.
- Arrakastak eta porrotak.
- Pertsona maiteak galtzea.
- Gaur egungo egoera.
- Identitate-arazoak, desberdintasunaren pertzepzioa (familia/gizartea).
- Gurasoen jatorriko tradizioen garrantzia.
- Autopertzepzioa, gurasoen herrikideak edo etorkinen seme-alabak (nagusi zirela iritsiak) aintzat hartuta.
- Bere bizitzaren berrikusketa, balioespena.

Afrikar jatorriko gurasoen alaba euskaldunak: oraina eta etorkizuna

16-25 urte

Saioa Bilbao Urkidi eta Maite Fouassier Zamalloa





AURKIBIDEA

Sarrera	677
1. Familia eta gizarte-sarea	683
2. Hezkuntza	689
3. Lan-arloa	695
4. Identitatea	699
5. Bizikidetzeta	705
6. Etorkizuneko itzaropenak	707
7. Gomendioak eta hobetzeko ekintzak	711
Eranskinak	717



SARRERA

“Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak” proiektuaren barruan, 16 eta 25 urte bitarteko gazteak aztergai dituen atalean, talde jakin batean sakondu nahi izan dugu: afrikarren ondorengo diren edo Afrikan jaio eta txikitari (gehienez ere 4 urterekin) emigratu zuten emakumeak.

Hainbat ikerlanetako datuek piztu dute gudan talde jakin horrenganako interesa, hala nola Emakunderentzat eginiko *“Atzerriko emakume etorkinak EAEn”* txostenek¹ eta Gasteizko Udalarentzat eginiko *“Migrazio-fenomenoari buruzko ikerketa-diagnostikoa 2014”* lanek². Bi lan horiek agerian jartzen dute zer zailtasun erantsiri egin behar izaten dieten aurre afrikar jatorriko emakumeek –bai magrebtarrek bai Saharaz hegoaldeko afrikarrek–, maila guztietan prekarizatu dagoen taldeetako bat baita. Hain zuzen ere, Emakunderen txostenak dioenez, “EAEn, emakume latinoamerikarrek osatzen dute eredu *gustukoena*”, eta emakume afrikarrek geldialdia, gizarteratzeko ezintasuna eta baztertutako guneetan kroniko bihurtzeko joera adierazten dituzten zantzu argiak dituzte. Faktore hauek aipatzen dira, beste batzuen artean, egoera horren zergatia azaltzeko: EAEko hizkuntza ofizialak ez jakitea, azalaren kolorea zenbait kasutan, eta erlijioarekin (bereziki musulmanarekin) lotutako alderdi batzuk.

Horregatik guztiagatik, aintzat hartuta azterlan honetan gaur-gaurkoz batere egoera onean ez dauden emakume horien alabak interesatzen zaizkigula, jakin nahi dugu zer diskurtso, bizipen, esperientzia, grina, arazo, beldur, amets,

¹ “Atzerriko emakume etorkinak EAEn”, hemen: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/informe-31_mujeres_inmigrantes.pdf

² “Migrazio-fenomenoari buruzko ikerketa-diagnostikoa 2014”, hemen: http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=es&aplicacion=wb021&tabla=contenido&uid=u_4702e148_15040834fe3__7f96

itxaropen, jarrera, identitatearen eraikuntza-prozesu... dituzten neska gazte horiek.

Horretarako, gizarte-ikerketako metodologia kualitatibo bat erabili dugu. Zehatz-mehatz, aukerako ikerketa bat (nahien arabera) prestatu dugu, Gipuzkoako eztabaida-talde baten eta Bizkaiko biren lagin batek osatua. Gure hasierako asmoa lurralde historiko bakoitzean ikerketa bat egitea zen, hiru lurraldeetan bizi diren pertsonen informazioa biltze aldera, nahiz eta ez egon bizi-baldintzak eta itxaropenak nabarmen desberdinak direla adierazten duen aldagai edo zirkunstantziarik. Baina, egia esan, ezin izan ditugu aurkitu beharrezko profilak Araban, batez ere Saharaz hegoaldeko afrikarren ondorengo diren neskei dagozkienak.


Magreben edo Saharaz hegoaldeko Afrikan jaio diren edo guraso bat edo biak hangoak dituzten emakumeek osatu dituzte taldeak, eta aukeratutako adin-tartea 16 eta 25 urte bitartekoa izan da (ikus Eranskina). Eztabaida-taldea talde-dinamikako teknika bat da, eta xede-publikoko 8 bat pertsonak (6 eta 10 bitartean) osatzen dute. Eztabaida-taldeak bilera informal moduko bat egiten du gela batean, eta ahaleginak egiten dira bilera egiteko baldintzak eguneroko bizitzan egoten direnen ahalik eta antzekoenak izan daitezen.

Teknika hori erabili ohi da kolektibo bateko pertsonak beren gisakoekin harremanak izatean ageri dituzten jarrera, portaera eta proiektzioen inguruko informazioa bildu nahi denean. Batez ere interesatzen zaiguna da gauzen zergatian sakontzea: ez bakarrik jakitea nor diren aktore sozialak —nor—, zer jarrera dituzten —zer—, nolako harremanak dituzten beste aktoreekin —nola—, eta zer egoeratan eragiten dioten elkarri —non—, baita jarrera horiek azaltzen saiatzea ere —zergatik—.

Eztabaida-taldeak gaien (edo galderen) gidoi bati jarraitzen dio; gai irekiak izaten dira, taldea osatzen dutenek haiei buruz gogoeta egin eta iritzia emateko jarriak. Informazio-bilketa hutsal batean geratu gabe, gidoiak lortu nahi da agertutako iritzien eta egindako adierazpenen azpian dautzan jarrera eta motibazioetan sakontzea. Beraz, eztabaida-taldeen garapenaren oinarrian teknika psikologiko, psikosozial eta soziologikoak daude.

Testu honetan, lehenik eta behin, eztabaida-taldeetako partaideen familia eta gizarte-sareak aztertzen dira, eta haiei eta harreman pertsonalei buruz zer iritzi dituzten ere jasotzen da. Hezkuntzari buruzko atalean, partaideek hezkuntzaren garrantziaz, ikaskideen arteko harremanez, euskararen erabileraz eta balioaz, eta irakasleen jarreraz zer uste duten biltzen da. Hirugarren atalean, lan-arloari buruzkoan, lan-merkatuan sartzeko zer oztopori aurre egin behar izaten dieten eta zer diskriminazio jasan behar izaten dituzten (hala nola erlijio-arrazoiengatik) azaltzen da. Laugarren atalean identitateekin lotutako orori heltzen zaio, eta talde baten edo batzuen kideko sentitzeak eta norbere burua haren partaidetzat

definitzeak dakartzan zalantzak eta zailtasuna aztertzen dira. Bizikidetzarekin, aurreiritziekin eta euskal gizartean dirauten estereotipo negatiboekin lotutako gaiak jorratzen dira gero, eta partaideak gizarte horren barruan nola sentitzen diren azaltzen da. Azken atalean ikusiko dugu zer bizi-itxaropen dituzten, zer itxaropen dituzten gurasoek haien etorkizunaz, eta nola heziko lituzketen seme-alabak haurrak izatea erabakiz gero. Amaitzeko, informazio hori guztia mahai gainean jarrita, ekintza eta gomendio batzuk iradokiko ditugu, bai eztabaidataldeetan parte hartu duten emakumeek bai ikerketa-taldeak proposatutakoak.



“...banderek eraikinak eta pertsonak estaltzen dituzte, eta leku bateko pentsaera eta izaera bakar bat ordezkatzeko dutela dirudi, lekurik utzi gabe tarteko bideei, behekoiei, goikoiei, arrazializatuiei, barruan dauden kanpokoei edo kanpoan bizi diren barrukoei”.

Lucía-Asué Mbomío Rubio



1

Familia eta gizarte-sarea

Hiru eztabaida-taldeetako partaideek sentitzen dute familia dela bizitzako gauzarik garrantzitsuena. Beharrezko babesa ematen dien instituzio nagusia da, haien oinarri eta euskarria. Ia denak familiarekin bizi dira oraindik: batzuk amarekin bakarrik eta gehienak bi guraso eta anai-arrebekin. Badakite gurasoek hoberena nahi dutela seme-alabentzat, eta haiek izandakoak baino aukera hobeak emateko (bereziki hezkuntza-arloan) egin zutela migratzeko ahalegina.

“Niretzat familia oinarrizkoa da, funtsezkoa. Familiaren laguntza daukat edozertarako. Babes oso-oso. Lagunen eta beste gauza guztien gainetik, familia dago”. (3ET)

“Nire helburuak lortzeko behar dudana sostengua dira. Familiaren laguntzarik gabe, ezin izango nituen ikasketak burutu”. (2ET)

“Aitak xede batzuk zituen, 19 urterekin iritsi zen hona eta lanean hasi zen. Eta kontrakoa nahi du guretzat, ikas dezagun nahi du...”. (2ET)

Haien familia-harremanak eta hemengo familienak alderatzean, desberdintasun handi batzuk antzeman dituzte. Uste dute hemengoek ez dutela berdin errespetatzen familia, adinekoei ez dietela behar besteko garrantzia ematen, eta, beraz, ez dituztela behar bezain ondo zaintzen. Erljioari esker ikasi dituzte haiek balio horiek, euskal familia batzuetan kolokan daudela uste dutenak. Dena den, beste partaide batzuek uste dute familia guztiak ez direla berdinak eta oso balorazio subjektiboak direla. Aita eta/edo amaren jatorrizko familiarekin harremana izaten jarraitzen dute, baina ez intentsitate berarekin.

“Familiaren araberakoa izaten da, baina badaude kasuak. Angolara joan naizenetan, ez ditut ikusi amonak egoitzatan”. (1ET)

“Uste dut guri, erlijioarekin eta horrelako gauzeekin hezi gaituztenez, familiaren eta adinekoak zaindu eta errespetatzearen balioa irakatsi digutela”. (1ET)

“Bai, alderatu ohi dut zer garrantzi ematen diogun guk eta ematen dioten espainiarrek familiari, eta iruditzen zait ezin direla konparatu. Nik ezin izango nituzke egin haiek egiten dituzten gauza batzuk. Izan ere, oso garrantzitsua da niretzat”. (1ET)

“Iruditzen zait oso lotura indartsuak direla. Hemen jaio naizen arren, amona han egonda eta familia gehiagorik ez izanda, urtero bisitan joateko beharra sentitzen dut”. (1ET)

Denek sentitzen dute familiak ematen duen babesa, baina, etxeko mutilekin alderatuta nola hezi dituzten aztertuz gero, partaide guztiek uste dute neskei baino ez dietela eman etxeko lanak egiteko ardura; hau da, etxeko ongizatea zaindu eta babestekoa. Kasu gehienetan ama zein aita dira afrikar jatorrikoak,

“Nire helburuak lortzeko behar dudana sostengua dira. Familiaren laguntzarik gabe, ezin izango nituen ikasketak burutu”.

eta partaideek ulertzen dute gurasoen jatorrizko kulturak pisu handia duela seme-alabak hezteko moduan. Etxean ikusi dute anaiak beste modu batera hezi dituztela, ez dituztela egin behar izaten “emakumeenak” iruditzen zaizkien lanak, eta amek genero-rol horiei eusten dietela. Alabaina, badakigu kultura guztietan daudela generoen arteko desberdintasunak eta rol-banaketak.

“Beti saiatu izan da heziketan nahasketa bat egiten, pixka bat hemendik eta beste pixka bat handik, baina beti jotzen du sustraietara, berak jaso zuen heziketara”. (1ET)

“Askotan esaten dut gizon jaio behar nuela. Hori da gakoa”. (3ET)

“Beti ikusi izan dut ama garbitzen eta aitaordea ezertxo ere egin gabe. Gauza horiek nabaritu egiten dira”. (1ET)

“Gure herrialdean, gizonak emakumeen gainetik daude. Anaiak 24 urte ditu, eta, garbiketa-kontuetan eta halakoetan, hanka egiten du. Ez da gizonen lana. Pixka bat matxista da, eta, gainera, ama ados dago berarekin. Emakumeen lanak omen dira. Amak ohitura horiek ditu oraindik”. (2ET)

“Amak, nahasketa bat egiten saiatzen bada ere, hango ohituretara jotzen du”. (1ET)

“Uste dut orokorra dela. Ematen du ahulagoak garela, eta, beraz, gehiago babestu behar gaituztela”. (2ET)

Historian zehar gertatu den bezalaxe, neska batzuek onartu egin dute bereizketa hori, gogo txarrez bada ere; beste batzuk egoera diskriminatzaile horien aurka daude, eta berdintasunezko tratua eskatzen dute. Denek diote gurasoak kezkatu egiten direla alabak gauez bakarrik irteten direnean, arriskutsua iruditzen baitzaie. Gizonak izango balira, ordea, ez lirateke horrenbeste kezkatuko.

“Ni hemen hezi naiz anaiarekin, eta, modu batera edo bestera, amak beti eman izan dizkit ardura gehiago niri anaiari baino. Saiatzen naiz amari azaltzen anaia ere gai dela, baina, azkenean, nik egin behar izaten dut dena. Kokoteraino nago”. (1ET)

“Gure kasuan, beti esan izan diogu hemen denok berdinak garela. Nolanahi ere, babestu egiten gintuzten kalera irteteen. Hori bai. Baina, etxeko lanei dagokienez, nik esaten nion ez nuela ezer egingo anaiak egiten ez bazuen. Beti izan da horrela. Anaiak egiten ez badu, niri ez ezer esan”. (2ET)

“Amarekin maiz eztabaidatzen dut horregatik. Esaten diot emakumea naizela horrelakoa naizelako, eta garbitzen edo plantxatzen jakiteak ez nauela emakumeago egingo”. (3ET)

Eztabaida-taldeetako neskek diote gurasoek garrantzi handia ematen dietela ikasketei, txikitatik bultzatzen dituztela ikasten jarraitzera, eta, zenbait kasutan, babesa ere agertzen dietela heziketa-bidea aukeratzeko orduan. Badakite gurasoak beldur direla alabek ez ote duten lan-aukerarik izango edo ez ote diren diskriminatuak sentituko. Zehatz-mehatz, aztertutako diskurtsoen arabera, batez ere amek azpimarratzen dute ikasketak burutzearen beharra, eta, era berean, haiek larritzen dira eta ohartarazten diete alabei lanpostu bat lortu behar dutela ekonomikoki independenteak izateko.

“Behin eta berriz esaten digu ikasteko”. (1ET)

“Amak dio beldur dela ez ote nauten tratatuko bera tratatu duten bezala”. (1ET)

“Amak txikitatik esan izan dit ikasteko eta joateko hemendik. Betidanik. Ikasi eta ez gelditu Espainian. Espainian ez dago etorkizunik eta ez zaituzte lanean hartu nahiko”. (1ET)

Gizarte-sareari dagokionez, eztabaida-talde guztietan hitz egin dute adiskideez eta Euskadin kuadrilla deritzen lagun-taldeen. Batzuek diote hainbat jatorritako lagunak dituztela, bertakoak ere bai, ikastolan edo eskolan ezagututakoak; hala eta guztiz ere, ia denek adierazi dute afrikarrak edo afrikarren ondorengo diren neskekin elkartzen direla gehienbat.

“Ni batzuekin eta besteekin ibili izan naiz”. (2ET)

“Lagun gehiago ere badituz, musulmanak baita ere, baina zu bezalakoak diren lagunekin, nolabait esatearren, gauza gehiagotan zatoz bat”. (3ET)

“Normalena izaten da, eta neure buruaz ari naiz, (...), gurasoak kanpotarrak izanik gure artean elkartzea. Arratsaldetan kuadrillan irteteko. Beste gauza bat da eskolan lagunak izatea. Nik unibertsitateko eta laneko lagun asko dituz, zerbait hartzera joateko. Baina ez dira kuadrillakoak, ez gara kuadrillan irteten”. (2ET)

“Behin eta berriz esaten digu ikasteko”.

Erlijio musulmana dela eta, elkarren artean identifikatuago sentitzen dira magrebtarren eta Saharaz hegoaldeko afrikarren ondorengo diren emakumeak. Azken finean, sentitzen dute elkar hobeto ulertzen dutela eta haien kultura —eta erlijio— ohiturak ez direla zalantzan jartzen.

“Azkenean, horrelako lagun bat.. Hau da, ni hemen jaio naiz eta hemengo jendearekin ere ibiltzen naiz, baina alderdi guztietan ulertzen zaituen adiskide batek asko laguntzen dizu”. (3ET)

“Uste dut erlijioak desberdin egiten gaituela. Gogoan dut txikitan inolako arazorik gabe egoten nintzela ikaskideekin. Baina, gero, adin batetik aurrera, parrandara irteten dira, alkohola edaten dute... Eta, orduan, gutxi gorabehera zure ohitura eta egiteko modu berak dituen jendearekin elkartzen hasten zara. Zure antzekoak diren pertsonekin”. (2ET)

“Izan ere, azken finean, pixka bat lekuz kanpo zaude. Gauza askotan kulturek talka egiten dute, baita ohiturek ere, eta ez zaituzte guztiz ulertzen”. (3ET)

Hala ere, eztabaida-taldeetako beste partaide batzuek diotenez, lagun euskaldun edo espainiar gehiago dituzte, askatasun-sentimendua, kidetasun handiagoa edo, sinpleki, ikaskideen artean sortutako harremanak direla eta. Aisialdiaren erabilerarekin lotutako desberdintasunei dagokienez, partaideek ez dute arazotzat hartzen aisia-jarduera batzuk ez partekatzea, ezta planak aldatu behar izatea ere, horiek ez baitira lagunekin harremana eteteko arrazoiak.

“Betidanik, nire txikitako lagunak espainiarrak edo euskaldunak izan dira”. (3ET)

“Garai hartan espainiarrekin harreman gehiago izaten hasi nintzen. Askatasun pixka bat gehiagoren bila. Nahi nuena egiteko eta gurasoen pentsaera alde batera uzteko. Azkenean ez ziruditen lagunak, gurasoak baizik: nire gainean egoten ziren, ez ateratzeko edo horrela ez janzteko esanez. Tortura hutsa zen”. (1ET)

“Batzuetan esaten zidaten ez zutela edango ni ateraz gero”. (2ET)

Bikote-harremani buruz hitz egitean, partaide batzuek bikotekidea dute eta beste batzuek ez, baina denek azaldu dute nola ulertzen duten bikote-harremana edo nolakoa izatea nahi luketen. Zenbaitek uste dute beren bikotekideek musulmanak izan behar dutela, lagun ez aritzean bezalaxe iruditzen zaielako hobeto ulertuko dutela elkar eta ez dietela aurre egin beharko lehenago edo beranduago agertuko diren kultura- eta erlijio-aldeei.

“Zure erlijioa praktikatzan baduzu, maite baduzu eta jarraitu egin nahi baduzu, musulman batekin ezkondu behar duzu, zure erlijio berekoa den norbaitekin”. (2ET)

“Uste dut gauza batzuk ez lituzketela ulertuko. Batez ere erlijio-kontuak”. (1ET)

“Azkenean, horrelako lagun bat... Hau da, ni hemen jaio naiz eta hemengo jendearekin ere ibiltzen naiz, baina alderdi guztietan ulertzen zaituen adiskide batek asko laguntzen dizu”.

“Ni ez nintzateke elkartuko musulmana ez den pertsona batekin, batez ere etorkizunean arazorik ez izateko. Egunen batean elkarrekin bizitzera joanez gero, niretzat ezinbestekoa da ezkontzea, eta, agian, berarentzat ez. Eta orduan sortzen da aurreneko arazoa”. (2ET)

“Musulmanok musulmanekin izan behar ditugu harremanak. Hasteko, ezin dugu bikotekiderik izan eta alde zurretik eskari bat egin behar da”. (3ET)

Bestalde, beste partaide batzuek ez dute afrikarra edo afrikarren ondorengo den bikotekiderik nahi, kultura “itxiagoa” eta matxistagoa izaten dutelako; hala ere, haiekin elkartzan dira azkenean, beren diskurtsoetako kontraesan batzuk agerian utziz.

“Adiskide askorengan ikusten dut hori. Azkenean, ez dakit zergatik, baina niri eta nire lagunoi ez zaizkigu mutil marokoarrak gustatzen. Hasieran oso europarrak direla iruditzen zaizu, baina zenbait aste edo hilabeteren ondoren, matxistak direla eta askatasunak mugatu nahi dizkizutela ikusten duzu. Hala ere, konturatu naiz, hori nahi ez dugun arren, ez ditugula beste nazionalitate batzuetako mutilak edo hemengoak bilatzen. Eta bilatzen baditugu, aste batzuetarako izaten da; istorio labur bat eta kito. Horretara jotzen jarraitzen dugu”. (1ET)

“Nik uste dut, esate baterako, ez dudala pentsatzen Afrikatik datorren eta nire adinekoa den pertsona batek bezala. Uste dut, alde horretatik, europarragoa naizela. Mutil afrikarrak gustatzen zaizkit, baina europarren pentsaera dutenak...”. (1ET)

Azkenik, familiek alaben bikote-harremanei buruz daukaten iritzia azaldu dute. Hiru eztabaida-taldeetako partaideek azaldu dute harremanak sendo samarra izan behar duela hurbileko familiari esateko, eta, gainera, mutilak erlijio berekoa izan behar duela. Alde horretatik, gurasoentzat garrantzitsua da alaben bikotekideen kultura eta erlijioa haienaren antzekoa izatea, eta uste dute harremana parametro horien arabera garatu behar dela. Horrekin ez da esan nahi partaide guztiak ados daudenik eta ez dituztenik bikote-harremanak beste modu batera ulertzen.

“Zure erlijioa praktikatzen baduzu, maite baduzu eta jarraitu egin nahi baduzu, musulman batekin ezkondu behar duzu, zure erlijio berekoa den norbaitekin”.

“Aitak ez luke ulertuko musulmana ez den norbaitekin ezkonduko banintz”. (1ET)

“Beltza izanik, lehengusina bati esaten badiozu mutil batekin zabiltzala, galdetuko dizun lehen gauza izango da zuria ala beltza den. Hori izaten da lehenengo galdera”. (3ET)

“Asko nabaritzen da presioa. Nik bizi izan dut eta asko nabaritzen da. Esaten dizute mutil-laguna duzunez segituan ezkondu behar duzula”. (1ET)

Bestalde, partaide batzuen arabera, familiak Euskadin bizitzen daraman denborak eta norberak duen bikotekidearen kontzeptuak eragina dute harreman pertsonalak izateko moduan, eta, beraz, harreman horiek ez lirateke berdinak izango gurasoen jaioterrian biziko balira.

“Denborarekin, batez ere hemen finkatuta dauden eta denbora gehien daramaten familien pentsaera pixkanaka irekitzen joan da. Ez da hain... Badakit han jaio izan banintz oso bestelako egoera batean egongo nintzatekeela”. (3ET)

“Harremanak izan nahi baditut, nire eske etorri aurretik, pixka bat ezkutuka ibili behar izaten dut. Gurasoen buruan ez da halakorik sartzen”. (3ET)

2

Hezkuntza

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten neska guztiek garrantzi handia ematen diote hezkuntzari. Uste dute funtsezkoa dela bizitzan eta izugarri laguntzen duela zenbait helburu lortzen. Ondo iruditzen zaie erakundeek hezkuntzaren aldeko apustua egitea; izan ere, uste dute immigrazioari lotutako estereotipo negatiboak ez betikotzen laguntzen duela eta ikasgeletan aniztasuna ez lantzea oso kaltegarria dela herritar berriak balioetan hezteko. Dena den, emakumeen esanetan, oraindik lan asko dago egiteko, beren begiz ikusi baitute oro har aniztasuna ez dela onartzen.

“Niretzat, hezkuntza oinarrizkoa da. Mugak izanda ere, jaso eta lortzen duzun hezkuntzarekin, zure merituekin, oztopo horiek gainditu ditzakezu. Eta etxean familia analfabetoa bada, ez badaki irakurtzen eta idazten, hezkuntzari esker horretatik atera zaitezke. Bestela, ez”. (2ET)

“Hezkuntza funtsezkoa dela uste dut. Bestela, haur horiek guztiak baldintzatuta daude jada”. (2ET)

“Ulertzen ez dudana da zergatik gizarteak ez duen onartu aniztasuna oraindik. Uste dut gai hori ez dela ondo lantzen ez eskoletan ez inon”. (1ET)

“Hezkuntzari esker, ez zara ezjakina eta ez dizkiozu mugak jartzen zeure buruari. Niretzat, hezkuntzarik gabe, pertsona arrazistak eta matxistak sortzen dira. Heziketarik ez dutelako”. (2ET)

“Ondo moldatzen naiz ikasketetan, eta eskerrak hemen jaio naizela; bestela, agian, ez nintzateke eskolara joango”. (1ET)

Gogoan dute zer-nolako harremanak zituzten eskolan gazteagoak zirenean: batzuek diote baztertuta sentitu zirela, eta, beraz, beste lagun-talde batzuk sortu zituztela antzeko jatorriko beste neska batzuekin; beste batzuek diote, atzerritar jatorriko ikasle bakarrak zirenez, harremanetan ez zuela eraginik izan norekin egoten ziren gehiago.

“Txikitan, ikastola batean ikasi nuen. Eta, ikastolan, ez nuen oso ondo pasatu. Betikoa: beltza hau eta beltza bestea. Orduan, nahi eta nahi ez, neska beltzekin egoten nintzenez, ni bezalakoak zirela sentitzen nuen. Eta nire zirkulua ixten joan nintzen, ni bezalaxe beltzak zirenekin, hobeto ulertzen nindutela sentitzen bainuen”. (1ET)

“Ikastolara joaten nintzenez, ni nintzen arabiar bakarra (...) Baina arabiar bakarra nintzenez, ez nintzen hain itxia sentitzen; hau da, ez nituen lagun arabiarrek edo atzerritarrek bakarrik izan nahi”. (1ET)

“Niretzat, hezkuntza oinarritzakoa da. Mugak izanda ere, jaso eta lortzen duzun hezkuntzarekin, zure merituekin, oztopo horiek gainditu ditzakezu. Eta etxean familia analfabetoa bada, ez badaki irakurtzen eta idazten, hezkuntzari esker horretatik atera zaitezke. Bestela, ez”.

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten neskek ikasketamaila desberdina dute, baina denek ikasi dute zerbait: gehienak unibertsitate-ikasketak egiten ari dira edo amaitu dituzte (hala nola irakasle-ikasketak, gizartelana eta kazetaritza); beste bost neskek lanbide-heziketa ikasi dute; haietako bi Batxilergoa amaitzen ari dira; eta beste bik eskola-graduata eskuratu dute. Ikastetxemotari dagokionez, partaideek ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan ikasi dute, bateko zein besteko kopuruen artean alde nabarmenik egon gabe. Itunpekoen artean, batzuek erlijio-ikastetxeetan ikasi dute (katolikoak), eta beste batzuek ikastoletan³.

Hizkuntza-ereduari⁴ dagokionez, Gipuzkoako taldeko partaide guztiek, batek izan ezik, D ereduari ikasi dute. Bizkaiko bi taldeen kasuan, erdiek D ereduari ikasi dute, eta gainerakoek A eta B ereduari. Zer hizkuntzatan komunikatzen diren lagunekin, lanean, ikasgelan... halakoa izaten da euskararen erabilera. Euskaraz dakitenak haserretu egiten dira euskaldunak harritu egiten direnean euskara menderatzen dutelako eta hizkuntza horretan komunikatu daitezkeelako.

“Nik ere hitz egiteko, eta lagunekin nagoenean, euskaraz egiten dut... Orain, ordea, unibertsitateko ikasketak gaztelaniaz egiten ari naiz”. (2ET)

“Euskaraz hizketan entzuten banaute, harrituta geratzen dira”. (1ET)

“Inoiz ez didate galderarik egin gaztelaniaz hitz egiteagatik; bai, ordea, euskaraz aritzeagatik. ‘Zuk ondo dakizu euskaraz, nongoa zara ba?’”. (G2)

“Norabait joaten zarenean eta euskaraz hizketan hasten zarenean, jendea harritu egiten da eta esaten dute ‘hara, euskaraz daki eta. Zer ondo’. Eta poztu egiten dira euskaraz dakidalako”. (1ET)

³ Itunpeko ikastetxeak; eskola guztiak euskaraz lantzen dira eta gaztelania ikasgai bat da.

⁴ Argitze aldera, euskal hezkuntza-sarean hiru hizkuntza-eredu daude:

- D ereduari: Ikasgai guztiak euskaraz lantzen dira eta gaztelania ikasgai bat da.
- B ereduari: Ikasgai batzuk euskaraz lantzen dira eta beste batzuk gaztelaniaz (normalean, Matematika eta irakurtzen eta idazten).
- A ereduari: Ikasgai guztiak gaztelaniaz lantzen dira eta euskara ikasgai bat da.

Ildo horretatik, euskararen paperari eta garrantziari buruz galdetzean, partaideek ikuspegi desberdinak dituzte, batez ere euskaraz egiten dutenek eta egiten ez dutenek. Batzuentzat euskal kulturaren funtsezko elementua da, eta garrantzitsua iruditzen zaie euskara menderatzea eta babestea; euskara ikasi ez dutenen edo normalean euskaraz komunikatzen ez direnen kasuan, berriz, etorkizunean Euskadin lan egiteko oztopotzat hartzen dute. Identitateari buruzko atalean ikusiko dugun moduan, hizkuntzarekiko atxikipenean ere eragina du zerekin identifikatzen den partaide bakoitza, nola eta nongoa sentitzen den.

“Uste dut euskara funtsezkoa dela Euskadin. Hizkuntza hitz egiten jakitea. Gaur egun edozein lanetan eskatzen dute”.

“Euskara hemengo gauza bat da, gure kultura da. Kataluniara joaten bazara, katalana duzu”. (1ET)

“Oso zaila iruditzen zait. Eta, azkenean, horrenbeste oztopo jartzen badizkigute... Izan ere, ikasten ari gara. Lan egin nahi dugu; nik gizarte-langile izan nahi dut. Horixe ari naiz ikasten, eta euskara denetarako oztopo bat baino ez da. Sarrera-probetarako ez horrenbeste, baina lanerako bai. Uste dut azkenean hemendik joan egin beharko dudala ikasten ari naizen arloan lan egin nahi badut”. (1ET)

“Baina euskara betidaniko gauza bat da. Marokora joan eta arabieraz ez irakasteko esatea bezala da”. (1ET)

“Uste dut hautazkoa izan beharko lukeela. Ez lituzkete mila puntu eman beharko euskara jakiteagatik, eta lanetik bota ez jakiteagatik. Ezagutza sendotu beharko litzateke; horretarako ikasi dugu karrera bat edo dena delakoa, eta ez hizkuntza”. (1ET)

Hala ere, euskararen erabileraren eta ezagutzaren alde egon ala ez, partaideek badakite lan-merkatuan sartzeko lagunduko dien tresna bat dela, eta, nolabait, Euskadin bizitza erraztuko diela. Nolanahi ere, partaide batzuk ez daude ados, eta uste dute ez luketela nahitaz ikasi behar, ez baita beharrezkoa ez bizitzeko ez lan egiteko.

“Uste dut euskara funtsezkoa dela Euskadin. Hizkuntza hitz egiten jakitea. Gaur egun edozein lanetan eskatzen dute”. (2ET)

“Bai, errazten du. Batez ere lana bilatzeko garaian”. (2ET)

“Orduan, ondo baino hobeto jakinda zer egingo dudan hemendik bi urtera, euskara ikastera behartzen naute, jakinda ez didala ezertarako balio izango; ez zait ondo iruditzen”. (3ET)

Bestalde, hiru eztabaida-taldeetako zenbait partaide kexu eta haserre agertu dira irakasle batzuen jarrerarekin. Sentimendu hori hainbat norabidetan doa. Alde batetik, batzuek sentitzen dute askotan modu “toxiko” batean “erabili” dituztela euskaraz dakiten azal-kolore desberdineko emakume izateagatik. Hori dela eta, jendaurrean agertu behar izan dute eskolako jarduera batzuetan, eta zalantzan jartzen dute zenbateraino hartu izan den kontuan norberaren parte hartzeko borondatea.

“Hemendik gutxira konferentzia bat egin behar dut euskaraz, eta esan didate ni aukeratu nautela beltza naizelako eta euskaraz dakidalako, eta horrek zur eta lur utziko duela jendea”. (1ET)

“Horixe bera egin zuten nirekin Korrikan. Emakume heldu bat, haren alaba, ama eta neskato bat aukeratzen dira lekukoa hartzeko. Ni aukeratu ninduten, arabiarra naizelako. Lehendik esana nuelako ni nintzela ikastetxeko arabiar bakarra. Sentitu nuen parte hartu behar nuela euskaraz nekielako”. (1ET)

Haserrea sentitzen dute, halaber, irakasle batzuekin, kultura –eta erlijio– aniztasunaren eta batez ere islamaren inguruko ezagutza eta prestakuntzarik ez dutelako. Alde batetik, ez dute gogoko oraindik atzerritartzat hartuak izatea fenotipo desberdina dutelako edo hijaba janzten dutelako. Sentimendu hori, identitateari buruzko atalean ikusiko dugun moduan, ez dago beti gurasoen jatorriarekin lotuta, eta, baldin badago, ez du esan nahi ezin dutenik bizi diren eta pertsona gisa hazi diren lekuko parte sentitu.

“Zure izena ikusten badute ere, nongoa zaren galdetzen dizute. Badirudi beti azpimarratu behar dutela mundu guztiak jakin dezan ez zarela hemengoa. Gogorarazi egin beharko balute bezala abizen hori ez dela hemengoa”. (1ET)

“Irakasle batzuk ezjakinak dira, txorakeria galantak esaten dituzte azaltzean... Behin baino gehiagotan irakasleei eten eta zuzendu egin behar izan diet; ez badakizu, ez hitz egin”. (3ET)

“Beti galdetzen dizu irakasleren batek noiz etorri zaren. Edo nongoa sentitzen zaren. Bai, egin dizkidate galdera horiek. Batxilergoko 2. mailan nengoenean, Filosofiako irakaslea etorri zitzaidan euskaraz ba ote nekien galdetzera, D ereduakoa nintzela jakinda. Eta galdetu zidan ea ba ote neukan zailtasunik. Ulertzen dut agian arraroa iruditzen zaiela norbait zapiarekin ikustea, baina XXI. mendean gaude eta horrek...”. (2ET)

“Behin, Ekonomiako eskola batean, duela denbora asko, irakaslea hasi zen esaten txikitan etorri nintzela hona eta ez dakit zer. Eten egin nion eta galdetu nion zerk pentsarazten zion txikitan etorri nintzela. Eta erantzun zidan beltza nintzelako. Eta beltza naizelako txikitan etorri behar izan dut? Hemen jaio naiz, Basurtun, eta agian zu baino euskaldunagoa naiz”. (1ET)

“... edo zuzenean ondorioztatzen dute ez zarela hemengoa eta galdetzen dizute Afrikako zer lekutakoa zaren. Zuzenean Afrikarekin lotzen zaituzte. Baina beltza eta latinoak izan naiteke. Edo Estatu Batuetan jaioa. Ez dakite non jaio naizen”. (1ET)

Partaideen arabera, irakasle batzuek estereotipo negatiboak dituzte atzerritar jatorriko biztanleekiko; beraz, immigrazioarekin lotzen dituztenean, zuzenean erlazionatzen dituzte haiek egokitzen jotzen ez duten iruditeria batekin. Uste dute kalte egiten diela besteek pentsatzeak etxean arazo ekonomikoak dituztela, gauza jakintzat emateak atzerriko kultura-ohitura batzuk dituztela, edo ez dutela gaitasunik goi-mailako ikasketak egiteko. Horrek guztiak berekin dakar pentsatzea etorkizunean ez direla urrutira iritsiko.

“Irakasle batek ezin du aurreiritzirik izan... Izan ditzake, baina ezin ditu erakutsi”. (2ET)

“Agian, lekuren batera joaten bagara eta dirua behar baldin badugu, irakaslea hurbiltzen zaizu esatera arazoak baldin badituzu moldatuko garela nolabait”. (1ET)

“Eta esan zidan ez ninduela mindu nahi, baina gu ez garela oso urrutira iristen eta LHI batera joan nintekeela, ile-apainketa, iturgintza eta beste gauza asko egoten direla (...) baina oso gogoan dut esan zidana”. (1ET)

“Aurten irakaslearekin egin dut topo, eta galdetu zidan zer moduz nengoen eta ezkondu ote nintzen. Gauza jakintzat eman zuen ezkondu nengoela”. (1ET)

“Zure izena ikusten badute ere, nongoa zaren galdetzen dizute. Badirudi beti azpimarratu behar dutela mundu guztiak jakin dezan ez zarela hemengoa. Gogorarazi egin beharko balute bezala abizen hori ez dela hemengoa”.

Sentitzen dute, zergatik ez esan, diskriminatu egiten dituztela entzun behar izaten dituzten komentario batzuekin. Bizi osoan diskriminaziorik jasan ez duten neskek diote itxuraz zuriak direlako eta ezaugarri nabarmenak ez dituztelako libratu direla. Bi kasuetan, bikote mistoen alabak dira (aita magrebtarra eta ama euskalduna).

“Batzuetan esaten dizute zertarako ikasten duzun lanik aurkituko ez baduzu”. (2ET)

“Irakasleak esan zidan ziur ote nekien medikuntza ikasi nahi nuela, beltza naizela eta hemen arrazakeria asko dagoela. Nik erantzun nion oso ziur nekiela medikuntza ikasi nahi nuela”. (1ET)

“Itxuraz hemengoa ematen dut eta harrিতuta geratzen dira. Eta azaldu behar izaten diet aita aljeriarra dela”. (1ET)

Kasu bakanen batean partaideek komentatu dute irakasleek ez dutela esku hartu diskriminazio-egoerak edo beste ikasle batzuen irainak jaso dituztenean.

“Esaten zidaten ez zela ezer gertatzen eta jaramonik ez egiteko. Nola ez diezu jaramonik egingo ‘beltz zikina’ deitu eta nire herrialdera joateko esaten bazidaten? (1ET)

“Egiaz, ikusten ari dira. Mahaian daude, ikasle guztiak aurrean dituztela, eta badakite iskanbila dagoela. Eta ezer gertatuko ez balitz bezala egiten dute”. (1ET)

3

Lan-arloa

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten neskek gazteak direnez, gehienek ez dute lan-esperientziarik oraindik. Hala ere, haietako batzuk noizbait egin dute lan, beste batzuk saltzaileak edo supermerkatuko kutxazainak dira, eta haietako bi ikasi zuten arloan ari dira lanean.

Dena den, jarraian ikusi ahal izango dugunez, zailtasunak dituzte lana aurkitzeko, haien fenotipoarekin eta kultura- eta erlijio-gaiekin lotutako hainbat arrazoi direla eta. Partaideek diote beren izen-abizenek gaitzespena eragiten dutela eta, horren ondorioz, lan-elkarrizketak lortzera ere ez direla iristen. Bestalde, eztabaida-taldeetan gehien aipatu den gaitetako bat da curriculum vitaean norberaren argazkia jartzea komeni den ala ez, itxuragatik bereziak ez sentitzeko prebentzio-neurri gisa; izan ere, onarpena zein gaitzespena eragin ditzake. Partaideren batek, familiakoek hala gomendatuta, euskaraz dakiela edo ikastolan ikasi duela adierazi du curriculumean, lana lortzeko diskriminazio-oztopoak gainditu nahian.

“Telefonoz interesa agertzen dute zugar, eta esaten dizute elkarrizketa bat egitera joateko. Eta elkarrizketara joaten zarenean esaten dizute beste ideia bat zeukatela, beste profil bat nahi zutela. Telefonoz esandakoaren ondoren itxaropenak egiten dituzu, eta, gero, bat-batean, ateak ixten dizkizute. Ezustean, kontrakoarekin egiten duzu topo”. (2ET)

“Niretzat, deia jasotzea da zailena. Izenagatik. Hori da zailena. Behin lanean hasitakoan... Baina kosta egiten zaie deitzea. Uste dut izenagatik dela. Izen-abizenengatik”. (1ET)

“Ikaskideek esaten zidaten argazkirik gabe bidaltzeko curriculum, ea zer gertatzen zen. Baina ez dit gogoak ematen, ez dut nahi”. (2ET)

“Interneteko orrialde-mordoan eman dut izena, eta uste dut profila betetzen dudala, baina dena delakoagatik, ez didate deitzen. Batzuetan pentsatu izan dut curriculumetik argazkia kentzea eta beste izen bat jartzea, nik zer dakit! Etsigarria da”. (1ET)

“Izekok gomendatu zidan ikastolan ikasi dudala jartzeko. Esan zidan oso gaizki iruditzen zitzaioala norbait lanean ez hartzea atzerritarra delako, baina jartzeko ikastolan ikasi dudala, hemen hazi naizela jakin dezaten”. (1ET)

“Niretzat, deia jasotzea da zailena. Izenagatik. Hori da zailena. Behin lanean hasitakoan... Baina kosta egiten zaie deitzea. Uste dut izenagatik dela. Izen-abizenengatik”.

Lan-merkatura sartzeko diskriminazio gehienak, izen-abizen atzerritarrak izatearekin ez ezik, hijabaren erabilerarekin daude lotuta. Alde horretatik, partaide gehienek (neska musulmanetako batek kenduta) adierazi dute hijaba jantzi nahi dutela, baina haietako askok ez janztea erabakitzen dutela, lana aurkitzeko zailtasun bat izango ote den beldurrez. Era berean, partaide askoren amek ere beloa ez janzteko erabakia hartu dute, lana aurkitu ahal izateko eta hura ez galtzeko.

“Askotan pentsatu izan dut janztea. Jantzi egin nahiko nuke, baina jartzen baduzu lana aurkitzeko zailtasun handiak izango dituzu. Baldin eta lagun baten dendan edo horrelako lekuren batean ez bada. Oso zaila da, eta hemen are gehiago”. (3ET)

“Gure amak zenbait urtez jantzi zuen. Haizeak eman zion eta horrelaxe egon zen hiru urtez. Baina, azkenean, kendu egin behar izan zuen, lanagatik. Eta nabaritzen zuelako jantzita zeramanean jendeak arraro begiratzen ziola eta supermerkatuan atzetik joaten zitzaizkiola”. (3ET)

“Nik jarri egin nahi dut, baina oso mugatuta sentitzen naiz. Lanean eta denean”. (1ET)

“Hortz-klinika batean egiten dut lan. Higienista naiz. Eta beloa kendu egin behar izaten dut”. (2ET)

Hala ere, neska batzuek tinko eutsi diote eta ez dute hijaba kentzen, ezta oztopo horiek izanda ere. Defendatzen dute janzteko eskubidea dutela, eta hari uko egin gabe lortu nahi dute lanpostu bat. Dena den, enplegatzaileak ez omen daude beloa janztearen esanahiaren alde, ez omen dute ulertzen eta ez omen dakite zer esan nahi duen, nahiz eta ez duen zerikusirik lanerako gaitasun eta abileziekin.

“(Beloak kenduko luke) seme-alabak banitu nire kargura eta gosez hilko balira. Gosez hilko balira, bai, kenduko nuke”. (2ET)

“Denon helburua ikastea da, baina, udan, lan egiten saiatzen zara asteburuetarako edo dena delakorako sosak ateratzeko. Orain dela gutxi ireki zuten [denda bat], eta curriculumak jasotzen ari ziren. Lagun batek eta biok bidali egin genuen. Profil bera daukagu, eta nik berak baino hizkuntza eta ikasketa gehiago ditut. Berari deitu zioten eta lanerako hartu dute. Beti jartzen dut argazkia. Argazkia jartzen dut gogoak ematen didalako. Berak ez du zapia jantzten”. (2ET)

“Niri, pertsona gisa, musulmana izateak ez nau ezertarako mugatzen. Korrika egitera joaten naiz, beloarekin. Ez naiz lotsatzen, ez naiz arraro sentitzen ez ezer. (...) Gertatzen dena da lan-arloan sartzeko zarenearan kanpokoak jartzen dizkizun oztopo guztiak ikusten dituzula. Baina badakit nor naizen eta badakit zer egiteko gai naizen”. (2ET)

“Zer egin behar dut zapia jantzten ez badut lanean har nazaten? Zapiak ez nau tuntunagoa edo ergelagoa egiten”. (2ET)

Neska beltzen kasuan, itxura fisikoak eragiten du eztabaida gehien elkarrizketatzen edo lana ematen dietenen artean; oso modu gogor eta itsusian azaleratzen dira estereotipo negatiboak, bai lana bilatzean bai lanean hasi ondoren. Jendaurreko lanak kezka eragiten die, eta zenbait “gomendio” ematen omen dizkiete langileei, haientzat zuzena denari eta ez denari buruz. Bestalde, kontratua lortu ostean, bezero batzuek gaitzetsi egiten dituzte emakumeok, azalaren koloreagatik.

“Bai, modu jakin batean eraman behar izaten nuen. Ezin nituen txirikordak egin, ezin nituen ile-luzapenak jarri, ezta mototsa egin ere. Merke askoak dira ba ile-luzapenak...”. (3ET)

“... Jendaurrean lan egitean, hala nola ostalaritzan, zure lankideak zerbitza ditzaten nahi dutela esaten dizute. Edo mahaira joan eta esaten dizute ez dutela nahi ezer. Adibidez, ebolaren kontua bolo-bolo zebilenean, mundu guztia asaldatuta baitzegoen. Ikusten zintuztenean pentsatzen zuten ebola kutsatuko zenuela, zerbait izan behar zenuela. Adineko emakumeak zeuden terrazako mahai batean, eta galdetu nienean zerbait nahi al zuten, ezetz, eskerrik asko, erantzun zidaten. Beldurrez bezala”. (2ET)

“Gozo-denda batetik deitu zidaten, eta esan zidaten han lan egin nahi baldin banuen afroa kendu behar nuela. [Denda batean] esan zidaten profila betetzen nuela, baina afroa neukala”. (1ET)

Lana bilatzean eta behin lortutakoan izandako ezezko eta gaitzespen horiek guztiek zama handia dute elkarrizketatu ditugun emakumeengan. Beldur dira azkenean ez ote duten prestakuntza baxuko lanpostuetan edo inork nahi ez dituenetan lan egin beharko, ez ote dituzten kontratatzen azken aukera direlako eta ez benetan lanpostu bat betetzeko aukera onena direlako.

“Lanaren kontuak asko erretzen nau, eta amorrua ematen dit zuzenean mugatzen naudelako eta ergela naizela sentiarazten didalako”. (2ET)

“Asko pentsatzen dut lanaren gaian. Garbitzaile edo, asko jota, saltzaile izatera iritsi nahi baldin badugu, horretarako ere oztopo-mordoa jartzen dizkigute. Ikasten ari naiz, eta neure buruari galdetzen diot egunen batean ikasten ari naizen arloan lanean amaituko ote dudan. Kontua ez da gazteak garela eta Espainian ez dagoela lanik. Gure jatorriak ere asko baldintzatzen gaitu”. (1ET)

“Une bat iristen da ez dakidala ez ote didaten lana ematen behar handia dutelako, ez ote nauten hartzeagatik hartzen. Azkenean, soberakinak bagina bezala”. (2ET)

Identitatearen eta lanpostu baten artean aukeratzera behartzen dituzten egoera horiez aritzean, partaide guztiek aipatu dituzte immigrazioak ibilbide luzeagoa duen Europako hainbat herrialdeetako hirien errealitateak, hala nola Londreskoa edo Herbeheretakoak; han ohikoa da hijaba daramaten pertsonak edo pertsona beltzek jendaurrean lan egitea. Alde horretatik, bai partaideek bai beren gurasoek lana lortzeko izaten dituzten zailtasunak ikusita, haietako askok pentsatu dute beste herrialde batera joatea, nahiz eta hori ez izan benetan nahi dutena. Gainera, Euskadin lan egiteko, nahitaezkoa iruditzen zaie kapital soziala; hau da, lan-munduan sartzen lagunduko dien ezagunen bat izatea.

“Holandan eta Belgikan izan naiz. Bera bezalaxe, zur eta lur geratu nintzen. Hura zer zen galdetzen nion neure buruari. Mundu guztia beloarekin lanean, normal-normal. Pentsatzen nuen noiz iritsiko ote den hori Espainiara edo Euskadira”. (2ET)

“Bartzelonan izan nintzen orain dela gutxi, gurasoekin, eta asko ikusi nituen. Emakume bat metroan lanean, garbitzen, eta hijaba zeraman. Bartzelonan bat baino gehiago ikusi ditut eta harritu egin nau”. (3ET)

“Lehengusinak esaten zidan Londresera joateko lanera udan, oso zapuztuta ikusten ninduela eta. Baina amorrua ematen dit, nik hemen bizi nahi baitut. Eta amorrua ematen dit, ez didatelako uzten”. (2ET)

“Uste dut oso garrantzitsua dela jendea ezagutzea. Ez baduzu inor ezagutzen sektore horretan, ez daukazu zereginik”. (1ET)

4

Identitatea

Identitatearen gaia konplexua da, eta, hortaz, eztabaida-talde guztietan jorratu ditugun hainbat atal eta arlotan aipatu da. Izan ere, kultura-eta erlijio-elementuak oso indartsuak dira, eta eguneroko gainerako gai guztiekin harremana dute. Partaideek zer lekuren parte sentitzen diren azaldu dute; halaber, erlijioa aipatu dute beren izaera osatzen duen elementu gisa, eta harekin identifikatuta sentitzen dira hein handiago ala txikiagoan.

Nongo parte sentitzen diren galdetzean, hainbat erantzun jaso ditugu espazio jakin batekiko identifikazioari dagokionez, dela Euskadirekiko, dela aitaren edo amaren sorterriarekiko, dela bata zein bestearekiko. Denei galdetu diete noizbait nongoak sentitzen diren, eta erantzunak askotarikoak dira. Zenbait partaidek argi dute, nolabait, nongo parte sentitzen diren eta nola definitzen diren lurralde horrekiko. Neska gutxi batzuek identitate partekatuaren ideia ere aipatu dute, hainbat lekutakoak sentitzen direla, alegia: gurasoak beste leku batean jaio eta garatu ziren, eta haiek ere haren parte sentitzen dira, baina Euskadirekiko sentitzen duten identifikazioa alde batera utzi gabe.

“Hemen jaio naiz, baina galdera horiei beti erantzuten diet gogo onez. Errespetuz galdetuz gero, pozik erantzuten diet”. (3ET)

“Hemengoa sentitzen naiz, eibartarra eta euskalduna. Baina gero beti esaten dut (...) bi dauzkadala. Gurasoena, azken finean hori baita ikusi dudana, eta hemengoa, kalekoa”. (2ET)

“Baina azkenean sentimendu-kontua da. Ni batez ere marokoa sentitzen naiz, horixe irakatsi baitidate... Tira, ez didate irakatsi behar izan. Pertsonala izan da. Nire erabakia izan da”. (1ET)

“Ez dut ezkututzen, diodana da gurasoak Marokokoak direla, Tangerrekoak. Eta han daukagunaz ari naiz. Horri buruz hitz egiten diet, baina hemengoa sentitzen naiz hemengoa naizelako”. (2ET)

“Ni euskalduna naiz, musulmana eta marokoa jatorrikoa. Gauzak oso argi ditut”. (2ET)

Alabaina, gehienek zalantzak dituzte eta ez dute lurralde jakin batekiko pertenezia sentitzen. Euskal gizarteak ez ditu euskalduntzat hartzen azalaren koloreagatik, fenotipoagatik edo gehiengoaren sinesmenekoak ez diren erlijio-sinboloak dituztelako, eta horrek sentiarazten die gaitzetsi egiten dituztela, ez dituztela onartzen, eta, beraz, atzeritartzat hartzen dute beren burua. Aitaren edo amaren sorterrikoak sentitzen ote diren planteatzean, nahiz eta badakiten hangoak ez direla, han ere ez omen dituzte afrikartzat hartzen. Bizi duten identitate-krisi hori kolokan egotea bezala da, benetako identitatea argi izan gabe, “produktu berri”⁵ gisa kalifikatzera iristeraino.

“Ez dakit, afrikarra. Afrikarra sentitzen zara? Hemengoa ez”. (3ET)

“Hemengo jendeak sekula ez zaituelako ikusten hemengoa bazina bezala”. (1ET)

“Beti esaten nuen itsasokoa naizela. Ceuta eta Algeciras artekoa, hangoa. Izurdeekin. Leku guztietan esaten baitizute kanpokoa zarela. Ni Itsasartean gelditu naiz”. (2ET)

“Haiek oso europarra ikusten ninduten, eta zuria nintzela esaten zidaten. Baina gero hemen nago eta nire lagun espainiarrak ikusten ditut zenbait gauza egiten eta esaten diet pasatu egin direla, nola demontre egin duten hori. Afrikarra eta espainiarra ikusten naiz, bi gauzak”. (1ET)

“Hemen pixka bat lekuz kanpo sentitzen zara, baina familiarekin Afrikan zaudenean, zuria dirudizu. Horregatik, ez dakit oso ondo nongoa naizen, eta mundukoa naizela esaten dut”. (3ET)

“Egia esan, ez naiz ez hemengoa ez hangoa ez inongoa sentitzen. Beti egin izan didate galdera hori. Ez naiz Espainiakoa sentitzen, ez naiz Euskadikoa sentitzen, ez naiz euskalduna sentitzen, horrela esatearren. Ezta marokarra edo arabiarra ere. Esan dezakedan gauza bakarra da musulmana sentitzen naizela”. (2ET)

Askotan egiten zaio erreferentzia bi gizarte edo gehiagotakoa, eta, beraz, hainbat kulturatakoa izatearen konplexutasunaren ondorioz sortzen den egoera horri; hain zuzen ere, hari buruz hitz egiten du Amin Maaloufek Identidades asesinas lan ospetsuan. Alabaina, Maaloufen⁶ lanean pertenezia anitz horiei buruzko azalpen batzuk topatzen baditugu ere, eztabaida-taldeetako

“Hemengo jendeak sekula ez zaituelako ikusten hemengoa bazina bezala”.

partaideentzat egoera konplexua da, “ez-leku” batean sentitzen baitira. Rocak⁷ (2008, 41. or.) honela dio: *“Jatorrian jaiotako gazteek arazo zail bati egin behar diote aurre. Sozializazio- eta enkulturazio-prozesua*

⁵ Produktu hau ohikoa izaten da, eta aurreko mendearen hasieran jada baliatu zuten “baztertutako pertsonen” egoerari erreferentzia egiteko; hau da, bi kulturaren artean, bi identitatearen artean, bi ereduaren baten onarpen osoa eskatzen duten bi talderen artean dauden egoeraz hitz egiteko; termino arruntetan, “kanpotar” esaten zaie leku guztietan, bai jatorrian bai harreran, edo “ez hangoak, ez hemengoak” ez direnak. Migrazioen soziologia klasikoan, Stonesquist (1937) buru zuenak, egoera hori aztertu zuen, eta, beti berria bada ere, oso aspaldikoa da.

⁶ Maalouf, A. (1999). *Identidades Asesinas*. Madril, Espainia: Alianza Ed.

⁷ Roca, Nuria (2008): “Inmigración, identidad y procesos de inclusión y exclusión social” in “La política de lo diverso”: ¿Producción, reconocimiento o apropiación de lo cultural?, *Training Seminar de Jóvenes Investigadores en Dinámicas interculturales*. Bartzelona: CIDOB Fundazioa - Doktoregaien Diziplinar-teko Foroa, 39.-50. or.

beste testuinguru batean gertatzen da, eta, aldi berean, gehiengoaren gizartean integratu behar dute. Helmugan jaiotako seme-alaben zirkunstantziak ez dira gehiegi aldatzen, eta nabarmendu behar da, nahiz eta hemen jaio, gizarteak immigrantetzat hartzen dituela oraindik ere. Horren erakusgarri da 'immigranteen bigarren belaunaldi' kalifikatzailea”.

Hala ere, pertsona guztiek ez dute halako egoerei aurre egiteko kapital pertsonal bera. Horregatik, Amin Maaloufek identitate asko bateragarri egiteko aukera bat ikusten duen lekuan (hala ahalbidetzen diotelako bere afiliazio askok eta, batez ere, eskuratutako gaitasun askok), beste pertsona batzuek noraez- eta anomia-iturri bat ikusten dute. Egoera horretan gutxienez bi elementuk eragiten dute: bi identitate aldi berean espermentatzean sortzen diren zalantzak eta gizartearen onarpen-maila. Askotan, kezka eta porrota ez datoz horrenbeste lehenengo elementutik, baizik eta bigarrenak komunitateko kide gisa ez onartzetik. Kezka hori zirkunstantzia normaletan gertatzen da, baina onarpenik gabekoetan askoz ere gehiago. Testuinguru horretan, norbera jaio den edo hazi eta sozializatu den lekukoa guztiz ez sentitzean, “integrazio” terminoa aipatzen da maiz. Bitxia da neska euskaldunei termino horietan hizketan entzutea, lehen komentatutako guztiagatik, noski. Gehiago sakonduko dugu gai horretan hurrengo atalean, bizikidetzari buruzkoan.

“Uste dut beti egongo dela sektore bat integra zaitezen nahi duena eta integratzen lagunduko dizuna. Baina beste sektore bat ere egongo da, oztopoak jarriko dizkizuna eta ahal duen guztia egingo duena aurrera egin ez dezazun, hemengoek egin dezaten aurrera. Eta kito”. (1ET)

Pertenentzia-sentimenduari edo haren inguruko zalantzei buruzko zenbait komentariotan nabaritu ahal izan dugunez, partaideen artean markatuen dagoen elementuetako bat erlijioa da. Aita eta/edo ama magrebtarrak dituzten neska guztiak musulmanak dira, baina denek ez dute intentsitate berarekin praktikatzen erlijioa. Aita eta/edo ama Saharaz hegoaldeko Afrikakoak dituzten neskek, berriz, fede ebanjelikoa dute. Denek bake eta heldutasun handiz onartzen dituzte beren erlijio-sinesmenek adin bereko gainerako neskekiko sor ditzaketan desberdintasunak, hala nola alkoholik ez edatea. Oso kontziente dira gurasoek transmititu dieten guztiaz, eta, beraz, beren fedearen arabera jokatzeko eta hark esan nahi duen eta berekin dakarren guztiaz ondo informatzen saiatzen dira. Ildo horretatik, partaideek diote aitaren eta/edo amaren sorterrian jaio eta hazi direnak baino askeago sentitzen direla aukeratzeko orduan.

“Aitak ez zuen otoitz egiten, eta lehen aldiz Aljeriara joan ginenean, jendea otoitz egiten ikusi nuen. Aitari galdetu nion zergatik ez zuen otoitz egiten, besteek bezala. Eta ordutik aurrera biok batera otoitz egiten hasi ginen. Pixkanaka erlijioan interesa hartuz joan nintzen”. (1ET)

“Uste dut erlijioa bihotzean eramaten dela, eta inoiz ez dut pentsatu beloa janzte. Agian animatuko naiz aurrerago, nire erlijioaren inguruan gehiago ikertu ostean. Azkenean, beloa sentitu egin behar duzu. Jakin egin behar duzu zer daramazun, eta kontsekuentea izan”. (3ET)

“Gizartean ez dago nire erlijioa praktikatzen uzten ez didan inor”. (3ET)

Askotariko erreferentziak egiten dizkiote erlijioari, baina haietako batzuk gurasoek nahi ez bezala praktikatzen dute. Lehenago ikusi dugun moduan, erlijioa praktikatzeko askatasun handiagoa dute, baina horrek ez ditu familiaren barruko desberdintasunak desagerrarazten.

“Ama beti saiatzen da azpimarratzen. Baina esaten diot berak ez didala transmititu erlijioarekiko maitasun hori. Berak ere ez du otoitz egiten, eta zapia zenbait urtez baino ez du jantzi. Beraz, ezin du gauza bera espero”. (1ET)

“(Aitak) esaten dit oso harro dagoela nitaz, baina are harroago egongo litzatekeela hijaba jantziko banu, gehiago estaliko banintz, makillatzeari utziko banio eta beste gauza-mordo bat”. (1ET)

Erljio musulmanari buruzko elkarrizketetan zapiaren erabileraz, haren esanahiaz eta hura erabiltzeagatik jasan behar izan duten diskriminazioaz hitz egin dute partaideek, lehen ere lan- eta hezkuntza-arloan azertu ahal izan dugunez. Batzuek jantzi egiten dute, beste batzuek ez, eta beste batzuek jantzi egin nahi lukete baina ez dute egiten, erabaki horretan beste aldagai batzuek esku hartzen dutelako. Hijabak zer esan nahi duen azpimarratzen dute, hura erabiltzeko edo ez erabiltzeko duten eskubidea, zer harreman duten erlijio musulmanarekin, eta hura praktikatzeko edo ez praktikatzeko eskubidea:

“Musulmana naiz, baina askok esaten didate ez dudala ematen, janzeragatik, ez dudalako otoitz egiten edo ez dakit zer. Iruditzen zait erlijioa bihotzean eramaten dela”. (1ET)

“Konturatu naiz ehuneko txiki batek baino ez zaituela gaizki begiratzen edo esaten dizula zerbait zapia janzteagatik. Oro har, jendea oso atsegina eta fidakorra da”. (2ET)

“Azkenean, beloa sentitu egin behar duzu. Jakin egin behar duzu zer daramazun, eta kontsekuentea izan. Nik, oraingoz, ez dut planteatu. Beraz, ez ditut desberdintasun horiek nabaritzen”. (1ET)

“Nolabaiteko lasaitasuna ematen dizu, zeure buruarekin ondo zaudelako eta gogoak ematen dizuna egiten ari zarelako. Eta hori askatasuna da. Baina, aldi berean, zapia janzteak eragin handia du norbere bizimoduan. Izan ere, gizartean, nahi eta nahi ez, oso liberalizat dugu geure burua, baina ez gara, inolaz ere ez. Batez ere hijabarekin, eta are gehiago orain, terrorismoarekin eta kontu horiekin guztiekin gertatzen ari denarekin”. (1ET)

“Baina nire erabakia da, ez janzte erabaki dezakedan bezalaxe. Aske nago zapiarekin, eta aske sentitzen ez naizen egunean, kendu egingo dut”. (2ET)

Irudipen horiekin guztiekin ere, partaideek uste dute beharrezkoa dela euskal gizarteak kultura eta erlijioa zer diren jakitea eta bereiztea; esate baterako, zer esan nahi duen marokoarra izan gabe musulmana izateak.

“Badakizu zer gertatzen den? Askotan nahastu egiten dituztela erlijioa eta jatorria, nazionalitatea. Esaten dudanean musulmana naizela, arabiarra ote naizen galdetzen didate”. (3ET)

“Ez dakite bereizten musulmana..., izan naiteke musulmana marokoarra izan gabe”. (2ET)

“Erljioa eta gure kultura pixka bat nahasten dituzte”. (1ET)

“Musulmana naiz, baina askok esaten didate ez dudala ematen, janzeragatik, ez dudalako otoitz egiten edo ez dakit zer. Iruditzen zait erlijioa bihotzean eramaten dela”.

5

Bizikidetza

Oro har, eztabaida-taldeetako neskek uste dute bizikidetza ona dela, baina, hezkuntzari eta lanari buruzko ataletan ikusi dugun moduan, gorabehera batzuk izan dituzte, baita espazio publikoan ere. Horrek pentsarazten digu oraindik ere aurreiritzi eta estereotipo asko dagoela fenotipo desberdina duten beste jatorri batzuetako pertsonetikiko, bai eta katolikoa ez beste erlijio-sinesmenetikiko (batik bat musulmanarekiko) eta beloaren erabilerarekiko ere. Batzuetan mindu egiten die atzerriartzat tratatuak izateak haiek berek esan arren hemengoak direla eta ez direla atzeritar sentitzen.

“Uste dut aurreiritzi asko dagoela. Eta hori zailtasun bat da arlo eta zentzu guztietan. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren gaia atera eta bero-bero jartzen da jendea. Baita igerilekuaren gaiarekin edo terrorismoarekin ere”. (2ET)

“Ez dakitenean nongoa zaren eta gaztelaniaz ulertzen duzunez, pentsatzen dute ez zarela hemen ingurukoa. Eta orduan gorroto eta haserre guztia ateratzen dute. Eta hor ikusten duzu”. (1ET)

“Niri gertatu izan zait (dendara) joan eta AIZa eskatzea, horrelako gauzak. Zergatik pentsatu behar duzu atzeritarra naizela?”. (2ET)

“Guri zuzenean esan ziguten. Esan ziguten etxeko jabeak ez zuela beltzik nahi”. (1ET)

Haien iritziz, zenbait oztopo gainditu egin direla ematen badu ere, euskal gizarteak markatutako desberdintasunek iraun egiten dute; izan ere, mesfidantzaz begiratzen diete oraindik, komentario desegokiak egiten dizkiete, beloaren inguruko aurreiritziak entzuten dituzte...

“Guri zuzenean esan ziguten. Esan ziguten etxeko jabeak ez zuela beltzik nahi”.

“Amak esaten omen die ez ateratzeko zurekin, ez ibiltzeko moroarekin, azkenean haiek ere zapia jantziko dute eta”. (1ET)

“Niri gehien amorratzen nauena da emakumeak gutxiestea, ergelak edo menpekoak direla pentsatuz. Amorru handia ematen dit”. (2ET)

“Esaten dizute ‘oso ondo egiten duzu gaztelaniaz, ez dirudizu beltza’. Elkarrizketen %90ean entzun behar izan dut komentario hori”. (3ET)

“Lagunak izan arren, beti izango zara gelako beltzarana, lagun beltza edo lagun moroa. Beti berdín, guraso eta seme-alaba. Oso integratuta egon arren edo euskaraz primeran egin arren”. (1ET)

“Lagunak izan arren, beti izango zara gelako beltzarana, lagun beltza edo lagun moroa. Beti berdín, guraso eta seme-alaba. Oso integratuta egon arren edo euskaraz primeran egin arren”.

Azkenik, partaideen iritziz, euskal gizarteak ikuspegi asimilazionista batetik hitz egiten du integrazioaz; hau da, gizarte honetako parte izateko, beren erlijio-sinesmenak alde batera utzi eta “gehiengoaren” antzekoak izan behar dutela sentitzen dute. Partaideek eszeptizismoz ikusten dute jai-giroko topaketan bidez kulturak hurbildu nahi izatea, uste baitute aurreiritziek iraun egiten dutela eta halako topaketak ez direla aurreiritzi horiek desagerrarazteko modua. Uste dute gizarteak oraindik ere atzerritartzat hartzen dituela. Bestalde, partaide batzuek horma bat topatzen dute herritarrengan, eta beste batzuk sentitzen dute gizartearen zati batek behintzat onartzen dituela.

“Ez zaituzte hemengoa bazina bezala ikusten”. (1ET)

“Askorentzat, integratu nahi baduzu, sustraiak kendu behar dituzu, erlijioa alde batera utzi eta haiek bezala jokatu behar duzu. Aurpegia zuriz margotu behar duzu”. (1ET)

“Nahi adina musika, bazkari eta dantza jarrita ere. Ez bada nahi, ez da nahi”. (1ET)

6

Etorkizuneko itxaropenak

Neska hauek dituzten desioak eta etorkizuneko itxaropenak adin bereko gainerako neskek dituztenen oso antzekoak dira. Ikasketak egin dituzten arloko lan bat aurkitu nahi dute, asebetetzen dituen eta bizi izandako egoera askoren norabidea aldatzen lagunduko diena. Alabaina, lan-arloari buruzko atalean adierazi dugun moduan, zenbaitek ez dakite ziur horrelako lan bat Euskadin edo Espainian lortzeko aukera izango ote duten. Hori dela eta, haietako batzuk Europako beste herrialde batzuetara migratzeko asmoa dute, pentsatzen baitute aukera gehiago izango dituztela. Beste batzuek ez dute beste herrialde batera joateko asmorik, ez baitute immigrantetzat hartuak izan nahi. Ez dute uste krisia denik lan-aukera gutxi izatearen arrazoi nagusia; haien iritziz, zerikusi handiagoa du haien jatorriarekin eta erlijioarekin.

“Ikasten ari naiz, eta neure buruari galdetzen diot egunen batean ikasten ari naizen arloan lanean amaituko ote dudan”. (1ET)

“Amaitzean, Nazioarteko Harremanen Masterra egin nahi dut, eta gero gerokoak. Erakunderen batean egin nahi nuke lan. Goitik lagundu nahiko nuke, gauzak aldatzen saiatu nahi nuke aldatu daitezkeen lekutik. Behetik ere aldatzen dira, baina goitik aldatzerik baduzu, askoz ere hobeto”. (3ET)

“Inoiz ez nintzateke joango hemendik, sekula ere ez. Beste norabait joan kanpotartzat hartua izateko eta kaixo esaten ere ez jakiteko”. (2ET)

“Ez daukat hemen geratzeko asmorik”. (1ET)

Aukeratu dituzten edo aukeratzear dauden ikasketei dagokienez, gurasoek haiekiko dituzten itxaropenei buruzko komentario batzuk egin dituzte. Badakite gurasoek ez zutela haiengatik bakarrik migratu, seme-alabei garatzeko aukera gehiago emateko ere bai. Zenbait partaidek uste dute ezinbestekoa dela unibertsitate-ikasketak egitea, baina ez da gehienek iritzia. Kasu honetan ere genero-

“Ikasten ari naiz, eta neure buruari galdetzen diot egunen batean ikasten ari naizen arloan lanean amaituko ote dudan”.

desberdintasunei buruzko erreferentziaren bat azaldu da, partaideek uste baitute gehiago exijitzen zaiela emakumeei gizona baino.

“Unibertsitatera joan egin behar da, bost urte errepikatzen pasatzen badituzu ere”. (1ET)

“Uste dut mutilei beren kasa ibiltzen uzten dietela. Iruditzen zait oso erraza dela mutila eta afrikarra izatea”. (1ET)

“Baina haiek espero dute neskok urrutiago iristea gutako bakoitzak jasotako prestakuntzarekin”. (2ET)

“Gure etxean desberdina izan zen. Amak ez zidan esan zer karrera egin behar nuen”. (1ET)

“Ez nuen Zuzenbidea ikasi nahi eta ez nekien zer egin. Irakasle-ikasketak egitekotan egon nintzen, baina amak ez zuen ulertzen. Dirua zaborretara botatzea iruditzen zitzaion, eta hori ez egiteko esaten zidan. Nola esango zion ba Afrikako jendeari irakasle izateko ikasten ari nintzela, eta haurren irakasle, gainera”. (1ET)

“Uste dut [seme-alaben etorkizuna] gurea baino hobea izango dela”.

la denek diote ama izan eta familia bat osatzeko asmoa dutela. Denek nahi dute seme-alabek haurtzaro zoriontsu bat izatea, eta uste dute haiek izan dutena baino bizi hobea izango dutela. Azken finean, adin bereko beste edozein gaztek dituen aukera, kezka, zailtasun, desio eta erraztasun berak izan ditzaten nahi dute.

“Ez nuke jakingo esaten. Espero dut guk baino erraztasun gehiago izango dituztela gizartean. Baina aurrerapen handiak egin beharko dira. Etxeko heziketari eta halako gauzei dagokienez, oso, oso, oso zaila iruditzen zait”. (1ET)

“Uste dut [seme-alaben etorkizuna] gurea baino hobea izango dela”. (1ET)

“Hemendik hogeitaz urtera, nire seme-alabak karrera ikasten ari direnean, izan dezatela udako lan bat lortzeko aukera, hemengo beste edozein gaztek bezalaxe. Haiek bezalakoak izan daitezela. Espero dut hala izango dela”. (2ET)

Seme-alabak nola heziko dituzten galdetzean (ez da batere galdera erraza), berriz ere zalantzak agertu dituzte, are gehiago lehen jorrotutako gaiak baloratu ostean. Badakite oraindik landu gabeko aniztasun-testuinguru batean bizi direla. Haien zaila da bi kulturaren artean bizitzea, eta iruditzen zaie seme-alabek ere ez dutela erraztasunik izango alde horretatik. Genero-berdintasunean oinarritutako heziketari erreferentzia egitean, gurasoengandik halakorik ez dutela jaso diote.

“Jakin-min pixka bat daukat, ez dakidalako zer heziketa emango diodan”. (1ET)

“Ez dut nire alderdi afrikarra galtzerik nahi”. (1ET)

“Berdintasunean heziko nituzke, baina neskak gehiago babestuta. Orain bertan beldur hori sentitzen dudanez entzuten diren gauza guztiekin, badakit etorkizunean ere beldur hori izango dudala nire seme-alabekin. Baina badakit, baita ere, alabekin gehiago izango dudala”. (2ET)

“Ez dakit nolakoa izango litzatekeen. Espero dezagun ez ditudala nire gurasoek ni hezi nauten bezala heziko. Erakutsiko diet haiek ere etxeko lanak egin behar dituztela. Ez dut nahi nire anaiak bezalakoa izaterik nahi, ez zuten ezertxo ere egiten eta. Etxean lagundu dezan nahi dut”. (1ET)

7

Gomendioak eta hobetzeko ekintzak

Arlo guztiak aztertzean ikusi dugu eztabaida-taldeetako emakumeek hainbat kezka izaten dituztela egunerokoan, hein handi edo txikiagoan. Eztabaidetan aipatu dituzten irudipen eta gomendio guztiak bildu ditugu, eta nola bidera daitezkeen ikusiko dugu orain, esku hartzeko eta hobetzeko ekintzak prestatu eta Euskadin bizi diren afrikarren eta, hedaduraz, atzerritarren ondorengo diren ororen errealitatea eraldatzeko.

Hasteko, gako batzuk nabarmendu nahi ditugu, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu afrikarren ondorengo diren emakumeak ezagutu eta ulertzeko:

- Uste dugu kolektibo honek ez duela bere burua atzerritartzat hartzen, baina euskal gizartearen zati batek halakotzat ikusi eta tratatzen duela. Partaideen hitzetan sumatzen da biztanleria atzerritarrarekiko markatzen duten aldea, ez baitira haren parte sentitzen eta uste baitute ez dituztela haren ezaugarri berak. Hala ere, beste alde batetik, Euskadin bizi den biztanleria immigranteak jasan behar izaten dituen diskriminazio-esperientzien antzeko egoerak bizi behar izaten dituzte haiek ere.
- Emakumeek belaunaldi arteko desberdintasunak identifikatzen dituzte gurasoekiko eta, zehatz-mehatz, amekiko. Ezaugarri hori ez da atzerritarren ondorengo diren pertsonena bakarrik, baina jarrera desberdinak erakusten dituzte beren jatorri geografikoa eta kulturala dela eta. Genero-desberdintasunak dira ikerlan honetan jasotako adibide argiena, eztabaida-taldeetako partaideek argi eta garbi baitakite desberdin tratatu dituztela emakume izateagatik eta ez dietela gauza bera irakatsi nahi beren seme-alabei.
- Emakume atzerritarrek lana bilatzeko izandako oztopoak alabek ere badituzte. Azterlan honetan jasotakoaren arabera, antzeko zailtasunak dituztela dirudi; besteak beste, trabak jartzen dizkiete jatorri jakinekin identifikatzen dituztelako,

eta/edo diskriminatu egiten dituzte beloa erabiltzeagatik. Horrek esaten digu, berriz ere, iruditeria kolektiboan oraindik ez dagoela txertatuta txikitatik euskal gizartearen parte izan diren eta hemen garatu diren pertsona batzuek ez dituztela gehiagoaren azal-kolore eta erlijio berbera; izan ere, hijaba erabiltzen dutenak atzerriartzat identifikatzeko joera argia dago.

- Hijabaren erabilerari dagokionez, elementu definitzaile gisa ageri da aztertutako arlo gehienetan. Hijaba erabiltzeak edo ez erabiltzeak gizartean, lan –eta hezkuntza-arloetan eta harremanetan sentitzen duten integrazio– eta onarpen-maila definitzen du. Laburbilduz, pertsonen arteko tratua dakarren edozein inguruetan. Partaideek esandakoaren arabera, beloaren erabilerak, haren ikusgarritasuna dela eta, jarrera negatiboak eragiten ditu gizartearen zati batean.
- Pertenentzia-sentimenduari dagokionez, nabari da ez dagoela identifikazio-eredu bakar bat, eta ibilbide arrakastatsuei⁸ buruzko txostenean jasota dagoen moduan (azterlan zabalago baten parte da, eta haren barruan txertatzen da dokumentu hau), euskaldun sentitzeko modu asko daude, ez bakar bat. Aztertzen ari garen kasuan, partaideen identitatean pisu handia du erlijioak; kasu gehienetan, islamak.

Atal honen hasieran aurreratu dugun moduan, gomendio batzuk iradokiko ditugu orain, edo ekintza posible batzuk behintzat, emakume horien errealitatea sustatzen eta eraldatzen laguntzeko. Horretarako, hainbat planteamenduri heldu diegu hezkuntza formalaren, lan-arloaren, komunikabideen, identitate-alderdien eta administrazio publikoen ikuspuntutik:

- Hezkuntza pertsonen garapeneko funtsezko oinarri bat denez, kontuan hartu behar da ez ote den komeni irakasleak gehiago prestatu eta sentsibilizatzea kultura- eta erlijio-aniztasuneko gaietan. Partaideek ezinbestekotzat jotzen dute haiek bizi izandako eta diskriminaziozko jarrerak eragin ditzaketen ekintza eta komentarioak desagerrarazteko. Garrantzitsua da Hezkuntza Saila eta Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza norabide horretan egiten ari diren lana finkatu eta sendotzea. Horretarako modu bat izan liteke prestatzaile-taldeak sortzea hezkuntza-arloan, kulturartekotasunaren inguruko hausnarketan eta prestakuntzan lan egin dezaten zuzendaritza-taldeen eta oro har irakasleen prestakuntza-planen barruan.
- Era berean, eskola leku aproposa da haurrak kultura-aniztasunean sentsibilizatzeke eta hezteke. Haiekin batera, familiak, pertsonen garapenean erreferentziatzeko talde diren aldetik, funtsezko eragileak dira seme-alaben etorkizunaren konfigurazioan. Hori dela eta, aniztasunarekin

⁸ "Ibilbide arrakastatsua: bizi-kontakizun anitzak", hemen: http://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P3_CAP1_relatoEUS.pdf

lotutako gaiak lantzeko familia-jarduerak sustatzea proposatzen da, aurreiritziak alde batera utzi eta iruditeria kolektiboan ezarritako beldur horiek kentzen joateko. Zehazki, eskola-jazarpenaren aurkako borrokaren ereduari jarraituz, arrazakeriaren gaiari heltzea proposatzen da.

Uste dugu familien parte-hartzea hobetzeko gakoetako bat dela, eta, beraz, hezkuntza-sistemaren funtsezko helburuetako bat eta hainbat saretatik sustatzen diren programetako lehentasunezko estrategia pedagogikoetako bat ere bai. Esate baterako, Hamaika Esku programako ikastetxeetan, esku hartzeko ildo garrantzitsuenetako bat familien parte-hartzeari, inplikazioari eta lankidetzari lotutakoa da. Alde horretatik, familiak kulturartekotasunean heztera bideratutako guztiak lagun dezake eta laguntzen du harremanak eta bizikidetzak hobetzen.

- Kultura-, erlijio- eta arraza-aniztasunaren arloko sentsibilizazioak enpresetara ere iritsi behar du. Aintzakotzat har liteke erakunde publikoek ezagutza hori hurbiltzera eta sustatzera bideratutako ekintzen garapenean esku hartzea, kontratazioa bultzatzeko politika aktiboak sustatuz. Bestalde, ekintzailtza kontuan hartu eta garrantzitsutzat jo beharreko lan-aukera bat da, eta, horretarako, funtsezkoa da maileguak ematen laguntzea eta negozioak martxan jartzeko laguntza eskaintzea.

Ekintza zehatz bat izan liteke Lanbideko eta erakunde laguntzaile espezifikoen orientazioko langile teknikoak sentsibilizatzea eta prestatzea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Saileko prestatzaile-taldearen prestakuntzaren bidez, honako arlo hauetan: ikuspegi inklusibo eta kulturartekoa, herritarren eskubide eta betebeharrak, eta atzerriko immigranteen gizarte-inklusioa.

Beste ekintza bat izan liteke enpresen barruan aniztasuna kudeatzeari buruzko prestakuntza-modulu bat aktibatzea Hobetuz-en prestakuntza-katalogoan. Horretan, hainbat eduki landuko lirateke, hala nola atzeritarren araudia, diskriminaziorik ezarena, aniztasunaren kudeaketa eta kulturarteko ikuspegia. Prestakuntza hori Euskadiko enpresa-ehunari zuzendu dakioke; zehatz-mehatz, enpresen barruan oro har giza baliabideen kudeaketarekin lotutako lanpostuetan aritzen diren langileei. Interesgarria izango litzateke, halaber, gestoriek, aholkularitzek eta abarrek ere parte hartzea, batzuetan haiek arduratzen baitira autonomoekin eta ETEekin lan horiek egiteaz.

- Komunikabideek iritzi publikoan duten boterea ere oso handia da. Oso tresna indartsua dira, bai estereotipo negatiboak desegiteko bai gizartetik desagerrarazteko ere. Beharrezkotzat jotzen da komunikabideekin lan egitea, ahal den heinean ez dezaten informazio partziala sortu aniztasun kulturalari eta etengabe aldatzen ari den gizartearen ezagutzari dagokienez. Bestalde, uste dugu oso tresna lagungarria izan daitekeela herritarren artean afrikarren ondorengo diren emakumeen askotariko errealitateak zabaltzen laguntzeko, bereizten gaituzten ezaugarriak ez ezik elkartzen gaituztenak ere erakutsiz.

Ekintza gisa, jardunbide onen itun bat izenpetu daiteke komunikabideekin, generoaren gaiarekin egin den bezalaxe, herritarren, kulturarteko bizikidetzaren eta immigrazioaren arloan mugak ezartzeko, iritzi publiko ondo informatua, errespetutsua eta eskubide eta betebeharren berdintasunean oinarritua eraikitze aldera.

- Administrazio publikoak bermatu behar du herritarrek tratu ona jasotzen dutela, eta, beraz, modu eraginkorrean esku hartu behar du afrikarren ondorengo direnek, eta, hedaduraz, atzerritarren ondorengo direnek jasan ditzaketen diskriminazio-egoeretan.
Eusko Jaurlaritzak dagoeneko badu tresna bat diskriminazioaren aurka lan egiteko. Eraberean Sarea da, eta hiru ikuspuntutatik egiten du borroka diskriminazioaren aurka: sexu- eta genero-orientazioaren askatasunetik, ijitoen berdintasunetik, eta pertsona ororen —edozein jatorritakoak direla ere— berdintasunetik. Arlo horretan, Eraberean Sareak gidatutako beste ekimen bat planteatu liteke: Diskriminazioaren aurkako Behatoki bat sortzeko buruz ari gara. Eraberean Sarea diskriminazioaren aurkako bermea izan liteke; zehatz-mehatz, erakunde-diskriminazioaren aurkakoa.
- Uste dugu beste ekintza batekin euskararen papera sendotu beharko litzatekeela, ez bakarrik lan-merkatuan hobeto eta errazago sartzeko tresna gisa, baita Euskadin dugun komunikazio-elementu baten kontzientzia hartzeko ere. Euskararen ezagutza eta erabilera (gaztelaniarekin batera, lurraldeko bigarren hizkuntza ofizial gisa) sustatzen duen ekintza oro behar-beharrezkoa izango da atzerritar jatorriko kolektiboaren barruan sor litezkeen gaitzespenek jarraipenik izan ez dezaten.
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planaren barruan, atzerrian jaio eta/edo atzerritarren ondorengo diren ikasleek euskara ikasteko jarduera-multzo bat proposatzen du. Ezinbestekoa da neurriak hartzea atzerrian jaio eta/edo atzerritarren ondorengo diren adingabeek euskara ikas dezaten sustatzeko.
Garrantzitsua da, halaber, Helduen Hezkuntzarako (HHE) baliabide gehiago jartzea eta Hezkuntza Saila arlo horretan egiten ari den lan guztia sendotzea, batez ere bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, ikastearekin lotutakoa.
- Asko dago egiteko genero-berdintasunaren inguruan, eta euskal gizarte osoaren eta, batik bat, erakundearen zeregina da hari heltzea. Alde horretatik, uste dugu norabide horretan berariaz egin daitekeela lan afrikarren ondorengo diren emakumeekin, etorkizuneko belaunaldietan ez daitezen errepikatu haiek jasan behar izan dituzten desberdintasunak.
Euskal administrazioek, bereziki Emakundek, afrikarren ondorengo diren emakumeei berariaz zuzendutako ekintzak jar ditzakete martxan, lan-merkatu sartzeko dituzten baldintza okerragoak arintzeko eta gizartean osoki integratzeko oztopoak murrizteko.

- Azkenik, interesgarria izango litzateke pertenenzia-sentimendua garatzen laguntzea, ez bakarrik ikuspegi dominanteenetatik, baizik eta euskaldun izatearen norbanakoaren eraikuntzatik. Aurrez ezarritako kanon batzuekin bat ez egiteagatik gure gizartearen parte izatearen sentimendua ukatzeak dituen eragin ez hain onei buruzko kontzientzia-prozesuak hasi behar ditugu. Azterlan honetan ikusi dugu partaideen identitatearen sorkuntza sektore batzuen onarpenaren eta beste batzuen gaitzespenaren arabera dela; hurbileneko familiak irakatsitakoaren eta Euskadin bizi izandakoaren arabera. Egin dezagun ahal duguna gure gizarteari ulertarazteko aniztasunean bizi garela, errealitatea hori dela eta hori izango dela. Uste dugu euskal gizarteari zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egin behar direla, afrikarren ondorengo diren emakumeen errealitatera hurbil dadin. Ikusten dugu gaur egun oraindik ere ez dela onartzen pertsona batzuk Euskadin jaio direla edo bizitza osoa hemen egin dutela, eta, beraz, adin bereko beste edozein pertsonak bizi izandako ibilbide berberetan parte hartu dutela; bestalde, haien jatorriak baditu berezko ezaugarri batzuk, baina, nolana ere, euskal gizarteari erakutsi egin behar zaizkio eta haien inguruan iruditeria berriak sortu behar dira.

Biltzen eta Ikuspegi bezalako tresnak jada lanean ari dira arlo horretan, baina komeni da zenbait ekintza sistematizatzea eta sustatzea, hala nola hauek:

- Hitzaldi, mintegi, hizketaldi, eztabaida, seminario, mahai-inguru eta abarretan parte hartzea, udalek antolatu eta herritarrei zuzendurikoetan ez ezik, baita beste elkarte batzuek antolatutakoetan ere, hala nola bizilagun-elkartek, adinekoen egoitzek, ikastetxeek, erretiratuen klubek, kirol-elkartek, sindikatuek, profesional-elkartek, enpresa-elkartek, eskualdeko agentziek, denbora libreko elkarteek, elkarte kulturelek eta sozialek...
- Biltzenen eta Ikuspegiren lankidetzak eskatzen duten komunikabideei arreta ematea, telebista-estudioetara joanez, elkarrizketa pertsonalak eginez, irratsaioetan galderak erantzunez eta parte hartuz, idatzizko prentsaren eskakizunei erantzunez, azterlan jakinei buruzko prentsaurrekoak emanez, ikerlanen eta/edo egindako esku-hartzeen aurkezpenak eginez...
- Hizkuntza-aniztasunaren papera eta euskararen rola azpimarratzea kulturartekotasuna osatzen duten elementu diren aldetik.



ERANSKINAK

EZTABAIDA-TALDEEN GIDOIA

1. IKERKETAREN AURKEZPENA

- Ikerketaren azalpen orokorra.
- Eztabaida-taldean parte hartzen duten pertsonen konfidentziasunaren inguruko azalpena.

2. FAMILIA ETA GIZARTE-SAREA

- Ba al dute familia? Zer garrantzi ematen diote familiari? Zer sentitzen dute harekiko?
- Lagundu egiten diela sentitzen al dute? Zergatik?
- Familiaren eta ingurukoaren babesa sentitzen al dute?
- Berdintasunean hezi al dituzte? Aukera berdina izan zitzaten saiatu al dira: hezkuntza- eta lan-arloan, indibidualak, sozialak...?
- Noizbait desberdin sentitu al dira emakume izateagatik? Diskriminazioa edo tratu-desberdintasuna daudela uste al dute? Zer gauzatan/egoeratan nabaritzen dute?
- Zer pertsonarekin dituzte harremanak (afrikarrak, beste jatorri batzuetakoak, euskaldunak...)? Zer moduzkoa da harremana?
- Asebeteta/pozik sentitzen al dira adiskide eta laguntzat dituzten pertsonekin?

3. HEZKUNTZA

- Zer ikasketa egin dituzte? Eta gaur egun, ikasten ari al dira? Zer ari dira ikasten? Ikasten ari ez badira, zergatik? Zein da arrazoia?

- Zer eredutan egin dituzte ikasketak: A, B edo D? Ba al dakite euskaraz? Garrantzitsua iruditzen al zaie jakitea? Zer muga dakartza ez jakiteak?
- Ikastetxe publiko ala pribatu batean ikasi dute?
- Zer moduzkoa izan da eta da ikastetxearekiko harremana (irakasleak, zuzendaritza, ikasleak)?
- Inork markatu al die onerako ala txarrerako? Nork eta zergatik?
- Izan al dute arazorik?
- Zer-nolako garrantzia ematen diote hezkuntzari?
- Familiaren babesa izan al dute ikasketetan? Lagundu diete? Nola? Zergatik? Mugarik izan al dute? Zein?
- Ikasteko motibatu al dituzte?
- Nola kalifikatu edo deskribatuko lukete ikasle-garaia?
- Noizbait desberdin sentitu al dira emakume izateagatik? Diskriminazioa edo tratu-desberdintasuna daudela uste al dute? Zer gauzatan/egoeratan nabaritzen dute?

4. LANA: LAN-ARLOA

- Inoiz lan egin al dute? Hala bada, zer lan-mota izan dute?
- Izan al dute zailtasunik arloren batean lan egiteko?
- Zertan egin nahi lukete lan? Aukerarik ikusten al dute? Zergatik?
- Haien ustez, zertan egingo dute lan? Zer lan-aukera ikusten dituzte etorkizunean?
- Lanean ari baldin badira, zer asebetetze-maila dute lanarekin eta egoera ekonomikoarekin?
- Noizbait desberdin sentitu al dira emakume izateagatik? Diskriminazioa edo tratu-desberdintasuna daudela uste al dute? Zer gauzatan/egoeratan nabaritzen dute?

5. IDENTITATEA

- Nongoak sentitzen dira (pertenentzia)?
- Euskadiko/Espainiako/Afrikako (jatorri bakoitzeko) kulturaren parte sentitzen al dira?
- Zer dela eta sentitzen dira kultura bateko edo batzuetako parte?
- Erlijioaren batean sinesten al dute? Norbere erlijioa praktikatzeko aske sentitzen al dira? Zailtasunen bat eragiten die, mugak daude, edo, alderantziz, fedea askatasunez agertu dezakete?
- Noizbait desberdin sentitu al dira emakume izateagatik? Diskriminazioa dagoela uste al dute? Zer gauzatan/egoeratan nabaritzen dute?

6. BIZIKIDETZA

- Inoiz sentitu al dituzte beste herritarren gaitzespena edo aurreiritziak? Non? (eskolan, lanean, kalean)

- Estereotipoen eta aurreiritzi negatiboen jomuga sentitzen al dira?
- Inoiz sentitu al dute nolabaiteko diskriminaziorik? Nola eragin die?
- Parte hartzen al dute herriko edo hiriko bizitzan? Elkarteren batekoak al dira? Joaten al dira kontzertu, hitzaldi, liburutegi, festa, kirol-jarduera eta abarretara?
- Zertan baliatzen dute aisialdia eta denbora libre?

7. ETORKIZUNEN ITXAROPENAK

- Nola imajinatzen dute biziko direla etorkizunean?
- Zer ilusio dituzte? Egia bihurtuko direla uste al dute? Zergatik?
- Zerbait aldatuko al lukete?
- Pentsatu al dute ama izatea edo ba al dira? Nola jokatuko lukete seme-alaben heziketari dagokionez? Haiek jaso duten bera emango al liekete? Zerbait aldatuko al lukete? Heziketa desberdina emango al liekete semei eta alabei?

8. OZTOPOAK

- Izan dituzten oztopoak eta zailtasunak. Zerrenda batean ordenatuta, garrantziaren arabera.

9. EKINTZAK

- Zer gomendatuko liokete Eusko Jaurlaritzari zailtasun eta oztopo horiei aurre egiteko?

EZTABAIDA-TALDEETAN PARTE HARTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA

1. BILBOKO 1. EZTABAIDA-TALDEA:

- 20 urteko neska 1, Euskadin jaioa, aita aljeriarra eta ama espainiarra.
- 21 urteko neska 1, Marokon jaioa eta 2 urterekin etorria, gurasoak marokoarrak.
- 20 urteko neska 1, Marokon jaioa eta 3 urterekin etorria, gurasoak marokoarrak.
- 22 urteko neska 1, Portugalen jaioa eta 3 urterekin etorria, ama angolarra eta aita kongoarra.
- 21 urteko neska 1, Euskadin jaioa, ama angolarra eta aita kongoarra.
- 22 urteko neska 1, Angolan jaioa eta 2 urterekin etorria, gurasoak angolarrak.
- 22 urteko neska 1, Euskadin jaioa, ama angolarra eta aita kongoarra.

2. BILBOKO 2. EZTABAIDA-TALDEA:

- 20 urteko neska 1, Euskadin jaioa, ama espainiarra eta aita aljeriarra.
- 21 urteko neska 1, Euskadin jaioa, ama kongoarra eta aita angolarra.
- 18 urteko neska 1, Marokon jaioa eta 3 urterekin etorria, gurasoak marokoarrak.
- 18 urteko neska 1, Kongon jaioa eta 3 urterekin etorria, gurasoak kongoarrak.
- 17 urteko neska 1, Angolan jaioa eta 2 urterekin etorria, gurasoak angolarrak.


3. GIPUZKOAKO EZTABAIDA-TALDEA:

- 24 urteko neska 1, Euskadin jaioa, gurasoak marokoarrak.
- 19 urteko neska 1, Euskadin jaioa, gurasoak marokoarrak.
- 21 urteko neska 1, Euskadin jaioa, gurasoak marokoarrak.
- 22 urteko neska 1, Euskadin jaioa, gurasoak marokoarrak.
- 20 urteko neska 1, Euskadin jaioa, gurasoak marokoarrak.
- 20 urteko neska 1, Euskadin jaioa, gurasoak liberiarak.

Familiak eta aniztasuna Euskadin

0-25 urte

Julia Shershneva eta Iraide Fernández Aragón





AURKIBIDEA


Sarrera	727
1. Familia-taldeak: metodologia eta lagina	729
2. Familia-dinamikak	733
2.1. Familia-antolakuntza: denbora eta zereginak	734
2.2. Etxea eta generoa: esandakoaren eta ikusitakoaren arteko aldea	738
3. Eskola-esparrua	741
3.1. Ikastetxearen aukeraketa	741
3.2. Ikastetxearekiko harremana: irakasleak eta gainerako gurasoak	746
3.3. Eskola-laguntza	749
3.4. Ikastetxeko aniztasuna	751
4. Identitatea eta erlijioa	755
5. Jatorriko hizkuntzak eta euskara	763
6. Integrazioa eta gizarte-harremanak	771
6.1. Gurasoak	771
6.2. Ondorengoak	777
6.3. Gizarte-harremanak, integrazioaren gakoa	778
6.4. Diskriminazioa eta bizikidetzaren eremuak	780
7. Espektatibak	783
8. Ondorioak	789
Eranskina	793

SARRERA

Immigranteen ondorengo kolektiboa da egungo eta etorkizuneko aniztasunaren erakusleetako bat, eta kolektibo hori nola integratu den da, hain zuzen, EAEn, migrazio-fenomenoari lotuta gutxien aztertu diren gaietako bat. Hala zen 2016an, azterlan sorta hau abian jarri genuenean, atzerritar jatorriko biztanleen seme-alaben integrazio-prozesuari buruzko zalantzak argitze aldera. Eta horretan, azterlanen sorta honek, bere definiziotik¹ hasi eta garapen konplexu- netaraino, hezkuntza-, komunitate- eta familia-esparruak hartu zituen ikerketaren ardatz. Esparru horiek zabaldu egin ziren, gerora, lehen emaitzak aztertu ostean, eta identitatearen, ongizatearen eta espektatiben esparruetara hedatu ziren, funtsezkoak baitira bigarren belaunaldiei dagokienez.

Txosten honek, zehatz esanda, goian azalduta-koen artean gutxien aztertu den esparruetako bat izango du ardatz: familien aniztasuna. Izan ere, familia funtsezko eragilea da atzerritar jatorriko pertsonen ondorengo integrazio-prozesuan, bai migrazioen soziologiatik eta bai hezkuntzaren soziologiatik aztertuta. Asko dira beste testu- inguru batzuetan klase sozialari, arrakasta akade- mikoari, errendimenduari eta identitateari lotuta

1. eskema. Ikertutako esparruak



Iturria: egileek egina.

¹Ikerlan honen beste kapitulu batzuetan seinalatzen genuenez, definizio hauek ditugu abiapuntu. Bigarren belaunaldia EAEn jaiotako edo lau urterekin edo gutxiagorekin berriz elkartutako multzoa da, gutxienez gurasoetako bat atzerritar jatorrikoa dutenena. 1.5 kategoria, berriz, gutxienez gurasoetako bat atzerritar jatorrikoa izanik, bost eta hamaika urte bitartean zituztela berriz elkartutako multzoa da. Azkenik, hamabi eta hamabost urte bitartean zituztela (1.25 belaunaldia) eta hamasei urterekin edo gehiagorekin berriz elkartutakoak daude (1.0 belaunaldia), eta horiek migrazioa lehen pertsonan egindakoen kategoriakotzat jotzen dira, gutxi asko.

egindako azterketak (Gualda, 2010²; García eta Carrasco, 2011³; Aparicio eta Portes, 2014⁴). Alabaina, atzerritar jatorriko familiek berezitasun batzuk dituzte eta askotarikoak dira, eta alderdi horiek jaso nahi genituzke beren diskurtsoen, identitateen, motibazioen, kezken, asmoen, irriken, espektatiben, integrazio-prozesuen, arazoen eta abarren bidez. EAEra iritsitako bigarren belaunaldien argazki zehatz bat egin nahi dugu, ikuspegi kualitatibo baten bidez, eta, hala, ikerlanaren 2.3 kapitulua “Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte)” eta haren emaitzak osatu eta azaldu.

Hori horrela izanik, atzerritar jatorrikoen eta haien ondorengo familien errealitatea jasotzea eta ulertzea da lan honen funtsezko helburua, eta, horretarako, aipatutako ikerlanetan identifikatutako zenbait esparru eta alderdi garrantzitsu kontuan hartu dira. Eta asmo handiko helburu hori betetzeko, familia-elkarrizketaren teknika aukeratu dugu. Elkarrizketa horiek teknika moduko bat dira, bakarkako elkarrizketa sakonaren eta eztabaida-taldeen artekoa: familia-giroko mikrotalde bati egindako elkarrizketa, nolabait esanda. Elkarrizketa horiek aukera paregabea dira familiako kideak elkartzeko eta haien dinamikak, agerikoak zein ezkutukoak, azaleratzeko.

Ikerlanaren kapitulu honek hainbat atal ditu: atal metodologikoa, familia-elkarrizketak zehazten dituena; familia-dinamiken azterketa, arreta berezia jartzen diona genero-ikuspegiari; eskola-esparruaren eta haren garrantziaren inguruko atala; identitateari eta hark erlijio-esparruarekin duen loturari buruzkoa; hizkuntzari loturiko atala, integraziorako zein transmisorako bide den aldetik; gizarte-harremanei eta horiek gurasoen eta ondorengo integrazio-prozesuan duten eraginari buruzko atala; eta, azkenik, gurasoen zein seme-alaben espektatibei buruzkoa, batzuen eta besteen jarrera ulertzen laguntzen digun begirada baikorrari buruzkoa, alegia.

²Gualda, E. (2010). *La segunda generación de inmigrantes en Huelva: estudio HIJAI*. Xativa: Estrella Gualda.

³García, F., eta Carrasco, S. (2011). *Población inmigrante y escuela: Conocimientos y saberes de investigación*. Madril: Hezkuntza Ministerioa.

⁴Aparicio, R., eta Portes, A. (2014). *Crece en España. La integración de los hijos de inmigrantes*. Bartzelona: “La Caixa” Gizarte Ekintza.

1

Familia-taldeak: metodologia eta lagina

Esan bezala, familiak dira pertsona guztien sozializazioaren eta garapenaren oinarria, eta, beraz, funtsezko pieza dira bigarren belaunaldien puzzlean. Familia-egoeren aniztasuna ulertzeak, beraz, fenomeno bere osotasunean ulertzen lagunduko digu.

Familia-ingurunearen diagnostikoa egiteko, inkesta baliatu genuen hurbilketa-rako teknika kuantitatibo moduan. Ikasleei eta gurasoei egindako inkesta horien bidez, esparru hauek aztertu ziren: komunitatea, hezkuntza, familia, identitatea, ongizatea eta espektatibak.

Alabaina, hurbilketa hori deskribatzailea izan zen, hots, diagnostiko ona egiteko eta atzeritar jatorriko familien eta/edo bertako familien arteko desberdintasunak adierazteko aukera ematen digu, baina ez digu asko laguntzen desberdintasun horiek guztiak ulertzen, ez eta haien jatorria eta aztertutako esparruen inguruko diskurtsoak ulertzen ere. Helburu horrekin, hain zuzen ere, hurbilketa kualitatibo bat egin zen, aurrez aipatutako esparruak aztergai hartuta, hezkuntza-arloan eta psikologia sozialean asko erabiltzen den teknika bat erabiliz, familia-elkarrizketa erabiliz, hain zuzen (Minuchin, 1974⁵). Teknika horrek familia bateko kide batzuk edo guztiak mikrotalde batean biltzen ditu, eta aukera ematen digu familia-nukleo bereko diskurtsoen aniztasunari buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko, belaunaldien arteko logika azterlanean txertatzeko, familia-dinamikak ezagutzeko eta gainerakoan esparru pribatura mugatzen den errealitate batera iristeko.

Familia-elkarrizketak egitean, berebiziko garrantzia du horretarako leku egokia aukeratzeak; horregatik, elkarrizketatutako pertsonen etxeetan egiten dira, eta,

⁵ Minuchin, H. (1974). *Concepción sistémica del desarrollo familiar*. Buenos Aires: Paidós.

horri esker, pertsona horiek beren bizitza-istorioak kontatzeko prestutasun handiagoa dute, espazio ezagun, eroso eta natural batean daudelako. Aldi berean, elkarrizketarako gidoi irekia erabiltzea erabaki da, elkarrizketatutako familian elkarrekin bizi diren gurasoei, seme-alabei edo beste senide batzuei hitz egiteko lekua emango diena; eta horrek, sarritan, bat-bateko eztabaidak edo familia barruko gogoetak eragiten ditu, beste ikerketa-teknika batzuen bidez jaso ezin direnak.

Esanak esan, teknika horrek baditu zailtasun batzuk ere; esate baterako, familiako kide guztiak elkartzea eskatzen du, elkarrizketa egiteko. Zailtasunak eragiten ditu, halaber, familia-elkarrizketaren bidez bilatutako informaltasunaren ondorioz, elkarrizketatutako pertsona batzuk elkarrizketa egin bitartean sartu eta irten ibiltzeak, batez ere haur txikiak tartean direnean.

Familia-elkarrizketek, batez beste, bi ordu inguru iraun zuten, eta 2018ko ekainetik 2019ko irailera bitartean egin ziren.

Atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboaren barruan dagoen aniztasuna jasotzeko helburuarekin, hogeit hamar elkarrizketa egin ziren, elkarrizketatuek zer jatorri zuten, zer lurraldetan bizi ziren, zer familia mota ziren eta zer osaera zuten kontuan hartuta. Informazio hori guztia 1. koadroan dago zehaztuta.

1. koadroa. Lagina

ALDAGAIA	DESKRIBAPENA
JATORRIA	Txinatar jatorriko 4 familia
	Latinoamerikar jatorriko 4 familia
	Errumaniar jatorriko 4 familia
	Magrebtar jatorriko 4 familia
	Saharaz hegoaldeko jatorriko 4 familia
LURRALDE HISTORIKOA	Arabako 7 familia
	Gipuzkoako 7 familia
	Bizkaiko 7 familia
FAMILIA MOTA	Gurasobakarra
	Nuklearra
	Zabala
FAMILIAREN OSAERA	Mistoa
	Jatorri bereko gurasoak

Iturria: egileek egin.

Elkarrizketatutako pertsonen anonimotasuna babesteko eta testigantzak errazago irakurtzeko, 2. koadro honetan zehaztutako kode-sistema baliatu dugu.

2. koadroa. Elkarrizketen zerrenda

Kodea	Jatorria	Lurralde historikoa	Familia mota	Seme-alabak
E1	Magreb	Bizkaia	Nuklearra	2, LH
E2	Latinoamerika	Bizkaia	Zabala	2, LH
E3	Magreb	Bizkaia	Nuklearra	2, LH
E4	Magreb	Araba	Nuklearra	4, LH eta DBH
E5	Saharaz hegoaldeko Afrika	Araba	Gurasobakarra (ama)	2, DBH
E6	Errumania	Araba	Gurasobakarra (ama)	3, LH eta DBH
E7	Saharaz hegoaldeko Afrika	Gipuzkoa	Gurasobakarra (ama)	3, DBH
E8	Magreb	Araba	Zabala	1, LH
E9	Errumania	Gipuzkoa	Nuklearra	2, LH eta DBH
E10	Errumania	Gipuzkoa	Nuklearra	2, LH
E11	Txina	Bizkaia	Nuklearra	1, LH
E12	Txina	Araba	Nuklearra	2, LH eta DBH
E13	Errumania	Gipuzkoa	Nuklearra	2, DBH
E14	Txina	Araba	Nuklearra	2, LH
E15	Saharaz hegoaldeko Afrika	Gipuzkoa	Gurasobakarra (ama)	3, LH eta DBH
E16	Latinoamerika	Gipuzkoa	Gurasobakarra (ama)	2, LH
E17	Latinoamerika	Bizkaia	Gurasobakarra (ama)	1, LH
E18	Latinoamerika	Araba	Nuklearra	3, LH
E19	Saharaz hegoaldeko Afrika	Bizkaia	Nuklearra	1, LH
E20	Txina	Bizkaia	Nuklearra	2, LH

Iturria: egileek egina.

2

Familia-dinamikak

Honako atal honetan, familia-mikrotaldeekiko lanak eskura jartzen dizkigun gaietan garrantzitsuenetako bat aztertuko dugu: familia-dinamika. Hau da, nola antolatzen diren atzerritar jatorrikoen edo haien ondorengoek familiak, beren eguneroko bizitzan, lan produktiboa eta lan erreproduktiboa bateragarri egiten saiatzeko. Alderdi horri lotuta, ikusiko dugu gai horri emandako erantzuna izugarri aldatzen dela familia motaren (gurasobakarra, nuklearra, zabala, ugaria, etab.) eta familiako kide helduen lan-egoeraren arabera. Oso garrantzitsua da familien aniztasun hori aintzat hartzea; izan ere, Aniztasuna ikasgeletan azterlaneko datuek erakusten zuten bezala, atzerritar jatorriko pertsonen etxeetan pertsona gehiago bizi dira, batez beste, bertako pertsonen osatutako etxeetan baino. Era berean, atzerritar jatorriko familietan handiagoa da gurasobakarreko familien intzidentzia (ama bakarrekoen), bai eta seme-alaben kopurua ere (Fernández, Shershneva eta Fouassier, 2017⁶). Hori horrela izanik, talde-dinamikan behin eta berriz adierazten ziren familia-antolaketaren funtsezko alderdiak aztertuko dira: ondorengotza, etxeko lanak, ikastetxearekiko harremana, familiako aisialdia, laguntza-sarea eta kontziliazio-estrategiak. Eta, horrez gain, azterketa honetan, arreta berezia jarriko zaie dinamika horietatik eratorritako genero-desorekei.

⁶Fernández, I., Shershneva, J. eta Fouassier, M. (2017). Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte). Hemen: J. A. Oleaga Páramo. (Arg.), *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. Hemendik hartua: https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P2_CAP3_aulasEUS_DEF_reduc.pdf

Familia-antolakuntza: denbora eta zereginak

Lan erreproduktiboa aipatzen dugunean, lan produktiboaren aurrean, etxeko pertsonen zaintza, ongizatea eta biziraupena bermatzeko beharrezkoak diren zereginen multzoak ari gara. Hau da, erreprodukzio edo ugalketa biologikoari lotutakoez gain, erreprodukzio sozialari edo gizartearen biziraupenari lotutakoez: etxea eta etxekoak zaintzeaz, ohiturak erreproduzitzeaz edo transmititzeaz, hazkuntzaz eta hezkuntzaz, kidekoen arretaz eta zaintzaz eta gizarteko talde jakin baten balioen arabera sozializatzaz. Hain zuzen ere, lan produktiboa (sostengu ekonomikoa) alde batera utzi gabe lan erreproduktiboa egite aldera familia-agenda antolatzeke ahalegina da, hain zuzen, familiak antolatzeke beharra eragiten duena, bai bertako familietan eta bai atzerritar jatorrikoetan. Hala ere, aurretiazko azterketek erakusten dutenez, atzerritar jatorriko familiek zailtasun handiagoak dituzte kontziliazioaren puzzlea osatzeko (Fernández et al., 2017).

Alde horretatik, **ondorengoak** izatea funtsezko pieza da puzzle horren konplexutasunean. Talde-dinamikek agerian uzten dute alderdi hori, diskurtsoek deskribatzen duten egoerarekin: lanegun gogorak eta seme-alaben zaintzarekin uztartu beharreko ordutegi konplexuak.

“Lan egin eta gimnasia joan besterik ez dut egiten. Nik lan asko egiten dut, asteburuetan batez ere. Zaila da haiekin egotea”. (E6)

“Lana egin eta umeak zaindu behar dira. Eta nola egiten da hori txandaka lan eginda?”

“Eta laneko txanda horiekin, nola moldatzen zara biak zaintzeko?”

Am⁷: Lana egin eta umeak zaindu behar dira. Eta nola egiten da hori txandaka lan eginda? Eta guardia duzunean? Nola egiten da hori, guardian zaudela, goizeko 5:00etan deitzen dizutenean?

Ez dakit, bada. Beste norbaiti deituta, ezta?

Am: Ez pentsa. Batzuetan, ez da mesede hori egingo dizun inor izaten. Agian behin bai, baina ez beti. Gainera, bakarrik nago haiekin; senarrak utzi gintuen. Eta, orain, nori deituko diot?” (E16)

Goiko bi testigantzek errealitate bera uzten dute agerian, kontziliazioa familia guztientzat erronka bada ere, are gogorragoa baita ama bakarreko familientzat edo familiako edo bestelako laguntza-sarerik ez dutenentzat.

Lan erreproduktiboa seme-alabei lotuta dago, eta, besteak beste, eskolari lotutako zereginak dakartza berekin. Bereziki konplexutat aipatzen dira honako hauekin zerikusia dutenak: haurrei ikastetxeko joan-etorriak egiten laguntzea —lan-ordutegiarekin bateraezina denean—; eskolako lanekin laguntzea —ezjakintasunagatik, baliabide materialik ezagatik edo denbora faltagatik—; eskolan inplikatzeko —erakundean bertan edo guraso-elkartean, lanaldiarekin bateraezina denean—; tutorearekin bilerak egitea; edo gaixotasunagatik edo oporregatik eskolakoak ez direnaldiak kudeatzea.

⁷Hauek dira elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak identifikatzeko gakoak: Am: ama, Ai: aita, Se1: 1. semea, Se2: 2. semea, AI1: 1. alaba, AI2: 2. alaba, Ax: aitona/amona.

“Nola antolatzen zarete umeak zaintzeko?

Am: Ni lanean nagoela, oporretan badago, berak laguntzen dit.

Goizean, jaiki eta ikastetxean uzten ditut, eta handik, lanera joaten naiz. Orain, hiru orduz besterik ez dut lan egiten. Lehen goizez lan egiten nuen, bai eta iluntzeko 8etan ere, amonaxo batekin. Baina hil zen, eta orain, esku hutsik geratu naiz. Orain, zerbaiten bila nabil.

Baina hori bai, goizetan, oporretan daudenean, amak laguntzen dit.

Am: Neba ere etortzen zaio batzuetan, neskatoa uztera, txikiena, urtebete duena.

Ax: Txikitxoena da.

Am: Hura uztera etortzen dira, nire nebek ere lan egiten baitute, batzuetan.

Ax: Guztiei luzatzen diet eskua. Handienak ere ekartzen dizkigute, niri edo senarrari, eskolan edo institutuan gaixotzen badira”. (E2)

“Eta nola ikasten du?

Am: Arratsaldeetan arabiera-irakasle bat etortzen da, eskolak ematera.

Eta eskolako lanekin laguntzeari dagokionez...

Am: Lanik ez badut, nik laguntzen diet, baina euskararekin ezin... Esan dudanez, gaztelania apur bat badakit, bai, baina euskara ez.

Ai: Euskararekin ez dugu arazo handirik izan. Hauek jada koskortuta zeuden eta, baina niri euskaraz egiten badidate, ez dut ulertzen. Hamar hitz ulertzen ditut”. (E9)

“Nola moldatzen zarete eskolako lanak egiteko?

Se1: Asteazkenetan eta ostiraletan eskola partikularrak ditugu. Pedagogo batengana joaten gara, eskolako lanekin eta lagundu diezagun.


Ikastetxean bertan?

Se1: Ez, Donostian, autobusaren ondoan.

Am: Guk ordaintzen dugu, aparte, ordu estrak balira bezala, horregatik diogu partikularrak direla. Apur bat laguntze aldera. Guk ez dakigunez oso ongi hitz egiten, gauzak azaltzeko, hobe da beraiek ikas dezaten. Han, guztiarekin laguntzen diete: ingelesarekin, euskararekin... guztiarekin”. (E13)

Arazo horiek konpontzeko, goiko aipu horiei erreparatuta ondoriozta daitekeen bezala, familiek lana eta familia bateragarri egiteko **kontziliazio-estrategiak** garatzen dituzte. Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, estrategia horietako asko baliatzen dituzte bertako familiek ere, baina badira espezifikoagoak diruditen batzuk. Honako eskema honetan (2) ageri dira:

2. eskema. Kontziliazio-estrategiak



Iturria: egileek egina.

Familia ugaria edo zabala izanez gero, ohikoa da, bertako pertsonen kasuan bezala, aitona-amonak (bereziki amonak aipatzen badira ere) seme-alabak zaintzeaz arduratzea, premiazko egoeretan. Anai-arreba nagusien lana ere aipatzen da, txikienei ikastetxera joaten edo eskolako lanak egiten laguntzen baitiete. Era berean, lana eta familia bateragarri egiteko beste baliabide bat da ikastetxeko lagunek eta auzokoez osatzen duten laguntza-sarea; esate baterako, goizean, familia batek eramaten baditu umeak ikastetxera, eta arratsaldean, beste batek jasotzen baditu. Baliabide publikoak ere aukera gisa ageri dira: ikasleak ordubete lehenago sartzea ikastetxera eta eskolako lanak egiteko laguntza-tailerrak izatea, ikastetxean edo gizarte-etxeetan, edo eskola-laguntzako langileen laguntza izatea. Familia batzuek profesionalak kontratatzen dituzte laguntza emateko, eskolako lanekin, batez ere. Azkenik, lanera sartzeko eta lanetik irteko ordutegiak malgutzeko enpresarekin eta laneko arduradunarekin negoziatzea ere ohiko baliabidea da, baina ez beti eraginkorra.

Nabarmentzekoa da aurretik aipatu dugun “Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte)” azterlanaren diskurtsoen eta datuen artean dagoen koherentzia. Azterlanak erakusten zuen atzerritar jatorriko aurrekoak zituzten ikasleek laguntza handiagoa behar izaten zutela bertako familietako ikasleek baino. Izan ere, gurasoek lehen hezkuntzako ikasketak baino ez dituzten edo ikasketarik ez duten familietan, gehiago dira eskolako lanak egiteko laguntzarik ez duten haurrak, eta egoera hori ohikoagoa da atzerritar aurrekoak dituzten familien artean (Fernández et al., 2017). Garrantzitsua da hori azpimarratzea, hezkuntza publikoa gizartearen eragile-berdintzaile edo -mugarazlea dela dioen diskurtsoa zehazteko. Prestakuntza eta errendimendu akademikoa ikastetxean garatzen dira batez ere, baina baita etxean ere, eta, datuen zein diskurtsoen arabera, hor daude desberdintasun eta zailtasun handienak, jatorri edo aurreko atzerritarreko familientzat.

Aipuek agerian uzten dute, halaber, seme-alaben zaintza eta ongizatea emakumeen esku dauela, amen edo amonen esku, batez ere. Gai horiek ez dira ohar-kabeaz pasatzen, baina berariaz aztertuko dira hurrengo atalean.

Lan erreproduktiboari lotuta daude **etxeko lanak** ere, garbiketa eta elikadura, nagusiki, eta horretan, berriz ere, aldagai garrantzitsua da familiaren tamaina (kide kopurua), lana zenbat pertsonaren artean banatzen den zehazten baitu.

“Nola banatzen dituzue etxeko lanak?”

Am: Gehienak nik egiten ditut, senarrak lan asko egiten baitu. Gauz laguntzen dit apur bat, umeak oheratzen eta harrikoa egiten.

Baina zuk ere lan egiten duzu, ezta?

Am: Bai... Baina nik egin ditzaket. Ez naiz hasiko beste bati ordaintzen. Umeak txikiak dira oraindik, beraiek lagunduko didate, gero”. (E12)

“Am: Hala da, biek laguntzen didate guztiarekin, oso ume onak dira.

Eta hori asteburuetan egiten duzue?

Se2: Oso zikin dagoenean. Tira, ez hain gutxitan, zikin dagoenean.

Am: Egia. Ez dezazula pentsa etxea hala moduz izaten dugunik. Denborarik ez dudanean laguntzen didate. Nik egun bat bai eta bestea ez lan egiten dut, eta, lan egiten dudan egun horretan, berandu banabil, lagundu egiten didate, noski. Bizkorrago oheratu ahal izateko edo. Asteburuan egitea ez da araua; behar denean egiten da. Eta batzuetan nik bakarrik egiten dut, presarik edo beste zereginik ez badut.

Behar dudanean laguntzen didate, egunero ez bada ere.

Ulertzen dizut. Egunerokoan zu zara lan horiek egiten dituen, batez ere.

Am: Bai, nik jasotzen dut guztia.

Eta senarrak ere bai?

Am: Asteburuan bai, laguntzen dit (senarrak ez du ezer esaten)". (E13)

"Mutilek ez dute beti etxean laguntzen; zuk aginduta ere, ez dute nahi izaten. Neskek apur bat gehiago laguntzen dute. Azkenerako, egunero apur bat egiten dut, eta, lanik ez dudan egunean, dena txukun-txukun uzten dut. Pozik mahaia jartzen badute, ohea egiten badute...". (E16)

"AI1: Eta dirua nahi baduzu, etxean zerbait egin behar duzu.

Hori da, harrikoa edo beste etxeko lanen bat egin behar duzu.

AI1: Bai, ohea egin edo. Etxean zereginak ditugu, eta horren arabera ematen digute astesaria. Ez beste batzuei bezala, ezer egin gabe ere ematen baitiete.

Eta etxean gauzak egiten dituzue?

Zenbaitek: Bai.

AI2: Behartuta gaude.

Se: Behartuta, bai.

Eta nola banatzen dituzue zeregin horiek?

AI2: Egunean gela bat egin behar dugu, geure logelaz gain. Ze

nork bere gela egin behar du, bai ala bai.

Zer egun da gaur?

Osteguna.

AI2: Bada, gaur komuna egin behar dut.

AI1: Nik, sukaldea.

Se: Eta nik, egongela.

Eta zuk ezer ez?

Am: Nik asko. Beraiek egin arren, ongi ez badut ikusten, gaizki dagoela esaten diet.

Eta gero, larunbatero nik egin behar, ongi-ongi geratu dadin. Garbiketa orokorra egiten dut. Ezin dut utzi beraiek eginda bezala.

Oraindik ez.

Am: Baina egin dezatela, gutxienez". (E7)

"Mutilek ez dute beti etxean laguntzen; zuk aginduta ere, ez dute nahi izaten. Neskek apur bat gehiago laguntzen dute."

"Etxean zereginak ditugu, eta horren arabera ematen digute astesaria."

Aipuetan ikusten denez, emakumeek funtsezko eginkizuna dute etxeko lanetan, bi zentzutan: bai egile diren aldetik eta bai antolatzaile diren aldetik. Beraiek dira guztiaren azken arduradun, eta, lanak banatzen badira, beraiek dira zereginak banatzen dituztenak. Seme-alabek eta senarrak "laguntza" ematen dietela diote, baina "laguntza" hitza erabiltze hutsak jada adierazten du nor den arduraduna eta nork ematen duen unean uneko babesa. Hala ere, aipagarriak dira familia ugarietako kideen artean irizpide eta teknika desberdinekin egiten diren banaketak. Pertsona gehiago izateak lan gehiago eskatzen du, askotan pertsona bakar batek egin ezin duen adina. Hala, badirudi mota horretako fami-

lietan erreagoa eta landuagoa dela zeregin-banaketa hori, nahiz eta ama den, horietan ere, lanen antolatzaile eta egile nagusia.

Familiek elkarrekin igarotzen duten denbora hizpide hartzen badugu, hau da, denbora libre edo aisialdia, pertsona askok diote horretarako denbora gutxi dutela eta duten hori asteburuan pilatzen dela, batez ere. Alabaina, ez dute lanaldi mota guztiek asteburuaz gozatzeko aukerarik ematen. Askotan, erlijioarekin edo kirolarekin lotutako asteburuetako planak ikusten ditugu.

“Mezatara joaten zarete?”

Am: Elizara, bai.

AI1: Igandeetan.

Am: Hauek han abesten dute.

Abesbatzan?

Am: Bai.

Eta horrez gain, zer egiten duzue?

AI1: Errugbia”. (E7)

“Eta familiarekin egoten zarete edo egiten duzue zerbait elkarrekin?”

Ai: Igandetan izatekotan, larunbatetan zaila zaigu, eta astean zehar, ostegunetan, akaso”. (E11)

“Nik dudan denbora eskolako lanak egiten ematen dut, eta ia ez zaigu denborarik geratzen guztiok elkarrekin egoteko.”

“Garrantzitsua da familiaz gozatzea ere, ezta?”

Am: Larunbatean esan nahi duzu?

Bai, asteburuan.

Am: Nik lana izaten dut askotan. Eta ez da beti jolaserako astirik izaten. Eskolako lanak badituzu, garrantzitsuagoak dira. Nik dudan denbora eskolako lanak egiten ematen dut, eta ia ez zaigu denborarik geratzen guztiok elkarrekin egoteko”. (E16)

Etxea eta generoa: esandakoaren eta ikusitakoaren arteko aldea

Azterketa honetarako egin den landa-lanean, elkarrizketatzaileek audioetan erregistratzen ez ziren gauza batzuk idatziz jaso zituzten, behaketaren ondorioz hautemandakoak. Familiako mikrotalde bilerak beren etxeetako egongelatan egiten dira, familian, giro natural eta erosoan. Agian horregatik, elkarrizketatutako pertsonen naturaltasunak genero-ikuspegitik aztertu daitezkeen eta aztertu behar diren xehetasun batzuk erakusten zituen. Euskadin urteak eman arren, hizkuntza ez dakiten eta senarraren (edo seme-alaben) bidez komunikatu behar izaten duten emakumez ari gara; batzuetan hitzez eta beste batzuetan begiradaz, hitz egiteko baimena eskatzen duten emakumez; hizketan ari direnean egiten dizkieten etenez eta etengabeko zuzenketez; eta, gehienetan, aperitiboak eta edariak modu atseginean prestatzen eta zerbitzatzen dituzten emakumez. Garrantzi handiegirik gabeko dinamikez ari gara, audioetan edo txostenetan oso gutxitan identifikatzen direnez, baina erregistratzen ditugun

esaldien atzean ezkututzen den hutsunea erakusten edo ageriko egiten dutenez: “Nire etxean mundu guztiak lan egiten du”, “denok laguntzen dugu guztia-ekin” edo “hemen dena berdina da”.

Alde horretatik, mikrotaldeekin egindako lanean lehenbizi azaleratzen den gauza diskurtsoen arteko aldea da, elkarriketaren lehen faseetan ematen den hasierako diskurtsoaren eta amaierako diskurtsoaren artean dagoen aldea, hain zuzen. Lehena teorikotzat har genezake, eta gizartean onargarriak eta onartuak diren narratibetan oinarritzen da; azkenak, berriz, xehetasun eta gogoeta handiagoa biltzen ditu, konfiantza handiko giroa lortzen denean, batez ere. Bestela esanda, genero-ekin lotutako gaiak oso gutxitan agertzen ziren berez edo azkar, elkarriketatzaileen sakontze-lanaren edo elkarriketatuek beste xehetasun batzuk azaltzean egindako deskuiduen ondorioz baizik. Esate barerako, familiako amak “laguntza” zuela eta seme-alabak berdintasunean hezten zituela esan zuen elkarriketa berean, hau esan zuen alabak, aurrerago:

“Gure gizonak, gure bikotekideek, garbitu eta xurgagailua pasatu dezaten lortzen dugu.”

“Al: Amak antzinako bizimodua du, emakumeek guztia egiten zutenekoa, jaten ematen zutenekoa eta abar. Zentzu horretan, ahizpak eta ni ez gara halakoak. Gure gizonak, gure bikotekideek, garbitu eta xurgagailua pasatu dezaten lortzen dugu”. (E2)

Nabarmentzekoa da “lagundu” hitza erabiltzea ere, teorian eta berdintasun-testuinguru batean parekidea izan beharko lukeen erantzukizun bat aipatzeko. Era berean, jabetu gara zenbait pertsonak diskurtsoa aldatzen dutela elkarriketak aurrera egin ahala, erosotasun handiagoa sentitzeagatik edo hausnarketaren ondorioz. Hala, emakume batek “Nola banatzen dira etxeko lanak? Berdin denen artean ala bada gehiago egiten duen norbait?” galderari “Berdin, bai. Bakoitzak ahal duena egiten du” erantzun ostean, honela adierazi zuen egoerak sorrarazten zion erabateko frustrazioa:

“Eta, une hartan, ez zenuen laguntzarik?”

Am: Begira, senarra ez dago gurekin jada, baina gurekin zegoenean ez zuen ezer egiten. Nik esaten nion, bai, ezer egin behar ez baduzu, zoaz hemendik. Jendearen aurrean babesten nuen, baina umeekin jolastu besterik ez zuen egiten.

Eta orain, semeak?”

Am: Aita bezalakoxeak dira. Traste horrekin, bideokontsolarekin, jolastu eta beren gauzak egin besterik ez dute nahi; ez dute ezertan laguntzen. Gehiago ezin duzula ikusi arren... Hortxe egoten dira, sofan. Jakin ere ez dakite nola lagundu, eta zerbait egiten dute, baina okerrago da, ez baitakite nola egin behar duten”. (E16)

Aipatzekoa da emakumez soilik osatutako taldeen diskurtsoak zuzenagoak eta argiagoak direla; izan ere, elkarriketatzaileen oharrek erakusten dutenez, pare bat aldiz bederen beharrezkoa izango zen banakako elkarriketa bat egitea, gai sakontzeko.

Hamaika keinu, xehetasun eta diskurtsok errealitate bat erakusten dute: seme-alabak etxeko emakumeenak dira. Seme-alaben osasuna, eskolako erren-

dimendua, ongizatea, eskolako bilerak... Amen gain geratzen da ardura guztia. Badirudi elkarrizketatutako familietako gizonak ez dutela askorik egiten, aisialdian edo jolasean ez bada. Atal honetan orain arte jaso ditugunez gain, badira errealitate horiek ageriko egiten dituzten beste aipamen batzuk:

“Eta ikastetxera joaten zen?”

Am: Ez. Nik ikusten nituen bertako aita batzuk, baina nire senarra inoiz ez. Galdetu ere ez zuen egiten, neuk esan behar izaten nion. Haiekin jolasteko bai, baina ez etxean beste ezer egiteko. Ez dut alderik sumatzen.

Ene bada...

Am: Hala da, eta ez zait niri bakarrik gertatzen, baina nik esan egiten dut”. (E16)

“Nik ikusten nituen bertako aita batzuk, baina nire senarra inoiz ez. (...) Haiekin jolasteko bai, baina ez etxean beste ezer egiteko.”

“Se1: Alfer hutsa da etxean.

Bai, etxean ere bai?

Se1: Egun guztia ohean etzanda, telebistari begira.

Eta zu, gizajo hori, erratza pasatzen, ziur.

Se1: Ez, ni ere ohean egoten naiz, Playarekin jolasten.

A ze parea! Azala behar da gero. Eta, orduan, nork egiten ditu etxeko gauzak?

Se1: Nire amak”. (E9)

“Harreman ona duzu irakasleekin? Asko hitz egiten duzu haiekin?”

Am: Bai, nik bakarrik hitz egiten dut ia. Hurbilago nagoenez... Baina halaxe izan da beti.

Beti hartu duzu ardura hori; zu izan zara erreferentziazko pertsona, beti.

Am: Bai”. (E6)

Gai horiek koherentzia estua dute familia-testuinguruetan egindako azterlan kuantitatiboaren emaitzekin, gurasoetako bat gutxienez atzerritar jatorriko zen etxeei dagokienez. Jada aipatu dugu ama izaten dela familiako erreferentziazko pertsona ikastetxearekiko harremanean, bai bertako familietan eta bai atzerritar jatorrikoetan (kasuen % 88), nahiz eta bertako familietan aitaren presentzia aipagarriagoa den atzerritar jatorrikoetan baino (Fernández et al., 2017).

3

Eskola-esparrua

Atal honetan, atzerritar jatorriko familien eskola-esparruko errealitatea aztertuko da. Lehenik, ikastetxea aukeratzeko prozesuarekin lotutako alderdiak landuko dira. Ondoren, atzerritar jatorriko gurasoek ikastetxearekin eta beste guraso batzuekin dituzten harremanei buruz egiten dituzten diskurtsoak aztertuko dira, bai eta ikastetxeko aniztasunari buruz eta, oro har, giroari buruz egiten dituzten diskurtsoak ere. Azkenik, atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabentzako eskola-laguntzari buruzko alderdiak aztertuko dira, eta bereziki azpimarratuko da euskara ikasteari buruz duten ikuspegia.

Ikastetxearen aukeraketa

Elkarrizketatutako atzerritar jatorriko familiek zer irizpideri jarraitzen dieten aipatzean, lehenengoa eta garrantzitsuenak ikastetxea bizilekutik gertu egotea da. Hala, guraso gehienek adierazi dute, lehenik eta behin, hurbileneko ikastetxeekiko interesa agertu zutela.

“Am: Hurbilagoko ikastetxe bat bilatzen saiatu gara, besterik gabe”. (E4)

“Eta zergatik aukeratu zenuten ikastetxe hori?”

Am: Nik aurkitu dut, begira ibilita. Eta gertu dugu.

Hurtzaindegi bila ere banenbilen, eta ez dago hain gaizki. Ez dago aukera handirik. Semeari ez zaio asko gustatzen. Baina oso ikastetxe ona da”. (E12)

“Zergatik aukeratu zenuen ikastetxe hori?”

Am: Bizi guztian horkoa izan naizelako. Etorri nintzenetik, zezen-plazaren aurren bizi nintzen.

Hurbiltasunagatik ere bai, ezta?

Am: Bai”. (E2)

“Am: Hurbilago zegoen ikastetxe bat aurkitu genuen hemen, baina ez zegoen lekurik”. (E4)

“Eta zer moduz? Gustuko duzu?”

Al2: Bai.

Am: Santa Teresita ere gustuko zuen. Baina hura Barakaldon dago, eta urrun gertzen zaigu. Horregatik ekarri nuen hona”. (E2)

Hala ere, kasu batzuetan hurbiltasuna ez da izan irizpide bakarra, eta beste faktore batzuk ere hartu izan dituzte kontuan, hala nola hezkuntza-eskaintza edo beste pertsona batzuen erreferentziak. Irizpide horiek Ikuspegi egindako “Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte)” azterlanean ere ageri ziren. Azterlan horretan adierazten zenez, atzeritar jatorriko gurasoek familia-etxebizitzatik hurbil egoteagatik aukeratzen dute ikastetxea oro har (% 55,4); alabaina, prezioak, kalitateak eta hezkuntza-eskaintzak ere (% 13,3) eragina dute ikastetxe baten edo bestearen alde egiteko aukeran (Fernández et al., 2017).

“Bazenekien ezer ikastetxe horri buruz? Zerbait esan zizuten?”

Am: Ez, baina gustatu zitzaidan, lagun baten alabatxori euskaraz hitz egiten dezente irakatsi ziotelako. Eta begiko ditut hasieratik, nahikoa lagundu zidatelako. Semeak ez bazuen zerbait ulertzen, lagundu egiten zioten. Medikiak, psikologoak eta abar zituzten. Eta alaba txikitan han sartu zenean, garbi-garbi izaten zuten, oraindik pardela erabiltzen bazuen ere”. (E2)

“Gustatu zitzaidan, lagun baten alabatxori euskaraz hitz egiten dezente irakatsi ziotelako. Eta begiko ditut hasieratik, nahikoa lagundu zidatelako. Semeak ez bazuen zerbait ulertzen, lagundu egiten zioten. Medikiak, psikologoak eta abar zituzten. Eta alaba txikitan han sartu zenean, garbi-garbi izaten zuten, oraindik pardela erabiltzen bazuen ere.”

“Eta zergatik aukeratu zenuten ikastetxe hori? Bazenuen beste aukerarik ala hara joan zineten zuzenean?”

Am: Niri asko gustatu zitzaidan, galdetu nuenean. Lehenik mutikoaren izena eman nuen. Eta, egia esan, hurrekiko eta gurasoekiko harremana, nola hartzen zaituzten eta hori guttia, oso hurbilekoa da. Ez nituzke hemendik aldatuko.

Al: Eta, gainera, etxetik hurbil dago.

Am: Bai, hurbiltasunagatik ere bai. Eta irakasleak gurasoekiko eta seme-alabekiko erakusten duten hurbiltasunagatik ere bai. Aise komunikatzen zara haiekin, eta berehala kasu egiten dizute, edozer dela ere”. (E3)

Horrela, ikus dezakegun bezala, tratua da garrantzi handiena ematen zaion beste alderdietako. Horri lotuta, pertsona batzuek aipatu dute beste pertsona batzuen erreferentziak hartu dituztela kontuan beren seme-alabentzat ikastetxea aukeratzeko orduan, eta, batez ere, hezkuntza-zerbitzuen kalitatea.

“Baina orain zaudeten horretatik aldatzea gustatuko litzaizueke?”

Am: Niri bai. Eurei ez, txikiak direlako; baina niri bai. Mailagatik. Ikastetxe honetakoa baino maila handiagoa ikusten dut. Eta gehiago ikasteko aukera”. (E13)

“Eta, gainera, alabaren gelan hamar-hamabi ikasle baino ez daude”. (E2)

Bestalde, familia batzuek diote ez zutela ikastetxe jakin bat aukeratu, plaza li-break zituen bat esleitu zitzaiela besterik gabe, matrikulazio-alditik kanpo iritsi zirelako.

“Ezer jakin gabe eman zenuten izena Barrutian... Esan nahi dut inork ez zintuztela aholkatu edo inork ez zizuela esan ikastetxe ona zenik ez besterik.

Am: Ez. Lekua zuten, eta etxetik hurbilen zegoen. Zure senar ohiak ere ez zekien ezer honetaz?

Am: Ez. Hona iristen zaren arte ezin baituzu ezer eskatu. Ezta begiratu ere, ez baitizute uzten. Behin hona etorri ginenean, Hezkuntza Sailera joan ginen, hor dagoen horretara, eta lekua eskatu genuen. Ikasturtea hasita zegoela esan zidaten, eta, horregatik, egokitzen zen tokian emango zigutela. Ezin duzu aukeratu. Esan zidaten hurrengo urterako begiratu dezakegula ea baden interesatzen zaigun bat, eta eskaera egin dezakegula. Baina, tira, honetan gustura gaudenez eta ez dagoenez etxetik oso urrun...”. (E6)

“Ikasturtea hasita zegoela esan zidaten, eta, horregatik, egokitzen zen tokian emango zigutela. Ezin duzu aukeratu.”

Hizkuntza-eredua, eta, zehazki, D eredia izatea, ez da ikastetxea aukeratzean eragin handia duen faktorea, kasu gehienetan. Hala, beren ondorengoak euskaraz irakasten den eredian nahita matrikulatu dituzten galdetzen zaienean, elkarrizketatutako pertsonak adierazi dute aukeratutako ikastetxean eskuragarri dagoen eredu bakarra dela.

“Eta, orduan, zergatik eman zenuten izena D eredian? Ez zenuten aukeratu?”

Al: Ez, ez nuen aukeratu. Ikastetxe horretan, D eredian ikasi behar duzu; A eta B ereduak kendu zituzten. D eredia bakarrik geratzen da. Eta, gainera, etxetik hurbil dagoenez, ez dut beste erremediorik”. (E8)

“D eredura joan zarela esan didazu. Zergatik aukeratu zenuen ikastetxe hori?”

Am: Kale horretan bizi gara... Nola du izena?

Se1: Herrandarren kalean.

Se2: Lehen, han bizi ginen.

Am: Hori da, lehen.

Al1: Oso hurbil zegoen Ramon Bajo ikastetxetik. Eta han, euskaraz egiten da.

Batez ere hurbil zegoelako, beraz.

Al1: Bai”. (E5)

“Eta hori zuek aukeratu duzue edo hala etorri zaizue Udaletik?”

Am: Hala iritsi da, eta kito.

Eta orain, ikastetxea aldatzerakoan, ordu gehiagorik euskara ematen duen bat bilatzea pentsatu duzu edo ez?

Am: Ez. Hara eramango badugu, lagun errumaniar batzuek han ikasten dutelako da, ez euskaragatik. Badakit hemen lan-aukera zabalagoa dugula, baina badakite euskaraz hitz egiten”. (E9)

“Am: Ez dut inolako eragozpenik. Gustura geratuko nintzateke euskaraz hitz egingo balu. Nik, orain, arazoak ditut euskara ez dakidalako. Lan bila nabilenean, ea euskara dakidan galdetzen didate. Eta ez dakidanez... hor konpon”. (E8)

Testigantzetan ikus daitekeenez, nahiz eta hasiera batean aukeraketa estrategikoa ez izan, elkarrizketatutako pertsonak oso positibotzat jotzen dute seme-

alabek euskaraz ikastea, etorkizunean lan-aukera gehiago izango dutela uste baitute. Elkarrizketatutako pertsonetako batzuek diote beldur izan direla beren ondorengoak D ereduan matrikulatzeko orduan, baina orain pozik daude egoe-rarekin.

“Zer eredutan zaude? A, B edo D?”

AI1: Euskara hutsean. Hasieran, gaztelaniaz hitz egiten genuen, eta han, euskaraz. Orain, pozik nago, baina hasieran gaztelaniaz ikas zezan nahi nuen, errazago izango zitzaioala uste nuelako. Urduri jarriko zela pentsatzen nuen, negar egingo zuela. Baina ikasturtea hasita zegoenez, bi aukera baino ez zizkiguten eman. Han edo hemen, esan ziguten.

Ez zegoen aukerarik, beraz.

Am: Hasi zen, eta oso ongi. Hasieran errefortzu apur baten premia izan zuen, baina oso tratu ona eman diotela uste dut”. (E6)

“Euskaraz bakarrik egiten badiote, eta hori litekeena da, ez du ikasiko ez matematika eta ez beste ezer: fisika, kimika edo dena delakoa. Izen ere, horiek ezin dituzu ikasi ulertzen ez baduzu.”

“Jendea ezagutzen zenuelako eta abar. Horrek esan nahi du ez zentozela ezer jakin gabe.

Am: Ez, senar ohiak esan zidan.

Eta esan zizun zer izan zitekeen onena?

Am: Bai. Euskaraz ikas zezan nahi zuen hark, etorkizunean hemen geratuko bagina, ongi etorriko zitzaioala uste zuelako. Nik ez nuen nahi, ez ote zen gai izango beldur nintzelako.

Agian asko estutuko zelako edo.

Am: Bai, eta orduan ez zuela ikasi nahi izango pentsatu nuen, blokeatu egingo zela. Eta nik ere ez nekienez euskara...”. (E6)

“Am: Bai, baina aldatzen badut, urtea errepikatzeke gera daiteke, hizkuntzaren kontuengatik, esaterako. Ez dira matematikaren kontuak, hizkuntzarenak baizik. Euskaraz egitea apur bat gehiago kostatzen zaie. Eta maila altuagoko ikastetxe batera joaten bada, maila gainditu gabe gera daiteke, hizkuntzagatik. Euskaraz bakarrik egiten badiote, eta hori litekeena da, ez du ikasiko ez matematika eta ez beste ezer: fisika, kimika edo dena delakoa. Izen ere, horiek ezin dituzu ikasi ulertzen ez baduzu”. (E13)

Euskarazko ikasketekin zerikusia duten goiko zalantza eta beldur horiek emakume errumaniar baten testigantzan ageri; izan ere, emakume horrek uste du bere seme nerabea ikasturtea errepikatzera irits daitekeela, euskara hutseko eredura, D eredura aldatzen badu, eta, horrez gain, euskararekiko zailtasunak semearen errendimendu akademikorako oztopotzat ikusten ditu.

Bestalde, hezkuntza-sistemari buruzko informazioa funtsezkoa da ikastetxe bat edo bestea aukeratzeko orduan. Hala ere, elkarrizketatuek ez dute beti tresnarik izaten, eskura duten eskaintza baloratzeko eta erabaki bat hartzeko. Alde horretatik, administrazioek aholku ematea funtsezkoa da familia horiei orientazioa emateko eta aukerarik egokiena aukeratzeko laguntzeko. Alde horretatik, familia batzuek ikastetxe edo hezkuntza-eredu jakin batera bideratuak izan direla diote.

“Zergatik aukeratu zenuen ikastetxe hori?”

Am: Gizarte-langilearen beldur nintzelako. Hona iritsi nintzenean, hark lagundu zidan, eta esan zidan ikastetxe hori zela onena nire umeentzat”. (E15)

Hala ere, batzuek diote ez dutela aholkurik jaso, eta, ondorioz, aukeraketa ez dela oso egokia izan.

Eta zergatik aukeratu zenuten ikastetxe hori?

Am: Hona iristen zarenean dena delako zaila. Badakizu, ezta? Ez dakizkizu gauza asko: ikastetxea non dagoen, nolakoa den eta abar. Hona iritsi ginenean, apur bat urrun zegoen ikastetxe bat aukeratu genuen. Eta gero, hona iritsi gara, gure herrira, bertako La Inmaculada ikastetxera, baina ikastetxe ona den jakin gabe". (E13)


"Eta hori zuek aukeratu duzue edo hala etorri zaizue Udaletik?

Am: Hala iritsi da, eta kito". (E9)

Hala, atzerritar jatorriko familiek ikastetxea aukeratzea baldintzatzen duten zenbait faktore ikusi ahal izan dira. Horietako batzuk han-hemenka baino aipatzen ez diren arren, gurasoek irizpide bat baino gehiago kontuan hartuta egiten dute ikastetxe baten edo bestearen alde, gehienetan.

3. eskeman ageri dira elkarrizketatutako pertsonen gehien nabarmendu dituzten aukeraketa-irizpideak. Lehena bizilekuarekiko hurbiltasuna da, eta, zeharka bada ere, kasu gehienetan aipatzen da faktore hori. Hala ere, familia batzuek nahiago izan dute beren ondorengoak urrunagoko ikastetxe batean matrikulatzea, garrantzitsuagotzat jotzen dituzten beste ezaugarri batzuk dituztelako han.

3. eskema. Ikastetxea aukeratzeko irizpideak



Iturria: egileek egina

Hezkuntzaren kalitatea da atzerritar jatorriko familiek kontuan hartzen duten beste irizpideetako bat. Ezaugarri hori hurbiltasunarekin batera aipatzen dute askotan, eta alderdi hauek biltzen ditu, besteak beste: taldeko ikasle kopurua edo ikastetxearen hezkuntza-maila.

Bestalde, elkarrizketatutako pertsonetako batzuek beste guraso batzuek emandako erreferentziak aipatu dituzte ikastetxe jakin bat aukeratzeko arrazoitzat, batez ere haurrei ematen zaien tratuari eta familiekiko komunikazioari buruzkoak.

Azkenik, hezkuntza-eskaintza ere faktore erabakigarria da ikastetxea aukeratzeko orduan. Alde horretatik, familia batzuek ikastetxe jakin baten alde egiten dute, hizkuntza-eredu jakin batzuk eskaintzen dituztelako.

Prozesu horretan guztian, funtsezkoak dira informazioa eta orientazioa; izan ere, askotan, familia etorri berriek ez dute euskal hezkuntza-sistema ezagutzen, eta, beraz, nekez balioets ditzakete eskura dauden aukera guztiak eta nekez har dezakete erabaki egoki bat. Informaziorik eta orientaziorik ez izateak eta matrikulazio-epeaz kanpo ibiltzeak, aukera desegokiak egitea eragiten dute zenbaitetan, hizkuntza-eredua aukeratzeari dagokionez, batez ere. Hala, guraso askok esan dute hizkuntza-eredua aukeratzeko orduan ez zekitela zer abantaila ekar zitzakeen euskaraz ikasteak. Izan ere, D ereduan ikasten duten ondorengoak dituzten familiek adierazi dute ez zela hautu estrategiko bat izan, eta, gainera, hasieran seme-alabentzat kaltegarria izango zen beldur zirela eta errezelo egin zutela.

Ikastetxearekiko harremana: irakasleak eta gainerako gurasoak

Hasteko, nabarmendu beharra dago elkarrizketatutako pertsona gehienek adierazi dutela oso pozik daudela beren seme-alaben ikastetxearekin.

“Pozik zaude ikastetxearekin?”

Am: Bai, oso pozik. Ez ditut ikastetxer aldatu nahi, nire umeak oso pozik daudelako han”. (E15)

“Pozik zaudete ikastetxearekin?”

Am: Bai, oso ongi dago”. (E12)

“Eta pozik zaudete ikastetxearekin?”

Ai: Bai, ezin dugu kexatu ikastetxeaz”. (E11)

Zentzu horretan, atzerritar jatorriko familiei ikastetxearekin duten harremanari buruz galdetzean, elkarrizketatutako pertsonak oso balorazio positiboa adierazi dute. Horri lotuta, irakasleekiko harremana oso erraza dela diote, eta gurasoei beren seme-alaben bilakaera akademikoaren berri ematen dietela.

“Zer moduzko harremana duzue irakasleekin?”

Am: Ona, oso ona. Oso harreman ona dugu”. (E12)

“Eta zer moduzkoa da ikastetxearekin duzun harremana?”

Am: Ona, ikastetxearekin, oso ona.

Baduzue harremanik irakasleekin?

Ai: Bai, deitu egiten digute. Mutikoak zer bilakaera duen eta abar esaten digute, bai". (E4)

"Ai: Ez, ez dugu arazorik. Orain arte ez dugu esperientzia txarrik izan irakasleekin". (E11)

"Baina erregulartasunez elkartzen zara irakasleekin? Harreman ona duzue?"

Am: Bai". (E5)

"Ez, ez dugu arazorik. Orain arte ez dugu esperientzia txarrik izan irakasleekin."

"Am: Orain deitu didate irakasleek, ikasturtearen amaieran, eta esan didate guztiak pasatuko direla hurrengo mailara". (E4)

"Am: Ikastetxeko bileretara joaten gara". (E4)

"Baduzu harremanik ikastetxeko irakasleekin?"

Am: Bai, horretan ez dut arazorik. Onak eta jatorrak dira. Galderak egiten dizkiet, eta beti esaten diet esan diezadatela zer gertatzen den eskolan, zelan dabilen eta abar. Urtean hiru bilerak egiten ditugu, haurra nola dabilen jakiteko. Nola dagoen eta zer jarrera duen. Horrez gain, "jantokitik" orri bat bidaltzen dizute (elkarrizketatuak euskaraz aipatu du, eta hitz hori alabak irakatsi diola), eta han jakinarazten dizute nola portatzen den, zer jaten duen eta zer ez. Eta, egia esan, ongi gaude. Miguel de Cervantes ikastetxe ona da. Irakasleak onak dira eta zuzendaria ere oso ona da, asko eskatzen baitu ordutegiari dagokionez...". (E8)

Hala, elkarrizketatutako pertsonak adierazi dute aktiboki parte hartzen dutela beren ondorengo hezkuntza-prozesuaren jarraipenean, tutoreengana joaten direla eta ikastetxearekin erregulartasunez komunikatzen direla. Izan ere, guraso batzuek diote eskolako bizitzan sartuta daudela sentitzen direla, antolatzen diren jarduerak direla eta. Hala ere, eta aurrez esan bezala, neurri handiagoan gertatzen da hori emakumeen artean.

"Am: Baina bai, ni naiz egunero doana eta jakiten duena. Edo telefonoz deitzen didate. Normalean, tutoretza bat eskatzen dut hiruhileko bakoitzean. Edo urtean. Baina irakasleak hitzordua jartzen du hiruhileko bakoitzean, ezer bada esateko, eta ezer ez bada, kito". (E3)

"Eta ikastetxean, zer moduzko harremana duzue irakasleekin?"

Ai: Ona. Harekin hasi gara eta txikitatik zuen oro badaki hark. Beraz, badakigu dugu guztia. Eta pozik gaude". (E11)

"Baina bai, ni naiz egunero doana eta jakiten duena."

"Parte hartzen al duzue eskola-bizitzan, han antolatzen diren ekintzetan?"

Am: Bai.

Eta irakasleekin egiten diren bileretan ere bai?"

Am: Bai, eta urtebetetzeetan ere bai. Gonbidatzen badute, joan egiten da. Tira, oso urrun bada, ez; ez baitugu autorik". (E12)

"Eta irakasleekiko harremana?"

Am: Oso ongi. Badut haren WhatsApp-a, eta oso ongi. Tutorea oso atsegina da nirekin". (E15)

Alde horretatik, seme-alabak bat datoz irakasleekiko harremanaren balorazioari dagokionez; beraiek ere eskola-bizitzan inplikaturatuta sentitzen dira, eta giroa ontzat jotzen dute.

“Eta zer moduzko harremana duzue irakaslearekin?

Se1: Oso ona”. (E13)

“Zer moduzko harremana zenuten ikastetxe harekin?

Al: Irakasleekin ona, eta ikaskideekin era bai, ona”. (E14)

“Eta zer moduz irakasleekin? Harreman ona duzue haiekin?

Al: Bai, oso ona.

Al: Bai”. (E3)

“Al1: Ni ez naiz egon Ramon Bajon, baina bai Campillon eta Goyan, eta neskatoa zarenearan jolasean eta hasten zara; gero, handitu ahala, begiralearen laguntzaile izaten uzten dizute, eta azkenean, begirale izaten. Hala hasi nintzen harremana izaten, eta oso ongi dago.

Ahizpa ere bide bera egiten ari da. Txikitan hasi zen. Gero begiralearen laguntzaile izaten irakatsi zioten, eta orain begirale da. Eta oso ongi dago, ze ez zara horretatik erabat irteten”. (E5)

Azken testigantza horretan ikus daitekeenez, ikastetxe batzuek ikasle zaharrenen eta beheragoko mailetakoen arteko harremana errazten dute begiralearen figuraren bidez, ikasleak inplikatzeke eta ikastetxearekin harreman eta lotura handiagoa izateko.

Hala ere, ikastetxearekiko harremana zaildu egiten da batzuetan, hizkuntzak eragindako oztopoengatik batez ere. Familia txinatar baten hurrengo testigantzan, alaba zaharrenak esan du gurasoek ezin zutela irakasleekin komunikatu, ez zutelako gaztelaniaz hitz egiten. Kasu horietan, neba-arreba nagusienak behartuta daude komunikazioan esku hartzera, izan bileretara joanda edo elkarriketetan interpretari-lanak eginda.

“Eta nolakoa zen zuen gurasoek ikastetxeko beste guraso batzuekin zuten harremana? Gogoratzen bazara.

Al: Nik uste dut ez zela inolako harremanik egon, ni ikasten ari nintzenean ez baitzekiten gaztelaniaz, eta ezin izaten zuten bilerarik egin irakasleekin. Ni joaten nintzen, edo aitak sinatutako paper bat eramaten nien, eta kito.

Orain, zure nebarekin, gauzak bestelakoak izango dira, ezta?

Al: Nebarekin bai, orain joaten dira. Oraindik txikia da eta”. (E14)

Ikastetxeko beste guraso batzuekiko harremanari dagokionez, atzerriar jatorriko familia askok diote ikastetxeko beste guraso batzuekin harremanetan dau dela. Gehienak guraso-elkartean parte hartzen ari dira, eta WhatsApp taldeen bidez komunikatzen dira. Harreman horiek pertsonal bihurtzen dira gerora, funtzionalak izatetik harago, eta 6. atalean zehaztuko dira, hots, gizarte-harremanei buruzko atalean.

“Am: Bai, badugu harremana”. (E4)

“Eta gainerako gurasoekin?”

Ai: Ongi moldatzen gara. Harreman ona dugu.

Ikastetxeko elkarteren bateko kide zarete, guraso-elkarteko kide, esaterako?

Ai: Bai, bai”. (E4)

“Eta gainerako gurasoekin? Ongi haiekin ere?”

Ai: Bai, WhatsApp talde batean nago haiekin. Eta han sartzen naiz ezer berririk baden jakiteko, bai nagusiarekin bai txikiarekin. Haren bidez jasotzen dut berri oro. Eta ez dut arazorik jendearekin”. (E11)

Eskola-laguntza

Atal honetan, atzeritar jatorriko gurasoen seme-alabek ikasketei lotuta duten eskola-laguntzaren alderdi garrantzitsuenak landuko ditugu. Horri lotuta, familiei galdetu izan diegunean ea nor arduratzen den haien ondorengoei laguntzeaz, eskolako betebeharrekin edo ikasketekin laguntza behar izanez gero, elkarrizketatutako pertsona batzuek esan izan digute akademia partikularren batera edo gizarte-etxeren batera joan ohi direla.

“Ai: Gizarte-etxean”. (E2)

“Eta txikiagoa zinenean, nori eskatzen zenion laguntza, arazoren bat zenuenean? Esate baterako, eskolako arazoren bat, eskolako lanekin laguntza behar zenuenean edo azterketaren bat zenuenean eta gaizki zenbiltzanean. Nori eskatzen zenion laguntza?”

Ai2: Ikasketa-txoko batera joaten ginen.

Ai1: Gizarte-etxera.

Ai2: Edo ikaskideren bati galdetzen nion.

Ai1: Lehen hezitzaile bat ere bagenuen. Etxera etortzen zen, eta eskolako lanak egiten laguntzen zigun”. (E5)

Beste familia batzuek, ostera, nahikotzat jotzen dute ikastetxeak berak ematen dien laguntza.

“Am: Ikastetxean egiten ditu, bai. Eta ikastetxeko liburutegira ere joaten dira”. (E4)

“Eta eskolako lanekin arazoren bat baduzu, nori eskatzen diozu laguntza?”

Se3: Nire irakasleari”. (E15)

“Eta arazoren bat duzunean, nori eskatzen diozu laguntza?”

Am: Andereñoak (hitz horixe aipatu du elkarrizketatuak) azaltzen die, apurka-apurka. Ez dute arazorik izaten ordea, ohituta daude dagoeneko. Bi urterekin hasi zenetik, egokituta dago. Egunen batean gaixo badago edo, deitu egiten dute”. (E12)

“Se2: Ikastetxean laguntzen digute, euskararekin eta abarrekin”. (E9)

Bukatzeko, badira gurasoen edo familiako beste kideren baten laguntza dutenak ere, seme-alaben edozein behar asetze aldera.

“Orain arte ezin gara kexatu. Matematikarekin lagun diezaiokegu apur bat, eta ingelesarekin era bai; baina gaztelaniarekin gutxi eta euskararekin bat ere ez.”

“Umeek arazoren bat dutenean eskolako lanekin edo eskolako beste konturen batekin, nori eskatzen diote laguntza?”

Ai: Niri eskatzen didate, edo amari”. (E4)

“Eta arazoren bat duzunean eskolako lanekin edo, nori eskatzen diozu laguntza?”

Se: Nire arrebari”. (E14)

“Beraz, zeure kasa moldatzen zara, ezta? Zorionak, bada, hori zinez garrantzitsua baita.

Ai: Orain arte ezin gara kexatu. Matematikarekin lagun diezaiokegu apur bat, eta ingelesarekin era bai; baina gaztelaniarekin gutxi eta euskararekin bat ere ez”. (E11)

Hala ere, atzerritar jatorriko guraso gehienek onartzen dute eskolako lanekin laguntzeko duten gaitasuna nahiko mugatua dela, euskaraz ez jakiteagatik, batez ere. Halakoetan, familiek kanpoko laguntza behar izan dute, dela ikastetxekoa, dela akademia pribatuena, errefortzu akademiko gehigarri bat jasotzeko.

“Esaterako, eskolako lanak beraiekin egiten dituzu, denbora duzunean?”

Am: Gutxi. Kontua da ez dudala euskara ulertzen eta, beraz, ezin diedala askorik lagundu. Eta, gainera, ez naiz beraiekin egoten, kanpoan izaten naizelako. Baina berak, bai, egiten du”. (E6)

“Am: Nigana etortzen zen, baina, oso zaila zenez, ezin izaten nion lagundu. Laguntza eskatzen zidan, matematikako problemak ez zituelako ulertzen, esaterako. Ez zuen jakiten zer eskatzen zioten. Eta nik antzeman egin behar izaten nuen, euskara jakin gabe, zenbakiei eta abarri erreparatuta. Hau edo hura eskatzen zioten asmatu behar izaten nuen”. (E6)

“Eta eskolako lanekin laguntzeari dagokionez, euskarari dagokionez...”

Am: Euskararekin ezin... Esan dizudanez, gaztelania apur bat badakik, bai, baina euskara ez.

Ai: Euskararekin ez dugu arazo handirik izan. Hauek jada koskortuta zeuden eta, baina niri euskaraz egiten badidate, ez dut ulertzen. Hamar hitz ulertzen ditut. Eta hauek, nagusienek...”. (E9)

“AI1: Hori da. Eta niri asko kostatzen zait eskolako lanekin laguntzea. Berak euskaraz egiten du, eta nik, gaztelaniaz. Batzuetan ez du jakiten gaztelaniaz nola azaldu. Esaterako, odolari edo beste zerbaiti buruzko galderaren bat egiten badiot, ez du jakiten gaztelaniaz azaltzen. Euskaraz esaten dit, eta nik asmatu behar izaten dut nola den gaztelaniaz”. (E5)

Oztopoa da, halaber, gurasoek behar adinako prestakuntzarik edo ezagutzarik ez izatea, eta horrek seme-alabei eskolako lanak egiten laguntzea eragoztekoa. Hori da nigeriar jatorriko emakume baten kasua. Semeek diotenez, amak ezin die ikasketekin lagundu, ikasketarik ez duelako.

“Eta arazoren bat duzunean eskolako lanekin edo, nori eskatzen diozue laguntza? Amak laguntzen dizue?”


Se1: Ez, berak ez daki eta.

Se1: Nik behin zatiketak egiten laguntzeko eskatu nion, eta ez zidan lagundu nahi izan, ez dakielako.

Se2: Zuk ez dakizkizu egiten, ez zatiketak eta ez biderketak". (E15)

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu atzerritar jatorriko familia gehienek kanpoko laguntza dutela beren seme-alabei babes akademikoa emateko, dela akademia partikularretara, gizarte-etxeetara edo ikastetxeek antolatutako errefortzu-eskoletara joanda (ikus 4. eskema).

4. eskema. Eskola-laguntza



Iturria: egileek egina

Alde horretatik, familia askok adierazi dute ezinezkoa zaiela beren ondorengoei eskolako lanak egiten laguntzea, dela nahikoa ezagutza ez dutelako edo dela euskara ez dakitelako; izan ere, hori da eskolako lanekin lagundu ahal ez izateko oztopo nagusietako bat.

Ikastetxeko aniztasuna

Atzerritar jatorriko familiekin egindako elkarrizketa horietan, beste gai bat ere landu da: zenbatekoa den beren ikastetxeetako aniztasuna eta haren zer balorazio egiten duten. Bai gurasoek, bai seme-alabek, guztiek uste dute ikasgeletan aniztasun handia edo nahiko handia dagoela, eta bakarren batzuek esan ere egiten dute ia ikaskide guztiak atzerritar jatorrikoak edo haien ondorengoak direla.

“Am: Ikastetxean atzerritar asko dago”. (E4)

“Se2: Bai, asko. Nire ikaskide ia guztiak Honduraskoak dira.

Se3: Nire ikasgelan guztiak, oker ez banago, ni eta Mariana izan ezik.

Eta zure ikasgelan?

Se1: Berdin”. (E15)

“Galde al diezazuket nongoak diren zure alaben ikastaldeetako haurrak?

Ax: Beltzaranak dira.

Am: Denetik dago. Brasildar bat, Boliviako batzuk eta marokoarrak.

Denetik apur bat, ezta?

Am: Denetik, bai.

Ax: Arraza beltzaraneok, beltzak alegia.

Am: Bai, afrikarrak.

Ax: Eta ijitoak, denetik dago". (E2)

“Nire gelan nahaste handia dago.”

“Nongoak dira zuen gelakideak?

Se: Nire gelan nahaste handia dago.

Al: Nirean ere bai". (E3)

“Atzerritarren ikastetxe bat da. Denak atzerritarrak dira.”

“Eta proportzioan, gutxi gorabehera, kanpokoak edo kanpokoan seme-alabak asko al dira?

Se: Bai, gehiengoa.

Al: Nire gelan bada Nigeriako bat, Boliviako bi -oker ez banago-, Portugalgo bat -han jaiotakoa- eta errumaniar bat. Gainerakoak bertan jaiotakoak direlakoan nago. Tira, guztiok gara hemen jaiotakoak, Patricio izan ezik; hura Portugalen jaiotako bat da. Gainerako guztiok bertan jaiotakoak gara. Baina gurasoak nor bere herrialdeetan jaiotakoak dira". (E3)

“Lehen esan duzu txinatarren seme-alaba asko dagoela. Badira Txina ez den beste herrialde batzuetakoak ere?

Am: Errumaniakoak eta Hego Amerikakoak. Eta Marokokoak eta Aljeriakoak. Eta Afrikakoak, Gineakoak eta abarrekoak. Eta hemengoak ere bai. Denetik dago". (E12)

“Am: Atzerritarren ikastetxe bat da. Denak atzerritarrak dira". (E9)

“Aniztasun handiagoa egotea gustatuko litzaizuke edo berdin dizu?

Al1: Niri berdin dit". (E6)

Ikus daitekeenez, atzerritar jatorriko ikasleen presentzia handiaren balorazioa neutroa da, oro har, baina zenbaitetan oso positibotzat jotzen da, kulturen trukea errazten baitu.

“Aniztasun handia dago ikastetxean?

Ai: Bai, aniztasun handia dago.

Eta zuei hori ongi iruditzen zaizue? Askotxo, agian? Zer deritzozue?

Ai: Niri oso ongi iruditzen zait kultura desberdineko jendeak bat egitea. Zoragarri". (E4)

Boli Kostatik datozen elkarrizketatuen hitz hauetatik ondoriozta daitekeenez, ikaskide gehienak atzerritar jatorrikoak izateak gusturago sentiarazten ditu, harrera eta identifikazio handiagoa dutela sentitzen baitute, antzeko ibilbidea eta bizipenak partekatzen dituztelako.

“Zer iruditzen zaizue zuei ikastetxean dagoen aniztasuna? Leku guztietako jendea egotea zer iruditzen zaizue? Gehiegí dela uste duzue?

Se2: Nire ikastetxean ez dago aniztasun handirik, ez pentsa.

Al1: Egia, oso atzerritar gutxi daude.

Se2: Guztiak hemengoak dira.

Bestea gehiago gustatzen zitzazun? Edo nahiago duzu hau?

Se2: Bada, bestea.

Al1: Izan ere, bestean kanpoko jende asko zegoenez, identifikatuta sentitzen zinen, eta hobeto hartzen zintuztela ere bai. Hobeto hartzen zaituzte, ulertzen zaituztelako. Eta, gainera, hemengoek ere ulertzen zuten, Euskadi Espainiatik ateratzea nahi

dutelako eta horregatik guztiagatik; kanpotarrak direla sentitzen dute nolabait. Denok bat ginen han, denok bakarra. Han egin ziren orain direna, eta familia giro handiagoa zegoen". (E5)

Dena den, elkarrizketatutako familia guztiek ez dute horrela ikusten. Zentzu horretan, saharar jatorriko familia baten testigantza honetan ikus daitekeenez, eskola-aniztasuna fenomeno negatibo gisa agertzen da batzuetan, alde batetik, ikasleen arteko kohesioa kaltetzen duelako eta, bestetik, integrazioa oztopatzen duelako.

"Al: Eta hori ere arazo bat da, nahastuta dagoen ikastetxe bat baita. Baina ikastetxean geratu ziren bi...

Bereizita, ezta?

Al: Hori da, bereizita. Eta ikastetxetik joaten ari dira. Gehienak atzerritarrak dira. Jendea joaten ari da, ezta?

Al: Bai, ikastetxe horretatik joaten ari da. Orain, gehienak atzerritarrak dira. Eta ikastetxe horretako atzerritar gehienak magrebtarrak dira. Hurrena latindarrak izango dira, saharar gutxi batzuk, eta errusiar eta aljeriar bakan batzuk. Baina gehienak magrebtarrak dira. Ikasleen gehiengoa Marokoko da". (E8)

"Miguel de Cervantes ikastetxeko arazoa da kanpoko jende asko iristen dela, ezta?

Al: Bai, kanpoko jende asko ari dela etortzen. Eta horrek kezkatu egiten nau, ezin direlako herrian integratu edo ezin dutelako herrikoekin bat egin. Barruan zera egiten ari direlako... Ulertzen didazu?

Baina zein da arazoa? Datozen ikasle berriak elkarrekin biltzen direla edo bertakoak joaten ari direla?

Al: Bertakoak ikastetxetik joaten ari dira eta kanpotik jendea dator. Ikastetxea migratzaileen ikastetxe bihurtzen ari da. Eta hori ez dut gustuko, txarra delako integrazioa. Norekin integratuko dira, bada?

Egia. Ez dute aukerarik bestelakoekin harremana izateko.

Al: Hori da. Ez dute harremanik bertakoekin". (E8)

Hala, saharar jatorriko nerabe hori ez dago pozik bere ikastetxean aniztasun handia egotearekin; izan ere, bere ustez, oztopo bihurtzen da atzerritar jatorriko ikasleak integratzeko, ezin baitu harremanik izan bertako ikasleekin.

“Bestean kanpoko jende asko zegoenez, identifikatuta sentitzen zinen, eta hobeto hartzen zintuztela ere bai. Hobeto hartzen zaituzte, ulertzen zaituztelako.”

“Bertakoak ikastetxetik joaten ari dira eta kanpotik jendea dator. Ikastetxea migratzaileen ikastetxe bihurtzen ari da. Eta hori ez dut gustuko, txarra delako integrazioa. Norekin integratuko dira, bada?”

4

Identitatea eta erlijioa

Atal honetan, atzerritar jatorriko familien identitate-gaiak jorratuko dira, batez ere ondorengoen identitateari erreparatuz, gurasoenarekin alderatuko bada ere.

Atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabei nongoak sentitzen diren galdetzen diegunean, bi herrialdeetakoak sentitzen direla erantzutea da ohikoena, bai aitaren edo amaren jatorrizko herrialdekoa eta bai harrera-gizartekoa sentitzea, identitate bikoitza izatea, alegia. Identitate bikoitz hori jada hauteman zen, bigarren hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen artean, “Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte)” azterlanean. Azterlan horretan jasotzen denez, ikasleen ia erdiak aitaren edo amaren jatorrizko herrialdearekin identifikatzen dira. Familiaren jatorriaren arabera, afrikar jatorriko pertsonak gehiago identifikatzen ziren euskal herritarrekin, beste jatorrietako familiak dituztenak baino (2017).

“Se: Parte hemengoak eta parte Boli Kostakoak gara. Bi lekuetakoak gara, nolabait”. (E20)

“Parte hemengoak eta parte Boli Kostakoak gara. Bi lekuetakoak gara, nolabait.”

“A1: Tira, galdetzen badidate, Moldaviakoa naizela esaten dut”. (E6)

“Eta nondarra sentitzen zaren galdetuko banizu, zer erantzungo zenidake? Txinatarrara ala euskal herritarra?”

Al: Txinatarrara, naziotasuna ez da aldatzen.

Eta sentipena?

Al: Sentipena... bietakoa. Txinakoa eta hemengoak. Inoiz ez dugu ahaztuko gure lurraldea”. (E14)

“Se1: Ni hemen jaio naiz, baina nire familia errumaniarra da”. (E9)

“Al: Hemen jaiotakoa naizela esaten dut, baina marokoar eta errumaniar jatorrikoa”. (E3)

“Eta nongoak zareten galdetzen badizuete, zer erantzuten duzue? Nahi duzuen esan. Se: Ni, uneotan, Santanderrekoa eta Madrilgoa. Bietakoa.”

Bai, zu Santanderren hazia zarelako, azken finean.

Se: Bai, bederatzi urte eman nituen han.

Eta gainerakook?

Al: Nik lehen Santanderrekotzat jotzen nuen nire burua. Baina denborak aurrera egin ahala, gero eta gehiago jarri dut arreta Kongon... Kongora joan nahi dut, laguntzera. Gauzak egin nahi ditut Kongon. Orain, beraz, gehiago sentitzen naiz Kongokoa. Instagramen eta gainerako sare sozialetan ere berdín, Kongoren eta haren askatasunaren aldeko mugimenduen jarraitzaile naiz. Enpatia gehixeago sentitzen dut harekiko". (E7)

"Eta zuri galdetzen badizute, zer esaten duzu? Bilbokoa? Edo nongoa? Eta nik galdetuko banizu, zer erantzungo zenidake?

Se: Txinakoa. Hangoa naizela esango nuke, baina hemen jaioa naizela". (E11)

Atzerritar jatorriko pertsonen seme-alaben diskurtsoan ikusten dugunez, hemen jaiotako pertsona gisa definitzen dira batez ere, batzuetan hazi ziren hiriri edo, oro har, euskal gizarteari erreferentzia eginez, baina familiaren jatorria nabarmenduz betiere.

Bestalde, identitatearen gaia konplexuagoa da gurasoak herrialde beretik ez datozenean. Hala gertatzen da aurrez aipatu dugun marokoar-errumaniar jatorriko familiaren kasuan. Seme-alabak Euskal Herrian jaio ziren, eta identitate hirukoitza dute, hiru tokietakoak sentitzen baitira: Marokokoak, Euskal Herrikoak eta Errumaniakoak.

"Eta zuek nongoak sentitzen zarete?

Al: Baina esan egia, entzun?

Zuek edo zuen gurasoak ezagutzen ez zaituzten norbaitek galdetzen dizuetenean ea nongoak zareten, zer erantzuten duzue?

Al: Hemen jaiotakoa naizela esaten dut, baina marokoar eta errumaniar jatorrikoa.

Bi lekuetakoa sentitzen zarela, alegia. Ezta?

Al: Bai.

Am: Baina, tira, joera handia hartzen ari dira... Agian pentsatuko dute haserretu egingen naizela, baina joera handia hartzen ari dira Maroko aldera. Beti diote euskaldunak direla, baina marokoar jatorrikoak direla esaten duten lehendabizi. Afinitateagatik eta hurbiltasunagatik, nire ustez. Errumania Espainiatik hurbilago balegoa agian, sarriago joango ginateke hara". (E3)

Azkenik, badira zenbait pertsona, helduak eta atzerrian jaiotakoak batez ere, jatorriko identitateari eusten diotenak, honako elkarrizketa hauetan parte hartu zutenak, esaterako:

"Beti. Beste ezeren aurretik, sahararra naiz, goitik behera. Eta gero... euskal herritarra."

"Eta nongoa zeren galdetzen badizute, zer erantzuten duzu?

Al2: Boli Kostakoa naizela". (E5)

"Eta identitateari dagokionez, nongoa zaren galdetzen badizute, zer erantzuten duzu?

Se: Sahararra naizela.

Zu sahararra zara.

Se: Beti. Beste ezeren aurretik, sahararra naiz, goitik behera. Eta gero... euskal herritarra". (E8)

“Se: *Boli Kostakoa naizela*”. (E2)

“*Eta nongoa zaren galdetzen badizute, zer diozu Errumaniakoa zarela edo nongoa?*

Se2: *Ni errumaniar sentitzen naiz, nahiz eta denbora gehiago daramadan hemen bizitzen...*”. (E9)

“*Am: Badaki han jaioa eta handik etorria dela, eta kito. Baina bere bizitza hemen dago, ezta?*

AI1: *Bai*”. (E6)

Bestalde, interesgarria da seme-alabek gurasoekin beren identitateari buruz egiten duten gogoeta. Iritziak bat datoz normalean, baina ez beti. Adibidez, ama moldaviarra eta aita euskal herritarra dituen hurrengo familiaren kasuan, amak moldaviarrak eta euskal herritarrak direla uste du, baina ondorengoek euskal herritar sentitzen direla diote.

“*Am: Moldaviakoak eta Gasteizkoak gara eta. Zentzu horretan, euskal herritarrak gara.*

[*Alabaren izena*], *nongoa zaren galdetzen badizut, zer erantzungo didazu?*

AI2: *Hemengoa naizela.*

Gasteizekoa. Eta zu, [semearen izena], nongoa zara?

Se: *Hemengoa.*

Hemengoa, baina nongoa? Gasteizekoa.

AI: *Bai.*

Baina apur bat Moldaviakoa ere bai, edo ez?

AI: *Bai*”. (E6)

“**Moldaviakoak eta Gasteizkoak gara eta. Zentzu horretan, euskal herritarrak gara.**”

Antzeko zerbait ikus dezakegu hurrengo bi familiekin izandako elkarrizketan (marokoar-errumaniar jatorrikoa bata eta txinatar jatorrikoa bestea), ez baitute adostasunik lortzen identitate bakoitzak semearengan duen pisuari dagokionez.

“*Eta ehunekotan hitz egingo bagenu, zenbat izango zen, 50 eta 50? 70 marokarra eta 30 errumaniarra?*

Se: *Bai, halako zerbait.*

Am: *Nik esango dizut. 50 marokarra, 40 euskal herritarra eta 10 errumaniarra.*

Se: *Ez, hainbeste ere ez*”. (E3)

“*Al: Honek (nebaz diharduela) nahiago du hau Txina baino.*

Berari galdetuko diot zuzenean. Zuk nongoa zarela esango zenuke, Gasteizekoa edo Txinakoa?

Se: *Txinakoa naiz, baina hemen jaioa.*

AI: *Eta zer gustatzen zaizu gehiago, hau ala Txina?*

Se: *Hau*”. (E14)

Beste batzuetan, bestalde, bi belaunaldien iritziak bat datoz. Hurrengo testigantzan ikus daitekeenez, gurasoak txinatarrak sentitzen dira eta hala definitzen dute euren semearen identitatea ere, Bilbon jaio dela zehazten badute ere.

“*Eta zuri galdetzen badizute, hemengoa zarela diozu? Bilbokoa? Edo nongoa? Eta nik galdetuko banizu, zer erantzungo zenidake?*

Ai: Nongoa zara?

Se: Txinakoa. Hangoa naizela esango nuke, baina hemen jaioa naizela.

Ai: Ongi. Bilbon bizi den txinatar bat, ni neu edo zure ama bezala". (E11)

Zentzu horretan, gurasoek beren seme-alaba txikienei identitatea definitzen laguntzen diete sarritan, oraindik ere kostatzen egiten bazaie nongoak sentitzen diren erantzutea. Horrela, ekuadortar jatorriko familia honetan, esaterako, amak oso argi dauka bere alabak euskal latindarrak direla.

"Am: Galdetu didaten aldietako batean, hemen jaioak direla esan diet, eta zer diren galdetu izan didatenean, berriz, euskal latindarrak direla.

Am: Horixe dira, euskal latindarrak, nazionalitate bikoitza dute eta.

Am: Berak dio hemengoa dela.

Zu nongoa zara?

AI2: Ni? Espainian jaioa naiz, baina Ekuadorren egun batzuk egona naiz.

Am: Bai horixe, euskal latindarrak. Horixe esaten diot alabari, euskal latindarra dela, Euskal Herrian jaioa delako baina amaren alderdi latindarra ere berea duelako.

Ax: Biloba nagusiak ere gauza bera dio. Baina eurak txikitan etorri ziren". (E2)

Azkenik, atzerritar jatorriko pertsonen zenbait gogoeta bildu ditugu, beren seme-alabek nagusitan izango duten nortasunari buruzkoak.

"Am: Pentsatzen dut denborarekin ni baino euskaldunagoak izango direla. Hori uste dut". (E4)

"Zure ustez, zer identitate dutela pentsatzen dute? Eta nongoak diren galdetzen bazenie, zer erantzungo luketela uste duzu?

Ai: Hemengo identitatea dutenez, denborarekin hemengoak direla esango dutelakoan nago. Hori uste dut. Baina oso txikiak dira oraindik.

Eta horrek badu garrantzirik zuretzat? Nahiko zenuke Saharakoak ere badirela esatea?

Ai: Berdin dit. Esan dezatela nahi duten lekukoak direla, aske dira eta, nagusi egiten direnean eta nahi duten bidea hartzen dutenean. Niri inporta zaidana umeak heztea eta etorkizun ona izatea da. Horixe da bizitzan inporta duena". (E4)

“Esan dezatela nahi duten lekukoak direla, aske dira eta, nagusi egiten direnean eta nahi duten bidea hartzen dutenean.”

Ikus dezakegunez, batzuek uste dute beren seme-alabak euskaldunago sentituko direla. Ez dirudi atzerritar jatorriko gurasoak kezkatzen dituen zerbait denik, baina, aurrerago ikusiko dugun bezala, badira beren jatorriaren alderdi identitarioak transmititzea eta kontserbatzea nahiko luketenak ere.

Azkenik, elkarrizketatuek beren iritzia ematen digute erabat euskal herritar sentitzea eragotz dezakeenari buruz, nahiz eta Euskadin jaioak edo oso adin txikiarekin iritsiak izan. Errumaniar jatorriko pertsona ijito batek dioenez, ez du axola zenbat urte daramatzazun harrera-gizartean, jendeak beti pentsatuko du kanpokoak zarela. Semea bat dator hausnarketa horrekin, eta errumaniarra dela dio, nahiz eta ia bizitza osoa Euskadin eman.

"Eta nongoa zaren galdetzen badizute, zer diozu Errumaniakoa zarela edo nongoa?"

Se2: *Ni errumaniar sentitzen naiz, nahiz eta denbora gehiago daramadan hemen bizitzen...*

Oso txikia zinenean etorri zinelako. 6 edo 7 urterekin etorri eta hemen hazi den arren, batzuek diote...

Ai: *Berrogei urtez hemen bizi izan bazara ere berdin, atzerritarra izango zara. Hori argi dago.*

Baina, zuek edo jendearengatik?

Ai: *Jendeagatik. Nik hemengo lagun asko ditut, euskal herritarrek eta espainiarrek, eta ongi hartzen naute; baina, azken finean, atzerritarra zara". (E9)*

“Berrogei urtez hemen bizi izan bazara ere berdin, atzerritarra izango zara. Hori argi dago.”

Antzeko zerbait gertatzen da harrera-gizartearen pertzepzioa oso garrantzitsua dela adierazten duen saharar jatorriko familia honen kasuan ere.

“Eta esan dizute noizbait hemen jaioa eta hemen hazia bazara, zergatik ez... ?

Se: Lanean jendeak ikusten nau...

Al: Aurpegieragatik esaten diote.

Se: Jendea harritu egiten da ikusten nauenean. Txirrina jotzen didatenean eta atea irekitzen diedanean, aurpegian ikusten zaie goitik behera begiratzen nautela, eta gaztelaniaz jakingo ez banu bezala hitz egiten didate, nik txintik esan baino lehen. Besterik ez dago. Bada horrelako jendea...". (E8)

“Inoiz gertatu izan zaizu etxe partikularren baten bila zenbiltzala... ?

Al: Bai, bai. Askotan galdetzen dizute ea nongoa zaren.

Se: Telefonoz hitz egiten baduzue, baietz esaten dizute; baina hara joaten zarenean eta beloarekin ikusten zaituztenean, ezetz... sentitzen dutela.

Noski, kanpotar doinurik ez duzenez, zuk deitzen duzu, eta gero...

Al: Esate baterako, deitzen diezu, eta baietz erantzuten dizute, baina nongoa zaren galdetzen dizute, zein herrialdekoa zaren, eta ez zarela hemengoa esaten dizute". (E8)

Goiko testigantza horretan ikus daitekeenez, bizitza osoan hemen hazi eta bizi izan diren arren, euskal gizarteak immigratzaile etorri berriak balira bezala tratatzen dituela sumatzen dute. Besteek atzerritartzat hartzen dituzte beti, ezaugarri fisikoak edo beloa direla-eta, eta, ondorioz, lehen belaunaldiko atzerritar jatorriko pertsonen arbuio-egoera berberak pairatzen dituzte. Hori dela eta, harrera-gizartearen pertzepzioa eta onarpena funtsezkoak dira; izan ere, atzerritar jatorriko pertsonen ondorengoei euskal herritar izateko eta sentitzeko eskubidea ukatzen bazaie, baztertu egiten ditu eta haien jatorrizko identitatea indartzen du.

Kulturari, hizkuntzari eta lurralde batekiko identifikazioari loturiko alderdiek ez ezik, erlijioak ere taxutzen du identitatea, eta, beraz, kontuan hartu behar da erlijioak immigratzaileen komunitateen identitate- eta kidetze-prozesu kolektiboan betetzen duen rola ere. Dena den, lehenik eta behin nabarmendu behar da, erlijioari dagokionez, ezin direla orokortu eta estereotipatu atzerritar jatorriko familien egoerak; izan ere, guztiak ez dira erlijiozaleak. Batzuk praktikatzaileak dira, edo, besterik gabe, transmititu nahi duten identitatearen zatitza hartzen dute erlijioa.

“Nola bizi zuzue erlijioa, etxean? Garrantzi handia ematen diozue edo ez?”

Ai: Praktikatzen dugu, baina gutxi gorabehera.

**“Izan daitezela nahi dutena.
Nik ez diet hitz egiten horri
buruz.”**

Meskitara joaten zarete, esaterako?

Ai: Ez, ni ez naiz meskitara joaten.

Eta haurrak?

Ai: Ez, haurrak ere ez dira joaten, eta emaztea ere ez. Gutako inor ez da joaten”. (E4)

“Erlijiozalea zara?

Am: Ez asko. Hala hezi ninduten, baina ez naiz inoiz elizara joaten.

Zer erlijiotan hezi zintuzten?

Am: Erljio katolikoan, baina ama ebanjeliko egin zen gero.

Eta zure umeak?

Am: Izan daitezela nahi dutena. Nik ez diet hitz egiten horri buruz”. (E6)

Dena den, atzerritar jatorriko familia batzuentzat edo haien ondorengoentzat, erlijioa eta, zehazki, balio erlijiosoak funtsezkoak dira identitate-transmisioan, gurasoentzat batez ere. Izan ere, sinesmen, balio eta erritu multzo bat izateaz gain, familia-giroan emandako denbora ere izan daiteke erlijioa, familia-dinamikei buruzko atalean aipatzen denez.

“Oso ongi. Zuen ustez, zer garrantzi du erlijioak zuen bizitzan?

Am: Garrantzi handia du. Aipatu dizut beste erlijio batekoak garela. Ortodoxoak gara. Badugu eliza eta joaten gara elizara”. (E13)

“Lehen mintzatu gara apur bat erlijioaz. Garrantzitsua al da zuen bizitzan?

Se: Bai.

Al: Bai, oso garrantzitsua.

Zer egiten duzue garrantzi hori transmititzeko? Etxean ezer egiten duzue edo norabait joaten zarete?

Am: Oinarrizko ekintzak. Musulmanak gara, baina moderatuak. Ez hortik entzuten diren horietakoak. Erljioren baten oinarriak transmititzen saiatzen gara; eta gurean, gurearenak, zer bestela.

Baina besterik gabe. Otoitz egin, horixe baita garrantzitsuena.

Se: Ni meskitara joaten naiz.

Am: Ostiraletan joaten da otoitz egitera.

Aitarekin joaten zara?

Se: Aitan lan egiten du; bakarrik joaten naiz”. (E3)

“Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte)” azterlanean baieztatzen da goiko aipu horietan erakusten dena; izan ere, atzerritar jatorriko pertsona gehiago daude beren ondorengoak erlijioaren batean heztearen alde bertakoak baino, afrikar jatorrikoak batez ere. Horrez gain, argi ikusten da gurasoak seme-alabak baino erlijiosoagoak direla (Fernández et al., 2017). Azken hori oso gai garrantzitsua da; izan ere, diskurtso askotan –bai eta familiako zenbait eztabaida-testuingurutan ere– ageriko egiten da seme-alaben interesik eza, erlijioari dagokionez.

“Ba al du garrantzirik erlijioak zuen etxean?

Al: Bai, budistak gara eta. Tira, aitona-amonentzat gehien, sinestunagoak baitira eta fede handiagoa baitute gauza horietan. Aitak ere sinesten du halakoetan.

Baina, diozunagatik, bada aldea belaunaldiz belaunaldi, ezta?

Al: Bai. Galtzen doa apurka-apurka”. (E14)

“Erljioak zuretzat garrantzia baduela esan didazu, ezta?”

Am: Bai, bai.

Eta umeentzat ere bai?

Am: Bai.

Sinesten duzue Jainkoarengan?

Se2: Bai.

Se1: Tira, normalean bai. Batzuetan.

Zuentzat badu garrantzirik erlijioak?

Se1: Ez askorik. Amak behartzen nauelako joaten naiz elizara.

Se3: Egia.

Se2: Ez dugu joan nahi.

Se3: Oso aspergarria da.

Se2: Loak hartzen nau”. (E15)

“Eta zer garrantzi du erlijioak zuentzat? Edo zuretzat, hemen jaioa izanik eta honen eta ikastolaren artean bizi izanik? Nola bizi duzu zuk erlijioa?”

Al: Ba ez askorik. Ez diot orpoz orpo jarraitzen.

Se: Adinekoenganako errespetua eta niretzat zentzuzkoak eta logikoak diren gauzak, horiexek betetzen ditut nik. Eta ez pentsa ama edo arreba zirikatzeagatik diodanik. Ez dute ongi ikusten nik halakoak esatea, baino nork bere mundua du buruan...”. (E8)

Hala ere, interes falta hori ez da orokorra. Izan ere, batzuetan, erlijioa jatorrizko kulturaren zati gisa ulertzen da, eta, halakoetan, ondorengoek diote erlijiozaleak direla, erlijioari garrantzia ematen diotela, eta, are, etorkizunean seme-alabei transmititzen jarraitzeko asmoa dutela.

“Eta seme-alabak izaten badituzu, islamari jarraituz heziko dituzu?”

Se: Nire seme-alabek ez dute beren kultura inoiz galduko; nondik datozen jakin behar dute. Baina ez ditut behartuko, hori ez.

Al: Ume kristauak bezala.

Baina azalduko diezu.

Se: Hori bai, beti”. (E8)

“Nire seme-alabek ez dute beren kultura inoiz galduko; nondik datozen jakin behar dute. Baina ez ditut behartuko, hori ez.”

“Zer garrantzi du erlijioak zuentzat? Oso garrantzitsua da?”

Zuretzat garrantzitsua da seme-alabek erlijioari eustea eta haiek erlijioari jarraituz heztea?

Am: Bai, oso garrantzitsua.

Al1: Oso, oso. Bai, beraien urratsei jarraitzen saiatzen gara. Eta, gainera, gure lagun gehienek gurasoak ere erlijiozaleak direnez, ez gara gai horretatik irteten.

Seme-alabak izaten dituzuenean, erlijioari jarraituz heziko dituzue edo...?

Se1: Bai”. (E5)

5

Jatorriko hizkuntzak eta euskara

Etxean erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, familia gehienek diote jatorriko hizkuntza eta gaztelania eta/edo euskara nahasten dituztela. Egoera hori anai-arreben arteko komunikazioan gertatzen da batez ere; gurasoekin, berriz, jatorriko hizkuntzan komunikatzen saiatzen dira.

“Normalean, zer hizkuntzatan hitz egiten duzue zuen artean?”

Se2: Nik espainiera eta ingelesa nahasten ditut.

Beste biek: Nik ere bai”. (E15)

“Eta zuen artean zer hizkuntzatan hitz egiten duzue?”

Se: Espainieraz edo arabieraz.

Al: Biak nahasita”. (E3)

Jatorriko hizkuntza bat baino gehiago duten familietan, hizkuntza baten baino gehiagoren nahaste bat erabiltzen da. Hori da afrikar jatorriko bi familia hauen kasua; aldi berean hiru hizkuntza nahasten dituzte komunikatzeko, eta esaldi berean ere nahasten dituzte zenbaitetan.

“Zer hizkuntza erabiltzen duzue etxean?”

Am: Bambara.

Al1: Tira, ia guztiak. Ama bambaraz hitz egiten hasten da, baina nik gaztelaniaz jarrai dezaket, eta, gero, frantses apur bat ateratzen zait. Hiru hizkuntza erabil ditzakegu esaldi berean. Haserre dagoenean erabiltzen du bambara, batez ere”. (E5)

“Ama bambaraz hitz egiten hasten da, baina nik gaztelaniaz jarrai dezaket, eta, gero, frantses apur bat ateratzen zait. Hiru hizkuntza erabil ditzakegu esaldi berean.”

“Zuek zer hitz egiten duzue etxean?”

Al1: Nahaste bat. Eta frantsesa, Kongoko dialektoa eta espainiera. Guztiaren nahaste bat. Unean-unean ateratzen zaiguna.

Al2: Eta batzuetan, ingelesa”. (E7)

“Am: Euskaraz gain, entzuten duten guztia. Batzuetan, nire hizkuntzan hitz egiten diet, eta beraiek entzun eta gaztelaniaz erantzuten didate. Edo gaztelaniaren eta dialektoaren nahaste batez. Edo frantsesez, etortzen zaienean. Batzuetan esaten dut

egun osoa frantsesez edo dialektoaz mintzatuko garela. Edo euskaraz, ikasten joan nadin. Euskaraz hitz egin dezadan animatzen naute". (E7)

Marokoar-errumaniar jatorriko familia honen kasuan, berriz, komunikazioa arabieraz egiten da batez ere, baita ama errumaniarrarekin ere; beren ondorengoek errumaniera ez dutela ikasi diote, familiaren komunikazioan inoiz erabiltzen ez delako.

"Baina hitz egiten duzuenean, zer hizkuntzatan komunikatzen zara?

Am: Arabieraz.

Se: Nik oso ongi dakit arabiera.

Eta ez duzue errumanieraz egiten?

Se: Ez.

Am: Ia batere ez. Hasieratik ikasten saiatu nintzen, eta arabiera ikasi nuen". (E3)

Ohiko egoera ez den arren, badira gurasoen hizkuntza galtzen duten ondorengo kasuak ere.

"Gaztelaniaz primeran egiten du, eta euskaraz ere bai. Baina ez dezala bere hizkuntza galdu."

"Eta zuek moldavieraz ere egiten duzue?

AI2: Nik ez.

Am: Bai. Iaz, guztiok Moldaviara joan ginenean...

AI2: Ez, ez zait gustatzen!". (E6)

"Eta zuek penatu egiten zarete ez duelako errumanieraz egiten, zuek edo senideek bezala, ezta?

Ai: Nik, zera... Gaztelaniaz primeran egiten du, eta euskaraz ere bai. Baina ez dezala bere hizkuntza galdu". (E9)

Alde horretatik, ikusten dugu gurasoentzat garrantzitsua dela seme-alabek beren hizkuntzari eustea. Ondorengo lekukotasunetan ikus daitekeenez, horietako batzuek jatorriko hizkuntzan soilik hitz egiten dute etxean. Akademiak, ikastaroak eta gurasoen hizkuntzako telebista dira hizkuntza horri eusteko erabiltzen dituzten baliabideetako batzuk.

"Lehen esan didazunez, umeak euskara ikasten ari dira, ezta?

Am: Bai. Euskara apur bat, ingelesa eta espainiera. Denetik. Pixkanaka-pixkanaka. Eta txinera. Lau hizkuntza ikasi behar ditu; izan ere, txineraz hitz egiten saiatzen naiz, eta telebista ere txineraz ikusten dugu". (E12)

"Am: Orain, arabiera-irakasle bat etortzen da, eskolak ematera.

Se: Idazten ikasteko.

Am: Bai, idazten eta irakurtzen ikasteko. Guztiz desberdina da eta". (E3)

"Ai: Txikia oraindik ez, baina hau jada hasi da txineraz irakurtzen eta idazten ikasten. Txikia oraindik txikiegia da, eta ez da hasi.

Baina zuekin ikasten du edo akademia batean?

Ai: Gurekin. Hau joaten da eskolaz kanpoko akademia batera, baina ingelesa ikastera. Ingeles-eskolak ematen dituzten Deustuko kooperatiba batera joaten da.

Eta zure anaiarekin txineraz egiten duzu? Edo euskara edo gaztelania ere erabiltzen duzu?

Se: Txineraz, ze euskaraz edo gaztelaniaz hitz egingo banio ez luke ulertuko, ziur.

Tira, baina handitan agian hitz egingo duzue, gurasoek zertaz ari zareten jakin ez dezaten.

Ai: Etxean txineraz bakarrik hitz egitea erabakita daukagu. Gero, kalera irteten denean, hitz egin dezala gaztelania, euskara edo behar dena. Baina etxean, txinera". (E11)

“Etxean txineraz bakarrik hitz egitea erabakita daukagu. Gero, kalera irteten denean, hitz egin dezala gaztelania, euskara edo behar dena. Baina etxean, txinera.”

Bestalde, ohikoa da atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabek euskara erabiltzea nagusiki beren arteko komunikazioan. Alabaina, azken hautu horrek zerikusi handia du bizilekuarekin eta euskarak han duen erabilerarekin.

“Am: Beren artean euskaraz hitz egiten dute.

Beren artean, bai?

Ai: Bai horixe. Nagusienek euskaraz hitz egiten dute; txikienek ez. Lau urtekoak badaki zerbait, baina nagusiek euskaraz hitz egiten dute beren artean.

Eta zuekin beti arabieraz?

Ai: Arabieraz edo espainieraz". (E4)

“Zuek zer hitz egiten duzue etxean?

AI1: Batzuetan euskaraz hitz egiten dugu, gurasoak ikasten joan daitezen". (E7)

“Se: Honek ezin ditu eskolako lanak gaztelaniaz normal egin, dena euskaraz egiten du". (E2)

“Se: Eta niri asko kostatzen zait eskolako lanak egiten laguntzea. Berak euskaraz egiten du, eta nik gaztelaniaz". (E2)

Azkenik, elkarrizketatutakoen artean badira zenbait familia espainoldunak ez izan arren gaztelaniaz komunikatzen direnak.

“Parkera jolas egitera irteten zaretenean eta, zer hitz egiten dute gainerako haurrek?

Ai: Gaztelania. Errumaniarren artean gaztelaniaz hitz egiten dute". (E9)

“Zuek betidanik hitz egin duzue gaztelaniaz etxean?

Am: Bai, gaztelaniaz bakarrik hitz egiten dugu.

Nolatan? Ez duzue moldaviez hitz egiten?

Am: Ez dakit zergatik... Berak hitz egiten zuen iritsi zenean, eta gero ni hitz egiten hasi nintzaion, ikas zezan. Orduan, honela hitz egiten hasi ginen. Hizketan hasten zen eta nik moldaviez egiten nion, errumanieraz alegia... Tira, doinua apur bat desberdina da, baina errumaniera da azken finean. Eta ez zidan erantzun nahi izaten. Eta kito.

Eta orain damutu egiten zara horretaz?

AI1: Bai, apur bat bai". (E6)

Horrenbestez, argi ikusten da jatorriko hizkuntza dela, askotan, atzerritar jatorriko pertsonen beren seme-alabei transmititzen dieten ezaugarrietako bat, eta gurasoek garrantzi handia ematen diotela horri. Familien diskurtsoan ikusi ahal izan denez, gurasoak jatorriko hizkuntzan komunikatzen dira, eta haien ondorengoek, berriz, gehienetan nahastu egiten dituzte jatorriko hizkuntza(k) eta gaztelania edo euskara. Alde horretatik, elkarrizketatutako gurasoetako askok adierazi dute nahiko luketela beren seme-alabek beren jatorriko hizkuntzari

eustea eta hura etxean erabiltzen saiatzea. Batzuetan, akademia pribatuetara edo laguntza-irakasleengana jotzen dute, gainera, beren ondorengoek oso gaztetatik ikas dezaten irakurtzen eta idazten. Azkenik, jatorriko hizkuntzari eusten ez diotenen kasuak ere aurkitu ditugu.

Elkarrizketatuek euskaraz duten pertzepzioari dagokionez, esan beharra dago euskara zeharka agertzen dela haien diskurtsoan. Hala, bai atzerritar jatorriko pertsonak bai haien seme-alabek aitortzen dute euskarak duen garrantzia Euskal Herrian, lana aurkitzeko batez ere.

“Lanerako zinez garrantzitsua da. (...) Horrenbestez, Euskal Herrian lan egin nahi badut, euskara jakin behar dut. Bestela, leku pribatuetara joan behar dut lanera, eta agian ez dira leku publikoak bezain onak eta ez dizute ordaintzen hainbeste.”

“Se: *Eta lanerako zinez garrantzitsua da*”. (E2)

“*Eta orain, zuentzat, zer garrantzi du euskarak?*”

AI2: *Lan egiteko Gasteizen dauden hizkuntza guztiak jakin behar dira edo. Eta garrantzitsua da jakitea.*

AI1: *Bai, oso garrantzitsua da*”. (E5)

“Am: *Lanerako zinez garrantzitsua da. Nik ia ezin dut leku publiko batean lan egin, euskara ez dakidalako. Horrenbestez, Euskal Herrian lan egin nahi badut, euskara jakin behar dut. Bestela, leku pribatuetara joan behar dut lanera, eta agian ez dira leku publikoak bezain onak eta ez dizute ordaintzen hainbeste. Eta kanpora joan behar duzu gaztelaniaz lan egitera*”. (E5)

Beraz, euskara ez jakitea eragozpenzat hartzen da lana aurkitzeko, oro har, eta eremu publikoan lana aurkitzeko, bereziki. Zentzu horretan, elkarrizketatuek uste dute euskara ikastea funtsezkoa dela etorkizunerako.

“*Garrantzitsua iruditzen zaizu zure umeez hemengo hizkuntzak ikastea, euskara eta gaztelania?*”

Am: *Nire umeez euskara ikasten dute.*

“*Eta garrantzitsua iruditzen zaizue euskara ikastea?*”

Se1: *Hemen bizi nahi badugu, bai.*

“*Eta zuri zer iruditzen zaizu eurek euskara ikastea?*”

Am: *Nire umeez euskara ikasten dute. Euskara gehiago gustatzen zaie ingeleza baino*”. (E15)

“*Eta zuentzat garrantzitsua al da eurek gaztelania eta euskara ikastea?*”

Am: *Bai. Niri berdin dit, baina hemen, Bilbon, biziko direnez...*”. (E12)

Gainera, denborarekin euskararen erabilerak garrantzi handiagoa hartuko duela aitortzen dute; beraz, gurasoek garrantzi handia ematen diote seme-alabek gaztetatik ikasteari, eta hori hizkuntza-ereduaren aukeraketari buruzko diskurtsoan islatzen da.

“Am: *Nik nahiago duk beraiek ongi moldatzea, ongi euskararekin, hemen denborarekin... Gaztelania kalean ikas dezakete, baina euskara, handitzen direnean... Hemen, Eusko Jaurlaritzako edozein bulegotara joaten bazara agiriren bat dela eta, euskaraz hitz egiten dizute. Horregatik jakin behar dute ongi euskara. Eta nik ikusten dut oso ongi dabiltzala euskararekin, hitz egiten dutelako*”. (E4)

“Eta nola aukeratu duzue hizkuntza-eredua?”

Am: Hemen bizi garenez eta euskaraz ikasteko aukera dagoenez, etorkizunera begira, erabaki dugu euskara ikasi behar dutela; izan ere, hemendik hamar bat urtera gu guztiok erretiroa hartuko dugu, eta orduan ikusi behar. Agian hemen geratuko gara, edo ez. Baina hauek, etorkizunera begira, ikasi egin behar dute. Karreraren bat egin behar dute, eta hemen lan egiteko aukerarik bada, izan dezatela hemen lan egiteko aukera.

Eta zure ustez, garrantzitsua da euskara horretarako?

Am: Bai, garrantzitsua da etorkizunerako. Gu hasieratik ahalagindu ginen, eta asko, euskara ikas dezaten”. (E3)

“Hemen bizi garenez eta euskaraz ikasteko aukera dagoenez, etorkizunera begira, erabaki dugu euskara ikasi behar dutela.”

Zentzu horretan, gurasoetako batzuek euskara ikasteko errefortzuetara jotzen dute, beraiek ez baitira gai beren seme-alabei laguntzeko.

“Ikusten dut garrantzi handia ematen diozula umek euskaraz eskolatzeari.

Am: Bai, gustatzen zait. Nik nahiago dut beraiek euskara gehiago ikastea gaztelania baino. Euskaraz hitz egiteko gai banitz, euskaraz egingo nieke. Argi dut. Beti eskatzen dut eta tematzen naiz gehiago ikas dezaten”. (E2)

“Ikusten dut, bai, garrantzi handia ematen diezula hizkuntzei. Hizkuntza bat gehiago jakin dezaten edo etorkizunera begira?”

Am: Bai, buruan nituen euskara eta ingelesa. Berak euskara ikasteko bi errefortzu izaten ditu. Tira, uste dut astean hiru edo lau errefortzu izaten dituela.

Akademian?

Am: Ez, ikastetxean. Guraso-elkartekoek ematen dizkiote, hantxe bertan. Euskara ikasten du, eta robotika ere bai. Eta besteak euskara- eta matematika-eskolak hartzen ditu. Eta bera nagusiagoa denez eta burua bere lekuan jartzen hasia duenez, ingelesa ere han ikas dezan nahi dut. Orain ahalegin handirik gabe egiten badu ere, arretarik gal ez dezan. Hobe dela uste dut”. (E2)

“Nik nahiago dut beraiek euskara gehiago ikastea gaztelania baino. Euskaraz hitz egiteko gai banitz, euskaraz egingo nieke.”

Hala ere, elkarrizketatu ditugun pertsona guztiek ez diote euskarari garrantzi bera ematen. Hala, kasu batzuetan, zenbaitentzat euskara ikasteak bigarren mailako zerbait izan behar duela ikusten da, erabilera tokiko eremura mugatzen baita. Beren migrazio-proiektua ez dutenez Euskadira soilik mugatzen, pertsona batzuek adierazi dute garrantzitsuagoa irizten diotela ingelesa edo beste hizkuntza batzuk ikasteari, azkenean kanpora joaten badira ere.

“Zuentzat badu garrantzirik edo interesik euskara ikasteak?”

Al: Bai, kontu horiengatik, euskarak hemen bakarrik balio baitu, Araban. Hemendik kanpo ez du balio. Niretzat, ingelesa ikastea da garrantzitsuena. Baina kostatu egiten da ikastea”. (E14)

“Zuri garrantzitsua iruditzen zaizu txikiak euskara ikastea?”

Ai: Hemen, beharrezkoa da. Garrantzitsua espainiera eta ingelesa ikastea da. Eta Txinako hizkuntza”. (E14)

“Al: Eta nik pentsatzen dut... D ereduarekin bakarrik, neskato honek ezin du Euskaditik irten. Bere ikasketak eta informazio guztia euskaraz jasoko baditu, hemen geratuko da.

“Euskarak hemen bakarrik balio baitu, Araban. Hemendik kanpo ez du balio. Niretzat, ingelesa ikastea da garrantzitsuena.”

Se: Esan nahi duena da hizkuntzak ez diola balioko beste lekuren batean lana aurkitzeko.

Joan nahiko balu.

Se: Ez lioke balioko lan egiteko. Ez da frantsesa bezala; frantsesa jakinez gero, beste herrialderen batera joan eta frantses-irakaslea izan zaitezke. Ingelesarekin berdin.

Al: Guk ez dugu beste inora joateko asmorik, oraingoz ongi baikaude hemen.

Baina agian...

Al: Bai, aurrerago... batek daki zer gertatuko den etorkizunean. Ez dakigu nora eramango gaituen patuak. Orain hemen gaude, eta hemen jarraituko dugula pentsatzen dugu. Baina agian ez da hala gertatuko". (E8)

Bestalde, elkarrizketatutako pertsona batzuek ikusten dute euskarak oso erabiler mugatua duela, eta hori oztopo gehigarria da euskara ikasteko. Hala, beren ustez, eguneroko komunikaziorako euskaraz hitz egiteko beharrik ez izateak, zenbait eremutan behintzat, zaildu egiten du haren normalizazioa, eta, horregatik, atzerritar jatorriko pertsonak ez dute euskara ikastea lehenesten.

"Al1: Tira, nik uste dut hemen zailagoa dela, Eibarren behintzat euskara ez baita hainbeste hitz egiten. Frantziara zoazenean, guztiak frantsesez hitz egiten dute, eta beraz, behartuta zaude frantsesa ikastera, bai ala bai, komunikatu nahi baduzu. Hemen, bestalde, gaztelaniaz komunikatzeko aukera duzunez, gehiago kostatzen da euskara barneratzea.

Lehenik gaztelania ongi ikastea nahiago duzulako, beharbada.


Al1: Hori da. Frantzian, gaizki esango baduzu ere, ez duzu frantsesez esan beste aukerarik, eta agian berdín dizu, baina hemen, espainieraz jarduteko eta ongi hitz egiteko aukera izanda, zergatik hasiko naiz neure bizitza katramilatzen, espainieraz molda banaiteke. Beste herriren batean egongo bagina, hala nola Bergaran, han euskara gehiago egiten dutenez, azkarrago ikasiko genuen, nire ustez". (E7)

"Al: Eta hona iritsi nintzenean, ikusi nuen bazela hizkuntza bat, baina mundu guztiak gaztelaniaz egiten zuela eta inork ez euskaraz. Oso arraroa zela iruditu zitzaidan". (E2)

"Al: Nik uste dut, Euskal Herrian gaudenez, lehentasuna eman beharko litzaiokeela euskarari, eta bigarren mailan utzi beharko litzatekeela gaztelania, baina ez dakit". (E2)

5. eskeman labur-labur jaso da, alde batetik, elkarrizketatuen ustez zergatik den garrantzitsua euskara ikastea eta, bestetik, zer eragozpen ikusten dituzten zenbaitek, euskara ikasteko. Era berean, ikusi ahal izan dugu atzerritar jatorriko pertsona gehienek euskara ongi jakitea funtsezkoa dela ikusten dutela, lehenik eta behin, ezinbestekoa ikusten dutelako "lan ona" aurkitzeko eta, oro har, etorkizunerako. Gainera, euskara integrazio-bideetako bat dela ikusten dute, euskal kulturaren parte delako.

5. eskema. Euskararen garrantzia eta hura ikasteko zein erabiltzeko eragozpenak



Iturria: egileek egina

Bestalde, atzerritar jatorriko pertsonak euskara ikastea eta normalizatzea zailtzen duten zenbait faktore daude. Lehenengoa eta pisu handiena duena migrazio-proiektuaren ziurgabetasuna da; hori dela eta, elkarrizketatutako pertsona askok ez dute argi non kokatuko diren etorkizunean. Bigarren faktorea, aurrekoarekin oso lotuta dagoena, hizkuntza horren erabilera lurralde oso txiki batera mugatzen dela da, eta horren ondorioz, pertsona askok beste hizkuntza batzuk lehenesten dituzte, hala nola ingelesa edo frantsesa.

Gainera, atzerritar jatorriko pertsonen artean hedatuta dago eguneroko komunikazioan euskara oso gutxi hedatuta dagoelako pertzepzioa, eta, horregatik, kasu askotan euskara ikastea ez da premiatzat hartzen, bigarren mailako hizkuntzatzat baizik. Dena den, bada adostasun bat: euskara ikasteak baduela nolabaiteko zailtasuna, eta, beraz, denbora asko eta ahalegin handia eskatzen dituela.

6

Integrazioa eta gizarte-harremanak

Atal honetan, elkarrizketatutako pertsonentzat oso lotura estua duten bi gai aztertuko dira: integrazioa eta gizarte-harremanak. Atzerritar jatorrikoen ondorengo familien gizarte-harremanez dihardugu, integrazio-prozesuaren atal diren aldetik; izan ere, haiek dioten bezala, desberdintasunak daude gurasoen zirkuluen eta haien ondorengo zirkuluen artean. Horretan, bereizi egingo ditugu, alde batetik, elkarrekintzen espazio fisikoak (ikastetxeko instalazioak, parkea) eta, bestetik, espazio sinbolikoak (hezkuntza, jatorriko komunitatea...), eta arreta jarriko dugu beren zirkuluko lagunen jatorrian.

Gurasoak

Diskurtsoen analisiak ageriko egiten duenez, bi egoera daude lagunen eta eza-gunen taldeen osarari dagokionez: talde heterogeneoak (jatorri anitzekoak, bertakoak barne) eta talde homogeenak (ia beti jatorri bereko pertsonaz osatuak).

“Eta badituzue bertako lagunak ere?”

Am: Ez. Afrikakoak, Afrikakoak bakarrik”. (E5)

“Se1: Bere lagunak ere errumaniarrak dira.

Badituzue bertako lagunak ere?”

Am: Beraiek agian bai, baina guk ez.

Eta ikastetxean ezagutu dituzue?”

Se1: Gehienak bai.

Se2: Ikastetxean, kalean, ikastetxeko lagunak

bitartez... edo ikastetxeko norbaitekin futbolean jolastera joaten baginen eta hura lagun gehiagorekin etortzen bazen. Eta hala joan gara jende gehiago ezagutzen”. (E13)

“Ikastetxean, kalean, ikastetxeko lagunak bitartez... edo ikastetxeko norbaitekin futbolean jolastera joaten baginen eta hura lagun gehiagorekin etortzen bazen. Eta hala joan gara jende gehiago ezagutzen.”

“Eta nongoak dira zuen lagunak?”

Am: Kolonbiakoak, Paraguaikoak... leku guztietakoak. Ez gara...

Denetik dago.

Am: Bai. Eta euskal herritarrak ere bai.

Am: Ekuadorreko lagun bat badut, eta bertako bat, euskal herritarra. Orain hemengo mutil batekin irteten ari naiz, eta oso ongi moldatzen naiz haren lagunekin. Haiekin egon naiz, eta pertsona onak dira. Asko ematen diete nire alabei, asko maite dituzte. Eta nik ere asko ematen diet haiei. Haren lagun-taldea nirea era bada orain.

Eta nongoak dira zure alaben lagunak?

Am: Nire alabak ongi moldatzen dira mundu guztiarekin, baita ijitoekin ere; izan ere, ikastetxean badira ijitoak ere. Alabak dio bere lagunetako batzuk ijitoak direla. Nik galdetzen diot ea nola moldatzen diren, eta berak erantzuten dit bat oso ederra dela, printzesa dirudiela". (E2)

"Beraz, zuen lagun-taldea beste bat da, ez ikastetxeko gurasoena, ezta?

Am: Ez lagun errumaniar batzuk dauzkagu". (E9)

"Eta baduzue hemengo lagunik, euskal herritarrik, edo gehienak txinatarrik dira?

Am: Gehienak hemen bizi diren txinatarrik dira, eta kanpoko batzuk ere badira". (E12)

Ikuspegik egindako ikerketa kuantitatiboaren arabera, atzerritar jatorriko familiek sare mistoetan edo jatorri bereko familien sareetan erlazionatzeko joera dute; bertako familien artean, berriz, ohikoagoak dira bertako pertsonen taldeak (talde ez mistoak). Eta Afrikatik etorritako pertsonak dira bertakoen artean lagun gutxien dituztenak (Fernández et al., 2017). Narratiben irakurketak emaitza hori berresten duela dirudi; izan ere, bertako pertsonen buruzko informazio ez badugu ere, atzerritar jatorriko familien erretratua bat dator sareen eta jatorrien osaerarekin.

Diskurtsoetako batzuek funtsezko informazioa azaleratzen dute: zer espazio fisikotan edo sinbolikotan gertatzen diren adiskidetasun-zirkuluak sorrarazten dituzten elkarrekintzak. Aipatuenean artean, ikastetxea (eta hortik eratorritzen diren espazio guztiak) eta hiri-espazioak, hala nola parkeak, eta lan-esparruko espazioak daude. Hona hemen adibide batzuk:

“Ez dut lagunik. Hamar urte daramatzat hemen, baina ez dut lagunik.”

“Lehen esan didazu hemen ez duzula lagunik, ezta?

Am: Ez dut lagunik. Hamar urte daramatzat hemen, baina ez dut lagunik. Eta familiarik ere ez. Ama hil zen, eta aita ere bai.

Beraz, lanaren bitartez, aitaren lagunaren bitartez, egin duzue harreman hau". (E15)

“Am: Nire lagunak hangoak dira, gertu bizi dira baina hangoak dira. Lanean ere badi-tut bi lagun, ze ez da gauza bera lankideak izatea eta lagunak izatea.

Zertan bereizten dira?

Am: Lagunekin gero ere hitz egiten duzu, WhatsApeez, zeure kontuez, eta hondartzara joaten zara. Ez duzu lan-kontuez bakarrik hitz egiten”.

Eta lagun euskal herritarrak, non ezagutu zenituen?

Am: Ikastetxean.

Eta orain, nagusitan, haiekin harremana izaten jarraitzen duzu?

Am: Lagunekin bakarrik, ez denekin.

Denak?

Am: Ama asko ziren, ia denak". (E16)

"Eta kaleko lagunak edo zure lagunen zirkulua, nola ezagutu zenituen? Auzoan, lanean edo non?"

Am: Han eta hemen, denean. Lanean, auzoan...

Am: Bai, irten ere irten behar da eta. Bestela, a ze buruko mina. Hemen edo parkean egiten dugu hitzordua. Elkarrekin hitz egiteko geratzen gara, haurrak jolasean dabiltzala. Ni Angolako naiz, eta Kongoko edo Senegaleko jendearekin egoten naiz. Elkar agurtu eta hitz egiten dugu". (E7)

"Nongoak dira zure lagunak, esate baterako?"

AI1: Hemengoak". (E6)


"Am: Han bertan, ikastetxeetan bizi zen. Ogia erostera jaisten zen, eta hala ezagutu nuen.

Badut bizi osoko lagun bat ere, hona ekarri ninduen. Moldaviarra da, eta hemen bizi da. Eta ondo moldatzen naiz harekin. Baina ez dut harremanik moldaviarrekin. Jendea ezagutzen dut, baina ez dut moldaviar lagun talde bat. Hemengo bizimoduan integratuta nago, eta ongi ikasi dut nola bizi zareten hemen.

Hasieran, ez nekien hitz egiten, eta hitz batzuk esaten banituen ere, asko kostatzen zitzaidan esaldiak osatzea. Baina gerora ikasi dut txantxak eta halakoak ulertzen". (E6)

"Jendea ezagutzen dut, baina ez dut moldaviar lagun talde bat. Hemengo bizimoduan integratuta nago, eta ongi ikasi dut nola bizi zareten hemen."

6. eskema. Gurasoen harreman-guneak



Iturria: egileek egina.

Eskema honetan (6) espazio horiek laburbildu nahi izan ditugu. Ikastetxea da gurasoen harremanak egiteko funtsezko lekua. Litekeena da, gainera, leku hori gehiegi aipatua izana, mikrotaldeak familietan osatu baitira soilik; dena den, argi erakusten dute ikastetxea funtsezko lekua dela atzerritar jatorriko pertsonen harreman-sareetan. Gainera, ikastetxea diogunean ez dugu hura bakarrik aipatzen, garrantzi handiko beste espazio batzuk ere sortzen baitira haren bitartez: ikastetxeak antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eta esparru akademikoari lotutako jarduerak, elkarteak, hala nola guraso-elkartea, edo ikastetxea

dagoen auzoa bera (ikastetxea bizitza komunitario dinamikoen sortzaile baita). Gurasoek eskolako bileretan topo egiten dute, edo beren auzoetako parkeetan eta haurrentzako plazetan, eta leku horietan ere noizean behin komunikatzen direla esaten dute.

Baina ikastetxea ez da harreman-gune bakarra; jatorri bereko lagunen eta eza-gunen taldeak ere aipatzen dira, sarritan etxean edo parkeetan elkartzen direnak edo jarduerak egiteko antolatzen direnak (batzuetan ofizialki, elkarte formatuan). Lan-esparrua ere nabarmentzekoa da, elkarrekintza sozialaren iturri den aldetik, eta, batzuetan, lagun-taldeak ere egiten dira esparru horretan.

Hala ere, agian kolektiboaren ezaugarriengatik, ikastetxea da gizarte-elkarreraginaren gakoetako bat, eta elementu nagusia ere bai, aztertutako diskurtsoetan. Zentzu horretan, elkarriketatutako pertsonetako batzuek ikastetxetik kanpo beste guraso batzuekin izandako harremana azpimarratu zuten. Hortaz, eskolako bilerez gain, parkeak, bazkariak, txangoetarako irteerak edo guraso-elkar-teak antolatzen dituen ikastaro tematikoak izaten dira topagune ohikoenak.

“Baina ikastetxetik kanpo, baduzue nolabaiteko harremanik gurasoekin? Ikastetxekoaz gain esan nahi dut, aisialdian edo.

Ai: Bai, badugu harremana. Han ikasten duten haurretako asko bizi dira inguru honetan”. (E4)

“Eta zuk baduzu harremanik beste gurasoren batzuekin? Hitz egiten al duzu beste haurren gurasoekin?”

Am: Bai: Ostiraletan, esaterako, larunbatean eskolarik ez dutenez, geratu egiten gara. Haurrek jolas apur bat egiten dute parkean, eta gu kafea hartzen egoten gara. Elkarrekin egoten gara ordutxo batzuk”. (E3)

“Eta zu ere bazeunden guraso-elkartean?”

Am: Bai.

Eta zer egiten zenuten guraso-elkartean?”

Am: Sukaldaritza eta beste gauza asko.

AI1: Bai. Mendira joan eta halako beste gauza batzuk. Eta txikientzat ere bazen”. (E5)

“Ai: Bai. Ikastola gurasoen kooperatiba bat da.

Parte hartzen duzue, beraz. Eta margotu beharra dagoenean edo, hara joaten zarete.

Ai: Bai, edozertan laguntzera. Gauzak borondatez egiten dira, eta bakoitzak ahal duena egiten du. Edozer dela ere. Bihar zerbait egin behar bada, nor joango den galde-tzen dute. WhatsAppeko taldean idazten dute, eta han ematen dugu izena. Eta berdin egiten da laguntza behar den aldiro”. (E11)

Bestalde, familia batzuek ez dute guraso-elkartean parte hartzen edo ez dute inolako harremanik ikastetxeko beste gurasoekin, dela denbora faltagatik edo haiekin harremanak izateko interesik ez dutelako.

“Ikastetxe horretan, harreman ona duzu irakasleekin?”

Am: Bai, baina ez nago guraso-elkartean.

Zergatik?”

Am: Ez dut denborarik". (E5)

"Eta baduzu harremanik ikastolako beste guraso batzuekin?

Am: Ez askorik. Lehen, txikiak zirenean, aitak eramaten zituen, autoz. Hark eramaten eta ekartzen zituen. Eta orain, goizetan, beti ibiltzen gara presaka eta korrika. Umeak han utzi, eta alde egiten dut. Eta arratsaldeetan berak jasotzen ditueneguz, ez dut aukerarik izaten haiekin egoteko.

Agian bera txikia zenean.

Am: Ez, berak hilabete baino ez baitzuen iritsitakoan. Berarekin etxean geratzen nintzen, eta senar-ohiak eramaten zuen.

Beraz, ez duzu harremanik beste gurasoekin.

Am: Ez, eta ez dit grazia handirik egiten, gainera. Nahiago dut neure lagunak izan, ezagutzen ditudanak eta nire antzekoak direnak. Hala, lagun egiten gara. Ez han bezala, guraso izateagatik bakarrik edo, ez". (E6)

"Nolakoa da ikastetxeko beste gurasoekin duzuen harremana?

Al: Beraiek ez dute inolako harremanik". (E14)

"Am: Bai, guraso-elkartean egonak gara, baina ez dugu laguntasun-harremanik izan beste gurasoekin, ez.

Ez zenutelako interesik edo jendeak ez duelako horretarako aukerarik ematen, nolabait esateko?

Am: Ez, lagunak gurasoekin baino ez. Gero ez". (E9)

Atzerritar jatorriko pertsonen zenbait testigantzetan, bestalde, beste guraso batzuekin komunikatzeko dituzten zailtasunei buruz hitz egin digute, guraso horien jarrera arrazista eta xenofoboak aipatuta. Halako egoera bat adierazten du emakume nigeriar honek, aitortuz ama batzuek ez dutela berarekin harremanik izan nahi immigrantea delako.

"Eta zer moduz moldatzen zara beste gurasoekin? Harreman ona duzue, ezta?

Am: Ez.

Ez zara haiekin egoten?

Am: Amekin bai. Ama batzuekin, ez guztiekin. Batzuk hitz egin nahi izaten dute atzerritararekin, eta besteek ez. Asko dira atzerritarrekin hitz egin nahi ez dutenak. Nazka emango baliete bezala edo begiratzen diete atzerritarrei.

Arrazistak direla uste duzu?


Am: Bai, batez ere arrazistak. Zuk beraiekin hitz egin nahi

duzu, baina beraiek zurekin ez. Ezer izango ez bazina bezala begiratzen dizute". (E15)

"Amekin bai. Ama batzuekin, ez guztiekin. Batzuk hitz egin nahi izaten dute atzerritararekin, eta besteek ez."

7. eskeman, atzerritar jatorriko familiek beste gurasoekin egoteko dituzten topagune eta harremangune nagusiak laburbiltzen dira. Hala, guraso-elkartean parte hartzea funtsezko elementua da, eta harremana formalizatzeko plataforma gisa balio du. Han antolatzen dira eskolaz kanpoko jarduerak, ez bakarrik ikasleentzat, baita haien gurasoentzat ere, eta hala, harremana sustatzeaz gain, konfiantza eta lotura handitzen dira.

7. eskema. Beste guraso batzuekiko harremanguneak



Iturria: egileek egina

Beste elementu garrantzitsu bat WhatsApp taldeen bidezko harremana da, gurasoak uneoro komunikatuta egotea ahalbidetzen baitu, baita jarduerak antolatzeari eta informazioa partekatzea ere.

“WhatsApp talde baten nago haiekin. Eta han sartzen naiz ezer berririk baden jakiteko, bai nagusiarekin bai txikiarekin.”

“Eta gainerako gurasoekin? Ongi haiekin ere?”

Ai: Bai, WhatsApp talde baten nago haiekin. Eta han sartzen naiz ezer berririk baden jakiteko, bai nagusiarekin bai txikiarekin. Haren bidez jasotzen dut berri oro. Eta ez dut arazorik jendearekin”. (E11)

Kontuan hartu behar da ikastetxeko eta hari loturiko espazioetako elkarrekintza bereziki garrantzitsua dela emakumeen kasuan. Azaldu den bezala, amak izan ohi dira ikastetxerako erreferentziatzeko pertsonak, eta horrek, ondorio positibo gisa, harreman sozialak eta afektiboak areagotzea ekar dezake: “horregatik dira amen taldeak, ondo dago gauzak jakiteko eta noizean behin irteteko”. (E16)

Ikastetxeko harremanei dagokienez, azpimarratzekoa da ikastetxe motak zenbateraino baldintzatzen dituen gurasoen eta seme-alaben lagunak. Ikuspegik 2017an egindako azterlanak frogatu zuenez, ikastetxe pribatu eta itunduetan matrikulatutako seme-alabak dituzten gurasoen artean handiagoa da euskal jatorriko lagunak dituzten pertsonen ehunekoa ikastetxe publikoak aukeratu dituztenen artean baino (Fernández et al., 2017). Hori da, hain zuzen, Bourdieuk kapital soziala esanda aipatzen duena. Bai hezkuntzari loturiko atalean eta bai gizarte-harremanak ardatz dituen honetan, bi-bietan, aniztasun handiko eskola-testuinguruak deskribatzen dituzte atzerritar jatorriko familia askok. Eskola-aniztasun horrek, ikastetxeak gizarte-harremanetan duen garrantzia kontuan

hartuta, lagunaren eta ezagunen sarean aniztasunean eragiten du, eta batzuetan, sare horietan bertako pertsonarik ez izatea.

Ondorengoak

Gurasoek ez bezala, atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabek sare sozial oso heterogeneoak izaten dituzte, atzerritar jatorriko pertsonak ez ezik, bertakoek ere osatutakoak. Modu erraz eta espontaneoan, diskurtsoek agerian uzten dute atzerritar jatorriko haurrak aniztasun handiarekin bizi direla, eta neurri batean, naturalizat jotzen dutela.

“Ai: Bai, leku guztietakoak. Hemengoak, latindarrak, marokoarrak... denetik apur bat” (bi alabek). (E2)

“Ai: Nire ume guztiak hemen jaio dira, hemengo nazionalitatea dute, eta mundu guztiarekin dute harremana. Hemengoekin eta atzerrikoekin. Nigeriakoekin, Kamerunekoekin eta leku guztietakoekin”. (E4)

“Ai: Lagun txinatarrak ditugu, bai eta hemengoak ere, Euskal Herrikoak.

Ai: Txinatarrekin bada, txinatarrekin gaude, eta gero, euskal herritarrekin bada, euskal herritarrekin. Batzuetan, euskal herritar horiek lagun txinatarren ezagunak badira, denok elkarrekin egoten gara. Eta bestela, bakoitza bere aldetik.

Eta zure lagunak Txinakoak dira? Edo Euskal Herrikoak?

Se: Batzuk hemengoak eta besteak Txinakoak.

Eta ikastetxeko lagunak hemengoak dira edo nongoak?

Se: Hemengoak.

Se: Hemengoak eta beste leku batzuetakoak”. (E14)

“Eta zuen lagunak?

Se1: Bada, nire lagunak hemengoak eta kanpokoak.

Se2: Badira Ekuadorrekoak, Mexikokoak, Perukoak... Ez dakit. Leku askotakoak. Txinatarrak ere bai. Eta bertakoak”. (E13)

“Oro har, nongoak dira zuen lagunak? Kanpokoak gehiago, hemengoak gehiago edo denetik dago?

AI1: Nireetan, denetik dago.

AI2: Bai, nireetan ere bai”. (E7)

“Leku guztietakoak. Hemengoak, latindarrak, marokoarrak... denetik apur bat.”

“Badira Ekuadorrekoak, Mexikokoak, Perukoak... Ez dakit. Leku askotakoak. Txinatarrak ere bai. Eta bertakoak.”

Ikuspegiren “Aniztasuna ikasgeletan: ikuspegi kuantitatiboa (6-16 urte)” azterlanean aipatzen zen bezala, atzerritar jatorriko ikasle gehienek lagun-talde mistoak dituzte. Aitzitik, bertako ikasleen lagun gehienak jatorri berekoak dira, eta ez dira oso ohikoak atzerritar jatorriko lagunak dituzten pertsonak (Fernández et al., 2017). Berriz ere, bertako ikasleen ikuspegia jaso ezin badugu ere, agerikoa dirudi atzerritar jatorriko pertsonen zirkuluetan aniztasun handia dagoela, ikastetxean eta hari loturiko espazioetan sortzen den aniztasuna, hain zuzen. Egia da, halaber, bertako ikasleak gehiengo izanik, haien eta atzerritar

jatorrikoen arteko desproporzio handiak ez duela erabateko korrespondentzia ahalbidetzen. Modu apalagoan esatearren, ez dago atzerritar jatorriko ikasle nahiko bertako ikasle guztien lagun-sareetan presentzia izateko.

Adingabe guztiek bezala, atzerritar jatorriko hurrek harreman-eremu mugatuagoak dituzte gurasoek baino. Esparru akademikora, eskolaz kanpoko jardueretara eta gurasoen harreman-sareetara mugatzen dira, batez ere. Auzoko parkea eta espazio komunak aipatzen dira, berriz ere, atzerritar jatorriko haurren sozializazio-eremu garrantzitsuenak diren aldetik.

“A11: Bai. Mendira joan eta halako beste gauza batzuk. Eta txikientzat ere bazen.

Ni ez naiz egon Ramon Bajon, baina bai Campillon eta Goyan, eta neskatoa zarenean jolasean eta hasten zara; gero, handitu ahala, begiralearen laguntzaile izaten uzten dizute, eta azkenean, begirale izaten. Hala hasi nintzen harremana izaten, eta oso ongi dago.

Ahizpa ere bide bera egiten ari da. Txikitan hasi zen. Gero begiralearen laguntzaile izaten irakatsi zioten, eta orain begirale da. Eta oso ongi dago, ze ez zara horretatik erabat irteten”. (E5)

“Eta non ezagutu zenituen lagunak? Ikastetxean?

Se: Ikastetxean eta futbolean”. (E15)

“Zenbaitetan, gure lagunekin gauzak egitera joaten gara, txangoak...”. (E11)

Gizarte-harremanak, integrazioaren gakoa

Integrazioa, berez, ez zen elkarrizketen gidoiaren aztergaietako bat, baina zeharka agertzen zen, batzuetan berez eta geuk iradokita besteetan. Aztertutako diskurtsoetan, gurasoen eta ondorengoen integrazioa hezkuntzari lotuta agertzen zen, baina, bereziki, gizarte-harremanei lotuta. Gurasoek lagunarteko harremanez eta zirkuluez hitz egiten digute, ia kultura- eta gizarte-kapitalari buruz ariko balira bezala (Bourdieu, 2019), eta onartzen dute “hemengo” pertsonak osatutako zirkulu batean egoteak kultura- eta hizkuntza-murgiltzea bermatzen duela eta haurrari laguntza-sare bat ematen diola. Sare horiek lan-munduan sartzen laguntzeko duten eragina ere aipatzen da.

“Zentzu horretan, uste duzu zure semea errazago integratuko dela zu eta emaztea baino?

Ai: Baietz uste dut. Errazago, bai. Gu hizkuntza jakin gabe etorri ginelako eta egoera konplexuagoa zelako. Hizkuntzagatik batez ere, baina kultura ere oso desberdina da”. (E11)

“Am: Zuk galderan aipatzen duzun integrazioa hori da, hemen zer gertatzen den jakitea eta hemengo jendea ezagutzea. Nik ia ez dut inor ezagutzen hemen, baina beraiek bai. Nik ikastetxekoak bakarrik. Horregatik, handitzen direnean agian haie-tako batek lana eskaintzen die bere enpresan. Hori da integratzea, hemengo lagunak izatea.

Hortaz, beraiek gehiago integratuko dira zu baino?

Am: Bai, beraiek jada hemengoak direlako, baina ez hemen jaio izanagatik bakarrik, baizik eta hemengo kultura jaso dutelako, hemen hitz egiten den hizkuntza hitz egiten dutelako eta beren lagunak hemengoak direlako. Nik hango kultura jaso dut, eta lagunak ere hangoak ditut". (E16)

"Al: Bai, kanpoko jende asko ari dela etortzen. Eta horrek kezkatu egiten nau, ezin direlako herrian integratu edo ezin dutelako herrikoekin bat egin. Barruan zera egiten ari direlako... Ulertzen didazu?

Baina zein da arazoa? Datozen ikasle berriak elkarrekin biltzen direla edo bertakoak joaten ari direla?

Al: Bertakoak ikastetxetik joaten ari dira eta kanpotik jendea dator. Ikastetxea migratzaileen ikastetxe bihurtzen ari da. Eta hori ez dut gustuko, txarra delako integratuz. Norekin integratuko dira, bada?

Egia. Ez dute aukerarik bestelakoekin harremana izateko.

Al: Hori da. Ez dute harremanik bertakoekin". (E8)

"Prozesu bat izango zelakoan nago, eta gorabeherak izango zenituztela.

Al: Baita. Hasiera oso zaila izan da.

Agian, aipatu didazunez, hizkuntzarengatik ere bai.

Al: Hizkuntzarengatik eta sentimendurengatik; kulturen kontuagatik, ez baitakigu. Orain, ikasi dugunez eta, bagoaz". (E14)

"Ea hemen, Euskal Herrian, integratuta zaudeten esan nahi nuen.

Am: Ez, hainbeste ez. Haurrekin nago, eta, beraz, hainbeste ez. Ez hemen bezala, pintxo-potera eta abarretara joanez. Oso zaila da, ezagutzen ditudan pertsona gehienek beren negozioa dutelako, eta haurrek aitona-amonak dituztelako. Ez naiz hainbeste sartzen. Ikastetxeko kontuetan parte hartzen dut apur bat. Haurrak agian, etorkizunean, gehiago sartuko dira gizartean, baina nik zailago dut, nagusiagoa nintzela etorri nintzelako.

Eta hizkuntzagatik ere bai, noski.

Am: Bai, hizkuntzagatik. Eta haurrek, etorkizunean... Pintxo-potea edo kalleko edana, ez dakit zer egingo duten, baina badituzte jada bertako lagunak". (E12)


“Zuk galderan aipatzen duzun integrazioa hori da, hemen zer gertatzen den jakitea eta hemengo jendea ezagutzea. Nik ia ez dut inor ezagutzen hemen, baina beraiek bai.”

“Bertakoak ikastetxetik joaten ari dira eta kanpotik jendea dator. Ikastetxea migratzaileen ikastetxe bihurtzen ari da. Eta hori ez dut gustuko, txarra delako integratuz.”

Garrantzitsua da ulertzea nola ulertzen eta definitzen duten integrazioa elkarrizketatutako pertsonak. Definizio hori, bada, honako gai hauetan oinarritzen da: hizkuntza eta kultura ezagutzea eta bertako lagunaren sare bat izatea.

8. eskeman ikus daitekeenez, gurasoek, berengan hautemandako integrazio-maila eta seme-alaben integrazio-maila alderatu eta aldeak eragiten dituzten alderdiak aipatzean, hizkuntza eta kultura ezagutzea edo bertako lagunaren sarea izatea nabarmentzen dituzte.

8. eskema. Integrazioaren definizioa



Iturria: egileek egina

Eta hori horrela izanik, oso integrazio kulturalista eta asimilazionista definitzen dute, tokiko kultura ezagutzea ez ezik, hura hartzea ere eskatzen duena.

Diskriminazioa eta bizikidetzaren eremuak

Bizikidetzaren eremuei eta integrazioaren oinarri gisa ezartzen diren gizarte-harremanei dagokienez, seme-alabek ikastetxeei loturik nabarmentzen dituzten gai batzuk aipatu behar ditugu. Ikastetxeak dira gurasoek eta ondorengoek gehien aipatzen duten espazioa, eta, ondorioz, funtsezkoa da neurtzeko nolakoa den atzeritar jatorriko ikasleek hautematen duten integrazioa, bai eta bertakoek aniztasuna barneratzeko eta hura “gu” hitzaren definizioan integratzeko duten gaitasuna neurtzeko ere. Alde horretatik, kontuan hartu beharreko adierazlea da atzeritar jatorriko ikasleek jasandako diskriminazioa.

“Se1: Epaila ezin naizela izan esan zidaten.

Zergatik?

Se1: Gurekin ibiltzen den batek esan zidanenez, beltza naizelako.

Am: Ikaskide horrek gauza txarrak esaten dizkie nire umeei. [Semearen izena]-rekin, seme nagusiarekin, hitz egin zuen, etorkizunean izan nahi zuenari buruz. [Semearen izena]-k erantzun zion epaila izan nahi zuela, eta hark ezinezkoa zela erantzun, beltza delako. [Semearen izena]-k galdetu zion ea zergatik ezin zuen, eta hark erantzun zion ez ziotela utziko, azalaren koloreagatik. [Semearen izena]-k galdetu zion ea zer izan nahi zuen etorkizunean, eta besteak erantzun zion mekanikari izan nahi zuela. Gero, ea bere koloreagatik mekanikari izaten utziko zioten galdetu zion, eta besteak baietz erantzun zionez, berak ere mekanikari izan nahi zuela esan zion. Ez bazioten epaila izaten uzten, mekanikari izango zen etorkizunean”. (E15)

“Ez, nik ez dut arrazakeriarik ikusi hemen, ezta gaizki begiratu didatenik eta gaizki hartu nautenik ere.”

“Ai: Ez, nik ez dut arrazakeriarik ikusi hemen, ezta gaizki begiratu didatenik eta gaizki hartu nautenik ere. Ez. Euskal gizarteak tolerantzia handia du. Beste zenbait lekutan ere izan naiz, eta jendea nahiko arraroa dela ikusi dut.

Eta eskolan, entzun duzue ezer halako kasuren bati buruz, maila altuagoetan bada ere?

Ai: Agian, baina niri ez didate ezer esan. Ez didate deitu horretarako.

Eta inoiz izan da arrazakeria kutsuko irainik helduen partetik?

Ai: Ez, ez”. (E4)

“Ikastetxean bazen arazorik beste haurrak iraintzen zituztenekin, borrokak edo? Kontu txarrak.

Se2: Oso-oso txikiak ginenean ez, ez zegoelako arrazakeriarik gure artean, baina gero, handitu ahala, gehiago ikusten da. Irainak eta borrokak ikusten dira, baina ez hain gogorak.

Baina arrazakeriak edo beste zerbaitek eragindako borrokak dira?

Se2: Batzuk arrazakeriak eragindakoak, eta besteak, berriz, txepelkeriek eragindakoak”. (E5)

“Inoiz egon al da irainik ikastetxeko beste haurren partetik, zuei edo beste haurren bati egindakorik, zera dela eta?

A11: Kolorea dela eta.

Bai, kolorea edo erlijioa dela eta.

AI1: Erlijioa dela eta ere bai.

Eta askotan gertatzen dira halakoak ikastetxean?

AI1: Nire ustez bai, gero eta gehiagotan". (E7)

"Zuri gertatu izan zaizu inoiz halakorik, ikastetxean? Zuri edo besteren bati egindako irainik izaten al da, atzerritarra, mai-rua, ijitoa edo dena delakoa izategatik? Nahiko sarritan izaten dira?"

Se2: Sarritan, sarritan... ez.

Baina izaten ziren. Inoiz gertatu al zaizu halakorik zuri, ikastetxean edo kalean?

Se2: Gai horri lotuta, oso gutxitan.

Zure ustez jendea ez da gainerakoekin sartzen kontu horiengatik.

Se2: Hemen, Hernani inguruan, ikusi izan ditut oso arrazistak diren zenbait, baina badira atzerritarrak oso ongi hartzen dituztenak ere.

Alegian, ez dela hain gogorra.

Ai: Pertsonak eta pertsonak daude. Batzuei ez zaie inporta zu kanpokoia izatea, baina badira desberdin hartzen zaituztenak ere". (E9)

"Eta inoiz izan da arrazakeria-kutsuko arazorik edo etorri zaizkizue inoiz esanez nor-bait iraindu dutela kanpokoia izategatik edo?"

Am: Beraiei ez, egia esan. Hemengoak balira bezala hartzen dituzte.

Edo beste batzuei.

Am: Ez dakit zuri inoiz halakorik gertatu zaizun.

AI1: Ez.

Am: Edo institutuan, abizenagatik edo.

AI1: Ezta ere". (E6)

"Pertsonak eta pertsonak daude. Batzuei ez zaie inporta zu kanpokoia izatea, baina badira desberdin hartzen zaituztenak ere."

Gurasoen eta ikasleen diskurtsoek, oro har, ez dute arrazakeria- edo diskriminazio-kasu larririk, sarri gertatzen denik edo iraupen luzekorik erakusten. Alabaina, badira kezka sortzen dute bi egoera: batetik, islamofobiak eraginda-koak, gure gizartean oso zabalduta baitago, eta bestetik, ikaskideekin izandako hizketaldietan sortutakoak, arrazagatik lan-aukerak mugatuta dituztela esaten baitiete. Ikastetxea bizikidetzaren oinarria da gazteenentzat, eta, ondorioz, horrelako egoerek eragin handia dute.

7

Espektatibak

Atzerritar jatorrikoen ondorengo gazteek eta haien gurasoek etorkizunera begira zer plan eta espektatiba dituzten jakitea ere garrantzitsua da. Horixe aztertuko dugu atal honetan, eta horrez gainera, ikusiko dugu beren ustez zer alderdi diren giltzarri etorkizun on bat lortzeko, gurasoek etorkizun optimista bat proiektatzen baitute beren seme-alabentzat, baina ez hainbestekoa beren buruarentzat.

Gurasoen espektatibei dagokienez, azpimarratzekoa da arlo akademikoan ardatzen direla nagusiki. Ia guraso gehienek unibertsitatea dute helburu seme-alabentzat, eta enplegu on bat lortzeko tresnatzat dute goi-mailako hezkuntza. Unibertsitate-ikasketak egitearekin batera, euskara-maila egokia izatea ere badute buruan; gaztelaniaz ondo dakite, eta horrek ez dakarkie besteengandik nolabait desberdintzea gizarte-mailan edo lan-munduan. Ikuspegiren aurreko azterlanean ikusitakoa berresten dute datuek berriro, eta orduan ondorioztatu zen bezala, atzerritar jatorriko hamar gurasotik zortzik nahi dute beren seme-alabak unibertsitatera joatea, eta bigarren maila batean utzita dauzkate beste aukera batzuk, hala nola lanbide-heziketako ikasketak egitea edo zuzenean lan-merkatuan sartzea (Fernández et al., 2017). “Unibertsitate-ikasketak eta euskara” bikoa gehien-gehienentzat da seme-alabek arrakasta lortzeko modua, nahiz eta ez duen bermatzen, zerikusi handia baitute, halaber, bai “zorteak” eta bai “zenbat jende ezagutzen duzun (kapital soziala)”.

“Zer espektatiba dituzue seme-alabentzat? Zer egitea nahiko zenukete?”

Ai: Ikastea, gainditzea. Eta etorkizun hobea bat irabazteko ahal duten guztia egitea. Adibidez, orain dela urte asko-asko ikasi nuen nik. Kubara joan, eta ikasketak egin nituen. Saharatik 12 urte nituela joan nintzen, eta ia hamar urte eman nituen ikasten. Ikasketak egin nituen. Eta seme-alabek ere horixe egitea nahi nuke: ikastea eta etorkizun bat izatea.

Pentsatu duzue inoiz zer nahiago duzuen, unibertsitatera joatea ala erdi-mailako gradu bat edo horrelako zerbait egitea?

“Joan daitezela unibertsitatera, edo egin dezatela zerbaitetan graduondoko bat edo goi-mailako teknologiarren bat. Edozer, nahi dutena. Baina ikas dezatela.”

Ai: Gainditzen jarraitzen badute, egin dezatela onena. Joan daitezela unibertsitatera, edo egin dezatela zerbaitetan graduondoko bat edo goi-mailako teknologiarren bat. Edozer, nahi dutena. Baina ikas dezatela. Izan ere, gaur egun mundu honetan, etorkizunik ez baduzu, ez duzu ezer. Ikasi egin behar da.” (E6)

“Am: Nik medikuntzako zerbaitetara bidaliko nituzke. Erizaintza edo horrelako zerbait. Horretarako plazak beti daude eta, beti behar izango da. Nik hori aholkatuko nieke. Edo agian esango diot kuartelean sartzeko, zeren eta, hau dela edo hura dela, hor lana izango baituzu.

Zer da kuartela?

Am: Sar dadila, zer dakit ba!, suhiltzaile, polizia... kuartel horietako batean. Zergatik? Bada, beti behar dutelako jendea. Hor aukera duzu igotzeko, ikasteko, maila bat goragokoa izan nahi baduzu. Ez dakit, kapitaina edo helikopteroko profesionala. Jarraitzeko aukerak ematen dizkizute. Semeak ez zuen batxilergoa amaitu nahi, baina erretolika ematen saiatu nintzen. Errepikatu beharra bazeukan, errepikatu zitzala behar beste urte, berdin zitzaidan. Baina hortxe zegoen, borrokatzen. Eta azkenean graduatu egin zen. Badu bere batxilergoa, eta jarraitu dezake beste espezialitate bat egiten. Orain nire nagusiarekin hitz egin dut, polizia da, eta esan dit jarraitu dezakeela, 20 urte dituelako eta oraindik lorean dagoelako. Badu aukera ertzain sartzeko, edo udaltzain.

Horretarako ere zertxobait ikasi beharko du.

Am: Bai, eta euskarako 2. maila edo eduki behar da. Semeak badaki euskaraz, baina...

Titulua atera behar du.

Am: Bai. Baina hemen bizitza osoan euskara ikasi du; hortaz, “gogortxo” jartzen bada, agian bai. Baina, noski, motibatu egin beharko genuke. Eta neskei esaten diet medikuntzako zerbait egiteko, zeren hori beti izango baita behar-beharrezkoa munduko edozein lekutan. Beti behar izango dira medikuak, hori argi dago. Nik hori nahiko nuke.” (E3)

“Berak euskara ikasi behar zuen, etorkizunean hemen geratu nahi badu ere. Hori ondo etorriko litzaioke. Banuen beldurra, ezin izango zuela edo.” (E6)

“Zer ikasi nahiko zenuke?

Se1: Bada, informatika-ingeniaritza.

Oso ondo. Eta zuk?

Se2: Nik oraindik ez dut pentsatu.

Eta zuk zer nahiko zenuke?

Am: Nahi dutena. Zerbait esaten badiozu, adibidez mediku, berari gustatzen ez bazaio, eskolara nazkatuta joaten da. Hortaz, gustatzen zaion zerbait.

Baina zer ikasketa-maila egitea nahiko zenuke? Baduzu horri buruzko espektatiba edo asmoren bat?

Am: Bai, biak unibertsitatera joatea, hori pentsatzen dut nik. Unibertsitatera joatea, gero lan on-on bat izateko, nik eta aitak bezala lan egin behar ez izateko. Baina orain dena beren esku dago.” (E13)

“Am: Ez, ez. Bukatu dezatela dena, den-dena: batxilergoa, unibertsitatea, maste-rra... dena.

Behar den guztia.

Am: Bai. Aurrerago lana aurkitu dezaten, lan on bat. Hori da. Guk bezala lan bila eta bila ibili beharrik ez dezatela izan.

“Beti behar izango dira medikuak, hori argi dago. Nik hori nahiko nuke.”

“Biak unibertsitatera joatea, hori pentsatzen dut nik. Unibertsitatera joatea, gero lan on-on bat izateko, nik eta aitak bezala lan egin behar ez izateko. Baina orain dena beren esku dago.”

Ez zait axola batek Kanadan lan egin behar badu eta besteak Estatu Batuetan edo dena delakoan. Edo hemen, Espainian. Bartzelonan edo nik zer dakit, dena delakoan. Baina ez daitezela egon 22 edo 25 urterekin beti amatxorekin. Ez.

Ikas dezatela, lan on bat aurkitzeko. Zeren, ikasiz gero, lana aurkituko duzu, ezta? Hori esaten dute.

Am: Zorteak ere badu zerikusia.” (E7)

“Eta alabak etorkizunean zer egitea nahiko zenuke?

Al: Bada, etorkizun on bat izatea, pentsatzen dut. Ikastea eta karrera bat ateratzea... Ez dakit, zure alabak zertan lan egitea nahiko zenukeen edo. Alabari esan ohi diozun zerbait...

Al: Bada, mediku izatea nahiko nuke; edo gutxienez, erizain. Ezin badu, erizain-laguntzaile. Ez dadila egon, ni bezala, komunak garbitzen. Saiatuko naiz alabari onena ematen, eta eskatuko diot, eta lagundu, gutxienez ikasketa onak atera ditzan, eta lan on bat lortu. Eta lan on bat edukitzeko, egin dezala lan estatuan.

Alegia, funtzionario, plaza finko batekin.

Al: Hori da, plaza finko batekin. Edo polizia, beharrezkoa bada. Begira, poliziari fobia dio alabak...” (E8)

“Ai: Ez badute nik orain bezala obrara eta horrela joan nahi, ikasi egin behar dute. Orainxe dute garaia. Baina nahi ez badute, orduan ezin duzu ezer egin.

Seme-alabek batxilergoa egitea nahi zenuten?

Am: Bai, esan diegu urte horiek galdu egingo dituztela eta lanik ez aurkitzea eragingo diela horrek.

Bai, baina gainera gaizki pasatu behar baduzu, gustukoa ez duzulako eta aspertu egiten zarelako...

Am: Orduan, gustuko dutena egiten uzten diegu...

Se1: Niri futbola gustatzen zait.

Eta gradua amaitutakoan seme-alabek lana aurkitzea posiblea edo probablea dela uste duzue?

s Zorte-kontua ere bada pixka bat. Beharbada, ezagun batzuek lan egiteko norbait behar badute... ez dakit.” (E9)

Beste atal batzuetan bezala, hemen ere bi maila bereiz daitezke diskurtsoan: batzuetan azalekoagoak eta zuhurragoak dira gurasoak, eta esaten dute seme-alaben ikasketei dagokienez ez dagoela nahiago duten aukerarik, baldin eta zerbaitetan ikasketak amaitzen badituzte; beste batzuetan, aldiz, sakonagoak eta zintzoagoak dira, eta azkenean aitortzen dute derrigorrezko hezkuntzaren osteko beste ikasketa batzuk egitea baino nahiago dutela unibertsitatera joatea, eta zenbaitetan, baita zer gradu egitea ere. Medikuntza-zientziak, eta batik bat medikuntza, askotan dira aukerarik gogokoena. Hezkuntzari buruzko espektatibak lanaren ingurukoekin lotuta daude beti, eta enplegu publikoa iruditzen zaie aukerarik interesgarriena seme-alabentzat.

Alabaina, seme-alabak ez daude beti ados amaren edo aitaren ikuspegiarekin. Mikrotaldearen testuinguruan sortutako dinamika bera gurasoen eta seme-alaben arteko oso eztabaida interesgarria bihurtu zen askotan. Seme-alaben nahiak artearekin zerikusia duenean, irteera profesional gutxikotzat ikusia bada edota unibertsitatera joan beharra ez badakar, uko moduko bat eta tentsioa sortzen dira hizketaldian.

“Etorkizunerako zer espektatiba dituzue zuek? Zuk, adibidez, zer egin nahi duzu?

AI2: Psikologia.

Unira joan nahi duzu.

AI2: Bai.

Eta zuri ondo iruditzen zaizu alabak hori egitea, edo nahiago zenuke beste zerbait egitea?

Am: Ez dakit, ondo doakiona.

Nahi duena.

Am: Bai, errazena egiten zaiona. Gustatzen ez zaion zerbait egiten badu... baina beste gauza batzuk ere begiratu ditzake” (E5)

“Am: Ez zenuke polizia izan nahi? Etxeetara etorri, eta esatea, zer gertatzen hemen? Zuk zer izan nahiko zenuke handitan? Polizia izan nahi duzu?

Am: Ez.

AI: Medikua, haurren pediatra. Zertan egin nahi duzu lan?

AI: Ez esan abeslari ez dantzari, mesedez.” (E8)

“Se2: Nik margolari profesionala izan nahi dut.

Baina horretarako ere ikasi egin behar da.

Se2: Mundu guztiak esaten dit oso ondo margotzen dudala, ez da beharrezkoa.

Am: Baietz esan dizu neskak, ikasi egin behar dela. Edozertarako.” (E2)

“Am: Nik nahiko nukeena da behingoz musika eta mugikorra laga eta makinan jolasten ibiltzeri uztea, eta zuen unibertsitatera joatea, baina ez du ezer esaten, ez ezer begiratzen... Hara, ez du gai honi buruzko ezer entzun ere egin nahi, badoa [BARREAK]”. (E16)

Etorkizuna beti da zalantzazkoa, baina ikuspegi optimista edo pesimista batetik begiratu dakioke. Aiten eta amen aitortzak, normalean, pesimista samarrak izaten dira gertatuko zaienari dagokionez, eta etorkizun hori beti dago enpleguarekin lotuta, dela hura ez galtzea, dela aurkitzea, dela lan-baldintzak hobetzea.

“Zuk etorkizunean hemen geratu nahi duzu?

AI1: Bai, hemen ondo nago.

Eta zuk ere hemen geratu nahi duzu, ala nahiago duzu Moldaviara itzuli?

Am: Ez, ni hemen geratuko naiz. Seme-alabak hemen jaio ziren, eta alaba...

Seme-alabak handitutakoan, esan nahi dut.

Am: Ez, hemen etorkizunik ez dagoela esaten badute, han gutxiago. Hortaz, hemen oso ondo egoten da.

Eta lan-aukerei dagokienez, zer uste duzu, zerbait hobea aurkitu ahal izango duzu, ala ez dakizu?

Am: Okidegi bat osorik jabetzan hartzeko ahaleginean nabil, baina asko esatea da.

Beno, baina proiektu moduan daukazu, ezta?

Am: Bai, pixka bat aztertzen aritu naiz. Aztertzen ari naiz. Horregatik ari nintzen pentsatzen ordu gehiago lan egitea eta seme-alabekin zer egin. Batzuetan esaten dut beharbada hori pentsatzeko oso goiz dela eta beharbada pixka batean zain egongo naizela seme-alabak koskorragoak izan arte.

Baina luzaroan zain ere ez dut egon nahi, zeren blokeatuta bezala sentitzen bainaiz, geldi, ez aurrera ez atzera. Eta hazi egin nahi dut. Honetatik irteteko zerbait gehiago egin behar dudala pentsatzen dut beti.” (E6)

“Ikusten dudanez, seme-alaben etorkizunean konfiantza handia duzu. Baina zer gertatzen da zure etorkizunarekin?

Am: Nirea ez da garrantzitsua. Ez du hainbeste axola integrazteak, lagunengatik eta.

Beno, zure zoriontasuna ere garrantzitsua da.

Am: Seme-alabak zoriontsu izatea da garrantzitsua. Lan hobexego bat lortuta, nik nahikoa. Edo loteria...

[BARREAK]

Am: Lan hobexego bat badut, nire etorkizuna hobea izango da.

Gero, gainerakoa ez da garrantzitsua” (E16)

“Lan hobexego bat badut, nire etorkizuna hobea izango da. Gero, gainerakoa ez da garrantzitsua.”

“Lanari buruzko zer espektatiba dituzue zuentzat hemendik urte batzuetara?

Ai: Pixka bat hobetzen ari dela ikusten dut orain. Leku askotan daukat izena emanda, eta itxaropena ez dut galtzen.” (E6)

Ikuspegia zeharo aldatzen da optimismorantz gurasoei seme-alaben etorkizunaz galdetzen zaienean. Gurasoena baino bizimodu hobea edukitzeko aukera dute seme-alabek, horrela islatzen da diskurtsoan seme-alabak estrategikoki hobeto kokatze hori. Ez da gauza ziurra, jakina, baina arrakasta izateko aukera asko dauzkate (diskurtso askotan, lanari lotuta).

“Zuen seme-alaben etorkizunari buruz errealistak izanda, zer uste duzue, ikasi eta lan bat aurkitu ahal izango dute, ala zailtxoa ikusten duzue?

Ai: Nik baietz espero dut. Ikasten jarraitu eta etorkizun hobexego bat izango ahal dute. Nahiago nuke hala balitz.

Baina ez dakizu egin ahal izango duten.

Ai: Ez, ez dakit. Ezin dut hori ziurtatu. Ikusi nola dagoen lan-kontua orain.

Bai.

Ai: Baina etorkizunean kontuak hobera egitea espero dut. Baiezkoan nago.

Zer uste duzue, etorkizunean zuek baino errazago izango dute ala zuek izan dituzuen zailtasun berak izango dituzte?

Ai: Guri baino errazago gertatuko ahal zaie. Nahiago nuke hala balitz. Baina oso txikiak dira oraindik. Beharbada hemendik urte batzuetara mundua aldatu eta beste zerbait izango da. Agian enplegu gehiago sortuko da, eta beren arloan lan egin ahal izango dute. (E6)

“Nolakoa imajinatzen duzu etorkizun hori?

Am: Niri iruditzen zait etorkizuna hobea dela haurrentzat. Hala iruditzen zait. Askoz hobeto egongo dira, ezta? Gu orain egiten ari garena baino harago joango direla uste dut. Gu baino urrunago iritsiko direla uste dut.

Zer dakit, bada, agian unereren batean gure herrialdera itzuliko dira. Edo nik zer dakit, ez dakit.” (E13)

“Hortaz, haientzat etorkizun on bat imajinatzen duzu, ezta?

Am: Hemen geratzen badira, bai. Haien etorkizuna ondo egongo da. Euskaraz jakingo dute, alboan lagunak izango dituzte, eta ni ere bai. Haiek hemengoak izango dira, eta hemengoei bezalaxe joango zaie.

Euskaldunei bezala?


Am: Bai, euskaldunei bezain ondo. Edo haiei bezain gaizki.” (E16)

“Hemen geratzen badira, bai. Haien etorkizuna ondo egongo da. Euskaraz jakingo dute, alboan lagunak izango dituzte, eta ni ere bai. Haiek hemengoak izango dira, eta hemengoei bezalaxe joango zaie.”

Orain arte esandakotik ondoriozta daitekeenez, gazteek gehien nahi dutena da bizitzeko modua emango dien jardunbide bat aurkitzea, eta jarduera hori,

gainera, beren interesekoa izatea; gurasoek, aldiz, askoz helburu argiagoa dute: goranzko gizarte-mugikortasuna. Alegia, 9. eskeman ikusten den bezala, atzeritar jatorriko gurasoak dituzten seme-alaba horiek gizarteratzean eta lan-munduan txertatzean oinarritutako mugikortasun bat.

9. eskema. Gizarte-mugikortasunerako oinarriak



Iturria: egileek egina

Hau da, gurasoen helburua da belaunaldiarteko goranzko gizarte-mugikortasuna gertatzea derrigorrezko hezkuntzaren, unibertsitate-ikasketen, euskaraz jakitearen eta gizarteratzearen bidez, betiere gizarteratzetzat ulertuta bertako hizkuntzak jakitea, euskal kultura barneratzea eta jatorriz bertakoak diren lagunak izatea, EAEn sozializatzearen ondorioz.

8

Ondorioak

“Hala da, eta ez zait niri bakarrik gertatzen, baina nik esan egiten dut”

Familia guztiek aurre egin behar izaten diete lan produktiboa eta erreproduktiboa uztartzeko erronka itzelari, baina erronka hori are handiagoa da familia guraso bakarrekoa bada, edo ugaria, edo laguntza-sarerik ez badu. Hain zuzen ere, hiru egoera horiek (bereiz edo hirurak batera) maizago gertatzen dira atzerritar jatorriko familietan. Eta uztartze hori are zailagoa bihurtzen da diskurtsoetatik ateratakoa kontuan hartuz gero: lan erreproduktiboa, eta batez ere seme-alabekin lotutakoa, familiako emakumezkoen ardura da. Berdintasunik eza, ordea, askotan ez da berez agertzen, ustezko berdintasunaren diskurtsoa gainditu ondoren baizik.

“Niri oso ongi iruditzen zait kultura desberdineko jendeak bat egitea”

Ikastetxeari dagokionez, bizitzako zati funtsezkoetako bat da nabarmen, eta haren inguruan gertatzen da gurasoak nahiz seme-alabak gizarteratzeko prozesua. Guraso gehienek esanetan, seme-alabentzat ikastetxe bat aukeratu behar izan zutenean, lehenik eta behin ikastetxe gertukoenei erreparatu zieten, nahiz eta bakoitzeko hezkuntza-eskaintza ere kontuan hartu zuten. Hizkuntza-eredua, eta zehazki D eredua, ez da izaten alderdi erabakigarrietako bat ikastetxea aukeratzean. Batzuetan, euskal gizarteko errealitatea nahikoa ezagutzen ez denean, ez da behar adina kontuan hartzen zenbaterainoko balioa duen seme-alabek euskaraz jakiteak. Gurasoak nahiz seme-alabak diskurtso gehien-gehienetan ikastetxearekin pozik ageri dira, eta harekin harreman estua dutela aipatzen dute (irakasleekin eta ikasleen gurasoen elkarteekin); ohikoagoa da hori emakumezkoetan. Gainera, azpimarratzekoa da beste gurasoekiko harremana. Familia askok aipatzen dute seme-alabei eskolako lanetan lagundu ezina, dela nahikoa ezagutza ez dutelako, dela euskaraz ez dakitelako edota denbora

faltagatik. Azkenik, gurasoek nahiz seme-alabek ikasgeletan sumatzen duten aniztasunari dagokionez, bat datoz guztiak: ikasgeletan aniztasun handia edo nahikoa dago. Eta hori hala izatea gauza ontzat nahiz txartzat daukate, bertako herritarren diskurtsoetan ageri ohi den bezalaxe: ona da, aberastasun kulturala dakarrelako, adiskide-giroa sortzen delako eta abar; eta txarra da, gizarteratzea oztopatzen duelako.

“Inguruan bi mundu dituzte... edo hiru. Beren mundua eraiki beharko dute, ez baitira ez hemengoa ez hangoak”

Identitatea oso kontuan izan beharreko alderdietako bat da, atzerritar jatorriko familien dinamikak ulertu nahi badira, zenbait jatorritako kulturak nahasten baitira horrelako familietan, eta kultura horiek batzuetan bakean eta beste zenbaitetan gatazkan bizi dira familia-unitatearen barruan. Gurasoek beren jatorrizko kultura transmititu nahi izaten dute, eta horrek batzuetan talka egiten du seme-alaben “euskal” identitate kultural berriarekin. Hori ez da beti gertatzen, ordea, seme-alaba askorentzat gurasoen jatorria beren identitate kulturalaren parte baita, euskal identitatea bezainbeste edo gehiago. Ez da erraza oreka lortzea, eta familia eta pertsona bakoitzak bere modura konpontzen du auzia. Alde horretatik, erlijioan heztea ere garrantzitsua da familia askorentzat (ez guztientzat), baina badirudi seme-alabentzat baino garrantzi handiagoa duela gurasoentzat.

“Batzuetan, nire hizkuntzan hitz egiten diet, eta beraiek entzun eta gaztelaniaz erantzuten didate. Edo euskaraz, ikasten joan nadin”

Atzerritar jatorriko familietan eleaniztasuna errealitate bat da, eta gehien-gehienek abagunetzat eta transmisio kulturalerako eremutzat daukate errealitate hori. Denek diote nahasian erabiltzen dituztela jatorrizko herrialdeko hizkuntza (edo hizkuntzak) eta gaztelania eta/edo euskara. Anai-arreben arteko komunikazioan gertatzen da nagusiki hori, eta gurasoekin, aldiz, komunikazioa jatorrizko hizkuntzan izan dadin ahalegintzen dira. Gurasoentzat garrantzitsua da seme-alabek haien hizkuntzari eustea, eta hainbat modu baliatzen dituzte horretarako: akademiak, ikastaroak, telebista eta familia barruko komunikazioa bera. Bestalde, euskara etorkizuneko hizkuntzatzat daukate, enplegua bilatzeko eta gizarteratzea lortzeko funtsezko baliabidetzat. Euskarak desberdinduko ditu seme-alabak.

“Bai, kanpoko jende asko ari dela etortzen. Eta horrek kezkatu egiten nau, ezin direlako herrian integratu edo ezin dutelako herrikoekin bat egin”

Atzerritar jatorriko familien gizarte-harremanak bakoitzaren gizarteratze-prozesuarekin lotuta ageri dira diskurtsoan; izan ere, familiek dioten bezala, badira aldeak gurasoen zirkuluen eta seme-alabenen artean. Gurasoen adiskide- eta laguntza-sareak homogeneoagoak dira, eta atzerritar jatorriko pertsona gehiagoz osatuak; eta seme-alabek, aldiz, sare heterogeneoagoak dituzte, eskolan nahiz gizartean aniztasun horretan bizitzearen ondorioz. Aztertu ditugun diskurtsoetan, gurasoen eta seme-alaben gizarteratzea hezkuntzarekin lotuta ageri zen hein handi batean, baina gizarte-harremanekin lotuta, batik bat. Gurasoek, harremanez eta adiskideez galdetzen zaienean, kapital kultural eta sozial gisa hitz egiten digute haiei buruz (Bourdieu, 2019), lagun-taldean “hemengo” jendea egoteak bertako kulturaren eta hizkuntzan murgiltzea bermatu eta haurrari laguntza-sare bat ematen diolakoan.

“Gu baino urrunago iritsiko direla uste dut”

Etorkizunerako espektatibei eta asmoei dagokienez, seme-alabek gehien nahi dutena da bizitzeko modua emango dien jardunbide bat aurkitzea, eta jarduera hori, gainera, beren interesekoa izatea; gurasoek, aldiz, askoz helburu argi eta handiagoa dute: goranzko gizarte-mugikortasuna. Eta seme-alabak gizarteratuta eta lan-munduan txertatuta lor daiteke hori, biak ere EAEn sozializatzearen ondorioz. Unibertsitate-ikasketak egitea, euskaraz jakitea eta bertako lagunak izatea, horien baturak ikuspegi optimista bat ematen die gurasoei seme-alaben etorkizunari buruz, baina agian ez hainbestekoa beren geroari buruz.

Kontakizunetan aurrera egin ahala, gizarteratzeko prozesu zaila agertzen da halabeharrez, bai gurasoena eta bai seme-alabena. Oro har, gurasoek uste dute erabat gizarteratzea sekula ez dutela lortuko, baina seme-alabak benetan zeharo gizarteratuko diren itxaropena dute. Testuinguru horretan, giltzarria hezkuntza-sistema dela uste dute, nagusiki arrazoi batengatik: atzerritar jatorriko pertsonen eta haien ondorengoek abiapuntutik beretik dituzten desberdintasun sozialak hein batean behintzat berdintzen edo orekatzen dituelako. Egia esan, kolektibo horiek benetan gizarteratuko badira, benetan etorkizuneko aukeraberndintasuna izan behar dute EAEn bizi diren pertsona guztiek, gurasoen jatorria edozein dela ere.

Amaitzeko, azken gai bat azpimarratu nahi genuke aukeraz baliatuz, gizarte moduan gai horretan eragin dezakegulako eta pertsona guztiak erabat gizarteratzea lortzeko bidea erraztuko lukeelako. Behin baino gehiagotan esango dugu atzerritar jatorrikoak eta/edo haien ondorengoak diren pertsona batzuek ez dutela gizarteratzeko nahikoa interes jartzen edo nahikoa ahalegin egiten,

baina oso gogoan izan behar dugu ez gutxitan gu geu garela, euskal gizartea, oztopoak jartzen dizkiena eta guk geuk ez dugula uzten pertsona horiek euskal gizarte plural eta multikultural batean gurekin integra daitezen. Onar dezagun ez dagoela euskal herritar izateko modu bat eta bakarra, guztiz kontrakoa baizik: euskal herritarrok modu askotakoak izan gaitezke, gizartean bete-betean sartuak, euskal herritar izateari utzi gabe.



ERANSKINA

2G Mikrotaldeen gidoia

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu denoi hemen egoteagatik. Badakigu beti dagoela zer egina eta ez dela erraza tarte hau honetarako hartzea, baina uste dugu onuragarria izango dela, bai guretzat eta bai zuentzat. Euskal Herriko Unibertsitateak gatoz, eta azterlan bat egiten ari gara batzuek bigarren belaunaldi deitzen diotenari buruz; alegia, seme-alabak Euskal Autonomia Erkidegoan hezten ari diren pertsona immigratzaileen familiei buruz. Gure asmoa zuen errealitatea, nahiak, espektatibak eta iritzia ezagutzea da, besterik ez. Eta horretarako, solasalditxo bat egin nahi dugu zuekin, tutore legal moduan, eta zuen seme-alabekin. Lasai hitz egitea nahi genuke, denok parte hartzea eta iritzia ematea da helburua. Grabatu egingo dugu topaketa, gero aztertu ahal izateko, baina parte hartzen duzuenon anonimotasuna bermatuta egongo da une oro.

1. FAMILIAREN TESTUINGURU BIOGRAFIKOA (tutoreak)

- T: Hasteko, bakoitzak bere burua aurkeztea nahi genuke: izena, adina, jatorria, zenbat denbora daramazuen Euskal Autonomia Erkidegoan...
- T: Hortaz, duela x urte iritsi zineten hona. Zergatik erabaki zenuten emigratzea? Zergatik Euskal Autonomia Erkidegora? Nork hartu zuen erabakia?
- T: Eta nor izan zen migratzen lehena? Denak batera etorri zineten, ala lehenbizi norbait etorri zen eta gero elkartu egin zineten?
- T: Zer asmorekin etorri zineten, zein zen migratzean zuen proiektua? (Zein zen plana?)
- T: Askok aldatu al da hasieran buruan zenuena iritsi zinetenetik hona? (Azalazaletik, galdera honi berriro helduko diogu gero, espektatibetan).
- T: Hitz egin dezagun orain zuen oraingo egoera orokorraz...

- T: Has gaitzen etxebizitzatik. Zuen jabetzakoa da, ala alokatuta duzue? Ordaintzeko modukoa da? Pozik zaudete? Erroldatuta zaudete? Nola aurkitu zenuten oraingo etxebizitza?
- T: Zer egoera administratibotan zaudete familiako kideak?
- T: Eta lanari dagokionez, zer egoeratan zaudete orain? Kontratuarekin ala gabe? Egonkortasuna? Bizitzeko nahikoa da soldata?
- T: Semea edo alaba, zer ikasmaitan dago? Zer ikastetxetan? Pozik zaudete ikastetxearekin? (oro har)

2. FAMILIAKO DINAMIKAK (tutoreak, seme-alabak)

- T: Norekin bizi da normalean zuen semea edo alaba?
- T / S-A: Zenbat denbora egoten zarete elkarrekin (astegunetan, asteburuetan)? Egiten duzue zerbait familian aisialdian?
- T: Nork eramaten du semea edo alaba eskolara? Nork prestatzen dizkio eskolarako gauzak, materialen bat eraman behar duenean eta?
- T: Arazoren bat duenean eta horrelakoetan, nor da normalean erreferentziako pertsona, nor arduratzen da? Adibidez, gaixo dagoenean...
- Arazoren bat duzunean, nori eskatzen diozu laguntza normalean?
- T: Nola banatzen dituzue etxeko lanak?
- T: Baduzue nork lagundu? Seniderik, lagunik, profesionalik?
- T: Arazoren bat duzunean, nori eskatzen diozue laguntza normalean?

3. GIZARTERATZEA ETA GIZARTE-HARREMANAK (tutoreak, seme-alabak)

- T: Nongoak dira zuen lagunak/ezagunak? Non elkartzekotan geratzen zarete?
- T: Geratzen al zarete zuen seme-alaben gurasoekin elkartzeko?
- T: Zer jai ospatzen dituzue familian?
- T / S-A: Ikastetxean ospatzen dituzuen jaiak familiakoekin bestelakoak dira? Zein gustatzen zaizkizu gehiago, eta zergatik?
- T: Zer ohitura eta tradizio dira nagusiak zuen familian? Zer hizkuntzatan egiten duzue nagusiki?
- T: Zenbaterainoko garrantzia du zuentzat semeak edo alabak jatorrizko ohi-turei/tradizioei/hizkuntzari eusteak? Eta semeak edo alabak euskaraz hitz egiteak?
- T eta S-A: Zer testuingurutan duzue harreman handiena euskal kulturarekin?
- T: Euskal gizartearen parte sentitzen zarete? Nola definituko zenukete zuen identitatea?
- S-A: Eta zuk, norbaitek nongoa zaren galdetuko balizu, zer erantzungo zenuke? Inguruko jendea ez bezalakoa sentitzen zara? Zertan nabari da?
- T: Zuen ustez, zenbateraino zaudete integratuta euskal gizartearen? Eta zuen seme edo alaba?
- T: Zenbaterainoko garrantzia du zuen bizitzan erlijioak? Eta zuen seme edo alabaren bizitzan?

4. HEZKUNTZA ETA ESKOLA-EREMUA (tutoreak eta seme-alabak)

- T: Zer ikastetxetan dabil zuen semea edo alaba? Nola aukeratu zenuten ikastetxe hori? Zer irizpidetan oinarritu zineten? Norbaitek lagundu zizueten? Zuen ustez, zer alderdi dira une honetan seme-alabentzat garrantzitsuenak ikastetxeari eta ikastaldeari dagokienez?
- Garrantzitsua iruditzen zaizue semeak edo alabak euskara ikastea? Azken urte hauetan ikastetxez aldatu da semea edo alaba?
- T: Pozik zaudete ikastetxearekin? Zer aldatuko zenukete, hobetzeko aldera? Zer arazo nabarmenduko zenituzkete?
- T: Nola deskribatuko zenukete ikastetxearekin duzuen harremana? Familiako nor da harremanetarako pertsona?
- T: Hartzen duzue parte ikastetxeko bizitzan (antolaketa, elkarateak, bilerak)?
- T: Nola deskribatuko zenukete beste gurasoekin duzuen harremana? Norekin duzue harreman handiena?
- T: Semea edo alaba, pozik dago ikastetxean? Nongoak dira eskolako zure lagunak? Oro har, kanpokoak edo hemengoak dira haur gehienak?
- T: Ikaskideren bati irainka ibiltzen dira ikasgelan? Zergatik? Eta zure seme edo alabari, gertatu zaio noizbait halakorik? Zergatik?
- T: Nolako harremana duzue irakaslearekin?
- T: Zer moduz doa eskolan? Zer egiten zaio errazena? Zertan du zailtasun handiena?
- T: Hartzen du parte eskolaz kanpoko jardueretan? Halakoetan ibiltzen ez bada, zergatik?
- T: Pentsatu izan duzue laster semea edo alaba ikastetxez aldatzea? Zergatik?


5. ETORKIZUNERAKO ESPEKTATIBAK (tutoreak, haurrak)

(Atal honetan espektatibei buruz galdetuko diegu, ea zer uste duten beren kabuz eta bertako pertsonekin alderatuta)

- T: Aurrekoarekin lotuta, zer espektatiba akademiko dituzue zuen seme-alabentzat?
- T: Gurasoek lanari buruz dituzten espektatibak epe labur eta ertainean. Gurasoek seme-alabentzat lanari buruz dituzten espektatibak.
- T: Bertako pertsonekin eta euskal gizartearekin duzuen harremanaz hitz egin dugu lehen. Zer uste duzue, seme-alabek zuen oztopo berberak izango dituzte, ala ez? Zergatik? Zuen egoerak hobera egingo duela uste duzue, edo ez?
- T: Eta amaitzeko, zer proiektu duzue familiarentzat eta zeuentzat etorkizunerako (itzultzea, berriro emigratzea, EAE, Estatu)? Zergatik?

Euskal gizarte berri eta anitza

Maddalen Epelde Juaristi eta Oier Ochoa de Aspuru Gulin





AURKIBIDEA

Sarrera	801
1. EAEko gizartearen pertzepzioa kopurutan	805
1.1 Integrazio-prozesua	805
1.2 Bigarren belaunaldiak	808
2. 18 urtetik 25 urtera arteko gazteen kontakizunak	813
2.1 Euskal gazteak (non) erlazionatzen dira?	813
2.2 Jatorri autoktonoko eta atzerritarreko gazteen arteko harremanak errazten edo eragozten dituzten faktoreak	818
2.2.1 Hizkuntza	818
2.2.2 Hezkuntza-esparrua	822
2.2.3 Kultura	826
2.2.4 Iristean duten adina	831
2.3 Nolakoak dira harreman horiek?	832
2.4 Euskadiko gazteek bigarren belaunaldiez dituzten pertzepzioak eta jarrerak.	834
2.4.1 Estereotipoak	839
2.4.2 Jatorrien inguruko pertzepzioa	842
2.4.3 Belaunaldien arteko aldeak	847
2.4.4 Lurraldeen arteko aldeak	850
2.5 Etorkizuna	851
2.5.1 Hezkuntza	855
2.5.2 Komunikabideak eta (des)informaziorako bideak	857
3. Ondorioak	861
Eranskinak	869



SARRERA

2016ko ekainean (oker izendatutako) bigarren belaunaldien ikerketarekin hasi ginenean, Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan (aurrerantzean, EAE) gai horren inguruan zegoen azterlan eskasia konpontzeko helburuarekin egin genuen; izan ere, erkidegora zuzendutako migrazio-fluxuak finkatzearen ondorioz, fenomeno hori gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari zen. Proiektu hau abiarazi genuenetik, jatorri atzerritarreko gazteengan eta haien familiengan jarri dugu arreta, eta alde batera utzi dugu “ispilu-informazioa”, hau da, biztanleria autoktonoak eman dakigukeen informazioa.

Biztanle autoktonoek immigrazioarekiko dituzten jarrerak eta pertzepzioak faktore erabakigarriak dira jatorri atzerritarreko pertsonak harrera-gizarteko bizitza sozialeko maila guztietan integrazteko prozesuetan. Gainera, (oker izendatutako) bigarren belaunaldien kasuan garrantzi hori handiagoa da, jatorriz immigraatea den familia batean jaiotako pertsonak direlako. EAEn jaio dira, baina immigrazioaren ikurra daramate soinean, horrek dakarren aberastasunarekin, baina baita horrek dituen berezitasunekin ere (zailtasunak, askotan).

Horregatik, ikerketa honen helburu nagusia da aztertzea eta ezagutzea euskal gizarteak zer iritzi eta pertzepzio dituen EAEn jaio arren gurasoak atzerritarrak dituzten pertsonetik, bai eta haien integrazio-prozesuak ezagutzea ere.

Azterketa honetan, bereizi egin behar ditugu euskal gizarteak oro har izan dezakeen pertzepzioa eta funtsezko kolektibo batek, gazteek, izan dezaketena. Izan ere, 18 eta 25 urte bitarteko pertsonak dira bigarren belaunaldi horiekin harremanak dituztenak beren egunerokoan, elkarri eragiten diote etengabe, eta beren taldeen parte dira. Elkarren ondoan, bi kolektiboek beren etorkizuna erai ki eta partekatuko dute. Horregatik uste dugu talde horretara gehiago hurbildu behar dugula, eta haien iritziak, jarrerak, itxaropenak, motibazioak, balioespeneak, nahiak, inpresioak, irudiak eta abar ezagutu behar ditugula.

Horretarako, metodologia mistoa erabili dugu lanketarako, analisi kuantitati-boa eta analisi kualitatiboa uztartuz. Analisi kuantitatiboaren kasuan, Ikuspegik urtero egiten duen Barometroa erabili da, non EAEko biztanleek atzerritar ja-torriko biztanleekiko dituzten pertzepzioak eta jarrerak jasotzen diren. 2018ko Barometroan, bigarren belaunaldiekiko pertzepzioari buruzko hainbat galdera txertatu ziren; hala, 600 inkesta egin zitzaizkien 18 urtetik gorako pertsoei; horretarako, habitataren tamainan, adinean eta sexuan oinarritutako kuoten araberrako esleipen proportzionalaren bidez estratifikatutako laginketa bat era-bili zen.

Bestalde, analisi kualitatiboaren helburua da jatorri autoktonoa duten eta EAEn bizi diren 18 urtetik 25 urtera bitarteko gazteek bigarren belaunaldi horiei buruz dituzten iritziak, jarrerak eta itxaropenak ezagutzea. Horretarako, sei eztabaida-talde sortu ziren, lurralde historiko bakoitzean bina, eta bi adin-tarte desber-dinekin: 18-21 eta 22-25. Era berean, beste faktore batzuk ere kontuan hartu dira, hala nola sexua, hizkuntza (giro euskalduna edo erdalduna), habitata (hi-ria edo herria), egindako ikasketak (Lanbide Heziketa, unibertsitate-ikasketak, etab.) edo jarduera (ikasten, lanean, langabezia). Zehazki, koadro honetan erakusten den moduan banatu dira adinak:

1. koadroa. Eztabaida-taldeen banaketa lurralde historikoaren, habitataren eta adin-tartearen arabera

	Hiriak (habitat hiritarra)	Udalerrriak (habitat landatarra)
Araba	18-21	22-25
Bizkaia	22-25	18-21
Gipuzkoa	22-25	18-21

Iturria: azterketa honen egileek egina.

Eztabaida-taldea talde-dinamikako teknika bat da, eta xede-publikoko zortzi bat pertsonak (sei eta hamar bitartean) osatzen dute. Eztabaida-taldeak bilera informal moduko bat egiten du gela batean, eta ahaleginak egiten dira bilera egiteko baldintzak eguneroko bizitzan egoten direnen ahalik eta antzekoenak izan daitezen. Teknika hori erabili ohi da kolektibo bateko pertsonak beren gi-sakoekin harremanak izatean ageri dituzten jarrera, portaera eta proiektzioen inguruko informazioa bildu nahi denean.

Eztabaida-taldeak gaien (edo galderen) gidoi bati jarraitzen dio; gai irekiak iza-ten dira, taldea osatzen dutenek haiei buruz gogoeta egin eta iritzia emateko jarriak. Informazio-bilketa hutsal batean geratu gabe, gidioiaz lortu nahi da ager-tutako iritzien eta egindako adierazpenen azpian dautzan jarrera eta motiba-zioetan sakontzea.

Hala, bada, kasu honetan, jatorri autoktonoko eta atzerritar jatorriko gazteen arteko harremanetan sakontzeko aukera ematen duen gidoi bat prestatu da,

lehenengoek bigarrengoei buruz dituzten iritziak eta haien aurrean agertzen dituzten jarrerak ezagutzeko; horixe da lan honen helburu nagusia.

Hurrengo orrialdeetan aurkezten dugun txostena hainbat ataletan egituratuta dago. Hasiera batean, euskal gizarteak bigarren belaunaldiekiko dituen pertzepzioetara hurbiltzen gara, Ikuspegiren 2018ko Barometroan jasotako datuetatik abiatuta. Ondoren, gazteekin egindako eztabaida-taldeetan jasotako kontakizunetan jarri dugu arreta, gazteek bigarren belaunaldi horiekiko dituzten esperientziak eta jarrerak ezagutzeko. Zehazki, gazteek izan dituzten harremanei erreparatu diegu, haien ustez harremana errazten eta ahalbidetzen duten faktoreei; bestalde, harreman horiek nolakoak izan diren eta bai bigarren belaunaldiekiko bai oro har immigrazioarekiko zer pertzepzio eta jarrera dituzten aztertu dugu. Azkenik, euskal gizarteak etorkizunean zer bilakaera izango duen galdetu diegu.

1

EAEko gizartearen pertzepzioa kopurutan

Hurrengo kapituluetan EAEko gazteen pertzepzioei buruz aurkeztuko dugun azterketarako sarrera gisa, atal honetan EAEko biztanleek honako hauen aurrean dituzten pertzepzioa eta jarrerak aztertuko ditugu: euskal gizartearen urte batzuk daramatzaten atzerriar jatorriko pertsonen aurrean, bigarren belaunaldi deritzenen aurrean (2.0B), erkidegoan jaio baina aita edota ama atzerriar jatorrikoa duten pertsonen aurrean nahiz 4 urterekin edo gutxiagorekin familiarekin berriz elkartu diren pertsonen aurrean. Ildo horretan, zehaztu behar da ondoren aurkeztuko ditugun emaitzak EAEko biztanleria osoari dagozkiola; txostenaren bigarren zatiko edukia, aldiz, 18 eta 25 urte bitarteko Euskadiko gazteei buruzkoak dira. Hala ere, adin-taldearen arabera estatistikoki esanguratsuak diren aldeak dauden kasuak nabarmenduko ditugu.


Alderdi horiek Ikuspegiren 2018ko Barometroko galdeketa jasota daude, 39. eta 43. itemen artean, biak barne. Zehazki, galdetzen da zer faktorek eragiten duten pertsona batek "etorkin" izateari uzteko eta pertsona hori "euskal herritar" izatera igarotzeko (39G eta 40G); nola hartzen diren etorkinek hemen izandako seme-alabak (41G); nolako bilakaera izango duen balioespen horrek etorkizunean gurasoen jatorriaren arabera (42G); eta ea uste duten etorkizunean atzerriar jatorriko kolektiboren batekin arazorik egongo dela (43G).

Integrazio-prozesua

EAEra iritsi den atzerriar batek etorkin izateari utzi eta euskal gizartearen parte izatera igarotzeko betekizuna zein den galdetuta (1. grafikoa), galdetutako pertsonen % 20,2k erantzun du hemen jaio izana dela, hau da, bigarren belaunaldien ezaugarri horixe dela integrazio-prozesuko elementurik garrantzitsuena. Bestalde, galdetutakoen % 15,7k uste du etorkina den pertsona bat

euskal herritartzat har daitekeela pertsona hori EAEn bost urtetik gora bizi izan bada. Hala ere, gainerako % 11,8k uste du atzerritar jatorriko biztanleek ez diotela inoiz etorkin izateari utziko. Badira, aurrekoak bezain garrantzitsuak izan ez arren, nolabaiteko garrantzia duten beste faktore batzuk; hauek dira, garrantzi handienekotik txikienera: hemengo pertsona batekin ezkontzea (% 7,7), EAEn seme-alabak izatea (% 7,5), hemen lan egitea (% 6,7), euskaraz hitz egitea (% 6,2) eta hemen bizitzea (% 5,3). Bestalde, galdetutako pertsonen % 27,5ek uste du, inkestan adierazitako ezaugarriez gain, integrazio-prozesuan aintzat hartu beharreko beste faktore batzuk ere badaudela.

1. grafikoa. Euskal gizartean integratzeko baldintza nagusiak (%)



Iturria: egileek egin.

1. grafikoak ematen dizkigun datuak aztertuta, galdetutako pertsona askok Ez daki/Ez du erantzun erantzun dute (% 22), eta zerikusia izan dezake horrek lurraldeko immigrazio-prozesuen berritasun erlatiboarekin; izan ere, egoera berria denez, oraindik ez dute gai horren inguruko hausnarketarik egin, ez eta pertsona batek "etorkin" izateari uztea eragiten duten elementuen inguruan ere.

Beste ezaugarri batzuk daudela adierazi duten pertsonen kopuru handiak (% 27,5), halaber, atzerritarren integrazio-prozesuari buruz egin diren interpretazioak kontuan hartzeko beharra erakusten du. Hala, bada, bertako biztanleek atzerritar jatorriko pertsona bat "euskal herritartzat" jotzeko edo ez jotzeko orduan izaera pertsonal eta intimoko faktoreak ere badirela pentsatu behar da, eta ez soilik egiturazkoak.


Halaber, interesgarria da bi faktore hauen arteko erlazioa nabarmentzea: "Seme-alabak hemen izatea" eta "Hemen jaiotakoa izatea". Horrela, lehenengo belaunaldiaren kasuan, EAEn seme-alaba bat izateak integrazio-prozesuan eta euskal herritartzat jotzeko unean eragin handirik ez badu ere (% 7,5), bigarren

belaunaldian eragin handia du horrek; izan ere, lehen esan dugun bezala, EAE-ko biztanleen arabera, hemen jaio izana funtsezko elementuetako bat da integrazio-prozesuan (% 20,2), eta horrela ulertzen da bigarren belaunaldiek, itxura batean, aurrekoekiko abantaila izatea.

Aurreko bereizketak, gainera, biztanleriak integrazio gisa ulertzen duenaren eta legeak ulertzen duenaren artean dauden aldeak ikusteko aukera ematen du. Hau da, lege-ordenamenduak *ius sanguinis* ("odolaren legea") lehenesten du, hots, gurasoen nazionalitateari ematen dio lehentasuna; aldiz, bigarren belaunaldien pertenezkoa zehazterakoan, EAEko biztanleek garrantzi handiagoa ematen diote *ius soli* delakoari ("lurraren legea"), hemen jaio izanari, alegia.

Proposatutako eskakizun horiek adinaren aldagaiaren arabera duten pisua aztertzen badugu, ikusiko dugu kasu jakin batzuetan estatistikoki esanguratsuak diren aldeak daudela, eskakizun horien garrantzia eta ordena aldatuz. Hori da 18 urtetik 29 urtera bitarteko euskal gazteen kasua; izan ere, biztanleria osoarekin alderatuta, pisu handiagoa ematen diete beste faktore batzuei, hala nola erkidegoan bost urte baino gehiago bizi izanari (% 24,7). Hala, gizarte osoaren kasuan, hemen urte asko bizi izana garrantziaren arabera laugarren baldintza bada ere, euskal gazteentzat hori da garrantzirik handiena duen bigarren baldintza, aurretik aipatzen ziren ezaugarri pertsonalagoen atzetik. Halaber, Euskadiko gazteek balio handiagoa ematen diote euskaraz hitz egiteari (% 12,3) edo lagun-talde mistoa izateari (% 4,9) Euskadiko gainerako biztanleek baino.

Aurreko galderan proposatutako baldintzen edo betekizunei buruz banan-banan eta iradokizunak emanez galdetuta, EAEko biztanleek baldintza horietako bakoitzari buruz egiten duten balioespena ikus dezakegu. Ikus daitekeenez, eta aurreko emaitzek aurreratzen zutenaren ildotik, hemen jaio izana da atzeritar jatorriko pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza garrantzitsuena: galdetutakoen % 79,0 ados dago baieztapen horrekin. Inkestan parte hartu duten pertsonen % 48,0 ados dago baieztapen honekin: Euskal Autonomia Erkidegoan denbora luzez bizi izana faktore garrantzitsua da integrazio-prozesuan; beste % 45,7k uste du seme-alabak hemen izatea ere euskal gizartean integrazeko elementua dela. Euskal herritarrak ados agertu diren faktore horiek zerrendatu ondoren, egoera aldatu egiten da gainerako faktoreen kasuan; neurri txikiagoan aldatzen da eta antzeko ratioari eusten diote kasu hauek: euskaraz hitz egitea (% 45,2) eta hemengo pertsona batekin ezkontzea (% 43,3), baina nabarmen handitzen da beste hauetan: hemen gertatzen denaren berri izatea (% 67,3), hemen bizitzea (% 68,3) eta hemen etxebizitza bat izatea (% 7). Aipatu behar da hamar pertsonatetik batek (% 8,8) uste duela atzeritar jatorriko pertsonak ez diotela inoiz etorkin izateari uzten.


2. grafikoa. Percepción de los requisitos de integración en la sociedad vasca (%)

Iturria: egileek egina.

Bigarren belaunaldiak

Euskal gizarteak (oker izendatutako) bigarren belaunaldien aurrean duen perzeptzioari dagokionez, ikus dezakegu, aurreko datuekin bat etorritz, EAEko biztanle gehienek pentsatzen dutela etorkin atzerritarren seme-alabak euskal herritarrek direla (% 84,7). Horren aurrean, bigarren belaunaldia euskal herritartzat hartuko ez luketenen ehunekoa % 7,0koa da; bestalde, % 8,3k ez du inolako balioespenik egin horren inguruan.


Ildo beretik, EAEko biztanleek uste dute atzerritar jatorriko aita edota ama duten pertsonak etorkizunean gainerako biztanleen parekotasun hartuko direla (% 66,75eko batez besteko ehunekoa jatorri guztietan). 4. grafikoa erakusten ditu jatorriaren arabera iritziak. Hala, biztanleek uste dute Mendebaldeko Europatik datozen pertsonak dutela integratzeko gaitasun handiena (% 73,8), eta ondoren latinoamerikarrek (% 69,2) eta Ekialdeko Europatik datozenek (% 67,3).

3. grafikoa. EAEn jaio diren etorkinen seme-alabak euskal herritartzat hartzea (%)

Iturria: egileek egina.

Euskal gizarteak, aldiz, zailago ikusten du Asiatik (% 64,3), Saharaz hegoaldeko Afrikatik (% 63,2) eta Magrebetik (% 62,7) etorritako pertsonen seme-alaben integrazioa, guztiak ere % 65aren azpitik. Gainera, hiru jatorri horiek dituztenen seme-alabak euskal gizartean epe luzean integratuko ez direla uste dutenen ehunekoa % 20koa baino handiagoa da; bost pertsonatetik batek du iritzi hori.

4. grafikoa. Bigarren belaunaldien epe luzeko integrazioa, jatorriaren arabera (%)



Iturria: egileek egina.

Azpimarratu behar da, asiar jatorriko biztanleen kasuan, 18 urtetik 29 urtera bitarteko euskal gazteen ikuspegia biztanleria osoak duena baino hobea dela. Horrela, EAEko biztanleen % 21,2k ez du uste asiar jatorriko pertsonen seme-alabak etorkizunean integratu egingo direnik eta euskal gizartearen zati izango direnik; gazteen artean, berriz, ehuneko hori 10 puntu murrizten da, eta % 11,1ekoa da.


Bestalde, euskal gizarteak etorkizuneko belaunaldien integrazioari buruz duen pertzepzioa jatorri desberdinekiko erakusten duen sinpatia-mailarekin (5. grafikoa) alderatzean, bi datuen arteko antzekotasun handiak ikusten ditugu. Hala, bada, euskal biztanleriak bigarren belaunaldien integrazioari buruzko ikuspegi positiboagoa erakusten du sinpatia-maila handiagoa sortzen dieten jatorrietan, hala nola Mendebaldeko Europakoetan (6,5 puntuko sinpatia-maila eta % 73,8ko erantzun positiboak) eta Latinoamerikakoetan (6,1 puntuko sinpatia-maila eta % 69,2ko erantzun positiboak).

Bestalde, erlazio hori bera ikusten da euskal biztanleriaren sinpatia-maila txikiagoa duten herritartasunetan. Magrebtar biztanleek sortzen dute sinpatia-maila txikiena (4,8 puntu), eta euskal biztanleek magrebtar jatorriko pertsonen seme-alaben aurrean agertzen dituzte zalantza gehien haien integratzeko gaitasunari dagokionez (% 62,7). Bestalde, asiar jatorria ez da horrenbeste hartzen kontuan, beste jatorri batzuekin alderatuta (% 64,3), eta gauza bera gertatzen da asiar jatorriko pertsonen euskal biztanleen artean sortzen duten sinpatia-

mailarekin (5,8 puntu Txinako populazioak eta 5,3 Pakistan, Nepal eta Bangladeshetik etorritakoak).

Hala ere, Ekialdeko Europaren eta Saharaz hegoaldeko Afrikaren kasuan, alde-rantzizkoak dira euskal gizarteak jatorri horietakoen aurrean duen pertzepzioa eta etorkizunean horien ondorengoak nola integratuko direneko ustea. Hala, badirudi nolabaiteko lotura dagoela hurbiltasun kultural eta historikoaren eta euskal biztanleriak etorkizuneko belaunaldien integrazioari buruz duen ikuspegiaren artean. Izan ere, badirudi euskal gizarteak integratzeko gaitasun handiagoa esleitzen diela beraiekiko antzekotasun edo lotura handiagoak dituzten jatorriei.

5. grafikoa. Herritartasun nagusiekiko sinpatia-maila, 2018




Iturria: Ikuspegi, Barometroa, 2018.

Etorkizunean euskal gizarteak atzerritar jatorriko kolektiboren batekin arazoren bat izan dezakeela uste duten galdetu zaienean (5. grafikoa), euskal gizarteak antzeko neurriko bi bloketan banatuta ageri da. Biztanleriaren % 35,2k uste du ez dela arazorik izango atzerritar jatorriko kolektiboekin, eta biztanleriaren beste heren batek, berriz, pentsatzen du egon daitekeela edo egongo dela (% 33,7). Bi jarrera horien artean, berriz, beste batzuek uste dute arazoak egon daitezkeela edo ez (% 17,7).

Adinaren aldagaia aztertzen badugu, alde esanguratsuak ikusten ditugu zenbait kasutan. Biztanleria zaharrenak (65 urtetik gora) gainerakoak baino jarrera anibalenteagoa eta zuhurragoa erakusten du atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabak izan dezaketen integrazio-prozesua balioesteko orduan nahiz prozesu horrek epe luzean izan ditzakeen ondorioen aurrean. Talde horren barnean, gero eta gehiago dira zalantzaren aurrean tarteko posizioak hartzen dituztenak (% 25,2), eta gero eta txikiagoa da epe luzera bizikidetzaz arazoak sortuko direla uste ez dutenen (% 16,6) edo, aitzitik, arazoak sortuko direla uste dutenen (% 3,3) kopurua. Bestalde, etorkizunean bigarren belaunaldietatik eratorritako

arazoak sortuko direla ziur dauden pertsonen kopurua handitu egiten da 45 eta 64 urte arteko pertsonen kasuan (% 12,0), eta ehuneko 3,2 puntuko igoera gertatzen da lagin osoaren ehunekoarekin alderatuta.

6. grafikoa. Epe luzeko arazoen pertzepzioa atzerritar jatorria duten edo guraso atzerritarrak dituzten kolektiboekin (%)



Iturria: egileek egina.

2

18 urtetik 25 urtera arteko gazteen kontakizunak

Ondorengo orrialdeetan, 18 eta 25 urte arteko euskal gazteekin egindako sei eztabaida-taldeen emaitzak aurkeztuko ditugu. Talde horietan, gazteek bigarren belaunaldiekin dituzten harremanez hitz egin ziguten, eta esperientzia horiek nolakoak izan diren nahiz pertsona horiek euskal gizartean integratzeari dagokionez zer ikuspegi duten adierazi ziguten.

Horrela, lehenik eta behin, harreman horiek zein izan diren eta zer testuingurutan egin diren aztertu eta ezagutu nahi dugu. Horrekin lotuta, ondoren aztertuko dugu zer faktorek erraztu edo zaildu dezaketen jatorri autoktonoko eta atzerritarreko gazteen arteko loturak sortzea. Izandako harremanak nolakoak izan diren aztertuko dugu gero, eta, ondoren, euskal gazteek bigarren belaunaldiekiko eta immigrazioarekiko dituzten pertzepzioak eta jarrerak ikusiko ditugu. Azkenik, parte hartu duten gazteen arabera euskal gizarteak etorkizunean izan dezakeen garapenean murgilduko gara.

Euskal gazteak (non) erlazionatzen dira?

XXI. mendearen hasieratik, atzerritar jatorriko pertsona asko iritsi dira Euskadira, eta euskal gizartea gero eta askotarikoagoa da, atzerritar jatorriko gero eta pertsona gehiago ari dira euskal gizartean integratzen. Aldaketa hori euskal gazteen esperientzietan islatzen da: hainbat urtetan atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabekin harremanak izan dituztela esaten dute, hainbat esparru eta testuingurutan. Hala ere, zehaztu behar da taldeetan esaten dela beraien belaunaldian oraindik ez dela oso nabarmena bigarren belaunaldien presentzia eta, beraz, ezta haiekin izandako harremana ere, salbuespenen batean izan ezik, pertsonaren batek adierazi baitu bere hurbileko ingurunea (oker izendatutako) bigarren belaunaldietako pertsonak osatzen dutela.

Atzerritar jatorriko ikasleak iritsi izanaren ondorioz, hezkuntza-esparrua da bertako pertsonen eta atzerritar jatorriko pertsonen topagune nagusietako bat. Hezkuntza-sistemako mailarik baxuenetatik hasi eta unibertsitatera arte, beren prestakuntzak iraun duen denboran atzerritar jatorriko pertsonekin nola bat egin duten eta zer harreman izan dituzten azaldu dute gazteek.

“Bai, ikastetxean. Ni baino handiagoekin ere. Ikastetxean eta unibertsitatean”. (1. taldea)¹

“Nik batekin eskolan, eta bestea nire lagun baten laguna zen. Elkarrekin irteten hasi ginen, eta azkenean horrela amaitu dugu”. (1. taldea)

“Eskolan. Beno, unibertsitatean. Ikasle giroan esan nahi dut”. (6. taldea)

Hezkuntza-esparruarekin batera, aisialdiko eta eskolaz kanpoko jarduerak izan dira, jaso ahal izan denez, jatorri autoktonoko eta jatorri atzerritarreko gazteak elkartzeko beste gune nagusietako bat. Alde horretatik, pertsona batzuek esan dute, denborak aurrera egin ahala, nabarmen aldatu direla bigarren belaunaldiekiko esperientziak. Hala, adierazi dute kirola egiten hasi zirenean (edo beste jardueraren bat egiten hasi zirenean) ez zutela harremanik atzerritar jatorriko hainbeste pertsonekin, baina, orain, gazteagoak entrenatzen hasi direnean, askotariko taldeak ikusten dituzte, jatorri askotako partaideak dituztenak.

“Nire kasuan, eskola partikularretara joaten naiz, eta eskola horietan badaude bigarren belaunaldiko pertsona pare bat. Hortik aparte, aurten ez, baina ia Saharako hainbat pertsonarekin partekatu nituen eskolak”. (2. taldea)

“Nire inguru hurbilean, atletismoko nire taldeko neska baten gurasoak Hungariakoak dira. Eta nire gelan ere bi neska daude. Baten gurasoak Sri Lankakoak dira, eta bestearenak ez dakit nongoak diren”. (2. taldea)

“Bai, askotariko jendea ibiltzen da bizikletan. Bizikletan ibiltzen diren pertsonen artean atzerritarren bat edo etorkinen bat egoten da. Eta zerbait hartzeko orduan ere bai. Lagun taldean, kubatarra den lagun bat dut. Zerbait hartzera joaten garenean, adarra jotzen digu apur bat. Gure arteko gauzak dira”. (4. taldea)

“Antzerkia egiten hasi naiz orain, eta bazegoen bigarren belaunaldietako jendea. Ezagutu behar nituen besteak bezalaxe ikusten nituen. Gainera, pertsona horietako batekin dut harreman onena. Azkenean, ez dakizu.” (6. taldea)

“Txikitan bai. Ez dakit zer esan. Txikitan Getxoko taldean nengoan, eta Algortako jende asko zegoen, eta futboletik kanpo ere ondo konpondu naiz haiekin. Baina taldea aldatu nuen, eta harreman hori galtzen joan naiz poliki-poliki. Oraintxe bertan ez dakit non dabilzan. Baina oso txikitan eta orain, nerabezaroan ez zait egokitu”. (1. taldea)

“Baina futbolearen aritzen nintzenez, banituen guraso atzerritarrek zituzten kideak, eta ados nago esan duzuenarekin. Kirolean nik ere ez dut inolako bereizketarik hauteman”. (6. taldea)

1 3. eta 5. taldeak euskaraz egin dira, beraz, talde horiei buruzko aipuak literalak dira; gainerakoak itzuliak izan dira.

“Nik guraso senegaldarrak dituzten neskak entrenatzen ditut. Eta izan dut baita ere Afrikatik etorritako gurasoak zituen mutiko bat, eta frantsesez hitz egiten zuen. Eta baditut kide suediarrek eta norvegiarrak ere. Beraz, bi aldeetatik zerbait, iparraldetik eta hegoaldeetik “. (4. taldea)

“Ba, nire kasuan bebai, azken batean erlazio dago gehienbat haurrekin, hurrei bideratua eta, ba, saskibaloit taldean badauz atzerritarrak, eta gero skaut taldeen bebai badauz atzerritarrak, baina dauz taldeen oso sartute eta haurrak direnez, oso txikitatik ikasi dabe euskara.” (5. taldea)

“(…) saskibaloit taldean badauz atzerritarrak eta gero skaut taldeen bebai badauz atzerritarrak baina dauz taldeen oso sartute eta haurrak direnez oso txikitatik ikasi dabe euskara.” (5. taldea)

Era berean, ikasketak amaitu dituzten eta lan-merkatuan sartzen joan diren edo praktikak egin dituzten pertsonak adierazi dute lanean aritu diren denboran jatorri desberdinetako pertsonekin erlazioan ahal izan direla, nahiz eta guztiek ez diren nahitaez bigarren belaunaldietakoak.

“Nafarroako hegoaldean lan egiten nuenean, brasildarrekin eta errumaniarrekin lan egiten nuen, eta ez dut inoiz inolako arazorik izan. Azkenean, lanean ari gara guztiak, eta ondo konpontzen gara”. (6. taldea)

“Baina bidaiatu dudanean izan dut soilik kultura desberdinekiko harremana. Hemen, gutxi. Beno, erizaintzako praktikak egin nituenean, ospitalean kanpoko jendea ikusi nuen”. (4. taldea)

Zehazki, hezkuntzarekin lotutako ikasketak egin dituzten eta gaur egun arlo horretan lanean (edo praktikak egiten) ari diren pertsonak adierazi dute beren eskoletan atzerritar jatorriko ikasleak izan dituztela, eta esan dute egoera hori normalizatu egin dela, haien ikasle-garaiarekin alderatuta. Gaur egun, errealitate arruntagoa da.

“Ezaugarri horiek dituzten bi hurrei ematen dizkiet eskolak. Baina haiekin dudaren harremana irakasle eta ikasle artekoa da”. (2. taldea)

“Nik adibidez praktikak Ibarren egin dut aurten eta ez det ikusi halako ezer, o sea ikusten nitun bai atzerritarrak eta bai hemengok elkarrekin denok batera denak euskaraz, hori bai, e? Eta horrek atentzioa sortu ziten. Ze gure garaian igual gehio izaten zan etorkinak alde batetik eta gu beste alde aldetik baino...”. (3. taldea)

“Ni irakaslea naiz, eta kanpoko gurasoak dituzten ume asko daudela ikusten dut, eta esparru horretan horrela dela uste dut... beno, nire iritzia da hori. Esparru hori apur bat hobetzen ari dela uste dut”. (6. taldea)

Neurri txikiagoan, landa-lanean atzerritar jatorriko senideak dituzten gazteen testigantzak ere jaso ahal izan ditugu, hala nola lehengusuak eta/edo lehengusinak dituztenenak, eta atzerritar jatorriko pertsonaren batek ere hartu du parte azterlanean. Alde horretatik, bitxia da hasiera batean esatea ez direla gehiegi erlazioatzen bigarren belaunaldikoekin, batzuetan beraiek ere bigarren belaunaldietakoak baitira, oso kontziente izan gabe.

“Nire lehengusu batzuen aita etorkina da, duela urte asko etorri zen. Eta nire bi lehengusuak ni baino txikiagoak dira”. (1. taldea)

“Adibidez, nire ama Alemaniatik etorri zen honera [...], Alemanian jaiotakoa, bai. Nere amona zan portugesa eta jun zan Alemaniara lan egitera eta nire aitona ere bai eta han ezagutu ziren eta han egon ziren bizitzen eta hona etorri ziren”. (3. taldea)

“Nire gurasoak frantsesak dira”. (4. taldea)

“Nere ama da mexikokua, aita hemengua”. (5. taldea)

Eskolan edo entrenamenduetan sortzen diren harremanetara itzuliz eta harreman horietan sakonduz, pertsona batzuek adierazi dute harreman horiek sendotu egin direla, eta hasieran ezagunak baino ez baziren ere, orain atzerritar jatorrikoen eta bertakoen osatutako taldeak egin dituztela. Horrela, lagun taldeetan bigarren belaunaldiko pertsonak dituzten gazteek normaltasun-egoera bati buruz hitz egiten dute, non beste edozein pertsona bezala integratzen diren.

“Bai. Nik adibidez daukat koadrilan bat errumaniarra dala, bere gurasuak kanpokok, bera... bera uste det ez dela hemen jaio baina oso txikitan etorri zen eta... sin más relazio onarekin, normala. O sea esan nahi det, txikitan gutxiago ibiltzen ginan bera-rekin baino orain... orain normal”. (3. taldea)

“Guk adibidez koadrilan Bolibiako bat daukagu, etorri zen DBH baten, berriro DBH 4en Boliviara bueltau zan egoerangatiken eta lehengo urten berriro etorri zan eta oso ondo eramaten gara berakin, eta gero euki genuen baita txikitan klasean, bueno LH baten etorri zan, eta gero beste guztian euki zun Mexikoko bat”. (3. taldea)

“Nire talde edo erdixa da musulmana, más o menos erdixa edo, bai, eta denekin super ondo, o sea sin más. Dira lagunak eta beti urtetzen gara danok batera bai taldekoak eta egoten gara eta beraiekin, atzerritarrekin, eta ere oso ondo.” (5. taldea)

“Bai. Nire inguruan, behintzat, oso normalizatuta dugu. Baditugu guraso atzerritarak dituzten bi pertsona ere. Beraiek ez, baina gurasoak kanpokoak dira”. (6. taldea)

Lagun taldearen gaiarekin batera, parte-hartzaile batzuek atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko pertsonen artean ezagutu dituzten bikote mistoei buruz hitz egin dute. Zenbait kasutan, bikote horiek ezagunak besterik ez dira, baina beren lagun taldearen barruko bikoteez hitz egiten duten gazteak ere badaude, eta, batzuetan, eurak dira mota horretako harremana dutenak edo izan dute. Bikote horiei buruz hitz egitean, desberdintasun kulturalen gaia agertzen da, batik bat kultura jakin batzuei lotuta; pertsona batzuek bikotekideekiko izan dezaketen harreman posesiboaz hitz egin dute, baina adierazi dute hori ez dela nahitaez atzerritar jatorriko pertsonen berezko zerbait, eta bertako pertsonen artean ere gertatzen dela.

“Nire lagun taldeko askoren bikotekideen gurasoak kanpotarrak dira. Baina beraiek hemen jaiotakoak dira. Orduan, kasu horretan bai. Eta, horri esker, batzuetan lagun horien bikotekideak etorri dira eta haien lagunak ekarri dituzte. Gainera, azken aldian gehiago gertatzen da. Beraz, bai”. (2. taldea)

“Baina duela hiru urte, lagun taldeko kide baten harremanari esker, aukera hori izan genuen”. (2. taldea)

“Nik izan nuen bikotekide baten aita kubatarra da, baina bera hemen jaio da. [...] Nire ahizpak ere une hartan zuen bikotekidearen gurasoak Gineakoak ziren, baina bikotekidea hemen jaiotakoa zen. Eta aldi berean gertatu zen”. (2. taldea)

“[Atzerritar jatorriko] bikotekidearekin irteten hasi zen, eta ordutik ez dut ia ikusi. Gurekin zuen harremana eten du, eta baita hurbileko lagunekin zuena ere. Niri ere gustatuko litzaidake pertsona ez aldatzea. Bikotekidearen eraginez ez aldatzea”. (4. taldea)

“Nire gurasuen mutila o sea nire mutilen gurasuak e... bere aita Londresekoa da baina ez da beltzarana guztiz, baina bera da mulatua, orduen nire mutila bebai eta... ez dakit ez dot euki arazorik inoiz, o sea... izea... ni fijetan naz izaeran gehio, igual egongo da jendea superfizialagoa eta fijatuko da gehiau fisikoan eta fisikoak bebai inportetan dau, noski, baina beti fijeu izen naz, ez dakit, berdin dozta e... beltzarana izatea, berdin dozta zuria, berdin dozta... ez dakit.” (5. taldea)

“Nik esan behar nuen nire herrian marokoarren eta neska espainiarren arteko hainbat harreman ikusi ditudala. Batzuk ondo irten dira, eta beste batzuk gaizki. Nik uste dut marokoarrak izateagatik baino gehiago pertsonagatik dela. Oso posesiboa izan daitekeelako edo oso mentalitate itxikoa. Baina hori hemengo bati ere gerta dakioke”. (6. taldea)

“Nik izan nuen bikotekide baten aita kubatarra da, baina bera hemen jaio da. [...] Nire ahizpak ere une hartan zuen bikotekidearen gurasoak Gineakoak ziren, baina bikotekidea hemen jaiotakoa zen. Eta aldi berean gertatu zen”. (2. taldea)

Hala ere, izan dituzten harremanak edozein izanik ere, taldeetan behin eta berri esaten dute haien belaunaldian oraindik ez dela oso nabarmena bigarren belaunaldien presentzia eta haiekiko harremana. Gehienek esaten dute eskolan izan dituzten atzerritar jatorriko pertsonak oso txikiak zirenean iritsi zirela, eta, beraz, ez zirela EAEn jaio, eta nahiz eta "bigarren belaunaldien" kategoria horretan sartu, ikuspegi analitiko batetik, 1.5 eta 2.0 belaunaldiak bereizi beharko genituzke. Beraz, esan daiteke, oro har, azterlan honetan parte hartu duten gazteek 1.5 izeneko belaunaldi horiekin izan dituztela harremanak ².

“Nik bai. Emigratu duen jende gehiago ezagutzen dut, beharbada, nire inguruan. Baina bigarren belaunaldiak gazteagoak izan ohi dira”. (1. taldea)

“Egia esan, nire inguru hurbilean ez dago atzerritarra den inor. Baina gero, beste inguru batzuetan izaten duzu harremana. Nire eguneroko inguruan ez dago atzerritarrik”. (4. taldea)

“Ez daukat kasurik horrela... klasian eta denok gara hangiak, o sea, denok gara hemenguk. Bueno, igual dau jendea, bat da Elorrixukua, bestia Durangukua baina azkenian danak gara...” (5. taldea)

Senide gazteagoak dituztenen kasuetan, lehengusu-lehengusinak, anai-arrebak edo, batzuetan, ilobak dituztenen kasuetan, hain zuzen, ikusi dute aldaketa

² Bigarren belaunaldiaren kontzeptua etorkin familietan hazi diren haurrak definitzeko erabili da eta erabiltzen da, gurasoen jatorrizko herrialdean jaio diren edo harrera-herrialdera jaio ondoren iritsi diren alde batera utzita (Alba & Holdaway, 2013). Alde horretatik, ikuspegi analitiko batetik, 1.5 eta 2.0 belaunaldiak bereizteko joera dago. 1.5 belaunaldiak jatorrizko herrialdean jaio diren eta sozializazioa han hasi duten seme-alabei egiten die erreferentzia batez ere; 2.0 belaunaldiak, berriz, herrialde hartzailean jaio eta sozializatu direnei.

handiak gertatu direla azken urteotan, eta belaunaldi berriek bigarren belaunaldiko jendea dutela inguru hurbilenean.

“Nik D ereduan eta ikastetxe publikoan ikasi dut beti, eta ez zeuden etorkin asko. Baten bat etortzen zen, baina gutxi. Baina nire anaia txikiak, zazpi urte gazteagoa denak, askoz ere gehiago ditu. Eta iaz Bigarren Hezkuntzako masterra egin nuen, eta D ereduko gela batean egin nituen praktikak. Eta jatorri askotako jendea zegoen. Ni institutu horretan nebilenean ez zen horrela gertatzen”. (6. taldea)

“Adibidez, orain 11 eta 15 urte inguru dituzten nire lehengusuen eskolako lagun taldean gehienak atzerritarrak dira. Hego Amerikakoak ez badira, marokoarrak edo txinatarrek dira. Denetik dago. Eta oso ondo konpontzen dira. Eta 5 urteko nire ilobaren kasuan, are gehiago”. (6. taldea)

“4 urteko haur bat, bata baltza eta bestia zuria, eta bakarrik ikusten zuen berak moztu zabela ulia eta bere lagunak bebai eta hori izen zan super inpaktantie, ikusten dabie dana bardin, danok garela bardinak eta guk azkenian dekoguz ba gure aurreiritziak, gure bizipenak eta gure dana”. (5. taldea)

Jatorri autoktonoko eta atzerritarreko gazteen arteko harremanak errazten edo eragozten dituzten faktoreak

Egindako dinamiketan, euskal gazteek bigarren belaunaldiekiko harremana errazten edo eragozten duten faktoreez hitz egiten dute, bai eta lotura estuak eta lagunak sortzeaz ere. Ondoren, parte-hartzaileek deskribatu dituzten faktoreak aztertuko ditugu, horietako bakoitza ahalik eta zehatzen ikusteko.

Hizkuntza

Hizkuntza da taldeetan parte hartu duten gazteek aipatzen duten lehenengo faktorea. Gazteen arabera, bigarren belaunaldiek erkidegoko hizkuntzetako bat ezagutzeak aukera ematen die parekoekin lehen unetik komunikatzeko eta harremanetan jartzeko. Orduan, hurbileko kasuei buruz hitz egiten dute, non hizkuntza ez ezagutzeak gainerakoekin harremanak izateko zailtasunak eragin dituen eta azkenean oztopo bat sortu den. Denborak aurrera egin ahala, eta hizkuntzetako batzuk ikasten doazen heinean, egoera horrek hobera egiteko joera duela aipatzen dute, baina ez da beti horrela gertatzen, eta, zenbaitetan, denboran luzatzen den arazoa izaten da.

“Nik uste dut baietz. Hemengo hizkuntza ulertzeak eta hitz egiteak lagundu egingo die. Ez dakit, agian errazago egingo dituzte harremanak jendearekin hizkuntza ezagutzen badute. Bere azentuagatik konplexuren bat badu baino errazagoa izango da igual. Ez dakit”. (2. taldea)

“Nik uste dut azkenean komunikazioa... beste herrialde batetik baldin bazatuz eta hizkuntza ezagutzen ez baduzu, komunikatzea asko kostatzen zaizu. Eta hori da ha-

rreman guztiaren oinarria. Ezin bazara gainerako pertsonekin komunikatu, ezin duzu harremanik egin. Eta, azkenean, horrek eragina du". (4. taldea)

"Nire kasun baita, bueno nire klasen egon zan mutil bat e... Rumaniakoa baita eta hasieran ez zun hitz egiten, ze ez zekien ez euskera ez erdera etorri zanen. Eta hori egon ginen bastante urte berarekin hitz egin gabe ze berak ez zuen hitz egiten eta gero ia hasi zenean hitz egiten... o sea egon zen egun bat hasi zala hitz egiten normal ba euskera jakingo bazun bezala eta ia egun hortatik aurrera ia ondo berarekin". (3. taldea)

"Ze guk izan degu ere bai Txinatar bat Txinatik etorri zala, ba, ez dakit, gaztea zan, 5 urtekin hola, eta klaro ez zekien ezer eta orain, e, bai... ez du asko ikasi eta oraindikan ez ditu lagun asko egia esan". (3. taldea)

"Dauzke 8 urte eta dauka klasen jendea uste dut dela bat Rumaniakoa eta bestea Pakistangoa edo, ez dakit nungua dan eta ba... egia da umeen artean gehiago notatzen dela diferentzia hori, nola ez dakiten... euskaraz edo erdaraz ez dakitenak geratzen dira como pixkat bat apartatuago bezala eta umeak konturatzen dira, eta txikitatik jartzen dute barrera hori nik uste gero ia handitan problema bat bihurtzen dela". (3. taldea)

"Es que nik klasean euki nun Pakistaneko bat, baina ez dakit, ez, noiz etorri zan eta oso gutxi egon zan eta ez zekien ez gaztelania ez euskera, orduan, berarekin komunikatzeko, gaizki". (3. taldea)

Hezkuntzaren esparruan, hizkuntzarekiko zailtasun horiek garrantzi erantsia dute, hezkuntza-prozesuarekin berarekin lotzen diren heinean. Parte-hartzai-leetako batek gertuko kasu bat aipatu du: atzerritar jatorriko ikaskide batek ikasturtea errepikatu behar izan zuen behin baino gehiagotan, hizkuntza (kasu honetan, euskara) menperatzen ez zuelako. Horrek ondorioak izan zituen haren errendimendu akademikoan, baina, horrez gain, harremanak hasteko arazo handiak sortu zituen; izan ere, ikaskideekin harremana izaten hasten zenean, hutsetik hasi behar zuen berriro erabat berria zen beste talde batekin.

"Ni eskolan nengoenean, 12 urte genituenean, mutiko marokoar bat etorri zen. Eta beste guztiarekin harremanak izateko izan zuen arazo nagusia euskaraz ez zekiela izan zen, eta, nire ikastetxean euskaraz ikasten zenez, berak ezin zion eutsi urtebete baino gehiago maila batean. Hurrengo urtean eta hurrengoan ikasgela berri batean hasi zen. Eta hurrengoan, berriz, beste institutu batera joan zen. Eta urtebetez lagun batzuekin bazaude eta lagunak egiten hasten bazara, baina urtea amaitzean berriro hasi behar baduzu...". (4. taldea)

Horrekin batera, adierazi dute jatorri latinoamerikarreko pertsonak nolabaiteko abantaila dutela gainerakoekin alderatuta, gaztelania baitute ama-hizkuntza. Inguruko gainerako pertsonekin, oso giro euskaldunean bada ere, komunikatu ahal izateak nolabaiteko segurtasuna ematen die, eta hasieratik harremanak izateko eta lagunak egiteko aukera ematen die. Gainerako jatorrien kasuan, hasierako desabantaila hori gorabehera, azterlan honetan parte hartu duten eta hezkuntza-arloan lan egiten duten gazteek, atzerritar jatorriko pertsona ho-

"(...) beste herrialde batetik baldin bazatoz eta hizkuntza ezagutzen ez baduzu, komunikatzea asko kostatzen zaizu. Eta hori da harreman guztiaren oinarria. Ezin bazara gainerako pertsonekin komunikatu, ezin duzu harremanik egin. Eta, azkenean, horrek eragina du". (4. taldea)

riekin harreman handiagoa duten heinean, adierazi dute zailtasun horrek hizkuntza ikasteko ahalegin handiagoa egitera bultzatzen dituela (euskara, aipatu diren kasu zehatzetan), eta bertako ikasleen mailara iristen direla eta denbora gutxian haien maila gainditzen dutela.

“Nik pentsatzen det hizkuntza ere barrera bat dala. Orduan, lagunak egiterakoan eta ba... berria bazara hemen eta ez bazara txikitan honea etorri eta hola, ba azkenean ez daukazu hizkuntza berdina eta igual zailagoa da relazioak egotea besteen arten, beraiekin eta hola horregatik. Nik ere euki det nire kurtsoan hola... ez dakit nungua zan, Ekuadorrekoa uste dut zala, bai, uste det Ekuadorrekoa zala, baina berak bazekien erdaraz eta hola, eta azkenean berakin hasieratikan ondo ematen ginan eta lagunak ditu. Nik uste, hizkuntza badaukazu, erdera edo euskeraz badakie normalien lagunak egiten dituela hasieratik”. (3. taldea)

“Bai, ze azkenean hasieran igual erdaraz badaka seguridade gehio, baina igual, ez dakit, o sea, hasieran bai dakala esan detena seguridade hori badaka hitzegiteko garaian zeba guk ulertu eingo diegu baino... ez dakit pixka bat lñakik esan duena lehen, Txinatar bat etortzen dala edo hasieran ez daki zein ze agian lotsatu egiten dira ba parre egingo dielako edo no sé sobre todo txikitan bastante inozente ginala eta... horixe. Nik uste... bastante... o sea, seguridade hori ematen die behintzat bat jakiteak”. (3. taldea)

“Txinatarrak eta afrikarrak 3 urte inguru zeramatzen hemen, eta hemen jaiotakoek baino hobeto egiten zuten euskaraz. Ezer jakin gabe iritsi baitziren, baina, laguntza jasotzen dutenez, oso ondo ikasi zuten. Eta errumaniarra ni praktiketan hasi nintzenean iritsi zen, eta hiru hilabetez egon nintzen harekin. Eta izugarri saiutzen zen; hiru hilabete haietan, euskaraz esaldiren bat idazteko ere gai izan zen. Aldiz, hemen jaiotako batzuk ez ziren gai euskaraz bost esaldi idazteko. Nik esaten nien gutxienez hor hitz egiten saiatzeko, baina ez zuten inolako interesik agertzen”. (1. taldea)

Batez ere inguru euskaldunagoetan, euskara ikastea faktore garrantzitsua da bertako gazteekiko harremanak sustatzeko. Testuinguru horietan, gaztelania hesi bihurtzen da askotan, eta euskara da harremana errazteko jauzi kualitati-boa zehazten duen hizkuntza.

“Ez die como asko sartzen guregaz, o sea, euskara ez dabe ere ez ondo ulertzen, eiten dute erdaraz, baina euskara dauz ikasten batzuk eta oso ondo eta orduen dau como más separau baina ondo, oso ondo.” (5. taldea)

Euskal gazteek hizkuntzari buruz egiten duten beste ohar bat da iristeko adinak duen garrantzia³, bai erkidegoko hizkuntza ofizialetako bakoitza ikasteko lehenastenei dagokienez, bai inguruko gainerako pertsonen erreakzionatzeko moduari dagokionez. Lehen puntuarekin lotuta, diskurtsoetatik ondoriozta daitekeenez, adinean pixka bat aurrerago daudela iristen diren pertsonen kasuan, euskara ikasteak ez du adinez gazteagoak direnen artean izan dezakeen bezainbesteko garrantzirik; izan ere, azken horien artean euskara gainerako ikasleekin harremanak ezartzeko oinarrizko baldintza izan daiteke, bai eta

³ Alde horretatik, ezin dugu ahaztu, lehenago zehaztutakoaren ildotik, une honetan 18 urtetik 25 urtera artean dituzten pertsonen izan dituzten harremanak gehienetan lehenengo belaunaldiekin izan direla, eta, zehazkiago, 1.5 belaunaldiarekin, bigarrenengoekin baino gehiago.

prestakuntza-prozesuaren barnean ere. Bestalde, uste dute adinaren arabera nabarmen aldatzen dela atzerritar jatorriko gazteekin harremanak ezartzen dituzten parekoen jarrera. Hala, ikasleak gazteagoak direnean, gelakideren batek euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiten ez jakitea iseka egiteko arrazoia izan daiteke gainerako ikasleentzat. Hala ere, zehazten dute jarrera hori aldatu egiten dela pertsonak heltzen doazen heinean, eta, adin batetik aurrera, ezjakintasun horrek gainerakoak hizkuntzaren ikaskuntzarekin laguntzera bultzatuz ditzakeela.

“Adinaren arabera da baita ere, agian zaharragotan ez. 15, 16 edo 17 urte baldin badituzu jada, ez dut uste hain garrantzitsua denik. Baina ume bat baldin bazara... Lehen Hezkuntzan guztiak euskaraz hitz egiten dute. Jolastokian behartu egiten zaituztelako, edo beste edozer arrazoiengatik. Eta euskaraz ez badakizu...”. (1. taldea)

“Nire ustez, adin jakin batean hizkuntza ez jakitearen ezaugarri hori bera izan daiteke zurekin sartzeko arrazoia, baina beste adin batean zu integratzeko, zuri laguntzen saiatzeko edo dena delakoagatik gehiegizko ahalegina egiteko arrazoia izan daiteke. (4. taldea)

“Ba igual oztopo izan daiteke, bai, hona iristean duten adinaren arabera. Lehen Hezkuntzako 4. mailan baldin bazatoz, ba ez zara D ereduan sartuko, ez baituzu tutik ulertuko”. (1. taldea)

“Argi dago adinaren arabera dela. Handixeagoa zarenean iristen bazara, A eredurara joango zara. Eta txikitatik hasten bazara, ziurrenik D ereduan edo B ereduan sartuko zaituzte”. (1. taldea)

EAEko hizkuntza ofizialei dagokienez (euskara eta gaztelania), bigarren belaunaldiko pertsona hori bizi den ingurunearen arabera izango da bata edo bestea ikasteko premia. Hala, pertsona batek azaldu zuenez, bertako haurrek gaztelania ondo ezagutzen ez duten edo erraz hitz egin ezin duten ingurune euskaldun batean, euskara ikastea ezinbestekoa da harremanak izateko, baita pertsona horiek, beren jatorriagatik, gaztelaniaz hitz egiten dutenean ere.

“Baina, azkenean etorri zanen, gu txikitik ba erderaz ondo genekienak gutxi ginen eta ba igual pixkat inseguridade hori ematen zion e... gurekin ezin zula hitz egin, baina gero ia adibidez o sea ia gero ia hasi zan euskeraz hitz sueltoak esaten, guk ulertzen genion eta jendea ia o sea 6-7 urtekin hasi ginen berarekin komunikatzen, ze bera gurekin o sea feedback hori bagenekan. Ta... ba hortikan aurrera, nik uste ia ba... barrerarik gabe egon zelan, nik uste. O sea ba hori, kosta egiten zaio pixkat espresatzea baino... ahalegina eginda eta ulertzen ginan”. (3. taldea)

Ingurunearen ondoriozko desberdintasun horiekin jarraituz, parte-hartzaileen esperientzietatik ondorioztatzen da inguruneak eragina duela eskura dauden prestakuntza-aukeretan eta bertakoen eta atzerritar jatorrikoen arteko harremanetan. Hiriburuetan egindako taldeetan (ikastetxe gehiago daude), parte-hartzaileek esaten zuten ia ez zutela harremanik izan atzerritar jatorriko ikasleekin, ikasle horiek A ereduan matrikulatu ohi direlako (gaztelania da komunikazio-hizkuntza), eta parte-hartzaile gehienek B ereduan (gaztelaniaren eta euskararen proportzio bera) edo D ereduan (euskara da komunikazio-hizkuntza) ikasi dute.

“(...) ez zait egokitu ikaskide etorkinik. Ez dakit ikastola zelako eta euskaraz ikasten genuelako izan zen. Nire ustez, beste ikastetxe batzuetara joateko joera handiagoa dute. Horregatik, alde horretatik ez dut inolako esperientziarik izan etorkinekin”. (6. taldea)

“Eta institutuan ere ez zitzaigun kanpoko inor egokitu. Ni euskarazko adarrean ari nintzelako, eta haiek gaztelaniazkoan. Orduan, azkenean ez zara nahasten”. (1. taldea)

“Eskola-eremuan, ikastolan, ez zait egokitu ikaskide etorkinik. Ez dakit ikastola zelako eta euskaraz ikasten genuelako izan zen. Nire ustez, beste ikastetxe batzuetara joateko joera handiagoa dute. Horregatik, alde horretatik ez dut inolako esperientziarik izan etorkinekin”. (6. taldea)

“Nik uste dut asko nabari dela. Ni ere ikastolan ibilitakoa naiz, eta ez zegoen etorkinik ia. Baina nire lagun batzuek beste ikastetxe batzuetan ikasi zuten, eta haietan bazeuden”. (6. taldea)

Bigarren belaunaldiak D ereduan ikasten hasi diren kasuetan, euskara ikasteko inolako arazorik izan ez dutela esaten da. Horrek, askotan, bertako ikasleen begikotasuna sortzen du.

“Nire lehengusuak hemen jaio dira, ikastolara joan dira txikitatik eta oso ondo hitz egiten dute euskaraz”. (1. taldea)

Aldiz, beranduago iritsi direnean (1.5 belaunaldia) eta D edo B ereduan matrikulatu behar izan dutenean, esaten da ikastetxeetan eskatzen zaien euskara-maila gehiegizkoa dela, eta hezkuntza-prozesua asko zaildu dezake horrek.

“Nik eskolak eman nizkion mutiko batek bi urte inguru zeramatzan Euskadin. Eta euskara-maila oso altua eskatu zioten, ez zuen inoiz azterketa gaitutuko. Uste dut LHko 5. mailan zegoela, eta hain denbora gutxian ezin zuen maila hori eskuratu. Eta orain guztiei maila bera eskatzen dietelako eskatu zioten hari ere”. (2. taldea)

Hizkuntzaren ikaskuntza horretan, gazte horien gurasoek duten ikuspuntuak ere eragina du. Tutoreek ulertzen badute euskara edota gaztelania ikastea garrantzitsua dela seme-alaben integrazioari begira, motibatu egingo dituzte. Aldiz, batzuetan hori ez da horrela gertatzen, eta batez ere euskararen ikaskuntzarekin gertatzen da hori, hizkuntza gutxitua denez, ez baitute beti euskararen garrantzia balioesten.

“Nirekin batera euskara ikasten ari ziren lagun batzuen gurasoei denbora galtzea iruditzen zitzairen euskara ikastea. Ingelesa, frantsesa edo beste edozein hizkuntza ikasteari garrantzi handiagoa ematen zioten. Galdu egingo zela esaten zuten, edo ez zutela ulertzen. Eta ulertzen ez zuten, gurasoek ez zuten nahi beren umeak hura ikastea”. (6. taldea)

Hezkuntza-esparrua

Gazte euskaldunen arabera, atzerritar jatorriko pertsonekin izan dituzten harremanetan eragina duen beste elementuetako bat ikastetxeak dira. Alde batetik, talde batzuetan esaten da ikastetxe batzuetan ematen duela bertakoak eta atzerritar jatorrikoak elkarren artean ez nahasteko ahalegina egiten dela. Batzuen eta besteen arteko "ustezko" desberdintasun akademikoak gaitasun

akademikoekin baino gehiago hizkuntzaren oztopoarekin lotuta egongo liratekeenez, bigarrenak dibertsifikazio-geletan sartzen dira, eta, gela horietan, oinarrizko irakasgaiak soilik ikasteaz gain, gainerako ikasleen ordutegi desberdina dute. Horren ondorioz, ikastetxe horietara iristen diren atzeritar jatorriko pertsona horiek taldeak osatzen dituzte elkarren artean, eta ez dute aukerarik gainerako ikasleekin harremanak izateko.

“Gehienetan, nire ikastetxean, etorkinak edo kanpotarrak dibertsifikazio-gelan sartzen zituzten. Eta, azkenean, beste ordutegi bat eta beste erritmo bat zuten. Eta ez da bazterketa boluntarioa edo nahita egindakoa, horrela egiten zuten ikastetxean”. (1. taldea)

“12 edo 13 urterekin bai. Adin horrekin iristen zirenek ikasketarik ez zuten ezdo egiaztatuta ez zituztenez, dibertsifikazio-gelan sartzen zituzten, eta han beren taldea osatzen zuten, iritsi ahala. Eta desberdin jokatzeko zuten haiekin. Oinarrizko irakasgaiak ikasten zituzten, eta gero jolastokian igarotzen zuten eguna, edo beste zerbait egiten zuten. Baina beren kabuz beti, eta beren taldetxoan. Ikastetxeak bultzatzen zuten hori, ikasleek ez genuen esaten haiekin egon nahi ez genuenik”. (1. taldea)

“Ez, haiek jolastokira irteteko beste ordutegi bat zutelako. [...] Ordu erdi lehenago irteten ziren, baina gurekin batera ez irteteko egiten zuten”. (1. taldea)

Testigantza horiek jaso ziren eztabaida-taldean, gazteek iritzi gogor eta kritiko samarrak adierazi zituzten ikastetxeei buruz. Aipatu zuten egoera hori ikastetxeek sortu zutela, eta, ikasleek bereizketa horri buruz galdetzen zutenean, ikastetxeek segurtasun-arrazoiak aipatzen zituztela, gatazkak saihesteko.

“Guri esaten ziguten gatazka asko egoten zirela, eta gatazkarik ez gertatzeko bereizten zituztela. Hori zen teoria, edo horrela saltzen zuten. Baina liskarra edozeinekin izan zenezakeen”. (1. taldea)

“Nik uste dut sortutakoa dela. Ez dizkiete besteekin batera egiteko jarduerak proposatzen, eta soinketa egiteko baino ez dira elkartzen”. (1. taldea)

Ikastetxeen kasuan, aurretik aipatu den beste elementu bat hizkuntza-eredue-na da, eta garrantzitsua da elementu hori berriro gogora ekartzea. EAEn, zenbait hizkuntza-eredu daude, prestakuntza-prozesuaren barnean gaztelaniak eta euskarak duten pisuaren arabera. Hala, probintzia-hiriburuetan prestakuntza-aukerak ugariagoak izan daitezke, eta kasu horietan esaten da ikasle atzeritarrik, oro har, A ereduari matrikulatu ohi direla; bertako biztanleak, berriz, B eta D ereduari matrikulatu ohi dira. Horrek, beraz, bertako eta atzerriko pertsonen arteko harremanak zailtzen ditu.

Bestalde, irakasleak ere aipatu dira taldeetan. Adierazi dute irakasleen jarrera funtsezkoa dela bi taldeetako gazteen arteko harremanak bultzatzeko eta espazio partekatatu bat sortzeko.

“Baina nik uste dut irakasleak erantzukizun handia duela horretan, ematen dion ikuspegiaren arabera. Izan ere, irakaslea da gelako hemeretzi hurrek izango duten

eredu nagusia. Eta hurrek beste haurrekiko izango duten jokabidea baldintzatzen du horrek uneoro". (4. taldea)

Hala ere, kasu batzuetan esan izan dute irakasleak berak bereizten dituela atzeritar jatorriko ikasleak gainerakoetatik, arrazoi kulturalengatik, eta harrigarria gertatzen zaie hori hemengo gazteei. Ondorengo adierazpenean esaten da nola baztertu zuten neska musulman bat beste ikasleei urdaiazpiko ogitarteko bat banatu zietenean, arrazoi erlijiosoak emanez.

"Beste gauza bat ekarri genuen, eta irakasleek automatikoki gainerako umeengandik bereizi zuten. Automatikoki, irakasleek bereizketa bat egin zuten. Eta izugarria iruditu zitzaigun. Jaten ez badu ere, irakasleek hori egitea... guri barkamena eskatzen bezala. Guretzat ez da inolako arazoa, baina irakaslearen aldetik hori ikustea gogorra egin zitzaigun. Ikastetxe batean zaude eta suposatzen da... ezta? Eta irakasleek berek baztertu zuten". (1. taldea)

Era berean, euskal gazteek uste dute belaunaldi berrien gurasoek ere betekizun garrantzitsua dutela jatorri askotako pertsonen arteko harremanak ez sustatzeko orduan, ikastetxe jakin batzuk hautatzen dituztelako.

Euskal gazteek, eta bereziki ikastetxeetan lan egiten duten edo lan egin duten pertsonenek, kezka agertzen dute gurasoen portaeraren aurrean; izan ere, beren seme-alabek eskolak atzeritar jatorriko pertsona batekin partekatu ahal izango dituzten beldurrez, seme-alabak itunpeko ikastetxe batera edo ikastetxe pribatu batera eramaten dituzte, edo ikastetxez aldatzen dituzte; atzeritar jatorriko biztanleek, berriz, ikastetxe publikoetan matrikulatzen dituzte beren seme-alabak, aukera bakarria izaten baitute.

"Bertako jendeak ikastetxe pribatuak aukeratzen ditu, etorkinak baino ez dauden giro horretatik ihes egiteko, eta, azkenean, ghettoak sortzen ari dira. Etorkinek ikastetxe publikoetan ikasten dute, eta hemengoek pribatura ihes egiten dute". (6. taldea)

"Bertako jendeak ikastetxe pribatuak aukeratzen ditu, etorkinak baino ez dauden giro horretatik ihes egiteko, eta, azkenean, ghettoak sortzen ari dira. Etorkinek ikastetxe publikoetan ikasten dute, eta hemengoek pribatura ihes egiten dute". (6. taldea)

"Nik uste dut, horrekin lotuta, hezkuntzari dagokionez, guk ikerketa asko egin ditugu, eta zenbait ikastetxetan ikasleak txiki-txikitatik ghetifikatuta daude. Familia euskaldun guztiak ikastetxe batean daude, eta bigarren belaunaldikoak beste ikastetxe batzuetan uzten dituzte". (2. taldea)

"Ikastetxe horretan, DBHn, ez dakit Lehen Hezkuntzarik ere baduen, pertsona zuri bat ikustea da arraroa. Sinestezina da nola elkartzen dituzten hor guztiak. Eta, adibidez, itunpeko ikastetxe batean nago ni, eta arraroa egiten da bigarren belaunaldiko bi pertsona ikustea. Badirudi gizarteak ez duela nahi guk dibertsifikazio hori ikustea. Ikastetxe horretan asko nabaritzen dut hori". (2. taldea)

"Adibidez, Ibarran egon naizenen ez daude asko eta gero adibidez aztertu deu [Donostiako ikastetxe publiko bat aipatzen da] eta talde baten ehuneko 90a etorkinak dira. Ordun... asko eiten du." (3. taldea)

Alde horretatik, ikastetxearen hautua osagai sozioekonomiko eta klase sozial batek zehazten du. Alde batetik, eta kontuan hartuta familia gehienek migrazio-

proiektuak jatorrizko herrialdean prekaritate handiko egoera baten ondorio izan direla, behin helmugara iritsita, beren ondorengoak ikastetxe publikoetan matrikulatzera behartuta daude, prestakuntza merkeena eskaintzen baitiete. Bestalde, bizi duten errealitate ekonomiko horrek berak auzorik merkeenetan bizitzera behartzen ditu, auzo horietan ez baita beharrezkoa erosteko ahalmen handia izatea, eta etxebizitza baten alokairuari aurre egiteko aukera dute. Horren ondorioz, etorkin horien seme-alabak batez ere estatus sozioekonomiko baxuko beste pertsona batzuekin erlazionatzen dira, eta, askotan, atzerriarren seme-alabak ere izaten dira haiek ere.

"Baina, halaber, gertatu izan da aniztasun handiko ikastetxe publikoetan familia batzuek ikusi dutela gela berean etorkinen hamar seme-alaba daudela, eta seme-alabak aldatu dituztela horregatik. Publikoa denaren gaitzespena ere bada. Itunpekoan errentagatik delako. Baina publikoaren kontrako jarrera bat ere badago. Ez dakit". (2. taldea)

"Eta, ikastetxez gain, eremuak ere badaude, auzoak. Erosteko hainbesteko ahalmenik ez dutenez, azkenean auzorantz jotzen dute, etxebizitza merkeagoa delako eta jende mota horrentzat eskuragarriagoa delako". (6. taldea)

Horrela, euskal gazteek uste dute guraso autoktonoen jarrera horrek ondorio kaltegarriak izan ditzakeela atzerriar jatorriko belaunaldi berrien integrazio-prozesuan. Jasotako testigantzetan nolabaiteko kezka ikusten da, bertako biztanleekin eta, horren ondorioz, euskal kulturarekin harremanik ez izatearen ondorioz, pertsona horiek bertako biztanleekin bat ez datorren errealitate paralelo batean haz daitezkeelako.

"Azkenen, ez dute lortzen hemengo kulturarekin integratzen adibidez [Donostiako ikastetxe bat aipatzen da] kasun, azkenen, denak etorkinak baldin badira gehiago kostako zaiela pentsatzen det. Eta, adibidez, hemen Ibarra juten baldin badira eta ikusten dute gehienak hemengoak dirala, ba, o lo que sea, azkenean errazago..." (3. taldea)

Beraz, hirian edo herrian bizitzearen (edo, batez ere, eskolara joatearen) arteko aldea nabari da. Badirudi hiriak aukera gehiago ematen dizkiela hasiera batean, baina luzera begira aukera horiek beren kontra jar daitezke; izan ere, adibidez, gaztelaniaz ikasi ahal izateak (A eredua) prestakuntza-prozesua errazten die, baina bertako jendearekiko harremanak eta kulturen arteko kontaktua mugatzen dizkie. Herrietan, aldiz, aukera gutxiago dituzte, eta hori, hasiera batean, eragozpen bat izan daiteke beren prestakuntza-prozesuetan aurrera egiteko (euskara ez jakiteagatik ikasturtea behin eta berriz errepikatzen badute, urtero ikasle berriekin harremanetan jarri behar dutela esaten ziguten), baina kulturarteko harremana errazten die.

Kultura

Hizkuntzak nahiz ikastetxeek atzerritar jatorriko biztanleekiko harremanetan izan dezaketen eraginaz baino harago, parte-hartzaile batzuek uste dute kultura-desberdintasunak (ondoren ikusiko dugun modu guztietan) direla faktore nagusia belaunaldi berri horiek integratzeko prozesuan nahiz gainerako euskal gazteekiko harremanean.

“Nik lehen hori esan behar nizun. Arazo handiena ekonomikoa dela esan duzunean, batez ere kulturen arteko talka dagoela esan behar nizun”. (1. taldea)

“(…) Arazo handiena ekonomikoa dela esan duzunean, batez ere kulturen arteko talka dagoela esan behar nizun”. (1. taldea)

“Gure aurreiritziak hor daude, eta horrelako gauzak ere gertatzen dira... oso pentsamolde desberdinak ditugu”. (1. taldea)

Alde batetik, deskribatzen da nola alda daitezkeen ikasketek (edo lanak) duten zentralitatea eta bizitza soziala kulturaren arabera, batzuetan loturak eta harremanak sortzea zailduz. Alde horretatik, eskolak amaitutakoan zuzenean etxera joaten ziren eta gainerako ikaskideekin harremanik izaten ez zuten atzerritar jatorriko pertsonen kasuak aipatzen dira; horrek zailtasunak sortzen zituen loturak sortzeko orduan.

“Gero ere bai kultura eta denak afektatzen zaitu. Igual lehen etortzen bazara herrialde batetik, no sé, igual beraien egunerokoa da klasea jun eta gero etxera eta ia ezta, ez dira lagunekin ateratzen eta gero hona etortzen dira eta gu beti lagunekin eta hola zeozer hartzera eta hola eta beraien ez zaie gustatzen hori edo... ez daude ohituta edo ez dakit.” (3. taldea)

“Es que azkenean beraien kultura baldin bada klase eta gero edo ikasi eta gero lan egitea edo gurasoei laguntzera joatea edo o lo que sea, ba... azkenean, ba, ez dira hainbeste sozializatuko, ez dakit.” (3. taldea)

Hala ere, parte-hartzaile gazteek beren seme-alabak bertakoekin ibiltzeko ahalgina egiten duten gurasoak ere aurkitu dituzte, eta horrek izugarri sustatzen du euskal gizartean integratzeko aukera:

“Zeramika ematen diedan nesken artean, bi ahizpa etortzen dira, eta Perukoak direla uste dut. Batek zortzi urte ditu, eta besteak bost. Eta gurasoek asko jartzen dute beren aldetik, hemengo jendearekin elkar daitezen eta hemengo kulturearekin bat egin dezaten. Izan ere, izen konposatua jarri diete, bata perutarra eta bestea hemengo. Oso bitxia iruditzen zait. [...] oso ondo egokitu dira, normaltasunez”. (4. taldea)

Ikasgelaren eremura itzuliz berriro, beren kulturagatik gelako batzuekin harremanik ez zuten atzerritar jatorriko pertsonen ere hitz egiten zaigu eztabaidataldeetan. Batez ere atzerritar jatorriko nesken kasua eta mutilekin duten harremana azpimarratzen da. Parte-hartzaileek behin eta berriz gogorarazi dute egoera horrek nabarmen mugatzen zituela pertsona horiek izan zitzaketen harremanak, ikaskideen erdiak baztertzen zituztelako.

“Adibidez, nire klasen egon zan neska Pakistani bat eta bere gurasoak ez zioten uzten, e... klaseko mutilekin hitz egiten, bueno mutilekin generalen. Eta ordun komunikatzen zan bueno gukin neskekin baina bai zeukola gutxienez klase erdikin edo ez duen hitz egiten edo ez zuen hitz egin beharko bere gurasoen arabera. Orduan, hor ere bai...” (3. taldea)

“Ni txinatarrakin ere. Ni gogoratzen naiz etorri zanen eskolara, neskekin hitz egiten zula eta mutilekin kasik ezetz. Ez dakit, lotsa ematen ziolako edo bere kulturagatik edo ez dakit.” (3. taldea)

Beste batzuetan, migratzaileen ospakizun eta tradizio erlijioso edota kultural batzuek, eta, zehazki, ramadanak, islamaren kasuan, eragina dute atzerritar jatorriko pertsonen bertakoekin izan ditzaketan harremanetan, horiek irauten duten bitartean. Hala ere, nabarmendu behar da horrek ez duela eragozten harreman horiek izatea, nahiz eta zaila den eta elkarrekiko egokitzapena eskatzen duen.

“Ekipokuekin Ramadamari buruz, adibidez, oain izan dela orain dela gitxi gauza mordoakasi dogu, ba de repente etortzen jatzu ekipokua no podía eta esplikatzan dotzu ba hau...eta galdetzen badotzazu, zergatik da? Eta esplikatzan dotzu eta azken batian te enteras de algo.” (5. taldea)

“Nik banuen lagun bat aljeriarra, uste dut, nirekin lehiatzen zena. Lehiaketa batera joan ginen, eta ramadanean zeudenez, ezin zuen jan. Guztiak eserita geunden eta jaten ari ginen, baina berak ez zuen jaten. Eta atentzioa ematen zizun horrek. Eta parrandan irteten ginenean, ezin zuen edan”. (6. taldea)

Hala ere, euskal gazteek uste dute, atzerritar jatorriko pertsonen beren kultura nahitaez utzi beharrik izan gabe edo euskal kulturara egokitu behar ez izan arren, ohitura batzuek bertako kulturarekin talka egin dezaketela. Beraz, kultura bakoitzerako nolabaiteko oreka dakarren eredu baten aldekoak dira, eta kultura horietako bat bera ere ez da itxi edo laga behar. Euskal gazteek, alde horretatik, integrazio kulturaztunaren eredutik asimilazioaren eredutik baino hurbilago dagoen jarrera erakusten dute, elkarrekiko errespetuan eta kulturaztunaren bermean oinarrituta; izan ere, asimilazioaren ereduak herritar guztientzako herritartasun bakarraren ideia bultzatzen du.

“Bere kulturak eta erlijioak ez dio gurera moldatzen uzten. Ez dut esan nahi moldatu behar dutenik, baina oreka hori lortzeko modu bat lortu beharko litzateke. Nirean itxi gabe eta bestearen aurrean amore eman gabe. Erlijio musulmanari buruz ari naiz nagusiki, zuek ere esan duzue, zorrotzena eta zurrunen baita, eta jendeak buru-belarri hartzen du”. (6. taldea)

Bigarren belaunaldiko pertsonen gurasoen kulturarekin eta euskal kulturarekin duten harremanari dagokionez, kulturak eta tradizioek norberaren nortasuna eraikitzekeko elementu gisa duten eginkizuna sartzen da jokoan hemen. Terrenek dioenez ⁴, ikuspegi teorikotik, bi ikuspegi bereizten dira bigarren belaunaldien

⁴ Terrén, E. (2011). Identidades desterritorializadas. El sentimiento de pertenencia nacional entre los adolescentes de familias inmigradas. *Papers. Revista de Sociologia*, 96(1), 97-116.

akulturazio-prozesuari dagokionez. Alde batetik, *straight-line* eredu bat, denboraren poderioz bigarren belaunaldiek harrera-herrialdeko kide izateko eta herrialde horrekin identifikatzeko joera dutela onartzen duena (2011:103). Eta, bestetik, bigarren ikuspegi bat, bigarren belaunaldi horiek integrazio-prozesu positiboak garatzen dituztela dioena, baina lehen belaunaldi horrekin eta haren kulturekin lotzen dituzten loturak erabat galdu gabe, eta horrek identitate mistoak edo askotarikoak sortzen ditu (ibidem).

Bigarren belaunaldiko pertsonekin izan dituzten esperientzietan, Terrenek aipatzen zituen bideen lekuko izan dira euskal gazteak, eta euskal kultura propioztat hartu duten eta beren burua euskal herritartzat definitu duten pertsonak aurkitu dituzte, baina baita gurasoen jatorrizko herrialdeetako kultura jaso duten pertsonak ere.

“(...) zu maketoa zarenean eta zure familia Espainiako beste toki batetik iritsi denean, bi aukera dituzula. Edo eraikitzen ari zaren eta eraiki behar duzun euskal herritartasunari heltzen diozu, edo zure familiari heltzen diozu (...)”.
(2. taldea)

“Esan nahi nuena da zu maketoa zarenean eta zure familia Espainiako beste toki batetik iritsi denean, bi aukera dituzula. Edo eraikitzen ari zaren eta eraiki behar duzun euskal herritartasunari heltzen diozu, edo zure familiari heltzen diozu. Orduan, alde batetik euskaraz ez jakin arren hemengoak baino nazionalistagoak diren maketokak ikusten dituzu. Eta, bestetik, kontrakoa ere ikusten duzu: kanpoko familia duten eta integratzeko ahalegina egiten duten pertsonak, integratzea lortzen ez dutenean Extremadurako, Andaluziako edo dena delako ohiturei heltzen dietenak”. (2. taldea)

“Nik beste zerbait esan nahi dut horrek esan duenarekin lotuta. Izan ere, bigarren belaunaldiko edo hirugarren belaunaldiko jendea, atzerritar jatorria duena, bizi den tokiko kulturaren murgiltzen da erabat, edo kontrakoa egiten du”. (2. taldea)

Hala, jatorri atzerritarra duten pertsonen kasu zehatzak aipatzen dira; gurasoetako baten jatorrizko herrialdea inoiz bisitatu ez duten arren, kultura hori beren nortasunaren zatitzat hartzen dute batzuek. Era berean, esaten da familien barnean ere desberdintasunak daudela, gurasoen kultura edo erlijioa guztiz bereganatzen ez duten seme-alabekin. Kasu batzuetan, alde nabarmenak daude anai-arreben artean; zenbaitetan, bietako bat gehiago identifikatzen da euskal kulturarekin, eta bestea, berriz, bere guraso(ar)en jatorrizko herrialdekoarekin.

“Nire lagun bat Venezuelako batekin ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten. Eta alaba ez dute inoiz Venezuelara eraman. Hala ere, berak beti esaten du venezuelarra dela. Hango guztia gustatzen zaio. Inoiz egon ez den arren”. (1. taldea)

“Ez dute asko hitz egiten beren kulturari buruz. Badakit familiako guztiak musulmanak direla, baina beraiek ez dira praktikatzaileak. Aske jokatzera erabaki zuten, eta gauza batzuk familiarekin egiten dituzten arren, ez dute zapirik edo beste ezer eramaten. Nahiko irekiak dira zentzu horretan... beno, ez dakit irekia den hitza, “zapatzaileak” direla ematen baitu, baina esan nahi dut ez dutela erlijio jakin bat praktikatzen”. (2. taldea)

“Berari asko gustatzen zaio oporretan eta horrela Aljeriara joatea eta hango senideekin egotea. Han ere lagun taldea du. Hala ere, haren anaiari ez zaio gustatzen. Anaiak

nahiago du hemen gelditu. Hemengo bizimodua gehiago gustatzen zaio. Baina bes-teari bere sustraietara itzultzea gustatzen zaio". (1. taldea)

"Nire betiko gelan jatorri kolonbiarreko bi biki daude. Bietako bati galdetu diot ea nongoa sentitzen den, eta hemengoa sentitzen dela esan dit. Aldiz, beste ahizpa... azentuan ere nabaritzen zaie. Eta ez dira jende desberdinarekin ibiltzen, baina bes-teari izugarri gustatzen zaio Kolonbia, eta dena mantentzen saiatzen da. Eta lehenengoari, berriz, hemengo bizi-estiloa gehiago gustatzen zaio". (1. taldea)

Kultura batekiko edo bestearekiko atxikimenduari buruzko desberdintasun horiek eragina dute lagun talde bat osatzerakoan. Eztabaida-taldeetan aipatzen da atzerritar jatorriko pertsonen, lehen aipatzen zen 1.5 belaunaldiarekin lotuta daudenek, "hemengoarekiko" desberdintasun horren inguruan lagun taldeak osatzeko joera dutela. Lagun taldeak osatzen dituzten hainbat jatorritako pertsona-taldeak deskribatzen dira; atzerriko herrialde batetik etorri izana izaten da haien arteko lotura, eta, horren ondorioz, ez dute hainbesteko harremana izaten euskal herritarrekin eta kulturarekin.

"Beste batzuk, berriz, beste herrialde batzuetatik iritsitako jendearekin soilik erlazionatzen dira. Han zuten kulturari eusten diote hemen ere. Eta haien artean erlazionatzen dira soilik. Eta integratzeko arazoak izaten dituzte horregatik. Esan nahi dut ez duela ez bata eta ez bestea izan behar". (2. taldea)

"Nik ere bai asko ikusten dudana Tolosan, adibidez, denak ez beti baino kanpotar askok beraien lagun taldea daukatela, gu bezala como que eskolakok ba beraiek ba denak kanpokok eta ez dakit baino... o sea hola izaten da". (3. taldea)

"Nik uste, askotan ezetz. Igual bakarrik dira ba haien artean komunean dirala kanpokok eta horregatik batzuetan, o sea badaude beste batzuetan ezetz eta besteekin integratzen dirala normal, pero nik uste batzuk aurkitzen dutela haien artean pues... hori daukatela, hori konpartitzen dutela eta batzuetan grupo bezala egiten dute". (3. taldea)

"Pixka bat azkenean, berak esan duen bezala, txikitatik ia... hizkuntzan aldetikan eta ia pixka bat apartatuta geratzen badira, ba igual azkenean normala da apartatuta dauden horiek beraien artean juntatzea eta beraien artean hitz egitea eta... igual horregatik izango da". (3. taldea)

"Nik uste dot beraiek como datozen kanpotikan eta hori pixka bat kultura desberdinak eta beraiek sentitzen dira marginauta eta horrela, urtetzen dira danak junto junto kuadrilan, tú entras al bar y a los dos minutos ya lo has perdido baina beraiek denak juten dira junto junto y..." (5. taldea)

Atzerritar jatorriko pertsonen familia-kulturak euskal gazteekiko harremanetan izan dezakeen eraginaz harago, bigarren belaunaldi horrek ere esaten du batzuetan euskal kulturak berak ere ez duela errazten beste pertsona batzuekiko loturak sortzea, ez atzerritar jatorriko eta ez bertako pertsonetikiko loturak. Parte-hartzaileek egiaztatu dutenez, euskal gazteek (eta gizarteak) lagun taldeak eratzeko joera dute, "kuadrilak", eta osatzen dituzten pertsonen nortasuna indartzen dute; horren ondorioz, beste pertsona batzuek zailtasunak izaten dituzte talde horietan sartzeko. Talde itxiak dira, eta, barruan dagoen pertsona baten laguntzarik gabe, pertsona berri batek ez du sartzeko aukerarik.

“Egia da adin hauetan dena oso markatuta dagoela. Joan den urtean mairu bat iritsi zen... beno, guk mairu esaten diogu, abegikortasunez. Ceutakoa zen, lagun taldeko baten lehengusua. Norbaiten bidez sartzen dira beti. Oso zaila da pertsona bat kua-drilla batean sartzea berez. Beti egon behar du loturaren bat sartzeko, nire ustez”. (1. taldea)

“Nire ustez, parrandan irteten zarenean, hori islatzen da. Etiketa batzuk ditugu, gehiago edo gutxiago. Gaztetxean sartzen zara eta ez dituzu ikusten hogeit hamar latino-amerikar haien itxura bereziarekin, itxura hori zein den ere ez dakidan arren. Baina ulertzen didazue, ezta? Jantzeko eta hitz egiteko kodeak eta izateko erak dira, eta bereizten ditugu. Nahi gabe egiten badugu ere, etengabe egiten ditugu bereizketak. Eta bestea zure ingurukoa ez bada, ez zara fio. Ez dakit”. (2. taldea)

“Hemen esan dugu gure lagun taldean ez dugula bigarren belaunaldiko inor. Azkenean, lagun taldeek beren nortasuna edo izaera sendotzen dute. Eta ezin da nahasketarik gertatu”. (2. taldea)

“Atzeraka ematen dizu igual lehenengo inpresioan. Ta gero baita nik uste beste alde bat, gure estereotipoa izango zen nahiko itxiak gerale, nik uste nahi gabe, bastante nere taldean kanpokoekin ez hainbeste erlazioan nahi izatea”. (3. taldea)

“Nik orain Amurrion lagun taldeen arteko elkarreragin gutxiago ikusten dut. Oso itxiak gara, nolabait esatearren. Askok kostatzen da sartzea, eta guri askok kostatzen zaigu irekitzea. Hona bizi izatera etortzen diren pertsona askori askok kostatzen zaie hitz egiten hastea eta jendearekin harremana izatea. Baina behin lehenengo pausoa emanda, oro har harremana trabagabea da”. (4. taldea)

Euskal gazteek aipatzen duten beste faktore kultural bat atzerritar jatorriko pertsonen artean dagoen matxismo handiagoa da. Oro har, euskal gazteek uste dute jatorri atzerritarreko pertsonak bertako pertsonak baino matxistagoak direla, beren kultura eta erlijioagatik, edo, behintzat, gazteagoekiko dagokienez. Hala, bada, talde batzuetan "kultura matxistei" eta bikote-harremani buruz hitz egin dute. Hainbat pertsonak esan zuten, etorkizunean seme-alabarik izango balute, eragozpen gutxiago izango luketela beren semeek "kultura matxista" bateko emakume batekin harremana izateko beren alabek "kultura matxista" bateko gizon batekin harremana izateko baino; izan ere, lehenengo kasuak ez luke errepresiorik ekarriko semearentzat, eta bigarrenak bai.

“Nik alaba bat izango banu, ez nuke nahi kultura matxista bateko norbaitekin egotea. Kultura matxistak daudela pentsatzen baitut. Eta ez nuke nahi. (...) Baina seme bat baldin badut eta kultura matxista bateko emakume batekin egongo balitz, ez nuke horren gaizki ikusiko”. (1. taldea)

“Niri ez zait ondo iruditzen nola tratatzen dituzten emakumeak erlijio askotan. Afrikatik hasi eta Txinara arte. Beharbada guri emakumeak beste modu batera jarri dizkigutelako, eta haiei txikitatik erakutsi dietelako. Baina erlijioarekin eta kulturarekin lotutako gaia da hein handian. Bi arlo horiek oso lotuta daude zentzu horretan, nire ustez. Emakumea beti izan da dena egin duena... baina hori hemen ere bai. Hemen ere duela zenbait urte arte, nire aitona-amonen adinera arte, emakumea etxeaz arduratzen zen, eta gizona lanera joaten zen. Eta han beraien kulturaren emakumeak buruan hori jarri behar duela esaten diete, eta nik nahi dudana egiten dut”. (6. taldea)

“Nik alaba bat izango banu, ez nuke nahi kultura matxista bateko norbaitekin egotea. Kultura matxistak daudela pentsatzen baitut. Eta ez nuke nahi. (...) Baina seme bat baldin badut eta kultura

matxista bateko emakume batekin egongo balitz, ez nuke horren gaizki ikusiko". (1. taldea)

"Nik uste dut niri ere hori gertatuko litzaidakeela. Esaten didan unean pentsatuko dut gai horren aurrean jarrera irekia izango dudala, baina gero igual ez zait irteten". (6. taldea)

"Jo, ba nik ez dakit, e? A ver, igual gustauko balitzaiken pertsona baina igual bere kultura, o sea behartzen baziten bere kultura hortan sartzea, igual nik ezetz esango nion, nahiz eta gustau, nere kasuan, e?" (3. taldea)

"Nik ezagutzen det jendea oso irekia dana holako zerakin asuntokin eta jendea oso itxia dana. Eta esaten duna hemengoekin bakarrik eta... besteek nahi badute kanpora juteko, adibidez". (3. taldea)

Iristean duten adina

Nahiz eta alderdi hau lehenago ere aipatu den bertako eta jatorri atzerritarreko gazteen arteko harremanak errazten edo eragozten dituzten faktore gisa, garrantzitsua da bereziki lantzea, alderdi hori ez baitago soilik harrera-herrialdeko hizkuntzaren ikaskuntzarekin lotuta.

Bereizketa egiten da hemen jaiotako bigarren belaunaldiko gazteen eta jaio ondoren iritsi direnen artean, nahiz eta oso gaztetan etorri. Azken horien kasuan, lan honetan 1.5 belaunaldia deitu zaienen kasuan, hain zuzen, badirudi integrazio-prozesuak zailagoak direla.

"Nire lagun taldean ikusten dudana da kanpotik etorri diren pertsonetikiko edo bigarren belaunaldiko pertsonetikiko harremana trabagabea dela. Desberdintasunak egon daitezke guztiz euskalduna den, nolabait esateagatik [bigarren belaunaldiei buruz ari da], eta kanpotik iritsitako pertsona baten artean, ezta? Baina nik uste dut harremanak gehienetan errazak direla, eta ez dagoela arazorik. Atzerritarren artean bai ikusten dut aldea. Pertsona horiei gehiago kostatzen zaie integratzea. Baina, oro har, kanpotik etorritako pertsonekin izan dudana harremana oso erraza izan da". (4. taldea)

"Eta hemen jaio bazara beste kontu bat da. Txikitatik joaten bazara eskolara guztiekin batera, azkenean besteek ikasten dutena ikasten duzu, eta hor sartuago zaude. Guztiz desberdina da". (4. taldea)

"Eta, nire ustez, desberdina da baita ere familia iritsi berria delako, eta semea edo alaba eskolatu behar duelako. Eta, gainera, askotan seme-alaba bat baino gehiago dute. Eta erantzukizun bakarra ez da umea edo umeak eskolan nola dauden zaintzea, beste mila gauza baitituzte esku artean. Bizitzeko toki bat bilatzea, lana bilatzea, hemengo jendea aurkitzea... kaos bat izan daiteke. Eta hemen finkatuta dagoenak arazo horiek guztiak gainditu ditu, eta errazagoa gertatuko zaio. Ez dakit". (4. taldea)

"Eta hemen jaio bazara beste kontu bat da. Txikitatik joaten bazara eskolara guztiekin batera, azkenean besteek ikasten dutena ikasten duzu, eta hor sartuago zaude. Guztiz desberdina da". (4. taldea)

Bestalde, pertsona bakoitzaren nortasunak ere gazte horien integrazio-prozesuetan eragiten duela esaten dute.

Nolakoak dira harreman horiek?

Bigarren belaunaldiekin izandako harremanak nolakoak izan diren definitzen hasten bagara, ikusiko dugu oro har euskal gazteek modu positiboan baloratzen dituztela. Ez dute izan arazo esanguratsurik, eta testuinguru pluralagoetan ibiltzeak beste kultura batzuekiko ikuspegi irekiagoa garatzeko aukera eman die. Euskadiko gazteek ez die garrantzi handiegirik ematen neska-mutil horien familia-jatorriari. Pertsonak eta pertsonaren izaerak dute garrantzia, alde batera utzita haren arraza edo kultura, eta harreman hobea edo okerragoa izango dute, pertsona hori atsegina edo amultsua den kontuan hartuta.

“Nire kasuan, izan ditut harremanak ikastetxean beltz zaharragoekin edo bestelakoekin, eta ez da inongo arazorik egon. Nire ikastetxean behintzat. Gaur egun, integratuta eta lagunekin harremanetan jarraitzen dute. Nik ez, ez baikin lagunak zuzenean; ezagunak baino ez ginen”. (1. taldea)

“Nik, nire inguru hurbilean, harreman normala daukat bigarren belaunaldiko jendearekin, gainerakoekin dudana bezalakoa. Ez dago inolako desberdintasunik pertsona horiekin dudana tratua eta besteekin dudanaren artean. Berdin berdina da”. (2. taldea)

“Egiaz diot: uste dut norbaitekin ondo konpondu zaitzkeela, haren arraza edo kultura dena delakoa izanda ere. Azkenean, euska herritarren artean ere bada jende gaiztoa, nolabait esateko, eta atzerritarren artean jende on askoa ere badago. Hori ez dago kolorearen, erlijioaren edo horrelako gauzen mende”. (4. taldea)

“Gure kuadrilan badau bat Errepublika Dominikanakua baina hori bastante gaztia zela etorri zen ikastolara ikastea eta orduan, ba, betidanikan ondo eraman gera berakin. Eta inongo problemarik ez dugu eduki”. (5. taldea)

“Nik ere hark bezala. Nire inguru hurbilekoen artean, ez daukat zuzenean horrelakorik. Baina eskaut-talde batera joaten naiz, eta talde horretan, badaude bigarren belaunaldikoak diren bi pertsona. Ez dut ikusten bereizketa hori egiteko beharrik, eta ez dut halakorik igartzen ez beren artean eta ez haien inguruan”. (2. taldea)

“Egiaz diot: uste dut norbaitekin ondo konpondu zaitzkeela, haren arraza edo kultura dena delakoa izanda ere. Azkenean, euska herritarren artean ere bada jende gaiztoa, nolabait esateko, eta atzerritarren artean jende on askoa ere badago. Hori ez dago kolorearen, erlijioaren edo horrelako gauzen mende”. (4. taldea)

“Hasiere da ezagutzea pertsona bat, ezagutzen dozu eta ikusten badozu que... ez dau merezi esango dotzazu, ba fuera... ikusten badozu pertsona dela dezentea ba... ondo”. (5. taldea)

“Izan ere, batzuk gogoko izaten dituzu, eta beste batzuk ez horrenbeste. Beste edonorekin bezalaxe da. Horixe gertatzen zaizu jendea ezagutzen duzunean ere, batzuk gogoko dituzula, eta beste batzuk ez. Berdin dio nongoak diren”. (6. taldea)

Harreman estuagoa izan duten parte-hartzaileek, haien kultura gertuagotik eza-gutu ahal izan dutenek, oso modu positiboan baloratu dute aberastasun-iturri gisa, ohitura berriak, sukaldaritza mota berriak eta abar ezagutzeko modu gisa.

“Adibidez, etxera gonbidatu ninduen urtebetetze-egunean, eta ama ez du hemen goa, eta Marokoko kultura du. Eta, azkenerako, dena onartzen duzu, ez dakit. Ez

dakit nola azalduko dizudan; baina esan nahi dudana da arraroa izan zela niretzat, beste kultura bat zelako, eta janariak ere desberdinak zirelako; baina gustatu egin zitzaidan, eta gozatu egin nuen, haien kultura eta dena ikasten ari nintzelako. Egia esateko, oso gustura egon nintzen". (6. taldea)

Ildo horretatik, bigarren belaunaldikoekin topo egin duten Euskadiko gazteek oro har uste dute erabat integratuta daudela. Besteak beste, aurreko atalean jatorri autoktonoko eta atzerritar jatorriko gazteen arteko harremana errazten edo eragozten duten faktoreei buruz ikusi denaren ildotik, Euskadin jaio izanari esker euskara ikasi ahal izan dutela diote, eta gainerako ikasleekin harremanetan egon direla hasieratik; horri esker, normaltasuna da nagusi beren arteko harremanetan gaur egun, eta, labur esateko, "bat gehiago" dira. Bat datoz talde guztiak honako ideia honetan: EAEn jaio izana eta espazio askotan betitik jatorri autoktonoko pertsonekin batera egon izana lagungarria izan dira haientzat, eta jauzi handia adierazten du horrek jada helduagotan iritsi direnekiko.

"7-8 urte inguru dituzte, eta ez dut asko ezagutzen haien kultura, ez baitute gehiegi erakusten. Baina erabat integratuta ikusten ditut nik, eta beste edonor bezala mintzatzen dira euskaraz. Inolako arazorik gabe gainera". (2. taldea)

"Nik uste dut norbait hona iristen denean, lehen belaunaldikoez ari naiz, kasu horretan bai hitz egin dezakegula talkaz. Baina nik ez dut inolako alderik ikusi hemen jaiotako jendearekin izan ditudan esperientzietan, guraso atzerritarrek izanik ere, bi urtetik aurrera zurekin ibili badira eskolan". (6. taldea)

"Nire kuadrilan dekogu, nire lagun onena da Kolonbiakue baina egon da hemen bi urteetatik. Bueno egon zen Holandan eta dau bi urtetatik eta orainarte hemen, eta orain justu dau eiten goi mailako ziklue eta dau eiten Integración Social, deko honen zerikusia. Eta, ba, eiten dau euskaraz gainera. Daki euskaraz baina ez daki oso fluidute, daki ondo baina normal eta batzuetan eskatzen dozte laguntzeko aditzegaz, porque... ze aditzak dira zailak berarentzako, baina oso ondo". (5. taldea)

"Nire taldien bebai badau Senegaleko neska bat baina eurek esan dabien moduen heldu zan oso txikia zenean, ba igual bi urte, hiru urtekin eta ba betidanik jakin izan dau euskaraz, eta betidanik bizi izan da besteok bezala. Berak badekoz, ba bere kultura daukozen, e, ba... gauzak, ez dakit. Ba, bere etxien edo igual janzkera edo holan, baina bestela, ez dakit, azkenien, nire ustez, denok gara berdinak eta desberdinak". (5. taldea)

"Leku batera hango hizkuntza jakin gabe hamar urterekin iristea, hori da zaila. Baina txikitatik bada, nik uste hori jada normalizatuta dagoela". (6. taldea)

"Nik uste dut norbait hona iristen denean, lehen belaunaldikoez ari naiz, kasu horretan bai hitz egin dezakegula talkaz. Baina nik ez dut inolako alderik ikusi hemen jaiotako jendearekin izan ditudan esperientzietan, guraso atzerritarrek izanik ere, bi urtetik aurrera zurekin ibili badira eskolan". (6. taldea)

Dena den, eta nahiz eta EAEn jaiotakoa izateak integrazio-prozesuetan lagundu, deskribatu dira taldeetan horren ibilbide xumeak izan ez dituzten bigarren belaunaldiko pertsonen kasuak ere. Alde batetik, atzerritarren ondorengoak izateagatik bigarren belaunaldiko zenbaitek gainerakoan ahoetatik entzun behar izaten dituzten iruzkinen kontua ageri da talde batzuetan. Zenbaitetan, txantxa moduan egiten dira horrelako iruzkinak, baina ez beti. Areago, Euskadiko gazteen hizketaldietatik ondoriozta daiteke askotan jatorri atzerritarreko ikasleak

zirela horrelako iruzkinen jomuga nagusia. Bestalde, Euskadiko gazteek kontatu dituzte larritasun handiagoko egoerak ere, non bigarren belaunaldiko pertsonen eta haien familien aurkako erasoak eta indarkeria fisikoa ere izan diren; hala ere, azpimarratu beharra dago horrelako kasuak bazterrekoak izan direla aztertutako taldeetan.

“Ni Lehen Hezkuntzan nenbilenean, bazen nire gelan ikasle beltz bat. Ez nago ziur, Lehen Hezkuntzako 4. mailan edo joan baitzen, baina gurasoak kanpokoak zituen, eta hemen jaio zen bera. Ondo konpontzen zen mundu guztiarekin, baina jende guztiak “Elur Malo” esaten zion. Mundu guztiak “Elur Malo” izenez ezagutzen zuen”. (1. taldea)

“Ni nengoen eskolan... nire gurasoak frantziarrak dira, biak, eta txikitan, ahoskatze-ko arazo bat nuen; ez nuen ondo esaten <<r>>. Banakako lagunak banituen, baina, talde handian, arazoak nituen. Nor aukeratuko dugu? Hauxe, <<r>> ondo esaten ez dakien hauxe”. (4. taldea)

“Badago familia bat, fruta-denda bat duena auzoan, taberna ondoan; oso jatorrak dira, eta ez dute urdaiazpikorik jaten, ez gurasoek eta ez inork. Eta familia horri hiru bider apurtu dizkiote fruta-dendako erakusleihoko kristalak. Eta, dirudenez, alaba txikiari astindua eman zioten eskolan, Gimnastikako orduan, eta irakasleak ez zuen ftsik esan”. (1. taldea)

Kasu horietan, jatorri autoktonoko eta jatorri atzerritarreko gazteen arteko harremana eta integrazioa oztopatzen duten faktoreek hartuko lukete pisua, 2.2 atalean landu direnek, zehazki (2.2. Harremanak errazten edo eragozten dituzten faktoreak).

Euskadiko gazteek bigarren belaunaldiez dituzten pertzepzioak eta jarrerak

Oro har, esan daiteke Euskadiko gazteek bigarren belaunaldien inguruan dituzten jarrerak positiboak direla, edo gainerako pertsonen inguruan dituztenen baliokideak direla gutxienez. Hau da, jatorri autoktonoko pertsonetara dituzten jarrera berberak dituzte. Ez da kontuan hartzen jatorriz beste nonbaitekoa edo beste kultura batekoa ote den, jokabidea baizik (halaxe azaldu da jada aurreko atalean: 2.3. Nolakoak dira harreman horiek?).

“Bada, pertsona zibilizatua bada... esan nahi dut berdin zaidala pertsona hori kanpokoak edo hemengoa den”. (1. taldea)

Dena den, Euskadiko gazteak immigrazioarekiko tolerantetagoak edo irekiagoak izateak ez du esan nahi guztiak nahastuta dabilzanik edo gatazkarik sortzen ez denik. Ez daukate guztiak ikuspegi bera; askotariko esperientziak eta iritziak daude. Ildo horretatik, parte-hartzaileetako batek adierazi du, bigarren belau-

naldiko jendea hemengo beste edonor bezala hartu eta tratatu arren, horrek ez duela esan nahi berriaz jende horrekin harremanetan egotea bilatuko duenik.

“Unibertsitatera banoa eta ikasgelan bigarren belaunaldiko jendea badago, ez daukat inolako arazorik, eta besteekin bezala jokatu du haiekin ere. Baina niregandik ez da irtengo horrelako jendearengana joan eta... Uste dut pixka bat arraro geratzen ari zaidala. Esan nahi dut ez dakidala nire kabuz gerturatuko ote nintzen... Ez dakit, agian jende normalarekin ere ez dut egiten”. (2. taldea)

Ildo horretan, pertsona batzuek beren buruari zera galdetzen diote, ea gaur egungo euskal gaztedia irekiagoa ote den migrazioaren errealitatearekiko, edota, aldiz, errealitate hori gero eta nabarmenagoa denez, gaur egungo gizartea kontzienteagoa ez ote den, eta, beraz, ez ote dituen gehiago zigortzen diskurtso arrazistak.

“Ea, nik ez dut uste urteen joanean irekiagoak izaten ari garrenik. Nik uste dut gehiago dela beste gauza bat: horrelako iruzkinen bat botatzen duena zigortu egiten da nolabait gizartean. Eta uste dut hori jada aurrerapauso bat dela, benetako aurrerapausoa. Baina uste dut gehiago dela hori, eta kontua ez dela orain oso jarrera irekia dugula. Ez dut uste. Pentsatzen dut txikien artean ere arazo bera dagoela orain ere, eta guztia mugitzen zaren ingurunearen eta jasotzen duzun heziketaren mende dagoela. Baina nik ez dut horrenbesteko alderik ikusten”. (4. taldea)

“Gorrito hori desagertzen ari da pixkana gorrito huts gisa, baina adar-jotzeek eta horrelakoek hortxe jarraitzen dute. Erraz jartzen ditugu jopuntuan”. (4. taldea)

“(...) Nik uste dut gehiago dela beste gauza bat: horrelako iruzkinen bat botatzen duena zigortu egiten da nolabait gizartean. Eta uste dut hori jada aurrerapauso bat dela, benetako aurrerapausoa. Baina uste dut gehiago dela hori, eta kontua ez dela orain oso jarrera irekia dugula (...)”. (4. taldea)

Parte-hartzaileraren batek edo bestek taldearen presioa aipatu du, eragina izan baitezake horrek benetan dituzten pertzepzioak erakusteko orduan. Esate baterako, immigrazioaren inguruan ikuspegi irekia duen lagun talde bat daukan pertsona batek jarrera horixe bera erakustera behartuta senti dezake bere burua, nahiz eta iritzi berekoa ez izan; alderantziz ere gerta daiteke. Gainera, ikerketa honetan parte hartu duten pertsonen ingurua askotarikoa da: batzuek oso giro toleranteak deskribatzen dituzte bigarren belaunaldiko pertsoez (edo immigrazioaz oro har); beste batzuek diote beren lagun taldeetan diskurtso arrazista nabarmenak dituzten lagunak dituztela.

“Badago arrazista den jendea, eta baztertu egingo dituena. Baina, nik inguruan dudan jendearen artean, gutxi dira horrelakoak. Egia da badagoela jendea horrelako iruzkinak egiten dituena tarteka, eta ez dena jabetzen zer esaten ari den. Baina, nire kasuan, oso gutxitan gertatzen dira horrelakoak”. (2. taldea)

“Gertatzen dena da, nire lagun taldean hitz egiten dutenek pentsaera irekia dutenez... Zalantza handiak ditut, norbaitek pentsaera itxia balu, argi eta garbi esango ote lukeen. Horregatik diot nire ustez nahiko irekiak garela, irudipen hori daukat. Baina konturatzen naiz, norbait hala ez balitz, ez lukeela esango horren lasai. Egin dezake iruzkinen bat noiz edo noiz, baina ez du argi eta garbi esango amorrua ematen diola hemen egoteak”. (4. taldea)

“Según, batzuetan bai frenatzen dut eta beste batzuetan ez, porque ia batzuetan ia... dira hamar bidez esaten tipua puto moro eta esango dotzazu eta ia le dará el tortazo el puto moro eta ia ez dozte esango. (barreak) egixa da! la oyendo toda la noche puto moro...” (5. taldea)

“Tira, nik uste dut batzuetan badagoela diskriminazioa edo horrelako zerbait. Hori iruditzen zait niri. Baditut lagun batzuk esaten dutenak... hauek, tira, ez zait gustatzen esatea, baina esan egingo dut... Moro hauek lapurtu egiten digutela, eta horrelakoak, eta gehiago... Eta nik uste dut beste eremu batzuetan baietz, igartzen dela aldea pixka bat”. (6. taldea)

Adierazi da, gainera, jaso den hezkuntzaren mende eta pertsona bakoitzaren inguruaren mende ere badagoela bigarren belaunaldikoekiko jarrera. Beraz, bigarren belaunaldiko pertsona batekin harremanetan egon ez den pertsona batekin, ziurrenik, jarrera mesfidatia izango du, desberdina den hura baztertzeko joera izaten baitugu askotan. Aldiz, bigarren belaunaldiko jendea ezagutu dutenen eta haiekin harremanetan izan direnen kasuan, beren esperientzian oinarrituta osatuko dute beren ikuspegia, eta, gehienetan, positiboa izan ohi da (2.3. Nola-koak dira harreman horiek? Atalean ikusi dugunez).

“Nola hazi zaituzten eta norekin elkartu izan zaren, horren mende ere badago hori. Azkenean, zure egunez egunekoan ondoan duzun jendearen artean soilik pentsamendu berekoak badaude eta pertsona klase bera badira, norbait desberdina badator, lehenengo sortuko zaizuna desberdina dela pentsatzea izango da. [...] Eta beti-koa gertatzen da: ideiarik ez baduzu eta musulmanei inoiz entzun ez badiezu edo haiekin elkartu ez bazara, entzun duzunarekin gelditzen zara. Eta entzuten duzuna da lapurretan ibili direla Bilbon, eta norbait hil dutela, eta, orduan, pentsatzen duzu guztiak horrelakoak direla. Ez duzu zure pentsamoldea zabaltzen jendea den modura ezagutzen ahalegintzeko, haiek eta haien kultura ezagutzeko. Beti horrela pentsatzen jarraituko duzu”. (4. taldea)

Nahiz eta zenbaitetan kontrakoa ere gertatzen den: gerta daiteke bigarren belaunaldiko jendearekin izan dituzun harremanak desatseginak izatea, eta, beraz, halakoetan, haiekiko pertzepzioa nahiko negatiboa izan daiteke.

“Beste pertsona batzuen lagun egiten zara, eta lagun horiek estereotipoak desegiten dizkizute, gehiago edo gutxiago. Baina, horietakoren batekin harreman txarra izan baduzu, badirudi larriagoa dela”. (2. taldea)

“Beste pertsona batzuen lagun egiten zara, eta lagun horiek estereotipoak desegiten dizkizute, gehiago edo gutxiago. Baina, horietakoren batekin harreman txarra izan baduzu, badirudi larriagoa dela”. (2. taldea)

“Egia esan, nik batzuetan bai. Batez ere, jendeak igotzen dituen historiak ikusten dituzu tarteka Instagramen. Zer dakit nik... Neska gazteak, festan zebiltzala diotenak, eta ez dakit zer gertatu zitzaizela. Arraioa! Ez dira telebistan ateratzen diren gauzak; hor ikusten dituzu. Egiaz, hori gertatzen ari da? Eta horrelakoak ez dira beti marokoaekin gertatzen, edo kanpo-ko jendearekin, baina askotan bai”. (6. taldea)

“Zuk lagun talde bat baduzu, eta lagun talde horretan etorkin asko badituzu, magrebtarrak edo bestelakoak, kasu honetan magrebtarrez ari gara, batekin gaizki joan arren, ez duzu pentsatzen guztiakin berdina gertatuko zaizunik. Aldiz, kasu puntual bat bada, eta jatorri horretako jende askorik

ezagutzen ez baduzu, ezagutzen duzun norbaitekin gaizki amaitzen baduzu, agian horrek eraman zaitzake pentsatzera...” (6. taldea)

Bizipen negatibo horiek arriskutsuak dira kolektibo osorako; izan ere, taldeetan horrelakoez hitz egiten denez, joera handiagoa baitago bizipen negatiboak positiboak baino gehiago azpimarratzeko, nahiz eta negatiboak gutxiago izan normalean. Negatiboa dena nabarmentzeko joera horrek kalte egiten dio azkeneko kolektibo osoaren irudiari.

“Esateozu: “todo lo que quieras, pero es que...” azkenean, adibidez, hemen be Durangon pasatzen da en lo que es el centro de Amorebieta... azkenian dauz ematen una imagen mala de... no sé, de su raza o de su país, eta azkenian ba... jendeak pentsatzen dau denak dirala txarrak. Datozela hona ba, a hacer el mal, a robar no sé qué... eta azkenian da una minoría que perjudica a la gente que viene a trabajar y a buscarse la vida”. (5. taldea)

Ikuspegi horretatik, batzuek diote oro har gazte autoktonoak zorrotzagoak direla bigarren belaunaldiekin (edo immigrazioarekin oro har), eta horiekiko tolerantzia-marjina txikiagoa dela jatorri autoktonoko beste edozein gazterekiko baino.

“Bai, egia da arlo horretan duten erantzukizuna lau aldiz handiagoa dela. Badirudi haiek ez dutela huts egiteko gainerakook dugun aukerarik. Nik usten dut oro har pasatu egiten garela, eta asko”. (4. taldea)

“Zerbait gaizki doanean, arrazoi bat bilatzen hasten da mundu osoa. Eta horixe, erraza da azkenean horiek jopuntuan jarri eta errua botatzea. Hala ere, beste zailtasun batzuk dituzte gero, baina hori ez dugu aztertzen eta ez dugu ikusi ere egiten”. (4. taldea)

Azterlan honetan bildu ditugun gazte gehienak irekiak eta toleranteak badira ere, diote ez direla horrelakoak gazte guztiak. Hitzetatik jokabideetara pasatuz, azaldu da batzuetan bigarren belaunaldikoak *bullying*aren biktimak izan direla edo, gutxienez, nahiko modu kaskarrean tratatu dituztela gazte autoktonoek (jatorri autoktonoko gazteen eta gazte atzerritarren arteko kontaktua errazten edo eragozten duten faktoreak aztertzen dituen 2.2 puntuan ere ikusi dugu hori, hemengo hizkuntza ezagutzearekin edo ez ezagutzearekin lotuta).

“Gero, mutiko hura etorri zenean, utzi egin zioten nirekin sartzeari. Zergatik? Hark ez zuelako inorekin zuzeneko harremanik. Eta haren bila jotzen zuten beti. Eta hark ahal zuen bezala erantzuten zuen. Eta beste norbaitzuekin sartzeko aukerarik bazuen, horixe egiten zuen. Eta, horrela, ez zuen integratzerik lortzen, baina kanpoan ere ez zen gelditzen. Norbaitekin juntatzen saiatzen zen beti, baina besteak, ahal zutenean, haren eta bestearen bila joaten ziren”. (4. taldea)

“Azkenean, beste institutu batera joan zen, eta beste batzuekin elkartu zen... Eta LHI batean amaitu zuen. Eta ikasten ez zuen jendearekin elkartu zen han. Mutil ona zen, baina ikasi nahi ez zuen jendearekin elkartu zen, eta hor sortu zitzaion arazoa. Ez dakit LHI batean amaitu ote zuen... Eta ikastuna zen, baina onik egiten ez zioten beste batzuekin elkartu zen, eta beste bide bat hartu zuen!”. (4. taldea)

“Eta guztia eskolan lagun talde bat osatzerik lortu ez zuelako etorri zitzaion”. (4. taldea)

Bazterketa horren atzean zer ezkutatzen den aztertzen saiatu direnean, nabarmendu dute ezezaguna denak halako oztopo bat adieraz dezakeela hasieran. Azterlan honetan parte hartu duen pertsona batek “langa ikusezin” bat aipatu du. Langa horrek konnotazio negatiboa izan dezake, parte hartu duten pertsonen hitzetatik ondorioztatu daitekeenez. Kasu guztietan, oztopo hori beldurrrarekin dago lotuta, nahiz eta batzuetan (gehienetan) beldur horrek erasoak pairatzeko beldur fisikoari egiten dion erreferentzia eta beste batzuetan lotura estuagoa duen horrelako pertsonekin amultsuak izatea ez lortzearekin, haien kulturak ezagutzen ez ditugulako.

Horrekin lotuta, parte-hartzaileraren batek aipatu du batzuetan oztopo moduko bat sentitzen duela beste jatorri batzuetako jendearekin harremanetan jartzeko orduan, ez zerbait egingo dioten beldur delako, egoki jokatu ez duen beldur delako baizik, edota errespetuzko harremanak ezin izango dituelako ezarri, jende horren kultura ezagutzen ez duenez. Parte-hartzaileetako batek kontatu du arrebak zailtasunak zituela pertsona “beltz” batekin harremanak izateko, pertsona horren kultura (edo, hobeki esateko, haren aurrekoen kultura) ezagutzen ez zuenez ez zekielako nola jokatu; beldur zen iruzkinen batekin minduko ote zuen.

“Badago neska bat beltza dena. Eta nire arrebak, hasieran, ez zekien nola hitz egin harekin. Ez baitakizu nolakoa den pertsona hori. Kasu honetan, hemen jaioa zen. Baina nire arrebak esaten zuen beldur zela, gaizki ulertuko zion edo min emango zion zerbait esango ote zuen beldur. Batzuetan hartaz esan dutena da... Beldur pixka batekin joaten zara. Ez duzu ezer pertsona horren kontra, eta ez duzu iraindu nahi; baina pentsatzen duzu agian zerbait esango duzula eta min egingo diozula”. (4. taldea)

Bigarren belaunaldikoek zer jarrera duten, horren arabera ere izango da harremana, beste parte-hartzaile batek azaldu duenez.

“Eta, askotan, haiek hartzen duten jarrera sartzen da jokoan esparru horretan. Entrenamendura joan nintzen lehen egunean, errieta egin nion neska bati, ez dakit zergatik, beste edonori egingo niokeen moduan; eta neskaren erantzunak halako shock batean utzi ninduen, taldeko beltza zelako al zen galdetu baitzidan. Hasierako hoztasuna horrelaxe gairatu zen, eta txisteak egiten hasi zen etengabe bere azalaren kolorearen inguruan. Horrek jendea irakusten dio ez duela inolako arazorik izango pertsona horrekin. Ez dut mingainluzea izan nahi, baina badakit ez dela arazorik sortuko. Adibidez, atezainen entrenatzaileak “txokolate” esaten dio maitekor, eta gustatu egiten zaio. [...] Hor dago koska. Jende asko beldur da hasieran, asmo txarrik ez izan arren gaizki-ulerturen bat sortuko duen zerbait esan eta bazterrak nahastuko dituen beldur. Badago hasierako beldur hori komunikazioan”. (4. taldea)

Estereotipoak

Hainbatek diote badela estereotipo negatibo bat (izandako bizipen negatiboen ondorioz, orokortu egiten baitira gero bizipen horiek, lehentxeago azaldu dugunez), zeinaren arabera migratzaile guztiak (batez ere herrialde jakin batzuetatik datozenak, hala nola Marokotik) arrakatsua diren; askotan estereotipo horrek inbaditu egiten gaituela diote.

“Batez ere gazteak elkartzen garen tokietan, jaietan eta horrelakoetan, alegia, zenbait jende mota edo taldetxo bereizten dira. Eta jendea aurrez etiketatuta dago nobabait, eta iruditzen zait hor ez dagoela kulturartekotasunik. Nire kasuan, behintzat, horrela da, eta ez naiz oso leku arraroetara joaten direnetakoa. Baina, jaietan gabiltzanean, iruzkin asko entzun izan ditut. Eta beste jatorri bateko norbait agertzen bada, poltsari eusten diozu. Horrelako asko ikusi izan dut”. (2. taldea)

“Nik ere uste dut jendea ezagutzeko orduan badugula hesi ikusezin hori. Etortzen zaizu ezaugarri jakin batzuk dituen mutil bat, eta, agian, agurtu eta hitz egiten duzu harekin. Baina etortzen zaizu beste bat, eta niri ez zait gertatu, baina gertatuko zait igual, konturatu gabe, beste zerbait egiten duzu. Eta bigarren belaunaldiko jendea ezagutzen duzunean ere, oztopo bat bezala hartzen da askotan, ez? Ezaugarri jakin batzuk dituelako eta zuk dituzun estereotipo batzuegatik, horrela jar zaitezke, eta ez molestatzeko eskatu... Areago, gaizki-esaka has zaitezke, zure buruan auskalo zer dagoelako”. (2. taldea)

“Niri gertatu zait Abandon nagoela komunera joan eta pertsona normal bat etortzea atzetik... tira, gizon bat, eta lasai-lasai sartu izan naiz barrura. Eta gertatu izan zait atzetik magrebtar mutiko bat etortzea ere, nire adinekoa, eta pentsatzea “hau hemen jarriko dut, badaezpada”, eta horrelakoak. Entzuten direnak entzunda, ostia!, igual komeni da zuhurtziaz jokatzeko”. (4. taldea)

“Nik uste dut gehiago beldurtzen naizela. Eta gehiago beldurtzen naizela ikusita, pentsatzen dut oso arrazista izaten ari naizela. Jabetzen zara oñatari itxura daukan mutil motxiladun bat izango balitz agian ez zinatekeela beldurtuko. Neure buruari galdetzen diot, ea zergatik beldurtzen nauen gehiago honek besteak baino, baina, ohartu gabe, erneago jartzen naiz”. (6. taldea)

“(…) Jabetzen zara oñatari itxura daukan mutil motxiladun bat izango balitz agian ez zinatekeela beldurtuko. Neure buruari galdetzen diot, ea zergatik beldurtzen nauen gehiago honek besteak baino, baina, ohartu gabe, erneago jartzen naiz”. (6. taldea)

Gutxitan egiten da autokritika Euskadiko gaztediak barneratuta dituen aurreiritzi eta estereotipoetan oinarritutako jarrera horiez.

“Ez duzu inoiz aurkituko ez zure inguruan ez zeuregan horrelako autokritikarik: agian pertsona horrek gaizki begiratu dit, zuria naizelako, eta ikusi duelako poltsari estu heldu diodala, hark ezer egingo ez badit ere; gaizki begiratzen dit, konturatu delako pentsatzen dudala lapurtu egingo didala. Ni ezagutu gabe aurreiritziak dituelako”. (2. taldea)

Estereotipo horretatik harago, Euskadiko gazte batzuek uste dute hona iristen diren pertsona asko gizarte-laguntzez eta prestazioez baliatzeko asmoz datozela.

Ildo horretatik, ikusten da lurraldeko biztanle gazteen artean ere sustrai sakon samarrak dituela estereotipo horrek, jatorriz atzerritarrek direnak gizarte-laguntzez baliatzeko asmoekin lotzen dituenak, alegia.

“Diru-sarrerak bermatzeko errentaren inguruko eztabaida da hori, “ji, ji, ja, ja”... ez dut istilutan sartu nahi, baina ez dakit. [...] Zer iruditzen zaidan immigrazioa? Ondo, gaizki, erdipurdi... Nik esango dut positiboa dela beti. Ze, hemen lanik ez dagoenean... Duela zenbait urte, 2008ko krisiarekin, ez zegoen lanik Espainian, eta kanpora ihes egin zuten adituek eta beste askok, eta hori ez zen immigrazioa, ez? Bada, halako egoera batean, mundu guztia Alemaniara, Frantziara edota Ingalaterrara joango da. Ez dakit ba”. (1. taldea)

“Nire arreba batekin beste egunean hitz egiten esan dozte berak ezagutzen zabela neska bat que euki zaban, egon zan ezkontute bere e... esto senarragaz eta ezkontu zen han Afrikan eta hemen egon zen como, egon zen separaute eta kobretan zaben dirulaguntza horregatik eta ez da dau ezkontute eta dana, eta deko ume bat eta subentzinoak eta diferente subentzino gehitzen ba... ba hilabetero dirue... pero ondo, e?” (5. taldea)

“Nik ezagutzen dit kasu bat hemen Durangon, ez dakit izena baina e... dirala 8 anai uste dot, bakarrik eitzen dau lan amak eta eitzen dau taberna baten. Aitak ez dau eitzen lanik eta gero beraiek ba... adibidez neskia e... ekartzen dau te trae el último iPhone que han sacado, el reloj del iPhone, ropa de marca, no sé qué, no sé cuántos... eta, ba bueno, gero jendea ba, o sea... grupilloak klasean eta hasten zara pentsatzen ostia, hay gente que trabaja y no llega a fin de mes eta hemen, dira 8 anai gero ama bakarrik eiten dau lan, de camarera o de cocinera eta... esta te trae el último iPhone que cuesta... pues 900 euros o 1000, te trae el reloj, no sé qué, eta gero arrebia berdin. Y dices dónde está...”. (5. taldea)

“Ni ere ados nago pixka bat horrekin. Betidanik hemengoia izan denak eta lanean ari denak ez dituen dirulaguntzak dituzte, eta hemengoari ez diote baso bat ur ere ematen oparitan. Eta gatazka sortzen du horrek”. (6. taldea)

“Nik uste dut laguntza horiek jasotzea azkenean ekitate kontua dela. Egia da hemen badagoela oso-oso langilea den jendea, ez dena iristen hil amaierara... Baina, ez dakit... Kontuan hartu behar da jende hori hona iristen dela, eta, askotan, ez dutela aukerarik guk bezalako lan bat aurkitzeko, nahiz eta beren herrialdeetako tituluak izan”. (6. taldea)

Dena den, estereotipoa hor badago ere, azterlan honetan parte hartu duten pertsonen zehaztu dute kasu guztietan ez dela horrela gertatzen. Taldeetan, adierazi da badirela egiaz laguntza horien beharra duten pertsonak, dakartzaten zailtasunak dakartzatelako ez dauzkatena hemengo biztanleen erraztasun eta baliabide berak, eta zuzen eta arduraz erabiltzen dituztela laguntza horiek.

“Nik uste dut laguntza horiek jasotzea azkenean ekitate kontua dela. Egia da hemen badagoela oso-oso langilea den jendea, ez dena iristen hil amaierara... Baina, ez dakit... Kontuan hartu behar da jende hori hona iristen dela, eta, askotan, ez dutela aukerarik guk bezalako lan bat aurkitzeko, nahiz eta beren herrialdeetako tituluak izan”. (6. taldea)

“Gero dauz immigrante asko, atzerritar asko que aprobetxatzen dutenak super ondo dirulaguntzak eta hartzen dabiela jateko eta... o sea ez dira denak txarrak. Gehienak gainera”. (5. taldea)

Gizarte-laguntzekin lotuta, bada taldeetan azaleratu den beste ideia bat ere, pikarokeriarena, zehazki, ezaugarri unibertsaltzat hartuta. Euskadiko gazteek oro har ez dute uste jatorriz atzerritarrek direnak hemengo biztanleak baino pikaragoak direnik, eta ustelkeria-kasu ugari eta funts publikoen erabilera okerrarekin lotutako beste hainbat aipatzen dituzte. Areago, neska gazteren batek esan zuen, modu erraz samar batean laguntzaren bat jasotzerik izango balu, egoera horretaz baliatuko zela eta horixe egingo zukeela.

“Generalien yo creo, ez da kanpotarrak bakarrik... se aprovechan. Hemengoei ere dirulaguntzak emoten jake eta ez dakizu zertan gastatzen dabien”. (5. taldea)

“A ber, gero kexetan gara eurek aprobetxatzen direla dirulaguntzetaz eta gero bebai dauz hor politikoak osten dabizela miloilek, así que... a ver, hemen dauz gauza inportanteagoak...”. (5. taldea)

“Baina, tira, nik uste dut azkenean errua ez dela haiena. Nik diot ni herrialde batera iritsiko banintz eta horren erraza jarriko balidate, nik ere horixe egingo nukeela. Esan nahi dut hori eginagatik ez dutela zertan izan pertsona gaiztoak”. (6. taldea)

“Baina, tira, nik uste dut azkenean errua ez dela haiena. Nik diot ni herrialde batera iritsiko banintz eta horren erraza jarriko balidate, nik ere horixe egingo nukeela. Esan nahi dut hori eginagatik ez dutela zertan izan pertsona gaiztoak”. (6. taldea)

Beraz, gizarte-laguntzen aurrean jarrera kritikoa duten gazteak ditugu, ez nahitaez horien xedeekin lotuta, kontrolarekin lotuta baizik; edo kontrol faltarekin, haien iritzi, erakundeen kontrol falta nabari baita.

“Baina kanpotik datoz horiek... Eta nik uste dut pertsona bat kanpotik zenbait zailtasunekin datorrenean, laguntza-denbora bat behar duela. Funtsezkoa da hori. Baina horrela luzaroan egotea eta hemengo etxetik irten ezinda ibiltzea, edo oinetakoak nahiz beste edozer ezin erosita... Ez dakit zer esan. Kostatu egiten zait horretaz hitz egitea, ez dakit”. (6. taldea)

“Hori da jendea daukana morro. Nik uste dot hori kontrolauta... gehio kontrolau beharko zala, dirulaguntza kanpotarrena”. (5. taldea)

“Eta zuk horrelakoak ikusten dituzu, eta... arrazista izango naiz, edo nahi duzun guztia, baina... etxea edukitzeko aukera ematen diete, bila dabiltzan hori aurkitzen laguntzen dieten jendea daukate, ikasteko, eta horrelakoetarako... Hau da, ikusten duzu etxea erretzen dutela, mundu guztia ordaintzen ari dela haiei laguntzeko, eta ez dira aukera horretaz baliatzen”. (5. taldea)

Zehazki bigarren belaunaldiak utzi eta immigrazioaz ikuspegi orokorrago bat hartuta, euskal gizartean atzerritarrek betetzen dituzten lanpostuez ere hitz egin dute Euskadiko gazteek. Oro har, aipatu da hemengo jendeak arrazoi fiskoengatik albora uzten dituen sektoreetan sartzen direla komunitatera iristen diren pertsonak. Ikuspegi horretatik eta etortzen diren atzerritarrek egoeraz aprobetxatzen direla dioen estereotipoari kontra eginez, , deigarria iruditu zaigu beste batzuek alderantzizko gogoeta egitea; ikuspegi horretatik, Europar Batasuneko biztanleak lirarteke (eta, beraz, euskal herritarrek) beharrean dagoen kolektibo horretaz probetxu ateratzen ari direnak.

“Nik kuadrilan esaten det aprobetxatzen garenak gu generala, Europar Batasunekok. Bai e... falta daukatela eta gu aprobetxatzen garela beraien behar horietaz ze bakigu horrela mierda danak haiek egin behar dituztela”. (3. taldea)

“Be bai sartzen dira lan batzuetan guk egin nahi ez doguzenak, txarto kobratzen diren lanak eta... ez dakit o sea azkenien igual guk ez dogu lan hori egin nahi, lan fisikoa dalako edo... ba... sin más, ez dogulako nahi eta dauz bertan lanien eta bebai kexetan gara eta... gu ez gauzelako lanien eta... guregu dana eta dana ezin da eduki”. (5. taldea)

“Horretan rumanoak ikusten dira nere pareja etorri da horretan eta dira rumanoak menos el jefecillo, izango dela hemengoa, ikusten denean norbait elegante esaten, a ver eso cómo va? (barreak). Baina bestela daudenak hor goizan entzuten ez dute hitz egiten hemengo hizkuntza”. (5. taldea)

“Nik kuadrilan esaten det aprobetxatzen garenak gu generala, Europar Batasunekok. Bai e... falta daukatela eta gu aprobetxatzen garela beraien behar horietaz ze bakigu horrela mierda danak haiek egin behar dituztela”. (3. taldea)

Jatorrien inguruko pertzepzioa

Euskadiko gazteek diotenez, oro har pertzepzio okerrenea jatorri errumaniarra, magrebtarra eta txinatarra duten pertsonetikiko dago, dituzten bizipenei eta iritziei erreparatuta. Esan da jatorri horiek zenbait arazorekin eta gatazkarekin edota matxismo handiagoarekin lotzen direla maiz. Matxismoaren kontu hori batez ere zenbait faktore kulturalekin dago lotuta.

“E... txarto ikusten dira, Eibarren entzuten komentarioak eta, rumanuak, musulmanak eta gehienbat... Txinuak segiduan sartzen dira, ez dute eukitzen arazorik baina asko entzuten da, kaletikan eta asko entzuten dozu ba: esos rumanos, no sé qué... hori askotan entzuten da”. (5. taldea)

“Arrazakeria adierazten du arabiar gizon bati buruz aurrez eta besterik gabe gure iritzia emateak, matxista izango dela pentsatuz. Azken batean, kultura musulmanaz aurreiritzi asko dago, matxismo kontuekin eta horrelakoekin lotuta. Tradizioak horrela direlako, besterik gabe!”. (2. taldea)

Ikuspegi horren eta horren balioespen negatibo baten atzean egon daitezkeen arrazoiaren artean, zenbait lagunek esan dute, magrebtarren kasuan, testuinguru geopolitikoarekin eta talde jihadisten terrorismo kasuekin lotuta egon daitezkeela hori. Horri buruz, aipatu dute euskal herritarrek zenbait jatorriko jendea etiketatu egiten dutela, jatorriko herrialdearen arabera.

“Nik uste dut terrorismoaren gaiak ere eragin duela kontu honetan. Azkenean, lotuta baitaude. Nahiz eta moroak ez izan eta Saudi Arabiakoak izan, islama dira, eta konektatuta dago guztia. Beti duzu halako beldur bat zer pasatuko ote den”. (6. taldea)

“Nik ikusten dut bai dala ba pasatzen dauzen gauzekin eta. Ba, terrorismoa eta ba como dator dana handikan ba... es como que etiquetan a las personas por ser de ese país”. (5. taldea)

Halaber, magrebtar jatorriko biztanleen inguruan bildu den beste iruzkin mota bat erlijioarekin dago lotuta. Izan ere, esan da euskal herritarrek arraza eta fenotipo bereko pertsona guztiekin lotzen dutela erlijio islamikoa, albora utzita

erlijioa bizitzeko moduari eta indarrari dagokienez batzuen eta besteen artean izan daitezkeen aldeak. Euskadiko gazteek uste dute gizarteak oro har ahalegin bat egin behar duela oraindik erlijioaren esparruan eta beste sinesmen eta sentimendu batzuk onartzeko.

“Erlijioaren gaia aipatu duzu lehen, eta, kontu horretan, nik uste dut beti nahastu egiten direla haien arraza eta erlijioa. Baina imajinatzen dut jende erlijiosoa egongo dela, eta baita horren erlijiosoa ez dena ere. Izan ere, azkenerako, guztia multzo berean biltzen dugu, eta irudi bat ematen diegu. Eta jende ona eta jende gaiztoa egongo da, jende jatorra eta jende zakarra, jende azkarra eta jende ergela, oso jende fededuna eta hala ez dena... Agian, kolore griseko horiek ikustea falta zaigu”. (6. taldea)

Bada taldeetan behin eta berriz agertzen den beste ideia bat, zenbait aurreiritziren adierazgarri dena: jatorriz atzerritarrak diren herritarrak ez ote diren ari euskal gizartea engainatzen.

“Baina, bestearekin, beldur zara gehiago kobratuko ote dizun edo engainatuko ote zaituen. Hori uste dut nik. Askotan ikusten da hori. Batzuetan, galtzerdiekin eta horrelakoekin sartzen dira tabernan, eta haiekin tratua egiten saiatzen da jende asko. Eta telefono mugikor bat erosi badute, halakok ziria sartu diela esaten hasiko dira, edo gehiago kobratu diela, edo telefona kaka zaharra dela. Eta horrelaxe gertatzen da beti”. (6. taldea)

la parte hartu duten talde guztietan bildu den elementuetako bat pertsonen ezaugarriek eta fenotipoak (atzerritarren ondorengoenak nahiz jatorriz atzerritarrak direnenak) duten eraginarekin dago louta; zehazki, nola sumatzen dituzten horiek euskal gazteek eta oro har euskal gizarteak, eta nola erantzuten duten. Gazteek guraso edo arbaso atzerritarrak dituzten lagunez hitz egiten dute, eta diote Euskadin jaio eta hazi arren, atzerritar modura ikusten dituztela askotan soilik beren ezaugarriengatik, eta, arrazoi horregatik, desberdin tratatzen dituztela (polikiago hitz egiten zaie, “txantxak” egiten dira haien inguruan, etab.).

“Badut lagun bat adoptatua dena, Txinatik datorrena. Neska hori hemengoa da, Bilbokoa, eta ez dauka zerikusirik Txinarekin. Eta kontua da soilik duen aurpegia duelako... Ez diot diskriminatu egiten dutenik, baina bereizketa bat badago. Jendeak poliki hitz egiten dio, pentsatzen duelako ez duela ezer ulertuko. Eta hark oso gaizki pasatzen du kontu horrekin. Nik euskara zuk baino hobeto dakit esatea bezala da, ez zaizu iruditzen?”. (1. taldea)

“Badut lagun bat adoptatua dena, Txinatik datorrena. Neska hori hemengoa da, Bilbokoa, eta ez dauka zerikusirik Txinarekin. Eta kontua da soilik duen aurpegia duelako... Ez diot diskriminatu egiten dutenik, baina bereizketa bat badago. Jendeak poliki hitz egiten dio, pentsatzen duelako ez duela ezer ulertuko. Eta hark oso gaizki pasatzen du kontu horrekin. Nik euskara zuk baino hobeto dakit esatea bezala da, ez zaizu iruditzen?”. (1. taldea)

“Baina ikusten dituzu zuk fisikoki, eta hemengoak ematen dute. Agian haien ilea nire bano argixeagoa da, baina ez dira ilea ia zuri duten horietakoak. Haien abizena ikusten baduzu bai, baina hizketan entzuten badiezu, ez da igarri ere egiten ezertan.

Ez zinateke ohartuko. Eta "Elur Malo" deitzen zioten mutiko hark ez zuen azenturik, eta Jose zuen izena. Baina, noski, oso ezaugarri fisiko nabarmena zuen". (1. taldea)

"Zu esate baterako Alemaniatik bazatuz, lehen begi-kolpean eta zure itxurari erreparatuta, ez zaitu inork kanpoko norbait bezala ikusiko. Baina Senegalgoa bazara, orduan bai. Eta hori bai, hori izan daiteke jendeak zurekin aurreiritziekin jokatzeko abiapuntua. Izan ere, nolabait esateko, fisikoki bereizten duen inolako ezaugarririk ez duen pertsona horri inork ez dio jarriko oztoporik ezagutu aurretik. Agian jakin ondoren bai, baina ez aurretik. Baina, beltza den norbaitez, txinatar batez edo beste batzuek ari bagara, orduan agian bai, kasu horietan jartzen dizkiete batzuek oztopoak, eta ez dute ahaleginik ere egiten". (4. taldea)

Are larriagoa den beste kontu batez ere jardun dute Euskadiko gazteek: pertsona batzuk, ezaugarri zehatz batzuk dituztelako, estereotipo eta iruzkin jakin batzuen jomuga bihurtu dira, ezaugarri horien ondorioz.

"Ez zeuzkan oso ezaugarri nabarmenak, baina Marokokoa zela esan, eta % 90ek halako arbuio bat edo sentituko zuten. Ez zigun hitzik esaten, ezta ere, eskerrak eman besterik ez baitzuen egiten. Baina pertsona batek ondo tratatzen duzulako soilik eskerrak ematen badizkizu, zerbait falta den seinale da". (2. taldea)

"Lagun batekin nindoan; aita kubatarra du, baina laguna hemen jaioa da, eta ez zioten sartzen utzi. Ez zuten ezer esan; soilik esan zuten bat bai, sartuko zela, baina "zu ez". Zergatik? Ez, zu ez". (2. taldea)

"Eta nik ez nuen horretaz pentsatu, baina egia da ezaugarri nabarmenik ez daukana integratuago dagoela bestea baino kuadrillan edo horrelakoetan. Izaera kontua ere bada beharbada". (2. taldea)

"A ver, gaur egun ez dela hori pasatzen baina... gainera fisikoki gure antzekok direnen igual ez dakizu ezta, kanpotik horrela ikusita ez dakizu nungoa dan. Txinatar bat ikusten badezu, ba bai". (3. taldea)

"Itxuragatzikan igual jendea, itxuragatzikan jendie se fija un montón...neri pasa jata noizbait jun etxera eta aurretikan pasa andra bat edo gizon bat nagusia edo eta automáticamente azeraz aldatu... eta dices... pues bueno, eta ikusten dozu azeraz aldatu eta pasau zeuri eta berriro ere sartu azerara eta... esaten duzu ba... así que itxuragatikan... nik uste dut horrexegatikan itxurarena berdin jata". (5. taldea)

Euskal gazteek jatorri batekoak edo bestekoak izateaz dituzten pertzepzioetatik harago, onartzen dute pertzepzioa aldatu egiten dela, jatorri horretako pertsona hori ezagutzen duten edo ez kontuan hartuta. Ildo horretatik, parte hartzen ari diren pertsonak talde edo jatorri jakin batekin identifikatzen dituzte ezaugarri batzuk, hori horrela da; baina zehaztu dute ez dela beti horrela gertatzen, eta, adibide modura, zuzenean ezagutu izan dituzten pertsonak aipatu dituzte.

"Baina, noski, magrebtarren artean, badut nik etxe azpian xarmagarria eta maitagarria den gizon bat. Eta badaude kolean zoazela ikusi eta hotzikara eragiten dizutenak. Eta ez zait batere gustatzen". (1. taldea)

"Eta txinatarrez, oso zakarrak izan dira beti, ez dut ezagutu inoiz... tira, hemengoa kenduta, oso jatorra baita; Julian izena du. Baina gainerakoekin... Ez dut inoiz ondoan izan oso lagunkoia zen txinatarrik". (1. taldea)

“Baina ez dut uste hori soilik marokoarrekin gertatuko denik. Txanoarekin, kateekin eta nik zer dakit zerekin datorren tipo bat bada, nahiz eta zuria izan, kasu horretan ere arazoak sor daitezkeela pentsatzen duzu. Nahiz eta gero agian pertsonalki eza-gutu, eta munduko pertsonarik onena izan daitekeen. Nik uste dut, dena den, aurreiritziak senezkoak direla. Ez dugu erabakitzen halakoak izan behar ditugula; sortu egiten dira, besterik gabe”. (6. taldea)

Gazteengandik baina, bereziki, neska gazteengandik jaso ditugun iruzkin ohi-koenetako bat gauzez etxera bakarrik itzultzearekin dago lotuta. Nahiz eta beldur hori nabarmenagoa izan nesken artean, parte hartu duen gizonezkoren batek ere aipatu du beldur handiagoa sentitu izan duela besteak jantziagatik adibidez kanpokoak dirudienean hemengoak dirudienean baino. Jatorrizko herrialdeen gaia ere erantsi behar zaio horri, eta adierazi dute beldurra ez dela berdina kasu guztietan; herrialde batzuetakoek, hala nola jatorri afrikarra, magrebtarra edo Saharaz hegoaldekoa dutenek, larderia handiagoa sorrarazten diete, eta iruzkin gehiago entzuten dira horien inguruan. Zehazkiago diote, auzokoak direlako ezagutzen dituztenena ere, larderia hori sentitzen dutela.

“Genero kontua da, baina nik uste ez dela berdina bi kasuetan, mutilatan edo nesketan etxera bueltatzen gauean, nik uste ez dela berdina bakarrik bazoaz eta igual beltz batekin kruzatzen zera, horietako beltzak gauzak saltzen juten diranak, galtzerdik eta hola?”. (3. taldea)

“Adibidez e... atzo? Bai, ostegunean bueltau zen nire pisukidea juergatik etxera eta gure beheko pisun beltz bat bizi da eta ari zan etxealdera etortzen eta beldurtu egin zan nire pisukidea. Eta beldurtu zan bakarrik ikusi zulako mutil beltz bat bakarrik eta bera bakarrik zegon eta bazekin bera gure bizilaguna zala, baina, hala ere, beldurtu egin zan. Eta hori utzi zion pasatzen berari lehenengo eta... gero, sartu zenean, bera ere sartu zen etxera. Jakinda, bueno ez dakit, bistaz”. (3. taldea)

“Bale, ados, agian entzuten ditugun gauza guztiengatik izango da. Beldurra bai, baina ez moro bati, gizon bati baizik, parketik gauzez bazoaz... Tira, hori beste kontu bat da. Baina ez moroa delako, edo musulmana... Baina ez da gauza bera. Nik moroekin, musulmanekin eta horrelakoekin entzun izan dut, baina ez duzu esaten txinatar bat badela...”. (2. taldea)

“Baina beste janzkera bat dute, eta beste zera bat, eta hemen agian bide txarretik doan norbait balitz bezala ikusten da”. (4. taldea)

Agerian gelditu da Euskadiko gazteen diskurtsoan gizarteaz eta gaztediaz ari direnean aldatu egiten dela atzerritarrak diren edo atzerritar arbasoak dituzten pertsonen duten ikuspegia, horiek dituzten baliabide materialen arabera. Taldeetan, aporofobia handiko gizarte bat deskribatzen zaigu; baztertu egiten dute pobrea dena, gainerako ezaugarrietatik harago horrek baitu balioa. Ildo horretatik, zenbait pertsonak jasaten duten bazterketak ez luke horrenbesteko zerikusirik arrazarekin edo talde etnikoarekin lotutako arazoiekin; aitzitik, pertsona hori ondarerik eta baliabide ekonomikorik ez duelako baztertuko litzateke.

“Hemengoak garenez, eskubide gehiago ditugu. Eta baztertu egiten dugu berria dena, sartu berria dena. Aberatsa bada, bere ekarpena egingo duela jotzen da. Baina,

aberatsa ez bada, ez du ezer berririk ekarriko, teorikoki, aniztasuna baino ez. Horixe uste da. Zerbait berria datorrenean, gauzak aldatzen ditu horrek, eta, normalean, aldaketa ez da lehenengotik onartzen. Horixe iruditzen zait". (2. taldea)

"Adibidez, lehen esan dezue mediku baten edo kebabekoen arten, nik uste medikuak mediku izateko dirua euki behar duela, euki behar izan dula horrea jora ailegatzeko eta nik uste mediku bat izatea edo kebabekoa izatea ez dela konparablea. Nahiz eta biak pakistaniak izan, adibidez, nik uste ez dakala... bat ia vamos a decir diruarekin jaio da mediku izateko eta gero bai berak dena ein du baina azkenean beti izan du dirulaguntza hori, nik uste hor... o sea..." (3. taldea)

"Eta klase soziala ere erantsiko nuke. Ez da gauza bera klase sozial baxuko pertsona bat izatea, baliabide ekonomikorik ez duena eta laguntza ekonomikoak nahiz baliabideak behar dituena, eta garapen-maila handi samarreko esparru batetik datorren pertsona bat izatea, lan-kontuengatik edo beste arrazoi batzuegatik datorrena. Alde nabarmena dagoela hor uste dut". (4. taldea)

Hala, maiz egin zaio erreferentzia taldeetan Iñaki Williamsi (arbasoak afrikarrak dituen Athleticeko jokalaria), euskal gizartean eta gazteen artean sumatu den jarrera horren adierazgarri gisa. Futboleko jokalaria arrakastatsua denez, horrek aldatu egiten du ikuspegia, jatorri bertsua izan dezaketen beste pertsona batzuekiko dugun ikuspegiarekin alderatuta.

"Baina kezka handiena eragin diezadakeen arazoa zera da: nolabait esateko, nahiko klasistak gara, pluralean esango dut; eta ez naiz ari soilik Euskadiko gazteez, gizarteaz baizik. Kanean beltz bat egotea arazo bat izan daiteke guretzat. Edo ikastolara haur beltz bat joatean, eta gaizki doakiola ikustea, etab. Gizajoa, kanpoko beltz hori, eta horrela. Baina ikusten dugu Iñaki Williams gol bat sartzen, eta jainkoa da, ez da beltza; Athleticeko lehoikume bat da, jaun eta jabe. Edo Will Smithek film bat kale-ratzen duenean... Bel Airreko printzea, etab. Beltzak dira, baina ez die inork ezertxo ere esaten, konturatzen al zara?". (1. taldea)

"Izan ere, guztiok daramatzagu gurekin estereotipoak. Esaten badizute norvegiar bat datorrela, ez zaizu bururatzen gosez akabatzen datorren norvegiar bat izango dela. Burura datorkizun ideia ez da hori. Baina esaten badizute Senegalgo mutiko bat datorrela eta bihar zure ikasgelan hasiko dela, ez duzu automatikoki hori pentsatzen". (4. taldea)

Aurrerago joz, esan da aporafobia hori estereotipo moduan ere hortxe dagoela pertsona ezagutu aurretik, Europako iparraldeko pertsona batez edo Saharaz hegoaldeko herrialde bateko pertsona batez dugun lehen ideia aurreiritzi horrekin dagoela lotuta, alde batera utzita zer maila sozioekonomiko duen. Labur esanda, pertsonaren maila sozioekonomikoa haren jatorriko herrialdearen maila sozioekonomikoarekin lotzen da hasieran, eta, kasu hone-tan, europarra goi-mailako gizarte-klasekotzat edo klase ertainekotzat hartzen da, eta Saharaz hegoaldekoa, berriz, beheko mailakotzat.

"Izan ere, guztiok daramatzagu gurekin estereotipoak. Esaten badizute norvegiar bat datorrela, ez zaizu bururatzen gosez akabatzen datorren norvegiar bat izango dela. Burura datorkizun ideia ez da hori. Baina esaten badizute Senegalgo mutiko bat datorrela eta bihar zure ikasgelan hasiko dela, ez duzu automatikoki hori pentsatzen". (4. taldea)

“Nik uste dut hori herrialde bakoitzaren inguruan ditugun aurreiritziekin lotuta dagoela. Ondo esan duzun moduan, norbait Alemaniatik badator, uste dut ez dugula pentsatzen baliabide gutxi izango dituenik eta hona bizimodu hobe baten bila datorrenik. Baina Marokotik badator, adibidez, orduan bai, gehiago lotzen zaio ikuspegi horri. Nik uste dut lotura estuagoa duela horrekin ezaugarriekin baino”. (4. taldea)

Dena den, denboraldi bat atzerrian egiteko aukera izan duten gazteek diote aporafobia ez dela euskal gizartean dagoen zerbait soilik. Izan duten bizipenean, kontrakoa bizi izan dute: Europako herrialde batetik zetozen pertsonak ziren, eta, hori horrela, baliabide material batzuk zituztela jotzen zuten hangoek, eta horren inguruko iruzkinak entzun behar izan dituzte.

“Esan duzuen honen inguruan, urte eta erdiz egon naiz Mexikon, eta alderantzizkoa bizi izan dut nik. Mexikoko metroan, zuria eta garaia naizelako, kanpoko nintzela zekitelako, askotariko esamesak entzun behar izan ditut, aberaskumea nintzela, esaterako, eta hara joan nintzela... Ea, ulertzen dut horrelakoak esan ditzaketela. Baina, tira, irainak...”. (2. taldea)

Belaunaldien arteko aldeak

Euskadiko gazteek, beren diskurtso eta jarreretan, alde nabarmenak sumatzen dituzte beren belaunaldiaren eta aurrekoen artean. Osatu diren taldeetan, adierazi dute beren iritziz arrazakeriak leku handiagoa hartzen duela beren gurasoen eta aitona-amonen belaunaldietan berenean bainoa. Uste dute garai hartan fenomeno hori gaur egun bezain normalizatuta ez zegoelako izan daitekeela hori (batez ere adin handienekoen kasuan), eta hezkuntza eta pentsamoldea desberdinak zirelako ere izan daiteke.

“Adineko pertsonak ez dute harreman handirik izan kanpoko pertsonekin, beltz batekin, esaterako. Agian, 1940ko urteetan, erokeria zen hori. Baina, gaur egun, munduko gauzarik normalena da. Beraz, ezin daiteke orokorrean hitz egin; hala ere, nire ustez, adineko pertsonak ez dute maite kanpoko jendearekin mintzatzea, eta zuhurtzia handiagoa erakusten dute kanpokoekin harremanetan hasten direnean. Noski, kontuan izan behar da norberak zer historia duen atzean, bidaiatu duen, etab...”. (4. taldea)

“Ze, azkenean guri erakutsi digute adibidez arrazista izatea txarra dala o matxista izatea gaizki dagola eta holan, baina igual es que beraiei ez die erakutsi, beraiek bizitza guztian ba ia erakutsi badie hori ez dagoela gaizki ikusita edo beraiek horrela bizi dira 60 urte hori pentsatzen, ba orain de golpe aldatzea zaila da”. (3. taldea)

Ikuspegi horretatik, diote belaunaldien arteko alde horiek gatazka-iturri ere bihurtu izan direla noiz edo noiz. Ondorengo aipu honetan, taberna batean lan egiten duen gazte bat ari da hizketan, eta bezero batekin izan zuen eztabaida batez mintzo zaigu, hark egindako iruzkin arrazista bati erantzun baitzion gazteak.

“Entzun izan ditut nik horrelakoak tabernan... Ez dakit nola gertatu zen. Uste dut txorizoa, edo urdaiazpikoa edo horrelako zerbait zekarren gizonetzko bat zela, eta labana bat utziko al nion galdetu zidan. Utzi nion, eta esan zuen: “Honek ez du balio beltz bat ebakitzeko ere”. Eta nik: “Zer, zer esan duzu?” Aurre egin nion hasieratik. “Nor zarela uste duzu zuk?” Eta “barkatu, barkatu”, esan zidan. Ez barkatu eta ez ezer. 60 urtetik gorako gizon bat zen, baina berdin zait”. (1. taldea)

Kasu horretatik harago, immigrazioa eta harekin lotutako estereotipo negatiboak eztabaida-iturri izan direla gazteen eta haien gurasoen artean ere jaso da taldeetan. Zehazki, Euskadiko gazteek diote batez ere arrazoi ekonomikoekin lotutako arrazakeria ikusten dela aurreko belaunaldietan, eta zenbait estereotipo jakinetan mamitzen dela arrazismo hori: gizarte-laguntzekin gehiegikeriaz jokatzeko dutela, esaterako, edota atzeritar jatorriko pertsonak hemengoei lana ken diezaieketela.

“Nik esango nuke arrazakeriaren zio nagusietako bat alderdi ekonomikoa dela. Lehen ere aipatu da hona etorri eta lana ebasteen diguten kontu hori. Eta nik uste dut gai horrek gehiago kezkatzen dituela adineko pertsonak gazteak baino. 16 urteko pertsona batek esan dezake halakorik, etxean entzun duelako, baina ez egiaz horrelakorik sentitzen duelako. Nik uste dut neurri batean horregatik ikusten dituztela begi txarrez adinekoek, alderdi hori ikusten dutelako”. (4. taldea)

“Nire aitak ere esan ohi du dirulaguntza mordoa kobratzen dutela, eta halako eta besteko esan diotela. Dena da “esan didate” eta “nik uste dut”. Baina nondik ateratzen dituzte datu horiek? Esadazu nondik datozen datu horiek! Tira, nik ez dakit askorik, ez dut ulertzen horrelako kontuez. Bada, ulertzen ez baduzu, ez esan ezer. Erraza da, hori besterik ez”. (4. taldea)

Maila pertsonalagoan, parte-hartzaileek diote gurasoek normalean pertzepzio negatiboagoak dituztela haien harremanen inguruan (lagunak edo harreman sentimentalak), besteak bigarren belaunaldiko pertsonak direnean; edo, gutxienez, errezelo handiagoz begiratzen dietela.

Pare batek esan du gurasoek arazo handiagoak jartzen dizkietela arbasoak kanpotarrak dituzten lagunak onartzeko orduan, eta gezurra ere erabili behar izan

“(...) konturatu naiz arrazakeria pixka bat ere badagoela. Adibidez, gurasoei lagun musulmanak nituela azaltzen ahalegintzen nintzenean, nik neuk esaten nien diplomazialarien seme-alabak zirela, justifikatzen ahaleginduz bezala. Eta hor ohartzeko zara badagoela”. (2. taldea)

dutela, esanez diplomazialarien seme-alabak direla, gurasoek lagun horiekiko ikuspegi hobea izan zezaten. Berrito ere aporafobia sartzen da jokoan esparru horretan, aurrez aipatu dugunaren ildotik. Dena den, zehaztu behar da kasu horiek bereziak izan direla; normalean, Euskadiko gazteek ez dute esan gurasoek baztertu egiten dituztela haien lagunak, lagun horien arbasoak atzeritarra direnean.

“Ia, azkenien badakie zuen laguna dala zergatik ez dizue utzi beharrikan? Azkenean zure lagune da, orduan. Zuk ezagutzen duzu, badakizu zure lagune dala eta orduan ia esta”. (3. taldea)

“Eta, horretaz gain, konturatu naiz arrazakeria pixka bat ere badagoela. Adibidez, gurasoei lagun musulmanak nituela azaltzen

ahalegintzen nintzenean, nik neuk esaten nien diplomazialarien seme-alabak zirela, justifikatzen ahaleginduz bezala. Eta hor ohartzen zara badagoela". (2. taldea)

Dena den, ez da horrelakorik gertatzen bikote-harremanetan. Osatu diren taldeetan, Euskadiko gazteek (batez ere emakumeek) askotan aipatu dute gurasoek jarrera baztertzailerak erakutsi dutela atzeritar jatorriko bikotekidea izan dutenean edo izan zezaketenean, batez ere bestea musulman jatorrikoa zenean.

"Nire gurasoek betidanik esaten didate haiek ez zutela nahiko ni musulman batekin egotea". (3. taldea)

"Ze orain etxera juten bazara eta esaten badiezu gurasori musulmana egingo zerala? Ba, ez dakit zer esango duen". (3. taldea)

Esan dute kasu horietan nagusiki arrazoi kulturalengatik dela, eta berriro ere kultura eta erlijio magrebtarra matxismo handigoa izatearekin lotu dute. Gaineratu dute gurasoek ez dietela lagun musulmanak izatea inoiz debekatu, baina ez zitzaizela ondo irudituko erlijio horretako bikotekidea izango balute.

"Nik ere entzun izan ditut ez zaitez joan moro batekin eta horrelakoak, haien kultura oso matxista delako. Guztiak dira matxistak. [...] Horretaz pentsatzen jartzen bazara, gu ere matxistak gara agian, eta beste batzuei hori egozten diezu, nolakoak diren aztarrenik ez izan arren. Harritu egiten nau horrek, asko gainera". (4. taldea)

"Nik uste, gurasoek esan zidatela hori ikusten dutelako igual e... emakume musulmanak ez dauzketela guk dauzkegun askatasun berdinek eta nire gurasoek ez zutela hori nahiko. O sea beti, e... animau naute musulmanen lagunek eta hola izatea baina ez lukete nahiko ni batekin ezkontzea. Ez dakit esplikatzen naizen". (3. taldea)

lido horretatik, eta arrazoi erlijioso eta kulturaletatik harago, parte-hartzaileetako batek esan du behin atzeritar jatorriko pertsona batekin harremanetan has ez zedin konbentzitu nahi izan zutela, pertsona hark "den-dena" kenduko ziola esanez.

"Nik gehien entzun dudun gauzetako bat zera izan da: "ibili argi, ez baduzu azkenean dena kenduko dizun kanpoko batekin amaitu nahi". Horrelakoak entzun izan ditut, eta askotan, gainera.. Baina, ea, pertsona jatorra eta atsegina bada, eta ez badator inor ezer "ebastera", zuek besterik esan arren? Orduan zer? Ez, ez, baina kontuz ibili, ez dira kultura berekoak eta arazoak sor daitezke". (4. taldea)

Taldeetako batean, parte-hartzaileetako batek esan zuen garai berean bera eta ahizpa jatorri atzeritarreko bi pertsonarekin ibili zirela, eta nahigabe handia ekarri ziola horrek amari. Tristeziak hitz egiten zuen neska gazte hark egoera hartaz, halako samintasun batez bizi izan baitzuen esperientzia hura.

"Eta nire amarentzat, nahigabe handia izan zen hura, hitzez hitz. Ez zuen horrela esan, zer-nolako nahigabea! eta horrelakorik, baina esan zidan harri eta zur utzi zuela alaba horrelako pertsona batekin ikusteak. Orain, aitzakia jartzen du, aurreiritzien aitzakia; baina ez nion informazio gehiegirik ere eman. Gerora, bikotekidea aurkeztu nion, hemengoak, eta ez zidan inolako azalpenik eskatu. Baina nik uste dut gure etxean nahigabe handia izan zela. Eta gaizki bizi izan nuen, baina tira". (2. taldea)

Lurraldeen arteko aldeak

Migrazioaren fenomenoa EAEn ezaugarrietako bat izan da tradizioz, eta askotariko esperientziak garatu dira gure artean, besteak beste Amerikak eginez bizimodu berri bila lurraldea utzi zuten pertsonenak, edo industriaren garapenaren eskutik lan-merkatuko aukera berrien bila beste lurralde batzuetatik etorritakoenak (batez ere Espainiatik)... Beraz, Euskadiko jendea, eta zer esanik ez gaztedia, nahiko ohituta dago gizarte plural batean bizitzera, jatorri askotariko pertsonak biltzen baitira bertan, kanpotik etorriak edo arbasoak kanpotarrak dituztenak.

Ilido horretatik, taldeetan parte hartu duten pertsonak diote azken urteetan kanpotik etorritako jendeak dendak eta saltokiak ireki izanak ikusgarriago egin dituela, eta, horri esker, hobera egin dutela haiei buruzko ikuspegi eta jarrerak.

“Nik uste dut kanpotarren saltoki gehiago daudela orain lehen baino. Txinatar ugari, sakelako telefonoak saltzen dituzten marokoarren denda asko, eta pakistandarrenak ere bai. Eta neska asko txirikordak egiten dituztenak; eta ez kalean bakarrik, ile-apaindegietan ere ikusten ditut. Eta manikura egiten duten txinatarrak; ondo ikusiak daude horiek ere. Baina jende gehiago ikusten da, eta lehen baino saltoki gehiago”. (6. taldea)

Azterketa honetan parte hartu duten pertsona batzuek EAEn errealitate hori estatuko beste leku batzuetakoekin alderatu dute, uda igarotzen duten tokietakoekin, eta, toki horietan, migrazio-fenomenoa (nazioartekoa) ez da horren nabarmena oraindik. Fenomeno berria denez eta horren nabarmena ez denez, ezin izan direla hemengo jendearen eta kanpokoen arteko harremanak sortu diote, eta, horregatik, nahiko joera uzkurra hartzen duela jendeak.

“Denborarekin, ikasten joan gara. Orain etorkinekin dugun tratua eta orain hogeitau urte genuena ez dira berdinak. Agian duela hogeitau urteko tratua mota hura ikus daiteke orain toki horietan, oraindik ez delako garatu arlo hori. Jende gutxiago badaukazu zeure burua garatzeko, mezua ez zaio horrenbeste jenderi iristen azkenean. Ez dakit nahiko argi azaldu dudana”. (4. taldea)

“Nik uste dut hemen, Euskadin, Espainiako gainerako lurraldeetan baino zertxobait hobeto gaudela, baina kontua sakonago aztertuz gero...”. (4. taldea)

Arbasoen historiak aurrean edukitzeak lagundu egiten die gaur egungo gazteei migrazio-proiektu bat hasi duten familiekin (zehazki, familia horietako seme-alabekin) enpatia handiagoa izaten; izan ere, beraien arbasoek ere beren herrialdea utzi, eta bizileku berri batera emigratu behar izan zuten garai batean.

“Hemen ere horixe gertatu baitzen: gerra zibilean, eta gero ere bai, familia askok atzerrira jo behar izan zuten. Eta, ikuspegi horretatik, haien alde jokatzeko du horrek. Esate baterako, nire amonak Frantziara emigratu behar izan zuen gerra ostean. Eta horregatik izango da agian, baina nire familiak ikuspegi irekiagoa du nire lagun batzuen familiak baino. Nire lagun batzuen gurasoak... ez dira arrazistak izango, guztiekin ez dutelako berdín jokatzeko. Baina bai, batez ere moroekin eta beltzekin. Baina

familia batzuk besteak baino irekiagoak dira zentzu horretan. Eta batzuek horrelako iragana izan dute, eta beste batzuek ez. Baina nik uste dut horrek eragin handi samarra duela. Azkenean, zure familiak emigratu beharra izan badu, gaitasun handiagoa duzu hona datorrenaren lekuan jartzeko". (4. taldea)

Horrez gain, Euskadin immigrazioari buruzko ikuspegia (bigarren belaunaldiei buruzkoa, zehazki) beste toki batzuetakoa baino irekiagoa ez ote den ere adierazi da; euskal herritarrei "terroristak" izatea egotzi izan zaie XX. mendearen bigarren erdian eta XXI.aren hasieran, Euskadi Ta Askatasunaren ⁵ ekintzengatik, eta horregatik ere izan daiteke. Parte-hartzaileetako batek azaldu duenez, errealitate horri esker, euskal herritarrek enpatia handiagoa dute migratzaileekin, nahiz eta askotan etiketa negatiboak eransten zaizkien, eta guztiak "zaku berean" sartzen diren.

"Euskaditik irten orduko, ETAkoak gara euskal herritarrak izate hutsagatik. Beraz, jar dezagun gauza bat bestearen tokian. Moro izate hutsa nahikoa da pertsona txartzat jotzeko. Ni ETAkoa ez naizen bezala, hura ere pertsona ona izan daiteke". (4. taldea)

Etorkizuna

Euskal gizartearen bilakaera nolakoa izango den galdetu zaienean, alde handiak ikusi dira batzuen eta besteen artean, eta askotariko erantzunak eta iritziak bildu dira bigarren belaunaldien akulturazio- eta integrazio-prozesuaz, baiko- rrenetatik negatiboentarako multzoan.

Jarrera baikorra erakutsi duten gazteek diote bigarren belaunaldien integrazio-prozesua (eta euskal gizartean horiek izango duten onarpena) modu natural eta normalizatu batean gauzatuko dela euskal gizartean, eta denbora pixka bat eskatuko duela horrek. Ildo horretatik, parte hartu duten pertsona batzuek nabarmendu dute beren inguruan zenbait pauso txiki eman direla, duela zenbait urteko egoerarekin alderatuta.

"Baina, pixkana, gero eta normalagoa da jendea etortzea. Eta jende horrek seme-alabak ditu, eta denborak aurrera egin ahala, normala izango da gurasoak edo aitona-amonak jada hemengoak izatea". (1. taldea)

"Nik uste dut gizarte gisa txikitatik irakasten badiegu guztiok hartzen dugula parte honetan, gauzak aldatu eta hobetu egingo direla. Eta uste dut horixe gertatuko dela, ni bizi naizen auzoan ikusten dudanari erreparatuta behintzat". (2. taldea)

⁵ Euskadi Ta Askatasuna, ETA izenez ezagunagoa, Euskal Herriko talde terrorista bat izan zen, nazionalista eta independentista, abertzalea, sozialista eta iraultzailea. 1958an sortu zen, Francoren diktaduran, eta lehen ekintza biolentoa 1961eko uztailean egin zuen. Hurrengo 50 urteetan jarraitu zuen jardunean, 2011ko urrian behin betiko bide armatua uzten zuela iragarri zuen arte; 2017an izan zen desarmatzea, eta 2018ko maiatzaren 3an, desegin zela iragarri zuen.

“Normalizatu egingo da pixkana, haur txikiaren artean batez ere. Nire lehengusu txikiek atzerritar asko dituzte ikasgelan. Hain zuzen ere, nire lehengusuaren lagunik onena paraguaiarra da”. (1. taldea)

“Normalizatu egingo da pixkana, haur txikiaren artean batez ere. Nire lehengusu txikiek atzerritar asko dituzte ikasgelan. Hain zuzen ere, nire lehengusuaren lagunik onena paraguaiarra da”. (1. taldea)

Esan dugu lehen ere: Euskadin jaio direnez eta betidanik eskolan hemengo gurasoak zituzten haurrekin ibili direnez, etorkizuneko belaunaldien integrazioa “bila ibili gabe” etorri dela uste dute. Dena den, eta aurreko ataletan ere jaso ahal izan denez, zailagoa iruditzen zaie prozesu hori horren arin gertatzea zaharagoak direla etorri diren pertsonen artean, bigarren belaunaldiko kolektibo horren barruan ez daudenen artean, alegia (2.0 B).

“Bai, sekulako aldea dago. Azkenean, bila ibili gabe egiten du aurrera guztiak. Zu hemen jaiotzen bazara eta gainerakoen eskola berera bazoaz, planak egiten hasten zara haiekin... Ez dakit, bila ibili gabe egiten du aurrera guztiak, errazagoa da. Baina, zaharagoa zarenean bazatoz, bederatzi edo hamar urte dituzunean, konplikatuagoa da sartzea eta besteek zu ondo onartzea”. (4. taldea)

“Badaude kuadrillan bi neska errumaniarrak direnak. Baina, noski, oso umeak zirela etorri ziren, eta oso txikitan integratu ziren. Baina haien lehengusuak, iaz etorri zenak, ez dauka inor kalera irtetetiko herrian, eta ez da irteten ia. Zergatik? Iritsi berria delako, eta aukerarik eman ez diotelako”. (4. taldea)

Gauza bera ekarri dute hizpidera berriro: euskal gizartean gertatzen ari diren aldaketan eta aniztasunaren aurrean, zaharagoen belaunaldiak baino jarrera irekiagoa du beren belaunaldiak, gazteen esanetan, eta, gainera, kontzienteago dira. Ildo horretatik, denborak aurrera egin ahala eta seme-alabak izan ahala, balio desberdinak helaraziko dizkietela diote, gurasoek haiei sartu dizkietenen desberdinak, nabarmen gainera.

“Nik uste... hobera jungo dala, ze azkenean oraingo edukazio generala, nik uste, irekiagoa dela ez razista ez izatea, genero indarkeriarekin ba... ez dakit azkenean, ez dakit, o sea, pentsatzeko modua diferentea da orain, eta orain guk ez dugu aiton baten moduan hitz egin, o sea, pentsatzen. Ordun, guk ere gure semeei eta trasladatuko diegu eta haiek eta besteei bebai, eta ordun nik uste, sozietate hau pixkanaka hobetzen joango dela o irekiagoa edo...”. (3. taldea)

“Nik espero dut juten hobetzea poliki poliki, ez? Azkenean, geroz eta kontzienteago gazte jendea gai honen inguruan, ordun poliki-poliki gu zahartzen geranean gure baloreak transmititzen badizkieu gazte jendeari, ba hobetzen jungo da. Gazte jende horrek reflektzioa egingo du berriro eta azkenean prozesu bat izango da”. (3. taldea)

“Egia da orain, nahiko epe motzean, bost urtean edo, urrutze bat eragin dezakeen zerbait izan daitekeela. Baina nik uste dut, hemendik hogeitaz urtera edo, guztiak horre jarraitzen badu eta funtsezko aldaketarik egiten ez bada, eta ikusiak ikusita edozein unetan gerta daiteke halakorik, zerbait normala izan beharko lukeela. Hori esango nuke nik. Normalizatuagoa izan beharko luke guztiak”. (1. taldea)

“Eta, alde ona ere badu: konpondu egingo da hau, eta gero eta gutxiago kostatuko da. Guzti normalagoa eta naturalagoa izango da. Eta gure semearen neskalaguna frantziarra izan badaiteke, zergatik ez da izango egiptoarra?”. (1. taldea)

Beraz, begien bistakoa da denborak duen garrantzia. Gaztedia ohartzen da prozesu honek denbora eskatzen duela, eta, prozesu natural gisa ikusten badute ere, agertoki horretara iristeak luze joko duela aurreikusten dute. Horren ondorioz, ez dute uste euskal gizarteak etorkizunean izango duen garapena asko urrunduko denik migrazio-tradizio handiagoko inguruko beste herrialde batzuek, Frantziak adibidez, izan dutenetik.

“Astebete egiten zuten hemen, eta guztia oso ondo antolatuta eta oso normalizata zeukaten. Musulmanek otoitz egin behar zutela ordu batzuez, eta ez dakit zer gehiago... Eta inork ez zuen zirkinik ere egiten. Agian, ibilbide luzeagoa dute egina han, herrialdeak izan duen historiagatik, frantsesez zekiten, etab. Baina uste dut ildo horretatik aurrerago doazela. Eta pentsatzen dut hemen ere iritsiko garela horretara”. (6. taldea)

Dena den, Euskadiko gazteak etorkizunari begira baikorrak badira ere, iruditzen zaie immigrazioari buruzko estereotipo eta aurreiritzi batzuk ezin izango direla ezabatu erabat.

“Nik uste dut egia dela gero eta normalagoa dela; baina ez da erraza izango estereotipo guztiak desagerraraztea”. (1. taldea)

Horrez gain, Euskadiko gazte batzuk ez datoz bat baikortasun horrekin, eta ikuspegi negatibo nabarmena dute gizarteak izan dezakeen garapenaz. Hizpidera ekarritako elementuen artean, bigarren belaunaldi horietakoak (edo ondorengoak) kide zer mailatan sentitzen ote diren aipatzen dute, eta erabat hemengo gisa ikusten ez dituen gizarte baten ondorio izan daiteke hori, haien ustez.

“Ez dakit, agian ez daukat egun ona, baina oso beltz ikusten dut nik kontua. Zer dagoen orain argiago ikusten dudalako izango da agian, lehen ez bainintzen horrenbeste konturatzen. Beste zerbait esango dut agian hemendik urte batzuetara, baina ez naiz baikorra oraingoz”. (2. taldea)

“Nik uste dut jende hori, berdin du bigarren, hirugarren edo laugarren belaunaldiak diren, ez dela inoiz erabat integratuta sentituko etengabe nongoa den galdetzen ari bazara. Hemengo! Nongoa, ordea? Hemengo!”. (1. taldea)

Bestalde, ikuspegi arrazistagoa izan dezakeen jendeak bere iritzia argi eta garbi adierazteko gero eta eragozpen gutxiago duela ikusten dute, eta aurrez aurrekoak eta gatazkak eragin ditzake horrek. Eskuin muturreko alderdiek European zehar izan duten goraldiarekin lotzen dute hori; eta horixe gertatu da berriki Espainiako estatuan ere, Vox alderdia sartu ostean.

“Nik uste dut orain jendeak ez duela bere iritzia beretzat gordetzen. Eta ondo iruditzen zait. Baina uste dut jendeak gero eta gehiago hitz egiten duela arrazismoaz, eta arrazismoaz duen iritzia gero eta zabalagoa da”. (2. taldea)

“Lehen, botako zenuen akaso iruzkin arrazistaren bat zure lagunen artean, edo zure iritzia, eta arrazista izan daiteke. Baina, gaur egun, gero eta argiago esaten da jendaurrean. Eta aurrez aurrekoak eragin ditzake horrek”. (2. taldea)

“Joe, ba eskumak hartzen badau poderío, zergatik Frantziak atera da eskuma, Europan VOX bebai doa hartzen indarra poco a poco...”. (5. taldea)

“Ba, nik uste dut, ba Europan bezala sartuko dala eskuma eta ez dakit, nik uste dot o sea... kanpotarrak hona etortzea eukiko dituztela zailtasun handiagoak eta...”. (5. taldea)

Arrazismoari dagokionez, Euskadiko gazteek diote arrazismo mota berri bat ere ager daitekeela beraien ustez. Ikuspegi horretatik, adierazi dute kasu honetan ere matxismoaren kasuan ikusi duten bilakaeraren antzekoa gerta daitekeela, desagertu baino gehiago beste forma batzuk hartzea, alegia.

“Nik nire barruan badut halako eztabaida bat: ez dakit egiaz arrazismoa txikiagoa den orain, edo arrazismo mota desberdin bat den. Agian, geure burua engainatzen dugu orain, esanez ez dela arrazismoa. Adibidez, gizarte hau matxista da, edo beste matxismo mota bat agertu da? Nik espero dut hemendik urte batzuetara arrazismo gutxiago izango dugula gure artean. Baina, noski, arrazismoa egongo da, eta bilakatu joango da”. (2. taldea)

“Ziurrenik, arrazismoa bilakatu egingo da, eta pentsatuko dugu gutxitu egin dela, baina, egiaz, arrazismo bera egongo da”. (2. taldea)

Etorkizunean euskal gizartea hobea izango den edo ez eztabaidatzetik harago joz, interesgarria da ikustea parte-hartzaile batzuek nola daramaten etorkizunari buruzko gogoeta hori esparru pertsonalagora, eta nola balio dien horrek auto-kritika egiteko. Ariketa horretan, euskal gizartea arrazista dela ikusten dute, eta beraiek ere halaxe direla egunerokoan. Horregatik, etorkizunean gauzak desberdin egin nahi lituzketela diote, eta, areago, hala ez eginez gero, porrot egiten ariko liratekeela etorkizuneko guraso gisa.

“Izan ere, badirudi arrazismoaz ari garela, eta ez dela inor arrazista. Eta ez da horrela. Arrazistak gara, eta, bizi garen gizarte honetan, uste dugu besteak baino hobekak garela. Eta, nahi ez badugu ere, horrelakoak izaten ikasi dugu, eta desikasten ari gara orain”. (2. taldea)

“Izan ere, badirudi arrazismoaz ari garela, eta ez dela inor arrazista. Eta ez da horrela. Arrazistak gara, eta, bizi garen gizarte honetan, uste dugu besteak baino hobekak garela. Eta, nahi ez badugu ere, horrelakoak izaten ikasi dugu, eta desikasten ari gara orain”. (2. taldea)

“Eta besteak hala direla esaten ari garen bitartean, inork ez du ezer egiten egoera hori desagerrarazteko. Badirudi baloia besteei pasatzen diegula beti, eta ez garela jabetzen kritikoak izan beharraz”. (2. taldea)

“Nik ere uste dut egunero egin beharreko zerbait dela, zuk esan duzun bezala. Ongi esan duzu, autokritikoak izan beharra dago. Integraztea oso erraza da, lankide bati kaña bat hartzera badatorren galdetzea bezain erraza. Nik uste dut horrelakoak

eginez lan handia egingo genukeela. Pareko gisa tratatuz. Zergatik, zer da pasa daki-gukeen gauzarik txarrena? Bestearen gogoko ez izatea?”. (2. taldea)

“Badago beharrik nongoa den esateko? Esan egin behar dit mutil-laguna beltza dela? Alaba etortzen bazait eta mutil-laguna beltza dela esaten badit, eta aurrez esan behar izan badit, badakit ama gisa ez dudala nire lana ondo egin”. (2. taldea)

Hori guztia kontuan hartuta, zenbait jarduketa-eremu identifikatu dituzte azterketan parte hartu duten pertsonak, etorkizunari begira lehentasuna dutela iritzita:

Hezkuntza

Gazteek izan dituzten esperientziak abiapuntutzat hartuta, diote hurrek ez dutela inongo arazorik ikaskideekiko harremanetan, berdin da zer jatorri duten kideek edo arbasoak nongoak dituzten. Horregatik, uste dute hezkuntza dela gizarte askotariko eta inklusiboago batera iristeko bide nagusia.

“Nik ere ikastolako haurren artean ez dela inolako arazorik ikusi dut. Argi dago hori: haurrak garbiak dira horretan, eta ez dira sartuko horrelako kontuetan”. (2. taldea)

“Hezkuntza da bitarteko nagusia”. (1. taldea)

Hezkuntzaren esparruan, ikusten dute aldaketak izan direla beraiek behe-maialako zikloetan zebiltzanean gertatzen zenarekin alderatuta. Ildo horretatik, ikas-tetxeetan irakasleak metodologia berriak abian jar daitezzen ahalegindu direla diote.

“Nik uste, gauzak oso azkar doazela. Adibidez, nere ahizpa edo nire artean ikusten dut badaudela desberdintasunak eskolan eta hori 4 urte ematen gerala e? Ordun nik uste egon daudela”. (3. taldea)

“Nik uste, irakasleak ere hasi dirala metodologi berrik sartzen horren inguruan, ze nik orain dela 10 urte jaso nun edukazioa eta eskola nola zan eta orain nire arrebak nola dauken, 10 urte dauzka, oso diferentea da”. (3. taldea)

Uste dute garrantzitsua dela hezkuntza-sisteman aldaketak egiten jarraitzea, bai teknologia berriak txertatuz eta baita zenbait irakasgai (Herritartasuna edo Filosofia, esaterako) planteatzeko moduan aldaketak eginez ere. Garrantzitsua iruditzen zaie dinamika gehiago egitea, ikerketa honetarako antolatu den eztabaida-taldea eta horrelakoak, esaterako; espazio horiek aukera ematen diete hainbat gairi buruz iritziak emateko eta besteenak jakiteko nahiz gogoetarako. Aipatu dute normalean ez dutela horrelakoetarako aukerarik izaten, eta zerbait positiboa litzatekeela.

“Nik uste, gaur egin dugun bezala jende desberdina elkartzea eta bere iritzia ematea hola ikasten dezula, igual zuk pentsatzen dezu zerbait, baina gero entzuten diozu beste bati bere iritzia ematen eta esaten dezu ba arrazoa dauka edo kontu on bat eta horrelakoetan gehio egin beharko genukeela jendekin elkartu eta iritzia eman eta jendei entzun”. (3. taldea)

“Gero, baita, segun ez asignatura izateagatikan baizik eta igual nola dagoen enfokaturuta. Adibidez nik herrian herritartasuna eta filosofia eman ditut eta holako hitzaldi bat ez degu euki. Beti zan herritar bat bideo bat jarriko degu eta lasai lasai egoten gera, ordubete deskantso, no sé qué... baina, nik uste, horrelako gauza bat egitea aprobetxagarria dela”. (3. taldea)

Horrez gain, erantsi dute ikasle autoktonoekin eskola beretan heztea izan daitekeela gaur egungo arrazismoari aurre egiteko modurik onenetakoa, haurra zarenean ez baitakizu ekonomiaz eta horrelakoez (besteak beste), eta horixe baita migratzaileen kontrako egungo diskurtsoaren sustraian dagoen funtsezko elementua.

“Hurrei ez zaie axola ekonomia, berdin-berdin die. Haur batek beste bat bazterrean uzten badu, ez da badakielako haren gurasoak diru gutxiago dutela. Txikiak direnean ari naiz esaten”. (4. taldea)

“Kontua da adin horretan konponbidea jartzen ez bada, hor jarraituko duela arazoak, hor dago koska”. (4. taldea)

Argi esan da, gainera, hezkuntzatik egiten den ahalegin orotan ez dela inoiz atzeritar jatorriko pertsona horien kultura arbuiatu behar. Haien ustez, etorkizunari begira, helburua ikasgelaren barnean askotariko kulturek beren tokia izan dezaten lortzea litzateke, gaur egun ez baita hala jokatzeko eta euskal kulturaren asimilazioa sustatzen baita, jatorrizko kultura etxearen edo familiarren eremurako utziz.

“Nik uste, lortu behar dala beraiek hemengo kulturen parte egitera baino beraien kultura ez baztertzea, beraien kulturari toki egitea. Orain gure helburua da gehien bat beraiek gure kulturara sartzea eta beraienak albo batetara uztea edo etxerako bakarrik ba igual... lortu beharko...” (3. taldea)

Dena den, etorkizunari begira hezkuntzaren esparruak aurrez aurre izango dituen askotariko mugak identifikatu dituzte Euskadiko gazteek. Alde batetik, onartzen dute belaunaldi berriek etxean jasotzen duten hezkuntzak, ikasgeletatik egiten den ahaleginetik harago, funtsezkoa izaten jarraitzen duela; gurasoek helarazten dieten balio-sistemaren arabera, eskolan egiten den lanak eragin handiagoa edo txikiagoa izango du.

“Nik uste dut eskola gizarteratzeko tokia dela. Hori bai, bada.. Baina balioen transmisiorako lekua ez. Irakasle bezala helaraz diezaiekezu zer bait, baina eskolan geratzen da hori, eta etxera doaz gero, eta han heziko dituzte”. (2. taldea)

“Hurrek egiten dituzten iruzkin edo gogoeta asko batez ere etxean entzun dituztelako egiten dituzte. Zuri txikitatik zenbait balio erakusten badizkizute, horietan izango dituzu zure bizitzako urte askoan zeurekin, prestatzen ari zen bitartean”. (2. taldea)

“Nik uste dut eskola gizarteratzeko tokia dela. Hori bai, bada.. Baina balioen transmisiorako lekua ez. Irakasle bezala helaraz diezaiekezu zer bait, baina eskolan geratzen da hori, eta etxera doaz gero, eta han heziko dituzte”. (2. taldea)

Bestalde, oro har etorkizunaz galdetu zaienean bezala, prozesu horretan denborak duen garrantzia azpimarratu dute berriro Euskadiko gazteek. Euskal gizartean aniztasunak onarpen handiagoa izatea epe luzerako proiektu bat da, eta, hori horrela izanik, eskolan txertatzen diren egokitzapenak (eta modu naturalean, kanpoko esku-hartzerik gabe, gertatzen diren aldaketak) ez dira gauzatuko egun batetik bestera. Prozesu motela da, epe luzera mamituko dena.

“Es que, nik uste dut oraindik ez dela denbora askorik pasa, ze gu orain dela hamar urte egon ginen eta orain ume dianak ba gu bezala ibiliko dia pentsatzen, edukazio horrekin ibiliko direla”. (3. taldea)

Zenbait ikastetxe “ghetto” bihurtzeko arriskua dagoela esan dute berriro, horrek gizarteratzeko prozesuetan eta jatorri atzerritarra duten pertsonen integrazioari begira adieraz dezakeena kontuan hartuta. Irtenbide gisa, Euskadiko gazteek proposatu dute ikastetxe publikoetan plazak ematerakoan bizilekuak duen pisua (errolda) berrikustea, bai eta laguntzak ematea ere, atzerritar jatorriko familiek beren seme-alabak itunpeko ikastetxeetara eramateko aukera izan dezaten.

“Baina Gasteizko ikastetxe zenbait ghetto bihurtzen ari direla ikusten ari naiz. Nahi omen du jendeak, baina, gero, ez du nahi. Bestela, ez litzateke pasatuko horrelakorik”. (2. taldea)

“Eta, nire iritziz, ez da horren zaila horrelakoak saihestea. Laguntzak eman daitezke, itunpekoetara ere joan daitezten, edo publikoetan soilik ingurua kontuan hartzea saiheste daiteke, faktore garrantzitsua baita hori”. (2. taldea)

Komunikabideak eta (des)informaziorako bideak

Euskadiko gazteek eztabaida-taldeetan landu duten beste alderdietako bat komunikabideena izan da, eta beren argitalpen eta berriekin herritarrak nola “bonbardatzen” dituzten ere aipatu da. Ez dute uste komunikabideek berri batzuk edo besteak emateko modua eta horien jarraipena zerbait aseptikoa denik, interes batzuen arabera jokatzeko baitute.

“Azkenean, estereotipoen eta horrelakoen dakizuna berrietatik jasotzen duzuna da oinarrian. Izan ere, albistegietan, ehun kasutatik bat irteten da, okerrera delako, edo ez dakit zer egin duelako norbaitek”. (1. taldea)

“Komunikazioek ere asko egiten dute nire ustez ere azkenen ez gara konturatzen baino beti esan da, ez dakit sinistu edo ez hala izango da azkenen hainbeste komunikazio eta publizitatekin es un bonbardeo azkenean. Denbora guztian ideiak, o sea zuk pentsatzen dezu ez doala inora baina azkenean hor barrun zeozer juten da geratzen ordun ba hasieratikan komunikabideetan eta hola ondo hasten badira eta holako gauzak egiten badituzte, hobeto”. (3. taldea)

“Askotan, komunikabideek ere ez dute askorik laguntzen horretan. Ikusi besterik ez dago; duela zortzi bat hilabete edo, eraso batzuk izan ziren Bilbon, larunbat gauetan. Irten behar nuen bakoitzean, amak ea ez nuen moro horiekin topo egiten eta horrelakoak esaten zizkidan, egurtuko nindutela bestela. Eta nik esaten nion astero izaten direla liskarrak Bilbon, eta ez zidala ezer esaten inoiz; eta justu une horretan esaten zidala hori, etorkinen kontua irten denean. Handik bi astera, istiluak izan ziren Uri-bitarten, Backstage aretoaren atean, berrehun lagun inguru edo bai elkar joka. Eta txintik ere ez horretaz. Baina eraso bat izan zen metroko sarbidean bi lagun artean, eta horren berri bazter guztietan eman zen. Azkenean, horren berri emateko interesa dagoelako”. (4. taldea)

Zehazki, Euskadiko gazteek uste dute komunikabideek zabaltzen dituzten iritzi eta balioespeneke eragin handiagoa izan dezaketela egunez egunekoan atzerri-tar jatorriko jendearekin edo arbasoak kanpokoak dituztenekin harremanik ez duten jendearengan. Belaunaldiekin lotuta ere egon daiteke. Praktika horiek telebistarekin identifikatzen eta lotzen dituzte euskal gazteek gehien bat, eta, horregatik, ez dute horrenbesteko eraginik beraiengan, ez dutelako telebista adin handiagoko belaunaldiek adina kontsumitzen.

“Nik uste dut une honetan arazoa hezkuntzan dagoela oro oso-osorik. Soilik telebistan esaten dutenari erreparatu behar bazaio, akabo”. (4. taldea)

“Nik uste dut atzerriko jendearekin harremanik ez dutenak telebistan ikusten duten horrekin gelditzen direla azkenean. Lehen esan duzun legez, halakok ez dakit nor hil duela, etab. Beraz, ez dute pentsatzen pertsona hori hil dutela, baina hemengo beste batek ere hil duela beste norbait, edo seme-alabak erre dituela; ez dute gogoetarik egiten horretaz. Azken horiekin ez da ezer gertatzen, horretan ez gara denok berdinak nonbait. Eta atzerriar batek norbait hil badu, txarrak dira denak. Bada, ez”. (4. taldea)

“Nik uste dut une honetan arazoa hezkuntzan dagoela oro oso-osorik. Soilik telebistan esaten dutenari erreparatu behar bazaio, akabo. Bil dezagun informazioa beste baliabide batzuetatik ere, bestela, gureak egin du... Tira, egin du jada”. (4. taldea)

“Es que nik azkenean uste dut influentzia direktoena telebista dala, baina telebista gero eta gutxiago ikusten da gehienbat gazteen artean, así que... no sé”. (3. taldea)

Beraz, diote komunikabideek soilik kasurik negatiboenegaz hitz egiten digutela, eta ahalegin bat egin beharko litzatekeela kasu, ibilbide eta esperientzia positiboak ere ikusarazteko, arlo hori landu behar litzatekeela.

“Hortaz, oreka bat bilatu behar litzateke hor. Zerbait txarra gertatu bada, atera dadila albistegietan, baina jar ditzatela lagungarri diren gauza on batzuk ere”. (1. taldea)

“Nik uste dut ideia ona litzatekeela zaharrenek, ez etorkinek, hemengo jendeak baik... komunikabideetan, etorkinen batek delituren bat egiten duenean, hots handiz ateratzen dute, ez? Txarra nabarmen erakusten dute, eta ona, berriz, gutxi”. (1. taldea)

Gainera, gazteen ustez, bada komunikabideetan azpimarra daitezkeen beste kontu bat ere: euskal gizartea barneratzen ari den aniztasunari gero eta ikusgarritasun handiagoa ematea. Horrekin lotuta, diote positiboa litzatekeela haurrentzat erreferente izan daitezkeen programa eta espazioetan horrekin lotura estuagoa duten balioak sustatzea.

“Adibidez, orain Go!azen umeentzako erreferente dira, ordun ere segun ze balore transmititzen dituzten umeek hori jasoko dute, ordun holako programak edo egitea nik uste beharrezkoa dala”. (3. taldea)

Azkenik, garrantzi handia ematen diote euskal gazteek informazioaren gaiari. Haien iritziak, azken hamarkadetan izan diren aurrerapenei esker, nabarmen errazago eskura dezakegu orain informazioa. Ildo horretatik, uste dute gauzak aldatu egin direla lehendik hona eta, gaur egun, edonork duela informazio gehiago bilatzeko eta kontsultatzeko aukera. Dena den, belaunaldien arteko

arrakalari aipamena eginez, informazioa bilatzeko eta eskuratzeko gaitasunak bereizten du belaunaldi hau aurrekoetatik, haien esanetan.

“Es que, azkenean hori inportantea da erakustea bakoitzak bere, zera... bakoitzak bere opinioa euki behar du eta ez baldin badaukazu iritzi bat zeozeri buruz ba informatu... azkenen, interneten eta hola pilo bat gauz daude, ez da lehen bezala etxeko heziketakin eta bakarrik geratzen zinala, gaur egun pilo bat aukera dituzu”. (3. taldea)

“Bai, nire ustez ere horrek pilo bat markatzen du gaurko generazioaren eta aurreko generazioaren artean”. (3. taldea)

Nolanahi ere, zuhur jokutzen dute gazteek eskura duten informazioarekin eta egiazkotasunarekin. Zurrumurru batzuk zokoratzeko baliagarri izan daitezkeen datu batzuk ezagutarazteko lan handiagoa egin behar litzatekeela diote, esate baterako, atzerritar jatorriko pertsonen herritarren diru-kutxari egiten dioten ekarpenari buruzko datuak emanaz eta konparatuz.

“Batziek uste dute dirulaguntzak kobratzera datozela soilik, eta ez dutela kotizatzen, eta zer dakit nik. Hori guztia argitzeko, argi erakuts daitezke zenbakiak “. (1. taldea)

3

Ondorioak

Ondorio gisa, esan daiteke euskal gizarte berria harmonian dagoen aniztasun baterantz doala. Eta “doala” diogu, ikerketa honetan argi eta garbi ikusi delako oraindik ez dela nabarmenegia (oker izendatutako) bigarren belaunaldien presentzia —ikerketa honetan kontuan hartu den adin-tartean gutxienez—, eta, beraz, ez direlako ohikoak ezta ere jatorri autoktonoko eta atzerritar jatorriko gazteen arteko harremanak.

Kontaktu hori oso agerikoa ez bada ere, horretarako aukera gehiago eskaintzen dituzten guneak hauteman dira. Horietako lehena hezkuntzaren esparrua da, bi jatorri horietako euskal gazteak ikastetxeetan erlazionatu baitira oro har. Aisialdiko jarduerak eta eskolaz kanpoko jarduerak izango lirateke elkartzeko beste gune garrantzitsu batzuk. Edota lan-merkatua, ikasketak amaitu dituztenek diotenez, beren lanpostuetan beste jatorri batzuetako pertsonekin harremanak izateko aukera izan baitute. Batez ere hezkuntzaren esparruan lan egiten dutenek, bigarren belaunaldikoak baitituzte ikasleen artean.

Kontaktua naturalagoa den gune horietan, errazago sor daitezke harreman sentimentalak; hala ere, ikerketaren arabera, oso gutxi dira oraindik beren inguru hurbilean bikote mistoak.

Taldeetan parte hartu duten 18 urtetik 25era bitarteko gazte horien artean, bigarren belaunaldi horren presentzia ez da oso nabarmena; baina adierazi dute belaunaldi berriek —parte-hartzaileak baino gazteagoak diren lehengusuak, anai-arrebak edota ilobak— bigarren belaunaldiko jendea dutela beren inguru hurbilean.

Jatorri autoktonoko eta atzerritar jatorriko gazteen arteko kontaktua bultza edo eragotz dezaketen faktoreen artean, lau jotzen dira garrantzitsuenetakotzat: hizkuntza, hezkuntza-esparrua, kultura eta hona heldu diren adina (1.5 belaunaldiaren kasuan).

Gazte autoktonoen ustez, oinarrizkoa da jatorriz atzerritarren diren pertsonen EAeko hizkuntza ofizialetako bat gutxienez jakitea, horrek elkarrekin komunikatzeko eta, beraz, harremanak izateko aukera ematen dietelako. Zentzu horretan, zenbait taldetan azpimarratu da jatorri latinoamerikarra duten pertsonen abantaila nabarmena dutela, gehienen ama hizkuntza gaztelania baita, hau da, EAeko hizkuntza ofizialetako bat, hain zuzen. Hala ere, hasierako abantaila hori automugatzailerik ere bilaka daiteke, euskara ikasteko interesa murriztu baitezake; beraz, faktore hori kaltegarria gerta dakieke, etorkizunean euskaldunagoa den inguru batean biziko balira. Aldiz, beste jatorri batzuetakoek, hasiera batean hemengo hizkuntzarik ezagutzen ez dutenek, desabantaila hori beren alde berbidera dezakete, hizkuntza ikasi behar horrek bi hizkuntzak ikastera bultza baititzakete, edota euskara ikasteko erabakia hartzera, hemengo biztanleen artean sarritan sinpatia handiagoa sortzen duen hizkuntza baita.

Beraz, lehenengo faktore hori hona heldu diren adinari dagokionarekin lotuko litzateke, zenbat eta lehenago heldu errazagoa egiten baitzaie helmugako herrialdeko hizkuntza ikastea. Era berean, hezkuntza-faktorearekin ere lotuta egongo litzateke hori, EAeko ikastetxeek bi hizkuntzetan eskaintzen baitute prestakuntza. Beraz, hiru eredutan banatuta dago eskaintza: A, komunikazio-hizkuntza gaztelania duena; B, eredu mistoa; eta D, komunikazio-hizkuntza euskara duena. Parte hartu duten pertsonen adierazi dutenez, banaketa hori da bigarren belaunaldikoekin harremanik ez izateko arrazoietakotzat. Atzerritarren ondorengoak direnak A ereduari matrikulatzen dira normalean, eta parte hartu duten gehienek B edo D ereduari ikasi dute.

Bigarren belaunaldiek ikasketak D ereduari hasi dituzten kasuetan, euskara inongo arazorik gabe ikasi dutela adierazi da. Eta horrek, askotan, sinpatia sortzen die jatorriz hemengoak diren ikasleei. Ostera, 1.5 belaunaldikoek —adinean aurrera doazela iritsi direnak— zailtasun handiagoak dituzte euskara ikasteko.

Hezkuntzaren esparruan, irakasleen eta gurasoen jarrera azpimarratu da. Ezinbestekoa da irakasleek harreman normalizatuak bultzatea irakasleen artean, batzuetan ez dela horrela izan ikusi baita. Gurasoen (autoktonoak) aldetik ere, halako jarrera baztertzailerik hauteman da beren seme-alabek atzerritarren ondorengoak direnekin eskolak partekatzeari dagokionez; horregatik, ikastetxe pribatuetan edo itunpekoetan matrikulatzen dituzte, etorkinak diren gurasoek ez dutelako aukerarik izaten seme-alabak ikastetxe horietan matrikulatzeko, normalean maila sozioekonomiko baxuagoa dutenez.

Beraz, hezkuntzaren esparruan badugu beste batanketa bat ere, maila sozioekonomikoarekin zerikusia duena —hizkuntzaz gain—, eta horrek jatorri autoktonoko gazteen —maila sozioekonomiko ertaina edo altua— eta atzerritarren ondorengoak diren gazteen —maila sozioekonomiko ertaina edo baxua— arteko harremana zailtzen du.

Talka kultural bat ere badagoela aipatu da, eta euskal gazteen artean harremanak sortzeko orduan oztopo izan dela ikusi da kasu batzuetan. Adibidez, askotariko jatorriak dituzten bigarren belaunaldikoek aisialdirako ohitura desberdinak dituztela adierazi da, eta, sarritan, etxetik ikastetxera eta ikastetxetik etxera joaten direla soilik. Gainera, atzerritarren ondorengoak diren neska batzuen eta mutil autoktonoen arteko harreman eza azpimarratu da, generoen arteko harremanei buruz duten ikuskera oso bestelakoa delako.

Identitate kulturala definitzeko orduan aldeak badaude ere —pertsonek batzuk gehiago identifikatzen dira beren gurasoen kulturarekin, eta beste batzuk, berriz, jaio diren herrialdeko kulturarekin—, talde batek baino gehiagok adierazi dute atzerritarren ondorengoak diren gazteek, askotan, “hemengoarekiko” desberdintasun horretan oinarrituta osatzen dutela beren lagun taldea; errealitate horrek jatorri autoktonoekin nahasteko aukera zailtzen du, eta, ondorioz, zailagoa zaie harreman normalizatuak izatea.

Atzerritarren ondorengoak direnen artean matxismoaren prebentzia ere handiagoa dela adierazi da, eta horrek harreman sentimentalak zailtzen ditu bereziki, balio matxistak dituen pertsona batekin harremanak izatea ez litzaiekeela gustatuko azpimarratzen baitute neska autoktonoek.

Bestalde, adierazi da euskal kulturak berak ere ez duela errazten beste pertsona batzuekin loturak izatea, kuadrillak oso itxiak baitira eta, kuadrilla osatua denean, oso zaila baita han sartzea.

Euskal gazteen arteko harremanak bultzatzea edo oztopa ditzakeen azken faktorea adinarekin dago lotuta; hau da, zer adinekin iritsi diren hona. Horrela, egiaz “bigarren belaunaldi” etiketan sartzen diren pertsona horiei errazagoa izango zaie gizartean integratzea eta parekoekin harreman naturalak izatea. Aldiz, beranduago iristen direnek zailtasun handiagoak izaten dituzte, alde batetik, biztanle autoktonoekin ez dutelako harremanik izan txikitatik, eta, bestetik, ez dutelako hemengo hizkuntza ongi erabiltzen.

Oro har, euskal gazteek modu positiboan balioesten dituzte bigarren belaunaldikoekin izan dituzten edo gaur egun dituzten harremanak; kultura desberdinak ezagutzeko aukera gisa ikusten dute, eta EAErako aberastasun-iturri gisa. Ildo horretan, Euskal Herrian jaio direnak “bat gehiago” direla diote. Ez da kontuan hartzen pertsonaren edo gurasoen jatorria; aitzitik, pertsona bera eta haren izateko modua balioesten dira.

Hala ere, harreman hori horren atsegina izan ez den kasuak ere aipatu dira: bigarren belaunaldiak iseken biktima izan dira zenbaitetan, eta kasu puntual batzuetan, baita indarkeria fisikoaren biktima ere, atzerritarren ondorengoak izatearen ondorioz, hau da, gazte autoktonoen ikuspegitik desberdin egiten dituen ezaugarri horren ondorioz.

Beste batzuetan, atzerritarren ondorengoak diren gazteek izandako jarrerak eragin dute harremanetan sumatutako nahigabe hori. Kasu horietan, gazte autoktonoen pertzepzioek negatibotasunera jo dute, nahiz eta ez diren ohikoak. Negatiboa dena azpimarratzeko gizarteak duen joera gehitu behar zaio horri, horixe sumatu baitute; eta kolektibo osoaren irudia kaltetzen du horrek.

Hala ere, harreman horiek ez dira beti euskal gazteek bigarren belaunaldiekiko dituzten beldurren eta mesfidantzen ondorio. Etorrin oro arriskutsua eta mehatxu potentziala delako idea dago gizartearen imajinarioan. Bada beste ideia bat imajinarioan sortua: denek probetxu atera nahi dietela gizarte-laguntzei eta prestazioei. Dena den, pikarokeria ezaugarri unibertsal gisa ere aipatu dute, eta ez da uste jatorri atzerritarreko biztanleak nahitaez biztanle autoktonoak baino pikaroagoak direnik. Zentzu horretan, erakundeen aldetik kontrola falta dela kritikatzeko da.

Jatorriaren arabera, errumaniarrekiko, magrebtarrekiko eta txinatarrekiko dute pertzepzio txarrena, jatorri horietakoak hainbat arazo eta gatazkarekin lotzeko joera baitago —jihadismoarekin, esaterako, magrebtarren kasuan—, eta baita matxismo handiagoarekin ere. Itxuraren faktorea ere hor dago: ez da gauza bera atzerritarra dela nabaritzen ez zaion pertsona bat izatea, edota azal ilunagoa duen edo fenotipikoki biztanle autoktonoarekin alderatuta desberdina den norbait izatea. Nahiz eta Euskadin jaio eta hazi, batzuk atzerritar gisa kalifikatzen dira dituzten ezaugarriengatik, eta modu desberdinean tratatzen dira.

Era berean, maila sozialaren aldagaia sartuko litzateke jokoan, argi eta garbi apoforoa den gizarte bat desbribatzen baitigute taldeetan, hau da, ezaugarri guztien gainetik pobreak baztertzen dituen gizarte bat.

Oinarririk ez duten estereotipo eta pertzepzio negatibo horiek desagerrarazteko eta elkarrekin harmonian bizi ahal izateko, badirudi garrantzitsua dela harremanak sustatzea jatorri autoktonoa duten gazteen eta atzerritarren ondorengoak direnen artean. Harremana edo kontaktua sustatzen duten faktore horiek behin eta berriz azpimarratu behar dira; harremanetan jartzen direnean, autoktonoek “desberdinak” edota “berriak” direnekiko izan dezaketen mesfidantzako jarrera hori desagertu egiten da; parte-hartzaileek aipatu duten “langa ikusezin” hori eraitsi egiten da, eta pertzepzioak kualitatiboki hobetu egiten dira.

Ildo horretatik, euskal gizartearen nondik norakoaz galdetu zaienean, gazteek bi iritzi agertu dituzte; talde batek nahiko etorkizun baikorra erakutsi du, eta beste taldeak, aldiz, ikuspegi ezkorragoa erakutsi du.

Lehenengo taldearen iritziz, gazteen arteko harremanak, luzea eta neketsua izango den prozesu natural bati jarraituz, normalizazio batera iritsiko dira. Euskadin jaio izanak eta betidanik jatorri autoktonoko hurrekin batera ikastetxera joan izanak etorkizuneko belaunaldien integrazioa ekarriko du bere kabuz. Gainera, gaur egungo gazteak aurreko belaunaldikoak baino toleranteagoak eta harkorragoak direla uste dute, eta aniztasunerantz gero eta irekiagoak diren belaunaldiak ugaritzea ekarriko du horrek. Hala ere, eta etorkizunaren aurrean jarrera baikorra duten arren, onartzen dute oso zaila izango dela gaur egungo gizarteak dituen estereotipoak eta aurreiritziak guztiz desagerraraztea.

Bigarren taldeak, hau da, etorkizunarekiko jarrera pesimistagoa duenak, bere iritziaren arrazoia azaldu du: gizarteak bigarren belaunaldi hauek autoktono gisa onartzen ez dituen artean, ez dira gizarte horretako partaide izango. Parte hartu duten pertsona batzuek, gainera, indarrean dagoen arrazismo berri bat aipatu dute; beste modu eta ñabardura batzuk ditu, eta zailagoa da hautemateko. Azken urteotan muturreko eskuinak hartu duen garrantzia litzateke fenomeno horren adierazle posible bat; gorakada hori oso kaltegarria da (kutsatutako hazitegi bat), lehen aipatutako gazteen arteko harremanak modu naturalean garatzeko.

Beraz, eta aniztasuna onartuko eta normalizatuko duen etorkizuneko gizarte bat sortzeko, bi jatorrietako gazteen arteko harremana bultzatuko edo oztopatuko duten faktoreekin oso lotuta dauden jarduketa-esparruak identifikatu dituzte. Kasu horretan, hezkuntza eta informazioa azpimarratu dira bereziki.

Hezkuntzari dagokionez, txiki-txikitatik ikastetxean batzuk besteekin nahasteak duen garrantzia azpimarratu da. Horretarako, garrantzitsua izango da zenbait ikastetxe publikotan gaur egun dagoen kontzentrazioa saihestea, eta horretarako, ikastetxe guztietan bi jatorrien presentzia orekatuta dagoen begiratzea proposatu dute. Aniztasun kulturala kontuan hartzen duten metodologia berriak abian jartzeak duen garrantzia ere azpimarratu dute, eta ildo beretik lanean jarraitu beharra dagoela adierazi dute. Hala ere, badakite belaunaldi berriek etxean jasoko duten hezkuntzak oinarri-oinarrizkoa izaten jarraituko duela, ikasgeletatik egiten den ahalegin guztiaz gain.

Informazioari dagokionez, komunikabideek (des)informazio-iturri gisa betetzen duten lekua azpimarratu da, berri askoren atzean interes politikoak daudela sumatzen baita. Immigrazioarekin eta, beraz, bigarren belaunaldiekin lotutako alderdi negatiboak soilik azpimarratzen direla ere salatu da; hau da, haien jarduketa okerrak soilik erakusten direla. Horren aurrean, behar-beharrezkoa da positiboa dena ere azpimarratzea, autoktonoek atzeritarrekiko osatutako

imaginarioa kalterik ez eragiteko. Amaitzeko, aipatu dute badakitela pribilegiatuak direla mota guztietako informazioa eskuragarri duten une historiko batean jaio direlako, eta horrek, aldi berean, informazioen aurrean zuhurragoak izaten laguntzen diela, bestela “desinformaziora” irits daitezkeelako.

Euskal gazteek kontatutakoaren arabera, gaur egun, hurrek, jatorria alde batera utzita, hezkuntza-espazioak partekatzen dituzte, eta elkarren arteko trukea, elkarren ezagutza eta etorkizuneko euskal gizartea osatzen duten pertsona direla aitortzea ahalbidetuko du horrek modu naturalean; horixe da, hain zuzen, indargune edo alderdi positibo nagusia, etorkizuneko integrazio-prozesuei eta inklusio-prozesuei begira. Horregatik, garrantzitsua da hezkuntzaren esparruari baliabideak eskaintzea eta esparru horretan ahalegina egitea, tratu-berdintasunean oinarrituta dagoen eta, arrazoiak arrazoi, pertsona bakar bat ere baztertu-ko ez duen hezkuntza-lerro bat indartzeko.

Gainera, gaur egungo gazteak, euskal herritarren hurrengo belaunaldiak balioetan oinarrituta gizarteratuko dituztenak, gaur egungo gurasoen belaunaldiak baino irekiagoak eta tolerantiagoak dira.

Hala ere, hauteman dira aurre egin, kudeatu eta konpondu beharreko zenbait arazo ere, eta, horien artean, jatorri atzerritarra dutenez edota atzerritarren ondorengoak direnez ditugun aurreiritzi eta estereotipo faltsuen etengabeko presentzia nabarmendu da. Euskal gazteen iritziz, bereziki garrantzitsua da euskal gizarte osoan balio inklusiboak sustatzea, pertsonak beren ezaugarri edo jatorriaren arabera baztertzen ez dituen hezkuntza indartzeko tresna gisa.

Goiko lerroetan adierazitako punturik garrantzitsuenaren kontrapisu gisa, eztabaida-taldeen narratibetan, ikastetxe batzuek dituzten kontzentrazioak kontuan hartu beharrekoak direla azpimarratu da, balioetan oinarritutako hezkuntza partekatua oztopatzen eta pertsonen arteko elkartrukea eragozten baitu horrek. Garrantzitsua da, beraz, ikasleen ezaugarriak (beren jatorria, arbasoen jatorria edo estatusa) kontuan hartuta ikastetxeetan dauden desberdintasunak eta desorekak desagerrarazteko eta, hala ezin bada, murrizteko edo arintzeko neurriak hartzea. Dena den, ezinbestekoa dirudi hezkuntza-esparruak duen izaera konpentsatzailea berreskuratzea, ikasle guztiei arreta bera eskainiz, baldintza beretan lan eginez eta lan-merkatuan sartzeko orduan berdintasuna bermatuz, euskal herritar guztiei aukera berdinak eskaini ahal izateko. Horretarako, honako hau da gure proposamena: euskal eskolak, beste jatorri batzuetako pertsonen arreta kontuan hartuta, ikastetxeen artean egon daitezkeen desorekak konpentsatu behar ditu, baliabide material eta giza baliabide gehiago eskainiz.

Gure gazteen diskurtsoetan, leku nabarmena hartzen du komunikabideekin lan egiteak ere, aurreko puntuak garatzeko tresna osagarria eta ezinbestekoa denez; aurreiritziak eta estereotipoak murriztu behar dira horretarako, edo ez sustatu behintzat; eta euskal gizarte plurala, askotarikoa eta kulturantzuna

osatzen dugun pertsonen arteko tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarritutako balioak indartu behar dira.

Hori guztia testuinguru honetan egin behar dugu, gure inguruko gizarteetan diskurtso eta jarrera xenofoboak zigorrik gabe geldi daitezen aukera ematen duten espazioak irekitzen dituen testuinguru mehatxagarri honetan. Munduko, Europako eta Espainiako ultraeskuineko zenbait sektorek diskurtso baztertzailak eta xenofoboak agertu dituzte, eta gure udalerrietako eta auzoetako bizikidetzak kaltetu dute edo arriskuan jarri dute. Euskal gazteentzat, garrantzitsua da gure zuzenbidezko estatutik kanpo dauden eta kolektibo batzuetako pertsonen eskubideak urratzen dituzten jarrera eta jokabide horiei muga jartzea. Tratu-berdintasuna eta diskriminazio eza ikuspegi motzeko patrioterismo zahar eta hutsal berri horien gaineratik daude legearen aurrean.

Azken gogoeta bat: euskal gazteek behin eta berriz diote hezkuntzaren esparrua indartu behar dela bidezkoagoa, bateratuagoa, solidarioagoa eta berdintasunezkoagoa den euskal gizarte baten ereduak lortzeko, elkartrukerako eta pertsonen arteko harreman erakikitzaile positiboak sortzeko gune gisa, etorkizuneko belaunaldi zintzoak bermatu ahal izateko, eta euskal gizarteko helduen artean tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren balioak sutatu behar direla.

ERANSKINAK

2018KO BAROMETROAREN GALDE-SORTAKO GALDERAK

39. Atzerriko immigrazioari dagokionez, pertsona batzuk duela gutxi iritsi dira; beste batzuek, ordea, urte asko daramatzate hemen. Zure iritziz, noiz uzten dio pertsona batek «immigrante» izateari «euskal herritartzat» jotzeko? (EZ IRAKURRI: kodifikatu aipatzen diren erantzun guztiak)

	39G	40G		
		Bai	Ez	Ed
Inoiz ez, beti izango da etorkina	1			
Hemen bizitzea	2	1	2	0
Hemen urte asko bizitzea (5 urtetik gora)	3	1	2	0
Hemen lan egitea	4	1	2	0
Hemen ikastea	5	1	2	0
Euskara hitz egitea	6	1	2	0
Hemengo norbaitekin ezkontzea	7	1	2	0
Seme-alabak hemen izatea	8	1	2	0
Hemengo kuadrilla bat izatea	9	1	2	0
Hemen jaiotzea	10	1	2	0
Euskal kultura maitatzea	11	1	2	0
Pisu bat, onibar bat izatea hemen	12	1	2	0
Hemen zer gertatzen den jakitea	13	1	2	0
Beste ezaugarri batzuk	14			
Ed/Ee	0			

40. Zure iritziz, zer da beharrezkoa pertsona bat «euskal herritartzat» jotzeko? (IRAKURRI BANAN-BANAN)

41. Zure ustez, etorkinen seme-alabak, hemen jaio direnak, jo al daitezke euskal herritartzat nahiz eta beste kolore bat izan, beste erlijio bat izan edo beste hizkuntza bat hitz egin, Euskadiko herritarren gehiengoarena ez dena?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ee	0

42. Zure ustez, etorkizunean, hemendik hamabost edo hogeitara, euskal gizarteak gainerako herritarren antzera hartuko al ditu atzeritik etorritako aita edo/eta ama duten pertsonak? (IRAKURRI BANAN-BANAN JATORRIAK)

	Bai	Ez	Ed
Mendebaldeko Europakoak	1	2	0
Ekialdeko Europakoak	1	2	0
Ipar Afrikakoak, magrebtarrak	1	2	0
Saharaz hegoaldekoak, Afrika Beltzekoak	1	2	0
Latinoamerikarrak	1	2	0
Asiarrak	1	2	0

43. Zure ustez, etorkizunean, hemendik hamabost edo hogeitara, euskal gizarteak arazoak izan ditzake atzerrian jaiotakoak eta/edo atzeritarren ondorengoak diren pertsonen kolektiboren batekin?

Ez, ziur ezetz	1
Ez, ez dut uste	2
Agian bai, agian ez, segun	3
Bai, baliteke baietz	4
Bai, ziur baietz	5
Ed/Ee	0

EZTABAIDA-TALDEEN GIDOIA

ZEIN DA XEDEA?

- Gazte autoktonoak atzeritarrekin (hainbat jatorritakoekin) non edo zer espaziotan jartzen diren harremanetan ezagutzea.
- Harreman hori zer-nolakoa den ezagutzea (ezagunak, lagunak, bikotea).
- Esperientziak (positiboak, negatiboak)
- Etorkizuna

AURKEZPENA (5-10 minutu)

Lehenik, mila esker guztioi etortzeagatik. Badakigu beti izaten direla egin beharreko gauzak, eta zaila dela zuentzat guri denbora hau eskaintzea; baina guztiontzat, zuentzat nahiz guretzat, positiboa izango dela uste dugu. EHUtik gatoz, eta batzuek bigarren belaunaldi deritzoten horri buruzko ikerketa bat egiten ari

gara, hau da, seme-alabak Euskadin izan eta bertan hazten dituzten familia imigrantei buruzkoa, hain zuzen. Beraz, gazte horiek hemen jaio dira edota oso txikiak zirela iritsi ziren hona, baina beste herri eta kultura batzuetatik etorri diren gurasoek hezi dituzte.

Aurreko etapetan, familia eta gazte horiekin bildu gara. Baina, (oker izendatutako) bigarren belaunaldi horien errealitateari buruzko ikuspegi osoago bat izateko, garrantzitsua iruditu zitzaigun bertako gazteekin ere elkartzea, zuek baitzaudete egunerokoan adin berekoak diren baina jatorri, arraza, kultura, hizkuntza eta erlijio desberdinekoak diren gazte horiekin harremanetan.

Zuen errealitatea, iritziak, esperientziak, usteak eta balioespenak ezagutu nahi ditugu, besterik gabe. Eta horretarako, zuekin elkarrizketa labur bat izan nahi genuke, guztioi parte hartzeko eta gure iritzia emateko aukera emango digun elkarrizketa lasai bat. Bilera hau grabatu egingo dugu, ondoren aztertu ahal izateko; baina une oro bermatuta dago parte-hartzaile guztien anonimotasuna.

GIROA BEROTZEN HASTEKO GAIA (20 minutu)

- Aisia. Normalean zer egiten duzue zuen denbora librean? Zer jarduera egiten dituzue? Non ibiltzen zarete (herria, hiria, auzoa, etab.)? Norekin elkar-tzen zarete (lagun-kuadrilla, kirol-taldea, bikotea, etab.)? Atzerritarrekin topo egiten duzue?

AUZOEN ERREALITATEA (30 minutu)

- Baduzu immigrantea den ezagunik?
- Nongoak dira?
- Nola eta non ezagutu dituzue?
 - Ikasketak (ikastetxea/unibertsitatea/LH/akademia)
 - Aisia (kirol-taldea, eskautak, elkar-teak, auzoa...)
 - Lana
 - Beste lagun batzuen bitartez
- Ezagutu zareten guneeetatik kanpora, izan duzue harremanik? (Zergatik izan duzu? Zergatik ez?)
- Zer motatako harremana duzue haiekin? (ezagunak bakarrik, lagunak, bikotekidea...) Zergatik? (Azpimarratu atzerritarrekin harremanak izatearen edo ez izatearen atzean dauden arrazoiak)

ETORKIZUNA (30 minutu)

- Zer deritzozue etorkizunean EAEn kultura eta hizkuntza-aniztasun handiagoa izateari? (positiboa/negatiboa)
- Zer iritzi duzu zure kuadrillan/lagun taldean atzerritar bat izatearen inguruan?
- Izango zenuke harremanik atzerritar batekin? Zergatik bai edo zergatik ez? Haren kultura onartuko zenuke (zenbait elikagai ez jatea, etab.)? (jatorri desberdinak)
- Axolako zitzaizuen atzerritar baten ondoan lan egitea? (jatorri desberdinak)

KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK...

- Kultura. Kultura-jarraibide desberdinak (ohitura desberdinak, aisialdiko jarduera desberdinak, jaien edota erlijioaren garrantzia). Atzerritarrekin harremanak izateko orduan (edo ez izateko orduan), ohitura desberdinak izateak eragina duela uste duzue?
- Hizkuntza (euskara – gaztelania). Komunikazioak (ongi komunikatzeak/ulertzeak) badu eraginik atzerritarrekin izandako (ez izandako) harremanetan?
- Hezkuntza.
 - Kontuan hartu ikastetxe mota: ikastola, publikoa, erlijioso itunpekoa.
 - Hizkuntza-eredua.
 - Hezkuntza-etapa: eskola, LH, unibertsitatea.
- Erasmuseko esperientziak.
- Jatorria. Kontuan hartu beti atzerritarren jatorria. Gazte autoktonoek iritzi/esperientzia berak al dituzte leku desberdinetatik datozen atzerritarrei buruz? (Europa, Ekialdeko Europa, Afrika, Magreb, Latinoamerika...)

EZTABAIDA-TALDEEN PROFILAK**1. Bilboko eztabaida-taldea:**

- Euskadin jaiotako 22 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 25 urteko mutila, lanean ari dena eta unibertsate-ikasketak eginda dituena.
- Euskadin jaiotako 23 urteko neska, langabezian dagoena eta unibertsate-ikasketak eginda dituena.
- Euskadin jaiotako 24 urteko mutila, langabezian dagoena eta unibertsate-ikasketak eginda dituena.
- Euskadin jaiotako 24 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 25 urteko neska, lanean ari dena eta goi-mailako ikasketak eginda dituena (LH).
- Euskadin jaiotako 23 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 25 urteko neska, lanean ari dena eta unibertsate-ikasketak eginda dituena.
- Euskadin jaiotako 22 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.

2. Gasteizko eztabaida-taldea:

- Euskadin jaiotako 21 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 20 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 20 urteko mutila, langabezian dagoena.
- Euskadin jaiotako 19 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 18 urteko neska, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 18 urteko mutila, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 19 urteko mutila, batxilergoko ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 21 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 21 urteko neska, lanean ari dena.

3. Tolosako eztabaida-taldea:

- Euskadin jaiotako 19 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 20 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 20 urteko mutila, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 19 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 18 urteko neska, batxilergoko ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 19 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 18 urteko mutila, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 19 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 19 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.

4. Laudioko eztabaida-taldea:

- Euskadin jaiotako 24 urteko neska, unibertsate-ikasketak eginda dituena eta lanean ari dena.
- Euskadin jaiotako 22 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 22 urteko neska, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 24 urteko neska, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 22 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 24 urteko mutila, unibertsate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 25 urteko mutila, unibertsate-ikasketak eginda dituena.
- Euskadin jaiotako 22 urteko mutila, langabezian dagoena eta goi-mailako ikasketak (LH) eginda dituena.

5. Durangoko eztabaida-taldea:

- Euskadin jaiotako 18 urteko mutila, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 19 urteko mutila, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 19 urteko mutila, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 18 urteko mutila, goi-mailako ikasketak (LH) egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 20 urteko neska, unibertsitate-ikasketak egiten ari dena.

6. Donostiako eztabaida-taldea:

- Euskadin jaiotako 23 urteko neska, lanean ari dena eta unibertsitate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 23 urteko mutila, unibertsitate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 25 urteko neska, lanean ari dena eta unibertsitate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 23 urteko mutila, unibertsitate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 23 urteko neska, unibertsitate-ikasketak eginda dituena eta unibertsitate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 25 urteko mutila, unibertsitate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 22 urteko mutila, unibertsitate-ikasketak egiten ari dena.
- Euskadin jaiotako 22 urteko mutila, lanean ari dena.
- Euskadin jaiotako 24 urteko neska, lanean ari dena.

Azkenaldiko migrazio-fenomenoek euskal errealitate soziokulturala aldatu dute. Gure gizartean bazen aniztasuna atzerritar jatorriko pertsonak iritsi aurretik ere, baina are handiagoa da gaur egun, eta are handiagoa izango da etorkizun hurbilean. Aniztasun gero eta handiago horrek inoiz ez bezalako erronkak jartzen dizkigu aurrean, gizartearen harrerari, kohesioari, bizikidetzari eta integrazioari lotuta.

Uneotan bizitzen ari garen aldaketa horiek argitze aldera, Ikuspegik, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, ikerlan sakon bat egin du, Euskadin bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen seme-alaben fenomenoari heltzeko, jakiteko nolako gizarte-errealitatea bizi duten atzerritar jatorriko aita edo ama duten eta EAEn jaio diren neska-mutikoei eta gaztetxoei (edo adin txikiarekin berriz elkartutakoek).

Bata bestearen atzetik egindako zenbait txostenetan jorratu da gizarte-fenomeno hori, eta hainbat ikuspegitatik aztertu (gaiari heltzeko ikuspuntu teorikoetatik, gizarteri eta demografiari buruzko datuetatik, adituen ikuspegietatik, hezitzaileen ikuspegietatik, hamar bizibide arrakastatsuren testigantza biografikoetatik, 0 urtetik 6 urtera bitarteko haurren eta 7 urtetik 16 urtera bitarteko gaztetxoen ikuspegitik, haien familienetik, afrikar jatorriko emakumeen ikuspegitik, 16 urtetik 25 urtera bitarteko gazteenetik eta euskal gizartearen ikuspegitik), haien gizarte-errealitatearen ikuspegi poliedriko bat eskaintzeko xedearekin, betiere.

Txosten honek bat egiten ditu txosten partzial horiek. Zuen interesa piztuko duelakoan eta atsegingo duzuelakoan gaude, irakurri ahala aukera ematen baitu gure garaiotako euskal gizartearen protagonista handietako batzuk ezagutzeko: atzerritar jatorriko euskaldunak.

